CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 81-7ª Planta
48011 Bilbo
Diseinu: Cuatrobarras Comunicación
Maketazioa eta fotomekanica: Ikur, S.A.
Inprenta: Baster, S.L.L
ISSN: 1577-1393
Lege Gordailua: BI-134-11

09

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA

Juan María Otaegui Murua
Presidentea

EKONOMIARIK GARRANTZITSUENEN TALDEAN SARTZEA

Memoria sozioekonomiko hau Euskal Ekonomi eta Gizarte Arazoetako Batzordearen osoko bilkurak 2010eko urriaren 27an onartu zuen. Agiri honetan, 2009ko euskal ekonomiaren portaera eta gizarte egoera aztertu ditugu eta diagnostiko bat eskaintzen dugu, EEGAB osatzen duten gizarte eta ekonomi eragileekin aldez aurretik konpartitu duguna. Horregatik, lehenik eta behin, dokumentu hau zenbait hilabetez eztabaidatu eta jorratu duten pertsonei eskerrak eman nahi dizkiet: Memoria sozioekonomikoaren batzordea osatzen duten kontseilukide hauek dira: Antxon Tomasena (CCOO), Eduardo García (CCOO), Raúl Arza (UGT), Maribel Ballesteros (UGT), Eduardo Aréchaga (Confebask), Jaime Fernández (Confebask), Rafael Aranguren (aurrezki kutxak eta finantza erakundeak), Xabier Iraola (arrantza erakundeak), Sylvia Gay (UPV-EHU), Javier Muñecas (ASLE), eta adituen taldeko ordezkariak, hau da, Felicísimo Ayastuy, Aitor Bengoetxea, Ignacio Barrenetxea eta Carlos Trevilla. Azterlan eta Proiektuen arduradunei ere, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzagari, eskerrak eman nahiko nizkieke, memoria koordinatu eta idatzi baitute.

EEGABak urtero egiten du memoria sozioekonomikoa, beraren bidez analisi tresna erabilgarria eskaintzeko asmoz. Izan ere, memoria horrek euskal gizarteaz eta ekonomiaz egiten duen erradiografia kontrastatutako datuetan oinarritzen da, eta bere ondorioak desitxuratu ahalko lituzketen unean uneko premietatik aldentzen da. Hala eta guztiz ere, memoria sozioekonomikoaren abantaila nagusia eragile ekonomiko eta sozialen artean adostutako gogoeta lana izatea da. Euskal gizartearen errealitatearen benetako adierazpidea da.

Munduko finantza krisiak euskal ekonomian 2009. urtean zer-nolako eragina izan duen erakusten digu dokumentu honek. Hain zuzen ere, azken urteetan BPGak zenbait aldakuntza erreal positibo izan ondoren, urte arteko tasetan, 2009. urteko lau hiruhilekoetan aldakuntza negatiboa izan zen. Aitzitik, laugarren hiruhilekoan jaitsiera moteldu zen. Hala eta guztiz ere, BPGa %3,8 murrizten da urtean, batez bestez. Industria, euskal ekonomiaren motor nagusia, %12,7 jaitsi zen, eraikuntza %3,6, zerbitzuak %0,2. Lehen sektorea, berriz, %3,6 gehitu zen. Ekonomiaren narriadura lan merkatuan eta langabeziaren kopuruetan islatu da, ezinbestean. Beraz, azken urteetan pobreziaren aurkako borrokan eta ongizatearen aurrerapenean lortutako hobekuntzak hondatzeko arriskua dago.

Testuinguru honetan, EEGABeko adituek uste dute ezinbestekoa dela produktibitatean eta lehiakortasunean hobekuntzak lortzea, hainbat eremu bultzatuz: hezkuntza eta prestakuntza, ikerkuntza, prozesuaren eta produktuaren berrikuntza, eta teknologiaren hedapena eta transferentzia. Horregatik, uste dute I+G+Bko inbertsio publikoa areagotu behar dela, baina baliabideak euskal ekonomia hoberen kokatuta dagoen eremuetara bideratuz.

Gaur egungo testuinguruan, EEGABak uste du funtsezkoa dela gure ekonomiaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten oinarriak ezartzea, eta atzeraldia gainditzen duten lehenengo ekonomien taldean sartu ahal izateko prestatzea.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. EAE-ko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-n 19

1.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA 19
1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera 22
1.1.2. Familiak eta laneko bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko arazoak 30
1.1.3. EAEko inmigrazioa 34
1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA 44
1.2.1. Hezkuntzako gastu publikoa 44
1.2.2. Unibertsitatekoa ez den hezkuntza 48
1.2.3. Unibertsitateko irakaskuntzaren eboluzioa 52
1.2.4. Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean 58
1.2.5. Hezkuntzaren adierazleak 61

2. EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAE-n 81

2.1. EGITURA PRODUKTIBOA 81
2.1.1. Enpresa egitura eta demografia 81
2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea 84
2.1.3. Industria 94
2.1.4. Eraikuntza 102
2.1.5. Zerbitzuak 105
2.2. I+G+b JARDUERAK ETA IKT-etan 119
2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak 119
2.2.2. EAE-n enpresa-sektorearen jarduerak I+G+b-n 125
2.2.3. IKTen sektorea EAE-n 137
2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAE-n 141
2.2.5. Merkataritza elektronikoa EAE-n. Familiak eta erabiltzaileak 154

3. EAE-ko INGURUNE NATURALAREN EGOERA 159

3.1. EAE-ko 2002-2020KO INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA: INGURUMEN ADIERAZLEAK 159
3.2. BASOGINTZA ETA INGURUMENA 180
3.3. ENPRESA INDUSTRIALA ETA INGURUMENA 180
3.3.1. Enpresen ingurumen konpromisoa. Ingurumenaren kudeaketa 180
3.3.2. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean 184

4. AZPIEGITURA PRODUKTIBOAK 186

4.1. GARRAIOA 186
4.1.1. Errepidetiko garraioa 188
4.1.2. Trenaren bitartez egindako garraioa 192
4.1.3. Airetiko garraioa 193
4.1.4. Itsasotiko garraioa 194
4.2. ENERGIA 196
4.3. TELEKOMUNIKAZIOAK 202

II. KAPITULUA. EAE-ko EKONOMIA

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA 209

1.1. ERAGILE EKONOMIKO NAGUSIAK 209
1.2. BILAKAERA EKONOMIKOA GUNEEN ARABERA 209
1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA 215
1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA 220
1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK 224

2. EAE-ren KOIUNTURA EKONOMIKOA 227

2.1. BILAKAERA OROKORRA 227
2.2. BARNE ESKARIA 230
2.3. KANPOKO SEKTOREA 234
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA 240

3. EAE-ko SEKTORE PUBLIKOA 248

3.1. DIRU-SARRERAK 249
3.2. GASTUAK 253
3.3. AURREKONTUKO SALDOA 256
3.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA 257
3.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK 259
3.6. EAE-ko ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOA 263

4. GIZARTE-EKONOMIA 267

4.1. GIZARTE-EKONOMIA EAE-n. LAN ETA INMIGRAZIO MINISTERIOAREN DATUAK 269
4.2. GIZARTE-EKONOMIA EAE-n: EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE-EKONOMIAREN ZUZENDARITZAREN DATUAK 271
4.2.1. Sozietate kooperatiboen erregistroa 271
4.2.2. Lan sozietateen erregistroa 272

5. LAN MERKATUA EAE-n 275

5.1. JARDUERAREN, ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA 276
5.1.1. Okupazioa 276
5.1.2. Langabezia 284
5.2. LAN MERKATUAREN SARRERA ETA IRTEERA MUGIMENDUAK 290
5.2.1. Kontratazioaren egoera 290
5.2.2. Banakako kaleratzeak eta taldekakoak 295
5.3. LAN-HARREMANAK ETA LANEKO OSASUNA 298
5.3.1. Laneko osasuna 298
5.3.2. Lan-gatazkak 301
5.3.3. Negoziazio kolektiboa: Soldataren igoera eta lanaldia 303
5.4. SOLDATAK EAE-n 306
5.4.1. Soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak, 2008 306
5.4.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2008 310
5.5. ENPLEGU ZERBITZUAK ETA POLITIKAK EAE-n 311
5.5.1. Lan eta Inmigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak - EEZP 313
5.5.2. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Politikak 320

6. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK 327

6.1. ONDASUN ETA KONTSUMOKO ZERBITZUEN PREZIOAK 327
6.2. KOSTUAK 329
6.2.1. Laneko kostuak 329
6.2.2. Produktibitatea 332
6.2.3. Unitateko laneko kostuak 334
6.3. ERRENTAK 336
6.3.1. Errenten banaketa faktoriala 336
6.3.2. Per capita errenta 338

III. KAPITULUA. BIZI-KALITATEA EAE-n

1. ZENBAIT KOLEKTIBO INTERESGARRIREN BIZI-BALDINTZAK 345

1.1. GAZTERIA 345
1.1.1. Jarrerak eta balioak 348
1.1.2. Lan mundua 351
1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetza motak 356
1.1.4. Osasuna eta bizi baldintzak 359
1.2. ADINEKO PERTSONAK 363
1.2.1. Adinekoek gizartean eta ekonomian duten rol berria 366
1.2.2. Osasun egoera 369
1.2.3. Mendetasunaren gizarte arazoa. Gizarte baliabideak 371
1.2.4. Egoera ekonomikoa 375

2. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 379

2.1. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA 379
2.1.1. Laguntza jarduerako gastua 379
2.2. OSASUNAREN IKUSPEGI OROKORRA ETA LEHENTASUNA DUTEN ARAZOAK 383
2.2.1. Bizi itxaropena 383
2.2.2. Hilkortasuna 384
2.2.3. Erikortasun adierazleak 389
2.3. OSASUN OHITURAK ETA ERAGILEAK 391
2.3.1. Bizi ohiturak 391
2.3.2. Prebentzio jarduerak. Arteria-presioaren zaintza 398
2.4. OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK 399
2.4.1. Sarrera 399
2.4.2. Osasun laguntza egitura, baliabideak eta jarduera 401

3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA 413

3.1. ZORUA ETA ERAIKUNTZA-KOSTUAK 413
3.1.1. Lurzorua EAE-n 413
3.1.2. Estatistika eraikuntzaren kostuetan 416
3.2. ALOKAIRU ERREGIMENA EAE-n 418
3.3. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA EAE-n 421
3.3.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak 422
3.3.2. Alokairu erregimena 426
3.3.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa autonomi erkidegoen arabera 428
3.3.4. Eraikuntza jarduera 430

3.4. ETXEBIZITZA PREMIAK ETA ESKAERA EAE-n 2008an **432**
3.4.1. Beharrizanen kuantifikazioa 432
3.4.2. Pertsona eta familia behartsuen ezaugarriak eta motiboak 433
3.4.3. Behar diren etxebizitzen ezaugarriak 436
3.4.4. Finantza ahalmena eta esfortzua 437
3.5. ETXEBIZITZA POLITIKA **440**
3.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika 440
3.5.2. Foru Aldundien etxebizitza politika 444

4. AISIALDIA, KULTURA ETA KONTSUMOA **446**

4.1. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN **446**
4.2. KULTURA KONTSUMOAREN GASTUA ETXEETAN **448**
4.3. BIZTANLEEN OHITURAK DENBORAREN GIZARTE ERABILERAN EAE-ko **451**
4.3.1. Hedabideen barneratzea 451
4.3.2. Biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran: Aisialdia 451
4.4. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-n **456**
4.4.1. Kultur ekipamenduetara doazen bisitariak 456
4.4.2. Biltzar eta azoka jarduera 456
4.5. ARGITALETXEEN EKOIZPENA **463**
4.6. KONTSUMOA ETA KONTSUMITZAILEAREN BABESA **468**
4.6.1. Kontsumoaren erreklamazioa 468
4.6.2. Erreklamazioen ebazpena: kontsumoko tartekaritza 469
4.6.3. Merkatu-kontrola: Jarduera ikuskatzaileak 471

5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA **473**

5.1. BIZI-BALDINTZEN INKESTAREN EMAITZAK 2008 . . . . . **474**
5.2. POBREZIAREN ETA GIZARTE ARLOKO DESBERDINTASUNEN INKESTA 2008. POBREZIAREN ETA ESKASIAREN FAKTORE EKONOMIKOAK **477**
5.2.1. Gizarte transferentzien eragina 479
5.2.2. Etxebizitzaren arazoa 482

IV. KAPITULUA. GIZARTE BABESA EAEn

1. LANGABEZIAREN BABESA: EIN-EEZP **492**

1.1. PRESTAZIOEN JASOTZAILEAK ETA LANGABEZIAREN ESTALDURA **492**
1.2. LANGABEZIA BABESTEKO GASTUAK ETA DIRU SARRERAK **496**

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAE-n 499

2.1. BESTERENDU GABEKO KUDEAKETAKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 500
2.2. ESKUALDATUTAKO KUDEAKETAKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOAK 504
2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak 504
2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtzaren laguntzako pentsioak 506
2.2.3. Minusbaliatuak gizarteratzeko legeko prestazioak 507

3. EAE-ko PROBEZIAREN ETA GIZARTE BATERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK 510

3.1. POBREZIAREN ETA BAZTERKERIAREN AURKAKO PRESTAZIOAK 511
3.1.1. Diru sarrerak bermatzeko errenta 511
3.1.2. Gizarte larrialdietarako laguntzak 514
3.2. GIZARTERATZEA ERRAZTEKO PROGRAMAK 515
3.2.1. AUZOLAN programa 515
3.2.2. Gizarteratzeko eta laneratzeko programen kudeaketa errazteko indartze-programa 516
3.2.3. Gizarte- eta laneratze-enpresak sortzeko eta babesteko laguntzak 517

4. EAE-n GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK 519

4.1. BABESTUTAKO BIZTANLEAK 521
4.2. BABESAREN INDARRA 524
4.3. ERAKUNDE BABESLEAK ETA HAIEN DIMENTSIO EKONOMIKOA 527
4.4. ZERGA ERREGIMENA 530

V. KAPITULUA. GARAPENERAKO LANKIDETZA EAE-n

1. GIZA GARAPENA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA MUNDUKO TESTUINGURUAN 537
1.1. 2009KO GIZA GARAPENAREN TXOSTENA 537
1.2. GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA 538
1.3. BIDALKETEN MUNDUKO FLUXUA 540

2. EAE-ko GARAPENERAKO LAGUNTZA 543

2.1. LANKIDETZAREN ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAREN FONDOA 544
2.2. EUSKAL FONDOA 546

VI. KAPITULUA. ARAUGINTZA EAE-n

1. ARAUGINTZA EAE-n 551

1.1. EUSKO LEGEBILTZARRA ETA EUSKO JAURLARITZA 551
1.2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK 553

VII. KAPITULUA. LABURPENA ETA AURREGOGOETAK

1. LABURPENA 557

2. GOGOETAK 583

01

EAEko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

EAEN MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

1

Giza baliabideak EAE-n

1.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

Nazio Batuen datuen arabera, munduan 6.800 milioi pertsona daude eta 2050ean 9.000 milioi baino gehiago egongo dira. Zenbateko hori 2000. urtean erregistratutakoa baino % 50 gehiago da. Ia hazkunde hori guztia herrialde txiroetan eta garapen-bidean daudenetan emango da. Gaur egun, herrialde horietan 5.600 milioi biztanle daude, eta beste 2.300 gehiagorekin areagotuko da. Hazkunde horren erdia bederatzi herrialdetan emango da: Indian, Pakistanen, Nigerian, Etiopian, Estatu Batuetan, KOngon, Tanzanian, Txinan eta Bangladeshen. Herrialde garatuak, aldiz, ia ez dira 1.230 milioi biztanle izatetik 1.280 milioi biztanle izatera pasatuko 2050ean. Berez, ONUk kalkulatu du herrialde garatuetako biztanleria 80 milioi izatera jaitsiko litzatekeela herrialde txiroenetako immigraziorik izan ezean.

Bestalde, EUROSTATek, 2009ko urtarrila erreferentzia gisa hartuta, Europar Batasunean 499,7 milioi biztanle kalkulatu zituen, 2008ko urtarrilean baino 2,2 milioi gehiago. Milako 4,4ko hazkunde horrek beste urte batez 1960tik eman den hazkundearen joera etengabeari eustea ahalbidetu du. 1960an gaur egungo Europar Batasuneko biztanleak 400 milioi ziren. Bilakaera positiboa, beste urte batez, immigrazioaren jokaerari zor zaio. Aldaketa osoaren % 27 bakarrik egotz dakioke hazkunde naturalari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

Etorkizuneko bilakaerari dagokionez, EB-27ko biztanleak 2035. urtean 520,7 milioi izatera iritsiko direla aurreikusten du EUROSTATEK. Ordutik aurrera biztanleria pixkanaka jaitsi egingo da 2060an 505,7 milioi izatera iritsi arte. Urteko jaiotzen kopuruak aldi guzti horretan behera egingo du; heriotzek, aldiz, gora egingo dute “baby boom” belaunaldikoen zahartzea dela eta. 2015ean hazkunde begetatiboa negatibo bihurtuko da, eta 2035etik aurrera migrazio-saldoak ez dira nahikoak izango joera horri aurre egiteko. Hortaz, biztanleria behera egiten hasiko da.

EAEn biztanleen kopuruak 2000an hasitako joera jarraituz gora egiten jarraitzen du 2009ko urtarrila erreferentzia gisa hartuta Biztanleen Udal Erroldako[1] azken datuen arabera. Zehazki, 2009. urtean biztanle kopurua 2.172.175 zen (+% 0,7 2008. Urtearekin alderatuta), hau da, aurreko urtean baino 15.063 pertsona gehiago, eta 2004an baino ia 57.000 pertsona gehiago. Lurralde Historikoen datuek zera adierazten dute: biz-

I.1.1. TAULA. EAE-ko biztanleriaren egungo bilakaera 2004-2009

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Var. 08-09
ARABA	295.905	299.957	301.926	305.459	309.635	313.819	4.184
BIZKAIA	1.132.861	1.136.181	1.139.863	1.141.457	1.146.421	705.698	4.642
GIPUZKOA	686.513	688.708	691.895	694.944	701.056	1.152.658	6.237
EAE	**2.115.279**	**2.124.846**	**2.133.684**	**2.141.860**	**2.157.112**	**2.172.175**	**15.063**

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

[1] Biztanleen Udal Erroldako zifrak ezin dira zorrotz alderatu Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuaren zifrekin, metrodologia ezberdina dutelako. Udal Errolda administrazio-erregistro bat da eta hura egitea, mantentzea eta kudeatzea Espainian 8.000 baino gehiago diren udal bakoitzari dagokio. Erroldako datuak udalerriko egoitzaren eta bizilekuaren proba dira eta haren ziurtagiriak agiri publikoak dira eta administrazioaren ondore guztietarako fede ematen dute. Hala ere, Biztanleria Zentsua estatistika bat da eta Estatistikako Institutu Nazionalari dagokio hura egitea. Jasotzen dituen datuak sekretu estatistikoak babesten ditu, Erroldak ez bezala; Erroldan pertsonak identifikatu egin behar dira derrigorrez.

I.1.1. GRAFIKOA Atzerritarren portzentajea adin-talde bakoitzeko



Iturria: EIN. Udal Errolda 2009

tanleria Araban hazi da nabarmen (+% 1,35 azken urtean), Gipuzkoan zertxobait polikiago (+% 0,66) eta Bizkaian batez bestekoaren azpitik (+0,54 %).

Kopuru horiek, gainera, EAEn erroldatutako atzerritarren % 7,3 hartzen dute barne; 2008ko urtarrilaren 1ean % 5,4 ziren; horrek % 35,2ko aldakuntza erlatiboa esan nahi du. Hazkunde hori denboraldi berean Estatuko batez bestekoa dena baino handiagoa da (+% 22,1), nahiz eta alde handia egon Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko biztanleen eta % 13,8 diren Estatuko atzerritarren artean; are alde handiagoa dago Madrilgo Erkidegoko, Valentziako Erkidegoko eta Murtziako % 18-19 inguruko tasekin eta Balear Uharteetan % 23 baino gehiago direnekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gainera, hainbat ezberdintasun antzematen dira atzerriko biztanle kopuruan, bai lurraldeka eta baita adin-taldeka ere. Lurralde bakoitzeko, Arabak batez bestekoa bi punturekin gainditzen du (% 9,5) eta 16 eta 44 urte bitartekoen adin-taldea % 13,5 da. Aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan, batez bestekotik hurbilago dauden ratioak antzeman dira, bai ratio orokorrari dagokionez (% 7 bi lurraldeetan) eta baita lehen aipatutako adin-taldeari dagokionez ere.

Azkenik, EUSTATek EAErako proiekzio demografikoak egin ditu. Horiek, 2020. urtea mugatzat jarriz, biztanleriaren bilakaera orokorra antzematen dute, baita

I.1.2. GRAFIKOA 2020rako EAEren proiekzio demografikoa: aurreikusitako hazkundea osagaika. Milaka pertsona



Iturria: EUSTAT. Proiekzio Demografikoak 2020.

I.1.2. TAULA. Biztanleriaren bilakaera urte bakoitzeko, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera 1975-2020 (Milakotan)

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1975	2.071,8	1.026,7	1.045,1	237,4	119,2	118,2	1.154,8	570,0	584,7	679,7	337,5	342,2
1980	2.141,4	1.061,6	1.079,8	257,3	129,2	128,1	1.189,2	587,6	601,6	694,9	344,8	350,1
1985	2.142,0	1.056,9	1.085,1	268,3	134,2	134,1	1.182,4	581,7	600,7	691,3	341,0	350,3
1990	2.104,8	1.034,5	1.070,4	272,4	135,6	136,8	1.156,0	566,0	590,0	676,4	332,8	343,6
1995	2.099,1	1.027,5	1.071,6	281,3	139,6	141,7	1.141,3	555,9	585,4	676,5	331,9	344,5
2000	2.079,2	1.016,0	1.063,2	284,6	141,1	143,5	1.122,2	545,2	577,0	672,4	329,7	342,7
2005	2.115,4	1.033,4	1.082,0	301,8	150,2	151,6	1.127,3	546,3	581,0	686,3	336,9	349,4
2010	2.194,1	1.071,7	1.122,4	323,7	161,7	162,0	1.168,4	564,7	603,7	701,9	345,3	356,6
2015	2.225,5	1.086,3	1.139,2	335,9	167,7	168,2	1.181,1	569,6	611,5	708,5	349,1	359,5
2020	2.232,1	1.089,1	1.143,0	343,1	171,0	172,1	1.181,5	569,1	612,5	707,5	349,0	358,5

Iturria: EUSTAT. Proiekzio Demografikoak 2020.

bilakaeran eragina duten aldagai bakoitza ere[2]. Heriotzen, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesiak oinarri hartuta, epe laburrera mende aldaketarekin hasi zen hazkunde txikiaren joerari eutsiko zaiola aurreikusi da, eta ondoren biztanleriaren kopuruak egonkorrak izango dira. Halaber, eraginezko haurrak nolabait berreskuratu diren arren, euskal gizartearen heltze- eta zahartze-prozesua biziagotuko da.

Hazkundearen abiadura pixkanaka murriztea bi faktoreren konbinazioaren emaitza izango da: alde batetik, hasierako urteetan saldo begetatiboa positiboa izango da, baina 2014tik aurrera negatibo izatera pasatuko da heriotzen kopuruak jaiotzena berriz gainditzen duenean. Beste alde batetik, migrazio-saldoak positibo izaten jarraituko du, baina murriztuz joango da: 2007an 18.000 migratzaile garbi izatetik, 2020an 4.000 pasatxo izatera.

Azken bosturtekoetan gertatu den bezala, biztanleriaren bilakaera migrazio-saldoaren zeinuaren eta intentsitatearen araberakoa izango da batez ere. Horiek markatzen dute biztanleriaren hazkundearen abiadura. Epe laburrera, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak mesede egingo dio hazkundeari baina ez da oso aipagarria izango. Alde horren zeinua aurki aldatuko da eta denboraldiaren amaieran saldo begetatiboa dela eta galerak sortuko dira, aurreko mendeko 90eko hamarkadan erregistratutakoak baino handiagoak. Zenbakitan adierazita, hazkunde naturalak 7.000 biztanle baino gehiago ekarriko ditu 2007 eta 2011 urteen artean; 2016 eta 2020 urteen artean, ostera, 15.000 biztanle gutxiago egotea eragingo du. Geroz eta negatiboagoa den saldo begetatiboa dela eta eragindako galerak ezin izango dira orekatu migrazioen bidez. Aurreikusitako joerei eutsiz gero, epe luzera EAEn bizi direnen kopuru osoak behera egingo duela aurreikus daiteke.

[2] EUSTATen proiekzioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.

1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

(a) Biztanleriaren mugimendu naturala

2008rako aurreikusitako datuek hazkunde begetatiboa adierazten dute (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea dela eta biztanleriaren aldakuntza, migrazio-mugimenduak kontuan izan gabe) bosgarren urtez segidan positiboa da; halakorik ez da gertatu EAEn 1986tik. Urte horretan 21.315 jaiotza erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 3,5 gehiago, eta 19.437 heriotza, 2007an baino % 1 gehiago. Horren ondorioz +1.878ko hazkunde begetatiboa sortu da.

Edo beste modu batera esanda, milako 0,9ko hazkundea. EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran eman ziren saldo begetatibo handien ondoren, 1990. urteak izan zuen saldo begetatibo negatiboa lehen aldiz 1937tik. 1996an saldo txikiena eman zen, eta urte horretan EAEk hazkunde begetatibo negatiboa izan zuen, 2.000 biztanle baino gehiagokoa.

Ohikoa den bezala, 2008an jokaera ezberdina da lurralde bakoitzeko: Bizkaiak, saldo positiboak berreskuratzen azkenengoa zenak, urte horretan 106 biztanle irabazi zituen. Gipuzkoan eta Araban, aldiz, beste urte batez joera positiboa sendotu zuten, 795 eta 977 pertsona gehituz, hurrenez hurren.

2008an jaiotzek bilakaera positiboa izan zuten hiru lurraldeetan, intentsitate ezberdina izan bazuten ere. Alde batetik, Araban, 3.209 haur jaio ziren (+% 6); Bizkaian, aldiz, 10.861 jaiotza erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 4,3 gehiago. Gipuzkoan 7.245 jaio ziren, 2007an baino % 1,3 gehiago. Emaitza horiek, EAE osoa kontuan hartuz, milako 9,9ko jaiotza-tasa adierazten dute. Horrek, 1995ean hasitako jaiotza-tasaren jaitsiera sendotu eta duela bi hamarkada baino lehenagoko, 1985, mailara itzuli gaitu berriz ere. 60ko hamarkadan kopuru horrek milako 20 gainditu zuen eta estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen. Gaur egun, jaitsiera eman arren, EAEK estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 11,4 eta 10,9, hurrenez hurren) baino tasa baxuagoei eusten die.

Beste urte batez, nabarmen2 jaiotza horien artean handituz doan ezkongabeek izandako jaiotza-portzentajea. 2008an ezkontzaz kanpoko jaiotzak 6.474 izan ziren, hau da, jaiotza guztien % 30,4 (aurreko urtean %27). Arabak eta Bizkaiak EAE osokoa baino portzentaje altuagoak izan zituzten, % 30,9 eta % 30,6, hurrenez hurren. Gipuzkoak, aldiz, balio erlatibo txikiagoa izan zuen (% 29,9). Gaur egungo portzentajea 1990koarekin alderatuz gero (% 7,7) zera ikus daiteke: bikote ezkongabeetatik jaiotako haurren ratioa laukoiztu egin da. Herrialde bakoitza kontuan hartuta, EBko portzentajeak Esloveniako eta Suediako (% 54,7) edo Estoniako (% 59,1) eta Zipreko (% 8,7) edo Greziako (bizirik jaiotakoen % 6,5) mailen gorabeherakoak dira.

Europar Batasunetik kanpo, Islandiako tasa altua nabarmena da. 2008an jaiotakoen % 64,1 ama ezkongabeenak izan ziren.

Bestalde, EUROSTATen datuek 2008an EBn guztira 5,4 milioi jaiotza izan zirela diote, 2007an baino % 1,9 gehiago eta 2002an baino % 8 inguru gehiago. 2002an Bigarren Mundu Gerraren garaitik mailarik baxuena erregistratu zen. 60ko hamarkadan bizirik jaiotakoen urteko kopurua urteko jaiotzen ziren 2 milioi baino gehiago zen, 1965 eta 1995 urteen artean eman zen jaiotza-tasaren jaitsiera nabarmena hasi aurretik. Jaiotza-tasarik altuena Irlandan eman zen (milako 18,1). Baxuena, aldiz, Alemanian erregistratu zen (milako 8,2) eta, bigarren baxuena, Italian eta Portugalen (milako 9,6).

I.1.3. GRAFIKOA. EAEko jaiotzen eta heriotzen bilakaera



Iturria: EUSTATen datuekin egindakoa

I.1.3. TAULA. EAE-ko biztanleriaren mugimendu naturala

	BIZIRIK JAIOTAKOAK	TASA	HERIOTZAK	TASA	HAZK. BEGETATIBOA	TASA
2001	17.647	8,5	18.087	8,7	-440	-0,2
2002	18.133	8,7	18.619	8,8	-486	-0,1
2003	19.267	9,2	19.305	9,2	-38	0,0
2004	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007*	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008*	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.
Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.

I.1.4. GRAFIKOA. Lurralde bakoitzeko jaiotzen eta ama ezkongabea duten jaiotakoen portzentajearen bilakaera. EAE



I.1.5. GRAFIKOA. Amaren adinaren arabera jaiotakoen bilakaera. EAE



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2008an joerari eutsi zitzaion, hau da, familia izan zuten emakumeen % 76,5ek 30 urte edo gehiago zituen. Talderik jendetsuena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, eta jaiotza guztien % 42,9 hartzen du. Bestalde, 2007 urtearekin alderatuz, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopurua (% 33,6) hazi egin zen, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 16,6) nabarmen gainditu zuen. Amen batez besteko adina 32,4 urte izan zen; ama hasi berriena, aldiz, 31,3 urte izan zen. 2007ko kopuruen antzekoak izan ziren. Hala, EAEn bizi ziren ama hasi berriak EBko zaharrenak ziren. Halaber, 25 urte baino gutxiagoko ama kopurua berreskuratu egin zen, kopuru osoaren % 6,9ra iritsiz.

Horrez gain, EINen Jaiotzen Estatistikak jaiotakoen aiten adina ere jakitea ahalbidetzen du. Horietako gehienek, % 35,1ek, 30 eta 34 urte bitartean zituzten 2008an. Talde horren ostean % 34,5ek 35 eta 39 urte bitartean zituzten.

Gainerakoei dagokienez, 2008an EAEn 19.437 heriotza izan ziren, aurreko urtean baino % 1 gehiago. Heriotza horien % 53 gizonezkoak ziren eta % 48 emakumezkoak. 2008an izandako heriotzen % 30 tumoreen ondoriozkoak izan ziren. Ondoren zirkulazio-sistemari loturiko gaixotasunak izan ziren heriotzen arrazoia, heriotzen % 29 alegia; hirugarren, heriotzen % 10 arnas-gaixotasunen ondorioz gertatu ziren[3].

Halaber, EUSTATen Heriotzen Estatistikak hauxe agertu du: 2008an EAEn hildakoen batez besteko adina 77,4 urte zen (2007an 76,8), 73,7 gizonezkoena eta 81,3 emakumezkoena, bizitza-luzeagoa izaten baitute. Beraz, EAEn azken hamarkadan batez beste 3,1 urte igo da bizi-itxaropena

Europar Batasunerako datuei dagokienez, 2003an heriotzen mailarik altuena lortu zen, ia 5 milioi heriotza izan ziren. Horrek milako 10,5eko tasa gordina eragin zuen, EAEn urte horretan eman zen milako 9,2 tasa gordinarekin alderatuta. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira

[3] Memoria Sozioekonomiko honetako osasunari buruzko kapituluan xehetasunez aztertzen dira euskal gizartearen heriotza-arrazoiak.

I.1.4. TAULA. Jaiotzak eta heriotzak EB-n mila biztanleko 1975 eta 2008

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2008	1975	2008
EB-27	**14,7**	**10,9**	**10,7**	**9,7**
ALEMANIA	9,9	8,2	12,6	10,3
AUSTRIA	12,4	9,3	12,7	9,0
BELGIKA	12,2	11,7	12,2	9,5
BULGARIA	16,6	10,2	10,3	14,5
ZIPRE	16,3	11,6	9,8	6,4
DANIMARKA	14,2	11,8	10,1	9,9
ESLOVAKIA	20,6	10,6	9,5	9,8
ESLOVENIA	16,6	10,5	10,1	9,2
ESPAINIA	**18,8**	**11,4**	**8,4**	**8,5**
ESTONIA	14,9	12,0	11,6	12,4
FINLANDIA	13,9	11,2	9,3	9,2
FRANTZIA	14,1	13,0	10,6	8,5
GREZIA	15,7	10,3	8,9	9,5
HOLANDA	13,0	11,2	8,3	8,2
HUNGARIA	18,4	9,9	12,4	13,0
IRLANDA	21,1	16,9	10,4	6,4
ITALIA	14,9	9,6	10,0	9,7
LETONIA	14,2	10,6	12,2	13,7
LITUANIA	15,7	10,4	9,5	13,1
LUXENBURGO	11,1	11,5	12,2	7,4
MALTA	18,8	10,0	9,5	7,9
POLONIA	19,0	10,9	8,7	10,0
PORTUGAL	19,8	9,8	10,8	9,8
ERRESUMA BATUA	12,4	12,9	11,8	9,4
TXEKIA	19,1	11,5	12,4	10,1
ERRUMANIA	19,6	10,3	9,3	11,8
SUEDIA	12,6	11,9	10,8	9,9
EAE	**19,1**	**9,9**	**7,1**	**9,0**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

I.1.6. GRAFIKOA. Sexuaren arabera EAEn hildakoen batez besteko adinaren bilakaera



Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistikak.

joera hori baieztatzeko. 2008ko datuek 4,8 milioiko heriotzen kopurua azaldu dute, 2006an eta 2007an egon ziren beste. Hortaz, hazkunde begetatiboak edo naturalak (jaiotzak ken heriotzak) Europar Batasunean gora egin zuen populazioa 600.000 pertsona izatera iritsiz.

(b) Migrazio-mugimenduak

EUSTATen 2008ko Migrazio Mugimenduen Estatistikak EAEn 16.801 pertsona gehiago zeudela zenbatu zuen (aurreko urtean baino % 5 gutxiago); bederatzigarren urtez jarraian migrazio-saldoa positiboa zen. Lurraldeka begiratuz gero, Bizkaiak 8.773 pertsona irabazi zituen eta zifra osoetan migrazio-saldorik altuena izan zuen, nahiz eta % 4,7 gutxiago izan 2007rekin alderatuta. Arabak, aldiz, 4.207 pertsona gehiago izan zituen (-% 0,4) eta Gipuzkoak 3.821 (-% 10,3). Horrez gain, 20 urtean lehen aldiz EAEra beste erkidegoetatik immigrazio gehiago erregistratu zen beste erkidegoetarako emigrazioak baino, hortaz, estatuko gainerako lurraldeekiko migrazio-saldoa positiboa izan zen (+1.898).

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. 2008an, ostera, migrazio-saldoa zertxobait

I.1.5. TAULA. EAE-ko migrazio saldoen bilakaera

	ATZERRIAREKIKO	ESTATUKO GAINERAKO LURRALDEEKIKO	KANPOKO MIGRAZIOA SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2000	6.362	-3.802	2.560	1.463	804	293
2001	8.417	-1.338	7.079	2.278	3.184	1.525
2002	9.890	-3.653	6.237	2.301	3.425	774
2003	9.700	-3.449	6.251	1.828	3.617	806
2004	11.664	-2.640	9.024	2.955	5.168	901
2005	14.742	-1.478	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. “Migrazio Mugimenduen Estatistika”.

gutxitu zen 2007rekin alderatuta eta 1,5 milioi pertsona izatera iritsi zen (-0,4 milioi). EB-27k milako 3,1eko migrazio-tasa gordina izan zuen eta euroguneak milako 3,6koa. Mugimenduen % 70 hiru herrialderena da bakarrik: Espainia, Italia eta Erresuma Batua. Gainera, Europar Batasuneko lau herrialdek bakarrik, Bulgariak,

I.1.7 GRAFIKOA. EAEko Migrazio Saldoen Bilakaera



Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika

Poloniak, Letoniak eta Lituaniak dituzte migrazio-saldo negatiboak (ehuneko -0,1, -0,4, -1,1 eta -2,3 hurrenez hurren).

Bestalde, 2008an 194.066 pertsonak, hau da, aurreko urtean baino % 2,8 gutxiagok, bizileku-aldaketa-renbat egin zuten EAEn. Kasuen % 45 udalerri berean egindakoa izan zen eta % 23 EAEko bi udalerriren artean. Gainerakoak, 39.190 kanpoko immigrazioak izan ziren (jatorria Erkidegotik kanpo eta helburua EAE izanik) eta 22.389 kanpoko emigrazioak (jatorria EAE eta helburua erkidegotik kanpo izanik).

Kanpoko eta erkidegoaz kanpoko mugikortasun geografikoak 2008an EAEko mila biztanleko 28,7ri eragin zien (Araban milako 36,5ri, Bizkaian milako 28,7ri eta Gipuzkoan milako 25,1ri). Tasa horiek baxu samarrak dira gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, batez beste mila biztanleko 44 mugitzen baitira. EAEra EAEtik jasotzen duten biztanle kopurua baino gehiago

I.1.6. TAULA. Autonomia erkidego bakoitzeko fenomeno demografikoak 1.000 biztanleko tasak. 2008

	JAIOTZA-TASA	HERIOTZA-TASA	HERIOTZA-TASA	EZKONTZA-DESEGITEEN TASA
ANDALUZIA	12,42	8,13	4,91	2,62
ARAGOI	10,46	10,17	3,97	2,11
ASTURIAS	7,88	12,00	4,99	2,84
BALEAR UHARTEAK	11,94	7,48	3,96	2,88
KANARIAK	9,99	6,62	3,09	3,28
KANTABRIA	10,04	9,79	5,46	2,66
GAZTELA ETA LEN	8,53	10,77	4,57	1,75
GAZTELA-MANTXA	11,05	8,94	4,87	1,83
KATALUNIA	12,29	8,35	4,07	2,98
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	11,54	8,23	4,16	2,91
EXTREMADURA	10,04	9,50	4,72	1,80
GALIZIA	8,50	10,84	4,23	2,54
MADRIL	12,59	6,67	3,38	2,59
MURTZIA	13,56	7,29	3,99	2,13
NAFARROA	11,60	8,79	4,46	2,11
EAE	**10,08**	**9,05**	**4,36**	**2,11**
ERRIOXA	11,07	9,17	4,18	2,06
CEUTA	20,08	6,41	5,53	2,93
MELILLA	20,87	6,71	5,91	3,58
GUZTIRA	**11,38**	**10,84**	**4,23**	**2,58**

Iturria: EIN

bidaltzen duten autonomia erkidegoak Katalunia, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa, Murtzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa eta Aragoi dira. Aldiz, honako hauek dira, hurrenkera berean, EAEko emigratzaileentzat erakargarriak diren erkidegoak: Kantabria, Gaztela eta León, Madril, Nafarroa, Katalunia eta Andaluzia. Sei erkidegoren artean EAE uzten duten pertsonen % 66 jasotzen dute.

Azkenik, 2008an atzerritarren immigrazioak 26.515 izan ziren, 2007an baino 2.413 gutxiago. Atzerritar horiek EAEra sartzen direnen % 68 dira. 2000. urtetik lehenengo aldiz jaitsi zen atzerritarren etorrera EAEra (-% 8). Horrez gain, kontuan izan behar da atzerritar horien % 35 beste autonomia erkidego batzuetatik etorri zirela. Aurreko urtean baino % 30 gehiago da.

Tituluei dagokienez, immigrazioen % 50ek eta emigrazioen % 51k prestakuntza-maila baxuenak zuten; immigrazioen eta emigrazioen % 19k goi-mailako titulua zuen. Gainera, immigranteen eta emigranteen batez besteko adina desberdina zen (31,1 eta 34,5 urte, hurrenez hurren).

(c) Ezkontzak

Ezkontzen Estatistikak, Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Elizako agiritegiei esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTATen datuen arabera, 2008an EAEn 9.710 ezkontza egin ziren sexu ezberdinekoak eta EAEn bizilekua zuten bikoteena (119 ezkontza sexu bereko bikoteena), aurreko urtean baino 97 gehiago. Azken urteetan zehar nabarmena izan da ezkontza zibilen kopuruaren igoera handia. 1990an % 23,3 izatetik 2008an % 55 izatera pasa ziren. Guztira, 5.328 ezkontza zibil izan ziren, 4.366 ezkontza katoliko eta 16 beste erlijio batzuetakoak. Lurralde Historiko bakoitzeko, Gipuzkoan egin ziren ezkontza zibil gehien (% 57), ondoren Bizkaia (% 55) eta Araban (% 54). Horrez gain, 2008an ezkondu ziren bikoteen erdiak ezkontza aurretik elkarrekin bizi zirela agertzen duen datua nabarmena da. Portzentaje hori azken hamar urteetan bikoiztu egin da.

I.1.8. GRAFIKOA. Ezkontza zibilen portzentajearen bilakaera lurralde historiko bakoitzeko



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Hortaz, EAEko ezkontza-tasa 1.000 biztanleko 4,2 ezkontza dira, Estatu osokoa bezalakoa eta Europar Batasunekoa baino baxuagoa. Europar Batasunaren ezkontza-tasa milako 4,9 zen 2007an. 2008rako aurreikuspen-datuetan ezkontza-tasarik altuenak zituzten Europako herrialdeak honako hauek ziren: Errumania (mila biztanleko 6,9 ezkontza), Lituania (7,2) eta Danimarka (6,8). Aldiz, ratio baxuenak zituzten herrialdeak Eslovenia (milako 3,1), Bulgaria (3,6) eta Luxemburgo (1.000 biztanleko 3,9 ezkontza) ziren.

Halaber, amatasun-adinak gora egin zuen moduan, ezkondutakoen adinak ere gora egin zuen: 2008an ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 33,2 urte zen, eta 31,3 urte emakume ezkongabeena. 1986tik senar-emazteen batez besteko adinak 5,8 eta 6,4 urte egin du gora, hurrenez hurren senarrentzat eta emazteentzat. Fenomeno hori Europa osoan eman da, neurri handiagoan edo txikiagoan, nahiz eta gune geografikoen arabera ezberdintasunak ageri: Baltikoko herrialdeetan eta, oro har, Europako ekialdean, ezkontzen direnen adina bi sexuetan mendebalderago dagoen gunean baino txikiagoa dela antzeman daiteke.

I.1.7. TAULA. Europar batasuneko ezkontzak. 1.000 biztanleko adierazita

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2007	2008	2007	2008
EB-27	**4,9**	**-**	**-**	**-**
ALEMANIA	4,5	4,6	2,3	-
AUSTRIA	4,3	4,2	2,5	-
BELGIKA	4,3	4,4	2,8	2,8
BULGARIA	3,9	3,6	2,1	1,9
ZIPRE	7,5	-	2,1	-
DANIMARKA	6,7	6,8	2,6	2,7
ESLOVAKIA	5,1	5,2	2,3	2,3
ESLOVENIA	3,2	3,1	1,3	1,1
ESPAINIA	**4,5**	**-**	**2,8**	**-**
ESTONIA	6,8	5,7	2,8	2,6
FINLANDIA	5,6	5,8	2,5	2,5
FRANTZIA	4,3	4,3	-	-
GREZIA	5,5	4,5	1,2	-
HOLANDA	4,3	4,6	2,0	2,0
HUNGARIA	4,1	4,0	2,5	2,5
IRLANDA	5,2	-	0,8	-
ITALIA	4,2	4,1	0,8	0,9
LETONIA	7,5	-	3,3	2,7
LITUANIA	6,8	7,2	3,4	3,1
LUXENBURGO	4,1	3,9	2,3	2,0
MALTA	6,1	6,0	-	-
POLONIA	6,5	6,8	1,7	1,7
PORTUGAL	4,4	4,1	2,4	-
ERRESUMA BATUA	4,4	-	2,4	-
TXEKIA	5,5	5,0	3,0	3,0
ERRUMANIA	8,8	6,9	1,7	1,7
SUEDIA	5,2	5,5	2,3	2,3
EAE	**4,2**	**4,2**	**2,3**	**2,0**

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.

Bestalde, EIN[4]en *Banatzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistikak* dibortzioen eta banatzeen kopurua jaitsi egin dela agertu du, bai EAEn eta baita Estatuan ere. Zehazki, 2008an 4.333 dibortzio eta 305 banatze eman ziren EAEn. Baliogabetzeen urteko kopurua batez beste 6 dira gutxi gorabehera horri buruzko informazioa lortu daitekeenetik.

Guztira, urte berean 4.531 ezkontza baliogabetu ziren, 2007an baino % 15,1 gutxiago. Datu horrek mila biztanleko 2 baliogabetzeren ratioa adierazten du. Baliogabetze-tasa handienak dituzten autonomia erkidegoak Kanariak (milako 3,3), Katalunia (3,0) eta Melilla (3,6) dira. Aldiz, haustura-tasa txikiena dutenak Extremadura, Gaztela eta León eta Gaztela-Mantxa dira (hiruek mila biztanleko 1,8ko baliogabetze-ratioa dute).

Nazioartearekin alderatuz gero, azken urteetan, dibortzioen tasa gordina milako bi da gutxi gorabehera Europar Batasun osoan. Tasa horrek Maltako milako 0 dibortzioren (ez da legezkoa) eta Italiako milako 0,9ren, Txekiako milako 3ren eta Lituaniako milako 3,1 dibortzioren tasa hartzen ditu barne.

2006tik aurrera Estatuan, oro har, desegite horietan aldaketa eman zen, batez ere EAEn. Dibortzio kopuruak gora egin zuen eta banatu zirenen kopuruak behera, uztailaren 8ko Estatuko 15/2005 Legea onestearen ondorioz. Lege horrek banaketa eta dibortzioen arloan Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen du. Arau horren bidez aurrez banatu gabe dibortzioa onartzen du.

EAEn banatzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen azken datuek erakutsi dute gehienek 30 eta 50 urte artean dituztela, nahiz eta emakumeak sarritan zertxobait gazteagoak izan. Gainera, kasu horien artean senar-emazteen erdiek seme-alabak dituzte: % 30ek seme edo alaba bakarra du, % 16,9k bi seme-alaba ditu eta % 2,3k hiru seme-alaba edo gehiago ditu.

[4] Banatzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

I.1.9. GRAFIKOA. EAEko ezkontzen baliogabetze: Banatzeen eta dibortzioen bilakaera



Iturria: EIN. Banatzeen, dibortzioen eta baliogabetzeen estatistika.
(*) Baliogabetzeek elizako baliogabetze kopurua ere hartzen dute barne.

1.1.2. Familiak eta laneko bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko arazoak

Familia gizarteko oinarrizko elementua da, burutzen dituen gizarteko eginkizunen garrantziagatik, bereziki, haurrak gizartean duten kokatzea eta identifikatzea, mendeko seme-alabak zaintzea, familiako kideak mantentzea, osatzen duten guztiak sozializatzea, euskarri afektibo eta emozionala ematea eta senitartekoek batak besteari babesa eta laguntza ematea.

EUSTATen 2006ko Biztanleriaren Inkestak dio 2006an, bost urterik behin jasotzen den datu hori duen azken urtean, EAEn guztira 787.000 familia zeudela, eta batez beste 2,64 kidek osatzen zituzten. Tamaina hori, Europan, Suediako, Finlandiako eta Danimarkako familiek duten tamainarekin aldera daiteke. Danimarkan bakarrik da txikiagoa (2,5). EB27ko batez besteko tamaina 2,9 pertsonak osaturiko familia da, 2007ko datuak aintzat hartuta.

1996 eta 2006 arteko familia motei dagokienez, pertsona bakarrek osaturikoak % 61 hazi ziren eta seme-alabarik gabeko senar-emazteen edo bikoteen familiek (ondorengorik gabe edo familiarekin bizi ez direnak) % 51 pasatxo egin zuten gora, familia guztien artean % 22 izatera pasatuz. Bi familia mota horien osaera antzekoa da adinari dagokionez, izan ere, bi familia moten % 60k 55 edo urte gehiago ditu. Bakarrik bizi diren familien kasuan, % 61 pasatxo emakumezkoak dira, % 40 ezkongabeak eta % 41,5 alargunak. 1996an bakarrik bizi ziren banatutako edo dibortziatutako emakumeak 7.000 ziren; 2006an bikoiztu egin zen kopurua eta 14.000 pertsona izatera iritsi ziren, hau da, % 8,4. Bestalde, seme-alabarik gabeko bikoteek osaturiko familiak 59.000 baino zertxobait gehiago hazi

I.1.8. TAULA. Familiak batez besteko tamaina eta mota bakoitzeko (milakotan) EAE. 2006

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Familiak	Batez besteko tamaina	Familiak	Batez besteko tamaina	Familiak	Batez besteko tamaina	Familiak	Batez besteko tamaina
Guztira	**787,0**	**2,64**	**111,3**	**2,66**	**423,5**	**2,62**	**252,1**	**2,65**
Lagun bakarrekoa	169,7	1,00	24,7	1,00	89,7	1,00	55,2	1,00
Konposatua	21,3	2,34	3,4	2,55	11,3	2,27	6,6	2,32
Nuklearra seme-alabarik gabekoa	164,7	2,00	23,8	2,00	87,5	2,00	53,4	2,00
Nuklearra seme-alabaduna	299,3	3,59	43,4	3,61	161,3	3,56	94,5	3,61
Guraso bakarrekoa	65,5	2,39	8,0	2,49	37,5	2,37	20,0	2,37
Handitutakoa	38,1	4,00	4,6	3,92	21,4	4,00	12,0	4,04
Nukleo anitzekoa	28,5	5,33	3,3	5,41	14,7	5,27	10,4	5,37

Iturria: EUSTAT. Populazioaren Inkesta, 2006.

I.1.10. GRAFIKOA. EAEko familien tamainuan erregistraturiko eta aurreikusitako bilakaera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA EUSTATen datuekin.

dira. Familia mota horretara 80ko hamarkadan seme-alaba gutxiago izan zituzten familiak gehitu izana nabarmentzen da, izan ere, azken familia horietako seme-alabak dagoeneko gurasoen etxetik irtenak dira. Familia tradizionala, aldiz, aitak eta amak eta seme edo alaba batek edo gehiagok osatutakoa, 1986an familia guztien % 63 izatetik, 1996an % 51 eta 2006an % 40,8 izatera pasatu zen. Horrez gain, batez besteko tamaina ere murriztu da: 4,3 1986an, 3,9 1996an eta, azkenik, 3,7 2006an. Zifra osoetan adierazita, 1996 eta 2006 artean mota horretako 30.600 familia galdu ziren.

EAEko familien ezaugarriei lotuta, EAEko *biztanleriaren azterketa eta etxebizitzen merkatuaren epe luzerako bilakaera* izeneko azterlanak dio 2020 arte familiak neurriz haziko direla aurreikus daitekeela, 2010 eta 2020 arteko aldakuntza garbia 42.000 eta 50.000 familiaren artean ibiliko dela kalkulatuz, hipotesi ezberdinen arabera[5]. Azterlan hori 2009an egin zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Euskal Behatokiak, EUSTATen 2020ra arteko biztanleriaren proiekzioak oinarri hartuta. Hazkunde hori handiagoa izango da 2011 eta 2015 urteen artean 2016 eta 2020 urteen artean baino, eta familia unitatearen tamaina txikituz joango dela ere

[5] Lana bi egoera ezberdin oinarri hartuta burutzen da, bata etengabea da eta bestea joerei loturikoa, sexuaren eta adinaren arabera buru-zagitza-tasen bilakaera kontuan hartuta.

uste da, 2020rako 2,57 eta 2,62 kideko familiak izanik. Halaber, azterlanak zera antzeman du: erreferentziako pertsona gisa emakumea duten familiek gora egin dezaketela gazteen familiak (20 eta 39 urte bitartean) sortzeko abiadura murriztuz doan heinean. Helduen eta pertsona nagusien familiek gora egitea ere aurreikusten da.

Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatu dute, dakartzan ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoerekiko kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak. Inguruabar horiek arazo berriak sortzea eragin dute elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familiako bizitzaren arteko gatazka bi unetan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina geroz eta sarriago mendeko adineko pertsonei arreta eman behar zaienean ere.

Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak[6] (CSIC) duela gutxi egindako azterlan batek zera azaltzen du: emakumeen hezkuntza-mailaren igoera sistematikoa, lan munduan parte hartzeak ekarritako aldaketak eta aldaketa horiek familiako prozesuetan izan duten eragina. Azterlanak dio 1940 baino lehenago jaiotako emakumeen % 40 pasatxok inoiz lanik ez duela egi; 1955 baino geroago jaiotakoen % 11 bakarrik dira inoiz lanik egin ez dutenak.

Txostenak ezberdintasun handiak nabarmendu ditu bikoteak elkarrekin bizitzen hasteari eta seme-alaben kopuruari dagokionez, emakumeek lan egiten duten ala ez eta garatzen duten jarduera kontuan izanik: etxetik kanpoko jarduerarik ez duten emakumeek lanaldi partziala edo lan ezegonkorra izaten dute, lehenago hasten dira bikotekidearekin bizitzen, lehenengo amatasuna aurreratu egiten dute eta ondorengo gehiago izaten dituzte. Aldiz, lan egonkorra duten emakumeek biziki-

I.1.9. TAULA. Familia eta lana bateratzeko zailtasunak, herrialdeka datuak ehunekoetan adierazita, 2007

	Lana dela eta etxeko zeregi-nak egiteko nekatuegi	Lana dela eta familiako erantzukizu-nak betetzeko zailtasunak	Familiako erantzukizu-nak direla eta lanean arreta jartzeko zail-tasunak
AUSTRIA	45	31	14
BELGIKA	37	28	8
BULGARIA	63	44	17
ZIPRE	69	42	8
TXEKIA	58	38	9
ALEMANIA	39	24	9
DANIMARKA	40	21	7
ESTONIA	61	33	12
GREZIA	72	46	20
ESPAINIA	**57**	**38**	**16**
FINLANDIA	44	19	7
FRANTZIA	47	17	7
HUNGARIA	62	40	17
IRLANDA	40	22	11
ITALIA	36	24	12
LITUANIA	53	39	15
LUXENBURGO	43	21	13
LETONIA	59	47	22
MALTA	58	31	8
HERBEHEREAK	37	29	6
POLONIA	56	42	18
PORTUGAL	46	29	15
ERRUMANIA	65	45	17
SUEDIA	46	18	5
ESLOVENIA	54	42	11
ESLOVAKIA	45	31	10
ERRESUMA BATUA	52	28	13
EB15	**45**	**26**	**11**
EB27	**48**	**29**	**12**

Iturria: EUROSTAT. Bizi Kalitatearen Europako II. Inkesta (EQLS), 2007.

[6] Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena (CSIC) eta Berdintasun Ministerioa (2009): Emakumeen laneko ibilbidea eta emankortasuna Espainian. Estatu-mailan egindako azterlana, 15 eta 75 urte arteko 10.000 emakumeri egindako inkesta oinarri hartuta.

I.1.10. TAULA. Adingabeak zaintzeko lanaldia laburtzeari eta eszedentziari loturiko espedienteak eta gastuak. EAE

	2008	2009	Ald. %
Lanaldia laburtzea - emakumeak	20.005	35.735	78,6
Lanaldia laburtzea - gizonak	1.417	2.396	69,1
LAN. LABURTZEA GUZTIRA	**21.422**	**38.131**	**78,0**
Eszedentzia - emakumeak	4.739	7.446	57,1
Eszedentzia - gizonak	148	223	50,7
ESZEDENTZIAK GUZTIRA	**4.887**	**7.669**	**56,9**
ZENBATEKOA GUZTIRA (€)	**11.108.344**	**18.522.740**	**66,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila.

detza eta amatasuna atzeratu egiten dituzte, eta semealaba gutxiago izaten dituzte. Horrez gain, adin guztietan, lan egin eta haurren bat izan duten inkestaturiko emakumeen % 75ek baino gehiagok aitortu dute laneko edo hezkuntzako zailtasunak izan dituztela amatasunarekin lotuta. Belaunaldirik gazteenen artean eragina areagotu egin dela antzeman da, gainera.

Horren haritik, Emakundek egindako *EAEko emakumeen ibilbide eta egoera profesionaleko desberdintasuna* izeneko azterlanak (2008)[7] zera ondorioztatzen du: geroz eta gehiago dira familiako eta laneko bizitza bateratzeko lan-baldintzak malgutzeko neurriak hartzen dituzten pertsonak, baina neurri horiek, eta batez ere lanaldia laburtzeak, neurri horiek hartzen dituzten pertsonen (normalean emakumeak) garapen profesionala mugatzen dute.

Gainera, EUROSTATen *Bizi Kalitatearen Europako II. Inkestak* (2007) jakinarazi zuen Europar Batasuneko langileen % 48 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen dira astean hainbat alditan. Halaber, % 29k familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lana dela eta, eta % 12k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta. Portzentajeak ezberdinak dira herrialde bakoitzeko. Kontuan hartu diren hiru adierazleak Espainiaren kasuan nabarmen altuagoak dira.

Europako Batzordeak, egoera horien jabe izanik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko lanaren 2006-2010 Planean laneko eta familiako bizitza bateratzea hobetzeko jarduteko lehentasunezko sei arloetako bat bihurtu du. Europako Parlamentua amatasunerako eta gurasoen baimenei buruzko legeria hobetzearen alde azaldu da behin beino gehiagotan. 2008ko urteko estrategia politikoan, Batzordeak laneko eta familiako bizitzaren bateratzea hobetzeko ekimen berriak proposatzeko konpromisoa hartu zuen. Hala, 2008ko urriaren 3ko Jakinarazpenean[8] proposamenak aurkeztu zituen: familiako kontuak direla eta langileek baimena izateko eskubidea finkatzea, batez ere gutxieneko amatasun-baimena areagotzea 14 astetik 18 astera, LANEren gomendioaren arabera (Espainian 16 aste dira), emakumeei malgutasun handiagoa ematea baimena nola hartu erabaki dezaten, erditzearen aurretik edo ondoren, eta amatasun-baimena hartzen duten edo ama izan ondoren lanera itzultzen diren emakumeen lanaren babesa hobetzea.

Egoera horiek arintze aldera, Eusko Jaurlaritzak *Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Plana* jarri zuen abian, familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea eragozten dieten oztopo ekonomiko eta gizarteko eta laneko oztopoak gainditzeko. 2006an bigarren Plana jarri zen abian eta 2010 arte izan da indarrean. Plan horren 2006-2008 Bitarteko Ebaluazio Txostena seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriak zabaltzeko, indartzeko eta neurri horiei jarraitutasuna emateko, eta aurreko planean aurreikusi ez ziren gastuak ordaintzera bideraturiko laguntza berriak gehitzeko egin zen. Planak ondorioztatu zuen haren lehentasun nagusietako bat familiaren ar-

[7] Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.

[8] 635 Jakinarazpena (2008) azkena, Oreka hobea laneko bizitzan: bizitza profesionala, bizitza pribatua eta familiako bizitza bateratzeko laguntza gehiago. Europako Erkidegoen Batzordea, 2008.10.3

I.1.11. GRAFIKOA. EAEn seme-alabak izateagatiko edo adopzioan hartzeagatiko laguntzak. Eskarien eta gastuen bilakaera, mila €-tan adierazita



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

loko arau-esparru zabala lortzea zela, EAEko etorkizuneko gizarte-politiketarako oinarriak ezarriko dituena, 2020ko bateratzeari begira. Hori lortzeko, 2008an Familiak Babesteko Legea onetsi zen, batez ere, familia-politika egiteko esparru eta horren oinarriei maila juridikoa emateko. Politika horrek integrala izan behar du eta familien eta familiako kideen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzera bideratuta egon behar du.

Seme-alabak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik ematen ziren laguntza zuzenak eta familiako eta laneko bizitza bateratzeko laguntzak 2002an hasi ziren banatzen Familiaren I. Plana argitaratu zenean. Ordutik aurrera eta 2009 arte, laguntza horien gastu osoa 260,65 milioi euro izan zen. Horietatik 136,65 euro jaiotzengatik, adoptatzeagatik edo adoptatu aurretik hartzeagatik emandako laguntzak izan zen. Gainerako 124 milioi euro familiako eta laneko bizitza bateratzeko laguntzak izan ziren.

1.1.3. EAEko immigrazioa

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira. 1850-1910 aldian mundu osoan lehenengo migrazio-garaia bizi bazen ere, XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen migrazio-aldi handiaren bigarren fasean gaude.

Azken urteetan nabarmen hazi da Europar Batasuneko biztanleria, batez ere immigrazioa dela eta. 2008an immigrazioaren ratio garbia hazkunde naturalaren (jaiotzak ken heriotzak) tasaren ia hirukoitza zen. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute. 2008ko urtarrilaren 1ean 30,8 milioi atzerritar bizi ziren Europar Batasunean, hau da, biztanleriaren % 6,2. Horien artean herena, 11,3 milioi pertsona, beste herrialde kide batzuetako biztanleak ziren. Bigarren talderik handiena Erkidegokoak ez diren Europako herrialdeetatik etorritako 6 milioi pertsonak osatzen zuten. Horien ondoren 4,7 milioi pertsona afrikarrak ziren eta 3,7 Asiako herrialdeetakoak. EBn bizilekua duten atzerritarren % 75 Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi da. Halaber, herrialde horietako biztanleak norberaren herrialdetik kanpo bizi diren europarren artean gehienak dira.

Bestalde, 2001etik gaur egun arte Europar Batasuneko herrialde kideetan bizilekua duten atzerritarren portzentajea ez da aldatu modu esanguratsuan herrialde gehienetan, Irlandan (% 3,6ko ratioa izatetik bizilekua dutenen % 12,6 izatera pasatu da), Espainian (% 2,9tik % 11,6ra) eta Zipren (% 8,8tik % 15,9 izatera) izan ezik. Herrialde horietako atzerritar gehienak Erki-

I.1.12. GRAFIKOA. EBko hazkunde demografikoaren bilakaera osagaika. 1.000 biztanleko ratioak



Iturria: EUROSTAT

I.1.11. TAULA. Atzerritarren hazkundea autonomia erkidego bakoitzeko (1998-2009) eta atzerritarren banaketa autonomia erkidego bakoitzeko (% eta pilatutakoa)

	Gehikuntza. Indize zenbakiak. 1998-2009	Atzerritarren banaketa Autonomia Erkidegoetan. 2009	Banaketaren portzentaje pilatua (%)
KATALUNIA	976	21,2	21,2
MADRIL	905	18,7	39,9
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	865	15,8	55,7
ANDALUZIA	670	12,0	67,6
KANARIAK	542	5,4	73,0
BALEAR UHARTEAK	623	4,2	77,2
MURTZIA	1.973	4,2	81,4
GAZTELA-MANTXA	2.282	4,0	85,5
ARAGOI	2.17	3,0	88,5
GAZTELA ETA LEÓN	1.098	3,0	91,5
EAE	**870**	**2,4**	**93,8**
GALIZIA	539	1,9	95,7
NAFARROA	1.626	1,3	97,0
ASTURIAS	780	0,8	97,8
ERRIOXA	1.828	0,8	98,7
KANTABRIA	1.208	0,7	99,3
EXTREMADURA	894	0,7	100,0
MELILLA	308	0,1	100,0
CEUTA	112	0,1	100,0
ESTATUA	**885**	**100,0**	**100,0**

Iturria: IKUSPEGI EINen datuen bidez.

degoko beste herrialde batzuetako herritarrak batez ere. Beste herrialde batzuetan, aldiz, Errumanian, Frantzian, Grezian, Portugalen eta Italian, gehienbat EBkoak ez diren herrialdeetako immigranteak dituzte. Atzerriko biztanleen bilakaera negatiboa duten herrialde gutxiren artean Baltikoko hiru herrialdeak daude: Lituania, Letonia eta Estonia. Horren arrazoi nagusia Sobietar Batasunaren erori zenetik atzerritarren nazionalizazioen kopuru handia da.

Immigrazio mota oso ezberdina da herrialde batetik bestera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigraziorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren portzentaje handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren. Frantzian, Alemanian eta Herbeheretan, berriz, erregularizazio mugatuak hautatu zituzten immigranteen talde berezietarako. EBra beste herrialde batzue-

I.1.13. GRAFIKOA. Immigranteak EAEra eta Estatura aldatzeko arrazoien arabera. Erantzun anitza. %. 2007



Iturria: EIN. Inmigrazioari buruzko Estatuko Inkesta 2007

tako talderik jendetsuenak Turkiatik (2,4 milioi), Marokotik (1,7 milioi), Albaniatik (1 milioi) eta Txinatik (0,6 milioi) datoz. Hala ere, atzerrian jaio ziren Frantziako, Suediako, Herbeheretako eta Erresuma Batuko eta antzeko estatu kideetako herritarren kopurua herrialde horietan bizi diren EBz kanpoko atzerritarrak baino gehiago dira, izan ere, immigrante ugarik hartu zituzten herrialdeko herritartasuna lortu zuten (2001 eta 2007 artean ia 4,8 milioi atzerritarrek EBko herrialde bateko herritartasuna hartu zuten).

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriz-

tatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.

EINek 2008an 2007ko datuekin argitaratu zuen immigrazioari buruzko estatuko inkestak hauxe erakusten du: EAEn bizilekua duten immigranteak, gehienbat, lan hobea bilatzeko (% 42,9), familiako arrazoiak direla eta (berriz elkartzea) (% 32,1), bizi-kalitatea hobetzeko (% 23,9) eta lanik ez zutelako (% 21,8) iritsi ziren Autonomia Erkidegora. Erantzun bat baino gehiago eman zezaketen.

Hortaz, ekonomiari loturiko migrazio-fenomenoa da eta, Eusko Jaurlaritzaren *EAEko Europar Batasunetik kanpoko immigrazioaren eragin ekonomikoa* (2008) izeneko azterlanean nabarmentzen den bezala, berriki EAEko eta Espainiako ekonomiara atzerritarren lanerako indar handia gehitu izanak pilaketa-zikloa ekarri du. Ziklo horrek Europako lanaren banaketaren aldaketetan, emakume ugari lan-merkatuan gehitzean eta euroa sartzeak sorturiko pilaketa-baldintza berrietan du oinarria. Langile immigranteak barneratzea eta egokitzea ez da izan egoeraren araberako faktorea, egiturazkoa baizik, eta gure ekonomian berriki izan dugun hazkundearen euskarria izan da.

Azterlan horren arabera, oro har, EAEko atzerritarrei atxikitako aurreikusitako gastu publiko soziala 2006an 233,9 milioi euro izan zen, gastu osoaren % 4, urte hartako biztanle immigranteen ratioaren antzekoa. Gainera, 2006ko gastu soziala immigrante bakoitzeko 2.905 euro izan ziren eta 2.828 euro bertako pertsona bakoitzeko. Lan-errentetatik eratorritako zerga-bilketari dagokionez, immigranteen ekarpena bertakoena baino % 23,5 gehiago dela kalkulatu da; beste modu bateran esanda, immigrante bakoitzak batez beste 76 euro gehiago bereganatu zituen gastu sozialetik, baina euskal ogasunera bertakoek baino 1.097 euro gehiago ekarri zituen zerga-karga gisa. Alde hori immigranteek jarduera-tasa altua ikusirik azaldu daiteke eta, beraz, zergadunen portzentaje handiena hartzen dute.

(a) Biztanleen bilakaera

Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzerritarrek gora egin dute. 2005 eta 2008 artean EAEn erroldaturiko biztanle atzerritarren kopurua ia % 120 hazi da. 2005an EAEn 72.894 immigrante bizi ziren; 2009ko urtarrilaren 1ean Udal Erroldek 159.637 zenbatu zituzten, aurreko urtean baino % 36,9 gehiago. Biztanle immigranteen hazkunde hori biztanle guztien hazkundean ere nabari daiteke: 2009an EAEko biztanle atzerritarrak % 7,3 ziren, eta Estatuan % 13,8.

Estatu mailan EAEk urteko hazkunde handienetakoa izan du azken hiru urteetan, baina autonomia erkidego bakoitzeko atzerritarren portzentajearen arabera ez da lehena. EAEk atzetik Asturias (% 6,5) eta Extremadura (4,1) ditu. EAEren aurretik haren portzentajea bikoiztu eta hirukoizten duten erkidegoak daude: Balear Uharteak (% 23,8), Madril (% 19,3) eta Valentziako Erkidegoa (% 18,9), besteak beste.

Eusko Jaurlaritzako Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egindako Erroldaren datuen aurrerapenaren azterketak[9] adierazi zuen 1998 eta 2009 artean autonomia erkidego guztiek biztanleria osoa zein biztanleria atzerritarra irabazi zutela, baina batzuek bertako biztanleria galdu zutela, EAEk adibidez. Gauza bera gertatu zen Kantauri Itsasoaren ertzeko beste erkidegoetan, esaterako Asturiasen (-37.707) edo Galizian (-16.184), ez ordea Kantabrian (+27.206). Bizilekuen aldaketei buruzko azterlan batek ere EAEtik Kantabriara aldatu den alde handia adieraziko luke.

Lurralde Historiko bakoitzari begiratuz, Bizkaiak du atzerriko biztanleen kopururik handiena, 80.395 pertsona (kopuru osoaren % 50,3); ondoren Gipuzkoak eta Arabak, 49.416 (% 31) eta 29.8826 (% 18,7), hurrenez hurren. Hala ere, Arabak du immigrazio-portzentajerik altuena: % 9,5. Bizkaian % 7 da, Gipuzkoan bezala. Labur esanda, Bizkaian EAEko atzerritarren erdia bizi da eta Arabak du immigrazio-portzentajerik altuena.

[9] Azterketa horretako balore absolutuak ez datoz bat behin betiko datuen balore osoekin. EINek 2009an aurkeztu zituen lehenengo kalkuluak oinarri hartuta Ikuspegik egindako ustiaketa barne hartzen da, ehunekoei dagokienez aldeak txikiak direla uste delako. Edonola ere, behin betiko datuek erakusten dutena zera da: aurrerapenak gutxietsi egin zuen atzerritarrek biztanleria osoarekiko zuten portzentajea, bai EAEn eta baita estatu osoan ere.

EAEko biztanle atzerritarrak ia zati berdinetan bana daitezke sexuari dagokionez: % 51,9 gizonezkoak dira eta % 48,1 emakumezkoak. EAEn emakumeak zertxobait gehiago dira Espainia osoarekin alderatuta, han % 53 gizonezkoak baitira. Alde hori EAEn latinoamerikako biztanle gehiago dagoelako da, batez ere Bizkaian. Gainerako biztanleekin alderatuta latinoamerikarren artean emakumezko gehiago daude. Gainera, Ikuspegik EAEko immigranteei 2007an egindako inkesta batek zera zioen: Edozein adin-taldetan, immigrante latinoamerikarren taldea batez ere emakumezkoek osatzen dute. Immigrante afrikarren taldea, aldiz, portugaldarrekin batera, gizonezkoek osatzen dute gehienbat. Jatorriz europarrak direnen artean, zein Errumaniakoen eta Frantziakoen artean, emakumeen indizeak laginaren batez besteko osoa dira gutxi gorabehera, % 45. Azkenik, Txinatik etorritako pertsonen artean sexuen arteko banaketa antzekoa da joerei erreparatuz.

Halaber, jatorrizko herrialdeek ama hizkuntzak baldintzatzen dituzte. Ama hizkuntzek bi kasu garrantzitsu ematen dituzte aditzera hizlari kopuruari dagokionez:

I.1.14. GRAFIKOA. Udal-erroldan izena eman duten atzerritarren portzentajearen bilakaera. Indize zenbakiak 1998=100 oinarria izanik



Iturria: EINeko datuen bidez egindakoa.

batak, gaztelaniak, emakume-aurpegia nabarmentzen du eta besteak, arabierak, gizonezkoaren fisonomia du. EAEn erroldaturikoen herritartasun-taldeetan arreta jarriz gero, latinoamerikako herritartasuna da nagusi, EAEn bizilekua duten atzerritarren % 45,2 baitira. Hala ere aurreragoko urteekin alderatuta gutxiago dira, lehen immigranteen % 48 baino gehiago ere izan ziren. Iparramerikako -Kanada eta AEB- atzerritarren ekarpena iraunkorra da, % 1 inguru.

Hamar herritartasun garrantzitsuenen artean bost herrialde latinoamerikar daude (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), Europako Erkidegoko bi (Portugal eta Errumania), Magrebeko bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (Txina). Errumania EAEko atzerritarren herritartasunik garrantzitsuena izan zen bigarren urtez segidan, EAEn bizilekua zuten atzerritarren % 10,4 izan ziren, 13.809 pertsona. 2008an % 11 izan ziren eta horrekin alderatuta behera egin zuen zertxobait. Haren ondoren Kolonbia (12.953 pertsona erroldatu ziren) eta Bolivia (12.003) zeuden, biztanleen % 9,7 eta % 9 zuten, hurrenez hurren.

Bestalde, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuek diotenez, 2008ko abenduaren 31n 96.635 atzerritarrek EAEn bizilekua izateko baimena zuten, 2007an baino 12.670 pertsona gehiagok. Datu horiek 2009ko urtarrilaren 1ean erroldaturik zeudenekin alderatuz gero, erregularizazio-tasa edo -indizea lortzen da eta tasa edo indize horrek adierazten du erroldaturiko atzerritarren % 61ek EAEn bizilekua izateko baimena zuela aipatutako egunean. Erregularizazio-tasa hori 7 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Gauza bera gertatzen da estatuan (% 69ko tasa du) eta aurreko urteetako goranzko joera hautsiz doala dirudi.

Halaber, Ikuspegik 2007an egindako inkesta baten arabera, EAEn bizilekua duten atzerritar gehienak duela bi eta sei urte artean iritsi ziren erkidegora. Duela gutxi finkatu diren boliviarren kasua nabarmena da, izan ere, haien artean % 1 baino ez zegoen EAEn 2002 baino lehenago. Horrez gain, atzerritarren % 22,8k esan zuen legez kontrako egoeran zegoela eta % 63,8k ordu hartan bizilekua izateko baimen motaren bat zuen. Gainerakoek Espainiako herritartasuna edo Europako beste herrialde batekoa zuten. Hortaz, Lan Ministerioaren da-

I.1.15. GRAFIKOA. EAEko eta Estatuko atzerritarren kopuruaren bilakaera



Iturria: EINen eta Immigrazio Ministerioaren datuen bidez egindakoa.
Oharra: Erregularizazio-tasa bizilekua izateko baimena duten eta erroldatuta dauden atzerritar kopuruaren arteko zatidura da.

tuak oinarri hartutako lortutako erregularizazio-tasaren emaitzekin koherentzia dagoela ikus daiteke.

(b) Lan-merkatua

2009ko abenduan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak EAEn 13.939 enplegu-eskatzaile atzerritar zituen erregistraturik. Talde hori eskatzaile guztien % 10,9 zen (estatu osoan % 14,4) eta 2008ko abenduarekin alderatuta % 39,3 hazi zen (izena eman zuten pertsonek % 27,4 hazkundea izan zuten). Eskatzaile horien artean % 72,8 Europako Erkidegotik kanpo dute jatorria. Gainera, eta EAEra berriki etorritako atzerritarrak ugari direnez eta mugimendu horiek batez ere ekonomiari loturikoak direnez, enplegu-eskatzaile atzerritarren pisua azken urteetan etengabe hazi da (% 5,4 2006an, % 6,8 2007an, % 9,9 2008an).

Bestalde, Euskal Enplegu Zerbitzuan (Lanbide) 2009ko laugarren hiruhilekoan enplegu-eskatzaile gisa izena eman zuten immigranteei buruzko informazioak erakusten du 11.985 atzerritar zirela, urtebete lehenago baino % 39,4 gehiago. Hori izena eman zutenen % 17,9 da (% 16,7 2008ko laugarren hiruhilabetekoan). Enplegu-eskatzaile atzerritar horien artean % 65 gizonezkoak ziren eta % 35 emakumezkoak. Horrek esan nahi du immigranteen artean enplegu-eskatzaileen artean askoz gehiago direla gizonezkoak, EAEko eskatzaile guztien artean ez bezala (Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa erregistratuta dauden pertsona guztien % 49 emakumeak dira), ekonomia normalizatuari dagokionez gutxienez.

EINek egindako immigrazioari buruzko estatuko inkestak (2007) enplegua duten immigranteen ikasketamaila ezagutzea ahalbidetzen du: EAEn zein estatu osoan talde horren % 70ek baino gehiagok bigarren mailako ikasketak edo unibertsitateko ikasketak dituela azpimarratzen du. Zehazki, EAEn ia erdiek (% 47,9) bigarren mailako ikasketak dituzte, horiek artean % 33,7k bigarren ziklokoak, eta % 23,4k unibertsitateko titulua

I.1.16. GRAFIKOA. Euskal enplegu zerbitzuan izena emanda duten enplegu eskatzaile atzerritarrak sexuaren eta jatorriaren arabera. IV. Hiruhilekoa. 2007tik 2009ra



Iturria: LANBIDEko datuen bidez egindakoa

du. Inkesta horretako datuak ezberdinak dira autonomia erkidego bakoitzeko. EAEk estatuko batez besteko mailaren antzekoa du. Hala ere, kontuan izan behar da immigranteen artean oso talde espezifikoa dela, hau da, estatuan hiru urte baino gehiagoz bizilekua eta ikerketa egitean lana dutenak dira, beraz, datu horiek arretaz hartu behar dira.

Diru-sarreren mailari eta bestelako lan-baldintzei dagokienez, 2007an Ikuspegik immigranteei egindako inkestak zera zioen: orduan, % 51,7k hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera zuela, % 33,1ek 1.000 euro eta 1.500 euro artekoa eta % 7,6k 1.500 euro baino gehiagokoa.Boliviarren % 73,7k, emakume errumaniarren % 64,1ek eta emakume brasildarren, kolombiarren eta ekuadortarren % 62,3k hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten zutela aitortu zuten. Diru-sarrera finkatuena zutenen artean portugaldarrak zeuden, haien % 34,3k 1.500 euro baino gehiago irabazten zutela esan zuten. Aipatutako ratioa % 9,5 zen argentinarren artean. Atzerritarrek lan nagusiari zegokionez aitortu zuten hileko batez besteko diru-sarrera 810 euro ziren; zifra horren gainetik asiarrak (830 €) eta europarrak (975 €) zeuden eta azpitik amerikarrak (760 €) eta afrikarrak (767 €). Datu horiek, aitzitik, inkesta egin zenetik pasa den denboran asko aldatu ahal izan dira, ekonomiaren eta lan-merkatuaren bilakaera dela eta.

EAEko immigranteak Gizarte Segurantzara afiliatu izanaren datuek ere lan-merkatuak sartuta daudela

I.1.12. TAULA. 3 Urte baino gehiagoz bizilekua duten eta lan egiten duten immigranteak, autonomia erkidego bakoitzeko, hasierako eta egungo jarduera motaren arabera. 2007

	ESTATUA		EAE	
	A. Hasierakoa	A. Gaur egungoa	A. Hasierakoa	A. Gaur egungoa
Eraikuntza	353.181	438.414	6.972	9.603
Ostalaritza	323.299	298.315	5.858	5.066
Motodun ibilgailuak, motozikletak eta ziklomotoreak eta gauza pertsonalak eta etxeko gauzak konpontzeko merkataritza	243.223	287.104	5.553	4.984
Manufaktura-industria	202.73	249.857	5.072	6.335
Etxeetako jarduerak	338.811	213.72	10.353	8.629
Higiezinen eta enpresa-zerbitzuen errenten jarduerak	176.335	208.393	1.779	2.122
Garraioa, biltegiratzeak eta komunikazioak	84.385	132.49	738	2.055
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	269.996	116.325	2.922	-
Gizarteko eta komunitateari emandako zerbitzuen beste jarduera batzuk, zerbitzu pertsonalak	92.522	95.187	2.323	1.321
Osasun- eta albaitari-jarduerak, gizarte-zerbitzua	65.585	83.395	1.667	2.37
Hezkuntza	65.241	70.736	3.583	3.977
Herri-administrazioa, derrigorrezko gizarte segurantza eta defentsa	20.375	36.601	1.327	1.06
Finantza-bitartekotza	17.8	20.591	393	344
Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta banaketa	4.534	6.794	-	91
Erauzketa-industria	4.265	3.885	-	-
Ez daki	1.541	2.903	-	205
Arrantza	4.353	2.677	204	584
Lurraldetik kanpoko erakundeak	915	1.706	-	-
Inkestaturiko guztiak	2.269.092	2.269.092	48.744	48.744

Iturria: EIN Immigrazioari buruzko Estatuko Inkesta 2007.

adierazten dute. 2009ko abenduaren 31n EAEn 49.412 immigrante Gizarte Segurantzara afiliatuta zeudela zenbatu zen, urtebete lehenago baino % 0,3 gutxiago. Urteko batez bestekoak kontuan izanez gero, 2009koak, 50.404, 2008koak baino % 3 gutxiago dira eta EAEko afiliatu guztien % 5,4, aurreko urteko ratioa bezala, izan ere, EAEn Gizarte Segurantzan alta emanda duten afiliatu guztiek ere behera egin dute (% -3,4).

Afiliazioen % 5,4ko ratio hori estatuko batez bestekoa baino dezente txikiagoa da, 2009an % 10,5eko batez bestekoa; azken urtean 3 dezimo jaitsi da. Jatorria kontuan izanik, immigrante kotizatzaileen % 65,5 Europako Erkidegotik kanpoko herrialdeetakoak dira. Horietatik % 67,6 erregimen orokorrera dago afiliatuta, % 12,4 autonomoen erregimenera, % 13,6 etxeko langileen erregimenera eta % 6,4 nekazaritzako eta itsas

I.1.17. GRAFIKOA. Gizarte segurantzan afiliatutako atzerritarrak. Lurralde historiko bakoitzeko bilakaera eta afiliatuta dauden guztiekiko portzentajea. EAE



Iturria: Immigrazio Ministerioko datuen bidez testuaren egileak egindakoa

langileen erregimenetara. Gainera, bost afiliatu atzerritarren artean ia hiru gizonezkoak dira (% 59,4), nahiz eta emakumeek parte hartzea areagotzeko joera izan, ekonomia "normalizaturako" geroz eta sarbide errazagoa dutelako. Amaitzeko, EAEko atzerritar afiliatuak estatuko atzerritar afiliatu guztien % 2,8 dira -2008an % 2,5 ziren-. Ratio hori proportzionala da estatuan erroldatutako atzerritarrei dagokienez EAEn erroldatutakoak diren % 2,5arekiko (% 2,2 aurreko urtean).

(c) EAEko herritarrek immigrazioarekiko duten jarrera

Ikuspegiren 2009ko ekaineko Barometroaren arabera, EAEko biztanleek immigrazioa ez dute arazo gisa ikusten. % 2,7k bakarrik aipatzen du naturaltasunez EAEko arazo nagusi gisa. Horrez gain, inkestaturikoen % 12,9k bakarrik aipatzen du arazo gisa naturaltasunez erantzutekoak diren hiru galderen artean. Langabeziari (% 82,2), terrorismoari (% 38,7), etxebizitzari (% 29,2), arazo ekonomikoei (% 28,5) eta herritarren segurtasunaren arazoei (% 14,3) buruzko galderak baino askoz atzerago dago.

Bistako arrazoiak direla eta, egungo krisialdi ekonomikoak aipatutako gainerako arazoak desitxuratu ditu. Immigrazioa arazotzat jotzea 2008an aipaturikoaren gainetik dago (% 7,2k arazotzat jo zuten), baina 2007an aipatutakoaren azpitik (% 15). Halaber, etxebizitzari eta terrorismoari loturiko tasak murriztu egin dira. Aldiz, langabeziari loturiko ardura hazi egin da, % 46,4 izatetik 2008an % 54,4 izatera eta 2009an % 82,2 izatera pasa da. Hala ere, immigrazioa arazo pertsonaltzat hartzen dutenen tasa 7 dezimo hazi da, % 4,9 izatetik % 6,4 izatera.

Immigrazioak EAEko ekonomian duen eraginari dagokionez, 2007an eta 2008an bezala, euskal gizartea ez zen azaldu immigrazioak gizarteak dituen eragin positiboen edo negatiboen alde, eta 0tik 10erako eskalan, batez besteko puntuazioa 4,95 izan zen (4,89 2008an eta 5,00 2007an). Halaber, neurri txikiagoan

I.1.18. GRAFIKOA. Zeintzuk dira EAEko hiru arazorik garrantzitsuenak? (gehienez ere 3 erantzun, naturaltasunez erantzutekoak)



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2009ko ekaina.

I.1.19. GRAFIKOA. Immigranteek ondorengo eskubideak izan al beharko lituzkete bertakoen baldintza berberetan? EAE, 2009



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2009ko ekaina

I.1.20. GRAFIKOA. Immigrazioa Espainiako eta norberaren arazotzat jotzearen bilakaera. 2002ko urtarrila-2009ko ekaina. Datuak ehunekoetan



Iturria: IKUSPEGI, Ikerketa Soziologikoen Zentroko datuen bidez.

I.1.21. GRAFIKOA. Immigrante langileei dagokienez, zein uste duzu dela politikarik egokiena? Datuak ehunekoetan



Iturria: Ikuspegi Barometroa, 2009ko ekaina.

aldiz, bitarteko guztien bidez hori oztopatzearen aldekoak dira. % 83,2 sarrera baimentzearen aldekoa da, baina lan-kontratua izanik. Ratio hori aurreko urtekoa baino zertxobait altuagoa da, baina 2007koan baino baxuagoa.

Immigrazioaren fenomenoaren aurrean herritarrek duten jarrerari dagokionez, Ikuspegiren 2009ko urriko aldizkariak Ikerketa Soziologikoen Zentroko inkesten emaitzetan estatu-mailan antzemandako paradoxa azpimarratzen du: Immigrazioa "Espainiako arazotzat" (% 59) eta "arazo pertsonaltzat" (% 18) gehien 2006ko irailean jo baldin bazen, ordutik aurrera behera egin du eta azkenaldian joerari eutsi dio krisialdi ekonomikoa gorabehera; hortaz, unerik larriena ez dator bat jarreretan daturik negatiboenak jaso ziren aldiarekin, espero zen bezala.

Egoera horren aurrean, Immigrazioaren Euskal Behatokiak bi interpretazio ditu. Bata zera da, egoera ekonomikoak ez ditu hain modu kategorikoan baldintzatzen immigrazioari buruzko jarrerak eta pertzepzioak, batzuetan uste den bezala; eta bestea, langabeziak protagonismo handia hartu du arazo gisa, eta ondorioz beste batzuen garrantzi ezkutua murriztu edo estali egiten du.

Azkenik, atzerritarrek bertako pertsonek haiekiko duten jarrerari buruz uste dutenari dagokionez, Ikuspegik 2007an[10] atzerritarrei egindako inkestak zera erakutsi zuen: Inkestaturikoen % 73k aitortu zuen inoiz edo ia inoiz ez zietela ohartarazi euskaldunentzat mehatxu ekonomikoa zirenik. Afrikako jatorria zutenek, eta batez ere Afrika Beltzetik zetozenek antzeman zuten gehiagotan jarrera negatiboa (horien % 57k aitortu zuen "inoiz" edo "ia inoiz" ez zituztela modu horretara ukatu). Gainera, % 63k aitortu zuen inoiz edo ia inoiz ez zirela baztertuta sentitu, ez zutela begiradarik sumatu eta ez zutela hitz txarrik entzun edo bestelako gaitzespen-jarrerarik antzeman euskal gizartearen aldetik. Orduan ere, jatorria Afrikan zutenek izan zuten pertzepzio negatiboagoa. Europarrek eta argentinarrek, aldiz, neurri txikiagoan antzeman zituzten gaitzespen-jarrerak.

1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA

1.2.1 Hezkuntzako gastu publikoa

2008ri buruz eskuragarri dauden azken datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastua 2.589.172 mila eurokoa izan zen, bigarren sailik garrantzitsuena, Osasunaren atzetik (3.240.668 mila euro). Horrek, aurreko ekitaldiaren aldean, %7,7ko hazkundea dakar, baina hazkunde hori 2006 eta 2007 artean gertatutakoa baino txikiagoa da, ordukoa %12,3koa izan baitzen.

Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan Hezkuntza Sailari esleitutako zenbatekoaren parte hartzea %27,8koa da. Horrek, aurreko urtearen aldean, murrizketa txiki bat dakar, bi hamarrenekoa. Gastu hori EAEko

[10] Inkesta horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi 2007ko EAEko Memoria Sozioekonomikoaren "Demografia eta Immigrazioa" kapitulua. Kapitulu horretan atzerritarrek EAEn duten gaitzespenari edo bazterketari buruz duten pertzepzioaren inguruko epigrafe espezifikoa dago erantsita.

I.1.13. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza, unibertsitate eta ikerkuntza sailak likidatutako gastuaren bilakaera

Urteak	Mila euro	Jaurlaritzaren guztizkoa (mila euro)	EJk likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPGd mila € (oinarria 2005)	BPGd gaineko %	2001eko oinarria=100	Ikasleak guztira (1)	Gastuak ikasle bakoitzeko eurotan
2001	1.579.449	5.724.498	27,6	43.930.667	3,60	100	431.902	3.657
2002	1.700.754	6.026.306	28,2	46.226.280	3,68	108	427.086	3.982
2003	1.819.806	6.392.507	28,5	49.241.753	3,70	115	426.530	4.267
2004	1.882.886	6.725.309	28,0	53.305.396	3,53	119	462.517	4.071
2005	2.021.892	7.312.911	27,6	57.289.143	3,53	128	435.579	4.642
2006	2.140.099	7.770.938	27,5	61.760.620	3,47	135	437.900	4.887
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	65.928.497	3,65	152	438.745	5.477
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	69.212.109	3,74	164	483.671	5.353

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira.
Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasleak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude.
Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.
Iturria: Norberak egina EUSTAT eta EAEko Kontu Orokorretatik hartuta.

BPGd-aren %3,74 da. 2007. urtean %3,65 izan zen eta, beraz, haren aldean hamarren bat hazi da.

Ikasle bakoitzeko (ikasle guztiak, hots, erregimen orokorrekoak eta berezikoak: hizkuntzak, musika, dantza...) Hezkuntza Sailaren gastuaren ratioa murriztu egin da, 5.477 eurotik 5.353ra, 2008an ikasleak gastua baino gehiago hazi zirelako.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren (MEC) datuen arabera ("Estadística *del Gasto Público en Educación 2008*"), 2007an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak EAEn izandako gastu 2.352 milioi eurokoa izan da; Estatu osoan Hezkuntza Administrazioei dagokien gastua 40.495 milioi eurokoa izan da. Horren ondorioz, BPGd-ren gainean Hezkuntza Administrazioek izandako gastua[11] %3,62koa da EAEn (%2,96 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,57 unibertsitatekoan) eta %3,85ekoa Estatuan (%2,84 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,88).

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, oraindik ere aurrekontuaren zatirik handiena hartzen duten programak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH dira. Denek batera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastu osoaren %72,2 dakarte. Nabarmentzekoak dira honako programetan gertatutako hazkundeak: Egitura eta laguntzan (%24,4) eta neurri txikiagoan Ikerkuntzan (%11,2) eta Haur eta Lehen Hezkuntzan (%+10,1).

Hezkuntza mailaren arabera bereiziz gero, ikusten da BPGd-ren gaineko gastua Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza; beraz, HHE, helduen hezkuntza, kanpoan geratzen da) hazi dela, %2,6tik %2,73ra igaroz; eta Unibertsitatekoan egonkor iraun duela, %0,48.

[11] EINren datuen arabera

I.1.14. TAULA 2007ko hezkuntzako gastua

	BPGd (mila €)	Hezkuntzako gastua guztira				Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (mila €)	%		Gastua/ BPGd	Guztira (mila €)	%		Gastua/ BPGd	Guztira (mila €)	%		Gastua/ BPGd
			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua	
GUZTIRA (1)	**1.052.730.000**	**44.986.950**	**87,0**	**11,9**		**32.837.716**	**91,4**	**8,5**		**9.335.988**	**73,5**	**21,5**	
Hezkuntza Administrazioak guztira		40.495.387	88,2	10,6	3,85	29.863.282	88,4	7,3	2,84	9.304.639	73,5	21,5	0,88
MEC		2.185.240	95,3	2,0	0,21	940.883	97,0	3,0	0,09	343.051	78,2	4,5	0,03
ANDALUZIA	144.774.767	6.902.484	84,9	12,1	4,77	5.140.541	85,7	9,3	3,55	1.715.336	67,4	20,6	1,18
ARAGOI	32.831.070	1.084.809	89,3	10,7	3,30	806.680	87,1	6,7	2,46	263.614	76,6	23,2	0,80
ASTURIAS	22.905.655	929.684	83,7	15,5	4,06	646.454	88,9	5,9	2,82	205.916	74,2	23,6	0,90
BALEAR UHARTEAK	26.130.320	760.542	93,1	6,8	2,91	674.817	92,4	4,6	2,58	83.875	75,1	24,7	0,32
KANARIAR UHARTEAK	41.805.640	1.653.086	92,5	7,4	3,95	1.353.242	89,7	6,2	3,24	284.362	85,7	13,7	0,68
KANTABRIA	13.336.874	508.436	89,4	10,6	3,81	397.289	95,0	5,0	2,98	111.147	69,3	30,6	0,83
GAZTELA ETA LEON	56.392.674	2.168.099	88,8	10,9	3,84	1.642.587	87,3	9,3	2,91	512.242	82,6	16,3	0,91
GAZTELA-MANTXA	35.490.396	1.748.974	90,4	9,0	4,93	1.531.905	82,1	8,4	4,32	216.56	82,0	13,6	0,61
KATALUNIA	197.118.777	6.048.614	89,2	10,5	3,07	4.618.593	90,8	7,1	2,34	1.395.473	76,7	22,2	0,71
VALENTZIA	102.573.169	4.196.046	82,5	14,5	4,09	3.033.120	87,4	9,0	2,96	1.131.269	61,5	29,8	1,10
EXTREMADURA	17.391.689	941.068	92,3	7,7	5,41	803.822	87,9	5,5	4,62	133.468	78,6	21,4	0,77
GALIZIA	54.072.765	2.349.794	88,1	11,4	4,35	1.806.635	90,1	6,4	3,34	513.336	73,0	25,0	0,95
MADRIL	186.671.422	4.999.830	87,6	11,5	2,68	3.262.566	87,6	6,3	1,75	1.646.351	74,9	22,4	0,88
MURTZIA	26.995.450	1.245.825	88,1	11,3	4,61	972.909	89,1	6,1	3,60	263.442	66,3	31,0	0,98
NAFARROA	17.722.300	572.921	92,8	7,2	3,23	489.053	91,3	5,9	2,76	78.942	84,0	16,0	0,45
EAE	**65.062.302**	**2.352.114**	**93,8**	**6,2**	**3,62**	**1.928.123**	**92,9**	**5,2**	**2,96**	**373.640**	**87,6**	**12,2**	**0,57**
ERRIOXA	7.731.168	247.301	90,4	9,6	3,20	204.301	87,7	8,5	2,64	41.861	84,4	15,5	0,54
Hezkuntzaz kanpoko Administrazioak guztira (2)		4.491.562	76,0	24,0		2.974.435	79,3	20,6		31.348	96,3	3,6	

(1) Banaketa ateratzeko guztizkoari Administrazioak banatu gabekoa eta doitzeko sailak kendu zaizkio (2) Beste Ministerio eta Sail batzuk eta tokiko korporazioak biltzen ditu. Iturria: MEC (Hezkuntzako gastu publikoari buruzko estatistika) eta EIN

I.1.15. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sailak likidatutako gastuaren banakapena (zenbatekoa mila eurotan)

	2005	2006	2007	2008	2007-08 bilakaera
BPGd prezio korrontetan	57.289.143	61.760.620	66.427.468	68.428.685	3,0
Unibertsitateaz kanpoko ikasleak Helduen Hezkuntza Iraunkorrik gabe	305.708	310.309	314.573	319.414	1,5
Unibertsitateko ikasleak	72.394	68.924	66.077	65.101	-1,5
Erregimen bereziko ikasleak	33.238	32.930	31.233	25.044	-19,8
HHIko ikasleak	24.239	25.737	26.862	29.112	8,4
Egitura eta laguntza	38.194	41.061	48.293	60.067	24,4
Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza	698.872	760.166	848.251	934.102	10,1
Bigarren hezkuntza, osabidezkoa, LH	802.801	840.599	878.533	934.335	6,4
Unibertsitateko hezkuntza	252.237	261.965	321.047	329.661	2,7
Erregimen bereziko hezkuntza	77.93	72.188	52.813	56.224	-100,0
Norberaren aurrekontua	70.743	71.905			
Ekonomia eta gizarte inbertsioko plan berezian zordundua	7.188				
Hezkuntzako berrikuntza eta irakasleen prestakuntza iraunkorra	24.721	26.713	37.436	39.303	5,0
Ikasketa iraunkorra eta helduen hezkuntza HHI			68.027	73.112	7,5
Hezkuntza sustapena	80.866	85.536	94.773	102.372	8,0
Kiroleko irakaskuntza (kulturan zordundua)	1.472		0		
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	33.727	30.985	31.163	32.719	5,0
Ikerkuntza	11.235	16.293	22.823	25.377	11,2
Euskadi informazioaren gizartean plana	8.495	4.878	0	0	
Berrikuntza gordailua				1.900	
GUZTIRA	**2.021.892**	**2.140.100**	**2.282.319**	**2.589.172**	**13,4**
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza (haur, lehen eta bigarren hezkuntza; beraz, HHI kanpoan utzita) BPGd-ren gainean	2,62	2,59	2,60	2,73	
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza (haur, lehen eta bigarren hezkuntza; beraz, HHI kanpoan utzita) ikasle bakoitzeko	4.912	5.159	5.489	5.850	
Unibertsitateko hezkuntza/BPGd (%)	0,44	0,42	0,48	0,48	
Unibertsitateko hezkuntza ikasle bakoitzeko	3.484	3.801	4.859	5.064	
Ikerkuntza/BPGd (%)	0,02	0,03	0,03	0,04	

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta norberak egina

Ikasle bakoitzeko gastua Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza; HHE kanpoan geratzen da) hazi da, 5.489 eurotik 5.840ra igaroz; baita Unibertsitatekoan ere, 4.859 eurotik 5.064 eurora igaroz.

MECen arabera (Hezkuntzako gastu publikoari buruzko estatistika. 2008. urtea), 2007. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utziz, Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastu publikoa (publikoa eta itundua) 6.786 eurokoa izan da EAEn. Horren arabera, gure Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena daukana da. Estatuko batez bestekoa 5.228 eurokoa da. EAEtik gertu daude Asturias (6.316 euro), Nafarroa (6.153), Galizia (6.114) eta Kantabria (5.970).

1.2.2 Unibertsitatekoa ez den hezkuntza

1.2.2.1 Ikasleen bilakaera hezkuntza mailaren arabera

EUSTATek aurreratutako datuen arabera, EAEn 2009/2010 ikasturtea unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza kanpoan utziz) guztira matrikulatutako 333.623 ikaslerekin hasi da. Horrek berriz ere hazkundea dakar, aurten %1,7koa (2008-2009 ikasturtean baino 5.440 ikasle gehiago).

Aurreko urteetan ez bezala, hazkundea beheko maletan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) gertatu da. Hezkuntza berezia alde batera utzita,

I.1.16. TAULA. Ikasleak titulu eta mailaren arabera (1)

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10 behin-behin.	2007-08/ 2008-09 (%)	2008-09/2009-10 (%)
Hez. bereziko ikastetxe guztiak	301.497	305.708	310.309	314.573	319.842	328.183	333.623	2,6	1,7
Hez. bereziko beheko mailak	238.776	244.948	251.249	257.608	264.518	270.347	274.769	2,2	1,6
Haur Hezkuntza	68.754	76.255	81.273	84.851	88.308	91.206	91.993	3,3	0,9
Educación Lehen Hezkuntza	97.802	98.502	100.497	103.859	107.329	110.095	113.207	2,6	2,8
Hezkuntza berezia (HH-LH)	412	382	397	404	412	423	428	2,7	1,2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	72.220	70.191	69.479	68.898	68.881	69.046	69.569	0,2	0,8
Hastapeneko lanbide-prestakuntzako programak (HLPP)						2.641			-100,0
Hezkuntza berezia (DBH)	168	186	201	184	199	195	220	-2,0	12,8
Erdi mailako irakaskuntzak edo derrigorrezkoaren ondorengoa (DBHO) hez. berezirik gabe	61.734	59.815	58.087	55.982	54.326	54.162	57.767	-0,3	6,7
Batxilergoa	32.631	31.667	30.719	30.043	29.112	28.832	29.429	-1,0	2,1
Erdi mailako LH	10.999	11.050	11.023	10.523	10.266	10.232	11.416	-0,3	11,6
Goi-mailako LH	18.104	17.098	16.345	15.416	14.948	15.098	16.922	1,0	12,1
Zereginen ikaskuntza (LH. Hezkuntza berezia)	407	377	375	395	387	415	439	7,2	5,8
Batxilergoaren % DBHO osoarekiko	52,9	52,9	52,9	53,7	53,6	53,2	50,9	-0,7	-4,3
LHren % DBHO osoarekiko	47,1	47,1	47,1	46,3	46,4	46,8	49,1	0,8	4,9

(1) Erregimen orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak. Ez dira barruan sartzen ez helduentzako hezkuntza iraunkorra ez erregimen bereziko irakaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika). Iturria: EUSTAT

I.1.17. TAULA. Lanbide heziketako ikasleak

FAMILIA		2005-06 IKASTURTEA		2006-07 IKASTURTEA		2007-08 IKASTURTEA		2008-09 IKASTURTEA	
		Erdi mailako gradua	Goi-mailako gradua	Erdi mailako gradua	Goi-mailako gradua	Erdi mailako gradua	Goi-mailako gradua	Erdi mailako gradua	Goi-mailako gradua
Nekazaritza/nekazaritzako jarduerak	Guztira	163	141	150	141	130	126	152	145
	emakumeen %	22,7	23,4	22,0	23,4	29,2	24,6	28,9	26,2
Itsas arrantza/itsas arrantzako jarduerak	Guztira	71	144	83	144	76	127	58	138
	emakumeen %	1,4	13,2		13,2	1,3	7,9	3,4	2,9
Metalgintza/fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.884	1.976	1.679	1.976	1.653	1.653	1.716	1.733
	emakumeen %	4,8	13,4	6,3	13,4	6,2	12,6	6,6	14,3
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.325	2.116	1.2	2.116	1.165	1.883	1.204	1.852
	emakumeen %	3,7	9,1	4,2	9,1	3,8	9,2	3,7	7,5
Kimika	Guztira	97	643	82	643	59	517	56	435
	emakumeen %	39,1	58,0	63,4	58,0	64,4	55,3	58,9	62,1
Eraikuntza eta obrak/eraikuntza eta obra zibila	Guztira	125	672	98	672	92	690	76	706
	emakumeen %	10,4	34,4	9,2	34,4	8,7	32,2	5,3	32,4
Zurgintza/zurgintza eta altzarigintza	Guztira	247	43	243	43	231	50	240	45
	emakumeen %	6,5	20,9	9,5	20,9	8,2	18,0	9,2	15,6
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	628	680	622	680	585	616	559	585
	emakumeen %	42,0	64,9	41,8	64,9	40,0	60,6	38,1	57,9
Osasungintza/osasuna	Guztira	1.317	1.091	1.363	1.091	1.37	1.043	1.371	1.092
	emakumeen %	92,6	84,6	91,9	84,6	93,1	83,6	91,5	80,7
Arte grafikoak	Guztira	219	319	191	319	185	285	184	273
	emakumeen %	46,1	53,3	46,6	53,3	51,4	58,9	48,4	57,9
Automozioa/berez dabiltzan ibilgailuen mantentzea	Guztira	970	420	925	420	878	449	871	443
	emakumeen %	2,1	2,9	2,7	2,9	2,2	4,2	2,9	3,4
Irudia eta soinua/komunikazioa, irudia eta soinua	Guztira	72	344	66	344	73	342	64	349
	emakumeen %	48,6	42,7	57,6	42,7	54,8	37,1	48,4	40,1
Ile-apainketa eta estetika/irudi pertsonala	Guztira	841	195	842	195	823	214	772	209
	emakumeen %	98,3	100,0	98,6	100,0	99,1	99,5	98,2	99,5
Gorputz eta kirol jarduerak	Guztira	108	434	104	434	110	464	120	474
	emakumeen %	27,8	28,8	36,5	28,8	30,0	28,4	21,7	23,0
Administrazioa	Guztira	1.003	2.023	955	2.023	985	1.938	963	1.930
	emakumeen %	82,5	77,2	81,2	77,2	79,2	77,9	80,7	76,4
Gizartearentzako zerbitzuak/gizarte eta kultura-zerbitzuak	Guztira	215	1.338	199	1.338	239	1.428	263	1.650
	emakumeen %	93,5	92,7	92,0	92,7	91,2	90,5	88,6	89,3
Merkataritza eta marketina	Guztira	366	837	346	837	320	824	298	790
	emakumeen %	77,3	55,1	79,5	55,1	71,6	52,4	73,2	50,3
Informatika	Guztira	547	1.807	571	1.807	527	1.240	499	1.151
	emakumeen %	21,9	25,1	20,3	25,1	20,1	23,4	17,8	22,1
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	16	71	1	71		79		75
	emakumeen %	93,8	90,1	100,0	90,1		94,9		86,7
Elikagaien industria	Guztira	22	19	28	19	10	8	9	15
	emakumeen %	31,8	68,4	28,6	68,4	40,0	62,5	33,3	66,7
Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak	Guztira	787	1.032	775	1.032	755	972	757	1.008
	emakumeen %	4,2	13,0	1,4	13,0	3,3	10,6	2,4	8,6
Guztira	**Guztira**	**11.023**	**15.313**	**10.523**	**15.313**	**10.266**	**14.948**	**10.232**	**15.098**
	emakumeen %	**38,2**	**43,1**	**38,6**	**45,2**	**40,2**	**43,8**	**39,1**	**43,3**

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

2009-2010 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 274.769 ikasle zeuden matrikulatuta, 91.993 Haur Hezkuntzan, 113.207 Lehen Hezkuntzan eta 69.569 DBHn. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) eta erdi mailako irakaskuntzetan ere hazkundea gertatu da.

Haur hezkuntzan azken ikasturteko hazkundea %0,9koa izan da; horrek hazkundearen moteltzea dakar, 2008-09 ikasturtean %3,3koa izan baitzen. Lehen Hezkuntzan, ordea, %2,6ko hazkundetik %2,8kora pasa da.

DBHko matrikulazioak urteetan erori ondoren, 2008-09 ikasturtean lehen aldiz egon zen hazkundea (%+0,2), eta 2009-10 ikasturtean joera berretsi da, oraingoan %0,8ko hazkundea.

Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo erdi mailako irakaskuntzetan matrikulatutako ikasle kopurua %6,7 hazi da. Hazkunderik handienak LHn, goi-mailako LHn (%12,1) eta erdi mailako LHn (%11,6) gertatu dira. Urrunago datoz zereginen ikaskuntza (%5,8) eta batxilergoa (%2,1).

2009-10 ikasturtean erdi mailako irakaskuntzetan ikasten duten 57.767 ikasleetatik, 29.429k, hots, %50,9k (%53,2k aurreko urtean) batxilergoa hautatu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren; %49,1ek Lanbide Heziketa (%46,8k aurreko urtean), eta gainontzekoek zereginen ikaskuntza.

EUSTATen datuen arabera, gehien eskatzen diren erdi mailako lanbide tituluak oraindik dira Metalgintza eta fabrikazio mekanikoa (%16,8, 2007-08 ikasturteko %16,1en aurrean), Osasuna, %13,4 (%13,3 aurreko ikasturtean), Elektrizitatea-elektronika, %11,8 (%11,3 aurreko ikasturtean), eta Administrazioa, %9,4 (%9,6 aurreko ikasturtean). Bigarren taldea ez da hainbeste nabarmentzen eta, berriz ere, honakoek osatzen dute: Automozioa eta ibilgailuen mantentzea, %8,5 (%8,6 aurreko urtean), Irudi pertsonala, %7,5 (%8 aurreko urtean), eta Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak, %7,4 (lehenago ere, %7,4).

Goi-mailako tituluen artean, honakoak nabarmentzen dira: Administrazioa, %12,8 (%13 aurreko ikasturtean), Elektrizitatea eta elektronika, %12,3 (haren pisu erlatiboa 0,3 puntu jaitsi da), Metalgintza eta fabrikazio mekanikoa, %11,5 (%11,1 aurreko aldian), Gizarte eta kultura-zerbitzuak, %10,9 (%9,6 aurreko urtean), Informatika, %7,6 (beherako joerari jarraituz, 2007-08 ikasturtean %8 izan baitzen, eta aurrekoetan %9,3, %11,8 eta 2003-04an lanbide familiarik eskatuena zen, ikasleen %13,3 bilduz), eta Osasuna, %7,2.

1.2.2.2 Bilakaera ikastetxeen titulartasunaren eta eredu soziolinguistikoen arabera

Bilakaera titulartasunaren arabera

EUSTATek argitaratutako datuen arabera, sare publikoko prestakuntza ziklorik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza eta DBH) matrikulatutako ikasleen ehunekoak gora jarraitu du azken urteotan eta 2008-09 ikasturtean %48,8 izan da. Mailaren arabera banakatuz, ikusten da haur eta lehen hezkuntzako matrikulazio publikoa %51,2 eta %49,5ekoa dela, hurrenez hurren, aipatu batez bestekoa gainditu dituz. DBHn ehunekoa txikiagoa da, %44,6.

Bestalde, DBHOn %52,6koa da, eta bertan erdi mailako LHri dagokion %57,6ko ratioa nabarmentzen da.

Bukatzeko, 2007an, EUSTATen datuen arabera (eskuragarri dauden azken zenbatekoak), ikastetxe pribatuen %83 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak osorik edo zati batean itunduak dira. Estaldura maila hori %98koa da derrigorrezko hezkuntzari, hots, LH eta DBHri, dagokionez. Gainontzeko mailetan, ehunekoak era handiak dira: %97 Batxilergoan, %93 Lanbide Heziketan eta %83 Haur Hezkuntzan.

Bilakaera eredu soziolinguistikoen arabera

Hizkuntza ereduen sistema abiarazi zenetik, euskalduntze prozesuak gorako joera izan du. Horrela, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteen artean D ereduko matrikulatze osoa (HHIrik gabe) %54,4tik %56ra igaro da; A ereduan, aldiz, %21,9tik %20,2ra jaitsi da. Bestalde, B eredua ere hasi da, %23tik %23,2ra.

Horrela, Haur Hezkuntzan 2007-08 ikasturtean D ereduaren hautua matrikulatze guztien %69 izan da eta A ereduarena, aldiz, %5,5. Lehen Hezkuntzan matrikulatzeen %58,7 D ereduari dagokio eta A ereduari

I.1.18. TAULA. Ikasleen banaketaren bilakaera ikastetxeen titulartasunaren arabera *

	2005/2006			2006/2007			2007/2008			2008/09		
	Guztira	Publi-koa	Pribatua	Guztira	Publi-koa	Pribatua	Guztira	Publi-koa	Priba-tua	Guztira	Publi-koa	Pribatua
Guztira*	**309.336**	**48,5**	**51,5**	**313.590**	**48,9**	**51,1**	**318.844**	**49,2**	**50,8**	**324.509**	**49,5**	**50,5**
Beheko mailak	251.249	47,5	52,5	257.608	48,1	51,9	264.518	48,5	51,5	270.347	48,8	51,2
Haur Hezkuntza	81.273	50,6	49,4	84.851	51,0	49,0	88.308	51,1	48,9	91.206	51,2	48,8
Lehen Hezkuntza	100.497	48,4	51,6	103.859	48,7	51,3	107.329	49,2	50,8	110.095	49,5	50,5
DBH	69.479	42,6	57,4	68.898	43,4	56,6	68.881	44,0	56,0	69.046	44,6	55,4
DBHO mailak	58.087	52,9	47,1	55.982	53,0	47,0	54.326	52,5	47,5	54.162	52,6	47,4
Batxilergoa	30.719	53,3	46,7	30.043	53,3	46,7	29.112	52,6	47,4	28.832	52,0	48,0
Erdi mailako LH	11.023	57,4	42,6	10.523	57,5	42,5	10.266	56,7	43,3	10.232	57,6	42,4
Goi-mailako LH	16.345	49,1	50,9	15.416	49,2	50,8	14.948	49,4	50,6	15.098	50,5	49,5

HHIrik eta hezkuntza berezirik gabe. Iturria: EUSTAT

I.1.19. TAULA. Hizkuntza ereduen bilakaera

	2006-07			2007-08		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
Erregimen orokorreko irakaskuntzak HHIrik gabe	21,9	23,0	54,4	20,2	23,2	56,0
Haur Hezkuntza	6,0	26,1	67,5	5,5	25,1	69,0
Lehen Hezkuntza	11,1	30,6	57,4	10,2	30,4	58,7
DBH	24,0	24,9	50,3	21,8	26,1	51,4
Batxilergoa	51,0	1,3	47,1	49,3	1,3	48,7
Erdi mailako LH	77,9	3,0	19,1	76,9	3,5	19,6
Goi-mailako LH	77,8	2,7	19,5	76,3	2,5	21,2
HB (zereginen ikaskuntza)	64,1	9,4	26,6	62,0	11,6	26,4

Iturria: EUSTAT. Datu basea

%10,2. DBHn D eredua %51,4 da eta A %21,8. Batxilergoak, hurrenez hurren, %48,7 eta %49,3 dira.

Kontrakoa gertatzen da Lanbide Heziketan. Bertan erdi mailako LHko matrikulatzeen %19,6 eta goi-mailako LHkoen %21,2 baino ez dira D ereduan gertatzen; A ereduan, aldiz, %76,9 eta %73,3, hurrenez hurren.

Euskadiko Eskola-Kontseiluaren txostenaren arabera, D ereduko lerro berriak zabaltzeko behar beste

matrikulatzeak lortzeko zailtasunen aurrean, LH euskalduntzea bultzatzeko bide gisa, Hezkuntza Sailak A ereduan modulu batzuk euskaraz irakasteko aukera ematen du, eskatzen duen ikasle kopuru nahikoa egonez gero, arlo horietan taldea bikoiztuz horretarako. LHko matrikulatzeen %3 daude egoera horretan, eta ikastetxe itunduetan daude.

Bukatzeko, sareak erkatuta, euskalduntze maila nabarmen handiagoa da sare publikoan.

1.2.3 Unibertsitateko irakaskuntzaren eboluzioa[12]

2008-09 ikasturtean Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparrua (EGHE) eraikitzeko hitzarmenetatik eratorritako lehenengo graduak hasi ziren eskaintzen; mementoz matrikulatze kopurua oso txikia da (381) eta unibertsitate pribatuetan baino ez dira eskaini.

Horrela, EAEko unibertsitateetan guztira 63.337 ikasle daude matrikulatuta. Zikloka banatuta, ikusten da

I.1.20. TAULA. Ikasketa ziklo eta adarraren arabera matrikulatutako ikasleak 2008-09

	Guztira	Gizon.	Emak.	Unibertsitateen %	
				Publ.	Pribatuak
Guztira	**63.337**	**28.579**	**34.758**	**79**	**21**
1. eta 2. zikloetan matrikulatuak	59.118	26.691	32.427	80	20
Ziklo luzea (1)	31.375	13.566	17.809	80	20
Ziklo laburra (2)	24.650	11.663	12.987	82	18
Bigarren zikloa bakarrik (1)	3.093	1.462	1.631	75	25
Gradukoetan matrikulatuak (3)	381	249	132	0	100
Graduondokoetan matrikulatuak (4)	3.838	1.639	2.199	61	39
Irakaskuntza adarrak					
Gizarte Zientziak eta Z. Juridikoak	29.724	10.458	19.266	75	25
Irakaskuntza Teknikoak	18.585	13.126	5.459	78	22
Giza zientziak	5.756	2.157	3.599	83	17
Osasun Zientziak	4.024	800	3.224	100	0
Zientzia Esperimentalak	3.125	1.149	1.976	99	1
Ez dago jasota	2.123	889	1.234	49	51

(1) Bigarren zikloa gainditzeak Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto titulua lortzea dakar.
(2) Lehenengo zikloa gainditzeak Diplomatu, Arkitekto edo Ingeniari tekniko titulua lortzea dakar.
(3) Europako Goi-mailako Hezkuntzako Esparruak (EGHE) unibertsitateko irakaskuntzei emandako egitura berria honakoa da: gradua, masterra eta doktoretza. Graduek 240 kreditu dauzkate eta masterrek 60 eta 120 kreditu artean.
(4) LRU doktoretza ofizialeko programetan eta graduondoko (masterrak eta doktoretzak) programa ofizial berrietan matrikulatutako ikasleak
Iturria: EUSTAT. Prentsa oharra

[12] EAEn unibertsitate egitura oinarrian lau Unibertsitatek osatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitatea eta UHUN bere zentro elkartuen bidez.

gehienek (%58,3) lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua lortzera daramaten ikasketak hautatzen dituztela (34.468 ikasle); %40k, hots, 24.650 ikaslek, diplomatu, ingeniari edo arkitekto teknikoko titulua lortzera daraman ziklo laburra; 381k graduko ikasketak eta 3.838k graduondokoak.

Adar motaren hautaketari dagokionez, orokorrean, ikasle gehienek gizarte zientzien eta zientzia juridikoen barruko prestakuntza (%47) edo irakaskuntza teknikoak (%29) hautatu zituzten, eta sexu bien artean desberdintasunak daude. Izan ere, gizonezkoek prestakuntza teknikoagoa egin zuten (%46) eta emakumezkoek, ordea, gehiago hautatu zuten prestakuntza sozio-juridikoa (%55). Oro har, sexu biek gutxien hautatu zituzten adarrak giza zientziak (%9), osasun-zientziak (%6) eta zientzia esperimentalak (%5) izan ziren.

1.2.3.1 Unibertsitateko lehenengo, bigarren zikloa eta gradua EAEn

EUSTATen datuen arabera, EAEn goi-mailako irakaskuntzako matrikulatzea (unibertsitate guztietarako, publikoak zein pribatuak izan), etengabe ari da jaisten 1997-98 ikasturtetik, eta joera errepikatu egiten da sexuaren arabera bereiziz (emakumeei dagokienez, jaitsiera 1998-99 ikasturtean hasi arren). Azken datuak 2008-09 ikasturtekoak dira eta aurreko ikasturtearen aldean ikasleen %3,5eko murrizketa erakusten dute (%3,2 gizonezkoei dagokienez eta %3,7 emakumezkoei dagokienez). Horrela, eta azken bost urteetan biztanleria hazi arren, 80 eta 90eko hamarkadetan gertatutako murrizketa unibertsitateko irakaskuntzetako matrikulatze kopuruan ari da islatzen.

Generoko ikuspuntutik, matrikulatze femeninoaren proportzioa oraindik da %50etik gorakoa. 2008-09 ikasturtean, matrikulatutako %54,7 emakumezkoak dira, aurreko urteko ratioa baino apur bat txikiagoa, %54,9koa izan baitzen.

Bestalde, EINren unibertsitateari buruzko estatistikak erakusten du 2008-2009 ikasturtean 1.391.253 ikasle matrikulatu direla Estatuko unibertsitateetan (lehenengo eta bigarren zikloko eta graduko ikasketetan); horrek aurreko ikasturtearen aldean %0,4ko jaitsiera dakar. EAEn, jaitsiera %4koa da. Horren ondorioz, Estatuan 2000-01 ikasturtean eta EAEn urtebete lehenago unibertsitateko ikasleen kopuru osoan hasitako beheranzko joerak aurrera jarraitzen du (estatistika sail hori 1998-99 ikasturtean hasi zen, aurreko ikasturteei buruzko informaziorik ez dagoelako). Neurri handi batean adin horietan gertatutako biztanleria murrizketak eragin du hori.

Hala ere, unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanleria osoan daukan portzentajea 2008-09 ikasturtean hasi zen berriz. EAEn, 2007-08 ikasturtean %31,2 bazen, 2008-09 ikasturtean %31,9 da. Bestalde, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanleria osoan daukan portzentajea %31tik %31,7ra igaro da. Bestela esanda, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanlerian daukan pisua EAEn baino apur bat txikiagoa da baina hark ere goranzko bilakaera dauka.

I.1.21. TAULA. Goi-mailako hezkuntzan (1. eta 2. zikloak) eta graduetan matrikulatutako ikasleen bilakaera sexu eta aldiaren arabera

	1995/96	1996/97	1997/98	1998/99	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/2009		Bilak. 2006-07/ 2007-08	Bilak. 2007-08/ 2008-09
									1 ETA 2	GRADUAK		
Guztira	**85.043**	**88.914**	**88.557**	**87.386**	**69.696**	**66.322**	**63.691**	**61.649**	**59.118**	**381**	**-3,2**	**-3,5**
Gizonezkoak	39.737	41.147	40.686	40.101	31.746	30.219	29.048	27.831	26.691	249	-4,2	-3,2
Emakumezkoak	45.306	47.767	47.871	47.285	37.950	36.103	34.643	33.818	32.427	132	-2,4	-3,7

Iturria: EUSTAT. Datu basea

I.1.22. TAULA. Unibertsitateko ikasleen bilakaera historikoa (hirugarren zikloa, hots, masterrak eta doktoretzak, ez dira sartzen)

	EAE			Estatua			EAEko ikasleak/ Estatuko guztizkoaren %
	ikasleak	18-25 urte arteko biztanleak	ikasleen % 18-25 urte arteko biztanleen gainean	ikasleak	18-25 urte arteko biztanleak	ikasleen % 18-25 urte arteko biztanleen gainean	
1999-2000	78.225	266.591	29,3	1.587.055	5.229.436	30,3	4,9
2000-01	74.958	257.365	29,1	1.554.972	5.158.001	30,1	4,8
2001-02	70.905	246.816	28,7	1.526.907	5.107.285	29,9	4,6
2002-03	69.386	235.747	29,4	1.507.147	5.046.474	29,9	4,6
2003-04	66.649	222.678	29,9	1.488.574	4.970.979	29,9	4,5
2004-05	64.65	210.691	30,7	1.446.879	4.835.684	29,9	4,5
2005-06	61.352	199.803	30,7	1.433.016	4.739.361	30,2	4,3
2006-07	58.313	190.092	30,7	1.410.440	4.614.791	30,6	4,1
2007-08	56.849	182.32	31,2	1.396.607	4.499.702	31,0	4,1
2008-09	54.568	170.801	31,9	1.391.253	4.391.621	31,7	3,9

Iturria: EIN

EUSTATen unibertsitateei buruzko estatistikara itzulita, berezitasun batzuk daude:

– Matrikulatzeen jaitsiera sare pribatuan eta publikoan gertatu da, pribatuan handiagoa bada ere. Horrela, 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, matrikulatzea %11 jaitsi da pribatuan eta %2,2 publikoan.

– Bestalde, matrikulatze guztien gainean zentro publikoetakoak daukan pisuaren joera goranzkoa da,

I.1.23. TAULA. 1. Eta 2. zikloko matrikulatzeen bilakaera zentroen titulartasunaren arabera

	2003-04		2004-05		2005-06		2006-07		2007-08		2008-09	
	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %
Guztira	**71.960**	**55,1**	**69.696**	**54,5**	**66.322**	**54,4**	**63.691**	**54,4**	**61.649**	**54,9**	**59.118**	**54,9**
Publikoa	54.943	56,2	54.180	55,6	51.758	55,7	49.953	55,4	48.580	55,6	47.490	55,2
Pribatua	17.017	51,4	15.516	50,5	14.564	49,8	13.738	50,6	13.069	52,1	11.628	53,5
Publikoko matrikulatzearen %	76,4		77,7		78,0		78,4		78,8		80,3	

Iturria: EUSTAT, datu basea

2002-03 ikasturteko %75etik 2008-09 ikasturteko %80,3 arte. Estatuan, EINren datuen arabera, ikasleen %86,4 zentro publikoetan matrikulatu dira eta %13,6 zentro pribatuetan.

– Generoaren ikuspuntutik, guztizkoaren gainean, emakumezkoen matrikulatzea gizonezkoena baino handiagoa da, baina aurreko aldiaren aldean gutxi gorabehera egonkor dirau.

2008 eta 2009 bitartean, matrikulatzeen bilakaera tituluen arabera aztertuta, EUSTATen datuen arabera, aurreko urtean gertatu bezala, ikusten da guztietan jaitsi zela, arkitektura teknikoan izan ezik; dena dela, 2008-09 ikasturtean "graduak" agertu zirela gogoratu behar da.

2008-09 ikasturteko eskaria tituluen arabera sakontasunez aztertuta ikusten da lehenengo 15ak honakoak izan zirela:

– 2.000 matrikula baino gehiagorekin: enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentziatura (5.167 ikasle eta aurreko urtearen aldean %0,4ko jaitsiera), enpresa zientzietako diplomatura (3.685, %6,1eko jaitsiera), industria ingeniaritza (2.882 eta %2,3ko jaitsiera), zuzenbideko lizentziatura (2.657 eta %0,6ko jaitsiera), psikologiako lizentziatura (2.640 matrikula eta %3,4ko jaitsiera), eta ingeniaritza teknikoa –espezialitatea: mekanikoa- (2.559 eta %10,2ko jaitsiera).
Aurreko ikasturtean 2.000 matrikulatik gora izan zituzten tituluen taldea berbera izan zen baina beste ordena batean.

– 2.000 matrikularen azpitik: haur hezkuntzako irakaslea (1.875 matrikula, %+1,7 aurreko ikasturtearen aldean), ingeniaritza teknikoa –espezialitatea: industria elektronika- (1.748 matrikula eta %10,8ko jaitsiera), lehen hezkuntzako irakaslea (1.651 matrikula, %+1,2 aurreko urtearen aldean), gizarte hezkuntzako diplomatua (1.532, %-0,2), medikuntza eta kirurgiako lizentziatura (1.412, %+7,8ko hazkundea), arkitektura (1.397 matrikula, %-6 aurreko urtearen aldean), arte ederretako lizentziatua (1.345, %-3,9), erizaintzako diplomatura (1.206 eta %+5,7) eta kudeaketako informatikako ingeniaritza teknikoa (1.144, %-14,4).

2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean gertatutako aldaketak erakusten duenez gehienek ikasleak galdu dituzte; salbuespenak haur hezkuntzako irakaslea, lehen hezkuntzako irakaslea, medikuntza eta kirurgiako lizentziatura eta erizaintzako diplomatura dira.

I.1.24. TAULA. Matrikulatzearen bilakaera tituluen arabera

	1995-96	1996-97	1997-98	1998-99	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09
Arkitektura	993	1.291	1.359	1.380	1.379	1.370	1.352	1.318	1.320	1.539	1.541	1.486	1.397
Goi-mailako Ingeniaritza	5.316	9.498	8.467	8.479	9.254	9.036	9.153	9.046	8.700	8.212	7.717	7.142	6.661
Lizentziaturak	53.647	50.485	50.225	47.66	41.232	38.282	36.215	33.882	31.807	29.383	27.801	27.086	26.410
Diplomaturak	15.541	16.925	17.347	18.168	17.074	15.837	15.583	15.276	15.405	15.057	14.833	14.739	14.588
Arkitektura teknikoa	-	-	-	-	-	-	76	148	231	284	291	311	345
Ingeniaritza teknikoa	9.546	10.715	11.159	11.699	11.397	11.459	11.818	12.290	12.233	11.847	11.508	10.885	9.717
Gradua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	381
Guztira	**85.043**	**88.914**	**88.557**	**87.386**	**80.336**	**75.984**	**74.197**	**71.960**	**69.696**	**66.322**	**63.691**	**61.649**	**59.499**

Iturria: EUSTAT

Emakumeek titulu horietan duten parte hartzeari dagokionez, hiru talde ikusten dira:

– Emakume asko dauzkatenak (%70 inguru edota gehiago emakume dira): psikologiako lizentziatura, haur hezkuntzako irakaslea, lehen hezkuntzako irakaslea, gizarte hezkuntzako diplomatura, arte ederretako lizentziatura, medikuntzako lizentziatura eta erizaintzako diplomatura.

– Emakumeen %50 eta %60 arteko parte hartzea daukatenak: zuzenbideko lizentziatura, enpresen administrazio eta zuzenbideko lizentziatura, arkitektura eta enpresa zientzietako diplomatura.

– %28tik beherako parte hartzea dutenak: kudeaketako informatikako ingeniaritza teknikoa (%27,4), industria ingeniaritza (%25,5), ingeniaritza teknikoa –espezialitatea: mekanika– (%17,6) eta

I.1.25. TAULA. Ikasleen bilakaera 2008-09 urteko titulurik eskatuenetan

	2003-04		2004-05		2005-06		2006-07		2007-08		2008-09		2007/08 eta 2008-09 bilakaera
	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	
Enpresen admin. eta zuz. liz.	6.249	58,8	5.861	58,7	5.476	57,7	5.161	57,3	5.186	57,6	5.167	56,4	-0,4
Enpresa Z. diplo.	4.258	53,7	4.110	53,1	3.966	52,4	4.011	53,6	3.923	53,4	3.685	53,9	-6,1
Industria ing.	3.584	25,8	3.356	26,3	3.184	25,5	3.024	25,4	2.949	26,3	2.882	25,5	-2,3
Zuzenbideko liz.	4.203	60,5	3.658	58,8	2.964	59,4	2.797	58,3	2.673	59,0	2.657	59,3	-0,6
Psikologiako liz.	2.822	81,8	2.792	79,5	2.712	80,0	2.775	79,1	2.734	79,3	2.640	78,0	-3,4
Ing. tek. mekanikoa	3.121	16,9	3.175	17,4	3.123	17,6	2.994	18,2	2.849	17,8	2.559	17,6	-10,2
Haur H. irakaslea	1.872	89,7	1.883	91,4	1.837	91,0	1.824	90,1	1.844	89,9	1.875	89,6	1,7
Elektro. indus. ing. tek.	2.676	19,6	2.528	19,3	2.351	18,8	2.197	17,7	1.959	17,9	1.748	16,9	-10,8
Lehen H. irakaslea	1.518	73,1	1.587	72,7	1.634	73,7	1.663	74,3	1.632	75,4	1.651	74,6	1,2
Gizarte hezkuntzako diplo.	1.451	83,7	1.480	82,3	1.472	82,1	1.517	82,5	1.535	81,5	1.532	80,8	-0,2
Medikuntzako liz.	1.228	78,5	1.194	77,6	1.231	77,3	1.254	77,5	1.310	77,6	1.412	76,6	7,8
Arkitektura	1.318	54,0	1.320	53,8	1.539	54,1	1.541	53,9	1.486	54,6	1.397	56,2	-6,0
Arte Ederretako liz.	1.515	70,2	1.539	71,0	1.481	70,9	1.447	69,5	1.399	69,3	1.345	68,7	-3,9
Erizaintzako diplo.	1.101	88,5	1.185	87,3	1.172	88,1	1.163	87,5	1.141	88,1	1.206	88,2	5,7
Kudeaketako informatikako ing. tek.	2.155	34,0	1.969	33,6	1.742	31,8	1.466	28,8	1.336	28,2	1.144	27,4	-14,4

Iturria: EUSTAT. Datu basea

ingeniaritza teknikoa –espezialitatea: industria elektronika- (%16,9).

1.2.3.2 EAEko unibertsitateko hirugarren zikloa

EUSTATen datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloan 2001-02 ikasturtetik ikusten zen goranzko joera 2005-06an apurtu zen, eta harrezkero jarraitu du. Horrela, 2004-05 ikasturtean 2.698 ikaslek egiten zituzten hirugarren zikloko ikasketak (2003-04 ikasturtean baino 101 gehiagok), 2005-06 ikasturtean 2.602 ikasle ziren (%3,6ko jaitsiera), 2007-08an 2.249 ikasle, eta 2008-09an 2.027.

2007-08 ikasturtean sare pribatuan matrikulatzea igo zen, eta 2008-09an mantendu egin zen, 719 ikaslerekin. Hala ere, gehienek (1.308k 2.027tik, hots, %64,5ek) sare publikoan egin zituzten hirugarren zikloko ikasketak.

Generoari dagokionez, emakumezkoak oraindik dira gizonezkoak baino gehiago (1.077 eta 950, hurrenez hurren).

EINren datuen arabera, EAEn doktoretzako kurtsoetan matrikulatutako ikasle kopurua (EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea zenbatuta) berriz hazi da 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, %16,1 (aurreko ikasturtean %-14,6 izan zen). 1.625 lagun matrikulatu ziren, haietatik 844 (%51,9) emakumeak. Bestela esanda, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira, eta Estatuan ere gauza bera gertatzen da (%51,5 emakumeak dira). Dena dela, guztizkoaren gaineko pisua beherantz doa bai EAEn bai Estatuan.

Zentroen titulartasunari dagokionez, matrikulatze gehienak sare publikoan gertatzen dira, bai EAEn bai Estatuan (EAEn, %86,7). Mondragon Unibertsitateak gero eta garrantzi handiagoa daukanez, ordea, sare pri-

I.1.22. GRAFIKOA. Hirugarren zikloan matrikulatutako ikasleen bilakaera titulartasunaren eta sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT. Datu basea

I.1.26. TAULA. Doktoretzako kurtsoetan matrikulatutako ikasleen bilakaera

	2008-09			2008-09			2007-08 eta 2008-09 arteko bilakaera guztira	2007-08 eta 2008-09 arteko emakumezkoen bilakaera
	GUZTIRA	EMAKUMEZKOAK		GUZTIRA	EMAKUMEZKOAK			
		k	%		k	%		
Estatua	66.973	35.024	52,3	67.000	34.481	51,5	0,0	-1,6
Unibertsitate publikoak	63.220	33.287	52,7	63.200	32.632	51,6	0,0	-2,0
Unibertsitate pribatuak	3.753	1.737	46,3	3.800	1.849	48,7	1,3	6,4
EAE								
UPV-EHU	1.668	893	53,5	1.346	731	54,3	-19,3	-18,1
Mondragon	110	41	37,3	147	53	36,1	33,6	29,3
Deustu	159	81	50,9	132	60	45,5	-17,0	-25,9
EAE Guztira	**1.937**	**1.015**	**52,4**	**1.625**	**844**	**51,9**	**-16,1**	**-16,8**
Unibertsitate publikoak (1)	1.668	893	53,5	1.346	731	54,3	-19,3	-18,1
Unibertsitate pribatuak (2)	269	122	45,4	279	113	40,5	3,7	-7,4

(1) UPV-EHU sartzen da (2) Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea sartzen dira
Iturria: EIN

batuak pisu apur bat irabazi du. Izan ere, bertako ikasleak %5,7 izatetik %9 izatera igaro dira (eta zenbaki absolutuetan ere ikasle kopurua hazi dela ikusten da). Bestalde, Deustuko Unibertsitateak guztizkoaren gainean daukan pisua apur bat jaitsi da, %8,2tik %8,1era (zenbaki absolutuetan ere ikasleak galdu ditu).

1.2.4 Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+B jarduerei eta haien neurriari dagokienez, berariazko funtsen (kanpoko finantzabidea duten proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketarako diru-laguntzak eta ikerkuntzako azpiegiturako inbertsioak) eta funts orokorren artean bereizi behar da. Azkenak irakasleek ikerketa jarduerei emandako denbora eta horrek dakarren kostu orokorra (irakasleei dagozkien gastuak, ondasun eta zerbitzuetako gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk) kalkulatzean dautza.

Lehenengoetatik, ondorioztatzen da EAEk egindako ikerkuntza jarduera 1997 eta 2003 hazi eta 2004an jaitsi zela, ondoren 2008an hautsi zen goranzko bidera itzuliz. Horrela, 1997 eta 2006 artean, jarduera hori %138,6 hazi zen, 20,5 milioi eurotik 48,7 milioi eurora, eta oso deigarria da 2006 eta 2007 artean gertatutako hazkundea, %24,5ekoa, 60,8 milioi eurora iritsi baitzen. 2007 eta 2008 artean, aldiz, %9,9ko jaitsiera gertatu zen, eta urtea 54,8 milioi euroko balioarekin amaitu zen.

Zatirik handiena, %46,4 (25,41 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagokie, eta haien atzetik datoz Unibertsitate Lege Organikoko (LOU) 83. artikuluaren babespean sinatutako kontratuak, funts guztien %21,9 (12 milioi euro), eta prestakuntzako langileentzako funtsak, %12,1 (6,6 milioi).

I.1.27. TAULA. I+G+B jarduera onartu / kontratatu moten bilakaera (eurotan)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Ikerkuntza proiektuak	10.348.341	14.245.278	16.563.063	14.472.938	19.228.592	19.139.665	22.439.020	22.078.138	25.395.032
LOU 83.art. araberako I+G kontratuak	7.731.744	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837
Ikerkuntza taldeak	1.702.108	3.427.773	4.256.376	4.763.786	4.395.127	5.811.131	6.447.949	8.289.127	1.004.766
Ikertzaile/teknikariak kontratatzea	554.571	568.849	546.225	536.588	1.843.658	2.677.727	569.210	1.111.497	4.380.476
Prestakuntzako langileak	3.934.706	4.553.747	6.275.609	6.208.889	1.704.000	2.102.400	2.051.638	9.935.973	6.617.646
Azpiegitura zientifikoa	1.995.834	1.373.710	2.423.285	4.172.648	1.301.818	5.655.172	981.772	3.542.695	2.190.378
Ikertzaileen mugikortasuna	532.076	282.220	455.435	556.772	346.937	243.463	623.372	801.934	472.872
Ekintza bereziak	526.767	295.820	318.702	648.067	220.594	743.615	2.222.177	868.958	737.984
Beste batzuk	0	0	0	0	0	196.362	236.467	1.254.158	2.008.888
GUZTIRA	**27.326.147**	**32.189.607**	**37.740.987**	**39.613.345**	**39.006.788**	**46.562.937**	**48.807.533**	**60.761.625**	**54.779.880**

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan 2008/09.

CUADRO I.1.28. Evolución de las actividades de I+D+I por campos científicos

	2004	2005	2006	2007	2008
Zientzia Esperimentalak	18.655.092	24.843.322	19.174.523	22.108.443	23.288.301
Irakaskuntza Teknikoak	11.414.390	9.154.935	12.804.217	18.319.582	9.814.894
Osasun Zientziak	4.056.031	3.589.662	4.413.473	5.801.784	3.706.658
Gizarte Zientziak eta Z. Juridikoak	2.903.553	4.521.404	6.290.040	6.983.260	9.050.252
Giza zientziak	1.977.722	4.313.712	5.183.629	5.861.931	4.724.586
Zenbait arlo	0	139.904	941.650	1.686.625	4.195.191
GUZTIRA	**39.006.788**	**46.562.937**	**48.807.533**	**60.761.625**	**54.779.880**

Oharra: 2003rako datuak urteko memorietan eskuragarri dagoen informazioa programa mota eta finantzabide iturriaren arabera batuz eskuratu dira eta, beraz, estimazioa baino ez dira.
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan 2008/09.

LOUko 83. artikuluaren babespean sinatutako kontratuei eta prestakuntzako langileei lotutako funtsen balio absolutua, ordea, jaitsi egin da aztertutako aldian, ikerkuntza proiektuetarako eta ikertzaileak eta teknikariak kontratatzeko funtsak handitu diren bitartean.

I.1.29. TAULA. I+G+B funtsen jatorriaren bilakaera

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Autonomikoa	8.435.866	10.297.960	17.124.901	15.699.487	11.999.900	15.434.027	15.125.591	17.548.293	17.434.873
Estatukoa	5.248.019	5.838.103	6.804.455	8.862.877	10.592.559	10.195.368	14.037.027	13.964.226	11.265.410
Zuzeneko kontratazioa	7.731.745	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837
Funts propioak (programa kontratua)	5.748.717	6.906.162	5.572.381	6.088.476	4.482.238	5.483.460	5.665.904	12.670.458	8.347.637
Nazioartekoa	161.800	1.705.172	1.336.958	708.670	1.965.885	5.456.680	743.083	3.699.503	5.760.123
GUZTIRA	**27.326.147**	**32.189.607**	**37.740.987**	**39.613.167**	**39.006.788**	**46.562.937**	**48.807.533**	**60.761.625**	**54.779.880**

Oharra: 1999-2003 urteetarako datuak urteko memorietan eskuragarri dagoen informazioa programa mota eta finantzabide iturriaren arabera batuz lortu dira.
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan 2008/09.

I.1.30. TAULA. Beste emaitza batzuk. Argitalpen eta patente erregistratuak

	· Argitalpenak*			Patenteak					
	Zientzia esperimentalak, teknikoak eta osasunekoak	Gizarte eta giza zientziak eta zientzia juridikoak	Guztira	Eskabid. (GUZTIRA)	Espainolak	Europar	Nazioartekoak	PCT (Berriak eta luzapenak)**	Onartuak
2001	742	34	**776**	**5**	4	-	1	-	**5**
2002	670	39	**709**	**3**	3	-	-	-	**3**
2003	778	52	**830**	**7**	5	1	-	1	**2**
2004	824	55	**879**	**10**	7	-	-	3	**3**
2005	970	57	**1.027**	**14**	9	-	-	5	**7**
2006	1.069	77	**1.146**	**29**	15	2	3	9	**0**
2007	1.127	118	**1.345**	**34**	16	7	6	5	**0**
2008	1.367	219	**1.586**	**42**	6	9	15	12	**-**

*Science Citation Index eta Social Science Citation Index-en erregistratutako argitalpen zientidikoak. **PCT: Patent Cooperation Treaty.
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea kopurutan 2008/09.

Zientzia arloen arabera, I+G+B jardueretako gastua arlo berberetan pilatzen da, haietako bakoitzean aldaketak sumatu arren.

Horrela, 2008. urtean, zientzia esperimentalak, 23,3 milioi eurorekin, guztizkoaren %42,5 ziren (22,1 milioi euro eta %36,4 2007an); teknikoak, 9,8 milioi eurorekin, %18 (18,3 milioi euro eta %30,1 2007an); eta gizarte zientziak eta zientzia juridikoak, 9,1 milioi eurorekin, %16,5 (2007an, 6,9 milioi euro eta %11,5).

Funtsen jatorriari dagokionez, gehienak Eusko Jaurlaritzak jarriak dira, eta haien atzean datoz zuzeneko kontratazioa, estatukoa, funts propioak eta nazioarteko

funtsak. Ehunekoak, hurrenez hurren, 32/22/21/15/11 dira. Nabarmendu behar da, iturri guztiek izan duten jaitsieraren aurrean (autonomikoa ia antzemanezina bada ere), nazioarteko finantzabidean aurrerapena ikusi dela, 3,7 milioi eurotik 5,8 milioira.

Bukatzeko, patenteei dagokienez, emaitzak urriak dira oraindik ere. Horrela, 2004an 42 patente eskatu ziren, eta ez dago onartutakoei buruzko informaziorik. Bestalde, argitalpen kopurua handitzen joan da 1.586ra iritsi arte; haietako gehienak zientzia esperimentalen, teknikoen eta osasunekoen arloetan erregistratutako argitalpen zientifikoak dira (1.367).

1.2.5 Hezkuntzaren adierazleak

Azken urteotan hezkuntza sistemetan adierazleak garatzen dira sistema ezagutzen eta gaiari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko. Aurkez daitezkeen sailkapenak asko badira ere, honakoak hautatu dira:

- Bost adierazle maila aintzat hartzea erraz sailkatu eta beste hezkuntza sistemekin alderaketa erraza egin ahal izateko. Honakoak dira: testuinguru, eskolaratze, baliabide, hezkuntza prozesu eta hezkuntza emaitzen adierazleak.
- Urtero aztertuko diren *lehentasunezko adierazle* multzo bat zehaztea.

I.1.31. TAULA. Adierazleen sailkapena

	AZTERTU BEHARREKO ALDERDIAK	LEHENTASUNEZKO ADIERAZLEAK (URTEROKOAK)
Testuinguru eta eskolaratze adierazleak	Testuinguru sozioekonomikoaren egoera, hala nola: demografia eta eskolaratze baldintzak, baldintza sozioekonomikoak eta kulturakoak; biztanleek hezkuntzari buruz dauzkaten jarrerak eta itxaropenak.	– Helduen ikasketa maila.
Eskolaratze adierazleak	Eskolaratzearen egoera.	– Eskolaratzea eta eskolaratzeko itxaropena. – Eskolaratze tasen bilakaera derrigorrezkoak ez diren mailetako adinetan. – Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea. – Atzerritar ikasleak. – Ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea.
Baliabideen adierazleak	Helburuak lortzeko dauden baliabideak (giza baliabideak eta materialak).	– Hezkuntzako guztizko gastua BPGd-rekiko. – Hezkuntzako gastu publikoa. – Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko. (Ikus kapituluaren hasiera)
Hezkuntza prozesuen adierazleak	Zentroen antolamendua eta funtzionamendua, hezkuntzako jarduna eta eskolako giroa kualitatiboak dira kuantitatiboak baino gehiago.	
Hezkuntza emaitzen adierazleak	– Hezkuntza sistemaren lorpenak. – Ebaluazio probak. – Oinarrizko gaitasunak, jarrerak eta balioak eskuratzea. – Lortutako tituluen ziurtagiriak. – Adinaren egokitasuna derrigorrezko etapetan. – Lan merkatuan sartzea eta laneko diru-sarrerak.	– Funtsezko gaitasunak 15 urtean (azterketa ez da urterokoa, PISArekin batera baino). – Egokitasuna ikaslearen adinean. – Eskola garaia baino lehenago lagatzea. – Graduatze tasak. – Zientzia, matematika eta teknologiako goi-mailako graduatuak. – Langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera.

Epigrafe honetan, adierazle horietako batzuk aztertuko ditugu, EUROSTATek, EUSTATek, IEk (Hezkuntza Ministerioaren Ebaluazio Institutua), Hezkuntza Ministerioak berak, zenbait txosten eta estatistikaren bidez, eta ISEIk (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) argitaratutako azken datuen bidez.

1.2.5.1 Testuinguruaren adierazleak

(A) HELDUEN IKASKETA MAILA. IRAKASKUNTZA MAILA JAKIN BAT OSATU DUTEN HELDUEN PORTZENTAJEA

Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatuko dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du.

IEk 2009an argitaratutako *Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010* txostenean jasotako datuen arabera, gutxienez bigarren hezkuntzako bigarren etapara iritsi diren 25 eta 64 urte arteko biztanleak (INSN 3: batxilergoko titulua, erdi mailako prestakuntza zikloak eta pareko tituluak edo parekagarriak dauzkaten biztanleak) %62,9 dira EAEn 2007. urtean, 5,1 puntu ELGAko batez bestekoaren azpitik, %68koa baita (2006ko datua).

Espainia 18 puntu dago ELGAko batez bestekoaren azpitik, eta aldea aztertutako adina jaitsi ahala murrizten da: 28 puntu 55 eta 64 urte arteko biztanlerian eta 14 25 eta 34 urte artekoan.

I.1.32. TAULA. Gutxienez bigarren hezkuntzako bigarren etapara iritsi den biztanleria. ELGA-ko europar herriak (ehunekoak) 2006

	25-64 urte	25-34	35-44	45-54	55-64
TXEKIAR E.	90	94	94	89	84
ESLOVAKIA	87	94	91	86	70
SUEDIA	84	91	90	82	73
GREZIA	83	84	85	83	79
ALEMANIA	83	84	85	83	79
DANIMARKA	82	88	84	78	76
AUSTRIA	80	87	84	77	71
FINLANDIA	80	90	87	80	63
HERBEHEREAK	72	81	76	70	60
ERRESUMA BATUA	69	76	70	67	61
ELGA, BATEZ BESTEKOA	68	78	72	65	55
FRANTZIA	67	82	72	61	52
IRLANDA	66	82	71	58	41
BELGIKA	66	81	72	60	48
LUXEMBURG	66	78	67	60	55
HUNGARIA	59	75	67	53	34
POLONIA	53	64	51	49	44
ITALIA	51	67	55	47	32
ESPAINIA	50	64	55	43	27
PORTUGAL	28	44	28	20	12
EAE. 2007. URTEA	62,9	---	---	---	---

Iturria: IE (Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010) 2009an argitaratua

1.2.5.2 Eskolaratze adierazleak

(A) SEI URTEREKIN ESKOLARATZEKO ITXAROPENA

Herri bateko eskola-bizitzako itxaropena pertsona bat seguruenik eskolaratuta egongo den batez besteko urte kopurua da eta kalkulatzeko adin guztietako eskolaratze tasa garbiak erabiltzen dira. Indize horrek biztanleriak eskolaratzean daukan parte hartze orokorra adierazten du.

Hezkuntza Ministerioak 2009an argitaratutako *Las cifras de la educación en España, 2007-08* txosteneko datuen arabera, 2007-08 ikasturtean, Espainian derrigorrezko eskolaratzean hasi den sei urteko ikasle baten eskola-bizitzako itxaropena 14,4 urtekoa da (14 gizonezkoentzat eta 14,8 emakumezkoentzat). Ikasturte horretan bertan zazpi autonomia erkidegok lortzen dute Estatuko batez bestekoaren gaineko

I.1.33. TAULA. Bost urteko eskola-bisitzako itxaropena EB-ko herrietan sexuaren arabera. Batez besteko urte kopurua. 2006

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak	E-G aldea
FINLANDIA	20,8	20,0	21,6	1,6
SUEDIA	20,3	18,8	21,8	3,0
BELGIKA	20,0	19,2	20,7	1,5
DANIMARKA	19,0	18,2	19,8	1,6
ESTONIA	18,2	17,2	19,2	2,0
ESLOVENIA	18,2	17,2	18,8	1,6
GREZIA	17,9	17,7	18,2	0,5
HUNGARIA	17,9	17,3	18,4	1,1
POLONIA	17,8	17,4	18,3	0,9
HERBEHEREAK	17,6	17,7	17,5	-0,2
ELGA, BATEZ BESTEKOA	17,5	17,1	17,9	0,8
ALEMANIA	17,5	17,6	17,4	-0,3
IRLANDA	17,2	16,9	17,6	0,6
ESPAINIA	17,2	16,7	17,8	1,1
TXEKIAR ERREPUBLIKA	17,2	16,9	17,4	0,5
ITALIA	17,1	16,7	17,6	0,9
PORTUGAL	16,8	16,4	17,2	0,8
FRANTZIA	16,7	16,4	17,0	0,6
AUSTRIA	16,5	16,3	16,7	0,4
ERRESUMA BATUA	16,4	15,8	17,1	1,3
ESLOVAKIA	16,2	15,8	16,6	0,8
LUXEMBURG	14,4	14,3	14,4	0,1
EAE 6 URTEREKIN (2007)	15,3	15,7	15,5	0,4
ESTATUA 6 URTEREKIN (2007)	14,4	14,0	14,8	0,8

Iturria: IE (Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010) 2009an argitaratua

eskola-bizitzako itxaropena, eta handienak EAE eta Gaztela eta Leoni dagozkie, bietan batez beste 15,5 urtekoa baita; haien atzetik datoz Nafarroako Foru Erkidegoa, 15,0 urterekin, Madrilgo Erkidegoa (14,9), Asturiasko Printzerria (14,8), Galizia (14,7) eta Aragoi (14,6). Haietan guztietan, emakumezkoen eskolaratze itxaropena gizonezkoena baino handiagoa da.

Bestalde, IEk 2009an argitaratutako *Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010* agirian jasotako datuek agertzen dutenez, 2006an (eskuragarri dagoen azken datua) Europar Batasunean ELGAkoak diren edo hari lotuta dauden herrietan eskola-bizitzako itxaropena (bost urtekoak hartzen dira aintzat, eta ez seikoak) 17,5 urtekoa da. Eskola-bizitzako itxaropenik handiena Finlandiak eta Suediak daukate, 20,8 eta 20,3 urtekoa, hurrenez hurren. Espainian eskola-bizitzako itxaropena 17,2 urtekoa da, eta Txekiar Errepublikaren eta Italiaren apur bat gainetik kokatzen da, Irlanda eta Alemaniari dagozkien balioetatik gertu.

Europako gerri gehienetan emakumezkoek gizonezkoek baino eskola-bizitzako itxaropen handiagoa daukate.

(B) 18 ETA 24 URTE ARTEKOEN ESKOLARATZEA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAN (UNIBERTSITATEAN ETA UNIBERTSITATEAZ KANPO)

Goi-mailako hezkuntzako eskolaratzeak gero eta garrantzi handiagoa dauka, lan merkatuak eta ezagutzaren gizarteak hezkuntza maila horretako herritarren prestakuntza askoz gehiago baloratzen dutelako. Gainera, 2010ean Europako goi-mailako hezkuntza sistemak mundu mailako kalitate erreferentzia bihurtzeko helburuak goi-mailako hezkuntzako eta ikerkuntzako esparru baturako konbergentzia prozesua sortu du Europako herrietan. Adierazle horrek goi-mailako hezkuntzaren bilakaerari heltzen dio, bertan unibertsitateaz kanpoko goi-mailako hezkuntza eta unibertsitateko ikasketak sartuz.

IEk 2009an argitaratutako *Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010* agirian jasotako datuen arabera, aztertutako zazpi adinetan eta

I.1.34. TAULA. 18 eta 24 urte arteko eskolaratze tasa garbiak autonomia erkidegoen arabera

	Unibertsitateko hezkuntza, parekoak eta unibertsitateaz kanpoko goi-mailako hez.							Unibertsitateko eta pareko hezkuntza						
	18 urte	19 urte	20 urte	21 urte	22 urte	23 urte	24 urte	18 urte	19 urte	20 urte	21 urte	22 urte	23 urte	24 urte
GUZTIRA	**29**	**35**	**37**	**35**	**30**	**24**	**19**	**25**	**28**	**29**	**28**	**26**	**21**	**17**
ANDALUZIA	25	31	33	30	27	18	15	22	25	26	24	23	18	15
ARAGOI	32	38	40	35	31	21	15	27	29	30	28	26	21	15
ASTURIAS	33	41	41	36	32	22	18	28	31	31	28	27	22	18
BALEAR UHARTEAK	10	12	16	15	11	9	7	10	12	13	12	11	9	7
KANARIAR HARTEAK	20	24	23	23	20	14	12	17	18	18	17	16	14	12
KANTABRIA	25	31	31	27	23	16	11	20	22	22	20	18	16	11
GAZTELA ETA LEON	33	42	47	45	40	27	21	29	34	38	37	35	27	21
GAZTELA-MANTXA	16	22	23	19	16	10	8	13	16	17	14	13	10	8
KATALUNIA	27	35	39	35	29	19	16	23	27	29	27	24	19	16
VALENTZIAKO ER.	27	34	36	33	31	21	17	24	28	29	27	26	21	17
EXTREMADURA	15	24	27	26	22	16	14	15	19	20	20	18	16	14
GALIZIA	30	38	38	34	31	20	17	25	27	28	25	25	20	17
MADRIL	41	50	51	47	42	29	23	38	43	43	41	38	29	23
MURTZIA	24	31	31	28	25	18	14	21	25	25	23	22	18	14
NAFARROA	45	51	51	45	33	22	15	39	39	39	37	29	22	15
EAE	**45**	**50**	**53**	**47**	**38**	**23**	**17**	**37**	**36**	**38**	**36**	**31**	**23**	**17**
ERRIOXA	19	25	25	25	19	11	10	15	17	16	17	14	11	10
CEUTA	9	17	19	22	16	8	6	9	12	12	13	10	8	6
MELILLA	10	16	20	16	10	6	6	10	12	14	12	7	6	6

Iturria: IE (Informe 2008. Objetivos educativos y puntos de referencia 2010) 2009an argitaratua

2006-07 ikasturtean, EAEko goi-mailako hezkuntzako (unibertsitatekoa eta unibertsitateaz kanpokoa) eskolaratze tasa garbiak Estatuko batez bestekoaren gainetik daude: 18 urterekin, %45 %20ren aurrean; 19rekin, %50 %35en aurrean; 20rekin, %53 %37ren aurrean; 21ekin, %47 %35en aurrean; 22rekin, %38 %30en aurrean; 23rekin, %28 %24ren aurrean.

Unibertsitateko eta pareko hezkuntzako eskolaratze tasari dagokionez ere, EAEk Estatuko tasa gainditzen du sei adinetan, 18 eta 23 urte artean: 18 urterekin, %37 %25en aurrean; 19rekin, %36 %28ren aurrean; 20rekin, %38 %29ren aurrean; 21ekin, %36 %28ren aurrean; 22rekin, %31 %26ren aurrean; 23rekin, %23 %21en aurrean; eta 24rekin, %17 kasu bietan.

(c) Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea: Unibertsitatean sartzeko azterketa gainditutako ikasleak

IENren datuen arabera, 2009an Euskal Herriko Unibertsitatean unibertsitatera sartzeko azterketa 9.614 lagunek egin zuten (ez dira sartzen 25 urtetik gorakoak sartzeko azterketetan matrikulatutakoak); hori aurreko urtean baino %5,9 gehiago da. Guztietatik %94k gainditu zuten, aurreko ikasturte bietan lortutako portzentaje bera. Bestalde, Estatuko unibertsitate publiko guztietan azterketa egiteko 204.178 lagun matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino %4,1 gehiago. Haietatik %86k gainditu zuten, aurreko urtean baino puntu bat gehiago eta EHUn lortutakoaren azpitik.

Hautatutakoari dagokionez, ia ikasle gehienak (9.588) aukera bakarrean matrikulatu ziren, aukera uztartuak, hots, azterketetara aukera bat baino gehiagorako aurkeztea, hautatu zituzten 26en aurrean, hautazko gisa beste aukera batzuei lotutako arlo bat edo batzuk egin izanagatik.

Aukerarik eskatuenak honakoak izan ziren: lehenengoa, bide zientifiko-teknikoa, matrikulen %33,2; haren atzetik gizarte zientziak, %30,4 eta osasun zientziak, %27,2. Horri buruzko hobespenak sexuaren arabera aldatzen dira; horrela, neskei dagokienez, aukerarik eskatuena gizarte zientziak izan ziren, eta ondoren osasun zientziak.

EUSTATen datuen arabera, 2009an EAEn 9.551 lagun matrikulatu ziren unibertsitatean sartzeko azterketak egiteko (honetan ere ez dira sartzen 25 urtetik gorakoentzako azterketetan matrikulatuak: 449 ikasle). Haietatik, 7.874 ekaineko deialdikoak dira eta 1.740 uztailekoak. Azterketa 8.998 lagunek (%94) gainditu zuten guztira. Batez besteko nota 6,7koa izan zen. Lehenengo deialdian ikasleen %97k gainditu zuten, eta bigarrenean %80k.

Hamar matrikuletatik sei emakumezkoenak izan ziren. Mutilen %93k eta nesken %95ek gainditu zuten azterketa.

I.1.35. TAULA. Unibertsitatean sartzeko azterketan matrikulatu eta gainditutako ikasleak (25 urtetik gorakoentzako azterketa kanpoan utzita), 2009

	SEXU BIAK																				
	GUZTIRA			ZIENTIFIKO-TEKNIKOA			OSASUN ZIENTZIAK			GIZARTE ZIENTZIAK			GIZA ZIENTZIAK			ARTEAK			UZTARTUAK (1)		
	Matrikulatuak (M)	Gaindituak (G)	Gaind. %	M	G	Gaind. %	M	G	Gaind. %	M	G	Gaind. %	M	G	Gaind. %	M	G	Gaind. %	M	G	Gaind. %
GUZTIRA	204.178	174.648	86	44.420	38.508	87	53.080	46.843	88	67.543	57.014	84	24.026	20.792	87	5.125	4.572	89	9.984	6.919	69
EAE-EHU	9.614	9.031	94	3.190	2.990	94	2.618	2.475	95	2.918	2.724	93	684	645	94	178	171	96	26	26	100
EMAKUMEZKOAK																					
GUZTIRA	117.410	100.772	86	13.095	11.599	89	35.309	31.071	88	42.505	35.848	84	17.356	15.079	87	3.561	3.181	89	5.584	3.994	72
EAE-EHU	5.400	5.117	95	1.004	963	96	1.837	1.747	95	1.932	1.805	93	485	465	96	130	125	96	12	12	100

Aukera uztartuetan gainditutako ikasleek gutxienez aukeretako bat gainditzen dute. Batxilergoa atzerrian gaindituta unibertsitate honetan sartzeko azterketetara aurkezten diren ikasleak sartzen dira (baliozkogarriak).
Iturria: EIN

(D) IKASKUNTZA IRAUNKORREKO PARTE HARTZEA

EBk honela definitzen du ikaskuntza iraunkorra: "bizitzan ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak ikuspuntu pertsonalarekin zein gizabidezko, gizarteko edo lanari lotutako ikuspuntuarekin hobetzeko xedez egindako ikaskuntza jarduera oro" [13].

Definizio horren arabera, Europako herritarrek euren ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak bizitza osoan eguneratzeko eta osatzeko erronkari egin behar diote aurre, garapen pertsonal mailarik handiena lortzeko eta lan merkatuan ahalik eta kualifikaziorik handienarekin irauteko xedez.

Europar Batasunak honako helburua ezarri du: 2010. urtean, gutxienez lan egiteko adinean dauden biztanleen %12,5ek irakaskuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzea, tasa hori inon %10etik behera geratu gabe.

EUROSTATen datuen arabera, irakaskuntza iraunkorreko parte hartzea egonkorra da azken urteotan, eta 2008an %10,9koa zen EB15ean, %10ekoa EB25ean, eta %9,5ekoa EB27an. Egonkortasun horrek pentsarazten digu zaila izango dela 2010ean %12,5eko helburua lortzea.

Bestalde, herrien artean alde handiak ikusten dira eta horrela, 2007. urtean 19 herri %10ekoaren azpitik daude eta beste guztiak Espainiako %10,4koaren eta Suediako %32,4koaren artean mugitzen dira.

Irakas-Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundearen (IVEI-ISEI) datuen arabera, prestakuntza iraunkorreko tasan etengabeko aurrerapena gertatu da, 95eko %4,3tik 2007ko %13,2 arte; eta EUSTATek 2010ean argitaratutako 2009ko Europako Berrikuntza Indizeko datuen arabera, EAEn 25-64 urteko biztanleen %13,5ek prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen dute, Europan %9,6k egiten duten bitartean.

I.1.36. TAULA Irakaskuntza iraunkorra (parte hartzen duten 25-64 urteko biztanleen %)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EB-27	7.2	8.5	9.3	9.7	9.6	9.5	9,5
EB-25	7.6	9	9.9	10.3	10.2	10,0	10,0
EB-15	8.1	9.8	10.7	11.3	11.2	11,0	10,9
BELGIKA	6	7	8.6	8.3	7.5	7.2	6,8
BULGARIA	1.2	1.3	1.3	1.3	1.3	1.3	1,4
TXEKIAR E.	5.6	5.1	5.8	5.6	5.6	5.7	7,8
DANIMARKA	18	24.2	25.6	27.4	29.2	29.2	30,2
ALEMANIA	5.8	6	7.4	7.7	7.5	7.8	7,9
ESTONIA	5.4	6.7	6.4	5.9	6.5	7	9,8
EAE	6.1	6.2	6.5	12.7	12.4	13.2	13,5
IRLANDA	5.5	5.9	6.1	7.4	7.3	7.6	7,1
GREZIA	1.1	2.6	1.8	1.9	1.9	2.1	2,9
ESPAINIA	4.4	4.7	4.7	10.5	10.4	10.4	10,4
FRANTZIA	2.7	7.1	7.1	7.1	7.6	7.4	7,3
ITALIA	4.4	4.5	6.3	5.8	6.1	6.2	6,3
TXIPRE	3.7	7.9	9.3	5.9	7.1	8.4	8,5
LETONIA	7.3	7.8	8.4	7.9	6.9	7.1	6,8
LITUANIA	3	3.8	5.9	6	4.9	5.3	4,9
LUXEMBURG	7.7	6.5	9.8	8.5	8.2	7	8,5
HUNGARIA	2.9	4.5	4	3.9	3.8	3.6	3,1
MALTA	4.4	4.2	4.3	5.3	5.5	6	6,2
HOLANDA	15.8	16.4	16.4	15.9	15.6	16.6	17,0
AUSTRIA	7.5	8.6	11.6	12.9	13.1	12.8	13,2
POLONIA	4.2	4.4	5	4.9	4.7	5.1	4,7
PORTUGAL	2.9	3.2	4.3	4.1	4.2	4.4	5,3
ERRUMANIA	1	1.1	1.4	1.6	1.3	1.3	1,5
ESLOVENIA	8.4	13.3	16.2	15.3	15	14.8	13,9
ESLOVAKIA	8.5	3.7	4.3	4.6	4.3	3.9	3,3
FINLANDIA	17.3	22.4	22.8	22.5	23.1	23.4	23,1
SUEDIA	18.4	31.8	32.1	33.4	32,0	32,4	-
ERRESUMA BATUA	21.3	26.8	29.4	27.5	26.7	20,0	19,9

(:) Ez dago eskuragarri (e) Estimazioa (b)Haustura seriean (p)Behin-behinekoa Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey eta ISEI-IVEI eta EUSTAT

[13] Hezkuntza iraunkortzat jotzen da lanean zein lanik gabe dauden 25-64 urteko biztanleei dagokiena, inkestaren aurreko azken lau asteetan enpresa edo lan zentroaren esparruan edo kanpoan ikasketa motaren bat egin badute.

Adierazle horrek aldaketak izan ditu. Lehenengoa definizioari dagokiona, 2003. urteaz geroztik, prestakuntzatzat, araututako edo erakundeetako prestakuntzako ikastaroak ez ezik, inkestaren aurreko azken lau asteetan egindako ikastaro, tailer... mota oro ulertzen baita. Bigarrenari dagokionez, 2006ko lehenengo hiruhilekoaz geroztik, zenbaketatik arautu gabeko ikasketetatik egin gabe araututako ikasketetako oporretan dauden ikasleak salbuesten dituen bertsio aldatua dago. Hirugarrena datua lortzeko uneari dagokio. 2005. urtea arte 2. hiruhileko edo udaberriko datua hartzen zen aintzat. 2006. urteaz geroztik, datua lau hiruhilekoen urteko batez bestekoari dagokio eta 1995. urtetik aurrerako datu guztiak irizpide berri horren arabera kalkulatu dira berriz.

Aldaketa horiek direla eta, 2005ean aurkeztutako datuen eta egungoen artean, EBko herri gehienei eragiten dieten alde txikiak ikusten dira.

Horren ondorioz, gure erkidegoak 2010erako aurreikusitako helburua lortu du.

1.2.5.3. Baliabide ez finantzarioen adierazleak

(A) IRAKASLE/TALDEKO, IKASLE/IRAKASLEKO ETA IKASLE/TALDEKO

EAEn, talde bakoitzeko irakasle ratioa handiagoa da bigarren hezkuntzan oinarrizko hezkuntzan baino (2,1,3ren artean AOBn[14]), eta azken urteetan datu horiei dagokienez egonkortasuna egon da.

Azterketa ikastetxeen titulartasunaren arabera eginez gero, ratioak batez bestekoa baino handiagoak dira ikastetxe publikoetan eta txikiagoak ikastetxe pribatuetan.

Bestalde, AOBko irakasle bakoitzeko ikasle ratiorik handiena, 2007a baino lehenago gertatzen zenaren kontra, oinarrizko irakaskuntzetan (13,9) eta horren ondoren unibertsitateko irakaskuntzan (12,9) dago. DBHn, urteen arabera, 9 eta 11 arteko bilakaera ikusten da.

I.1.37. TAULA. Irakasle/taldeko, ikasle/irakasleko eta ikasle/taldeko ratioak

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09		
							Guztira	Publi	Priba.
Oinarrizko irakaskuntza (1)									
Irakasle/taldeko	1,5	1,4	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,6	1,3
Irakasle (AOB) (2)/taldeko	1,4	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,5	1,1
Ikasle/irakasleko	12,3	12,7	12,1	12,3	12,6	12,5	12,6	10,5	15,8
Ikasle/irakasleko (AOB)	12,8	13,2	14	13,9	14	13,9	13,9	11,2	18,5
Ikasle/taldeko	18,3	18,3	18,2	18,1	18,3	18,5	18,6	16,9	20,6
Bigarren irakaskuntza (3)									
Irakasle/taldeko	2,3	2,2	2,3	2,3	2,3	2,3	2,4	2,7	2
Irakasle (AOB)/taldeko	2,2	2,1	2,2	1,8	1,9	2	2	2,5	1,4
Ikasle/irakasleko	9,3	9,1	8,8	8,7	8,4	8,2	8,2	6,8	10,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	9,7	9,6	9,2	10,7	10,4	9,7	9,7	7,1	14,6
Ikasle/taldeko	21	20,5	20,1	19,8	19,4	19,1	19,3	18	20,6
Unibertsitateko ikasketak									
Ikasle/irakasleko	15,5	15	14,3	14,1	13,3	11,6	11,1	11,1	11,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	18,3	17,7	16,7	16,4	15,6	13,5	12,9	12,4	14,9

(1) Oinarrizko irakaskuntza: haur eta lehen hezkuntza sartzen dira. (2) AOB: arduraldi osoko baliokidetasuna. Arduraldi osoa duten irakasle guztien eta arduraldi partziala duten irakasleen erdien batuketa. (3) Bigarren irakaskuntza: DBH, batxilergoa eta lanbide heziketa sartzen dira.
Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren estatistika.

[14] Arduraldi osoa duten irakasle guztien eta arduraldi partziala duten irakasleen erdien batuketa.

I.1.38. TAULA. Klasearen batez besteko tamaina eta ikasle/irakasleko (AOB) ratioa ELGA-n, 2007

	Klasearen batez besteko tamaina		Ikasle / irakasleko (AOB)				
	Lehen Hez-kuntza	Bigarren Hez-kuntza (1. gra-dua	Haur Hez-kuntza	Lehen Hez-kuntza	Bigarren hez-kuntza	Hirugarren hezkuntzaz kanpoko biga-rrenaren ondo-rengoa	Hirugarren Hezkuntza
ALEMANIA	22,1	24,7	14,4	18,3	14,9	14,9	12,1
AUSTRALIA	23,8	23,8	m	15,9	12,1	m	m
AUSTRIA	19,9	24,1	16,4	13,6	10,6	9,6	13,7
BELGIKA	m	m	16,0	12,6	9,8	x(5)	18,1
BELGIKA (FR)	20,2	m	---	---	---	---	---
KANADA	m	m	x(6)	x(6)	16,4	m	m
DANIMARKA	19,5	19,9	6,0	x(4)	m	m	m
AEB	23,1	24,3	13,8	14,6	15,1	21,7	15,1
ESLOVAKIA	19,6	22,5	13,4	17,9	14,0	9,8	13,2
ESPAINIA	20,8	24,5	13,7	13,6	10,0	a	10,4
FINLANDIA	19,8	20,1	11,4	15,0	13,1	x(5)	16,6
FRANTZIA	22,6	24,3	19,2	19,7	11,9	x(8)	16,6
GREZIA	17,0	21,6	11,9	10,1	7,5	7,0	26,3
HUNGARIA	20,0	21,0	10,8	10,2	11,1	11,4	17,1
IRLANDA	m	m	13,8	17,9	13,2	x(6)	16,5
ISLANDIA	18,2	19,8	7,3	x(4)	10,3	x(5,1)	10,2
ITALIA	18,6	20,9	11,8	10,5	10,2	m	19,5
JAPONIA	28,2	33,2	16,8	19,0	13,5	x(5,1)	10,6
KOREA	31,0	35,6	18,7	25,6	18,2	a	m
LUXEMBURG	15,8	20,0	12,6	11,2	9,0	m	m
MEXIKO	19,8	29,2	28,4	28,0	30,3	a	14,4
NORVEGIA	a	a	m	11,0	10,0	x(5)	10,0
ZEELANDA BERRIA	m	m	10,5	17,5	14,7	16,6	17,0
HERBEHEREAK	m	m	x(3)	15,6	15,7	x(6)	m
POLONIA	19,6	24,3	18,6	11,0	12,3	13,2	17,2
PORTUGAL	19,7	22,3	15,9	11,8	8,1	x(5)	13,2
ERRESUMA BATUA	24,6	22,6	18,4	19,4	13,6	x(5)	17,6
TXEKIAR ERREP.	20,0	22,9	13,6	18,7	12,3	16,9	18,6
SUEDIA	m	m	12,5	12,3	12,5	12,2	8,8
SUITZA	m	m	16,9	14,8	11,9	m	m
TURKIA	27,2	a	25,9	26,2	16,2	a	18,1
ELGA, BATEZ B.	21,4	23,9	14,9	16,0	13,0	13,3	15,3
EB 19, BATEZ B.	20,0	22,4	13,9	14,4	11,7	11,9	16,0

Iturria: ELGA. Education at a glance, 2009

ELGAK 2007ko datuekin argitaratutako azken datuek (*Education at a glance, 2009*) erakusten dute irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle ratioak EAEkoak baino handiagoak direla. Haur Hezkuntzan 16 eta Lehen Hezkuntzan 13, EAEn oinarrizko hezkuntzan (haur eta lehen hezkuntza) 12,5ekoa den bitartean; Bigarren Hezkuntzan 13, 9,7koaren aurrean, eta goi-mailakoan 15,3, 13,5ekoaren aurrean.

1.2.5.4 Hezkuntza emaitzen adierazleak

A) EGOKITASUNA IKASLEAREN ADINEAN

Egokitasun tasei, hots, euren adinerako egokia den maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioari dagokionez, esan daiteke adinak gora egin ahala murriztu egiten direla, 7 urterekin %98,9 izatetik, 17 urterekin %59 izatera, eta gainera 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean ere jaitsiera ikusi da.

Genero ikuspegitik, 2008-09 ikasturtean emakumezkoek adin guztietan egokitasun tasa handiagoak dauzkate gizonezkoek baino (aurreko ikasturtean 12 urtetik aurrera hasten ziren).

Aurreko ikasturtean gertatu legez, ordea, bilakaerari dagokionez aldea murrizten ari da. Horrela, 2007-08 ikasturtean emakumezkoen aldeko aldeak 12 urterekin 3,1 puntu ingurukoa; 13rekin 6koa; 14rekin 7,5ekoa; 15ekin 10,6koa; 16rekin 12,2koa; eta 17rekin 15,3koa ziren bitartean; hurrengo ikasturtean, hurrenez hurren, 1; 4,6; 8,5 (salbuespena); 8,9; 10,6; eta 13,4koak dira.

I.1.39. TAULA. Egokitasun tasa adin esanguratsuetan (1) sexuaren arabera (ehunekoak)

	2007-08				2008-09			
	Guztira	Gizon	Emak.	Emak.-giz. aldea	Guztira	Gizon	Emak.	Emak.-giz. aldea
7 urte (2)	99,7	100,3	99,1	-1,2	98,9	98,8	99	0,2
9 urte (3)	97,4	98,1	96,7	-1,4	93,5	93,5	93,6	0,1
11 urte (4)	97,4	97,7	97,1	-0,6	94,5	93,8	95,2	1,4
12 urte (5)	87,9	86,4	89,5	3,1	92,9	92,4	93,4	1
13 urte (6)	82,9	79,9	85,9	6	82,9	80,7	85,3	4,6
14 urte (7)	77,5	73,9	81,4	7,5	78,2	74	82,5	8,5
15 urte (8)	70,3	65,1	75,7	10,6	71,3	67	75,9	8,9
16 urte (9)	64,7	58,7	70,9	12,2	64,6	59,5	70,1	10,6
17 urte (10)	57,2	49,7	65	15,3	59	52,5	65,9	13,4

(1) Euren adinerako egokia den maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa.
(2) Maila teoriko egokiak: LH 1.
(3) Maila teoriko egokiak: LH 4.
(4) Maila teoriko egokiak: LH 6.
(5) Maila teoriko egokiak: DBH 1.
(6) Maila teoriko egokiak: DBH 2.
(7) Maila teoriko egokiak: DBH 3.
(8) Maila teoriko egokiak: DBH 4.
(9) Maila teoriko egokiak: Batxilergo 1 eta erdi mailako LH 1.
(10) Maila teoriko egokiak: Batxilergo 2 eta erdi mailako LH 2.
Iturria: EUSTAT.

I.1.40. TAULA. Egokitasun tasak adin esanguratsuetan autonomia erkidegoen arabera, 2007-08 Ikasturtea

	8 urte			10 urte			12 urte			14 urte			15 urte		
	Guzt	Giz.	Emak.	Guzt	Giz.	Emak.	Guzt	Giz.	Emak.	Guzt	Giz.	Emak.	Guzt	Giz.	Emak.
GUZTIRA	**93,9**	**92,9**	**94,9**	**89,2**	**87,7**	**90,8**	**83,6**	**81,2**	**86,1**	**66,3**	**61,4**	**71,6**	**57,7**	**52,3**	**63,3**
ANDALUZIA	93,5	92,2	94,9	88,1	86,1	90,2	82,1	79,2	85,2	61,3	55,9	67,1	51,1	45,6	56,8
ARAGOI	92,4	91,8	93,0	87,5	86,1	89,0	82,2	80,7	83,8	65,6	61,2	70,1	57,4	52,0	62,7
ASTURIAS	90,1	88,8	91,7	86,2	85,4	87,0	81,5	79,4	83,7	66,1	62,8	69,8	59,2	54,5	64,1
BALEAR UHART.	90,6	89,4	91,8	83,1	81,5	84,8	75,7	71,7	80,0	60,4	54,2	67,1	54,0	48,0	60,3
KANARIAR UHART.	91,4	89,3	93,7	84,3	80,9	87,7	77,3	72,8	81,9	57,7	51,4	64,1	49,5	43,2	56,3
KANTABRIA	94,8	93,4	96,2	90,6	89,3	92,0	83,4	80,6	86,5	68,4	63,9	73,1	57,6	54,2	61,4
GAZTELA LEON	93,1	91,8	94,4	88,1	86,7	89,7	82,4	80,0	84,9	66,5	61,0	72,3	56,8	51,1	62,8
GAZTELA-MANTXA	90,9	89,5	92,4	85,4	83,0	87,8	79,0	75,9	82,4	62,2	56,1	68,8	53,5	47,2	60,0
KATALUNIA	95,7	95,1	96,2	92,8	92,0	93,6	90,4	89,4	91,6	76,1	71,9	80,6	69,4	64,5	74,5
VALENTZIA	97,5	97,2	97,8	93,5	92,9	94,2	85,8	83,7	87,8	66,0	61,3	70,9	55,3	49,5	61,4
EXTREMADURA	94,3	92,9	95,9	89,2	86,9	91,7	82,7	79,7	85,9	60,6	53,8	67,8	50,9	44,3	57,7
GALIZIA	94,4	93,5	95,4	90,0	87,7	92,4	84,0	81,0	87,2	68,8	62,4	75,5	59,6	52,4	67,0
MADRIL	93,7	93,0	94,4	88,7	87,7	89,9	83,2	81,5	84,9	68,0	64,5	71,5	60,2	56,3	64,3
MURTZIA	91,2	89,6	93,0	85,1	82,5	87,9	77,1	73,0	81,5	60,3	54,8	66,1	52,8	48,2	57,7
NAFARROA	92,1	91,3	93,0	88,3	87,2	89,4	84,0	81,9	86,1	74,5	70,7	78,8	66,9	62,1	72,0
EAE	**94,3**	**93,5**	**95,0**	**91,3**	**90,2**	**92,6**	**87,6**	**86,2**	**89,1**	**76,8**	**72,7**	**81,2**	**70,6**	**65,4**	**76,2**
ERRIOXA	94,2	94,3	94,2	89,9	88,0	91,9	86,1	84,7	87,6	65,3	60,5	70,7	57,3	52,7	62,1
CEUTA, MELILLA	92,4	90,7	93,9	81,4	79,7	83,2	71,7	67,7	75,8	52,2	48,3	56,5	45,6	38,8	53,6

Iturria: Espainako ikaskuntzaren kopurua, 2007-08.

B) ESKOLA GARAIA BAINO LEHENAGO UZTEA ETA HURA PREBENITZEKO INDARTZE, ORIENTABIDE ETA LAGUNTZA PROGRAMAK

Eskola garaia baino lehenago uztea (definitzeko, gehienez ere oinarrizko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa bukatuta (*INSN 2 – ISCED 0, 1, 2 edo 3c*) inkesta baino lehenagoko lau asteetan ikasten jarraitzen ez duten edo prestakuntzarik egiten ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleak hartzen dira erreferentzia) Europako hezkuntza politiketan funtsezko kezketako bat izan da eta oraindik da, deskapitalizazio handia dakarrelako.

Hala ere, adierazle horrek ez ditu derrigorrezko eskolaratzea uztea eta eskolako porrota gainditzen ez duten ikasleen portzentaje gisa neurtzen.

Derrigorrezko eskolaratzea bukatutakoan, gazteek prestatzen jarraitu behar dute, gaur egun ezagutza aurrerapenaren eragile erabakigarria delako. Prestakuntzak aukera gehiago ematen du lanbide kualifikatuak lortzeko eta bitarteko gehiago lanbidean gora egiteko. Hori dela-eta,

I.1.41. TAULA. Eskola garaia baino lehenago uztea (DBHko 2. etapa amaitu ez duten eta hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duten 18-24 urteko biztanleak)

	GUZTIRA			GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	1998	2003	2008	2003	2008	2003	2008
GUZTIRA	**30,8**	**31,6**	**31,9**	**38,1**	**38,0**	**24,8**	**25,7**
ANDALUZIA	38,6	38,2	38,5	44,2	43,5	31,9	33,2
ARAGOI	22,8	24,0	25,6	32,6	31,7	15,1	19,1
ASTURIAS	24,5	28,6	19,7	31,3	26,4	25,7	12,8
BALEAR UHART.	38,1	41,4	43,2	51,6	49,2	30,7	37,0
KANARIAR UHART.	34,5	32,7	34,1	42,5	43,5	23,0	24,5
KANTABRIA	25,8	29,1	22,8	37,3	31,1	20,3	14,8
GAZTELA LEON	23,4	24,4	26,0	32,2	31,6	16,3	20,2
GAZTELA-MANTXA	39,0	36,2	38,1	46,1	45,8	25,6	29,9
KATALUNIA	30,1	33,9	33,2	41,5	39,7	26,0	26,4
VALENTZIA	36,2	36,0	33,1	42,2	38,2	29,3	27,8
EXTREMADURA	40,7	36,9	33,6	45,5	39,1	28,3	27,9
GALIZIA	30,5	25,0	24,1	32,0	32,2	17,8	15,8
MADRIL	21,0	22,6	26,9	26,6	32,4	18,5	21,4
MURTZIA	39,2	42,0	41,0	46,5	49,7	37,2	32,1
NAFARROA	18,5	20,8	19,2	25,1	23,9	16,2	14,4
EAE	**18,5**	**15,8**	**14,7**	**20,3**	**18,1**	**10,9**	**11,2**
ERRIOXA	30,2	34,7	37,2	38,6	41,9	30,5	32,3
CEUTA, MELILLA	40,8	40,8	42,1	44,1	44,1	37,2	40,2

Iturria: Espainako ikaskuntzaren kopurua, 2007-08. Hezkuntza Ministerioak 2009an argitaratua

eskola-graduatua lortu ondoren ikasten jarraitzen duen ikasle kopurua handitzea lehentasunezko helburua da hezkuntzan eskumenak eta erantzukizunak dauzkaten administrazio guztientzat. Premiazko helburua da.

Adin tarte horretan dauden gazteak prestatzen jarraitzera bultzatu nahi dira, prestakuntza arautuan (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistematik kanpoko beste prestakuntza mota batean, eta biztanleen portzentaje bat ezagutzaren gizartetik at geratzea saihestu nahi da.

2000ko martxoan Lisboan egindako Europako Kontseiluaren ondoren, ikasketak garaia baino lehenago uzten dituzten gazteen %19,3ko batez bestekoa murriztu beharra funtsezko alderdi gisa agertu da. Hori dela-eta, honako helburua ezarri da: “2010erako, Estatu kide guztiek, gutxienez, erdira murriztu behar lukete eskola uzteko tasa (2000ko datuen aldean), EBn %10etik beherako batez besteko indizea lortzeko”.

Egia da Europako herrietan eskola garaia baino lehenago uztearen bilakaerak beheranzko joera daukala,

I.1.42. TAULA. Hura prebenitzeko indartze, orientabide eta laguntza plana (PROA), 2009-2010 Ikasturtea

	Uzte-tasa 2008an	Esku hartu duten ikastetxeak, guztira	Eskola-laguntza egitaraua		Laguntza eta indargarrien egitaraua Bigarren Hezkuntzan
			Lehen Hezkuntzan	Bigarren Hezkuntzan	
GUZTIRA	**31,9**	**3.434**	**1.735**	**933**	**766**
ANDALUZIA	38,5	1.090	600	320	170
ARAGOI	25,6	88	40	28	20
ASTURIAS	19,7	44	22	11	11
BALEAR UHART.	43,2	49	29	15	5
KANARIAR UHART.	34,1	133	63	18	52
KANTABRIA	22,8	33	13	10	10
GAZTELA LEON	26,0	172	81	42	49
GAZTELA-MANTXA	38,1	170	100	31	39
KATALUNIA	33,2	486	221	111	154
VALENTZIA	33,1	220	65	61	94
EXTREMADURA	33,6	135	73	37	25
GALIZIA	24,1	172	87	45	40
MADRIL	26,9	311	153	109	49
MURTZIA	41,0	129	74	39	16
NAFARROA	19,2	39	25	12	2
EAE	**14,7**	**42**	**22**	**7**	**13**
ERRIOXA	37,2	92	50	30	12
CEUTA, MELILLA	42,1	29	17	7	5

Iturria: Datuak eta zifrak.09/10 Ikasturtea.

baina helburua asmo handikoa da, zenbait Estatu kide %10eko helburutik urrun daudelako.

EUROSTATek argitaratutako azken datuen arabera, 2007an Espainian ikasketak uzteko tasa %31koa da. EB15 osatzen zuten herrietako batez bestekoa %16,9koa da, baina 10 herri berriak sartu ondoren %15era jaitsi da. Hori hedapeneko herrietan EBko gainontzeko Estatu kideetan baino tasa askoz txikiagoa dagoelako gertatu da. Izan ere, tasarik txikienak Eslovenian (%4,3), Polonian (%5), Txekiar Errepublikan (%5,5 2006an) eta Eslovakian (%7,2) daude. Azpimarratzekoa da Finlandiako tasa txikia (%7,9) ere.

MECen datuen arabera, EAEn ere eskola garaia baino lehenago uzteko tasaren joera beheranzkoa da, 1998ko %18,5etik 2008ko %14,7ra. Portzentajea Estatuko txikiena da, bertan 2008ko batez bestekoa %31,9koa izan baitzen.

Sexuaren arabera bereizita, EAEn emakumezkoek ratio txikiagoa daukate gizonezkoek baino: %11,2, %18,1 aurrean. Estatuan, hurrenez hurren, %25,7 eta %38.

Ikasle batzuek hezkuntzari dagokionez daukaten desabantaila horren jatorria maiz egoera pertsonal edo soziokulturaletan dago, eta askotan bizi diren inguruneko arrisku edo esklusio egoerei daude lotuta. Bestalde, guztientzako kalitatezko hezkuntza lortzeko zuzenean zerikusia duten hezkuntza komunitateko kideen eta hezkuntza gauzatzen den gizarte ingurunearen ahalegina behar da. Hortaz, hezkuntza denon erantzukizuna da gero eta gehiago, bizitza osoan garatu behar da eta bizi den lurralde eta gizarte testuinguruaren eragin handia dauka.

Horren ondorioz, Hezkuntza Ministerioak, esperimentalki, PROA plana (Indartze, Orientabide eta Laguntza plana garaia baino lehenagoko eskola porrota prebenitzeko) abiarazi zuen 2004-05 ikasturteko azken hiruhilekoan. Plan horretan lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako zenbait ekintza biltzen dira. Haien guztien helburua *hezkuntza emaitzak hobetzea* da, kasu batzuetan *ikaslearentzako banakako laguntza zuzeneko* neurrien bidez, eta beste batzuetan *ikastetxean aldaketa orokorra* gertatzen laguntzeko baliabideak emanez.

Programa mota bitan egituratzen da: *Eskola-laguntza programa*, lehen hezkuntzako azken zikloan eta bigarren hezkuntzako lehen mailetan arazoak dauzkaten ikasleen itxaropenak hobetzeko, eta *Bigarren hezkuntzako laguntza eta indartze programa*, ikastetxeei hezkuntzako ekintzaren hobekuntza orokorrari heltzen laguntzeko baliabideak emateko.

Hezkuntza Ministerioaren eta autonomia erkidegoen arteko lurraldeko laguntza proiektua da, ikastetxe batzuetako ikasleen ingurune soziokulturalari lotutako hezkuntza premiei heltzeko. Hezkuntza administrazio biek batera planaren ezarpena erdi bana finantzatzen dute.

Planak baliabideak ematen dizkie ikastetxeei, hezkuntzako beste eragileekin batera, norabide bitan lan egin dezaten: desberdintasuna sortzen duten eragileak ahultzen laguntzea eta talde ahulenentzako arreta bermatzea, haien prestakuntza hobetzeko eta gizarte esklusioko arriskuak prebenitzeko. Hiru helburu estrategiko daude: Guztiek kalitatezko hezkuntza lortu ahal izatea, hezkuntza ingurunea aberastea eta tokiko komunitatea engaiatzea.

Lehen Hezkuntzako laguntza programa 2004-2005 ikasturteko *azken hiruhilekoan* hasi zen esperimentalki ezartzen, horrela erabaki zuten autonomia erkidegoetan, guztira 7tan, eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan. 143 ikastetxek hartu zuten parte eta gastua 356.500 eurokoa izan zen.

2005-2006 ikasturtean programa ia erkidego guztietara hedatu zen eta bigarren hezkuntzan ere ezarri zen. 609 ikastetxek hartu zuten parte eta aurrekontua 24,5 milioi eurokoa izan zen. 2006-2007an, autonomia erkidego guztietako lehen eta bigarren hezkuntzako 1.1.65 ikastetxetan garatu zen eta aurrekontua guztira 44 milioi eurokoa izan zen. 2007-2008an, 2.500 ikastetxe baino gehiago ziren eta aurrekontua 97 milioi eurokoa. Eskuragarri dauden azken datuak 2009-2010 ikasturtekoak dira. 3.434 ikastetxe daude, haietatik 42 EAEkoak.

c) Gazteen prestakuntza maila

Adierazleak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (INSN 3) amaitu duten 20 eta 24 urte arteko biztanleen portzentajea neurtzen du. *Las cifras de la educación en España, 2007-08. MEC* txosteneko datuen arabera, beste autonomia erkidegoekin konparatuta, EAEk Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa amaitu duten gazte portzentaje handiagoak dauzka.

Horrela, 2008an %80,1 ziren (%75 gizonezkoei dagokienez eta %85,4 emakumezkoei dagokienez), Estatuko %60ko batez bestekoaren aurrean (%52,7 gizonezkoei dagokienez eta %67,6 emakumezkoei dagokienez).

Bilakaerari dagokionez, EAEn 1998 eta 2003 ratioak jaitsi eta ondoren berriz hasi baziren ere (alderdi hori genero ikuspegitik ere errepikatzen da), Estatuko batez bestekoak ez dauka portaera bera. Izan ere, bilakaera ez da itxaropentsua, 1998ko %64,6ko tasatik 2003ko %62,2kora igaro eta 2008an %60ko tasarekin bukatu baita; atzerapen hori sexu bietan gertatu da.

d) Graduatze tasak

Ikasketa mailaren araberako (DBH, batxilergoa, teknikaria, goi-mailako teknikaria, diplomatua, arkitekto

I.1.43. TAULA. Gazteen prestakuntza maila (Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (INSN 3) amaitu duten 20 eta 24 urte bitarteko biztanleen portzentajea)

	GUZTIRA			GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	1998	2003	2008	2003	2008	2003	2008
GUZTIRA	**64,6**	**62,2**	**60,0**	**55,5**	**52,7**	**69,2**	**67,6**
ANDALUZIA	55,2	54,2	53,0	48,9	47,4	59,9	58,9
ARAGOI	73,0	71,3	67,3	62,0	58,1	81,1	77,0
ASTURIAS	69,9	64,6	72,8	59,8	66,7	69,5	79,1
BALEAR UHART.	58,1	52,2	48,2	43,9	40,2	60,9	56,5
KANARIAR UHART.	54,9	59,1	55,5	50,5	43,6	67,9	67,6
KANTABRIA	75,4	65,3	70,4	57,1	60,6	74,0	80,6
GAZTELA LEON	70,3	67,6	67,1	59,1	60,1	76,7	74,5
GAZTELA-MANTXA	56,0	55,5	51,7	45,4	43,4	66,5	60,6
KATALUNIA	67,0	60,9	59,4	52,6	51,3	69,5	67,8
VALENTZIA	61,5	58,4	59,1	50,9	52,9	66,2	65,6
EXTREMADURA	55,7	55,7	53,6	48,8	46,7	63,0	60,9
GALIZIA	64,7	69,2	66,2	61,8	57,4	76,9	75,3
MADRIL	72,9	72,2	65,4	68,2	58,5	76,2	72,5
MURTZIA	60,9	52,9	51,0	47,3	42,3	58,9	60,6
NAFARROA	80,1	75,0	77,3	69,6	71,2	80,6	83,7
EAE	**78,6**	**78,3**	**80,1**	**73,2**	**75,0**	**83,7**	**85,4**
ERRIOXA	68,3	63,2	59,3	59,3	50,8	67,3	68,5
CEUTA, MELILLA	58,2	53,6	43,2	52,0	44,3	55,3	41,9

Iturria: Espainako ikaskuntzaren kopurua, 2007-08. Hezkuntza Ministerioak 2009an argitaratua

teknikoa eta ingeniari teknikoa; eta lizentziatua, arkitektoa eta ingeniaria) graduatze tasei dagokienez, 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean murrizketa gertatu da batxilergoko ikasketetan, ikasketa teknikoetan eta goi-mailako ikasketa teknikoetan, DBH tituluak, diplomatuak, arkitekto teknikoak eta ingeniari teknikoak areagotu dira, eta lizentziatuek, arkitektoek eta ingeniariek egonkor iraun dute.

Genero ikuspegitik, datuek agerian uzten dute DBHn, batxilergoan eta ziklo bateko eta biko unibertsitate tituluetan graduatze tasa handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino. “Teknikari” eta “goi-mailako teknikari” tituluetan, ordea, emakume baino gizon gehiago matrikulatzen dira, eta lehenengoetan egoera zuzendu beharrean areagotzen ari dela ematen du, gizonezkoen aldeko aldea 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean hazi baita.

I.1.44. TAULA. Graduatze tasa gordina ikasketa maila, aldi eta sexuaren arabera

	2006-07				2007-08				2008-09			
	Guzt	Giz.	Emak.	Emak.-giz. aldea	Guzt.	Giz.	Emak.	Emak.-giz. aldea	Guzt.	Giz.	Emak.	Emak.-giz. aldea
DBH	83,0	78,4	87,8	9,4	83,0	78,0	88,2	10,2	84,3	80,9	87,9	7
Batxilergoa	63,5	54,9	72,7	17,8	63,6	54,9	72,8	17,9	62,6	55,3	70,2	14,9
Teknikaria	19,7	21,5	17,8	-3,7	19,7	21,5	17,9	-3,6	19,5	21,6	17,3	-4,3
Goi-mailako teknikaria	32,1	34,6	29,3	-5,3	32	34,6	29,4	-5,2	29,9	31	28,8	-2,2
Diplomatua, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa	22,4	17,6	27,6	10	22,4	17,5	27,6	10,1	24,4	20	28,9	8,9
Lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria	24,9	20,1	29,9	9,8	25,0	20,2	30,0	9,8	25,0	20,4	29,9	9,5

Iturria: EUSTAT.

E) MATEMATIKA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GOI-MAILAKO GRADUATUAK.

Garapen ekonomikoa eta ikerketa zientifikoa indartzeko xedez, EBk funtsezkoa iritzi dio matematika, zientzia eta teknologiako graduatu tasa areagotzeari. Era berean, arlo horietan sexuen artean dagoen desoreka orekatu nahi izan da, holako ikasketak hautatu eta bukatzen dituzten emakumezkoak gizonezkoak baino gutxiago direlako.

Espainian, 2007an, EUROSTATen eta Hezkuntza Ministerioak 2009an argitaratutako *Las cifras de la educación en España, 2007-08* txostenaren arabera, tasa 20-29 urte bitarteko mila biztanleko 11,2koa da.

EAEn, MECen datuen arabera (*Las cifras de la educación en España, 2007-08*), 20-29 urte bitarteko mila biztanleko tasa 25,3koa da, Estatuko altuena. Azpimarratu behar da LH teknologikoak (goi-mailako prestakuntza zikloak) gure erkidegoan daukan garrantzia.

EUROSTATek argitaratutako datuek, bestalde, agerian utzi dute tasa hori EBko herrietako altuenetakoa dela. Nabarmentzekoak dira Frantzia, 20,7; Finlandia, 18,8; Lituania eta Portugal, 18,1; Suitza, 17,9; eta Erresuma Batua, 17,5.

Genero ikuspegitik, MECen datuek erakusten dute arlo horietako graduatze tasa 21,6 puntu txikiagoa zela emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino (milako 14,3 eta 35,9, hurrenez hurren). Horrek emakumezkoen artean zientzia eta teknologia esparruetako graduatzea bultzatzeko premia adierazten du.

F) TIMSS PROIEKTUA. MATEMATIKA ETA ZIENTZIETAKO GAITASUNAK

Matematika eta Zientzietako Joerei buruzko Nazioarteko Ikerketaren (TIMSS, Trends in International Mathematics and Science Study) helburua ikasleek matematika eta zientzietan daukaten errendimendua aztertzea da.

Ebaluazioa lau urtean behin egiten da. Lehen aldiz 1995ean egin zen, eta harrezkero parte hartzen duten herrien kopurua handitzen joan da: 1995ean 45ek hartu zuten parte, 2003an 51k eta 2007an 67k.

TIMSSek bi adinetako ikasleentzako azterketak administratzen ditu: 4. gradua, Lehen Hezkuntzako 4. mailaren parekoa, eta 8. gradua, DBHko 2. mailaren parekoa. Herri batzuek TIMSS 2007an maila bietan

I.1.45. TAULA. Goi-mailako hezkuntzako zientzia eta teknologiako graduatuak (20 eta 29 urte bitarteko 1.000 biztanleko pertsonak)

	Goi-mailako irakaskuntza			Goi-mailako prestakuntza zikloak			Unibertsitateko irakaskuntza		
	Guzt.	Giz.	Ema.	Guzt	Giz.	Ema.	Guzt	Giz.	Ema.
GUZTIRA	**11,2**	**15,4**	**6,8**	**3,8**	**6,1**	**1,3**	**7,5**	**9,3**	**5,5**
ANDALUZIA	7,9	10,8	4,8	2,7	4,3	0,9	5,2	6,5	3,9
ARAGOI	12,6	16,9	8,0	4,7	7,9	1,3	7,9	9,0	6,7
ASTURIAS	17,0	22,8	11,0	5,7	9,2	2,1	11,3	13,7	8,9
BALEAR UHART.	3,2	4,7	1,6	1,3	2,2	0,3	1,9	2,5	1,2
KANARIAR UHART.	6,2	8,5	3,9	2,2	3,5	0,8	4,1	5,0	3,1
KANTABRIA	12,2	16,1	8,0	4,4	7,0	1,8	7,7	9,1	6,3
GAZTELA LEON	16,0	21,2	10,4	5,6	8,8	2,2	10,4	12,5	8,2
GAZTELA-MANTXA	6,1	9,0	3,0	3,3	5,3	1,1	2,9	3,7	1,9
KATALUNIA	11,6	16,3	6,4	3,9	6,3	1,2	7,7	10,0	5,2
VALENTZIA	10,4	14,2	6,3	3,3	5,6	1,0	7,0	8,6	5,4
EXTREMADURA	8,3	11,3	5,0	2,7	4,4	0,9	5,6	6,9	4,2
GALIZIA	12,5	16,1	8,8	5,1	7,9	2,1	7,4	8,2	6,6
MADRIL	12,9	17,2	8,5	3,1	5,1	1,0	9,8	12,1	7,5
MURTZIA	7,0	9,5	4,2	2,5	3,9	0,9	4,5	5,6	3,3
NAFARROA	16,1	21,7	10,1	6,1	10,4	1,5	10,0	11,3	8,6
EAE	**25,3**	**35,9**	**14,3**	**11,5**	**18,4**	**4,2**	**13,8**	**17,4**	**10,1**
ERRIOXA	8,3	11,9	4,3	4,5	7,1	1,7	3,8	4,8	2,6
CEUTA, MELILLA	4,8	6,5	2,9	4,3	5,6	2,9	0,5	0,9	0,0

ISCED 5A: unibertsitateko tituluak; 5B: goi-mailako prestakuntza zikloak; eta 6: doktoretzak. (s) estimazioa.
Iturria: Espainako ikaskuntzaren kopurua, 2007-08. Hezkuntza Ministerioak 2009an argitaratua.

hartu dute parte, eta beste batzuek batean baino ez. EAEn DBHko 2. mailan baino ez da parte hartu.

2003 eta 2007 artean herrien kopurua handitu bada ere, 2003an parte hartu zuten guztiek ez dute 2007an egin, eta horrek erkaketa zailtzen du.

Metodologikoki, gogoan hartu behar dugu 2003an emaitzak parte hartzaile guztien emaitzen batez bestekoaren arabera ordenatzen ziten bitartean, 2007an handienetik txikienera ordenatzen direla, TIMSSek sortutako eskala arbitrario baten arabera. Han 500 puntuko batez bestekoa eta 200 puntuko desbideratze tipikoa ezarri dira.

Horrela, 2003 eta 2007 artean ikusten da ***matematikan*** aztertutako 8 herrik posizioa hobetu dutela eta beste 7k posizio baxuagoa lortu dutela. Hobekuntzarik handiena Ingalaterrari dagokio, 15 punturekin, eta jai-

I.1.46. TAULA. Matematikako emaitzak, DBH 2

	2007		2003	
	Ranking	Puntuak	Ranking	Puntuak
TAIPEI - TXINA	1	598	3	585
KOREA	2	597	1	589
HONG KONG	3	572	2	586
JAPONIA	4	570	4	570
QUEBEC, KANADA	5	528	5	543
HUNGARIA	6	517	6	529
ONTARIO, KANADA	7	517	7	521
INGALATERRA	8	513	14	498
ERRUSIA	9	512	8	508
AEB	10	508	10	504
LITUANIA	11	506	11	502
ESLOVENIA	12	501	16	493
EAE	**13**	**499**	**17**	**487**
AUSTRALIA	14	496	9	505
SUEDIA	15	491	12	499
ESKOZIA	16	487	13	498
SERBIA	17	486	19	477
ITALIA	18	480	18	484
NORVEGIA	19	469	22	461
BULGARIA	20	464	20	476
ISRAEL	21	463	15	496
ERRUMANIA	22	461	21	475
JORDANIA	23	427	23	424
TUNIS	24	420	25	410
INDONESIA	25	405	24	411

Iturria: TIMSS 2007

I.1.47. TAULA. Zientzietako emaitzak, DBH 2

	2007		2003	
	Ranking	Puntuak	Ranking	Puntuak
TAIPEI - TXINA	1	561	1	571
JAPONI	2	554	5	552
KOREA	3	553	2	558
INGALATERRA	4	542	6	544
HUNGARIA	5	539	7	543
ESLOVENIA	6	538	12	520
HONG KONG	7	530	3	556
ERRUSIA	8	530	4	556
ONTARIO, KANADA	9	530	14	514
AEB	10	520	9	527
LITUANIA	11	519	13	519
AUSTRALIA	12	515	10	527
SUEDIA	13	511	11	524
QUEBEC-CANADÁ	14	507	8	531
EAE	**15**	**498**	**18**	**489**
ESKOZIA	16	496	15	512
ITALIA	17	495	17	491
NORVEGIA	18	487	16	494
JORDANIA	19	482	20	475
SERBIA	20	470	22	468
ISRAEL	21	468	19	488
ERRUMANIA	22	462	21	470
TUNIS	23	445	23	404
INDONESIA	24	433	24	420

Iturria: TIMSS 2007. TIMSS 2003 eta 2007an parte hartu arren, ezin izan da Bulgaria sartu, 8. graduan Bulgariako ikasle batzuek baino ez dituztelako zientziak ikasten eta 2007ko lagina ez delako esanguratsua 2003rekin erkatu ahal izateko.

tsierarik handiena Israeli, 33 punturekin. 2007an puntuaziorik handienak Taipei-Txinak, Koreak eta Hong Kongek lortu zituzten. PISA-2006an, puntuaziorik handienak Taipei-Txinak, Hong Kongek, Finlandiak, Koreak eta Holandak lortu zituzten.

EAEko emaitzen bilakaera ona izan da, gure erkidegoak puntuazioa hobetu du, 487 puntutik 499ra, eta aztertutako herrien rankingeko posizioa ere hobetu du, 17. tokitik 13ra. Izan ere, hirugarren hobekuntzarik handiena da Ingalaterra eta Taipei-Txinaren ondoren.

2003 eta 2007 artean ikusten da ***zientzietan*** aztertutako 4 herrik euren posizioa hobetu dutela, 9k puntuazio txikiagoa lortu dutela eta 11k puntuazio bera lortu

I.1.48. TAULA. 25-64 urte arteko biztanleen langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Lehen hezkuntza aurrekoa, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa (ISCED 0, 1 eta 2)												
EB-27	:	:	10.8	9.6	10.1	10.2	10.6	10.4	10	9.2	9.8	12,8
EB-25	:	:	10.9	9.6	10	10.3	10.6	10.4	10	9.2	9.9	13,0
EB-15	12.1	11.2	10.2	8.7	9.1	9.4	9.7	9.6	9.4	8.8	9	12,8
Espainia	17.5	14.6	13.8	10.3	11.1	11.2	11.3	9.3 (b)	9	9	13.2	21,9
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarrenaz kanpoko bigarrenaren ondorengoa (ISCED 3 eta 4)												
EB-27	:	:	8.1	7.8	8.2	8.2	8.4	8	7.2	6	5.6	7,1
EB-25	:	:	8.1	7.7	8.1	8.3	8.5	8.1	7.2	6.1	5.7	7,3
EB-15	8.4	7.7	6.9	6.2	6.5	7	7.2	7	6.6	5.8	5.6	7,1
Espainia	15.2	13	11.1	8.1	9.4	9.7	9.2	7.3 (b)	6.8	6.8	9.3	15,3
Hirugarren hezkuntza (ISCED 5 eta 6)												
EB-27	:	:	4.5	4	4.3	4.6	4.7	4.5	4.1	3.6	3.4	4,5
EB-25	:	:	4.4	3.9	4.2	4.6	4.7	4.6	4.1	3.6	3.5	4.5
EB-15	6.8	5.2	4.4	3.9	4.2	4.6	4.7	4.6	4.2	3.7	3.6	4,6
Espainia	12.7	10.7	9.1	6.6	7.5	7.4	7.3	6.1	5.5	4.8	5.8	9,0

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey

dutela. Hobekuntzarik handiena Tunisi dagokio, 41 punturekin, eta jaitsierarik handiena Hong Kongi, 26 punturekin. 2007an puntuaziorik handienak Taipei-Txinak, Japoniak eta Koreak lortu zituzten. PISA-2006an, puntuaziorik handienak Finlandiak, Hong Kongek Kanadak lortu zituzten.

EAEko emaitzen bilakaera ona izan da, gure erkidegoak puntuazioa hobetu du, 489 puntutik 498ra, eta aztertutako herrien rankingeko posizioa ere hobetu du, 18. tokitik 15era. Izan ere, zientzietako batez bestekoa 9 puntutan handitu da, laugarren hobekuntzarik handiena Eslovenia eta Errusiaren ondoren.

G) Enplegu eta langabezia tasa lortutako prestakuntza mailaren arabera

Hezkuntza maila bakoitzeko pertsonen enplegu itxaropenak lan-merkatuaren premien eta prestakuntza maila bakoitzeko eskulan eskaintzaren araberakoa da, baina orokorrean, atxikitako taulako EUROSTATeko datuen azterketatik ondorioztatzen denez, langabezia tasa hezkuntza mailarekin batera jaisten da.

EINren 2009ko biztanleria aktiboaren inkestako (BAI) datuen azterketak (ELGA eta EUROSTATek ez bezala, BAIk 16 urtetik aurrera ematen ditu datuak) ere erakusten du langabezia tasek behera egiten dutela prestakuntza mailak gora egin ahala, bai Espainian bai EAEn.

I.1.49. TAULA. Langabezia tasaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera

	2005		2006		2007		2008		2009	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	**9,2**	**7,3**	**8,5**	**7,0**	**8,3**	**6,1**	**11,3**	**6,4**	**18,0**	**11,0**
Analfabetoak	21,6	18,8	18,4	16,7	25,3	25,0	30,1	13,6	43,8	18,2
Lehen Hezkuntza	10,5	9,8	10,1	7,9	10,6	6,8	16,7	8,1	26,0	20,8
Bigarren Hezkuntza. Lehenengo etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	11,1	8,9	10,5	9,6	10,2	8,1	14,3	9,3	23,5	16,1
Bigarren Hezkuntza. Bigarren etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	8,8	7,7	8,2	6,7	8,1	7,3	10,7	7,8	17,2	11,2
Prestakuntza eta laneratzea bigarren hezkuntzako titulua izanda (2. etapa)	6,9	0,0	5,9	-	13,8	-	12,7	-	18,0	-
Goi-mailako hezkuntza, doktoretza izan ezik	6,9	6,0	6,1	5,8	5,4	4,5	6,4	4,2	9,9	7,5
Doktoretza	2,0	8,5	1,5	0,0	3,0	-	2,4	-	2,4	-

Iturria: BAI, EIN

I.1.50. TAULA. Ikasketa mailak		
ISEI-IVEI	International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	ITZULPENA: Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (INSN)
ISEI-IVEIk EUSTATetik hartutako definizioak erabiliz egiten du adierazle hau	INCEk ISCEDetik hartutako definizioak egiten du adierazle hau	
Ikasketa mailak: - Ikasketarik gabe (analfabetoak eta ikasketarik gabeak): irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak edo jakin arren ikasketarik egin ez dutenak. - Lehen mailako i. (eskolaurrekoak eta lehen mailakoak): ama-eskola, haurtzaindegiak, eskolaurrea eta antzekoak. OHO eta Lehen Hezkuntza bezalako ikasketak. - Bigarren mailako i. (lanbidekoak eta bigarren mailakoak): Lanbide Hezkuntzako ikasketak, oinarrizko batxilergoak eta parekoak. Goi-mailako batxilergoko edo BBBko ikasketak, unibertsitaterako sarbidea eta antzekoak. - Unibertsitateko i. (erdi-goi-mailakoak eta goi-mailakoak): Ingeniari tekniko eta perituko ikasketak, irakasle ikasketak, erizaintza eta maila bereko beste batzuk eta lizentziaturako ikasketak, goi-mailako ingeniariak eta antzekoak, baita doktoretza eta espezializazioko ikasketak.	Ikasketa mailak: - Pre-primary education: ISCED 0 - Primary education: ISCED 1 First stage of basic education - Lower secondary education:ISCED 2 Second stage of basic education - (Upper) secondary education ISCED 3 - Post-Secondary non tertiary education ISCED 4 - **First stage of tertiary education ISCED 5** (not leading directly to an advanced research qualification) - **Second stage of tertiary education ISCED 6** (leading to an advanced research qualification)	Ikasketa mailak: - Lehen hezkuntza aurrekoa (INSN 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak eta irakurtzen eta idazten jakin arren gutxienez eskolako 5 urte bete ez duten biztanleak. - Lehen Hezkuntza (INSN 1): Gutxienez eskolako 5 urte, orokorrean 5 edo 6 urterekin hasi eta 11 edo 12rekin bukatuta, bete duten biztanleak, goragoko mailarik bete gabe. - Derrigorrezko bigarren hezkuntza-DBH (INSN 2) - Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa (INSN 3 eta 4): Batxilergoko titulua, titulu teknikoa (erdi mailako prestakuntza zikloak) eta pareko tituluak eta parekagarriak dauzkaten biztanleak. - **Goi-mailako hezkuntza (INSN 5)**: Goi-mailako teknikari (goi-mailako prestakuntza zikloak), unibertsitateko diplomatu, lizentziatu, doktore titulua eta pareko tituluak edo parekagarriak dauzkaten biztanleak. - **Goi-mailako hezkuntza (INSN 6):** Diploma aurreratuak eta doktorego-tesiak

a, b eta c letrak daude ISCED 5era pasarazten duten edo ez duten ISCED 3ko tituluak adierazteko.

2

Egitura produktiboa eta berrikuntza EAE-n

2.1. EGITURA PRODUKTIBOA

2.1.1. Enpresa egitura eta demografia

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren (JEGID) azken datuek, 2009. urteari buruzkoak, 202.093 establezimendu zenbatu dituzte guztira, EAEn aktiboan dauden 182.284 enpresari dagozkienak (lehen sektorekoak kanpo utziz). Kopuru hori 2008. urtean baino, hain zuzen ere aldakuntzak positiboak izan zirenean baino 1.000 establezimendu eta 2.006 enpresa gutxiago da.

Datu horiek agerian uzten dute EAEn 2009. urtean enpresa kopuruak % 1,1 behera egin zuela (fabrikak, dendak, bulegoak…), aurreko urtean % 2,1eko hazkundea izan arren. Enplegua % 1,1 areagotu zen, aurreko aldiko % 2,5aren aldean. Horrela, batez besteko tamaina 5,1 langiletik 5,2 langilera igaro zen enpresa bakoitzeko.

EAEn egoitza mantentzen duten enpresa hauen portzentajea % 97,7an kokatzen da; kopuru absolutuetan jaitsi egiten dira bai EAEn egoitza dutenak, bai Estatuko gainerako tokietan sozietatearen egoitza dutenak.

Sektoreka aztertuz gero, beherakadak erauzketako industrietan (% -12,2), Eraikuntzan (% -1,4), Garraio eta Biltegiratzean (% -1,1) gertatzen dira, eta hazkunde handienak Jarduera artistikoetan, aisialdikoetan eta entretenitzekoetan (% 11,8), ur horniduran, saneamendu jardueretan, hondakinen kudeaketan eta kutsadura garbitzekoetan (% 8,7), energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotua hornitzekotan (% 6,7), Hezkuntzan (% 6,5) eta Jarduera sanitarioetan eta gizarte zerbitzuetan (% 6,3) ikusi dira.

Enpleguari dagokionez, erorketak gertatu dira Manufakturen Industrietan (% -0,5), ur horniduran, saneamendu jardueretan, hondakinen kudeaketan eta kutsadura garbitzeko jardueretan (% -14,3), Administrazio publikoan eta defentsan, derrigorrezko gizarte segurantzan (% -1,5) eta Eraikuntzan (% -0,8). Hazkunde nagusiak administrazio jardueretan eta zerbitzu laguntzaileetan (% 16,5), Jarduera sanitarioetan eta gizarte zerbitzuetakoetan (% 11,2), Jarduera artistikoetan, aisialdikoetan eta entretenitzekoetan (% 9,9), Higiezinen jardueretan (% 9,6) eta Jarduera finantzarioetan eta aseguruetakoetan (% 6,4) gertatu dira.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,2 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa, eta derrigorrezko gizarte segu-

I.2.1. TAULA. Enpresak sozietatearen egoitza gorabehera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Guztira (EAE ETA ESTATUA)	154.376	155.653	158.709	164.086	168.231	180.475	184.29	182.284
EAE	151.459	152.533	155.507	160.417	164.374	176.167	179.953	178.062
ESTATUKO gainerakoak	2.917	3.12	3.202	3.669	3.857	4.308	4.337	4.222
EAE (%)	98,1	98,0	98,0	97,8	97,7	97,6	97,6	97,7
ESTATUKO gainerakoak (%)	1,9	2,0	2,0	2,2	2,3	2,4	2,4	2,3

Iturria: EUSTAT. JEGID

[1] Eskura datuak dauden heinean, horiek CNAE-09 oinarri hartuta aurkezten dira. Kasu horietan, aintzat hartu beharko da serie estatistikoak ez direla beti eskuragarri egoten perspektiba historikoarekin. Izan ere, kasu askotan 2008. eta 2009. urteetarako bakarrik daude datuak CNAE-09n.

I.2.2. TAULA. EAE-ko enpresa eta enplegu kopuruaren bilakaera, jarduera adarraren (CNAE 09) eta nortasun juridikoaren arabera

	Enpresa kop.			Enplegua			Batez besteko enplegua		
	2008	2009	Alda-kuntza	2008	2009	Alda-kuntza	2008	2009	Alda-kuntza
GUZTIRA	**184.290**	**182.284**	**-1,1**	**942.479**	**952.51**	**1,1**	**5,1**	**5,2**	**0,1**
Zehaztugabea	3.494	0	-100,0	14.366	0	-100,0	4,1	-	-
B. Erauzketa industriak	41	36	-12,2	604	604	0,0	14,7	16,8	2,0
C. Manufakturen industria	13.870	13.900	0,2	216.441	215.383	-0,5	15,6	15,5	-0,1
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	165	176	6,7	2.776	2.953	6,4	16,8	16,8	0,0
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	207	225	8,7	7.865	6.743	-14,3	38,0	30,0	-8,0
F. Eraikuntza	33.089	32.632	-1,4	98.874	98.073	-0,8	3,0	3,0	0,0
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	41.865	41.951	0,2	143.594	146.528	2,0	3,4	3,5	0,1
H. Garraioa eta biltegiratzea.	13.872	13.718	-1,1	47.047	47.846	1,7	3,4	3,5	0,1
I. Ostalaritza	14.236	14.273	0,3	47.859	49.023	2,4	3,4	3,4	0,1
J. Informazioa eta Komunikazioak	3.119	3.235	3,7	24.118	24.331	0,9	7,7	7,5	-0,2
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	2.843	2.906	2,2	22.055	23.470	6,4	7,8	8,1	0,3
L. Higiezinen jarduerak	5.655	5.897	4,3	7.317	8.019	9,6	1,3	1,4	0,1
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.856	21.377	2,5	55.809	58.994	5,7	2,7	2,8	0,1
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	7.012	7.324	4,4	57.644	67.132	16,5	8,2	9,2	0,9
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	428	434	1,4	72.242	71.182	-1,5	168,8	164,0	-4,8
P. Hezkuntza	3.578	3.810	6,5	35.591	37.002	4,0	9,9	9,7	-0,2
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	7.066	7.509	6,3	54.09	60.131	11,2	7,7	8,0	0,4
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.879	3.219	11,8	11.305	12.420	9,9	3,9	3,9	-0,1
S. Bestelako zerbitzuak	10.015	9.662	-3,5	22.882	22.676	-0,9	2,3	2,3	0,1
Pertsona fisikoa	107.911	105.702	-2,0	153.84	151.504	-1,5	1,4	1,4	0,0
Sozietate anonimoa	8.964	8.791	-1,9	271.213	268.97	-0,8	30,3	30,6	0,3
Sozietate mugatua	46.534	48.305	3,8	279.755	294.182	5,2	6,0	6,1	0,1
Beste sozietate eta elkarte batzuk	19.545	18.503	-5,3	117.175	118.546	1,2	6,0	6,4	0,4
Beste sozietate bat*	9.193	7.956	-13,5	47.723	49.526	3,8	5,2	6,2	1,0
Ondasun Erkidegoa	9.101	9.290	2,1	22.887	23.340	2,0	2,5	2,5	0,0
Sozietate kooperatiboa	1.251	1.257	0,5	46.565	45.680	-1,9	37,2	36,3	-0,9
Beste forma juridiko batzuk	1.336	983	-26,4	120.496	119.308	-1,0	90,2	121,4	31,2
Tokiko korporazioa	390	387	-0,8	25.383	25.843	1,8	65,1	66,8	1,7
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea.	885	536	-39,4	26.039	25.623	-1,6	29,4	47,8	18,4
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak	61	60	-1,6	69.074	67.842	-1,8	1.132,4	1.130,7	-1,7

Iturria: EUSTAT. JEGID.

I.2.3. TAULA. Establezimendu kopuruaren eta enpleguaren bilakaera EAE-n

	Establezimenduak			Enplegua			Batez besteko enplegua	
	2008	2009	Aldakuntza	2008	2009	Aldakuntza	2008	2009
Aldakuntza	**203.911**	**202.093**	**-0,9**	**942.479**	**952.510**	**1,1**	**4,6**	**4,7**
Zehaztugabea	1.137	0	-100,0	5.333	0	-100,0	4,7	–
B. Erauzketa industriak	47	45	-4,3	571	591	3,5	12,1	13,1
C. Manufakturen industria	14.469	14.360	-0,8	214.896	212.580	-1,1	14,9	14,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	189	206	9,0	2.274	2.459	8,1	12,0	11,9
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	283	273	-3,5	8.122	6.236	-23,2	28,7	22,8
F. Eraikuntza	34.648	33.679	-2,8	100.149	98.364	-1,8	2,9	2,9
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	49.38	49.268	-0,2	145.374	148.104	1,9	2,9	3,0
H. Garraioa eta biltegiratzea.	14.586	14.403	-1,3	46.973	47.816	1,8	3,2	3,3
I. Ostalaritza	15.176	15.167	-0,1	48.665	49.401	1,5	3,2	3,3
J. Informazioa eta Komunikazioak	3.462	3.538	2,2	24.092	24.338	1,0	7,0	6,9
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	5.177	5.239	1,2	21.843	22.464	2,8	4,2	4,3
L. Higiezinen jarduerak	5.901	6.134	3,9	7.359	8.043	9,3	1,2	1,3
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.764	22.180	1,9	56.882	59.823	5,2	2,6	2,7
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	8.156	8.339	2,2	58.768	68.234	16,1	7,2	8,2
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	985	986	0,1	43.762	44.312	1,3	44,4	44,9
P. Hezkuntza	5.292	5.323	0,6	61.739	60.407	-2,2	11,7	11,3
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	8.784	8.901	1,3	59.766	63.534	6,3	6,8	7,1
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.645	3.672	0,7	12.920	13.348	3,3	3,5	3,6
S. Bestelako zerbitzuak	10.830	10.380	-4,2	22.991	22.456	-2,3	2,1	2,2

Iturria: EUSTAT, JEGID

rantza alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea (30), erauzketa industriak eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura (biak 16,8rekin), manufakturen industria (15,5), Hezkuntza (9,7) eta Jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak (9,2).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita, hain zuzen ere titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 10,5 pertsonan kokatzen da (10,3 pertsonan aurreko urtean). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lantaldea 30,6 langilekoa da (30,3 aurreko urtean) eta Kooperatibena, aldiz, 36,3 pertsonakoa (37,2 aurreko ekitaldian).

Azterketa unitate gisa establezimendua hartuz gero, ikus dezakegu beherakada gertatzen dela haien kopuruan, % 0,9koa. Aldiz, enplegua areagotu egin zen % 1,1, 202.093 establezimendu eta 952.510 enplegu edukiz. Establezimendu bakoitzeko batez besteko enplegua

I.2.4. TAULA. Establezimenduen egitura tamaina gorabehera

	2008		2009	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	**203.911**	**942.479**	**202.093**	**952.51**
=< 2	152.518	183.22	150.438	184.515
3-5	27.371	100.268	27.576	101.164
6-9	9.521	68.222	9.631	69.047
10-14	4.669	54.513	4.618	53.884
15-19	2.520	41.894	2.510	41.823
20-49	4.889	147.714	4.883	146.791
50-99	1.452	100.078	1.455	100.396
100-249	713	107.055	719	108.057
250-499	179	61.883	178	60.562
>= 500	79	77.632	85	86.271

Iturria: EUSTAT, JEGID

4,7koa zen, hau da, hazkunde arina aurreko urtearen aldean (4,6).

Erorketa handiena bizi duten sektoreak, establezimendu eta enpleguari dagokienez, ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea (establezimenduak: % -3,5 eta enplegua: % -23,2), Eraikuntza (establezimenduak: % -2,8 eta enplegua: % -1,8) eta manufakturen industria (establezimenduak: % -2,8 eta enplegua: % -1,8) dira.

Aurreko urteetan bezala, enplegu tamainaren araberako egitura aldatu gabe mantendu da. 2.423 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,2ak hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 355.286 enplegu, guztien % 37,3, zenbatuz. Aldiz, 150.438 establezimendu, kopuru osoaren % 74,4, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 19,4a bakarrik hartzen dute.

Establezimendu kopuruan izandako murriztapenaren arrazoia 13.771 establezimendu berrik jarduerari ekitea izan da, 30.780 pertsonaren enpleguarekin, eta, halaber, 15.565 establezimenduk jarduera bertan behera utzi izana, izan ere, azken horietan 29.728 pertsonak galdu zuen enplegua. Gauzak horrela, sartzen direnen eta irteten direnen establezimenduen arteko enpleguaren saldo garbia 1.052koa da. 2009. urtean jarduera mantendu duten establezimenduek enplegua areagotu dute, 9.004 langile gehiago hartuz. Horren emaitza izan da 10.056 lanpostu sortu dela.

Establezimendu berrien batez besteko tamaina (sarrerak) jardueratik irteten direnek ageri dutena baino handiagoa da (2,2koa establezimendu bakoitzeko zegoen 1,9aren aldean).

Establezimendu txandakatze handiena Eraikuntzaren, Garraioaren eta biltegiratzearen eta Manufakturen industriaren adarretan gertatu da; elkarrekin txandakatze osoaren % 70,3an laguntzen dute.

Txandakatze handieneko estratuak, establezimenduei dagokienez, tamaina txikienekoei dagozkie: 2 enplegu edo gutxiago establezimenduei.

2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera (2010eko otsailean argitaratu zirenak), 2009. urtean lehen sektoreak EAEko oinarrizko prezioen BEGen % 0,65 bakarrik hartzen zuen eta enplegu osoaren % 2,2. Horrela, lehen sektorearen balio erantsia 433.167 milioi eurora iritsi zen eta enplegua 22.088 lanpostura.

Beste era batera esanda, 2008. eta 2009. urteen artean, lehen sektoreko BEGa murriztu egin da EAEn % 2,1 kopuru errealetan, eta enplegua % 4 erori da.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso ustiapena

Nekazaritzako errenta nominala edo balio korrontekoa (BEG). Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako sektoreetako errenta, aurrerapen honetan zenbatetsitakoa, 79 milioi euroan murrizten da (% -24,8) eta, ondorioz, haren zenbatekoa 239,1 milioitan kokatzen da.

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Azken Produkzioaren balioaren murriztapena, % -15,6 eta % -14,9 hurre-

I.2.5. TAULA. Enplegua areagotzeari egindako ekarpena, jarduera adarra eta enplegu estratua gorabehera. Txandakatzea. 2009

	Establezimenduak					Enplegua				
	Hazkunde osoa (altak-bajak) + mantentzen direnak	Ekarpena (% berti-kala)	Establezimendu areagotzea hurrengoen arabera			Hazkunde osoa (altak-bajak) + mantentzen direnak	Ekarpena (% berti-kala)	Enplegu areagotzea hurrengoen arabera		
			Sarrerak	Daude-nak	Irteerak			Sarrerak	Daude-nak	Irteerak
2007an, guztira	13.004	–	20.227	0	7.223	39.368	–	37.718	16.769	15.119
2008an, guztira	4.601	–	17.398	0	12.797	23.109	–	38.163	14.453	29.507
2009an, guztira	-1.794	–	13.771	0	15.565	10.056	–	30.78	9.004	29.728
2007-08 aldakuntzaren %a	-64,6	–	-14,0	–	77,2	-41,3	–	1,2	-13,8	95,2
2008-09 aldakuntzaren %a	-139,0	–	-20,8	–	21,6	-56,5	–	-19,3	-37,7	0,7
Atal zehaztugabea	-1.113	62,0	–	-893	220	-5.308	-52,8	–	-4.850	458
B. Erauzketa industriak	-2	0,1	2	2	6	20	0,2	15	50	45
C. Manufakturen industria	-109	6,1	727	20	856	-2.316	-23,0	2.410	-1.688	3.038
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	17	-0,9	45	1	29	185	1,8	107	95	17
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	-10	0,6	21	-3	28	-1.886	-18,8	902	-2.574	214
F. Eraikuntza	-969	54,0	2.978	206	4.153	-1.785	-17,8	5.528	-1.132	6.181
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	-112	6,2	2.731	97	2.940	2.73	27,1	5.739	1.658	4.667
H. Garraioa eta biltegiratzea.	-183	10,2	618	40	841	843	8,4	1.693	594	1.444
I. Ostalaritza	-9	0,5	705	18	732	736	7,3	1.733	425	1.422
J. Informazioa eta Komunikazioak	76	-4,2	466	1	391	246	2,4	1.064	66	884
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	62	-3,5	284	26	248	621	6,2	493	884	756
L. Higiezinen jarduerak	233	-13,0	598	6	371	684	6,8	872	176	364
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	416	-23,2	1.805	95	1.484	2.941	29,2	3.354	1.833	2.246
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	183	-10,2	951	66	834	9.466	94,1	3.046	7.953	1.533
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	1	-0,1	13	-3	9	550	5,5	82	609	141
P. Hezkuntza	31	-1,7	379	99	447	-1.332	-13,2	644	717	2.693
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	117	-6,5	605	60	548	3.768	37,5	1.708	3.523	1.463
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	27	-1,5	365	150	488	428	4,3	657	395	624
S. Bestelako zerbitzuak	-450	25,1	478	12	940	-535	-5,3	733	270	1.538
=<2	-2.056	114,6	12.087	-248	13.895	1.320	13,1	14.930	1.091	14.701
may-3	205	-11,4	1.030	121	946	896	8,9	3.716	597	3.417
sep-6	110	-6,1	310	73	273	825	8,2	2.197	561	1.933
1-14	-51	2,8	142	1	194	-629	-6,3	1.618	14	2.261
15-19	-10	0,6	73	15	98	-71	-0,7	1.208	346	1.625
20-49	-6	0,3	103	21	130	-923	-9,2	3.094	-169	3.848
50-99	3	-0,2	17	14	28	318	3,2	1.132	1.021	1.835
100-249	6	-0,3	6	1	1	1.002	10,0	x	x	x
250-499	-1	0,1	1	-2	–	-1.321	-13,1	x	x	–
>= 500	6	-0,3	2	4	–	8.639	85,9	1.430	7.209	–

(x) Konfidentzialtasun arrazoiak direla-eta babestuta dagoen laukia.
Iturria: EUSTAT. JEGID

I.2.1. GRAFIKOA. Amaierako Produkzioaren eta Nekazaritzako Errentaren Bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila.

I.2.6. TAULA. Nekazaritzako errenta errealaren bilakaera (defaltatuta) (aldakuntza tasak)

	ERREALA
Nekazaritzako errenta	-17,1
Nekazaritzako Azken Prod. (nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa)	-15,2
Nekazaritzako Azken Prod.	-15,5
Abeltzaintzako Azken Prod.	-15,7
Bitarteko kontsumoak	-11,1
Diru-laguntzak	-0,04

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

nez hurren, Basogintzako Azken Produkzioaren balioaren murriztapen sendoarekin batera dator (% -62,4koa).

Diru-laguntzak eta amortizazioak ia aldaketarik gabe mantentzen direnez, bitarteko kontsumoen balioak murriztu egiten direnez (% -11) eta aintzat hartuta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren azpisektoreetan produzitutako bolumenak egonkorrak direla, prezioen murriztapena da faktore erabakigarria Nekazaritzako Errentaren galeran.

Nekazaritzako errenta balio errealetan (deflatatuta). Nekazaritzako Errenta nominalaren bilakaera negatibo hau kopuru errealetan igartzen da ere (% 0,28ko behin-behineko deflatorea). Gauzak horrela, EAEren Nekazaritzako Errenta erreala 2009. urtean (basogintzaren sektorea kanpo utziz, beraz) % 17,1 beheratu zen.

I.2.7. TAULA. Nekazaritzako tamainak (mila eurotan)

	2008*	2009*	Aldakuntza %a 2008-2009		
	Balioa	Valor	Valor	Produk.	Prezioak
NEKAZARITZAKO AZKEN PROD.	**524.361,3**	**421.565,7**	**80,4**	**96,5**	**83,4**
Nekazaritzako Azken Produkzioa.	**285.056,7**	**240.747,4**	**84,5**	**102,1**	**82,8**
Zerealak	35.648,7	20.005,8	56,1	76,9	73,0
Lekadunak	2.963,7	3.329,3	112,3	107,6	104,4
Patata	9.906,7	10.392,6	104,9	127,5	82,3
Erremolatxa	5.240,1	5.887,2	112,3	101,2	111,0
Industriako beste batzuk	975,0	2.545,0	261,0	256,2	101,9
Barazkiak	69.531,3	70.914,5	102,0	105,1	97,0
Frutak	14.860,7	14.604,7	98,3	95,6	102,8
Mahastia	115.879,0	83.872,6	72,4	106,2	68,1
Beste batzuk	30.051,6	29.195,7	97,2	98,0	99,1
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	**173.305,3**	**147.481,0**	**85,1**	**96,8**	**87,9**
Behi animaliak/haragia	30.694,1	28.669,3	93,4	97,1	96,2
Ardi-ahuntz anim./haragia	7.319,9	7.923,8	108,3	101,2	107,0
Txerri animaliak/haragia	8.148,4	5.643,9	69,3	71,8	96,5
Behi-esnea	83.166,6	61.913,3	74,4	97,0	76,7
Arrautzak	27.872,5	27.286,2	97,9	99,5	98,4
Bestelakoak	16.103,7	16.044,5	99,6	101,3	98,4
Basogintzako Azken Produkzioa	**48.361,4**	**18.160,6**	**37,6**	**60,8**	**61,7**
Insignis Pinuaren egurra	34.998,6	11.738,3	33,5	58,8	57,1
Bestelakoak	13.362,8	6.422,2	48,1	66,3	72,5
Beste produkzio batzuk	**17.637,9**	**15.176,7**	**86,0**	**100,0**	**86,0**
BITARTEKO KONTSUMOAK	219.667,9	195.502,7	89,0	97,3	91,4
DIRU-LAGUNTZAK	67.085,5	67.062,0	100,0	96,8	103,3
AMORTIZAZIOAK	53.476,9	54.026,2	101,0	100,7	100,3
BEG bbs	304.693,4	226.063,0	74,2	95,8	77,4
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	318.302,0	239.098,8	75,1	95,2	78,9

*Aurrerapena. Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Behin deflatorea aplikatuta, Nekazaritzako Azken Produkzio erreala txikiagotu egin zen % 15,2an EAEn, eta bitarteko kontsumoak (gastuak) % 11,1 erori ziren.

Nekazaritzako Azken Produkzioaren baitan sartzen diren azpisektoreei dagokienez, nekazaritzarena % 15,5 beheratu zen eta abeltzaintzarena % 15,7.

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, basogintzakoa eta beste produkzio batzuk). Nekazaritzako azken produkzioaren balioak gainditu egiten ditu 421 milioi euroak, eta hori 2008. urtean eskuratutakoa baino % 19,5 gutxiago da. Produkzio kopuruetan % 3,5eko beherakada da eta % 16,6ko erorketa prezioei dagokienez.

I.2.8. TAULA. Nekazaritzako makromagnitudeen bilakaera 2002-2009 (mila eurotan)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
NEKAZARITZAKO AZKEN PROD.	**469.665,1**	**449.013,2**	**475.993,6**	**467.275,7**	**487.893,4**	**514.136,5**	**524.361,3**	**421.565,7**
Nekazaritzako Azken Produkzioa.	**218.274,6**	**200.509,2**	**236.593,4**	**245.035,5**	**253.683,6**	**266.609,2**	**285.056,7**	**240.747,4**
Zerealak	27.311,3	21.105,1	22.505,9	26.308,7	25.217,0	37.034,4	35.648,7	20.005,8
Lekadunak	2.027,5	1.387,7	3.410,2	2.256,3	3.249,3	3.303,8	2.963,7	3.329,3
Patata	12.279,1	9.667,3	14.045,6	8.920,7	14.910,0	15.908,1	9.906,7	10.392,6
Erremolatxa	11.469,7	9.036,7	10.949,4	11.427,3	6.827,2	6.111,2	5.240,1	5.887,2
Industriako beste batzuk	679,3	729,0	865,2	397,4	741,4	1.042,0	975,0	2.545,0
Barazkiak	63.755,3	52.127,7	56.420,0	62.665,8	68.082,1	67.596,1	69.531,3	70.914,5
Frutak	12.459,6	12.895,7	14.175,6	11.958,9	13.798,8	11.485,1	14.860,7	14.604,7
Mahastia	67.699,2	78.596,0	90.192,7	102.982,5	95.126,0	96.202,9	115.879,0	83.872,6
Beste batzuk	20.593,6	14.964,0	24.028,9	18.117,9	25.731,8	27.925,6	30.051,6	29.195,7
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	**164.850,5**	**173.118,9**	**160.908,5**	**149.656,5**	**158.205,9**	**172.233,2**	**173.305,3**	**147.481,0**
Behi animaliak/haragia	40.146,1	37.313,2	32.838,3	31.223,4	33.026,5	36.497,3	30.694,1	28.669,3
Ardi-ahuntz anim./haragia	6.600,7	6.748,1	7.633,9	7.833,1	7.941,7	6.632,6	7.319,9	7.923,8
Txerri animaliak/haragia	5.786,2	8.285,4	8.802,7	6.585,6	9.063,9	7.812,9	8.148,4	5.643,9
Behi-esnea	74.400,3	74.339,9	73.248,6	68.875,8	66.742,3	78.234,2	83.166,6	61.913,3
Arrautzak	19.352,2	25.284,7	21.964,0	21.522,7	25.245,8	29.419,3	27.872,5	27.286,2
Bestelakoak	18.565,1	21.147,4	16.421,0	13.615,9	16.185,6	13.636,9	16.103,7	16.044,5
Basogintzako Azken Produkzioa	**70.964,1**	**63.027,5**	**65.156,3**	**57.751,0**	**60.646,9**	**59.794,6**	**48.361,4**	**18.160,6**
Insignis Pinuaren egurra	58.838,5	53.908,5	53.212,3	50.362,1	50.314,0	48.771,1	34.998,6	11.738,3
Bestelakoak	12.125,6	9.119,0	11.944,0	7.388,9	10.332,9	11.023,5	13.362,8	6.422,2
Beste produkzio batzuk	**15.575,8**	**12.357,6**	**13.335,4**	**14.832,8**	**15.357,1**	**15.499,5**	**17.637,9**	**15.176,7**
BITARTEKO KONTSUMOAKDIOS	163.357,9	168.143,5	179.402,2	161.204,5	173.028,7	180.428,9	219.667,9	195.502,7
DIRU-LAGUNTZAK	60.525,9	59.460,8	61.116,5	63.041,3	68.329,8	64.652,9	67.085,5	67.062,0
AMORTIZAZIOAK	33.545,2	34.401,5	34.508,6	46.903,2	52.053,5	53.262,0	53.476,9	54.026,2
BEG bbs	306.307,2	280.869,7	296.591,4	306.071,3	314.864,7	333.707,6	304.693,4	226.063,0
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	333.287,9	305.929,0	323.199,3	322.209,4	331.141,1	345.098,6	318.302,0	239.098,8

a: aurrerapena. Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Prezio korronteetan, azken urte honetako bilakaerak nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produkzioaren murriztapena erakusten du, eta azken urte honetan nahiko handia izan da.

Nekazaritzako Azken Produkzioa.

Nekazaritzako azken produkzioaren balioa 2008. urtean izandakoa baino % 16,5 txikiagoa izan da. Beherakada hori prezioek izandako % 17,2ko murriztapenetik eratortzen da. Produkzioa, aldiz, % 2,1 areagotu zen.

Bere errubrikatik % 25etik gorako produkzio eta prezio aldakuntzak zehazten badira, edo % 10etik gorako aldakuntza duten kapituluak edo Nekazaritzako Azken Produkzioari % 1 baino gehiagoan eragiten dioten aldakuntzak, hurrengo produkzio hazkundeak ikus daitezke: ardoan (% 6), patata berantiarrean (% 107) eta ekilorean (% 184). Halaber, hurrengo murriztapenak ikusten dira: hazietan (% 13), zekalean (% 26), garian (% 40) eta artoan (% 53). Bestalde, hazkundeak igarri dira azaren prezioetan (% 35) eta murriztapenak kontsumoko patatarenean (% 18), zerealetan (% 32) eta landatzeko patatan (% 40).

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioaren balioa murriztu egin da 2008. urtean izandakoaren aldean % 14,7. Azken balioko murriztapen horren arrazoiak produkzioan izandako % 3ko murriztapena eta prezioetan izandako % 12,1eko txikitzea izan dira.

Ekonomikoki garrantzi gehien duten produkzioko eta prezioko aldakuntzak, lehen ere esan den moduan, hauek dira: Murriztu egin da behi-esnearen produkzioa (% 3) eta txerri haragiarena (% 28). Bestalde, hazkundeak ikusi dira pazko bildotsean (% 25) eta txerrikumeenean (% 40), eta beherakadak behi-esnearenean (% 23).

Basogintzako Azken Produkzioa. Mozketa baimenetan murriztapena igarri da, % 39,2koa, eta hori bat dator prezioek, guztira, izandako % 38,3ko beherakadarekin. Ondorioz, Basogintzako Azken Produkzioaren balioa % 62,4 murriztu zen.

Mozketa baimenen beherakada nagusia beste egur batzuetan gertatzen da (ez radiata pinuan, ez eukaliptoan): % 61. Radiata pinuan % 41 jaitsi ziren mozketa baimenak.

Prezioak radiata pinuan murriztu egin dira urtean, batez beste, % 43. Gainerako egurretan, murriztapenak igarri dira ere: beste egur batzuetan eta eukaliptoan, % 46 eta 18, hurrenez hurren.

2001. urtetik aurrera, prezioen murriztapenerako joera gertatu da, eta 2009. urtean are adierazgarriagoa da.

Bitarteko kontsumoak. Gastuen balioa 2008. urtean erregistratu dena baino % 11 baxuagoa izan da. Murriztapen hau kontsumitutako kopuruen multzoan nahiz batez besteko prezioetan beherakada egotetik etorri da, hain zuzen ere % 2,7koa eta % 8,6koa hurrenez hurren. Kopuruei dagokienez, ongarrietan kontsumitu diren kopuruak murriztu egin dira, % 5 jaitsiz. Horrez gain, haziak (% 10) eta pentsuak (% 2) ere murriztu egin dira. Prezioei dagokienez, gasolioa % 26, pentsuak % 12 eta ongarriak % 2 murriztu dira.

Diru-laguntzak ustiapenerako. 2009. urtean zehar, ustiapenari emandako diru-laguntza guztiak aldaketarik gabe mantendu dira, 67,1 milioi euro, eta nekazaritzako errenta osoaren % 28 dira, 2008. urteko % 21aren aldean.

Amortizazioak. % 1 areagotu dira, 54 milioietara iritsiz, traktore kopuruak gora egin izanagatik.

Arrantza

2009. urtea izango da antxoaren arrantza tokiak Kantauri itsasoan itxita eduki diren bosgarren urtea. Egokiera honek, baxurako flotaren espezie ohikoenen harrapaketetan izandako emaitza eskasekin batera, egoera zaila sortu du artisau era handieneko arrantzara zuzendutako azpisektore batentzat.

Azken hamarkadan euskal arrantza flota eratzen duen ontzi kopuruak jasan duen beherakada jarraikakoa izan bada ere, azken urtean, 2008. urtean sumatzen hasi bezala, prozesu hori mantsotu egin da, eta egonkortu ere egonkortu da atun-ontzi izoztaileen azpisektorearen eta bakailao-ontzien azpisektore lermatuaren kasuan.

2009. urtean, ale kopuruaren saldoak 7 aleko murriztapena eduki du (5 baxuran eta 2 alturan, arrantza freskoan). Ondorioz, ontzi kopuruak % 2,38ko beherakada jasan du eta arrantza flota osoa 267 ontzik eratu dute.

I.2.2. GRAFIKOA. EAEko arrantza flotaren bilakaera



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

I.2.3. GRAFIKOA. EAEko arrantza flotaren tripulatzaile kopuruaren bilakaera



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

Ontzi kopuruan izandako galera sektoreko enplegu murriztapenean ere islatu da. Emaitza 2008. urtean baino 23 enplegu gutxiago da, % -0,88ko txikitzea aurreko urtearen aldean. Horrek esan nahi du itsasoan 2.601 pertsonak izan duela enplegua.

Baxurako flotak erabiltzen du artisau era handieneko arrantza. Ontziek ez dituzte dimentsioan gainditzen Erregistro Osoko 150 tonak; dimentsioaren batez bestekoa 17,19 m-etan kokatzen da perpendikularren arteko luzeran, Erregistro Osoko 61,15 tonatan ontziko eta 302,68 CVko batez besteko potentzian. Euskal arrantzako flota osoko unitate gehien dituen azpisektorea da (baxurako 205 ontziak % 76,78 dira euskal arrantza flota osotik), eta enplegu gehien sortzen duen azpisektorea da (1.445 langile itsasoan, flotako tripulazio osoaren % 55,56).

Altura handiko flotari dagokionez, freskoko arrantzaren alturako azpisektorea da –Ondarroako eta Pasaiako portuetan ohikoa– ontzi kopurua murrizten ikusi duen azpisektore bakarra. Urtea 32 alerekin itxi du, 2008. urtearen aldean % 5,88ko murriztapenarekin hain zuzen. Halaber, urtea % 1,96ko tripulazio murriztapenarekin amaitu da (401 langile sartu da freskoko alturako arrantza-ontzietan). Flota honen batez besteko dimentsioa hau da: perpendikularren artean 28,91 m-ko luzera, 569,59 CV-ko potentzia ontzi bakoitzeko eta Erregistro Osoko 203 tonako batez besteko edukiera. Flota hau euskal arrantza flotaren % 11,98 da, eta baita tripulazio osoaren % 15,42a ere.

Bakailao-ontziak ohikoak dira Pasaiako portuan; asko murriztu den azpisektorea izan da bakailaoarentzat jarritako harrapaketa kuotengatik eta gaur egun 5 ontzi besterik ez ditu. Itsasoko langile kopurua areagotu duen azpisektore bakarra da; 2009. urtean 126 pertsona izan ziren, 2008. urtean baino % 23,53 gehiago. Perpendikularren arteko luzeraren batez bestekoa 45,2 metrokoa da, Erregistro Osoko 652,2 tonako unitate balioarekin eta 1.772 CV-ko potentziarekin. Euskal arrantza flota osoaren % 1,87 hartzen du, eta gehien zahartutako flota da, 25,2 urteko batez besteko adinarekin.

Atun-ontzi izoztaileen azpisektoreak pirata somaliarren eraso ugarien mehatxuak jasan ditu 2009. urtean zehar eta 2009. urte horretan bertan 25 ontzirekin amaitu du (flota osoaren % 9,36), 2008. urtean izandako berdinak. Azpisektoreak 629 tripulatzaile ditu, tripulazio osoaren % 24,18 izanez (2008an izandako tripulazio berdina mantentzen da). Batez besteko atun-ontziak 67,04 metroko luzera du perpendikularren artean, Erregistro Osoko 1.565,8 tonako batez besteko edukiera eta 4.357,84 CVko potentzia. Edukiera eta potentzia handieneko flota da, gainerako azpisektoreetatik asko bereiziz.

I.2.4. GRAFIKOA. EAEn lehorreratutako baxurako harrapaketa kopurua eta balioa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

Euskal Autonomia Erkidegoko baxurako lonjetan egindako enkanteak 2009. urtean 62.771,89 tonetara iritsi dira (2008. urtearen aldean % 18,26 gehiago). Kopuruetan izandako hazkundearen arrazoia, nagusiki, berdelak erregistratu duen arrantzaldi ona izan da, bildutako 46.214,01 tonarekin (% 77,72 gehiago 2008. urtean harrapatutako kopuruen aldean). Aitzitik, 2009. urteak murrizketa adierazgarria ekarri du gehien saltzen diren espezieetara, adibidez txitxarrora (1.728 tona, 2008. urteko kopuruaren aldean % -62,2ko beherakada), atuna edo hegalaburra (807 tona, % -35,7), bisigua (14 tona, % -30,9) eta hegaluzea (4.191 tona, % -30,2) eta, azkenik, nahiz eta arinago, legatzaren multzoa egongo litzateke. Bertan sartzen dira merlenka eta tarteko legatza (3.741 tona, % -1,1).

2009. urtean zehar Kantauri itsasoko antxoaren harrapaldiak itxita jarraitu du prebentzioko neurri gisa, arrantza tokia lehengoratze aldera.

I.2.9. TAULA. Baxurako flotak EAEko portuetan lehorreratu duen arrantza

	2007			2008			2009				% var. 2008-2009		
	Q	B	P	Q	B	P	Q	B	%	P	Q	B	P
Antxoa	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0	–	–	–	–
Atuna	1.796	8,3	4,6	1.254	5,0	4,0	807	4,1	7,5	5,1	-35,7	-18,9	26,1
Hegaluzea	7.818	23,6	3,0	6.005	19,4	3,2	4.191	17,0	31,2	4,1	-30,2	-12,5	25,3
Txitxarroa	2.347	1,4	0,6	4.570	2,5	0,5	1.728	1,2	2,2	0,7	-62,2	-51,9	27,3
Berdela	22.416	7,2	0,3	26.004	8,7	0,3	46.214	12,2	22,5	0,3	77,7	41,0	-20,7
Legatza*	2.913	11,2	3,8	3.780	13,7	3,6	3.741	9,6	17,6	2,6	-1,1	-30,3	-29,5
Bisigua	16.798	0,165	9,8	21	0,2	8,3	14	0,1	0,2	8,4	-30,9	-29,9	1,4
Gainerako espezieak	10.352	14,8	1,4	11.447	15,3	1,3	6.078	10,3	18,8	1,7	-46,9	-33,0	26,2
Guztira	**47.658**	**66,7**	**1,4**	**53.082**	**64,8**	**1,2**	**62.772**	**54,5**	**100,0**	**0,9**	**18,3**	**-16,0**	**-29,0**

Q: Kopurua tonatan; B: Balioa milioi €tan; P: Prezioa €-tan.
(*) Tarteko legatza eta merlenka barne.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organoa.

I.2.10. TAULA. EAEko baxurako lonjetan egindako enkanteetan izandako kopuruak eta balioak portuka (2008-2009)

	2008. urtea		2009. urtea		Aldakuntza %a	
Portua	Kopuruak t-tan	Balioak mila €-tan	Kopuruak t-tan	Balioak mila €-tan	Kopuruak	Balioak
Armintza	16,29	56,31	3,96	13,37	-75,69%	-76,26%
Bermeo	6.909,16	6.452,07	7.374,86	4.737,93	6,74%	-26,57%
Elantxobe	10,71	14,65	8,93	12,38	-16,62%	-15,49%
Lekeitio	1.106,76	630,63	2.243,32	602,25	102,69%	-4,50%
Mundaka	7,86	48,27	6,95	49,00	-11,58%	1,51%
Ondarroa	9.591,12	7.922,03	14.894,07	8.143,99	55,29%	2,80%
Santurtzi	–	–	9,97	48,29	–	–
BIZKAIA Guztira	**17.641,90**	**15.123,96**	**24.542,07**	**13.607,21**	**39,11%**	**-10,03%**
Donostia	896,31	1.432,18	1.147,16	1.218,54	27,99%	-14,92%
Getaria	17.752,56	15.552,01	20.573,10	15.231,78	15,89%	-2,06%
Hondarribia	9.561,59	9.646,76	9.679,01	8.572,43	1,23%	-11,14%
Mutriku	173,04	203,37	651,36	731,50	276,42%	259,69%
Pasaia	7.056,14	22.868,87	6.179,20	15.103,03	-12,43%	-33,96%
GIPUZKOA guztira	**35.439,64**	**49.703,19**	**38.229,83**	**40.857,28**	**7,87%**	**-17,80%**
GUZTIRA	**53.081,54**	**64.827,15**	**62.771,89**	**54.464,49**	**18,26%**	**-15,99%**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Estatistika Organoa.

I.2.11. TAULA. Europako batzordeak espainiari esleitutako arrantza kuotak (TAC) (TONATAN)

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2007-08	2008-09	2009-10
Atlantikoko bakailaoa I, II *	11.025	10.683	10.364	9.294	2.299	11.589	12.857	-75,26	404,09	10,94
OPANO 3M Bakailaoa	–	–	–	–	–	–	796	–	–	100
Abadira	1.045	899	835	835	835	835	779	0,00	0,00	-6,71
Brosmioa V, VI, VII	35	29	29	24	21	21	14	-12,50	0,00	-33,33
Halibut beltza (NAFO)	5.482	5.218	5.080	4.402,50	4.396,50	4.396,50	4.396,50	-0,14	0,00	0,00
Halibut beltza IIa,IV,VI	–	10	8	6	6	4	3	0,00	-33,33	-25,00
Sakoneko krabarroka	2.259	3.326	3.113	2.848	2.099	2.099	2.848	-26,30	0,00	35,68
Fosforua Vb, VI, VII	86	85	85	74	74	63	54	0,00	-14,86	-14,29
Fosforua VII, IX, X, XII, XIV	–	5.165	5.165	4.391	4.391	3.734	3.734	0,00	-14,96	0,00
Marrazoa	–	–	–	–	–	131	0	–	–	-100,00
Berruenda	4.124	4.124	4.124	3.229	2.969	2.969	2.156	-8,05	0,00	-27,38
Berruenda urdina	122	104	104	83	67	67	57	-19,28	0,00	-14,93
Liba VIII	1.800	1.440	1.44	1.440	1.440	1.440	1.296	0,00	0,00	-10,00
Legatza VI,VII,XII,XIV	6.463	7.042	7.257	8.708	5.785	8.513	9.109	-33,57	47,16	7,00
Legatza VIIIa,b,d,e	4.499	4.902	5.052	6.062	5.785	5.926	6.341	-4,57	2,44	7,00
Legatza VIIIc,IX,X, COPACE	3.807	3.819	4.263	3.922	1.320	5.186	5.952	-66,34	292,88	17,77
Mielga	–	–	–	–	–	38	0	–	–	-100,00
Mihi-arraina	580	467	467	468	467	468	11	-0,21	0,21	-97,65
Zapoa	3.690	3.662	3.917	4.064	4.064	3.918	4.034	0,00	-3,59	2,96
Arraia		6.561	6.561	6.561	6.561	10.268	8.981	0,00	56,50	-12,53
Oilarra VIIIa,b,d,e	1.163	1.238	1.176	1.176	1.176	1.176	1.176	0,00	0,00	0,00
Oilarra VIIIc,IX,X,CO-PACE	1.233	1.233	1.171	1.330	1.320	1.320	1.188	-0,75	0,00	-10,00
Oilarra gainerakoa	5.839	6.106	5.817	5.817	5.785	5.808	5.840	-0,55	0,40	0,55
Platuxa leuna	75	75	75	75	75	75	67	0,00	0,00	-10,67
Zigala	1.582	1.676	1.830	2.043	2.031	1.965	1.794	-0,59	-3,25	-8,70
Antxoa VIII	29.700	27	4.500	0	0	0	6.300	–	–	100
Antxoa IX,X, COPACE	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	0,00	0,00	0,00
Atungorria (Atlantiko E. – Mediterraneoa)	6.317	6.277	6.266	3.133	5.378,80	4.116,50	2.526,06	71,68	-23,47	-38,64
Ezpata-arraina	11.171	13.137	10.988	12.002	11.099,10	11.958,90	13.169,6	-7,52	7,75	10,12
Bakalada	86.203	195.03	91.328	74.073	48.405	21.710	19.682	-34,65	-55,15	-9,34
Sardinzarra	82	89	70	79	112	121	109	41,77	8,04	-9,92
Txitxarroa	44.249	44.382	44.263	44.289	48.980	48.784	49.049	10,59	-0,40	0,54
Berdela	26.645	20.520	21.594	24.425	22.276	29.549	27.939	-8,80	32,65	-5,45
GUZTIRA	**258.735**	**362.047**	**234.692**	**214.312**	**192.951**	**192.075**	**196.084**	**-9,97**	**-0,45**	**2,09**

Iturria: Europako Batzordea.

2009. urtean, 54,46 milioi euro bildu da. Horiek, 2008. urtean bildutako 64,83 milioi euroen aldean, % -16ko beherakada dakarte. Arrazoiak, neurri handi batean, legatzaren kotizazioan izandako murriztapena eta atunaren, hegaluzearen eta txitxarroaren emaitza kaskarrak izan dira. Atunen kasuan, atungorriek edo atunek 4.254,65 mila € bildu dituzte, hau da, 2008. urtean baino % 15,5 gutxiago. Halaber, hegaluzeak % 12,54ko murriztapena jasan du, 16.983,57 mila €-ko diru sarrera ekarriz. Txitxarroak ere ikusi ditu bere diru-sarrerak murrizten, % 51,87 hain zuzen. Guztira 1.189,54 mila € bildu zituen. Kontrako egoeran dago berdela; izan ere, bildutako kopuruetan hazkundea egoteari esker, dirusarrerak areagotu ditu % 41,02. Horrela, 12.249,68 mila €-ra igo da.

EAEko baxurako lonjetan enkante bidez saldu den arrai guztiaren batez besteko prezioa 0,87 euro/kiloko izan da, 2008. urtean finkatu zena baino % 28,68 baxuagoa. Prezioan hazkunde handiena erregistratu duten espezieak enkantean jarritako kopuruetan murriztapen garrantzitsuak jasan dituzten horiek izan dira. Txitxarroa 0,69 €/kilo prezioan kotizatu da, % 27,28 hazkundearekin, atuna 5,04 €/kilo prezioan ordaindu da (% 25,64) eta hegaluzea 4,05 euro/kilo prezioan (% 25,33). Bestalde, bai legatzak, bai berdelak prezio beherakada jasan dute. Hegaluzearen kasuan % 29,53 (2009. urtean 2,56 euro/kilo ordaindu da) eta berdelaren kasuan % 20,65 (0,27 euro/kilo).

2.1.3. Industria

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behinbehineko datuen arabera, 2010eko otsailekoak hain zuzen, industriaren sektorea EAEn 2009. urtean izandako prezioen BEG osoaren % 26,2 da, 2008. urtean baino 1,8 puntu gutxiago. Horrela, 237.456 lanposturekin, enplegu osoaren % 24 hartzen du (2008. urtean baino 8 hamarren gutxiago).

Halaber, aipatutako datuek agerian uzten dute 2007. urteko bigarren hiruhilekotik aurrera produkzioaren hazkunde tasak pixkanaka ahuldu zirela. Horrela, 2009. urteko hirugarren hiruhilekoa urte arteko aldakuntza tasa negatiboarekin amaitu zen, % 11,6koa. Egoerak hobera egin zuen une horretatik aurrera, ondorioz, produkzioaren erorketa % 5,9an kokatzen da laugarren hiruhilekoan (5,7 puntu hobetu zen aurreko hiruhilekoaren aldean). Bilakaera hori uztartu egin behar da, gainera, % 0,5eko hiruhileko hazkunde positiboko tasa batekin, egokitzapeneko jarraikako lau hiruhileko eta gero.

Horrela, industriako BEGen beherakada 2009. urtean aurreko urtean baino ehuneko 9 puntu altuagoa izan zen. Ondorioz, urte arteko txikitze erreala % 9,5ekoa izan zen. Horrela, industriako BEGa, 2009. urtean, 15.936.085 mila eurokoa izan zen guztira.

Bestalde, industriako BEGek, Estatuaren multzo soan eta EINen datuen arabera, urte arteko aldakuntza tasa erreal negatiboa erregistratzen du, % 14,7koa hain zuzen. Hiruhileko aldakuntza profilak hobekuntza jasan du 2009. urteko bigarren zatian, baina, funtsean, laugarren hiruhilekoan. Urte arteko erorketa handiena bigarren hiruhilekoan gertatzen da, % -15,6koa, eta laugarren hiruhilekoa produkzioaren % 10,5eko beherakadarekin amaitzen da, hau da, nolabaiteko mantsotzea igartzen da erorketan.

Enpleguari dagokionez, 237.456 lanposturen kopuruak (EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoek finkatutakoa gorabehera) azpimarratu egiten du urteko batez besteko kopurua % 6,7 jaitsi dela (17.136 lanpostu gutxiago). Ondorioz, sektoreko produktibitateak % 2,9ko urteko batez besteko erorketa erakusten du.

Industria Produkzioko Indizeak (IPI)[2], behin-behineko datuen arabera, jardueraren erorketa erakusten du EAEren multzorako, hain zuzen ere % 20,9koa aurreko urtekoaren aldean. Lurralde historikoak gorabehera ageri diren datuek beherakada orokorra erakusten dute: % -23,1ekoa Araban, % -20,9koa Gipuzkoan eta % 19,9koa Bizkaian.

EINen datuen arabera, IPIren batez besteko tasa (indize orokorra egutegiaren eraginak kendu gabe) murriztu egiten da EAEn, Estatuaren multzoan murrizten dena baino gehiago. Gauzak horrela, 2008. eta 2009. urteen artean, Estatuan jardueraren erorketa % 16,2an kokatzen den bitartean, EAEn % 21ekoa da.

[2] 2009ko otsailaren 4an EUSTATek argitaratutako datuak.

I.2.5. GRAFIKOA. Industriaren adierazle nagusien bilakaera. Datu zuzenduak



Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

I.2.12. TAULA. Adierazleak industriaren sektorean

		2006	2007	2008	2009
BEG	Bolumen indizea	104,2	107,7	106,8	96,7
	Mila €-tan	16.115.793	16.999.271	17.429.753	15.936.085
Enplegu osoa		250.862	259.141	254.592	237.456
BEG aldakuntza		4,2	3,1	-0,5	-9,5
Enplegu aldakuntza		0,5	3,3	-1,8	-6,7
Produktibitatea (enplegu osoaren neurria)		3,7	0,1	0,9	-2,9

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta HKE.

I.2.13. TAULA. Industriaren sektorearen bilakaera (urteko aldakuntza tasak)

		BEG Bolumen indizea (zuzendua)	Lanean dauden langileak (zuzendua)	Produktibitatea
2006	1. h	5,2	-0,3	5,4
	2. h	3,3	-0,2	3,6
	3. h	3,9	0,7	3,2
	4. h	4,3	1,7	2,6
2007	1. h	5,0	2,7	2,2
	2. h	4,2	2,0	2,1
	3. h	2,4	1,2	1,3
	4. h	1,0	1,2	-0,2
2008	1. h	0,6	1,0	-0,3
	2. h	0,4	0,4	0,0
	3. h	0,0	-0,2	0,2
	4. h	-3,2	-2,3	-0,9
2009	1. h	-10,0	-5,2	-5,0
	2. h	-10,3	-7,3	-3,3
	3. h	-11,6	-7,7	-4,2
	4. h	-5,9	-6,8	0,9

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza tasak. Iturria: EUSTAT

EUSTATen arabera, batez besteko beherakada horren jatorria, nagusiki, aurreko aldiko ondasun berdinetan kokatzen da, nahiz eta erorketak askoz ere adierazgarriagoak diren. Gauzak horrela, kontsumo iraunkorreko ondasunen IPIa aldatu egiten da urte honetan % -27,2, bitarteko ondasunena % -25,3 eta ekipamendu ondasunena % -25,1. Urtebete lehenago, kasuan kasuko aldakuntzak hauek izan ziren: % -16,3, % -5 eta % -2,3. Halaber, murriztapena igarri da ere kontsumoko ondasun ez iraunkorren produkzio indizean, baina kopuru hori lehen aipatutako hiru kasuetan erregistratutakoa baino txikiagoa da. Energian ere murriztapena igartzen da, aldakuntza zeinua aldatzen duelako % -6,55eko murriztapena jasanez aurreko urteko % 5eko hazkundearen aldean.

IPIren azterketa sektorialetik (datu osoekin) ondorioztatu egiten da EUSTATek eskainitako serie estatistikoa hasi zenetik (1996an), eta petrolioa Fintzearen kasuan salbu, ez direla hain erorketa adierazgarriak erregistratu. EAErentzako hiru industria sektore garrantzitsuenak, *metalurgia eta artikulu metalikoak, makineria eta garraio materiala*, erori egin ziren 2009. urtean hurrenez hurren % 29, % 29,8 eta % 20,3.

I.2.14. TAULA. IPIren Bilakaera lurralde historikoka eta ondasunen destino ekonomikoa gorabehera. Urteko batez besteko hazkundea; egutegiaren eraginekin zuzendutako datuak

	Guztira EAEn	Lurralde Historikoak			Ondasunen destino ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumoko ondasunak			Ekipamendu ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2002	**-1**	1,6	-2,5	-0,9	2,7	3,5	2,4	-4,4	0,2	-2,9
2003	**1,9**	2,6	2,2	1,2	-0,6	-4,7	1,4	1,1	0,8	14,1
2004	**3,3**	6,3	2,2	2,8	-0,8	-3,5	0,5	4,3	1,7	16,1
2005	**3,6**	3	3,6	3,8	0,5	-0,4	0,9	7,2	1,4	7,1
2006	**4,9**	2,1	5,7	5,5	1,5	1,2	1,6	8	4,8	3,4
2007	**3,9**	1,9	5,5	3,5	0,3	-1,3	1,1	7,3	4,5	-1
2008	**-3,4**	-4,2	-4,2	-2,4	-7,3	-16,3	-3,3	-2,3	-5	5
2009 b-b	**-20,9**	-23,1	-20,9	-19,9	-12,2	-27,2	-6,5	-25,1	-25,3	-6,5

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. IPI.

I.2.15. TAULA. IPI Jarduera sektoreka (Datu osoak. Urteko batez besteko hazkundea)

	1996	1997	1198	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
4. Mineral metalikoak eta ez metalikoak	11,7	0,3	28,1	0,4	-3,4	6,3	2,9	6	-11,8	-3,5	11,6	14,2	-13,4	-29,5
5. Elikagaien industria	3,5	4	7,4	0,3	-2,2	4,6	6,6	5,7	-0,6	-0,2	0,3	-0,4	-2,3	-5,3
6. Ehunak eta jantzigintza	-11,1	-3,1	7,5	-5,1	8,8	-7,3	-3,9	-1,3	-3	-10,2	-5,3	2	-5	-30,4
7. Larruaren eta oinetakoen industria	7,7	4,4	5,3	-13,6	-1,9	0,2	-0,9	-22,6	-14	-14,5	-18,8	-14,6	-11,4	-66,8
8. Egurraren industria	0,2	9,7	4,9	5,9	3,4	4,6	4,5	1,1	0,1	-3,7	3,5	3,9	-18,9	-34
9. Papera, edizioa eta grafikak	-2,3	4,3	-1	4,6	0,3	0,2	-1,4	-3,5	1,9	5,8	1,2	4	-4,8	-9,4
10. Petrolioa fintzea	-11,4	14,6	14,7	-4,2	0,7	-3,5	-14,2	22,2	7	-5,9	1,9	-2,1	5,9	-11,2
11. Industria kimikoa	4,2	3,1	5,6	9,1	12,7	3,9	6	3	-0,5	0,5	8,3	0,9	-3,5	-16,8
12. Kautxua eta plastikoa	6,8	8,8	12,3	0,6	8,3	3	-1,1	6	5,2	0	2,2	3,7	-8,7	-21,7
13. Industria ez metalikoa	4,2	9,3	7,2	1,4	3	-0,1	1,2	-2,1	-10,4	-2,9	4,1	6,5	-7,7	-18,7
14. Metalurgia eta artikulu metalikoak	0,5	6,4	8,3	-0,8	4,6	0,6	-2	1,2	2,1	1,5	7	5,3	-4,9	-29
15. Makineria	7,9	16	14,2	-1	7,3	2,9	-4,4	0,6	6,2	3,2	5,6	6,3	-5,1	-29,8
16. Material elektrikoa	8,4	19,5	27	7,7	10,2	4,3	-7,2	-2,1	5,2	10,3	5,2	8,2	1,8	-21,9
17. Garraio materiala	18	18,9	8,8	11	2,8	3,8	4,7	0	5,2	3,8	7,1	9,1	3,3	-20,3
18. Bestelako manufaktura batzuk	1,8	4,1	10,8	4,1	4,2	-4,2	1,4	-3,6	-6,8	-0,3	0,9	1,4	-12,1	-29,3
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	5,7	4,4	6	3,4	8,8	1,6	2,2	11,2	20,7	11,1	3,8	-0,4	4,9	-5,2

b-b: behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2009. urteko otsailean argitaratutako datuak).

Uda eta gero joera aldaketa ikus daiteke indize horretan; horrela, urteko azken hilabeteetako urte arteko hazkundeak ez dira hain negatiboak, hau da, erorketak mantsotu egiten dira. Gauzak horrela, IPIa, laneko merkatuko termino homogeneoetan % -2,7an kokatzen zen 2009. urteko abenduan eta aurreko urteko hilabete berdinaren aldean. Metalurgia eta artikulu metalikoen sektorekoa % -4,1ean kokatzen zen, makineriarena % -19n eta garraio materialarena % 11,7n, eta hori % -36,2ko aldakuntzak erregistratu zirenean (martxoan eta maiatzean) metalurgian eta artikulu metalikoetan, % -35,9koa (uztailean) makinerian eta % -27,8koa (maiatzean) garraio materialean.

Zehazkiago, 2009. urteko abenduan, eta azaroarekin alderatuz gero, EAEko industriako produkzioa % 0,4 igo zen, behin sasoiko eraginak zuzendu eta gero.

Europarekiko alderaketarako urte arteko aldakuntza tasa (sasoika egokituta) erabiliko dugu -abenduan dagoena- datu disponibilitatea dela-eta (EUROSTATek eskainita). Hori, jarraian ikusiko dugun bezala, nahiko adierazgarria da. Aipatutako datu iturriaren arabera, Estatuko IPIren urte arteko aldakuntza (abenduko datuan)

I.2.6. GRAFIKOA. IPIren urte arteko hazkundeak hilabeteka 2009. urtean (egutegiko eraginekin zuzendutako datuak)



Iturria: EUSTAT.

% -1,4koa da, EB27rentzat % -4koa eta euroaren zonarako (EA16) % -4koa.

Industriako ondasunen prezioei dagokienez, EUSTATen Industriako Prezioen Indizeak (IPRI) % 6,2ko urteko batez besteko beherakada jasan zuen 2009. urtean, aurreko urteko % 6,6ko hazkundearen aldean. Abenduko urte arteko tasak % 2,9ko erorketa erregistratu zuen, aurreko urteko abenduko % 1,9ko hazkundearen aldean.

Urteko batez besteko beherakadan, funtsean, hurrengoen IPRIren beherakadak eduki zuen eragina: petrolio fintzearena (% -25,2), metalurgiarena eta artikulu metalikoena (% -10,8), energia elektrikoarena, gasarena eta urarena (% -6,1), egur industriarena (% -3,8) eta paperarena, edizioena eta arte grafikoena (% -2,5).

EAEko oinarrizko hiru industria sektoreetatik bakoitzaren IPRIari dagokionez, aldeak ageri dira. Horrela, metalurgiaren eta artikulu metalikoen IPRIa zeinu negatibokoa den bitartean (% -10,8), makineriarena eta garraio materialarena positiboak dira, % 1,5 eta % 2,2 hurrenez hurren.

Ondasunen destino ekonomikoaren arabera, energiaren prezioa % 16,6 jaitsi da aurreko urteko % 20aren hazkundearen aldean, bitarteko ondasunena % 7,5 erortzen da, aurreko aldiko % 4,2ko hazkundearen aldean, eta kontsumoko eta ekipamendu ondasunena areagotu egiten da, nahiz eta aurreko urtean baino gutxiago, hain zuzen ere % 0,1 eta % 1,4 hurrenez hurren (2008. urtean % 3,1 eta % 3 izan zen).

EINen behin-behineko datuen arabera, EAEren IPRIak % -0,2ko tasa erregistratu zuen 2009. urteko abenduan, aurreko urteko aldi berdinaren aldean (gogora dezagun EUSTATen datua % -2,9koa dela, eta hori bat datorrela, jarraian ikusiko dugun moduan, EUROSTATek EA16rentzat duen datuarekin). Ondorioz, aurreko urteko kopuruak baino ez hain kopuru negatiboetan kokatzen da. Bestalde, Estatuko IPRIa % 0,4an kokatu zen 2009. urteko abenduan eta aurreko urteko aldi berdinari dagokionez. Ondorioz, 2008. urteko abendutik lehenengo aldiz maila positiboetan kokatu zen.

EUROSTATen datuen arabera, Estatuko IPRIa % 0,4an kokatzen da 2009. urteko abenduan eta aurreko urteko aldi berdinaren aldean. EB27rena % -1,6an kokatu zen eta EA16arena % -2,9an.

Bestalde, EUSTATen Industria Inkestako 2008. urteari buruzko azken datuek adierazi egiten dute oroko-

I.2.16. TAULA. IPRI-a ondasunen destino ekonomikoa eta jarduera sektorea gorabehera (urteko batez besteko hazkundea)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Indize orokorra	0,6	1,2	4,3	5,2	5	4	6,6	-6,2
Ondasunen destino ekonomikoa								
Kontsumoko ondasunak	2,5	1,5	1,9	1,7	2,9	4,1	4,4	0
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	1,1	0	0,9	2,2	0,6	1,4	3,1	0,1
Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	3,3	2,4	2,4	1,5	3,9	5,3	5	-0,1
Ekipamendu ondasunak	1,6	1,8	1	1,8	0,9	3,9	3	1,4
Bitarteko ondasunak	0,9	1,2	6,8	5,2	6,3	6	4,2	-7,5
Energia	-4,6	0,1	5,5	17	8,9	-1,4	20	-16,6
Jarduera Sektoreak								
Erauzketa industriak (mineral metalikoak eta ez metalikoak)	2,6	4,6	9,5	11,5	2,5	2,9	14,3	4,4
Manufakturen industria	0,9	1,4	4,6	5,3	4,5	4,8	5,6	-6,3
Elikadura	3,2	2	3,1	1,1	3,6	5,5	5,6	-0,3
Ehunak eta jantzigintza	2,8	1,9	0,5	2,8	4,5	-0,2	2,6	1,2
Larruaren eta oinetakoen industria	0,8	2,5	-4,8	-1	2,9	2,9	1,7	0
Egurraren industria	-0,2	-0,2	0,3	0,1	2,2	5,6	2,5	-3,8
Papera, edizioa eta arte grafikoak	3,1	1,4	-0,3	0,3	4	1,4	2,1	-2,5
Petrolioa fintzea	-4,5	1,9	9,6	23,7	7,4	1,5	22,4	-25,2
Industria kimikoa	1,8	0,5	2,7	4,4	3,6	5,2	4,5	-0,5
Kautxua eta plastikoa	0,4	0,4	1	1,7	3,9	2,8	4,1	0,7
Industria ez metalikoak	2,8	1,8	1,4	2,4	3,7	5,3	2,5	1,5
Metalurgia eta art. metalikoak	0,8	1,9	10,7	6,9	7,3	7,2	4,7	-10,8
Makineria	1,7	2,4	0,1	2,9	2,2	2,4	2,5	1,5
Material elektrikoa	0,6	0,3	0,7	0,5	2,7	2,8	2,6	-1
Garraio materiala	1,1	0,7	0,3	0,5	-2	4,9	2,1	2,2
Bestelako manufaktura batzuk	2,1	-0,5	2,5	3,7	8,5	8,4	6	-1,3
Energia elektrikoa, gasa eta ura	-4,6	-3,2	-2	3,4	10,6	-4,7	17,3	-6,1

2005eko oinarria. Iturria: EUSTAT. IPRI (2010eko urtarrilean argitaratutako datuak).

rrean, 2007. eta 2008. urteen artean, industriaren sektorearen balio erantsiak % 2,17ko hazkunde nominaleko tasa erregistratu zuela, eta enplegua % 1,96 beheratu zen. Bestalde, inbertsioa % 15,78 hazten da eta emaitzak zergak eta gero % 6,46 erori ziren.

Datua sektoreka xehatuz gero, ikus daiteke Metalurgiaren eta artikulu metalikoen, Makineriaren eta Garraio Materialen sektoreak direla oraindik ere funtsezkoak gure ekonomian eta produkzio eta enpleguari dagokienez:

I.2.17. TAULA. IPRIa aurreko urteko aldi berdinaren aldean

	2009												2008
	12. H	11. H	10. H	9. H	8. H	7. H	6. H	5. H	4. H	3. H	2. H	1. H	12. H
Estatua	0,4	-1,8	-4,3	-5,4	-5,5	-6,7	-4,9	-4,4	-3,4	-2,5	-1,1	-0,5	0,4
EAE	-0,2	-2,3	-6,8	-10,4	-11,2	-12,7	-10,3	-9,5	-7,5	-5,7	-3,8	-2,0	-1,3

Iturria: EIN

I.2.18. TAULA. Industriaren sektoreako magnitudeak sektoreka. 2005eko oinarria

	Banaketaren %a (Industria = 100)					Inbertsioa / enplegua	Emaitza / enplegua	BEG	Enplegua	Inbertsioa	Emaitzak zergak eta gero
	BEG	Enplegua	Inbertsioa	Salmenta garbiak	Emaitzak zergak eta gero			Aldak. Nomin. %a 07-08	Aldak. %a 07-08	Aldak. %a 07-08	Aldak. %a 07-08
	2008	2008	2008	2008	2008	2008	2008				
INDUSTRIA GUZTIRA (milakoetan)	17.997.138	250.292	3.008.790	66.247.729	4.182.087	12,02	16,71	2,17	-1,96	15,78	-6,46
	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	-	-	-	-	-	
4. Mineral metalikoak eta ez metalikoak	0,76	0,32	1,55	0,51	1,73	58,12	90,18	-0,14	1,27	256,20	-3,72
5. Elikagaien industria	5,45	6,38	7,21	5,81	5,87	13,59	15,39	0,40	-2,78	18,16	-5,14
6. Ehunak eta jantzigintza	0,69	1,20	0,25	0,55	0,80	2,48	11,21	1,56	-13,93	-25,38	-14,24
7. Larruaren eta oinetakoen industria	0,06	0,10	0,01	0,05	0,07	0,68	11,53	1,32	-0,38	176,56	67,13
8. Egurraren industria	1,60	2,57	1,52	1,35	0,64	7,09	4,16	-4,76	-7,50	-25,46	-39,24
9. Papera, edizioa eta grafikak	4,59	5,67	5,38	3,55	3,42	11,40	10,07	-1,59	-0,53	4,91	-21,55
10. Petrolioa fintzea	1,31	0,43	6,29	9,74	3,34	174,20	128,50	-33,05	3,13	59,49	-53,00
11. Industria kimikoa	2,92	2,40	2,91	3,46	3,63	14,55	25,27	1,40	-2,59	-10,63	8,39
12. Kautxua eta plastikoa	5,98	7,31	4,61	5,57	3,31	7,57	7,56	1,18	1,53	23,93	15,38
13. Industria ez metalikoa	3,78	3,03	2,76	2,77	7,37	10,95	40,62	-0,56	-4,42	7,19	-12,95
14. Metalurgia eta art. metalikoak	31,73	35,46	30,38	30,50	28,07	10,30	13,23	-1,17	-2,93	12,44	-9,03
15. Makineria	11,06	13,04	11,16	9,97	6,85	10,29	8,78	0,29	-1,41	62,34	-22,22
16. Material elektrikoa	6,66	7,96	5,41	5,44	7,88	8,17	16,54	10,09	0,99	34,66	19,42
17. Garraio materiala	8,47	8,17	4,36	9,20	7,71	6,41	15,77	4,14	1,60	-18,66	14,07
18. Bestelako manufaktura batzuk	2,66	4,34	2,44	2,32	0,73	6,76	2,80	-3,17	-6,33	28,35	-57,90
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	12,27	1,62	13,78	9,22	18,59	102,10	191,37	22,92	2,16	0,73	16,12

Iturria: EUSTAT. Industriako inkesta.

I.2.19. TAULA. Industriak EAE-n duen eduki teknologikoa ELGA-ren sektoreak gorabehera

	2000	2005	2007	2008	1995-2005	2000-08	Pisua 2000n	Pisua 2008n	2007-08
ENPLEGUA									
Guztira	236.055	249.696	255.294	250.292	2,6	0,7	100,0		-2,0
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	**73.159**	**76.051**	**77.125**	**76.979**	**2,8**	**0,6**	**31,0**	**30,8**	**-0,2**
Maila teknologiko altua	11.673	11.054	11.466	11.26	3,7	-0,4	4,9	4,5	-1,8
Maila teknologiko ertain-altua	61.486	64.997	65.659	65.719	2,7	0,8	26,0	26,3	0,1
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	**158.335**	**168.738**	**173.403**	**168.451**	**2,6**	**0,8**	**67,1**	**67,3**	**-2,9**
Maila teknologiko ertain-baxua	107.859	115.917	120.44	117.76	2,6	1,1	45,7	47,0	-2,2
Maila teknologiko baxua	50.476	52.821	52.963	50.691	2,6	0,1	21,4	20,3	-4,3
Sailkatu gabe	**4.561**	**4.907**	**4.766**	**4.862**	**-0,5**	**0,8**	**1,9**	**1,9**	**2,0**
BEG ald.									
Guztira	12.303.989	15.701.676	17.615.267	17.997.138	7,1	4,9			2,2
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	**3.834.709**	**4.527.442**	**4.937.126**	**5.074.573**	**7,2**	**3,6**	**31,2**	**28,2**	**2,8**
Maila teknologiko altua	533.487	578.859	659.292	685.613	7,5	3,2	4,3	3,8	4,0
Maila teknologiko ertain-altua	3.301.222	3.948.583	4.277.834	4.388.960	7,2	3,6	26,8	24,4	2,6
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	**7.621.408**	**9.533.268**	**10.743.783**	**10.576.525**	**6,6**	**4,2**	**61,9**	**58,8**	**-1,6**
Maila teknologiko ertain-baxua	5.577.992	6.998.945	7.997.634	7.867.859	6,8	4,4	45,3	43,7	-1,6
Maila teknologiko baxua	2.043.416	2.534.323	2.746.149	2.708.666	6,2	3,6	16,6	15,1	-1,4
Sailkatu gabe	**847.872**	**1.640.966**	**1.934.358**	**2.346.040**	**9,3**	**13,6**	**6,9**	**13,0**	**21,3**
SALMENTAK									
Guztira	40.478.983	52.957.698	62.025.278	66.247.729	8,4	6,4			6,8
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	**12.756.489**	**15.043.961**	**17.092.221**	**17.924.465**	**8,7**	**4,3**	**31,5**	**27,1**	**4,9**
Maila teknologiko altua	1.599.483	1.563.388	1.817.351	1.902.464	10,0	2,2	4,0	2,9	4,7
Maila teknologiko ertain-altua	11.157.006	13.480.573	15.274.870	16.022.001	8,6	4,6	27,6	24,2	4,9
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	**25.677.584**	**33.675.267**	**40.117.062**	**41.877.489**	**8,0**	**6,3**	**63,4**	**63,2**	**4,4**
Maila teknologiko ertain-baxua	18.959.068	25.459.860	31.050.393	32.849.977	8,5	7,1	46,8	49,6	5,8
Maila teknologiko baxua	6.718.516	8.215.407	9.066.669	9.027.512	6,4	3,8	16,6	13,6	-0,4
Sailkatu gabe	**2.044.910**	**4.238.470**	**4.815.995**	**6.445.775**	**11,5**	**15,4**	**5,1**	**9,7**	**33,8**
PRODUKTIBITATEA					**2,6**	**0,7**	**100,0**		**-2,0**
Guztira	20,2	8,3	4,1	4,2					
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	**26,2**	**4,5**	**1,8**	**3,0**					
Maila teknologiko altua	19,8	0,9	5,4	5,9					
Maila teknologiko ertain-altua	27,7	5,0	1,4	2,6					
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	**20,7**	**7,9**	**5,8**	**1,3**					
Maila teknologiko ertain-baxua	23,2	9,0	6,4	0,6					
Maila teknologiko baxua	14,5	5,1	3,6	3,1					
Sailkatu gabe	**21,0**	**19,5**	**3,1**	**18,9**					

Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika.

– *Metalurgia eta artikulu metalikoak*. Bertan hauek sartzen dira: Siderurgia, burdinazkoa ez den metalurgia, galdategiak, eraikuntza metalikoa, forja eta estanpazioa, ingeniaritza mekanikoa eta artikulu metalikoak. Prezio korronteen industriako BEGen % 31,73 hartzen du, enpleguaren % 35,46arekin, inbertsioaren % 30,38arekin eta salmenta garbien % 30,5arekin batera.
– *Makineria*. Bertan hauek biltzen dira: Makina-erreminta, etxetresnak eta bestelako makinak. Industriako BEGen % 11,06, enpleguaren % 13,04, inbertsioaren % 11,16 eta salmenta garbien % 9,97 hartzen ditu.
– *Garraio materiala*. Bertan hauek egongo lirateke: Ibilgailuak eta haien piezak, itsas eraikuntza eta bestelako garraio materialak. Industriako BEGen % 8,47, enpleguaren % 8,17, inbertsioaren % 4,36 eta salmenta garbien % 9,2 hartzen ditu.

Bigarren talde azpimarragarri bat *Material elektrikoaren* sektorea da; bertan, bulegoko makineria eta ekipo informatikoak, material elektrikoa, material elektronikoa eta doitasunezko materiala sartuko lirateke. Industriako BEGaren % 6,66 hartzen du, enpleguaren % 7,96, inbertsioaren % 5,41 eta salmenta garbien % 5,44.

Eduki teknologikoari dagokionez, eta EUSTATek erabiltzen duen ELGAren sailkapena gorabehera, maila teknologiko altuak aireontziak eta espazio-ontziak, farmaziako produktuak, bulegoko makineria eta ekipo informatikoa, material elektronikoa eta ekipo eta tresna mediko-kirurgikoak eta doitasunezkoak hartzen ditu. Maila baxuak mota ezberdinetako manufakturak eta birziklapena, paper egurra eta paperezko produktuak, elikadura produktuak, edariak eta tabakoak, oihal produktuak, jantzigintza, larru produktuak eta oinetakoak hartzen ditu. Ertain-altuan hauek hartzen dira: makineria eta ekipo elektrikoak, ibilgailu motordunak, produktu kimikoak farmaziakoak salbu, bestelako garraio materialak eta makineria eta ekipo mekanikoak. Ertain-baxuan, aldiz, hauek: ontziak, kautxu produktuak eta gai plastikoak, petrolioa fintzeko produktuak eta burdinazko metalak eta burdinazkoak ez direnak, produktu metalikoak eta metalikoak ez diren produktu mineralak.

EUSTATen datuen arabera, 2008. eta 2000. urteak alderatuz gero, atzerakada erlatiboa igarri da eduki teknologiko altu eta baxuko sektoreetan, batez ere enpleguari dagokionez, balio sorrerari dagokionez ez baitago argi, izan ere, "sailkatu gabeko" jardueren hazkundea igarri da.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da hainbat egile sektorekako sailkapena bera ñabartzen hasi direla, ELGAk erabilitako intentsitate teknologikoari jarraiki. Izan ere, produkzio jarduera ezberdinek aurrerantz egiten dute, eta ez dira zenbait teknologiatan harrapatuta geratzen. Zientziak eta teknologiak produkzio sare osoan eta industria tradizionaleko sektoreetan zehar hedatzen dira, adibidez ibilgailu eta makineriak geroz eta gehiago patentatzen dute elektronikaren sektorean; eta, orokorrean, teknologia baxukotzat sailkatutako sektoreak haien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz.

2.1.4. Eraikuntza

Eraikuntzak, EUSTATek 2010eko otsailean argitaratutako Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, EAEko 2009ko prezio korronteen BEGen % 9,4 hartzen du (5.697,6 milioi euro), 2008. urtean baino bi hamarren gutxiago. Halaber, enplegu

I.2.7. GRAFIKOA. Eraikuntzaren adierazle nagusien bilakaera. Datu zuzenduak



Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

I.2.20. TAULA. Industriaren sektorearen bilakaera (urte arteko aldakuntza tasak)

		BEG Bolumen indizea (zuzendua)	Lanean dauden langileak (zuzendua)	Produktibitatea	Deflatorea
2006	1. hiruh.	3,9	4,8	-0,8	3,3
	2. hiruh	4,4	3,6	0,8	3,5
	3. hiruh	4,2	3,1	1,1	4,6
	4. hiruh.	4,1	2,0	2,0	4,8
2007	1. hiruh.	12,5	5,2	6,9	3,1
	2. hiruh	12,3	4,9	7,0	5,0
	3. hiruh	11,2	5,8	5,1	6,6
	4. hiruh.	9,1	5,3	3,6	8,3
2008	1. hiruh.	1,0	-0,4	1,3	5,5
	2. hiruh	-0,4	-1,9	1,6	5,8
	3. hiruh	-1,4	-2,7	1,3	3,9
	4. hiruh.	-3,4	-7,3	4,1	1,2
2009	1. hiruh.	-5,5	-10,1	5,3	1,0
	2. hiruh	-6,4	-10,3	4,3	1,0
	3. hiruh	-6,2	-11,3	5,8	1,0
	4. hiruh.	-4,8	-7,6	3,0	1,0

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza tasak.
Iturria: EUSTAT. 2010eko otsaila.

I.2.21. TAULA. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera

	Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkundea				Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua. Datu desestaz	BPG korrontea	BPG bolumen kateatua	BPGaren deflatorea	Lanpostuak
	Produkzio indizea. Datu zuzenduak							
2004	6,5	7,5	4,5	1,3	10,0	4,4	5,3	4,9
2005	7,8	8,9	5,6	0,9	9,4	4,7	4,5	3,7
2006	10,3	11,4	8,0	1,5	8,4	4,2	4,1	3,4
2007	7,2	6,0	9,8	0	17,7	11,3	5,8	5,3
2008	1,8	-2,0	10,0	-3,2	2,9	-1,1	4,0	-3,1
2009 b-b	-12,8	-16,0	-6,7	-8	-4,8	-5,7	1,0	-10,0

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. 2010eko otsaila

osoaren % 9 hartzen du (88.605 lanpostu), aurreko urtean, 98.314 lanposturekin, enplegu osoaren % 9,6 hartu zuen bitartean.

Aipatutako iturri horren arabera, eraikuntzaren sektorea murriztu egin zen 2009. urtean BEGari dagokionez, industriaren sektorea baino gutxiago baina zerbitzuena baino gehiago. Gauzak horrela, industria eta zerbitzuak kopuru errealetan % 9,5 eta % 0,1 murrizten diren bitartean hurrenez hurren, eraikuntza % 5,7 murriztu zen.

Urte arteko hiruhileko bilakaera profilak, industrian bezala, hobekuntza jasan du 2009. urteko bigarren zatian, baina, funtsean, laugarren hiruhilekoan. Urte arteko erorketa adierazgarriena bigarren hiruhilekoan gertatzen da, % -6,4arekin, eta laugarren hiruhilekoa produkzioaren % 4,8ko murriztapenarekin amaitzen da. Hobekuntza hori ez da nahikoa abenduko hiruhileko arteko tasa positibo bihurtzeko; tasa hori % -0,7an kokatu da.

Eraikuntzaren BEGen urteko batez besteko txikitzea EAEn Estatuan igarritakoa baino txikiagoa da; Estatuan % 6,3 murriztu da.

EUROSTATen datuen arabera, eraikuntzaren sektorearen produkzioaren urte arteko aldakuntza 2009. urteko laugarren hiruhilekoan % -10,1ekoa da EB27n, % -6,3koa euro zonan (16) eta % 4,2koa Estatuan. Gogora dezagun EUSTATen arabera EAEko datua % -4,8koa dela.

BPGaren deflatorearen murriztapena igarri da 2008. eta 2009. urteen artean, eta hori egonkor mantentzen da 2009. urteko lau hiruhilekoetan, % 1ean hain zuzen.

Urteko batez bestekoa, beraz, % 1ekoa da, aurreko urtekoa baino ehuneko 3 puntu txikiagoa. Etxebizitza berri eta librearen metro koadroaren prezioak izandako batez besteko aldakuntza tasa murriztu egin zen berriro ere 2008. eta 2009. urteen artean. Kasu honetan % -0,5 izan zen kopuru hori, aurreko urteko % 1,4ko erorketari uztartuz.

Enpleguari dagokionez, Hiruhileko Kontu Ekonomikoek erakutsi egiten dute pixkanaka erorketa eduki duela, % 10,1eko aldakuntza tasa negatibotik 2009. urteko lehen hiruhilekoan, % -11,3ra hirugarrenean. Ondoren, egoerak hobera egin zuen laugarrenean % -7,6an kokatuz. Urteko batez besteko aldakuntza % -10ekoa izan zen, aurreko urtean baino 7 puntu altuagoa. Horrela, 2009. urtean, enplegua 88.605 lanpostuetara iritsi zen, aurreko urtean baino 9.709 gutxiago.

EUSTATen Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza 2009. urtean

I.2.22. TAULA. Lizitazio ofiziala erakundeka EAE-n

	EAE					Estatua	EAE/Estatua %a	
	2006	2007	2008	2009	Aldak. 08-09	Aldak. 08-09	2008	2009
Eraikuntza	623	862	911	1.073	17,8	18,1	7,8	7,8
Obra zibila	2.637	2.088	1.451	1.674	15,4	-10,1	5,2	6,6
Adm. orokorra	623	584	205	269	31,2	-29,4	1,2	2,2
Adm. autonomikoa	303	570	767	846	10,3	-8,3	5,9	7,1
Tokiko Adm.	2.334	1.795	1.390	1.632	17,4	57,5	14,7	10,9
Lizitazioa guztira	**3.260**	**2.950**	**2.362**	**2.747**	**16,3**	**-1,8**	**5,9**	**7,0**

Iturria: SEOPAN

I.2.8. GRAFIKOA. Lizitazio publikoa EAEn administrazioa eta obra mota gorabehera



Iturria: Seopan

% -12,8n kokatzen da. Eraikuntzan izandako erorketa (% -16) obra zibilean izandakoa baino (% -6,7) altuagoa izan da. Enpleguak erregistratu duen urteko batez besteko aldakuntza % -6,7koa izan da.

Bestalde, SEOPANen datuen arabera, lizitazio ofiziala EAEn areagotu egin da 2009. urtean % 16,3, Estatuan % 1,8ko erorketa ikusten den bitartean. Hazkunde hori eraikuntzan (% 17,8) nahiz obra zibilean (% 15,4) izandako areagotzearen ondorioa da.

Halaber, hazi egin da EAEn egindako lizitazio publikoa hartzen duen proportzioa Estatuan gauza berak duenaren aldean. Horrela, % 5,9tik % 7ra igaro da.

Jada esan den bezala, Estatuko lizitazioa txikitu egin zen, eta txikitze horren jatorria obra zibilean kokatzen da (% -10,1), eraikuntzan hazkundea igartzen delako (% 18,1).

Erakundeka bereiziz gero, EAEko lizitazio gehiena Tokiko Administrazioak egindakoari dagokio (% 59,4), nahiz eta hazkundeak igarri diren bai horretan (% 17,4), bai Administrazio Autonomikoan (% 10,3) eta Administrazio Orokorrean (% 31,2).

2.1.5. Zerbitzuak

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoek 2010eko otsailean argitaratutako behin-behineko datuen arabera, zerbitzuen sektoreak 2009. urtean BEGen % 63,7 hartzen zuen (38.717,7 milioi euro), aurreko aldian baino ehuneko 2 puntu gehiago. EAEko enpleguaren % 64,8 ere hartzen zuten (640.622 enplegu batez beste urtean). Bertan, merkatuko zerbitzuek sektore honen % 82,3 hartzen dute, BEGen kopuruei dagokienez.

I.2.23. TAULA. Zerbitzuen sektorearen bilakaera (urte arteko aldakuntza tasak)

		Zerbitzuen BEG. Bolumen indizea			Lanean dauden langileak	Deflatorea
		Guztira	Merkatu zerbitzuak	Merkatukoak ez diren zerbitzuak		
2006	1. hiruh.	4,3	4,5	3,4	3,3	3,8
	2. hiruh	4,5	4,8	3,2	2,8	3,6
	3. hiruh	4,6	4,9	3,3	3,0	3,6
	4. hiruh.	4,6	4,8	3,4	3,2	3,3
2007	1. hiruh.	4,2	4,4	3,5	3,2	3,3
	2. hiruh	4,2	4,2	4,2	3,4	3,8
	3. hiruh	3,9	3,8	4,7	3,1	4,0
	4. hiruh.	4,0	3,4	6,6	3,0	4,1
2008	1. hiruh.	3,9	3,8	4,7	3,1	3,7
	2. hiruh	3,6	3,3	4,7	3,2	3,3
	3. hiruh	3,6	3,0	6,5	1,5	2,6
	4. hiruh.	2,8	2,2	6,2	1,2	2,0
2009	1. hiruh.	0,8	-0,4	6,6	-1,0	1,0
	2. hiruh	-0,3	-1,7	6,4	-2,1	1,0
	3. hiruh	-0,4	-1,6	5,2	-1,2	1,0
	4. hiruh.	-0,6	-1,1	1,8	-1,0	1,0

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza tasak.
Iturria: EUSTAT. 2010eko otsaila.

EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala, edo bolumen kateatuan, murriztu egin zen 2009. urtean % 0,1, aurreko urtean erregistratutako % 3,5eko hazkundearen aldean. Merkatuko zerbitzuak murriztu egin ziren % 1,2 (aurreko urteko % 3,1eko hazkundearen aldean). Aldiz, merkatukoak ez direnak hazi egin ziren % 5, aurreko urteko hazkundea % 5,6koa izan zen bitartean.

Sektoreko enplegua % 1 murriztu zen, aurreko urtean % 2 areagotu zen bitartean. Bestalde, zerbitzuen sektoreko prezioak murriztu egin ziren 2008. eta 2009. urteen artean, eta deflatorea egonkor mantendu zen 2009. urteko lau hiruhilekoetan % 1ean.

Zerbitzuen sektoreak EAEn duen BEGen murriztapena (EUSTATen arabera % -0,1) Estatuko multzo osokoa baino txikiagoa da. Bertan, EINen datuen arabera, % 1 murriztu zen, eta, ondorioz, urte osoan zehar txikitzearen aldeko bilakaera igarri zen, lehen hiruhilekoa % 0,3ko murriztapenarekin hasten delako eta laugarrena % 1,1eko murriztapenarekin amaitzen delako.

Zerbitzuen sektorearen barruan, azpimarragarria da oraindik Enpresei emandako Zerbitzuen eta Merkataritza eta Konponketen adarren pisu handiagoa, bai BPGaren kopuruetan, bai enplegukoetan. Gauzak horrela, lehenengoa Zerbitzuen Sektoreko BPG osoaren % 27,3 da (2008ko datua) eta enpleguaren % 19,8 (2007. urteko datua); bigarrena % 17,4 eta % 22,7 da hurrenez hurren.

2005. eta 2008. urteen artean, enpresei emandako zerbitzuen sektoreko BPGak urteko batez besteko hazkundea eduki du kopuru errealetan, % 4,2koa hain zuzen, eta prezioak areagotu egin dira urteko % 3,8ko batez besteko tasarekin. Enpleguari dagokionez, hazi egin da hura 2005. eta 2007. urteen artean, urteko %

I.2.24. TAULA. Zerbitzuen sektorearen egitura eta bilakaera EAE-n

	EGITURA										Urteko aldakuntzaren %a		
	BPG korrontea					Enplegua					BPG*	Prezioak	Enplegua
	2000	2005	2006	2007	2008	2000	2004	2005	2006	2007	2005-2008		2005-07
21. Merkataritza eta konponketak	18,0	18,2	18,1	17,8	17,4	22,8	22,6	22,7	23,1	22,7	2,6	3,4	1,1
22. Ostalaritza	6,2	6,2	6,1	6,2	6,1	8,6	8,7	8,3	8,2	8,4	2,7	4,3	3,8
23. Garraioak eta komunikazioak	12,1	11,7	11,6	11,4	11,2	9,0	9,0	8,8	8,3	8,3	3,7	2,3	3,5
24. Bankua eta aseguruak	10,5	10,0	10,3	10,4	10,9	3,9	3,6	3,5	3,4	3,4	5,8	4,7	1,6
25. Zerbitzuak enpresentzat	25,5	26,9	27,1	27,3	27,3	17,3	18,1	18,9	19,4	19,8	4,2	3,8	4,9
26. Administrazio Publikoa	8,0	7,8	7,7	7,5	7,7	9,5	9,4	9,1	8,9	8,7	4,0	3,1	1,7
27. Hezkuntza	6,7	6,6	6,5	6,6	6,6	10,5	10,4	10,0	9,8	9,8	5,0	2,5	4,3
28. Osasuna eta gizarte zerbitzuak	8,1	7,9	7,9	8,1	8,1	8,1	8,0	7,7	7,7	7,6	5,3	3,1	4,9
29. Zerbitzu pertsonalak	4,2	4,1	4,1	4,0	4,0	6,1	6,1	6,6	6,7	6,8	3,9	2,7	2,5
30. Etxeko zerbitzua	0,8	0,8	0,8	0,7	0,7	4,1	4,1	4,4	4,5	4,6	2,1	3,0	2,5
Zerbitzuak guztira	**22.552.897**	**30.825.099**	**33.365.195**	**36.044.743**	**38.389.203**	**517.171**	**577.031**	**597.209**	**615.5**	**634.955**	**4,0**	**3,4**	**3,1**

* BPG erreala (bolumen kateatuan).
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

4,9ko batez besteko tasan. Bestalde, Denden eta Konponketen sektoreko BPGak, kopuru errealetan, erakutsi egiten du urteko % 2,6ko batez besteko hazkunde tasa, eta prezioak areagotu egin dira urteko % 3,4ko batez besteko tasan. Enpleguari dagokionez, hazi egin da hura 2005. eta 2007. urteen artean, urteko % 1,1eko batez besteko tasan.

Bigarren talde bat Garraio eta komunikazioen azpisektoreak eratzen du; haren pisua zerbitzuen sektoreko BPG osoaren gainean % 11,2koa izan zen 2008. urtean, urteko % 3,7ko batez besteko hazkundearekin 2005. eta 2008. urteen artean. Halaber, Bankuek eta aseguruek, zerbitzuen BPGaren % 10,9 hartuz 2008. urtean, urteko % 5,8ko batez besteko aldakuntza tasa eduki zuten 2005. eta 2008. urteen artean (zerbitzuen sektoreko batez bestekoa % 4an kokatzen da aldi honetan).

Zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundea 2005. eta 2008. urteen artean % 3,4koa da.

Merkataritza

Merkataritzaren eta konponketen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGaren balioaren % 9,8 inguru hartzen du (6.687.105 mila euro, 2008. urteko datua) eta enpleguaren % 14 inguru (141.005 lanpostu guztira, 2007. urteko datua). 2009. urtean salmentek beherakada jasaten dute. Beherakada hori kontsumoaren erorketarekin azaldu daiteke: pribatua % 1,6ko aldakuntza tasa erregistratzetik % -3,8koa erregistratzera igarotzen da, barne merkataritzaren prezioak murriztu egiten direlako.

Gauzak horrela, EUSTATen **Barne Merkataritzaren salmenta indizea** prezio iraunkorretan murriztu egin da 2009. urtean % 9,2. Prezioei dagokienez, 2008. urtean prezioak % 1,6 areagotu baziren, 2009. urtean % 5,6 murriztu ziren.

Merkataritzaren Indizearen okupazio datuek sektoreko enpleguaren txikitzea adierazten dute 2009. urtean, % 3,5ekoa hain zuzen. Bi merkataritza motek,

I.2.25. TAULA. Barne merkataritzaren salmenta indizearen bilakaera eta merkataritzan lanean hartutako pertsonak*

	SALMENTA INDIZEA						LANEAN HARTUTAKO PERTSONEN INDIZEA		
	Indize orokorra	Handizkakoa	Txikizkakoa	Txikizkakoa gasolina zerbitzuguneak gabe	Prezioak	Kontsumo pribatua	Guztira	Handizkakoa	Txikizkakoa
2006	4,8	7,0	1,1	1,4	3,8	3,7	2,2	2,2	2,2
2007	3,1	3,8	1,8	1,8	3,5	3,6	2,5	2,3	2,5
2008	-4,3	-5,2	-2,8	-2,2	4,1	1,6	0,9	0,5	1,1
2009	-9,2	-12,1	-3,9	-3,3	-5,6	-3,8	-3,5	-4,0	-3,2

(*) Urteko batez besteko hazkundeak prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak"

I.2.26. TAULA. Handizkako eta txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen bilakaera sektoreka*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nekazaritzako eta elikadurako prod.	Elikadurakoak ez diren kontsumoko beste artikulu batzuk	Produktu erdilanduak; txatarra	Makineria eta ekipamendua	Espezializatua	Elikagaiak	Pertsonaren ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Ez espezializatua	Elikadura nagusitasuna	Gainerako produktuen nagusitasuna
2006	3,0	1,3	11,7	6,6	1,3	0,8	4,2	0,9	-0,4	0,5	0,8	-1,4
2007	2,0	5,9	0,5	13,2	1,8	-3,7	5,1	-0,4	2,6	1,7	1,4	3,3
2008	-0,9	-0,9	-9,6	-4,3	-3,1	-4,7	3,7	-6,9	-5,9	-2,1	-1,2	-7,0
2009	-3,2	-3,0	-18,3	-18,7	-3,8	-8,5	-1,6	-2,1	-5,1	-4,2	-4,3	-3,4

(*) Urteko batez besteko hazkundea prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea"

handizkakoak eta txikizkakoak, ageri dituzte beherakadak enplegu indizean, lehenengoak % 4koa eta bigarrenak % 3,2koa.

Salmentan beherakada handiagoa da handizkako merkataritzan, txikizkakoan baino. Gauzak horrela, 2009. urtean handizkako merkataritzaren salmentak erori egin ziren kopuru errealetan (prezio iraunkorretan) % 12,1. Aldiz, txikizkako merkataritzaren salmentak murriztu egin ziren % 3,9 (% -3,3 gasolina zerbitzuguneak gabe[3]).

[3] Sailkapen europar berriari (NACE Rev. 2) eta haren Estatuko bertsioari (CNAE-09) egokitzeak aldaketak ekarri ditu Barne Merkataritzaren Indizera. Garrantzitsuena automoziorako erregaien txikizkako merkataritzaren jarduera (gasolina zerbitzuguneak) establezimendu espezializatuen artean sartu izana da, Txikizkako Merkataritzaren azpisektorean.

I.2.27. TAULA. Jarduera azalera handietan

	Salmenta indizearen aldakuntza erreala, AHMI (egutegiko eraginak zuzenduta)			Lanean hartutako langileen aldakuntza (desestazionalizatua)
	Orokorra	Elikadura	Gainerako produktuak	
1999	4,8	4,3	5,6	2,6
2000	3,2	2,1	4,6	3,6
2001	2,2	1,4	2,9	4,8
2002	2,0	2,8	1,1	5,3
2003	3,6	1,2	6,3	1,6
2004	3,5	0,2	8,3	5,1
2005	8,8	-0,6	14,5	11,6
2006	1,7	0,8	2,2	2,4
2007	-0,2	-1,0	0,3	0,8
2008	-4,9	-1,6	-6,5	-2,4
2009	-0,4	-3,8	1,5	-1,8

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eta espezializatu gabearen artean bereizketa eginez, ikusten dugu bigarrenaren bilakaera negatiboagoa dela lehenengoarena baino. Merkataritza espezializatuaren salmentak % 3,8 beheratu dira, espezializatu gabeko merkataritzaren salmentak % 4,2 erori diren bitartean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren barruan, azpimarratzekoa da elikaduraren erorketa (% -8,5) eta kontsumoko beste ondasun batzuena (% -5,1). Bestalde, etxebizitzetako ekipamenduak aldakuntza tasa hobetzen du % -6,9tik % -2,1era igaroz.

Handizkako merkataritzari dagokionez, bilakaera bereziki negatiboa da 2008. eta 2009. urteen artean makinerian eta ekipamenduan, izan ere, % -4,3ko aldakuntza tasatik % -18,7ra igarotzen da. Produktu erdilanduetan ere bereziki negatiboa da bilakaera, % -9,6tik % -18,3ra igarotzean.

Bestalde, EUSTATen **Azalera Handietako Merkataritza Indizeak**[4] **(AHMI),** egutegiko eraginak zuzenduta, murriztapena erregistratzen du salmentetan eta

I.2.9. GRAFIKOA. Bidaiarien sarreraren bilakaera EAEn. Hotel erako establezimenduak



Iturria: EUSTAT

[4] Azalera handietako merkataritzaren sektoreko salmenten merkataritza bilakaerari eta sektoreko okupazioari buruzko koiuntura izaera duen adierazlea (2.500 metro koadro edo gehiago dituen salmenta azalera duten merkataritzako establezimenduak: Hipermerkatuak, supermerkatuak, biltegi handiak eta txikizkako merkataritzako beste establezimendu ez espezializatu batzuk, adibidez Kontsumoko kooperatibak).

kopuru errealetan, % 0,4koa hain zuzen (aurreko urtean % -4,9koa). Arrazoia elikadurako produktuen salmentan murriztapena egon izana da (% -3,6, aurreko urteko % -1,6aren aldean), izan ere, gainerako produktuetan hazkundea gertatu da aurreko urteko erorketaren aldean (% 1,5, % 6,5aren aldean). Lurralde historikoak gorabehera, Araban eta Bizkaian aldakuntza negatiboak erregistratu dira, nahiz eta urtebete lehenago erregistratu zirenak baino arinagoak. Horrela, Araban % -3,7 ikus daiteke, aurreko urteko % -8aren aldean eta Bizkaian % -0,8 aurreko urteko % -4,8aren aldean. Aldiz, Gipuzkoak tasa positiboa ageri du, % 2,4koa aurreko urteko % -3,2aren aldean.

Enpleguari dagokionez, txikitu egiten da baino aurreko urtean baino gutxiago: % -1,8ko kopurua % -2,4aren aldean. Gogora dezagun 2008. urtean erregistratutako erorketa hamarkadan ikusitako lehenengoa izan zela % -2,4arekin.

Turismoa eta Ostalaritza

EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuek EAEn kokatzen diren hotel erako establezimenduetan (hotelak, aparthotelak, landa eremuko hotelak eta pentsioak) eta nekazaritza turismoko establezimenduetan (nekazaritza turismoko ostatuak eta landetxeak) ostatu hartu duten bidaiariak biltzen dituzte eta berriro ere erorketa erakusten dute EAEko hotel erako establezimenduetan egondako bidaiari sarreran.

Izan ere, ikusi ahal izandako goranzko joera apurtu egin zen 2008. urtean, % 4,7ko murriztapenarekin. 2008. eta 2009. urteen artean, murriztapena txikiagoa da, % 1,8aren ingurukoa. Gauzak horrela, EAEko hotel erako establezimenduetan ostatu hartutako bidaiari kopurua (EAEko berezkoak kanpo utzita) 1.639 milakoa da. Aurreko urtean gertatu ez bezala, beherakadaren arrazoia atzerriko turismoaren txikitzean (% -6,7) dago eta ez estatuko turismoaren murriztapenean, izan ere, aurreko aldiaren aldean hazi egin zen (% 1,4).

Bertan pasatako gauen multzoa (EAEko berezkoak kanpo utzita) % 1,4 gutxitu zen (aurreko aldian % -4,9 izan zen), beraz, batez besteko egonaldia 1,94 egunetan kokatzen da. Estatuko bisitarien kasuan 1,94 da kopuru hori eta Estatutik kanpokoen kasuan 1,95.

EAEko berezko bidaiariak eta egindako gauak zenbatuz, batez besteko egonaldia 1,88 egunetan kokatzen da eta okupazio maila murriztu egiten da berriro ere, % 44,57tik % 41,66ra urteko batez besteko kopuru gisa plaza bakoitzeko eta % 54,31tik % 50,44ra gela bakoitzeko.

EINen Hoteletako Okupazioaren Inkestako datuek[5], aukera ematen dutenak auzoko gainerako erkidegoekin edota antzeko erkidegoekin alderaketa egiteko (Asturias, Kantabria, Nafarroa, Galizia eta Errioxa), erakutsi egiten dute EAEn sartutako bidaiari kopurua 2.062 mila pertsonara iritsi zela auzoko erkidegoetan batez besteko aritmetiko gisa edukitako 1.422ko kopuruaren aldean -Galizia sartuta eta 928 hura kanpo utzita-[6]. Bertaratutako pertsona kopuru hori aurreko urtean erregistratu zena baino % 2,03 txikiagoa da. Aldiz, auzoko erkidegoetan txikipena % 3,76koa da Galizia sartuz gero eta % 3,73koa hura sartzen ez bada.

Bestalde, egindako gau kopurua, EAEn gehiago izan dena auzoko erkidegoetako batez besteko aritmetikoaren aldean, areagotu egin da aurreko urteko kopuruaren aldean (% 0,02) eta inguruko erkidegoetan kopurua txikitu egin bada ere: % -4,05 Galizia sartuta eta % -3,66 hura kanpo utzita. Batez besteko egonaldia hazi egin da, 1,83 egunetik 1,86 egunera igaroz. Ikusi EAEko batez besteko egonaldia, beste urtebetez

[5] EINen Hotel Erako Ostatuen Okupazioaren Inkestaren zenbatespenak hobetze aldera, bi aldaketa metodologiko egin da:

1. Inkestaren esparrua eratzen duten gidazerrendak, AAEEetako Turismo Sailetatik etorritakoak, eguneratzea.

2. Informazioa biltzeko sisteman aldakuntzak; horri esker posible da barreiatutako informazioaren desagregazio handiagoa eskaintzea, bilketaren denbora eremua erreferentziako hilabetera zabalduz.

2006. urtetik aurrera argitaratutako datuak ez dira, bada, zuzenean alderagarriak 2005. urteko abendura arte. Alderagarritasuna errazte aldera, urte ezberdinen artean datuak lotzea ahalbidetzen duten koefizienteak landu dira.

[6] Bi kasu horiek aintzat hartu dira Galiziako datuek pisu handia dutelako eta nabarmenki eraldatzen dutelako aintzat hartutako erkidegoen batez besteko kopurua.

I.2.28. TAULA. Bidaiari kopuruaren, betan egindako gauen eta batez besteko egonaldiaren bilakaera egunetan EAE-n

	2006			2007			2008			2009		
	Bidaiariak	Bertan igarotako gauak	Batez besteko egonaldia	B	BIG	BBE	B	BIG	BBE	B	BIG	BBE
Guztira EAE gabe	1.683.154	3.307.097	1,96	1.749.658	3.379.723	1,93	1.667.790	3.215.495	1,93	1.638.466	3.170.583	1,94
Estatua EAE gabe	1.118.647	2.204.831	1,97	1.086.724	2.106.827	1,94	1.021.117	1.970.466	1,93	1.035.125	1.995.124	1,93
Atzerritarrak	564.507	1.102.266	1,95	662.934	1.272.896	1,92	646.673	1.245.029	1,93	603.341	1.175.459	1,95
EAEko berezkoak	324.394	551.343	1,70	343.688	577.144	1,68	352.932	577.574	1,64	353.324	572.626	1,62

Iturria: EUSTAT, establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

I.2.29. TAULA. Bertan igarotako gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio maila

	Guztira okupatutako plazak (igarotako gauak)	Batez besteko egonaldia egunetan (Estatua)	Batez besteko egonaldia egunetan (atzerria)	Batez besteko egonaldia egunetan (orokorra)	Okupazio maila plaza bakoitzeko	Okupazio maila gela bakoitzeko
2004	3.289.658	1,87	1,89	1,88	46,86	56,13
2005	3.459.802	1,88	1,94	1,90	47,63	57,29
2006	3.858.440	1,91	1,95	1,92	48,34	57,55
2007	3.956.867	1,88	1,92	1,89	46,94	57,30
2008	3.792.091	1,85	1,93	1,88	44,57	54,31
2009	3.743.209	1,85	1,95	1,88	41,66	50,44

Iturria: EUSTAT

ere, erkidego mugakide guztietan -Errioxan salbu- erregistratzen dena baino txikiagoa dena.

Bestalde, EINen datuen arabera, plaza bakoitzeko okupazio mailan txikitze berria gertatzen da, kasu honetan 1,7 puntukoa eta % 44,2ra iritsi arte. Antzeko erkidegoen batez besteko aritmetikoa txikiagoa da, % 36,1ekoa Galizia sartu gabe eta % 37,1ekoa hura sartzen bada.

Irekitako establezimendu kopurua areagotu egiten da, 417tik 429ra igaroz; urteko eskura dagoen plaza kopurua 910ean hazi da (22.664tik 23.574ra). Aitzitik, sektore honetan lanean hartutako pertsona kopurua

I.2.10. GRAFIKOA. Batez besteko egonaldia, egunetan



Iturria: EIN

I.2.30. TAULA. Alderaketa adierazleak EAE-n eta Estatuan

	Bidaiari kopurua (milakoetan)						Egindako gau kopurua (milakoetan)						Batez besteko egonaldia (egunetan)					
	Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak		Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak		Guztira		Espainian bizi direnak		Atzerrian bizi direnak	
	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b
Estatua	82.999	77.640	113.188	109.840	35.758	32.315	268.552	251.904	113.188	109.840	155.364	142.065	3,24	3,24	1,00	1,00	4,34	4,40
Asturias	1.489	1.397	2.775	2.603	169	148	3.136	2.891	2.775	2.603	361	288	2,11	2,07	1,00	1,00	2,14	1,95
Kantabria	1.077	1.105	2.110	2.212	187	173	2.493	2.558	2.110	2.212	383	346	2,32	2,31	1,00	1,00	2,05	2,00
Galizia	3.533	3.399	6.435	6.222	693	647	7.790	7.444	6.435	6.222	1.356	1.222	2,21	2,19	1,00	1,00	1,96	1,89
Nafarroa	758	710	1.137	1.083	171	158	1.427	1.350	1.137	1.083	290	266	1,88	1,90	1,00	1,00	1,70	1,68
EAE	2.104	2.062	2.544	2.605	700	646	3.843	3.844	2.544	2.605	1.299	1.239	1,83	1,86	1,00	1,00	1,86	1,92
Errioxa	532	499	789	759	82	80	925	891	789	759	137	133	1,74	1,79	1,00	1,00	1,67	1,66
Antzeko erkide-goak*	1.478	1.422	2.649	2.576	260	241	3.154	3.027	2.649	2.576	505	451	2,13	2,13	1,00	1,00	1,94	1,87
Antzeko erkide-goak Galizia gabe	964	928	1.703	1.664	152	140	1.996	1.922	1.703	1.664	293	258	2,0	2,0	1,0	1,0	1,9	1,80
Aldakuntzak	2008-2009b-b (%)												2008-2009b-b Aldea					
EAE	-2,03		2,41		-7,72		0,02		2,41		-4,65		0,04		0,00		0,06	
Antzeko erk.*	-3,76		-2,77		-7,40		-4,05		-2,77		-10,79		-0,01		0,00		-0,07	
Antzeko erk.* Galizia gabe	-3,73		-2,26		-8,13		-3,66		-2,26		-11,83		0,30		0,00		-3,58	

* Asturiasen, Kantabriaren, Galiziaren, Nafarroaren eta Errioxaren artean ateratako batez besteko aritmetikoa. Iturria: EIN "Hoteletako Okupazioaren Inkesta"

% 0,4 txikitu zen, 4.125 pertsonara iristen den urteko batez besteko enpleguarekin.

Hoteletako prezioen indizearen (HPI[7]) azterketatik ondorioztatu egiten da prezioek behera egin dutela EAEn 2008. eta 2009. urteen artean, % 5,7an.

Bestalde, 71.749 bidaiari sartu dela erregistratu da (EAEko berezkoak kanpo utzita) EAEko nekazaritza turismoko establezimenduetan 2009. urtean zehar. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino % 4,1 gehiago egon dela; aldiz, egindako gauak 238.275era iritsi dira, hau da, 2008. urtean baino % 0,4 gehiago. Bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia, aldiz, txikitu egin da ehuneko bi hamarrenetan, 3,5 egunetik 3,3 egunera 2008. eta 2009. urteen artean.

Azkenik, Ostalaritzari dagokionez, Ostalaritzaren Sektoreko Azken Inkesta Ekonomikoa 2006ko uztailean (2004ko datuekin) argitaratu zen, eta 2006ko Memoria Sozioekonomikoan bildutako informazioa eguneratzeko datu berririk ez dagoenez, irakurleari argitalpen hura irakurtzeko esaten zaio, EAEn sektoreak ageri dituen datu nagusiak ezagutze aldera.

[7] Enpresaburuek Espainiako hotel ezberdinetan ostatu hartzen duten bezero ezberdinei aplikatutako prezio multzoaren bilakaeraren batez besteko estatistikoa. Beraz, sektoreko prezioek eskaintzaren ikuspegitik eduki duten bilakaera neurtzen du.

I.2.31. TAULA. Hoteletako batez besteko okupazioa eta prezio indizea EAE-n eta estatuan

	Okupazio maila plaza bakoitzeko**		Hoteletako Prezioen Indizea (HPI) 2008ko oinarria=100		Irekitako establezimendu kopurua***		Zenbatetsitako plaza kopurua***		Lanean hartutako langileak***	
	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b	2008	2009 b-b
Estatua	53,5	49,5	100,0	94,4	14.695	14.810	1.340.439	1.362.877	199.323	186.663
Asturias	35,6	33,2	100,0	96,9	639	622	23.798	23.553	3.038	2.799
Kantabria	39,9	40,6	100,0	95,6	366	372	16.868	16.978	2.512	2.394
Galizia	34,8	32,4	100,0	98,2	1.497	1.532	60.646	62.357	7.539	7.210
Nafarroa	37,1	33,8	100,0	94,4	252	272	10.437	10.882	1.510	1.488
EAE	**45,9**	**44,2**	**100,0**	**94,3**	**417**	**429**	**22.664**	**23.574**	**4.140**	**4.125**
Errioxa	41,8	40,6	100,0	94,2	135	137	6.015	5.974	1.015	880
Antzeko erkidegoak*	37,8	36,1			578	587	23.553	23.949	3.123	2.954
Antzeko erkidegoak** Galizia gabe	38,6	37,1			348	351	14.280	14.347	2.019	1.890

b-b: behin-behinekoak. * Asturiasen, Kantabriaren, Galiziaren, Nafarroaren eta Errioxaren artean ateratako batez besteko aritmetikoa. ** Haztatutako okupazio maila plazaka. *** Urteko batez bestekoa.
Iturria: EIN "Hoteletako Okupazioaren Inkesta"

I.2.32. TAULA. Urteko magnitudeak nekazaritza turismoetan

	Bidaiari kopurua			Bertan igarotako gauak			Batez besteko egonaldia		
	2007	2008	2009b-b	2007	2008	2009b-b	2007	2008	2009b-b
GUZTIRA (EAE gabe)	66.377	68.674	71.549	234.281	237.253	238.275	3,5	3,5	3,3
GUZTIRA (EAErekin)	**108.163**	**112.341**	**113.624**	**324.493**	**326.158**	**324.078**	**3,0**	**2,9**	**2,9**
Estatukoa (EAE barne)	97.476	99.476	101.819	276.334	270.222	278.738	2,8	2,7	2,7
EAEkoa	41.786	43.667	42.075	90.212	88.905	85.803	2,2	2,0	2,0
Atzerrikoa	10.687	12.865	11.805	48.159	48.159	45.340	4,5	3,7	3,8
Estatua EAE kenduta	55.690	55.809	59.744	186.122	181.317	192.935	3,3	3,2	3,2

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Finantza sektorea

Europako Banku Zentralak egun baterako esku-hartze tasa jaitsi zuen lau aldiz, % 2,5etik (2008ko abenduan finkatutakoa) % 2ra 2009. urteko urtarrilean. Martxo eta maiatza artean, hainbat mozketa egin zen, guztira oinarrizko puntu 1 batuz: 0,5 martxoan, 0,25 apirilean eta 0,25 maiatzean. Erreferentziako interes tasak % 1ean amaitu zuen urtea, ehuneko puntu 1 urtarrilean erregistratutako mailaren azpitik.

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak beren esku-hartze tasak mantendu dituzte 2008. urtean itxi zuten modu berdinean, lehenengoak % 0,25arekin eta bigarrenak % 0,1arekin.

Diru merkatuko interes tasei dagokienez, horiek murriztu egin ziren epe guztietan. Horrela, hilabete baterako Euriborrak % 2,14an hasten du urtea eta % 0,48an amaitzen du; hiru hilabeterako Euriborra % 2,46tik -urtarrilean- % 0,71ra igarotzen da –abenduan–, eta urtebeterako Euriborra % 2,62an hasten da urtarrilean eta % 1,24an amaitzen du abenduan.

Kreditu entitateek etxebizitzei emandako tasari dagokionez (UTB), hura txikitu egiten da kontsumoaren kasuan, % 10,99tik % 9,72ra 2008. eta 2009. urteen artean. Etxebizitzaren kasuan, kopuru hori % 5,83tik % 2,62rakoa da.

Kreditu entitateek EAEn emandako kreditu osoa txikitu egin da 2009. urtean, 87.420 milioi eurotik 83.863ra (% -4,1). Dezelerazio horren arrazoia sektore pribatuari emandako krediturren erorketa da, aldakuntza tasa % 5,6tik % -5era igarotzen baita (10,6 puntu). Aldiz, Administrazio Publikoei emandako kreditua % 35,9 areagotzen da.

Krediturren aldakuntza tasak bestelako sektore egoiliarrekiko eta finantza entitate mota ezberdinak gorabehera aztertzetik ondorioztatu egiten da banketxeek eta kutxek emandako kreditu saldoak murriztu egiten direla 2008. eta 2009. urteen artean (% 10,6 eta 0,7 hurrenez hurren) eta, aldiz, kreditu kooperatibak areagotu egiten direla, nahiz eta aurreko urteko neurrian baino gutxiago.

Finantza entitate bakoitzak beste sektore egoiliar batzuei emandako kreditu osoan edukitako pisuari dagokionez, kutxak eta bankuak dira haren zati handiena hartzen dutenak. Aitzitik, kreditu hori gehien murrizten zaiena ere badira. Gauzak horrela, aurrezki kutxek beren balantzeetan jasotzen dute beste sektore egoi-

I.2.33. TAULA. Kreditu entitateek etxebizitzei eta ezeixge-ei emandako interes tasa

	DMTE*			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztatutako batez besteko tasa					
	Etxebizitza kreditua	Kontsumo kreditua	Beste xede batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
2003	3,32	7,99	4,31	3,46	8,62	4,80
2004	3,23	7,80	4,20	3,39	8,42	4,69
2005	3,32	7,77	4,18	3,46	8,34	4,60
2006	4,56	8,84	5,09	4,74	9,41	5,58
2007	5,38	9,53	6,36	5,53	10,07	6,84
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95

* DMTEk ez ditu komisioak hartzen, UTBk bai. Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

I.2.34. TAULA. Kreditu entitateek sektore publikoari eta pribatuari emandako kreditua (saldoak 12/31n)

	Milioi euro				Banaketa EAE 2009	Estatua, 2009	%a Estatuaren gainean	Aldakuntzaren %a		
	2006	2007	2008	2009				2006-07	2007-08	2008-09
Guztira	**72.772**	**82.203**	**87.420**	**83.863**	**100,0**	**1.837.768**	**4,6**	**13,0**	**6,3**	**-4,1**
- Adm. Publikoa	1.477	1.336	2.028	2.757	3,3	61.228	4,5	-9,5	51,8	35,9
- Sektore Pribatua	71.295	80.867	85.391	81.106	96,7	1.776.540	4,6	13,4	5,6	-5,0
Banketxeak	30.113	33.870	35.186	31.463	37,5	836.826	3,8	12,5	3,9	-10,6
- Adm. Publikoa	573	561	784	1.156	1,4	38.475	3,0	-2,1	39,8	47,4
- Sektore Pribatua	29.541	33.309	34.402	30.307	36,1	798.351	3,8	12,8	3,3	-11,9
Aurrezki Kutxak	32.666	36.903	39.566	39.288	46,8	903.185	4,3	13,0	7,2	-0,7
- Adm. Publikoa	857	731	1.161	1.484	1,8	21.554	6,9	-14,7	58,8	27,8
- Sektore Pribatua	31.809	36.172	38.405	37.805	45,1	881.630	4,3	13,7	6,2	-1,6
Kreditu koop.	9.992	11.429	12.668	13.112	15,6	97.757	13,4	14,4	10,8	3,5
- Adm. Publikoa	47	43	84	117	0,1	1.198	9,8	-8,5	95,3	39,3
- Sektore Pribatua	9.945	11.386	12.585	12.995	15,5	96.559	13,5	14,5	10,5	3,3

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

liar batzuei 2009. ekitaldia amaitzerako emandako kredituaren saldo osoaren % 46,8; bankuek % 37,5 islatzen dute magnitude horretan eta kreditu kooperatibek, aldiz, gainerako % 15,6a. Kasuan kasuko aldakuntza ratioak igaro egiten dira 2008. eta 2009. urteen artean % 7,2tik % -0,7ra lehenengoen kasuan, % 3,9tik % -10,6ra bigarrenen kasuan eta % 10,8tik % 3,5era hirugarrenen kasuan.

Beste sektore egoiliarretan kreditu saldoak erori izanak ziurrenik eragina eduki du ere etxebizitza erosteko hipoteka bermea duen kredituaren beherakadan. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak Estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoen mailako daturik), magnitude hau jaitsi egiten da 2008. eta 2009. urteen artean % 0,1 (611.483 milioi eurotik 610.647ra), 2007. eta 2008. urteen artean % 5,4 areagotu bazen ere.

I.2.11. GRAFIKOA. Hipoteka bermea duten kredituak etxebizitza erosteko



Iturria: Espainiako Bankua

I.2.35. TAULA. Landa finken eta hiri finken hipotekak EAE-n

	2007			2008			2009 (behin-behineko datuak)			Aldakuntza					
										2007-08			2008-09		
	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€))	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€))	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	**51.904**	**11.310**	**217.907**	**46.050**	**9.157**	**198.842**	**43.171**	**7.625**	**176.612**	**-11,3**	**-19,0**	**-8,7**	**-6,3**	**-16,7**	**-11,2**
Landa finkak	1.578	528	334.835	1.203	352	292.340	1.108	269	243.167	-23,8	-33,4	-12,7	-7,9	-23,4	-16,8
Hiri finkak	50.326	10.782	214.241	44.847	8.805	196.334	42.063	7.355	174.859	-10,9	-18,3	-8,4	-6,2	-16,5	-10,9
Etxebizitzak	37.977	6.244	164.406	31.712	5.164	162.832	27.491	3.962	144.128	-16,5	-17,3	-1,0	-13,3	-23,3	-11,5
Orubeak	1.745	2.390	1.369.691	1.495	1.790	1.197.644	1.448	1.605	1.108.175	-14,3	-25,1	-12,6	-3,1	-10,4	-7,5
Beste hiri finka batzuk	10.604	2.148	202.575	11.640	1.851	159.005	13.124	1.788	136.257	9,8	-13,8	-21,5	12,7	-3,4	-14,3

Iturria: EIN Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa).

Zentzu honetan, Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek -EINen Hipoteken Estatistikan argitaratutakoak- adierazi egiten dute EAEn eratutako hipoteka kopurua murriztu egin dela % 6,3, aurreko aldian hasitako joerarekin jarraituz. Bestalde, hipotekatutako etxebizitza kopurua murriztu egin da berriro ere, kasu honetan % 13,3.

Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 11,2 murriztu da, 176,6 mila euro izanez aurreko ekitaldiko 198,8en aurrean. Bestalde, hipotekatutako etxebizitza gainean emandako batez besteko zenbatekoa murriztu egin da ere % 11,5 (162,8 mila eurotik 144,2ra).

Finantza entitateetan jarritako gordailuei dagokienez, Administrazio Publikoak titular diren horiek 4.452 milioi euroan kokatu zuten saldo osoa EAEn 2009. ekitaldia amaitzerako eta Espainiako Bankuaren Buletin Estatistikoaren datuen arabera. Kopuru hori bat dator urteko % 22,3ko murriztapen tasarekin (5.733 milioitik 4.452ra). Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak 74.188 milioi euroan kokatu ziren, eta hori % 5,1eko hazkundea izan zen aurreko urtearekiko.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak aztertuz gero modalitate ezberdinak gorabehera (agerikoa, aurrezpena eta epeak), ikusiko dugu ageriko gordailuak 14.605 milioi eurora iristen ziren bitartean 2009. urtean % 14ko hazkundea eduki eta gero, eta aurrezpen gordailuen saldoa % 23,8 hazi zen bitartean 17.544 milioi euroetara iritsi arte, epekako gordailuen saldoa % 3,6 murriztu zela 42.037 milioi eurora jaitsi arte.

Azkenik, Burtsari dagokionez, eta mundu mailako ekonomiak 2009. ekitaldia Depresio Handiko urteetatik izandako ekitaldi txarrenetariko bat bezala itxi bazuen ere BPGaren hazkunde tasei dagokienez, balore merkatuek urte osoan zehar bildutako itxaropen aldaketa faktore erabakigarria izan da inflexio puntu bat jazo izateko krisian bigarren seihilekoan zehar.

Mundu mailako burtsa merkatuak irabazi orokorrekin amaitu zuten 2009. ekitaldia, eta baita hegazkortasunaren murriztapen adierazgarriarekin ere. Mundu mailako adierazle nagusiak % 20tik gora igotzen dira, baina oraindik krisiaren aurretiko mailetatik urrun daude. Munduko Federazioaren datuekin bat etorrita, mundu mailako Burtsek kapitalizazioko 15 bilioi dolar berreskuratu dute hamar hilabete eskasean otsaileko hilabetea itxi zenetik eta urtea itxi arte.

I.2.36. TAULA. Sektore pribatuko gordailuak eta administrazio publikoenak gordailu entitateetan (XII-31ko saldoak)

	Milioi euro			Banak.	Estatua	%a Estatuko kopuru osoaren aldean	Aldakuntzaren %a	
	2007	2008	2009				07-08	08-09
GUZTIRA PRIBATUA ETA PUBLIKOA	**65.433**	**76.344**	**78.640**	**-**		**5,7**	**16,7**	**3,0**
GUZTIRA SEKTORE PRIBATUA	**59.837**	**70.610**	**74.188**	**100,0**	**1.142.013**	**6,5**	**18,0**	**5,1**
Ageriko gordailuak	12.040	12.813	14.605	19,7	265.613	5,5	6,4	14,0
Aurrezpen gordailuak	12.988	14.174	17.544	23,6	207.850	8,4	9,1	23,8
Eperako gordailuak	34.810	43.623	42.037	56,7	668.550	6,3	25,3	-3,6
Banketxeak	**18.346**	**22.136**	**23.867**	**32,2**	**484.087**	**4,9**	**20,7**	**7,8**
Ageriko gordailuak	5.681	5.625	6.284	8,5	137.856	4,6	-1,0	11,7
Aurrezpen gordailuak	3.917	4.521	5.639	7,6	68.549	8,2	15,4	24,7
Eperako gordailuak	8.749	11.991	11.945	16,1	277.682	4,3	37,1	-0,4
Aurrezki Kutxak	**31.515**	**36.923**	**37.380**	**50,4**	**580.023**	**6,4**	**17,2**	**1,2**
Ageriko gordailuak	4.729	5.426	6.355	8,6	116.265	5,5	14,7	17,1
Aurrezpen gordailuak	6.990	7.078	8.045	10,8	118.353	6,8	1,3	13,7
Eperako gordailuak	19.797	24.418	22.978	31,0	345.405	6,7	23,3	-5,9
Kreditu kooperatibak	**9.976**	**11.551**	**12.941**	**17,4**	**77.903**	**16,6**	**15,8**	**12,0**
Ageriko gordailuak	1.631	1.764	1.966	2,7	11.492	17,1	8,2	11,5
Aurrezpen gordailuak	2.080	2.574	3.860	5,2	20.948	18,4	23,8	50,0
Eperako gordailuak	6.265	7.215	7.114	9,6	45.463	15,6	15,2	-1,4
GUZTIRA SEKTORE PUBLIKOA	**5.596**	**5.733**	**4.452**	**100,0**	**77.873**	**5,7**	**2,4**	**-22,3**
Banketxeak	1.440	1.115	920	20,7	31.315	2,9	-22,6	-17,5
Aurrezki Kutxak	3.453	3.807	2.878	64,6	43.772	6,6	10,3	-24,4
Kreditu kooperatibak	702	811	654	14,7	2.787	23,5	15,5	-19,4

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

Estatu espainiarraren kasuan, burtsako adierazle nagusia, IBEX 35 delakoa, urteko gorakaden buruan egon da munduko burtsa nagusien artean, 2009. urtean % 30eko gorakada edukiz, hain zuzen ere hamarkadako erregistro onenetariko bat. Urteko honetako martxoan eskuratutako gutxienekotik lehengoratzea % 75era hurbiltzen da. Adierazlearen gaineko aukeretan ageri den hegazkortasun inplizitua batez besteko historikoaren azpitik dauden maila baxuagoetara itzuli da azkeneko hiruhilekoan.

Adierazle espainiarraren bilakaera gertatzen den barne testuinguru ekonomikoan, 2009ko ekitaldiaren multzoa itxi egiten bada ere BPGaren erorketarekin eta erorketa hori beste euro eremu batzuetan izandakoaren antzekoa bada ere, aurreikuspenek diote atzeralditik beranduago irtengo dela eta burtsako adierazleek

I.2.37. TAULA. Bilboko burtsaren indizea 2000n

	AZKENA	GEHIENE-KOA	GUTXIENE-KOA	ALDA-KUNTZA %A (azkena/azke-naurrekoa)
2003	1.381,8	1.393,7	976,2	26,76
2004	1.633,1	1.638,5	1.361,1	18,18
2005	1.921,5	1.956,4	1.611,6	17,66
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14
2007	2.626,6	2.798,3	2.406,3	1,90
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,47
2009	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,90

2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31n.
Iturria: Bilboko Burtsa.

errentagarritasun txikiagoa eduki duten beste herrialde batzuetan bezain paregabea izango ez den moduan.

Portaera ezberdin horren arrazoia, Madrilgo Burtsaren arabera, hau da: Burtsa espainiarraren gunea eratzen duen konpainia multzoak dituen ezaugarriak. Nazioarteko lidergoko bokazioa duten konpainiak eta fakturazioa neurri handi batean kanpoko merkatuan egiten dutenak dira, Burtsan ingurune naturala topatu duen akziodun multzo zabal eta anitzarekin nazioartean. Gauzak horrela, 2009. ekitaldian zehar, IBEXaren konpainiek burtsen bilakaera markatu duten mundu mailako joera nagusietako batzuetan azaltzea aprobetxatu dute: sortzen ari diren merkatuen aldeko bilakaera -horien artean herrialde latinoamerikarrek portaera adierazgarria eduki dute- edo sektore finantzarioaren lehengoratzea.

Bilboko Burtsari dagokionez, Bilboko Burtsaren 2000ko Indizea 1.921,6 puntura iritsi zen 2009ko aben-

I.2.38. TAULA. Bilboko burtsaren kontratazio bolumena (*)

	2006		2007		2008		2009		Aldakuntza %a 2007-08		Aldakuntza %a 2008-09	
	Guztira (erosketak eta sal-mentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta sal-mentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta sal-mentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta sal-mentak)	Erosketak	Guztira	Erosketak	Guztira	Erosketak
GUZTIRA BURTSA	**180.207,1**	**89.132,9**	**237.517,8**	**120.286,6**	**222.575,2**	**113.432,0**	**170.625,7**	**85.635,5**	**-6,3**	**-5,7**	**-23,3**	**-24,5**
ERRENTA ALDAGARRIA	**171.612,1**	**84.835,2**	**229.963,1**	**116.507,7**	**219.635,9**	**111.962,4**	**158.292,8**	**79.469,4**	**-4,5**	**-3,9**	**-27,9**	**-29,0**
Etengabeko merkatua: BUIS	170.805,9	84.432,1	229.952,7	116.502,5	219.635,7	111.962,3	158.292,8	79.469,4	-4,5	-3,9	-27,9	-29,0
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	806,2	403,1	10,4	5,2	0,2	0,1	0,0	0,0	-98,1	-98,1		
ERRENTA FINKOA	**8.595,0**	**4.297,7**	**7.554,7**	**3.778,9**	**2.939,3**	**1.469,6**	**12.332,9**	**6.166,2**	**-61,1**	**-61,1**	**319,6**	**319,6**
Etengabeko merkatua: elektronikoa	22,2	11,4	21,5	12,2	9,6	4,7	14,0	6,5	-55,3	-61,5	45,8	38,3
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	14,7	7,3	15,1	7,6	12,4	6,2	9,6	5,0	-17,9	-18,4	-22,6	-19,4
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	8.558,1	4.279,0	7.518,1	3.759,1	2.917,4	1.458,7	12.309,3	6.154,7	-61,2	-61,2	321,9	321,9

(*) Milioi euro.
Iturria: Bilboko Burtsa.

duan, eta horrek esan nahi du aurreko urteko abenduaren aldean % 20,9ko hazkundea egon zela. Aldakuntza tasa hau Estatuan erregistratutakoa baino txikiagoa da; han, Ibex 35 delakoak % 29,8ko hazkundearekin itxi zuen urtea, aurreko urteko hilabete berdinaren aldean (9.195,8 puntutik 11.940 puntura).

Bilboko Burtsaren kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak) murriztu egin da 2009. urtean % 23,3, hain zuzen ere 51.949,5 milioi euroko kopurua (aurreko aldian 14.942,6 murriztu zen). Gutxitze horren jatorria, batez ere, errenta aldagarria da (% -27,9), nahiz eta errenta finkoaren kontratazioan erorketa ere igartzen den (merkatu tradizionala – hitzezkoa) (% -22,6). Kontratazio osotik, % 50,2 erosketei dagokie. Horiek txikitu egin dira aurreko ekitaldiaren aldean % 24,5.

Zerbitzu profesionalak eta enpresakoak

EUSTATen Profesionalei eta Enpresei Egindako Zerbitzuen Sektorearen azkeneko Inkesta Ekonomikoa 2006ko uztailean argitaratu zen (2004ko datuekin), eta 2004ko Memoria Sozioekonomikoan bildutako informazioa eguneratzeko datu berririk ez dagoenez, irakurleari argitalpen hura irakurtzeko esaten zaio, EAEn sektoreak ageri dituen datu nagusiak ezagutze aldera.

Gizarte Zerbitzuak

Epigrafe hau Memoria honetako "IV. Gizarte Babesa EAEn" izeneko Kapituluaren sarreran jorratzen da.

2.2. I+G+b JARDUERAK ETA IKTetan

2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak

Gastua I+Gn. EUSTATen datuen arabera, 2008. urtean EAEn guztira 1.264 milioi eurokoa izan da, hau da, aurreko urtean baino %16 gehiago (aurreko denboraldian hazkuntza %20 izan zen). Gastu horretatik Bizkaiari 598 milioi (%47) dagozkio, Gipuzkoari 501 (%40) eta Arabari 165 (%13).

EAEn I+Gn enpresari zehazki dagokiona (zentro teknologikorik gabe) %56,4 da, aurreko denboraldian izandakoaren gainetik arinki (%55). Bestalde, zentro teknologikoek garrantzia %26,3tik %24,7ra murriztu dute.

Enpresan egindako I+G Estatuko enpresa-sektorean egindakoa baino handiagoa da; izan ere, INEren arabera, enpresek (irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak (IAGEP) kanpo gastuaren) %54,9 I+Gra bideratu zuten. Hala eta guztiz ere, zuhurra izan behar da informazio hori interpretatzeko orduan, Frascatiren Eskuliburuaren[1] metodologiak talde horretan zentro teknologikoak sartzen baditu, horiek gehiengoan finantzazio pribatua izanez gero; beraz, enpresa zehazki hartuta Estatuko ehunekoa txikikoa litzateke.

EUROSTATen arabera (*Science, technology and innovation in Europe, 2009 edition*), EE27n 2007. urtean enpresek gastuaren %63,7 egiten dute, baina arestian aipatutako zuhurtasuna kasu honetan ere kontuan hartu behar da.

[1] Frascatiren Eskuliburua, izen ofizial bezala "Ikerketa eta Garapen Esperimentalaren Galdeketetarako Arau Praktikoaren Proposamena" duena, ELGAren proposamena da. 1963. urtean I+Gren estatistikan adituen taldea elkartu zuen hori idazteko. Gaur egun erreferentzia bezala onartuta dago zer jarduera Ikerketa eta Garapentzat jo daitezkeen zehazteko.

I+Gn ahalegina. EUSTATen arabera, BPGren gainean I+Gn egindako gastua 2008. urtean %1,85 izan da, hau da, aurreko urtean (%1,65) baino 0,2 puntu gehiago, 2007. urtean hasitako goranzko joerari jarraiki, egonkortasunean hainbat urte eman ostean. Hala ere, EE27n (%1,9) eta EE15ean (%1,99) izandako balioen azpian dago. Lurralde historikoen arabera honako hauek dira ehunekoak: %2,23 Gipuzkoan (bigarren urtez ondoz ondo EE27ren eta EE15en batez bestekoak gainditu), %1,73 Bizkaian eta %1,46 Araban.

INEk erregistratutako ahaleginari erreparatuz, EAE EE27ren batez bestekoaren balioaren gainean dago 2008. urtean (%1,96 %1,9ren aldean). Ez da gauza bera gertatzen EUSTATen datuekin[2] alderatuz gero. Dena den, joera argia da eta batez besteko balioarekin aldea murrizten ari da.

INEren arabera, Estatuko batez bestekoaren (%1,35) gainetik zifrak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: Madril (%2, aurreko urteko %1,96ren aldean), EAE (%1,96, 2007an izandako %1,87ren aldean), Nafarroa (%1,92, aurreko urteko %1,89ren aldean) eta Katalunia (%1,61, aurreko urteko %1,48ren aldean). Hazkuntza-tasarik altuenak Gaztela-Mantxak, Extremadurak eta Kantabriak izan dituzte.

Arloan herrialderik aurreratuenak Suedia (%3,75), Finlandia (%3,73), Japonia (%3,44 2007. urtean), EEBB (%2,76), Danimarka (%2,72), Austria (%2,67), Islandia (%2,65) eta Alemania (%2,63) dira.

I+Gn langileak arduraldi osoaren baliokidean (AOB). Goranzko joerak jarraitzen du. Ildo horri jarraiki, 2008. urtean 15.373 pertsonara iritsi da, hau da, biztanleria okupatuaren ‰15 (‰14,2 aurreko urtean); izan ere, milakoa Estatukoa (‰10,7) eta EEkoa (‰10,4) baino handiagoa da[3] eta lurralde dinamikoenetan (Frantzian, ‰14,1; Alemanian, ‰12,3 eta Japonian ‰14,3) erregistratutakotik hurbil dago eta kasu batzuetan gainditu egiten da:

Bestalde, ikerlariak zehatz-mehatz hartuta, EAEn ‰9,4 dira; bien bitartean, Estatuan ‰6,5.

Gure Txosten Sozioekonomikoaren aurreko edizioetan aipatu dugun bezala, datu horiek oso itxaropentsuak dira.

I+Gn gastua finantzatzea (gastua funtsen jatorriaren arabera).

Azken urteetan I+Gn gastua finantzatzeko orduan sektore pribatuak garrantzia galdu arren, oraindik finantzazio-iturririk garrantzitsuena izaten jarraitzen du. Horri eutsiz, sektore pribatuak I+Gn egindako gastu guztiaren %56 (707,8 milioi euro) (%58,9 2007. urtean eta %61,2 2006. urtean) finantzatzen du eta Administrazioak %40,3 (%37,6 2006. urtean eta %35,4 2006. urtean).

Ondorioz, EAE Lisboako helburutik 10 puntura dago: I+Gn egindako gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzen da.

INEren datuen arabera, Estatuan Herri Administrazioak %45,6 finantzatzen du eta sektore pribatuak %45 (Lisboako helburutik 21 puntura).

I.2.12. GRAFIKOA. EAEn I+Gn egindako ahaleginaren eta sortutako enpleguaren eboluzioa



Iturria: Eustat.

[2] EUSTATen lagina zentsukoa da (zentsuaren bidez datu primarioak zuzenean biltzea); INErena zentsukoa da enpresa handientzat eta laginekoa ETE izenekoentzat (EDIRZtik (Enpresen Direktorio Zentrala) abiatuta lagina hautatzea eta biztanleriaren multzoari zabaltzea). Era berean, datuak argitaratu direnean, BPG desberdina izan da; EUSTATen kasuan INEren kasuan baino handiagoa (65.928.497 mila euro 65.146.711 mila euroren aldean).

[3] 2006ko datuak

I.2.13. GRAFIKOA. I+Gn egindako gastuaren finantzazioaren eboluzioa funtsen jatorriaren arabera (%)



Iturria: Eustat

EUROSTATen datuen arabera, EE27n 2008. urtean ehunekoak %33,5 eta %55 izan dira, hurrenez hurren. EUROSTATen arabera, I+Gn egindako gastuari dagokionez, finantzazio pribatuaren ratiorik altuenak honako herrialdeetan izan dira: Japonian (%77,7, 2007kko datua), Luxenburgon (%76, 2007ko datua), Finlandian (%70,3, 2008ko datua), Alemanian (%67,9, 2007an), EEBBn (%67,7, 2008ko datua), Suedian (%64, 2007ko datua) eta Danimarkan (%61,1, 2008an).

EUSTATen arabera, 2008. urtean EAEko BPG kontuan hartuz gero, 68.428,7 milioi eurora iristen da. Hala, sektore pribatuak finantzatutako I+G (707.771,1 euro) BPGren %1,03 da. Bartzelonako helburuak %2n finkatzen du.

Bestalde, Herri Administrazioak EAEn finantzatutako I+G (509.342,4 euro) BPGren %0,7 da. Bartzelonako helburuak %1en finkatzen du.

I+Gn egindako gastua diziplina zientifikoaren arabera. Berriz ere ingeniaritza eta teknologia nabarmentzen dira (gastu guztiaren %71,7) eta oso urrun jarraitzen diete zientzia zehatzek/natur zientziek (%11,9) eta medikoek (%8,1). Bestalde, gizarte-zientziak eta nekazaritzakoak %5 eta %3,4 dira, hurrenez hurren. 2005. eta 2006. urteen bitartean hazkuntza nagusiak zientzia zehatzetan/natur zientzietan (%+48,2) eta gizarte-zientzietan (%+35) izan ziren; 2006. eta 2007. urteen bitartean, berriz, nekazaritza zientzietan (%+180,2, aurreko denboraldiko jaitsiera orekatuz) eta medikoetan (%+63,5); azkenik, 2007. eta 2008. urteen bitartean hazkuntza-ratiorik handienak zientzia zehatzetan/natur zientzietan (%+46,9) eta gizarte-zientzietan (%+36,5) izan ziren. Zientzia medikoak, ordea, jaitsi egin dira (%-10,6).

I+Gn egindako gastua diziplina zientifikoaren arabera funtsen jatorriari jarraiki. Ingeniaritzan eta teknologian ikerketa nagusiki sektore pribatuak (enpresek eta zentro teknologikoek) finantzatzen jarraitzen du, nahiz eta sektore publikoak geroz eta garrantzi handiagoa izan. Ildo horri jarraiki, %68,3 sektore pribatuak finantzatzen du eta %27,9 sektore publikoak. Aurreko denboraldian ehunekoak %71,5 eta %24,8 izan ziren, hurrenez hurren. Zientzia medikoetan, zehatzetan/natur

1.2.39. TAULA . Adierazleak zientzia eta teknologiari buruz, 2008 (*)

	Alemania	Espainia 2008	Frantzia	Italia	Portugal	Erresuma Batua	EEBB	Japonia	EE-27	EAE 2007	EAE 2008
Gastua I+Gn	65.622.000	14.701.393	39.422.915	18.587.400	2.513.374	34.144.223	---	----	237.000.154	1.090.265	1.263.877
BPGren gainean (%)	2,54	1,35	2,08	1,13	1,18	1,79	2,67	3,40	1,85	1,64	1,85
Gastuaren finantzazioa (%)											
Enpresak	68,1	45,0	52,4	40,4	36,3	47,2	66,4	77,1	54,4	58,9	56,0
Administrazioak	27,8	45,6	38,4	48,3	55,2	29,3	27,7	16,2	33,5	37,6	40,3
Bestelako iturriek	0,3	3,7	2,2	3,0	3,8	5,8	5,9	6,3	3,5	0,3	0,3
Atzerrikoek	3,8	5,7	7,0	8,3	4,7	17,7	0,0	0,4	8,6	3,2	3,3
Gastua gauzatzea (%)											
Enpresak	63,3	54,9	63,2	50,0	51,5	64,1	71,9	77,2	64,0	81,3	81,1
Bakarrik enpresek	---	---	---	---	---	---	---	---	---	55	56,4
Zentro teknologi-koek	---	---	---	---	---	---	---	---	---	26,3	24,7
Administrazioak	13,7	18,2	16,5	19,2	9,1	9,2	10,7	8,3	13,2	3,5	4,0
Unibertsitateak	22,0	26,7	19,2	30,3	29,9	24,5	13,3	12,7	21,8	15,2	14,9
IAGEPk	1,0	0,2	1,1	0,5	9,5	2,1	4,2	1,9	1,0	0,0	0,0
Langileak (AOB)											
Guztira	**493.858**	**215.676**	**363.867**	**192.002**	**34.593**	**333.671**	_	**935.182**	**2.314.627**	**14.435**	**15.373**
Biztanleria okupa-tuaren gainean (‰)	12,3	10,6	14,1	7,7	6,6	11,3	_	14,3	10,4	14,2	15,0
Ikerlariak (AOB)											
Guztira	**284.305**	**130.966**	**211.129**	**88.430**	**27.986**	**175.476**	**1.387.882**	**709.691**	**1.355.680**	**9.220**	**9.640**
Biztanleria okupa-tuaren gainean (‰)	7,1	6,5	8,2	3,5	5,4	6,0	9,6	10,8	6,1	9,1	9,4

(*) 2008. urteko edo azken urte eskuragarriko datuak
EPG= Erosteko Pareko Gaitasuna
AOB= Arduraldi Osoaren Baliokidea
Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoaren jarduerei buruzko estatistika eta EUROSTAT

zientzietan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan, hain zuzen ere, kontrakoa gertatzen da, Administrazioak finantzatzen baitu, hurrenez hurren, gastuaren %66, %80,5, %64,3 eta %65,7. Urtebete lehenago ratioak honako hauek izan ziren:%71,8, %69,5, %73 eta %66,3.

I+Gn langileak AOBn diziplina zientifikoaren eta ogibidearen arabera. 2007. eta 2008. urteen bitartean I+Gren jardueretan langileak arduraldi osoan gehitu egin dira, hazkuntza 2007. urtean erregistratutakoa baino txikiagoa izan arren, hau da, %6,5 %10,5en aldean.

I.2.40. TAULA. Hesi-barruko gastuak diziplina zientifikoaren eta egikaritze-sektorearen arabera funtsen jatorriari jarraiki (mila euro)

	2007					2008					2007/08 aldaketaren %				
	Guztira	Funtsen jatorria				Guztira	Funtsen jatorria				Guztira	Funtsen jatorria			
		Admin.	Enpr.	IAGEP	Atzerrit.		Admin..	Enpr..	IAGEP	Atzerrit.		Admin..	Enpr..	IAGEP	Atzerrit.
Guztira	**1.090.265**	**409.532**	**642.541**	**3.036**	**35.156**	**1.263.877**	**509.401**	**708.164**	**4.060**	**42.252**	**15,9**	**24,4**	**10,2**	**33,7**	**20,2**
Diziplina zientifikoa															
Ingeniaritza eta teknologia	**786.881**	194.946	562.495	2.272	27.168	**905.663**	252.316	618.882	2.894	31.571	**15,1**	29,4	10,0	27,4	16,2
Z. medikoa	**114.711**	82.358	29.261	315	2.778	**102.568**	67.626	31.406	297	3.240	**-10,6**	-17,9	7,3	-5,7	16,6
Z. zehatzak/Natur Z.	**101.941**	73.385	26.400	273	1.883	**149.786**	120.538	25.115	673	3.460	**46,9**	64,3	-4,9	146,5	83,7
Nekazaritza Z.	**40.759**	28.341	10.287	6	2.126	**43.084**	27.706	13.441	8	1.929	**5,7**	-2,2	30,7	33,3	-9,3
Gizarte Z.	**45.973**	30.502	14.099	171	1.201	**62.775**	41.215	19.320	187	2.052	**36,5**	35,1	37,0	9,4	70,9
Egikaritze-sektorea															
Administrazioa	**38.113**	33.201	3.604	6	1.302	**50.475**	45.735	3.339	0	1.401	**32,4**	37,8	-7,4	-100,0	7,6
Goi-mailako irakaskuntza	**165.962**	129.130	32.678	1.041	3.112	**188.798**	144.182	39.826	815	4.974	**13,8**	11,7	21,9	-21,7	59,8
Enpresak zentro teknologikorik GABE	**599.857**	110.295	477.143	159	12.259	**712.88**	148.616	547.949	224	16.092	**18,8**	34,7	14,8	40,9	31,3
Zentro teknologikoak	**286.333**	136.905	129.116	1.830	18.483	**311.724**	170.868	118.05	3.021	19.785	**8,9**	24,8	-8,6	65,1	7,0

Iturria: EUSTAT. "I+Gren jarduerei buruzko estatistika"

Hala, arestian komentatu den bezala, 15.372,2 pertsonak dihardu zeregin horretan.

Horietatik %62,7, hots, 9.640 pertsona ikerlaria da. Aurreko denboraldian guztiaren %63,9 zen.

EAEn I+Gn arduraldi osoan lanean diharduen 15.372 pertsonatik, %71 ingeniaritzarekin eta teknologiarekin zerikusia duten jardueretan dabil eta gainerakoak zientzia zehatzen eta natur zientzien (%10,4), medikoen (%8,1), giza eta gizarte-zientzien (%7,1) eta nekazaritza-zientzien (%3,3) artean banatzen dira.

Emakumezkoaren zereginak I+Gren jardueretan gorantz egiten jarraitzen du (2006. urtean guztien %32 eta 2007. urtean %33 bazen, 2008. urtean %33,4 izan da), baina oraindik gizonezkoena baino txikiagoa da (%33,4 %66,4ren aldean). INEren arabera, Estatuan emakumezkoak langile guztien %39,1 dira.

Ogibidea (ikerlariak, langile teknikoak edo laguntzaileak) kontuan hartuta, berriz ere ikerlari emakumezkoen proportzioa jarduera horietan diharduten emakumezko langile guztien gainean handiagoa da, bere genero-taldearen gainean ikerlari gizonezkoen proportzioarekin alderatuz. Gizonezkoen artean I+Gn jarduerak egiten dituen %61,9 ikerlaria da; emakumezkoen artean, berriz, ehunekoa %64,4ra iristen da. Estatuan emakumezko langileetatik %59,2 I+Gren jardueretan diharduen ikerlaria da; gizonezkoen kasua, ordea, %61,7.

Arloka EAEn emakumezkoaren presentziak nekazaritza-zientzietan eta zientzia medikoetan kontzentratzen jarraituz du; horietan I+Gn jardueran diharduten langile guztien %50 eta %51, hurrenez hurren, emakumezkoa da.

I.2.14. GRAFIKOA. I+Gn diharduten langileen eboluzioa AOBn okupazioaren eta sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT

I.2.41. TAULA. AOB lanean diharduten langileak diziplina zientifikoaren arabera

	2002		2003		2004		2005		2006		2007		2008	
	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %
Guztira	**13.065,3**	**32,0**	**11.352,6**	**30,5**	**11.925,1**	**30,7**	**12.505,5**	**31,7**	**13.065,3**	**32,0**	**14.434,9**	**33,0**	**15.373,2**	**33,4**
Zientzia zehatzak eta natur zientziak	1.554,0	45,6	1.060,0	42,3	1.408,0	42,1	1.343,0	44,7	1.554,0	45,6	1.506,4	45,8	1.606,4	45,9
Ingeniaritza eta teknologia	9.234,4	25,7	8.289,8	24,8	8.518,2	25,1	8.953,3	25,6	9.234,4	25,7	10.219,8	26,6	10.920,5	27,4
Zientzia medikoak (1)	1.093,2	48,8	676,9	46,2	906,4	48,0	1.044,4	49,4	1.093,2	48,8	1.305,2	52,2	1.252,6	51,0
Nezakaritza-zientziak (2)	221,9	52,0	399,5	47,8	271,9	44,2	380,3	49,7	221,9	52,0	462,2	49,6	504,6	50,0
Giza eta gizarte-zientziak	961,8	46,5	926,4	48,3	820,6	45,0	784,5	47,1	961,8	46,5	941,3	47,4	1.089,1	47,4

(1) Farmazia barne; (2) Abeltzaintza, basogintza eta arrantza barne.
Iturria: EUSTAT. I+Gren jarduerei buruzko estatistika

Langileak I+Gn egikaritze-sektorearen arabera. 2007. eta 2008. urteen bitartean %8 gehitu da eta 24.413 pertsonara iritsi da. Langile gehienek enpresa-sektorean dihardute. Ildo horri jarraiki, I+Gn jarduerak egiten dituzten langile guztien %53,2k enpresan dihardu (aurreko urtean %50,5ek eta aurrekoan %49,2k), %25,7k goi-mailako hezkuntza-erakundeetan, %15,5ek zentro teknologikoetan (aurreko urtean ehunekoa berdina izan zen) eta %5,7k herri-administrazioan.

EUROSTATen datuen (*Science, technology and innovation in Europe, 2009 edition*) arabera, EE27n 2006. urtean, arduraldi osoaren baliokidean neurtuta, %53,7 enpresa-sektorean ari zen lanean, %29,8 goi-mailako hezkuntza-erakundeetan eta %15,2 administrazioan.

EUSTATen datuen arabera, emakumezkoen ehunekoa egonkor mantentzen da %33 inguru. Aurreko iturriari jarraiki, EE27n ehunekoa %33 da ere bai.

Ikerlari-laguntza-langileak (teknikariak eta laguntzaileak) erlazioari dagokionez, honakoa da: administrazioan 82-18, goi-mailako hezkuntzan 87-13, enpresa-sektorean 49-51 eta zentro teknologikoetan 70-30. Eta orokorrean hartuta, 64-36.

I.2.15. GRAFIKOA. I+Gren jardueretan emakumezkoak egikaritze-sektorearen arabera



Iturria: EUSTAT

2.2.2. EAEn enpresa-sektorearen jarduerak I+G+b-n

a) Enpresa-ehunaren multzoaren adierazleak I+Gn, zentro teknologikoak kanpo

EUSTATen datuen arabera, 2008. urtean I+Gn jarduerak egin zituzten enpresen kopurua (zentro teknologikorik gabe) 1.412 izan zen (aurreko urtean 1.255 izan ziren); horietatik 751 industria-sektorearen barruan

I.2.42. TAULA. Langileak egikaritze-sektorearen arabera ogibideari jarraiki

	GUZTIRA		EMAKUMEZKOAK		Ikerlariak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2007	2008	2007	2008	2008					
	% guztizko bertikalaren araberal	% guztizko bertikalaren arabera	% guztizkoaren arabera		Kop.	% guztizko horizontalaren araberal	Kop.	% guztizko horizontalaren arabera	Kop.	% guztizko horizontalaren arabera
Guztira	**22.595**	**24.413**	**7.429**	**8.050**	**15.559**	**63,7**	**6.163**	**25,2**	**2.691**	**11,0**
Enpresak	66,1	68,7	27,9	28,6	8.980	53,6	5.663	33,8	2.122	12,7
Bakarrik enpresa	50,5	53,2	23,9	25,2	6.330	48,7	4.880	37,6	1.781	13,7
Zentro teknologikoak	15,5	15,5	41,0	40,3	2.650	70,2	783	20,7	341	9,0
Herri-administrazioa	5,6	5,7	44,3	40,7	1.136	82,3	141	10,2	79	7,5
Goi-mailako irakaskuntza	28,3	25,7	42,3	42,9	5.443	86,8	359	5,7	350	7,4

Iturria: EUSTAT. I+Gren jarduerei buruzko estatistika

daude eta 605 zerbitzuen sektorean. Aurreko urtean, berriz, balioak 688 eta 527 izan ziren, hurrenez hurren. Jarduera horietan arduraldi osoan diharduten langileei dagokienez, industrian %10,7ko hazkuntza izan da eta zerbitzuen sektorean %8,6koa.

Honako sektoreek dituzte langile gehienak I+Gren jardueretan: I+Gren jarduera-sektore espezifikoa, horretan sektorean diharduten langileen %24k zehatz-mehatz halako jardueretan dihardu; material elektronikoan %8,1ek; etxeko aparatuetan %7,8k; makina-erremintan %7k; kimika eta petrolioa fintzean %5,8k, jarduera informatikoetan %5,3k eta doitasun-materialean %4,9k.

I+Gren jarduera-adarra (jarduera nagusia I+G egitea duten enpresak, hau da, ingeniaritzak eta aholkularitza

I.2.43. TAULA. I+Gn enpresa-kopuruaren eta langileen eboluzioa (ZT-rik gabe)

	Enpresa-kopurua					Langileak (AOB)				
	2005	2006	2007	2008	Ald. 2007-08	2005	2006	2007	2008	Ald. 2007-08
Guztira	**1.053**	**1.106**	**1.255**	**1.412**	**12,5**	**6.613,1**	**7.083,9**	**7.874,8**	**8.684,90**	**10,3**
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, erauzketa eta energia	13	14	10	15	50,0	64	57,6	66,3	99,4	49,9
Industria	613	635	688	751	9,2	4.058,4	4.035,9	4.407,1	4.880,10	10,7
Eraikuntza	22	20	30	41	36,7	34,3	37,2	50,3	77	53,1
Zerbitzuak	405	437	527	605	14,8	2.456,4	2.953,2	3.351	3.638,40	8,6

Iturria: EUSTAT. I+Gren jarduerei buruzko estatistika

I.2.44. TAULA. Enpresa-sektorearen adierazleak (ZT-rik gabe) jarduera-adarraren arabera. I+G 2008an

		Enpresa-kop.	Langileak (AOB)	Barruko gastuaren banaketa		Funts propioen %	Kanpoko funtsen %	Enplegu guztia EAEn	EAEn I+Gn langileen %
				2006	2007				
Guztira		**1.412**	**8.684,9**	**599.857**	**712.88**	**70,1**	**29,9**	**948.054**	**0,9**
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, erauzketa eta energia		15	99,4	14.466	14.567	86,2	13,8	7.988	1,2
Industria									
M-A	Kimika eta petrolioa fintzea	55	367,3	20.534	24.879	66,5	33,5	6.336	5,8
M-B	Kautxua eta plastikoa	48	224,3	11.181	14.451	79,4	20,6	17.054	1,3
M-B	Industria ez-metalikoa	20	76,1	4.998	6.338	79,3	20,7	6.582	1,2
M-B	Metalurgia	49	275,2	19.754	27.090	81,4	18,6	23.030	1,2
M-B	Metalezko artikuluak	163	759,7	37.509	57.297	85,1	14,9	55.034	1,4
M-A	Makina erreminta	41	308,6	18.819	20.701	66,1	33,9	4.406	7,0
M-A	Etxeko aparatuak	6	399,0	6.358	30.075	85,7	14,3	5.085	7,8
M-A	Bestelako makineria	119	757,8	42.298	59.094	85,4	14,6	20.572	3,7
M-A	Material elektrikoa	44	292,0	22.787	34.128	85,4	14,6	10.258	2,8
A	Material elektronikoa	22	318,1	18.846	21.791	75,6	24,4	3.947	8,1
A	Doitasun-materiala	24	195,2	22.956	13.231	67,3	32,7	3.944	4,9
M-A	Garraio-materiala	48	653,5	76.495	91.215	64,8	35,2	19.454	3,4
	Bestelako manufakturak	112	253,3	34.019	16.200	84,4	15,6	42.481	0,6
Eraikuntza		41	77,0	4.227	10.416	44,0	56,0	96.526	0,1
Zerbitzuak									
A	Jarduera informatikoak	141	770,5	39.804	45.116	62,4	37,6	3.944	5,3
A	Jarduerak I+Gn	99	1.259,8	95.194	98.840	54,1	45,9	19.454	24,0
	Bestelako enpresa-jarduerak	203	891,5	63.264	68.752	53,2	46,8	42.481	0,9
	Bestelako zerbitzuak	162	716,6	46.348	58.698	74,0	26,0	96.526	0,1

Iturria: EUSTAT. I+Gren jarduerei buruzko estatistika

teknologikoak sartzen dira) alde batera utzita, gainerakoekiko profil, helburu eta finantzazio desberdina dutelako, batez beste euskal enpresek gastu horiek ehuneko handian enpresaren beraren funtsekin finantzatzen dituzte. Hala ere, datu horiek arreta handiz aztertu behar dira, proiektu askoren egiazko finantzazio-jatorria ezin baita zehaztu. EUSTATen hitzetan, baliteke proiektu zehatzetan, hain zuzen ere, enpresa batek beste batekin kooperatzen duen horietan, finantzazioaren jatorria publikoa izatea.

Eduki teknologikoari erreparatuz I+Gn industriak egindako gastua aztertzeari dagokionez, "*I.2.1. Produkzio Egitura*" kapituluan aipatzen den bezala, 2008. eta 2000. urteak alderatuz, eduki teknologiko handia eta txikia duten sektoreetan atzerapen erlatiboa haute-

maten da, nagusiki enplegua kontuan hartuta; balioa sortzeari buruz, joera hori ez da argia, “sailkatu gabeko“ jarduerak gehitu baitira.

Hala eta guztiz ere, zenbait egile ELGAk intentsitate teknologikoaren arabera egindako sektore-sailkapena bera zalantzan jartzen hasi da, produkzio-jarduera desberdinek eboluzionatzen duten neurrian eta teknologia zehatzetan sartuak irauten ez duten heinean. Zientziak eta teknologiak industria tradizionalaren produkzio-ehun eta sektore guztietan zehar zabaltzen dira; adibi-

I.2.45. TAULA. Sektoreen zerrenda I+Gn izandako intentsitatearen arabera INE, ELGA eta Eurostaten zerrendak konbinatzea

Handia	Industria farmazeutikoa Bulego-makineria eta material informatikoa Osagai elektronikoak Irrati-aparatuak, TB eta komunikazioak Tresna medikoak, doitasun-tresnak, optika eta erlojugintza Eraikuntza aeronautikoa eta espaziokoa	Txikia	Paper eta paper-produktuen fabrikazioa eta edizio- nahiz inprimaketa-jarduerak, grabaketen erreprodukzio-jarduerak Elikagaiak, edariak eta tabako-produktuak egitea Egurraren produkzioa eta egur- eta kortxo-produktuak fabrikatzea, altzariak izan ezik Lasto-artikuluak eta txirikordatze-materialak fabrikatzea Ehun-produktuak fabrikatzea, larrua ontzea, maletak fabrikatzea Eskuzko poltsak, talabarteria- eta garnizionaritza-artikuluak eta oinetakoak Altzariak fabrikatzea, ncp manufaktura-industria, birziklapena
Ertaina-handia	Industria kimikoa, industria farmazeutikoa izan ezik Makineria eta ekipoak Makineria eta aparatu elektrikoak Automobilgintza Ontzigintza, tren-eraikuntza, motorren eta bizikleten eraikuntza eta beste garraio-materialena		
Ertaina-txikia	Metalezkoak ez diren beste produktu mineralak fabrikatzea Kokea fabrikatzea, petrolioa fintzearen produktuak eta erregai nuklearra Itsasontziak eta bestelako ontziak eraiki eta konpontzea Metalez egindako produktuak fabrikatzea, makineria eta ekipoa izan ezik Metal komunak fabrikatzea Kautxuzko eta plastikozko produktuak fabrikatzea	Goi-teknologiako edo muturreko zerbitzuak	Postak eta telekomunikazioak Jarduera informatikoak Ikerketa eta garapena

Iturria: INE (Metodologia)

dez, ibilgailuek eta makineriak geroz eta gehiago patentatzen dute elektronikaren sektorean eta, oro har hartuta, teknologia txikikotzat jotako sektoreak horien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira eta zientzian oinarritutako sektore bilakatzen dira.

EUROSTATen datuen (*Science, technology and innovation in Europe, 2009 edition*) arabera, EE27k esportatutako "high-tech" produktuen ehunekoa esportazio guztien gainean %17 inguru egonkor mantendu da 1995. eta 2006. urteen bitartean. 2006. urtean, berriz, denboraldiko mailarik txikienera (%16,6) jaitsi zen.

Bestetik, aurrerago *2009ko Berrikuntzaren Europako Indizea* aztertzean ikusiko dugun bezala, goi-mailako teknologiaren eta teknologia ertainaren esportazioen garrantzia EAEn modu esangarrian EEn baino handiagoa da: EAEn esportazio guztien %51,5 (%53,6 aurreko denboraldian) eta Europako Elkartean %47,4 (urtebete lehenago %48,1).

b) Enpresa-ehunaren berrikuntza

Haz gaitezen zenbait definizio ematen:

– **Enpresa berritzailea:** galdeketan kontuan hartutako denboraldian berrikuntza sartu duen enpresa da.

  Berrikuntza: enpresaren barruko praktiketan, lantokiaren antolaketan edo kanpoko harremanetan prozesuaren produktu (edo zerbitzu) berria edo modu esangarrian hobetua, baita merkaturatze-metodo berria edo antolaketa-metodo berria ere sartzea da. Berrikuntza-mota guztiek ezaugarri komuna dute, hain zuzen ere, sartuak izatea. Produktu berri (edo hobetua) sartu da, merkaturatu denean. Era berean, prozesua, merkaturatze-metodoa edo antolaketa-metodoa sartu da, enpresaren eragiketen esparruan eraginkortasunez erabili denean.

  Definizio horretatik abiatuta, bi berrikuntza-mota bereiz daitezke: teknologikoa eta ez-teknologikoa.

  Berrikuntza teknologikoa produktuarena (ondasun edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua, merkatuan sartua), **edo prozesuarena** (establezimenduaren barruan prozesu berria edo nabarmenki hobetua inplementatzea) izan daiteke; **berrikuntza ez-teknologikoa,** berriz, **antolakuntza-edo merkaturatze-**berrikuntzek osatzen dute.

  INEk eta EUSTATek lehenengoz sartu dituzte 2008ko Berrikuntzaren Galdeketan berrikuntza ez-teknologikoak.

– **Enpresa jarduera berritzaileekin:** galdeketan aztertutako denboraldian jarduera berritzaileak garatzen dituen enpresa da. Jarduneko berrikuntzak edo porrot egin duten berrikuntzak izan dituzten enpresak barne sartzen dira.

  Jarduera berritzaileak: berrikuntzak sartzea helburu duten edo horretara bideratzen duten eragiketa zientifiko, teknologiko, antolakuntzazko, finantzario edo merkataritzakoak dira. Baliteke enpresek galdeketan aztertutako denboraldian jarduera berritzaileak garatu izana, berrikuntza eraginkortasunez sartu gabe. Ondorioz, kontuan hartutako denboraldian, jarduera berritzaileak hiru motatakoak izan daitezke:

  – Lortutakoak, berrikuntza sartzea lortu baitzen (nahiz eta berrikuntza ez izan merkataritza-arrakasta).
  – Garapenean eta, beraz, oraindik sartze-fasea lortu ez duena.
  – Berrikuntza sartu baino lehen porrot egindakoak.

ENPRESA BERRITZAILEAK

Lehenik eta behin, honakoa jasoa utzi nahi dugu: EUSTATek soldatapeko 10etik beherako enpresetarako informazioa eskaintzen du; bien bitartean, EUROSTATek ez du hala egiten; beraz, beste eskualdeekin alderatzeko alderdi hori kontuan hartu behar da.

EUSTATen Berrikuntza Galdeketaren[4] datuen arabera, EAEn 2006-2008 denboraldian enpresen %20,8

[4] Edozein tamaina-sektoreren eta edozein jarduera-sektoreren euskal enpresetara bideratuta, primarioa, herri-administrazioa eta etxeko zerbitzua izan ezik (INEren aldean hezkuntza guztia sartzen da). Hau da, biztanleria-eremua honakoa da: edozein tamainatako establezimenduak eta honako jarduera-sektoreetakoak CNAE-91 1. Berrazterketaren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, hurrengoak kanpoan gelditzen dira: sektore primarioa (A eta B), herri-administrazioa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

berritzailea izan zen. Ehunekoa lortzeko kontuan hartu dira, bai enpresak berrikuntza teknologikoarekin (produktuan edota prozesuan) (enpresen %15), bai enpresak berrikuntza EZ-teknologikoarekin (antolakuntzan edota merkaturatzean) (%12,9).

Bakarrik 10 langile edo hortik gora dituzten enpresak kontuan hartzen baditugu (hala beste estatistika-erakundeen datuekin (INE, EUROSTAT…) aldera ditzakegu), enpresa berritzaileen ehunekoa (berrikuntza teknologikoak eta ez-teknologikoak) %41,2 da. INEren Berrikuntza Galdeketaren[5] arabera, Estatuan denboraldi berean ehunekoa %34,8 da. EUROSTATen (*Science, technology and innovation in Europe, 2009 edition*) arabera, EE27n enpresen %38,8 da. Alemania dago ranking horren buruan %62,6rekin.

Berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa bereiziz honako datuak ditugu:

EAEn berrikuntza teknologikoak egiten dituzte enpresen %31,5ek eta Estatuan %20,8k.

EAEn berrikuntza ez-teknologikoak egiten dituzte enpresen %27,4k eta Estatuan %26,7k.

Enpresak berrikuntza teknologikoekin (sartuak edo sartu gabe)

Ondoren ikusiko dugun bezala, berrikuntzarako jardueretan gastuak gorantz egiten duen bitartean, enpresa berritzaileen ehunekoa beherantz egiten ari da, baina joera hori ez da sektore guztietan errepikatzen. Izan ere, industrian ehunekoa gehitu egiten da, bai enpresak orokorrean hartuta, bai tamaina handiena (9 langiletik gora) dutenetan.

Enpresak guztira

Gogora dezagun: EUSTATek 10 soldatapekotik beherako enpresen informazioa eskaintzen du, bien bitartean, INEk eta EUROSTATek ez dute hala egiten, beraz, ezin daiteke alderaketa zorrozki egin. Hala eta guztiz ere, eboluzioaren ikuspegitik ondorioak atera ditzakegu, EUSTATen datuetatik abiatuta. Berriz ere berrikuntza teknologikoa duten enpresen ehunekoa jaitsi egin da %16,1etik %15era (kasu honetan 2005-07 eta 2006-08 bitartean). Jardunean berrikuntza edota huts egin duen berrikuntza duten enpresak (EB: enpresa berritzaileak edo jarduneko berrikuntzekin edo arrakastatsuak izan ez direnekin) sartzen badira, ehunekoak ere behera egiten du %17tik %15,7ra.

Sektoreen ikuspegitik, berritzailea da zerbitzu-enpresen %15,7 (%18,6 2005-07 denboraldian), industria-sektoreko %20,7 (%18,4 aurreko denboraldian) eta eraikuntzako %8,6 (%0,9 aurreko denboraldian). Jarduera-azpisektoreen arabera, industrian honakoak nabarmentzen dira: industria kimikoa (sektoreko enpresen %44,3 berritzailea da), makineria (%36,9) eta material elektrikoa (%22,1). Zerbitzuetan: bankuak eta aseguruak (%57,8) eta hezkuntza (%26,3).

Berrikuntza teknologiko motaren arabera bereiziz, berriz ere nagusi dira prozesu-berrikuntzak produktu-berrikuntzen gainean, bai 9 enplegutik gorako establezimenduetan, baita 9tik beherakoetan ere. Zehatz-mehatz esanda, enpresa guztien gainean prozesuan berrikuntza egin dutenen ehunekoa %13,8ra iristen da (%14,5 2005-07 denboraldian eta %15,1 aurreko denboraldian); bien bitartean, produktuan berrikuntza %5,8k egin du (%5,5ek 2005-07 denboraldian eta %5,8k aurrekoan).

---

[5] Industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetan 9 soldatapekotik gorako enpresa-laginari bideratutako ikerketa da eta 2006. urtean berrikuntza bezala nekazaritzaren, abeltzaintzaren, ehizaren, basogintzaren eta arrantzaren adarrak aztertu dira.

Galdeketak 2005. urte arte ez zuen hezkuntzaren adarra sartzen eta urte horretatik aurrera hezkuntzaren adarrako enpresak (80 sekzioa, CNAE-93ren arabera) sartzen dira, 8030 adarraren (goi-mailako irakaskuntza) enpresak izan ezik. EUSTATek, berriz, tradizioz hezkuntzaren sektore guztia sartu du. Ondorioz, 2005. urte arte distortsio-elementu garrantzitsua zen INEren Estatistikarekin alderatzeko orduan; hala ere, nahiz eta 2005. urtean zuzendu, ez da erabateko zuzenketa egin, 8030 adarra ez baita sartzen.

Bestetik, 2006. urtean INEk berrikuntza bezala nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza eta arrantzaren adarrak sartzen ditu eta horiek EUSTATek ez ditu kontuan hartzen.

I.2.46. TAULA. Berrikuntza teknologikoa egiten duten enpresen ehunekoaren eboluzioa enpresa guztien gainean EAEn

		2001-03	2002-04	2003-05	2004-06	2005-07	2006-08
ENPRESAK GUZTIRA	Produktu eta prozesuan berrikuntzekin	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1	15
	EB (produktu, prozesuetan berrikuntzekin, jardunean edo huts egindakoak)	-	17,4	17,1	17,1	17	15,7
9 ENPLEGUTIK GORAKO ENPRESAK	Produktu eta prozesuan berrikuntzekin	32,1	31,9	33,3	32,7	32	31,5
	EB (produktu, prozesuan, jardunean edo huts egindakoak)	-	34,7	35,2	34,5	34,6	34,4

EB: enpresa berritzaileak edo jarduneko berrikuntzekin edo arrakastatsuak izan ez direnekin.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Estatistika

9 enplegutik gorako enpresak

EUSTATek eskainitako datuei erreparatuz, 2005-07 eta 2006-08 denboraldien artean, berrikuntza teknologikoak dituzten enpresen ehunekoa jaitsi egin da %32tik %31,5era. EB izenekoak sartuz gero, modu berean, ehunekoa (noski, aurrekoa baino handiagoa da) murriztu egiten da %34,6tik %34,4ra.

INEren datuen (Berrikuntzaren Galdeketa) arabera, Estatuan denboraldi berean berritzailea Estatuko enpresen %20,8 da. EAEn ehunekoa %27,1 da (ehuneko +6,3 puntu gehiago EAEn Estatuan baino). Aurreko denboraldian berritzaileak izan ziren Estatuan enpresen %23,5 eta EAEn %31,8. Ondorioz, aurreko joera berresten da, hau da, enpresa berritzaileen ehunekoa murrizten ari da, bai gure Erkidegoan, bai Estatuan.

Sektoreen ikuspegitik, berritzailea da zerbitzu-enpresen %32,7 (%35,5 2005-2007 denboraldian), industria-sektoreko %37 (%34 aurreko denboraldian) eta eraikuntzako %12,4 (%14,3 aurreko denboraldian). Jarduera-azpisektoreen arabera, industrian honakoak nabarmentzen dira: Industria kimikoa (sektoreko enpresen %67,3 berritzailea da), elikadura (%51,4) eta kautxu nahiz plastikoa (47,2). Zerbitzuetan: bankuak eta aseguruak (%76,3) eta hezkuntza (%58,5).

Berrikuntza teknologikoaren arabera bereizketa eginez, beste urtebetez nagusi dira prozesu-berrikuntzak produktu-berrikuntzen aldean, %28 prozesu-berrikuntzen kasuan eta %15,4 produktu-berrikuntzen kasuan (%26,9 eta %14,1, hurrenez hurren, aurreko denboraldian).

Gastua berrikuntza teknologikoan

INEren Berrikuntza Galdeketako datuen arabera (9 langiletik gorako enpresak), Madril (guztiaren %38,5), Katalunia (guztiaren %19) eta EAE (guztiaren %9) dira berrikuntza teknologikoaren jardueretan gastu handiena egiten jarraitzen duten autonomia erkidegoak Aipatu gastua gehien gehitu dutenak Extremadura, Madril, Aragoi eta Nafarroa izan dira.

EUSTATen Berrikuntza Teknologikoaren Galdeketak eskaintzen dituen datuei jarraiki, EAEn berrikuntza teknologikorako jardueretan gastu guztia 2008. urtean %6,6 gehitu da (%+10,9 2007. urtean) eta guztira 2.782 milioi euro gastatu dira, hau da, BPGren %4,2 (%3,8 2006. urtean eta %4 2007. urtean), beraz, goranzko joerarekin jarraitu da. 9 langiletik gorako enpresei erreparatuz, gastua %8,1 hazi da (%11 aurreko denboraldian) eta BPGren %3,2 izan da (%3,1 aurreko

I.2.47. TAULA. Berritzaileak diren enpresen % jarduera-adarraren eta berrikuntza teknologiko motaren arabera 2006-2008

	Enpresak guztira						9 enplegutik gorako enpresak					
	Berrikuntza teknologikoaren mota					Enpresa berritzaileak	Berrikuntza teknologikoaren mota					Enpresa berritzaileak
	BE izenekoak guztira	Produktuan	Prozesuan	Jardunean	Hutsegindakoa		BE izenekoak guztira	Produktuan	Prozesuan	Jardunean	Hutsegindakoa	
Guztira	**15,7**	**5,8**	**13,8**	**2,6**	**0,3**	**15,0**	**34,4**	**15,4**	**28,0**	**14,0**	**3,0**	**31,5**
Industria	22,7	11,9	17,0	8,6	1,7	20,7	41,6	22,2	31,0	23,9	6,0	37,0
5. Elikadura industria	19,8	15,0	14,2	3,7	2,6	19,6	52,4	25,8	50,4	20,9	14,4	51,4
6. Ehungintza eta jantziak	9,6	1,8	8,7	1,1	0,2	9,3	48,1	21,9	36,2	14,2	2,6	44,2
7. Egur-industria	26,4	9,7	19,4	2,2	–	26,4	33,6	26,2	28,6	16,9	–	33,6
9. Papera, edizioa eta arte grafikoak	12,4	7,8	2,7	3,2	0,6	10,1	23,2	4,2	17,3	6,1	2,1	20,5
11. Industria kimikoa	55,2	27,8	36,8	32,6	19,7	44,3	75,5	50,9	52,8	57,4	25,2	67,3
12. Kautxua eta plastikoa	26,0	16,3	19,1	15,9	1,9	21,7	58,9	32,5	39,9	31,4	5,2	47,2
13. Industria ez-metalikoa	17,8	4,7	9,9	6,8	1,7	12,1	47,6	15,9	20,2	23,3	5,9	28,6
14. Metalurgia eta metalezko artik.	22,6	11,6	21,4	9,1	0,8	21,9	34,7	12,7	31,1	16,4	2,5	32,8
15. Makineria	39,2	23,6	28,7	15,1	3,7	36,9	46,1	40,0	22,6	38,4	9,5	40,3
16. Material elektrikoa	33,9	18,7	22,5	14,4	1,8	30,8	47,7	34,3	29,8	37,1	5,5	39,8
17. Garraio-materiala	21,2	10,0	17,9	17,3	3,1	19,0	45,1	21,9	37,5	37,0	6,9	40,3
18. Bestelako manufakturak	17,4	5,1	10,2	8,8	1,1	11,0	39,9	25,7	28,2	19,6	7,9	35,0
Bestelako industriak	8,8	2,9	3,5	5,1	3,1	5,2	35,2	9,6	15,1	22,2	13,2	19,7
Eraikuntza	8,7	3,4	8,6	0,2	0,1	8,6	14,3	1,6	12,4	3,0	1,6	12,4
Zerbitzuak	16,4	5,7	14,5	2,5	0,2	15,7	35,1	15,0	29,7	11,7	1,9	32,7
21. Merkataritza eta konponketa	13,9	3,3	12,6	1,0	0,0	13,5	26,5	7,3	22,3	8,1	0,4	24,7
22. Ostalaritza	10,9	3,1	5,2	3,0	–	8,2	20,2	7,9	15,1	6,4	–	19,7
23. Garraioa eta komunikazioak	16,1	3,2	14,8	1,1	0,1	15,9	29,5	14,1	26,4	9,4	1,4	26,5
24. Bankuak eta aseguruak	57,9	54,3	57,5	19,8	0,0	57,8	78,4	52,8	70,6	17,7	0,4	76,3
25. Enpresekiko zerbitzuak	17,4	4,0	16,0	2,5	0,5	16,7	36,3	17,7	26,4	23,6	5,2	30,6
27. Hezkuntza	30,8	5,7	25,7	7,2	0,9	26,3	59,3	20,0	55,7	11,7	3,6	58,5
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	11,3	7,4	10,9	0,2	–	11,3	27,2	13,4	23,4	2,6	–	27,2
29. Zerbitzu pertsonalak	11,7	5,1	9,1	2,0	0,0	11,6	26,3	17,4	22,6	7,9	–	24,6

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Galdeketa

I.2.48. TAULA. Berrikuntza teknologikorako jardueretan gastua BPGren gainean

	ENPRESAK GUZTIRA				>= 10 LANGILE			
	2005	2006	2007	2008	2005	2006	2007	2008
Guztira milioi euro	**2.161,7**	**2.353,0**	**2.609,9**	**2.782,0**	**1.677,8**	**1.829,7**	**2.030,0**	**2.193,9**
% BPGren gainean	3,8	3,8	4,0	4,1	2,9	3,0	3,1	3,2
Barruko I+G	1,4	1,5	1,7	1,8	1,3	1,3	1,5	1,7
Kanpoko I+G	0,5	0,6	0,5	0,6	0,3	0,4	0,4	0,5
Makineria	1,4	1,4	1,3	1,2	1,0	1,0	0,9	0,8
Bestelako ezagutzak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Prestakuntza	0,1	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Merkaturatzea	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1
Diseinua eta prestakuntzak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoaren Galdeketa

denboraldian). Aurten ere gastu horren zatirik handiena barruko I+Gri (BPGren %1,8 enpresa-multzoarentzat eta %1,7 9 langiletik gorako enpresak kontuan hartuta) eta makineria erosteari (BPGren %1,3 enpresa-multzoarentzat eta %0,8 9 langiletik gorako enpresak kontuan hartuta) dagokio.

Jarduera-adarren arabera, industriaren barruan gastua *garraio-materialean* (gastuaren %11,5, urtebete lehenago %14) kontzentratzen da; *metalurgiak eta metalezko artikuluek* (%9,4) guztiaren gainean garrantzia hartu dute; gauza bera gertatu zaio *material elektrikoari* (%5). *Makineriak* (%4,5), berriz, guztiaren gainean garrantzia galdu du.

Bien bitartean, garraio-materialean eta metalurgia nahiz metalezko artikuluetan gastu gehiena makineria erostera bideratzen da; makinerian eta material elektrikoan gasturik handiena barruko I+Gn egiten da.

Bestalde, zerbitzuen sektorean nabarmena da enpresekiko zerbitzuen adarra, gastuaren %28,4rekin. Horretan gastu guztiaren %66,2 barruko I+Gra bideratzen da.

Aurreko urteetan izandako joeren ildotik, gastua gehitu egiten da enpresa-tamaina handitzen den neurrian, baina 3tik 9 enplegura bitarteko enpresak bereziki aktiboak dira eta ez hainbeste 10etik 19ra bitartekoak edo 50 eta 99 bitartekoak.

Gaiari buruz INEk eskainitako informazioak banaketa-maila desberdina (250 langiletik beherako enpresak eta 250 langile eta hortik gorako enpresak, kontuan hartuta 10 langiletik beherako enpresen kasuan ez duela informaziorik eskaintzen) erabiltzen du eta horretan oinarrituta, EAEn ETE izenekoek gastuan duten partaidetza 250 enplegutik gorako enpresen partaidetza baino handiagoa izan da eta oraindik hala izaten jarraitzen du. Bestalde, Estatuan 2006. urtera arte 250 enplegutik gorako enpresen partaidetza handiagoa zen (eta, gainera, goranzko joerarekin); 2007. urtean joeran aldaketa hauteman zen, baina 2008. urtean aurreko egoerara bueltatu da.

I.2.49. TAULA. Berrikuntza teknologikorako jardueretan gastua jarduera-adarraren, tamainaren eta jarduera-motaren arabera, 2008

	2007AN GUZTIRA	2008AN GUZTIRA		Barruko I+G	Kanpoko I+G	Makineria	Bestelako ezagutzak	Prestakuntza	Merkaturatzea	Diseinua eta prestakuntzak
	% bertikala	mila	% bertikala							
Guztira	**2.609.914,0**	**2.782.007**	**100,0**	**45,4**	**13,7**	**29,8**	**2,2**	**2,0**	**4,1**	**2,8**
Industria	46,8	1.168.983	42,0	36,9	17,0	36,1	2,6	1,1	4,0	2,3
5. Elikadura-industria	3,5	78.077	2,8	9,0	1,7	26,6	22,7	0,6	36,7	2,8
6. Ehungintza eta jantziak	0,1	4.384	0,2	15,1	3,2	45,7	0,0	0,5	3,0	32,6
7. Egur-industria	0,7	18.452	0,7	12,1	2,3	79,4	-	0,2	5,7	0,3
9. Papera, edizioa eta arte grafikoak	1,5	49.765	1,8	8,2	5,7	78,0	0,4	2,2	-	5,6
11. Industria kimikoa	1,7	45.015	1,6	60,9	32,3	4,0	0,1	0,4	1,7	0,6
12. Kautxua eta plastikoa	1,2	31.991	1,1	51,9	24,0	18,6	0,9	0,6	0,6	3,3
13. Industria ez-metalikoa	0,5	21.505	0,8	48,8	11,2	34,5	1,3	1,5	1,5	1,2
14. Metalurgia eta metalezko artik.	8,2	261.22	9,4	28,7	22,7	41,9	0,2	1,8	1,1	3,6
15. Makineria	5,6	126.306	4,5	65,5	17,2	7,5	0,0	1,9	4,6	3,3
16. Material elektrikoa	4,2	139.553	5,0	66,7	22,5	6,6	0,1	1,1	1,7	1,3
17. Garraio-materiala	14,0	319.755	11,5	27,3	10,2	61,2	0,1	0,4	0,7	0,1
18. Bestelako manufakturak	1,3	21.437	0,8	40,6	4,5	30,1	0,4	1,9	8,9	13,5
Bestelako industriak	4,4	51.523	1,9	30,5	46,0	0,5	21,1	-	1,9	-
Eraikuntza	1,0	30.489	1,1	13,3	27,1	41,1	10,1	6,6	1,8	-
Zerbitzuak	52,2	1.582.535	56,9	52,3	10,9	25,0	1,7	2,7	4,3	3,2
21. Merkataritza eta konponketa	7,7	202.416	7,3	17,1	5,8	46,4	2,9	10,8	14,6	2,4
22. Ostalaritza	0,1	7.599	0,3	3,5	11,5	19,4	0,4	1,3	5,3	58,5
23. Garraioa eta komunikazioak	1,6	93.103	3,3	24,6	8,4	50,5	9,2	0,8	1,7	4,8
24. Bankuak eta aseguruak	7,5	114.23	4,1	10,8	8,2	69,4	3,8	1,1	4,6	2,1
25. Enpresekiko zerbitzuak	25,3	790.735	28,4	66,2	16,8	11,9	0,5	1,0	2,1	1,4
27. Hezkuntza	6,7	251.053	9,0	76,6	1,2	11,6	1,1	2,8	2,5	4,3
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	2,8	67.698	2,4	45,1	0,4	35,3	1,0	2,0	0,2	15,8
29. Zerbitzu pertsonalak	0,4	55.702	2,0	19,9	10,9	46,7	1,0	3,6	14,4	3,4
Enplegu-geruzak										
	8,9	226.582	8,1	6,9	24,3	64,0	0,6	0,9	1,0	2,2
3tik 9ra	13,3	361.548	13,0	30,4	3,7	39,9	2,1	9,0	10,0	4,9
10etik 19ra	6,4	156.336	5,6	38,6	33,6	18,4	4,3	1,0	2,2	1,9
20tik 49ra	14,7	448.651	16,1	55,1	11,3	17,4	1,4	1,3	9,4	4,1
50etik 99ra	8,3	225.707	8,1	61,2	13,2	17,6	0,9	1,9	1,3	3,8
100etik gora	48,4	1.363.182	45,4	50,8	13,1	28,9	2,7	0,8	2,0	1,8

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Galdeketa

I.2.50. TAULA. Jarduera berritzaileetan gastu guztiaren banaketa enpresa-tamainaren arabera (ehuneko bertikalak)

	2005		2006		2007		2008	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Guztira (mila euro)	**13.635.950**	**1.348.099**	**16.533.416**	**1.558.139**	**18.094.616**	**1.754.758**	**19.918.946**	**1.791.097**
250 langiletik behera	40,4	52,8	39,9	49,5	44,7	59,3	43,3	60,9
250 eta langile gehiago	59,6	47,2	60,1	50,5	55,3	40,7	56,7	39,1

Iturria: INE

Kanpoko finantzazioari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, enpresa berritzaileen %35ek jaso du finantzazio publikoa 2006-08 denboraldian (%27,7 2005-07 denboraldian). Laguntzen jatorriari jarraiki, establezimendu gehienei laguntzen dien administrazioa Eusko Jaurlaritza da (%26,3) eta atzetik Foru Aldundiak (%9,3) doaz. Tamaina handieneko (9 enplegutik gora) enpresen artean finantzazio publikoa %43,3k jaso du 2006-08 denboraldian. Laguntzen jatorriari jarraiki, establezimendu gehienei laguntzen dien administrazioa Eusko Jaurlaritza da (%32,5) eta atzetik Administrazio Zentrala (%16,5) doa.

Azkenik, aipatu *patenteen eskaerak eta indarreko patenteek* gorantz egin dutela 2005-2007 denboralditik 2006-08 denboraldira bitartean, bai enpresa berritzaileen multzoan, bai tamaina handiena (10 edo enplegu gehiago) dutenen artean. Ildo horri jarraiki, 2006-08 denboraldian establezimenduan garatutako asmakariak edo berrikuntzak babesteko patenteren bat eskatu zuen enpresa-ehunekoa 2,3 izan zen eta 2008. urtea-

I.2.51. TAULA. Establezimendu berritzaileak eta patenteen bidez babesa (establezimenduen %)

	Enpresa berritzaileak guztira		10 edo enplegu gehiagoko enpresa berritzaileak	
	Patentea eskatzen duten enpresen %	Denboraldiaren amaieran patentea indarrean duten enpresen %	Patentea eskatzen duten enpresen %	Denboraldiaren amaieran patentea indarrean duten enpresen %
2002-2004	2,7	3,4	7,4	12,4
2003-2005	1,3	1,5	6,3	8,5
2004-2006	1,5	2,5	6,6	10,9
2005-2007	1,4	1,9	5,3	7,5
2006-2008	2,3	2,5	8,3	9,4

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Galdeketa - BTG

ren amaieran %2,5ek zuen bat edo beste indarrean. Aurreko denboraldian ehunekoak 1,4 eta 1,9 izan ziren, hurrenez hurren.

10 edo enplegu gehiagoko enpresa berritzaileen multzoa kontuan hartuz gero, ehunekoak altuagoak dira, baina joera mantendu egiten da.

Jarduera-sektorearen araberako desberdintasuna kontuan hartzea komeni da. Hala, denboraldian industriaren sektorean industria-enpresaren %8,3k eskatu du patentea; eraikuntzan, berriz, %1ek eta zerbitzuetan %1,7k. Bestalde, denboraldiaren amaieran indarrean patentea zuten enpresak %11, %0 eta %1,7 ziren, hurrenez hurren. Tamaina handieneko (10 edo enplegu gehiago) enpresa-multzoa kontuan hartuz gero, eraikuntza bereziki aktiboa izan da %12,9rekin; industrian %11,5 izan da eta zerbitzuetan %6,4.

Europako Berrikuntza Indize berria[6]

Europako Berrikuntza Indizea (*European Innovation Scoreboard*) EEko kide diren 27 herrialdeekin kalkulatzen da, Kroazia, Turkia, Islandia, Norvegia eta Suitza erantsiz eta bere helburua herrialde horiek sailkatzea da. Sailkatzeko beren ekonomiek berrikuntza-jardueretarako duten gaitasuna eta horien garapena neurtzen dira. 3 bloke nagusitan egituratzen da eta 29 berrikuntza-adierazleetarako 7 berrikuntza-dimentsio desberdin garatzen dituzte.

- "Berrikuntza-gaitzaileen" blokean "Giza baliabideen" eta "Finantzazio eta Laguntzaren" dimentsioak sartzen dira. 9 adierazle ditu.
- "Enpresa-jardueren" blokeak 3 dimentsio ditu: "Enpresa-dimentsioak", "Enpresaren loturak eta ekimena" eta "Etekinak". 11 adierazle multzokatzen dira.
- "Produktibitateen" blokeak "Berritzaileen" eta "Ondorio ekonomikoen" dimentsioak biltzen ditu. 9 adierazle sartzen dira.

Bloke eta dimentsio bakoitzarentzat eta indize orokorrarentzat adierazle sintetiko bat kalkulatzen da eta balioa 0 eta 1 bitartean egoten da. Herrialde guztietarako metodologia bera erabiltzen da. Gainera, adierazle bakoitzak erreferentziatzat urte bera hartzen du herrialde guztietan.

EUSTATek egindako datuen arabera, 2009. urtean EAE, EE-27ren multzoan, 10. postuan kokatzen da 0,51 punturekin, hain zuzen ere, EE-27k duen batez bestekoaren (0,48) gainean.

EE-27ren herrialdeak lau kategoriatan multzoka daitezke, lortutako puntuazioa kontuan hartuta. Lehenengoan, "berrikuntzan buru diren herrialdeetan", Suedia (0,64), Finlandia (0,62), Alemania (0,60), Erresuma Batua (0,58) eta Danimarka (0,57) daude. Europako Elkartearen barruan daudela ez bada kontuan hartzen, talde honetan Suitza (0,69) agertzen da berrikuntzaren abangoardian.

Bigarren multzoan, "berrikuntza-maila handia duten herrialdeetan", 0,47 eta 0,54 bitartekoak, Europako batez bestekoaren gainekoak, kokatzen dira. Bertan daude Austria, Luxenburgo, Belgika, Irlanda, Frantzia, Erbehereak, Estonia, Txipre eta Eslovenia. Beraz, talde honen barruan sartzen da EAE.

Hirugarren taldean, "neurrizko berrikuntza duten herrialdeetan", daude Txekiar Errepublika, Portugal, Espainia, Grezia, Italia, Malta, Hungaria, Eslovakia, Polonia eta Lituania. Eta laugarrenean, "berrikuntza-maila txikia duten herrialdeetan", Errumania, Letonia eta Bulgaria aurki daitezke.

Europako batez bestekoa kontuan hartuta, EAE hiru dimentsio hauetan nabarmentzen da: Giza baliabideetan, Enpresaren lotura eta ekimenean eta ondorio ekonomikoetan. Gainerako dimentsioetan, puntuazioa EEk lortutakoa baino txikiagoa da.

Giza baliabideak dimentsioak prestakuntza handia eta hezkuntza-maila altua duten pertsonen eskuragarritasuna neurtzen du, berrikuntzarako funtsezko datu bezala.

[6] EIS Berrikuntza Adierazleen Panelak metodologia-aldaketa nabarmena izan zuen 2008. urtean eta, ondorioz, ezin daitezke aurreko edizioekin alderaketak egin.

– 20 eta 29 urte bitarteko mila gaztetik 46,7 Zientzia nahiz Ingeniaritzetan eta Giza nahiz Gizarte Zientzietan lizentziatu da; bien bitartean, Europako tasa milako 40,5 da.
– 25etik 64 urte dituzten biztanleen %42,2k goi-mailako ikasketak (unibertsitarioa edo goi-mailako lanbide-heziketa) ditu. Hori komunitateko batez bestekoaren (%24,3) ia bikoitza da.
– 25etik 64 urtera bitarteko biztanleen %13,5ek prestakuntza iraunkorraren jardueretan parte hartzen du; bien bitartean, Europan %9,6k egiten du.
– Gutxienez bigarren hezkuntza amaitu duen 20tik 24 urtera bitarteko biztanleria (%78) arinki dago Europako batez bestekoaren (%78,5) azpian.

Enpresaren loturak eta ekimena dimentsioak enpresa berritzaileen artean eta sektore publikoarekin lankidetzaren enpresa-ahaleginak eta kooperazioaren garrantzia azpimarratzen ditu.

– Enpresen berrikuntza-ehunekoa (%12,4, Europako %5,1en aldean) nabarmentzen da; bien bitartean, ETE berritzaileen ehunekoa, berrikuntzan lankidetzan jarduten duena, Erkidegoan pixka bat txikiagoa da (%8,2), Europako batez bestekoarekin alderatuz (%9,4).

Ondorio ekonomikoak dimentsioak berrikuntza-jarduerek enpleguaren, esportazioen eta salmenten gainean duten arrakasta ekonomikoa integratzen du.

– Zerbitzuen sektorean goi-mailako ezagutzak dituzten langileak enplegu guztiaren %19 dira; Europan, berriz, %14.
– Goi-mailako eta ertaineko teknologia duten manufaktura-sektoreetan enplegua guztiaren %7,7 da, batez besteko komunitarioak duen %6,6ren aldean.
– Teknologia ertainean eta goi-teknologian esportazioak esportazio guztien gainean %51,5 dira, hau da, Europako Elkartean (%47,4) baino ehuneko 4,1 puntu gehiago.
– Produktu-berrikuntzek negozio-zifraren gainean duten inpaktu ekonomikoa EAEn %15,4 da eta Europan batez beste %14,9.

Gainerako dimentsioetan lortutako puntuazioa Europako batez bestekoa baino txikiagoa izan arren, zenbait adierazletan EAEk antzeko emaitzak ditu; are gehiago, batzuetan hobeak EEkoekin alderatuz gero.

– 10 langile edo hortik gorako enpresen ehunekoa banda zabalarekin (%92) Europakoena (%81) baino handiagoa da.
– Berrikuntza teknologikorik egin duten ETEak %30,5 dira, EEkoen %33,7ren aldean.
– Kapital Arriskura bideratutako BPGren ehunekoa handiagoa da (%0,18 vs %0,14).
– Berrikuntza dela-eta baliabideetan eraginkortasunak enpresa berritzaileen %19,6an langileen kostuak murrizten ditu eta %9,4n materialen eta energiaren kontsumoa murrizten ditu; bien bitartean, Europan %18,0 eta %9,6 da, hurrenez hurren.
– BPGren gainean I+Gn gastu publikoa gure Erkidegoan (%0,35) Europan (%0,67) baino txikiagoa da; bien bitartean, gastu pribatua handiagoa da: EAEn %1,5era iristen da eta EE-27n %1,21en gelditzen da.

Hain positiboa ez den alderdian,

– Salmenten gainean berrikuntza-jardueretan gastua (I+Grena zenbatu gabe) 10 langile eta hortik gora dituzten enpresetan txikiagoa da (%0,75 eta %1,03 EE-27n).
– EPO patenteen kopurua milioi biztanle bakoitzeko 6,7 da EAEn, Europako zifraren (10,7) azpitik.
– Berrikuntza ez-teknologikoak (marketinga eta antolaketa) egiten dituzten ETE izenekoen ehunekoa (%27,1) EEkoa (%40,0) baino txikiagoa da.

2.2.3. IKTen sektorea EAEn

EUSTATen datuen arabera, IKT izenekoen sektorea 2.376 enpresak osatzen dute. 2007. urtean EAEn BPGren %3,9 izan zen eta enpleguaren %2,5 (aurreko urtean ehuneko berdinak).

IKTen sektorearen enpresen %8,3k (%8,1 2006. urtean eta %7,2 2005. urtean) I+Gren jarduerak egiten ditu. Zifra hori sektore guztientzat lortutakoa baino askoz handiagoa da. Horietan ez da %1era iristen (%0,7). IKTren sektorean I+Gn jarduerak egiten dituzten enpresak gehienak zerbitzuen adarrean kontzentratzen dira.

I.2.52. TAULA. Europako berrikuntza-indizea eis berrikuntza-adierazleen panela 2009 (EAE)

	OINARRIZKO UNITATEA	Denboral-dia (D)	DATUA	AURREKO DATUA (D-1)
	Batez besteko sintetikoa	---	0,51	0,50
GAITZAILEAK	**Batez besteko sintetikoa**	**---**	**0,56**	**0,53**
-Giza baliabideak	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,56*	*0,57*
- Zientzia eta Ingeniaritzetan eta Gizarte nahiz Giza Zientzietan lizentziatuak (20-29 urteko taldearen)	‰	2007	46,65	47,95
- Zientzia eta Ingeniaritzetan eta Gizarte nahiz Giza Zientzietan doktoreak (25-34 urteko taldearen ‰)	‰	2007	0,74	0,74
- Biztanleak hezkuntza tertziarioarekin (25-64 urteko taldearen %)	%	2008	42,18	42,50
- Prestakuntza iraunkorrean parte hartzen duten biztanleak (25-64 urteko taldearen %)	%	2008	13,50	13,25
- Gutxienez bigarren mailako hezkuntza bukatu duten biztanleak (20-24 urteko taldearen %)	%	2008	78,00	79,70
- Finantzazioa eta Laguntza	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,55*	*0,49*
- Gastu publikoa I+Gn (BPGren %)	%	2008	0,35	0,31
- Kapital-arriskua (BPGren %) (*)	%	2008	0,18	0,14
- Kreditu pribatua (BPGren gainean)	Fracción	2008	1,50	1,38
- Banda zabala duten enpresak (enpresen %)	%	2008	91,90	87,40
ENPRESA-JARDUERAK	**Batez besteko sintetikoa**	**---**	**0,44**	**0,42**
- Enpresa-inbertsioak	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,38*	*0,36*
- Gastu pribatua I+Gn (BPGren %)	%	2008	1,50	1,34
- Gastua TBn (BPGren %)	%	2006	2,09	1,98
- Gastua I+G ez denean berrikuntza (negozio-zifraren %)	%	2006	0,75	0,77
-Enpresaren loturak eta ekimena	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,56*	*0,56*
- ETEak barruko berrikuntzarekin (ETEen %)	%	2006	27,49	27,88
- Besteekin lanean jarduten duten ETE berritzaileak (ETEen %)	%	2006	8,22	6,51
- Enpresak berritzea (ETEen sarrerak+irteerak) (ETEen %)	%	2005	12,37	10,83
- Argitalpen publiko-pribatu bateratuak milioi biztanleko (*)	---	---	---	---
- Etekinak	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,38*	*0,36*
- EPO patenteak milioi biztanleko (*)	---	2006	6,68	7,76
- Erkidegoaren merkataritza-markak milioi biztanleko (*)	---	2008	13,27	13,27
- Erkidegoaren diseinua milioi biztanleko (*)	---	2008	10,15	10,15
- Teknologiaren Ordainketa Balantzaren fluxuak (BPGren %)	%	2008	1,32	0,64
- Produktibitateak	*Batez besteko sintetikoa*	---	*0,54*	*0,56*
BERRITZAILEAK	**Batez besteko sintetikoa**	**---**	**0,34**	**0,34**
- Berritzaile teknologikoak (produktua/zerbitzua/prozesua) (ETEen %)	%	2006	30,49	35,18
- Berritzaile ez-teknologikoak (marketinga/antolaketa) (ETEen %)	%	2006	27,10	27,10
- Berrikuntzarengatik baliabideetan eraginkortasuna	Batez besteko sintetikoa	---	0,39	0,43
- Langileen kostua murriztea (enpresen %)	%	2006	19,64	17,66
- Materialen eta energiaren erabilera murriztea (enpresen %)	%	2006	9,41	11,75
- Ondorio ekonomikoak	*Batez besteko sintetikoa*		*0,64*	*0,67*
- Goi-mailako ezagutza duen enplegua zerbitzuetan (enpleguaren %)	%	2008	7,68	8,85
- Teknologia ertain-altuko eta altuko manufakturan enplegua (enpleguaren %)	%	2008	19,03	19,25
- Goi-mailako teknologiaren eta teknologia ertainaren esportazioak (esportazio guztien %)	%	2008	51,51	53,62
- Goi-mailako ezagutza eskatzen duten zerbitzuen esportazioak (zerbitzu-esportazio guztien %)	%	2007	46,74	46,18
- Merkaturako produktu berrien salmenta (negozio-zifraren %)	%	2006	6,80	5,00
- Enpresarako produktu berrien salmenta (negozio-zifraren %)	%	2006	8,64	7,76

Iturria: EUSTAT

Jarduera horietan AOBn 1.597,4 langile aritu ziren eta 2006. urteko datuekin alderatuz langile-kopurua %12,3 hazi da, EUSTATen arabera. Horietatik 840,1 (%52,6) ikerlariak dira. Sektorean emakumezkoaren partaidetzari dagokionez, langileen %23,5 emakumezkoa da eta %22,6 ikerlaria; horiek aurreko urteetako ehunekoak baino handiagoak dira, baina biak sektore-multzorako batez bestekoak baino txikiagoak dira: %28,8 eta %28,9, hurrenez hurren.

Halaber, desberdintasun esangarriak daude sektoreen guztizkoaren eta IKTen artean berrikuntzan. Ildo horri jarraiki, 2007. urtean IKTren sektoreko establezimenduen %34,2 (%38,3 urtebete lehenago) berritzaileak dira sektoreen guztizkoaren %16,1en aldean (%16,6 urtebete lehenago). Era berean, IKTren sektoreko establezimenduen %32k (%44,8k urtebete lehenago) jarduera berritzaileak egin zituen, sektoreen guztizkoaren %15,5en aldean (%16,5 aurreko denboraldian). Beraz, establezimendu berritzaileak murriztearen aldeko joera dago IKTren sektorean ere bai. Enpresaren tamaina kontuan hartuz gero, 10 langile edo hortik gorako enpresetan ehunekoak handiagoak dira eta, gainera, goranzkoak.

IKTren sektorean I+Gn egindako barruko gastua 2007. urtean 87,2 milioi eurokoa izan zen eta aurreko urteko datuekin alderatuz, %18,7 hazi da. Zifra hori EAEn enpresa-sektorearen multzoak I+Gn egindako gastu guztiaren %9,8 izan zen. Gastua berrikuntzan 156,2 milioi eurokoa izan da.

Bi gastuen bizitasunari dagokionez, hau da, berrikuntzan eta I+Gn egindako gastuak negozio-zifran su-

I.2.53. TAULA. IKTren sektoreko magnitude nagusiak EAEn

		IKT sektorea guztira		Industria		Zerbitzuak		INDUSTRIA GUZTIRA	
		2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Datu orokorrak	Enpresak (1)	2.175	2.376	256	205	1.919	2.171	169.456	184.29
	Negozio-zifra (mila €)	4.931.300	5.200.624	1.011.700	1.038.932	3.919.600	4.161.692	-	-
	Balio erantsia (mila €)	2.146.900	2.291.496	378.6	393.483	1.768.300	1.898.013	54.903.000	59.349.634
	Okupatuak	24.277	25.150	7.049	7.227	17.228	17.923	987.058	1.015.038
I+G	I+G egiten duten enpresak	177	196	50	51	127	145	1.192	1.348
	EJC langile guztiak	1.422,8	1.597,4	583,4	625,9	839,4	971,5	9.765,4	10.898,7
	Emakumezkoen %	23,3	23,5	19,4	19,6	26,1	26	27,5	28,8
	EJC ikerlariak	772,1	840,1	375,7	411,6	396,4	428,5	5.304	6.194,1
	Emakumezkoen %	22	22,6	19,1	20,7	24,7	24,4	28,7	28,9
Establezimendu berritzaileak	Guztira (%)	38,3	34,2	27,9	31,3	39,8	34,5	16,6	16,1
	9 enplegutik gorakoak (%)	48,1	53,7	63,8	48,2	43,7	55,1	32,7	32
Establezimenduak jarduera berritzailearekin	Guztira (%)	44,8	32	30,1	28,7	46,9	32,4	16,5	15,5
	9 enplegutik gorakoak (%)	53,9	56,5	66,4	50,6	50,4	58	31,8	29,1

(1) Sektore primarioa eta etxeko zerbitzua izan ezik. Enpresa-kopuruaren lurralde-batura ez dator guztizkoarekin bat. Lurralde historiko bakoitzean jarduera duten enpresak zenbatu dira, baina bakarrik behin guztia EAEn.
Iturria: EUSTAT
Unitateak: kopuru eta datu ekonomikoak mila eurotan.

I.2.54. TAULA. I+Gren adierazle nagusien eboluzioa

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2007, enpresa-sektoreen multzoa
I+G egiten duten enpresak	50	121	130	142	177	196	1.348
Barruko gastua I+Gn (mila euro)	76.893	68.052	64.155	68.354	73.509	87.283	886.190
Langileak I+Gn (AOB)	1.438	1.287	1.208	1.270	1.422,8	1.597,4	10.898,7
Emakumezkoak I+Gn (AOB)	386	331	276	292	331,9	375,2	3.143,4
Ikerlariak (AOB) I+Gn	487	688	618	688	772,1	840,1	6.194,1
Emakuezko ikerlariak (AOB) I+Gn	93	141	118	145	170	189,6	1.792,4
Gastua berrikuntzan (milioi €)	-	-	-	-	144,2	156,2	2.610
Intentsitatea I+Gn (gastua/negozio-zifra)	-	2,7	2,8	2,6	2,6	2,5	0,7
Intentsitatea berrikuntzan	-	4,3	4,5	4,2	4,2	3,9	1,6

Iturria: EUSTAT

I.2.16. GRAFIKOA. IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabileraren adierazleak (%), 2007



Iturria: Eustat, (1) establezimendu Internet sarbidearekin

posatzen duenari erreparatuz, IKTren sektoreak gainerako sektoreek baino baliabide gehiago erabili zituen I+G+brako, baina I+Gn eta berrikuntzan intentsitateak beherantz egin du aurreko urteko datuekin alderatuz.

Espero zitekeen bezala, IKT izenekoen erabilera sektorean oso zabaldua dago eta are gehiago 9 langiletik gorako enpresetan. Sektoreko establezimenduen %97,6k internet erabiltzen du batez beste sektore-multzoaren %66,4ren aldean. Internet erabiltzen duten establezimenduen %68,1ek web gunea du eta %98,4k banda zabalaren bidez konexioa; sektore-multzoa hartuta datuak %42,6 eta %93,9 dira, hurrenez hurren. %97,6k posta elektronikoa du batez beste sektore-multzoaren %63,5en aldean.

Merkataritza elektronikoaren hedapena, berriz, gainerako sektoreek dutena baino handiagoa izan arren, txikia da. Elektronikoki establezimenduen %11,2k saldu zuen (%12,2k 9 langiletik gorakoetan) eta %48,4k erosketak egin zituen (%46,2k 10 edo langile gehiago dituzten establezimenduetan).

Datu horiek Estatuko datuekin alderatuz, 9 langiletik gorako establezimenduetan EAEko IKTren sektoreak teknologia horien erabilera-tasa handiagoak ditu adierazle gehienetan. Merkataritza elektronikoa egiten duen enpresen ehunekoa, berriz, txikiagoa da.

2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn

Etxeetan

IKT ekipamenduen maila familietan.

EUSTATen Informazio Gizartearen Galdeketari erreparatuz, serie estatistikoa hasi zenetik lehenengoz jaitsi egin da etxeetan IKT ekipamenduen maila agregatua 2008. eta 2009. urteen bitartean, IKT ekipamenduak dituzten familien urteko batez bestekoa milakoetan 826,6tik 825,2ra pasa baita.

Ekipamendurik hedatuenak telebista arrunta (822,7 mila familia), telefono finkoa (759,4), irratia (749,4), telefono mugikorra (724,2) eta telebista teletestuarekin (685,2) dira. Dena den, ekipamenduaren arabera azterketa eginez gero, aldaketak daude horien artean ordezkapen-ondasunak finkatzearen ondorioz. Ildo horri jarraiki, kable bidezko telebistak edo telebista digitalak gehitu dira telebista arrunten kalterako; DVDa bideoaren alternatiba bihurtu da; geroz eta familia gehiagok du mugikor bat edota ordenagailu bat baino gehiago (bereziki deigarria da ordenagailu eramangarrien hazkuntza); halaber, geroz eta familia gehiagok du interneten konexioa eta posta elektronikoaren kontu bat baino gehiago.

EUROSTATen datuen arabera, 2009. urtean EE-27n 16tik 74 urtera bitarteko kide bat interneterako konexioarekin etxebizitzen %65etan aurkitzen da eta banda zabalerako konexioarekin %56 da. Estatuan %54 eta %51 da, hurrenez hurren. Ondorioz, EAE, bi kasuetan %57rekin, Europako batez bestekoaren azpian dago arinki interneterako konexioari dagokionez, baina ez banda zabaleko konexioari erreparatuz. Dena den, oso urrun dago erreferentziazko herrialdeen datuetatik: Danimarka, Alemania, Holanda, Austria, Finlandia eta Suedia.

Zehatzago, INEren datuen arabera, 2009. urtean EAEk autonomia erkidegoen rankingean lehenengo tokia du telefono finkoz hornitutako etxebizitzen ehunekoan (%92,6); hirugarrena ordenagailuz hornitutako etxebizitzen ehunekoan (%66,4) eta interneterako konexioan (%57), Madril eta Kataluniaren atzetik; hamabigarren tokia betetzen du telefono mugikorrari dagokionez (aurreko denboraldiko bera) eta hamahirugarrena banda zabalerako konexioan (hamabigarrena aurreko denboraldian). Ondorioz, EAEk Estatuan posizioak galdu ditu banda zabalerako konexioei dagokienez.

IKT ekipamenduen maila familia-motaren arabera. Aurreko urteetako joera mantentzen da; hala, ekipamendu zabalduenak, hala nola ordenagailua, internet, argazki-kamera digitala eta telefono mugikorra gehitzen ari dira etxebizitza-mota guztietan (familiak seme-alabekin, bikoteak seme-alabarik gabe eta pertsona bakarraren etxebizitzak), bikoteetan mugikorra izan ezik. Hala ere, oraindik seme-alabak dituzten familiek dituzte ekipamendu-maila altuenak.

Bigarren tokian seme-alabarik gabeko familiak kokatzen dira eta, ondoren, pertsona bakarreko etxebizitzak.

I.2.55. TAULA. Familiak etxeetan IKT ekipamenduen arabera (urteko batez bestekoa milakoetan)

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Guztira	**756,1**	**758,8**	**768,8**	**782,6**	**798,7**	**828,6**	**825,2**
TB arrunta	753,7	756,6	766,5	781,4	797,4	827,1	822,7
Antena parabolikoa	97,8	105,4	79,9	83,0	88,4	83,4	78,5
Kable bidezko TB	69,7	106,2	179,5	209,4	227,4	239,6	248,6
TB digitala	–	–	9,7	46,8	127,8	216,2	301,1
TB ordaindua	52,7	56,8	66,3	103,8	159,0	121,9	99,3
TB teletestuarekin	536,6	547,6	593,0	618,9	654,5	688,3	685,2
Bideoa	541,3	542,4	532,9	516,9	522,6	504,4	467,5
DVDa	188,9	327,2	436,9	495,0	553,2	587,5	590,5
Musika-katea	491,9	517,1	498,5	523,5	530,7	530,4	509,9
Irratia	741,0	740,9	738,3	747,5	759,3	771,5	749,4
Autoa nabigatzailearekin	9,4	9,2	28,3	49,0	102,5	139,3	157,2
Telefono finkoa	695,0	716,5	725,4	730,8	736,7	763,1	759,4
Faxa	17,6	11,2	20,3	17,3	28,8	23,2	20,5
Telefono mugikorra	557,2	596,0	619,7	658,6	698,4	732,2	734,2
Mugikor bat	218,6	213,9	223,1	226,0	232,2	246,5	228,5
2 mugikor	194,9	202,8	221,3	232,1	254,5	262,1	272,0
3 mugikor eta gehiago	143,7	179,3	175,3	200,5	211,7	223,6	233,7
Argazki-kamera digitala	–	–	252,3	329,3	407,7	454,9	471,6
Edozein ordenagailu-mota	333,6	364,4	383,4	409,0	447,7	479,7	495,2
PCa	322,5	344,6	354,9	364,5	378,1	378,3	375,5
Eramangarria	26,6	49,0	64,6	96,3	139,0	197,6	232,3
PDA, palmtopa	1,2	10,6	8,0	9,1	10,3	6,1	5,0
Ordenagailu bat	308,0	319,5	328,7	336,1	357,6	364,0	359,0
2 ordenagailu	22,7	35,4	42,8	59,1	75,1	94,4	113,3
3 ordenagailu eta gehiago	2,8	9,6	11,8	13,9	14,9	21,3	22,9
Internet	220,6	257,4	279,1	313,6	355,7	404,4	428,3
Posta elektroniko bat-helbideak	92,0	115,9	121,5	129,8	140,5	156,1	156,3
2 posta elektroniko-helbide	58,4	75,9	82,6	95,2	117,4	137,5	150,0
3 posta elektroniko-helbide eta gehiago	31,0	38,7	47,7	60,8	82,1	92,4	104,6

Iturria: EUSTAT, ESIF

I.2.56. TAULA. Familiak (16-74 urte) etxean IKT ekipamenduaren arabera

		2005	2006	2007	2008	2009
Internet	EE-27	48	49	54	60	65
	Espainia-EUROSTAT	36	39	45	51	54
	Espainia-INE	37	41,1	44,6	51	51
	EAE-INE	43,2	45,7	50	57	57
Banda zabala-rekiko konexioa	EE-27	23	30	42	48	56
	Espainia-EUROSTAT	21	29	39	45	51
	Espainia-INE	24,5	32,6	39,2	44,6	51
	EAE-INE	24,2	33,1	40	43,7	57

Iturria: EUROSTAT eta INE

I.2.57. TAULA. Etxebizitzak autonomia erkidegoen eta ekipamendu-motaren arabera, 2009

	Ordenagailua	Internet	Banda zabalerako konexioa	Tel. finkoa	Tel. mugikorra
Guztira	**66,3**	**54**	**51,3**	**80,3**	**93,5**
ANDALUZIA	62,3	48,4	46,3	72,1	92,3
ARAGOI	68,5	54,2	50,8	88,4	91,4
ASTURIAS	64,7	54,9	51,2	83,8	93,8
BALEARS (ILLES)	67,5	59,7	58,2	86,1	94
KANARIAK	66,7	54,6	52,9	75,8	94,8
KANTABRIA	66,3	57	55,2	85	95,4
GAZTELA ETA LEON	61,6	45,4	41,1	82,7	90,4
GAZTELA-MANTXA	60,6	45,8	43,8	75,4	91,2
KATALUNIA	72,9	62,7	60,5	86,8	94,5
VALENTZIA	63,8	49,9	46,9	71,8	94,1
EXTREMADURA	58,2	41,7	39,4	68	92
GALIZIA	58,5	42,3	38,3	80,7	89,8
MADRIL	72,8	64,3	62,6	88,5	96,3
MURTZIA	62,9	46,9	44,4	66,7	93,8
NAFARROA	70,4	57,4	52,4	87,3	94,8
EAE	**68,2**	**59,7**	**55,2**	**90,3**	**94,7**
ERRIOXA	62,3	51,1	48	80,1	92,2
CEUTA	58,5	46,9	45,6	69,6	89,9
MELILLA	67,7	50,8	50,8	68,4	96,4

Iturria: INE

I.2.58. TAULA. Etxean ordenagailua, internet, telefono mugikorra eta argazki-kamera digitala duten familiak familia-motaren arabera (5)

	Telefono mugikorra			Argazki-kamera digitala			Ordenagailua			Internet		
	Seme -alabekin	Bikotea-rekin	Pertsona bakarrak	Seme-alabekin	Bikotea-rekin	Pertsona bakarrak	Seme-alabekin	Bikotea-rekin	Pertsona bakarrak	Seme-alabekin	Bikotea-rekin	Pertsona bakarrak
2003	401,4	85,5	70,3	–	–	–	276,7	32	24,8	184,8	21,7	14,1
2004	411	100	85	–	–	–	296,2	35,3	32,9	209,9	25,1	22,5
2005	411,8	120,8	87,1	199,3	31,8	21,2	304,3	43,4	35,7	224,3	30,2	24,6
2006	418,2	131	109,4	253,9	43,7	31,7	320,2	52,2	36,7	250,3	38,8	24,5
2007	421,8	144,2	132,4	305,3	58,8	43,6	337,4	62,8	47,5	275,7	47,5	32,5
2008	423,6	157	151,6	330,7	70,4	53,8	351,7	68,8	59,3	303,2	55,9	45,4
2009	427,1	155,2	151,8	340,7	71,3	59,6	361,9	70,1	63,2	320,2	58,4	49,6

Iturria: EUSTAT, ESIF

15 urte edo hortik gorako biztanleen artean. Ordenagailua sartu eta Interneterako konexioa izatea nahiz hori erabiltzea

Etxeetan/familietan IKT ekipamenduak sartzearen ildo beretik, 14 urtetik gorako biztanleen artean IKT izenekoak hedatzen ari dira, bideoaren, antena parabolikoaren eta ordaindu behar den TBren kasuan izan ezik.

EUSTATek hiru hilez behin saldoen datuak argitaratzeari utzi dio eta horien ordez urteko batez bestekoak erabiltzen ditu, beraz, aurten alderatzeko 2009. urteko batez bestekoari eta 2008ko laugarren hiruhilekoari erreparatuko zaie.

PC eta interneterako konexioari mugatuz, 2008ko azken hiruhilekoaren eta 2009ko batez bestekoaren artean ordenagailua ehuneko 1,1 puntu gehiago sartu da eta biztanleriaren %68,2ra iritsi da. Bestalde, etxebizitzetan interneterako konexioa duten 15 urte edo hortik gorakoen ehunekoa 1,3 puntu hazi da eta %58,1etik %59,4ra pasa da.

EUSTATen datuen arabera, 2009. urtean 15 urte edo hortik gorako %51,7 da interneten erabiltzailea, beraz, aurreko urteko datuekin (%50,5) erkatuz, ehuneko 1,2 puntu gehitu da (2006. urtean %41,6 zen eta 2007. urtean %47,4).

INEren datuen arabera, EAEk gora egiten jarraitzen du erabilerari erreparatuz, baina posizioak galtzen ditu Estatuko rankingean. Hala, 2008. eta 2009. urteen artean, azken hiru hilabeteetan internet erabili duten 16-74 urteko pertsonen ehunekoa honakoa izan da: PCa %63,7tik %65,5era pasa da; internet %59,5etik %62,5era eta interneten bidez erosi dutenen ehunekoa 13,3tik %15,4ra pasa da. Lehenengo kasuan, PCaren erabilera rankingean 6. posiziotik 5.era pasa da eta, bigarrenean, interneten erabilerak 6. posizioa berreskuratu du, aurreko denboraldian 4. posizioa lortu ostean.

2009ko EUROSTATen eta INEren datuak gurutzatuz, galdeketa egin baino lehen aurreko hiru hilabeteetan astean behin internet erabiltzeari dagokionez, EAEk (%56) Estatuko batez bestekoa (%53,6) baino posizio altuagoa du, baina EE-27 (%60), EE-25 (%62) eta EE-15en (%64) azpitik dago.

Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta lan-egoeraren arabera azterketa eginez, desberdintasunak mantentzen direla ondoriozta daiteke, bai izateari, bai erabiltzeari dagokionez; beraz, taldeen artean zulo digitalak bertan jarraitzen du eta, gainera, gizarte-talde desberdinen ongizatea baldintza dezake.

I.2.17. GRAFIKOA. 15 eta hortik gorako biztanleak etxean duten IKT ekipamenduen arabera (%)



Iturria: EUSTAT. ESIF

Gorago aipatu den bezala, EUSTATek hiru hilez behin saldoen datuak argitaratzeari utzi dio eta horien ordez urteko batez bestekoak erabiltzen ditu, beraz, aurten alderatzeko 2009. urteko batez bestekoari eta 2008ko laugarren hiruhilekoari erreparatuko zaie.

Sartzea generoaren arabera: ordenagailuaren sarrera-tasa gizonezkoetan eta emakumezkoetan hazi da 2009. urtean. Gauza bera gertatzen da interneterako konexioa sartzeari dagokionez. Alderatuz, gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago sartu da; dena den, zuloa murrizten ari da aurreko urteko datuekin erkatuz. Ildo horri jarraiki, 2008. urtean desberdintasuna 5,6 puntukoa bazen (%70 gizonezkoentzat eta %64,4 emakumezkoentzat), 2009. urtean gizonezkoetan sartze-data %70,4 izan da eta emakumezkoetan %66,2 (4,2 puntuko diferentzia). Interneterako konexioari buruz, 2008. urtean desberdintasuna 5,4 puntukoa bazen (%60,9 gizonezkoentzat eta %55,5 emakumezkoentzat), 2009. urtean gizonezkoetan data %61,6 izan da eta emakumezkoetan %57,3 (2,5 puntuko diferentzia).

Interneten erabilera generoaren arabera: tasa bi generoen kasuan hazi da, baina bien arteko desberdintasuna jaitsi egin da 2008. urteko datuekiko. Hala eta guztiz ere, oraindik gizonezkoek jarraitzen dute posizio hobean (2008. urtean diferentzia 8,8 puntukoa bazen, 2009. urtean 8,3koa izan da). Hala, erabileratasa %56ra iritsi da gizonezkoen kasuan eta %47,7ra emakumezkoen kasuan.

EUROSTATen datuei jarraiki, EEn gizonezko gutxiagok erabili du internet astean behin galdeketa hasi aurretik dauden azken hiru hilabeteetan (EUROSTATek erregulartasunez erabiltzea definitzen du); 2009. urtean, berriz, emakumezkoena handiagoa da. Eta hori hala gertatzen da EE-27 (%64 %57ren aldean: ehuneko 7 puntu, aurreko urtean bezala), EE25 (%66 %59ren al-

I.2.59. TAULA. IKT ekipamenduak biztanleen artean erabiltzea (16-74 Urteko pertsonen %)

	PCa erabili dute azken 3 hilabeteetan		Internet erabili dute azken 3 hilabeteetan		Internet erabili dute gutxienez astean behin azken 3 hilabeteetan (erregulartasunez EUROSTATen arabera)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Guztira	**61,0**	**63,2**	**56,7**	**59,8**	**49,2**	**53,6**
ANDALUZIA	55,5	59,2	50,7	54,8	43,7	47,9
ARAGOI	62,7	67,7	55,7	62,8	48,8	56,9
ASTURIAS	60,2	61,2	54,9	58,1	47,5	51,5
BALEARS (ILLES)	63,6	68,0	60,6	65,0	52,2	59,6
KANARIAK	61,4	59,1	57,6	56,9	47,5	48,7
KANTABRIA	61,4	63,6	57,2	60,3	50,2	54,6
GAZTELA ETA LEON	57,9	61,1	52,3	57,4	45	49,7
GAZTELA-MANTXA	56,1	57,6	50,5	55,3	43,7	48,5
KATALUNIA	68,0	68,8	64,2	66,0	59,1	60,7
VALENTZIA	58,6	64,1	55,6	60,5	46,4	52,9
EXTREMADURA	49,5	53,5	43,5	49,6	36,3	41,5
GALIZIA	52,1	54,3	47,6	49,8	37,9	44,5
MADRIL	70,0	40,1	67,0	67,8	59	63,6
MURTZIA	53,4	55,2	48,7	51,4	40,1	46,0
NAFARROA	65,2	70,0	59,0	65,5	49,2	57,6
EAE	**63,7**	**65,5**	**59,5**	**62,5**	**51,5**	**56,0**
ERRIOXA	60,0	58,7	56,1	53,6	50	46,2
CEUTA	56,5	54,1	54,7	49,3	46,8	44,6
MELILLA	55,8	58,2	48,6	53,6	39,3	46,4
EE-27, EUROSTAT	–	–	–	–	56	60
EE-25, EUROSTAT	–	–	–	–	58	62
EE-15, EUROSTAT	–	–	–	–	60	64
Espainia, EUROSTAT	–	–	–	–	49	54

Iturria: INE (prentsa-oharra) eta EUROSTAT

dean: 7 puntu, urtebete lehenago baino puntu bat gehiago) eta EE15en (%67 %60ren aldean: 7 puntu, aurreko denboraldian bezala).Alderdi positibo bezala aipatu behar da gizonezkoen aldeko diferentziak aurreko urteetan handiagoak zirela .

Sartzea adinaren arabera: ordenagailua eta interneterako konexioa duen biztanleriaren ehunekoak beherantz egiten du adinarekin (nahiz eta tasak urtez urte hobetzen joan adin-taldearen arabera). Ildo horri jarraiki, 15-24 urteko adin-kohortean oso altuak dira, itxuraz, asetze-puntura iritsi arren, %93 eta %86 inguru, hurrenez hurren. 25 eta 44 urte bitarteko taldeak bigarren posizioa du, goranzko aldaketa-tasekin, beraz, ordenagailuan sartze-tasek %82 gainditzen dute eta inter-

neten %68,5. 45 urte eta hortik gorako adin-taldean sartze-tasa oraindik oso txikia da: %53,6 eta %47,1, hurrenez hurren.

Interneten erabilera adinaren arabera: erabileraratioek adinarekin beherantz egiten dute, baina kasu honetan kohorte txikienaren eta handienaren arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira. Hala, EAEn 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen %91,7 erabiltzailea da, 45 urtetik gorakoen %28,6ren aldean. Bi taldeen arteko diferentzia berriz ere hazi da (61,1 puntu 2008. urtean eta 63,1 2009. urtean).

Sartzea ikasketa-mailaren arabera: ikasketa-maila handiagoa den heinean, ordenagailu gehiago daude eta interneterako konexioak ugariagoak dira eta tasak gehitu egin dira aurreko urteetako datuekin erkatuz (goi-mailako ikasketan dituzten 15 urtetik gorako taldean dauden ordenagailuak eta interneterako konexioak izan ezik; dirudienez topera iritsi dira). Ildo horri jarraiki, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorako %89,3k (%89,5ek 2008. urtean eta %87,6k 2007. urtean) du ordenagailua; hori %79,3ra murrizten da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen kasuan (%77,2 aurreko urtean) eta %35,3ra (2008. urtean %34,9) bakarrik lehen mailako ikasketan dituztenetan. Interneterako konexioen kasuan, portaera antzekoa da, nahiz eta ehunekoak txikiagoak izan: %82 goi-mailako

I.2.60. TAULA. EAEn ordenagailua eta interneterako konexioa nahiz erabilera 14 urtetik gorako biztanleek sartzea ezaugarrien arabera (%)

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Interneterako konexioa etxean					Erabilera				
		2008ko IV	2009ko batez beste-koa	2008-09 dif.	2008ko batez beste-koare-kin dif.	2009ko batez beste-koare-kin dif.	2008ko IV	2009ko batez beste-koa	2008-09 dif.	2008ko batez beste-koare-kin dif.	2009ko batez beste-koare-kin dif.	2008ko IV	2009ko batez beste-koa	2008-09 dif.	2008ko batez beste-koare-kin dif.	2009ko batez beste-koare-kin dif.
15 urte edo gehiagoko biztanleak		67,1	68,2	1,1	0	0	58,1	59,4	1,3	0	0	50,5	51,7	1,2	0	0
Sexua	Gizona	70	70,4	0,4	2,9	2,2	60,9	61,6	0,7	2,8	2,2	55	56	1	4,5	4,3
	Emakumea	64,4	66,2	1,8	-2,7	-2	55,5	57,3	1,8	-2,6	-2,1	46,2	47,7	1,5	-4,3	-4
Adina	15-24	93,1	93	-0,1	26	24,8	86,1	86,2	0,1	28	26,8	88,2	91,7	3,5	37,7	40
	25-34	82,3	84,8	2,5	15,2	16,6	70,8	73	2,2	12,7	13,6	79,2	80	0,8	28,7	28,3
	35-44	81,4	82,1	0,7	14,3	13,9	67,5	68,5	1	9,4	9,1	70,1	71,5	1,4	19,6	19,8
	45 eta gehiago	52,3	53,6	1,3	-14,8	-14,6	45,4	47,1	1,7	-12,7	-12,3	27,1	28,6	1,5	-23,4	-23,1
Ikasketa-maila	Lehen maila	34,9	35,3	0,4	-32,2	-32,9	29	29,6	0,6	-29,1	-29,8	6,3	7	0,7	-44,2	-44,7
	Bigarren maila	77,2	79,3	2,1	10,1	11,1	65,6	67,8	2,2	7,5	8,4	60,7	63,7	3	10,2	12
	Goi-maila	89,5	89,3	-0,2	22,4	21,1	82	82	0	23,9	22,6	88,7	86,7	-2	38,2	35
Erlazioa jarduerarekin	Ikaslea	95,8	96,3	0,5	28,7	28,1	90	91,3	1,3	31,9	31,9	95,4	97	1,6	44,9	45,3
	Okupatua	82,2	83,5	1,3	15,1	15,3	71,2	73,2	2	13,1	13,8	68,7	70,5	1,8	18,2	18,8
	Ez-aktiboa/langabezian	41,9	44,4	2,5	-25,2	-23,8	34,8	36,7	1,9	-23,3	-22,7	17,7	20,4	2,7	-32,8	-31,3

Iturria: EUSTAT "ESIF"

ikasketak dituen taldearen kasuan, %67,8 bigarren mailako ikasketak dituztenetan eta %29,6 lehen mailako ikasketak besterik ez dituztenen kasuan.

Interneten erabilera ikasketa-mailaren arabera: 2005. eta 2006. urteen bitartean erabilera-ratioa murriztu egin zen bakarrik lehen mailako ikasketak zituen biztanleria-multzoan (%4,1etik %3,9ra); hala ere, joerak, dirudienez, ez du jarraitzen, 2007. urtean ratioa %5,6n kokatu baitzen, 2008. urtean %6,3n eta 2009. urtean %7n. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren kasuan, ehunekoa handia eta goranzkoa da; goi-mailako ikasketak dituen biztanlerian, berriz, ehunekoa handiagoa izan arren, aurreko denboraldiarekiko arinki beherantz egiten ari da.

Sartzea lan-egoeraren arabera: ikasten edota lanean ari diren biztanle-taldeak dira berriz ere ordenagailu eta interneterako konexio gehienak dituztenak eta tasak nabarmenki murrizten dira, pertsona ez-aktiboen edota langabetuen kasuan. Hala, ikasleek ordenagailua izateari dagokionez, %96tik gorako tasak dituzten bitartean eta interneterako konexioak %91,3 diren bitartean, ez-aktiboak/langabetuak ez dira %45 eta %37ra iristen, hurrenez hurren.

Interneten erabilera lan-egoeraren arabera: Arestian deskribatutakoaren antzeko egoera ikusten da internet erabiltzeari dagokionez; ikasten ari den pertsonen %97 interneten erabiltzailea da; bien bitartean, bakarrik langabetuen eta ez-aktiboen %20,4k erabiltzen du. Bereziki azpimarragarria da ikasleen erabilera-ratioa konexioarena baino handiagoa izatea (%97 %91,3ren aldean). Etxeko puntu desberdinetatik sartzen dira eta hori da desberdintasunaren arrazoia.

Beste ildo batetik, gizarte-talde guztietan (salbuespenak izan ezik, besteak beste, goi-mailako ikasketak dituztenen taldea) interneten erabileraren ehunekoa hazten ari da, baina gizarte-taldeen artean diferentziak handiagoak dira erabileran horniduran baino.

Oinarrizko IKTen hornidura (PCa, posta elektronikoa, internet eta telefono mugikorra) enpresetan

EUSTATEN Enpresetan Informazioaren Gizarteari buruzko Galdeketaren (ESI-enpresak) azken edizioari erreparatuz, IKT ekipamenduak euskal enpresetan sartzeko prozesuak hazten jarraitzen du.

I.2.61. TAULA. IKT ekipamenduetan EAEko establezimenduen eboluzioa jarduera-sektorearen arabera (establezimenduen %)

	Industria				Eraikuntza				Zerbitzuak				GUZTIRA			
	PCa	e-maila	Internet	Tel. mug.	PCa	e-maila	Internet	Tel. mug.	PCa	e-maila	Internet	Tel. mug.	PCa	e-maila	Internet	Tel. mug.
2003	68,9	51,3	55,5	72,7	46,6	25	30,2	81,8	58,5	40,9	43,3	59,7	57,9	39,8	42,7	63,8
2004	70,6	52,8	57,0	75,0	52,1	28,9	37,5	85,6	60,1	43,9	46,1	58,5	59,9	42,7	45,9	63,6
2005	74,9	61,4	64,3	81,6	60,7	33	44,6	94,6	64	49	51,7	66,8	64,5	48	51,9	71,7
2006	77,8	64,9	66,2	81,0	64,2	38,6	48,8	93,2	68,4	53,1	56,8	68,2	68,6	52	56,4	72,8
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68,0	49	56,3	91,4	70,3	58	61,5	72,6	70,7	57,6	61,6	75,8
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	73,9	58,1	65,1	92,2	74,4	63,5	65,8	76,3	74,8	63,5	66,4	79,2
2009	82,9	76,0	77,0	85,5	74,1	62,8	66,8	91,1	75,7	66,8	69,5	77,1	76,0	66,9	69,6	79,8

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

I.2.62. TAULA. IKTen enpresa-ekipamendua (IKT duten langileen %)

	Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			GUZTIRA		
	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet
2003	38,7	28,2	22,9	30,1	17,5	18,6	62,3	43,5	44,5	52,6	36,7	36
2004	40,9	29,6	26,8	34,8	22,7	23,9	61,3	45	46,1	53,1	38,6	38,6
2005	41,7	31,9	28,2	38,8	27,4	31,2	64,4	50,1	51,1	55,8	43	42,9
2006	44,6	37	33,2	43,8	30,8	35,7	67,4	54,3	54,9	58,9	47,3	47,2
2007	43,9	36,3	32,4	43,3	35,8	37,5	67,3	54,9	57,5	59,1	48,4	49,2
2008	46,5	36,4	32,1	41,8	35,8	38,5	68,5	56,3	57,5	60,5	49,5	49,5
2009	49,8	39,0	35,1	42,1	38,0	37,6	70,0	60,0	61,2	62,5	52,8	52,7

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

Ekipamendurik zabalduena telefono mugikorra da eta atzetik ordenagailu pertsonala, interneterako konexioa eta posta elektronikoa daude. Ildo horri jarraiki, establezimenduak kontuan hartuta, langileen eskura telefono mugikorra %79,8k jartzen du (gogora dezagun 2003. eta 2004. urteen bitartean sartzea murriztu zela). %76k ordenagailu pertsonala du. Internet dutenena berriz hazi da, kasu honetan ehuneko 3,2 puntu eta %69,6ra iritsi

I.2.63. TAULA. Enpresen IKT ekipamendua tamainaren arabera (IKT duten establezimenduen edo langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet			
	% establ. arabera		% enpleguaren arab.		% establ. arabera		% enpleguaren arab.		% establ. arabera		% enpleguaren arab.	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Guztira	**74,8**	**76,0**	**60,5**	**62,5**	**63,5**	**66,9**	**49,5**	**52,8**	**66,4**	**69,6**	**49,5**	**52,7**
0tik 2ra	65,1	65,2	58	58,7	52,6	54,7	45,1	47,1	56,3	58,1	48,9	51,0
3tik 9ra	87,5	88,4	61	62,6	76,3	80,2	47,6	51,7	78,7	82,5	50,1	54,3
10etik 19ra	97	96,9	56,2	55,3	93,6	93,4	46,1	47,9	92,6	93,7	47,3	48,6
20tik 49ra	98,4	99,0	56,6	58,5	95,9	97,1	46,6	51,1	93,4	96,1	46,9	50,5
50etik 99ra	99,7	99,2	61	65,5	98,9	98,8	53	56,8	98,4	99,2	52,4	54,7
>= 100	99,9	99,6	64	65,8	99,6	99,2	53,3	55,9	99,5	99,3	49,2	52,8

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

da. Posta elektronikoa dutenena, ordea, 3,4 puntu hazi da eta %66,9ra iritsi da. Jarduera-sektoreen arabera, berriz ere argi eta garbi nabarmentzen da industria gainerako sektoreen gainean; dena den, harrigarria da telefono mugikorra eraikuntzan sartzearen hedadura; arinki murriztu arren, aurreko denboraldian gehitu ostean.

Bestalde, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileak geroz eta gehiago dira ere. Langileen %62,5ek ordenagailu pertsonala du, %52,8k posta elektronikoa eta %52,7k internet. Jarduera-sektoreen arabera, beste urtebetez eta aurreko kasuaren aldean (establezimenduen %), azpimarratu behar dena zerbitzuen sektorea da. Arrazoia, funtsean, honakoa da: zerbitzuen sektorean ekipamendu horiek sartu eta erabiltzeko jarduera aproposagoak daudela. Horien artetik teknologia berriei, bitartekaritza finantzarioari eta enpresa-zerbitzuei lotutakoak aipa daitezke.

Enplegu-geruzen arabera aztertuz gero, lehenik eta behin, hurrengoa ondorioztatu behar da: enplegu-tamaina handiagoa duten heinean, hobekuntza-tartea urria denez, hazkuntzak ekipamenduak murritzagoak direla eta lehenengoz jaitsiera arinak geratu dira zenbait enplegu-geruzatan. Izan ere, industrian egoera hori ematen da 10etik 19ra, 50etik 99ra bitarteko geruzetan eta >=10 geruzan. Bigarrenez, diferentzia horiek nabarmenagoak dira establezimenduetan enpleguan baino. Arrazoia, besteen artean, establezimendu txikien aurrerapen handiagoa da; gainera, handietan langile guztiek ez dute horietara iristeko aukerarik.

Joera bera hautematen da Europan ere; izan ere, EUROSTATen datuen arabera, internet asetze-mailara iritsi da, bai enpresa handietan (ia %100ek du), bai ETEetan (EE15en %96 eta EE27n %94), bai sektore gehienetan.

IKT espezializatuagoen hornidura enpresetan

Aurreko urteen ildotik eta nahiz eta IKT espezializatuenak oraindik sartze-maila murritzak izan, horiek erabiltzeko orduan, hazkuntzak hautematen dira. Erabilienak jarraitzen izaten dute funtsen transferentzia elektronikoa (establezimenduen %58,1ek du) eta tokiko sarea edo hedatua (establezimenduen %45,6k). Bigarren taldea osatzen du datuen truke elektronikoak; hori nabarmenki gehitu da 2008. eta 2009. urteen bitartean, hain zuzen ere, establezimenduen %15,6tik %20,2ra; sare pribatu birtuala edo balio erantsikoa eta haririk gabeko sarea (wireless) ere talde honetan sartzen dira bakoitza establezimenduen %19,4rekin. Urrunago gelditzen dira intraneta (%17,7) eta estraneta (%11,8).

Teknologia horiek industriaren eta zerbitzuen sektoreetan eraikuntzaren sektorean baino hedatuagoak daude. Izan ere, industriak eta zerbitzuek gutxi gorabehera antzeko portaera dute, teknologiaren arabera aldaketa arinekin.

Berriz ere establezimenduaren tamaina funtsezko aldagaia da teknologia horien sarrera azaltzeko orduan. Izan ere, horiek beren ezaugarriengatik, erakunde handiagoei lotzen zaizkie. Ildo horri jarraiki, 99 enplegutik gora dituzten enpresen %97,8k du tokiko sarea eta 3tik beherakoen artean bakarrik %30,2tan dago; sare birtuala 99 enplegutik gorako enpresen ia %75ean erabiltzen da eta 3tik beherakoetan bakarrik %10,2k erabiltzen du. Antzeko portaera antzeman daiteke intranetean.

IKT enpresan erabiltzea: Internet erabiltzea

Interneten inguruan euskal enpresek egiten duten erabilera-motari dagokionez, lehenik eta behin, dokumentazioa bilatzeko erabiltzen da (%96,2); bigarrenez, banku-informazioa edo informazio finantzarioa lortzeko

I.2.64. TAULA. Interneterako konexioa duten 9 enplegutik gorako enpresen ehunekoa

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EE27	88	91	92	93	93	94
EE25	89	91	93	95	94	95
EE15	91	92	94	95	95	96
ESPAINIA	87	90	93	94	95	96

Iturria: EUROSTAT

I.2.65. TAULA. Establezimenduen % sare-ekipamenduaren eta truke informatiko eta elektronikoaren arabera

	Tokiko sarea edo hedatua			Haririk gabeko sarea (wireless)			Sare pribatu birtuala edo balio erantsikoa			Intraneta			Estraneta			Funtsen transferentzia elektronikoa			Datuen truke elektronikoa (EDI)		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Guztira	**37,7**	**43,6**	**45,6**	**10,8**	**17,1**	**19,4**	**11,5**	**18,9**	**19,4**	**17,8**	**15,4**	**17,7**	**8**	**9,2**	**11,8**	**43,6**	**54**	**58,1**	**12,3**	**15,6**	**20,2**
Industria	48	48	52,9	12,3	19,1	23,0	15,2	19,8	21,8	19,1	11,5	15,5	8	8,6	9,8	48,6	56	63,2	14,7	18,2	26,6
Eraikuntza	23,3	36,5	32,0	4,4	12,8	12,3	6,5	12,8	11,2	11,8	9,2	9,7	1,6	1,9	4,1	28,6	43,2	49,0	7,1	11,3	16,1
Zerbitzuak	39,2	44,4	47,4	11,8	17,7	20,4	12	19,9	20,7	18,8	17	19,4	9,1	10,6	13,5	45,8	55,7	59,3	13	16,1	20,4
Enplegu-geruzak																					
0tik 2ra	26,4	29,9	30,2	8	13	13,7	6,1	11,1	10,2	10,7	7,6	9,5	4,5	4,9	6,5	34,8	43,6	45,6	7,9	10,1	11,7
3tik 9ra	53,9	59,5	62,0	13,7	20,7	24,6	18,4	27	28,3	27	23,5	24,9	11,5	13,1	16,7	59,3	67,6	73,0	17,8	20,4	28,8
10etik 19ra	76,8	76	75,8	19,1	30,6	28,6	27,4	37	35,1	39,6	32,5	36,6	22,6	22,9	24,3	69,1	75,9	80,8	25,7	31,8	36,6
20tik 49ra	88,1	86,5	88,1	28,1	30,5	40,2	37,3	44,8	48,4	52,8	45,7	45,4	26	25,4	31,8	71,6	79,3	82,4	32,3	38,8	45,6
50etik 99ra	96,8	94,1	94,7	35,9	46,8	46,1	50,6	61,8	63,0	69,7	57,4	57,4	35,9	32,6	31,1	71,4	79,6	83,2	48,8	49,9	52,9
>= 100	97,3	97,4	97,8	53,5	57,6	60,8	68,3	71,1	75,0	83,6	74,2	75,0	48,7	43,3	50,7	72,1	78,9	83,6	56,9	58,2	61,5

Iturria: EUSTAT, ESI-enpresak

(%75,9) eta, hirugarrenez, banku-transakzioak edo transakzio finantzarioak egiteko (%66). Bigarren multzoan sartzen dira herri-administrazioarekin izapideak (%59,8); prestakuntza-materialak lortzea (%51,1); hornitzaileen-bezeroen datu-baseak erabiltzea (%43,7) eta produktu digitalak jaso edo jaistea (%41,7).

Kasu horietan guztietan, ondasunak eta zerbitzuak erostearen salbuespen bakarrarekin, dinamismo handiagoa dago tamaina handiko enpresa-multzoan, hau da, 9 enplegu gainditzen dituzten horietan.

Erabilera-mota bakoitzean establezimenduen ehunekoa berriz hazi da 2008. eta 2009. urteen artean, ondasun eta zerbitzuen erosketaren edota salmentaren kasuan izan ezik. Horietan establezimenduen ehunekoa arinki murriztu da.

Jarduera-sektoreen arabera, industriaren eta zerbitzuen sektoreak dira dinamismo handiena dutenak. Zehazki, industriak gainerakoek baino erabilera-ratio handiagoak ditu dokumentuak bilatzeko, hornitzaileen datu-baseak lortzeko, ondasunak eta zerbitzuak erosteko, ondasunak eta zerbitzuak saltzeko, administrazioarekin izapideak egiteko, banku-informazioa edo informazio finantzarioa lortzeko, lehiakideak aztertzeko, produktu digitalak jaso eta jaisteko eta banku-transakzioak edo finantzarioak egiteko. Bestalde, zerbitzuak prestakuntzan nabarmentzen dira: prestakuntza-materialak lortzea, langileak elkartzea eta salmenta osteko zerbitzuak lortzea.

Teknologia berriak erabiltzeari buruz enpresen posizioa aztertzeko orduan, beste adierazle garrantzitsua horien presentzia interneten da, bai web orriaren bidez zerbitzari propioan, bai beste baten zerbitzarian ostatatutako orriaren bitartez. EUSTATek eskainitako azken datuek 2008. eta 2009. urteen artean ehuneko 2,1 punturen hazkuntza azaltzen dute. Hala, web orria interneterako konexioa duten establezimenduen %32,4k

I.2.66. TAULA. Interneterako konexioa duten establezimenduen % erabilera-motaren arabera EAEn

	% estab. guztien arabera			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 enplegutik gora		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Dokumentazioa bilatzea	94,0	96,0	96,2	92,7	95,1	97,9	95,4	96,6	96,0	93,9	96,0	96,1	95,5	96,4	98,1
Hornitzaileen-bezeroen datu-baseak lortzea	41,2	42,7	43,7	41,1	45,4	47,3	38,3	43,0	42,3	41,6	42,3	43,6	53,2	51,5	53,6
Prestakuntza: prestakuntza-materialak lortzea	27,4	46,7	51,1	20,5	38,5	48,5	20,2	36,8	41,5	29,3	49,4	53,1	39,8	56,6	58,4
Ondasun eta zerbitzuak erostea	18,3	21,1	19,9	18,7	22,3	21,4	11,2	11,1	12,4	19,4	22,8	21,1	18,8	22,6	19,8
Ondasun eta zerbitzuak saltzea	4,7	5,5	4,9	7,2	7,7	6,9	1,3	0,5	1,5	5,0	6,1	5,3	6,7	8,2	8,3
Herri-administrazioarekin izapi-deak egitea	44,6	52,8	59,8	50,4	55,8	63,2	38,4	47,8	56,0	44,9	53,4	60,1	74,2	78,8	82,2
Banku-informazioa eta finantza-rioa lortzea	70,1	73,5	75,9	79,2	83,0	85,2	66,1	74,0	80,4	69,7	72,4	74,1	80,6	83,1	84,1
Lehiakideak aztertzea	25,2	28,3	32,4	32,0	32,1	40,0	12,8	22,5	25,2	26,5	28,9	32,9	39,5	42,3	45,5
Langileak biltzea	14,4	18,1	18,3	14,1	16,1	17,2	9,3	13,0	11,8	15,3	19,2	19,6	28,2	33,1	35,6
Salmenta osteko zerbitzuak lortzea	18,4	22,2	24,2	17,9	21,4	22,7	11,0	14,0	11,3	19,7	23,7	26,7	25,5	30,0	32,8
Produktu digitalak jaso edo jaistea	37,6	40,9	41,7	37,8	37,7	44,1	28,2	33,1	35,6	39,1	42,7	42,6	49,9	51,8	52,8
Banku-transakzioak/finantza-rioak egitea	63,8	66,6	66,0	76,5	76,6	75,4	59,1	67,4	70,9	63,1	65,4	64,1	79,0	78,6	77,7

Iturria: EUSTAT, ESI-enpresak

I.2.67. TAULA. Establezimenduak sektorearen eta enplegu-geruzaren arabera eta web orriaren eskuragarritasuna

	Guztira			Propioa			Ostatatua		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Guztira	**26,2**	**30,3**	**32,4**	**13,2**	**13,7**	**14,1**	**12,9**	**16,5**	**18,3**
Jarduera-adarra									
Industria	33,3	36,1	42,9	14,7	12,9	14,6	18,6	23,1	28,3
Eraikuntza	13,7	18,3	17,1	7,3	6,7	5,3	6,4	11,6	11,8
Zerbitzuak	27,6	31,9	34,3	14,1	15,1	15,7	13,5	16,8	18,6
Enplegu-geruzak									
0tik 2ra	16,0	17,6	18,2	7,7	7,3	6,9	8,3	10,3	11,3
3tik 9ra	41,4	45,1	47,1	21,5	21,9	22,2	19,8	23,2	24,8
10etik 19ra	55,0	58,4	60,0	28,1	26,3	26,7	26,9	32,1	33,3
20tik 49ra	69,4	67,6	74,2	38,3	30,3	30,6	31,2	37,2	43,6
50etik 99ra	87,2	85,9	87,1	44,6	35,9	33,7	42,6	49,9	53,4
100etik gora	88,6	87,6	90,0	45,2	41,5	43,2	43,4	46,0	46,7

Iturria: EUSTAT. ESI enpresak.

I.2.68. TAULA. WEB guneak dituzten establezimenduen % sektore, tamaina eta eskainitako prestazioen arabera

	Guztira												9 enplegutik gorako establezimenduak		
	Guztira			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak					
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Enpresari buruzko informazio orokorra	96,9	98,3	97,9	96,8	98,8	99,3	94,9	99,8	100,0	97	98,1	97,5	97,8	98,3	98,9
Ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa	84,5	80,8	70,5	83,7	83,2	71,4	68,2	54,8	74,9	86	83,2	70,0	86,9	85,7	71,8
Produktu/zerbitzuen zuzeneko ordainketa	13	11,6	11,5	4,8	4,8	4,8	1,8	0	1,4	15	13,6	13,2	9,4	10,5	12,4
Eskaeren jarraipena	16,2	14,9	15,4	6,8	6,8	5,9	6,8	4,2	6,5	18,2	16,9	17,3	14,2	14,9	17,0
Salmenta osteko zerbitzua	22,8	24,7	24,5	14,4	13,5	14,8	7,5	12,4	20,7	25,2	27,2	26,0	25,2	23,8	26,6
Produktu digitalen zuzeneko banaketa	9,3	8,9	8,3	5,7	3,1	3,0	4,7	3,6	0,8	10,1	10,1	9,7	8,7	9,6	9,4
Transakzio babestuak	17,7	16,8	15,4	9,2	5,9	8,4	9,1	2,1	2,1	19,6	19,5	17,5	19,4	17,1	18,9
Informazioaren pribatutasun-aitorpena	36,6	43,4	42,4	22,1	26,9	30,8	13,1	16,3	26,8	40,4	48,1	45,2	43,8	48,5	50,4
Enplegu-eskaintzei buruzko informazioa	20,5	25	25,4	6	8,9	12,5	14,3	11,4	14,5	22,9	28,2	28,0	28	33,1	35,2
Ohiko erabiltzaileentzat edukiak pertsonalizatzea	0	16,5	15,9	0	6,6	6,2	0	8	8,8	0	18,5	17,8	0	16	15,7
Minusbaliotasuna duten pertsonentzat irisgarritasuna	0	15,1	15,3	0	6,6	7,0	0	8	9,0	0	16,8	16,9	0	17,3	19,2
Produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko aukera	0	5,2	5,1	0	3,1	4,3	0	0	0,3	0	6	5,6	0	5,6	5,2

Iturria: EUSTAT. ESI enpresak.

du. Horietatik %18,3k beste baten zerbitzarian ostatatua du.

Ehuneko horiek handiagoak dira establezimenduaren tamaina handiagoa den neurrian (0 eta 3 enplegu bitartean dituzten establezimenduen %18,2tik 100etik gora dituztenen %90era -%43,2 hosting propioarekin-) eta jarduera-sektoreen arabera aldatzen dira; nolanahi ere, industrian eta zerbitzuetan web orrien eskuragarritasuna arinki handiagoa da. Nabarmentzekoa da nahiago dela web orria beste baten zerbitzarian ostatatua izatea; joera hori baieztatzen ari da 2006. urtearen ondoren ostatatutako web orria finkatzean, zerbitzari propioa izatearen kontra.

Establezimenduetako web orriek eskainitako prestazioei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, gehienek (%97,9k urtebete lehenagoko %98,3ren aldean) enpresari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, baita enpresari buruzko zerrenda edo katalogo orokorra ere (%70,5, %80,8 aurreko urtean eta %84,5 aurrekoan). Bigarrenez, eskainitako beste prestazioen multzoa aurkitzen dugu: informazioaren pribatutasunaren aitorpena (%42,4, %43,4 aurreko denboraldian),

enplegu-eskaintzei buruzko informazioa (%25,4), salmenta osteko zerbitzua (%24,5, %24,7 aurreko denboraldian) eta enplegu-eskaintzei buruzko informazioa (%25,4, %25 aurreko denboraldian). Hirugarrenez, beste zerbitzu eta edukiak eskaintzen dira establezimenduetako web orrien %5,1etik %15,9ra bitartean, besteak beste, transakzio babestuak, produktu digitalen zuzeneko banaketa, produktu/zerbitzuen zuzeneko ordainketa, eskaeren jarraipena, pertsona minusbaliatuekiko irisgarritasuna, ohiko erabiltzaileentzat edukien pertsonalizazioa eta produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko aukera.

Berriz ere zerbitzuen sektoreko establezimenduetan ezarpena eta eskainitako zerbitzuen aniztasuna handiagoa da eta argi eta garbi industriaren sektorearen gainean kokatzen da. Eraikuntzaren sektorean, berriz, ezarpena batez bestekoaren azpian dago, enpresari buruzko informazio orokorraren eta ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoaren kasuan izan ezik.

2.2.5. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak

Familiak eta erabiltzaileak

INEren datuen arabera (2009ko urrian argitaratutakoak[7]), EAEn galdeketaren erreferentziazko denboraldian interneten erabiltzaile guztien (16tik 74 urtera bitartekoak) gainean, bide hori erabiliz azken hilabetean erosi duten erabiltzaileen ehunekoa murriztu egin da, izan ere, ratioa %17,1etik %16,3ra pasa da, 2008. eta 2009. urteen artean. Portaera ez da Estatuan errepikatzen. Bertan eboluzioa goranzkoa da, %14tik %14,3ra. Hilabete bat baino gehiago eta hiru hilabete baino gutxiago erosi duten pertsonen ehunekoa gehitu da. Gauza bera gertatu da duela 3 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosketa egin zutenekin.

Interneten bidez erosi ez duten pertsonen ehunekoa kontuan hartuta, EAEk (%47) gainerako autonomia erkidegoekin erkatuz kokapen ona duela ondoriozta daiteke, bik bakarrik (Balearrak, %42,4) eta Kataluniak (%46,5) baitituzte ehuneko txikiagoak.

Hala eta guztiz ere, *azken hilabetean erosi duten pertsonen ehunekoa* aztertuz, sei autonomia erkidego aktiboagoak dira: Melilla (%23,6), Balearrak (%21,3), Madril (%18,3), Galizia (%17), Kantabria (%16,7) eta Nafarroa (%16,5); EAE zazpigarren postuan dago %16,3rekin, arestian aipatu den bezala.

EAEn merkataritza elektronikoaren hedapena EEkotik oso urrun dago; izan ere, EUROSTATen arabera, 2009. urtean azken 3 hilabeteetan EE27n interneten bidez %28k erosi zuen, EE25en %30ek eta EE15en %33k. Estaturako EUROSTATek eskainitako datua, berriz, %16 da, beraz, alderaketa arrazoizkoa da, datuak erabat homogeneoak ez izan arren. Merkataritza-mota horren aldekoenak honako herrialdeak dira: Erresuma Batua (%58), Danimarka (%50), Holanda (%49), Alemania (%45), Suedia (%45) eta Luxenburgo (%46).

2009. urtean, interneten bidez gehien erosi ziren hiru produktuak helburu pribatuekin edo etxerako azken 12 hilabeteetan EAEn, INEren datuen arabera, oporretarako ostatua (hotela, apartamentua, etab.) (helburu pribatuekin azken 12 hilabeteetan interneten bidez erosi duten pertsonen %51,2), bidaietarako beste zerbitzuak (garraio publikoaren txartelak, autoen alokairua) (%48,4) eta ikuskizunetarako sarrerak (%43,5) izan dira.

Ondoren, bigarren multzoa dago eta bertan kirol-materiala eta –jantziak (%27,9), liburuak, aldizkariak edo on line prestakuntza-materiala (%27,9), ekipamendu elektronikoa (%24,7) eta etxebizitzarako ondasunak (altzariak, jostailuak...) (%22) sartzen dira.

Estatuan gehien erosi diren hiruak honako hauek izan dira ere: oporretarako ostatua (hotela, apartamen-

[7] Etxeetan Informazio eta Komunikazio Teknologien Erabilera eta Ekipamenduari buruzko Galdeketa 2002az gero urtero egiten da eta landa-lanak urte bakoitzaren 2. hiruhilekoan egiten dira; dena den, 2005. eta 2006. urteetan, gainera, 2. seihilekoaren datuak lortu ziren eta landa-lanak laugarren hiruhilekoan egin ziren EUROSTATek argitaratzen dituen datuekin gehiago alderatzeko, 2006ko lehenengo seihilekotik aurrera aurkezten diren datuak gutxienez 16 urtetik 74 urtera bitarteko pertsona bat bizi den etxebizitzetakoak eta adin-tarte horretan dauden pertsonenak dira.

I.2.69. TAULA. Azken 3 hilabeteetan internet erabili eta erosi duten pertsonak

	2007ko 1. saldoa (urrian argitaratutakoak)		2008 (urrian argitaratutakoak)		2009 (urrian argitaratutakoak)	
	Estatuan guztira	EAE	Estatuan guztira	EAE	Nazioan guztira	EAE
Interneteko erabiltzaileak guztira azken 3 hilabeteetan	**17.580.587**	**751.968**	**19.572.899**	**974.595**	**20.741.237**	**1.017.520**
Azken hilabetean erosi duten pertsonen %	14,7	13,8	14	17,1	14,3	16,3
Hilabete bat baino gehiago eta hiru hilabete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	10,3	11	9,3	8,9	11,9	13,9
3 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	-	-	10,7	12,3	11,9	13,1
Duela urtebete baino gehiago erosi duten pertsonen %	4,6	10,4	6,5	8	7,3	9,6
Interneten bidez erosi ez duten pertsonen %	60,3	54	59,5	53,8	54,7	47,1

Iturria: INE

I.2.18. GRAFIKOA. Azken hilabetean interneten bidez erosi duten eta erosi ez duten pertsonen ehunekoa. 2009



Iturria: INE

I.2.70. TAULA. Merkataritza elektronikoa helburu pribatuetarako edo etxeetarako erabiltzea, 2009

	2009	
	ESTATUA	EAE
Azken 12 hilabeteetan interneten bidez erosi duten pertsona guztiak (16tik 74 urtera)	**7.962.848**	**449.048**
Elikadura-produktuak	8,8	10
Etxerako ondasunak (altzariak, jostailuak, etab.)	18,1	22
Sendagaiak	0,7	1,4
Pelikulak, musika	11,8	13,1
Liburuak, aldizkariak, egunkariak, on line prestakuntza-materiala	19,6	27,9
Kirol-materiala, jantziak	21,5	27,9
Ordenagailu-jokoen eta bideo-kontsolen softwarea eta eguneratzeak	10,9	10,2
Ordenagailuaren beste softwarea eta eguneratzeak	13	16,8
Ekipo informatikoa (ordenagailuak eta osagarriak)	14,9	19,8
Ekipamendu elektronikoa (adibidez, kamerak)	18	24,7
Telekomunikazio-zerbitzuak (adibidez, banda zabalean izen-ematea, telefono finkoaren edo telefono mugikorraren linea-kontratuak, aldez aurretik ordaintzeko telefono-txartelak kargatzea, etab.)	10,4	8,7
Akzioak erostea, aseguru-polizak edo bestelako zerbitzu finantzarioak	6,9	7,4
Oporretako ostatuak (hotela, apartamentua, etab.)	48,1	51,2
Bidaiatzeko bestelako zerbitzuak (garraio publikoaren txartelak, autoen alokairua, etab.)	49,9	48,4
Ikuskizunetarako sarrerak (zinea, antzerkiak, kontzertuak…)	36,4	43,5
Bestelako produktu eta zerbitzuak	14,2	14,3

Iturria: INE

tua, etab.), azken 12 hilabeteetan helburu pribatuekin interneten bidez erosi duten pertsonen %48,1ek erosia; bidaietarako bestelako zerbitzuak (garraio publikoaren txartelak, autoen alokairua), %49,9k erosiak eta ikuskizunetarako sarrerak (%36,4).

Enpresak

Merkataritza elektronikoak EAEren enpresa-ehunean gorantz egiten jarraitzen du sortutako zenbateko ekonomikoei erreparatuz, nahiz eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua murriztu.

Sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bitartez (EDI, datu elektronikoak trukatzea, etab.) 2008. urtean sortutako negozio-bolumena 7.157 milioi eurokoa izan zen salmenta elektronikoan eta 3.542 milioikoa erosketetan. Aurreko urteko datuekin alderatuz, %11,9 hazi da salmentetan eta %11,3 erosketetan.

Jarduera-sektoreen arabera, industriak sortzen du negozio-bolumenik handiena (5.893,4 milioi euro salmenta eta erosketen artean) eta atzetik zerbitzuak

1.2.71. TAULA. Erosketak eta salmentak jarduera-adarraren eta enplegu-geruzaren arabera (milioi €)

	Erosketak					Salmentak				
	2004	2005	2006	2007	2008	2004	2005	2006	2007	2008
Guztira	**2.012,5**	**2.371,7**	**2.647,8**	**3.102,4**	**3.452,4**	**4.311,8**	**5.008,1**	**5.645,3**	**6.395,4**	**7.157,0**
Jarduera-adarra										
Industria	1.003,3	1.249,2	1.361,1	1.527	1.682,6	2.780,2	3.289,6	3.784,6	4.366,4	4.962,9
Eraikuntza	4,9	2,9	4,3	25,3	28,2	0,6	2,4	14,8	44,8	68,1
Zerbitzuak	1.004,3	1.119,6	1.292,4	1.550,1	1.741,6	1.531,0	1.716,1	1.845,9	1.984,2	2.126,0
Enplegu-geruzak										
0tik 9ra	511,4	705,0	769,5	882,3	1.010,5	507,2	656,1	678,4	641,6	652,1
10 eta hortik gora	1.501,1	1.666,7	1.878,3	2.220,1	2.441,9	3.804,6	4.352,0	4.966,9	5.753,8	6.504,9

Iturria: EUSTAT. Informazio Gizartearen gaineko Galdeketa – ESI Enpresak.

daude (3.534,3 milioi euro). Elektronikoki sortutako negozio-zifra eraikuntzan oso txikia da.

Merkataritza elektronikoa (hitza zabalean hartuta) egiten duten establezimenduen ehunekoak atzera egin du 2007. urteko guztiaren %15,3tik 2008ko %15era.

Zifra ekonomikoetan salmentek erosketak bikoiztu arren, partaidetzan, bitarteko elektronikoak erabiliz produktuak erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz handiagoa da. Izan ere, %15eko proportzioa, nagusiki, erosketak egiten dituzten establezimenduek zehazten dute (%13,9 eta %14,1 aurreko urtean), saltzen dutenak ez baitira %3,4ra iristen (%3,6 urtebete lehenago).

EAEn gutxi gorabehera 29.450 establezimenduk egiten du merkataritza elektronikoa. Horrez gain, prozedura horiek erabiliz establezimenduek egiten dituzten erosketak erosketa guztien %22,6 direla kalkulatzen da; salmentak, berriz, salmenta guztien %26,9.

Establezimenduen tamainaren arabera bereiziz, erosketa elektronikoen ehunekoa handiagoa da 10 enplegutik beherako enpresetan 10 enpleguetatik gorakoetan baino. Salmenta gehiago egiten da, berriz, enpresa handiagoetan.

Ildo horri jarraiki, *"on line"* saldu zuten 9 enplegutik gorakoen enpresa-ehunekoa EAEn 2008. urtean %8 izan zen. EUROSTATen datuen arabera, 2008. urtean modu berean (internet, EDI edo beste sareen bitartez)[8] saldu zuten enpresen ehunekoa EE27n %16 izan zen, EE25en %17 eta EE15en %18. 2009. urtean ehunekoak txikiagoak dira: %12 EE27n, %12 EE25en eta %13 EE15en.

Bestalde, on line erosi zuten 9 enplegutik gorako enpresen ratioa EAEn %19,1 izan zen (%21,4 aurreko urtean). EUROSTATen datuen arabera, *"on line"* erosi zuten 9 enplegutik gorako enpresen ehunekoa 2008. urtean EE27n %28 izan zen, EE25en %30 eta EE15en %32. 2009. urtean ehunekoak txikiagoak dira: EE27n %24, EE25en %25 eta EE15en %27.

[8] Galdeketa egin baino lehen, hain zuzen ere, aurreko urtean. Bakarrik on line %1etik gora saltzen duten enpresak eta arduraldi osoan 9 langiletik gora dituztenak kontuan hartzen dira (ez da sektore finantzarioa sartzen).

I.2.72. TAULA. Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen eboluzioa (%)

	Establezimenduak guztira						10 edo langile gehiagokoak					
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Merkataritza elektronikoa	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2
Erosketak	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1
Salmentak	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,7	4,1	5,1	6,4	7,8	8,0
% erosketen arabera (*)	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3
% salmenten arabera (*)	20,6	22	24,6	24,4	20,7	26,9	15,5	15	19,4	21,7	31,5	28,6

(*) merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, salerosketa elektronikoen batez besteko % salerosketa guztien gainean
Iturria: EUSTAT. ESI-enpresak

I.2.19. GRAFIKOA. Salmenta elektronikoak egiten dituzten establezimenduen ehunekoa bezero-motaren eta urtearen arabera



Iturria: Eustat. Prentsa-oharrak

Merkataritza elektronikoaren salmenta bideratu den bezero-motari dagokionez, EUSTATen arabera, 2008. urtean salmenta elektroniko guztien %89,8 beste enpresetarako egina (B2B) izan zen, %9,3ren hartzaileak kontsumitzaile partikularrak (B2C) izan ziren eta %0,9 gainerakoa beste jomugen artean banatu zen, hala nola herri-administrazioak, etab. (B2G).Zifra horiek aurreko urteetako zifrekin alderatuz, beste enpresei egindako salmenten garrantzia hazi da, kontsumitzaileei saldutakoaren kalterako.

Bitartekoa aztertuz gero, %59,2 EDIren eta beste sareen bidez egin da, %21,2 posta elektronikoz eta %19,6 web orriaren bidez. Salmenta elektronikoak egin dituzten enpresen %25,9k *"on line"* jaso ditu ordainketak.

3

EAE-ko ingurune naturalaren egoera

3.1 EAE-ko 2002-2020KO INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA. INGURUMEN ADIERAZLEAK

a. Airearen kalitatea eta atmosfera kutsatzaileen isuriak

Urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuaren xedea inguruneko aireak dauzkan sufre dioxido (SO_2), nitrogeno dioxido (NO_2), partikula (PM_{10}), berun (Pb), bentzeno eta karbono dioxido (CO) kontzentrazioentzako "gehienezko balioak" eta "alerta atariak" zehaztu eta ezartzea, substantzia horiei dagokienez airearen kalitatearen ebaluazioa, mantentzea eta hobekuntza arautzea eta biztanleriari eta Europar Batzordeari jakinaraztea da, substantzia arautuek giza osasunean eta ingurumen osoan dauzkaten ondorio kaltegarriak saihestu, prebenitu eta murrizteko helburuz.

Errege Dekretu horri dagokionez, "ebaluazio" hitza inguruneko airean dagoen kutsatzaile maila neurtzeko, balioesteko, iragartzeko edo kalkulatzeko erabilitako bide orori dagokio.

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako airearen kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzko maiatzaren 21eko 2008/50/CE Zuzentarauak PM 2.5erako xede baliotzat 25 ug/m3ko balioa ezarri zuen (urte zibileko aldia). Balio horretara 2010ean iritsi beharko da.

Inguruneko aireko ozonoari buruzko abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuak xedatzen duenez, ozono kontzentrazioen xede balioak beranduenez 2010ean hasitako hirurtekoan erdietsi beharko dira, giza osasuna babesteko xede balioei dagokienez, edo urte horretan hasitako bosturtekoan, landaretza babesteko xede balioari dagokionez. Balioak honakoak dira: 120 µg/m3, giza osasunaren babesari dagokionez 3 urteko aldian urte zibil bakoitzeko gehienez ere batez beste 25 egunez gainditu ahalko dena; eta, batez beste, 18.000 µg/m3.o 5 urteko aldian.

Azken urteotan, euskal ekoizpen egituraren birmoldaketari eta atmosferako kutsadura arintzeko ekintzei esker kutsadura maila handi historikoak asko murriztu dira. ***Airearen kalitatearen***[1] ***eta partikulen isurien*** adierazleak positiboak dira eta norabide egokian doaz, PM_{10} partikulei dagokienez ekintzak bizkortu behar badira ere.

2005. urtea arte, airearen kalitate indizea kalkulatzean EAEko lurraldeko zortzi gune hartzen ziren aintzat- Urte horretan egindako azterketen ondoren, EAE hamaika gunetan banatzea hobetsi zen. Era berean, airearen kalitate indizearen maila kopurua aldatu zen, 4 mailatik (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) 6ra (ona, onargarria, neurrizkoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua).

Gune bakoitzak, bestalde, zenbait *urruneko estazio* dauzka, eta haietan kutsatzaileak (SO_2, NO_2, PM_{10}, O_3 eta CO) denbora errealean neurtzen dituzten sentsoreak eta analizatzaile automatikoak, indizea kalkulatzeko.

Estazio bakoitzean kutsatzaile bakoitzerako banakako indizea, *indize partziala* deritzona, kalkulatzen da. *Estazio bakoitzeko indize orokorra bat dator portaerarik txarrena daukan kutsatzailearen indize partzialarekin.* Horrela, estazio bakoitzerako indize orokor bat dago. Era berean, gune bateko estazioetako indize orokorren baliorik txarrena gune horretarako airearen kalitatea definitzen duena da.

Indizearen balioa 0 da kutsatzailearen kontzentrazioa hutsa denean, eta 100eko balioa ematen zaio balioa Errege Dekretuak ezarritako gehienezko balioarekin bat datorrenean. Beste edozein kontzentraziotarako indize balioa interpolazio linealaren bidez lortzen da.

[1] EAEko airearen kalitate indizea lortzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago. Hark, EAEko zenbait gunetan banatuta dauzkan estazioen bitartez, denbora errealean zenbait parametro neurtzen ditu, besteak beste, sufre dioxidoa (SO_2) bezalako kutsatzaileak, nitrogenoa eta oxigenoa zenbait proportziotan dauzkaten gas oso erreaktiboak (NOx) [hala nola oxido nitrikoa (NO) eta nitrogeno dioxidoa (NO_2)], karbono monoxidoa (CO), 10 µm-ko partikulak (PM_{10}) eta troposferako ozonoa (O_3).

I.3.1. TAULA. Airearen kalitateari buruzko legedia: 10703/2002 ED, urriaren 18koa, sufre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari, nitrogeno oxidoei, partikulei, berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari dagokienez inguruneko airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa. Gehienezko balioak + tolerantzia tartea

Kutsatzailea	Batez besteko aldia	Alerta ataria	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Oharpenak
SO_2	Ordubete	500 µg/m3 durante 3 horas consecutivas	440	410	380	350	350	350	350	350	µg/m3 **Onartuak: 24 urte zibileko**
	24 ordu		125	125	125	125	125	125	125	125	µg/m3 gehienez **Onartuak: 3 urte zibileko**
	Urte zibila (*) eta negua		20	20	20	20	20	20	20	20	µg/m3
NO_2	Ordubete	400 µg/m3 durante 3 horas consecutivas	280	270	260	250	240	230	220	210	µg/m3 máx. **Onartuak: 18 urte zibileko**
	Urte zibil 1		56	54	52	50	48	46	44	42	µg/m3 gehienez
NOx	Urte zibil 1		30	30	30	30	30	30	30	30	µg/m3
PM_{10}	24 ordu	-	65	60	55	50	50	50	50	50	µg/m3 gehienez **Onartuak: I fasea: 36 urteko II fasea (2010): Ez da indarrean sartuko**
	Urte zibil 1	-	44,8	43,2	41,6	40	40	40	40	40	µg/m3
Pb	Urte zibil 1	-	0,8	0,7	0,6	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	µg/m3 **Muga orokorra PM10 2006ko urt. 1az gero**
	Urte zibil 1	-	1,0	1,0	1,0	1,0	0,9	0,8	0,7	0,6	µg/m3 **Iturri zehatzen inguruetan PM10 2010eko urt. 1az gero**
Bentzenoa	Urte zibil 1	-	10	10	10	10	9	8	7	6	µg/m3
CO	Gehienezko zortzi orduko batez bestekoa eguneko	-	16	14	12	10	10	10	10	10	mg/m3

* Urte zibila: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza.

I.3.2. TAULA. Airearen kalitateari buruzko legedia: Europar parlamentuaren eta kontseiluaren 2008/50/CE zuzentaraua, maiatzaren 21ekoa, Europako airearen kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzkoa (lekualdatzeke)

Kutsatzailea	Batez besteko aldia	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Oharpenak
PM2,5	Urte zibil 1	30	29,3	28,6	27,9	27,1	26,4	25,7	25	25*	MT 2008 20%
										24*	µg/m3

2010eko helburua: 25 µg/m3 FASE II: 2020ko urteko muga : 20 µg/m3 (*2013an Batzorderako berrikusi behar).
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza.

I.3.3. TAULA. Airearen kalitateari buruzko legedia: 1796/2003 ED, inguruneko aireko ozonoari buruzkoa

	2010ERAKO XEDE BALIOA*	EPE LUZERAKO HELBURUAK
1. Giza osasuna babesteko xede balioa	1. 120 µg/m3, zein 3 urteko aldian urte zibil bakoitzean batez beste gehienez ere 25 egunez gainditu ahalko baita.	1. 120 µg/m3
2. Landaretza babesteko xede balioa	2. 18.000 µg/m3 h, batez beste, 5 urteko aldian	2. 6.000 µg/m3 h

*Data harrezkero egiaztatuko da xede balioak bete direnetz. Hots, 2010eko datuak hurrengo hiru edo bost urteetan beteko den egiaztatzeko erabiliko diren lehenak izango dira.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza

Airearen kalitate indizeak esleitutako balio bat izango du, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, gune horretako airearen kalitatea txarragoa izango da. Eguneroko indizea da, hots, egunero aldatzen da indizearen balioa eta, beraz, dagokion guneko airearen kalitateari buruzko informazioa ere bai, eta horregatik aurki daitezke airearen kalitate indize zenbait dauzkaten guneak.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, esan daiteke airearen kalitatea ona edo gutxienez onargarria dela azpi-gune guztietan.

11 laginketa estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra daukatenen egun guztien gaineko portzentajeari dagokionez, esan behar dugu 2008 eta 2009 artean murriztu egin dela, %08tik %0,35era, zenbaki absolututan 34 egunetik 14ra. Bestalde, neurrizko aire

I.3.4. TAULA. Lurraldearen zonakatzea
1. Hegoaldeko Araba
2. Arabako lautada
3. Arabako Errioxa
4. Kostaldea
5. Donostialdea
6. Oria Garaia
7. Urola Goiena
8. Ibaizabal – Debagoeina
9. Nerbioi Garaia
10. Enkarterriak
11. Nerbioi Behera

kalitatekoen portzentajea ere murriztu egin da, %2,4tik %2,2ra, zenbaki absolututan 96 egunetik 89ra.

2009an, batez ere honakoak nabarmentzen dira: Urola Goiena (airearen kalitate txarreko 12 egun –aurreko urtean baino 8 gutxiago- eta neurrizko kalitateko 45 –aurreko urtean baino 19 gehiago-) eta Hegoaldeko Araba (kalitate txarreko egun bat eta neurrizkoko 6).

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzaren arabera honakoa daukagu:

– **SO_2**ri dagokionez, 2009an Airearen Kalitatearen Zaintza eta Kontrol Sare osoan ez zen 1073/2002 EDn xedatutako eguneko gehienezko balioa (125 µg/m3 / geh. 3xurte zibil) gainditu.

I.3.5. TAULA. Airearen kalitatea EAE-n (egunetan)

	2009								Txarra edo oso txarra		Neurrizkoa	
	Ona	Onargarria	Neurrizkoa	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua	GUZTIRA	Jasangarritasun adierazlea	2008	2009	2008	2009
Hegoaldeko Araba	173	185	6	1	0	0	365	98,08%	0	1	1	6
Arabako lautada	208	156	1	0	0	0	365	99,73%	2	0	3	1
Arabako Errioxa	169	194	0	1	0	0	364	99,73%	1	1	1	0
Kostaldea	216	145	4	0	0	0	365	98,90%	0	0	4	4
Donostialdea	259	105	1	0	0	0	365	99,73%	0	0	5	1
Oria Garaia	172	181	12	0	0	0	365	96,71%	3	0	13	12
Urola Goiena	153	155	45	12	0	0	365	84,38%	20	12	26	45
Ibaizabal – Debagoeina	230	122	13	0	0	0	365	96,44%	6	0	23	13
Nerbioi Garaia	264	101	0	0	0	0	365	100%	1	0	4	0
Enkarterriak	242	122	0	0	0	0	364	100%	0	0	2	0
Nerbioi Behera	217	141	7	0	0	0	365	98,08%	1	0	14	7
EAE GUZTIRA (EGUNAK)	**2.303**	**1.607**	**89**	**14**	**0**	**0**	**4.013**	**–**	**34**	**14**	**96**	**89**
EAE GUZTIRA %	**57,39**	**40,04**	**2,22**	**0,35**	**0**	**0**	**–**	**–**	**0,8**	**0,35**	**2,4**	**2,22**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzaren datuetatik norberak egina.

Ordubeteko aldietako SO_2 kontzentrazioari dagokionez, sarearen estazioetan ez zen 350eko balioa gainditu izana erregistratu, Azpeitiko estazioan izan ezik, bertan 2009/05/21ean hiru aldiz neurtu baitziren eguneko 350 µg/m3 gaineko balioak. Legediaren arabera eguneko 350 µg/m3ko gehienezko balioa urte zibil bakoitzeko 24 aldiz baino ezin da gainditu; hortaz, ezarritako muga ez da gainditu eta indarreko legedia bete da.

– **NO_2** isuriei dagokienez, 2009an ez da inoiz gainditu 1073/2002 EGn NO_2rako xedatutako orduko 210 µg/m3ko muga. Urte zibil bakoitzeko gehienez 18 aldiz gaindi daiteke. Urte osoan 210etik gorako 3 neurketa baino ez ziren erregistratu. Honakoak izan ziren: 249 ug/m3 2009/04/27an Ategorrieta etorbideko estazioan; 302 ug/m3 2009/07/20an Santa Anako estazioan; eta 240 ug/m3 2009/01/27an Seranteseko estazioan.
Giza osasuna babesteko urteko batez besteko balioari dagokionez, 2009an ez zen gainditu araudian xedatutako balioa. Gehienezko batez besteko balioa Zorrotzako parkeko estaziorako kalkulatu da (42 µg/m3).
– 2009an CO isurien erregistroek ez dute inoiz gainditu legez ezarritako 10 mgr/m3ko mugaren gaineko zortzi orduetako batez bestekoa.
– Landaretza **NO_2 y SO_2**ri dagokienez babesteko airearen kalitatearen ebaluazioari dagokionez (babestu beharreko ekosistemen erakusgarriak diren estazioak hartu behar dira aintzat eta horretarako Izki, Mundaka, Pagoeta eta Valderejo hartu dira aintzat, ekosistemen babeserako estazioak izateko baldintzak zorrotz bete ez arren). 2009ko urteko batez besteko balioek ez dituzte ezarritako mugak gainditu.
– **PM_{10}** isuriei dagokienez, oraindik ikusten da legezko mugak gainditu direla, baina aurreko urteetan baino gutxiagotan. Izan ere, 2007an 13 estaziok gainditzen zuten urteko batez bestekorako muga (35 egun urteko); 2008an 4k, eta 2009an 3 izan ziren, Larraskitu, Mazarredo eta Zumarraga.
Mazarredo eta Larraskituri dagokienez, gainditu izana estazioen inguruan egiten ari diren lanei egotz dakieke. Mazarredoren kasuan, Guggenheim inguruko obrengatik eta Larraskituko estazioan Supersur delakoagatik.
– 2,5 mikratik beherako diametroko aireko partikulak (PM2,5). 2009an, PM2,5 neurtzeko sareko puntuetan ez da balioa gainditu.
– **O_3**. 2007-2009 aldian Valderejoko estazioan aurten hasi den hirurtekorako giza babeserako ezarritako xede balioa gainditu zen. Landaretzarako xede balioari dagokionez, Eltziegon gainditu zen.

b. Uraren kalitatea

Kontinente eta itsasoko uren egoera. Makroornogabe bentikoak[2]

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiak (2002-2020) eta II Ingurumen Esparru-Programak proposatutako konpromisoa honakoa da: 2012rako azaleko ur masen %80k "egoera" ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea; eta ur artifizial eta oso aldatuen masen %80k ahalmen ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea.

Ur politiken eremuan erkidegoko jarduera esparrua xedatzen duen 2000/60/CE zuzentarauaren arabera, "egoera" kontzeptu hori bateratuta ur ekosistemen funtzionamendua islatzen duten eragile guztiak aintzat hartu ondoren definitzen da. Horrela hiru adierazle mota erabiltzen dira: biologikoak, fisiko-kimikoak eta hidromorfologikoak. Zuzentarau horren arabera, egoera biologikoaren balorazioa adierazle biologiko bakoitzaren

[2] Organismo horiek ibai eta erreketako zoruetan eta haitzak eta hostoak bezalako gaietan errotuta bizi dira. Ur gorputzetako presentzia eta aniztasuna haien kalitate ekologikoaren adierazle ezin hobeak dira, bizi diren inguruneko aldaketa fisiko, kimiko eta fisikokimikoen aurrean oso sentiberak direlako. Adierazle ona dira laginak hartzeko erraztasunagatik eta aldaketen aurreko sentiberatasun handiagatik.

baloraziorik txarrenari dagokio. Beste adierazleek, egoera biologikoaren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa zehaztea ahalbidetzen dute.

2006ko abenduaz gero, eraginak 2007an izanda, 2000/60/CE zuzentaraua ezartzeko estrategiaren barruan, egoeraren jarraipen sareen eraginkortasunaren berri eman zen. Halaber, elkar kalibraketako europar ariketa delakoaren lehenengo fasea bukatu da. Haren xedea Europa mailan daudenen artean konparagarriak diren kalifikazio sistemak lortzea da.

Kontinenteko uren egoera: ibaiak

Guztira, ibai kategoriako 123 ur masa identifikatu dira: 95 ur masa naturalak dira, 9 urtegi motakoak dira eta 19 behin-behinean oso aldatutzat jotako ur masak dira.

Beste batzuetan bezala, egoerara hurbiltzeko azterketa partziala egin da. Horretarako, makroornogabe bentikoentzako egoera ekologikoaren balorazioa (MBi indizea) egin eta ingurumen helburuak ezarri dira (IH); baita baldintza fisikokimiko orokorrak ere (FKI-E indizea).

MBi (*makroornogabe bentikoak*) indizearen bidez lortutako balorazioetatik, II Ingurumen Programa-Espa-rruaren denbora esparruan (2007-2010) proposatutako ingurumen helburuen betetze maila baxua da, eta azken kanpainetako emaitzen egonkortasuna islatzen du.

EAE osorako azken urteotan balorazioak egin zaizkion 114 ur masa naturalak (ibaiak) kontuan izanda, 2007an helburuak %32k bete dituzte, 2008an %38k eta 2009an %42k. Emaitzak egonkorrak badira ere, hobetzeko joerari antzeman lekioke.

Ibai kategoria ur naturalen eta ur masa oso aldatuen artean banakatzen bada, emaitzak honakoak dira:

- Ur masa naturalak. 2009ko erregistroen arabera masen %49k bete dituzte ingurumen helburuak; 2007an, ordea, %37 ziren.
- Ur masa oso aldatuak. 2009ko erregistroen arabera masen %5ek bete dituzte ingurumen helburuak; 2007an, ordea, %11 ziren.

MBi indizeak helburu biologikoak gutxi bete direla adierazi arren, FKI-E indizeak, zeinek ingurumen helburuen araberako komunitate biologikoak garatzea ahalbidetzen duten baldintza fisikokimiko orokorrei buruzko egoera islatzen baitu, hoberako joera erakutsi du, 1999ko datuen aldean. 1999an ikusi zen ibai kategoriako 82 kontrol estazioen %45ek, gutxi gorabehera, FKI-E indizearen araberako ingurumen helburuak betetzen zituztela. Egun, eta 107 kontrol estazioak kon-

I.3.1. GRAFIKOA. Ibaiak-Naturalak. Makroornogabe bentikoak. MBi indizea



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

I.3.2. GRAFIKOA. Ibaiak-UMOA. Makroornogabe bentikoak. MBi indizea



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

I.3.3. GRAFIKOA. Ibaiak-Naturalak. Egoera fisiko-kimiko orokorra. FKI-E indizea



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

I.3.4. GRAFIKOA. Ibaiak-UMOA. Egoera fisiko-kimiko orokorra. FKI-E indizea



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

tuan hartuta, %69 dira eta balio hori egonkorra izan da azken hiru kanpainetan.

Ibai kategoria ur naturalen eta ur masa oso aldatuen artean banakatzen bada, emaitzak honakoak dira:

- Ur masa naturalak. 2009an ingurumen helburuak betetzen dituzten %75 erregistratu dira.
- Ur masa oso aldatuak. 2009an ingurumen helburuak betetzen dituzten %47 erregistratu dira.

Ingurumenaren ikuspegitik, erants daiteke, kalitate fisikokimiko orokorraren hobekuntza egoera ekologikoa hobetzeko eragile garrantzitsua izan arren, hura ez dela bakarra. Beste eragile batzuek ere, hala nola hidromorfologikoek eta kutsatzaile zehatzei buruzkoek (metalak eta organikoak), egoera historiko arazotsuari laguntzen diote. Egoera hori aski ez diren saneamenduetatik dator, haiek karga organiko handiko mailak eta sedimentu kutsatzaileak sortu baitituzte.

Azkenik, oso aintzat hartzekoa da kalitate fisikokimikoaren konponketak edo hobekuntzak ez diola denbora eskala berean eragiten kalitate biologikoaren hobekuntzari, denbora eskala luzeagoa eta kalitate kimikoaren egonkortzea behar dituelako.

Orokorrean, etorkizunari begira gure ibaien egoerari itxaropentsu iritzi behar zaio oraindik. Hiri eta industriako hondakin-uren saneamendu kontuetan egindako ahalegin handiak emaitza onak eman ditu, eta hurrengo urteetan hobetu beharko dute. Hala ere, egun oraindik daude egoera txarreko zati handiak, batez ere Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oriaren arroetan.

Dena dela, EAEko Saneamendu Gida-Planean bukatzeke edo birmoldatzeke dauden saneamenduek, ibaiertzak berreskuratu eta babesteari buruzko aurreikuspenak apurka egikaritzearekin, kutsadura murrizteko berariazko programak gauzatzearekin, eta abarrekin batera, ibaien egoera pixkanaka hobetzea ahalbidetuko dute etorkizunean.

Oro har, EAEko ibaien egoerari kalte egiten dioten eragileak honakoak dira: arazketa eta saneamendu urriegiak, tokian tokiko kutsadura (industriako efluenteak), nekazaritza jarduerek eragindako kutsadura lausoa, ibaietako habitataren eraldaketa (nekazaritza eta hirigintzaren presioengatik), baliabideen erabilera desegokia (lurzoruaren eta uraren ustiapen intentsiboa, esaterako, zentral hidroelektriko batzuengatik) eta animalia edo landare komunitate batzuen eraldaketa (espezie aloktonoak, hots, euren jatorrizko lekutik at daudenak, sartzeagatik).

Trantsizio uren (estuarioak) eta kostaldekoen egoera

"EAEko trantsizio eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen sareak", 2009ko kanpainan, trantsi-

I.3.5. GRAFIKOA. Trantsizioko urak. Makroornogabe bentikoen egoera



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

I.3.6. GRAFIKOA. Kostaldeko urak. Makroornogabe bentikoen egoera



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

zioko uretako (estuarioak) 32 estazio eta kostaldeko 19 estazio aztertu ditu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Urek Donostia eta Pasaiako badiaren arteko kostaldean eta Oiartzungo estuarioan ingurumen jarraipeneko zenbait ikerketa egin dituzte.

Ibai sarean bezala, aldagai fisikokimikoak ez ezik, adierazle biologikoak ere sartzen dira. Horrela, M-AMBI indizea garatu da. Indize hori substratu biguneko makroornogabe bentikoen komunitateetan oinarritzen da, eta euskal kostaldearen kalitate biologikoaren bilakaera ezartzea ahalbidetzen du.

Kostaldean, *trantsizio urek* egoera gehiagotan ez dituzte ingurumen helburuak betetzen, azken urteotan hoberako joera sumatu arren. 2002an masen %7k (kontrol estazioen %38k) baino ez zituzten IHak betetzen. 2009an, aldiz, masen %64k (kontrol estazioen %72k) betetzen dituzte IHak.

Kostaldeko uretan egoera guztiz aldekoa da, laginketa estazioen %100etan betetzen baitira helburuak.

Lakuen eta barnealdeko hezeguneen egoera

EAEn laku edo hezegune kategoriari lotuta 4 ur masa zehaztu dira (Arreo lakua, Laguardiako urmael gunea, Salburuako hezegunea eta Altubeko urmael gunea) eta EAEko barneko hezeguneen kalitate ekologikoaren jarraipenerako sareak guztira 19 hezegune zaintzen ditu. Haietatik 15ek jarraikortasuna izan dute 2001/2002 ziklo hidrologikotik.

Eskura dauden emaitzak ikusita, esan daiteke, bilakaera ona dagoela iruditu arren, hura ez dela oraindik nahikoa. 2001/2002 ziklo hidrologikotik aztertutako 15

I.3.7. GRAFIKOA. Barneko hezeguneak. Egoera ekologikoaren bilakaera FKI-E indizea



Iturria: Uraren Euskal Agentzia

hezeguneetatik, lehenengo zikloan %7k baino ez zituzten IHak betetzen. Azken zikloan, ordea, hezeguneen %27k betetzen dituzte IHak, eta 2006-2007 ziklo hidrologikoan izandako emaitzak errepikatu dira.

Bainurako uren kalitatea

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 zuzentaraua argitaratuta eta hura, bainurako uren kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren bidez lekualdatuta, zehaztu beharreko parametro mikrobiologikoak aldatu dira eta urteko ebaluazioa araudi berriak xedatzen duenez egingo da, argitaratu ondorengo lau sasoien eta gutxieneko laginketa kopuru baten arabera.

Trantsizio aldiko hirugarren sasoi honetan, 1341/2007 EDko parametroen balioei ezarritako 734/1988 EDko irizpideen bidez sailkatu da.

Balio horien bidez hondartzentzako hiru sailkapen maila ezarri dira:

- 2 mailako hondartzak: parametro guztietarako derrigorrezko balioak eta gida balioak betetzen dituzte, arestian aipatu Errege Dekretuan xedatutako baldintzen arabera.
- 1 mailako hondartzak: derrigorrezko balioak bai, baina gida balioak ez dituzte betetzen.
- 0 mailako hondartzak: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

Ondorengo sasoietan bainurako uren sailkapena *gutxiegi, nahikoa, ona eta bikaina* izango da parametro mikrobiologikoentzat lortutako datuen ebaluazioaren arabera.

2003an Prestige-ren hondamendiak kaltetutako itsasoko 31 bainu guneek gida balioak bete zituzten 2006an. Plentziak, Gorliz eskuinaldeak, Gorliz erdialdeak eta Gorliz ezkerraldeak Bizkaian; eta Antillako hondartzak eta Kontxa-Nautikokoak Gipuzkoan; 2004an lortu ez arren, 2005ean lortu zuten. Eta Zarautz erdialdeak eta Grosek Gipuzkoan 2006an lortu zuten.

Araudi berriak honako helburua xedatu zuen: agintari eskudunek behar diren neurri guztiak ezartzea, 2015eko bainu sasoiaren bukaeran, bainurako ur guztiek kalitate nahikoa izan ditzaten.

Bainu guneen errolda 2009ko bainu sasoia hasi aurretik aldatu zen: KARRASPIOko bainu gunea bainu gune bitan banandu zen. Horren ondorioz, beste laginketa gune bat (LG) sortu da; laginketa gune zaharrari ESKUINALDEA deritzo eta laginketa gune berriari EZKERRALDEA.

2009an egindako azterketak, arestikoa kontuan izanda[3], erakusten du 9 bainu gune hobetu direla, 1 mailatik 2ra igaroz. Halaber, 4 bainu guneren sailkapenak okerrera egin du: hiru 2 mailatik 1era igaro dira (Zarautz-eskuinaldea, Bakio-erdialdea eta Ea-erdialdea); eta bat 1etik 0era igaro da (Saturraran-erdialdea).

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, sailkapena hondartza osoari buruz egiten da, guneen arabera bereizi gabe, uraren kasuan bezala. Horregatik, hondartza bateko gune guztiek izango dute maila bera, haien artean aldeak egon arren.

Bizkaian 2009an 39 gunean jo dira ontzat. Hortaz, orokorrean hobekuntza ikusten da. Bestalde, Gipuzkoan, 23 guneetatik, 17 ontzat jo dira (18 urtebete lehenago), 2 hobegarritzat (1 aurreko urtean) eta 4 txartzat (aurreko urteko berberak. Azkenik, Araban hon-

[3] Bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua, zeinek Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua lekualdatzen baitu. Araudi berriaren lehentasunezko helburuak honakoak dira:

- Bainurako urek bete behar dituzten osasun irizpideak ezartzea, haien kalitatea bermatzeko, giza osasuna babesteko xedez. (Derrigorrezko azterketa parametroei buruzko aldaketak sartzen ditu).
- Ingurumenaren kalitatea zaintzea, babestea eta hobetzea, Uren Legearen testu bategina osatuz.
- Jendeari bainurako uren kalitateari buruz emandako informazioa kontrolatzeko, sailkatzeko, kudeatzeko eta emateko gutxieneko xedapenak ezartzea.
- Bainurako urei buruzko informazio sistema berria –NAYADE- sortzea. Sistema hori Internet bidez kontsultatu ahalko da eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak kudeatuko du. Sistemak nazio eta Europa mailan erroldatutako itsaso eta kontinenteko hondartza guztiei buruzko informazioa jarriko du herritarren eskura.

I.3.6. TAULA. Bainurako uren kalitatea EAE-n, itsasoko urak

HERRIALDEA	UDALERRIA	BAINU GUNEA	LAGINKETA GUNEA	BAINURAKO UREN SAILKAPENA					HONDARTZA INGURUKO EREMUAREN SAILKA-PENA (*)		
				3	6	7	8	9	2007	2008	2009
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(1)Eskuin.	1	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(2)Erdialdea	1	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(3)Ezker.	1	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(2)Ezker.	1	2		1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Arrigunaga hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Aizkorriko hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Areetako hondartza	(1)Erdialdea				1	1		Hobeg.	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(2)Eskuin.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(1)Eskuin.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(2)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(3)Ezker.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(1)Eskuin.	1	2	1	1	1	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(2)Erdialdea	1	2	1	1	1	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(3)Ezker.	1	2	1	1	2	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxu hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Mundaka	Laidatxu hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	1	1	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Sukarrieta	Toña hondartza	(1)Erdialdea	0	0	0	0	0	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Sukarrieta	San Antonioko hond.	(1)Erdialdea	1	1	1	1	1	Hobeg.	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(1) Itsasoa	1	2	2	2	2	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laida hondartza	(2) Itsasad.	1	2	1	1	2	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Ibarrangelu	Laga hondartza	(2)Eskuin.	1	2	2	2	2	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ispaster	Ogeia hondartza	(1)Ezker.	1	2	2	2	2	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Lekeitio	Isuntza hondartza	(1)Eskuin.	1	2	1	1	1	Ona	Hobeg.	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(1)Eskuin.	1	2	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(2)Ezker.					1			Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorri hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	1	1	Hobeg.	Ona	Ona

I.3.6. TAULA. Bainurako uren kalitatea EAE-n, itsasoko urak *(jarraipena)*

PROVINCIA	MUNICIPIO	ZONA DE BAÑO	PUNTO DE MUESTREO	CALIFICACIÓN AGUAS DE BAÑO					CALIFACIÓN ÁREA PERIPLAYERA (*)		
				3	6	7	8	9	2007	2008	2009
Gipuzkoa	Mutriku	Saturraraun hondartza	(1)Erdialdea	0	0	1	1	0	Mala	Mala	Mala
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	1	1	Mala	Mala	Mala
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltz hondartza	(1)Erdialdea	1	1	1	2	2	Mala	Mala	Mala
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1)Erdialdea	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Itxurun hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiago hondartza	(1)Erdialdea	0	1	1	1	1	Hobeg.	Hobeg.	Hobeg.
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetape hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Hobeg.
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbe hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zaratuz	Zarauzko hondartza	(1)Eskuin.	0	2	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(2)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarauzko hondartza	(3)Pasealek.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antilla hondartza	(1)Erdialdea	1	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Oribarzar hondartza	(1)Erdialdea	0	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(2)Ezker.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(1)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(2)Ezker.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa-Nautikoko hondartza	(3) Nautikoa	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/Zurriolako hondartza	(1)Eskuin.	1	2	2	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/Zurriolako hondartza	(2)Erdialdea	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/Zurriolako hondartza	(3)Ezker.	1	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondar.	(1)Eskuin.	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiko hondar.	(2)Erdialdea	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(1)Eskuin.	1	1	1	2	2	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(2)Ezker.	1	2	0	2	2	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Zuhatza uhartea)	(1)Eskuin.	2	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(1)Eskuin.	2	0	2	1	2	Hobeg.	Hobeg.	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(2)Ezker.	2	2	2	2	2	Hobeg.	Hobeg.	Ona

(*) Hondartza inguruko eremuaren sailkapena hondartza osoari buruz egiten da, guneen arabera bereizi gabe, uraren kasuan bezala. Horregatik, hondartza bateko gune guztiek izango dute maila bera, haien artean aldeak egon arren.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila

dartza inguruko 5 eremu jo dira ontzat, aurreko urtean haietako 4 hobegarritzat jo ziren bitartean.

c. Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezatako baliabideak: ur bilketa eta kontsumoa

EINk egindako ur hornidura eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2007an EAEn horniketa publikorako ur-bilketa[3] 206,9 Hm^3koa izan zen. Horrek, 2006aren aldean, jaitsiera dakar berriz ere, %5,2koa.

Bilketa horiei dagokienez, eta lurrazalekoen eta lur azpikoen artean bereizita, esan behar da 2006 eta 2007. urteen artean, lurrazalekoak %5,1 murriztu zirela. Hala ere, guztizkoaren gaineko pisua berriz hazi da, %97tik %97,1era. Bestalde, lur azpiko ur-bilketak %6,2 hazi dira.

Guztira, 204,7 Hm^3 ur dago eskuragarri. Horrek esan nahi du bildutako uraren %98,9 norberak eskuratutakoa dela eta gainontzeko %1,1 beste enpresa batzuek hornitzen dutela (hirugarrenei erositakoa).

Bestalde, 2007an EAEn horniketa publikorako zaindu eta banatutako ur bolumena guztira 195,8 Hm^3koa da, hots, %3,5 gehiago. Haietatik 96,6 Hm^3 (%49,3, aurreko urteko %52,9ren aurrean) etxeak hornitzeko erabiltzen dira, 55,5 Hm^3 (%28,3, aurreko urteko %31ren aurrean) sektore ekonomikoentzat, eta 43,7 Hm^3 udal kontsumoetarako eta beste erabilera batzuetarako.

Banaketa sarean 36 Hm^3 ur galtzen da (galera errealak), hots, 2006 eta 2007 artean %30,6 hazi da eta eskuragarri dagoen guztiaren %17,6 da. Balioetsitako kontsumoak, neurketa akatsak, iruzurrak edo beste zioak (itxurazko galerak) direla-eta 6,4 Hm^3 ur galdu zen.

Estatuan, banaketa sare publikoetan, ihesetan, hausturetan, etab., ur eskuragarriaren %15,6 galdu zen, aurreko urtean %16,7. Balioetsitako kontsumoak, neurketa akatsak, iruzurrak edo beste zioak direla-eta 401 Hm^3 ur galdu zen.

Bestalde, 2006 eta 2007 artean bildutako hondakin-uren bolumena %12,5 murriztu da, 788.237 m3/egunetik 689.649ra. Haietatik %83,5 tratatu da. Hondakin-urak bildu eta tratatzeko jarduerek 625 mila euroko inbertsioa dakarte.

Per capita kontsumoa zenbait autonomia erkidegotan jatsi da, besteak beste, EAEn. Zehazki, %3,1, 125 litro biztanleko, eta horrek Estatuko batez bestekoaren azpitik kokatzen gaitu. Estatuan, per capita kontsumoa 160 litro/egunetik 157ra jaitsi da. Berriz ere, autonomia erkidegoen rankingean toki erlatibo onean gaude. Izan ere, buruan gaude.

2007an, EAEn uraren unitateko balioa (ur horniketa tasen zenbatekoaren gehi hondakin-uren saneamendu tasa/sarien eta kontsumorako banatutako ur bolumenaren arteko zatiketa) 0,87 euro/m^3koa da, 2006ko balio bera. Estatuan, batez besteko prezioa 1,29 euro/m^3koa da. Horrek %19,4ko igoera dakar.

Aurten, gure erkidegoa bigarren tokian dago, uraren prezio txikienari dagokionez, Galiziaren atzean (0,72 euro/m^3).

---

[4] Ur bilketa naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegiratzean datza. Hemen, urtegi eta lehen mailako ateria eta hodietatik gidatze zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, sundaketa edo zulatzeen bidez egiten da.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrontea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrontea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiak eta errekak) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira.

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

I.3.7. TAULA. EAE-ko horniketa publikorako zaindu eta banatutako ur bolumena

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	Bar. % 05/06	Bar. % 06/07
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m³)								
GUZTIRA	**310.034**	**318.494**	**285.251**	**253.835**	**218.272**	**206.858**	**-14,0**	**-5,2**
Lurrazaleko urak	251.387	279.258	278.541	232.372	211.781	200.943	-8,9	-5,1
Lur azpiko urak	26.574	17.963	6.710	20.317	5.569	5.915	-72,6	6,2
Gatzgabetzea	27.881	18.331	0	0	0	0		
Bestelako baliabide hidrikoak	4.192	2.942	0	1.146	922	0		-100,0
EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m³)								
GUZTIRA	**361.692**	**414.212**	**285.251**	**254.473**	**218.272**	**204.669**	**-14,2**	**-5,2**
Enpresak berak egindako guztizko ur-bilketa	310.034	318.494	285.251	253.835	218.272	206.858	-14,0	-5,2
Beste unitate batzuei erositako ur bolumena	51.658	95.718	0	638	0	0		
Beste enpresa batzuek hornitutako ur bolumena		0	0	0	0	2.189		
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m³)								
Horniketa publikorako zaindu eta banatutako guztizko ur bolumena	195.723	213.77	214.18	202.899	189.224	195.794	-6,7	3,5
Sektore ekonomikoak	63.611	76.315	66.045	66.967	58.632	55.497	-12,4	-5,3
Etxeak	112.832	114.66	115.853	108.580	100.174	96.623	-7,7	-3,5
Udal kontsumoak	15.595	18.831	28.801	20.750	26.347	43.674	27,0	43,6
Beste batzuk	3.685	3.964	3.481	6.602	4.071		-38,3	
Banaketa sarean galdutako ura (a)	65.371	30.108	21.479	28.633	27.597	36.037	-3,6	30,6
Edateko bihurtu gabeko guztizko ur eskuragarria (b)	361.692	414.212	285.251	254.473	218.272	204.669	-14,2	-6,2
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	18,1	7,3	7,5	11,3	12,6	17,6		
Banatutako uraren zenbatekoa guztira (mila euro)	126.297	147.501	81.677	86.869	85.635	97.223	-1,4	13,5
Horniketa zerbitzuetako inbertsioaren zenbatekoa guzira (mila €)	1.965	1.285	4.948	3.704	3.165	4.636	-14,6	46,5

Iturria: EIN "Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta"

I.3.8. TAULA. Hondakin-uren bilketa eta tratamendua EAE-n (m^3/egun)

	2003	2004	2005	2006	2007	Bar. % 05/06	Bar. % 06/07
Bildutako hondakin-uren bolumena	550.531	991.548	1.086.767	788.237	689.649	-27,5	-12,5
Tratatutako hondakin-uren bolumena	515.848	902.268	1.042.034	657.062	575.885	-36,9	-12,4
Isuritako uraren bolumena guztira	542.108	991.457	1.085.106				
Ur berrerabiliaren bolumena guztira	8.423	0	1.509	143	27.548	-90,5	19.164,3
Hondakin-urak bildu eta tratatzeko inbertsioko gastuen zenbatekoa guztira (mila €)	39.127	7.768	64.800	36.986	625	-42,9	-98,3
Saneamendu eta arazketa kuoten zenbatekoa guztira (mila €)	97.356	96.011	96.832	79.472	72.323	-17,9	-9,0

Erreferentziazko 2004. urteaz geroztik hondakin-uren bilketa eta tratamendu ataletako datuetan zenbait aldaketa gertatu dira, estatistika horien erabiltzaileen premiei eta nazioarteko gomendioei egokitzeko egindako metodologia aldaketa dela-eta. Atal horietan banaketa saretik ez datozen hondakin-urak (euritakoak, norberak ateratakoak edo beste jatorri batzuetakoak) sartu dira. 2003ko estatistika arte, ordea, bertatik etorritako hondakin-urei buruzko informazioa baino ez zen biltzen.
Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta

d. Hondakinen sorkuntza eta kudeaketa. Hiri-hondakinak eta hondakin arriskutsuak

2002-2020 garapen iraunkorrerako ingurumen estrategiak "baliabide eta hondakinen kudeaketa arduratsua" bere bost ingurumen xedeen artean kokatzen du. Bestalde, II ingurumen esparru-programak (2007-2010), zeinek euskal ingurumen estrategiako epe laburreko jarduerak zehazten baititu, "hondakinen murrizketa eta zero isurketa" deritzon 6. helburu estrategikoari dagokionez, sei konpromiso ezartzen ditu:

1. Hondakin industrialen sorkuntza BEGd industrialetik bereiztea.
2. Hondakin arriskutsuetan dauden baliabide materialak birziklatze tasak %65 arte igoz berreskuratzea.
3. EAEn sortutako eraikuntza eta eraispen hondakinen %70 berrerabiltzea eta birziklatzea.
4. Jatorri industrialeko hondakin ez arriskutsuen %75eko birziklatze tasa lortzea.
5. Sortutako hiri-hondakin guztien %35 arteko birziklatze tasa lortzea.
6. Azken biltegira lehenagoko tratamendurik gabeko hiri-hondakinik ez isurtzea.

Bestalde, EAEko Hondakin arriskutsuen prebentzio eta kudeaketako 2008-2011 planak 40 jarduera ezartzen ditu proposatutako hiru helburu estrategikoak lortzeko. Honakoak dira:

– 1. helburua. Hondakinen sorkuntza eta haien arriskugarritasuna prebenitzea.
– 2. helburua. Hondakin arriskutsuen %65eko balorazio materialeko tasa lortzea kudeaketaren hierarkia betetzen dela bermatuz.
– 3. helburua. Ekoizle guztiei hondakin arriskutsuen kudeaketa zerbitzu eraginkorra ematea.

EINren *Sektore industrialeko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta*ko azken datuen arabera, euskal industriak sortutako hondakin guztietatik (2.839,3 mila Tm), erkidegoko araudiaren arabera 302,4 mila Tm sail-

I.3.9. TAULA. Etxeetako batez besteko ur kontsumoa eta unitateko balioa

	BATEZ BEST. KONTSUMOA (litro/biztanle/egun)						BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m³)					
	2004	2005	2006	2007	Bar. % 05/06	Bar. % 06/07	2004	2005	2006	2007	Bar. % 05/06	Bar. % 06/07
ANDALUZIA	189	195	176	158	-9,7	-10,2	0,94	0,92	0,96	1,11	4,3	15,6
ARAGOI	162	153	150	143	-2,0	-4,7	0,82	0,87	1,04	1,46	19,5	40,4
ASTURIAS	172	180	184	185	2,2	0,5	0,65	0,74	0,78	0,92	5,4	17,9
BALEAR UHARTEAK	142	139	150	136	7,9	-9,3	1,31	1,58	1,61	1,85	1,9	14,9
KANARIAR UHARTEAK	147	145	141	154	-2,8	9,2	1,64	1,65	1,74	1,69	5,5	-2,9
KANTABRIA	187	191	201	189	5,2	-6,0	0,69	0,68	0,71	0,93	4,4	31,0
GAZTELA ETA LEON	172	160	147	154	-8,1	4,8	0,61	0,66	0,83	1,11	25,8	33,7
GAZTELA-MANTXA	179	174	166	163	-4,6	-1,8	0,63	0,74	0,87	0,89	17,6	2,3
KATALUNIA	174	162	150	151	-7,4	0,7	1,92	1,04	1,11	1,56	6,7	40,5
VALENTZIAKO ER.	178	171	185	186	8,2	0,5	1,2	1,36	1,3	1,62	-4,4	24,6
EXTREMADURA	178	173	183	187	5,8	2,2	0,72	0,81	0,84	1,09	3,7	29,8
GALIZIA	155	152	159	143	4,6	-10,1	0,78	0,75	0,71	0,72	-5,3	1,4
MADRIL	171	159	148	150	-6,9	1,4	1	1,09	1,27	1,28	16,5	0,8
MURTZIA	161	162	166	166	2,5	0,0	1,41	1,52	1,53	1,95	0,7	27,5
NAFARROA	144	134	128	126	-4,5	-1,6	1,11	1,12	1,25	1,41	11,6	12,8
EAE	**150**	**140**	**129**	**125**	**-7,9**	**-3,1**	**0,83**	**0,91**	**0,87**	**0,87**	**-4,4**	**0,0**
ERRIOXA	141	145	148	152	2,1	2,7	0,96	0,98	0,93	1,06	-5,1	14,0
CEUTA ETA MELILLA	142	139	140	135	0,7	-3,6	0,91	0,98	1,01	0,94	3,1	-6,9
ESTATUA	171	166	160	157	-3,6	-1,9	0,96	0,98	1,08	1,29	10,2	19,4

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta

katzen dira hondakin arriskutsu gisa eta 2.536,9 mila Tm ez arriskutsu gisa.

Bilakaerari dagokionez, EAEn hondakin ez arriskutsuen sorkuntzak gutxi gorabehera iraunkor dirau 2006 eta 2007 artean. Bestalde, industria hondakin arriskutsuen sorkuntza berriz murriztu da, azken urte horretan %20,7, eta 2006an hasitako beheranzko joera berretsi da.Hala ere, EAE, 302,2 mila Tm-rekin, berriz izan da industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen bigarren erkidegoa, Kataluniaren atzetik, non 537,2 sortu baitziren (aurreko urtean 496,2 mila Tm izan ziren; hortaz, holako hondakinak hazi egin dira). Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak %1,5 hazi dira.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINren *Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta*k erakusten du 2007an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek EAEn 1.333,8 mila Tm hiri-hondakin bildu zituztela, aurreko urtean baino %2,9 gutxiago. Murrizketa horren

I.3.10. TAULA. Hiri eta industria hondakinen sorkuntza (*) (Tonak)

	ESTATUA					EAE				
	2004	2005	2006	2007	2006-07 bariazioa	2004	2005	2006	2007	2006-07 bariazioa
Hiri-hondakinak (HH)	27.593.142	28.062.345	28.418.545	28.240.470	-0,6	1.417.521	1.465.365	1.373.616	1.333.788	-2,9
HH nahastuak	21.207.615	21.639.537	21.861.821	21.925.920	0,3	952.375	1.068.437	1.030.168	1.036.397	0,6
Selektiboki bildutako HH	6.385.527	6.422.808	6.556.724	6.314.550	-3,7	465.146	396.928	343.448	297.391	-13,4
Industria hondakinak	56.231.821	60.385.254	59.253.762	60.692.665	2,4	2.895.689	2.871.804	2.917.772	2.839.265	-2,7
Ez arriskutsuak	54.261.461	58.157.360	57.122.133	58.530.051	2,5	2.568.362	2.489.793	2.536.320	2.536.887	0,0
Arriskutsuak	1.970.360	2.227.894	2.131.629	2.162.614	1,5	327.327	382.011	381.452	302.378	-20,7

Iturria: EIN: Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta eta Industria sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta. (*) Zerbitzuen sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestak ez du autonomia erkidegoen arabera bereizten.

zioa selektiboki bildutakoen murrizketa da (%-13,4), nahastuak hazi direlako (%0,6). Estatuan murrizketa txikiagoa da, %0,6.

Per capitari dagokionez, EINren *Inkesta* bereko datuen arabera, EAEn 2007an 487,9 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziten, Estatuko batez besteko 493 kiloak baino gutxiago, eta ia aurreko urteko 488ko zenbateko berbera. Autonomia erkidegoen arabera, per capita baliorik handienak Balear Uharteetan (626), Madrilen (551), Kantabrian (543), Murtzian (524) eta Nafarroan (512) erregistratu ziren.

Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak. Zehazki, paper eta kartoiaren bilketa selektiboan baliorik handienak Balear Uharteetan (65,1 kg/biztanle), Nafarroan (43,6 kg/biztanle) eta EAEn (41,1) egon ziren. Beirari dagokionez, EAE (22,8 kg/biztanle), Katalunia (21,4) eta Errioa (19,9) nabarmentzen dira. Eta ontzi mistoei dagokienez, lehenengo tokian EAE (33,2 kg/egun) dago, eta haren atzetik Madril (32,3) eta Gaztela eta Leon (31,8). Hala ere, urte horretan paper eta kartoiaren bilketa berriz hazi (39,3 kg/biztanle/urtetik 41,1era) baina ontzi mistoena murriztu egin da (36 kg/biztanle/urtetik 33,2ra).

Baliogarri bihurtzeari dagokionez, IHOBEk argitaratutako azken datu eskuragarrien arabera (*2008ko ingurumen urtekaria, EAEko ingurumenaren eboluzioa eta ebaluazioa*), 2007 eta 2008an hondakinen kudeaketan diharduten zenbait azpiegitura abiarazi ziren: ECOFONDen galdategiko hareak birsortzeko planta (Agurain), eraikuntza eta eraispen hondakinen tratamendurakoak Gasteizen eta Urnietan, tratamendu mekaniko biologikokoa Gasteizen, konpostatzekoa Azpeitian, eta tamaina handiko hondakinena Ortuellan.

EAEko ingurumenaren egoera 2009 txostenaren arabera, erakundeek hondakinak deuseztatzea saihesteko emandako erantzunen kopuru handia, ugaritasuna eta intentsitatea fruituak ematen ari dira. Horrela, datu iturri beraren arabera, hondakin arriskutsuak baliogarri bihurtzeko tasa, 2007an, %56,8koa izan da (helburua: %65), ez arriskutsuei dagokiena, 2006an, %67koa (helburua: %75), eta hiri-hondakinei dagokiena, 2007an, %30,6koa (helburua: %35). Eraikuntza eta eraispen hondakinak baliogarri bihurtzeari dagokionez, bide luzeagoa dago egiteko (%35, helburua %70 izanda).

I.3.11. TAULA. Hondakin motaren arabera sailkatutako hiri-hondakin bilduak (tonak)

	2006		2007		2006-07 bariazioak	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
HONDAKINAK GUZTIRA	**1.373.616**	**28.418.545**	**1.333.788**	**28.240.470**	**-2,90**	**-0,63**
HONDAKIN NAHASTUAK GUZTIRA	1.030.168	21.861.821	1.036.397	21.925.920	0,60	0,29
SELEKTIBOKI BILDUTAKO HONDAKINAK GUZTIRA	343.448	6.556.724	297.391	6.314.550	-13,41	-3,69
01.3 Olio mineral erabiliak (elikatzekoak ez dira sartzen)	1.236	32.447	4.666	-	-100,00	-85,62
02.12 Medikamentu erabili gabeak	2	4.900	-	728	-100,00	-85,14
05 Osasun eta biologia hondakinak	1.252	195.786	109	104.200	-91,29	-46,78
06 Metalezko hondakinak	1.881	47.368	1.155	53.536	-38,60	13,02
07.1 Beira	41.600	552.114	48.390	622.136	16,32	12,68
07.2 Papera eta kartoia	83.128	967.520	87.215	1.126.625	4,92	16,44
07.3 Kautxua (pneumatikoak)	345	10.972	15	11.283	-95,65	2,83
07.4 Plastikoak (enbalatzekoak izan ezik)	5.598	109.383	3.592	173.934	-35,83	59,01
07.5 Zura	7.306	65.747	6.925	101.367	-5,21	54,18
07.6 Arropa eta ehun-hondakinak	689	4.775	1.346	7.216	95,36	51,12
08.1 Ibilgailu baztertuak	2	3.314	1.335	16.388	66.650,00	394,51
08.2 Ekipamendu elektroniko baztertuak (etxe-tresna elektrikoak)	102	26.534	-	25.654	-100,00	-3,32
08.41 Pila eta metagailuen hondakinak	181	5.416	254	3.528	40,33	-34,86
08.43 Ekipamendu elektroniko baztertuen osa-gaiak (hodi fluoreszenteak, tonerrak)	8	1.781	-	11.852	-100,00	565,47
09 Animalia eta landareen hondakinak	48.336	1.005.783	47.787	1.232.525	-1,14	22,54
10.2 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	76.053	813.727	70.488	809.645	-7,32	-0,50
11 Lohi arruntak (zehaztu)	24.121	314.456	7.529	158.026	-68,79	-49,75
12 Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak	16.873	1.894.907	17.315	1.844.659	2,62	-2,65
18 Beste batzuk	34.735	499.794	3.936	6.582	-88,67	-98,68

Iturria: EIN

I.3.12. TAULA. Hiri baliabide bilduak mota eta aldiaren arabera (kg/biztanle/urte)

	2000		2001		2002		2003		2004		2005		2006		2007	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Hondakin nahastuak (1)	483	588	512	566	522	581	494	576	456	491	501	484	488	500	487,9	493
Bilketa selektiboa (2)	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–
Papera eta kartoia	22,8	14,5	27,1	15,9	15,4	16,3	29,3	15,2	38,9	16,3	38,6	17,9	39,3	22,1	41,1	25,3
Beira	10,7	15,1	9,7	15,6	10,9	14,8	15,9	11,8	16,2	10,2	19,3	10,9	19,7	12,6	22,8	14
Ontzi mistoak	-	-	-	-	-	-	-	-	133	45,2	49,9	23,3	36	18,6	33,2	18,2

(1) Hondakin nahastuak: Honela definitzen dira: etxe partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuetan, bide publikoetan eta etxeko tresnerian sortutako etxeko hondakinak.
(2) Selektiboki bildutako hondakinak: baliogarri bihur daitezkeen hondakinetako materialak bereiztea ahalbidetzen duen bilketa bereiziaren emaitza dira.
Iturria: EIN

Sortutako hiri-hondakinen isuririk ez izateko konpromisoari dagokionez, 2007an haien %50 zabortegietan utzi ziren. Horren ondorioz, egungo egoera 2000koa baino hobea da, orduan hiri-hondakinen %77 joan baitziren zabortegira; baina oraindik zero isuriko helburua lortzea urrun dago.

e. Klima aldaketa: berotegi-efektuko gas isuriak (BEG)

Klima aldaketa XXI. mendeko ingurumen arazo handienetako bat da, Nazio Batuek Kiotoko 2007ko bileratik adierazi dutenez. Klima aldaketarako gobernu arteko taldearen txostenen arabera, Lurraren klima aldatua izan da, atmosferan metatutako berotegi-efektuko gasen ondorioz. Hori dela-eta, planetako batez besteko tenperatura 0,74 ºC igo da azken mendean eta XXI. mendearen bukaerarako 1,8 ºC eta 6 ºC bitartean igo daiteke.

Kiotoko protokoloa Nazio Batuek berotegi-efektuko gas isurien zama eta erantzukizuna elkarbanatzeko bultzatutako tresna da, eta EBri 1990aren aldean isuriak %8 murrizteko konpromisoa esleitu dio. Konpromiso hori zenbait modutan banatzen da estatu kideen artean, eta Espainiari abiapuntuko urtearen aldean gehienez ere %15 hazteko muga dagokio.

Arazoaren garrantziaz jakitun, Eusko Jaurlaritzak Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Euskal Plana abiarazi zuen. Proposatzen duen lehenengo helburu estrategikoa aldi horretan EAEren isuriak 1990ekoen gaineko %14an mugatzea da[5].

Kiotoko protokoloaren arabera, sinatzaileek euren esparru geografikoan gertatutako isurien berri baino ez dute eman behar (isuri zuzenak), hots, elektrizitatea inportatuz gero, adibidez, elektrizitate inportatutik eratorritako isuriak ez dira aintzat hartu behar. Horrek isuri zenbatetsi txikiagoa ekar dezake elektrizitatea sortu beharrean inportatu egiten duten alderdientzat.

[5] Abiapuntu urterako 1990 ezarri zen CO2, CH2 eta N2Orako, eta 1995 fluordun gasetarako, baina lehenengoen pisua dela-eta, 1990 aipatu ohi da.

EAEri dagokionez, elektrizitatearen inportazioa ez da denboran egonkorra izan. 1990ean elektrizitate inportazioekiko mendekotasun oso handia zegoen, eta ekoizpena argindarraren azken kontsumoaren %4ra baino ez zen iristen. Barne ekoizpena orekatzen joan da, elektrizitatea sortzeko zentral berriak, kogenerazioko eta energia berriztagarriko plantak abiaraztearekin batera, eta horrela, 2008an norberaren ekoizpena EAEko elektrizitate kontsumoaren %62ra iritsi zen.

CO_2 kutsatzaileak klima aldaketan dauzkan ondorioak orokorrak direnez gero, EAEren helbururako, gure erkidegoaren erantzukizunekoak diren isuri guztiak (isuri orokorrak) hartuko dira aintzat, non sortzen den kontuan izan gabe. Horrela ez balitz eta isuri zuzenak baino zenbatuko ez balira, egoera hori muturrera eramanez gero, paradoxa batera irits liteke: gure erkidegoa bere isuriei buruzko helburuak betetzeko moduan egon liteke, elektrizitate inportatua handituz, kontsumitutako argindar kopuruan eragin gabe.

Gogoratu behar dugu Kiotoko protokoloan aintzat hartutako berotegi-efektuko sei gasak karbono anhidridoa (CO_2), metanoa (CH_4), oxido nitrosoa (N_2O), hidrofluorokarbonoen familia (HFC), perflurokarbonoen familia (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF_6) direla. Abiapuntu urteko isuriak 1990eko C_2, CH_4, N_2O isurien eta 1995eko HFC, PFC eta SF_6 isurien batuketari dagozkio.

2008ri dagokion BEG isurien azken inbentarioko datuen arabera (hortaz, epigrafe hau amaitzerakoan aipatuko den 2009/28/CE Zuzentarauaren aurreko datuak), ***zuzeneko isuria*** (elektrizitate inportaziotik datorrena kanpoan utzita) 22,8 milioi tona CO_2 baliokidekoa izan zen, hots, 2007ko isuriak baino %0,2 gehiago eta abiapuntu urtekoak baino %39 gehiago.

Bestalde, EAEn, 2008an, ***BEGen guztizko isuria*** (zuzenekoa eta zeharkakoa, alegia, elektrizitate inportatuari lotutakoak barne) 25,3 milioi tona CO_2 baliokidekoa izan zen, 2007ko isuriak baino %3 gutxiago. Murriztu arren, EAEko CO_2 baliokidearen isuriak %18 hazi dira 1990az geroztik.

Sektoreka,

– Energetikoa. 2008an energia-sektorearen isuriak (elektrizitate inportatutik datozenak barne) %8 murriztu ziren 2007aren aldean, eta BEGen guztizko isurien (10,5 Mteq) %42 eragin zituzten. 1990aren aldean isuriak %34 hazi dira.

I.3.13. TAULA. BEG-en guztizko isuriak abiapuntu urtearen aldean (mila tona CO2 baliokide)

	Abia. urtea	2003	2004	2005	2006	2007	2008	1990-2008 hazkundea
Energia	11.524	15.897	16.898	19.230	19.054	18.648	18.560	7.035
Industria prozesuak	2.706	2.881	2.333	2.401	2.378	2.045	2.210	-496
Disolbatzaileen eta beste produktuen erabilera	99	137	134	129	133	146	146	46
Nekazaritza	849	655	640	625	601	586	582	-267
Hondakinak	1.240	1.360	1.373	1.409	1.380	1.3346	1.338	98
Argindar inportatua	4.899	5.295	4.665	2.142	2.565	3.334	2.416	-2.483
EAE GUZTIRA	**21.317**	**26.225**	**26.043**	**25.936**	**26.112**	**26.105**	**25.252**	**3.934**

Iturria: EAEko BEG isurien 1990-2008 inbentarioa

I.3.8. GRAFIKOA. BEG isurien bilakaera 1990-2008 artean sektoreen arabera (%)



Iturria: EAEko BEG isurien 1990-2008 inbentarioa

2008ko murrizketaren zio nagusiak fuelezko zentraletan (teknologia horrek CO_2 asko isurtzen du) eta ziklo konbinatuetan elektrizitate gutxiago sortu izana eta fintze isuriak murriztu izana dira.

– Barne ekoizpena eta argindar inportatua.
EAEn energia-sektorearen isuriak %0,2 murriztu ziren 2007aren aldean, elektrizitatearen sorkuntza %6 hazi arren. Jaitsiera horren zioak ikatzaren bidez elektrizitate gutxiago sortu izana, ziklo konbinatua hazi izana (Gwh bakoitzeko isuri tasa ikatzarena baino txikiagoa da) eta berriztagarrien eta kogenerazioaren bidez gehiago sortu izana dira.
Elektrizitate sorkuntzaren igoera txiki horrek eta kontsumoaren murrizketa txikiak elektrizitate inportazioa murritzarazi dute. Izan ere, EAEn 2008an argindarraren kontsumoa %0,7 jaitsi da, 2007aren aldean, batez ere industria-sektoreagatik. Hori dela-eta, 2007an baino %12 elektrizitate gutxiago inportatu da, eta elektrizitatearen autohornikuntza tasa azken kontsumoaren %65ra iritsi da.
Argindar inportatutik eratorritako isuriak, beraz, 2007an baino %28 txikiagoak izan dira, eta 1990ean baino %51 txikiagoak.

– Industria. Industria-sektorearen BEG isuriak %6 hazi dira 2007aren aldean eta EAEko isurien %22 (5,7 Mteq CO_2) eragin dituzte. Isuriak %26 murriztu dira 1990aren aldean.
Sektore hori argindar gehien kontsumitzen duena da (2008an EAEn kontsumitutako elektrizitatearen %60). Sektore horri argindar ekoizpenetik eratorritako isuriak egotziz gero, sektore horrek isuri guztien %41 eragingo lituzke.

– Garraioa. 18 urtetan lehenengo aldiz (hots, 1990etik), garraioaren isuriak murriztu egin dira, %6 aurreko urtearen aldean, eta EAEko BEG isurien %23 (5,7 Mtep) eragin dituzte. Gutxi gorabehera sektore horren isurien %95 errepide bidezko garraioari daude lotuta. 1990aren aldean isuriak %110 hazi dira.

– Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. 2007aren aldean BEG isuriak %3 murriztu dira, batez ere jar-

duera horretan erregai gutxiago kontsumitu direlako. Sektore horren isuriak EAEko isuri guztien %3 dira, 0,8 Mt CO_2 baliokide, eta 1990aren aldean %27 murriztu dira.

– Bizitegi eta zerbitzuen sektorea. Sektore horiek EAEko isurien %5 eragiten dituzte eta, biak batera, %14 hazi dira 2007aren aldean, gasolio eta gas natural gehiago kontsumitu baitute.
  2008an, batera erkidegoko argindarraren azken kontsumoaren %33 eragin zuten. Sektore horri argindar ekoizpenetik datozen isuriak egotziz gero, guztizkoaren %14 eragingo lukete.
  Abiapuntu urtearen aldea, bizitegi sektoreak %39 handitu ditu bere isuriak, eta zerbitzuen sektoreak %97.

– Hondakinen sektorea. 2007aren aldean isuriak %1 murriztu dira, hondakin gutxiago sortu eta birziklatzearen portzentajea handitu delako. Hori delaeta, zabortegiak gutxiago erabili dira. Halaber, hondakin gutxiago erraustu da.
  Sektore horrek EAEko isuri guztien %5 (1,3 Mteq CO_2) eragiten ditu eta 1990aren aldean %8 hazi dira.

Gas motaren arabera,

– Karbono dioxidoa (CO_2) berotegi-efektuko isuriei ekarpen handiena egiten dien gasa da, EAEko isurien %88. 2007 eta 2008 artean, haren isuriak %5 murriztu dira eta abiapuntu urtearen aldean %25 hazi.
  2007ko isuri mailen aldean (370.00 tona gutxiago) isuriak gehien murriztu dituen sektorea garraioarena da.

– Metanoak (CH_4) BEG isurien %6,6 eragin zituen, eta 2007aren aldean haren isuriak ere %0,3 murriztu dira. 1990aren aldean horrek %6ko murrizketa dakar. Zabortegietako, nekazaritza-abeltzaintza sektoreko eta, neurri txikiago batean, energia prozesuetako isuri txikiagoak eragin du murrizketa hori.

– Oxido nitrosoaren (N_2O) isuriak %2 murriztu dira 2007aren aldean, eta 1990aren aldean %52. BEG isurien %1,5 eragiten du. 2006ko erdialdera EAEn azido nitrikoa ekoizteari utzi zitzaion, eta horrek oxido nitrosoaren isuriak murritzarazi ditu.

– Kiotoko protokoloan zaindutako fluordun gasak (HFC, PFC eta SF_6) batez ere industria kimikoan,

I.3.14. TAULA. BEG-en guztizko isuriak gas motaren arabera abiapuntu urtearen aldean (mila tona CO_2 baliokide)

	1990	1995	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Hazkundea 2008-abia.	Hazkundea-ren % 2008-abia.
CO_2	***17.784***	17.784	22.432	22.819	22.799	23.045	23.455	22.275	4.491	25
CH_4	***1.777***	1.777	1.826	1.802	1.789	1.729	1.675	1.671	-105	-6
N_2O	***824***	824	767	774	747	531	400	393	-431	-52
HFC	931	**490**	1.193	638	592	798	565	903	-27	-3
PFC	0	**0**	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	100
SF_6	3	**3**	8	10	9	10	10	9	7	261
GUZTIRA	**21.317**	**20.875**	**26.225**	**26.043**	**25.936**	**26.112**	**26.105**	**25.252**	**3.934**	**18**

Iturria: EAEko BEG isurien 1990-2008 inbentarioa

ekipamendu elektronikoen fabrikazioan eta beste erabilera batzuetan (hozgarriak, itzaltzeko agenteak, aparren fabrikazioa, etab.) erabiltzen eta isurtzen dira.

Masa unitateetako isuri absolutua gainontzeko berotegi-efektuko gasena baino txikiagoa da, baina hala ere, daukaten berotzeko ahalmen handia eta azken urteetako erabileraren hazkundea direlaeta, berotegi-efektuko gasen guztizko isurien joeran eragin handia daukate.

Fluordun gas horien isuriek 2008an BEG isuri guztien %3,6 eragin zituzten, 2007an baino %60 gehiago, eta horrek, abiapuntu urteko (1995) mailen aldean, %3tik gorako jaitsiera dakar. Murrizketa horren zio nagusia industria kimikoaren isuri txikiagoa da.

Bukatzeko, esan behar da 2009an Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/28/CE Zuzentaraua onartu zela. Zuzentarau horrek 27 herri kideei 2020rako "20-20-20 helburua" delakoa bere eginarazten die: karbono dioxidoaren (CO_2) isuriak 1990eko mailen aldean %20 murriztea; energia eraginkortasuna hobetuz, energia kontsumoa %20 murriztea; eta Europar Batasuneko (EB) energiaren %20 energia berriztagarrietatik etortzea.

Zuzentaraua ordenamendu juridiko nazionalera egokitzeko azken eguna abenduaren 25a da, 4. artikulurako izan ezik. Artikulu hori berehala sartu da indarrean eta berriztagarrien Ekintza Plan Nazionalari (EPN) buruzkoa da. Gobernuek 2010eko urtarrilean EPNren aurrerapen bat izan beharko dute eta Batzordeari beranduenez urte horretako ekainaren 30ean aurkeztu beharko diote.

3.2. BASOGINTZA ETA INGURUMENA

Basoek, landa eremuak garatzeko laguntza handia izateaz gain, funtsezko balioa daukate natura zaintzeko, eginkizun garrantzitsua daukate ingurumena babesteko, funtsezkoak dira karbonoaren zikloan eta elementu horren hustubide garrantzitsuak dira, eta ziklo hidrologikoa zaintzeko ezinbesteko eragilea dira.

Basoen garrantzia Rioko Biltzarrean (1992) aitortu zen lehenengo aldiz. Europa mailan, Basoen Babesari buruzko Ministerio Biltzarrak 1990ean abiarazi ziren Europako basoen osasuna eta bizitasuna bermatzeko xedez, eta horretarako Europa osoan ezarri beharreko irizpìdeak eta adierazleak zehaztu eta garatu ziren. EBk balekotzat jo ditu adierazle eta irizpide horiek basoen egoerari buruzko informazio sarea sortzeko. Helburu hori Basoetarako EBren 2007-2011 ekintza planean jaso zen.

2007an Eusko Jaurlaritzak eta IHOBEk ikerketa bat egin zuten (*Basogintza eta ingurumena EAEn. 2008 adierazleak*) EBk eskatutako betekizunei dagokienez sektorearen monitorizazioa aurreratzeko xedez. Lan horretarako erreferentzia nagusia Ministerio Biltzarretan garatutako Europa osorako Adierazleak izan ziren, zehazki, 2003an Vienan burutu zen Laugarren Ministerio Biltzarretik eratorritakoak.

Erantsitako taulak Europa osoko mailan ezarritako sei arlo edo irizpideetan banatutako 23 adierazleetarako izandako emaitzak erakusten ditu, eskematikoki.

3.3. ENPRESA INDUSTRIALA ETA INGURUMENA

3.3.1. Enpresen ingurumen konpromisoa. Ingurumen kudeaketa

Ingurumen kudeaketa sistemaren ezarpena, ingurumen konpromisoa ez ezik, nazioarteko merkatuan lehiakortasun eragile garrantzitsua da.

IHOBEk emandako azken datuen arabera, ingurumen ziurtagirien edo ziurtagiri "berde"en kopuruak (ISO 14001, Ekoscan araua, EMAS europar araudia edo UNE 150.301-Ecodiseño) gora jarraitzen du. Horrela, 2007 eta 2008 artean 1.130 ziurtagiritik 1.228ra pasatu da (98 berri).

Zenbaki absolututan 69 ISO 14.001 ziurtagiri berri, EMAS berri 2, EKOSCANi lotutako 24 eta ECODISEÑOri lotutako 3 daude, guztira 1.048 ISO 14.001 ziurtagiri, 36 EMAS, 24 EKOSCAN eta 14 ECODISEÑO.

I.3.15. TAULA. EAE-ko basogintza eta ingurumen adierazleen laburpen taula, 2008

ARLOA	ADIERAZLEA	ALDERDI GARRANTZITSUAK	JOERA
1.Baso baliabideen mantentze eta hobekuntza egokiak eta karbonoaren ziklo orokorrei egindako ekarpena	1. Baso azalera eta basoko beste lursail batzuk	EAEko azaleraren %55 zuhaiztidun basoak dira, 396.701 ha, 1996ko inbentarioan erregistratutakoa baino %1,7 gehiago. Lehenengo aldiz, inbentario batean hostozabalen azalera koniferoena baino handiagoa da, %51 eta %49, hurrenez hurren.	☺
	2. Zur izakinak	1972az geroztik, EAE osorako hektareako bolumena%70 hazi da eta 2005ean zuhaitz biomasaren bolumena guztira 54 milioi m3koa izan zen.	☺
	3. Karbono organikoaren stocka/balan-tzea	Baso azaleren kudeaketako aldaketak eta koniferoen dentsitatearen hazkundea dela-eta, egun koniferoek 61 tona karbono organiko daukate hektareako (t C organikoa/ha). 1972an 28 ziren.	☺
2. Baso ekosistemen osasunaren eta bizitasunaren mantentzea	4. Lurzoruaren egoera	Isurialde atlantikoan lursailen %82ren zoru sakonera 30 cm-tik gorakoa den bitartean, isurialde mediterraneoan %73rena da holakoa.	😐
		Baso erdinaturalen lursailen %30ek zoruan daukaten materia organikoa %5 baino gu-txiago da. Baso sailetan portzentajea %54koa da.	
	5. Defoliazioa	Zuhaiztidun baso azalera gehienak ez dauka defoliazio kalterik. EAEko zuhaiztidun baso azaleraren %8k hondatze egoera neurritsua edo larria dauka edo zuhaitz hilak dira.	☺
	6. Baso masako kalteak (biotikoak eta abiotikoak)	2005ean laginetan kalte biotiko edo abiotikoren bat daukan oin portzentaje handiagoa dago. Zehazki, laginetako oinen %16,5ek kalteren bat izan zuten 2005ean.	
		EAEn hondamendiek eragindako mozketa bolumena oso txikia da, mozketa guztien %3 baino gutxiago.	
3. Basoen ekoizpen eginkizunen mantentzea eta hobekuntza	7. Hazkuntza eta egur mozketak	Zuhaiztidun baso azaleraren urteko hazkuntza tasaren bilakaera oso ona da, Baso Inbentarioetako datuen arabera. 1986 eta 2005 artean, hazkuntza tasa %118 hazi da, azken urteko inbentarioan 9,66 m3/ha-ra iritsi da.	☺
	8. Kudeaketa planen azpiko baso azalera	2007an, EAEko zuhaiztidun baso azaleraren %13 PEFC baso ziurtagiriaren pean dago. 2004ko portzentajea ia bikoiztu da. Orduan eman ziren lehenengo ziurtagiriak (%7).	☺
	9. Zur bihurtu ezineko baso produktuak	Araban eta EAE osoan baso ekosistemei eta konifero sailei lotuta araututako ehiza hazi egin da azken urteotan, bai kantitateari bai balio ekonomikoari dagokionez. Gipuzkoan eta Bizkaian gutxi gorabehera egonkor iraun du.	☺

I.3.15. TAULA. (jarraipena)

ARLOA	ADIERAZLEA	ALDERDI GARRANTZITSUAK	JOERA
4. Baso ekosistemen aniztasun biologikoaren mantentze, zaintza eta hobekuntza egokia	10. Naturaltasuna	EAEko zuhaiztidun baso azalera naturala %7 hazi da 1986ko Baso Inbentariotik eta 189.191 ha-ra iritsi da. Hori EAEko zuhaiztidun baso azalera guztiaren %47 da oraindik.	😐
		Pagadiak eta karraskalak euren azalera potentzialean gehien agertzen diren arboladiak dira, %24. Harizti subatlantiko eta atlantikoek euren azalera potentzialaren %2,4 eta %4 baino ez dute hartzen.	
	11. Baso babestuak	2005ean, Herri-onurako Mendietako zuhaiztidun baso azalera 162.831 ha-ra iritsi zen, EAEko zuhaiztidun baso azalera guztiaren %41. 1986aren aldean %17,6 hazi da.	☺
		EAEko zuhaiztidun baso azalera guztiaren %25, 97.245 ha, Natura 2000 Sareren baitako esparruetan dago.	
	12. Birsorkuntza	2005ean, oin handien lehenengo estratua halako hiru oin txiki eta erdi daude. Hori dela-eta, baso kudeaketak etorkizunean masak mantentzea eta zurgintzarako ustiatu ahal izatea bermatzen du.	☺
	13. Mehatxupeko espezieak	Fauna eta flora espezie mehatxatuen EAEko katalogoan basoko faunako 33 espezie eta basoko florako 16 daude.	☹
	14. Baliabide genetikoak	Ondoren baso azalera berriak landatzeko erabiliko den material genetikoa hobetzeko azalera %184 hazi da 1999z geroztik, 2007an 1.448 ha izan arte.	☺
	15. Baso azalera mistoak	1986ko Baso Inbentariotik, EAEn baso mistoen azalera %70 hazi da, 64.300 ha-ra iritsi arte (guztiaren %16,5).	☺
	16. Paisaia eredua eta zatiketa	EAEko zuhaiztidun baso azalera eremu handiek faunaren bioaniztasunerako konektibitate maila urriak dauzkate.	☹
		Zehazki, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan dauden konifera sail produktiboek Araban nagusi diren baso natural eta erdi-naturalek baino kostu-distantzia maila askoz handiagoak dauzkate faunaren joan-etorrietarako.	
	17. Zuhaitzak/egur hila	EAEko baso eremuetako batez besteko egur bolumena %111 hazi da Basonet Sarean egindako neurketaren (2001) eta 2005eko Baso Inbentarioak egindakoaren artean, eta 2005ean 3,8 m3/ha-ra iritsi da.	☺

I.3.15. TAULA. (jarraipena)

ARLOA	ADIERAZLEA	ALDERDI GARRANTZITSUAK	JOERA
5. Baso masen babes eginkizunen mantentzea eta hobekuntza egokia	18. Ibaiertzeko basoaren kalitatea	Ibaiertzeko basoen azalera ondo ari da berreskuratzen. 1996ko inbentariotik 2005kora arte %30 hazi da eta egun 4.800 ha-ra iritsi da. Hala ere, ekosistemaren kalitate adierazleek erakusten dute aztertutako 1.428 km ibaiertzeko basoetatik 520 km-ren (%37) egoera hondatuta edo eskasa dela.	😐
	19. Baso masen babes gaitasuna.	EAEk baso masa estaldura handia dauka kritikotzat jotzen diren aldapetan, %50etik gorako malda. %50etik gorako malda duen azaleraren %79k zuhaiztidun estaldura dauka, eta haien sustraiek substratuari heldu, eutsi eta urak eta beste elementu batzuek eragindako higaduratik babesten dute.	☺
		Hala ere, baso jarduerak eragindako higadura hidrikoaren urteko gehienezko tasa oso handia da isurialde atlantikoan. Baso azalera guztiaren %28k higadura maila handiak edo oso handiak izan ditzake –urteko 50 eta 100 t/ha artean, eta 100dik gora, hurrenez hurren–. Higaduraren eragina malda handietako baso ustiapenean makineria txarto erabiltzeari dago lotuta.	☹
6. Beste eginkizun eta baldintza sozioekonomiko batzuen mantentzea	20. Baso sektorearen garrantzia	Baso sektorearen azken ekoizpenaren balio ekonomikoa %56 jaitsi da 1998tik 2006 arte. Azken urte horretan 52 milioi eurokoa izan da.	☹
	21. Egur kontsumoa	1995 eta 2005 artean, EAEn egur kontsumoa %21 jaitsi da, azken urte horretan 1,8 milioi tona.	
	22. Enplegua	1998 eta 2005 artean baso sektoreak enpleguen %26 galdu ditu, azken urte horretan 5.000 baino apur bat gutxiago.	☹
	23. Gozatzeko irisgarritasuna, ale azpimarragarriak eta ondare historikoa	2005ean biztanleko zuhaiztidun baso azalera 0,19 ha/biztanlekoa zena, 1072an zegoena baino %9 gehiago. Urte hartan EAEk 155 atsedenleku zeuzkan baso inguruetan. Beste autonomia erkidegoetan ez bezala, EAEn herritarrak lurraldean dauden baso guztietara askatasunez sartu eta haietaz gozatzea bermatzen da, zein ere den haien jabea.	☺

☺ Lortzen errazak diren helburuak
😐 Zalantzaz bada ere lor daitezkeen helburuak
☹ Lortzen zailak diren helburuak
Iturria: Basogintza eta ingurumena EAEn. 2008 adierazleak. EUSKO JAURLARITZA

I.3.16. TAULA. Ingurumen ziurtagirien historikoa EAE-n

	ISO14001	EMAS	EKOS-CAN	ECODI-SEÑO
1999	54	1	0	0
2000	127	1	0	0
2001	224	2	0	0
2002	333	3	0	0
2003	470	6	0	0
2004	611	12	36	0
2005	767	19	49	1
2006	878	26	75	5
2007	979	34	106	11
2008	1.048	36	130	14
Bariazio absolutua	69	2	24	3

Iturria: IHOBE

I.3.17. TAULA. Nazioarteko ziurtagiriak. 2007

	ISO 14.001	EMAS
Japonia	21.779	–
Alemania	5.800	1.979
Erresuma Batua	5.400	364
Suedia	4.865	85
Espainia*	11.205	843
AEB	8.081	–
Australia	1.964	–
Taiwan	1.597	–
Frantzia	3.629	17
Italia	9.825	761
Txina	18.979	–

Iturria: IHOBE

Horren ondorioz, EAE oraindik dago mundu mailako lurralde nagusien artean. Izan ere, 2007an Alemaniak 5.800 ISO 14.001 ziurtagiri zeuzkan erregistratuta; Erresuma Batuak, 5.400; Suediak, 4.685, AEBk 8.061; Australiak 1.964; Taiwanek, 1.597; Frantziak, 3.629; Italiak, 3.925; Espainiak, 11.025; Txinak, 18.797; eta Japoniak, 21.779.

3.3.2 Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean

EINk egindako *Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuari buruzko inkesta*ko azken datuen arabera, 2007an EAEn aipatu enpresek ingurumen babesean izandako gastua guztira 230,2 milioi eurokoa izan zen. Hori 2006an baino %4,2 gehiago da.

230,2 milioi euro horietatik, 82.627.282 euro, hots, %35,9, inbertsioetako gastuari (%39,7 2006an) dagozkio eta %64,1 gastu korronteei.

Gastua BPGd-ren portzentaje bezala neurtuta, 2007an beste murrizketa bat ikusten da, %0,35ean geratuz. Horrela, EAE seigarren tokitik zortzigarrenera igaro da, Asturias (%0,94), Galizia (%0,58), Gaztela eta Leon (%0,47), Aragoi (%0,44), Errioxa (%0,41) eta Nafarroaren (%0,4) atzean.

I.3.18. TAULA. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean

	GASTUA EUROTAN				GASTUA / BPGd (%)			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007 b
ANDALUZIA	260.729.994	272.869.310	278.872.489	313.010.499	0,23	0,22	0,21	0,22
ARAGOI	66.423.193	70.629.740	86.645.466	143.620.364	0,26	0,25	0,29	0,44
ASTURIAS	100.763.912	129.282.155	182.993.115	215.247.165	0,56	0,66	0,86	0,94
BALEAR UHARTEAK	8.578.446	21.385.149	18.209.920	34.066.011	0,04	0,09	0,07	0,13
KANARIAR UHARTEAK	46.940.256	36.648.245	34.051.981	35.108.376	0,14	0,10	0,09	0,08
KANTABRIA	28.556.244	35.760.103	47.792.877	64.195.561	0,27	0,31	0,39	0,48
GAZTELA ETA LEON	184.800.061	165.240.482	194.264.504	264.475.089	0,41	0,34	0,37	0,47
GAZTELA-MANTXA	91.943.337	101.354.223	111.221.225	113.100.200	0,32	0,33	0,34	0,32
KATALUNIA	580.469.271	601.370.205	629.136.214	659.082.537	0,37	0,35	0,34	0,33
VALENTZIA	214.494.486	223.981.202	252.257.387	263.224.457	0,26	0,25	0,26	0,26
EXTREMADURA	14.519.322	15.442.785	18.225.467	20.852.402	0,10	0,10	0,11	0,12
GALIZIA	148.397.658	179.021.551	218.480.110	310.964.170	0,35	0,39	0,43	0,58
MADRIL	129.760.216	142.677.846	150.627.230	170.127.122	0,09	0,09	0,09	0,09
MURTZIA	72.434.016	72.577.276	77.493.768	72.009.557	0,34	0,31	0,31	0,27
NAFARROA	58.617.935	62.128.847	76.206.491	70.688.291	0,41	0,40	0,46	0,40
EAE	**198.277.508**	**211.847.251**	**220.916.516**	**230.180.351**	**0,38**	**0,38**	**0,36**	**0,35**
ERRIOXA	16.738.346	17.687.774	19.394.534	32.032.363	0,27	0,26	0,27	0,41

b: BPGd-ren datuak behin-behinekoak dira
Iturria: EIN

4

Azpiegitura produktiboak

Azpiegitura fisikoak zona jakin bat garatzeko behar diren euskarri ekipamenduek, egiturek eta zerbitzuek eratutako multzoa da. Bi azpiegitura mota bereizi ohi da: batetik, garapen produktiboarekin zerikusia duena (azpiegitura ekonomikoa edo oinarrizkoa); bertan, ur, elektrizitate eta gas horniduraren zerbitzuak, zabor bilketa eta hondakinen arazketa, garraioa, telekomunikazioak eta lurzoruaren kudeaketari uztartutakoak (uholdeen prebentzioa, drainatzea, higadura, basoberritzea…) sartuko lirateke. Bestetik, gizarte azpiegitura egongo litzateke, jendeari laguntza zerbitzuak, osasunekoak, hezkuntzakoak, kulturakoak, ingurumenekoak, prebentziokoak, segurtasunekoak eta administratiboak ematera zuzenduta.

Horrela, azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Zentzu horretan, EAEk orografia zaila eta biztanleriaren aldetiko dentsitate altua ageri ditu, hainbat hirigunetan sakabanatutako biztanleriaren banaketarekin batera. Ondorioz, horrelako azpiegituretarako behar den inbertsioa altua da, bai tokiaren aldetik espazio handia bete behar delako, bai horien eraikuntzak berak dakartzan kostuak adierazgarriak direlako (ekonomikoak, gizartekoak eta ingurumenekoak).

4.1. GARRAIOA

Egoera estrategikoagatik nahiz industriako jarduera altuagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila altuenetarikoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate altuagokoak diren zerbitzu batzuk eskainiz.

I.4.1. TAULA. Obra publikoaren lizitazioa EAE-n (milioi eurotan)

	2006	2007	2008	2009
Adm. Nagusia	623	584	205	269
Adm. Autonomikoa	303	570	767	846
Tokiko Adm.	2.334	1.795	1.390	1.632
GUZTIRA	**3.260**	**2.950**	**2.362**	**2.747**
Eraikuntza	623	862	911	1.073
Obra zibila	2.637	2.088	1.451	1.674

Iturria: SEOPAN

I.4.2. TAULA. Esleipenak EAE-n ingeniaritza zibilean, sustapen ministerioaren eta estatuko erakunde publikoen aldetik (mila eurotan)

	2006	2007	2008	2009
Guztira (Ministerioa, EEAA eta Estatuko Erakunde Publikoak-EEP)	**201.052**	**609.119**	**79.349**	**117.614**
Ministerioa eta Erakunde Autonomoak	-	-	-	-
EEP: AENA	7.371	5.650	49.741	15.997
EEP: FEVE	20.963	4.536	8.391	5.769
EEP:ADIF	173.681	548.613	8.480	108.557
EEP: Portuak	32.447	55.943	55.312	5.464
EEP : RENFE	641	267	1.065	578

Iturria: Sustapen Ministerioa.

2006. urtean hiru proiektu handi martxan jarri zen: Abiadura handiko trenbidearen lehenengo tarteak, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea – Supersur bilbotarra eta Donostia inguratzen duen A8 autobidearen ingurabidea (2010eko irailean inauguratu zuten).

Proiektu horiek isla dute Estatuko Administrazioak obra zibilean egindako lizitazio bolumen garrantzitsuan, hura baita Europa Barruko eta Penintsula Barruko Trenbideen Sarean dauden eskumenen titular. Gauza bera Tokiko Administrazioen lizitazio bolumenean, Errepideen Sarea Foru Aldundien eskumena delako.

I.4.3. TAULA. Garraio azpiegituretan egindako inbertsioak lurralde eremua, garraio modua, organoak eta urtea gorabehera (mila eurotan)

	EAE				ESTATUA			
	2005	2006	2007	2008(p)	2005	2006	2007	2008(p)
GUZTIRA ERREPIDEAK	**352.734**	**16.731**	**406.971**	**422.857**	**8.318.691**	**8.406.032**	**7.770.128**	**8.098.768**
Estatua	---	---	6	0	3.153.269	3.443.439	3.644.654	3.716.690
Autonomia Erkidegoak	---	---	---	---	2.694.519	2.736.763	2.699.120	2.914.801
Aldundiak	347.784	342.617(p)	398.986	419.048	898.730	921.471	973.287	993.299
Bidesaria duten autobideen emakidadunak	4.950	16.731	7.979	3.809	1.572.173	1.304.359	453.065	473.977
GUZTIRA TRENBIDEA	**117.702(p)**	**96.522(p)**	**51.031(p)**	**161.815**	**6.244.532**	**7.117.019**	**8.236.320**	**9.045.298**
Trenbideen ZN	21.121(p)	20.417(p)	9.286(p)	10.732	1.308.566	1.444.688	1.574.986	1.704.893
ADIF	31.886(p)	29.117(p)	29.156(p)	111.025	3.518.120	3.837.223	4.706.000	5.250.890
Autonomia Erkidegoak	---	---	---	---	301.393	330.263	383.489	444.887
RENFE	1.186(p)	4.299(p)	2.023(p)	2.320	743.582	1.015.719	1.106.615	1.233.000
Guztira aldirikoak	**63.509(p)**	**42.689(p)**	**10.566(p)**	**37.739**	**372.871**	**489.126**	**465.230**	**411.628**
FEVE	8.150(p)	11.437(p)	10.566(p)	9.854	75.880	80.803	80.073	101.697
AAEEetako konpainiak	55.359(p)	31.252(p)	---	27.885	296.991	408.323	385.157	309.931
GUZTIRA AIRETIK	**21.069**	**14.159(p)**	**12.779**	**18.979**	**1.512.441**	**1.828.821**	**2.163.753**	**2.443.463**
Abiazio zibilaren ZN	---	---	---	---	5.811	6.962	9.589	10.752
AENA	21.069	14.159(p)	12.779	18.979	1.506.630	1.821.859	2.154.164	2.432.711
GUZTIRA ITSASOTIK	**79.117**	**55.045**	**54.724**	**86.543**	**1.209.587**	**1.427.060**	**1.524.479**	**1.774.074**
Merkataritza-itsasketako ZN	264	660	901	239	9.549	8.929	10.088	9.669
Kostaldeen ZN	3.060	2.300	8.127	7.855	140.899	158.385	183.734	195.857
Estatuko Portuen Ente Publikoa	57.088	37.264	23.873	60.507	868.516	1.070.133	1.012.873	1.264.282
Salbamenduko eta Itsas Segurtasuneko Estatu Mailako Sozietatea	---	---	940	---	57	69.700	157.985	104.666
Erkidegoko Portuak	18.705	14.821	20.883	17.942	133.623	119.913	159.799	199.600

(b-b) behin-behinekoak
Unitatea: Milaka eurotan
Iturria: Sustapen Ministerioa. Urtekari estatistikoak.

I.4.4. TAULA. Garraio sistemaren eraketa EAE-n

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ENTE/OPERADOREA
Bide sistema	Errepideen Sare Orokorra	Foru Aldundiak	Garraioaren Zerbitzu Publikoaren emakidaduna / hura ematen duena
	Hiri Sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbideen sistema	Europa Barneko Sarea	Estatua	Renfe
	Penintsulako Sarea		
	Sare metrikoa	EAE	Eusko Tren
		Estatua	FEVE
	Metro/tranbia	EAE	Metro Bilbao, Eusko Tren
	Zubi Esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portu sistema	Interes Orokorreko Portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Erkidegoko Portuak	EAE	EAE
Airetiko sistema	Interes Orokorreko Aireportuak	Estatua	AENA
Kable sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Publikoak
			Pribatuak
Garraio Intermodalaren sistema	Garraio eta Logistika Zentroak	Partzuergo / entitate publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Garraioaren Plan Zuzentzailea 2002-2010.

Gauzak horrela, ADIF (Trenbide Azpiegituren Administratzaile) Estatuko Sozietate Publikoak ingeniaritza zibilean, EAEn, egindako esleipenak bereziki altuak dira 2006., 2007. eta 2009. urteetan Sustapen Ministerioaren datuen arabera.

Errepide, trenbide, itsaso eta airetiko garraio azpiegituretan egindako inbertsioei dagokienez, Sustapen Ministerioaren azken datuak 2008. urteari buruzkoak dira eta horietan guztietan hazkundea ikus daiteke.

4.1.1. Errepidetiko garraioa

(a) Azpiegitura

EAE Iparraldetik Hegoaldera zeharkatzen du N-1 errepideak, eta errepide hori lehen mailako ibilbide europarraren zatia da (E-5 Glasgow-Paris-Algeciras erreferentziako errepidea). Bidesaria duten A-8 Bilbo-Behobia (horretan barrena E-70 A Coruña-Bordele errepidea igarotzen da) eta A-68 Bilbo-Zaragoza (E-80 Lisboa-Pau) autobideekin batera, Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen dutenak erkidego hau, Penintsula Iberikoa Europako gainerako tokiekin lotzeko komunikazio bide nagusietako bat eratzen du.

Nazioarteko trafikoko bide horiez gain, EAEko barne komunikazioa 4.000 kilometrotik gorako luzera duen errepide sareak eratzen du eta haren titulartasuna Foru Aldundiena da (A8 autobidearen gaineko titulartasunarekin batera).

Lurralde arteko lotura bide nagusietako batzuk Deba haraneko korridorea eta Durango-Beasain zeharkako ardatza dira (eraikitzen ari dira). Horiei esker posi-

I.4.1. GRAFIKOA. Inbertsioa errepideetan EAEn



Iturria: Eustat

ble da industria udalerri nagusietako batzuen eta gehien jendeztatutakoen arteko komunikazioa Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean. Halaber, Leitzaraneko autobia egongo litzateke, Gipuzkoa eta Nafarroa lotuz. Sare hau, funtsean, hirurogeita hamarreko hamarkadatik dago eraikita, nahiz eta egindako inbertsioak bideak hobetzera edo arazo gehien sortzen zituzten puntuak ezabatzera zuzendu diren.

Bestalde, Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea, E-5 Ipar-Hego ardatzean Europa Barneko Garraioen Sarearen barruan dagoena, errepideetan EAEn orain dela gutxi egindako obra garrantzitsuenetako bat da eta 2009. urteko maiatzean inauguratu zuten.

EAEko errepideetan egindako batez besteko inbertsioa (eraikuntzan, artapenean eta ustiapenean), EUSTATen datuen arabera, 419 milioi eurora iristen zen gastu publikoa zen 2007. urtean (% 5eko hazkundea aurreko aldiaren aldean; urtebete lehenago % 16,5ekoa izan zen). Kopuru hori, gutxi gorabehera, 193,7 € da biztanle bakoitzeko eta 99,7 € sareko km bakoitzeko (% 5,7ko hazkundea aurreko aldiaren aldean; urtebete lehenago % 15,7koa izan zen).

Europako sare trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetako bat edukitzeagatik (0,58 km errepide azalerako km^2-ko, Estatuak duenaren bikoitza (0,33), nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarea, % 11,6 baino gehiagoan, edukiera handiko bideek eratzen dute (horietatik % 49,2 bidesaria duten autobideak dira), Estatuko % 9,2aren aldean (15.113 km-tik 2.997 bidesariko autobideak dira, hau da, % 19,8ko kopurua % 49,2koaren aurrean EAEn).

I.4.5. TAULA. Errepide sarea (km) mota gorabehera

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Guztira Estatuan	164.584	165.152	165.646	166.339	166.011	165.011
Edukiera handiko bideak (1+2)	12.009	12.444	13.156	13.872	14.689	15.113
Gainerako sarea (3)	152.575	152.575	152.490	152.467	151.322	149.898
Guztira EAEn	**4.263**	**4.250**	**4.218**	**4.205**	**4.229**	**4.203**
Bidesari autobideak (1)	201	206	211	211	228	240
Autobide libreak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	318	316	325	317	345	248
Galtzada bakarreko errepideak (3)	3.744	3.728	3.682	3.677	3.656	3.615

Iturria: EUSTAT EAErentzat eta EIN Estatuarentzat.

I.4.6. TAULA. Errepide sarea (km) mota eta lurraldea gorabehera

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Estatua, 2008
Sare osoa (km) / azalera	0,59	0,59	0,59	0,58	0,59	0,58	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	2,03	2,02	1,97	1,99	1,97	1,94	3,53
Ibilgailu parkea / sare osoa	258,6	267,8	277,5	286,6	296,2	303,5	187,7
Ibilgailu parkea / biztanle	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,8
Batez besteko inbertsioa eurotan biztanleko	148,9	159,7	162,4	162,0	185,8	193,7	-
Batez besteko inbertsioa milaka eurotan sareko km-ko	73,2	79,1	82,5	81,5	94,3	99,7	-
Km errepide	4.263	4.250	4.218	4.205	4.229	4.203	165.011
Biztanleak	2.095.014	2.104.396	2.140.908	2.115.383	2.147.754	2.162.944	46.745.807
Ibilgailu parkea	1.102.418	1.138.201	1.170.574	1.205.350	1.252.519	1.275.782	30.969.224
Batez besteko inbertsioa (milaka eurotan)	311.917	336.011	347.784	342.617	398.986	419.048	-

Iturria: EUSTAT EAErentzat eta EIN Estatuarentzat.

I.4.7. TAULA. Errepide sarearen segurtasuna, istripu ratioa

	2006		2007		2008	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Biktimak izan dituzten istripuak	3.412	99.797	3.380	100.508	5.136	93.161
Ibilgailu parkea	1.205.350	28.871.392	1.252.519	30.318.547	1.275.782	30.969.224
Istripu ratioa ibilgailu parkerako (mila ibilgailuko)	2,8	3,5	2,7	3,3	4,0	3,0

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Bestalde, ez da garrantzitsua bakarrik sare kopurua ezagutzea, baizik eta baita ere haren kalitatea zein den eta, horretarako, baloratu behar den elementuetako bat bideek eskaintzen duten segurtasuna da zirkulaziorako edo haietan gertatzen den istripu kopurua. Istripu kopurua ibilgailu parkearekin (motorrak, turismoak, kamioiak eta furgonetak, autobusak, industriako traktoreak eta beste ibilgailu batzuk) erlazionatzen duen tasak, EAEn eta 2008. urtean, Estatuan erregistratutako balioa baino balio altuagoa agertu zuen, 4,0koa

3,00koaren aldean 1.000 ibilgailuko. Gainera, ratio hori areagotu egiten zen aurreko ekitaldian erregistraturikoaren aldean.

Azkenik, aipatu egin behar da EAEn gaur egun garraioko lau zentro intermodal dagoela: Vitoria-Gasteizko Garraio Zentroa, Arasur (Rivabellosa, 2006. urteko urtarrilean inauguratutakoa), Zaisa (Irun), Aparkabisa (Trapaga), "Europlatforms" Garraioko Plataformen Talde Europarrari elkartutakoak. Azken horren xedea garraioko zentro logistikoen erabilgarritasun ekonomikoa sustatzea da.

(b) Trafikoaren bilakaera

Errepidetiko salgaien trafikoa (bertan ez da sartzen iragaitzaz dagoen nazioarteko trafikoa) beheratu egin da 2008. eta 2009. urteen artean, bai Estatuan, bai EAEn.

EAEren kasu berezian, murriztapen honen arrazoia eskualde barruko garraioaren beherakada (% -17,6koa; urtebete lehenago % -4,3koa zen) nahiz lurralde artekoak izandakoa (% -5,6; 2007. eta 2008. urteen artean % -9,6koa izan zen) da.

I.4.8. TAULA. EAE-ko salgaien barne garraioa (mila tonatan)

		1995	2000	2005	2006	2008	2009	2008-09
ESTATUAN GARRAIATUTAKO GUZTIA		**907.789**	**1.496.415**	**1.578.525**	**1.673.517**	**1.474.552**	**1.224.159**	**-17,0**
EAE								
Garraiaturikoa [a+b+c]		**79.627**	**107.109**	**108.243**	**117.683**	**109.654**	**96.477**	**-12,0**
Kargatutakoa (a+b)		61.526	83.661	83.999	89.340	85.244	72.599	-14,8
Deskargatutakoa (a+c)		60.064	83.083	82.878	90.188	83.592	72.648	-13,1
Joan-etorri mota								
Eskualde barrukoa (a)*		**41.963**	**59.635**	**58.634**	**61.845**	**59.182**	**48.769**	**-17,6**
Eskualde artekoa	**Guztira (a+b)**	**37.664**	**47.474**	**49.609**	**55.838**	**50.472**	**47.708**	**-5,5**
	Bidalitakoa (b)	19.563	24.026	25.365	27.495	26.063	23.829	-8,6
	Jasotakoa (c)	18.101	23.448	24.244	28.343	24.410	23.878	-2,2
Eskualde arteko ratioa	Guztira [(b+c)/(a+b+c)]	47,3	44,3	45,8	47,4	46,0	49,4	–
	Bidalitakoa [b/(a+b)]	31,7	28,7	30,1	30,7	30,6	32,8	–
	Jasotakoa [c/(a+c)]	30,1	28,2	29,2	31,4	29,2	32,9	–
EAEk Estatuaren aldean duen %a		8,8	7,2	6,9	7,0	7,4	7,9	–

* Arrazoi metodologikoak direla eta, kopuru oso honek ez du udalerri barruko garraioa hartzen. Iturria: Sustapen Ministerioa.

Aitzitik, EAEk Estatuaren multzo osoan eta errepidez garraiatutako salgaien kopuruan duen ratioak, 2005. urtera arte goranzko joera zuena, berretsi egiten du 2009. urtean 2006. urtean igarritako lehengoratzea. Gauzak horrela, 1995. urtean EAEk kopuru osoaren % 8,8 eta 2005. urtean % 6,9 hartzen bazituen ere, 2009. urtean % 7,9ra iritsi da.

Bestalde, hiri barruko autobusetan EAEn garraiatutako bidaiari kopurua, 2008. urtean, areagotu egin da berriro ere, 80.908 milioitik 82.166 milioira igaroz, hau da, 2007. urtean baino % 1,6 gehiago. Ekonomia Ministerioak eskainitako datuek, Sustapen Ministerioaren Urtekariak bildutakoak, erakutsi egiten dute Estatuan % 1,3ko murriztapena jazo dela eta 1.846 milioi bidaiaritik 1.823 milioira igarotzen dela.

4.1.2. Trenaren bitartez egindako garraioa

(a) Azpiegitura

Trenbide sareak jatorritik eduki dituen sorrera arazo ugariak (bide zabalera ezberdinak, estatu mailan trenaren bitartezko garraioaren bururatze erradiala, lotura falta, eta abar) larritu egiten dira gure erkidegoan orografia zaila delako eta bururatze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zaila da. Arrazoi horiek direla eta, EAEn, trena ez da lehiakorra beste garraio bide batzuekin, batez ere hiriburuen arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu baxuak dituelako eta ingurumenari beste garraio modu batzuk baino kalte gutxiago ekartzen diolako.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2008. urtean EAEren trenbideen sarea elektrifikatutako bideko 578,12 kilometrok eratzen zuen. Horietatik % 52,7 ADIFenak dira, Madril-Irun eta Bilbo-Miranda bi linea nagusiak kudeatuz, % 39,6 Eusko Trenenak, Bilbo-Donosti-Hendaia linearen jabe izanez, eta gainerako % 7,8 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie eta Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak kudeatzen ditu.

Ibilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokienez, azpimarratzekoa da Irungo lotunea TGV frantziarrarekin eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori abiadura handiko tren bati lotutako trenbide trazatu berria da EAErentzat; erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan lotzea agintzen du eta Madril eta Bordelerekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan.

Azkenik, adierazgarria da EAEn geltoki intermodal bakarra edukitzea, RENFEren mendeko den Jundizeko arabarra. Hura lehiatu egiten da trafiko europarrarengatik Baiona-Mugerreko pleiteko Zentro europarrarekin Baionatik gertu dagoen zonan. Azken horrek 20 Ha-ko gehi erreserbako 50 Ha-ko lurraldea du, trenbideekiko dituen lotuneekin eta autobiderako sarrerarekin batera.

I.4.9. TAULA. Trenbide km-a EAE-n, 2008

	ELEKTRIFIKATU GABE		ELEKTRIFIKATUTA	
	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra
ADIF	0	0	304,50	86,80
FEVE	42,70	42,70	44,96	19,75
EUSKO TREN	4,51	4,51	228,65	151,49
GUZTIRA	**47,21**	**47,21**	**578,11**	**258,04**

Iturria: Sustapen Ministerioa.

(b) Trafikoaren bilakaera

Bilboko Metroak eta Euskotrenek egindako bidaiarien trenbide garraioan –horientzat besterik ez baitugu daturik– ikus daiteke Bilboko Metroak garraiatutako bidaiari kopurua hazi egin dela berriro ere azken ekitaldian, % 0,8 hain zuzen (2008. urtean hazkundea % 0,5ekoa izan zen) eta 87 milioietan kokatzen da. Bestalde, Eusko Trenek garraiatutako bidaiari kopurua hazi egin zen % 17,9, aurreko urteko % 1,5eko beherakadaren aldean, eta portaera hori Vitoria-Gasteizko tranbia martxan jarri izanaren ondotik etorri da, izan ere, Azpeitia-Lasaoko lurrun trenak salbu, gainerako lineek murrizturik ikusi dute garraiatutako bidaiari kopurua.

I.4.10. TAULA. Euskotrenen eta Metro bilbaoren bidaiariak

	2000	2002	2004	2006	2007	2008	2009	2008-09
Guztira Eusko Tren	**18.139.002**	**18.031.909**	**18.896.716**	**21.045.775**	**21.223.949**	**20.898.398**	**24.638.334**	**17,9**
Bizkaia	7.602.391	7.399.323	9.124.769	10.167.450	9.996.416	9.698.594	9.263.776	-4,5
- Deusto-Lezama	2.379.388	2.309.525	2.107.986	2.146.331	2.178.769	2.205.520	2.072.941	-6,0
- Bilbo-Bermeo	2.444.836	2.326.543	2.199.683	2.274.004	2.215.664	2.099.169	2.003.722	-4,5
- Bilbo-Ermua	2.557.661	2.501.093	2.421.431	2.614.081	2.513.980	2.365.443	2.209.681	-6,6
- Larreinetako funikularra	220.506	214.914	203.973	198.182	181.651	181.749	177.980	-2,1
-Bilboko tranbia	.	47.248	2.191.696	2.934.852	2.906.352	2.846.713	2.799.452	-1,7
Gipuzkoa	10.536.611	10.632.586	9.771.947	10.878.325	11.227.533	11.088.624	10.685.276	-3,6
- Ermua-Amara	3.537.602	3.862.839	3.711.414	4.028.910	4.090.639	4.059.363	3.872.618	-4,6
- Lasarte Oria-Hendaia	6.973.967	6.743.713	6.026.775	6.812.493	7.094.864	6.994.603	6.775.308	-3,1
-Azpeitia – Lasao lurrun trena	25.042	26.034	33.758	36.922	42.030	34.658	37.350	7,8
Araba								
-Vitoria-Gasteizko tranbia*	-	-	-	-	-		4.689.282	-
Metro Bilbao	54.173.349	66.705.570	73.088.978	79.780.094	85.864.456	86.333.743	87.043.712	0,8

* 2008ko abenduaren 23tik aurrera. Iturria: EUSTAT

4.1.3. Airetiko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEn hiru aireportu dago (Loiu, Hondarribia eta Foronda), bakoitza hiriburu bakoitzetik hurbil kokatzen dena. Ondorioz, 70 km-ko eremu batean bost aireportu dago (Noaingoa, Iruñean, eta Biarritzekoa barne).

Loiuko aireportua (Bizkaian) Bilbotik 12 kilometrora dago, Loiuko udal mugartean eta komunikazio ezin hobearekin Espainia iparraldeko zonarekin: A-8, Santanderrekin komunikatuz mendebalderantz eta Donostiarekin, Irunekin eta Frantziarekin ekialderantz, eta AP-68 Gasteizekin, Logroñorekin, Zaragozarekin, Bartzelonarekin, Burgosekin eta Madrilekin lotuz. Eraikin terminal batek eratzen du, azalerako 32.000 metro koadrorekin. Halaber, 95.000 metro koadroko aparkalekua ere badu, 3.000 plazarekin, eta baita aireontziak aparkatzeko plataforma bat (iparraldeko plataforma) ere. Azken horrek terminalaren eremuari euskarri emateko balio du. Aireportuaren eraginkortasuna hobetzeko xedez eta Terminal Eraikina irisgarritasuneko araudira egokitze aldera, hainbat jarduera garatuko da datozen hilabeteetan hura zabaltzeko.

Hondarribiko aireportua (Gipuzkoa) Donostia iparekialdera kokatzen da, hiriburutik 22 kilometrora. Funtsean, mota erregularreko trafiko nazionalerako balio du, eta baita nazioartekorako ere.

Forondako aireportua (Araba) Gasteizko ipar-mendebaldera kokatzen da, zortzi kilometrora, haren udal mugartearen barruan, eta azpimarratzekoa da salgaien trafikoan duen garrantziagatik. Izan ere, trafiko horretan aldeko bilakaera jasan du, batez ere 1994tik aurrera (1993an 427 Tm mugitu zituen), izan ere, kargako kon-

painia batzuk aireportua hautatu dute salgaiak iristeko puntu gisa, ondoren handik banatzeko (galkorrak) eta baita bestelako salgaiak destino anitzetarantz irteteko ere (paketeria). 2009. urtean, laugarren aireportu espainiarra izan zen salgai bolumen handiena mugitu zutenen artean eta Madril-Barajasekoaren, Bartzelonakoaren eta Zaragozakoaren atzetik.

(d) Trafikoaren bilakaera

EAEko hiru aireportuetatik 3.965 milioi bidaiari igaro zen 2009. urtean, eta hori % 14,1eko murriztapena da aurreko urtearen aldean (% -5,6 urtebete lehenago). Salgaien trafikoari dagokionez, bolumena beheratu egin da % 18,2 aldi berdinean.

Loiuko aireportutik 3,6 milioi bidaiari igaro zen guztira 2009. urtean, eta hori % 12,3ko beherakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, bolumena beheratu egin da % 15,3 aldi berdinean.

Forondako aireportuak % 20,5eko beherakada jasan zuen 2008. eta 2009. urteen artean salgaien trafikoan. Bidaiari kopuruaren aldetik, trafiko bolumena erori egin zen 67 mila bidaiaritik 39 mila bidaiarira. Horrek esan nahi du % 42,2ko murriztapena egon zela.

Hondarribiko aireportuan, 2008. eta 2009. urteen artean, bidaiarien trafikoa % 27,3 erori zen eta salgaiena, aldiz, % 53,1.

4.1.4. Itsasotiko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEko itsas portuak hiru multzo handitan sailka daitezke. Lehen talde bat Bilboko eta Pasaiako interes orokorreko merkataritzako bi portu handiek eratuko lukete; haiek Portuko Agintaritzak kudeatzen ditu, Estatuaren titulartasunpean daudelako. Bigarren taldea gobernu autonomikoaren eskumenpean dauden itsas portuek eratuko lukete. Portuen hirugarren taldea, aldiz, aisialdiko itsas jarduerekin eta kirol erako arrantzarekin zerikusia dutenek eratuko lukete, hain zuzen ere EAEn

I.4.11. TAULA. Airetiko trafikoaren bilakaera kontzeptu, eremu eta aireportuka

	EAE				Foronda				Loiu				Hondarribia				2008-09			
	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009	CAPV	Foronda	Loiu	Hondarr.
Guztira aireontziak	**69.540**	**72.745**	**70.418**	**58.796**	**9.015**	**8.599**	**9.054**	**6.210**	**51.712**	**54.353**	**52.523**	**46.102**	**8.813**	**9.793**	**8.841**	**6.484**	**-16,5**	**-31,4**	**-12,2**	**-26,7**
Nazionala	49.155	50.813	49.205	41.777	4.86	4.558	5.108	3.170	35.729	36.680	35.419	32.192	8.566	9.575	8.678	6.415	-15,1	-37,9	-9,1	-26,1
Nazioartekoa	20.385	21.932	21.213	17.019	4.155	4.041	3.946	3.040	15.983	17.673	17.104	13.910	247	218	163	69	-19,8	-23,0	-18,7	-57,7
Guztira bidaiariak (milakoetan)	**4.389**	**4.886**	**4.613**	**3.965**	**172**	**172**	**67**	**39**	**3.857**	**4.254**	**4.150**	**3.638**	**360**	**460**	**396**	**288**	**-14,1**	**-42,2**	**-12,3**	**-27,3**
Nazionala	3.295	3.702	3.511	3.021	81	71	63	37	2.855	3.174	3.053	2.697	359	457	395	287	-14,0	-41,4	-11,7	-27,3
Nazioartekoa	1.094	1.184	1.101	944	91	101	4	2	1.002	1.080	1.096	941	1	3	0,5	0,6	-14,3	-52,5	-14,1	20,0
Guztira salgaiak (Tm)	**47.356**	**20.276**	**17.997**	**14.721**	**17.523**	**16.811**	**14.763**	**11.736**	**3.391**	**3.220**	**3.170**	**2.685**	**281**	**245**	**64**	**30**	**-18,2**	**-20,5**	**-15,3**	**-53,1**
Nazionala	10.698	5.281	5.763	4.132	3.048	2.887	3.227	2.005	2.132	2.162	2.480	2.100	270	232	56	27	-28,3	-37,9	-15,3	-51,8
Nazioartekoa	36.658	14.995	12.233	10.318	14.475	13.924	11.536	9.730	1.259	1.058	690	585	11	13	7	3	-15,7	-15,7	-15,2	-58,6

Iturria: Sustapen Ministerioa.

hastapenetan dauden jarduerak gehienbat. Gure arreta gure erkidegoko bi portu handietan jarriko dugu: Bilbo eta Pasaia.

(b) Trafikoaren bilakaera

Sustapen Ministerioak "Urtekari Estatistikoa 2008" agirian argitaratutako datuen arabera, Bilboko Portua Estatuko laugarren portu garrantzitsuen bezala kokatzen da berriro ere 2008. urtean salgaien trafikoari dagokionez. 39,4 milioi tonako bolumena eduki du –kargetan eta deskargetan– eta Algecirasen (74,7 milioi Tm), Valentziaren (59,6 milioi Tm) eta Bartzelonaren (51,8 milioi Tm) atzetik kokatu da. 2007. urtean, kokaleku berdina betetzen zuen rankingean.

2008. eta 2009. urteen artean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) Bilboko Portuan % 18,3 murriztu zen, aurreko urteko % 1,6ko murriztapenaren aurrean, eta 32.180 milioi Tm-ra iritsi zen. Horietatik 24.326 milioi soltean ziren eta horietatik % 84,36 (20.498 milioi Tm) likidoak ziren. Beste era batera esanda, garraiatutako salgaien % 63,7 likido solteak dira egun oraindik, petrolio produktuak funtsean.

Bestalde, ontzi kopuruak beheranzko joera ageri izan du azken urteetan, eta 2009. urtean 3.042 ontzi zegoen.

Pasaiako Portuko kopuruak askoz ere murritzagoak dira. Salgaien portuko trafikoa % 26,3 jaitsi zen aurreko urteko % 5,9ko beherakadaren aldean, eta 3.519 milioi Tm-tan kokatzen da. Murriztapen horren arrazoiak hauek dira: solteko salgai solidoen trafikoak jasandako murriztapena (batez ere txatarrek eta siderurgiako produktuek) eta ohiko salgaiek jasandakoa.

Azpimarragarria da solteko salgai solidoen trafikoari dagokionez igarritako joera aldaketa. Pisua galtzen joan da kopuru osoan, ohiko salgaien onurarako. Izan ere, solteko salgai solidoen trafikoa kopuru osoaren % 60 ingurukoa zen hamarkada hasieran, eta 2009. urtean, aldiz, % 47 ingurukoa da.

Bestalde, ontzi kopuruak beheranzko bilakaera ageri du 2003. urtetik aurrera, eta 2009. urtean 943n kokatu da.

I.4.2. eta I.4.3. GRAFIKOAK. Ontzi kopurua eta garraiatutako salgaiak EAEko portuetan





Iturria: Eustat

4.2. ENERGIA

(a) Azpiegitura

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Gas azpiegitura

Petronorren findegiak urtero 11 milioi tona petrolio gordin prozesatzeko gaitasuna du, oliobideen bitartez lotuta dago Rivabellosa eta Valladolideko CLHren biltegiratzeko zentroekin eta Bilboko Portuarekin tamaina handiko petrolio-ontziak porturatzeko instalazioak ditu (EAEko beste puntu batzuetan biltegiratzeko bestelako instalazioak eta banaketa logistika edukitzeaz gain). Petrolio gordina eta hartatik eratorritakoak biltegiratzeko gaitasuna, Petronorren eta beste operadore batzuen artean, 2,9 milioi m3-koa da.

Gasaren sektoreak gas natural likidotua (GNL) inportatzeko terminal bat du, Bilboko Portuan kokatzen dena hain zuzen (2003. urtetik eta 300.000 m^3 biltegiratzeko edukierarekin, 140.000 m^3 arteko metano ontzientzat deskargatzeko nasarekin, 2 tanke bakoitzean 150.000 m^3 biltegiratzeko eta 800.000 Nm^3/h regasifikazioko gaitasuna) eta gasa garraiatu eta banatzeko oinarrizko bat ere bai, 3.700 km ingurukoa. Hura estatuko gas sistemari lotuta dago Hegoaldetik eta sare europarrarekin Irunetik.

Gaviota izeneko gas naturalaren hobi zaharra -Bermeo parean- biltegiratze estrategikoko gordailu bihurtu da (gaseko 780 milioi Nm^3-ko bolumen erabilgarria), gaur egun Estatuko gas naturaleko gordailu estrategikoko sistema handiena izanez.

I.4.12. TAULA. Itsasotiko garraioak mugitutako salgaiak, mota gorabehera sailkatuta

		Mila Tm							Aldakuntzaren %a	
		2000	2005	2006	2007	2008	2009	%	2000-09	2008-09
Bilbo	**Guztira**	**28.745**	**34.090**	**38.591**	**40.023**	**39.398**	**32.180**	**100,0**	**11,9**	**-18,3**
	Likido solteak	14.835	19.685	22.290	22.682	23.057	20.498	63,7	38,2	-11,1
	Solido solteak	4.495	4.251	4.989	5.832	5.267	3.828	11,9	-14,8	-27,3
	Edukiontziak	4.389	5.468	5.629	5.920	6.139	4.757	14,8	8,4	-22,5
	Ohiko salgaiak	3.957	3.824	4.300	3.997	3.518	2.522	7,8	-36,3	-28,3
	Bestelako trafikoa	1.069	863	1.383	1.592	1.418	576	1,8	-46,1	-59,4
Pasaia	**Guztira**	**4.529**	**5.409**	**5.511**	**5.078**	**4.778**	**3.519**	**100,0**	**-22,3**	**-26,3**
	Likido solteak	202	2	0	0	0	0	0,0	-	-
	Solido solteak	2.716	3.274	3.253	2.784	2.353	1.658	47,1	-39,0	-29,5
	Ohiko salgaiak	1.550	2.081	2.202	2.240	2.372	1.810	51,4	16,8	-23,7
	Edukiontziak	0,0	0,1	0,2	0,0	0,4	0,0	0,0	-	-
	Bestelako trafikoa	61	53	57	54	53	51	1,4	-16,4	-3,8

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Azpiegitura elektrikoak

Elektrizitatearen sektorea elektrizitatea sortzeko parke batek eratzen du eta gaur egun hura modernizatzen ari dira. Hain zuzen ere, Santurtziko lantegi termoelektriko zaharra (fuel-olio edo gas naturaleko I. eta II. Multzoak) eta Pasaiakoa (inportazioko harrikatzekoa) pixkanaka ixtea aurreikusi da, eta ziklo konbinatuko hiru zentral martxan jarri da: *Bahía Bizkaia Electricidad* izenekoa, 800 MWko potentziarekin Bilboko Portuan (2003. urtean), *Iberdrolaren* zentral termino atxikia, 400 MWrekin Santurtzin (2004. urtean) eta *Bizkaia Energia* Boroan (Amorebieta-Etxano) 2005. urtean.

Gainera, produkzioa osatu egiten da tamaina handiko bi instalazio hidraulikorekin (Sobron eta Barazar, bien artean 113 MWko potentziako edukiera instalatuarekin), 100 instalazio hidrauliko txiki baino gehiagorekin (10 MWtik beherako potentziarekin), 60 MW inguru batzen dutenak, eta 3 instalazio mikrohidrauliko txikirekin.

Bestalde, garraio sarea lotuta dago hainbat puntutan estatuko sarearekin eta Frantziarekin (220 Kv eta 400 Kv-rekin eta 486 km-ko luzerarekin), eta osatu egiten da kasuan kasuko azpiestazioekin eta energia elektrikoa ekoizletik banaketa sarera garraiatzen duen banaketa sare batekin. Halaber, amaierako kontsumitzaileari tentsio ertain eta baxuan hornitzen dio, Frantzian Hernani-Cantegriteko (400 kV) eta Arkale-Mugerreko (220 kV) lineen bitartez trukeak edukiz.

Energia azpiegiturak energia berriztagarrien alorrean

Biomasa EAEren energia orekari nabarmenki gehien ematen dion iturri berriztagarria da: kontsumitzen den energia berriztagarriaren % 85 gutxi gorabehera biomasatik dator. Energiaren aldetik EAEn gehien aprobetxatzen diren biomasak hauek dira:

- Lixiba beltzak eta paper industriako egur azalak.
- Egurra eraldatzeko industrietatik, adibidez, aroztegietatik eta altzari fabriketatik, etorritako egur hondakinak.
- Egur hondakinak, ezpal edo egur pellet modura, etxeko sektorean balioztatu egiten direnak.
- Hiri Hondakin Solidoak (HHS).
- Hondakin Uren Araztegiko (HUA) lokatzak.
- Olio begetalak.

Energia eolikoak EAEn kontsumitzen den energia berriztagarriaren % 7 ematen du. Hiru parke eoliko dago martxan, 143,7 MWko potentzia bateratu instalatuarekin, eta baita 10 MWko parke txiki bat ere. Halaber, ehun aerosorgailu txiki inguru dago, 126 Kw inguru hartuz guztira.

EAEn dagoen instalazio kopuru garrantzitsua egonda ere (2.000tik gora), eguzki energia da energia orekari ekarpen txikiena egiten dion iturri berriztagarrietako bat. Haren parte-hartzea kontsumitzen den energia berriztagarriaren % 1-2 inguruan kokatzen da.

Energia hidroelektrikoak (10 MWak baino potentzia gehiagoko bi zentral eta zentral txikien multzoa) EAEn kontsumitzen den energia berriztagarriaren % 7 inguru ematen du. 2008. urte amaiera aldera, ehun instalazio hidroelektriko txiki inguru zegoen, 10 MWtik beherako potentziarekin. Guztira, 59 MW-ko potentzia instalatua zuten.

Itsasoko energia modu ezberdinetara ageri da:

- Olatuak.
- Mareak eta itsas korronteak: Ur masa handien mugimenduak, eguzkiaren eta ilargiaren grabitazio ekintzek eraginda, itsaso mailaren aldizkako aldaketak sortzen ditu toki mailan eta baita energiaren aldetik aprobetxa daitezkeen korronteak ere. Halaber, itsas korronteek hurrengoak bezalako fenomenoak eragiten dituzte: uretako gatz dentsitate eta eduki aldeak, tenperatura aldeak, lurrunketa eta Lurraren errotazioa.
- Gradiente termikoa: Eguzkiaren erradiazioak itsasoaren gainean tenperatura aldaketak eragiten ditu azaleko uren eta hondoko uren artean eta alde horrek 20 ºC-ak gainditu ditzake.
- Gatz gradientea: Ibai-ahoetan alde handiak igartzen dira gatz kontzentrazioetan ozeanoetako uren eta ibaietako uren artean.

Horri ateratako aprobetxamendua eskasa da. Mundu mailan, dibergentzia teknologikoko une bat bizi da, eta hartan ideia ugari dago garatzeko bidean baino bakar batek ere ez du lidergo teknologikorik erakutsi. EAEn olatuen baliabidea da aprobetxa daitekeen bakarra.

Energia geotermikoa Lurraren barruko beroa da. Hiru energia geotermiko mota bereizten da: tenperatura altu, ertain eta baxukoa.

Tenperatura baxuko edo entalpia baxuko instalazio geotermikoetan aprobetxatu egiten da sakonera metro gutxietara airearen eta lurraren artean dagoen tenperatura alde txikia. Sakonerako metro gutxitara lurra mantendu egiten da tenperatura egonkorrean, eta horrek eragin egiten du sentsazioa berokoa izatea neguan eta freskotasunekoa udan. Tenperatura altuko energia geotermikoaren kasuan ez bezala, entalpia baxuko energia geotermikoaren aprobetxamendu aukerak toki guztietan daude, beraz, ia edozein lursailean erabiltzeko aukerak eduki ditzake.

EAEn, entalpia baxuko energia geotermikoaren aprobetxamendua geotrukeko instalazioen bitartez egiten ari da. Tenperatura baxuko energia hau ezin da klimatizaziorako erabili zuzenean; aldiz, beharrezkoa da ekipo laguntzaile bat instalatzea, bero ponpa. Bero ponpa horrek lurpeko beroa hartzen du neguan etxebizitzatik banatzeko; aldiz, udan, zirkulazioaren zentzua aldatze soilarekin, etxebizitzako beroa hartzen du lurpean uzteko. Geotrukeko instalazioa beroa hartu/emateko bi sistemek osatzen dute, bata etxebizitzan (normalean lurzoru edo horma bero-emailean) eta bestea lursailean.

Euskadiren Energia Estrategiak 2010. urtean (3E-2010) ez zuen energia iturri honen inpaktu handirik aurreikusten EAEren energia balantzean. Aitzitik, azken urteetan tenperatura baxuko energia geotermikoaren sektoreak eduki duen hazkundea ikusita, 2015-2020 horizontean honek edukiko duen ekarpena adierazgarria izatea espero da. 2008. urte amaiera aldera, EAEn geotrukeko 115 instalazio zegoen (88 urte berdinean muntatu ziren) eta haien edukiera orokorra 1742 kWg-koa zen. Ia guztiak potentzia gutxikoak ziren, 10 eta 50 kWg artean.

(b) Energia produkzioa eta kontsumoa

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoaren artean. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik…) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

"Energia 2008. Euskal Autonomia Erkidegoa. Energiari buruzko datuak" izeneko txostenak, Energiaren Euskal Erakundeak 2009. urtean argitaratu zuena, agerian uzten du 2008. urtean lehen mailako energiaren produkzioa % 0,24 areagotu zela, 420 ktep-tik 421era igaroz[1]. Gas naturalak 1996 eta 1997 artean jasandako beherakada eta gero, gaur egun produkzio hori oinarritu egiten da nagusiki energia berriztagarrietan (berezko iturri nagusia). Horiek areagotu egin dira 2007. eta 2008. urteen artean, % 0,76 hain zuzen (391 ktep-etik 394ra).

Bestalde, energiaren barne kontsumo osoa edo eskaria % 1,3 hazi da (% 0,7 izan zen 2007. urtean), eta 7.872 Ktep-etan kokatzen da. Amaierako kontsumoa 5.757 Ktep-ekoa izan zen, % 0,2 areagotuz.

Lehen mailako energiako norberaren produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren % 5,3 asetzea bakarrik ahalbidetzen du. Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen energia mendetasuna % 94,7an kokatzen da.

Aurten amaierako kontsumoan izandako hazkundea (% 0,2koa) azaldu egiten da, batez ere, egoitzen sektorean izandako kontsumo hazkundearekin (% 8,3, 577 Ktep-etik 625era) eta zerbitzuetan izandakoarekin

[1] Ktep-ak: Mila tona petrolioaren baliokide.

I.4.4. GRAFIKOA. Lehen mailako energia produkzioa (Ktep)



Iturria: EEE

(% 7,3, 423tik 453 Ktep-era). Industriaren eta eraikuntzaren sektorea, kontsumo osoan eragin gehien duena izaki (% 46,6koa kontsumo osotik), % 1,6 areagotu da, 2.642 Ktep-etik 2.684ra igaroz. Eragin gehien duen bigarrenak, garraioak hain zuzen, kontsumoa murriztu du % 5,1. Horrela, 2.008 Ktep-etik 1.906ra igaro da. Lehen sektorean kontsumoa murriztu egin da % 7,2, 97 Ktep-etik 90era hain zuzen.

Energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez, oso interesgarria ingurumenaren ikuspegitik energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina izateagatik, ikus daiteke petrolioa eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena % 39,2arekin. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, % 0,8koa hain zuzen. Garrantziaren aldetik atzetik ditu energia elektrikoa (kontsumoaren % 27,9 hartuz eta aurreko urteko kopuruaren aldean % 2,5eko beherakadarekin) eta gas naturala (eskariaren % 23,9 da eta % 7,7ko hazkundea bizi izan du aurreko urtearen aldean). Distantzia handian atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa –kogenerazioa adibidez– biltzen ditu).

I.4.13. TAULA. EAEren energia balantzea

Ktep-ak	2008							2007-08 aldakuntza						
	Erregai solidoak	Petrolioa eta erato-rriak	Gas natu-rala	Energia eratorriak	Energia berrizta-garriak	Energia elektrikoa	GUZTIRA	Erregai solidoak	Petrolioa eta erato-rriak	Gas natu-rala	Energia eratorriak	Energia berrizta-garriak	Energia elektrikoa	GUZTIRA
Lehen mailako energia produkzioa	**0**	**7**	**0**	**20**	**394**	**0**	**421**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**-9,1**	**0,8**	**0,0**	**0,2**
Barne kontsumo osoa eskuragarri	**251**	**3.092**	**3.476**	**20**	**427**	**606**	**7.872**	**-45,0**	**-2,1**	**14,1**	**-9,1**	**6,7**	**-12,0**	**1,3**
Transformazio sarrerak	252	9.099	1.974	20	80	0	12.316	-39,6	2,8	17,0	-41,2	45,5	0,0	3,4
Transformazio irteerak	91	9.747	0	209	0	1.084	11.131	9,6	3,0	0,0	3,0	-100,0	5,8	3,3
Amaierako energia kontsumoa	**77**	**2.254**	**1.377**	**162**	**278**	**1.609**	**5.757**	**-36,9**	**-0,8**	**7,7**	**18,2**	**-2,8**	**-2,5**	**0,2**
Industria	77	192	1.029	150	202	1.034	2.684	-36,9	86,4	6,0	20,0	-12,6	-5,2	1,6
Garraioa	0	1.845	0	0	44	17	1.906	0,0	-6,1	0,0	0,0	82,6	-6,1	-5,1
Nekazaritza eta arrantza	0	80	0	5	0	5	90	0,0	-8,0	0,0	0,0	0,0	25,0	-7,2
Zerbitzuak	0	34	109	8	1	301	453	0,0	9,7	21,1	14,3	0,0	2,7	7,1
Bizitegiak	0	103	240	0	30	252	625	0,0	21,2	10,1	0,0	0,0	3,3	8,3

Iturria: EEE

I.4.5. GRAFIKOA. Energiaren azken kontsumoaren banaketa sektoreka (%)



Iturria: EEE

I.4.6. GRAFIKOA. Energiaren azken kontsumoa energia mota gorabehera (Ktep)



Iturria: EEE

I.4.14. TAULA. Eraldaketa irteerak zentral mota gorabehera EAE-n

	Ktep				2008, % bertikala	Aldakuntzaren %a	
	2005	2006	2007	2008		2005-08	2007-08
Guztira	**10.448**	**10.798**	**10.772**	**11.131**	**100,0**	**6,5**	**3,3**
Findegiak	9.045	9.395	9.460	9.747	87,6	7,8	3,0
Zentral termoelektrikoak	911	951	824	864	7,8	-5,2	4,9
Kogenerazioa	378	361	377	429	3,9	13,5	13,8
Kokea lortzeko fabrikak	104	88	111	91	0,8	-12,5	-18,0
Sorkuntza termoelektriko berriztagarria (eguzkikoa)	10	3	-	-	-	-	-

Iturria: EEE

I.4.7. GRAFIKOA. Energia intentsitatearen bilakaera



Iturria: EEE

EAEko energia produkzio osoa (transformazio irteerak deitzen den hori) areagotu egin zen 2008. urtean % 3,3. Arrazoia kogenerazioan (% 13,8), zentral termoelektrikoetan (% 4,9) eta findegietan (% 3) jarduna areagotzea izan da. Edonola ere, kokea lortzeko fabriketan beherakada ikusi ahal izan da (% -18).

Azkenik, energia intentsitatearen azterketak, BPG unitateko amaierako kontsumo gisa neurtuta, agerian uzten du hura, 2008. urtean, 1998. urtekoaren % 91koa zela, eta aurreko urtearen aldean ehuneko 2 puntu hobetu da BPGa hazi egin delako energiaren amaierako kontsumoa hazi denaren gainetik.

Industriako energia intentsitatea sektoreka xehatuz gero, 2008. urtean 1998. urteko balioaren % 89 lortu da eta 2007. urtearekiko egonkor mantendu zen. Bestalde, garraioan, energia intentsitatea % 1,1 hobetu zen 1998. urteko balioarekiko eta % 7,7 aurreko urtearekiko. Zerbitzuen sektorean intentsitatea 5,9 puntu hazi da aurreko urteko kopuruaren aldean eta 1998ko balioaren gainetik % 5,9 gehiagoan kokatu da.

4.3. TELEKOMUNIKAZIOAK

Telekomunikazioen azpiegiturak Informazioaren Sozietatearen zerbitzu ezberdinek oinarri hartzen dutena dira, beraz, herritarrei Sareko testu, irudi edo soinu zerbitzu ezberdinetara iristea ahalbidetzen dien baliabidea da.

Haren tratamendu, azterketa eta transmisioari elkartutako informazio eta teknologiak baliabide estrategikoa dira edozein gizarteren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako. Informazioaren eta Ezagutzaren egungo aroan herrialde batek betetzen duen kokalekua ingurune berri honetara egokitzeko dituen bere

azpiegituren mendekoa izango da, eta ez bakarrik kapital fisikoaren aldetik, baita giza kapitalaren aldetik ere.

Hori dela eta, telekomunikazio modu guztiak hartuko dituen informazioa tratatzeko eta transmititzeko azpiegitura (adibidez gaitasun handiko linea telefonikoak, kablea, satelitea, ordenagailuen azpiegiturak, Internet) nahiz gizarte azpiegitura behar dira, hau da, informazioa aske ibiltzea ahalbidetuko duen gizartea.

Gauzak horrela, eremu honetako inbertsioak funtsezkoak dira garapenerako, izan ere, haien mendekoa da gainerako jarduera ekonomikoen garapen lehiakorra. Ondorioz, telekomunikazioen sektorea balio erantsi altuko industria gisa ari da eratzen (zerbitzuen operadore eta kudeatzaileak, ekipamendu ondasunen fabrikatzaile edo hornitzaile diren enpresak, edukietakoak…) eta enpleguak eta aberastasuna sortzen ditu.

Telekomunikazioen maparen konfigurazioa konplexua da alor hauetan etengabeko enpresa mugimenduak daudelako eta behin eta berriro ikusten diren aurrerapen teknologikoek nahiz legedi aldaketek zerbitzu berrien eskaintza amaigabea egiten dutelako. Horiek saiatu egiten dira baldintza berrietara egokitzen eta kasu askotan definitzea zaila den produktu eta zerbitzu batzuk arautzen.

Azken urteotan zerbitzu tradizionalak gelditu egin direla eta telefonia mugikorrarekin zerikusia dutenak areagotu egin direla ikusi dugu; banda zabaleraren eskarian ere hazkundea egon dela ikusi da. Izan ere, banda zabala telekomunikazioen merkatuko protagonista izaten ari da azken urteotan, funtsean ADSLaren garapena dela eta.

Garapen handia edukitzen ari diren beste berrikuntza batzuk Operadore Mugikor Birtualak - OMBak dira (berezko sare baten bitartez telefonia mugikorreko zerbitzua emateko frekuentzia espektrorik ez duten enpresak eta telefonia mugikorreko zerbitzuak berezko markaren pean saltzen dutenak mugikorren zerbitzua ematen duen beste operadore baten sarea erabiliz) eta baita Internet bidezko telefonia ere, IP gaineko Ahots, AhotsIP, VoIP (ingeleseko siglengatik) edo IP Telefonia izenei esker ere ezaguna dena. Azken horri esker posible da Internet bidez ahotsa transmititzea eta, horrela, erabiltzaileek deiak egin ditzakete beren ordenagailuen bitartez datu sare batera konektatuta egonez.

I.4.15. TAULA. Banda zabalaren sarrera tasa eta gastua IKTetan

EIS 2009		Banda Zabalerako sarrera duen enpresa %a, 2009	Gastua IKTetan, 2009
0,64	Suedia	89	3,80
0,62	Finlandia	92	3,20
0,60	Alemania	84	2,90
0,58	Erresuma Batua	87	3,50
0,57	Danimarka	80	3,20
0,54	Austria	76	2,80
0,52	Luxenburgo	87	
0,52	Belgika	91	2,80
0,51	Irlanda	83	1,50
0,51	**EAE**	**92**	**2,09**
0,50	Frantzia	92	3,10
0,49	Herbehereak	86	3,30
0,48	Estonia	88	2,90
0,48	Zipre	79	
0,48	EB27	81	2,70
0,47	Eslovenia	84	2,20
0,42	Txekiar Errepublika	79	3,20
0,40	Portugal	81	1,80
0,38	Espainia	92	1,40
0,37	Grezia	74	1,20
0,36	Italia	81	1,70
0,34	Malta	89	
0,33	Eslovakia	79	2,50
0,33	Hungaria	72	2,50
0,32	Polonia	59	2,60
0,31	Lituania	56	1,80
0,29	Errumania	44	2,10
0,26	Letonia	62	2,30
0,23	Bulgaria	62	2,00
	Suitza		
0,69	Islandia		3,70
0,48	Norvegia	99	
0,38	Kroazia	86	2,40
0,29	Turkia		
0,23	Serbia	88	

Iturria: EUSTAT, Berrikuntzaren Indize Europarra 2008.

Gure erkidegoan telekomunikazioen azpiegituren gaitasuna garatzeko saiakera egiten ari da, sare oso eta operatiboa bermatuz bai enpresentzat, ikerketa zentroentzat eta administrazio publikoarentzat, bai erabiltzaile partikularrentzat. Azpiegitura hauek hurrengoek eratuta daude: ohiko telefono sarea, mikrouhinekoa eta banda zabalekoa. Horiek gure erkidegoan finkatuta dauden telekomunikazio enpresei zerbitzuak ematen dizkiete.

Euskal Administrazio publikoak EAEn Informazioaren Gizartea garatzeko planteatutako ekintza ezberdi-

I.4.16. TAULA. IKTen erabilera aldagaiak enpresetan (2008ko eta 2009ko urtarrilean), aldagaiak eta AAEEak gorabehera

	Sare lokalarekin (LAN)		Sare lokalarekin 'haririk gabe'		Berariazko IKT funtzioak dituen pertsonalarekin		Interneterako sarbidearekin hurrengoen bitartez											
							Modema		RDSI		Banda zabala		XDSL (ADSL, SDSL,...)		Beste konexio finko batzuk (kablea, LMDS...)		Telefonia mugikorra (GSM, GPRS, UMTS...)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Estatua	**78,5**	**83,0**	**29,2**	**34,7**	**23,7**	**24,4**	**9,6**	**7,3**	**15,1**	**14,6**	**97,1**	**97,5**	**94,4**	**94,7**	**8,1**	**9,2**	**29,4**	**34,0**
Andaluzia	76,9	79,9	27,0	35,3	24,5	24,6	10,5	9,2	14,4	11,7	96,6	97,4	94,3	95,4	6,0	6,8	26,3	28,5
Aragoi	76,6	84,9	27,8	28,8	22,5	22,4	6,5	7,8	16,2	16,6	95,9	96,1	94,7	94,3	4,6	6,7	25,4	33,9
Asturias	77,6	82,0	29,8	37,1	23,3	22,6	6,4	5,6	11,6	14,6	98,0	96,9	92,2	91,9	12,9	13,2	29,1	23,1
Balearrak	77,1	88,6	24,5	38,0	18,8	21,9	9,2	5,0	11,3	16,0	97,0	97,9	96,0	95,9	4,9	8,7	22,8	30,1
Kanariar uharteak	75,9	77,0	23,2	30,6	23,0	23,0	10,0	10,0	12,9	15,3	98,6	96,3	97,8	95,7	4,8	5,0	25,7	26,8
Kantabria	64,6	70,7	26,3	21,6	20,2	21,2	9,1	5,2	17,9	11,3	94,3	99,6	89,1	95,8	8,8	8,9	20,5	27,6
Gaztela eta Leon	75,6	79,2	24,2	32,1	20,8	22,9	10,7	8,5	17,0	13,8	96,5	97,5	93,7	94,2	5,6	8,1	24,0	30,2
Gaztela-Mantxa	64,5	71,6	24,6	27,9	15,6	16,5	9,5	10,0	15,6	12,2	96,0	95,5	93,7	93,2	5,2	6,9	26,8	27,7
Katalunia	85,0	86,6	32,1	34,6	24,1	24,6	8,6	7,6	13,9	16,5	98,6	99,0	96,8	96,0	6,8	9,8	33,9	40,2
Valentziako Erkidegoa	74,4	84,2	25,2	35,6	20,4	24,3	7,6	5,8	15,8	11,5	97,8	97,6	93,2	93,9	8,7	8,9	27,3	31,0
Extremadura	69,1	74,7	25,0	30,5	17,8	18,4	15,9	8,1	14,6	12,4	95,5	98,7	95,2	96,5	2,4	5,2	24,9	23,8
Galizia	76,6	80,8	29,7	33,4	21,2	21,5	10,8	4,3	14,2	11,2	93,7	96,1	87,1	90,5	14,0	12,7	27,7	34,8
Madril	83,6	86,0	37,4	41,1	31,2	30,8	11,7	7,1	17,1	16,4	97,8	97,6	95,3	94,8	13,5	13,3	36,0	42,1
Murtzia	71,5	81,2	29,1	33,9	21,2	20,6	10,2	9,1	14,0	17,2	94,8	95,5	92,4	93,4	5,7	8,1	23,0	30,6
Nafarroa	83,9	86,7	26,0	38,5	26,1	25,4	8,8	5,3	19,5	19,0	97,8	98,5	94,8	96,5	8,1	6,8	33,6	37,2
EAE	**82,5**	**87,3**	**28,7**	**32,2**	**25,1**	**25,5**	**8,6**	**4,1**	**15,3**	**19,0**	**96,7**	**96,7**	**93,4**	**93,5**	**8,1**	**7,8**	**31,8**	**35,3**
Errioxa	72,5	85,1	25,2	27,9	16,6	22,6	7,3	11,0	18,2	19,5	93,0	95,7	92,0	94,6	4,3	3,8	18,4	24,0
Ceuta eta Melilla	70,3	83,7	16,7	31,0	12,4	11,1	8,5	2,1	12,8	18,0	96,3	98,7	96,3	98,5	3,3	5,2	21,5	29,5

Iturria: EIN

nen artean aipatzekoa da "*Euskadi Informazioaren Gizartean Plana. Euskadiko Agenda Digitala 2010 (EIGP 2010)*" delakoa. Bertan, zazpi ekimen aurreikusi da: Herritar Aktiboak, Enpresa Berritzailea, Zerbitzu Publiko Digital aurreratuak, Euskadi Sarean, Infoegiturak, Erakunde Agenda Digitalak eta Ezarpena, Jarraipena eta Ebaluazioa.

Europako Berrikuntza Indizean Informazioaren Gizarteari buruz dauden adierazleen azterketatik eta, zehazki, banda zabalak enpresetan duen sarrera tasari eta IKTko gastuari erreparatuz gero, zera ondorioztatu daiteke:

– EAEn enpresen % 92k du banda zabala, EB27ren kopuruen gainetik (% 81) eta Estatuaren mailan kokatzen da.
– Aitzitik, IKTetan zazpigarren gastu murritzena egiten du, Greziaren, Espainiaren, Irlandaren, Italiaren, Portugalen eta Lituaniaren aurretik bakarrik.

EINen datuen arabera, Interneterako konexioa duen Estatuko enpresen % 97,5 banda zabaleko aukeraren baten bitartez sartzen da, eta gehien erabiltzen dena XDSL aukeren bitartez egindako konexioak dira (ADSL, SDSL...). Internetera konektatzen diren enpresen % 94,7ak erabiltzen du eta, aldiz, konexio finkoak, kablekoa adibidez, % 9,2ak erabiltzen du. EAEk % 93,5ean erabiltzen ditu XDSL konexioak eta estatuko batez bestekoaren azpitik egoteaz gain AAEE gehienen azpitik ere badago.

EUROSTATen eta EINen datuen arabera, 16 eta 74 urte arteko gutxienez kide bat eta banda zabaleko konexioa dituen etxebizitza portzentajea % 56koa izan zen 2009. urtean EB27n eta Estatuan kopuru hori % 51,3koa izatera iritsi zen. Ondorioz, EAE, % 55,2ko portzentajearekin, Estatuko batez bestekoaren gainetik dago baina batez besteko europarraren azpitik. Halaber, Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgo eta Erresuma Batua bezalako erreferentziako herrialdeetan ikusten diren balioetatik urrun dago.

I.4.17. IKT Ekipamenduak dituzten etxebizitzen %a (gutxienez 16 urtetik 74 urtera bitarteko kideren batekin)

	2007		2008		2009	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
Ordenagailuarekin	60,4	63,6	63,6	66,4	66,3	68,2
Interneterako sarbidearekin	44,6	50,0	51,0	57,0	54,0	59,7
Banda Zabaleko konexioarekin (ADSL, kable sarea, eta abar).	39,2	40,0	44,6	43,7	51,3	55,2
Telefono finkoarekin	81,2	91,2	81,3	92,6	80,3	90,3
Telefono mugikorrarekin	90,9	91,9	92,1	92,0	93,5	94,7

Iturria: EIN

02

EAEko EKONOMIA

EAEN MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

1

Kanpoko ingurune ekonomikoa

1.1. ERAGILE EKONOMIKO NAGUSIAK

2009an munduko ekonomiak joan den mendeko erdialdeaz geroztik izandako atzeraldirik sakon eta orokorrena bizi izan du.

Munduko BPGd, erosahalmenaren parekotasunaren arabera haztatuta, %0,6 murriztu zen Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) kalkuluen arabera. Ekonomia aurreratuak %3,2 txikitu dira: AEBko BPGd %2,4 txikitu da; Eurogunekoa %4,1, eta Japoniakoa %5,2. Garapen bideko ekonomiek, batez ere Asiakoek, India eta Txina buru zutela, hazten jarraitu zuten, baina jarduera hoztu egin zen. Orokorrean, garapen bideko ekonomietan BPGD erreala hazi egin zen, %2,4 inguruko tasan. Txina eta India %8,7 eta %2,4 hazi ziren, hurrenez hurren.

Inflazio orokorrak jaitsiera handia izan zuen. Petrolioaren eta lehengai batzuen prezioak jaitsi egin ziren. Brent upelaren batez besteko prezioa 61,5 $/u-koa izan zen 2009an (2008an 97,2 $/u).

2009ko bigarren seihilekoan, munduko ekoizpena eta merkataritza berpiztu egin ziren, eta azken hiletan gorantz berrikusi ziren hazkunde aurreikuspenak ekonomia gehienetan.

Konfiantza indarrez itzuli zen finantza sektorean eta errealean, zenbait politikaren bidez emandako laguntza handiak beste Depresio Handi bat gertatzea saihestu zuelako.

Munduko berreskuratzea tamaina izugarriko pizgarrien bidez bultzatu zen. Politika monetarioa oso zabala izan da eta interes tasak aurrekaririk gabeko minimoetara jaitsi ziren ekonomia aurreratu gehienetan eta garapen bideko ekonomia askotan. Zerga politikak ere pizgarri handia izan ziren moteltzeari erantzuteko. Bestalde, finantza sektoreari emandako laguntza publikoa ezinbestekoa izan zen finantza sektorearen eta sektore errealaren arteko elkarreragin negatiboa hausteko.

Halaber, ekonomia aurreratuetako inbentarioetan (izakinak) zikloa aldatzen hasteak, eta AEBko kontsumoan gertatutako bat-bateko bizitasunak bilakaera positiboari lagundu zioten. Hala ere, eskari pribatu autonomoak (politikek eragin gabekoak) zailtasunak dauzka finkatzeko.

Lehengaien prezioek igoera handiak izan zituzten berpiztearen hasierako etapetan, orokorrean izakin maila handia egon arren. Neurri handi batean, Asiako garapen bideko ekonomien berpizte biziak, garapen bideko beste ekonomia batzuetako berpizte orokorragoaren hastapenak eta munduko baldintza ekonomikoen hobekuntzak eragin zuten hori.

Finantza-merkatuak aurreikusitakoa baino azkarrago berpiztu ziren, jarduera sendotu zelako. Zehazki:

- Diru-merkatuak urtearen bigarren erdian egonkortu ziren, eta banku maileguak emateko arauen zorroztasuna arindu egin zen. Merkatu nagusietan banku gehienak ez ziren banku zentralaren larrialdietarako zerbitzuen eta berme publikoen hain mendekoak izan.
- Akzio-merkatuak berpiztu egin ziren eta bono korporatiboen jaulkipenak inoiz ikusi gabeko mailak izan zituen. Hala ere, bono korporatiboen jaulkipenen gorakadak ez zuen orekatu sektore pribatuarentzako banku krediduen hazkunde txikiagoa.

Dena dela, herri txiki batzuen zor subiranoa presioak jasaten hasi zen, ekonomia horiek defizit publiko eta zor publikoko maila handiak dauzkatelako, eta inbertitzaileek herrien artean gero eta bereizketa handiagoak egiten dituztelako.

Kanbio-merkatuetan dolarrak, yuan txinatarrak –oraindik dolarrari lotuta dago- eta libera esterlinak ia beste dibisa guztien aurrean izandako balio-galera nabarmendu zen.

1.2. BILAKAERA EKONOMIKOA GUNEEN ARABERA

NDFk eta Europako Banku Zentralak (EBZ) emandako datuen arabera, 2009an, guneen arabera, munduko ekonomiak honako bilakaera izan du.

Estatu Batuak

2009. urtean jarduera ekonomikoa txikia izan zen, ekonomia %2,4ko tasan murriztu zen, 2008ko %0,4ko hazkundearen aldean. BPGd errealak 2009ko lehe-

II.1.1. TAULA. Aldagai ekonomiko nagusiak

	2008	2009
BPGd (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Mundukoa	3,0	-0,6
Ekonomia aurreratuak (1)	0,5	-3,2
AEB	0,4	-2,4
Japonia	-1,2	-5,2
Eurogunea	0,6	-4,1
Beste ekonomia aurreratu batzuk (arestikoak salbuetsita)	1,7	-1,1
Garapen bideko ekonomiak	6,1	2,4
Sahara azpiko Afrika	5,5	2,1
Amerika	4,3	-1,8
Estatu independenteen erkidegoa (Mongolia barne)	5,5	-6,6
Asiako garapen bideko herriak	7,9	6,6
Txina	9,6	8,7
India	5,1	2,4
ASEAN-5	4,7	1,7
Erdialdeko eta ekialdeko Europa	5,1	2,4
Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea	3,0	-3,7
Ondasun eta zerbitzuen munduko merkataritza *(ondasun eta zerbitzuen munduko esportazio eta inportazioen urteko % bilakaeraren batez bestekoa)*	2,8	-10,7
Langabezia tasa (%)		
Ekonomia aurreratuak	5,8	8,0
Kontsumitzailearentzako prezioak *(urteko bilakaera ehunekoetan)*		
Ekonomia aurreratuak	3,4	0,1
Garapen bideko ekonomiak	9,2	5,2
North Sea Brent petrolioaren prezioa *($/upel, urteko batez bestekoa)*	97,2	61,5
Erregaiak ez diren lehen mailako produktuen prezioak, $ *(Oinarria 2000 = 100)*	227,9	182,2
Metalak, $ (Oinarria 2000 = 100)	246,9	176,0
Esku-hartzeko interes tipoa *(aldiaren amaieran)*		
EDB	2,5	1,0
AEB – gordailu federalen tipo objektiboa	0,25	0,25
Japonia – call Money (2)	0,1	0,1
Euroaren kanbio-tasa *(moneta-unitateak euroko)*		
Dolarra	1.471	1.393
Libera esterlina	0,797	0,891
Yen japoniarra	152.331	130.234
Burtsa: kotizazio indizea *(urteko bilakaera ehunekoetan)*		
Dow Jones (New York)	-15,0	-20,8
Nikkei	-28,9	-22,2
Eurotoxx zabala	-26,0	-24,2
Ibex 35	-21,2	-14,1

(1) Ekonomia aurreratuak (30 herri): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, Asiako ekonomia industrializatu berriak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda B. Asiako ekonomia industrializatu berriak: Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur. (2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes tipoak.
Iturria: NDF "Perspectivas de la economía mundial" (2010eko apirila), Ekonomia Ministerioa eta EBZ.

nengo seihilekoan hiruhilekoen arteko hazkunde tasa negatiboak izan zituen. Hala ere, finantza merkatuen egoerak pixkanaka izandako egonkortzea, zerga eta diru pizgarri handiak eta urtean izakinek zikloak izandako aldaketa direla-eta, 2009ko bigarren seihilekoan hazkunde tasa positiboak gertatu ziren berriz. BPGd erreala 2009ko hirugarren hiruhilekoan urte-sasoiaz kanpoko urteko %2,2ko tasan hazi zen, eta laugarrenean %5,6koan.

Gobernuak erabakitako pizgarriek behin-behinean eskari pribatua babestu zuten, batez ere automobilaren eta etxebizitzaren sektoreetan, baina 2009ko lehenengo seihilekoan barneko gastu pribatua neurritsua izan zen. Izan ere, kredituak emateko baldintza murriztaileak ziren, etxeek euren aberastasun garbia berreraikitzeko eta aurreko urteetan pilatutako zorra murrizteko ahaleginak egiten zituzten eta lan merkatuaren egoera hondatuta zegoen.

Esportazio garbiek apur bat lagundu zioten hazkundeari, munduko merkataritzaren gorakadak esportazioei emandako bultzadari esker.

Kontu korronteko defizita asko murriztu zen, 2008ko BPGd-ren %4,9tik 2009ko lehenengo hiru hiruhilekoetako batez besteko %2,9ra. Hori, batez ere, barneko eskariaren murrizketaren eta petrolioaren prezioen jaitsiera handiaren ondorioa izan zen.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2009an KPIren urteen arteko batez besteko bilakaera %-0,3koa izan zen, aurreko urteko %3,8koaren aurrean. Azpiko inflazioa ere, hots, energia eta prestatu gabeko elikagaiak salbuetsita, apur bat murriztu zen 2009an, baina hala ere positiboa izan zen, urteen arteko %1,7ko tasarekin (2008ko %2,3ko tasaren aurrean).

Erreserba Federalak gordailu federaletarako interes tipoari maila izugarri baxuetan eutsi zion, %0 eta %0,25 arteko tartean urte osoan. Gainera, sektore pribatura kreditua iristea bultzatzeko ezohiko politikako neurriak ezartzen jarraitu zuen eta epe luzerako balioak erosteko programak abiarazi zituen kreditu-merkatuen funtzionamendua babesteko.

Zerga-politikari dagokionez, aurrekontu federalaren defizita BPGd-ren ia %10 arte igo zen 2009ko zergaldian (urte horretako irailean itxi zen), aurreko zergaldiko %3,2koaren aurrean. Igoerak sarreren murrizketa handia islatu zuen, zerga bilketa jaitsi eta gastua nabarmen igo zelako, finantza sistema eta ekonomia babesteko hartutako zerga neurrien ondorioz.

Japonia

2009ko lehenengo hiruhilekoan jarduera ekonomikoa asko hondatu zen, bigarrenean berpizteko fasean sartu baino lehen. Moteltzearen jatorria, batez ere, esportazioek eta ekoizpenak izan zuten aurrekaririk gabeko amiltzean egon zen. Ekonomiaren urteen arteko bilakaera tasa erreala %-5,2koa izan zen.

Egoera ekonomikoa batez ere esportazioen gorakadagatik hobetu zen. Gorakada horrek, neurri batean, Asiako beste ekonomia batzuen berreskuratze sendoa eta izakinen zikloaren joera aldaketa islatu zituen. Bestalde, barneko eta kanpoko zerga pizgarriek ere berpizteari lagundu zioten.

Enpresa giroa apur bat hobetu zen 2009ko bigarren hiruhilekotik aurrera, baina enpresa etekinek maila baxuetan iraun zuten eta langileen errentek jaitsiera handia izan zuten. Gainera, langabezia tasa igo egin zen, 2009ko uztailean %5,7ko maximo historikora iritsi arte, harrezkero apur bat jaisteko.

Kontsumorako prezioen bidez neurtutako urteen arteko inflazioa negatiboa izan zen 2009ko otsailean eta jaisteko erritmoaren maila gorena urriko %-2,5ekoa izan zen. 2009ko abenduan, Japoniako Bankuak iragarri zuen deflazioa “garrantzia handiko erronka” zela onartzen zuela

2008ko abenduaz geroztik eta 2009 osoan, Japoniako Bankuak aldaketarik gabe eutsi zion, %0,1ean, bermerik gabeko egun baterako maileguen interes tiporako helburuari. Ekonomia pizteko xedez, ezohiko diru politikako neurrietara jotzen jarraitu zuen, esaterako, japoniar zor publiko sinpleak erostea eta onartutako bermeko aktiboen zerrenda zabaltzea.

Asiako garapen bideko ekonomiak

Urteko lehenengo hiruhilekoan kanpoko merkataritzaren jaitsierak BPGd errealaren hazkunde tasa nega-

tiboak ekarri zizkien esportaziora zuzendutako ekonomiei: Hong Kong, Korea, Malaysia, Singapur, Taiwan eta Thailandia. Txinak, Indiak eta Indonesiak, aldiz, aldi berean hazkunde tasa txikiagoak baina artean positiboak izan zituzten.

Zerga pizgarri esanguratsuen eta diru politika zabalaren babesaren pean, Asiako garapen bideko ekonomiak bigarren hiruhilekoan hasi ziren berpizten.

Izan ere, herri gehienetan barneko eta kanpoko eskariak eutsi zion hazkundeari, eta hori azaltzen duten lau eragile daude.

– Merkataritza azkar normaldu zen eta horrek esportazioari zuzenduta dauden eskualdeko ekonomiei mesede handia egin zien.
– Izakinen zikloa barneko mailan eta merkataritzako bazkide nagusietan murrizteko fasea amaitzeak industria ekoizpena eta esportazioak bultzatu zituen.
– Eskualdean kapitalak berriz sartzeak likidezia handia eman zien ekonomia askori. Ekonomia horiek hobekuntza handiak izan zituztenez eta inbertitzaileek arriskuaren onarpena pixkanaka handitu zutenez, atzerriko kapitala, batez ere balore-zorroko inbertsioak, herri horietarantz zuzentzen hasi ziren, eta horrek tokiko merkatuen gorakada sendoa ekarri zuen, bai errenta finkoan bai aldagarrian.
– Barneko eskariak eusteko gaitasuna erakutsi du, eta osagarri publiko eta pribatu handia izan du. Gaitasun horren zioa, neurri batean, krisialdia hasterakoan sektore pribatuan eta publikoan balantze sendoak egotea izan daiteke. Zor publikoaren maila txikiek bidea eman zuten Asiako ekonomia askok krisialdiaren aurrean zikloaren aurkako politikako erantzun irmo eta egokiak ezar zitzaten. Diru distentsioak ere eskualde osoan malgutu zituen finantza baldintzak, diru politikako tasen beherapen gogorren bidez eta, ekonomia batzuetan, likidezia handitzeko neurrien bidez.

Herri askotan, kapitalaren sarreren igoerak bat egin zuen kontu korrontearen superabit handiekin, eta horrek kanbio-tipoak igotzeko presio handiak eragin zituen.

Laburbilduz, Asiako ekonomia askok 2008ko bukaera aldera pairatutako atzeraldia uste baino sakonagoa izan arren, berpiztea laster iritsi zen eta amiltzea bezain handia izan zen. Horrela, 2009an Asiako ekonomia gehienetan produktuaren hazkundea aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen.

Europako garapen bideko ekonomiak *(Turkia, Baltikoko Estatuak, Erdialdeko Europa, Hegoaldeko eta Hego-ekialdeko Europa eta Eslovenia)*.

Krisialdian herriek izandako esperientziak eta berraktibatzeko itxaropenak oso desberdinak dira batzuen eta besteen artean. Pizgarri makroekonomiko handiak berreskuratzeari eutsi dio, baina eskari pribatua oraindik ez da finkatu. Portaerarik txarrena kontu korronteko defizit handiak eta kanpoko finantzazioarekiko mendekotasun handia zituzten ekonomiei dagokie (adibidez, Baltikoko herriak, Bulgaria, Errumania).

Izan ere, ustekoa da munduko krisialdiari nahiko ondo eutsi zioten ekonomiak (Polonia) eta hasierako kanpoko shockaren ondoren barneko konfiantza berrezarri zenekoak (Turkia) berpizte sendoagoa izango dutela, kapital sarreren itzulerak eta nazioarteko merkataritzaren normaltzeak lagunduta.

Krisialdiari kontu korronteko defizit handiegiak elikatu zituen barneko oparoaldi eutsiezina bizi zutenean aurre egin zioten ekonomiak (Bulgaria, Letonia, Lituania) eta sektore publiko edo pribatuaren balantze ahulak zeuzkatenak astiroago berpiztuko dira, neurri batean, politika makroekonomikoko neurriak ezartzeko daukaten tarte mugatuagoa dela-eta.

Latinoamerika eta Karibea (ALC).

Konparatiboki munduko atzeraldiari nahiko ondo eutsi ondoren, eskualdeak berpizte indartsua bizi du. Lehengaien prezioen eta barneko eta kanpoko eskariaren igoera, eta zerga eta diru pizgarriak, berpizte ekonomikoa babesten hasi ziren, heterogeneoki bada ere, herrien arabera. Berpizte horretan zenbait eragilek parte hartzen dute:

– Politika moldakorrek barneko eskariari eusten lagundu dute.
– Oinarri ekonomikoen sendotasunari esker (finantza sistema osasuntsuak, balantze sendoak), eskualdea berreskuratzen eta kapital sarrera berriak era-

kartzen hasi zen, munduko finantza testuinguru hobean.

– Lehengaien prezioen eta kanpoko eskariaren igoerak ekonomia askoren hazkundeari eutsi zioten, ondasun horiei lotutako sarreren mendekoak direlako. Hala ere, Ipar Amerikatik eta Europatik iritsitako turismoaren kanpoko eskaera ahulak hazkundea oztopatzen du eskualdeko herri batzuetan, batez ere Karibean, bidaldi maila txikiagoak eskualdeko ekonomia askori eragin zion bitartean.

Brasili dagokionez, berpiztea oso bizkorra izan zen, neurri handi batean lan merkatuak izan zuen portaera nahiko onari, zerga pizgarriei eta agintariek nazioarteko finantza krisialdia zela-eta krediduak emateko baldintza murriztaileak malgutzeko izandako arrakastari esker.

Mexikon, aldiz, herriari eragin zioten nahasmendu batzuek (bidaldien jaitsiera eta A gripea barne), Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaerak daukan eragin handiagoak, lan merkatuaren hondatze handiak eta inflazioaren zurruntasunak egokitzapena gogor eta luzeagoa izatea azaltzen laguntzen dute.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIE).

Krisialdian produktuaren jaitsiera handia pairatu arren, eskualdea erritmo moderatuan ari da atzeralditik irteten. Europan bezala, itxaropen ekonomikoen arteko desberdintasunak daude eskualdearen barruan.

Berreskuratzeari eusten dioten eragileak, besteak beste, honakoak dira:

– Lehengaien (petrolioa, gasa, metalak) prezioen igoerak ekoizpenari eta enpleguari eusten die holako ondasunak esportatzen dituzten ekonomietan.
– Munduko merkataritzaren normaltzea eta kapital fluxuak eskualdeko ekonomiak berpizten laguntzen ari dira.
– Errusiako jardueraren benetako berpizteak eskualdeko gainontzeko herriei laguntzen die, ekonomia horietatik datozen lan, kapital eta ondasunen kanpoko eskaria sustatzen duelako.
– NDren programak babesa ematen ari zaizkie eskualdeko zenbait ekonomiari eta ahal denean, barneko politika hedakorrak barneko eskaria sustatzen ari dira.

Hala ere, inguruko zenbait ekonomiatan hazkundea atzeratzen duten eragile negatiboak ere badaude, besteak beste finantza sektorearen ahulezia eta kanpoko finantzazioarekiko mendekotasun handia.

Orokorrean, eskualdeko itxaropenetarako arriskuak orekatuta daude, baina NDFren arabera, eskualdeko hazkundea, neurri handi batean, Errusiak berpizteko daukan bizkortasunaren araberakoa izango da.

Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea (EEAI)

Eskualdea azkar ari da atzeralditik irteten. Berpizte hori azaltzen duten eragileen artean, bi aipatu behar dira:

– Lehengaien prezioen igoerak eta kanpoko eskari handiagoak ekoizpena eta esportazioak igotzea bultzatzen dute eskualdeko ekonomia askotan.
– Gastu eta inbertsio publikoko programak (batez ere azpiegituretakoak) erabakigarriak bihurtu dira zenbait herritan (Arabiar Emirerri Batuak, Kuwait) finantza sektorearen ahultasunak eta higiezinen merkatuak berpiztea moteltzen dutelako; eta beste batzuetan (Maroko, Tunis) Europaren berpizte motelak esportazioen hazkundea, langileen bidaldiak eta turismoko sarrerak oztopatzen dituelako.

Hots, zerga politika funtsezkoa izan da krisialdiaren ondorioak arintzeko. Neurriei eutsi behar litzaieke berreskuratzea sendotu ahal izateko. Zor maila handiek, ordea, petrolioa inportatzen duten ekonomia batzuetan zerga pizgarriak emateko tartea murrizten dute.

Bestalde, inflazio presioak txikiak direnez gero, posible izanez gero, diru politikak zikloaren aurkako tresna gisa erabiltzen jarraitu behar da, kanbio parekotasun finkoa ez duten EEAIko eskualdeko ekonomietan (Egipto).

Finantza politikari dagokionez, finantza sistemei emandako laguntzak ahultasunak gelditzea ahalbidetu du, baina babes hori eman arren, eskualdeko bankuek zu-

II.1.2. TAULA. BPGD erreala, kontsumitzailearentzako prezioak eta kontu korronteko saldoak (NDF)

	BPGd errealaren urteko bilakaera ehunekoetan		KPIren urteko bilakaera ehunekoetan		Kontu korronteko saldoa BPGd-ren % gisa	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Ekonomia aurreratuak	0,5	-3,2	3,4	0,1	-1,3	-0,4
AEB	0,4	-2,4	3,8	-0,3	-4,9	-2,9
Japonia	-1,2	-5,2	1,4	-1,4	3,2	2,81
Europa – ekonomia aurreratuak	0,7	-4,1	3,4	0,6	-0,1	0,4
Eurogunea	0,6	-4,1	3,3	0,3	-1,5	-0,6
Asiako ekonomia industrializatu berriak (4 herri: Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur)	1,8	-0,9	4,5	1,3	4,9	8,9
Garapen bideko ekonomiak eta ekonomia aurreratuak						
Asia	5,2	3,5	5,8	2,0	4,0	3,6
Asiako ekonomia aurreratuak (Japonia, Australia, Zeelanda Berria)	0,2	-3,0	2,8	-0,1	2,4	3,1
Asiako ekonomia industrializatu berriak (4 herri: Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur)	1,8	-0,9	4,5	1,3	4,9	8,9
Asiako garapen bideko herriak	7,9	6,6	7,4	3,1	5,7	4,1
Txina	9,6	8,7	5,9	-0,7	9,4	5,8
India	7,3	5,7	8,3	10,9	-2,2	-2,1
ASEAN-5 (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	4,7	1,7	9,3	2,9	2,7	5,1
Latinoamerika eta Karibea						
Hego Amerika eta Mexiko	4,3	-1,9	7,6	6,1	-0,3	-0,3
Erdialdeko Amerika (Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Panama)	4,3	-0,6	11,2	3,5	-9,1	-2,0
Karibea (15 herri)	2,9	0,4	12,0	3,6	-1,6	-3,1
Europako garapen bideko ekonomiak	2,9	-3,8	8,0	4,7	-7,3	-2,0
Turkia	0,7	-4,7	10,4	6,3	-5,7	-2,3
Polonia	5,0	1,7	4,2	3,5	-5,1	-1,6
Errumania	7,3	-7,1	7,8	5,6	-12,2	-4,4
Estatu independenteen erkidegoa (12 herri + 1)	5,5	-6,6	15,6	11,2	4,9	2,6
Errusia	5,6	-7,9	14,1	11,7	6,2	3,9
Energia esportatzaile garbiak	5,7	-6,0	14,5	10,9	7,0	3,8
Energia inportatzaile garbiak	4,5	-9,6	21,3	13,1	-8,6	-5,7
Afrika						
Sahara azpikoa	5,5	2,1	11,6	10,6	0,9	-2,1
Petrolio esportatzaileak	7,4	3,9	10,9	11,7	15,1	5,0
Sarrera ertaineko ekonomiak	3,6	-1,8	11,5	7,1	-6,5	-4,2
Sarrera txikiko ekonomiak	5,8	4,3	12,4	12,9	-8,5	-6,6
Ekialde Ertaina						
Petrolio esportatzaileak	4,6	1,6	14,6	5,7	19,6	3,4
Petrolio inportatzaileak	6,5	4,7	10,1	9,1	-3,4	-4,2

(1) Ekonomia aurreratuak (31 herri): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Australia , Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak. Estatu independenteen erkidegoa (12 herri + 1): Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero
Iturria: NDF "Perspectivas de la economía mundial" (2010eko apirila)

hurtziaz jokatu dute higiezinen merkatuaren zuzenketen aurrean sortutako zailtasunen ondoren. Aurreikusten denez, horrek banku maileguen eskuragarritasuna eta, azken buruan, kredituaren hazkundea motelduko ditu.

Kanpoko sektoreari dagokionez, eskualdeko kontu korronteko superabita berpizte prozesuak aurrera egin heinean berriz haziko dela aurreikusten da.

Sahara azpiko Afrika.

Petrolio esportatzaileei eta sarrera ertaineko ekonomia batzuei esportazio eta lehengaien merkatuen amiltzeak eragin zien, baina hala ere eskualdeak 2009an uzkurtzea saihestea lortu eta %2 hazi zen. Horrek munduko ekonomian sarrera txikiko ekonomia gehienek duten integrazio maila nahiko txikia islatzen du.

Azpiguneen arabera, egoera honakoa da:

– Eskualdeko petrolio esportatzaile handiak. Munduko eskariaren jaitsierak eta petrolioaren prezioen amiltzeak herri horiek kolpatu zituzten. Izan ere, 2008an %7,7 hazi ziren bitartean, 2009an %3,9 baino ez ziren hazi.
– Sarrera ertaineko ekonomiak, merkataritza irekiagoa daukatenez, kaltetuenak izan ziren eskualdean. Produktua %1,8 jausi zen, aurreko aldiko %3,6ko hazkundearen aurrean.
– Sarrera txikiko ekonomietan, jarduera ekonomikoaren moteltzea txikiagoa izan zen, haien merkataritza eta finantzako integrazioa ere txikiagoa delako. 2009an ekonomiarik ahulenetako batzuetan hazkundea bizkortzera iritsi zen, batez ere politika sendoagoak ezarri zirelako eta lehenagoko gatazka zibiletako, ezegonkortasun ekonomikoko eta kanpoko shocketako aldien ondoren berreraikitzeko laguntza handiagoa izan zutelako.

1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

EBZren datuen arabera, 2009an eurogunean BPGd-ren hazkundea %4 murriztu zen. Murrizketa handi horren zio nagusia 2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengoan ekoizpenak izandako amiltzea izan zen, finantzetako gorabehera gehiagoko, ziurgabetasun handiagoko eta munduko jardueran eta eskarian egondako aurrekaririk gabeko jaitsierako ingurunean.

Enpresek, euren negozio itxaropenen hondatzeari, eskaera zorroaren murrizketa azkarrari eta finantzazioa lortzeko zailtasun eta prezio handiagoei egin behar izan zieten aurre, eta erantzuna hedatzeko planak geroratzea eta izakinak murriztea izan zen. Bestalde, etxeek ziurgabetasun handiagoari egin behar izan zioten aurre, eta euren aurrezpena handitu zuten, epe laburreko enplegu itxaropenak hondatutako eta zorroko galeretako testuinguruan.

Zehazki, eskariaren amiltzearen zio nagusia kapital pribatuaren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera izan zen. Halaber, kontsumo pribatua 2009an %1 inguru murriztu zen, "zuhurtzia" dela-eta gehiago aurreztu zelako. Administrazio Publikoen gastuak (bai kontsumokoak bai kapitalekoak), berriz, gora jarraitu zuen.

2009ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, finantzen egoera hobetu eta kanpoko merkataritza goraka hasi ahala, hazkundea positiboa izan zen berriz, erritmo moderatuan eta maila oso txikitik hasita bazen ere.

Izan ere, etxeetako gastua, 2009ko lehenengo hiruhilekoan %1,3 erori ondoren, urteen artean ikusita, geratzen ziren hiruhilekoetan egonkortzen joan zen, eta kontsumitzaileek laguntza publikoak izan zituzten ibilgailu zaharrak berriekin ordezkatzeko.

2009an kontsumo publikoak bizitasunari eutsi zion, epe laburrean bilakaera ziklikoak haren osagarri nagusiei (lan publikoen soldatak eta jenerotako gizarte transferentziak) eragin ez zielako. Gainera, Gobernuak, orokorrean, atzeraldian ekonomiari laguntzeko prest egon ziren.

2009an kapital finkoko guztizko inbertsioak amiltze handia izan zuen, %11koa. Inbertsio pribatuak ez bezala, inbertsio publikoak bere bizitasunari eutsi zion eta haren hazkundea bizkortu ere egin zen, 2008ko amai aldetik Gobernuek gastuari buruz zikloaren aurka hartutako erabakiek pixkanaka eragina izan zutelako.

Izakinak enpresen finantzaz kanpoko inbertsioaren portaera azaltzeko funtsezko beste aldagarri bat da, eta

ekonomiaren moteltzea areagotzeko zeregin garrantzitsua izan zuten. 2009an BPGd 0,7 puntu inguru jaitsarazi zuen.

Euroguneko ondasun eta zerbitzuen esportazioak gutxi gorabehera %13 erori ziren 2009an (zenbatekoan euroguneko herrien arteko merkataritza ere sartzen da). 2008ko erdialdetik kanpoko ingurunea hondatu egin zen eta horrek atzeraldi larria eragin zuen urteko azken hiruhilekoan, operazio asko bertan behera utzi ziren eta eskarien ematea atzeratu egin zen. Hori dela-eta, esportazioek jaitsiera oso handia izan zuten. Aldi berean, euroaren balioa, efektibo nominalari dagokionez, handitu egin zen, eta agian horrek ere esportazioei eragin die. 2009ko bigarren seihilekoan, ordea, esportazioak berriz hazten hasi ziren, jarduera ekonomikoak esportazio merkatu nagusietan hondoa jo zuelako, merkataritzako bazkideen izakinak berriz pilatzen hasi zirelako eta nazioarteko hornikuntza bidea berriz normaltasunez funtzionatzen hasi zelako.

Era berean, euroguneko inportazioak murriztu egin ziren 2009an (esportazioak baino gutxiago, hala ere), kanpoko eskariaren uzkurtzearen ondorioz. Esportazioen jaitsieraren eragina nagusitzen zen heinean, kanpoko eskari garbiak eragin oso kaltegarria izan zuen BPGd-ren hazkundean, eta 2009 osoan gutxi gorabehera %0,8koa izan zen.

Sektore ikuspegitik, produktuaren uzkurtzeak batez ere industriari eragin zion; hori dela-eta, haren balio erantsia, eraikuntza alde batera utzita, %15,8 erori zen, urteen arteko tasari dagokionez, 2009ko lehenengo bederatzi hilabeteetan. Merkatuko zerbitzuak eta eraikuntza %2,8 eta %4,9 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

2009an euroguneko lan merkatuen egoera oso hondatu zen. Bestalde, enpresek lan orduen murrizketa handia egin zuten, maiz, Gobernuek, hala nola Belgika, Alemania eta Italiakoek, lanaldiaren murrizketetarako diru-laguntza planak baliatuz. Horren ondorioz, pertsona bakoitzak lan egindako batez besteko orduak %2 murriztu ziren.

Lanaren itxurazko produktibitatea, BPGd zati guztizko enplegua, alegia, oso uzkurtu zen, eta batez beste ia %2,2 murriztu zen 2009an.

Lan egindako orduko produktibitateak jaitsiera handia jasan zuen, eta horrek enpresen marjinei eragin zien, enpresa askok, langileak kanporatzeari lotutako kostu handiagoei (adibidez, giza kapitalaren galera edo eskulana txandatzeko kostuak) aurre egin baino, enplegua biltzearen kostu mugatua jasan nahiago izan zuten. Produktibitatearen hazkundea urteko bigarren seihilekoan baino ez zen apur bat berpiztu.

KPIBk (Kontsumoko Prezioen Indize Bateratua) neurtutako urteen arteko inflazioa, batez beste, %0,3 jaitsi zen. Fluktuazio hori eta aurreko urteetakoa oso bestelakoak dira, haietan urteen arteko inflazio tasak %2,1 eta %2,2 artekoak izan baitziren. Neurri handi batean, inflazio maila hain txikia petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen jaitsiera handiaren eraginaren ondorioa izan zen, 2008an iritsitako maila altuen aldean.

Horrek 2008an gertatutako inflazio nahasmendua alderantzikatzea ekarri zuen, baina bestalde, prezio inflazionisten murrizketaren ondorioa ere izan zen, jardueraren uzkurtze handiko eta lan merkatuaren egoeraren hondoratze azkarreko testuinguruan.

2009an soldaten igoera moteldu egin zen, lan merkatuaren egoera azkar hondatzeak beheranzko presioak eragin zituelako. Soldatapeko bakoitzeko lansariaren hazkunde tasa asko jaitsi arren, soldatapeko bakoitzeko produktibitatea ere murriztu zenez, unitateko lan kostuak nabarmen hazi ziren, eta 2009ko lehenengo hiruhilekoan maila gorenak jo zituzten. Marjinak estutu egin ziren, ekoizleek kobratutako salmenta prezioen murrizketaren ondorioz, eta hori dela-eta etekinak erori egin ziren, bolumen eta marjinaren ondorioz.

Interes tipoei dagokienez, Europako Banku Zentralak egun baterako esku-hartze tipoa urtean lau aldiz jaitsi zuen, 2009ko urtarrilean %2,5etik (2008ko abenduan ezarria) %2ra. Martxoaren eta maiatzaren artean zenbait murrizketa egin zituen, guztira oinarrizko puntu 1: 0,5 martxoan, 0,25 apirilean eta 0,25 maiatzean. Erreferentziazko interes tipoak %1ean amaitu zuen urtea, %1 urtarrileko mailaren azpitik.

Diru merkatuko interes tipoei dagokionez, epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabete baterako euriborrak %2,14an hasi zuen urtea eta %0,48an amaitu, hiru hilabeterako euriborra urtarrileko %2,46tik abenduko %0,71ra igaro zen; eta urtebeterako euriborra urtarrilean %2,62an hasi zen eta abenduan %1,24an amaitu.

II.1.3. TAULA. Euroguneko adierazle ekonomiko nagusiak

	2008 BATEZ BESTEKOA	2009 BATEZ BESTEKOA	I	II	III	IV
Urteen arteko bariazio tasak. Urte-sasoiaz kanpoko datuak.						
Merkatuko prezioetako BPGd	0,6	-4,1	-5,3	-5,6	-3,9	-1,7
BARNEKO ESKARIA (BPGd errealarentzako ekarpena)	0,5	-3,2	-3,3	-3,5	-3,3	-2,9
Kontsumo pribatua	0,4	-1,0	-1,9	-1,6	-1,3	-0,1
Kontsumo publikoa	2,0	2,2	2,4	2,2	2,5	1,8
KFEGd	-0,7	-10,9	-11,6	-12,8	-10,8	-8,3
KANPOKO SALDOA (BPGd errealarentzako ekarpena)	0,0	-0,8	-1,7	-1,3	-0,8	0,7
Esportazioak	0,9	-13,0	-16,4	-17,0	-13,5	-5,2
Inportazioak	0,9	-11,7	-13,1	-14,7	-12,3	-6,9
BPGd erreala, zeinean:						
Industria (eraikuntza izan ezik)	-0,9	-	-16,6	-17,1	-13,6	-
Eraikuntza	-0,8	-	-5,9	-4,7	-4,2	-
Merkatuko zerbitzuak (Merkataritza eta ostalaritza, konponketa, garraioa eta komunikabideak)	1,2	-	-0,7	-2,9	-2,7	-
Urteen arteko bariazio tasak						
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA						
Enplegua daukan biztanleria aktiboa	0,7	-1,8	-1,3	-1,9	-2,1	-2,0
Langabezia tasa (biztanleria aktbioaren gaineko %)	7,6	9,4	8,8	9,3	9,7	9,9
Urteen arteko bariazio tasak						
PREZIOAK ETA LAN KOSTUAK						
Inflazioa (KPIB) indize orokorra (urteko batez bestekoa)	3,3	0,3				
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	3,2	1,4	1,7	1,4	1,4	1,3
Lan produktibitatea	-0,2	-2,2	-3,8	-3,0	-2,0	-0,1
Unitateko lan kostua	3,4	3,8	5,7	4,6	3,4	1,4
Ehunekoak						
DIRU MERKATUKO TIPOAK (bankuen artekoak)						
Hilabete 1erako gordailuak. Hilabete 1erako euriborra.	4,27	0,89				
3 hilabeterako gordailuak. 3 hilabeterako euriborra (*)	4,63	1,22				
Urtebeterako gordailuak. Urtebeterako euriborra	4,81	1,62				

(*) Liborrarekin erkatzeko erabiltzen da.
Iturria: Eurostat, Espainiako Bankua, Boletín Económico, 2010eko maiatza. MEH, Síntesis de Indicadores Económicos, 2010eko otsaila

II.1.4. TAULA. Europar Batasunaren bilakaera ekonomikoa

	per capita BPGd (1)		BPGd errealaren hazkundea			Langabezia tasa (2)		Enpleguaren hazkundea		Inflazioa (KPIB) (urteko batez bestekoak)		Produktibitatea / langileko (3)		Unitateko lan kostu errealaren bar. % (4)	
	2008	2009	2008	2009	2010 (prev.)	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Eurogunea 16 (5)	108	108	0,6	-4,1	0,9	7,5	9,4	0,7	-1,8	3,3	0,3	109,2		1,1	2,9
EB-15	111	111	0,5	-4,3	0,9	7,1	9,0	0,7	-1,8			109,6		0,6	2,7
ALEMANIA	116	116	1,3	-4,9	1,2	7,3	7,5	1,4	0,0	2,8	0,2	125,5	124,8	2,0	3,5
AUSTRIA	123	124	2,0	-3,5	1,3	3,8	4,8	1,8	-0,9	3,2	0,4	113,5	113,1	0,9	3,3
BELGIKA	115,	115	1,0	-3,0	1,3	7,0	7,9	1,9	-0,5	4,5	0,0	125,5	124,8	2,0	3,5
DANIMARKA	120	117	-0,9	-4,9	1,6	3,3	6,0	1,4	-3,6	3,6	1,1	101,5	102,6	2,8	4,7
ESPAINIA	103	103	0,9	-3,6	-0,4	11,3	18,0	-0,6	-6,7	4,1	-0,2	103,6	109,6	1,8	0,1
FINLANDIA	117	110	1,2	-7,8	1,4	6,4	8,2	1,6	-3,0	3,9	1,6	111,6	108,7	4,0	7,0
FRANTZIA	108	107	0,2	-2,6	1,3	7,8	9,5	0,6	-1,3	3,2	0,1	121,3	122,2	0,3	2,4
GREZIA	94	95	2,0	-2,0	-3,0	7,7	9,5	0,1	-1,2	4,2	1,3	102,2	103,8	0,3	5,0
HOLANDA	134,	130	2,0	-4,0	1,3	2,8	3,4	1,4	-0,9	2,2	1,0	114,5	113,6	0,2	5,8
IRLANDA	135	131	-3,0	-7,1	-0,9	6,3	11,9	-1,1	-8,2	3,1	-1,7	136,8	138,4	7,2	0,5
ITALIA	102	102	-1,3	-5,0	0,8	6,7	7,8	0,3	-1,7	3,5	0,8	109,0	108,8	1,7	2,1
LUXEMBURG	276	268	0,0	-3,4	2,0	4,9	5,4	4,7	0,9	4,1	0,0	175,8	172,3	1,7	7,0
PORTUGAL	78	78	0,0	-2,6	0,5	7,7	9,6	0,4	-2,5	2,7	-0,9	73,5	72,8	1,6	4,2
ERRESUMA BATUA	116	117	0,5	-4,9	1,2	5,6	7,6	-0,4	-3,5	3,8	-0,4	144,9	150,5	-0,2	3,5
SUEDIA	122	120	-0,4	-5,1	1,8	6,2	8,3	0,9	-2,0	3,3	1,9	112,3	115,3	-0,6	2,7
EB-25	103	103	0,6	-4,2	1,0	7,1	9,0	0,9	-1,8			103,3		0,6	2,7
TXIPRE	96	98	3,6	-1,7	-0,4	3,6	5,3	2,6	-0,7	4,4	0,2	87,4	88,5	-2,6	6,6
ESLOVAKIA	72	72	6,2	-4,7	2,7	9,5	12,0	2,8	-2,4	3,9	0,9	79,2	79,3	-0,3	8,5
ESLOVENIA	91	86	3,5	-7,8	1,1	4,4	5,9	2,8	-2,2	5,5	0,9	84,4	81,5	2,3	7,2
ESTONIA	67	62	-3,6	-14,1	0,9	6,3	11,9	0,2	-10,0	10,6	0,2	63,8	62,3	6,9	2,3
HUNGARIA	64	63	0,6	-6,3	0,0	7,8	10,0	-1,3	-3,6	6,0	4,0	71,3	71,0	0,7	-2,1
LETONIA	57	49	-4,2	-18,0	-3,5	7,5	17,1	0,9	-13,6	15,3	3,3	52,0	50,8	6,6	-5,7
LITUANIA	62	53	2,8	-14,8	-0,6	5,8	13,7	-0,5	-6,9	11,1	4,2	62,0	57,8	-0,3	3,9
MALTA	76	78	1,7	-1,5	1,1	5,9	6,9	2,5	-0,6	4,7	1,8	86,9	88,2	2,5	0,2
POLONIA	56	61	5,0	1,7	2,7	7,1	8,2	3,8	-0,7	4,2	4,0	62,0	64,3	3,8	-1,2
TXEKIAR ERR.	8	80	2,5	-4,1	1,6	4,4	6,7	1,2	-1,2	-6,3	0,6	72,0	71,4	3,2	1,0
EU-27	100	100	0,7	-4,2	1,0	7,0	8,9	0,9	-1,8			100,0	100,0	0,5	2,7
BULGARIA	41	41	6,0	-5,0	0,0	5,6	6,8	3,3	-2,9	12,0	2,5	37,2	37,3	4,3	6,2
ERRUMANIA	---	45	7,3	-7,1	0,8	5,8	6,9	-0,2	-3,3	-7,9	56,0	50,2	48,2	0,2	4,2

(1) PPSn. EB27=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) PPCko BPGd langile bakoitzeko EB27ri dagokionez. Hots, EB27=100. (4) Langile bakoitzeko lansaria eta produktibitatea erkatzen ditu: ratioaren hazkunde tasa (soldatapeko bakoitzeko prezio korronteko lanaria / prezio korronteko BPGd langile bakoitzeko). (5) Eurogunea (16): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxemburg, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia, Finlandia, Eslovenia, Txipre, Malta y Eslovakia. Iturria: Eurostat

Estatu kide bakoitzari dagokionez, egoera honakoa da. EB15aren barruan, PPSn[1] neurtutako BPGd EB15aren batez bestekoaren (111) oso gainetik daukaten herriak Luxemburg (268) eta Holanda (130) dira. Batez bestekoaren azpitik Espainia (103), Finlandia, Frantzia, Grezia, Italia eta Portugal daude.

EB15ean BPGd errealaren bariazio tasa %-4,1ekoa izan da 2009an. Tasa horren gaineko amiltzeak jasan zituzten Estatuak honakoak dira: Finlandia (%-7,8), Irlanda (%-7,1), Suedia (%-5,1), Italia (%-5), Alemania, Danimarka eta Erresuma Batua (%-4,9 bakoitza).

Hedapeneko kide berriei dagokienez, denek daukate EB25 eta EB27ko batez bestekoa baino PPSko batez besteko per capita BPGd txikiagoa. Bestalde, haietan guztietan BPGd-ren jaitsiera tasak EB25ekoak (%-4,2) baino handiagoak dira, Txipren (%-1,7), Polonian (%+1,7, hazi den Estatu kide bakarra) eta Txekiar Errepublikan (%-4,1) izan ezik.

Lan merkatuari dagokionez, 2008 eta 2009 artean langabezia tasa Estatu kide guztietan hazi da. Guneko batez bestekoa (EB15, %9) baino tasa handiagoa daukaten EB15eko Estatuen artean Espainia (%18), Irlanda (%11,9), Portugal (%9,6), Frantzia eta Grezia (%9,5 bakoitza) daude).

Aipatu denez, Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren arabera, urteko batez besteko inflazioa %0,3koa da eurogunean[2], aurreko urtekoa baino %3 gutxiago. Tasa negatiboak Irlandak (%-1,7), Portugalek (%-0,9), Erresuma Batuak (%-0,4) eta Espainiak (%-0,2) dauzkate.

Langile bakoitzeko produktibitatearen hazkundeari dagokionez, mailaren (EB 27=100) eta ez bilakaeraren araberako neurketa dela-eta, ondoriozta daiteke EB15ean tasarik handienak Luxemburgen, Erresuma Batuan, Irlandan, Alemanian, Belgikan eta Frantzian daude. Eta kontrakoagatik, hain zuzen ere, Portugal eta Danimarkako ratioak nabarmentzen dira.

Arestian esan denez, europar herri gehienek zeuden indar murriztaileei aurre egiteko zerga neurriak ezarri zituzten. Horren ondorioz, 2009an EBko gobernu gehienek defizit fiskala nabarmen handitu zuten.

II.1.5. TAULA. EB-ko finantza publikoak

	Gobernuak BPGd gainean daukan zor publikoaren %		BPGd gaineko defizit/superabit publikoaren % (moneta nazionaletan)	
	2008	2009	2008	2009
Eurog. 16	69,4	78,7	-2,0	-6,3
EB-15				
ALEMANIA	89,8	96,7	0,0	-3,3
AUSTRIA	62,6	66,5	-0,4	-3,4
BELGIKA	89,8	96,7	-1,2	-6,0
DANIMARKA	34,2	41,6	3,4	-2,7
ESPAINIA	39,7	53,2	-4,1	-11,2
FINLANDIA	34,2	44,0	4,2	-2,2
FRANTZIA	67,5	77,6	-3,3	-7,5
GREZIA	99,2	115,1	-7,7	-13,6
HOLANDA	58,2	60,9	0,7	-5,3
IRLANDA	43,9	64,0	-7,3	-14,3
ITALIA	106,1	115,8	-2,7	-5,3
LUXEMBURG	13,7	14,5	2,9	-0,7
PORTUGAL	66,3	76,8	-2,8	-9,4
ERRESUMA BATUA	..	..	..	..
SUEDIA	38,3	42,3	2,5	-0,5
EB-25	62,3	74,3	-	
TXIPRE	48,4	56,2	0,9	-6,1
ESLOVAKIA	27,7	35,7	-2,3	-6,8
ESLOVENIA	22,6	35,9	-1,7	-5,5
ESTONIA	4,6	7,2	-2,7	-1,7
HUNGARIA	72,9	78,3	-3,8	-4,0
LETONIA	19,5	36,1	-4,1	-9,0
LITUANIA	15,6	29,3	-3,3	-8,9
MALTA	63,7	69,1	-4,5	-3,8
POLONIA	47,2	51,0	-3,7	-7,1
TXEKIAR ERR.	30,0	35,4	-2,7	-5,9
EB-27	61,6	73,6	-2,3	-6,8
BULGARIA	14,1	14,8	1,8	-3,9
ERRUMANIA	13,3	23,7	-5,4	-8,3

Iturria: Eurostat

[1] PPS: erosahalmenaren parekotasuna

[2] Eurogunea (EB-15): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxemburg, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarrilaren 1ean sartu zen; eta Txipre eta Malta 2008ko urtarrilaren 1ean.

Euroguneko defizit publikoa BPGd-ren %6,3ko mailan kokatu zen. BPGd-ren gaineko zor publikoa %78,7koa izan zen.

Danimarkak, Luxemburgek, Suediak eta Estoniak izan ezik, EB27ko Estatu guztiek Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako BPGd-ren %3ko muga gainditu zuten. Defizit handienak Irlanda (%14,3), Grezia (%13,6), Portugal (%9,4) eta Espainian (%11,2) gertatu ziren.

Bestalde, BPGd-ren gaineko zor publikoa Estatu guztietan hazi zen. Egonkortasun Itunean ezarritako %60ko muga Alemanian (%96,7), Austrian (%66,5), Frantzian (%77,6), Irlandan (%64), Italian (%115,8), Portugalen (%76,8), Hungarian (%78,3) eta Maltan (%69,1) gainditu zen.

1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA

EINren Hiruhileko Kontabilitate Nazionaleko (CNTR) datuen arabera, Espainiako ekonomiak 2009ko laugarren hiruhilekoan sortutako BPGd-k %3,1eko murrizketa izan zuen aurreko urteko aldi beraren aldean. Hortaz, jarduerak uzkurtzea jarraian murriztu zuen bigarren hiruhilekoa izan zen. Hiruhilekoen artean aztertuta, BPGd %0,1 murriztu zen. Datu hori hirugarren hiruhilekokoa baino hamarren bi hobea izan zen.

Horren ondorioz, 2009. urtea ixtean BPGd errealaren urteko batez besteko jaitsiera %3,6koa izan zen, aurreko urtekoa baino %4,5 gutxiago. Jaitsiera hori EB15koa (%-4,3), EB25ekoa (%-4,2), EB27koa (%-4,2), eta eurogunekoa (%-4,1) baino txikiagoa da, EUROSTATen arabera.

Gastuaren ikuspegitik, barneko eskariak BPGd-ren hazkundeari egindako ekarpena -6,4 puntukoa izan zen, aurreko urtean baino 5,9 puntu gutxiago (-0,6tik -6,4ra), kontsumo final pribatuaren jaitsieraren (hazkunde tasa %-0,6tik %-5era igaro zen) eta kapital finkoko inbertsioak jasandako uzkurtzearen (%-4,4tik %-15,2ra) ondorioz. Bestalde, herri administrazioek egindako kontsumo finaleko gastuak gora jarraitzen du, baina aurreko urtean baino tasa txikiagoan (%5,5etik %3,9ra).

Kapital eratze gordinari dagokionez, produktu guztietan murriztu arren, amiltzea oso handia izan zen ekipamendu-ondasunetan (%-1,7tik %-22,9ra).

Bestalde, kanpoko sektoreak BPGd-ren hazkundeari egindako ekarpena 1,4 puntutan hobetu zuen, 1,4tik 2,8ra, inportazio jarduerak esportazio jarduerak baino jaitsiera handiagoa izan zuelako.

Eskaintzaren aldetik, jarduera alor guztietan amildu zela ikusten da (merkatuaz kanpoko zerbitzuetan izan ezik), baina industriaren urteko batez besteko murrizketa handiagoa izan zen, %14,6koa. Eraikuntzaren sektoreko jarduera %6,3 erori zen. Bestalde, zerbitzuetan jaitsiera %1ekoa izan zen, eta merkatuko eta merkatuaz kanpoko zerbitzuen artean bereizita, lehenengoen bariazio tasa %2 murriztu zen bitartean, bigarrenena hazi egin zen, haien hiruhilekoko bariazioa lehenengo hiruhilekoko %3tik laugarreneko %1,2ra jaitsi arren. Horrela haien urteko batez besteko bariazio tasa %2,6koa izan zen.

Jardueraren jaitsierarekin batera enplegu okupatuaren maila ere murriztu egin zen. Lanaldi osoan diharduten guztizko lanpostuak %6,7 murriztu ziren, hots, 1,3 milioi lanposturen murrizketa garbia. Soldatapekoen murrizketa ere antzekoa izan zen, %6,5ekoa. Bestalde, EINren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia tasa %6,7 hazi dela, %11,3tik %18ra.

BPGd-ren eta lanaldi osoan okupatutako enpleguaren bariazioa batera hartuta, ondorioztatzen da ekonomiaren lan eragilearen itxurazko produktibitatea %3,3ko erritmoan hazi zela. Produktu unitateko lan kostua (ULK) %0,3ko erritmoan hazi zen.

EINren datuen arabera, KPIren bidezko batez besteko inflazioak (urteko batez bestekoa) %0,3ko batez besteko jaitsiera izan zuen, aurreko urteko %4,1eko hazkundearen aldean.

Bukatzeko, 2009ko abenduko Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren (KPIB) datuek, Estatu osorako, %0,9 hazkundea adierazten dute 2008ko abenduaren aldean, aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago, eta EDBko tasa bera (haren indizea aurreko urtearen aldean 7 hamarren jaitsi zen). EB27 osoan, bestalde, prezioak %1,5 hazi ziren, 2008ko abenduan baino 7 hamarren gutxiago.

II.1.6. TAULA. Estatuko egoera makroekonomikoa (urteen arteko bariazio tasak)

	2008					2009				
	batez b.	I	II	III	IV	batez b.	I	II	III	IV
Bolumen kateatua, 2000ko erreferentzia. Urte-sasoi eta egutegi ondorioak zuzendutako datuak.										
Barneko eskaria (*)	**-0,6**	**2,5**	**0,6**	**-1,4**	**-3,9**	**-6,4**	**-6,3**	**-7,4**	**-6,6**	**-5,3**
Etxeen kontsumo pribatua	-0,6	2,1	0,2	-1,3	-3,3	-5,0	-5,5	-6,0	-5,0	-3,5
Kontsumo publikoa	5,5	4,6	5,1	5,8	6,3	3,9	6,0	4,7	4,1	0,8
Kapital finkoaren eratze gordina	-4,4	1,4	-1,9	-6,0	-10,9	-15,2	-14,9	-17,0	-16,0	-12,9
Ekipamendu-ondasunak	-1,7	5,0	2,9	-3,0	-11,6	-22,9	-24,0	-28,3	-23,8	-15,3
Eraikuntza	-5,5	-0,5	-4,1	-7,2	-10,2	-11,1	-11,3	-11,6	-11,4	-10,2
Beste produktu batzuk	-4,2	2,4	-1,2	-6,1	-11,8	-17,3	-13,2	-17,6	-19,9	-18,5
Kanpoko saldoa (*)	**1,4**					**2,8**				
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	-0,9	3,9	2,4	-2,9	-7,1	-11,3	-16,6	-14,7	-10,8	-2,9
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	-4,8	3,1	-1,3	-7,6	-13,5	-17,7	-22,3	-21,7	-17,0	-9,6
Merkatuko prezioetako BPGd	**0,9**	**2,5**	**1,7**	**0,5**	**-1,2**	**-3,6**	**-3,3**	**-4,2**	**-4,0**	**-3,1**
Nekazaritza eta arrantza arloak	-0,8	-0,1	-0,1	-0,1	-3,0	-2,4	-3,0	-2,5	-2,2	-1,9
Energia eta industria arloak	-1,5	2,3	0,0	-2,2	-6,2	-13,6	-14,1	-15,6	-14,2	-10,5
Industria	-2,1	2,1	-0,7	-3,0	-6,9	-14,6	-15,3	-16,7	-15,5	-10,9
Energia	2,0	3,8	4,0	2,4	-2,4	-8,2	-7,6	-9,3	-7,6	-8,3
Eraikuntza	-1,4	0,6	-0,2	-1,5	-4,3	-6,3	-5,8	-6,7	-6,8	-5,8
Zerbitzuen arloak	2,2	3,5	2,9	1,8	0,7	-1,0	-0,3	-1,3	-1,3	-1,1
Merkatuko zerbitzuak	1,7	3,2	2,3	1,2	-0,1	-2,0	-1,3	-2,6	-2,4	-1,8
Merkatuaz kanpoko zerbitzuak	4,4	4,5	5,1	4,2	3,6	2,6	3,0	3,3	2,8	1,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,0	0,1	-0,4	-1,8	-2,0	-2,0	-1,6	-2,3	-2,4	-1,5
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Okupatuak	-0,6	1,5	0,3	-1,0	-3,2	-6,7	-6,3	-7,2	-7,2	-6,1
Soldatapekoak	-0,8	1,5	0,2	-1,1	-3,6	-6,5	-6,3	-7,1	-7,0	-5,6
Langabezia tasa (BAI)	11,3					18,0				
Errentak. Prezio korronteak										
Langile bakoitzeko produktibitatea	1,5	1,1	1,4	1,4	2,1	3,2	3,2	3,2	3,4	3,2
Unitateko lan kostua (ULK)	4,6	4,9	5,0	4,7	3,8	0,3	0,9	0,9	-0,1	-0,1

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ri egindako ekarpena.
Iturria: EIN Hiruhileko kontabilitatea eta BAI

II.1.7. TAULA
Kontu korronteko balantza (KKB)
• Merkataritzako balantza (ondasunena)
• Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk)
• Errenten balantza
• Transferentzia korronteen balantza
Kapitalaren balantza (Kapital b.)
• Kapital transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...)
• Finantzaz kanpoko aktibo ez produktiboen eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...)
• Errenten balantza
Kanpoko aurrezki eskaera = Finantzazio ahalmena (premia)
KKB + Kapitalaren balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

Kanpoko sektoreak BPGd-ri egindako ekarpen handiagoarekin batera, Espainiako ekonomiak finantza egoera hobetu du gainontzeko munduarekiko. Ekonomiaren finantzazio premia (defizita; ekonomiako sektoreek sortutako aurrezkia egindako inbertsioari aurre egiteko nahikoa ez denean sortzen da eta kalkulatzeko Kontu Korronteko Balantzaren saldoak, Kapitalarena eta kanpoko egoiliarren inbertsioak batu behar dira) 2008an BPGd-ren %9,1 izatetik 2009an %4,7 izatera igaro zen, hots, 49.297 milioi euro, aurreko urtean baino ia 49.653 milioi gutxiago.

Espainiako herri administrazioek 117.604 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2009. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2008 eta 2009 artean BPGd-ren %4,1etik %11,2ra igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, hurrenez hurren, %9,4, %2 eta %0,5eko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Bestalde, Gizarte Segurantzaren superabita BPGd-ren %0,8an geratu zen.

II.1.8. TAULA. Espainiako ekonomiaren ordainketa-balantza (milioi euro)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
BPGd mp	**729.206**	**782.929**	**841.042**	**908.792**	**984.284**	**1.052.730**	**1.088.502**	**1.051.151**
Finantzazio gaitasuna/premia	-19.421	-23.070	-40.712	-59.489	-82.551	-100.632	-98.950	-49.297
BPGd gainean (%)	-2,7	-2,9	-4,8	-6,5	-8,4	-9,6	-9,1	-4,7
Kontu korronte eta kapital saldoa	**-16.102**	**-19.389**	**-35.735**	**-58.679**	**-82.119**	**-100.689**	**-100.500**	**-53.087**
Kontu korrontea	-23.764	-27.554	-44.163	-66.859	-88.313	-105.266	-105.974	-57.155
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-36.510	-39.839	-53.660	-68.603	-83.246	-91.116	-86.724	-45.038
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	22.609	23.301	21.753	22.240	22.235	23.051	26.144	25.697
Errentak eta transf. korr.	-9.863	-11.016	-12.256	-20.496	-27.302	-37.201	-45.394	-37.814
Kapital kontua	7.662	8.165	8.428	8.180	6.194	4.577	5.474	4.068
Finantza saldoa	**15.381**	**17.825**	**34.851**	**60.818**	**85.624**	**101.004**	**101.975**	**57.614**
Inbertsio zuzena	6.915	-2.568	-28.809	-13.517	-58.547	-53.181	-1.067	-939
Zorroko inbertsioa	4.726	-26.592	85.808	58.734	199.615	104.264	378	44.507
Beste inberts. batzuk eta eratorriak	179	45.410	-8.138	17.715	-29.644	35.599	72.446	3.581
Espainiako B. aktiboak (erreserbak)	3.561	1.575	-14.010	-2.114	-25.800	14.322	30.218	10.465

Iturria: Espainiako Bankua “Cuentas Financieras”

II.1.9. TAULA. Saldo publikoa agenteen arabera* (milioi euro)

	Milioi €				BPGd %			
	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009
Herri Administrazioak Finantzazio gaitasuna (+) / premia (-)	**19.844**	**20.057**	**-44.233**	**-117.604**	**2,0**	**1,9**	**-4,1**	**-11,2**
Administrazio zentralak	19.440	25.633	-21.995	-90.855	2,0	2,4	-2,0	-8,6
Estatua eta erakunde autonomoak	6.780	11.874	-30.457	-99.205	0,7	1,1	-2,8	-9,4
Gizarte Segurantza	12.660	13.759	8.462	8.350	1,3	1,3	0,8	0,8
Lurraldeko erakundeak	404	-5.576	-22.238	-26.749	0,0	-0,5	-2,0	-2,5
Autonomia Erkidegoak	-361	-2.343	-17.002	-21.072	0,0	-0,2	-1,6	-2,0
Tokiko korporazioak	765	-3.233	-5.236	-5.677	0,1	-0,3	-0,5	-0,5

(*) Finantzazio gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.
Iturria: Espainiako Bankua

II.1.10. TAULA. Estatuaren zerga bilketa (Erkidego Autonomoek eta tokiko korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	ZUZENEKO ZERGAK					ZEHARKAKO ZERGAK				GUZTIRA		
	Guztira	PFEZ	Sozieta-teak	Ez egoil. errenta	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak (1)	Beste batzuk	Estatua	EA eta TK	Guztira
2007	120.968	72.614	44.823	2.427	3.531	78.860	55.849	19.786	3.224	145.423	54.405	199.829
2008	102.024	71.341	27.301	2.262	3.382	70.671	48.015	19.570	3.086	113.325	59.370	172.695
2009	87.521	63.857	20.188	2.342	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2007-08 bilakaera	-15,7	-1,8	-39,1	-6,8	-4,2	-10,4	-14,0	-1,1	-4,3	-22,1	9,1	-13,6
2008-09 bilakaera	-14,2	-10,5	-26,1	3,5	2,8	-21,2	-30,1	-1,1	-11,2	-27,0	1,8	-17,1

(1) Garraiobide batzuen matrikulazioaren gaineko zerga ez da sartzen.
Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Ekonomia adierazleen laburpena

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak egindako "Síntesis de Indicadores Económicos, febrero 2010" hiruhileko txosteneko datuen arabera, emaitza horren zioa honakoa izan zen: sarrerak %21,6 erori ziren bitartean, gastuak %21,1 hazi ziren, krisialdi ekonomikoak eta Gobernuak hartutako zerga pizgarriak eraginda. Sarrerei dagokienez, enpresa eta familiei likidezia handiagoa emateko zenbait zergatan sartutako kudeaketa gastuek

II.1.11. TAULA. Aurrekontuaren egikaritzea: estatuak onartutako obligazioak (milioi euro)

	Langilekoa	Ondasun eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia korronteak	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2004	19.490,1	3.411,7	17.426,8	61.288,4	7.102,7	7.356,0	116.075,7
2005	20.649,2	3.459,7	16.978,0	64.003,9	7.136,7	8.752,7	120.980,2
2006	22.276,0	3.853,0	15.619,7	71.061,4	7.943,6	9.401,5	130.155,2
2007	23.797,6	4.365,7	14.537,9	77.483,3	9.461,6	10.176,6	139.822,5
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
2009	26.666,9	4.965,0	17.651,7	107.511,9	11.840,0	10.624,8	179.260,3
2008-09 bilakaera	5,2	9,5	10,8	27,6	-34,9	-0,3	12,8

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Ekonomia adierazleen laburpena.

eta arau aldaketek azaltzen dute aipatu emaitza. Gastuei dagokienez, haien hazkunde handiaren zio nagusia Estatuak Enpleguaren Estatu Zerbitzu Publikoari (EEZP) langabezia prestazioak finantzatzeko, udalei (Tokiko Inbertsioko Estatu Funtsa) eta Autonomia Erkidegoei egindako transferentziak dira.

Zerga nagusietako diru-bilketa, Autonomia Erkidegoen eta tokiko korporazioen parte hartzea barne, %17,1 murriztu zen 2009an. Horrela, zuzeneko zergak %-14,2 jaitsi ziren (PFEZ %10,5 jaitsi zen eta Sozietateen gainekoa %26,1) eta zeharkakoak %-21,2 (BEZ %30,1 jaitsi zen eta zerga bereziak %-1,1). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %12,8 hazi ziren. Hazkunderik handiena transferentzia korronteei dagokie eta %27,6koa da.

1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

EINren Eskualdeko Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, 2009an, Ceuta eta Melilla hiri autonomiak izan ziren euren BPGd-ren murrizketa errealik txikienak bizi zituzten lurraldeak. Haien atzetik Extremadura (%-2) eta Nafarroa (%-2,5) datoz.

Zazpi autonomia erkidegok izan zuten nazioko batez bestekoa (%-3,6) baino murrizketa txikiagoa. Honakoak dira: Galizia (-3), Madril (%-3,2), Gaztela-Mantxa (%-3,3), Murtzia (%-3,4), Gaztela eta Leon (%-3,4), Kantabria (%-3,5), EAE (%-3,5). Eta bik, Andaluziak eta Errioxak, batez bestekoaren mailan (%-3,6). Euren ekonomietan atzeraldirik handiagoa izan zuten erkidegoak Aragoi (%-4,4), Valentzia (%-4,3) eta Kanariar Uharteak (%-4,2) izan ziren. Izan ere, EB27ko batez bestekoaren azpitik kokatutako bakarrak dira.

Per capita BPGd nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 30.703 euroko BPGd-rekin, batez bestekoa baino %34,2 gehiago. Haren atzetik datoz Madril, 30.029 euroko per capita BPGd-rekin (batez bestekoa baino %31,2 gehiago), Nafarroa (29.598 euro per capita eta batez bestekoa baino %29,3 gehiago), Katalunia (26.831 euro biztanleko), Errioxa (24.754), Aragoi (24.639), Balear Uharteak (24.510) eta Kantabria (23.343). Haiek guztiak estatuko batez bestekoaren gainetik daude, 22.886 eurokoa baita.

II.1.12. TAULA. BPGD-ren hazkundea, enplegua eta langabezia tasak autonomia erkidegoetan

	Enpleguaren bilakaera			Langabetu kopuruaren bilak.			Langabezia tasa			BPGd bolumenaren bilakaera (2)			per capita BPGd (2)		
													2008	2009	
	2006-07	2007-08	2008-09	2006-07	2007-08	2008-09	2006-07	2007-08	2008-09	2006-07	2007-08	2008-09	Estatua = 100	Estatua = 100	€ per cápita
GUZTIRA	**3,1**	**-0,5**	**-6,8**	**-0,2**	**41,3**	**60,2**	**8,3**	**11,3**	**18,0**	**3,6**	**0,9**	**-3,6**	**100**	**100**	**22.886**
ANDALUZIA	3,5	-2,2	-7,2	4,2	45,1	45,2	12,8	17,8	25,4	3,5	0,5	-3,6	76,9	76,4	17.485
ARAGOI	5,8	0,1	-6,1	-0,3	39,3	79,2	5,2	7,2	12,8	4,3	1,1	-4,4	109,4	107,7	24.639
ASTURIAS	2,3	4,2	-7,0	-7,8	4,0	56,1	8,5	8,5	13,4	3,4	1,0	-3,7	94,0	94,0	21.523
BALEAR UHARTEAK	2,4	0,4	-6,1	11,1	51,7	82,0	7,0	10,2	18,0	3,4	1,3	-3,8	108,2	107,1	24.510
KANARIAR UHARTEAK	4,0	-5,9	-7,7	-8,3	69,7	55,8	10,4	17,4	26,2	3,5	0,9	-4,2	87,9	86,8	19.867
KANTABRIA	3,5	0,8	-5,0	-7,4	24,1	67,7	5,9	7,2	12,0	3,6	1,1	-3,5	102,5	102,0	23.343
GAZTELA ETA LEON	2,6	-0,5	-4,7	-10,1	35,2	45,0	7,2	9,5	13,8	3,6	0,7	-3,4	97,1	97,5	22.314
GAZTELA-MANTXA	5,6	0,0	-5,8	-9,9	59,0	66,5	7,6	11,6	18,8	4,1	0,5	-3,3	76,3	75,2	17.208
KATALUNIA	2,7	-0,5	-8,7	1,8	40,6	78,9	6,6	9,0	16,3	3,4	0,4	-4,1	116,9	117,2	26.831
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	3,2	0,3	-9,2	8,4	44,1	77,4	8,8	12,1	21,2	3,4	0,3	-4,3	89,4	88,5	20.259
EXTREMADURA	3,6	-0,8	-5,5	0,3	18,4	36,2	13,1	15,2	20,6	3,8	1,7	-2,0	70,0	71,2	16.301
GALIZIA	2,5	0,6	-4,1	-8,4	16,2	44,6	7,6	8,7	12,6	4,0	1,7	-3,0	86,2	87,4	19.995
MADRIL	2,5	0,4	-4,8	1,2	42,2	63,4	6,3	8,7	14,0	3,6	1,1	-3,2	129,8	131,2	30.029
MURTZIA	5,9	-0,8	-8,3	1,8	75,3	65,7	7,6	12,6	20,7	3,9	1,0	-3,4	81,9	81,4	18.619
NAFARROA	2,2	-0,1	-4,7	-8,8	43,4	62,0	4,8	6,7	10,9	3,8	1,9	-2,5	127,3	129,3	29.598
EAE	**0,6**	**0,5**	**-6,4**	**-12,6**	**6,4**	**68,5**	**6,1**	**6,5**	**11,0**	**3,6**	**2,0**	**-3,5**	**133,8**	**134,2**	**30.703**
ERRIOXA	1,5	0,5	-5,0	-8,4	42,5	64,5	5,7	7,8	12,8	3,7	1,3	-3,6	107,3	108,2	24.754
CEUTA	-0,9	12,6	1,9	-4,8	-8,5	14,8	20,3	17,3	18,9	3,8	1,6	-1,7	93,4	97,0	22.208
MELILLA	0,0	-3,1	-3,2	45,7	13,7	17,2	18,2	20,7	24,2	3,6	1,4	-1,4	90,3	92,9	21.250

Iturria: EIN Eskualdeko kontabilitatea

Azpimarratu behar da EINren datuen arabera estatuko batez besteko per capita BPGd baino handiagoa duten zortzi erkidegoetatik zazpik EB27ko batez bestekoa (23.600 euro) ere gainditzen dutela. Kantabria baino ez da horren azpitik geratzen.

Zerrenda, aldiz, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia ixten dute, hurrenez hurren, biztanleko 16.301, 17.208 eta 17.485 eurorekin.

Lan-merkatuari dagokionez, Estatu osorako 2009an langabezia tasa %18koa da. Tasarik txikienak dauzka-

ten autonomia erkidegoak Nafarroa (%10,9), EAE (%11), Kantabria (%12), Galizia (%12,6) eta Aragoi eta Errioxa (%12,8 bakoitza) dira. Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Andaluzia (%25,4), Kanariar Uharteak (%26,2), Valentziako Erkidegoa (%21,2), Extremadura (%20,6), Ceuta (%18,9) eta Melilla (%24,2).

Enpleguari dagokionez, 2009an galerarik handienak Andaluzian (%-7,2), Asturiasen (%-7), Kanariar Uharteetan (%-7,7), Katalunian (%-8,7), Valentziako Erkidegoan (%-9,2) eta Murtzian (%-8,3) gertatu dira.

2

EAE-ren koiuntura ekonomikoa

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen 2010eko otsaileko Hiruhileko Kontu Ekonomikoen lehen datu aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomiak urte arteko txikitzea jasan zuen 2009. urtean, kopuru errealetan, hain zuzen ere % 3,3koa. Aurreko urtean % 1,9ko hazkundea izan zen. Horrez gain, BPGa, kopuru korronteetan, 66.208.290 mila eurora iristen da.

Ekonomia espainiarraren BPGak, bestalde, % -3,6ko batez besteko urteko aldakuntza tasa eduki du kopuru errealetan, aurreko urtean % 0,6ko hazkundea erregistratu zen bitartean. EB27n eta EB25en, ekoizpenaren erorketa % 4,2koa izan zen, EB15en % 4,3koa eta Eurozona16an % 4,1ekoa.

EAEra itzuliz, eta urte arteko tasetan aldakuntza positiboak edukiz hainbat urte egin eta gero (bolumen kateatuan, hau da, errealetan), 2009. urteko lau hiruhilekoetan urte arteko aldakuntza tasa negatiboa da, nahiz eta laugarren hiruhilekoan lehengoratzea ikus daitekeen. Ondorioz, erorketa mantsotu egiten da. EAEko BPGak urte arteko % -2,5eko aldakuntzarekin itxi zuen laugarren hiruhilekoa, eta horrek esan nahi du ehuneko 1,6 puntuko hobekuntza izan zela hirugarren hiruhilekoko tasaren aldean.

Bestalde, hiruhileko arteko tasak aztertuz gero, ikus daiteke BPGak, laugarren hiruhilekoan, % 0,2ko hazkundea erregistratu zuela aurreko hiruhilekoaren aldean, eta hau da hiruhileko arteko lehen datu positiboa tasa negatiboko jarraikako lau hiruhileko eduki eta gero. Hiruhileko arteko aldakuntza hau % -0,1ekoa izan da ekonomia espainiarrarentzat, % 0,1ekoa EB27rentzat eta euro-16 zonarentzat eta % 1,4koa EEBBetako ekonomiarentzat.

II.2.1. GRAFIKOA. EAEko BPGa. Aldakuntza tasak bolumen kateatuan



Iturria: EUSTAT. HKE.

II.2.1. TAULA. EAE-ko testuinguru makroekonomikoaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa	2003	2004	2005	2006	2007	2008 (a)	2009 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	3,1	3,7	4,0	4,4	4,2	1,9	-3,3	-2,8	-3,7	-4,1	-2,5
Eskaria											
Barne Eskaria (hazkundea)	4,4	5,2	4,4	4,4	4,3	1,8	-4,0	-3,6	-4,7	-4,5	-3,2
Barne eskariaren ekarpena (1)	4,5	5,4	4,6	4,6	4,5	1,9	-4,2	-3,8	-5,0	-4,8	-3,3
Gastua azken kontsumoan	4,1	4,4	3,8	3,8	4,1	2,2	-2,4	-2,1	-3,0	-2,9	-1,6
Kontsumo pribatua	3,7	4,6	4,1	3,7	3,6	1,6	-3,8	-3,7	-4,6	-4,3	-2,6
Kontsumo publikoa	5,8	3,7	2,7	4,3	6,4	4,8	3,2	4,2	3,4	2,6	2,5
Kapitalaren Eraketa Osoa	5,1	7,5	6,1	5,9	4,6	0,5	-8,3	-7,5	-9,4	-8,8	-7,5
Kapitalaren Eraketa osoa	6,7	6,6	6,3	5,8	5,9	0,7	-	-	-	-	-
- Izakinen aldakuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aurreko saldoaren ekarpena (1)	-1,3	-1,9	-0,7	-0,8	-0,3	-0,4	1,0	1,1	1,4	0,6	0,6
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	-0,8	4,8	5,1	6,2	5,4	4,2	-14,4	-13,1	-16,6	-16,1	-11,7
Estatuko gainerakoak	-1,0	6,1	6,6	3,4	0,1	4,1	-	-	-	-	-
Atzerria	-0,6	3,4	3,3	9,5	11,4	4,2	-	-	-	-	-
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	1,3	7,3	5,8	6,1	5,4	3,8	-14,7	-13,7	-17,1	-15,5	-12,1
Estatuko gainerakoak	1,0	4,8	5,5	2,0	5,3	3,8	-	-	-	-	-
Atzerria	1,8	12,0	6,3	12,8	5,6	3,8	-	-	-	-	-
Eskaintza											
Lehen mailakoa	-6,1	31,3	-13,8	-4,4	0,0	0,5	2,1	12,5	7,9	-0,9	-10,2
Industria	1,2	2,9	4,9	4,2	3,1	-0,5	-9,5	-10,0	-10,3	-11,6	-5,9
Eraikuntza	4,9	4,4	4,7	4,2	11,3	-1,1	-5,7	-5,5	-6,4	-6,2	-4,8
Zerbitzuak	3,3	3,3	3,5	4,5	4,1	3,5	-0,1	0,8	-0,3	-0,4	-0,6
Merkatuko zerb.	3,6	3,5	3,5	4,8	3,9	3,1	-1,2	-0,4	-1,7	-1,6	-1,1
Merkatukoak ez diren zerb.	1,7	2,0	3,4	3,3	4,8	5,6	5,0	6,6	6,4	5,2	1,8
Oinarrizko prezioei erantsitako balio osoa	2,7	3,6	3,8	4,3	4,4	1,9	-3,3	-2,7	-3,7	-4,1	-2,6
Zerga garbiak produktuen gainean	7,6	4,5	5,0	4,8	2,8	1,8	-3,4	-3,6	-4,0	-3,8	-2,3
BPG nominala merkatuko prezioetan	6,5	8,3	7,5	7,8	7,6	3,0	-3,2	-2,7	-4,8	-4,4	-1,1
BPGaren deflatorea	3,3	4,4	3,4	3,3	3,2	1,2	0,1				
Enplegu guztia HKEren arabera (2)	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8	1,0	-4,0	-3,0	-4,0	-4,0	-3,0
Lanaren itxurazko produktibitatea (2)	0,6	0,9	1,7	2,1	1,3	0,8	0,2				
Langabezia tasa PRAren arabera (3)	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3	3,8	8,1	7,7	7,8	8,3	8,7
KPI (urteko batez bestekoen aldakuntza). 2006ko oinarria.	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3				

(a) aurrerapena, (1) BPGaren hazkundeari egindako ekarpeneko ehuneko puntuak. (2) Ez dago informaziorik lanaldi osoko enpleguari buruz. (3) Metodologiako aldaketa bat dela eta, 2002 baino lehen eta ondorengo datuak ez dira alderagarriak.
Iturria: Kontu Ekonomikoak (2009ko iraila) eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak, 2005eko oinarria (EUSTATen behin-behineko datuak: 2010eko otsaila), PRA eta EIN.

II.2.2. GRAFIKOA. Barruko eta kanpoko eskariaren ekarpena BPGaren hazkundean



Iturria: Eustat. HKE (a: aurrerapena)

Eskariaren aldetik, jardueraren 2008. eta 2009. urteen arteko beherakada hori argi geratzen da barne eskariaren beherakadarekin, izan ere, % 4ko txikitze errealarekin ehuneko 5,8 puntu murrizten da 2008. urteko aldakuntza tasa (% 1,8). Eta hori kontsumo pribatuaren (% 3,8 jaitsiz aurreko urteko % 1,6ko hazkundearen aldean) eta inbertsioaren (% 3,8 txikituz aurreko urteko % 0,5eko hazkundearen aldean) bultzadaren galeraren ondorio gisa.

Bi aldagaien, alegia, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren beheranzko profilak hobetzeko joera du udatik aurrera. Horrela, hirugarren hiruhilekoan kasuan kasuko aldakuntza tasak ez dira bigarren hiruhilekokoak bezain negatiboak. Aldiz, laugarrenean joera mantendu egiten da.

Azkeneko kontsumoaren aldakuntzak, beraz, bi alderdi ezberdindu ageri ditu. Gastuaren hazkunde negatiboa etxebizitzetako amaierako kontsumoan (kontsumo pribatua), eta Administrazio Publikoen gastu positiboa (kontsumo publikoa), hain zuzen ere barne eskariaren osagai dinamikoena bezala ageriz.

Kanpoko eskariari dagokionez, bai esportazioak[1], bai inportazioak[2] erori egin dira 2008. eta 2009. urteen artean. Lehenengoak % 14,4 erori dira eta bigarrenak % 14,7.

Barne eskariak eta kanpokoak BPGan duen partaidetza ikusita, lehenengoak 4,2 puntu kentzen dizkion bitartean bere hazkundeari, kanpoko eskariaren ekarpena aipatutako hazkundeari puntu 1ean kokatzen da.

Estatuan, EINen datuen arabera, eskari nazionalaren ekarpena BPGaren hazkundeari -6,4 puntukoa izan zen. Bestalde, kanpoko eskariak 2,8 puntuan lagundu zuen hazkunde agregatuan.

Eskaintzaren aldetik, jardueraren erorketa bereziki deigarria izan zen industrian eta eraikuntzan. Horiek erorketak erregistratu dituzte, % 9,5 eta 5,7koak hurre-

II.2.3. GRAFIKOA. Eskaintza agregatuaren bilakaera (bolumen indizearen urte arteko aldakuntza tasa)



Iturria: HKE. EUSTAT.

[1] Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa honetan datza: ez egoiliarrei ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko egoiliarrek egindako eragiketak (salmentak, opariak edo dohaintzak).

[2] Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa honetan datza: egoiliarrei ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko ez egoiliarrek egindako eragiketak (salmentak, opariak edo dohaintzak).

nez hurren, kopuru errealetan 2008. eta 2009. urteen artean.

Hala eta guztiz ere, hazkundearen hiruhileko profilak, aurreko urteko aldi berdinen aldean, lehengoratzea erakusten du urteko laugarren hiruhilekoan, nagusiki industriaren sektorean. Sektore horrek, jardueran % 11,6ko murriztapena jasan izan eta gero hirugarren hiruhilekoan, % 5,9ko txikitze tasarekin amaitzen du laugarren hiruhilekoa. Bestalde, eraikuntzak % 4,8ko murriztapenarekin amaitzen du laugarren hiruhilekoa, aurreko erorketa % 6,2koa izan zen bitartean.

Zerbitzuen sektoreak jasandako murriztapena 2008. eta 2009. urteen artean, % 0,1ean kokatzen da kopuru errealetan. Aitzitik, aurreko bi sektoreen kasuan ez bezala, urtea erorketarekin itxi zuen. Laugarren hiruhileko kopurua, aurreko urteko aldi berdinaren aldean, % 0,6koa izan zen, aurreko hiru hilabeteetan igarritakoa baino altuagoa.

Oro har, BEG erori egin zen ehuneko 5,2 puntu 2008. eta 2009. urteen artean, % 1,9tik % -3,3ra igarotzean.

Enpleguari dagokionez, Kontu Ekonomikoen arabera enplegua murriztu egin zen 2008. eta 2009. urteen artean. Gauzak horrela, 2008. urtean % 1 hazi bazen ere, 2009. urtean % 4ko erorketa erregistratu zen. 2008. urteko laugarren hiruhilekoa itxi egiten da % 4ko murriztapenarekin, enplegu galera mantsotu egiten da 2009. urteko lehen hiruhilekoan (% -3), baina, ondoren, neurri handiagoan erortzen da berriro hurrengo bi hiruhilekoetan (% 4). Azkenik, 2009. urteko laugarren hiruhilekoa amaitu egiten da % 3ko beherakadarekin.

Bestalde, lanaren itxurazko produktibitatea ehuneko 6 puntu erortzen da, 2008. urteko % 0,8tik 2009. urteko % 0,2ra igaroz.

Bestalde, inflazioak behera egin zuen. BPGaren deflatorea % 0,1era iritsi zen (aurreko aldian baino ehuneko 1,1 puntu gutxiago) eta kontsumoko prezioen urteko batez besteko hazkundea % 0,3koa izan zen (Estatuan erregistratutako portzentajea % -0,3koa izan zen).

Bestalde, abenduan, Estatuko KPIak % 0,9ko urte arteko aldakuntza tasa erregistratu zuen, eta Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatu (KPIH) gisa % 0,9ko urte arteko aldakuntza tasa erregistratu zen ere. EAEren kasuan, KPIak % 1eko urte arteko aldakuntza tasa erregistratu zuen abenduko hilabetean.

Prezioei eta produktibitateari buruzko azterlan xehatuago baterako, "*II.6. Prezioak, kostuak eta errentak*" kapitulua irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. BARNE ESKARIA

Lehen ere aipatu dugun moduan, jarduera ekonomikoaren beherakada barne eskariaren erorketaren ondotik azaldu daiteke, izan ere % 4ko txikitze erreala ageri du. Horrela, 5,8 puntu murrizten da aurreko urteko aldakuntza tasa (% -4, % 1,8aren aldean), erorketa handiagoa edukiz urteko bigarren hiruhilekoan (urte arteko tasa erreala: % -4,7) ondoren hobekuntza mantsoari ekiteko. Horrela, urte arteko aldakuntza tasa erreala urteko laugarren hiruhilekoan % -3,2n kokatzen da.

Horrela, barne eskariaren erorketa laugarren hiruhilekoan aurrekoan baino ehuneko 1,3 puntu gutxiagokoa da. Horrek aukera ematen du hiruhileko arteko hazkunde tasa positiboa lortzeko, % 0,2koa, lehenengo aldiz eta jarraikako sei hiruhileko kopuru negatiboetan egin eta gero.

Kontsumo pribatua eta inbertsioa erorketa azaltzen duten aldagaiak dira. Gauzak horrela, kontsumo pribatua jaitsi egiten da % 3,8an, aurreko urtean erregistratu zen % 1,6ko hazkundearen aldean. Halaber, inbertsioa % 8,3 erori zen, aurreko aldiko % 0,5eko hazkundearen aldean.

Hala eta guztiz ere, jada esan den moduan, bi aldagaien beheranzko profilak hobetzeko joera du udatik aurrera. Horrela, hirugarren hiruhilekoan kasuan kasuko urte arteko aldakuntza tasak ez dira bigarren hiruhile-

[3] KPIH (Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatua) adierazle estatistiko bat da. Haren helburua batez besteko komuna ematea da inflazioari buruz, horren bitartez posible izan dadin nazioarteko alderaketak egitea eta, horrela, Maastrichteko Itunak Europako Diru Batasunean sartzeko gai honetan exijitzen duena betetzen den edo ez aztertzea. Gogora dezagun egonkortasun helburuak finkatu egiten duela KPIHren urte arteko hazkundea % 2aren azpitik egon behar dela euroaren eremurako.

II.2.4. GRAFIKOA. Barne eskaria. Aldakuntza errealeko hiruhileko arteko tasak



Iturria: EUSTAT. HKE.

koak bezain negatiboak. Aldiz, laugarrenean joera mantendu egiten da.

Izan ere, Etxebizitzetako Amaierako Kontsumoan (Kontsumo Pribatua) izandako gastuak lehengoratze sintomak ageri ditu laugarren hiruhilekoan, urte arteko % 2,6ko erorketa edukiz, aurreko hiruhilekoan baino arinagoa (% -4,3). Gainera, eta hiruhileko arteko tasa negatiboak edukitzen bost hiruhileko egin eta gero, Etxebizitzetako Kontsumoak hazkunde positiboa lortzen du laugarren hiruhilekoan, % 0,5ekoa, eta aurreko hiruhilekoaren aldean. Horrek Eskariaren aldetik BPGak duen hiruhileko arteko portaera positiboa finkatzen du.

Kontsumo Publikoak, laugarren hiruhilekoan, tasa positiboak eskuratzen baditu ere (urte arteko % 2,5 eta % 0,4koa hiruhileko artean), hazkunde tasak arintzen ditu aurreko hiruhilekoetako kopuruen aldean.

Kapitalaren Eraketa Osoaren bilakaera (Inbertsioa) Eraikuntzaren sektorearenak eta Ekipamendu Ondasunenak finkatzen dute. Bi kasuetan, mantendu egiten da aurreko aldiekiko ahulezia, eta horregatik daude hazkunde tasa negatiboak laugarren hiruhilekoan, bai urte arteko kopuruetan (% -7,5), bai hiruhileko arteko kopuruetan (% -0,1). Edonola ere, tasak aurreko hiruhilekoetan baino hobeak dira.

Gauzak horrela, barne eskariak BPGaren hazkundetik 4,2 puntu kentzen ditu 2009. urtean.

EUSTATek eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren koiuntura adierazle nagusiek agerian uzten dute jazotako uzkurdura. Gauzak horrela, Industri Produkzioko Indizearen urte arteko aldakuntza tasa[4] kontsumoko ondasunei dagokienez % 12,2 txiki-

[4] IPIk neurtzen duena zera da: industrian, alegia, erauzketa industrietan, manufakturetakoetan eta energia elektrikoa, ura eta gasa ekoiztu eta banatzeko industrietan (eraikuntza kanpo utziz) jatorria duen BPGaren zatiak bolumenaren aldetik eduki duen bilakaera. IJIk (Industriako Jarduera Indizea) eraikuntza ere sartzen du.

II.2.2. TAULA. Barne eskariaren adierazleetako batzuen bilakaera (urte arteko aldakuntza tasa)

	2006	2007	2008	2009
Kontsumo Publikoaren adierazleak				
AAPPetako kontsumo gastua (HKEren arabera)	4,3	6,4	4,8	3,2
Kontsumo pribatuaren adierazleak				
IPI Kontsumoko ondasunak	1,5	0,3	-7,3	-12,2
Turismoen matrikulazioa	-	-0,1	-22,6	1,7
Barne Merkataritzaren Salmenten Indizea (p. korr.)	4,8	3,1	-4,3	-9,2
Salmentak azalera handitan (p. korr.)	1,7	-0,2	-4,9	-0,4
Bestelakoak				
Airetiko trafikoa	4,1	11,3	-5,6	-13,5
Hoteletan igarotako gauak	10,8	0	-4,2	-1,2
Hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak kanpo utzita)	-	2,3	-4,9	-1,4
Inbertsioaren adierazleak				
IPI inbertsio ondasunak	8	7,3	-2,3	-25,1
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	-	5,4	-41,2	-39,6
Ekipamendu Ondasunen inportazio balioa	6,1	14,5	-2,2	-30,7

Iturria: EUSTAT

tzen da. Barne merkataritzako indizea erori egiten da berriro ere aldi honetan % 9,2an geratu arte.

Azalera handietako salmentak, aldiz, hobetu egin dira, % -4,9ko aldakuntza tasatik % -0,4ra igarotzean. Halaber, turismoen matrikulazioak % 1,7 hazi ziren, aurreko urteko % 22,6ko murriztapenaren aldean.

Inbertsio adierazleei dagokienez, inbertsio ondasunen Industri Produkzioko Indizea erori egin zen % 25,1. Kargako industria ibilgailuen matrikulazioak % 39,6ko beherakada jasan zuen. Azkenik, ekipamendu ondasunen inportazioaren balioa % 30,7 txikitu zen 2009. urtean; aurreko aldian, murriztapena % 2,2koa izan zen.

Bestalde, airetiko trafikoa murriztu egin da % 13,5ean aurreko ekitaldiaren aldean, eta hoteletan egindako gauak % 1,2 erori dira.

Egoera honen ildo beretik, EAEko *Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak* (KKI), Hego Euskal Herriko Au-

II.2.5. GRAFIKOA. Kontsumitzailearen Konfiantza indizearen bilakaera



Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa

II.2.3. TAULA. Kontsumitzaileak EAE-n duen konfiantzaren itxaropen indizea: osagaiak

		KKI	Etxebizitzako egoera ekonomikoaren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Egoera ekonomiko orokorraren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Aurrezpen itxaroenak (datozen 12 hilabeteetan)	Langabezia itxaroenak (datozen 12 hilabeteetan)
2006	I	97	96	82	124	85
	II	97	99	89	113	87
	III	94	101	92	102	81
	IV	97	99	93	105	92
	BATEZ BESTEKOA	96	99	89	111	86
2007	I	99	99	92	107	98
	II	101	95	89	114	107
	III	96	97	89	115	84
	IV	88	86	76	95	93
	BATEZ BESTEKOA	96	94	87	108	96
2008	I	92	93	81	109	83
	II	80	90	77	92	59
	III	75	86	65	93	57
	IV	71	79	48	106	50
	BATEZ BESTEKOA	80	87	68	100	62
2009	I	70	79	54	103	45
	II	67	80	63	86	39
	III	72	86	63	94	43
	IV	93	94	88	108	81
	BATEZ BESTEKOA	76	85	67	98	52

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa

rrezki Kutxen Federazioak landutakoa, bilakaera negatiboa erakusten du 2008. urtean eskuratutako 80ko urteko batez besteko batetik 2009. urtean eskuratutako 76ko batera. Indize horrek 1992. urtean (67) eta 1993. urtean (75) bakarrik erakutsi ditu balio baxuagoak. Horrek laburbildu egiten du euskal kontsumitzaileen ezkortasuna, Estatuan igartzen denaren antzekoa eta haren gainetik apur batean.

Hala eta guztiz ere, erantsitako grafikoan islatzen den moduan, kontsumitzaileen konfiantza beherantz joan da urtean zehar. Lehengoratze hori Estatuan nahiz EBn hasi zen bigarren hiruhilekotik aurrera; laugarrena 80ko balioarekin amaitu zen Estatuan eta 85ekoarekin EBn.

EAEn, bestalde, konfiantzan izandako hobekuntza beranduago hasi zen, hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta indar handiagoarekin.

Zehazki, EAEko KKIak hogeita bost puntu galdu zituen 2008. urteko lehen hiruhilekotik (92) 2009. urteko hirugarren hiruhilekora arte (67). Une horretatik aurrera lehengo-

ratu egin zen eta laugarren hiruhilekoa 93ko balioarekin amaitu (hirugarren hiruhilekoan baino 21 gehiago).

Indizeko osagai guztiek okerrera egin bazuten ere urteko batez besteko kopuruetan 2008 eta 2009 artean, hiruhileko azterketak agerian uzten du, espero zitekeen moduan, urteko bigarren erdian emaitzak ez direla hain kaltegarriak.

Gauzak horrela, etxeko egoera ekonomikoaren itxaropenek 94ko balioarekin amaitu zuten laugarren hiruhilekoan, hirugarren hiruhilekoan baino 8 gehiago; egoera ekonomiko orokorraren itxaropenen balioa 88 puntukoa izan zen, hirugarren hiruhilekoan baino 25 gehiago; aurrezpen itxaropenek 108 lortu zuten, aurreko hiruhilekoan baino 14 gehiago, eta, azkenik, langabezia itxaropenek erregistratzen dute itxaropen okerrena, 81eko balioarekin, baina aurreko aldiaren aldean 38 puntu gehiagorekin. Euskal kontsumitzaileen itxaropenek, 2009. ekitaldia ixterakoan, ekonomia eta langabezia egonkortzearen aldeko joera aurreratzen dute, azken hiruhilekoetan igarritako atzeraldi sendoa eta gero. Aitzitik, euskal kontsumitzaileen konfiantza modu adierazgarrian areagotu izanak ez du isla baliokiderik eskariaren itxaropenetan, izan ere, horiek geldirik mantentzen dira azken sei hiruhilekoetako mailetan. Zentzu berean, inbertsio haien probabilitate indizeak geldirik jarraitzen du ere (lehen eta bigarren etxebizitza eta ibilgailua). Datu multzoaren arabera, badirudi euskal kontsumitzaileen ustetan testuinguru ekonomikoaren hondamen prozesua gelditu egin dela, nahiz eta haien ustez egoera ekonomikoak zaila izaten jarraituko duen.

2.3. KANPOKO SEKTOREA

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoek 2009rako bildutako behin-behineko datuek -2010eko otsailean argitaratuak-, Estatuari eta munduko gainerako tokiei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei buruzkoak, adierazi egiten dute esportazioa urteko batez besteko % 14,4 txikiagotu zela kopuru errealetan (aurreko aldian % 4,2 hazi zen bitartean). Halaber, inportazioa % 14,7 erori zen (aurreko aldiko % 3,8ko hazkundearen aldean). Bi aldagaiek antzeko hiruhileko bilakaera profila ageri dute. Esportazioek % 13,1eko erorketarekin hasten dute lehen hiruhilekoa, bigarrenean % 16,6 erortzera iristen dira eta hortik aurrera txikitzeak mantsotzen hasten dira eta laugarren hiruhilekoa % 11,7ko beherakadarekin amaitzen dute. Bestalde, inportazioak lehen hiruhilekoan hasten dira % 13,7ko beherakadarekin, bigarrenean % -17,1era iritsi arte. Ondoren, erorketa murriztuz doa eta laugarren hiruhilekoa % 12,1eko txikitzearekin amaitzen da.

Euskal ekonomiaren irekiera maila[5] (Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) murriztu egiten da % 139,3tik 118,2ra igarotzean. Ondasunen eta zerbitzuen esportazioaren estaldura inportazioarekin ere ehuneko 1,6 puntu murrizten da, % 92,9tik 91,3ra igaroz.

II.2.6. GRAFIKOA. Kanpoko sektorearen bilakaera EAEn (bolumen indizearen urte arteko aldakuntza tasa. Datu zuzenduak)



Iturria: Eustat. HKE.

[5] BPG gainean esportazioen eta inportazioen batura eratzen duen portzentajea, guztiak prezio korronteetan.

II.2.4. TAULA. Kanpoko merkataritzaren bilakaera (urteko aldakuntza tasak, eurotan)

	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	Energiakoak	Energiakoak ez direnak	Guztira	Energiakoak	Energiakoak ez direnak
1991	6,6	17,3	5,3	-0,7	-6,7	1,3
1992	0,8	-33,2	5,4	5,8	11,1	4,1
1993	9,2	10,0	9,1	1,9	22,7	-5,1
1994	30,3	0,8	32,8	15,8	-23,8	32,9
1995	11,4	-19,1	13,4	17,4	-25,0	27,9
1996	14,0	21,3	13,7	0,6	27,0	-3,2
1997	31,7	18,8	32,4	10,4	0,8	12,2
1998	5,0	-3,7	5,3	8,1	-13,0	11,7
1999	2,0	-1,5	2,2	8,6	23,9	6,5
2000	17,7	78,5	15,3	37,1	140,8	21,0
2001	-2,3	-9,0	-1,8	-3,0	-17,5	1,5
2002	0,3	-28,9	2,0	1,5	3,0	1,2
2003	1,3	31,3	0,1	3,2	5,3	2,6
2004	14,6	35,5	13,5	19,8	35,8	15,6
2005	5,8	12,2	5,4	15,6	52,1	4,4
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-28,0	-32,9	-27,5	-39,0	-41,0	-37,9

Iturria: EUSTAT

Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta *Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak* eskainitakoak, adierazi egiten dute esportazioen balio korrontea txikitu egin zela % 28an 2009. urtean. Energiakoek izandako beherakada % 32,9koa izan zen, eta energiakoak ez direnena (guztien % 91,5) % 27,5ekoa. Estatistika seriea hasi zenetik 1990. urtean, ez zen esportazioetan, balio korrontean, hain beherakada alturik zenbatu. Izan ere, erregistratutako erorketa bakarra 2001. urtean gertatu zen, eta % 2,3an kokatu zen.

Bestalde, inportazio osoek beherantz egin zuten % 39. Bertan, energia inportazioen balioak, guztiaren % 34,2, txikitu egin ziren % 41ean, eta energiakoak ez direnen kasuan % 37,9koa izan zen txikipena. Inportazioetan, balio korrontean, ez da beherakada hain alturik igartzen ere 1990. urtean estatistika seriea hasi zenetik. Zenbatutako erorketa bakarrak 1991. (% 0,7) eta 2001. (% -3) urteetan gertatu ziren. Energia esportazioetan beste beherakada batzuk bai ikusten direla, baina energiakoak ez direnekin orekatzen dira.

II.2.5. TAULA. EAE-k atzerriarekin duen ondasun eta zerbitzuen kanpo merkataritza (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen araberako sailkapena)

MUGA-ZERGAKO TALDEAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2007	2008	2009 b-b		08-09 alda-kuntza	2007	2008	2009 b-b		08-09 alda-kuntza	2007	2008	2009 b-b
	milioiak	milioiak	milioiak	% ber-tikala		milioiak	milioiak	milioiak	% ber-tikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	**19.072,7**	**20.279,4**	**14.606,2**	**100,0**	**-28,0**	**18.902,7**	**20.118,0**	**12.277,9**	**100,0**	**-39,0**	**170,1**	**161,4**	**2.328,3**
Energiakoak (Energiako produktu eta mineralak)	1.501,5	1.840,4	1.235,7	8,5	-32,9	5.783,8	7.108,1	4.196,6	34,2	-41,0	-4.282,3	-5.267,7	-2.960,8
Energiakoak ez direnak	17.571,3	18.439,0	13.370,5	91,5	-27,5	13.118,9	13.009,9	8.081,4	65,8	-37,9	4.452,4	5.429,1	5.289,1
Nekazaritzako produktuak	621,6	652,1	565,8	3,9	-13,2	863,4	912,7	790,7	6,4	-13,4	-241,8	-260,6	-224,9
Produktu kimikoak	403,5	409,4	310,4	2,1	-24,2	487,4	617,2	417,6	3,4	-32,3	-83,9	-207,8	-107,3
Plastikoak eta kautxua	1.395,7	1.376,0	1.052,6	7,2	-23,5	868,3	850,8	592,1	4,8	-30,4	527,4	525,2	460,6
Papera	489,1	486,9	417,8	2,9	-14,2	403,3	386,4	275,7	2,2	-28,6	85,8	100,5	142,1
Metal komunak eta haien manufakturak.	5.222,5	5.972,0	3.579,1	24,5	-40,1	5.161,7	5.101,7	2.346,7	19,1	-54,0	60,8	870,3	1.232,4
Ekipamendu ondasunak	8.350,5	8.472,0	6.563,1	44,9	-22,5	4.168,3	4.076,4	2.823,3	23,0	-30,7	4.182,2	4.395,6	3.739,8
Makinak eta gailuak	4.089,7	4.224,6	3.255,9		-22,9	2.617,8	2.693,8	2.089,7		-22,4	1.471,9	1.530,8	1.166,2
Garraio materiala	4.260,8	4.247,4	3.307,2		-22,1	1.550,5	1.382,6	733,6		-46,9	2.710,3	2.864,8	2.573,6
Beste manufaktura batzuk	933,8	922,2	782,5	5,4	-15,1	1.148,9	1.043,5	817,1	6,7	-21,7	-215,1	-121,2	-34,6
Sailkatu gabe	154,6	148,4	99,2	0,7	-33,2	17,7	21,4	18,1	0,1	-15,3	136,9	127,1	81,1

b-b: behin-behinekoak. Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

Datu hauek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera maila (atzerriarekiko harremanak) % 59tik 40,6ra igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura maila % 100,8tik % 119ra igaro zen.

EAEko energiakoak ez diren esportazioak muga-zergen taldeak gorabehera aztertuz gero, ikus daiteke berriro ere nabarmen ageri direla, lehenik eta behin, ekipamendu ondasunak, hain zuzen ere esportatu den guztiaren % 44,9 (makinen eta gailuen artean banatuta 3.256 milioi euro, eta garraio materiala 3.307 milioi euro). Hala eta guztiz ere, eta aurreko urteetan gertatu den ez bezala, ekipamendu ondasunen esportazioa erori egin da % 22,5, garraio materialaren esportazioan (% -22,1) nahiz makinen eta gailuenean (% -22,9) izandako beherakadaren ondorio zuzen gisa. Bigarrenik, metal komunen eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 24,5arekin. Aitzitik, horrelako produktuen esportazioa nabarmenki erori zen (% -40,1). Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa da azpimarragarria, hain zuzen ere kopuru osoaren % 7,2. Haren aldakuntza tasa % -23,5aren inguruan kokatzen da.

Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, nabarmen ageri dira ekipamendu ondasunak, inportazio guztien % 23, eta % 30,7 txikiagotzen dira, garraio materialaren (% -46,9) nahiz makina eta gailuen (% -22,4) inportazioan erorketa egon izanagatik. Bigarrenik, metalek eta

II.2.6. TAULA. EAE-ko energiakoak ez diren ondasunen kanpoko merkataritza, eremu geografikoak gorabehera (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen araberako sailkapena)

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2007	2008	2009 b-b	2008-09 aldakun.	2007	2008	2008 b-b	2008-09 aldakun.	2007	2008	2009 b-b
Guztira	**17.571.267**	**18.438.993**	**13.370.488**	**-27,5**	**13.118.893**	**13.009.903**	**8.081.377**	**-37,9**	**4.452.374**	**5.429.090**	**5.289.111**
ELGA	14.103.178	14.564.629	9.924.888	-31,9	9.834.132	9.591.840	6.286.372	-34,5	4.269.046	4.972.789	3.638.516
EB-15	11.568.038	11.907.699	7.843.671	-34,1	8.453.098	8.142.750	5.249.150	-35,5	3.114.940	3.764.949	2.594.521
Alemania	2.918.840	3.023.531	2.009.758	-33,5	2.437.592	2.376.703	1.476.665	-37,9	481.248	646.828	533.093
Austria	204.704	220.302	123.728	-43,8	149.006	200.684	111.160	-44,6	55.698	19.618	12.568
Belgika	695.727	802.839	503.282	-37,3	443.645	405.221	329.234	-18,8	252.082	397.618	174.048
Frantzia	3.181.453	3.304.206	2.294.915	-30,5	1.879.120	1.904.096	1.189.203	-37,5	1.302.333	1.400.110	1.105.712
Italia	1.378.714	1.321.490	819.166	-38,0	1.263.817	1.203.212	876.323	-27,2	114.897	118.278	-57.157
Luxenburgo	23.455	24.385	18.965	-22,2	26.192	30.823	12.045	-60,9	-2.737	-6.438	6.920
Portugal	839.995	921.601	668.093	-27,5	291.751	279.466	198.061	-29,1	548.244	642.135	470.032
Erresuma Batua	1.217.892	1.232.609	751.194	-39,1	809.751	641.766	338.601	-47,2	408.141	590.843	412.593
Suedia	234.564	215.368	131.214	-39,1	181.431	198.700	117.314	-41,0	53.115	16.668	13.900
EBKB	920.428	993.519	674.553	-32,1	377.555	412.436	293.999	-28,7	542.873	581.083	380.554
EB-25	12.377.553	12.772.152	8.440.178	-33,9	8.772.921	8.502.292	5.503.393	-35,3	3.604.632	4.269.860	2.936.785
Polonia	373.991	388.552	261.159	-32,8	87.125	113.834	72.730	-36,1	286.866	274.718	188.429
Txekiar Errepublika	219.401	245.862	181.296	-26,3	75.695	77.893	56.518	-27,4	143.706	167.969	124.778
EB-27	12.488.466	12.901.218	8.518.224	-34,0	8.830.653	8.555.186	5.543.148	-35,2	3.657.813	4.346.032	2.975.076
EB ez den ELGA	1.812.419	1.878.298	1.535.290	-18,3	1.124.445	1.157.299	815.134	-29,6	687.974	720.999	720.156
Kanada	67.327	73.486	52.244	-28,9	56.596	51.923	24.649	-52,5	10.731	21.563	27.595
EEBB	590.936	700.785	459.152	-34,5	366.814	372.795	265.801	-28,7	224.122	327.99	193.351
Japonia	52.104	74.421	25.880	-65,2	168.409	166.383	114.323	-31,3	-116.306	-91.962	-88.443
Mexiko	405.259	259.384	215.886	-16,8	36.102	37.920	29.965	-21,0	369.157	221.464	185.921
Turkia	245.770	261.425	333.290	27,5	115.436	89.848	59.455	-33,8	130.334	171.577	273.835
EEMH	142.634	163.865	103.813	-36,6	100.114	80.372	49.725	-38,1	42.520	83.493	54.088
AED	197.097	238.032	454.588	91,0	349.929	355.105	206.600	-41,8	-152.832	-117.073	247.988
MERCOSUR	363.478	430.798	340.471	-21,0	190.234	211.809	85.624	-59,6	173.244	218.989	254.847
Argentina	61.750	88.490	81.046	-8,4	52.145	52.145	17.470	-66,5	33.898	36.345	63.576
Brasil	294.302	333.832	248.268	-25,6	159.429	156.354	62.529	-60,0	134.872	177.478	185.739
Txina	300.102	401.051	259.484	-35,3	1.139.568	1.113.469	709.172	-36,3	-839.466	-712.418	-449.688
India	143.744	187.417	157.503	-16,0	103.835	125.462	41.883	-66,6	39.909	61.955	115.62
Errusia	139.377	209.616	109.444	-47,8	460.033	485.487	176.140	-63,7	-320.656	-275.871	-66.696

b-b: Behin-behineko datuak. EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Komuna. EEMH: Europa Erdialdeko eta Ekialdeko Herrialdeak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malaysia eta Tailandia).
Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

II.2.7. GRAFIKOA. EAEko Kanpoko Merkataritzaren bilakaera, eduki teknologikoaren arabera



b-b: Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

haien manufakturek inportazio osoen % 19,1 hartzen dute, % 54 txikituz.

Kanpoko saldoa hobetu egiten da aurreko urtekoaren aldean; horrela, 161,4 milioi eurotik 2.328,3 milioi eurora igarotzen da, BPGaren % 3,5 hartuz.

Energiakoak eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatu egiten da energiaren saldoak defizita duela (-2.960,8 milioi euro). Aldiz, energiakoak ez diren produktuenak superabita erregistratzen du, 5.289 milioi euro, BPGaren % 8 hartuz. Kopuru hori aurreko urtean izandako kopuruaren (% 7,9) gainetik ehuneko hamarren 1eko ratioa da.

EUSTATen datuen arabera, EAEko esportazioek nahiz inportazioek izandako bilakaeran Estatuko erorketak baino erorketa nabarmenagoak igarri dira.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoen arabera, ELGAri zuzendutakoak eta eremu horren barruan EB15i zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: Kopuru osoaren % 74,2 dira, baina % 31,9ko txikitze tasa ageri dute. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB-15erantz egindako esportazioen % 74,9 izanez. Hala eta guztiz ere, horietan guztietan erorketak igarri dira: Frantzian % -30,5, Alemanian % -33,5, Italian % -38 eta Erresuma Batuan % -39,1.

Kide diren herrialde berrietara egindako esportazioari dagokionez, oraindik pisu adierazgarria dute Poloniarantz zuzendutakoek (kopuru osoaren % 38,7), eta hori aurreko urtearen aldean % 32,8ko beherakada jasan ba-

II.2.7. TAULA. Kanpoko merkataritzaren bilakaera EAE-n, maila teknologikoa gorabehera

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 p
X guztira (milioi €)	9.850	11.579	11.244	11.292	11.481	13.198	13.935	16.201	18.508	19.691	14.177
Altuen X %a kopuru osoaren gainean	5,5	4,8	4,6	4,1	5,9	3,3	2,7	2,4	2,7	2,6	2,5
Ertain eta altuen X %a kopuru osoaren gainean	49,8	46,1	47,4	47,2	46,7	48,0	48,6	45,6	44,1	43,2	44,0
Ertain eta baxuen X %a kopuru osoaren gainean	36,1	40,2	38,2	38,7	37,7	40,0	40,5	44,4	45,8	46,8	44,9
Baxuen X %a kopuru osoaren gainean	8,6	8,8	9,7	10,0	9,7	8,7	8,3	7,6	7,4	7,3	8,6
M guztira (milioi €)	6.080	7.353	7.232	7.593	7.664	8.788	9.859	11.744	13.701	13.320	8.522
Altuen M %a kopuru osoaren gainean	7,0	5,7	5,5	5,2	4,9	5,0	4,7	4,6	4,1	5,0	5,7
Ertain eta altuen M %a kopuru osoaren gainean	44,0	43,6	43,0	41,5	40,4	41,2	38,2	34,7	32,8	33,1	35,4
Ertain eta baxuen M %a kopuru osoaren gainean	33,5	36,4	36,5	36,5	36,9	38,9	42,8	48,0	51,0	49,6	43,6
Baxuen M %a kopuru osoaren gainean	15,5	14,3	15,0	16,7	17,8	14,9	14,4	12,8	12,1	12,3	15,2

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT

dute ere, eta Txekiar Errepublikara zuzendutakoek (kopuru osoaren % 26,9 baina % 26,3ko erorketarekin).

ELGAren eremuan baina EBtik kanpo, herrialde guztietara egindako esportazioak erortzen dira, batez ere Japoniarantz (% -65,2) eta EEBBetarantz (% -34,5) zuzendutakoak.

ELGAtik kanpo nabarmenak dira berriro ere pisuagatik Brasilerantz, Txinarantz eta Indiarantz egindako esportazioak. Edonola ere, erorketak ikusi dira horietan guztietan: Brasilen % -25,6koa, Txinan % -35,3koa eta Indian % -16koa. Aldi berean, Asiako Ekonomia Dinamikoetarantz (AED hurrengoek eratzen dute: *Hego Koreak, Taiwanek, Hong Kongek, Singapurrek, Indonesiak, Malaysiak eta Tailandiak*) egindako esportazioak dira azpimarragarriak, aldi honetan areagotu egiten baitira.

Inportazioei dagokienez, haietako gehienak ELGAtik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, EB15etik egindako inportazio guztien % 67,5 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua eta Belgika. Hala eta guztiz ere, horietan guztietan beherakadak igarri dira.

ELGAren eremuan, baina EBtik kanpo, azpimarragarriak dira EEBBetatik eta Japoniatik etorritakoak, eta hori txikitzeak garrantzitsuak badira ere: EEBBetan % -28,7 eta Japonian % -31,3.

ELGAren eremutik kanpoko portaerari dagokionez, erorketak orokorrak dira.

Azkenik, EAEko energiakoa ez den kanpoko saldoak okerrera egiten du, 5.429,1 milioi euroko superabit batetik 5.289,1 milioi eurora igaroz 2008. eta 2009. urteen artean.

Bestalde, energiakoak ez diren ondasunen estaldura tasa areagotu egiten da, 2008. eta 2009. urteen artean % 141,7tik % 165,4ra igarotzean.

Bestalde, bestelako sailkapen mota bati erreparatuz gero, hau da, maila teknologikoaren arabera, ikus daiteke 2008. eta 2009. urteen artean, maila ertaineko eta altuko esportazioek pisua irabazi zutela kopuru oso-

aren gainean, izan ere, % 43,2 izatetik % 44 izatera igaro dira. Bestalde, maila altukoak erori egin dira pixka bat (% 2,6tik 2,5era).

Inportazioen kasuan, egoera itxaropentsuagoa da, izan ere, pisu hazkundea ikusten da, eta ez bakarrik maila ertain eta altukoen kasuan (% 33,1etik % 35,4ra), baita maila altukoen kasuan ere (% 5etik 5,7ra).

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Atzerriko inbertsioa EAEn

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn txikitu egin da 2009rako dauden behin-behineko datuen arabera (urtarril-abendua). Guztira, EAEk 140,49 milioi euroko inbertsio osoa eskuratu du atzerritik; kopuru horretatik atzerriko baloreak edukitzeko enpresak (ABEE) kenduz gero, 97,73 milioi euroko kopurua geratuko litzateke. Gauzak horrela, EAEn destinoa duten atzerriko inbertsio osoaren fluxua, ABEEak kenduta, % 70,3 txikitu da.

Estatuaren multzoan, atzerriko inbertsioa (ABEEak kenduta) txikitu egin da % 60an 2008. eta 2009. urteen artean. Halaber, EAEk kopuru oso horren gainean duen proportzioa jaitsi egiten da 2008. urteko % 1,1etik 2009. urteko % 0,8ra. Madrilgo Erkidegoak eskuratzen duen inbertsioa deskontatuz gero, portzentajea % 2,4ra igotzen da, nahiz eta 2008 eta 2009 artean % 6,1etik % 2,4 horretara jaisten den.

II.2.8. GRAFIKOA. Atzerriko inbertsio osoa* EAEn



* ABEE deskontatuta.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

II.2.8. TAULA. Atzerriko inbertsio osoa aaee gorabehera

	2005	2006	2007	2008	2009 b-b
GUZTIRA	**14.091,79**	**9.683,72**	**29.485,73**	**29.298,78**	**11.710,83**
EAE	**187,94**	**284,15**	**1.350,67**	**329,28**	**97,73**
ANDALUZIA	312,74	257,32	246,67	218,26	306,49
ARAGOI	57,09	91,41	208,78	99,49	131,66
KANTABRIA	1,10	4,49	59,37	72,85	11,30
GAZTELA ETA LEON	24,04	35,75	23,26	45,76	71,80
GAZTELA-MANTXA	30,01	261,84	22,23	93,89	170,04
KATALUNIA	2.557,51	2.663,99	2.603,27	2.329,10	1.365,28
MADRIL	3.981,46	4.006,88	22.639,67	23.893,49	7.636,81
VALENTZIA	218,60	162,74	1.741,83	274,66	447,23
EXTREMADURA	8,88	3,94	3,66	4,94	26,64
GALIZIA	205,36	96,12	50,14	25,84	158,92
BALEARRAK	216,26	118,74	158,85	532,69	410,30
KANARIAR UHARTEAK	26,73	18,99	127,89	20,84	76,51
ERRIOXA	3,80	0,54	2,82	0,39	3,59
NAFARROA	11,28	136,41	10,79	23,11	26,42
ASTURIAS	8,29	32,56	8,15	6,97	6,34
MURTZIA	41,55	113,30	42,37	189,77	11,66
CEUTA ETA MELILLA	5,39	8,94	2,61	0,63	0,69
Esleipenik gabe	6.193,76	1.385,63	182,67	1.136,80	751,41

* ABEE deskontatuta.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Gauzak horrela, 2009. urtean EAEk bederatzigarren tokia betetzen zuen atzerriko inbertsio bolumenean, ABEEak kenduta 7.636,8 milioi euro eskuratzen dituen Madrilen atzetik. Kataluniak 1.365,3 milioi euro eskuratzen ditu, Valentziak 447,2 milioi euro, Andaluziak 306,5 milioi, Gaztela-Mantxak 170, Galiziak 158,9 eta Aragoik 131,7. 2008. urtean, EAEk laugarren postua bete zuen inbertsio bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Balearren atzetik.

Nekazaritzaren, Abeltzaintzaren, Basogintzaren eta Arrantzaren sektoreetan egindako inbertsioak alde batera utzita, EAEko inbertsioaren % 23,9 hartzen dutenak eta Estatuan sektore honetan egindakoaren % 30 hartzen dutenak (zehazki zerealen (arroza salbu), lekadunen eta olio hazien landaketa da), energia elektrikoaren, gasaren, baporearen eta airearen hornidurak EAEko inbertsioaren % 26,5 hartzen du, eta sektore honetan Estatuan egindakoaren % 9,1 da. Halaber, han-

II.2.9. TAULA. Inbertsio osoa* EAE-n sektorea eta herrialdea gorabehera (mila €tan (CNAE-09)

	2007	2008	2009 b-b	Estatua 2009 b-b	EAE banaketa	%a Estatuaren gainean	%07-08	%08-09
A. Nekaz., Abeltz., Basog. eta Arrantza	5,0	21,0	23.331,1	77.726,0	23,9	30,0	324,2	111.000,4
B. Erauzketa industriak	0,0	0,0	3,1	14.432,7	0,0	0,0		
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	1,0	3.007,0	30,0	224.640,2	0,0	0,0	300.599,0	-99,0
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	0,0	0,0	0,0	126.916,8	0,0	0,0		
C. Larruaren eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	1.011,5	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	5.491,9	0,0	0,0		
C. Paper eta arte grafikoen industria	3,0	6,0	0,0	102.937,6	0,0	0,0	99,3	-100,0
C. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	3.313.623,9	0,0	0,0		
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	93,9	3.190,0	0,0	203.421,5	0,0	0,0	3.297,9	-100,0
C. Farmaziako prod. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	149.591,8	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	1.603,0	14.637,3	1.739,9	105.543,2	1,8	1,6	813,1	-88,1
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	22.300,0	3.825,0	0,0	53.287,7	0,0	0,0	-82,8	-100,0
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	0,0	498,5	0,0	83.896,7	0,0	0,0		-100,0
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	6.722,2	6.617,3	6.296,5	14.568,9	6,4	43,2	-1,6	-4,8
C. Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa	0,0	45.223,4	2.627,6	64.092,9	2,7	4,1		-94,2
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	816,4	17.835,8	0,8	4,6		
C. Bestelako manufakturak	0,0	3,0	96,8	49.640,5	0,1	0,2		3.125,0
C. Makineria instalaz. Konponk.	0,0	0,0	0,0	2.914,5	0,0	0,0		
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	15.327,5	43.380,2	25.900,3	285.567,3	26,5	9,1	183,0	-40,3
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea	0,0	0,0	0,0	6.431,0	0,0	0,0		
F. Eraikuntza	1.242.936,2	1.167,3	165,8	454.692,5	0,2	0,0	-99,9	-85,8
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	18.924,6	16.830,3	15.587,4	1.136.236,3	15,9	1,4	-11,1	-7,4
H. Garraioa eta biltegiratzea	8.304,4	50.087,0	570,0	896.436,6	0,6	0,1	503,1	-98,9
I. Ostalaritza	8,9	49,6	0,0	88.529,9	0,0	0,0	456,7	-100,0
J. Informazioa eta Komunikazioak	2.017,5	60.006,8	9.924,5	1.61 0.409,5	10,2	0,6	2.874,4	-83,5
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	5.541,7	295,3	0,0	1.247.073,5	0,0	0,0	-94,7	-100,0
L. Higiezinen jarduerak	11.341,5	59.584,1	10.218,7	539.366,4	10,5	1,9	425,4	-82,9
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	4.629,5	20.748,0	417,0	192.010,9	0,4	0,2	348,2	-98,0
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	10.737,7	86,3	0,0	214.178,0	0,0	0,0	-99,2	-100,0
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	0,0		

II.2.9. TAULA. *(jarraipena)*

		2007	2008	2009 b-b	Estatua 2009 b-b	EAE banaketa	%a Estatuaren gainean	%07-08	%08-09
P. Hezkuntza		3,1	0,0	0,0	16.372,5	0,0	0,0	-100,0	
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak		3,0	3,0	0,0	66.910,8	0,0	0,0	0,0	-100,0
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak		0,0	13,0	9,0	320.629,5	0,0	0,0		-30,6
S. Bestelako zerbitzuak		169,0	1,5	0,0	23.902,7	0,0	0,0	-99,1	-100,0
T. Etxebizitzetako jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-		
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak		0,0	0,0	0,0	505,0	0,0	0,0		
Inbertsioa guztira		**1.350.672,6**	**329.280,9**	**97.734,0**	**11.710.827,5**	**100,0**	**0,8**	**-75,6**	**-70,3**
Inbertsioaren azken titularraren bizitokia dagoen herrialdea	ELGA	754.178,9	285.630,4	95.330,5	7.597.670,0	97,5	1,3	-62,1	-66,6
	EB-15	726.235,1	276.235,2	73.580,0	6.147.839,7	75,3	1,2	-62,0	-73,4
	EB-27	726.393,3	276.324,8	73.679,6	6.219.261,4	75,4	1,2	-62,0	-73,3
	IPAR AMERIKA	20.831,1	2.803,4	54,7	868.053,5	0,1	0,0	-86,5	-98,0
	KANADA	15.289,5	90,2		17.879,7	0,0	0,0		
	EEBB	5.541,7	2.713,2	54,7	850.173,7	0,1	0,0	-51,0	-98,0
	LATINOAMERIKA	5.524,8	7.052,1	5.005,3	489.659,8	5,1	1,0	27,6	-29,0
	ARGENTINA	199,0	7,0	1.647,0	257.650,7	1,7	0,6	-96,5	
	BRASIL	80,0	507,9	3,0	7.477,2	0,0	0,0	534,9	-99,4
	TXILE	1,0	60,1	394,3	13.385,7	0,4	2,9	5.910,0	556,0
	MEXIKO	5.086,4	6.230,7	2.961,0	71.650,0	3,0	4,1	22,5	-52,5
	ASIA ETA OZEANIA	592.465,2	42.664,3	4.231,3	3.584.590,7	4,3	0,1	-92,8	
	TXINA	477,5			2.643,2	0,0	0,0		
	INDIA	591.849,8			10.525,4	0,0	0,0		100,0
	JAPONIA		13,0	4.224,8	133.373,7	4,3	3,2	100,0	32.348,2
	AFRIKA			3,0	18.090,0	0,0	0,0		
	PARADISU FISKALA	3.564,5	94,7	253,4	289.892,2	0,3	0,1	-97,3	167,6

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.

dizkako Merkataritza, txikizkakoa eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketa dira EAEko inbertsioaren % 15,9 hartzen dutenak, Estatuan sektore honetan egindakoaren % 14 izanez. Kopuru osoan duten pisuagatik, bereziki azpimarragarri dira hurrengoetan egindakoak:

- Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren % 1,8 da eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 1,6.
- Makineriaren eta ekipamenduen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren % 6,4 hartzen du eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 43,2.

– Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren % 2,7 da eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 4,1.
– Informazioa eta Komunikazioak. EAEko inbertsioaren % 10,2 hartzen du eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 0,6.
– Higiezinen agenteak. EAEko inbertsioaren % 10,5 hartzen du eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 1,9.

Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren *azken* titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 97,5ean, eta % 75,3an EB15ean (guztira 73,6 milioi euro).

EB15eko herrialde inbertsiogile nagusiak Herbehereak (53,3 milioi euro), Alemania (2,8 milioi, % 95,7ko murriztapena) eta Frantzia (2,7 milioi euro) dira. Estatu espainiarreko gainerakoek gure Erkidegoan egindako inbertsioa murriztu egin da 49,4 milioi eurotik 0,06 milioi eurora.

Euskal Inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABEEak kanpo utzita, murriztu egin da 4.797 milioi eurotik 1.238,7 milioi eurora. Estatuko multzokoa txikiagotu egin da ere, 33.003tik 13.709,3 milioi eurora igarotzean.

Aurreko urtean bezalaxe, EAEk laugarren tokia betetzen du atzerrian egindako inbertsioa gorabehera Autonomia Erkidegoek eratzen duten rankingean. 2009. urtean Valentziako Erkidegoak gainditu zuen 1.341,9 milioirekin, Madrilek 4.445 milioirekin eta Kantabriak 4.568 milioirekin.

Gauzak horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa igaro egiten da Estatukoaren kopuru osoaren % 14,5 izatetik (Madril kenduz gero % 22,1) % 9 izatera (Madril kenduz gero % 13,4) 2008 eta 2009 artean.

Sektoreka, eta energiarena alde batera utzita, EAEren kanpoko inbertsioaren % 15 hartuz eta Estatuak kanpoan eta sektore horretan egindakoaren % 7,5 hartuz,

II.2.9. GRAFIKOA. EAEren inbertsio osoa* atzerrian



* ABEE deskontatuta.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

II.2.10. TAULA. Atzerrian egindako inbertsio osoa* autonomia erkidegoak gorabehera (milioi eurotan)

	2005	2006	2007	2008	2009 p
GUZTIRA	**30.409,92**	**60.530,96**	**96.647,36**	**33.002,99**	**13.709,31**
EAE	**1.559,35**	**2.737,82**	**28.173,90**	**4.797,02**	**1.238,72**
ANDALUZIA	863,70	476,19	485,95	250,40	42,73
ARAGOI	68,49	83,47	150,64	189,00	45,56
KANTABRIA	170,70	4.574,30	21.210,70	5.225,70	4.567,99
GAZTELA ETA LEON	186,18	70,67	99,43	133,74	176,49
GAZTELA-MANTXA	49,00	11,08	158,85	99,43	4,46
KATALUNIA	2.839,12	6.289,06	7.160,22	5.999,06	1.096,30
MADRIL	22.721,41	43.741,46	33.958,36	11.275,56	4.444,92
VALENTZIA	267,04	259,69	1.909,58	1.402,06	1.341,86
EXTREMADURA	4,84	10,22	131,12	4,62	0,70
GALIZIA	1.162,38	1.236,14	1.529,54	1.048,33	289,72
BALEARRAK	293,62	402,98	1.490,69	1.451,76	14,50
KANARIAR UHARTEAK	1,03	77,20	14,62	64,02	9,65
ERRIOXA	0,53	68,40	1,35	1,11	0,15
NAFARROA	79,28	206,98	50,32	70,76	28,33
ASTURIAS	5,58	122,55	14,71	865,45	405,41
MURTZIA	137,68	162,73	107,38	124,99	1,81

* ABEE deskontatuta.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

eta Finantza jarduerena eta aseguruena ere alde batera utzita (azken horiek EAEren kanpoko inbertsioaren % 66,6 hartzen dute eta Estatuak kanpoan eta sektore horretan egindakoaren % 11,6), hurrengoak dira nabarmen:

- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa. EAEren inbertsioaren % 5,6 da eta Estatuan, kanpoaldean eta sektore honetan, egindakoaren % 22,2.
- Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren % 2 da eta Estatuan, sektore honetan, egindakoaren % 14,9.
- Handizkako eta txikizkako merkataritza eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketa. EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 1,8 hartzen du eta Estatuak, kanpoan eta sektore honetan, egindakoaren % 4,8.
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 1,8 da, eta Estatuak, kanpoan eta sektore honetan, egindakoaren % 8.
- Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa. EAEk kanpoan egindako inbertsioaren % 1,1 eta Estatuak, kanpoan eta sektore honetan, egindakoaren % 48,7.

II.2.11. TAULA. EAE-ren inbertsio osoa* atzerrian, sektorea eta herrialdea gorabehera (mila €tan) (CNAE-09)

	2007	2008	2009 b-b	Estatua 2009 b-b	EAE banaketa	%a Estatuaren gainean	%07-08	%08-09
A. Nekaz., Abeltz., Basog. eta Arrantza	992,0	5.828,0	6.847,0	57.110,6	0,6	12,0	487,5	17,5
B. Erauzketa industriak	79.309,1	14.946,7	43.970,2	623.111,9	3,5	7,1	-81,2	194,2
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	91.256,9	0,0	6.213,6	144.751,0	0,5	4,3	-100,0	
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	20.057,3	0,0	0,0	557,5	0,0	0,0	-100,0	
C. Larruaren eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	243,6	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	4.802,8	0,0	0,0	49.740,7	0,0	0,0	-100,0	
C. Paper eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	3.881,1	0,0	0,0		
C. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	35.920,8	4.822,7	2.732,7	269.122,8	0,2	1,0	-86,6	-43,3
C. Farmaziako prod. fabrik.	0,0	0,0	0,0	1.853,3	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	380.989,6	3.230,4	24.422,7	164.121,2	2,0	14,9	-99,2	656,0
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	0,0	15,2	0,0	871,4	0,0	0,0		-100,0
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	249.719,3	57.314,7	13.052,9	26.781,5	1,1	48,7	-77,0	-77,2
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	320,2	1.458,5	589,8	1.512,9	0,0	39,0	355,4	-59,6
C. Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa	52.899,82	457132,65	69169,6	311301,36	5,6	22,2	764,1	-84,9
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Bestelako manufakturak	31.438,1	2.003,1	2.941,4	467.107,5	0,2	0,6	-93,6	46,8
C. Makineria instalaz. Konponk.	0,0	132,0	0,0	0,0	0,0			-100,0
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	19.309.529,9	3.163.243,1	186.220,1	2.473.303,8	15,0	7,5	-83,6	-94,1
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea	0,0	39,5	1,5	11.347,8	0,0	0,0		-96,3
F. Eraikuntza	18.155,0	30.654,9	6.390,1	340.008,5	0,5	1,9	68,9	-79,2
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	18.973,7	267.898,5	22.141,5	457.753,1	1,8	4,8	1.311,9	-91,7
H. Garraioa eta biltegiratzea	57.492,3	562,0	6.214,8	265.958,9	0,5	2,3	-99,0	1.005,8
I. Ostalaritza	0,0	0,0	0,0	31.385,9	0,0	0,0		
J. Informazioa eta Komunikazioak	5,0	387,2	113,5	98.417,4	0,0	0,1	7.643,2	-70,7
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	7.794.236,5	727.154,9	825.257,6	7.143.891,6	66,6	11,6	-90,7	13,5
L. Higiezinen jarduerak	9.651,6	0,0	0,0	313.809,9	0,0	0,0	-100,0	
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	17.134,6	60.190,3	22.304,9	280.024,4	1,8	8,0	251,3	-62,9
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	0,0	0,0	107,9	138.293,1	0,0	0,1		
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	8.091,7	0,0	0,0		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	0,0	0,0	0,0	3.654,5	0,0	0,0		

II.2.11. TAULA. *(jarraipena)*

		2007	2008	2009 b-b	Estatua 2009 b-b	EAE banaketa	%a Estatuaren gainean	%07-08	%08-09
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak		1.012,4	1,1	29,4	21.297,0	0,0	0,1	-99,9	2.676,4
S. Bestelako zerbitzuak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
T. Etxebizitzetako jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,6	0,0	0,0		
Inbertsioa guztira		**28.173.896,8**	**4.797.015,2**	**1.238.721,0**	**13.709.306,4**	**100,0**	**9,0**	**-83,0**	**-74,2**
Inbertsioaren berehalako herrialdea	ELGA	27.537.200,63	4.074.027,60	1.066.506,24	11.353.879,85	86,1	9,4	-85,2	-73,8
	EB-15	18.796.067,15	491.559,27	40.475,94	4.988.605,46	3,3	0,8	-97,4	-91,8
	EB-27	18.855.889,26	555.427,55	64.217,42	5.340.152,00	5,2	1,2	-97,1	-88,4
	IPAR AMERIKA	8.357.611,00	3.168.438,76	966.909,63	5.115.225,41	78,1	18,9	-62,1	-69,5
	KANADA		0,00		227.758,80	0,0	0,0		
	EEBB	8.357.611,00	3.168.438,76	966.909,63	4.887.466,61	78,1	19,8	-62,1	-69,5
	LATINOAMERIKA	191.514,59	141.865,38	76.328,21	1.857.313,79	6,2	4,1	-25,9	-46,2
	ARGENTINA	47.656,88	16.442,18	795,07	72.986,72	0,1	1,1	-65,5	-95,2
	BRASIL	39.522,51	16.390,79	44.144,66	962.217,72	3,6	4,6	-58,5	169,3
	TXILE	9.142,05	19.872,24	1.280,71	57.100,00	0,1	2,2	117,4	-93,6
	MEXIKO	69.715,94	87.823,84	29.954,54	276.926,25	2,4	10,8	26,0	-65,9
	ASIA ETA OZEANIA	505.600,24	666.515,00	64.446,01	266.843,86	5,2	24,2	31,8	-90,3
	TXINA	504.153,35	10.143,81	11.579,00	69.449,28	0,9	16,7	-98,0	14,1
	INDIA	274,92	1.417,06	600,54	12.426,20	0,0	4,8	415,4	-57,6
	JAPONIA				3.593,41	0,0	0,0		
	AFRIKA			64.241,29	165.547,37	5,2	38,8		
	PARADISU FISKALA	493,40	655.516,14	49.420,91	204.751,81	4,0	24,1	132.756,9	-92,5

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.

Herrialdeka, gure kanpoko inbertsioaren destino nagusia EEBBak izaten jarraitzen du, euskal kanpoko inbertsioaren % 78,1 izanez. Atzetik Asia eta Ozeania egongo lirateke (% 5,2).

Azpimarratzekoak dira Afrikan egindako inbertsioen hazkundea eta Paradisu Fiskaletan egindakoaren murriztapena, aurreko urtean jasandako hazkundearen ostean.

EB15aren barruan, destinoko herrialde nagusiak Frantzia (18.517,5 mila euro, EAEk zonan egindako inbertsio osoaren % 45,8), Suedia (14.377 mila euro, EAEk EB15ean egindako inbertsio osoaren % 35,5), Portugal (4.883 mila euro, EAEk egindako inbertsio osoaren % 12,1) eta Herbehereak (2.030 mila euro, EAEk EB15ean egindako inbertsio osoaren % 5) dira.

3

EAE-ko Sektore Publikoa

EAEko sektore publikoko jarduerari dagokionez, nabarmendu behar dugu 2009an diru-sarrera publikoen beherakada moteldu dela: 2008an %2,3 murriztu ziren eta 2009an %1. Horren arrazoia da zuzeneko zergekin biltzen den diruaren murrizpena (%-19,1) eta neurri txikiagoan zeharkako zergekin gertatu den murrizpena (%-7,8), eta besteak beste ondareko sarreretan gertatu direnak (%-72,9), finantza-sarreren gehikuntza garrantzitsu batekin konpentsatu direla, 1.765 milioi euroko zorragatik; haietatik 1.411 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta 354 aldundiei. Emaitza da EAEko sektore publikoaren diru-sarreren multzoa (14.292 milioi euro) puntu erdi gehitu dela BPGari dagokionez, 2008an %21,09 izatetik %21,59 izatera, BPGa proportzio handiagoan jaitsi delako (%-3,2, behin-behineko datuen arabera).

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, bestalde, %4,4 gehitu da, hau da, aurreko urtean baino 3,7 puntu gutxiago, eta nabarmen Eusko Jaurlaritzan (%10,6); foru aldundietan jaitsi egin da ordea (%-10). Horrela, gastuak BPGan hartzen duen portzentajea 1,7 puntu gehitu da, %23,67raino. Sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezpen publikoa %129,9 jaitsi da (2008an %-54,1), negatibo bihurtu arte. Gainera, bigarren urtez segidan, lau ekitaldiz superabita izan ondoren, defizit publikoa izan da, 2.610 milioi eurokoa, ekitaldiko BPGaren %3,8 alegia.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (toki entitateak kontuan izan gabe) zorpetze garbia nabarmen gehitu da. Urtearen amaieran, zor bizia 4.339 milioi eurokoa zen, 2008an baino %58,9 gehiago beraz.

II.3.1. GRAFIKOA. Euskal sektore publikoaren magnitude nagusien bilakaera BPGaren aldean



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

3.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "*Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikaren*" datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek guztira likidatutako diru-sarrerek (14.291,886 milioi euro) 2009an %1eko beherakada izan zuten, aurreko ekitaldian izandakoa baino txikiagoa (%-2,3), batez ere finantzetakoak ez diren diru-sarreren beherakada (%-10,7) zati batean finantzetakoen gehikuntzarekin (%291,2) konpentsatu zelako, 1.765 milioi euroko zorra jaulki delako.

Zuzeneko eta zeharkako zergen bilketa, batuz gero administrazio hauen diru-sarrera guztien %78,4 direnak, %19,1 eta %7,8 jaitsi dira hurrenez hurren. Era berean ondareko sarrerak murriztu dira (%-72,9) eta transferentzia arruntak bikoiztu dira.

Guztira, Euskal Sektore Publikoaren sarrerak erkidegoaren BPGaren gainean, 2003an %20,7 zirenak, 2007an %22,4raino igo zirenak eta 2008an sektore publikoaren diru-sarreren murrizpenaren ondorioz %21,1 jaitsi zirenak, 2009an suspertu ziren (%21,6), EAEko BPGak urte horretan izandako beherakadagatik (%3,2koa, behin-behineko datuen arabera).

Lurraldeka, 2007an (hiru foru aldundien informazio ofiziala banakatuta eman zen azken urtea) Arabako Foru Aldundiaren diru-sarreren gehikuntza nabarmendu behar dugu. %14koa izan zen, zuzeneko eta zeharkako zergen eboluzioa hobea izan zelako beste bi lurraldeetan baino: Bizkaian (%11,5) eta Gipuzkoan (%8,7).

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreren gehiengoa dira, eta zenbateko osoaren %90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dago-

II.3.1. TAULA. Euskal sektore publikoaren diru-sarreren likidazioa. 2008-09. Euroak, milaka

	2008			2009			%Var. 2008-09		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
SARRERAK GUZTIRA	**8.679.986**	**14.342.271**	**14.429.676**	**8.930.380**	**12.854.004**	**14.291.886**	**2,9**	**-10,4**	**-1,0**
Zuzeneko zergak		6.671.570	6.671.570		5.398.131	5.398.131		-19,1	-19,1
Zeharkako zergak	5.555	6.181.558	6.187.113	4.641	5.701.097	5.705.738	-16,5	-7,8	-7,8
Tasak eta bestelako sarr.	154.951	257.680	412.631	169.758	256.534	426.291	9,6	-0,4	3,3
Transferentzia arruntak	8.006.721	799.252	360.887	7.181.787	986.295	764.832	-10,3	23,4	111,9
Ondareko sarrerak	180.036	50.507	230.543	48.974	13.578	62.552	-72,8	-73,1	-72,9
Inbertsio errealen bester.	8.803	6.153	14.957	386	2.471	2.858	-95,6	-59,8	-80,9
Kapital transferentziak	75.88	159.158	87.543	93.420	110.616	114.790	23,1	-30,5	31,1
FINAN. EZ SARR. GUZT.	**8.431.946**	**14.125.878**	**13.965.244**	**7.498.967**	**12.468.723**	**12.475.192**	**-11,1**	**-11,7**	**-10,7**
Finantza-aktiboen aldak.	48.040	2.893	50.932	20.413	31.281	51.694	-57,5	981,3	1,5
Finantza-pasib. aldak. (zorra)	200	213.500	413.500	1.411.000	354	1.765.000	605,5	65,8	326,8
FINAN. SARR. GUZT.	**248.040**	**216.393**	**464.432**	**1.431.413**	**385.281**	**1.816.694**	**477,1**	**78,0**	**291,2**
% SARRERA / BPG	**12,68**	**20,96**	**21,09**	**13,49**	**19,41**	**21,59**			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

II.3.2. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien sarreren bilakaera, BPGaren aldean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATen datuekin egina.

kionez, 2009rako behin-behineko datuek %15,9ko jaitsiera erakusten dute, 2008an izandako %6,8ko jaitsieraren ondoren, zenbait urtez gorantz egin ondoren. Hain zuzen ere, 2008ko eta 2009ko bilakaera negatiboaren antzekorik behin baino ez da egon, 1994an.

Azken urtearen bilakaera bereziki txarra izan da. 2008an zuzeneko eta zeharkako zergen bilketak murriztu ziren arren (%-1,6 eta %-11,9 hurrenez hurren), 2009an askozaz ere handiagoa da zuzeneko zergetan (%-18,3), PFEZaren bidez bildutako diruaren beherakadaren ondorioz (%-12,1), 2008an positiboa izan zena (%4,5). Zerga horrek bereziki nabaritu zituen urte osoan gertatu zen lanpostu galera eta administrazioak okupatutako pertsonei emandako laguntzak (400 euro langile bakoitzeko). Gainera, zergaren atal guztietan, kapital higiezinen etekinak izan ezik, urte arteko jaitsierak izan ziren. Zehazki, laneko etekinek eta jarduera profesionalek soldatapeko lanpostuen galera eta atxikipen peko soldata-masaren gehikuntza txikiagoaren eragina jaso dute. Kapitaleko errenten atalean, ordea, higiezin kapi-

II.3.2. TAULA. Foru Aldundiak: zuzeneko eta zeharkako zergengatiko diru-sarreren likidazioa (Euroak, milaka)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FF.AA. GUZTIRA	
	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK
2003	660.512	818.995	2.171.351	2.414.507	1.381.476	1.644.585	4.213.339	4.878.087
2004	711.438	958.821	2.262.421	2.703.629	1.405.910	1.816.043	4.379.769	5.478.493
2005	818.845	1.023.691	2.660.239	3.091.806	1.603.713	1.977.315	5.082.797	6.092.812
2006	912.856	1.102.212	3.020.511	3.486.695	1.793.349	2.154.056	5.726.715	6.742.964
2007	**1.056.881**	**1.142.798**	**3.619.667**	**3.525.649**	**2.041.773**	**2.288.435**	**6.718.320**	**6.956.882**
% 05/06	11,5	7,7	13,5	12,8	11,8	8,9	12,7	10,7
% 06/07	15,8	3,7	19,8	1,1	13,9	6,2	17,3	3,2

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOA. Euskal ogasunaren urteroko txosten integratua, 2007.

talarenak murriztu dira, banku-gordailuen dibidendu eta interesen murrizketagatik[1].

Bestalde, sozietateen gaineko zerga ere batezbestekoaren oso gainetik jaitsi zen (%-27,2), kuota diferentzial garbiaren jokabide kaltegarriak baldintzatuta. Arrazoi nagusien artean hauek daude: eraikuntza sektoreko (eta neurri txikiagoan industriako) enpresen emaitza arruntaren murrizpena, finantza-entitateetan aparteko emaitzak murriztea, zerga-tasen murrizpena eta Kontabilitate Plan berriari egokitzearen ondorioz kontabilitatez kanpoko doikuntzen eragin handiagoa.

Analisia zeharkako zergapetzean kokatzen badugu, BEZarekin hasita, esan behar dugu zerga hori, beraren pisu erlatiboa eta jasan duen beherakada garrantzitsua (-%17,3) kontuan izanik, zerga-sarreren erorketa globalaren oinarrizko elementuetako bat bihurtu dela. Gastu gehituaren dinamismo galera mailakatuak, 2007an hasi zena, zerga-bilketaren jaitsiera azaltzen du neurri handi batean. Halere, finkatutako taldeentzako adierazpen araubide berriak ere kontzeptu horretako diru-sarrerak murrizten lagundu du. Ordea, beherakada leunagoa izan zen urteko azken tartean, hirugarren hiruhilekoan murrizpena %29ra iritsi baitzen. Jaitsiera honetan batez ere familiek etxebizitza erostean eta kontsumo pribatuan izan zuten gastu txikiagoak izan zuen eragina, baita hileroko itzulketa sistema orokortzeak eta geroratze gehiago egoteak ere.

Azkenik, zerga berezien bilketaren bilakaera negatiboa izan zen (%-0,9) bigarren urtez segidan, 1997an foru aldundiak zerga horiek kudeatzen hasi zirenetik. Horren arrazoia izan zen zerga horien figura nagusia, hidrokarburoak, erregaien kontsumoa murriztu zen testuinguruan, %1,9 jaitsi zela, erregaiak gutxiago kontsumitu zirelako. Urtearen azken hileetan bilketa hori apur bat hobetu zen ordea, gasolinaren eta gasolioaren zerga-tasak igotzeari esker. Bien bitartean, tabakoa eta garagardoa dira bilketa gehitu duten bakarrak, %0,5 eta %7,8 hurrenez hurren.

Guztira, bildutako bolumen osoa 10.792 milioi euro da. Zenbateko hori EAEko BPG arruntaren %16,3 da 2009. urtean (2008an %18,5). Bildutako diruaren %36,3 PFEZari dagokio, %32,7 BEZari (kudeaketa pro-

[1] EUSKO JAURLARITZA. Euskal ekonomiaren urteroko txostena, 2009.

II.3.3. TAULA. EAEko Foru Aldundietako zerga itunduetatik bildutakoa. (Euroak, milaka)

	EAE 2008	2009				% bertik. 2009	% aldak. 2008-09
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	**6.601.180**	**859.496**	**2.891.913**	**1.641.350**	**5.392.759**	**50,0**	**-18,3**
ERRENTAREN ZUZ. ZERGAK	6.338.043	851.564	2.843.689	1.567.761	5.263.014	48,8	-17,0
PFEZ	4.458.238	630.177	2.050.298	1.237.218	3.917.693	36,3	-12,1
Laneko atxik. eta jard. prof	4.322.205	666.793	2.184.746	1.315.514	4.167.053	38,6	-3,6
Kapital higigarrien etekinen atxikip.	312.169	38.196	134.922	93.161	266.279	2,5	-14,7
Kapital higiezinen atxikipenak	70.950	10.223	45.418	24.806	80.447	0,7	13,4
Ondare-irabazien atxikipenak	39.872	1.590	11.611	4.215	17.416	0,2	-56,3
Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	173.704	27.028	71.326	64.312	162.666	1,5	-6,4
Kuota diferentzial garbia	-460.662	-113.653	-397.725	-264.791	-776.169	7,2	-68,5
Sozietateak	1.692.233	211.832	698.227	321.627	1.231.686	11,4	-27,2
Ez-egoiliarren errentaren zerga	187.572	9.555	95.164	8.916	113.635	1,1	-39,4
KAPITALAREN ZUZ. ZERGA	263.138	7.932	48.223	73.588	129.743	1,2	-50,7
Oinordetzak eta dohaintzak	81.829	7.240	45.913	26.946	80.099	0,7	-2,1
Ondarea	181.309	692	2.310	46.642	49.644	0,5	-72,6
ZEHARKAKO ZERGAK	**6.119.330**	**878.854**	**2.665.840**	**1.753.711**	**5.298.405**	**49,1**	**-13,4**
BEZ	4.265.486	596.62	1.761.986	1.169.600	3.528.206	32,7	-17,3
Kudeaketa propioa	3.174.284	466.597	1.377.997	914.706	2.759.300	25,6	-13,1
Doikuntza	1.092.201	130.023	383.994	254.894	768.911	7,1	-29,6
OEZ	185.062	14.078	89.521	48.637	152.236	1,4	-17,7
EJDZ	115.544	14.354	48.892	31.960	95.206	0,9	-17,6
Garraioaren Z.B.	49.197	5.732	20.006	11.411	37.149	0,3	-24,5
Fabrikazioko ZZ.BB.	1.373.667	230.187	679.808	451.254	1.361.249	12,6	-0,9
Hidrokarburoen T.S.Z.	53.068	8.698	25.687	17.051	51.436	0,5	-3,1
Aseguruen Primen Z.	77.141	9.185	39.939	23.797	72.921	0,7	-5,5
TASAK ETA BESTE SARRERAK	**113.689**	**10.468**	**57.968**	**32.478**	**100.914**	**0,9**	**-11,2**
Joko-tasak	63.252	7.399	34.597	16.732	58.728	0,4	-7,2
Errekarguak, berandutzak eta zehap.	50.437	3.069	23.370	15.747	42.186	0,5	-16,4
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	**12.834.199**	**1.748.819**	**5.615.720**	**3.427.538**	**10.792.077**	**100,0**	**-15,9**

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.3.4. TAULA. Gastu fiskalak zerga itunduengatik. euroak, milaka.

	2005	2006	2007				aldak % 2006/07
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	1.763.508	1.869.327	290.744	1.037.905	625.331	1.953.980	4,5
Ondare zerga	124.618	125.843	16.227	87.499	51.616	155.342	23,4
Sozietateen zerga	514.773	525.504	109.118	280.321	197.762	587.201	11,7
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	2.402.899	2.520.674	416.089	1.405.725	874.709	2.696.523	7,0
BEZ*	2.524.063	2.936.215	537.568	1.521.902	922.288	2.981.758	1,6
OEEJDZ	76.427	107.704	44.703	61.516	37.949	144.168	33,9
Garraioaren Z.B.	21.041	19.308	2.972	10.169	5.354	18.495	-4,2
Fabrikazioko Z.B.	159.782	191.220	30.824	92.932	60.487	184.243	-3,6
Hidrokarburoen Salm. Z.	3.939	4.027	260	4.105	512	4.877	21,1
Aseguruen Primen Z.	14.001	14.367	2.702	8.145	5.302	16.149	12,4
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.799.253	3.272.841	619.029	1.698.769	1.031.892	3.349.690	2,3
GUZTIRA	**5.307.870**	**5.793.515**	**1.035.118**	**1.104.494**	**1.906.601**	**6.046.213**	**4,4**

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAN oinarrituta egina.

pioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), %11,4 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %19,6, zenbait zerga bereziri.

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2007rako gastu fiskala[2] (urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea), hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak (salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 6.046,2 milioi eurotara iristen dira, aurreko urtean baino %4,4 gehiago, hau da, zerga itunduen diru-sarreren %43,9. Gastu fiskalen %46,8a (2.841 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

3.2. GASTUAK

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.672,663 milioi euro dena (toki erakundeak kanpo), 2009an %4,4 gehitu da, aurreko urtean baino 3,7 puntu gutxiago alegia. Beraz, magnitude honek EAEko BPGan duen por-

[2] Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga-sarreren murrizpenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbideraketa da. Arruntenak eta erabilienak zerga-oinarriko murrizpenak eta kuotako kenkariak dira.

II.3.5 TAULA. Euskal sektore publikoaren gastuen likidazioa. 2008-09. Euroak, milaka

	2008			2009			aldak % 2008-09		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
GASTUA GUZTIRA	**9.317.300**	**14.287.736**	**15.012.455**	**10.304.507**	**12.860.654**	**15.672.663**	**10,6**	**-10,0**	**4,4**
Langileria-gastuak	1.815.083	332.924	2.148.006	1.930.851	352.580	2.283.431	6,4	5,9	6,3
Funtzionamendu gastuak	3.072.013	414.826	3.486.839	3.383.810	457.208	3.841.018	10,1	10,2	10,2
Finantza gastuak (interesak)	17.660	53.164	70.824	24.389	47.030	71.418	38,1	-11,5	0,8
Transferentzia arruntak	2.887.679	12.287.982	6.730.576	3.261.843	10.729.982	6.588.574	13,0	-12,7	-2,1
Inbertsio errealak	317.646	638.305	955.951	350.733	628.669	979.402	10,4	-1,5	2,5
Kapital transferentziak	925.426	313.523	1.091.453	1.059.523	349.006	1.319.282	14,5	11,3	20,9
FINAN. EZ GASTUAK GUZT.	**9.035.507**	**14.040.724**	**14.483.649**	**10.011.149**	**12.564.475**	**15.083.125**	**10,8**	**-10,5**	**4,1**
Finantza-aktiboen aldak.	104.925	154.298	259.222	232.209	201.032	433.241	121,3	30,3	67,1
Finantza-pasib. aldak. (amort. zorra)	176.869	92.714	269.583	61.150	95.147	156.297	-65,4	2,6	-42,0
FINANTZA-GASTUAK GUZTIRA	**281.794**	**247.012**	**528.805**	**293.359**	**296.179**	**589.538**	4,1	19,9	11,5
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPG	**13,62**	**20,88**	**21,94**	**15,56**	**19,42**	**23,67**			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

tzentajea ia bi puntu gehitu da aurreko urtekoaren aldean, %21,9,tik %23,7ra igoz.

Gastuaren aldakuntza, ordea, negatiboa izan da aldundien artean, %10 murriztu baita (2008an %0,3). Eusko Jaurlaritzan, berriz, %10,6 gehitu da (2008an %8,5). Ondorioz, gastu publikoaren ratioa BPGaren gainean %20,9tik %19,4ra igaro da foru aldundientzat eta %13,6tik %15,6ra Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGak EAEan 2009an izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenak ez dira asko aldatu aurreko urteetatik hona. Batez bestekoa baino hazkunde handiagoak gertatu dira funtzionamendu gastuetan (%10,2), kapital transferentzietan (%20,9), finantza gastuetan (%11,5) eta langileri gastuetan (%6,3). Haien atzetik, batezbestekotik beherako hazkuntzekin, inbertsio errealak (%2,5) eta interesen ondorioz gastuak (%0,8) daude. Ordea, transferentzia arruntak murriztu dira (%-2,1).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari erreparatuz gero, dauzkagun daturik berrienak 2008ko likidazioari buruzkoak dira. Likidazio horrek %8,5eko gehikuntza dauka. Ondoko sail hauetan gehikuntza handiak izan ditu: Lehendakariordetza (%39,3), Industria, Merkataritza eta Turismoa (%14,9), Garraioak eta Herri Lanak (%13,9) eta Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza (%10,9). Gasturik handiena duten bi sailek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza (guztiaren %30,2) eta Osasuna (%37,7), gora egin dute, %7,7 eta %10,7 hurrenez hurren.

II.3.6. TAULA. Eusko jaurlaritzaren gastuaren bilakaera, sailka

	Euroak, milaka				2008 Banak. %	% aldakuntza		
	2005	2006	2007	2008		05/06	06/07	07/08
GUZTIRA	**7.312.911**	**7.770.938**	**8.584.886**	**9.317.300**	**100,0**	**6,3**	**10,5**	**8,5**
Legebiltzarra	23.617	25.786	27.789	30.514	0,4	9,2	7,8	9,8
Jaurlaritzako Lehendakaritza	20.510	23.111	27.159	29.427	0,3	12,7	17,5	8,4
Lehendakariordetza	12.553	13.861	16.912	23.562	0,3	10,4	22,0	39,3
Ogasuna eta Herri Administrazioa	171.829	188.429	185.433	196.448	2,3	9,7	-1,6	5,9
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	410.777	469.077	511.747	567.700	6,6	14,2	9,1	10,9
Herrizaingoa	526.69	555.618	617.932	669.641	7,8	5,5	11,2	8,4
Industria, Merkataritza eta Turismoa	285.864	298.286	346.684	398.206	4,6	4,3	16,2	14,9
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	209.721	244.353	258.280	280.332	3,3	16,5	5,7	8,5
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza	2.021.892	2.140.099	2.403.160	2.589.172	30,2	5,8	12,3	7,7
Osasuna	2.421.574	2.632.903	2.926.682	3.240.668	37,7	8,7	11,2	10,7
Kultura	209.021	232.235	253.223	275.734	3,2	11,1	9,0	8,9
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	114.616	120.197	113.185	105.638	1,2	4,9	-5,8	-6,7
Garraioak eta Herri Lanak	182.424	188.236	274.226	312.373	3,6	3,2	45,7	13,9
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	190.704	173.916	187.613	177.817	2,1	-8,8	7,9	-5,2
Inbertsio Ekon. Sozialen Plan Berezia	67.207	27.828	14.528	1.428	0,0	-58,6	-47,8	-90,2
Lan Harremanen Kontseilua	2.338	2.384	2.470	2.545	0,0	2,0	3,6	3,0
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.624	1.678	1.739	1.792	0,0	3,3	3,6	3,0
Kooperatiben Goren Kontseilua	745	769	944	972	0,0	3,3	22,7	3,0
Euskal Kontu Auzitegia	6.144	6.353	6.623	7.045	0,1	3,4	4,2	6,4
Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.161	1.666	1.780	1.869	0,0	43,5	6,8	5,0
Zor Publikoa	281.918	217.288	239.639	191.146	2,2	-22,9	10,3	-20,2
Baliabide Instituzionalak	149.754	206.867	167.060	208.412	2,4	38,1	-19,2	24,8
Zenbait sailen gastuak	229	-	78	4.861	0,1	-100,0	-	6.132,1
% BPGmp	**12,8**	**12,6**	**13,0**	**13,5**	**—**	**-1,4**	**3,5**	**3,4**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena.

Gainerako sailetan gastua gutxiago gehitu da. Batzuetan jaitsi ere egin da (adibidez, Lurralde Antolaketan, -%6,7). Gainera, kontuan izan behar da 2004-2007ko Ekonomi eta Gizarte Inbertsioen Plan Berezian[3] izandako beherakada garrantzitsua (-%90,2), beraren indarraldia amaitu baita. Azkenik, Eusko Jaur-

[3] Plan hau Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustatzen du, gizarte, kultur, teknologi, energi eta ingurumen azpiegituretan inbertsioak egiteko zenbait proiektu finantzatzeko asmoarekin, Naturcop sozietatea pribatizatzeko prozesuaren amaieratik sortutako diruaren bidez. Pribatizazio horren ondorioz Eusko Jaurlaritzak 232,5 milioi euro eskuratu zituen.

II.3.3. GRAFIKOA. EAEko gastu publikoaren bilakaera BPGaren aldean



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egina.

laritza %9,8 gehitu da. Lan Harremanen Kontseilua eta Ekonomi eta Gizarte Kontseilua, berriz, bataz bestekoa baino gutxiago hazi dira, Euskal Kontu Auzitegia bezala.

3.3. AURREKONTUKO SALDOA

2009an sektore publikoaren diru-sarrera arruntak %10,9 jaisteak eta gastuak %2,8 igotzeak aurrezpen gordinean jaitsiera handia dakar: negatiboa da, gure erkidegoko BPGaren %0,6koa (behin-behineko datuak). 2008an, ordea, positiboa izan zen, %2,1ekoa.

Gainera, 2.600 milioi euro baino gehiagoko defizit publikoa dago (BPGaren %3,8), finantzetakoak ez diren gastuek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko sa-

II.3.4. GRAFIKOA. EAEko aurrezpen eta superabit/defizit publikoen bilakaera. BPGaren ehunekotan



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina.

II.3.7. TAULA. Euskal sektore publikoaren aurrezpena eta superabita / defizita 2008-09. Euroak, milaka.

	2008			2009			aldak % 2008-09		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
SARRERAK GUZTIRA	**8.679.986**	**14.342.271**	**14.429.676**	**8.930.380**	**12.854.004**	**14.291.886**	**2,9**	**-10,4**	**-1,0**
Eragiketa arruntak	8.347.263	13.960.567	13.862.745	7.405.160	12.355.635	12.357.545	-11,3	-11,5	-10,9
Kapital-eragiketak	84.683	165.311	102.499	93.807	113.088	117.648	10,8	-31,6	14,8
Finantza-eragiketak	248.040	216.393	464.432	1.431.413	385.281	1.816.694	477,1	78,0	291,2
GASTUAK GUZTIRA	**9.317.300**	**14.287.736**	**15.012.455**	**10.304.507**	**12.860.654**	**15.672.663**	**10,6**	**-10,0**	**4,4**
Eragiketa arruntak	7.792.435	13.088.896	12.436.245	8.600.892	11.586.800	12.784.442	10,4	-11,5	2,8
Kapital-eragiketak	1.243.072	951.828	2.047.404	1.410.256	977.675	2.298.684	13,4	2,7	12,3
Finantza-eragiketak	281.794	247.012	528.805	293.359	296.179	589.538	4,1	19,9	11,5
AURREZPEN GORDINA	554.828	871.671	1.426.500	-1.195.732	768.835	-426.897	-315,5	-11,8	-129,9
FINANTZ. BEH. KAP.	-603.561	85.154	-518.405	-2.512.181	-95.752	-2.607.933	316,2	-212,4	403,1
% aurrezpena / BPG	**0,8**	**1,3**	**2,1**	**-1,7**	**1,1**	**-0,6**			
% Superabita / BPG	**-0,9**	**0,1**	**-0,8**	**-3,7**	**-0,1**	**-3,8**			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

rrerak gainditzen dituztelako; aurreko ekitaldian, ordea, 2003. urteaz geroztik lehen aldiz, 500 milioi euroko defizita egon zen (BPGaren %0,8).

3.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2009ko Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikak erakusten du EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia nabarmen gehitu dela aurten. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 4.338 milioi euroko zor-bolumena zeukaten, 2008an baino %58,9 gehiago (urte hartan %5,6 gehitu zen). Gehikuntza hau batez ere Eusko Jaurlaritzan gertatu da, zor bizia %81,5 gehitu zuena urtearen amaieran. Foru aldundietan neurri txikiagoan gertatu da (%24,1). Horrela, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %69,3).

Zorpetze gordina nabarmen gehitu da aurreko urtearen aldean, %326,8. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2006 eta 2007ko ekitaldiak zeramatzan zorpetu gabe, baina berriro egin du 2008an, 200 milioi eurotan, eta 2009an 1.411 milioi eurotan. 61,15 milioi amortizatu dituenez, ekitaldiko zorpetze garbia 1.350 milioi eurokoa da. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zor bizia urtearen amaieran, 3.006,75 milioi eurokoa dena, BPGaren %4,5ekoa da (2008an %2,4koa).

Foru aldundiek, bestalde, 354 milioi euroko zorra hartu dute, 2008an baino %65,8 gehiago, eta 95,1 amortizatu dituzte. Beraz, ekitaldiko zorpetze garbia 258,8 milioi eurokoa da. Ondorioz, ekitaldiaren amaieran haien zor bizia 1.332 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino %24,1 gehiago.

Foru aldundi bakoitzari buruzko informazioa dakarren informazio bakarra 2007ari buruzkoa da, EUSTATen

II.3.8. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien zorpetzearen bilakaera

	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	% aldakuntza	(2)	(1)-(2)=(3)	% aldakuntza	Guztira	% aldakuntza
EUSKO JAURLARITZA							
2004	275	-29,5	115.935	159.065	-39,1	1.964.186	8,3
2005	300	9,1	230.719	69.281	-56,4	2.033.467	3,5
2006	0	-	183.182	-183.182	-364,4	1.850.285	-9,0
2007	0	-	216.516	-216.516	18,2	1.633.769	-11,7
2008	200	-	176.869	23.131	-110,7	1.656.900	1,4
2009	**1.411.000**	**605,5**	**61.150**	**1.349.850**	**5.735,7**	**3.006.750**	**81,5**
FORU ALDUNDIAK							
2004	146.001	139,3	162.471	-16.470	8.338,60	958.661	-1,7
2005	126	-13,7	67.564	58.436	-454,8	1.017.097	6,1
2006	127.215	1,0	181.172	-53.957	-208,3	963.140	-5,3
2007	59	-53,6	69.727	-10.727	-80,1	952.413	-1,1
2008	213.500	261,9	92.714	120.786	-1.226,0	1.073.199	12,7
2009	**354**	**65,8**	**95.147**	**258.853**	**114,3**	**1.332.052**	**24,1**

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoaren eta EUSTATen datuekin egina.

"*Sektore publikoaren aurrekontuko estatistikan*" oinarrituta.

Urte hartan, jaulkitako zorraren %100 (59 milioi euro) Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio (Arabakoak eta Gipuzkoakoak ez zuten zorrik jaulki). Gainera, foru aldundien zorraren amortizazioa 2006koa baino %61,5 txikiagoa da: 69,7 milioi euro guztira. Horren %85,4 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, %6,6 Gipuzkoakoari eta gainerakoa (%8) Arabakoari. Aldundien zorraren saldo bizia %1,1 jaitsi da horrela aurreko urtekoaren aldean. BPGarekiko erlazioan ere hala egin du: 2006an %1,56 izan zen eta 2007an %1,44. EAEko udalei dagokienez, estatistika honek erakusten du 2007an 58,1 milioi euroko zorra jaulki zutela eta 82,2 amortizatu; horrekin, ekitaldiaren amaieran, ordaintzeke zegoen zorra 17 milioi murriztu zen, 523,6 milioi euroraino.

II.3.5. GRAFIKOA. EAEko administrazioen finantza-zorra (milaka eurotan)



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika.

II.3.6. GRAFIKOA. EAEko Administrazio Publikoaren zorpetze-ratioen bilakaera eta zor publiko osoak BPGan daukan pisuaren bilakaera**



Iturria: EUSTATen datuekin egina. Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika.

Guztira, EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak gehi aldundiek gehi udalek) 2007an 3.110 milioi euroko zorra zeukaten. Diru-zenbateko hori aurtengo BPG arruntaren %4,7 da (2006an, %5,4). Portzentaje hori 90eko hamarkadan egoten zirenetatik oso urrun dago; orduan BPGaren %12 gainditzera iritsi zen. Zorraren %52,5 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %26,5 Bizkaiko Foru Aldundiari, %2,2 Arabakoari eta %1,9 Gipuzkoakoari. Gainerakoa, 523,6 milioi euro, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren %16,8 da (2006an %16,1).

Bestalde, zor honek %2,8ko zorpetze-ratioa[4] dauka, aurreko urteko %3,7aren aurrean. Ratiorik txikiena foru aldundiei dagokie: 2007an, erakunde guztiei buruzko informazio analogoa daukagun azken urtean, %0,7. 2008an %1 izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikan oinarrituta egin den gutxi gorabeherako kalkuluaren arabera. Kalkulu horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2008an %2,3ko ratioa luke (2007an, %2,7, behin betiko datuen arabera). Bestalde, EAEko udalek 2007an, informazio hau jaso zen azken urtean, %3,5eko zorpetze ratioa zeukaten, aurreko urtearen antzean.

3.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak or-

[4] Zorpetze-ratioa zorraren finantza-kargaren (amortizazioa gehi interesak) eta ekitaldiko diru-sarrera arrunten arteko kozientea da. Ratio honen balioak, gure erkidegoan, Estatuko 8/80 Lege Organikoak (autonomi erkidegoak finantzatzeari buruzkoa) ezartzen duen %25eko mugatik oso urrun daude.

II.3.7. GRAFIKOA. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenen bilakaera. Milaka eurotan



Iturria: Kupo eta finantza ekarpenen zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

daintzen laguntzen du, kupoa deritzonaren bidez. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga bilketa lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen dizkiete, arrazoi ezberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiek eta udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin foru aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreren %90 baino gehiago ekarpen hauetatik datoz). 2009an, ekarpenak 7.077,6 milioi euro dira, 2008an baino %10,4 gutxiago, aurreko denboraldian hasitako beherakadarekin jarraituz (%-8,2).

II.3.9. TAULA. Foru Aldundiek EAEko erakunde komunei egiten dizkieten ekarpenen bilakaera. 2005-2009 (euroak, milaka)

KONTZEPTUA	2005	2006	2007	2008	2009	% ald. 07-08	% ald. 08-09
EK. OROKORRA	7.085.585	7.865.095	8.460.069	7.754.813	6.847.227	-8,3	-11,7
EK. BEREZIAK	2.760	17.968	140.973	141.316	230.403	0,2	63,0
GUZTIRA	**7.088.345**	**7.883.063**	**8.601.042**	**7.896.129**	**7.077.630**	**-8,2**	**-10,4**
ARABAREN EK.	1.185.171	1.287.304	1.451.855				
BIZKAIAREN EK.	3.568.273	4.001.443	4.314.282				
GIPUZKOAREN EK.	2.334.901	2.594.316	2.834.903				
% ARABA	16,72	16,33	16,88				
% BIZKAIA	50,34	50,76	50,16				
% GIPUZKOA	32,94	32,91	32,96				

Iturria: Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egina. Ekonomia eta Ogasun Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.3.10. TAULA. Eusko Jaurlaritzak likidatutako diru-sarrerak, jatorriaren arabera. 2005-2007. (Euroak, milaka)

	2005	2006	2007	Banak. % 2007	% ald. 05-06	% ald. 06-07
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	**7.088.345**	**7.883.063**	**8.601.042**	**95,6**	**11,2**	**9,1**
. Ekarpen orokorrak	7.085.585	7.865.095	8.460.069	94,0	11	7,6
. Ekarpen bereziak	2.760	17.968	140.973	1,6	551	684,6
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	**196.546**	**142.032**	**134.277**	**1,5**	**-27,7**	**-5,5**
. EAEko erakundeen transferentziak	7.205	9.767	12.796	0,1	35,6	31,0
. Estatuaren transferentziak	43.615	7.838	25.526	0,3	-82	225,7
. Europar Batasunaren fondoak	**145.726**	**124.427**	**95.955**	**1,1**	**-14,6**	**-22,9**
- EGIF	21.485	9.404	17.838	0,2	-56,2	89,7
- EGEF	38.798	28.079	301	0,0	-27,6	-98,9
- NBBEF- Orientazioa	1.391	460	1.644	0,0	-66,9	257,4
- NBBEF- Bermea	61.224	75.903	-	-	24	-
- NBEUF*	-	-	48.949	0,5	-	-
- ABFT	14.223	6.240	19.237	0,2	-56,1	208,3
- Kohesio fondoa	8.283	2.157	7.443	0,1	-74	245,1
- Beste fondo batzuk	322	2.184	543	0,0	578,3	-75,1
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	**480.787**	**222.553**	**263.250**	**2,9**	**-53,7**	**18,3**
- Zor Publikoa	300.000	0	0	0,0	-	-
- Zeharkako zergak	6.986	6.422	6.263	0,1	-8,1	-2,5
- Ondareko sarrerak	36.569	57.342	87.012	1,0	56,8	51,7
- Inbertsio errealen besterentzeak	1.897	1.116	528	0,0	-41,2	-52,7
- Beste transferentzia batzuk	9.207	14.247	7.356	0,1	54,7	-48,4
- Finantza-aktiboen aldakuntza	9.371	14.479	10.530	0,1	54,5	-27,3
- Tasak	116.756	135.370	151.561	1,7	15,9	12,0
SARRERAK GUZTIRA	**7.765.678**	**8.247.648**	**8.998.569**	**100,0**	**6,2**	**9,1**

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituta egina.
(*)2007ko urtarriletik aurrera NBBEF-Bermea desagertu zen, eta LGENF (ekitaldi honetan partidarik gabe) eta NBEUF sortu ziren.

2007-2011 denboraldiko nobedadeen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Besteak beste ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala %70,44tik %70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; foru aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta

Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme-mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa %0,75 izatetik %1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu-konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daitezke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2002. urteaz geroztik, EB-tik datozen fondoen bolumen osoak beherakada izugarria izan du, 2005. urtean izan ezik. 2007an (informazioa dugun azken urtea) %22,9 murriztu ziren, guztira 96 milioi euro izanik.

Partida nagusiak hauei dagozkie: Europako Gizarte Fondoa (17,8 milioi euro, EB-aren fondoen %18,6), lanmerkatuan jarduteko sortu zen finantza-tresna; ABFT (19,2 milioi, guztiaren %20), arrantza-politikaren tresna, eta lehenengo postuan, NBEUF berria (48,9 milioi euro, fondoen %51), Nekazaritza Bermatzeko Europako Fondo berria, 2007ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean dagoena. 2007rako laguntzen aurreikuspena 60,9 milioi eurokoa zen. 48,9 milioi soilik kontabilizatu dira.

Azkenik, 2007an LGENF, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoa, sortu zen. Fondo horrek eta NBEUFek NBBEF-Bermea ordezkatu zuten. Nekazaritzari zuzendutako europar laguntzak kudeatzeko jaio ziren. LGENFen aurrekontua 2007. urterako 11,2 milioi eurokoa zen, baina ez zen diru-sarrerarik jaso kontzeptu horrengatik.

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2009. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 744,3 milioi eurokoa da. 2008. urtearen aldean %53,5 jaitsi da.

II.3.8. GRAFIKOA. Estatuarentzako kupoa: kupo likidoen, konpentsazioen eta ordaindu beharreko zenbatekoen bilakaera. Milaka eurotan



Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoaren Sailaren datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

II.3.9. GRAFIKOA. BEZaren doikuntzaren bilakaera lurraldez lurralde. Milaka eurotan



Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa.

Azkenik, estatuari egiten zaizkion ordainketa hauek ez ezik, zenbait diru-zenbateko jasotzen dira. Jasotzen diren diru-zenbateko horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik egiten dena. Doikuntza hori estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga-administrazioen artean zerga bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga-administrazioek zeinek bere lurraldean jarduten baitute, muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2007. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 1.176 milioi eurotara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %2,7 jaitsi zen. Partida horren barruan, aduanetan bildutakoagatiko doikuntza guztiaren %47,5 da. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

3.6. EAE-ko ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOA

a) Eusko Jaurlaritza

EAEko administrazio orokorrak partaidetutako enpresa-sektore publikoari buruz dauden azken datuen

II.3.11. TAULA. Eusko Jaurlaritzak partaidetutako erakunde eta sozietate nagusia, partaidetza bitartekoaren eta portzentajearen arabera. 2008.

	ZUZENEAN	ZEHARKA
%100	ETS-RFV S.A.* EITB S.A. EVE Euskadiko Kirol Portua S.A. ET-FV	EITB S.A.
%50 ETA %100 ARTEAN	SPRI S.A. VISESA S.A.**	SPRILUR S.A. Parque Tecnológico S.A. Parque Tecnológico de San Sebastián S.A. Parque Tecnológico de Álava S.A.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

* Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca, S.A.

** Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.

II.3.12. TAULA. EAEko enpresa-sektore publikoan lanean ari diren pertsonak. 2008

SOZIETATEA EDO TALDEA	2008	%	2007	%
EITB TALDEA	944	29	936	31
EUSKO TRENBIDEAK TALDEA	805	25	799	26
ETS	260	8	257	8
SPRI TALDEA	189	6	191	6
EJIE	179	6	176	6
NEIKER	179	6	169	6
ITSASMENDIKOI	149	5	141	5
URAREN EUSKAL AGENTZIA	114	4	0	0
EUSKADIKO ORKESTRA	104	3	100	3
GAINERAKOAK	321	10	293	10
GUZTIRA	**3.244**	**100**	**3.062**	**100**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

arabera,[5] 2008. urteari buruzkoak, sektore honen emaitza orokorra positiboa da. Azken urte honetan 107,1 milioi euroko etekina ematen dute, 2007. urtean baino 54,6 gehiago.

Eusko Jaurlaritzak partaidetuta daukan enpresa-sektore publiko honen egitura iraunkorra da bere ezaugarri nagusiei dagokienez. SPRI, EVE eta EITB taldeak eta Eusko Trenbideak eta Visesa sozietateak dira garrantzitsuenak, dauzkaten enplegu-bolumenagatik eta partaidetzagatik. Laukian Eusko Jaurlaritzak zuzenean edo zeharka, guztiz edo zati batez, partaidetuta dauzkan erakunde eta sozietate nagusiak ageri dira. 12 erakunde eta sozietate horien kapital soziala EAEko enpresa-sektore publikoaren kapital sozial osoaren %85 da. Era berean, haien artean hauek nabarmendu behar ditugu: ETS, kapitalaren %18; SPRI, %17; EITB, %13, eta Sprilur, %8.

EAEko enpresa-sektore publikoaren sailkapen ekonomikoak talde hauek bereizten ditu:

- EVE taldea: Energia produkzioarekin, banaketarekin, ikerkuntzarekin eta aurrezpenarekin zerikusia duten sozietateak.
- EITB taldea: EAEk komunikabideen alorrean dauzkan eskumenak garatzeko sortutako sozietateak.
- SPRI taldea: Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.ren mendeko enpresak. Sek-

[5] Kontuan izan behar dugu Osakidetza 1998. urtetik aurrera zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dela. Beraz enpresa publikoetatik handiena da, plantilla eta aurrekontuak kontuan izanik. Halere, ez da EAEko Memoria Sozioekonomikoaren atal honetan sartu, baizik eta "EAEko osasunari eta osasun sistemari" buruzko atalean.

II.3.13. TAULA. EAEko enpresa-sektore publikoko enpresen dimentsioa, osakidetza barne. 2008

2008ko PLANTILLA	ENPRESA KOP.	LANGILE KOP.	AKTIBOAK GUZTIRA (MILIOI)	% AKTIBOAK GUZTIRA
< 50 LANGILE	45	360	1.112,19	27
50 - 250 LANGILE	11	1.286	1.121,25	27
> 250 LANGILE	4	33.831	1.874,00	46
GUZTIRA	**60**	**35.477**	**4.107,44**	**100**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

tore ezberdinetako enpresek eratzen dute. Industrialdeetako sustatzaileak dira nagusi (*Industrialdeak*), Sprilur, S.A. mendeko sozietatean integratua. Sprilur, bestalde, enpresa-talde handi baten barruan dago. Beste sozietate batzuk ere daude SPRI taldean, euskal enpresei zuzendutako zerbitzuak ematen dituztenak batez ere. Garrantzi berezia daukate SPRI S.A.k sustatutako teknologi parkeek eta enpresa eta berrikuntza zentroek, teknologia aurreratuko enpresetan ekimen eta inbertsio industriala sustatzen eta bultzatzen dituztenak.

– Eusko Trenbideak taldea: ET-FV S.A. sozietateak eta Euskotren Participaciones S.A. bere mendeko enpresak osatzen dute.
– Gainerako erakunde eta sozietateak: EAEren partaidetza zuzenekoa eta gehiengoa duten gainerakoak.

Enpresarik gehienetan, sektore publikoaren partaidetza zeharka egiten da. 2008an, Eusko Jaurlaritzak 60 erakunde eta sozietate publikotan zeukan partaidetza, haietako 40tan zeharka.

Erakunde hauetako 27tan %100eko partaidetza zegoen (17an zuzenean eta 10etan zeharka). Era berean, 33tan %100 baino gutxiagoko baina %50 baino gehiagoko partaidetza zegoen (3tan zuzeneko partaidetza zeukan eta 30etan zeharkakoa). Aurreko urteari dagokionez, bi erakunde berri daude:

II.3.14. TAULA. EAEko enpresa-sektore publikoaren negozioen kopuruaren zenbateko garbia. Euroak, milaka

JARDUERA SEKTOREA	2007	2008	07-08 aldak
Enpresa sustapena	94.655	78.274	-17,3
Etxebizitzak eta lokal komertzialak	131.744	104.419	-20,7
Energia	83.824	119.330	42,4
Zerbitzu informatikoak	65.287	76.150	16,6
Publizitatea irratian eta telebistan	34.490	35.398	2,6
Trenbidezko eta errepidezko garraioa	44.792	39.466	-11,9
Bestelakoak	19.643	13.329	-32,1
GUZTIRA	**474.436**	**485.385**	**2,3**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

– *Uraren Euskal Agentzia*/Agencia Vasca del Agua. Jarduerari hasiera ematerakoan, Eusko Jaurlaritzak zuzenean %100eko partaidetza dauka. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari atxikita dago.

– *Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa*/Sociedad Pública de Gestión de Viviendas de Alquiler. 2008an sortu zen. Eusko Jaurlaritzak zuzenean %100eko partaidetza dauka. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikita dago.

Bestalde, partaidetzaren gehiengoa Eusko Jaurlaritzarena den sozietateetan plantillak egonkorrak dira, 3.000 lanpostu ingururekin. Urtez urte aldakuntza txikiak gertatzen dira (2008an %5,9 gehitu ziren, batik bat Uraren Euskal Agentzia eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa funtzionatzen hasi zirelako). Enpresetako plantillak eta beren aktibo-bolumenak erkatuz gero, enpresa-sektore publikoa eratzen duten enpresen tamaina ikus dezakegu: enpresen %75ak 50 langile baino gutxiago dauzkate eta aktibo guztien %27, guztira 1.112 milioi euro direnak.

Erantsitako magnitude nagusiei dagokienez, 107,1 milioi euroko etekin garbia aipatu dugu dagoeneko, zergetako 27 milioi deskartatu ondoren. Etekin horiek %104 gehitu dira 2007ko ekitaldiaz geroztik (ekitaldi hartan 52,5 milioi euro ziren). Negozioaren zifrari dagokionez, 2008an 485 milioi euro ziren, aurreko ekitaldian baino %2,3 gehiago, batez ere energia sektorearen gehikuntza handiak (%42,4) beste batzuen beherakada, adibidez etxebizitza eta lokal komertzialena (%-20,7) eta enpresen sustapenarena (%-17,3), konpentsatu zituelako.

b) Foru aldundiak

Foru aldundien aldetik, 2008an 25 foru merkataritza-sozietate zeuden (2006ko eta 2007ko berberak): 8 Araban (Araba Garapen Agentzia, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, Kalkulu Zentroa, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Araba Uraren Agentzia eta Arabako Bideak), 3 Gipuzkoan (IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainerako 14ak Bizkaian (Aparcabisa, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizkailur, BBA Berrikuntza Agentzia, Euskalduna Jauregia, Garbiker, Lantik, Kirolgintzan, Seed Capital de Bizkaia, Rekalde Erakusketa Aretoa eta Interbiak).

Enpresa publiko hauen emaitzei dagokienez, azken urteetan gertatzen ari denez, emaitza orokorra Bizkaian eta Gipuzkoan A8 autopista kudeatzeko sortu diren bi sozietateek (Interbiak eta Bidegi) baldintzatzen dute. Behin-behineko datuen arabera, 27,2 milioi euroko etekina egon da, aurreko ekitaldian baino %57,8 gutxiago; halere, bi sozietate horiek kontuan hartzen ez baditugu, gehieneko partaidetza foru aldundiena duten merkataritza-sozietateen emaitza 2008rako 32,1 milioiko galera litzateke (2007an -31,2).

II.3.15. TAULA. Foru Aldundiek partaidetutako sozietate publikoen emaitzak. (Euroak, milaka)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA	aldak %
2003	-4.553	22.461	1	17.909	-372,6
2004	-3.283	47.192	8.530	52.439	192,8
2005	8.565	46.907	15.145	70.617	34,7
2006	1.430	51.244	17.057	69.371	-1,3
2007	-10.409	74.935	8	64.534	-7,5
2008	-14.517	49.797	-8.068	27.212	-57,8

Iturria: FORU ALDUNDIEN datuekin egina.

4

Gizarte-Ekonomia

Gizarte Ekonomiaren barruan erakunde-mota desberdinak sartzen dira hainbat konfigurazio eta helbururekin. Txosten honen aurreko edizioetan atal honetan egindako tratamendua merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten horien errealitatean oinarritzen zen, beste erakunde-motekin, hau da, zorrozki gizarte-jarduerak garatzen dituztenekin sartu gabe. Joan den urtean, gainera, Europan Gizarte Ekonomiaren panorama orokorra aztertu zen zentzu zabalean eta merkatuan helburua ez duten jarduerarekin erakundeak sartu ziren, gure herrialdean geroz eta garrantzi handiagoa duen sektorearen ikuspegi osagarria izateko, bai ekonomiaren ikuspuntutik, bai giza ikuspuntutik. Ildo orokorrak Txosten Sozioekonomikoaren edizio berri honetan laburtzen dira.

Gizarte Ekonomiaren barruan erakunde-mota desberdinak sartzen dira hainbat konfigurazio eta helbururekin. Oro har, guztiok onartzen dute "*formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa dela, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitzeko askatasunarekin; merkatuaren bidez bazkideen beharrak asetzeko sortutakoak dira ondasunak eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzatuz. Etekinak edo soberakinak bazkideen artean banatzen direnean eta erabakiak hartzen direnean, ez dute zuzenean zerikusirik kapitalarekin edo bazkide bakoitzaren ekarpenekin; izan ere, bakoitzari boto bana dagokio. Halaber, Gizarte Ekonomiaren barruan sartzen dira formalki antolatutako erakunde pribatuak, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitzeko askatasunarekin, merkaturako ez diren zerbitzuak sortzen badituzte familien alde; soberakinak badaude, sortu, kontrolatu edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek ezin dituzte bereganatu*"[1].

Definizio horrek Kontabilitate Nazionalaren berezko terminologia erabiltzen du eta bi zati handi egituratzen ditu: a) merkatu edo enpresarena eta b) merkaturako ekoizten ez dutenena, *"hirugarren sektorea"* izenez ezagutzen dena. Azkeneko sailkapena erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisia gauzatzeko, egun indarrean dauden kontabilitate-sistema nazionalekin bat.

II.4.1. GRAFIKOA. Gizarte Ekonomiako langileak Estatuan: Motaren araberako banaketa. 08.12.31



- Bazkide langileak /lan-bazkideak eta soldatapekoak kooperatibetan
- Kooperatibetan elkartutako nekazariak eta abeltzainak
- Autonomoak
- Langileak minusbaliotasunekin
- Soldatapekoak beste irudi juridikoetan
- Bazkide langile soldatapekoak lan-sozietateetan

Iturria: CEPES. Gizarte Ekonomiako Urtekaria 2008-2009

Ildo horri jarraiki, merkatuko edo enpresako Gizarte Ekonomia, oinarrian, kooperatibek eta lan-sozietateek nahiz mutuek osatuko lukete[2]. Bestalde, merkatura bideratua ez dagoen Gizarte Ekonomia, nagusiki, elkarte eta fundazioek osatuko lukete, beste forma juridikoko

[1] CIRIEC (2005): "La Economía Social en la Unión Europea". Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, EEGAB/COMM/05/2005.

[2] Mutua honakoa litzateke: "*pertsonez osatutako elkarte autonomoa…, pertsonak borondatez elkartu direnean, nagusiki, behar komunak asetzeko aseguruen (bizia eta ez-bizia), osasun-aurreikuspenaren eta bankuen sektoreetan. Beren jarduerek lehia dute. Enpresaren gobernuan parte hartzen duten kideen arteko elkartasun-printzipioaren babesean administratzen da eta honako printzipioetan oinarritzen da: ez dago akziorik, atxikitzeko askatasuna dago, helburuek ez dute esklusiboki irabazi-asmoa, elkartasuna, demokrazia eta kudeaketa-autonomia daude".* CIRIEC (2005).

II.4.2. GRAFIKOA. Gizarte-ekonomiaren garrantziaren eboluzioa EAEn



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak

erakundeak aurkitu ahal izan arren. Kontabilitate nazionalak zehaztutako irizpideen arabera, merkaturako ekoizleak ez diren Gizarte Ekonomiako erakunde guztiak sartuko lirateke, hau da, ekoizpena, nagusiki, doan edo esangarriak ez diren prezioetan eskaintzen dutenak.

Europan merkatura bideratutakoak eta merkatura bideratuak ez daudenak batera hartuta, sektorearen presentzia eta ezaugarriak aztertuz gero, Europako Gizarte Ekonomia giza eta ekonomia-errealitate oso esangarria dela ondoriozta daiteke: 11 milioi enplegu baino gehiago ordainduak, gutxi gorabehera Elkarteko populazio okupatuaren %6ren baliokidea (2005. urteko datuak) Datu elkartu horiek –gutxi gorabeherakoak, EE osatzen duten herrialde bakoitzean forma juridikoen eta gizarte- eta kultura-zehaztasunen aniztasuna kontuan hartuta- azpimarratzen dute gizarteak eta erakundeek errealitate hori ezin dezaketela bazter.

Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioak (CEPES) 2008ko abenduaren 31n Espainiako Gizarte Ekonomia guztira 47.993 erakundek osatzen duela eta 115.096 milioi euro fakturatzen dituela (%+13,3 aurreko ekitaldiarekin alderatuz) kalkulatu du. Ekonomiaren ikuspegitik Gizarte Ekonomiarekin zerikusia duten pertsonak (langileak) 2,3 milioi baino gehiago lirateke; bien bitartean, bazkide guztiak (langileak ez diren bazkideak eta mutualistak barne) 10,7 milioi pertsona dira.

EAEn Gizarte Ekonomiaren merkatuko zatiak edo produktiboak (sozietate kooperatiboek eta lan-sozietateek) suposatzen duen dimentsio erlatiboa kokatzeko, datu eskuragarriei jarraiki, balio erantsiaren %5,3 eta enpleguaren %6,6 da, Gizarte Ekonomiaren Estatistikari buruzko azken datuen arabera. Horiek 2005-2006 biurtekoari dagozkio[3].

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak egina, Estatistika horren 2007rako datuen aurrerapenaren arabera, EAEko Gizarte Ekonomiak guztira EAEn 3.167 establezimendu ditu eta 64.719 pertsonak dihardu lanean (establezimenduko batez beste 20,4 enplegu daude). Erreferentziazko urtean gutxi gorabehera 10.315 milioi euro fakturatu zituzten (2006. urteko datuekin alderatuz %+10,4).

Bestalde, kapituluan zehatzago ikusiko den bezala, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako Erregistroek 2009ko abenduaren 31n guztira 3.825 kooperatiba eta lan-sozietate dituzte. 2008. urteko datuekin alderatuz, Gizarte Ekonomiako 8 enpresa gehiago daude eta azken urteetako joera mantentzen da, lan-sozietate anonimoak murrizteari buruz (2009. urtean 8 gutxiago dira, aurreko urteko -15en aldean). Sozietate kooperatiboen kopurua, berriz, 2008. urteko datuekin erkatuz, hazi egin da; izan ere, 25 gehiago dira. Bien bitartean, lan-sozietate mugatuei dagokienez, 9 sozietate gutxiago dira.

[3] Gizarte Ekonomiaren Kontuei buruz informazio gehiago jakin nahi izanez gero (bi urtez behin argitaratzen dira), irakurleari 2008ko EAEren Txosten Ekonomikoak gaiari buruz duen kapitulura bidaltzen zaio.

4.1. GIZARTE-EKONOMIA EAE-n: LAN ETA INMIGRAZIO MINISTERIOAREN DATUAK

Gizarte Segurantzak 2009. urtearen amaieran guztira 1.478 sozietate ditu EAEn kooperatibaren izaera juridikoarekin alta emanak, hau da, aurreko urtean baino 33 gutxiago eta 53.678 langile aritu dira lanean (2008. urtean baino %3,3 gutxiago), beraz, kooperatibako batez beste 36,3 langile daude, hain zuzen ere, aurreko urteko kopuru bera eta Estatuko handia, batez bestekoaren (12,8) oso gainetik.

Iturri berdinak kotizatzen 864 lan-sozietate daudela adierazten du, hau da, 2008. urtean baino 67 gutxiago eta 11.184 12.435 pertsona lanean diharduela -2008. urtean baino %10,1 gutxiago-. Sozietateko batez beste langileen kopurua 12,9 da, berriz ere Estatuko datuaren (batez beste 5,6 langile) oso gainetik.

Guztira, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren kalkuluen arabera, Gizarte Ekonomiako langileen garrantzia BAIren datuetatik abiatuta, gure Erkidegoko enpleguen mi-

II.4.1. TAULA. Enplegu-adierazleak gizarte-ekonomian. 09.12.31ko datuak

	BIZT. OKUPATUA GIZARTE-EKONOMIAN	GIZARTE EKON /BAI (MILA)	TAMAINA ERTAINA	
			KOOPERATIBAK	LS
ANDALUZIA	74.870	25,9	11,9	4,9
ARAGOI	8.872	15,6	8,4	3,9
ASTURIAS	6.449	15,6	12,4	6,0
BALEARRAK	3.614	7,8	13,4	4,9
KANARIAK	8.101	10,1	17,4	4,5
KANTABRIA	2.405	9,9	15,5	8,8
GAZTELA-MANTXA	18.717	23,7	8,2	4,6
GAZTELA ETA LEON	14.097	14,0	7,7	4,3
KATALUNIA	47.320	15,1	7,9	5,5
VALENTZIAKO K.	57.121	28,9	17,9	5,3
EXTREMADURA	7.986	21,0	8,7	5,5
GALIZIA	12.037	10,6	9,2	4,7
MADRIL	25.064	8,6	14,2	5,8
MURTZIA	23.040	41,3	11,8	5,9
NAFARROA	9.454	34,6	19,9	7,4
EAE	**64.862**	**70,1**	**36,3**	**12,9**
ERRIOXA	1.724	12,6	11,0	5,4
CEUTA ETA MELILLA	521	11,3	10,0	5,6
GUZTIRA	**386.254**	**20,7**	**12,8**	**5,6**

Iturria: LINM. Gizarte Ekonomiako Datu Basea.

II.4.3. GRAFIKOA. Batez besteko langileen eboluzioa EAEn eta Estatuan sozietate kooperatiboetan eta lan-sozietateetan. 2006-09



Iturria: Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuekin egina.

lako 70,1 da. Garrantziak Estatuko batez bestekoa (milako 20,7) hirukoizten du eta autonomia erkidego guztietatik handiena da (datua abenduaren 31n). Gainera, EAEko Gizarte Ekonomiak enplegu guztiaren zati nabarmena hartzen du, Estatuko Gizarte Ekonomiako enpleguaren %16,8 baita (2008. urtean %16,4).

Era berean, Lan eta Inmigrazio Ministerioko Gizarte Ekonomiaren Datu Baseari esker, gure Erkidegoan sektore horretako langileen ezaugarriak ezagut daitezke, baita Estatukoekin alderatu ere: EAEn %47,9 emakumezko dago (Estatuko %44,1eko batez bestekoaren aldean); bien bitartean, %2,2 (Estatuko batez bestekoa %9,4 da) langile atzerritarra da. Halaber, lanaldi partzialean lanean ari den langileen garrantzia %15,5 da (%17,6 Estatuan) eta langile gazteenen (25 urtetik beherakoena) partaidetza Estatukoa baino askoz txikiagoa da: langileen %3,4, %7,6ren aldean. Langile adinduenek (55 urte edo hortik gorakoek), berriz, EAEn (%13,7) Estatuan (%11,2) baino ordezkaritza handiagoa dute.

Bestetik, aldi baterako kontratazioa askoz txikiagoa da gure Erkidegoan: langileen %17,7ri eragiten dio, Es-

II.4.4. GRAFIKOA. Gizarte Ekonomia EAEn: enpresen eta langileen eboluzioa



Iturria: Lan eta Inmigrazio Ministerioa. Gizarte Ekonomiaren datu-basea.

tatuko batez bestekoa %25,9 izanik. Enpresan antzinatasuna handiagoa da ere: EAEn langileen herenak bost urtetik gorako antzinatasuna du eta %46k enpresan hiru urte baino gehiago darama (%29,6 eta %41,4, hurrenez hurren, Estatuan).

4.2. GIZARTE-EKONOMIA EAE-n: EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE-EKONOMIAREN ZUZENDARITZAREN DATUAK

4.2.1. Sozietate Kooperatiboen Erregistroa

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako Kooperatiba Erregistroaren datuen arabera, 2009. urtean 25 kooperatiba gehiago dago, hau da, aurreko urteko datuekin erkatuz hazkuntza %1,5ekoa da (urte horretan 47 kooperatiba berri izan ziren, hots, %2,9). 2009. urtearen amaieran EAEn guztira 1.713 kooperatiba zeuden.

Horien artean erdia baino gehiago (1.072) lan elkartuaren kooperatibak dira: 92 (%8,7) kooperatiba txikiak dira (araubide eta araudi propioarekin agertzen da, ekainaren 25eko 6/2008 Legearen babesean).

Aurreko urteetako joera aldatuz, lan elkartuko 11 kooperatiba gutxiago dago, aurreko urtean 26 gehiago izan ondoren. Hazkuntzarik handiena (+15), berriz, etxebizitzen kooperatibetan izan da eta horien atzetik mistoak daude.

Gainera, orokorrean hartuta, EAEren kasuan aipatutakoa lurralde historiko bakoitzari aplika dakioke, bai sozietate-kopurua aldatzeari dagokionez, bai sektore nagusiei buruz. Gipuzkoan 11 sozietate kooperatibo berri (mistoak, zerbitzuetakoak eta bestelakoak) sortu dira, aurreko urtean sortutako 29 berriren aldean; bien bitartean Bizkaian 11 sozietate berri daude 2008. urte amaierako datuak kontuan hartuta (gehienak etxebizitzetarako, kasu honetan); aurreko denboraldian, berriz, 15 sozietate berri gehiago izan ziren. Araban hazkuntza garbia honakoa izan da: 5 sozietate berri.

II.4.5. GRAFIKOA. EAEn gizarte-ekonomiako sozietateen kopuruaren eboluzioa



Iturria: Gizarte Ekonomiaren erregistroak. Eusko Jaurlaritza

II.4.2. TAULA. Sailkatutako kooperatiben kopurua moten arabera EAEn (XII-31n)						
	2007	2008	2009	%	Hazkuntza 08-09	Ald. % 00-09
GUZTIRA	**1.641**	**1.688**	**1.713**	**100,0**	**25**	**46,7**
Nekazaritzakoak	99	97	97	5,7	-	10,2
Kontsumoa	32	32	34	2,0	2	21,4
Zerbitzuak eta bestekoak	76	80	89	5,2	9	81,6
Lan elkartua	1.057	1.083	1.072	62,6	-11	36,2
Irakaskuntza	92	93	94	5,5	1	10,6
Etxebizitza	224	236	251	14,7	15	153,5
Kreditua	1	1	1	0,1	-	0,0
Mistoak	17	20	27	1,6	7	575,0
2. mailakoak	43	46	48	2,8	2	77,8

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Enplegu eta Gizarte Gaien Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.4.3. TAULA. Kooperatiben kopurua moten arabera lurralde historikoetan (XII-31n)									
	Áraba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
GUZTIRA	**338**	**341**	**346**	**644**	**659**	**670**	**659**	**688**	**697**
Nekazaritzakoak	50	49	49	24	23	24	25	25	24
Kontsumoa	2	3	4	17	16	16	13	13	14
Zerbitzuak eta bestelakoak	12	12	14	28	29	32	36	39	42
Lan elkartua	149	149	147	467	473	464	441	461	461
Irakaskuntza	10	11	11	43	43	44	39	39	39
Etxebizitza	104	105	106	54	61	74	66	70	71
Kreditua	0	0	0	1	1	1	0	0	0
Mistoak	2	2	4	2	2	3	13	16	20
2. mailakoak	9	10	10	8	11	12	26	25	26

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Enplegu eta Gizarte Gaien Saila. EUSKO JAURLARITZA.

4.2.2. Lan Sozietateen Erregistroa

Gizarte Ekonomiako enpresek beste forma juridikoa hartu ohi dute, hain zuzen ere, lan-sozietateena (bai anonimoak, bai mugatuak). Horietan sozietatearen kapital gehiena langile bazkideena da. Sozietatean gehienez bazkide bakoitzak izan dezakeen kapitalak guztiaren herena ezin dezake gaindi (partaidetza publi-

II.4.6. GRAFIKOA. EAEn lan-sozietateen kopuruaren eboluzioa jarduera-sektorearen arabera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan-sozietateen erregistroa.

II.4.7. GRAFIKOA. EAEn lan-sozietateen kopuruaren eboluzioa motaren arabera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan-sozietateen erregistroa

koa duten zenbait salbuespenetan izan ezik) eta, ondorioz, gutxienez hiru bazkide behar dira.

Sozietatearen kapitala akzio nominatiboetan banatzen denean, Lan Sozietate Anonimoaren (SAL) aurrean gaude; bien bitartean, gizarte-partizipazioetan banatzen denean, honako izaera juridikoa du: Erantzukizun Mugatuko Lan Sozietateak (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak, bai partizipazioak bazkide langileen eta bestelako pertsonen artean banatzen dira.

2009. urtearen amaieran EAEn Lan Sozietateen Erregistroan guztira 2008. urtean baino 2.112,17 lan-sozietate gutxiago erregistratuak zeuden eta anonimo baino 80 mugatu gehiago zeuden (2008. urtean 81). Azken urtean, 9 sozietate mugatu gutxiago izan dira, 8, berriz, lan-sozietate anonimoei erreparatuz (%-0,8 bi kasuetan).

Sektoreen arabera, sozietate mugatu gehienek (%57,9k) zerbitzuen sektorean dihardute; bien bitar-

II.4.4. TAULA. Lan-sozietate kalifikatuak EAEn 2009-XII-31n

	GUZTIRA				MUGATUAK				ANONIMOAK			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sozietateen kop.	2.112	224	1.143	745	1.096	131	632	333	1.016	93	511	412
Nekazaritza	11	2	7	2	6	1	3	2	5	1	4	0
Industria	746	58	364	324	255	25	129	101	491	33	235	223
Eraikuntza	350	49	207	94	200	25	119	56	150	24	88	38
Zerbitzuak	1.005	115	565	325	635	80	381	174	370	35	184	151

Iturria: Lan Sozietateen Erregistroa. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

tean, SALen artean gehienak (%48,3) industrian aritzen dira. Bereizketa hori, gainera, EAEko hiru lurralde historikoetan errepikatzen da, Araban, Proportzionalki, zerbitzuen sektorean desberdintasuna garrantzitsuagoa izan arren.

Lan-sozietateen langile-kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzatik[4] ezin daitekeenez informazio eguneratua lortu, datu berriena Lan eta Inmigrazio Ministeriotik dator. Jada aipatu den bezala, 2009ko abenduaren 31n lan-sozietateko batez beste 12,9 langile zeuden (13,4 urtebete lehenago). Estatuan, berriz, batez bestekoa 5,6 langilerena da (5,7 2008. urtean).

[4] 2007. urtetik ezinezkoa da EAEko Lan Sozietateen Erregistroan inskribatuak dauden Lan Sozietateen kapitalari eta bazkideei buruzko informazioa eguneratzea. Erregistroak jakinarazitakoaren arabera, ezinezkoa da datu fidagarriak eskuratzea, batetik, sozietatearen kapitalean konposizio- edota zenbatze-aldaketak Erregistroan bertan jakinaraztea derrigorrezkoa izan arren, sozietateek bakarrik aldez aurretiko urrats bezala egiten baitute, Merkataritza Erregistroan inskribatzearen interesa dutenean.

Bestetik, EAEri transferentzia egin aurretik Lan Ministerioaren erregistroan sozietate-kopuru nabarmena inskribatua zegoen, beraz, transferentziarekin datu estatistikoak eskuratu ez zirenez eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak lan-sozietateen inskribapen-liburua eramateko gaitu zuen aplikazio informatikoa kontuan hartuta, datuak bakarrik aplikazioa abian jarri zenetik jasoak daude. Hala, gaur egun ezin daitezke datu fidagarriak lortu aldez aurretik inskribatutako sozietateen bazkide-kopuruari buruz eta, ondorioz, ez dira datu horiek bidaltzen, Erregistroko iturriek justifikatutakoaren arabera.

5
Lan merkatua EAE-n

II.5.1. TAULA. EAE-ko enpleguaren eta langabeziaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak eta balio absolutuak (milakoak)

	2007KO BATEZ BESTEKOA	2008KO BATEZ BESTEKOA	2009KO BATEZ BESTEKOA	2009			
				I	II	III	IV
LANDUNAK (BJA)	1,1	0,3	-3,6	-3,2	-4,0	-4,5	-2,7
Lana dutenen kopurua, BJAren* arabera	977,4	987,1	951,5	956,9	949,8	947,8	951,2
LANPOSTUAK (HKE)	2,4	1,1	-3,5	-3,0	-4,2	-3,9	-3,1
Lana dutenen kopurua, HKEen arabera	1.015,1	1.025,1	988,8	996,6	988,2	983,8	986,5
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	2,6	1,2	-3,5	-2,5	-4,0	-4,1	-3,4
G. Segurantzan afiliatutakoen kopurua	957,9	967,9	934,7	937,9	932,1	928,6	931,0
LANGABETUAK (BJA)	-19,7	17,3	118,1	133,9	122,9	136,2	89,5
Langabetu kopurua BJAren arabera	32,5	38,6	84,2	80,0	80,7	85,5	90,4
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (EEZP)	-6,4	11,8	42,4	40,0	50,6	44,7	26,3
EEZPn erregistratutako langabetuen kopurua	75,6	84,6	120,5	115,6	119,0	120,1	127,1
LANGABEZIA TASA (BJA)	3,3%	3,8%	8,1%	7,7%	7,8%	8,3%	8,7%

Iturria: EUSTATen eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.
* Biztanleria berrikusi ondoren jasotako emaitzak (2006ko oinarria).

Hamabost urtez enplegua sortzen etengabe ibili ondoren, 2009an EAEko lan-merkatuak beherakada nabarmena izan zuen landunen kopuruan. Ekonomiaren zailtasunak enplegura pasatu dira, 2006ko zifretara itzuliz.

Gainera, enplegua galtzeak langabezia nabarmen haztea esan nahi du, haren tasa % 8 baino baino gehiago izatera iritsiz. Hala eta guztiz ere, lan-egokitzapenaren faserik gogorrena erdiko hiruhilabeteetan ematen da, urteko azken zatiko beherakadak arintzeko.

Lan-merkatua aztertzen duten estatistika-iturri guztiek 2009 urterako bilakaera negatiboa aurreikusten dute. Bilakaera negatiboak enpleguen % 3,5 inguru galtzea esan nahi du (Kontu Ekonomikoen arabera % 3,5 Gizarte Segurantzako afiliazioan eta enpleguan, eta % 3,6 BJAren arabera), hau da, urtean batez beste 36.000 lanpostu. Aldiz, EINen BAIk egindako kalkulua oso desberdina da, enpleguaren narriadura % 6,4 dela dio. Edonola ere, lau estatistikak bat datoz enpleguaren galerarik handiena urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoaren artean eman zela adieraztean; laugarren hiruhilekoan, aldiz, enpleguaren joera negatiboa gutxituz joan zen.

2009ko EAEko BPGd-ren jaitsiera nabaria ikusita (-% 3,3), enpleguaren galera, handia izan arren, neurrizkotzat jo behar da. Izan ere, enpresek ez zuten aprobetxatu ekoizpenek behera egin izana langileen egokitzapenak eginez lehia irabazteko. Hala gertatu baitzen laurogeiko hamarkadako eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasierako atzerapenetan, edo estatu osorako emandako enpleguaren datuek adierazten duten bezala[1].

[1] EUSKO JAURLARITZA. Euskal Ekonomiari buruzko Urteroko Txostena, 2009.

II.5.1. GRAFIKOA. EAEko Enpleguaren bilakaeraren adierazleak: urte arteko aldakuntza-tasak



	I 2008	II	III	IV	I 2009	II	III	IV
KONTU EKONOMIKOAK	2,0	1,6	0,7	-0,1	-3,0	-4,2	-3,9	-3,1
AFILIAZIOA	2,1	1,8	1,3	-0,3	-2,5	-4,0	-4,1	-3,4
BJA (EUSTAT)	1,0	1,9	0,1	-1,9	-3,2	-4,0	-4,5	-2,7
BAI (EIN)	1,4	1,1	1,8	-2,3	-5,2	-6,9	-8,2	-5,2

KONTU EKONOMIKOAK · BJA (EUSTAT) · AFILIAZIOA · BAI (EIN)

Iturria: EUSTATen, EINen ea Gizarte Segurantzaren datuekin egindakoa

5.1. JARDUERAREN, ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

5.1.1. Okupazioa

BJAren datuek diotenez, 2009an Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galeraren ondorioz, 16 eta 64 urte bitartekoen artean enplegu-tasa % 64,9 zen urtearen amaieran, Lisboako Estrategiak ezarritakoa baino 5 puntu gutxiago. Emakumeen enplegu-tasa % 58,2 izan zen, lortu nahi zena baino (% 60) 1,8 puntu gutxiago; eta 55 eta 64 urte artekoena % 43,3 izan zen, lortu nahi zen % 50a baino 6,7 puntu gutxiago. Azken urtean EAEko enplegu-tasak 2,4 puntu egin du behera, 6 hamarren emakumeetan eta 4,7 gizonezkoen kasuan.

II.5.2. GRAFIKOA. Enplegua EAEn: Urte arteko aldakuntza-tasen bilakaera EUSTATen BJAren eta EINen BAiren arabera



Iturria: EUSTATen eta EINen datuekin egindakoa

EUROSTATen datuek zera diote: Azken urteetan Letonia (-9,2), Irlanda (-8,1), Estonia (-6,8), Espainia (-6,3), Lituania (-5,7) eta Islandia (-5,6) izan dira enplegu-tasaren jaitsiera handiena izan duten Europako estatuak. Estatu horietan guztietan enpleguaren jaitsierak gizonezkoei eragin die batez ere. Espainian eta Lituanian izan dira nabarmenenak sexuen arteko ezberdintasunak.

Orain EAE, EBko Enpleguaren Helburuei dagokienez, Espainiaren, Irlandaren edo Belgikaren aurretik dago[2], eta Frantziaren edo Luxenburgoren antzera. Hala ere, oraindik bide luzea du egiteko adierazle hobeak dituzten beste estatu batzuen parean egon arte, esate baterako, Danimarka, Herbehereak edo Suedia; horiek jadanik % 70 baino enplegu-tasa handiagoa dute.

2008ko abenduaren eta 2009ko abenduaren artean EAEn enpleguaren jaitsiera % 2,7 izan zen. 2008ko hirugarren hiruhilekoari dagokionez, enpleguaren gehiengo historikoa lortu zenean, beherakada % 4,1 izan zen. Ondorioz, 40.000 enplegu galdu ziren; horien artean % 82, 34.000 inguru, gizonezkoen lanpostuak izan ziren, eta gainerako 6.000 lanpostuak emakumezkoenak. Urteko batez besteko balioak kontuan izanez gero, 2009an galdu ziren 35.700 lanpostuetatik 30.300 gizonezkoenak ziren (% 84,9) eta 5.400 emakumezkoenak (% 15,1). Hortaz, enpleguaren feminizazio-maila hazi egin da, % 44,2 izatera iritsiz.

[2] Euskal Autonomia Erkidegoak Estatu osoko enplegu-tasa eta emakumeei dagokien tasa baino handiagoa izan arren, 55 urtetik gorakoen enplegu-tasari dagokionez maila okerragoa du: Estatuak 2009an batez beste % 44,1 zuen, EAEk, aldiz, % 42,5.

II.5.2. TAULA. Europako enplegu tasa: bilakaera lisboako eta stockholmeko helburuak bete izanaren arabera

	ENPLEGU TASA GUZTIRA				EMAKUMEEN ENPLEGU TASA				ENPLEGU TASA 55/68			
	2009	Helburua ez da bete	Azken urteko kendura	2000tik	2009	Helburua ez da bete	Azken urteko kendura	2000tik	2009	Helburua ez da bete	Azken urteko kendura	2000tik
Holanda	77,0	-7,0	-0,2	4,1	71,5	-11,5	0,4	8,0	55,1	-5,1	2,1	16,9
Danimarka	75,7	-5,7	-2,4	-0,6	73,1	-13,1	-1,2	1,5	57,5	-7,5	0,5	1,8
Suedia	72,2	-2,2	-2,1	-0,8	70,2	-10,2	-1,6	-0,7	70,0	-20,0	-0,1	5,1
Austria	71,6	-1,6	-0,5	3,1	66,4	-6,4	0,6	6,8	41,1	8,9	0,1	12,3
Alemania	70,9	-0,9	0,2	5,3	66,2	-6,2	0,8	8,1	56,2	-6,2	2,4	18,6
Zipre	69,9	0,1	-1,0	4,2	62,5	-2,5	-0,4	9,0	56,0	-6,0	1,2	6,6
Erresuma Batua	69,9	0,1	-1,6	-1,3	65,0	-5,0	-0,8	0,3	57,5	-7,5	-0,5	6,8
Finlandia	68,7	1,3	-2,4	1,5	67,9	-7,9	-1,1	3,7	55,5	-5,5	-1,0	13,9
Eslovenia	67,5	2,5	-1,1	4,7	63,8	-3,8	-0,4	5,4	35,6	14,4	2,8	12,9
Portugal	66,3	3,7	-1,9	-2,1	61,6	-1,6	-0,9	1,1	49,7	0,3	-1,1	-1,0
Txekia	65,4	4,6	-1,2	0,4	56,7	3,3	-0,9	-0,2	46,8	3,2	-0,8	10,5
Luxemburgo	65,2	4,8	1,8	2,5	57,0	3,0	1,9	6,9	38,2	11,8	4,1	11,5
EAE	**65,2**	**4,8**	**-2,4**	**7,7**	**58,2**	**1,8**	**-0,7**	**15,2**	**42,5**	**7,5**	**0,5**	**8,3**
EB 27	**64,6**	**5,4**	**-1,3**	**2,4**	**58,6**	**1,4**	**-0,5**	**4,9**	**46,0**	**4,0**	**0,4**	**9,1**
Frantzia	64,2	5,8	-0,7	2,1	60,1	-0,1	-0,3	4,9	38,9	11,1	0,7	9,0
Estonia	63,5	6,5	-6,3	3,1	63,0	-3,0	-3,3	6,1	60,4	-10,4	-2,0	14,1
Bulgaria	62,6	7,4	-1,4	12,2	58,3	1,7	-1,2	12,0	46,1	3,9	0,1	25,3
Irlanda	61,8	8,2	-5,8	-3,4	57,4	2,6	-2,8	3,5	51,0	-1,0	-2,7	5,7
Belgika	61,6	8,4	-0,8	1,1	56,0	4,0	-0,2	4,5	35,3	14,7	0,8	9,0
Grezia	61,2	8,8	-0,7	4,7	48,9	11,1	0,2	7,2	42,2	7,8	-0,6	3,2
Letonia	60,9	9,1	-7,7	3,4	60,9	-0,9	-4,5	7,1	53,2	-3,2	-6,2	17,2
Eslovakia	60,2	9,8	-2,1	3,4	52,8	7,2	-1,8	1,3	39,5	10,5	0,3	18,2
Lituania	60,1	9,9	-4,2	1,0	60,7	-0,7	-1,1	3,0	51,6	-1,6	-1,5	11,2
Espainia	**59,8**	**10,2**	**-4,5**	**3,5**	**52,8**	**7,2**	**-2,1**	**11,5**	**44,1**	**5,9**	**-1,5**	**7,1**
Polonia	59,3	10,7	0,1	4,3	52,8	7,2	0,4	3,9	32,3	17,7	0,7	3,9
Errumania	58,6	11,4	-0,4	-4,4	52,0	8,0	-0,5	-5,5	42,6	7,4	-0,5	-6,9
Italia	57,5	12,5	-1,2	3,8	46,4	13,6	-0,8	6,8	35,7	14,3	1,3	8,0
Hungaria	55,4	14,6	-1,3	-0,9	49,9	10,1	-0,7	0,2	32,8	17,2	1,4	10,6
Malta	54,9	15,1	-0,4	0,7	37,7	22,3	0,3	4,6	28,1	21,9	-1,1	-0,4
HELBURUA	**70%**				**Más de 60%**				**50%**			

Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuekin egindakoa.

II.5.3. TAULA. Lana duten eta langabezian dauden biztanleak, sektoreka.

	BATEZ BESTE (milakotan)		IGOERA (milakotan)		Urte arteko aldakuntza-tasa (%)	
	2008	2009	07-08	08-09	07-08	08-09
LANDUNAK - BJA	**987,1**	**951,5**	**9,7**	**-35,6**	**1,0**	**-3,6**
LEHEN SEKTOREA	12,2	8,9	0,1	-3,3	0,8	-27,0
INDUSTRIA	252,3	225,3	3,4	-27,0	1,4	-10,7
ERAIKUNTZA	82,9	77,8	-1,7	-5,1	-2,0	-6,2
ZERBITZUAK	639,6	639,4	7,8	-0,2	1,2	0,0
LANGABEZIA - BJA	**38,6**	**84,2**	**5,7**	**45,6**	**17,3**	**118,1**
LEHEN SEKTOREA	0,3	0,1	0,2	-0,2	200,0	-66,7
INDUSTRIA	8,2	21,1	1,9	12,9	30,2	157,3
ERAIKUNTZA	4,5	11,6	1,1	7,1	32,4	157,8
ZERBITZUAK	22,5	47,2	2,1	24,7	10,3	109,8
1. lanpostua bilatzen ari direnak	3,1	4,0	0,4	0,9	14,8	29,0

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

Adinei dagokienez, enpleguaren galerak azkarrago egin du aurrera gazteenen artean. Horregatik, azken urtean gazteenenak ziren lanpostuen % 15,6 galdu dira, bitarteko adinekoen % 4,5 eta 44 urtetik gorakoen lanpostuen % 1,9. Ikasketei dagokienez, galerak talde guztiei nabarmen eragin badie ere, lehen mailako ikasketak baino ez dituztenek jasan dute eragin handiagoa (-% 9,1), erdi mailako ikasketak (-% 6,3) eta unibertsitate-ikasketak (-% 6) dituztenek baino gehiago.

Industria da krisialdiaren eragin handiena jasaten ari den sektorea: Azken urtean (batez besteko balioak) % 10,7 egin du behera, hau da, 27.000 lanpostu galdu dira. Zerbitzuek oraindik 2008ko zifrak dituzte gutxi gorabehera; termino osoetan ia 200 lanpostu ere ez zituzten galdu. 2007 amaieratik 640.000 lanpostu ingururen balioari eutsi dio. Bitxia bada ere, eta emakume ugarik osatzen duten sektorea izan arren, azken urtean gizonezkoek ere lanpostuak galdu dituzte (-% 0,8), eta emakumeek burutzen dituzten enpleguak hazi egin dira (+% 0,8).

Bestalde, eraikuntzaren sektoreak duen egoera txarra izan arren, 2008ko zifrei eustea lortu du. Hala ere, haren aurreko urtearekin alderatuz gero (sektore honetako krisia lehenago hasi zen), enpleguak % 8,7 egin zuen behera, 7.300 enplegu garbi.

Beste alde batetik, 2009an jarduera-tasak gora egin zuen zertxobait eta 16 urtetik gorako biztanleen % 55,6 izatera iritsi zen. Balio orokor horrek generoaren arabera joera kontrajarriak ditu, izan ere, gizonezkoen kasuan hiru hamarren egin ditu behera (% 64), aldiz, emakumezkoen jarduera-tasa 1,3 puntu hazi zen, % 47,6 izatea ere lortuz.

Jarrera ezberdin hori hainbat faktoreren bidez azaltzen da, besteak beste, aipatzekoa da emakumea lanmerkaturatzearen prozesua, oraindik amaitu gabe dagoena, ohituraz emakumeek betetzen dituzten jardueretan (zerbitzuak) krisialdiak kalte txikiagoa eragin izana, eta baita familiako beste kide batzuek lanpostua galdu izana leuntzeko lana bilatzea ere.

II.5.4. TAULA. Jarduera eta langabezia tasen bilakaera sexu eta adin talde bakoitzeko. Urteko batez bestekoak

	Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Biztanleria >16	**54,6**	**55,0**	**55,6**	**3,3**	**3,8**	**8,1**
16-24	33,5	34,6	32,0	7,6	9,8	23,0
25-34	87,6	86,7	87,5	4,1	4,9	11,0
35-44	84,3	86,3	87,7	3,2	3,2	7,0
45-54	77,9	79,4	79,8	2,0	2,5	5,6
55-64	41,9	42,8	43,7	1,6	1,8	3,2
+64	0,9	0,9	0,8	0,0	0,0	0,0
Gizonezkoak GUZTIRA	**65,0**	**64,3**	**64,0**	**3,0**	**3,4**	**8,4**
16-24	37,8	37,1	34,8	7,6	10,4	26,8
25-34	92,4	89,7	90,3	4,5	5,3	12,2
35-44	93,8	94,9	94,9	2,6	2,7	6,5
45-54	92,3	92,0	90,7	1,6	1,7	5,3
55-64	58,8	57,5	57,0	1,6	1,7	3,5
+64	1,5	1,6	1,0	0,0	0,0	0,0
Emakumezkoak GUZTIRA	**44,9**	**46,3**	**47,6**	**3,6**	**4,2**	**7,8**
16-24	32,2	31,9	29,1	7,7	9,2	18,2
25-34	83,5	83,4	84,5	3,6	4,6	9,5
35-44	73,4	77,3	80,2	4,1	4,0	7,5
45-54	63,8	67,2	69,3	2,5	3,6	5,9
55-64	27,4	28,9	30,9	1,6	2,0	2,7
+64	0,5	0,5	0,7	0,0	0,0	1,4

Iturria: EUSTAT, BJA.

Adinen araberako azterketak ere berezitasunak ditu, esaterako, gazteek lan-merkatua utzi izana (haien lan-jarduera 2,6 puntu egin du behera ehunekoetan), lana aurkitzeko zailtasunak ikusita.

EAEn lan-jarduera duten pertsonen enplegu-mailari dagokionez, BJAk "okupazio hertsia" duten pertsonen (astero 15 eta 44 ordu arteko lanaldia burutzen dutenak) beherakada erregistratu du. % 3,6 egin du behera (batez bestekoaren moduan), 897.900 izatera iritsiz (2008an +% 0,2). Horiek soldatapeko guztien % 94,4 dira. Aldiz, "gainokupatuta" daudenen (astean 44 ordu baino gehiagoko lanaldia) beherakada gertatu da. % 6,6 egin dute behera (2008an +% 17,5) 38.300 izan arte. Horiek lana dutenen % 4 dira. Azkenik, "azpiokupatuta" dauden, okupazio baztertua duten edo ia langabezian daudenen (erreferentziako astean 15 ordu baino gutxiago lan egiten dutenak) kopurua % 2 hazi zen. Aurreko urtean % 10,4 hazi zen, guztira 15.200 pertsona izatera iritsiz.

Bestalde, kapitulu honetako 5.3.3. atalean zehatz agertzen den moduan, 2009an EAEn sinatu diren hi-tzarmen kolektiboek azken urteetako lanaldia murrizteko joera geldiarazi dute. EAEko hitzarmen kolektiboetatik lortutako datuek urtean 1.694 orduko batez besteko lanaldia ezarri zuten, 2008an baino bat gutxiago, eta EAEn erregistratutako hitzarmenen datuek 1.689 ordukoa (urtebete atzerago baino bat gutxiago).

Behin-behinekotasunari dagokionez, BJAren datuek beherakada adierazi dute zazpigarren urtez segidan eta behin-behineko kontratua duten soldatapeko biztanleen portzentajea % 18,6 da, 2008an baino 8 hamarren gutxiago. Beherakada bi sexuetan eman da, gainera: emakumeen artean puntu bat egin du behera eta gizonen artean 2,6. Ondorioz, sexuen arteko behin-behinekotasunean dagoen hutsunea hazi egin zen 2009an EAEn. 5,6 puntu ditu, aurreko urtean baino 1,6 hamarren gehiago.

Hala ere, eta beste urte batez aldi baterako kontratuak murriztu diren arren (kontratu mota hori zuten langileen kopurua % 10,3 jaitsi da), aldi baterako kontratuen ratioak Europako batez bestekoaren gainetik daude oraindik (% 13,4 EB27n. Hala ere, Estatuko tasaren azpitik 6,9 puntura daude, esate baterako. Ezberdintasun hori murriztu egin zen 2009an, 2008an 8,9 puntukoa baitzen.

Beste alde batetik, kontraturik gabeko egoera eta beste batzuk jasotzen dituen tasa ere, gehienbat emakumeei eragiten dien egoerena (gizonena % 0,4 da), murriztu egin zen 2009an. Emakumeen tasa % 4,7 izan zen, 2008an baino zortzi hamarren gutxiago eta hamarkadako tasarik baxuena.

II.5.5. TAULA. Enpleguaren adierazleak Europar batasunean 2008-2009

	JARDUERA TASA[3]		LANGABEZIA TASA		GAZTEEN LANGAB. T.		BEHIN BEHINEKOTASUN T.	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
EB-27	**57,7**	**57,7**	**7,1**	**9,0**	**15,5**	**19,7**	**14,0**	**13,4**
EB-15	58,4	57,7	7,1	9,0	15,5	19,7	14,4	13,4
EDB	**58,0**	**58,0**	**7,5**	**9,5**	**15,4**	**19,6**	**16,4**	**15,2**
BELGIKA	53,5	53,5	7,0	8,0	18,0	21,9	8,3	8,2
BULGARIA	53,5	53,0	5,6	6,9	12,7	16,2	5,0	4,6
TXEKIA	58,6	58,7	4,4	6,8	9,9	16,6	8,0	7,5
DANIMARKA	66,1	65,4	3,3	6,1	7,6	11,2	8,4	89
ALEMANIA	60,1	59,9	7,3	7,8	9,8	11,0	14,7	14,5
ESTONIA	62,2	60,9	5,5	14,1	12,0	27,5	2,4	2,5
IRLANDA	62,5	61,6	6,3	12,0	13,3	24,2	8,5	8,5
GREZIA	53,5	53,7	7,7	9,6	22,1	25,8	11,5	12,1
ESPAINIA	**59,1**	**59,3**	**11,4**	**18,1**	**24,6**	**37,8**	**29,3**	**25,5**
FRANTZIA	57,0	56,9	7,8	9,1	18,9	22,6	14,2	13,5
ITALIA	49,2	48,7	6,8	7,9	21,3	25,4	13,3	12,5
ZIPRE	64,2	64,4	3,8	5,4	9,5	13,8	13,9	13,5
LETONIA	61,5	60,8	7,5	17,5	13,1	33,6	3,3	4,4
LITUANIA	57,5	57,7	5,8	13,9	13,4	29,2	2,4	2,3
LUXEMBURGO	55,3	58,2	4,9	5,2	16,8	17,2	6,2	7,2
HUNGARIA	50,2	50,1	7,8	10,1	19,9	26,5	7,9	8,4
MALTA	49,3	49,8	5,9	7,0	11,9	14,4	4,3	4,7
HOLANDA	66,9	66,8	2,8	3,4	5,3	6,6	18,2	18,0
AUSTRIA	61,3	61,3	3,8	4,9	8,0	10,0	9,0	9,1
POLONIA	54,7	54,9	7,1	8,3	17,3	20,6	27,0	26,4
PORTUGAL	62,3	61,9	7,7	10,0	16,4	20,0	22,8	22,0
ERRUMANIA	53,8	54,4	5,8	7,2	18,6	20,8	1,3	1,0
ESLOVENIA	59,5	59,4	4,4	6,0	10,4	13,6	17,4	16,2
ESLOVAKIA	59,4	58,9	9,5	12,1	19,0	27,3	4,7	4,3
FINLANDIA	60,5	60,5	6,4	8,4	16,5	21,5	15,0	14,5
SUEDIA	63,1	70,6	6,2	8,5	20,0	25,0	16,1	14,9
ERRESUMA BATUA	62,9	62,6	5,6	7,7	15,0	19,1	5,4	5,5
EAE	**55,0**	**55,6**	**3,8**	**8,1**	**9,8**	**23,0**	**20,4**	**18,6**

Iturria: Eurostaten (2010eko ekainaren 30ean jasota zeuden datuak) eta Eustaten datuak oinarri hartuta egindako, BJA.

[3] Jarduera-tasa, Lanaren Nazioarteko Erakundeak zehazten duen bezala, pertsona aktiboen (langabetua eta langileak) eta lan egiteko adina duten pertsona guztien arteko baturaren kozientea da.

II.5.3. GRAFIKOA. EAEko lana duten biztanleen bilakaera (milakotan) lan egindako orduen arabera



Iturria: EUSTAT. DATU BANKUA.

II.5.4. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzako Afiliazioaren bilakaera EAEn eta Estatuan: Urteko aldakuntza-tasak eta EAE-ren pisua



Iturria: GIZARTE SEGURANTZA

II.5.6. TAULA. EAE-n 16 urte edo gehiago eta soldatapeko lana duten biztanleen bilakaera, kontratu motaren eta sexuaren arabera.

		2007	2008	2009	% 07-08	% 08-09	2008	2009
Guztira	Guztira	795,0	802,1	787,7	0,9	-1,8	100,0	100,0
	Gizonezkoak	444,1	442,9	425,1	-0,3	-4,0	100,0	100,0
	Emakumezkoak	351,0	359,2	362,5	2,3	0,9	100,0	100,0
Mugagabea-finkoa	Guztira	603,4	617,5	622,1	2,3	0,7	77,0	79,0
	Gizonezkoak	357,3	358,7	355,0	0,4	-1,0	81,0	83,5
	Emakumezkoak	246,1	258,9	267,0	5,2	3,1	72,1	73,7
Aldi baterako kontratua	**Guztira**	**166,8**	**163,4**	**146,5**	**-2,0**	**-10,3**	**20,4**	**18,6**
	Gizonezkoak	**83,6**	**82,4**	**68,2**	**-1,4**	**-17,2**	**18,6**	**16,0**
	Emakumezkoak	**83,2**	**81,0**	**78,3**	**-2,6**	**-3,3**	**22,6**	**21,6**
Kontraturik gabe eta beste batzuk	Guztira	24,8	21,2	19,1	-14,5	-9,9	2,6	2,4
	Gizonezkoak	3,2	1,9	1,9	-40,6	0,0	0,4	0,4
	Emakumezkoak	21,6	19,3	17,2	-10,6	-10,9	5,4	4,7

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.5.5. GRAFIKOA. Aldi baterako kontratudun eta "kontraturik gabe eta beste batzuk" egoeran egon diren soldatapeko pertsona guztien kopuruaren bilakaera, sexuen arabera, EAEn



Iturria: EUSTAT. BJA

Adin-talde bakoitzari dagokionez, oraindik ere aldi baterako kontratuak eta kontraturik gabekoak dituztenen tasarik altuenak adinez gazteenak direnek osatzen dituzte, urtebete aurrerago baino gutxiago badira ere. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen % 58k (2008an baino 4,2 puntu gutxiago ehunekoetan) eta gizonezkoen % 56,1ek (2008an baino 4,9 puntu gutxiago) aldi baterako kontratua dute. Adin talde horretan kontraturik gabeko egoera eta beste batzuk dituzten soldatapeko pertsonen tasak % 9,1 eta % 0,9 dira, hurrenez hurren (2008. urtearekin alderatuta, emakumeen tasa bikoiztu egin da eta gizonena erdira murriztu da)[4].

Azkenik, eta 2009ko abenduan zegoen Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, afiliazio kopurua % 2,6 jaitsi zen aurreko urteko abenduko kopuruarekin alderatuta (-% 3,6 Estatuko batez bestekoa). Erregimenei dagokienez, eta ekitaldiaren amaierako kopuruen arabera, ekonomia kolokan egotearen testuingurua izan arren, etxeko langileen erregimena % 2,5 hazi da 2008. urtearen amaierarekin alderatuta. Autonomoek eta Erregimen Orokorreko langileek batez bestekoa baino zertxobait gehiago egin dute behera (-% 2,9 eta -% 2,8, hurrenez hurren). Itsas langileen Erregimeneko langileen kopurua, aldiz, % 0,5 hazi da.

Jardueren sektoreei dagokienez, afiliazio-datuek berretsi dute EAEn krisia industriarena dela argi eta garbi. 2009ko urtarriletik abendura, industrian eta eraikuntzaren sektorean 21.137 lanpostu galdu ziren, eta horietatik % 83,4 industriakoak izan ziren. Zorionez, zerbitzuen jarrera hobeak beste bi sektoreen bilakaera negatiboa, neurri batean gutxienez, orekatzen du, izan ere, afiliatzeei dagokienez ozta-ozta % 0,4 egin du behera. Bigarren sektorea, berriz, % 6,7 murriztu da (-933 afiliatu).

5.1.2. Langabezia

Lanpostuak galtzeak eta eskatzaile berri ugari agertzeak 2009an langabezia nabarmen haztea ekarri du

II.5.7. TAULA. Gizarte segurantzako afiliazioa, jarduera sektorearen eta lurralde historikoaren arabera abenduko hilabeteak

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2008ko abendua	2009ko abendua	BAR. %-tan	2008ko abendua	2009ko abendua	BAR. %-tan	2008ko abendua	2009ko abendua	BAR. %-tan	2008ko abendua	2009ko abendua	BAR. %-tan
LEHEN S.	13.828	12.895	-6,7	4.281	4.763	11,3	6.015	4.979	-17,2	3.532	2.771	-21,5
INDUSTRIA	219.314	201.695	-8,0	44.257	40.954	-7,5	89.860	83.411	-7,2	85.197	77.250	-9,3
ERAIKUNTZA	80.789	77.271	-4,4	11.647	10.992	-5,6	44.227	41.861	-5,3	24.915	24.418	-2,0
ZERBITZUAK	641.964	639.099	-0,4	95.699	95.629	-0,1	342.905	339.860	-0,9	203.360	203.334	0,0
GUZTIRA	**955.859**	**930.960**	**-2,6**	**155.884**	**152.338**	**-2,3**	**483.007**	**470.111**	**-2,7**	**317.004**	**308.511**	**-2,7**

Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra

[4] EAEko gazteen lan-baldintzen azterketa zehatzagoa nahi izanez gero, ikus III. kapitulua.1. Memoria honetako "Talde ahul jakinen bizi-baldintzak: gazteak"..

II.5.6. GRAFIKOA. Langabezia-tasaren hiruhileko bilakaera EAEn, adin-taldeen arabera



Iturria: EUSTAT. BJA

berekin. Zehazki, lanik gabeko pertsonak, batez beste urtean, 84.200 dira (EUSTATen BJAren baldintzetan), aurreko urteko datuen bikoitza. Gutxi gorabehera 45.600 langabetu berrien artean 28.700 gizonezkoak ziren eta 16.900 emakumezkoak. Banaketa hori industriaren eta eraikuntzaren sektorean izan den lanpostuen galera handienaren oso antzekoa da, izan ere, ohituraz gizonezkoak askoz gehiago izan dira. Lanpostuen galera horren ondorioz, langabezia-tasa batez beste % 8,1 da, aurreko urteetako datuak baino askoz altuagoa. Gizonezkoen batez besteko tasa % 8,4 da eta emakumeena % 7,8. Hiruhilekoen bilakaeran arreta jarriz gero, langabeziaren tasa orokorra puntu bat hazi da (lehenengo hiruhilekoan % 7,7 izatetik laugarrenean % 8,7 izatera), gizonezkoena 1,2 puntu eta emakumezkoena erdia, 6 hamarren.

Sektoreka, langabetuen % 56,1 zerbitzuen sektorekoan dira. Sektore horretan langabezia % 109,8 hazi da. Industrian ere langabezia % 157,3 hazi da (batez

II.5.8. TAULA. EAEko biztanle langabetuak. Aldagai nagusien bilakaera.

	Pertsona kopurua			Kendura		Aldakuntza %-tan		Langabezia-tasa	
	2007	2008	2009	2007-08	2008-09	2007-08	2008-09	2008	2009
GUZTIRA	**32.500**	**38.600**	**84.200**	**6.100**	**45.600**	**18,8**	**118,1**	**3,8**	**8,1**
GIZONAK	17.500	19.900	48.600	2.400	28.700	13,7	144,2	3,4	8,4
EMAKUMEAK	15.100	18.700	35.600	3.600	16.900	23,8	90,4	4,2	7,8
ADINA: 16-24	4.600	6.200	13.000	1.600	6.800	34,8	109,7	9,9	23,0
ADINA: 25-44	21.400	24.000	52.800	2.600	28.800	12,1	120,0	4,1	8,9
ADINA: +45	6.600	8.400	18.400	1.800	10.000	27,3	119,0	2,3	4,8
Lehen mailako ikasketak	2.700	2.500	6.800	-200	4.300	-7,4	172,0	2,2	6,6
Erdi mailako ikasketak	21.200	27.900	60.400	6.700	32.500	31,6	116,5	4,7	10,1
Goi mailako ikasketak	8.600	8.200	16.900	-400	8.700	-4,7	106,1	2,6	5,0
Inoiz lan egin dute	29.900	35.400	80.100	5.500	44.700	18,4	126,3		
Lehenengo lana bilatzen ari dira	2.700	3.100	4.100	400	1.000	14,8	32,3		

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.5.7. GRAFIKOA. EAEn erregistratutako langabeziaren bilakaera gazteen artean, sexuen arabera



Iturria: EEZP

bestekoa den % 118,1 kopuruaren gainetik), eta eraikuntzaren sektorean are handiagoa izan da langabetuen hazkundea: +% 157,8. Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 1.000 gehiago dira, 4.100 dira urtean batez beste. Aldiz, 1 eta 3 urtez lana bilatzen aritu diren pertsonen kopurua (epe luzeko langabezia) da gehien hazi dena (% 27,3ko langabezia-tasa izanik). 3 urte baino gehiago daramatzatenak (oso epe luzeko langabezia), berriz, ozta-ozta 2.500 izan ziren urtearen amaieran, 2008ko laugarren hiruhilabetean baino 400 gehiago.

Adinei dagokienez, erdiko taldean hazi da gehien langabezia (urteko batez bestekoak), termino osoetan (+28.800) zein ehunekoetan (+% 120). 45 urtetik gorako langabetuen ratioa ere altua da, % 119. Langabezia-tasari arretaz begiratuz gero, 25 urtetik beherakoentzat hiruhilekoen bilakaera da kaltegarriena,

II.5.8. GRAFIKOA. Langabezia-tasaren bilakaera sexuen arabera EAEn eta Europan



Iturria: EUROSTATEN eta EUSTATEN datuekin egindakoa

lehenengo hiruhikekoan langabezia-tasa % 20,7 izan arren (batez bestekoa % 8,7), azken urtean % 25,4 izan zelako (batez bestekoa % 8,7).

Urteko batez bestekoa % 23 izanik, EAE Europako batez bestekoaren gainetik dago gazteen langabeziari dagokionez, eta Frantziaren (% 22,9) edo Irlandaren (% 24,2) antzera, adibidez. Gazteen langabezia tasaren hazkunde handienak dituzten estatuak lan-merkatuan kalte handienak dituztenak dira. Espainian, 2008an ratioa handia izan zen (% 24,6), eta 2009an % 37,8 izatera hazi zen; hala, Letoniarekin batera, gazteen langabezia % 30 baino altuagoa duten herrialde bakarrak dira.

Bestalde, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak estatistikako datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2009ko abenduan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan 128.201 langabetu erregistratu ziren (+% 27,4 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 90.400 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten hainbat pertsona[5].

Jarduera ekonomikoa geldiarazteak kaltetu dituen sektoreetan (eraikuntza eta industria) gizonezkoak direnez nagusi, erregistraturiko langabeziaren hazkundearen eragin handiena dutenak gizonezkoak dira. 2009ko abenduko gizonezkoen langabezia % 33,7 hazi zen 2008ko abenduarekin alderatuta; aldiz, emakumeen artean % 21,5.

Azkenik, hiru Lurralde Historikoek 2009an antzeko joerari eutsi zioten. Urteko langabeziaren batez besteko tasak (BJA) batez bestekoaren gainetik hazi ziren Araban (+7,2 puntu, urteko batez bestekoa % 9,9 izanik), batez bestekoa baino baxuagoak izan ziren Gipuzkoan (+3,2 puntu, % 6,5 izan arte) eta Bizkaian batez bestekoaren modukoak (batez besteko langabezia-tasa % 8,6 izan zen). Urtearen amaierako egoera kontuan hartuz gero (IV. hiruhilekoa), Araba da ekonomiak behera egitearen kalte handiena jasan duena, eta 2009ren amaieran % 10,2ko langabezia-tasa izan zuen, 2008ren amaieran baino 4,8 puntu gehiago. Emakumeen artean ere langabeziaren hazkundea nabarmen hazi zen. Gipuzkoa da krisi ekonomikoa ondoen jasan duena, langabezia 3,2 puntu hazi da. Azkenik, Bizkaia bien artean geratu da.

Eskualde bakoitzeko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen bilakaerari dagokionez, ikus daiteke Arabako bailarak eta Arabako Mendialdea gisako biztanle gutxiko eskualdeez gain, Urola bailara osoan (garaia, erdia eta kostaldea), industria ugari duen inguruan, erregistraturiko langabezia-tasaren portzentajea hazi egin da. Langabeziari aurre egiten ari diren biztanle gutxiko eskualdeetan lehen sektorea oraindik garrantzitsua da, esate baterako, Gorbeia inguruko mendiak edo Lea Artibai, eta baita zerbitzuen sektorea nabarmenagoa den beste eskualde batzuetan ere, Donostialdean edo Eskuinaldean.

[5] Bi inkesten ezberdintasun metodologikoak oso garrantzitsuak dira eta ez dago biak alderatzerik, izan ere, langabetuen sailkapen ezberdinez gain, EEZPren zifrak erregistroetakoak dira eta BJArenak lagin jakin bat oinarri hartuz egindako inkestatik ondorioztatutakoak dira. Horrez gain, kontuan izan behar da Europako Batzordearen 1897/2000 Erregelamendua jarraituz, urte horretatik aurrera, BJAren ustez, langabetuak, soldatadun enplegurik edo enplegu independenterik ez izan eta gaur egun enplegua bilatzen ari edo lan egiteko prest egoteaz gain, aurreko lau asteetan Erregelamenduan “aktibo”tzat jotzen diren enpleguak bilatzeko kudeaketaren bat burutu dutenak dira. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan-eskaria berritzeko edo prestakuntza-ikastaroak direla-eta enplegu-bulego publikoarekin harremanetan jartzeko egindako izapidea. Ondorioz, EUSTATen inkestak “langabetu” kontzeptutik kanpo uzten ditu EEZPn halakotzat izena eman duen hainbat jende.

II.5.9. TAULA. Autonomia erkidego bakoitzeko lanik gabeko enplegu eskatzaileak, lan aukeren arabera[6]: % s/guztira. 2009ko abendua

	LAN AUKERA				
	OSO BAXUA	BAXUA	ERTAINA	ALTUA	IZENA EMAN DUTENAK GUZTIRA
ANDALUZIA	137.167	257.255	308.777	148.294	851.493
ARAGOI	9.916	26.876	39.677	11.154	87.623
ASTURIAS	8.768	16.642	28.679	21.748	75.837
BALEAR UHARTEAK	7.394	20.679	37.145	25.880	91.098
KANARIAK	40.879	62.123	91.041	54.740	248.783
KANTABRIA	4.774	8.054	15.319	14.147	42.294
GAZTELA-MANTXA	22.316	48.964	74.822	42.048	188.150
GAZTELA ETA LEÓN	25.965	49.097	72.732	34.236	182.030
KATALUNIA	90.369	196.605	198.631	76.156	561.761
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	57.770	102.923	167.084	150.070	477.847
EXTREMADUDRA	20.142	32.916	41.242	18.020	112.320
GALIZIA	38.213	60.989	83.709	39.928	222.839
MADRIL	33.374	65.356	174.774	178.425	451.929
MURTZIA	17.034	44.406	45.646	15.199	122.285
NAFARROA	3.889	5.418	14.408	16.938	40.653
EAE	**15.725**	**24.765**	**46.316**	**41.395**	**128.201**
ERRIOXA	2.846	6.766	9.355	2.780	21.747
CEUTA	994	2.916	3.389	1.063	8.362
MELILLA	926	1.972	3.286	2.167	8.351
GUZTIRA	**538.461**	**1.034.722**	**1.456.032**	**894.388**	**3.923.603**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

[6] Erregistratutiko langabetuen lan-aukeren indizeak enplegua aurkitzeagatik langabetu izateari uzteko aukera handiagoa edo txikiagoa agertzen du. Aintzat hartzen diren aldagaiak honako hauek dira: enplegua bilatzen emandako denbora (urtebete baino gehiago edo gutxiago), bilaketaren esparru geografikoa (bizilekua kokatuta dagoen udalerrira mugatuta dagoen ala ez), eskatutako lanpostu kopurua (hiru baino gutxiago diren ala ez) eta 52 urtetik gorakoentzako laguntza edo gizarteratzeko errenta aktiboaren hobaria jasotzen duen ala ez. Langabetuaren lan-aukeren maila altua eta baxua izan daiteke betetzen diren baldintza kopuruaren arabera (oso baxua baldintza guztiak betez gero; altua baldintza bat ere ez denean betetzen).

II.5.10. TAULA. EAE-n erregistratutako langabezia, eskualde bakoitzeko. 2009ko abendua

ESKUALDEA	2008ko abendua			2009ko abendua			2008/2009 ALD. %-tan		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Bilboaldea	18.156	8.873	9.283	22.685	11.313	11.372	24,94	27,50	22,50
Ezkerraldea	14.123	7.378	6.745	18.147	9.778	8.369	28,49	32,53	24,08
Gasteiz	11.954	5.915	6.039	15.176	7.756	7.420	26,95	31,12	22,87
Donostia	7.218	3.350	3.868	8.954	4.362	4.592	24,05	30,21	18,72
Gobela	4.357	2.037	2.320	5.521	2.684	2.837	26,72	31,76	22,28
Bidasoaldea	4.336	1.866	2.470	5.231	2.612	2.619	24,73	30,99	19,05
Ibaizabal	4.194	1.994	2.200	5.118	2.291	2.827	18,04	22,78	14,45
Oarsoaldea	3.321	1.590	1.731	4.533	2.323	2.210	36,50	46,10	27,67
Donostia Mendebaldea	3.250	1.588	1.662	4.238	2.111	2.127	30,40	32,93	27,98
Uribealdea	3.096	1.413	1.683	3.969	2.013	1.956	28,20	42,46	16,22
Durangaldea	2.775	1.394	1.381	3.319	1.760	1.559	19,60	26,26	12,89
Debabarrena	2.520	1.123	1.397	3.292	1.727	1.565	30,63	53,78	12,03
Tolosaldea	2.375	1.155	1.220	3.124	1.590	1.534	31,54	37,66	25,74
Debagoiena	1.913	958	955	2.409	1.177	1.232	28,69	45,67	15,79
Aiaraldea	1.872	808	1.064	2.340	1.204	1.136	28,22	29,46	26,39
Busturialdea	1.825	930	895	2.328	1.121	1.207	28,12	39,25	19,27
Txorierri	1.817	805	1.012	2.262	1.164	1.098	18,24	21,50	14,97
Urola Kosta	1.511	682	829	2.163	1.115	1.048	43,15	63,49	26,46
Enkarterriak	1.472	716	756	2.051	1.050	1.001	39,33	46,65	32,41
Goierri	1.432	697	735	1.827	851	976	27,58	22,09	32,79
Nerbioi erdialdea	1.244	566	678	1.725	947	778	39,56	55,76	23,89
Arratia-Zornotza	1.236	608	628	1.575	863	712	50,57	69,88	32,34
Urola Erdia	1.157	595	562	1.533	763	770	23,23	34,81	13,57
Urola Garaia	1.046	508	538	1.406	781	625	46,00	66,88	26,26
Lea-Artibai	963	468	495	1.270	711	559	9,77	19,50	-0,53
Arabako Lautada	504	224	280	697	343	354	38,29	53,13	26,43
Arabako Errioxa	394	183	211	514	263	251	30,46	43,72	18,96
Arabako bailarak	266	135	131	391	183	208	65,68	86,73	50,72
Gorbeia inguruko mendiak	236	98	138	290	162	128	9,02	20,00	-2,29
Arabako Mendialdea	74	37	37	113	67	46	52,70	81,08	24,32
Guztira	**100.637**	**48.694**	**51.943**	**128.201**	**65.085**	**63.116**	**27,39**	**33,66**	**21,51**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

II.5.11. TAULA. EAE-ko estatuko enplegu zerbitz publikoaren bulegoetan erregistratutako langabezia (abendua)

	2007KO ABENDUA	2008KO ABENDUA	2009KO ABENDUA	% 2007-08	% 2008-09
GUZTIRA	**74.582**	**100.637**	**128.201**	**34,9**	**27,4**
GIZONEZKOAK	31.068	48.694	65.085	19,4	33,7
EMAKUMEZKOAK	43.514	51.943	63.116	56,7	21,5
Adina < 25 urte	5.677	9.275	11.852	63,4	27,8
Gainerako adinak	65.907	91.362	116.349	38,6	27,3

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

5.2. LAN MERKATUAREN SARRERA ETA IRTEERA MUGIMENDUAK

5.2.1. Kontratazioaren egoera

2009ko kontratazioen azterketak egungo egoera ekonomikoa islatzen du, kontratuen kopuruak % 20,3 behera egin duela erakutsiz (2008an -% 5,3). 2003-2007 aldiko saldoa positiboa izan zen. Estatuan, 2009ko kontratuen beherakada % 15,5 izan zen (-% 10,9 2008an). Kontrataturiko pertsona kopuruak ere behera egin zuen, nahiz eta atzerapena txikiagoa izan (-% 15,6). Sektoreka, industriak kontratuen % 34,3 galdu zuen, zerbitzuek % 19,4 eta eraikuntzak % 13,4. Hala eta guztiz ere, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen % 82,6 hartzen du, aurreko urtean baino ia puntu bat gehiago: industriak % 8, eraikuntzak % 7,7 eta lehen sektoreak % 1,7.

Guztira, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 2009an 656.056 kontratu erregistratu zituen (berriak zein aldatutakoak aintzat hartuz), 2008an baino 226.810 gutxiago. Horietataik % 54,1 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urteko % 52,4rekin alderatuta). Kontrataturikoen % 46,5 ere emakumeak dira. Lurraldeka, Gipuzkoak kontratuen % 29,5 hartzen ditu (2008an bezala), Bizkaiak % 52,2, behera eginez (-1,4 puntu) eta Arabak % 18,3 (2008an EAEko kontratuen % 16,9 izan zituen).

Azpimarratzekoa da kontratatzeko moduak erabiltzeko maiztasuna ezberdina izan dela. Hala, adibidez, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak, sinatutako hamar kontratutatik hiruk osatzen dituztenak (kontratu berrien % 30,2, 2008an baino 1,2 puntu gehiago), batez bestekoa baino % 11,2 gutxiago egin dute behera. Horien artean, ugari izan direlako, honako hauek nabarmendu dira: lanaldi partzialeko obra-kontratuak (75.000 kontratu), eta ekoizpeneko gorabeherengatiko behin-behineko kontratuak (ia 80.000 kontratu). 2009an behera egin zuten biek, batez bestekoaren antzeko ratioak lortuz.

Bigarrenik, lanaldi osoko aldi baterako kontratuak EAEn erregistraturiko kontratu berrien % 57,5 dira (2008an % 64,6); % 22,9ko beherakada izan du, mota horretako 394. 7397 kontratu erregistratu dira guztira. Horien artean garrantzi handi xamarra dute obra-kontratuek eta ekoizpeneko gorabeherengatikoek (kontratu guztien 20,1 eta 23,6, hurrenez hurren), eta % 23,4 eta % 29,4 egin dute behera. Azken finean, datuek erakusten dute kontratatzeko bi modu garrantzitsuenek behera egin dutela (bien artean erregistraturiko kontratuen ia erdia osatzen dute), nabarmen gainera, aipatutako -% 20,3ko batez bestekoaren gainetik.

II. 5.12. TAULA. Lan kontratuen bilakaera EAE-n, modalitate eta sexu bakoitzeko 2008-2009

	2008				2009				Ald. %-tan, 2008-2009		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	% bertikala	Gizonak	Emakumeak	Guztira	% bertikala	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Mugagabe bihurtutakoak	**16.431**	**13.262**	**29.693**	**3,4**	**10.503**	**9.512**	**20.015**	**3,1**	**-36,1**	**-28,3**	**-32,6**
Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuakn	68.670	170.807	239.477	27,5	62.009	150.674	212.683	32,4	-9,7	-11,8	-11,2
Mugag. Agind. / Mugag. Legea 12/2001-24/2001	12.876	6.675	19.551	2,2	8.122	4.520	12.642	1,9	-36,9	-32,3	-35,3
Mugagabea Lanaldi Osoa Ezinduak	178	56	234	0,0	119	47	166	0,0	-33,1	-16,1	-29,1
Mugagabea Lan. Osoa Hobariduna	3.380	4.005	7.385	0,8	2.457	2.602	5.039	0,8	-27,3	-35,0	-31,5
Mugag. LP / Mugag. LP LED 5/2001	2.802	4.501	7.303	0,8	2.281	3.051	5.332	0,8	-18,6	-32,2	-27,0
Mugag. LP Ezinduak	33	34	67	0,0	24	32	56	0,0	-27,3	-5,9	-16,4
Mugag. LP Hobariduna	902	3.198	4.1	0,5	742	2.189	2.913	0,4	-17,7	-31,6	-28,5
Aldizkako Kontr. Finkoa / Aldizkako Kontr. Finkoa LED 5/2001	985	1.446	2.431	0,3	678	1.426	2.104	0,3	-31,2	-1,4	-13,5
Aldizkako Kontr. Finkoa Ezinduak	2	3	5	0,0	-	1	1	0,0	-100,0	-66,7	-80,0
Aldizkako Kontr. Finkoa Hobariduna	157	268	425	0,0	144	184	328	0,0	-8,3	-31,3	-22,8
Lanaldi Osoko obra edo zerbitzua	122.303	49.651	171.954	19,8	95.072	36.708	131.780	20,1	-22,3	-26,1	-23,4
Behin-behineko Lan. Osoko Kontr. Ekoiz. Gorab.	122.105	97.018	219.123	25,2	84.242	70.425	154.667	23,6	-31,0	-27,4	-29,4
Lanaldi Osoko Bitarteko Lan Kontratua	31.708	75.214	106.922	12,3	29.372	70.245	99.617	15,2	-7,4	-6,6	-6,8
Lanaldi Osoko Praktikak	3.178	2.182	5.360	0,6	1.566	1.244	2.81	0,4	-50,7	-43,0	-47,6
Prestakuntza	1.028	718	1.746	0,2	743	610	1.353	0,2	-27,7	-15,0	-22,5
Aldo Baterako Ezinduen Lanaldi Osoko Kontr.	485	229	714	0,1	332	211	543	0,1	-31,5	-7,9	-23,9
Lanaldi Osoko Txandako Lan Kontratua	3.692	1.118	4.810	0,6	2.144	764	2.908	0,4	-41,9	-31,7	-39,5
Gizarte Laguntzako Kontratua	48	21	69	0,0	59	20	79	0,0	22,9	-4,8	14,5
Erretiro Berezia 64 Urterekin	33	15	48	0,0	34	15	49	0,0	3,0	0,0	2,1
Beste batzuk	766	683	1.449	0,2	517	416	933	0,1	-32,5	-39,1	-35,6
Guztira	**391.762**	**431.104**	**822.866**	**100,0**	**301.160**	**354.896**	**656.056**	**100,0**	**-23,1**	**-17,7**	**-20,3**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

II.5.13. TAULA. EAE-n 2009an erregistratutako kontratuak, jarduera bakoitzeko. (EJSN 2009)

	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	9.199	3,1	1.670	0,5	10.869	1,7
Erauzketa-industriak	103	0,0	12	0,0	115	0,0
Manufaktura-industria	35.473	11,8	12.794	3,6	48.267	7,4
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	52	0,0	20	0,0	72	0,0
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	3.700	1,2	539	0,2	4.239	0,6
Eraikuntza	48.097	16,0	2.766	0,8	50.863	7,7
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	17.861	5,9	37.266	10,5	55.127	8,4
Garraioa eta biltegiratzeak	16.952	5,6	8.918	2,5	25.870	3,9
Ostalaritza	17.741	5,9	46.251	13,0	63.992	9,8
Informazioa eta komunikabideak	11.359	3,8	7.981	2,2	19.340	2,9
Finantza jarduerak eta aseguruenak	1.507	0,5	2.815	0,8	4.322	0,7
Higiezinen jarduerak	484	0,2	392	0,1	876	0,1
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	8.893	3,0	17.308	4,9	26.201	4,0
Administrazio-jarduerak	86.628	28,8	103.564	29,2	190.192	29,0
Herri-administrazioa	4.477	1,5	6.179	1,7	10.656	1,6
Hekzuntza	8.583	2,8	20.192	5,7	28.775	4,4
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	10.954	3,6	66.574	18,8	77.528	11,8
Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak	13.754	4,6	9.916	2,8	23.670	3,6
Beste zerbitzu batzuk	5.176	1,7	9.565	2,7	14.741	2,2
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	272	0,1	324	0,1	596	0,1
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	2	0,0	2	0,0	4	0,0
Guztira	**301.267**	**100,0**	**355.048**	**100,0**	**656.315**	**100,0**

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistema
Lan-merkatuaren behatokiak egindakoa. Egailan SA.

Aldi baterako kontratuen iraupenari dagokionez, 2009an batez besteko iraupenak behera egin zuen eta 83 egun izatetik 73 egun izatera pasa zen (-10). Beherakada hori, neurri batean, 2008an eman zen Estatuan, urte hartan batez besteko iraupena 79 egun baitziren. 2009an 6 egun jaitsi zen eta EAEKo datua berdindu zuen.

II.5.14. TAULA. EAE-n kontrataturiko pertsona kopuruaren banaketa (2009)

Sinaturiko kontratu kopurua	Guztira	Gizonak	Emakumeak	<20 urte	20-24	25-29	30-44	45 urte eta gehiagokoak
1 kontratu	147.113	85.675	61.438	6.948	24.412	28.501	59.891	27.361
2 eta 3 kontratu artean	71.537	37.333	34.204	2.938	13.784	14.903	29.230	10.682
4 eta 5 kontratu artean	18.136	7.851	10.285	593	3.595	3.757	7.374	2.817
6 eta 10 kontratu artean	13.756	5.068	8.688	423	2.640	2.670	5.443	2.580
11 eta 20 kontratu artean	6.928	2.424	4.504	220	1.273	1.186	2.796	1.453
21 eta 50 kontratu artean	3.536	1.376	2.160	114	642	616	1.413	751
50 kontratu baino gehiago	581	243	338	9	79	86	259	148
GUZTIRA	**261.587**	**139.970**	**121.617**	**11.245**	**46.425**	**51.719**	**106.406**	**45.792**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza Nagusia.

II.5.9. GRAFIKOA. Kontratazioaren bilakaera EAEn jardueren sektorearen arabera



Iturria: EEZPren datuekin egindakoa

II.5.15. TAULA. Lana txandatzea EAE-n

	2006	2007	2008	2009
Kontratuak guztira	849.868	869.262	822.932	656.056
Gizonak	420.723	423.941	391.777	301.160
Emakumeak	429.145	445.321	431.155	354.896
Kontrataturiko pertsonak guztira	320.806	327.119	309.869	261.587
Gizonak	176.860	177.441	169.062	139.970
Emakumeak	143.806	149.678	140.797	121.617
Bi sexuen txandatzea	2,65	2,66	2,66	2,51
Gizonak	2,38	2,39	2,32	2,15
Emakumeak	2,98	2,98	3,06	2,92

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Kontratu motei dagokienez, erretiro partzialeko kontratuaren iraupena batez bestekoa baino 30 egun gutxiago da, eta txandakoarena 68 egun gutxiago. Halaber, obra- edo zerbitzi-kontratuaren batez besteko iraupena 4 egun gutxiagokoa da (59 egun izatetik 55 egun izatera) eta ekoizpeneko gorabeherengatiko behin-behineko kontratuen iraupena 8 egun gutxiagoko da (batez bestekoa 52 egun izatetik 44 egun izatera pasa da).

Beste alde batetik, 2008an kontratu mugagabeek 2004 eta 2007 urteen artean izan zuten gora egiteko joera eten zen, batez ere ohiko kontratu mugagabeak zirela-eta, eta 2009an egitate hori baieztatu egin zen. Oro har, kontratu mugagabea azken urtean % 31 jaitsi zen; kontratu horiek EAEn Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko kontratu berri guztien % 4,2 ziren 2009an (% 5,2 2008an). Ohiko kontratu mugagabeak, kontratu guztien % 1,9 alegia, 2009an % 35,3 egin zuten behera.

Amaitzeko, lana txadatzeari buruzko datuek 2009an beherakada eman zela erakusten dute, ratioa pertsonako 2,51 kontratu zirelako, 2008an baino 0,15 gutxiago. Bilakaera hori bi sexuetan eman zen; txandatzea gizonezkoen artean murriztu egin zen (2,32 kontratutik 2, 15 kontratura) eta baita emakumeen artean ere

II.5.10. GRAFIKOA. Iraupen jakineko aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena EAEn (egunak)



Iturria: EEZP. Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza.

II.5.11. GRAFIKOA. EAEn erregistratutako lan-kontratuen bilakaera, modalitate bakoitzeko



Iturria: EEZPren datuekin egindakoa

(2008an 3,06 kontratu izatetik 2009an 2,92 kontratu izatera pasa zen).

5.2.2. Banakako kaleratzeak eta taldekakoak

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko bakarkako kaleratzeak autonomia erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaritzarekin) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita lan arloko epaitegien bidez izapidetutakoak ere (lehenagoko Lan Magistratura); kaleratze horiek Lan eta Immigrazio Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Beste alde batetik, taldekako kaleratzeak enpresa batek enplegua erregulatzeko aurkeztutako espediente baten bidez burutzen dira (langileen legezko ordezka-

II.5.12. GRAFIKOA. EAEko kaleratzeen bilakaera



Iturria: LIMT. Lan-estatistiken aldizkaria

II.5.16. TAULA. Enplegua erregulatzeko EAE-n baimendutako espedienteak: kalteturiko langileak eta haien kopurua (Eusko Jaurlaritza)

	2007	2008	2009	Ald. %-tan, 07/08	Ald. %-tan, 08/09
Espedienteak	282	496	2.565	75,9	417,1
Kaltetutakoak	4.815	12.795	68.722	165,7	437,1
Espediente mota					
Murrizketa	17	108	1.170	535,3	983,3
Etetea	3.856	11.217	65.568	190,9	484,5
Amaitzea	942	1.47	1.984	56,1	35,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaiak. EUSKO JAURLARITZA.

II.5.13. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzak baimendutako EEEren bilakaera hilabete bakoitzean, espediente motaren arabera. 2007-2009 urteak



Iturria: EUSKO JAURLARITZA

rien adostasuna izan ala ez), lan-harremanak amaitzea eskatzeko (lanaldia eteteko edo murrizteko ere eska daitezke), arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduari edo ekoizpenari lotutako arrazoiak direla-eta, edo ezinbesteko kasu bategatik edo enpresariaren nortasun juridikoa amaitzeagatik, eta eskuduna den lan-administrazioko agintaritzak ebazten du. Agintaritza hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sai-

II.5.17. TAULA. Kaleratuen bilakaera EAE-n (lan ministerioa)

	Balio absolutuak			Aldakuntza %-tan	
	2007	2008	2009	07/08	08/09
Kaltetutako langileak GUZTIRA	**9.662**	**19.574**	**89.154**	**102,6**	**355,5**
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	1.777	1.789	1.691	0,7	-5,5
Gizarteko gai judizialak	2.556	2.988	4.123	16,9	38,0
Enplehuaren erregulazioa	5.329	14.797	83.34	177,7	463,2
ADOSTUTAKO KALERATZEEN BANAKAKO ADISKIDETZEETAN ERABAKITAKO KOPURUAK:					
Zenbatekoa guztira (mila €)	**77.394**	**76.741**	**78.916**	**-0,8**	**2,8**
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	75.38	73.093	74.087	-3,0	1,4
Gizarteko gai judizialak	2.014	3.648	4.829	81,1	32,4
Batez besteko zenbatekoa (€)	**17.862**	**16.065**	**13.573**	**-10,1**	**-15,5**
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	42.42	40.857	43.813	-3,7	7,2
Gizarteko gai judizialak	788	788	1.171	0,0	48,6

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa. Lan-estatistiken aldizkaria.

leko Lan Zuzendaritza da, arlo horretako eginkizunak baititu. Edonola ere, kontuan izan behar da Lan eta Immigrazio Ministerioak gai horren inguruan argitaratutako estatistikek ez dituztela kaleratze guztiak jasotzen. Horren arrazoia zera da, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendu-arrazoiak edo ekoizpenekoak direla eta kaleratzeko ez da behar administrazioaren baimenik taldekako kaleratze gisa ezarritako langile kopurua baino gutxiago kaltetzen direnean[7]. Halaber, enplegua erregulatzearen ondoriozko erretiro aurreratuak adosturiko kontratuaren amaieratzat jotzen dira, eta ez kaleratze gisa, estatistiketan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ere EAEn baimendutako enplegua erregilatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri bateko eta besteko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak erregistratu dituelako), interesgarria da biek egindako azterketa; logikoki, bilakaera norabide berean doa. Iturri honek 2009an guztira 2.565 EEE erregistratu ditu; 68.722 langile kaltetu ditu, horietatik % 95ek aldi baterako kontratua eteteko espedienteak izan zituen.

Guztira, EAEn erregistratutako kaleratze guztien kopurua, 2002 eta 2007 artean jaisteko joera izan zuena, 89.154 izan ziren 2009an, 2008an baino % 355,5 gehiago. 2008an % 102,6 egin zuen gora. Joera hori Estatu osoan eman zen modu berean (2008an +% 66,7

[7] Taldekako kaleratze esaten zaie kaleratzeak plantillako 5 langileri baino gehiagori eragiten dienean enpresaren jarduera guztiz eteten delako, edo, laurogeita hamar egunean, 100 langile baino gutxiagoko enpresetan, gutxienez ere soldatapeko 10 langileri, 100 eta 300 langile artean dituzten enpresetako langileen % 10eri edo 300 langile baino gehiagoko enpresetan soldatapeko 30 langileri eragiten dienean.

eta 2009an +% 153,2) eta, gainera, EAEko kaleratzeen kopuruak kopuru osoan duen garrantzia hazi egin zen, azken urtean % 7 izatetik % 12,5 izatera.

2009ko kaleratze kopuruen igoera, 2008an gertatu zen bezala, enplegua erregulatzeko espedienteek kaltetutako langileen artean eman da gehienbat (+% 463,2). Langile horiek Estatuan kaltetutakoen % 15,2 dira (2008an % 10). Estatuan, guztira, % 270,9 egin zuten gora. 2009ko hileroko bilakaera aztertuz gero, Ministerioa zein Eusko Jaurlaritza iturri gisa hartuta, urteko hirugarren hiruhilekoan kaltetutako langileen kopuruak behera egin duela antzeman daiteke, eta laugarrenean, berriz ere, nabarmen hazi da. Horrez gain, kaltetutako gehienek, zehazki % 95,1ek, lana eteteko espedienteak jaso dituzte (2008an % 86,1).

Beste alde batetik, bitartekotza-, arbitraje- edo adiskidete-gaiek kaltetutako langileen kopurua % 5,5 jaitsi da, eta gizarteko gai judizialetan nahasita daudenena % 38 hazi da.

Kaleratzeei lotuta kalte-ordain gisa adostutako zenbatekoa 2009an 78,9 milioi euro izan zen guztira, 2008an baino % 2,8 gehiago. Igoera hori lan-administrazioko agintaritzak baimendutako espedienteetan adostutako zenbatekoak % 1,4 handitzearen (zenbateko horiek kalte-ordainen % 93,9 dira) eta organo judizialek baimendutako kaleratzeetan adostutako kopuruak % 32,4 haztearen ondorioz eman da. Kalte-ordainen batez besteko zenbatekoa, 13.573 euro da, eta 2008rekin alderatuta % 15,5 jaitsi da.

5.3. LAN HARREMANAK ETA LANEKO OSASUNA

5.3.1. Laneko osasuna

OSALANen, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean erregistraturiko EAEko laneko ezbeharrei buruzko datuek erakusten dute 2009an laneko 40.275 istripu gertatu zirela, 2008an baino % 20,5 gutxiago (ezbeharra izan eta bajan dauden langileen ko-

II.5.18. TAULA. Laneko ezbeharren bilakaera EAE-n: laneko baja duten langile kaltetuak

	LANALDIKO ISTRIPUAK								IN ITI-NERE	LAN. GAIXOT.	GUZTIRA
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREAK						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	NEKAZA-RITZA	INDUSTRIA	ERAI-KUNTZA	ZERBIT-ZUAK			
2005	47.881	47.403	416	62	924	19.198	9.027	18.732	5.233	2.439	55.553
2006	46.730	46.356	322	52	1.044	18.686	8.709	18.291	4.977	2.075	53.782
2007	43.934	43.548	335	51	916	17.956	7.963	17.099	4.783	726*	49.443
2008	44.437	44.115	275	47	896	18.327	7.659	17.555	4.656	1.547	50.640
2009	**35.2**	**34.932**	**233**	**35**	**718**	**12.996**	**6.274**	**15.212**	**4.008**	**1.067**	**40.275**
Ald. %-tan, 07/08	1,1	1,3	-17,9	-7,8	-2,2	2,1	-3,8	2,7	-2,7	113,1	1,1
Ald. %-tan, 08/09	-20,8	-20,8	-15,3	-25,5	-19,9	-29,1	-18,1	-13,3	-13,9	-31,0	-20,5

Iturria: OSALAN.
(*) Laneko gaixotasunak jakinarazteko sistema berria, murriztaileagoa dena: Gaur egun mutualitateek jakinarazten dituzte (lehen enpresek).

II.5.14. GRAFIKOA. Bajadun istripuen bilakaera EAE-n. 2000 urtea=100



(*)Laneko Gaixotasunak barne
Iturria: OSALANen datuekin egindakoa

purua kontuan hartuz, lanaldiko eta "in itinere" ezbeharrak eta kaneko gaixotasunak barne). Aldiz, Estatuan, % 23,8ko beherakada eman da, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuen arabera. Beherakada handi hori 2008an haren aurreko urtearekin alderatuta (+% 1,1) eman zen igoera txikia ez bezalakoa da. Urte horretan, Estatuan, % 9,8 egin zuten behera ezbeharrek.

Lanaldian istripua izan zuten pertsonei dagokienez, azken urtean larritasun mota guztietako istripuak murriztu dira: % 15,3 istripu larriak, % 20,8 istripu arinak eta % 25,5 heriotzak. Lanaldian erregistraturiko 35 heriotzetatik 26 traunatikoak izan ziren; horietatik 10 eraikuntzaren sektorean, 8 industrian, 7 zerbitzuen sektorean eta bat lehen sektorean. Horrez gain, sektore bakoitzeko azterketa horrek industrian eman den beherakada nabarmen handia erakusten du, % 29,1koa, lehen sektorearen ondotik (-% 19,9). Eraikuntzaren eta

II.5.15. GRAFIKOA. Istripu indizea 1000 langileko, jardueren sektoreen arabera. EAE



Iturria: OSALAN eta EUSTAT-en datuekin egindakoa

II.5.19. TAULA. Autonomia erkidego bakoitzean lanaldian bajan egotea eragin duen istripu kopurua*

	2005	2006	2007	2008	Var 06/07	Var 07/08
ESTATUA	**6.012**	**5.880**	**5.760**	**5.069**	**- 2,0**	**-12,0**
ANDALUZIA	6.265	6.246	6.081	5.132	-2,6	-15,6
ARAGOI	5.091	5.174	5.232	4.743	1,1	-9,3
ASTURIAS	6.018	6.072	6.317	5.963	4,0	-5,6
BALEAR UHARTEAK	7.702	7.876	7.677	6.614	-2,5	-13,8
KANARIAK	6.897	6.608	6.423	5.616	-2,8	-12,6
KANTABRIA	5.470	5.636	5.388	4.977	-4,4	-7,6
GAZTELA-MANTXA	7.748	7.663	7.461	6.370	-2,6	-14,6
GAZTELA ETA LEÓN	5.728	5.707	5.655	5.244	-0,9	-7,3
KATALUNIA	5.824	5.437	5.682	4.943	4,5	-13,0
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	6.277	5.804	5.532	4.671	-4,7	-15,6
EXTREMADURA	4.889	4.867	4.974	4.659	2,2	-6,3
GALIZIA	5.687	5.733	5.803	5.613	1,2	-3,3
MADRIL	5.506	5.400	5.066	4.444	-6,2	-12,3
MURTZIA	5.782	5.707	5.577	4.676	-2,3	-16,2
NAFARROA	5.722	5.661	5.593	5.096	-1,2	-8,9
EAE	**6.157**	**6.418**	**5.654**	**5.449**	**-11,9**	**-3,6**
Araba	**7.293**	**7.212**	**6.453**	**6.072**	**-10,5**	**-5,9**
Gipuzkoa	**5.718**	**6.155**	**5.495**	**5.361**	**-10,7**	**-2,4**
Bizkaia	**6.033**	**6.305**	**5.475**	**5.289**	**-13,2**	**-3,4**
ERRIOXA	5.730	5.806	5.762	5.129	-0,8	-11,0
Ceuta	5.758	5.217	5.465	5.653	4,8	3,4
Melilla	4.074	4.827	4.813	4.534	-0,3	-5,8

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA, lan-istripuen estatistikak.
(*) Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzan lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoen kopuruaren arteko kozientea bezala kalkulatzen da.

zerbitzuen sektorea berdin murriztu dira, baina neurri txikiagoan.

Zifra horiek sektore bakoitzeko enplegu kopuruarekin alderatuz gero, bilakaera antzekoa da: 37 istripu mila langileko (2008an 45,9 mila langileko) eta beherakadarik handiena industrian eman da, % 22,2 behera eginez (batez bestekoaren beherakada -% 19,5 da), hau da, sektoreko mila langileko 57,7 istripu. Hala eta guztiz ere, istripuen ratiorik altuenak lehen sektorean (milako 80,7) eraikuntzaren sektorean eman dira (milako 80,6).

Aitortutako laneko gaixotasunei dagokienez, laneko ezbehar guztien % 2,6, azken urteetako bilakaeraren

5.II.20. TAULA. Kontratuaren araberako ezbeharren bilakaera EAE-n

	2005	2006	2007	2008	%06/07	%07/08
Kontratu mugagabeak						
Soldatapekoak (BJA)	543.400	558.500	611.300	630.000	9,5	3,1
Bajadun istripuak	25.131	26.553	24.565	25.221	-7,5	2,7
Ezbehar-tasa (milakotan) (A)	46,2	47,5	40,2	40,0	-15,4	-0,5
Aldi baterako kontratuak						
Soldatapekoak (BJA)	197.100	198.200	169.200	167.300	-14,6	-1,1
Bajadun istripuak	19.621	21.137	18.735	16.988	-11,4	-9,3
Ezbehar-tasa (milakotan) (B)	99,5	106,6	110,7	101,5	3,8	-8,3
B / A	**2,15**	**2,24**	**2,75**	**2,54**		

Iturria: Testuaren egileak egindakoa Lan eta Immigrazio Ministerioaren (lan-istripuen estatistika) eta EUSTATen (BJA) datuekin.

azterketa jakinarazpen-sisteman ezarritako aldaketek baldintzatzen dute; hortaz, 2008an 2007rekin alderatuta erregistratutako +% 113,1 kontuz hartu behar da. 2009an 1.067 gaixotasun erregistratu ziren, 2008an baino % 50,6 gutxiago.

Autonomia Erkidego bakoitzeko Lan eta Immigrazio Ministerioak kalkulaturiko lanaldiko istripu kopuruak[8] erakusten du 2008an Balear Uharteek eta ondoren Gaztela-Mantxak zituztela kopuru handienak. EAEk 5.449ko indizea zuen (2007rekin alderatuta -% 3,6); Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen eta Gaztela eta Leóngo kopuruen antzekoa izan zuen.

Beste alde batetik, kontratu motaren araberako lan-istripuen datuek adierazten dute ezbehar kopurua bikoitza baino handiagoa dela aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino.

Hala adierazten dute 2008koak diren Lan eta Immigrazio Ministerioko azken datuek. Zehazki, mugagabeko kontratudun pertsonek izandako ezbeharren kopurua ‰ 40 izan zen; aldiz, aldi baterako kontratua zuten pertsonek izadako ezbeharren kopurua ‰ 101,5. Edonola ere, sektore, adin talde bakoitzeko eta okupazio motaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da behin betiko ondorioak ateratzeko.

5.3.2. Lan-gatazkak

2009an zehar EAEn 273 greba erregistratu dira guztira. 27.080 parte-hartzaile izan dituzte eta lanik gabeko 126.094 lanegun eragin dituzte guztira. Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) zifra horien bidez jakin daiteke, 2008arekin alderatuta, greba kopurua eta lanik gabeko lanegunena hazi egin dela (% 17,7 eta % 70,9, hurrenenz hurren). Aldiz, parte-hartzaileen kopuruak % 34,2 egin du behera, batez ere 2008ko Osakidetzaren grebaren eragina dela eta.

[8] Istripu-kopurua 100.000 langileko izaten diren istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzara afiliatuta eta laneko istripuen arriskua beren beregi estalita dutenen kopuruaren arteko kozientea bezala kalkulatzen da.

II.5.16. GRAFIKOA. Lan gatazken bilakaera EAE-n



Iturria: LHKren datuekin egindakoa.
*Ez dago 2009-05-21eko greba orokorrari buruzko daturik

II.5.17. GRAFIKOA. Lan-gatazkak EAE-n eta Estatuan. 2003 urtea=100



Iturria: LHKren eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa

Guztien artean nabarmentzen den faktorea taldeko negoziazioari loturiko desadostasunak dira oraindik, beste arrazoi batzuek direla eta taldeko grebak eragin dituzten arrazoiak nabarmen hazi diren arren. Azken horien artean enpleguaren erregulazioa eta kaleratzeak daude.

2009an greben % 37, parte-hartzaileen % 53 eta lanik gabeko lanegunen % 60 hitzarmen kolektiboak negoziatzean adostasunik eza dela eta eman ziren. Horrek, taldeko negoziazioak greben arrazoietan 2008rekin alderatuta eragin txikiagoa izan duela esan nahi du (urte hartako portzentajeak % 48, % 57 eta % 65 izan ziren, hurrenenz hurren).

Lan-gatazken artean sektore batzuetako grebak nabarmenak izan dira, esate baterako, Arabako eta Bizkaiko gizartegintzaren sektorean, Gipuzkoako egoitzetan eta Autonomia Erkidego osoko eskoletako jantokietan. Horiek sektore publikoari loturiko sektoreen grebak dira. Beste alde batetik, azpimarratzekoa da 2009an egindako 273 grebetatik 247 enpresen arlo-

II.5.21. TAULA. Greba kopurua, kaltetutako langileak eta galdutako lanegunak

		Kopurua			Hazkunde tasa %-tan		
		Greba kopurua	Kaltetutako langileak	Galdutako lanegunak	Greba kopurua	Kaltetutako langileak	Galdutako lanegunak
EAE	2007	204	46.492	112.497	-8,9	-25,7	-33,2
	2008	232	41.183	73.769	13,7	-11,4	-34,4
	2009	**273**	**27.080**	**126.094**	**17,7**	**-34,2**	**70,9**
ARABA	2007	42	4.916	7.940	-26,3	-22,7	-34,0
	2008	54	4.793	8.910	28,6	-2,5	12,2
	2009	**53**	**2.621**	**14.175**	**-1,9**	**-45,3**	**59,1**
BIZKAIA	2007	91	27.873	68.507	-16,5	-37,4	-43,9
	2008	107	27.182	41.998	17,6	-2,5	-38,7
	2009	**138**	**16.322**	**60.455**	**29,0**	**-40,0**	**43,9**
GIPUZKOA	2007	71	13.703	36.050	22,4	17,4	5,5
	2008	71	9.208	22.861	0,0	-32,8	-36,6
	2009	**82**	**8.137**	**51.464**	**15,5**	**-11,6**	**125,1**

Iturria: LAN HARREMANEN KONTSEILUA.

koak izan direla (parte-hartzaileen % 63 eta lanik gabeko lanegunen % 70). Horrek aurreko urtearekin alderatuta behera egin duela esan nahi du (2008an parte-hartzaileen % 67 eta lanegunen % 81). Sektore ekonomikoen barruan, grebek gehien kaltetu duten jarduera industria izan da; greben % 57, langileen % 51 eta lanik gabeko orduen % 46 izan ditu.

Azkenik, lurralde bakoitzeko azterketak erakutsi du parte-hartzaileen kopurua jiru lurraldeetan jaitsi dela (Araban % 45,3, Bizkaian % 40 eta Gipuzkoan % 11,6). Aldiz, lanik gabeko lanegunak oro har hazi egin dira (% 125,1 Gipuzkoan, % 59,1 Araban eta % 43,9 Bizkaian). Greba kopuruari dagokionez, Bizkaian eta Gipuzkoan gora egin dute (+% 29 eta +% 15,5, hurrenenz hurren); Araban, aldiz, behera egin dute (-% 19,9). Halaber, gogorarazi behar da 2009ko maiatzaren 21ean greba orokorra egin zela. Datuak falta direnez ez da aintzat hartu eta, beraz, ez da agertzen estatistika hauetan.

Estatuko datuei dagokienez, 2009an ere greba kopuruak gora egin du. Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuen arabera, gatazkak (1.001 guztira) % 23,6 hazi dira, eta parte-hartzaileen kopurua % 20,5. Hala ere, lanik gabeko lanegun kopurua, guztira 1.290.852 izanik, % 14,4 jaitsi da. Ondorio gisa, greba bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua murriztu egin da (653, 2008an baino % 2,5 gutxiago), eta baita grebagatiko lanik gabeko lanegunena ere (-% 30,8).

5.3.3. Negoziazio kolektiboa: Soldataren igoera eta lanaldia

2009ri buruzko LHKren "Negoziazio Kolektiboaren Balantzea"ren arabera, urte horretan zehar Euskal Autonomia Erkidegoko langileen % 58,2ri eragiten dieten

II.5.18. GRAFIKOA. EAE-n erregistratutako hitzarmenek eragindako pertsonak



Iturria: LHK

hitzarmen kolektiboak berriztatu behar lituzketeen. Ehuneko hori 2008koa baino altuagoa da (% 50,8), baina aurreko urteetakoa baino txikiagoa (2007an % 69,4 zen eta 2006an % 65,6), batez ere 2009an indarrean ziren sektoreko hitzarmenak zeudelako; langile kopuru handia hartzen dute, guztira 211.582. Kaltetutako langileen kopuruari dagokionez, honako sektore hauek dira garrantzitsuenak: Gizpuzkoan metalurgia (53.303), Araban eta Gipuzkoan eraikuntza (21.175) eta Estatuan kimika, kaltetutako 12.365 langilerekin.

Beste urte batez, ehunekoak altuak dira, eta neurri batean gutxienez, azken urteetan negoziazio kolektiboaren ezaugarri den gizarte eragileen adostasunik ezagatik da. 2009an langileen % 15,9 pertsonarentzat bakarrik lortu dira akordioak negoziazio kolektiboan (2008an % 19,7). Hitzarmen kolektibo berriturik lortu ez duten negoziazio kolektiboek mendeko langileak % 42,3 izan ziren urtearen amaieran[9].

II.5.22. TAULA. 2008 eta 2009 urteetarako EAE-n adostutako soldaten igoerak.

	IGOERA BERRIKUSPEN KLAUSULARIK GABE		BERRIKUSPEN KLAUSULEN ERAGINAK		SOLDATEN IGOERA GUZTIRA	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
ARABA	4,12	2,89	-0,01	0,01	4,11	2,90
BIZKAIA	5,01	2,89	-0,01	-0,01	5,00	2,88
GIPUZKOA	5,25	2,45	0,00	0,00	5,25	2,45
LURRALDE ARTEKOAK	4,43	3,67	0,00	0,00	4,43	3,67
EAE-N ERREGISTRATURIKOAK	4,98	2,74	-0,01	0,01	4,97	2,75
ESTATUA	2,82	2,25	-0,08	-0,05	2,74	2,20
EAE-N GUZTIRA	**4,46**	**2,61**	**-0,02**	**-0,01**	**4,44**	**2,60**

Iturria: LHK.

[9] Hala ere, LHK-k dio portzentaje hori txikiagoa izango litzatekeela indarrean diren eraginkortasun mugatuko hitzarmenak eta herri-administrazioko langileen hitzarmenak aintzat hartuko balira. Hitzarmen horiek baldintza ekonomikoak mahai nagusietan edo protokoloetan ezartzen dira.

II.5.19. GRAFIKOA. Prezioen urteko igoeren bilakaera, lanbide arteko gutxieneko soldata eta hitzarmenean adostutako soldatak. %



Iturria: LHKren LIMren datuekin egindakoa.

Eremu funtzional bakoitzeko datuak xehatuz gero, ikus daiteke sektore-hitzarmenetan baino % 3 gehiago negoziatu dela (langileei dagokienez) enpresa-hitzarmenetan. Bestalde, 2009 urtearen hasiera, enpresa-hitzarmenen mendeko langileak sektore-hitzarmenetako langileek baino % 6 gehiago ziren. Hortaz, sektore-hitzarmenen mendeko pertsonen % 44,1ek ez du hitzarmenak berritu 2009an. Aldiz, enpresen arloan ratio hori % 35,1 da. Sektoreen arloan azpimarratzekoa da hitzarmen asko lau urte baino gehiagoz berritu ez izana. EAEn erregistratutako 121 sektore-hitzarmenetatik 24 berritzeke daude 2005 urtea baino lehenagotik. Hitzarmen horiek 16.893 pertsonari eragiten diete, hau da, sektoreen negoziazio kolektiboaren eraginpeko langile guztien % 3,2.

Beste alde batetik, 2009an lurralde arteko eremuan hitzarmenak berritu zituzten langileen kopuru handia nabarmentzen da, % 61,2 hain zuzen ere. Hori irakaskuntza pribatuaren eta ikastolen sektoreko hitzarmenetan lortutako akordioaren ondoriozkoa da.

Lurralde bakoitzari erreparatuz, Bizkaian eraginkortrasun orokorreko eta estatutuaren araberako hitzar-

II.5.20. GRAFIKOA. Negoziazio kolektiboan adostutako lanegunaren (orduak/urtea) murrizketa



Iturria: LHK
(*) Lurralde arteko esparruan, 2008an, ikastetxeetako jantokietako kolektibitateek eta garraioetako monitoreek murrizketa esanguratsuak izan zituzten sektore publikoarekin 35 orduko asteari dagokionez parekatzearen ondorioz.

mena berritu gabe duten langileen % 65,7rekin amaitu zuten 2009 urtea; Araban % 54,8 izan ziren. Hala ere, 2009an bi lurralde horietako metalurgia-industrian indarrean ziren eraginkortasun mugatuko eta estatutuaz kanpoko hitzarmenak azpimarratu behar dira. Hurrenez hurren, 59.000 eta 18.000 langile baino gehiagori eragiten zieten. Gipuzkoak, 2009. urtearen hasieran, berritzeke zeuden hitzarmena zuten pertsonen portzentaje txikiagoa zuen (% 27,8), eta urtearen amaieran % 17,7ri eragiten dieten hitzarmenak baino ez zeuden berritzeke. Hala ere, oro har, hitzarmen horiek urte asko daramate berritu gabe. Azkenik, Estatuko hitzarmenetan egiteke dagoen eta EAEn eragina duen negoziazio kolektiboa % 26, 4 da, eragindako pertsonei dagokienez.

Laburbilduz, 2009 urtearen amaieran, eta eskuragarri dauen azken datuen arabera (2009/12/31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 584 hitzarmen zeudenn den guztira eta 370.957 pertsonari eragiten zieten (horietatik % 79 sektoreko hitzarmenen mende daude eta gainerako % 21k enpresako hitzarmenen mende); beste 471 hitzarmen zeuden berritzea behar zutenak eta 272.480 langileri eragiten zietenak.

Guztira, 2009rako adostutako batez besteko soldataren igoera % 2,60 zen (% 2,75 Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta % 2,20 EAEn eragina zuten Estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresetako hitzarmenetan, soldataren igoera % 2,56 izan zen eta sektoreen hitzarmenetan % 2,61. Oro har, 2008rekin alderatuta (% 4,4), 2009rako adostutako soldaten beherako joera handia izan dutela nabarmena da, 2009an KPI ohikoa ez bezala baxua izan zelako (Estatuan % 0,8 eta EAEn % 1), baita une ekonomikoa zaila zelako ere.

KPIren bilakaerarekin lotuta soldatak bermatzeko edo berrikuspen-klasulen egokitzapenei dagokienez, portzentajeko ehunen bateko batez besteko eragin negatiboa kalkulatu da (-% 1,01), 2009ko abenduko inflazioa % 0,8 izan zelako, aurreikustakoa baino txikiagoa (% 2). 2009an berritutako hitzarmenen % 30ek berrikuspen-klausulak izan arren (langileen % 28), klausula horrek kasu batzuetan bakarrik antzematen du berariaz beheranzko joera.

Azkenik, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteetako laneguna murrizteko joera gelditu dute. Ikus daiteke, laneguna murrizten duten hitzarmenen portzentajea esanguratsua izan arren (% 22,9), aurreko urteetakoa baino txikiagoa dela (2008an % 25,8 izan zen). EAEn eragina duten hitzarmen berritu guztiek urtean batez beste 1,2 ordu murriztu dituzte (2008an 1,5); EAEn bakarrik erregistratutako hitzarmenek ere 1,2 ordu murriztu dituzte (2008an 1,8). Ondorioz, EAEko hitzarmen kolektiboetatik lortutako datuek urtean 1.694 orduko batez besteko lanaldia ezarri zuten, 2008an baino bat gutxiago, eta EAEn erregistratutako hitzarmenen datuek 1.689 ordukoa (urtebete atzerago baino bat gutxiago).

5.4. SOLDATAK EAE-n

5.4.1. Soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak, 2008

EINen "soldata-egituraren urteko inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. 2008ra arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa, "soldata-egituraren inkesta"ren bidez hain zuzen, eta gainera, 10 edo langile gehiagoko enpresena baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturriren administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, eta baita EINen beraren lan-kostuari buruzko hiru hilez behingo inkestaren zati bateko informazioa ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinak dira, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu gabe.

Inkesta horretan nabarmentzen den lehenengo emaitzetako bat zera da: langileen % 5ek 2008an (urte horretakoa da eskura dagoen azken datua) urtean batez beste –edo urteko soldata gordina– 8.400 euro edo gutxiago irabazten zutela[10] (urte hartako lanbide

[10] Estatuari buruzkoak dira, ez dago Autonomia Erkidegoaren mailako informaziorik.

II.5.21. GRAFIKOA. Langileen banaketa ehunekoetan, irabazien arabera eta lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez. Estatua, 2008



Iturria: Soldata-egituraren inkesta
Oharra: 2008ko LGS=8.400 €

arteko gutxieneko soldata). Emakumeetan portzentajea % 8 zen. Halaber, langileen % 18k gutxi gorabehera 8.400 eta 16.800 euro arteko soldata zuen. 16.800 eta 33.600 euro arteko ordainsaria zutenak ia % 50 ziren.

Inkestaren arabera, 2008an EAEn urteko batez besteko irabaziak 25.547 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 6,9 hazi zen (2006 eta 2007urteen artean +% 4,2). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 16,7 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondotik Madrilgo erkidegoa dago Soldata gordin hori 28.264 euro ziren gizonezkoentzat eta 21.766 emakumezkoentzat, hortaz, generoen artean % 29,9ko aldea dago. Alde hori murriztu egin da azken urtean ia autonomia erkidego guztietan (Estatuan batez beste portzentajearen 6,5 puntu) eta zertxobait gutxiago EAEn, 6,3 puntu hain zuzen ere (2007an % 36,1 zen). Emakumezkoen soldata gizonezkoena hazi den bikoitza hazi da (+% 10,1 eta +% 5, hurrenez hurren).

II.5.22. GRAFIKOA. Langile bakoitzaren urteko irabaziak. Euroak



Iturria: EIN. Soldata-egituraren inkesta

II.5.23. TAULA. Sektoreka langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak, EAE eta estatua. euro/urteko

	2007			2008			Ald. %-tan, 2007-2008		
	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonezkoak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonezkoak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonezkoak
ESTATUA									
Sektore guztiak	20.390	16.944	22.780	21.883	18.911	24.203	7,3	11,6	6,2
Industria	23.140	18.268	24.829	24.036	19.343	25.652	3,9	5,9	3,3
Eraikuntza	18.693	16.580	18.922	20.707	19.873	20.845	10,8	19,9	10,2
Zerbitzuak	19.980	16.776	23.392	21.557	18.820	24.621	7,9	12,2	5,3
EAE									
Sektore guztiak	23.893	19.772	26.911	25.547	21.766	28.264	6,9	10,1	5,0
Industria	26.993	22.464	28.198	28.670	24.062	29.781	6,2	7,1	5,6
Eraikuntza	22.717	..	23.159	25.376	23.139	25.729	11,7	..	11,1
Zerbitzuak	22.603	19.315	27.004	24.248	21.377	27.785	7,3	10,7	2,9
EAE/ESTATUA %									
Sektore guztiak	117,2	116,7	118,1	116,7	115,1	116,8	-0,4	-1,4	-1,1
Industria	116,7	123,0	113,6	119,3	124,4	116,1	2,3	1,2	2,2
Zerbitzuak	121,5	..	122,4	122,5	116,4	123,4	0,8	..	0,9
Zerbitzuak	113,1	115,1	115,4	112,5	113,6	112,9	-0,6	-1,3	-2,2

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egindakoa, soldata-egiturari buruzko inkesta.

Horren harira, 2006ko PFEZren likidazioak behatuz (ekitaldi horri buruzkoa da eskura dagoen EAE osorako informazio bateratua, Eusko Jaurlaritzaren Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez) lan-etekina jasotzen duten deklaratzaileen % 81,8k urtero 30.000 euro baino gutxiagoko etekinak jasotzen dituela aitortu duela ikus daiteke, eta % 2,8k bakarrik jasotzen du 51.600 euro baino gehiago. Aitortutako batez besteko etekina 20.643 euro dira, aurreko urtean baino % 4,4 gehiago.

Jardueren sektoreetako soldatei dagokienez, altuenak industriaren jardueran ematen dira, EAEn zein Estatu osoan. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziak 28.670 euro dira Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste 29.781 euro gizonezkoentzat eta 24.062 emakumezkoentzat. Industriako batez besteko soldata hori Estatu osokoa baino % 19,3 altuagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, eraikuntzaren sektoreko soldatak dira altuenak (urtean batez beste 25.376 euro EAEn, 2007an baino % 11,7 gehiago), gainera, Estatuko batez bestekoa baino dezente altuagoak dira, % 22,5 zehazki. Azkenik, zerbitzuen sektoreko soldatak, batez beste

II.5.23. GRAFIKOA. Urteko batez besteko irabaziak sexuen eta kontratu-motaren arabera EAEn. Euroak



Iturria: EIN. Soldata-egituraren inkesta

II.5.24. GRAFIKOA. Urteko batez besteko irabaziak adinen arabera. 2008. Euroak



Iturria: EIN. Soldata-egituraren inkesta

24.248 eurokoak, sektore guztien batez bestekoaren azpitik daude eta, gainera, Estatuko balioetatik hurbilago (% 12,5 gehiago).

Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziak kontratu-harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinatasunagatik jasotzen diren ordainsariek gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina % 42,9 altuagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat, aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, gizonen artean altuagoa da (% 56,7) emakumeen artean baino (% 21,8).

Irabazien mailan alde handia ergaiten duen beste faktore bat langileen adina da. Inkestaren arabera, EAEn batez besteko soldata gordina 15.406 euro da 25 urtetik beherakoentzat (+% 11,4 aurreko urtearekin alderatuta), hau da, adin-taldeetan soldatarik baxuena. Soldatak geroz eta altuagoa da gehienezkoa lortu arte 45 eta 55 urteko adin-taldean (29.262 euro). Banaketa hori, aldaketa txiki batzurekin, beste autonomia erkidego batzuetan eta sexuen artean ere ematen da. Estatuko batez bestekoari dagokionez, EAEko datua 45 eta 54 urte artekoen adin-taldean % 17 handiagoa da (bigarren alderik garrantzitsuena, langilerik gazteenen taldeko aldearen ondoren, % 18,9koa dena, alegia); aldiz, 55 urtetik gorako langileekiko aldea txikiena da (% 11,4).

5.4.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2008

"Lan-kostuari buruzko urteko inkesta" langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINen bigarren estatistika da. "Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkesta"ren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atzikipenak edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu aurretik.

II.5.25. GRAFIKOA. Lan-kostuaren "Lansariak eta soldatak" partidaren zenbatekoa langileen eta urtearen arabera. Euroak



Iturria: EIN. Lan-kostuari buruzko urteko inkesta

Inkesta hori urtero egiten da 2000.etik eta, soldata egituren zehaztasuna ematen ez badu ere (sexuari, adinari, kontratu motari, eta abarri dagokienez), soldatek azken zortzi urteetan izan duten bilakaera ikusten uzten du. Bataren eta bestearen ikuspuntua ezberdina izan arren, emaitzak oso antzekoak dira, jakina, bai Estatu mailan eta baita EAEn ere.

2008ko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 34.546 euro dira; horietatik % 73,2 "lansariei eta soldatei" dagokio, hau da, 25.289 euro. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino % 16,9 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da.

"Lansarien eta soldaten" partida 2002tik etengabe hazi da, eta 2008an aurreko urtean baino % 5,8 hazi zen, Estatuko batez bestekoarekin alderatuta +% 5,4. Horrek magnitude bien arteko aldea azken urtean 7 hamarren haztea eragin du.

II.5.24. TAULA. Langile eta urte bakoitzeko lan kostua, autonomia erkidegoen eta kostuen osagaien araberako datuak 2008

	KOSTU GORDINA	Lansariak eta soldatak	Ezinbesteko kotizazioak	Borondatezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte-prestazioak	Beste batzuk (1)	Diru-laguntzak eta dedukzioak	KOSTU GARBIA	Lansariak eta soldatak GUZTIRA %-tan
ESTATUA	**29.610**	**21.639**	**6.628**	**206**	**291**	**847**	**247**	**29.364**	**73,1**
Andaluzia	27.562	**19.999**	6.350	145	260	808	213	27.349	72,6
Aragoi	29.082	**21.278**	6.701	166	273	664	298	28.785	73,2
Asturias	29.121	**21.344**	6.795	262	287	433	264	28.857	73,3
Balear Uharteak	28.019	**20.379**	6.287	144	319	890	222	27.796	72,7
Kanariak	25.324	**18.289**	5.890	141	274	731	170	25.154	72,2
Kantabria	27.909	**20.163**	6.504	184	359	670	250	27.660	72,2
Gaztela eta León	27.112	**19.865**	6.224	186	249	589	229	26.883	73,3
Gaztela-Mantxa	26.361	**19.101**	6.125	141	278	716	183	26.178	72,5
Katalunia	31.950	**23.376**	7.103	187	283	1.000	273	31.677	73,2
Valentziako Erkidegoa	26.574	**19.259**	6.148	154	211	802	241	26.333	72,5
Extremadura	24.607	**17.951**	5.789	121	195	550	224	24.382	73,0
Galizia	25.798	**18.756**	5.954	208	243	637	258	25.540	72,7
Madril	34.163	**25.269**	7.031	321	362	1.181	244	33.919	74,0
Murtzia	25.955	**18.869**	6.050	140	255	640	231	25.724	72,7
Nafarroa	31.431	**23.041**	7.410	183	324	473	344	31.087	73,3
EAE	**34.546**	**25.289**	**7.766**	**379**	**451**	**662**	**342**	**34.204**	**73,2**
Errioxa	27.647	**20.214**	6.414	182	277	560	221	27.427	73,1

Beste batzuk (1): Kaleratzeengatiko kalte-ordainak barne hartzen ditu, lanbide-heziketaren, garraioaren gastuak, gastu sozialak, kontratuaren amaierako kalte-ordainak, konpentsazio-ordainketa, erremintak-laneko arropa eta beste gastu batzuk. Dietak eta bidaia-gastuak kanpo uzten ditu.
Iturria: EIN: Lan-kostuen urteko inkesta, 2008.

5.5. ENPLEGU ZERBITZUAK ETA POLITIKAK EAE-n

Enplegu-politikak langileak langabeziak sor ditzakeen arazoetatik babesteko eta aseguratzeko helburuarekin egiten dira. Laneratzea azkarragoa eta aktiboagoa izatea ahalbidetzera zuzenduriko hainbat neurriren bidez garatzen dira. Enplegu Politika Aktiboen barruan hainbat motatako neurrien multzo heterogeneoa biltzen da. Prestakuntzaz, enpleguaren eta laneko malgutasunaren sustapenaz eta balioaniztasunaz gain, informazioa eta orientazioa ere barne hartzen dira langileen lan-aukerak sustatzeko ahalegina eginez.

Enplegu Politika Aktiboen eskuduna Autonomia Erkidegoa den arren, Autonomia Estatututaren arabera,

Estatuko administrazio zentralak burutzen du, memoria hau egiten amaitu zen egunean ez baitzen besterendu oraindik Erkidegora, Estatuko gainerako 16 autonomia erkidegoetan gertatu den bezala (enplegua sustatzeko eta lanerako lanbide-prestakuntzaren kudeaketa eta Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerbitzuak dituzte beregain).

Hortaz, batez ere Lan eta Immigrazio Ministerioak burutu eta finantzatzen du enplegu-politika. Horren kudeaketa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren esku uzten du. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak EAEn enplegu-politika aktiboetan sortutako gastuaren % 75 baino gehiago kudeatzen du. Enplegu-politika horiek administrazio zentralak eta Gizarte Segurantzak eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen dituzte.[11]

Gainera, EAEN Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalerriak eta Garapenerako Eskualde Agentziak ere jarduten dira helburua lortzeko. Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzak, batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez, enplegurako eta prestakuntzarako programa jakinak kudeatzen ditu. Bigarrenik, EGAILAN[12] S.A.-ren mendekoa den LANBIDEren bidez orientatzeko eta bitartekotzan aritzeko jarduera jakinak ere burutzen ditu. Autonomia Erkidegoko administrazioak kudeaturiko politika aktiboak EAEn egindako Enplegu Politika Aktibo guztien % 11 inguru dira; horietatik % 55 Autonomia Erkidegoak berak finantzatzen ditu eta % 40 Europako Gizarte Funtsak.

Foru Aldundiei dagokienez, mota horretako jardueretan ezberdintasun handiak daude lurralde historikoen

II.5.25. TAULA. Enplegu politikak eta prestakuntza EAE-n

	Lan eta Immigrazioa Ministerioa EEZP	Eusko Jaurlaritza
Bitartekotza, erregistroa eta informazioa	Enplegu-bulegoak	EGAILAN, LANBIDE
Orientazioa	OPEA - SIPE[13]	Euskal Orientazio Zerbitzua
Lanerako prestakuntza	EEZP, zentro laguntzaileak	Zentro laguntzaileak
Lanerako, prestakuntzarako, esperientzia lortzeko, laneratzeko programak	Lantegi Eskolak, Enplegu Tailerra, Lanbide Etxeak, EEZP programa-Tokiko Korporazioak	Dekretuak (sustatzaile berriak, txandakako prestakuntza, Junior Enpresa, etab.)
Kontrataziorako diru-laguntzak	Gizarte Segurantzaren hobariak, ezinduak, autonomoak,...	Enplegu Programen Dekretuak
Etengabeko Prestakuntza	Tripartita Fundazioa eta HOBETUZ	HOBETUZ

[11] Europako Gizarte Funtsaren Unitate Administratzailearen bidez. Lan eta Immigrazioa Ministerioaren mendekoa da eta Espainiako EGFtik jasotako baliabideak kudeatzeko ardura du eta EGFren funtsak autonomia erkidegoen artean banatzen ditu. eta Estatuko Administrazio Orokorreko kudeaketa-organismoak. 1997-2003 aldian EGFk Espainiako enplegu-politika aktiboetarako egindako finantza-ekarpena % 25 dela kalkulatzen da.

[12] Ez dira nahastu behar EGAILAN SA, Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa eta 1993an sortu zen PAEren emaitzak hobetzeko, eta LANBIDE, Euskal Enplegu Zerbitzua, lan-merkatuan bitartekotza-lanak egiten dituena. EGAILANen eginkizunetako bat, hain zuzen, LANBIDE kudeatzea da.

[13] OPEA: Enplegurako lanbide-orientazioa eta autoenplegurako laguntza. SIPE: Enplegurako barne hartutako zerbitzuen planak.

artean. Alde batetik, Araban eta Gipuzkoan esku-hartze maila txikiagoa da Bizkaiarekin alderatuta, izan ere, Bizkaian jarduera zein sorturiko egitura zabalagoa da. Edonola ere, instituzio horiek finantzatzen duten Enplegu Politika Aktiboen artean % 80 zuzenean kudeatzen dute (EAEren Enplegu Politika Aktiboaren % 5 inguru); gainerako % 20 erakunde laguntzaileen bidez kudeatzen dute, batez ere prestakuntza, eta Eusko Jaurlaritza edo udalak bezalako administrazioekin batera finantzatzen dituzte.

Tokiko erkundeak (tokiko garapenerako agentziekin batera) enplegu-politika aktiboen kudeatzaileak dira funtsean. EAEn sortutako gastu osoaren ia % 3 finantzatzen duten arren, hiru aldiz gehiago kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzak, administrazio zentralak-EEZPk-EGFk eta, neurri txikiagoan, foru-administrazioak.

Azkenik, benetako kudeaketa-lana egiten dutenak irabazi asmorik gabeko hainbat elkarte eta instituzioa pribatu, enpresarien eta sindikatuen erakundeak, eta arlo horietan jarduerak kudeatzen dituzten prestakuntza-zentroak dira, batez ere gizartean eta lanean sartzeko arazoak dituzten pertsonen eta taldeen gizarteratze eta laneratzeari eta prestakuntzari lotuta.

5.5.1. Lan eta Immigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak-EEZP

a) Informazioa eta orientazioa Irabazi asmorik gabeko lan-agentziak eta enplegurako orientazioa eta autoenplegurako laguntza ematen duten zerbitzuak.

Enplegu Zerbitzu Publikoek burutzen duten beste zerbitzu bat orientazioa da. EEZPk zerbitzu hori bere Enplegu Bulegoen bidez gauzatzen du eta autonomia erkidegoek, besterendutako kudeaketarekin, haien zerbitzuen bidez. EEZPz eta erakunde laguntzaileez gain, irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk daude, esaterako, enplegurako lanbide-orientazioa eta autoenplegurako laguntza eskaintzen duten zentroak (OPEA). Erakunde horiek Enlegu Zerbitzu Publikoekin lankidetzan jarduten dute haien enplegu-bulegoan izena eman duten enplegu-eskatzaileen lan-aukerak hobetzeko ekintzak burutzen.

2009an 14.813 enplegu-eskatzailek enplegurako orientatzeko laguntza motaren bat jaso zuten EAEn; horrek aurreko urteko kopuruarekin alderatuta % 74ko beherakada esan nahi du. Hala ere, interpretazio horretan

II.5.26. TAULA. Enplegurako lanbide orientazioa eta autoenplegurako laguntza jasotzen duten onuradunak

	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa			Erakunde laguntzaileak			GUZTIRA		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Araba	515	407	308	3.208	2.547	3.143	3.723	2.954	3.451
Bizkaia	6.561	39.555	s.d.	7.881	6.628	6.063	14.442*	46.183	6.063
Gipuzkoa	0	1.388	234	4.238	6.420	5.065	4.238	7.808	5.290
EAE	**7.076**	**41.350**	**542**	**15.327**	**15.595**	**14.271**	**22.403**	**56.945**	**14.813**

(*) 2007an Bizkaian onuradunen kopurua nabarmen handitu izana orientazio-zerbitzuak hartzen dituztenak zenbatzeko sistema hobetu dutelako da.
Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

ez dago eskuragarri Bizkaiko EEZPk harrera egin zien pertsonei buruzko daturik.

b) Lanbide-prestakuntza

LANERAKO PRESTAKUNTZA

Lanerako lanbide-prestakuntza eta etengabekoa 2007an aldatu egin ziren *395/2007 Errege Dekretua* onestearen ondorioz. Dekretu horren bidez enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistema arautzen da eta lanerako eta etengabeko lanbide-prestakuntzari buruz indarrean den araudia ordezkatzen du, bi modalitateak sistema bakar batean barne hartuz. Errege Dekretu berriak gizartearen adostasuna eta autonomia erkidegoek arlo horretan dituzten ekimenak Estatuarekin koordinatzea indartzeko beharra ezartzen du, eta enplegurako lau prestakuntza-ekimen jasotzen ditu:

1. Eskatzen denaren prestakuntza; enpresek eta langileek proposaturiko prestakuntzaren beharrizan espezifikoei erantzuten die. Enpresei dagokie planifikatzea eta kudeatzea, eta Gizarte Segurantzako kuotetako hobarien sistema baten bidez finantzatzen da. Enpresek kostu osoaren gutxieneko portzentajea finantzatuz hartzen dute parte eta haien kabuz antolatu eta kudeatu dezakete

II.5.27. TAULA. Lehentasunez langabetuei zuzenduriko prestakuntza ekintzak EAE-n, EEZP-k emandakoak, zentroaren arabera

		GUZTIRA	Lanerako presta-kuntza-zentroak	Zentro la-guntzaileak
2007	**EAE**	**805**	**50**	**755**
2008	Araba	93	3	90
	Bizkaia	376	22	354
	Gipuzkoa	151	11	140
	EAE	**620**	**36**	**584**
2009*	Araba	117	8	109
	Bizkaia	535	22	513
	Gipuzkoa	254	7	247
	EAE	**906**	**37**	**869**

(*) Urtean bukatutakoak guztira. 2010an martxan dauden ikastaroak ez dira zenbatu.
Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia)

II.5.28. TAULA. Lehentasunez langabetuei zuzenduriko prestakuntza ekintzetan prestaturiko ikasleak EAE-n, EEZP-k emandakoak. Behin-behineko datuak

EBALUAZIO POSITIBOA LORTUZ PRESTATUTAKOAK (1)	EAE 2008	2009				Bar. %-tan 2008/09
		EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
Iraupen luzeko langabetuak	551	672	84	447	141	22,0
25 urtetik beherakoak	1.219	1.835	191	1.211	433	50,5
30 urtetik beherakoak	2.749	4.360	462	2.881	1.017	58,6
Emakumeak (2)	338	463	85	219	159	37,0

(1) Ebaluazio negatiboa lortu zuten ikasleak kanpo geratu dira: Ikastaroan zehar baja hartu zuten lana aurkitu zutelako edo beste arrazoi batzuek zirela medio, edo 2009 amaitzean prestakuntzan jarraitu zuten.
(2) Ordezkapen urria duten lanbide-familietan trebatzen diren emakumeak bakarrik zenbatu dira.
Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

prestakuntza edo zentro edo erakunde bat kontratatuz. Borondatez ere multzokatu daitezke erakunde antolatzaile bat izendatuz. Halaber, prestakuntzarako banakako baimenak eman ahal izango dira, langileen ekimenez.

2. Eskaintzaren araberako prestakuntza langileei zein langabetuei dago zuzenduta, eta burutzea enpresarien eta sindikatuen elkarteei dagokie, baita gizarte-ekonomia eta autonomoak ordezkatzen dituztenei ere. Helburua lan-merkatuaren eta gaur egungo produktibitatearen eta lehiaren eskakizunen beharrizanetara egokitutako prestakuntza eskaintzea da.
3. Enpleguarekin txandakatuz egiten den prestakuntzak enpleguaren eta prestakuntzaren irakaskuntza-prozesu mistoa ezarri eta langileak ikaskuntza formala lanpostuko jardun profesionalarekin bateratzea ahalbidetzen du.
4. Prestakuntzan laguntzeko eta prestakuntzaren gehigarri diren ekintzek enplegurako prestakuntzaren azpisistemaren eraginkortasuna hobetzea ahalbidetzen dute.

Prestakuntza-ekintzak langile eta langabetu guztien lanbide-trebakuntzaren eta gaitasunaren jabetzera eta hobetzera daude zuzenduta, baina lan-merkatuan sartzeko edo bertan jarraitzeko zailtasun gehien dituzten taldeek izango dute lehentasuna (emakumeek, 45 urtetik gorakoek, ezinduek, etab.).

Langabetuentzako lanerako prestakuntza-jarduerak enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistemaren[14] eta Lantegi Eskoletako eta Lanbide Etxeetako, Sustapen eta Garapen Unitateetako eta Enpresa Ekimeneko Zentroetako programen bidez burutzen dira. EEZPk lanerako prestakuntza-ekintzak burutzen ditu bere zentroetan (EAEn bi zentro ditu, bata Lasarten eta bestea Sestaon) eta, batez ere, zentro laguntzaileetan homologaturiko prestakuntzen espezializazioetan buruturikoak finantzatzen ditu kontratu-programen edo lankidetza-hitzarmenen bidez. Berez, prestakuntza-ekintza horien % 95 baino gehiago finantzatzen du.

Jarduera horiek Europako Gizarte Funtsak diruz laguntzen ditu partzialki. 16 eta 65 urte arteko ikasleentzat doan dira eta ondorengo taldeei daude zuzenduta:

– 25 urtetik beherako langabetuak: iraupen labur eta luzeko langabetuei eta emakumeek ordezkapen urria duten eta behar bestekoak edo behar bezalakoak ez diren lanbide-trebakuntza duten espezialitateetako emakumeei zuzendutakoa.
– 25 urtetik gorako langabetuak: Honako hau ere iraupen labur eta luzeko langabetuei eta emakumeei (iraupen luze edo laburrekoak, 5 urteko langabezia dutenak emakumeek ordezkapen urria duten lanbideetan, eta familiako erantzukizunak dituztenak) dago zuzenduta, eta oinarrizko trebakuntza eta lanbidea hobetzea edo birziklatzea da helburua
– Beste talde batzuk: Ezinduak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin batera), immigranteak eta haien senideak (Immigrazioko Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak egindakoa edo beste erakunde batzuekin), askatasuna gabetuta duten pertsonak, eta abar.
– Prestatzaileak: Planean parte hartzen duten irakasleen eguneratze tekniko-pedagogikora edo prestakuntzara zuzendurikoa.

EEZPk guztira 906 prestakuntza-ekintza finantzatu zituen 2009an (behin-behineko datuak). Kopuru hori % 46,1 hazi da 2008 urtearekin alderatuta; hiru lurraldeetan egin du gora.

Beste alde batetik, enplegurako eta prestakuntzarako jarduera misto gisa, EEZPk EAEko Lantegi Eskolak, Enplegu Tailerrak eta hiru Lanbide Etxeak finantzatzen ditu. 25 urtetik beherakoak eta laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuei daude zuzenduta. Lantegi Eskolak eta Lanbide Etxeak enplegu-prestakuntzarako programak dira eta haien helburua laneratzea da prestakuntza lanbideko jardunarekin txandakatuz ondare historikoa, kulturala edo naturala berreskutzearekin loturiko lanpostuetan. Enplegu Tailerrak prestakuntzako eta enpleguko ekin-

[14] Enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistema berria martxoaren 23ko 395/2007 EDren bidez arautzen da. Dekretu horren bidez aurreko Lanerako Prestakuntza Plana (FIP) indargabetu egiten da.

II.5.29. TAULA. Lantegi eskoletako eta lanbide etxeetako parte hartzaileak EAE-n

	GUZTIRA			LANTEGI ESKOLA			LANBIDEA ETXEA-ENPLEGU TAILERRA		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2005	1.122	595	527	151	133	18	971	462	509
2006	1.219	623	596	154	118	36	1.065	505	560
2007	1.146	560	586	205	161	44	941	399	542
2008	1.251	608	643	200	167	33	1.051	441	610
2009	1.366	713	653	237	222	15	1.129	491	638

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

tzak bateratzen dituzten programak dira eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten 25 urtetik gorako langabetuei daude zuzenduta (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langileak, emakumeak, ezinduak), interes orokor edo soziala duten arloetan.

Azkenik, EEZPk tokiko korporazioekin ere jarduten du lankidetzan interes sozialeko enpleguen programetan. Programa horietan laneratzeko esperientziazko planak burutzeko diru-laguntza publikoa aztertzen da tokiko korporazioek edo mendeko eta toki-administrazio bati loturiko erakundeek kontratatzen dituzten langabetuen taldeen lan-gaitasunak hobetzeko interes orokor eta sozialeko obra eta zerbitzuetan.

Etengabeko Prestakuntza

Enplegurako Prestakuntzaren Tripartita Fundazioak sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan (Sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza-planetarako, gizarte-ekonomiarako eta langile autonomoentzako) 2009an 124.931 parte-hartzailek hartu zuten parte behin behineko datuen arabera, hau da, 2008an baino % 5,9 gehiagok, 12.691 enpresa formatzaileren esku-hartzeari esker.

Kategoria bakoitzeko, parte-hartzerik handiena izan duen profesionalen taldea langile gaituena izan da (prestaturiko parte-hartzaileen % 44,3 eta egindako prestakuntza-orduen % 44,6);aldiz, funtzio-arloei dagokienez, ekoizpenaren arloa da gehien nabarmentzen dena (parte-hartzaileen % 56,5 eta prestakuntza-orduen % 54,1). Batez beste, langile bakoitzeko 28 ordu izan ziren 2009an (2008an 26,4). Administrazioaren arloko langileek parte-hartzaile bakoitzeko 40,4 prestakuntza-ordu egin zituztela nabarmentzen da.

EAEn Prestakuntza-ekintza horien (langile guztiak oinarri hartuta, sektore publikoa kanpo, prestaturiko parte-hartzaileak) estaldura-tasa % 17,5 izan zen 2008an, urte horretakoa da eskura dagoen azken datua, alegia. Estatuko bigarrena da zerrenda Madrilgo Erkidegoaren ondotik.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, emandako 100 baino ikastaro gehiagoren artean, parte-hartzeari dagokionez, lan-osasunari eta lan-arriskuen prebentzioari, hizkuntzei eta erabiltzaileentzako informatika-ofimatikari loturiko ikastaroen parte-hartzea nabarmentzen da. Azken lau urteetan hiru gai horietan prestatu da parte-hartzaileen herena, batez beste.

II.5.26. GRAFIKOA. Tripartita Fundazioa: EAEn prestaturiko parte-hartzaileak enpresako enplegu-mailaren arabera. Datuak portzentajetan adierazita, 2009



Iturria: Enplegurako Prestakuntzaren Tripartita Fundazioa

II. 5.30. TAULA. Enplegurako prestakuntzaren Tripartita Fundazioa: enplegurako prestakuntza EAE-n, 2005-2009 ekitaldietako bilakaera

Eskaintzaren prestakuntza	2005	2006	2007	2008 (behin-behinekoa)	2009 (aurrerapena)
EAEn prestaturiko parte-hartzaileak	51.305	60.449	102.744	117.964	124.931
Batez besteko prestakuntza-orduak	31,3	30,0	25,7	26,4	28,0
FINANTZIAZIOA:					
Esleitutako kreditua	9.453.121	12.377.107	14.972.028	19.457.618	37.317.024
Erabilitako kreditua	5.151.791	6.630.691	9.382.122	12.434.417	24.571.339
Enpresa formatzaileak	2.349	3.088	4.412	7.744	12.691
Estaldura-tasa*	3,6	4,7	6,5	11,3	18,3
Estatuko eskaintza-prestakuntza					
Prestaturiko parte-hartzaileak	18.392	24.128	11.434	45.041	31.725
Batez besteko prestakuntza-orduak	50,6	52,0	63,8	105,0	..
Autonomia erkidegoko eskaintza-prestakuntza					
Prestaturiko parte-hartzaileak	13.578	19.759	23.535	..	..
Batez besteko prestakuntza-orduak	54,1	67,8	87,5	..	..
Prestakuntza guztira					
Prestaturiko parte-hartzaileak	**83.275**	**104.336**	**137.713**	**163.005P**	**156.656A**
Tasa de cobertura ocupados**	**10,0**	**12,3**	**15,3**	**17,5**	**-**

(*) GSDOn izena emanda duten enpresa kopuruan oinarrituta kalkulaturiko estaldura-tasa, sektore publikoa izan ezik.
(**) Langile guztien (sektore publikoa izan ezik) kopuruan oinarrituta kalkulaturiko parte-hartzaile prestatuak BAIren arabera (EIN).
Iturria: Enplegurako Prestakuntzaren Tripartita Fundazioa.

II.5.31. TAULA. Etengabeko prestakuntza EAE-ko enpresetan enplegurako prestakuntzaren tripartita fundazioaren bidez, lan profilaren arabera prestaturiko parte hartzaileak

Lanbide kategoria	2008					2009*				
	Prestaturiko parte-hartzaileak		Egindako presta-kuntza-orduak		Orduak batez beste	Prestaturiko parte-hartzaileak		Egindako presta-kuntza-orduak		Orduak batez beste
	Absolutua	%	Absolutua	%		Absolutua	%	Absolutua	%	
Zuzendaria	4.889	4,1	184.06	5,9	37,6	5.379	4,3	206.771	5,9	38,4
Erdi mailako karguduna	11.136	9,4	349.285	11,2	31,4	11.871	9,5	379.455	10,8	32,0
Teknikaria	27.105	23,0	774.011	24,9	28,6	28.218	22,6	845.860	24,2	30,0
Langile kalifikatua	49.033	41,6	1.262.736	40,6	25,8	55.312	44,3	1.560.760	44,6	28,2
Kalifikazio gabeko langilea	25.789	21,9	540.944	17,4	21,0	24.151	19,3	504.561	14,4	20,9
Funtzio-arloa										
Administrazioa	18.533	15,7	637.362	20,5	34,4	19.038	15,2	769.909	22,0	40,4
Merkataritza	22.352	19,0	494.037	15,9	22,1	21.650	17,3	422.504	12,1	19,5
Zuzendaritza	4.517	3,8	166.818	5,4	36,9	5.579	4,5	197.341	5,6	35,4
Mantenimendua	7.270	6,2	179.193	5,8	24,6	8.098	6,5	214.928	6,1	26,5
Ekoizpena	65.280	55,3	1.633.626	52,5	25,0	70.566	56,5	1.892.725	54,1	26,8
GUZTIRA	**117.964**	**100,0**	**3.111.408**	**100,0**	**26,4**	**124.931**	**100,0**	**3.497.407**	**100,0**	**28,0**

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN TRIPARTITA FUNDAZIOA.

II.5.32. TAULA. EAE-n enplegua sustatzeagatiko hobariak gizarte segurantzaren kotizazioan. Euroak

	2008	2009	Ald. %-tan, 08/09
ARABA	29.883.563	32.790.752	9,7
GIPUZKOA	75.289.695	76.114.313	1,1
BIZKAIA	99.475.039	99.872.291	0,4
EAE-N GUZTIRA	**204.648.297**	**208.777.356**	**2,0**

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

c) ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAK

Lan eta Immigrazio Ministerioaren sustapen ekonomikoarekin, enplegua sortzen laguntzeko programen artean, enplegua sustatzeagatiko hobaria nabarmentzen da. Enplegua sustatzeak eginkizun horretan baliabide gehien biltzeaz gain, EAEn egindako Enplegu Politika Aktiboen artean baliabide gehien biltzen dituena da. Kontratazio mugagabea sustatzera eta aldi bereab zailtasun gehien dituzten taldeei arreta ematera ere zuzenduriko laguntza horiek (iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, gazteak, ezinduak eta berrogeita bost urte

baino gehiagoko langileak) 1997ko lan-erreforma oinarri hartuta garatzen dira.[15]

Bestalde, 45/2002 Legeak 2002ko enplegua sustatzeko programako langatuen talde jakinak mogagabe kontratatzeagatik sustaoen handitu zuen eta hiru programa berri ezarri zituen (langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituztenen kontratazioa sustatzeari, prestakuntzan dauden langileak ordezkatu bitartean; langabeziagatiko diru-laguntza besteren konturako lanarekin bateragarri egitea ahalbidetzeari; eta langabetuen mugikortasun geografikoa sustatzeari).

Ordutik aurrera kontratazioari pizgarri mota horien erabileran hazkunde etengabea eman zen, eta 2009an, behin-behineko datuen arabera, 208.777 mila euro izan ziren, 2008an baino % 2 gehiago. Programa horren barruan kontrataturiko langileen kopurua 215.532 izan zen (2005. urtearekin alderatuta +% 11,9) 2006an, urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua, hau da, kontrataturiko pertsona bakoitzeko batez beste 965 euroko hobaria, haren aurreko urtean baino 22 gehiago.

Beste programa osagarri batzuk enplegua babesteari buruzkoak dira tokiko garapena sustatzeko eta E+E gisa kalifikatutako proiektuak eta enpresak bultzatzeko, enplegu autonomoa eta ezinduen laneratzea sustatzeko. 2009ko datuek adierazten dute 47 milioi euro eman zirela guztira jarduera horiek gauzatzeko, aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago. Laguntzen banaketa oso egonkorra izan da azken urteetan. 2009an

II.5.33. TAULA. Lan eta Immigrazio Ministerioaren enplegua sustatzeko programak EAE-n (mila eurotan)

	GUZTIRA	Tokiko garapenaren sustapena eta proiektuen eta enpresen bultzada E+E*	Enplegu autonomoaren sustapena	Ezinduen laneratzea**
2004	26.467	2.294	2.820	21.353
2005	28.322	2.295	2.565	23.462
2006	34.141	1.885	2.722	29.533
2007	35.822	2.243	3.507	30.072
2008	48.724	1.887	16.140	30.697
2009	47.083	2.490	14.351	30.242

*Tokiko Korporazioek, Enplegu eta Tokiko Garapenaren Eragileek eta E+E gisa (ekimena+enplegua, haien helburua tokian enplegua sustatzea da) kalifikaturiko enpresek egindako azterlanak eta kanpainak barne hartzen ditu.
**Ezinduak Enplegurako Zentro Berezietan laneratzeko laguntzak eta diru-laguntzak barne hartzen ditu, baita talde horrentzako enplegu mugagabea sustatzeko diru-laguntzak ere.
Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

[15] Enplegua egonkortzeko konfederazio arteko akordioa, ondoren, maiatzaren 16ko 8/1997 Errege Lege Dekretuan, lan-merkatua hobetzeko eta kontratu mugagabea sustatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 63/1997 Legean eta kontratazio mugagabea sustatzeko Gizarte Segurantzako eta izaera fiskaleko sustapenak arautzen dituen abenduaren 26ko 64/1997 Legean azaldu zen. 1999tik 2003ra enplegua sustatzeko programek, urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea osatzen duten neurri fiskalei, administrazio-neurriei eta lan arlokoei buruzko Legean barne hartzen direnak, sustapenen sistema eguneratzen dute aldian behin (Neurri fiskalei, administrazio-neurriei eta lan arlokoei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legea, 2002ko abenduaren 31ko BOE).

laguntzen % 64 ezinduen laneratzera zeuden bideratuta, % 30 enplegu autonomoa sustatzera, eta gainerako % 6 tokiko ekimenetara. Azken horiek, batez ere, kontratazio mugagabeak eta tokiko enplegu-eragileak diruz laguntzeko izan ziren.

5.5.2 Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Politikak

Bitartekotza, informazioa eta orientazioa

Euskal Enplegu Zerbitzua-LANBIDE, orientaziorako, prestakuntza osatzeko eta lanerako prestakuntzarako zerbitzua, Enpleguaren aldeko Instituzioen arteko Plana 2003-2006 oinarri hartuz jarri zen abian. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren mende dago, eta bitartekotza-zerbitzuez gain, informazio-zerbitzua, lanbide-orientazioa eta enpleguaren sustapena ere eskaintzen ditu.

LANBIDEk 2009ko laugarren hiruhilekoan 66.948 enplegu-eskari erregistratu zituen guztira)2008ko laugarren hiruhilekoan baino % 29,9 gehiago). Iturri honen arabera, eskari horien % 88,4 langabezian daude. Enplegu-eskatzaileen kopuru handiena duen adin-taldea 25 eta 34 urte artekoena da (% 35,6) eta, ondoren, segidako adin-taldea, 35 eta 44 urte artekoa (eskatzaileen % 29,1). Sexuen arteko banaketari dagokionez, % 49,2 emakumeak dira (urtebete lehenago % 53,5).

II.5.34. TAULA. Lanbideren bidez gehien eskainitako eta eskatutako lanpostuak, 2009ko IV. hiruhilekoa

Lanpostua	Eskaintzak	Eskaria	EE*
ESKARIRIK HANDIENA (LANBIDEKO ESKATZAILE AKTIBOEN ARABERA)			
Garbiketa-langilea	411	12.989	3,0
Denda-saltzailea	133	9.157	1,0
Enplegatu administraria	229	8.138	2,0
Zamalanetako langilea, biltegian eta/edo merkatuan	73	7.481	0,0
Hipermerkatuko apal-betetzailea	111	6.625	1,0
ESKAINTZARIK HANDIENA (AURREKOAK BARNE HARTU GABE)			
Merkataritzako agentea	732	1.738	42,0
Elkarrizketaria-inkestagilea	549	337	162,0
Aseguru-agentea	359	86	417,0
Hezkuntzako eta astialdiko monitorea	333	1.060	31,0
Teknikari administraria, orokorrean	285	5.460	5,0
LAN AUKEREN INDIZEAREN ARABERA** (AURREKOAK BARNE HARTU GABE)			
Saltzaile ibiltaria	146	28	521,0
Kupoi-salmentako enplegatua (ONCE)	66	14	471,0
Soldadu profesionala	40	11	363,0
Medikua, medikuntza orokorra	40	26	153,0
Ibilgailuetako beira edo lunen instalatzailea	20	24	83,0

(*) Lan-aukeren indizea, 100 lan-eskaintzaileko enpresek eskatzen duten lanpostu kopurua., (**) 15 lanpostu baino gehiago eskainiz.
Iturria: LANBIDE.

II.5.27. GRAFIKOA. LANBIDEn izena emanda duten enplegu-eskatzaile aktiboak. IV. hiru hilekoa



Iturria: LANBIDE

II.5.35. TAULA. Enplegu eskatzaile aktiboak lanbiden. IV. Hiruhilekoa. 2009

	Guztira	% s/ guztira.	Langabezia-tasa BJA	Gizonak	Emakumeak
16-24	9.373	14,0	23,0	5.540	3.833
25-34	23.826	35,6	11,0	11.814	12.012
35-44	19.454	29,1	7,0	9.541	9.913
45-54	11.702	17,5	5,6	5.728	5.974
55 urte eta gehiagokoak	2.563	3,8	3,2	1.355	1.208
GUZTIRA*	**66.948**	**100,0**	**8,1**	**33.996**	**32.952**

(*) Adinaren daturik ez duten pertsonen izen-emateak ere barne hartzen ditu.
Iturria: LANBIDEren eta EUSTATen datuekin egindakoa.

Bestalde, LANBIDEk zerbitzu horren eta bere zentro laguntzaileen bidez 14.379 lanpostu eskaintzen ditu (2008ko laugarren hiruhilekoan baino % 36,7 gutxiago).

LANBIDEren bidez gehien eskainitako eta eskatutako lanpostuei dagokienez, aurreko urteetan bezala titulazio eta/edo espezializazio baxuko eskakizuna mantentzen da, batez ere zerbitzuen sektorean (ohikoa da enplegu zerbitzu publikoetan, "kalitatezko" enpleguak langileak aukeratzen dituzten enpresa pribatuen bidez hedatzen baitira). Hala ere, lan-aukeren maila handia eta behar besteko eskaintza dutelako, nabarmenak dira merkataritzako eta aseguruetako agenteen, hezkuntzako eta astialdiko monitoreen eta elkarrizketari-inkestagileen lanpostuak

b) Lanbide-prestakuntza

LANERAKO PRESTAKUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko prestakuntza-programak 2004tik modu esanguratsuan aldatu ziren, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen abenduaren 23ko 327/2003 dekretua, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua, eta lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua onetsi ondoren eta uztailaren 29ko 191/2003 Dekretua indarrean mantenduz. Azken dekretu horrek enpresarien elkarteei eta sindikatuen erakundeei, beren

II.5.28. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Prestakuntza Zuzendaritzaren Prestakuntza Ekintza eta Programen Emaitzak



Iturria: EUSKO JAURLARITZA

II.5.36. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren enplegu eta prestakuntza zuzendaritzaren prestakuntza ekintzak eta programak

	2007				2008			
	Ekintza kopurua	Ordu kopurua	Parte-hart-zaile kop.	Diru-laguntza guztira ( )	Ekintza kopurua	Ordu kopurua	Parte-hart-zaile kop.	Diru-laguntza guztira ( )
Enplegurako Orientazio Zerbitzua	**524**	**5.486**	**4.067**	**0**	**122.551**	**127.337**	**58.234**	**4.758.355**
Europar Batasunaren Planak	11	0	0	609.869	0	0	0	0
Lanerako prestakuntza	**585**	**713.924**	**8.366**	**10.517.071**	**551**	**454.653**	**7.182**	**11.644.912**
Enplegu-Prestakuntza ekintzak	61	20.287	608	1.391.821	32	12.113	292	816.568
% 60ko kontratatzeko konpromisoa duten ekintzak	36	44.398	574	1.089.203	49	56.292	640	1.307.566
Instituzio arteko Planetatik eratorritako ekintzak	23	35.083	391	625.142	29	53.832	369	674.070
Prestakuntzako beste ekintza batzuk	465	614.156	6.793	7.410.906	441	332.416	5.881	8.846.709
Enpresa Sustapena	**525**	**32.668**	**16.035**	**1.861.733**	**1.461**	**36.107**	**9.851**	**1.276.235**
Kultura ekintzailea hedatzeko ekintzak	68	3.367	12.037	206.330	328	3.645	5.811	214.230
Taldeko prestakuntza-ekintzak	199	10.054	2.486	639.968	184	9.506	2.226	612.920
Banakako aholkularitzarako ekintzak	60	19.247	1.314	592.435	53	12.753	918	490.805
Gaztempresa	198	0	198	423	896	10.203	896	400
Enpresarien eta sindikatuen erakundeetako kideen prestakuntza	**338**	**14.219**	**21.795**	**1.250.080**	**803**	**11.806**	**19.515**	**1.287.580**
Enpresarien erakundeen prestakuntza	232	4.896	6.812	409.147	129	2.382	4.507	426.282
Sindikatuen erakundeen prestakuntza	106	9.323	14.983	840.933	674	9.424	15.008	861.298
Terrorismoaren biktimen arreta	24	0	24	60	33	0	33	61.800
GUZTIRA	**2.007**	**766.297**	**50.287**	**14.298.753**	**125.366**	**629.903**	**94.782**	**18.967.082**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, EUSKO JAURLARITZA

jarduera eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen du.

Guztira, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren Prestakuntza Ekintzek eta Programek 19 milioi euroko gastua eragin zuten 2008an, urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua, hau da, haren aurreko urtean baino % 32,9 gehiago. Funts horien % 61 Lanerako Prestakuntzari loturiko ekintzetara bideratu ziren, % 6,8 enpresa-sustapenera eta beste % 6,8 enpresarien eta sindikatuen erakundeetako kideen prestakuntzara.

Etengabeko Prestakuntza[16]

Indarrean den araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorio gisa, pertsonen eta enpresen arteko etengabeko prestakuntza-jarduerak EAEn kudeatzen dira Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Enplegurako Prestakuntzaren Tripartita Fundazioaren bidez. Ekintza horien finantzazioa Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik eratorritako funtsen kargura egiten da batez ere, bai administrazio zentralarenak (EEZPri emandakoak) zein Eusko Jaurlaritzarenak, HOBETUZen kasuan.

Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntza-jardueren kasuan, 2008an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 756 espediente kudeatu zituen guztira (509 plan barne hartuz), 56,248 pertsonaren prestakuntza ahalbidetuz. Horretarako 26,2 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren. HOBETUZ organismoak langileen etengabeko prestakuntza

II.5.37. TAULA. HOBETUZ 2008ko deialdiaren balantzea

		PLAN MOTA	ESPEDIENTEAK	EMANDAKO DIRU LAG.	PARTE-HARTZAILEAK
ENPRESAK		ENPRESAKO PLANAK	257	3.842.884	13.183
		ENPRESA TALDEEN PLANAK	55	1.130.442	3.993
		ENPRESAKO DIAGNOSTIKOAK	159	520.258	0
		ENPRESA TALDE ETA ENPRESAZ GAINDIKOEN DIAGNOSTIKOAK	38	315.363	0
		GUZTIRA	**509**	**5.808.947**	**17.176**
LANGILEAK	PLAN SEKTORIALAK SEKTORE ARTEKOAK	ERAKUNDE SINATZAILEAK	19	5.051.061	11.270
		SEKTORIAL ERAK. SINATZAILEA	3	503.972	891
		SEKTORE ARTEKOA ERAK. SINATZAILEA	16	7.547.088	10.379
	PRESTAKUNTZAKO ERAKUNDEEN PLANAK-AUTONOMOAK, EKONOMIA SOZIALA ETA EZ SINATZAILEAK	SEKTORIALA PRESTAKUNTZAKO ERAKUNDEAK	17	274.042	1.127
		SEKTORIAL EZ SINATZAILEA	13	341.919	1.121
		KATALOGO MODULARRA	74	6.832.773	8.374
		EKONOMIA SOZIALA	2	243.773	146
		AUTONOMOAK	3	340.740	178
		SEKTORE ARTEKOA PRESTAKUNTZAKO ERAKUNDEAK	119	4.305.157	16.856
		GUZTIRA	**247**	**20.389.465**	**39.072**
		GUZTIRA	**756**	**26.198.412**	**56.248**

[16] 5.5.2 atalean xehetasunez azaltzen den moduan, 2007an Etengabeko Prestakuntza aldatu egin zen 395/2007 ED onestearen ondorioz. Dekretu horren bidez Enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistema arautzen da eta 1046/2003 Errege Dekretua ordezkatzen du. Azken dekretu horrek Etengabeko Lanbide Prestakuntza arautzen zuen, etengabeko prestakuntza eta lanerakoa barne hartuz.

II.5.29. GRAFIKOA. HOBETUZen deialdietako emaitzen bilakaera



Iturria: Hobetuz.

kudeatzen du EAEn eta patronalen, sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariek osatzen dute. 2009ko emaitzei dagokienez, parte-hartzearen behin betiko datuak jakin gabe, guztira 1,080 espediente kudeatu dira eta 28,63 milioi euroko diru-laguntzak eman.

Beste alde batetik, 2007ko emaitzak bateratuz deialdi hartako parte-hartzaileen profila jakin daiteke: parte-hartzaile gehienak gizonezkoak dira gehienbat (% 58), eta 25 eta 45 urte arte adina dute (guztien % 71,8). 25 urtetik beherakoak % 11,4 dira eta 45 urtetik gorakoak % 16,8. Ikasketa mailari dagokionez, % 43,2k bigarren hezkuntzako ikasketak ditu eta % 36k unibertsitate-ikasketak. Lan egiten duten jarduera-sektoreari dagokionez (parte-hartzaileen % 6,7 baino ez dago langabezian), hirugarren sektorea da parte-hartzaile gehien dituena (% 54), eta ondoren, industria (% 33,3).

Gehienek enpresa pribatuetan egiten dute lan (% 63k, langile autonomoak barne), eta % 18,6k gizarte-ekonomian. Azkenik, langile parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok 50 langile baino gehiagoko enpresetan egiten du lan (% 55,6) eta ia % 15,8k 10 langile baino gutxiagoko enpresan burutzen du lanbidea.

c) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez buruturiko enplegu-politika aktiboak, esan bezala, modu esanguratsuan aldatu ziren 2004an lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua eta Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua onestearen ondorioz.

Lehenengo dekretuak, Enpleguaren aldeko Instituzioen arteko Plana 2003-2006 oinarri duena, laneratzeko zailtasunak dituzten langabetuen taldeak kontratatzeko laguntza berriak arautzen ditu eta dekretu horrek indargabetzen dituen hainbat arautan jasotako aurreko jarduerak taldetan jartzen ditu. Bestalde, 328/2003 Dekretuak langabetuek osaturiko enpresen sorrera babesteko diru-laguntzak ezartzen ditu eta abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua indargabetzen du. Dekretu horren bidez autoenplegua sustatzeko neurriak arautzen dira. Dekretu horiek garatzen dituzten enplegurako laguntzak jarduteko bost ildotan banatzen dira:

- Laguntzen lehenengo ildoa lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten taldeen laneratzeari mesede egitera eta mugagabeko kontratazioa sustatzera eta aldi baterako kontratua mugagabeko bihurtzera bideraturiko laguntzak dira.
- Laguntzen bigarren ildoak enpresetako langileen berritzea babesten du txandako lan-kontratuen laguntzen bidez, langabetu gisa izena emanda duten pertsonekin egindako kontratuen laguntzak zein enpresarekin iraupen jakineko kontratua izenpetuta duten langileekin[17] egindakoenak, baita sozietate koorperatiboetako langileak berritzeko laguntzen bidez ere.

[17] Txandako lan-kontratua lanaldi osokoa izan behar da eta mugagabea edo bestela, iraupen jakina izango duela adostuz gero, kontratuaren amaieran mugagabeko kontratu bihurtuko delakoaren konpromisoa bete beharko da.

II.5.38. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren enplegua sustatzeko programak 2008an. (Diruz lagundutako langileak, diru laguntzak mila eurotan eta batez besteko diru laguntzak eurotan)

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Langile kop.	Diru-laguntzak guztira	Batez besteko diru-laguntza (€-tan)	Langile kop.	Diru-laguntzak guztira	Langile kop.	Diru-laguntzak guztira	Langile kop.	Diru-laguntzak guztira
Kontratazioa (1)	1.026	4.668	4.550	91	458	452	2.411	483	1.801
Langileak berritzea (2- Txandako lan-kontratua)	909	4.781	5.259	125	680	427	2.216	357	1.885
Kooperatibetako langileak berritzea (2- Erretiratzen den bazkidearentzako laguntzak)	56	508	9.073	3	27	9	69	44	412
Kooperatibetako langileak berritzea (2- Sozietateko kontratu berriak)	86	410	4.771	5	27	15	73	66	310
Lan-denboraren banaketa (3)	53	123	2.329	0	0	39	94	14	29
Enplegu-prestakuntzen proiektuak (4)	296	2.342	7.912	81	560	145	1.278	70	465
Laneko eta familiako bizitza bateratzea (5-Enpresak)	697	833	1.196	133	146	248	276	316	411
Enpresen sorrera (6)	1.473	8.810	5.981	182	1.084	712	4.262	579	3.464
PROGRAMAK GUZTIRA	**4.596**	**22.476**	**4.890**	**620**	**3.021**	**2.047**	**10.678**	**1.929**	**8.776**

329/2003 Dekretua: (1) II. kap; (2) III. kap; (3) IV. kap; (4) V. kap.; (5) VI. kap;
328/2003 Dekretua: (6) IV. kapitulua
2007ko abenduaren 28ko Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuena: (7).
Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Eusko Jaurlaritza.

– Laguntzen hirugarren ildoak lan-denboraren banaketa sustatzen du. Horretarako, aparteko orduak kentzeko eta egoera jakinetan lanaldia murriztea edo kentzea adostu duten langileak eta bazkideak edo lan-kontratuak ordezkatzeko kontratuetarako laguntzak ematen dira.
– Laguntzen laugarren ildoa tokiko Enplegu-Trebakuntza Proiektuetako lan-kontratuak diruz laguntzera dago bideratuta. Proiektu horien prestakuntza-faseak lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen Dekretuan ezarritakoaren arabera diru-laguntza jaso dutenak dira.
– Laguntzen bosgarren ildoa laneko eta familiako bizitza bateratzeari mesede egitera dago bideratuta, langabetuak kontratatzen dituzten enpresa pribatuentzako laguntzen bidez. Langabetu horiek sei urtetik beherako seme-alabak edo adin hori baino nagusiagoak diren ezinduak zaintzeko eszedentzia

II.5.30. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzaren enplegu prestakuntzako programen emaitzen bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
(*) 2007-07-28tik hasita adiskidetzera bideraturiko laguntzak Familia Zuzendaritzak kudeatzen ditu.

edo lanaldia murrizteko eskubideak baliatzen dituzten besteren konturako langileak ordezkatzen dituzte[18].

Enplegu Programa horietako onuradunak 4.596 izan ziren 2008an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken informazioa), 2007an baino % 58,3 gutxiago, eta 22,5 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (aurreko urtean baino % 28,8 gutxiago). Onuradunen kopuruak programen zenbateko osoa baino neurri handiagoan egin duenez behera, batez besteko zenbatekoa, 4.890 €, aurreko urtekoa baino % 70,5 handiagoa izan zen.

[18] 2007. urtearen erdira arte, ildo horrek eszedentziak edo lanaldiaren murrizketak baliatzen zituzten langileen laguntzak ere barne hartzen zituen. Uztailaren 28tik hasita horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Familia Zuzendaritzak kudeatu zituen. Atal honek onuradunen kopuru handia eta funts ugari zituenez, enplegua sustatzeko programen emaitzen urteko bilakaera aztertuz gero, 2007an eta 2008an onuradunen kopurua eta aurreko urteekin alderatuta laguntzen zenbatekoak murriztu egin zirela ikus daiteke (ikus grafikoa).

Laneko eta familiako bizitza bateratzeko laguntzen onuradunak diren langileei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi memoria honetako “Demografia eta Immigrazioa” kapitulua.

6

Prezioak, kostuak eta errentak

6.1. ONDASUNEN ETA KONTSUMOKO ZERBITZUEN PREZIOAK

Orokorrean, prezioen bilakaera arina izan zen 2009. urtean zehar gure Erkidegoan. Edonola ere, urtearen amaiera aldera nolabaiteko gorakada ikus daiteke. EINen "*Kontsumoko prezioen indizeak*" (KPI) batez besteko % 0,3ko hazkundea eduki zuen bakarrik (% +4,1 aurreko urtean), eta hori bat dator 1979. urtean EAE-rentzat estatistika hauek argitaratzen hasi zirenetik erregistratutako balio baxuenarekin. Zehazki, urtea inflazioaren beheranzko joera biziarekin hasi zen, petrolioaren eta, orokorrean, lehengaien prezioan beherakada sendoa egoteagatik nahiz eskaria ahula izateagatik. Beheranzko joera horrek jarraitu egin zuen, uztailean % -0,6ko gutxienekora iritsi arte. Ondoren, gorantz egin zuen, azaroan balio positiboetara igaroz eta urtea % 1ean amaituz.

Bestalde, azpian ageri den inflazioak (alegia, energia produktuei eta elikagai freskoei dagokien zatia kenduta, "hondarreko inflazioa" deitzen dena eratuko bailukete) beheranzko bilakaera eduki zuen 2009. urtean zehar, urtarrileko % 2,3tik abenduko % 0,5era igaroz etxeetako eskariaren presioa txikiagoa izateagatik. Inflazio orokorrak ez bezala, azpian ageri denak neurrizkoa izateko joerarekin jarraitzen du 2009. urtearen amaieran.

Azpian ageri den inflazioa eratzen duten talde berezi guztiak bilakaera honen erantzule izan ziren: Landutako

II.6.1. GRAFIKOA. Kontsumoko prezioen indizea: urte arteko aldakuntza tasak. EAE eta Estatua



Iturria: EIN.

II.6.1. TAULA. Kontsumoko prezioen indizearen banakapena: batez besteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2005	2006	2007	2008	2009	Ekarpena
Inflazio osoa (% 100)	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3	0,8
Azpian dagoen inflazioa (% 83,9)	2,7	2,9	2,8	3,2	1,1	0,2
- Landutako elikagaien KPIa (% 13,3)	3,5	3,6	4,0	6,6	1,2	0,0
- Industriako ondasunen KPIa (% 28,9)	0,7	1,4	0,7	0,6	-1,9	-0,3
- Zerbitzuen KPIa (% 41,7)	3,9	3,7	3,9	3,9	2,5	0,4
Hondarreko inflazioa (% 16,1)	6,3	6,1	3,0	8,5	-3,6	0,6
- Landu gabeko elikagaien KPIa (% 6,9)	4,3	4,3	4,2	5,0	0,2	-0,2
- Energiaren KPIa (% 9,2)	8,4	7,9	1,9	11,6	-7,3	0,8

Iturriak: EIN eta Eusko Jaurlaritzaren Koiunturaz buletina.

II.6.2. TAULA. KPIH: Urte arteko aldakuntza tasak. 2005eko oinarria

	2007ko ABEN.	2008ko ABEN.	2009ko ABEN.
EB	**3 ,2**	**2,2**	**1,5**
BEM	**3 ,1**	**1,6**	**0,9**
BELGIKA	3 ,1	2,7	0,3
BULGARIA	11 ,6	7,2	1,6
TXEKIAR ERREP.	5 ,5	3,3	0,5
DANIMARKA	2 ,4	2,4	1,2
ALEMANIA	3 ,1	1,1	0,8
ESTONIA	9 ,7	7,5	-1,9
IRLANDA	3 ,2	1,3	-2,6
GREZIA	3 ,9	2,2	2,6
ESPAINIA	**4 ,3**	**1,5**	**0,9**
FRANTZIA	2 ,8	1,2	1,0
ITALIA	2 ,8	2,4	1,1
ZIPRE	3 ,7	1,8	1,6
LETONIA	14 ,0	10,4	-1,4
LITUANIA	8 ,2	8,5	1,2
LUXEMBURGO	4 ,3	0,7	2,5
HUNGRIA	7 ,4	3,4	5,4
MALTA	3 ,1	5,0	-0,4
HOLANDA	1 ,6	1,7	0,7
AUSTRIA	3 ,5	1,5	1,1
POLONIA	4 ,2	3,3	3,8
PORTUGAL	2 ,7	0,8	-0,1
ERRUMANIA	6 ,7	6,4	4,7
ESLOVENIA	5 ,7	1,8	2,1
ESLOVAKIA	2 ,5	3,5	0,0
FINLANDIA	1 ,9	3,4	1,8
SUEDIA	2 ,5	2,1	2,8
ERRESUMA BATUA	2 ,1	3,1	2,9

Iturria: EUROSTAT.

elikagaien izen gehienek aurreko hiruhilekoetako balioak baino balio baxuagoak dituzte, industriako ondasunek bezala. Horiek beherantz egiten dute ibilgailuen prezioaren beherakadagatik, horiek erosteko emandako laguntza publikoen eta kontzesionarioek aplikatutako deskontuen ondorioz. Bitartean, zerbitzuak, egoera ekonomikoaren aurrean sentikortasun gutxikoak izaten direnak, minimora iritsi ziren (% 1,7) laugarren hiruhilekoan.

Hondarreko inflazioa ere (elikagai freskoak gehi energia produktuak) erori egin zen azkeneko urtean. Horren arrazoia hauek izan ziren: landu gabeko elikagaiek beherakada garrantzitsua erregistratu zuten eta energia produktuen prezioak –erregaietan oinarrituta– oso tasa baxuetan mugitu ziren. Aitzitik, urteko azken hilabeteetan azken horien joera aldatzen da, eta energiaren prezioak areagotu egiten dira.

Produktu taldeka egindako azterketan, ikus daiteke % 1eko urte arteko hazkundean eragin gehien eduki duena, lehenik eta behin, garraioa izan dela, aurreko urtean erregistratutako tasa baino tasa askoz ere altuagoa edukiz. Horrela, % 3,8 lortzen du (2008ko abenduan baino % -5,8) erregaien prezioa lehengoratzeagatik. Bigarrenik, etxebizitza egongo litzateke, berogailurako gasolioaren prezioek gora egin izanagatik.

Azkenik, Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren[1] (KPIH) Estatu osorako 2009ko abenduko datuek adierazi egiten dute % 0,9ko hazkundea egon dela 2008ko abenduko datuaren aldean, aurreko urtean gertatutakoaren azpitik 6 hamarren eta BEMerako erregistratutako tasaren berdina (haren indizeak behera egin zuen 7 hamarrenetan aurreko urteko abenduaren aldean). EB-27ren multzoak, aldiz, % 1,5eko prezio hazkundea ezagutu zuen, 2008ko abenduan baino 7 hamarren gutxiago.

[1] Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren % 5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira *Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak* eta diruz lagundutako *farmaziako produktuak,* eta abar). 2006an oinarriko urtea aldatu zen, 1996. urtetik 2005. urtera igaroz.

II.6.3. TAULA. Kontsumoko prezioen indizea. EAE eta estatua

	EAE						Estatua	
	Urteko batez bestekoa			Abendua (urte artekoa)			2008ko Aben.	2009ko Aben.
	2007	2008	2009	2007	2008	2009		
Indize orokorra	2,8	4,1	0,3	4,2	1,9	1,0	1,4	0,8
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	3,8	6,3	-0,1	7,3	2,6	-1,3	2,4	-2,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,6	4,0	8,4	5,6	4,1	12,1	3,9	12,7
Jantziak eta oinetakoak	1,4	0,7	-1,4	1,3	0,6	-0,5	0,5	-0,8
Etxebizitza	3,6	6,4	1,9	4,5	6,8	0,6	5,9	0,8
Etxeko tresneria eta zerbitzuak	3,5	3,0	1,8	3,1	3,1	1,0	2,6	0,8
Osasun zerbitzuak eta zerbitzu medikoak	-0,5	-0,1	-0,2	-1,1	0,2	-0,7	0,3	-1,3
Garraioa	2,3	5,7	-5,3	7,0	-5,3	3,8	-5,6	3,9
Komunikazioak	0,2	0,0	-0,6	0,8	-0,3	-0,3	-0,3	-0,3
Aisialdia eta kultura	-0,9	0,3	0,3	-0,8	0,9	-0,7	0,3	-1,1
Irakaskuntza	4,5	4,7	4,2	4,6	5,1	2,2	4,0	2,7
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	4,6	2,4	4,2	4,6	1,8	4,0	1,2
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	3,2	3,4	2,5	2,9	3,8	1,8	3,5	2,1

Iturria: EIN.

2009. urtean, Europar Batasuneko lau herrialdek bakarrik areagotuko zuen inflazio tasa aurreko urteko kopuruarekin alderatuz gero: Hungaria, Polonia, Eslovenia eta Suedia. Gainerako guztietan urte arteko kopurua erori egiten dela ikusi dute, ratioak nabarmenki murriztuz. Zenbait kasutan, gainera, tasa negatiboetara iritsi arte erori dira: hori izan da Estoniaren, Irlandaren, Letoniaren, Maltaren eta Portugalen kasua.

6.2. KOSTUAK

6.2.1. Laneko kostuak

EAEko laneko kostuen adierazle ezberdinek, ikusiko dugun moduan, dezelerazioa erakusten dute azken urterako EAEn, Estatuan eta EBren multzoan:

– Adierazleetatik lehenengoa indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata hazkundeei buruzkoa da, eta berrikusitako soldata hazkundea erakusten dute[2], % 2,68koa 2009. urtean gure er-

[2] "*Babes klausulagatik*" soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkundeari eranstearen emaitza. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela, izan ere, batetik, azken urteotan batez besteko hazkunde horiek adostu dituzten hitzarmenek soldatapekoen % 50 inguru estaltzen dute eta, bestetik, "ohiko" ordainsari hazkundeei heltzen diete, hau da, ez dute aintzat hartzen ezohiko orduen ordainketaren eragina, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta soldatakoak ez diren beste kostu batzuk ere ez ditu hartzen.

II.6.4. TAULA. Laneko kostuaren adierazle makroekonomikoak

	EAE1			Ordainsaria lanpostuagatik (aldak. %)				Soldata hazkundea hitzarmenetan4	
	Soldatapekoen ordainsaria (milioi _-tan)	Lanpostuak	Ordainsaria lanpostuagatik (_-tan)	EAE[1]	Estatua[2]	EB -27[3]	BEM[3]	EAE (aldak. %)	Estatua (aldak. %)
2004	26.069	944.699	27.595	4,9	3,0	3,0	2,0	3,78	3,60
2005	27.915	965.358	28.917	4,8	3,7	2,8	2,0	4,22	4,04
2006	29.779	987.058	30.169	4,3	4,0	2,9	2,4	4,74	3,59
2007	31.888	1.015.038	31.416	4,1	4,5	3,5	2,4	4,18	4,21
2008	33.460	1.025.092	32.641	3,9	6,1	1,0	3,3	4,83	3,58
2009*	:	:	:	:	3,7	-1,7	0,3	2,68	2,49

Iturriak: (1) EUSTATen Hiruhileko kontuak. (2) EINen Hiruhileko kontabilitatea. (3) EUROSTAT. (4) Lan eta Immigrazio M.
(*) Behin-behineko datuak.

kidegoan, 2008ko datua baino 2,15 puntu gutxiago eta Estatuaren multzoan itundutakoak baino 19 ehunen gehiago, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuak gorabehera.

– Bigarren adierazle bat lanpostuagatiko Soldatapekoen Ordainsariarena[3] da. Horrek, EUSTATen *Kontu Ekonomikoetatik* eta EINen kasuan kasuko estatistikatik kalkulatuta, erakutsi egiten du ordainsari hori % 4,1 hazi zela 2007. urtean eta % 3,9, berriz, 2008. urtean (behin behineko datuak), Estatuko multzo osorako emandako datuaren azpitik. Izan ere, Estatuko datua % 6,1 hazi zen (% 3,7 hazi zen 2009. urtean, Hiruhileko Kontabilitate Nazionalaren behin-behineko datuak gorabehera).
Bestalde, EUROSTATen 2009ko datuek EBrentzat agerian uzten dute lanpostuagatiko ordainsariarena baino hazkunde txikiagoa. Zehazki, EB-27rentzat % 1,7 erortzen da (2008an % +1,0 izan zen), euroaren zonan % 0,3 areagotu zen bitartean (2008an % 3,3 izan zen). Ondorioz, aurreko urtearen aldean murriztapen adierazgarria geratu zen agerian.

II.6.2. GRAFIKOA. Laneko kostuen hazkundea sektoreka EAE-n. Kostua €/orduko modura



Iturria: EIN. Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta.

[3] Datu zuzena soldatapekoena izan beharko litzateke, baina EUSTATen Hiruhileko Kontabilitateak lanpostu kopurua bakarrik erakusten du zorrozki, eta ez lanaldi osoko baliokiderik. Estatuarentzat EINen informaziotik abiatuta kalkulatutako datua zuzena da.

II.6.5. TAULA. Laneko kostuaren indizearen bilakaera. EAE-Estatua alderaketa

	Kostua langile bakoitzeko (/urteko)						Kostua orduko (/orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK
2004	24.619	18.251	15.722	28.276	21.084	18.123	14,9	11,1	9,5	18,2	13,6	11,7
2005	25.321	18.722	16.141	29.426	21.849	18.809	15,4	11,4	9,8	19,0	14,1	12,1
2006	26.203	19.364	16.780	30.111	22.328	19.156	16,1	11,9	10,3	19,5	14,4	12,4
2007	27.263	20.12	17.175	31.519	23.394	20.223	16,8	12,4	10,8	20,5	15,2	13,1
2008	28.685	21.153	18.383	33.323	24.780	21.493	17,7	13,0	11,3	21,7	16,1	14,0
2009	30.202	22.296	19.334	34.721	25.949	22.494	19,0	14,0	12,2	23,3	17,4	15,1
ALDAKUNTZAREN %A												
2005	2,9	2,6	2,7	4,1	3,6	3,8	3,5	3,2	3,4	4,3	3,8	4,0
2006	3,5	3,4	4,0	2,3	2,2	1,8	4,2	4,2	4,6	2,7	2,6	2,1
2007	4,0	3,9	4,1	4,7	4,8	5,6	4,5	4,4	4,6	5,3	5,4	6,2
2008	5,2	5,1	5,2	5,7	5,9	6,3	5,0	4,9	5,1	5,6	5,8	6,2
2009	5,3	5,4	5,2	4,2	4,7	4,7	7,7	7,8	7,5	7,5	8,0	8,0

KO: Kostu osoa; OKO: Ordainsarien Kostu Osoa; OOK: Ohiko Ordainsari Kostua .
Iturria: EIN, "Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta".

– Laneko kostuen hirugarren adierazleak egoeraren araberako izaera du: *Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta* da[5]. Horrek, gainera, osagai ezberdinen arteko xehaketa egiteko aukera ematen du. Inkestako datuek adierazi egiten dute 2009. urterako, EAEn, langile bakoitzeko laneko kostuek % 4,2 egin zutela gora (2008. urtean baino puntu eta erdi gutxiago eta Estatuan baino 1,1 puntu gu-txiago). Jarduera sektoreka begiratuz gero, kostuen hazkundea altuagoa da zerbitzuetan (% 7,7). Aldiz, eraikuntzan batez bestekoaren azpitik hazten dira (% 1,6) eta industrian erori egiten dira aurreko urteko kopuruaren aldean (% -0,1). Balio absolutuetan, 2009. urtean langile bakoitzeko kostu osoaren batez bestekoa 34.712 €-koa da, Estatuko multzoan baino % 15 gehiago.

[4] Inkesta hau oinarri hartuta, Laneko Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

[5] Laneko kostu osoak (KO) lana ematen duenak lanaren faktorea erabiltzeagatik gain hartzen dituen kostu guztiak biltzen ditu, soldatakoak nahiz soldatatik kanpokoak. Ordainsari kostu osoak (OKO) oinarrizko soldata, osagarriak, ezohiko orduak, haborokinak eta gauzatan emandako ordainsaria hartzen ditu (kalte-ordainak eta dietak kanpo) eta kopuru osotan neurtzen da (atxikipenak edo Gizarte Segurantzari langileak egindako ordainketak baino lehen). Ordainsariaren Ohiko Kostuak (OOK) kanpoan uzten ditu ezohiko haborokinak (ezohiko ordainsariak, mozkinetan parte hartzea, primak, eta abar) eta atzeratutako ordainketak.

II.6.3. GRAFIKOA. Laneko kostuen bilakaera lan egindako ordu bakoitzeko. EB, Estatua eta EAE. Urteko aldakuntza %tan



Iturria: EIN eta EUROSTATetik abiatuz landutakoa.

Aitzitik, EAEn lan egindako ordu bakoitzeko kostu osoak areagotu egin dira 2009. urtean % 7,5ean, aurreko urtean baino ia bi puntu gehiago eta Estatuko batez bestekoa baino 2 hamarren gutxiago. Azken horiek % 22,6an gainditzen dira. Sektoreka, industriak eta eraikuntzak batez bestekoaren azpitik dagoen hazkundea dute, % 5,5 eta % 5 hurrenez hurren. Aldiz, zerbitzuek batez bestekoaren gainetiko hazkundea dute (% 9,8).

Euroaren zonan, azkenik, laneko kostuak areagotu egin ziren 2008. urtean (informazioa dagoen azken urtea), % 3,5 aurreko urteko % 2,7aren aldean. Aldiz, EB-27n % 4,2 areagotu zen (2007an % 3,7), EUROSTATen "*Eskulanaren Kostuaren Indizearen*" arabera.

6.2.2. Produktibitatea

Produktibitatea garrantzi handiko kontzeptua da, izan ere, haren hazkundeak aukera ematen du ekonomia baten lehiakortasuna areagotzeko. Haren ideia sinplea da, ekoizpenaren eta hura eskuratzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioa finkatzean datza eta. Aitzitik, kalkulua konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide hauen erabilera eraginkorra eta hura erakundekoak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

Lehenik eta behin, laneko itxurazko ekoizpena, BPGaren bilakaeraren (2009. urtean % 3,3 erori zen) eta enpleguarenaren –lanpostuetan neurtuta– arteko bilakaera gisa kalkulatuta[6] (EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera % 4 murriztu zena azken urtean),

% 0,2 hazi zen kopuru errealetan 2009. urtean, hau da, aurreko urtean baino sei hamarren gutxiago[7]. Produktibitatearen bilakaerak lotura estua du 2009. urtean eraikuntzaren aurrerapenarekin: Sektore honek 2008. urteko irabaziak baino irabazi altuagoak eskuratu zituen (% 2,1etik 4,6ra igaro zen), sektorean enplegua galtzearen ondorioz. Zerbitzuek produktibitate egonkorra man-

II.6.4. GRAFIKOA. Laneko produktibitate errealaren hazkundearen bilakaera EAEn. %



Iturria: EUSTAT. HKE.

[6] Lanaldi osoaren baliokide den lanpostu kopuru osoa izan beharko balitz ere, datu hau ez dago eskura.
[7] Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatuta.

II.6.6. TAULA. Laneko itxurazko produktibitatearen bilakaera EAE-n

	BENETAKO PRODUKTIBITATEA (KATEATUTAKO BOLUMENA)					PRODUKTIBITATE NOMINALA (PREZIO KORRONTEAK)				
	Guztira	Lehen mailakoa	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Lehen mailakoa	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2002	0,2	-0,5	-0,5	-1,4	0,5	3,0	3,9	0,7	4,1	3,7
2003	0,6	-3,3	-0,1	-1,2	0,4	3,9	0,3	1,7	10,2	3,4
2004	0,9	29,4	0	-0,4	-0,1	5,3	8,3	6,1	4,9	3,4
2005	1,7	-9,1	5,5	1,0	0,0	5,1	0,9	8,1	5,5	3,0
2006	2,1	-0,9	3,7	0,8	1,4	5,4	1,8	5,2	4,9	5,0
2007	1,3	4,5	1,3	5,6	0,9	4,5	6,3	3,6	11,4	4,7
2008	0,8	1,9	-0,3	2,1	1,2	2,0	-9,2	2,8	6,1	4,1
2009*	0,2	6,2	-2,9	4,6	1,2	0,3	3,3	-1,9	5,6	2,2

Iturria: Guk landutakoa EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoetatik abiatuz.
(*) Behin-behineko datuak.

II.6.5. GRAFIKOA. Laneko produktibitate errealaren aldakuntza EAEn, Estatuan eta Europar Batasunean



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

II.6.7. TAULA. Laneko produktibitatea enplegatutako pertsona, herrialdea eta urtea gorabehera (EB-27 = 100)

	2006	2007	2008
EB27	**100,0**	**100,0**	**100,0**
ALEMANIA	108,6	107,2	107,4
AUSTRIA	115,4	115,0	113,3
BELGIKA	129,8	129,8	124,6
BULGARIA	34,7	34,9	36,4
ZIPRE	83,4	83,6	86,1
DANIMARKA	105,5	102,1	101,1
ESLOVAKIA	71,6	75,0	78,8
ESLOVENIA	83,9	84,6	84,0
ESPAINIA	**102,0**	**103,6**	**104,8**
ESTONIA	61,4	64,2	64,6
FINLANDIA	110,4	111,0	109,5
FRANTZIA	121,6	121,6	120,9
GREZIA	100,7	102,0	102,2
HOLANDA	113,4	112,4	115,3
HUNGARIA	73,0	72,9	69,4
IRLANDA	136,7	139,8	134,1
ITALIA	109,6	108,5	108,1
LETONIA	49,9	53,5	51,1
LITUANIA	56,4	59,4	61,4
LUXEMBURGO	176,2	173,3	160,8
MALTA	90,1	90,2	86,5
POLONIA	61,2	60,9	62,8
PORTUGAL	70,2	71,2	70,6
ERRESUMA BATUA	111,9	111,8	110,6
TXEKIAR ERREP.	69,8	71,8	72,3
ERRUMANIA	38,5	43,7	47,6
SUEDIA	111,1	111,8	111,5
EAE	**130,1**	**132,1**	**132,0**
ESTATU BATUAK	141,1	140,3	144,6
JAPONIA	99.8	100,3	99,9

(p) Aurreikuspena (e) Balio zenbatetsia
Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

tentzen dute aurreko urtekoaren aldean, % 1,2an. Aldiz, industriak aurreko urteko emaitzak baino emaitza kaskarragoak eta ekonomiaren multzo osokoak baino emaitza baxuagoak jasaten ditu. Produktibitatea % 2,9 erori zen.

Produktibitate errealaren bilakaera hau Europar Batasunaren multzoan erregistratu dena baino altuagoa da (bai EB-27n, bai euro zonan, jarraikako bigarren ekitaldiz emaitza negatiboa eskuratu da: % -2,5 eta % -2,3 hurrenez hurren). Aldiz, estatu espainiarrean tasa erreal altuagoa eskuratzen da, % 3,2koa (2008. urtean % 1,5ekoa zen). Arrazoia enplegu galera altua izan zela da.

EAEk testuinguru europarrean duen kokaleku lehiakorra alderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate adierazle bat laneko produktibitatea da, BPGaren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatuta. Informazio disponibilitatea aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa maila gorabehera egiten den eta ez bilakaera gorabehera. Ratio hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2008. urtean zuen batez bestekoaren gainetik dagoela % 32an, Irlandaren mailaren parean, eta Luxenburgok bakarrik gainditzen du Batasunean (% 160,8ko balioa eskuratzen da). Postu hori estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Hori EBk, aintzat hartutako urte guztietan, izandako batez bestekoaren gainetik kokatzen da pixka bat.

Halaber, adierazle honen bitartez ikusi egiten da EAEk Batasunaren barruan duen kokaleku erlatiboak hobetzeko joera duela aurreko urteen aldean (1995-2003 aldiko batez bestekora joz gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren % 125,7ra iristen zen), nahiz eta azken ekitaldian hobetze hori eten egin dela dirudien (hamarren bat erori da).

6.2.3. Unitateko Laneko Kostua

Behin produktibitatearen eta laneko kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Laneko Kostuak[8] (ULK) aztertuko ditugu.

[8] Unitateko Laneko Kostu (ULK) korrontea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren (6.2.1. idatz-zatia) eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa (6.2.2. idatz-zatia). ULK erreala zatidura berdin hori da, nahiz eta deflatorea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatuko eta Europako batez bestekoen aldean.

II.6.8. TAULA. Unitateko laneko kostuak EAE-n: urteko aldakuntza

	LANEKO KOSTUEN ALDAK.		PRODUKTIBITATE ALDAK.		ULK KORRONTEEN ALDAK.		ULK ERREALEN ALDAK.	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
GUZTIRA	**5,7**	**4,2**	**0,8**	**0,2**	**4,9**	**4,0**	**3,7**	**3,9**
INDUSTRIA	7,1	-0,1	-0,3	-2,9	7,4	2,8	4,3	1,8
ERAIKUNTZA	5,5	1,6	2,1	4,6	3,4	-3,0	-0,6	-4,0
ZERBITZUAK	5,3	7,7	1,2	1,2	4,1	6,5	1,2	5,5

Iturria: EUSTATen eta EINen datuekin landutakoa.

II.6.6. GRAFIKOA. Unitateko laneko kostu errealak: Urteko aldakuntza, Soldatapekoen Ordainsaritik abiatuz kalkulatuta



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin landutakoa.

2009. urteko datuek agerian uzten dute gure ekonomiako ULK korronteen hazkunde txikiagoa, aurreko urteko kopuruaren aldean (% 4ko portzentajea 2008. urteko % 4,9koaren aldean). Arrazoiak, funtsean, horiek eraikuntzan erori izana (% -3) eta industriaren hazkunde txikiagoa dira: % +2,8koa 2008. urteko % +7,4koaren aldean. Arrazoia sektore honetan gertatu den produktibitate murriztapena da. “Prezioen” eragina deskontatu

egiten badugu BPGaren deflaktorearen bitartez, unitateko laneko kostuen aldakuntza tasa errealak txikiagoak dira industrian eta zerbitzuetan, eta negatiboa, aldiz, industriarentzat.

Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen dena, areagotu egin ziren 2009. urtean % 0,9 (EB-27) eta % 3,6raino euro zonan (% +3,3 aurreko urtean). ULK errealak aintzat hartuz gero, 2009. urteko datuak altuagoak dira Batasun osoarentzat (% 2,3), nahiz eta ez euro zonarentzat (% 2,4). Arrazoia prezioek jasan duten bilakaera ezberdina da.

Bitartean, Estatuan, % 3tik gorako hazkunde tasa nominala eduki duten hainbat urte eta gero (EUROSTATen datuen arabera 2007an % +3,7koa), tasa izugarri altxatu zen 2008. urtean, % 4,4raino. Aitzitik, 2009. urtean % 0,3ra erori zen. Datu errealak aintzat hartuz gero, ratioak negatiboak dira 2006. urtera arte. 2007. urtean % +0,5 lortzen da eta 2008. urtean % +1,8. 2009. urtean ia ez dira ULK errealak hazten, izan ere, EUROSTATek ematen duen datua % 0,1ekoa da.

Emaitza hauek alderatzen baditugu ULK errealekin gure Erkidegoko soldatapekoen Ordainsaritik abiatuz, eta 2009. urterako daturik ez dagoen arren, 2008. urtean ikusi zitekeen jada balio positiboko joera aldaketa (% +1,9), grafikoan ikus daitekeen moduan.

6.3. ERRENTAK

6.3.1. Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortutako balio erantsia banatu egiten da hasiera batean hura soldatapeko lanaren ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren Ustiapenaren soberakin oso gisa, urte osoan

II.6.7. GRAFIKOA. Faktoreen errenten banaketa EAE-n



Iturria: EUSTAT: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

II.6.9. TAULA. Errentaren banaketa EAE-n, estatuan eta euro zonan

	Milioi euro				% bertikala			Urteko aldakuntzaren %a		
	2005	2006	2007	2008P	2006	2007	2008	05-06	06-07	07-08
EAE										
Soldatapekoen ordainsaria	27.915	29.779	31.888	33.460	48,2	48,0	48,9	6,7	7,1	4,9
Ustiapenaren soberakin garbia	17.902	19.417	21.354	22.369	31,4	32,1	32,7	8,5	10,0	4,8
Kapital finkoaren kontsumoa	5.170	5.643	5.943	6.240	9,1	8,9	9,1	9,2	5,3	5,0
Diru-laguntzen zerga garbiak	6.302	6.922	7.243	6.361	11,2	10,9	9,3	9,8	4,6	-12,2
BPG merkatuko prezioak	**57.289**	**61.761**	**66.427**	**68.429**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**7,8**	**7,6**	**3,0**
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainsaria	430.832	464.548	500.769	527.269	47,2	47,6	48,4	7,8	7,8	5,3
Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa	378.983	410.363	442.490	467.771	41,7	42,0	43,0	8,3	7,8	5,7
Diru-laguntzen zerga garbiak	98.977	109.373	109.471	93.462	11,1	10,4	8,6	10,5	0,1	-14,6
BPG merkatuko prezioak	**908.792**	**984.284**	**1.052.730**	**1.088.502**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**8,3**	**7,0**	**3,4**
EURO ZONA										
Soldatapekoen ordainsaria	3.868.668	4.026.952	4.225.765	4.410.542	47,6	47,3	47,9	4,1	4,9	4,4
Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa	3.227.697	3.400.433	3.613.268	3.716.018	40,2	40,5	40,4	5,4	6,3	2,8
Diru-laguntzen zerga garbiak	964.189	1.030.833	1.086.661	1.073.501	12,2	12,2	11,7	6,9	5,4	-1,2
BPG merkatuko prezioak	**8.060.554**	**8.458.219**	**8.925.694**	**9.200.061**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**4,9**	**5,5**	**3,1**

Iturria: EUSTAT "Kontu ekonomikoak (2000ko oinarria)", EIN "Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2000ko oinarria" eta EUROSTAT.

zeharreko produktibitate taldearen balio galeraren balioagatiko Kapital Finkoko Kontsumo gisa eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari dagozkion zerga gisa –Administrazio Publikoari dagozkionak– sortzen lagundu duten faktore produktiboen artean. Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, eta erreferentzia gisa 2008. urteko prezio korronteen BPGaren hazkundea hartuz, % 3koa (behin-behineko datuak), ikus daiteke zerga garbiak erori egin zirela % 12,2. Aldiz, soldatapekoen errenta hazi egin zen batez bestekoaren gainetik: % 4,9 hain zuzen, kapital finkoaren kontsumoaren eta ustiapeneko soberakin garbiaren berdina, % 4,8 eta 5 areagotzen dena hurrenez hurren.

Horrela, soldatapeko lanaren errentak BPGaren % 48,9 dira, aurreko urtean baino bederatzi hamarren gehiago. Aldiz, Ustiapeneko Soberakin garbia % 32,7 da (sei hamarren areagotzen du pisua BPGaren gainetik) eta Kapital Finkoko Kontsumoa % 9,1, aurreko ur-

tean baino bi hamarren gehiago. Ekoizpenari eta inportazioari jarritako zergen kasuan, ken produkzio sektoreei emandako diru-laguntzak, murriztu egiten da BPGaren bere proportzioa eta % 9,3ra iristen da, aurreko urtean baino 1,6 puntu gutxiago.

Errenten orain dela gutxiko bilakaera hau Estatukoek edukitakoarekin alderatuz gero, ikus dezakegu 2008. urtean soldaten errentak lau hamarren gutxiago hazi zirela gure Erkidegoan. Aldiz, ustiapenaren soberakina eta errenta mistoaren arteko batura EAEn Estatuko kopuruaren azpitik 9 hamarrenetan hazi zen. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, BPGaren gaineko proportzioak ezberdinak dira (% 9,3 EAEn eta % 8,6 Estatuan). 2007ko kopuruekiko bilakaera norabide berdinean doa: EAEn % 12,2 erori zen eta Estatuaren multzoan % 14,6.

Euro zonan, azterketaren xede diren faktoreek bilakaera jasaten dute EAEren eta Estatuaren bilakaeraren joera berdinean eta, gainera, BPGaren aldakuntza nominala gure Erkidegoaren ia berdina da: % 3,1 hazten da (EAEn % +3). Soldatapekoen ordainsaria gutxiago hazten da (% +4,4), ustiapenaren soberakin osoaren eta errenta misto osoaren (% 2,8) baturaren berdina. Aldiz, zerga garbiak erori egiten dira EAEn eta Estatuan baino proportzio askoz ere txikiagoan, % 1,2 eskas.

6.3.2. Per Capita Errenta

Lehenik eta behin, EINek urtero lantzen duen "*Espainiako Lurralde Kontabilitateak*" aukera ematen du Autonomia Erkidego mailan eta probintzia mailan Etxebizitzetako Errenta kontuak ezagutzeko, bai kopuru agregatuetan, bai per capita gisa.

Gauzak horrela, eskura dauden azkeneko datuen arabera, 2007ari buruzkoak, EAEko etxebizitzetako

II.6.8. GRAFIKOA. Per Capita BPGaren bilakaera (PCB). EB-27=100



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

II.6.10. TAULA. Per capita BPG (PCB) herrialdea eta urtea gorabehera (EB 27=100)

	2006	2007	2008
EB27	**100,0**	**100,0**	**100,0**
ALEMANIA	115,8	114,8	115,6
AUSTRIA	124,3	124,0	124,8
BELGIKA	118,5	118,2	118,5
BULGARIA	36,5	37,3	39,2
ZIPRE	90,3	90,7	92,6
DANIMARKA	122,9	120,1	117,1
ESLOVAKIA	63,5	67,0	70,7
ESLOVENIA	87,7	89,3	90,8
ESPAINIA	104,1	105,5	104,2
ESTONIA	65,3	68,0	65,1
FINLANDIA	114,9	115,9	115,5
FRANTZIA	109,5	109,2	108,1
GREZIA	94,1	94,9	96,6
HOLANDA	130,9	131,0	132,2
HUNGARIA	63,6	62,6	62,6
IRLANDA	147,4	150,4	143,1
ITALIA	103,5	101,5	99,3
LETONIA	52,6	54,7	55,1
LITUANIA	55,5	59,5	60,6
LUXEMBURGO	267,1	266,5	258,4
MALTA	76,9	77,8	78,9
POLONIA	52,3	53,4	56,1
PORTUGAL	76,4	76,2	75,5
ERRESUMA BATUA	120,4	119,2	118,5
TXEKIAR ERREP.	77,4	80,2	81,3
ERRUMANIA	38,4	42,2	44,9
SUEDIA	121,5	122,2	120,1
EAE	**135,9**	**139,5**	**137,2**

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.

errentak -41.467 milioi eurora iristen dena- Estatuko kopuru agregatuaren % 6,23 hartzen du eta, gainera, aurreko urteko kopurua baino % 6,3 altuagoa da.

Halaber, EAEko etxebizitzak izan ziren biztanleko errenta oso handiena eduki zutenak 19.473 eurorekin, Estatuko batez bestekoa -14.823 €-koa- baino % 31,4 gehiago. Gure Erkidegoaren atzetik Nafarroa, Madril eta Katalunia daude, hurrenkera horretan bertan.

Lurraldeka, per capita errenta oso erabilgarri handiena Arabako eta Gipuzkoako etxebizitzei dagokie (Estatuko batez bestekoaren gainetik % 35 baino gehiago). Aldiz, Bizkaia, estatuko batez bestekoa baino % 27 gehiagoko balioarekin, hirugarren postuan geratuko litzateke, Nafarroako Komunitatearekin batera. Bilakaerari dagokionez, EAEko errenta osoa biztanleko areagotu egin da azkeneko urtean % 5,7, Estatuko batez bestekoaren % 4,4aren aldean.

Bestalde, EUROSTATek aukera ematen du EAEren kokaleku erlatiboa ezagutzeko, Europar Batasuneko eta hura eratzen duten herrialde eta lurralde multzoko batez bestekoarekiko. Horretarako, per capita BPGaren estatistikak hartzen dira oinarri, erosketa ahalmenarekin parekatuta (EAP).

Gauzak horrela, 2008. urtean, eta EBko batez bestekoa erreferentzia gisa hartuta, EAEk % 137,2ko per capita BPGa du. Horrek esan nahi du jarraikako 13 urtez hazkundea izan eta gero lehenengo erorikoa gertatu dela, 1995. urtean izandako % 109,6ko baliotik EBren batez bestekoaren aldean. 2008. urtean eskuratutako balioarekin, EAEk Batasuneko hirugarren postu onena mantenduko luke, Luxenburgoren eta Irlandaren atzetik. Kokaleku horretan zegoen ere aurreko urtean.

Azkenik, ElNen arabera, EAE Estatuaren buruan kokatzen da biztanleko BPGn, 2009. urterako egindako lehen zenbatespen baten arabera, izan ere, 30.703 €-ak eskuratuko lirateke, Estatuko batez bestekoaren 22.886 €-en aldean.

ElNek, halaber, kalkulatu egin du EB-27rako batez besteko per capita BPGa 23.600 €-koa zela 2009. urtean. Ondorioz, gure Erkidegoa gainetik egongo litzateke % 30ean.

Urte honetan, eta ekonomiaren mantsotzearen emaitza gisa, per capita BPGa erori egin da erkidego guztietan eta zertxobait gutxiago EAEn (% -3,9) Estatu osoan baino (% -4,1).

II.6.11. TAULA. Etxebizitzetako errenta erabilgarri osoa, per capita. Behin-behineko datuak

	2006(P)			2007(P)		
	Balioa (eurotan)	Indizea	Aldakuntza 2006/2005	Balioa (eurotan)	Indizea	Aldakuntza 2006/2005
ANDALUZIA	11.392	80,23	5,22%	11.889	80,21	4,36%
ARAGOI	15.597	109,84	6,68%	16.271	109,77	4,32%
ASTURIAS	14.583	102,70	8,76%	15.656	105,62	7,36%
BALEARS (ILLES)	15.537	109,42	4,58%	15.949	107,60	2,65%
KANARIAR UHARTEAK	12.621	88,88	5,32%	13.227	89,23	4,80%
KANTABRIA	14.937	105,19	6,36%	15.642	105,53	4,72%
GAZTELA ETA LEON	14.615	102,92	8,22%	15.330	103,42	4,89%
GAZTELA-MANTXA	11.731	82,61	4,91%	12.312	83,06	4,95%
KATALUNIA	16.028	112,87	4,40%	16.654	112,35	3,91%
VALENTZIAKO E.	12.886	90,75	4,47%	13.380	90,27	3,83%
EXTREMADURA	11.089	78,09	7,02%	11.765	79,37	6,10%
GALIZIA	12.888	90,76	7,27%	13.687	92,34	6,20%
MADRIL	17.109	120,49	5,77%	17.666	119,18	3,26%
MURTZIA	11.468	80,76	3,48%	11.985	80,85	4,51%
NAFARROA	17.902	126,07	5,62%	19.173	129,35	7,10%
EAE	**18.420**	**129,72**	**7,72%**	**19.473**	**131,37**	**5,72%**
Araba	**19.077**	**134,35**	**8,05%**	**20.186**	**136,18**	**5,81%**
Gipuzkoa	**19.079**	**134,36**	**9,37%**	**20.227**	**136,46**	**6,02%**
Bizkaia	**17.847**	**125,68**	**6,58%**	**18.825**	**127,00**	**5,48%**
ERRIOXA	15.417	108,57	5,55%	15.709	105,98	1,89%
ZEUTA	14.080	99,15	6,34%	14.593	98,45	3,64%
MELILLA	14.090	99,23	7,60%	14.417	97,26	2,32%
GUZTIRA	**14.200**	**100,00**	**5,65%**	**14.823**	**100,00**	**4,39%**

Iturria: EIN. Espainiako Lurralde Kontabilitatea. 2000ko oinarria..

03

BIZI-KALITATEA EAEn

EAEN MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

EAEren Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan ez da jaso “Epai-Jarduera”ri buruzko atala, ezin izan baita aurreko edizioetako informazioa eguneratu. Horrenbestez, gai hori jorratu nahi duen irakurleak 2007 eta 2008. ekitaldietako Memorietara jo dezake.

1

Zenbait kolektibo interesgarriren bizi baldintza

Datozen urteetan, Europar Batasunak funtsezko bi erronka demografikori egin beharko die aurre: zahartzea eta populazioa galtzea. Populazio gaztearen parte hartzea nabarmen murriztuko da; biztanle zaharragoen multzoa, berriz, handitu egingo da.

Gazteen eta adinekoen mendetasun ratioen proiekzioek bilakaera hau erakusten dute : EUROSTATen EUROPOP2008 populazio proiekzioek aurreikusten dutenez, 2050. urtean 15 urtetik beherako biztanleria lanerako adinean dagoen populazio taldearen (15 eta 64 urte artekoena) %25 baino gutxiago izango da; 65 urtetik gorako pertsonen taldea, ordea, %50 baino gehiago izango da. Era berean, proiekzioek erakusten dute 2008 eta 2050. urteen artean biztanleria gaztearen mendetasun ratioak egonkor iraungo duela; adinekoena, berriz, bikoiztu egingo da.

Zehazki, 2050. urtean adinekoen mendetasun ratioak %60 gainditukо du Espainia, Italia eta Eslovenian, eta %40ra iritsiko da Txipren, Luxenburgon eta Erresuma Batuan. Biztanleria gaztearen mendetasun ratioa, Europar Batasuneko herrialdeetan, %20 eta %30 artekoa izatea espero da; baliorik handienak Frantzian eta Irlandan izatea espero da.

Joera hauen ondorio gisa, Europar Batzordeak uste du *"Europar Batasunak bere motor demografikoa galduko duela"* . Hain zuzen ere, EB-ko kide diren herrialdeen artean, 2050. urterako populaziorik galduko ez dutenak proportzio txikia dira. Bost estatu kide handienetatik, Erresuma Batua eta Frantzia bakarrik haziko dira 2005 eta 2050. urteen artean (+%8 eta +%9,6, hurrenez hurren). Kasu batzuetan populazioa 2015. urtetik aurrera jaitsiko da; kasu horietako batzuetan jaitsiera %10 eta %15 artekoa izango da.

Aldaketa demografiko hauek gizarte berri bat moldatzen ari dira. Gizarte berri honetan, gero eta gazte eta heldu gutxiago egongo dira, eta gero eta adineko langile, erretiratu eta zahar gehiago. Batzordeak adierazi du ildo honetan bide berriak aurkitu behar direla belaunaldi gazteek eta adineko herritarrek daukaten hazkunde potentziala baloratzeko. Bi kolektibo horiei zuzenduta dago kolektibo interesgarrien bizi baldintzei buruzko kapitulua, 2009. urteko edizio honetako memoria sozioekonomikoan.

III.1.1. GRAFIKOA. EB-Ko gazteen eta adinekoen mendetasun ratioen proiekzioak



Iturria: EUROSTAT. EUROPOP 2008. Konbergentzia-agertokia.

1.1. GAZTERIA

Gaur egungo gizartean, oso egoera ezberdinak dauden arren, gazteria bat dator balio eta anbizioetan, baita zailtasunetan ere. Pertsona hauek etengabe eraldatzen ari den talde bat osatzen dute. Haien ezaugarri bat da antzina egin ohi zen baino beranduago lortzen dutela lana eta sortzen dutela familia. Lan eta ikasketa garaiak txandakatzen dituzte, eta batez ere iraganean baino ibilbide pertsonal ugariagoak dituzte. Eskolak edo unibertsitateak, lanak eta gizarte inguruneak dagoeneko

[1] Adinekoen mendetasun ratioa: 65 urtetik gorako pertsona kopuruaren eta 15 eta 64 urte arteko pertsona kopuruaren (lan egiteko adina duten pertsona kopuruaren) arteko kozientea.

Gazteen mendetasun ratioa: 15 urtetik beherako pertsona kopuruaren eta 15 eta 64 urte arteko pertsona kopuruaren arteko kozientea.

[2] EUROSTAT: Youth in Europe 2009. An statistical portrait.

III.1.1. TAULA. 15 eta 29 urte arteko gazteak EB-an. 2008.

	Biztanleria 2008an	15 eta 29 urte arteko biztanleria	%, EB27ko gazteen aldean	%, herrialdeko populazioaren aldean
EB 27	**497.645.455**	**95.994.552**	**100,0**	**19,3**
BELGIKA	10.666.866	1.979.023	2,1	18,6
BULGARIA	7.640.238	1.554.957	1,6	20,4
TXEKIAR ERREP	10.381.130	2.154.313	2,2	20,8
DANIMARKA	5.475.791	957.783	1,0	17,5
ALEMANIA	82.217.837	14.475.194	15,1	17,6
ESTONIA	1.340.935	300.861	0,3	22,4
IRLANDA	4.401.335	1.035.675	1,1	23,5
GREZIA	11.213.785	2.074.796	2,2	18,5
ESPAINIA	**45.283.259**	**8.720.078**	**9,1**	**19,3**
FRANTZIA	63.982.881	12.219.378	12,7	19,1
ITALIA	59.619.290	9.695.902	10,1	16,3
TXIPRE	789.269	189.119	0,2	24,0
LITUANIA	2.270.894	516.723	0,5	22,8
LETONIA	3.366.357	764.825	0,8	22,7
LUXEMBURGO	483.799	90.056	0,1	18,6
HUNGARIA	10.045.401	2.029.727	2,1	20,2
MALTA	410.29	88.585	0,1	21,6
HOLANDA	16.405.399	2.972.189	3,1	18,1
AUSTRIA	8.318.592	1.560.437	1,6	18,8
POLONIA	38.115.641	9.075.493	9,5	23,8
PORTUGAL	10.617.575	2.012.441	2,1	19,0
ERRUMANIA	21.528.627	4.865.983	5,1	22,6
ESLOVENIA	2.010.269	397.339	0,4	19,8
ESLOVAKIA	5.400.998	1.291.639	1,3	23,9
FINLANDIA	5.300.484	993.868	1,0	18,8
SUEDIA	9.182.927	1.749.006	1,8	19,0
ERRES. BATUA	61.175.586	12.229.162	12,7	20,0
EAE (31.12.07)	**2.147.754**	**353.007**	**0,4**	**16,4**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuekin egina.

ez daukate lehen zeukaten funtzio integratzailea. Gainera gazte hauek gero eta beranduago independizatzen dira.

Gazteen kolektiboaren ezaugarri soziologiko, ekonomiko eta kulturalak aldatzen ari dira, aldaketa demografikoen ondorioz, baina baita ingurune sozialen aldaketen ondorioz, norbanakoen eta taldeko portaeren aldaketen ondorioz, famili harremanen aldaketen ondorioz eta lan merkatuko baldintzen aldaketen ondorioz. Mendebaldeko gizarteetako gazteria hiru fenomenoren arabera defini dezakegu:

1. Gaztaroaren luzapena: Demografoek ikusten dute zenbait faktore ekonomiko eta soziokulturalen presioaren ondorioz gazteek, batez bestez, bizitzako etapak zaharrago direnean bizitzen dituztela: ikasketen amaiera, lanean hastea, familia sortzea eta abar.
2. Bizitza-ibilbide ez linealak: Gaur egun "bizitzako faseek batak bestea zapaltzen dute"[3]: aldi berean izan daiteke ikaslea, familia bateko arduraduna, langilea edo lan bilatzailea, edo gurasoekin bizi; egoera horiek txandakatzea gero eta ohikoagoa da.
3. Eredu kolektibo tradizionalek pisua galtzen dute ibilbide pertsonal gero eta indibidualizatuagoen mesedetan. Pertsona bakoitzaren famili, ezkontza eta lan egutegia gaur egun ez da antolatzen ohiko ereduen arabera; horrek ondorio bereziak ditu politika publikoetan.

Etorkizuneko itxaropenei buruz eta hogei urte barru beren burua nola ikusten duten galdetuz gero, europar gazteak helduak baino optimistagoak dira, orain dela gutxi egindako Eurobarometro baten arabera. Izan ere, bi hamarkada barru bizitza hobea izango dela uste dutenen portzentajea txikiagoa da adinean gora egin ahala. 25 urtetik beherako pertsonen %47ak uste du "hobea" izango dela, baina 55 urtetik gorako %31k soilik erantzun du hori. Are gehiago, 40 urtetik gorako pertsonarik gehienak pesimistak dira etorkizunari buruz.

III.1.2. GRAFIKOA. Europarrek nola ikusten duten bizitza 20 urte barru, adin taldeka. 2008



Iturria: EUROSTAT, Youth in Europe 2009. Eurobarometroa, 227. zk. 2008.

Esan dugu herrialde aurreratuetan fenomeno sozial eta demografiko ohikoenetako bat azken hamarkadetan biztanleria zahartzea dela. Ondorioz, biztanleriaren adinaren piramidea goiko aldean zabaldu da; horrek gazteen adin taldeak pisu erlatiboa galtzea ekarri du. Orain ehun urte, europar (eta euskal) biztanleriaren erdiak 24 urtetik behera zeuzkan (mediana adina); batez besteko adina, berriz, 28 urte zen. Gaur egun, ordea, batez besteko adina 40 urte inguru da.[4]

Hain zuzen ere, gazte populazioaren pisuaren galera Europar Batasun osoan gertatu den arren, prozesua azkarragoa izan da Espainiar estatuan eta EAEn beste herrialde batzuetan baino. Azken hamar urteetan, 15 eta 29 urte arteko tartea %21etik %19,3ra igaro da EB-27an, %22,3tik %19,3ra estatuan eta %23,9tik %16,4ra EAEn; tasa horrek gaur egun 353.000 pertsona baino gehixeago hartzen ditu barnean gaur egun. Are gehiago, azken bi urteetan soilik kolektiboa 30.000 pertsona baino gehiagotan murriztu da. Horrela, Europako gazteriak bi dezimal baino ez ditu galdu (2006-2008 denboraldian %19,5etik %19,3ra murriztu da), eta EAEko biztanleria ehuneko 1,5 puntu murriztu da.

[3] "Jeunesse, le devoir d'avenir", Commissariat Général du Plan, 2001. EUROPAR BATZORDEA.

[4] Horregatik, besteak beste, gaztaroa gaur egun 30 urtera arte luzatu da (baita 35 urtera arte kasu batzuetan). Lehen egiten zen sailkapena zaharkituta geratu da, gazterian 16 eta 25 urte arteko pertsonak soilik sartzen baitziren. Halere, azken irizpide hori oraindik ere indarrean dago aldagai batzuetan, adibidez, gazte enpleguaren adierazleetan. Kapitulu honetan, beraz, adin taldeak modu malguan aztertuko ditugu, dauzkagun datuen arabera.

III.1.3. GRAFIKOA. Gazteen banaketa (15-29 urte) osotasunaren portzentaje gisa, taldeka. 2008



Iturria: EUROSTATen eta EUSTATen datuekin egina.

Eta gazteak Europan non dauden jakin nahi badugu, erantzuna da populazio handiena daukaten herrialdeak direla, noski, gazterik gehien daukaten herrialdeak. Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Polonia eta Espainian bizi dira EB-27ko gazte guztien %70 (guztira ia 96 milioi gazte daude). Baina bestalde, herrialde horietako bakoitzeko gazte tasak aztertzen baditugu, begi bistakoa da iparraldeko herrialde horiek gazteen batez bestekoaren azpitik daudela (Polonia izan ezik) eta Europa hegoalde eta ekialdekoak direla beren biztanleen artean gazterik gehien dauzkatenak. Bestalde, EAEko 353.007 gazteak Europako Batasuneko gazteriaren %0,4 dira. Proportzio hau Lituania, Estonia edo Esloveniako gazteriaren proportzioaren antzekoa da. Gure erkidegoko populazioan duten pisua %16,4 da, EB-27ko batezbestekoa baino askozaz ere txikiagoa, eta Danimarkaren eta Italiaren antzekoa.

2009ko datuen arabera, 15 eta 29 urte arteko gazteen kolektiboa EAEn 342.817 da. Kopuru hori EAEko populazioaren %15,8 da, INEko datuen arabera. Urte bakar batean, beraz, haren pisua 6 dezimal murriztu da. Taldeka, kolektibo horretako %25,5ak 15 eta 19 urte bitartean dauzka, %31,8ak 20 eta 24 bitartean, eta %42,7ak 25 eta 29 bitartean.

Datu horiek estatuko beste autonomi erkidego batzuetako datuekin erkatuz gero, EAE da gazterik gutxien daukana, Asturiasen atzetik (%15,7). Beste muturrean daude Andaluzia eta Murtzia, haien gazte tasak %20,4 eta %20,8 baitira, hurrenez hurren.

1.1.1. Jarrerak eta balioak

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen "*Retratos de Juventud 13*" txostenak zenbait inkestari buruzko informazioa jasotzen du. Inkesta horiek EAEko gazteei egin zitzaizkien 2009. urtean zehar. Inkestek erakusten dute gazteek, oro har, uste dutela ekonomi eta gizarte egoerak txarrera egin duela azken urteetan, eta egoera politikoa nahiko egonkor mantendu dela.

Egoera ekonomikoari dagokionez, testuinguru ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorriz, %44ak bakarrik du iritzi positiboa (egoera "ona" edo "oso ona" dela deritzo). Portzentaje hori aurreko urtean erregistratutakoa baino 17 puntu txikiagoa da, eta 28 puntu txikiagoa, 2007. urtean adierazitakoaren aldean.

III.1.4. GRAFIKOA. Gazteek EAEren egoeraz egiten duten balorazioa. “ona” eta “oso ona” balorazioen batuketa. Osotasunaren portzentajea



Iturria: “Retratos de Juventud 13”rekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

Era berean, EAEko gazteen %61ak uste du gure erkidegoan egoera soziala gaur egun ona edo oso ona dela. Portzentaje hori 11 puntu murriztu da 2008. urteko egoeraren aldean, baina 3 puntu soilik 2007. urteko datua kontuan izaten badugu: urte hartan gazteen %64ak horixe azaldu zuen. Aitzitik, EAEko egoera politikoaren inguruko iritzien analisiak erakusten du gazteek balorazio negatiboa egiten dutela oro har. Izan ere inkesta egin zaienen %24ak bakarrik esan du egoera ona edo oso ona dela (2006an %52ak erantzun zuen hori); azken bi urteetan, ordea, egonkorragoa izan da.

Gure gizartearen arazo nagusiei buruz galdetzen badiegu, gazteek hau erantzuten dute: lan merkatua lehenik (%59), etxebizitzari lehenengo postua kenduz, etxebizitza bigarrenik (%33, aurreko urtearen aldean beherakada handia duena, orduan %56 baitzuen), hirugarrenik arazo ekonomikoak (%30), gero indarkeria edo bake eza eta egoera politikoa (%24 eta %22 hurrenez hurren).

Arazo pertsonalik handienei buruz, EAEko gazteek erantzun dute enplegua (langabezia, lan baldintzak)

III.1.5. GRAFIKOA. EAEko gazteen arazo pertsonal nagusiak: Datuak ehunekotan*



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Retratos de Juventud 13.

* Erantzun anitzeko galdera.

III.1.2. TAULA. EAEko gazteria: *auzokide-enganako intolerantziaren bilakaera

	2000	2004	2008	% Ald 00-08
Neonaziak, eskuin muturrekoak	65,6	55,6	57,8	-11,9
Drogazaleak	49,5	39,1	46,0	-7,1
Ijitoak	40,3	40,1	41,8	3,7
Atzerriko etorkinak	9,2	12,8	15,1	64,1
Homosexualak eta lesbianak	4,3	6,8	6,7	55,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Gazteria 2008.
(*) Kolektibo horietako kiderik auzokide izan nahi ez dutela esan dutenen portzentajearen bilakaera.

III.1.6. GRAFIKOA. Atzerriko etorkinen kopuruari buruzko pertzepzioaren bilakaera EAEko gazteen artean



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Gazteria 2008

(%49) eta etxebizitza (%23) direla, eta haien atzetik arazo ekonomikoak (erantzunen %19) edo ikasketak (%14). Datu hauek eta 2007ko erantzunak alderatzen baditugu, lana eta etxebizitza dira oraindik ere arazo nagusiak; lehena gero eta larriagoa (urte horretan %64) eta etxebizitza, berriz, gero eta txikiagoa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren "*Juventud Vasca 2008*" txostenak erakusten du gazteei zenbait gizarte gairi buruzko jarreraz galdetzen zaienean %86a ezkontza homosexualen aldekoa dela (estatuan gazteen %77 dira horren aldekoa, Injuveren 2007ko inkestaren arabera) eta %82a ados dagoela sendaezinak diren eta hiltzeko laguntza eskatzen duten gaixoei hiltzen laguntzearekin (estatuan %75). Era berean, %78a legezko sexu aldaketaren aldekoa da eta %76 borondatezko abortu librearen aldekoa da. Oro har, emakumeek joera apur bat handiagoa daukate eskubide hauek aitortzeko orduan eta, gainera, ikasketa maila handiagoa duten neurrian adostasun maila ere igotzen da.

Gazteek beste gizarte talde batzuekin bizikidetza izateari buruz duten jarreran, gehien gaitzesten duten kolektiboa eskuin muturreko taldeak edo neonaziak dira (%57,8), gero drogazaleak (%46) eta gero ijitoak (%41,8). Gazteen %15,1ak aitortu du, 2008an, ez lukeela nahi etorkin baten auzokide izan. Bilakaerari dagokionez, nabarmendu behar dugu 2004. urteaz geroztik zenbait gizarte talderen aurkako gaitzespena handitu dela: drogazaleak, ijitoak, militarrak, prostituzioan ari direnak, kartzelan egon diren pertsonak, ezker edo eskuin muturreko pertsonak, eta etorkinak. Etorkinenganako jarrerari dagokionez, denborarekin, etorkinen sarrera erraztearen alde dauden gazteen portzentajea gutxitzen ari da, eta jarrera gero eta itxiagoa da. Gainera, EAEn etorkin gehiegi dagoelako pertzepzioa gero eta handiagoa da 2000. urteaz geroztik.

Azkenik, gazteriaren egoera orokorrari buruzko balorazioari dagokionez, gazteen erdia baino gehiagok uste dute egoera "hala-holakoa" dela, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra. 2000 eta 2008. urteen artean, gora egin dute egoera ona dela esan dutenen proportzioak (%18,6tik %23,2ra) eta txarra dela esaten dutenen proportzioak (%18tik %20,3ra); erdibidean daudenen portzentajeak behera egin du (%63,4tik %53,5era).

1.1.2. Lan mundua

Gazte kolektiboak lan munduarekin duen kontaktua egoera konplexu eta problematikoa bihurtu da azken urteetan: lehenbiziko lanpostua lortzeko borroka, lan bat edo gehiago bilatu behar izatea kontratuak aldi baterako izaten direlako, ikasketak eta lana uztartzeko erabakia... horiek guztiak lanaren kanpoko elementuak dira, baina gazteriaren eta lan munduaren arteko elkarreragina modu erabakigarrian baldintzatzen dute. Gazteen langabezia funtsezko arazoetako bat da herrialde guztietan, lortutako garapen maila gorabehera. Egoera honek dakartzan ondorioen berri oso ondo dakigu, ordaindutako lana gizarteratzeko eta autoestimua izateko elementu nagusietako bat baita oraindik ere.

Gaur egun, 1993. urteaz geroztik etengabe behera egin ondoren (2003ko gorakadaren salbuespenarekin), gazteen langabezi tasak (gazteak 25 urtetik beherakoak izanik) izugarri igo dira, bizi dugun atzeraldi ekonomikoaren ondorioz. Gure erkidegoan, 90eko hamarkadako gazte langabeziaren mailak, %50 baino handiagoak zirenak, %7-8raino jaitsi ziren 2007an, eta 2009aren amaieran %25etik gorakoak ziren. Grafikoan ikus daitekeenez gorakada hau EB osoan gertatu da, baina Espainian intentsitate berezia dauka, langabezi tasa %38koa baita.

EUSTATen datuen arabera, EAEn 25 urtetik beherakoen langabezi tasa %23koa izan zen batez bestez 2009an; aurreko urtean, ordea, %9,8koa. Gazteak, argi eta garbi, langabezi tasarik handienetako bat duen kolektiboa osatzen dute, adinaren araberako denborazko serieetan ikus dezakegunez. Gazteen atzetik, talde hau dator: 25 eta 34 urte arteko pertsonak. Kolektibo hau, ikerketa soziologiko askoren arabera, gaur egun gazteriaren barruan, zentzu zabalean, kokatu beharko genuke hain zuzen ere.

Bestalde, Espainiako Enpleguaren Behatoki Gazteak (OBJOVEM), Lan eta Inmigrazio Ministerioaren mendekoa denak, 15 eta 29 urte arteko gazteen lan egoeraren jarraipena egiten du, autonomi erkidegoen arabera sailkatuta. 2009ko bigarren hiruhilekoari buruz egin zuen txostenean azaldu zuen, lehenik eta behin, EAEren jarduera estatuaren batez bestekoa baino txikiagoa dela baina EAEren ezaugarri nagusia dela langabezi tasa erlatiboki txikia daukala. Izan ere, aipatutako denboraldian, 30 urtetik beherako gizonen %21,3 eta emakumeen %16,1 zeuden langabezian; beraz,

III.1.7. GRAFIKOA. EAEko langabezi tasaren bilakaera adin taldeen arabera



Iturria: EUSTAT: BJA

III.1.8. GRAFIKOA. Gazteen langabezi tasaren bilakaera



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT

gizon eta emakume gazteen batuketa egiten badugu, gazteen langabezi tasa %18,7 da.

Datu hauek estatuko gainerako autonomi erkidegoetako datuekin erkatuz gero, ikusiko dugu, lehendabizi, gazteen jarduera tasa (eta biztanleria osoarena ere) estatuaren eta erkidego askoren batezbestekoa baino askozaz ere txikiagoa dela. 2009ko bigarren hiruhilekoan, 30 urtetik beherakoen jarduera tasa %63,9 zen EAEn; estatuko batezbestekoa, berriz, ia bi puntu handiagoa zen.

Bigarrenik, kontratu mugagabea daukaten soldatadun gazteen portzentajea txikiagoa da EAEko gazteen artean. OBJOVEMen txostenak %45,5eko aldi baterakotasun tasa erakusten du (mugagabea ez den lan harreman oro kontuan izanik) 2009ko bigarren hiruhilekoan; estatuaren batezbestekoa %43,9koa da. Haien artean, %4,9ak produkzioaren gorabeheren ondoriozko aldi baterako kontratua du; %18,6ak obra edo zerbitzu jakin baterako, eta %18,8ak bestelako aldi baterako kontratu bat. Datu hauez gain, bada %3,3 bat

III.1.3. TAULA. Gazteria. Jarduerari buruzko adierazle nagusiak. 2009ko 2. HIRUH.

	JARDUERA T.	LANGAB T.	SOLDATA-PEKOAK, %	ENPLEGUAREN %, JARDUERA SEKTOREKA			
				NEKAZA-RITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
ANDALUZIA	64,3	37,1	90,6	6,1	9,7	10,6	73,2
ARAGOI	61,7	23,4	91,2	2,3	17,4	13,9	66,4
ASTURIAS	63,7	26,5	91,0	2,2	11,0	12,9	73,9
BALEARRAK	70,3	23,0	94,3	1,1	7,6	16,7	74,6
KANARIAR UHARTEAK	62,5	36,8	93,6	1,2	6,5	5,7	86,6
KANTABRIA	63,2	22,5	89,5	3,5	19,0	15,0	62,6
GAZTELA ETA LEON	61,8	23,7	91,0	4,9	17,1	13,0	65,0
GAZTELA-MANTXA	66,1	28,3	89,5	4,7	18,5	14,1	62,8
KATALUNIA	68,0	26,6	92,9	1,2	16,5	11,1	71,2
VALENTZIAR KOM.	68,8	30,4	92,4	4,0	13,9	11,9	70,2
EXTREMADURA	60,1	31,4	87,4	9,6	14,0	12,6	63,7
GALIZIA	61,9	23,4	89,9	4,0	16,3	12,1	67,7
MADRIL	67,8	23,5	96,2	0,4	10,2	9,9	79,5
MURTZIA	66,2	28,5	90,5	10,8	15,9	10,9	62,4
NAFARROA	68,7	20,8	94,6	0,9	27,0	8,5	63,5
EAE	**63,9**	**18,7**	**92,6**	**1,6**	**19,6**	**9,4**	**69,4**
ERRIOXA	673	23,9	85,5	2,6	28,4	11,5	57,5
CEUTA ETA MELILLA	50,6	27,1	93,8	0,0	1,2	4,3	94,5
ESTATUA GUZTIRA	**65,6**	**28,4**	**92,2**	**3,4**	**13,7**	**11,3**	**71,6**

Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu eta lan baldintzak, 10. zk.

III.1.4. TAULA. Gazteria. Kontratu mota, %. 2009ko 2. HIRUH.

	MUGAGABEA	TEMPORAL			
		PRODUKZ. GORABEHER.	OBRA EDO ZERBITZUA	BESTELAKOAK	EZ DAKI
ANDALUZIA	44,2	10,6	19,3	17,7	8,3
ARAGOI	61,7	5,7	13,5	12,1	7,0
ASTURIAS	55,4	5,7	20,2	15,2	3,5
BALEARRAK	61,3	5,5	18,8	12,2	2,2
KANARIAR UHARTEAK	53,5	20,1	10,0	11,5	4,9
KANTABRIA	56,1	7,3	23,0	10,8	2,7
GAZTELA ETA LEON	56,4	6,6	16,6	13,2	7,1
GAZTELA-MANTXA	57,5	4,8	19,1	12,3	6,3
KATALUNIA	65,5	5,3	18,1	9,9	1,2
VALENTZIAR KOM.	55,2	8,1	9,4	17,3	9,9
EXTREMADURA	45,8	2,7	22,4	19,2	10,0
GALIZIA	53,7	7,7	16,9	12,3	9,5
MADRIL	61,4	5,0	14,6	12,2	6,7
MURTZIA	52,6	6,3	17,2	18,5	5,5
NAFARROA	61,7	6,7	11,2	17,4	2,9
EAE	**54,5**	**4,9**	**18,6**	**18,8**	**3,3**
ERRIOXA	62,9	6,2	14,3	10,0	6,3
CEUTA ETA MELILLA	29,9	2,7	30,1	21,5	15,9
ESTATUA GUZTIRA	**56,1**	**4,0**	**10,0**	**8,3**	**2,9**

Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu eta lan baldintzak, 10. zk.

bere aldi baterako kontratuaren mota zein den ez dakiena[5].

Oro har gazteen kontratazio mugagabea ugariagoa da Katalunian (%65,5) eta Errioxan (%62,9). Tasarik txikienak Ceuta eta Melillan (%29,9) eta Andaluzian (%44,2) daude. EAE estatuaren batezbestekotik behera dago, 1,6 puntu gutxiago.

EAEko gazteen aldi baterakotasun handiago hau EUSTATen datuek berresten dute, BJAren bidez. Urteko batez besteko tasak kontuan izanik, aldi baterako kontratuak dauzkaten gazteen portzentajea (kasu honetan 25 urtetik beherakoak) %57 da (%56,1 gizonentzat eta %58 emakumeentzat). Azken urteetako ratiorik txikiena dugu hau. Ratio honi kontraturik gabeko lan ha-

[5] Espainiako Gazteriaren Behatokiak uste du estatuan gazteen ordaindutako lehenengo lanpostuetatik ia bostetik bat (%19) kontraturik gabe egiten dela. Egoera hau ohikoagoa da emakumeen artean.

III.1.9. GRAFIKOA. Gazteria eta aparteko orduak. Datuak autonomi erkidegoen arabera. 2009ko 2. HIRUH



Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu eta lan baldintzak.

rremanak dituzten gazteena gehitu behar zaie: %4,8 (%0,9 mutilentzat eta %9,1 neskentzat). Grafikoan ikusten da "kontraturik gabekoak eta bestelakoak" kategoriako tasak oso antzekoak direla gazteentzat eta EAEko langileen batezbestekoarentzat; aldi baterako kontratuen tasak, berriz, askozaz handiagoak dira gazteen artean. Gainera, gazteen eta biztanleria osoaren arteko tarte horrek nahiko egonkor iraun du urteetan.

Era berean, gazteen okupazio egoerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren 2009ko abenduko "*Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoan*" azaldu zen 2008an 30 urtetik beherako gazteen %38,8a ikasten ari zirela soilik, %41,3 lanean soilik, eta %10,3ak ikasi eta lan egiten zutela aldi berean. Garrantzitsua da esatea inkestatutako laginaren %7,2a bakarrik zegoela lanik gabe, 2000. urteko portzentaje bera.

Bestetik, interesgarria da gazteen lan baldintzak jakitea, zenbait ezaugarri kontuan izanik: gazteen lanaren egonkortasuna, ezaugarriak eta lansaioa. Lehenik eta behin, "*Euskal Gazteria 2008*" txostenak azaltzen duenez, inkesta egiteko unean edo lehenago lan egin duten gazteen %61ak adierazi du sei hilabetetik beherako lanen bat eduki duela, %52ak sei eta hamabi hilabete artekoa, eta %65ak esan du urte bete baino gehiagoko lanen bat eduki duela. Azken lanpostuan emandako denbora aztertzen badugu, erdiak (%50ak) adierazi du urtebete baino gutxiago zeramala lanpostuan edo bere azken lanpostuan urtebete baino gutxiago eman zuela. Hortaz, ezegonkortasunak gora egin du 2000. urtearen aldean, orduan tasa %40koa baitzen. Aitzitik, urtebete baino iraupen luzeagoko lan kontratuak murriztu egin dira: 2000. urtean kontratu guztien %60 ziren, 2008an %48a (%32 urte bat eta hiru urteren artekoa, eta %16 hiru urte baino luzeagoak).

III.1.10. GRAFIKOA. Aldi baterako kontratuen eta kontraturik gabeko lan harremanen portzentajearen bilakaera gazteentzat eta biztanleriarentzat. EAE



Iturria. EUSTAT. BJA

III.1.5. TAULA. EAEko gazteria: azken/egungo lanpostuaren ezaugarriak. "oso" edo "nahiko" erantzun dutenen portzentajea. 2008

	2008							GUZTIRA 2004
	GUZTIRA	SEXUA		IKASKETAK				
		GIZONAK	EMAKUMEAK	LEHEN IK.	LH	BIGARREN IK	GOI MAILA	
Interesgarria	67	65	70	56	75	59	79	60
Errepikakorra	63	61	65	73	62	65	51	61
Kualifikatua	59	60	58	48	69	45	73	58
Egonkorra	57	60	55	51	71	50	55	54
Etorkizunduna	52	54	50	44	65	36	62	52
Ondo ordaindua	46	50	42	45	45	45	49	51
Estresagarria	43	39	46	45	38	44	43	37
Trebakuntzarekin z erikusia duena	41	41	41	24	56	25	59	41
Arriskutsua	20	31	10	31	22	16	11	15

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Gazteria 2008.

Bigarrenik, EAEko gazteei beren lanpostuaren ezaugarriei buruz galdetuz gero, oro har, lanean ari edo aritu ziren euskal gazteek uste zuten beren lanpostuak oso edo nahiko interesgarriak (%67), kualifikatuak (%59), egonkorrak (%57), etorkizundunak (%52) eta ondo ordainduak (%46) zirela. Lanpostu horiek ez ziren ia edo batere estresagarriak (%57), ia edo batere arriskutsuak (%80), baina bai oso edo nahiko errepikakorrak (%63).

Aitzitik, ez omen zeukaten zerikusi handirik egindako ikasketekin (%59ak uste zuen bere lanak ez zuela ia edo batere zerikusirik egindako ikasketekin). Lanaren eta ikasketen arteko zerikusia handiagoa da lanbide heziketa ikasi dutenen artean eta unibertsitate ikasketak egin dituztenen artean. Zentzu horretan, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren "*Espainiako Gazteria 2008*" txostenak azaldu zuen beren lanak eta ikasketek zerikusirik ez daukatela uste duten gazteen portzentajea %71 dela estatuan; izan ere ezberdintasunak atzeman dira aitortutako ikasketa mailaren arabera, gure erkidegoan bezala.

EAEn, elkarrizketatutako pertsonaren sexua faktore bereizgarria zen, emakumeek uste baitzuten beren orduko edo iraganeko lanpostuak oro har ez zirela gizonen lanpostuak bezain kualifikatuak, interesgarriak, etorkizundunak, egindako ikasketekin erlazionatuak, egonkorrak eta ondo ordainduak.

2004. urtearen aldean, zerbait gehitu da lanean ari diren edo lehenago lanean aritu diren eta beren lanari interesgarri, egonkor, estresagarri eta arriskutsu deritzoten gazteen portzentajea; aldiz, ondo ordaindutako lana dutela edo izan dutela uste dutenen portzentajea murriztu da. Ez dago ezberdintasunik gainerako ezaugarrietan (kualifikatua, errepikakorra, etorkizunduna edo prestakuntzarekin zerikusirik ez duena).

Azkenik, OBJOVEMek 2009ko bigarren hiruhilekorako egindako azterlanak erakusten du EAEko gazteen

%6,3ak aparteko orduak egin zituela aipatutako denboraldian; estatuan, ordea, batez bestez %5,7 izan ziren. Ordaindu gabeko aparteko orduen kopurua 4,4 igo zen gure erkidegoan; estatuan 7,8.

1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetza motak

Enpleguarekin batera, pertsona independizatzeko elementu protagonistetako bat da eta etxebizitza, horrenbestez, gaztaroaren azken faseetatik heldutasunera iristeko ibilbidean ere elementu funtsezkoa da. Bi ezaugarriak dira (lana eta etxebizitza, ordena horretan) EAEko gazteei kezka eta ezinegonik handiena sortzen dizkietenak.

Lehenbiziko etxebizitza erostean jasotzen den babes publikoa, batez ere zerga-aringarrien bidez eta interes-tasen bidez, amortizazio aldiak 30 edo 50 urtera arte luzatzearekin batera, oso faktore garrantzitsuak dira, EAEko gazteak etxebizitza bat erostera bultzatzen dituztenak. Aitzitik, inflaziodun higiezin-testuinguru batean, gazteen emantzipazio proiektuek geroratzeko joera izan ohi dute; gutxi gorabehera 30 urte betetzean desblokeatu ohi dira proiektu horiek. Une horretan bikote egonkorra sortzen dute edota ezkontzen dira, eta horri esker etxebizitza erosteko behar den kaudimenari aurre egiteko kapaz izaten dira.

"*Euskal Gazteria 2008*" azterlanak erakusten du EAEko gazterik gehienak (%78) jatorrizko familiarekin bizi direla, hau da, gurasoekin, neba-arrebekin... la bostetik bat (%19) bere etxebizitzan bizi da. Gutxi batzuk aste barruan familiarena ez den etxebizitza batean edo ikasle-egoitza batean bizi dira eta asteburuak eta oporrak familiarekin ematen dituzte (%1). Gainera, emantzipatutako gazteen portzentajea gehitu da 2004az geroztik, %14tik %19ra.

Emantzipatuta daudela esaten dutenak soilik kontuan izaten baditugu, txosten honen arabera ikus de-

III.1.11. GRAFIKOA. Gazteria eta etxebizitza. Emantzipazio tasa eta etxebizitzaren batez besteko prezioa. II-2009



Iturria: OBJOVI

zakegu batez bestez 22,2 urterekin emantzipatu zirela; adin hori 2004an baino apur bat txikiagoa da (orduan 22,9 zen). Oro har, emantzipatutako emakumeak gizonak baino goizago emantzipatu ziren (21,7 urterekin emakumeak eta 22,9 urterekin gizonak). EAEtik kanpo jaiotakoak ere EAEn jaiotakoak baino lehen emantzipatu ziren (20,7 urterekin eta 23,1 urterekin hurrenez hurren).

Aitzitik, gazterik gehienek (%63) uste dute aukeran nahiago dutela familiarekin ez bizi. Emantzipazio nahi horiek ordea 2004ko emaitzen aldean murriztu dira, orduan kolektiboko %70era iritsi baitziren.

Gazteek independentzia lortzeko aitortzen dituzten eragozpenen artean, garrantzitsuena da etxebizitza erostea edo alokatzea oso garestia dela (bostetik lautan). Gainera, bostetik hiruk esaten dute familiarekin bizitzea erosoagoa dela eurentzat. %57ak esan du beren diru-sarrera iturria izateko zailtasunak dituztela edo izan dituztela, eta gutxik diote (%9ak) familia aurka dutela edo izan dutela. Zailtasun horiek dira aipatuenak oraindik familiarekin bizi direnen artean; nolanahi ere, etxebizitzaren garestitasunaren inguruko zailtasunak gehiago aipatzen dituzte 20 eta 29 urte arteko pertsonek eta beren burua gizarte klase baxukotzat jotzen dutenek.

"*Espainiako Gazteria 2008*" txostenak nabarmentzen du Europako datuen analisiak oso egoera ezberdinak erakusten dituela ezaugarri hauetan: gazteek independentzia ekonomikoa lortu eta emantzipatzea, bizitzako zein unetan egiten duten, eta erabaki hori hartzeko dituzten eragozpenak edo arrazoiak. Europa iparraldeko herrialdeen kasuan, independentzia ekonomikoa arinago lortzen da, estatuak modu aktiboan parte hartzen duelako prozesuan, helduarora igarotzen mesedetzeko laguntza ekonomiko ugari emanez. Herrialde horietan, familiak oso eginkizun mugatua dauka independentzia ekonomikoa lortzeko prozesuan; beste herrialde batzuetan ordea (adibidez, Espainian, Italian edo Grezian), familiak funtsezko papera jokatzen du gazteek independentzia ekonomikoa lortzeko bidean.

Espainiar estatuari dagokionez, EAEn bizi diren 18 eta 34 urte arteko pertsonek emantzipazio tasa txikiagoa daukate: EAEn %44,1 dira, eta estatuan %46,8 (OBJOVI –Espainiako Etxebizitzaren Behatoki Gaztea–, II/2009 txostena, Espainiako Gazteriaren Kontseilua). Emantzipazio txikiago hori nabarmenagoa da beste autonomi erkidego batzuekin alderatuz gero: Balearrak estatuko lehenengoa da, %58,3ko tasarekin, eta ondoren Katalunia eta Valentzia. Gure erkidegoaren on-

III.1.6. TAULA. EAEko gazteria: emantzipatzeko zailtasunak adinaren eta aipatutako gizarte klasearen arabera. Portzentajeak*, 2008

	GUZTIRA	ADIN TALDEAK			GIZARTE KLASEA		
		15 - 19	0 - 24	25 - 29	BAXUA	ERTAINA	ALTUA
Etxebizitzaren garestitasuna	79	68	83	82	88	78	71
Familiarekin erosoago	60	73	64	45	54	61	66
Diru-sarrerak izateko zailtasunak	57	62	60	51	62	57	53
Familia aurka izatea	9	19	7	3	9	9	9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Gazteria 2008. (*) Aukera anitzeko galdera.

III.1.12. GRAFIKOA. EAEn etxebizitza aldatzea eta eskuratzea behar dutenen pertsonen batez besteko adina



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

doren Extremadura, Galizia, Kantabria eta Asturias daude soilik.

Bestetik, erkidego horietako etxebizitzen prezioa erkatzen badugu, eta are interesgarriagoa dena, gazteek bere gain har dezaketen gehienezko prezioa (lan egoera, soldata eta abarrekoak kontuan izanik) erkatzen badugu, egoera kasu batzuetan aldatzen da: lehenik eta behin, etxebizitza librearen batez besteko prezioa EAEn, 2009ko bigarren hiruhilekoan, estatuko batezbestekoa baino %44,8 altuagoa zen, erkidego guztietan altuena hain zuzen ere; atzetik zeuzkan Madril, Katalunia eta Balearrak. Gazteek ordaindu ahal dituzten gehienezko prezioei erreparatuz gero, Gazteriaren Kontseiluaren txostenak erakusten digu EAEn aipatutako urtean 107.459 euro zela; etxebizitzaren prezioa, ostera, 278.060 € zen[6].

Familia gazte batek bere gain har dezakeen gehienezko prezioari erreparatuz gero (kontuan izanik gehienetan etxebizitzaren erosketa bikote batek hartzen duela bere gain), ordain daitekeen gehienezko prezioa 171.903 euro da; nolanahi ere, batez besteko prezioetatik oso urrun. Estatuan, etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta familia gazte batek bere gain har dezakeen prezioaren arteko aldea askozaz ere txikiagoa da: 50.461 €, gure erkidegoko 106.157 euroen aldean. Aldagai hauei dagokienez deigarria da, grafikoan ikusten denez, kasu batzuetan (Katalunian edo Balearretan esaterako), etxebizitzaren prezioa handia izan arren emantzipazio tasak estatuko handienak direla.

Nolanahi ere, "*Euskal Gazteria 2008*" txostenak erakusten du EAEko gazteak oso pozik daudela famili bizitzarekin. %93ak esan du oso edo nahiko pozik dagoela bere famili bizitzarekin (%53 eta %40 hurrenez hurren). Gainera, garrantzitsua da esatea bikotean edo ezkonduta bizi diren pertsonek poztasun maila handiagoa daukatela: %65a oso pozik dago. Ondorioz, gaz-

III.1.13. GRAFIKOA. Gazte batentzat etxebizitza erosteak daukan kostuaren ebolutzioa (batez besteko sarreraren arabera), sexuka. EAE



Iturria: OBJOVI. Etxebizitzaren Behatoki Gaztea.
(*) Behatokiak egin du kalkulua, gaztearen eroste ahalmenaren eta etxebizitza libre baten salneurriaren %80ko hipoteka maileguaren hasierako ordainketaren artean. Ordainketaren interes tasa hipoteka-merkatuaren erreferentziazko interes tasa da, entitate guztientzat, Espainiako Bankuak aipatutako datan argitaratua

[6] Deigarria da ikustea 2007ko datuen aldean (2007ko memoria sozioekonomikoan aztertu genituenak) etxebizitza librearen batez besteko prezioa %6,4 murriztu dela, eta gazte batek ordaindu ahal duen prezioa %5,2 gehitu dela. Ondorioz, Gazteriaren Behatoki Gazteak kalkulatu duenaren arabera, etxebizitza eskuratzeko kostuak beherakada handia izan du, grafikoan ikusten denez.

III.1.7. TAULA. Zein neurritan zaude pozik zure famili bizitzarekin? Datuak ehunekotan. 2008

	GUZTIRA	SEXUA		EGOERA ZIBILA		GUZTIRA
		HOMBRE	MUJER	SOLTERO/A	CASADO/A O EN PAREJA	2004
Oso	53	50	56	51	65	52
Nahiko	40	43	37	42	30	45
Gutxi	5	5	5	5	4	2
Bat ere ez	0	1	0	0	0	0
ED/EE	1	0	1	1	1	0
Guztira	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**	**100**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskal Gazteria, 2008.

teria bere osotasunean pozik dagoen arren, emantzipatu diren gazteak are gehiago daude.

1.1.4. Osasuna eta bizi baldintzak

Aurreko epigrafeetan ikusi dugunez, euskal gazterik gehienek bizi kalitate oso onargarria daukate, eta beren famili eta lagunarteko inguruak zailtasunen aurrean babesten dituzte. Halere, langabeziak eragin handia du haiengan bizi dugun atzeraldian. Testuinguru honetan, arreta deitu behar dugu gazte azpitalde bati buruz. Azpitalde hau, arrazoi ugarirengatik (batez ere langabezia baina baita drogen gehiegizko kontsumoa edo gaigabeziak ere) desabantaila, zailtasun edota gatazka egoeran dago, eta horrenbestez bazterketa egoeran (edo bazterketa bizitzeko arriskuan) sartzen da.

Gazteen egoera ekonomikoari eta eroste ahalmenari dagokienez, "*Euskal Gazteria 2008*" txostenak erakusten du %43a batez ere jatorrizko familiaren diru-sarreretatik bizi dela. %21,6ak soilik esan du bere diru-sarreretatik bizi dela. Portzentaje horretatik, erdia baino gehiago (%58,1) jatorrizko familiarekin bizi da; beraz, ezin dezakegu esan ekonomikoki independenteak direnik. Ordaindutako lanpostua izateak, bestalde, ez du independentzia ekonomikoa bermatzen beti. Lana daukaten gazterik gehienak jatorrizko familiatik ekonomikoki independenteak dira (%55,3, beren diru-sarreretatik soilik bizi direnak eta bikotekidearekin kontpartitutako diru-sarreretatik bizi direnak batuz gero),

III.1.14. GRAFIKOA. "Zenbat diru (eurotan) eduki ohi duzu hilean?" Euskal gazteria, banaketa ehunekotan



Iturria: EUSKO JAURLARITZA: Euskal Gazteria 2008

III.1.15. GRAFIKOA. Europako gazteek (15-30 urte) baliabide ekonomikoak eskuratzeko dituzten iturriak. 2007



Iturria: INJUVE, EUROSTATen datuekin.

baina lan egiten duten gazteen %42,1a bere jatorrizko familiaren mendekoak dira ekonomikoki.

Europar Batasunean, 2007ko Eurobarometroaren datuekin, 15 eta 30 urte arteko gazteen %43a bere lan erregularretik bizi da; %31 familiaren edota lagunen diru-sarreretatik; %10a aldizkako lanetatik; %7a beketatik edo trebakuntzarako laguntzetatik, eta gainerako %5a langabeziako laguntzetatik edota gizarte laguntzetatik. Batasuneko kide diren herrialdeen artean ezberdintasun handiak daude. Adibidez, Italian %50a bere familiaren diru-sarreretatik bizi da; Suedian eta Danimarkan, berriz, %5-6 eskas. Eta Erresuma Batuan %11 laguntzei esker bizi da, baina Grezian %1a baino ez.

Diru-sarrera nagusia gorabehera, argi dago EAEko gazteek diru gutxi daukatela eskueran, baita lanpostua lortu dutenen kasuan ere: euskal gazteen ia erdiak 300 euro baino gutxiago daukate hilean, eta %19ak baino ez dauka 900 euro baino gehiagoko diru-sarrerak hilean. Adin tarte handienean ere, 25 eta 29 urte artekoa, 900 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dauzkaten pertsonen portzentajeak ez du %38,5 gainditzen. Enplegua eskuratu duten pertsona gazteen artean ere, %44ak baino ez dauka 900 euro baino gehiago hilean.

Estatuan (sarrera segmentuak EAEko gazteriarentzat kontuan hartu direnekin bat ez datozen arren eta zuzeneko erkaketarik egin ezin den arren), "*Gazteria 2008*" txostenak erakusten du gazteen %29ak adierazi duela ez daukala inolako diru-sarrerarik, %7,5ak hilean 458 euro baino gutxiago, %20ak 458 eta 922 artekoa, eta %24,8ak hilean 923 eurotik gora.

Eusko Jaurlaritzaren "*Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestaren*" 2008ko datuek azaleratzen dute, bestalde, EAEn pobrezia oso hedatuta dagoela 25 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familien artean. Urte hartan, horrelako familietan mantentze pobreziaren tasa[7] batez bestekoa baino hamar aldiz handiagoa zen (%47,9, biztanleria osoaren %4,1aren aldean); horrek esan nahi du goizegi emantzipatzeak pobrezia arriskua dakarrela. 25 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familietan bakarrik gertatu da, bestalde, pobrezia tasen bilakaera negatiboa 2004. urtetik hona, orduan portzentajea %39,2 baitzen.

Nabarmena da, halaber, ongizaterik gabe bizi diren eta gazteak buru dituzten familien artean pobrezia egoerak hedatu direla: biztanleria osoan oro har, pobrezia egoeran bizi diren familiak ongizaterik ez daukaten familia guztien herena dira; baina gazteak buru dituzten familietan, %95 dira.

Nolanahi ere, garrantzitsua da azaltzea familiako pertsona guztien adina (eta ez familiaburuaren adina) kontuan izaten baldin badugu pobrezia egoerak 25 eta

[7] Mantentze pobreziaren kontzeptuarekin esan nahi dugu ez dagoela baliabide ekonomiko nahikorik epe motzean oinarrizko beharrizanei aurre egiteko, bereziki elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetako beharrizanak. Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri memoria honetako "*Pobrezia eta gizarte bazterketa*" kapitulua.

III.1.8. TAULA. Europako gazteria. Familiaren etxebizitzatik emantzipatzea: noiz eta zergatik ez. 2007.

	EMANTZIPATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA		GAZTEAK ZERGATIK BIZI DIREN GURASOEN ETXEAN NAHI BAINO LUZAROAGO		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	EZ DAUKAT DIRURIK ETXETIK JOATEKO	EZ DAUKAT DIRURIK ETXEA EROSTEKO	NAHIAGO DUT GURASOEKIN BIZI, EROSO ETA ERANTZUKIZUNIK GABE
EB 27	---	---	44,0%	28,0%	16,0%
EB 15	---	---	43,0%	27,0%	19,0%
BE	26,7	25,4	51,0%	27,0%	30,0%
DK	---	---	31,0%	32,0%	28,0%
DE	25,1	23,9	57,0%	8,0%	22,0%
GR	30,0	27,9	61,0%	12,0%	18,0%
ES	**29,3**	**28,3**	**33,0%**	**48,0%**	**13,0%**
FR	24,2	23,1	30,0%	43,0%	16,0%
IT	30,9	29,5	49,0%	6,0%	26,0%
LU	27,1	26,0	21,0%	35,0%	23,0%
NL	24,2	23,2	28,0%	41,0%	21,0%
AT	26,9	25,1	44,0%	13,0%	26,0%
PT	29,5	28,5	55,0%	2,0%	7,0%
FI	23,1	22,0	36,0%	31,0%	27,0%
UK	24,6	23,6	38,0%	44,0%	12,0%

Iturria: EUROSTATen datuekin egina.

34 urte arteko biztanleriaren %5,6ra soilik iristen dela. Beste talde batzuetan baino pobrezia tasa handiagoa da hori, baina ezberdintasuna ez da oso handia; badaude beste kolektibo batzuk (haurrak kasu) pobrezia tasa are handiagoak dauzkatenak.

Gazteen arteko pobrezia tasak murritzagoak dira gazteen artean familiaren babesa jasotzen dutelako; gazteen banakako diru-sarrerak bakarrik kontuan izanez gero, bizikidetza unitatea osatzen duten gainerako pertsonen diru-sarrerak aintzat hartu gabe, pobrezia egoerak 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren %47,6ra iritsiko lirateke, eta 25 eta 34 urte artekoen %30era. Gazte asko, beraz, estalitako pobrezia egoeretan bizi dira. Horrek argi uzten du beste pertsona batzuen babesa jasotzea funtsezkoa dela (gehienetan familiarena) bizimodu independenteari aurre egiteko behar diren diru-sarrerak ez edukitzeak dakarren pobrezia arriskutik babesteko.

Bestalde, droga kontsumoaren osasun alderdia memoria honetako beste kapitulu batean berariaz aztertu dugun arren, ezin dugu aipatu gabe utzi gazteriaren eta drogen arteko harremana, binomio honek batzuetan

III.1.16. GRAFIKOA. Etxeko buruaren pobreziako eta ongizate ezeko arrisku egoerak ehunekotan, adinaren arabera. EAE. 2008



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkesta 2008

III.1.17. GRAFIKOA. Substantzia psikoaktiboak hartzen hasteko batez besteko adinaren eboluzioa EAEn



Iturria: "Euskadi eta drogak 2008"en datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

III.1.18. GRAFIKOA. EAEko 15 eta 34 urte arteko gazteria: mozkorraldi kopuruaren bilakaera azken urtean. Ehunekotan



Iturria: "Euskadi eta drogak 2008"en datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

tantzia guztietan. Alkoholaren kontsumoan hasteko adina, batez bestez, 15,6 urte da, eta 19,6 urte estasia hartzeko. Kannabisa hartzen hasteko batez besteko adina 16,7 urte da, eta tabakoa erretzen hasteko, 15,9.

Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, kontsumo adierazleek erakusten dute jaitsiera izan duela 2008an, 2004arekin alderatuta, substantzia guztietan, kannabisa izan ezik. Gainera, kontsumoaren prebalentzia 2004aren eta 2008aren artean murriztu den arren, tasa handiagoa da kokainaren kasuan 2000. urtean baino. Bestalde, nabarmendu behar dugu aintzat hartutako droga guztien kasuan gizonezkoen kontsumo tasak emakumezkoenak baino askozaz ere handiagoak direla.

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, gazterik gehienek (%85,2) aste osoan arriskurik gabeko edo arrisku txikiko kontsumoa egiten dute, batez ere astegunetako kontsumo txikien ondorioz (batezbestekoa baino txikiagoak dira: %0,6 gazteen artean eta %2 biztanleria osoan). Jaiegunetan, ordea, joera aldatzen da, eta kontsumo arriskutsuak gazteen %28,7ra iristen dira (biztanleria osoan, %13,8).

Nolanahi ere nabarmendu behar dugu 2004 eta 2008. urteen artean alkoholaren kontsumoa asko jaitsi dela gazteen artean (gehiegizko kontsumoaren ratioa %39tik %28,7ra jaitsi da). Era berean, urtean 12 aldiz baino gehiagotan mozkortu diren gazteen portzentajea murriztu da, eta behin ere egin ez dutenenak gora egin du.

Hala eta guztiz ere, asteburuetan alkohola eta beste substantzia batzuk gehiegi kontsumitzea gazteek izaten dituzten trafiko istripuetatik askoren erantzule da. Haatik, egia da, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren datuen arabera oraindik ere trafiko istripuak gazteen heriotza kausa nagusia den arren, heriotzen ia %25aren kausa trafiko istripuak izanik (biztanleria osoan %0,8), 2005etik aurrera nahikotxo murriztu direla. Halere, 2007tik 2008ra igoera txiki bat izan da. Aipatu behar dugu baita ere trafiko istripuetan hiltzen diren gazterik gehienak gizonezkoak direla: heriotza hauen %86 gizonezkoei dagokie.

EAEko 2008ko datuek erakusten digute aurten 15 eta 29 urte arteko 5.051 gaztek zerikusia izan dutela trafiko istripuekin (hamar urte lehenago izandako kopu-

III.1.19. GRAFIKOA. EAEn trafiko istripuan hildako 15 eta 29 urte arteko gazteak



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Herrizaingo Saila.

ruaren erdia) eta haietatik 22 hil direla. Heriotzen datu hau nabarmen jaitsi da orain urte batzuk jazotzen zena ikusten badugu: 1993an 83 gazte hil ziren. Adinari dagokionez, %49,6ak 25 eta 29 urte bitartean zituen, %39,2ak 20 eta 24 bitartean, eta %11,2ak 15 eta 19 bitartean. Era berean, ostiraletan gertatu dira ezbeharrik gehienak (%17,6) eta igandeetan gutxienak (%11,8).

1.2. ADINEKO PERTSONAK

Nazio Batuen "*Zahartzeari buruzko txostenaren*" azken alean (2009) jasotakoaren arabera, biztanleria zahartzen ari da eta ez bakarrik herrialde aurreratuetan, baizik eta, baita ere, mundu osoan. Bederatzi pertsonatik batek 60 urtetik gora du, eta 40 urteko epean bostetik bat izatea aurreikusi da.

Egindako kalkuluen arabera, 2000. urtean 600 milioi adineko zegoen, eta kopuru horrek 1950. urtean izandako datua hirukoizten zuen. Une hauetan 737 milioi daude, eta egindako kalkuluen arabera ez dirudi zahartzea mantsotuko denik. Aldiz, areagotzen jarraituko du, batez ere garatzeko bidean dauden herrialdeetan. Horren arrazoia heriotza tasek eduki duten erorketa da.

Biztanleriaren zahartzea sakona da, eta eraginak edukiko ditu bizitzaren alderdi guztietan. Bereziki azpimarratzekoak dira aurrezpenean, kontsumoan, laneko merkatuetan, pentsioetan, zergetan, osasun sistemetan, familien eraketan eta migrazio fluxuetan igarriko diren ondorioak.

2008ko abenduaren 31n, EAEko 65 urte eta gehiagoko biztanle taldean 408.957 pertsona dago (kopuru osoaren % 18,9) eta 20 urtetik beherako gazte segmentua baino segmentu oparoagoa da (haiek 363.407 pertsona dituzte, kopuru osoaren % 16,8). Emaitza hauek aldaketa handia suposatzen dute 1981. urtean igarritako adin egituraren aldean; une hartan segmentu gazteena biztanleriaren % 34,2koa zen eta adinekoenak kopuru osoaren % 9,2 besterik ez zuen hartzen. Eraldaketa honek 80ko eta 90eko hamarkadetan jasandako jaiotza kopuruaren murriztapena islatzen du, biztanleriaren bizi itxaropena areagotzearekin batera.

Are garrantzitsuagoa da ikustea, ziurrenik, biztanleriaren zahartzea areagotu egingo dela datozen urteetan. Izan ere, EUSTATen "*Proiekzio demografikoak 2020*" txostenean aurreikusi egiten da biztanleen kopuru osoaren bilakaerak aldaketa garrantzitsuak edukiko dituela adinaren araberako egituran: Multzo

III.1.20. GRAFIKOA. 60 urte edo gehiagoko biztanleriaren kasuan erregistratutako eta aurreikusitako portzentajearen bilakaera



Iturria: NBE. Zahartzeari buruzko txostena 2009.

III.1.9. TAULA. Zahartze handieneko herrialdeen egungo rankinga eta proiektatu dena. 2005-2050

	65 urte eta gehiagoko biztanleria				Herrialdeak	80 urte eta gehiagoko biztanleria			
	2005		2050			2005		2050	
	Kopurua (milakoetan)	%	Kopurua (milakoetan)	%		Kopurua (milakoetan)	%	Kopurua (milakoetan)	%
Japonia	25.255	19,7	38.632	37,7	Italia	2.973	5,1	7.261	13,3
Italia	11.578	19,7	17.829	32,6	Japonia	6.178	4,8	15.841	15,5
Alemania	15.525	18,8	22.360	30,2	Frantzia	2.834	4,6	6.958	10,2
Espainia	**7.304**	**16,8**	**15.413**	**33,2**	Erresuma Batua	2.685	4,5	6.320	9,2
Frantzia	9.958	16,3	17.703	25,9	Alemania	3.645	4,4	9.740	13,1
Erresuma Batua	9.684	16,1	16.528	24,1	**Espainia**	**1.882**	**4,3**	**5.663**	**12,2**
Ukraina	7.539	16,1	8.533	27,6	EEBB	10.625	3,5	30.597	7,6
Errusia	19.841	13,8	25.674	23,8	Ukraina	1.225	2,6	2.185	7,1
EEBB	36.751	12,3	84.614	21,0	Errusia	3.005	2,1	6.233	5,8
Txina	100.464	7,7	333.668	23,7	Brasil	2.215	1,2	14.155	5,6
Brasil	11.459	6,1	49.275	19,4	Txina	15.405	1,2	103.018	7,3
Mexiko	6.081	5,8	28.066	21,2	Mexiko	1.210	1,2	7.881	6,0
Vietnam	4.729	5,6	23.024	19,2	Vietnam	857	1,0	5.749	4,8
Indonesia	12.474	5,5	55.124	18,6	India	7.820	0,7	51.485	3,1
India	56.455	5,0	239.822	14,5	Indonesia	1.376	0,6	11.882	4,0
Egipto	3.517	4,8	16.523	13,6	Egipto	406	0,6	3.080	2,5
Pakistan	6.158	3,9	31.609	10,8	Pakistan	813	0,5	5.833	2,0
Bangladesh	5.413	3,5	29.762	11,7	Bangladesh	599	0,4	4.831	1,9
Nigeria	4.136	2,9	16.890	5,9	Nigeria	445	0,3	2.214	0,8
Espainiaren kokalekua	**13ª**	**4ª**	**18ª**	**2ª**	**Espainiaren kokalekua**	**11ª**	**6ª**	**15ª**	**4ª**

Iturria.- United Nations World Population Prospects.

ugarienak, gaur egun adin heldu eta gazteetan kokatzen direnak, helduenetara igaroko dira, eta horiek kopuru gutxiagoko belaunaldiekin ordezkatuz joango dira. Horrek 20 urtetik 29 urtera bitarteko biztanleriaren galera eragingo du, eta baita 40 eta 59 urte arteko pertsonen areagotzea ere. Hazkundea oso bizia izango da biztanleriaren piramidearen tontorrean, belaunaldi ugariagoen pixkanakako iritsieren eta adin aurreratuen biziraupen baldintzetan aurreikusitako hobekuntzen arteko sinergiak egongo direlako.

Gauzak horrela, 65 urte eta gehiagoko biztanleriak hazkunde eutsiaren joera mantenduko du datorren hamarkadan, egungo 400.000 pertsona baino pixka bat gehiagotik irten eta milioi erdi baino gehiago izatera iri-

III.1.21. GRAFIKOA. EAEko biztanleriaren bilakaera adin multzoka



Iturria: EUSTATen datuekin landutakoa.

tsiz 2020an, hau da, adinekoen biztanleriaren % 25 gehiago egongo da. Gainera, 65 urtetik gorakoek izatea aurreikusi den biztanleriaren % 22,5 horren barruan, 75 eta 84 urte arteko pertsonak izango dira % 7,3a eta biztanleriaren % 4,2 izango dira 85 urtetik gorakoak. Aintzat har dezagun talde horrek gure biztanleriaren % 1,1 inguru besterik ez zuela hartzen 1990. urtean.

Osasun arreta hobetzea, bizi itxaropena areagotzea eta adin gehieneko pertsonen bizitza autonomorako geroz eta hobekuntza ugariagoak bezalako faktoreek eragin egiten dute geroz eta handiagoa izatea adin helduneko pertsonek bakarrik betetako etxebizitza kopurua. 2001eko Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko Erroldaren arabera (hamar urtetik behin argitaratzen dena), urte hartan EAEn zegoen 700.000 etxebizitza baino gehiagoan % 8,7 (ia 65.000) 65 urtetik gorako adineko bakar batek betetzen zuen eta beste % 7, 52.000 ia, adinekoen bikote batek.

Bakarrik bizi diren 65 urte eta gehiagoko pertsonen egoera aztertuz gero (pertsona bakarreko etxebizitzak), azpimarratzekoa da etxebizitza horien proportzio handi batek erabat ordainduta dagoen etxebizitza bat duela jabetzan (% 78, gainerako bizitokien % 59,6aren aldean). Hala eta guztiz ere, ikusi egin da baita ere alokairu araubidea zabalduago dagoela gainerako etxebizitzen kasuan baino (% 9,1, % 7,1aren aldean). Halaber, ikus daiteke etxebizitzen zati adierazgarri bat nahiko zaharrak diren eraikinetan kokatzen dela (1920a baino lehen eraikitako eraikinetan % 17 eta 1921 eta 1940 artean eraikitakoetan beste % 14,3). Hori dela eta, ez da harritzekoa pertsona horietako gehienak igogailurik gabeko eraikinetan bizitzea (% 53,6), nahiz eta zenbait kasutan familia bakarreko etxebizitzen eraikinak ere badiren (% 6,6).

Horrela, bada, Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko Erroldaren datu horiek aukera ematen dute zera ondo-

III.1.22. GRAFIKOA. Familia bizikidetzako modua adinaren arabera EAEn. 2001. (%)



Iturria: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2002.

rioztatzeko: orokorrean, adinekoak beren beharretara egokitzen ez diren etxebizitzetan bizi dira, zenbaitetan etxebizitza "handiegiak" dira, eta, batzuetan, ez dituzte muga fisikoak gainditzea ahalbidetzen duten gutxieneko instalazioak.

1.2.1. Adinekoek gizartean eta ekonomian duten rol berria

Biztanleriaren pixkanakako zahartzea herrialde guztiei eragiten dien erronka da, bai ekonomiaren aldetik, bai gizartearenetik, eta horrek inpaktu handia eduki du adinekoen geroz eta kopuru handiagoaren agerpena nola antzematen den eta belaunaldien arteko harremanak nolakoak diren ikusterakoan. Batzuek alderdi negatiboetan oinarritzen dute eztabaida: zahartzea karga gisa. Aitzitik, nagusi da sentimendu positiboa: zahartzea gizarte aurreratuen lorpena da, eta, gaur egun, zahartzeari buruz hitz egitea aukerei buruz hitz egitea da. Ongi zahartzea geroz eta garrantzitsuagoa den kontzeptua da, behin estereotipo negatiboak ezabatuta, eta hurrengo ideian oinarritzen den baikortasun berri batean zabaltzen da: adinekoak behar beste aprobetxatuta ez dauden aukerak eta gaitasunak eramaten dituzten per-tsonak bezala hartzea.

Orain arte adinekoei buruz pentsatzerakoan joera haiek hartzaile gisa bakarrik hartzea bazen ere (zaintzen hartzaile, laguntza material eta ekonomikoaren hartzaile), gaur egun babesa eta laguntza ematen jarraitzen dute batez ere beren senideei –gogora dezagun EAEko 50.000 etxebizitzatan aitona-amonengana jotzen du-

III.1.24. GRAFIKOA. Bizi itxaropenaren bilakaera EAEn. 1992-2007



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasunari buruzko Inkesta 2007.

III.1.23. GRAFIKOA. Jendeak, erretiroa hartzen duenean, zer jarduera egiten du edo egin nahi du? Datuak portzentajeetan. Estatua, 2006



Iturria: AXA. Erretiroari buruzko Nazioarteko Azterlana. 2006.

tela adingabeak zaintzeko–. Halaber, geroz eta gehiago, boluntario izaerako elkarteen barruan gizarte jarduera altruistak egiten dituzte[1].

IMSERSOk adinekoen irudiari buruz 2008an egindako Inkesta batek azpimarratu egiten du talde honen gaineko pertzepzioa (70 urteak gainditzen dituztenak aintzat hartuz) mirespenekoa dela, gurasoek eta aitonaamonek askotan gazteenei emandako laguntza finantzarioa, familian mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile gisa eta lan boluntarioan egiten duten ekarpen handia bezalako alderdiak baloratuz, besteak beste. Gainera, biztanleriaren % 75ak baino gehiagok uste du adinekoek beren esperientzia ematen diotela gizarteari.

Are gehiago esatearren, bizi itxaropenean aurrerantz egiteak finkatu egiten du banaketa argia "adineko gazteen" eta "adineko zaharren" artean. Orain dela gutxira arte muga hori 75 urteen inguruan kokatzen bazen ere, gaur egun batzuk 80 urteetaraino eramaten dute, eboluzioaren bizi baldintzek adin horietara iristea ahalbidetzen ari direla ikusita.

Gauzak horrela, erretiroa hartu berri dutenek (orokorrean 65 urtetik gorakoei buruz ari gara) hurrengo ezaugarriak dituzte komunean:

– Osasun hobea: Bizi itxaropena hobetu egin da gutxienez 30 urtean azken mendean. Izan ere, gehiago eta hobeto bizi gara, eta adineko biztanleriaren pertzepzioa osasun egoeraren gainean hobetu egin da ere azken urteetan, osasun ona duela uste duen erretirodun kopurua areagotuz. Izan ere, erretirodunak izan badira ere tradizionalki

[1] IMSERSOren adinekoei buruzko 2008ko Inkestaren arabera, Estatuko adinekoen % 11k gizarte boluntariotzako lanak egiteko ohitura du eta ia % 30ak dio ez litzaiokeela inportako horietan aritzea.

III.1.10. TAULA. Pertsona bat zahartzaroan sartu dela esateko arrazoiak. Estatua, 2008

	18tik 24ra	25etik 34ra	35etik 44ra	45etik 54ra	55etik 64ra	65 eta +	Guztira
Adina	24,1	20,4	15,6	17,1	16,9	20,7	18,9
Itxura fisikoa	17,7	13,1	13,7	11,0	10,3	10,5	12,5
Osasun hondamena	20,7	26,0	25,1	29,2	32,8	37,9	28,9
Hondamen intelektuala	10,8	13,3	13,7	12,6	13,8	9,8	12,4
Izaera, pentsatzeko modua	11,6	12,2	14,9	13,7	10,9	7,7	11,9
Erretiroa hartuta egotea	5,7	5,6	6,6	5,8	4,5	3,8	5,4
Bizimodua	9,1	8,8	9,9	9,8	9,5	6,5	8,9

Iturria: IMSERSO. Adinekoei buruzko inkesta 2008.

III.1.11. TAULA. Bizi itxaropenaren adierazleak autonomia erkidegoka

	2000		2007	
	Jaiotzerakoan	Osasun onarekin	Jaiotzerakoan	Osasun onarekin
ESTATUA	**79,4**	**70,7**	**81,1**	**72,6**
ANDALUZIA	78,3	67,9	79,8	70,6
ARAGOI	80,1	72,8	81,7	73,9
ASTURIAS	79,2	71,1	80,4	72,5
BALEARRAK	78,7	71,3	81,6	74,1
KANARIAR UHARTEAK	77,7	70,4	80,4	72,5
KANTABRIA	79,8	71,1	81,1	74,8
GAZTELA-MANTXA	80,1	71,0	81,5	72,4
GAZTELA LEON	80,8	70,7	82,1	73,1
KATALUNIA	79,1	70,7	81,6	74,3
VALENTZIAKO E.	78,8	70,9	80,6	71,1
EXTREMADURA	79,0	70,0	80,6	71,1
GALIZIA	79,5	70,6	81,0	71,9
MADRIL	80,4	73,1	82,5	74,0
MURTZIA	78,6	67,7	80,5	70,3
NAFARROA	80,7	72,8	82,5	75,0
EAE	**79,9**	**72,8**	**81,6**	**73,9**
ERRIOXA	80,5	75,1	81,8	76,0
CEUTA ETA MELILLA	78,0	68,0	79,5	67,2

Iturria: OSASUNA ETA GIZARTE POLITIKA MINISTERIOA. Osasun Adierazleak 2009.

aisialdi pasiboko jarduerei denbora gehien ematen zietenak, gaur egun areagotu egin da haien berariazko pisua eremu eta gizarte ekitaldi guztietan, hirugarren adinari tradizioz gutxien uztartutako horietan eta guzti, kirolean adibidez.

– Ikasketa eta kultura maila altuagoa: Orain hogei urte erretiroa hartzera iristen ziren pertsonak oinarrizko ikasketa maila portzentaje txiki batek bakarrik lortzen zuen belaunaldi batekoak ziren. 2001. urtean, 65 urtetik gorako biztanleriaren % 13,5ak ikasketa profesionalak edo bigarren hezkuntzakoak ditu gutxienez. Kultura eta ikasketa gehiagoko belaunaldi batek bizitzeko modu ezberdinak hartzen ditu, irakurketa bezalako aisialdiko jarduerak garatzen ditu, ikuskizunetara bertaratzen dira, ikus-entzunezko materiala erabiltzen du, kulturaren eta politikaren esparruetan parte hartzen dute... Gaur egungo erretirodunek geroz eta gaitasun gehiago dute gizarte zibilaren parte-hartze mekanismoetan parte hartzeko eta haietako askok beren eskubideak ezagutzen dituzte eta errespeta ditzaten nola egin badakite.

– Gizartearentzat bereziki erabilgarriak diren gizabanakoak dira: Gaur egun, 65 eta 75 urte arteko pertsona gehienek ez dituzte jarraitzen "zahartzaroari" tradizionalki uztartu izan zaizkion gaixotasun, mendetasun… ezaugarriak, eta esan daiteke haien bizitzak antza handiagoa duela langabezian dagoen heldu batek duen bizitzarekin, orain dela hamarkada gutxiko adineko batenarekin baino. Ondorioz, "gizarte erabilgarritasunerako" aukerak, politikaren, ekonomiaren eta gizartearen aldetik, zalantza guztitik harago daude. Azken batean, erretiroa hartuta duten pertsonak aztertzen direnean, geroz eta aukera gehiago dituztela igartzen da, eta ez bakarrik arrazoi demografikoak helduta, baizik eta, baita ere, erretiroa oraindik gazte direnean hartzen dutelako eta aurrekoek baino ezagutza eta gaitasun gehiago dituztelako. Horrek eragin dezake jarduera ezberdinak egin nahi izatea geroz eta gehiago, toki bat topatu nahi izatea beraientzat, definizio berriak eta nortasun atseginak.

– Azkenik, adinekoen kontsumoa areagotu egin da, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan. Kontua da adinekoak geroz eta erakargarritasun handiagoko sektore bihurtzen ari direla ondasunen eta zerbitzuen merkatuan –adibidez turismoan, besteak beste–, eta haiek duten eragin ekonomikoak, gizartekoak eta kulturakoak zerikusi gehiago duela hezkuntzarekin, ikaskuntzarekin eta bizi estiloekin adinarekin baino. Adinekoek merkatuan talde kontsumitzaile bezala betetzen duten papera faktore ezberdinek zehaztuko lukete: Jarduera tasak, lanean ari direnen eta lanean ari ez direnen arteko erlazioa, adina eta erretiro baldintzak, osasun politika eta gizartekoa, adinekoen ondarea. Azterlan ezberdinen arabera, Europan sortzen ari dira jada sektore batzuk, adinekoen biztanleria haztearen ondotik eta haien mentalitate berriaren ondotik garatzea aurreikusi dutenak.

1.2.2. Osasun egoera

EAEko osasun egoera orokorra eta, berdinki garrantzitsua dena, adinekoek osasunaren gainean duten pertzepzioa ona da orokorrean. Talde osoa aintzat hartuta, mota ezberdineko ezintasunei lotutako osasun arazo larriak dituzten adinekoak ez dira, zorionez, proportzio txiki bat besterik. Eusko Jaurlaritzak landutako EAEko 2007ko "Osasunari buruzko inkestaren" azken

III.1.12. TAULA. Jarduna betirako mugatuta duen pertsona portzentajea adinaren eta sexuaren arabera EAE-n, 2007

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
0tik 24ra	1,6	1,9	17,0
25etik 44ra	5,0	4,0	4,5
45etik 64ra	11,8	8,9	10,3
65etik 74ra	16,4	15,3	15,8
75 eta gehiago	24,7	28,4	27,1
Guztira	**8,2**	**8,5**	**8,4**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasunari buruzko Inkesta 2007.

alearen arabera, biztanleria osoaren % 4,4 eskas batek uste badu osasun "txarra" edo "oso txarra" duela, portzentaje hori % 8,9raino iristen da 65 urtetik gorakoen artean. Portzentaje hau % 18,5ekoa zen 2002. urtean (% 7,4 biztanleriaren multzoan).

Ahalik eta baldintza onenetan bizitzeak duen garrantzia ikusita, eta politika publiko egokiak martxan jartzeari buruz pentsatuz, geroz eta bereizketa handiagoa egiten da bizi itxaropenaren eta osasun oneko bizi itxaropenaren artean. Hilkortasunaren, erikortasunaren eta bizi kalitatearen faktoreen konbinazioa da bigarrenak aintzat hartzen duena. "*Osasunari buruzko inkestaren*" arabera, adierazle hori areagotu egin da 2007. urtean, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 2002ko datuaren aldean –aurreko inkestaren urtea–. Hazkunde horren arrazoia, gizonen artean, ezintasunen bat edukita gizonezkoek bizitzako urteetan izandako aldakuntza arina da (0,2 urte) eta, funtsean, osasun ona edukita bizi itxaropena areagotzea (1,4 urte). Gauzak horrela, erreferentziako urtean, gizonek jaiotzerakoan zuten bizi itxaropen osoa EAEn 78,3 urteetara iristen zen, 5 urte lehenago baino 1,4 gehiago.

Emakumeen artean, hazkundearen arrazoia osasun ona edukita bizi itxaropena hazten jarraitzea da (+ 1,9 urte), izan ere, ezintasunagatiko urteak ia konstante mantendu dira (are gehiago esatearren, 0,4 urte erori dira). Labur adieraztearren, itxaropena 85,6 urteetara iristen da, 2002an baino 1,6 gehiago.

III.1.25. GRAFIKOA. Zaintza pertsonaleko jarduerak egiteko mendetasun egoeran dagoen 70 urteko adineko portzentajea, adin multzoa eta sexua gorabehera. EAE, 2007



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasunari buruzko Inkesta 2007.

Datu hauek Europar Batasunak bizi duen egoerarekin alderatuz gero, lehenik eta behin ikusiko da emakume euskaldunak bizi itxaropen handienekoak direla, bai erabateko itxaropenean, bai osasungarrian. Bizi itxaropen osasungarriaren datuan oinarrituz gero, ikus daiteke 75,2 urtekoa dela eta atzetik dituela Malta (68,1) eta daniarrak (67,7 urte).

Bestalde, EAEko gizonezkoek 69,7 urteko bizi itxaropen osasungarria dute eta rankingaren buruan daude ere, atzetik maltarrak (69,2 urte) eta daniarrak (67,1) edukiz. EB-15aren batez bestekoa 62,6 urtetan kokatzen zen 2006. urtean emakumeentzat eta 62,6 urteetan gizonezkoentzat. Aldiz, EUROSTATen kopuruekin, Espainiarentzako datuak 63,7 urtekoak ziren urte hartan emakumeentzat eta 63,3koa gizonezkoentzat.

Generoaren ikuspegia funtsezkoa da zahartzea aztertzeko. Emakumeak luzeago bizi dira mendebaldeko gizarteetan, baina gizonek baino ezintasun gehiago edukitzeko joera dute. 2007ko Osasunari buruzko Inkestaren arabera, 70 urtetik gorako emakumeen % 11,9ak laguntza behar du zaintza pertsonaleko jarduerak egiteko eta % 18,7raino iristen da kopuru hori, aipatutako jarduerei bizitza independentea eduki ahal izateko behar diren egitekoak gehitzen badizkiegu. Gizonen artean, portzentajeak % 9raino jaisten dira lehenengo kasuan eta % 13,3raino bigarrenean.

Halaber, 65 urtetik gorako eta 74 urtetik beherako adinekoen tasa, jardueraren mugaketa kronikoa edukita, % 15,8ra iritsi zen 2007. urtean (% 15,3 emakumeen kasuan eta % 16,4 gizonen kasuan). Ratio hauek nabarmenki areagotzen dira 74 urtetik gorako pertsonentzat: % 27,1 guztientzat, % 28,4 emakumeentzat eta % 24,7 gizonentzat. Emaitza hauek 2002ko Osasunari buruzko Inkestaren datuekin uztartu behar ditugu: urte horretan ez ziren aintzat hartutako bi adin taldeak bereizten; ondorioz, 65 urtetik gorako pertsona guztientzat jardueraren mugaketa kronikoa zutenen portzentajea % 21,3koa zen (% 22,8 emakumeen artean eta % 19,2 gizonen artean).

Ondorioz, adinekoen osasun adierazle ezberdinek ideia berdin batera daramate: badirudi taldearen osa-

sun-mendetasun arazoek, ehunekoetan begiratuz gero, hobetzeko joera dutela. Bizi itxaropenaren hazkundeak areagotu egin du nabarmenki mendetasun egoeran dauden adinekoen kopurua. Aldiz, kualitatiboki, adinekoen mendetasun mailak beherantz egiteko joera du. Biztanleria gehiago zahartzeak ez du bere horretan esan nahi mendetasun egoeran dagoen adineko kopuruak gorantz egiten duenik kopuru berdinean, izan ere, adina ez da mendetasun arazoak azaltzea eragiten duen faktore bakarra.

1.2.3. Mendetasunaren gizarte arazoa. Gizarte baliabideak

Orokorrean, eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arretarekin uztartuta[2], zera egiaztatzen da[3]:

- Mendetasuna areagotu egiten da adinarekin, eta hura jasateko arrisku nagusiak hauek dira: emakumea izatea, alarguna eta diru-sarrera baxuekin.
- Hirugarren pertsona baten laguntza beharra eguneroko jarduerak egiteko % 12an kokatzen da adinekoen artean neurri bateko mendetasuna eta mendetasun larria aztertuz gero, eta % 26an mendetasun arina ere aintzat hartuz gero.
- 75 urteetatik aurrera, biztanleriaren ia erdiak ditu arazoak eguneroko jarduera batzuk egiteko (oinarrizkoak eta instrumentalak), eta bostetik batentzat larriak dira. Mendetasuna hasten den eta laguntza beharra dagoen batez besteko adina 72 urtekoa izaten da.
- Gizarte aldaketek pentsarazi egiten dute zerbitzu formal gehiagoren eskaera egongo dela, nahiz eta laguntza informalak izaten jarraituko duen datozen urteetan mendetasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza eredu nagusia, eta horrek beheranzko joera edukiko badu ere.

Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkestak, 2008an egindakoa EINek, agerian uzten du urte hartan ezintasunen bat zuen pertsona tasa milako 84,5ekoa bazen gure Autonomia Erkidegoan, ratioa milako 266,5era iristen zela 65 urtetik gorakoentzat. Adinekoen taldearen barruan, logikoa den bezala, kopurua areagotu egiten da adinarekin, 80 urtetik gorakoen arteko % 50era ia iritsi arte (% 40 gizonezkoen artean eta % 54,4 emakumeen artean). Ezintasunen bat duten adineko gehienek mugikortasunarekin (milako 194,7), etxeko bizitzako lanak egiteko aukerekin (milako 171,1) eta norberak bere burua zaintzearekin (milako 153,2) uztartutako mugak jasaten dituzte.

Egoera horien aurrean, laguntza informala da "gizarte babes ikusezina" deitu den hori eratzen duena. Babes horrek, doakoa eta masiboa, berebiziko garrantzia du adinekoei emandako arreta zerbitzuen sisteman. Mendetasun egoeran dauden adinekoen zaintza informalaren profila bat dator emakumeekin (% 83,6), normalean etxekoandreekin (% 50). Haien batez besteko adina 52,9 urtekoa izaten da. Adinekoen zaintzaz arduratzen diren emakume gehienen okupazio nagusia etxeko lanak badira ere (laneko merkatutik kanpo daude), segmentu garrantzitsu batek bateratu egiten ditu lan horiek soldatapeko lanarekin. Normalean zaintzen duten pertsonaren emazteak edo alabak izaten dira. Gainera, gehienek ez dute berariazko prestakuntzarik egiten dituzten lanak egiteko. % 75ak iraunkorki ematen du zerbitzu hori eta % 47k sei urtetik gora darama mendetasun egoeran dagoen pertsona zaintzen.

IMSERSOk "Adinekoak Espainian" (2008) izeneko bere azken txostenean bildutako datuen arabera, mendetasun egoeran dauden adinekoentzako gizarte zerbitzuen eskaintzan EAE Autonomia Erkidegoen multzoaren batez bestekotik gertu dago. Telelaguntzako zerbitzuen estaldura (65 urtetik gorakoen % 3,57)

[2] Mendetasun gisa ulertzen da eguneroko jarduerak modu autonomoan garatzeko ezintasuna edukitzea, adibidez jateko, janzteko, dutxa hartzeko, txukuntzeko eta etxebizitza garbitzeko, eta abar egiteko zailtasunak. Adineko guztiak ez dira mendekoak, baina zahartzerakoan autonomia galtzeko arriskua ageri da.

[3] EUSKO JAURLARITZA (2005). Ekonomia Azterlanak, 17.

III.1.13. TAULA. Adinekoentzako zerbitzuentzako estaldura indizeak. 2008ko urtarrila

	EELZ	Telelaguntza	Eguneko Zentroak	Bizitoki zerbitzuak
ANDALUZIA	3,92	5,46	0,66	2,98
ARAGOI	4,32	5,44	0,64	6,10
ASTURIAS	4,55	3,81	0,56	4,55
BALEARRAK	3,25	3,78	0,68	3,29
KANARIAR UHARTEAK	3,52	1,20	0,79	4,29
KANTABRIA	3,56	5,81	0,69	4,56
GAZTELA ETA LEON	4,84	3,54	0,58	6,80
GAZTELA-MANTXA	7,76	8,58	0,69	6,76
KATALUNIA	4,77	4,96	1,07	4,86
VALENTZIAKO E.	2,74	3,63	0,66	3,24
EXTREMADURA	9,90	4,41	1,11	4,59
GALIZIA	1,66	1,20	0,57	2,76
MADRIL	7,97	11,94	1,28	5,44
MURTZIA	2,42	3,35	0,70	2,87
NAFARROA	3,42	5,89	0,57	5,97
EAE	**5,45**	**3,57**	**0,89**	**4,51**
ERRIOXA	5,25	1,93	0,69	4,81
CEUTA	9,58	6,69	0,53	2,18
MELILLA	3,87	4,42	0,65	2,75
ESTADO	**4,69**	**4,72**	**0,83**	**4,44**

Estaldura indizea: (Erabiltzaile edo plaza kop./biztanleria>65)*100
ITURRIA.- OSASUNA ETA GIZARTE POLITIKA MINISTERIOA, Autonomia Erkidegoetako, Hiri Autonomoetako eta Foru Aldundietako datuekin egina.

Estatuko batez bestekoaren azpitik dago; aldiz, eguneko zentroetako zerbitzuetan (% 0,89), egoitzakoetan (% 4,51) eta etxez etxeko arreta zerbitzuetakoan (% 5,45) gainetik dago.

Labur adieraztearren, zerbitzu nagusien estaldura % 14,42ra iristen da gure Erkidegoko adinekoen kasuan (% 8,5, 2004. urtean). Estatu osoan, adinekoen kopuru hori % 14,68ra iristen da (% 9 zen 2004. urtean). Gaztela-Mantxa (% 23,79), Extremadura (% 20,01) eta Madril (% 26,63) izango lirateke alderaketa azterlanaren datuen erreferentzia datan (2008ko urtarrila) kokaleku onenean daudenak.

III.1.14. TAULA. Ezintasunen bat duten sei urte eta gehiagoko pertsonak, adin multzoa, sexua eta autonomia erkidegoa gorabehera. Tasak 1.000 biztanleko. 2008

	Guztira (sei urte eta gehiago)			65 urte eta gehiago			6 eta 44 bitarteko urteak		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
ESTATUA	**89,7**	**72,6**	**106,4**	**302,7**	**240,7**	**349,0**	**25,4**	**28,1**	**22,6**
Andaluzia	95,8	74,5	116,7	338,8	253,7	402,3	27,8	28,7	27,0
Aragoi	91,9	73,2	110,5	278,8	220,6	323,3	27,1	28,4	25,7
Asturias	103,7	76,6	128,4	296,9	214,8	353,8	27,7	32,0	23,3
Balearrak	71,0	54,1	87,9	245,8	163,1	310,3	28,1	28,0	28,1
Kanariar uharteak	71,3	63,1	79,5	267,3	232,7	294,7	23,7	25,4	21,9
Kantabria	70,0	54,7	84,7	222,4	162,2	266,0	18,8	24,7	12,7
Gaztela eta Leon	108,6	88,6	128,2	324,8	269,1	367,9	26,6	27,2	25,9
Gaztela-Mantxa	98,9	76,8	121,4	342,3	254,5	412,1	22,1	21,0	23,4
Katalunia	76,1	61,1	90,7	255,7	206,6	292,3	19,7	24,6	14,6
Valentziako E.	99,2	85,0	113,2	334,6	284,8	373,0	30,5	34,9	25,7
Extremadura	109,9	83,8	135,5	350,2	268,2	412,1	28,9	26,0	31,9
Galizia	112,9	89,8	134,3	330,9	261,7	380,2	28,9	31,0	26,6
Madril	75,9	63,9	87,1	276,2	231,6	307,6	24,7	28,7	20,5
Murtzia	98,0	81,7	114,7	374,6	291,3	438,0	27,9	34,2	20,9
Nafarroa	74,2	61,1	87,3	280,9	222,7	325,0	16,6	17,4	15,8
EAE	**84,5**	**69,7**	**98,6**	**266,5**	**213,0**	**305,7**	**21,4**	**24,6**	**18,0**
Errioxa	61,6	45,9	77,6	202,7	135,7	257,3	13,7	15,2	12,0
Ceuta	113,2	102,1	124,2	411,7	338,1	467,4	54,2	62,1	45,9
Melilla	118,6	93,2	142,8	424,6	295,5	522,3	41,4	45,2	37,7

ITURRIA.- OSASUNA ETA GIZARTE POLITIKA MINISTERIOA, EINen datuekin egina. INEBASE: Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkesta, 2008.

Halaber, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatistikaren azken datuen arabera, 2008ari buruzkoak, 405 egoitza adinekoentzako jarrita dago eta haien eskaintza 18.108 plaza eta 15.925 erabiltzailekoa da. Horrek esan nahi du 65 urtetik gorako ehun pertsona bakoitzeko 4,4 plaza dagoela (IMSERSOren datuek % 4,5eko estaldura ematen dute urte berdinerako). Sare publikoan 122 zentro eta 6.213 plaza dago, kopuru osoaren % 34,3. Azken urteetan, egoitzetako plazen pixkanakako hazkundearekin, ikus daiteke negozio aukerek erakarritako en-

III.1.26. GRAFIKOA. Nork zaintzen ditu mendetasun egoeran dauden adinekoak? Datuak portzentajeetan. EAE, 2008



Iturria: EIN, Ezintasunei buruzko Inkesta, 2008.

III.1.27. GRAFIKOA. Egoitzak adinekoentzat: Plaza kopuruaren bilakaera, biztanleria mota gorabehera. EAE



Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuen Estatistika. Datu bankua.

presa sektore baten sistemara sartzen ari dela pixkanaka. Aukera horiek geroz eta handiagoa den eskaritik datoz, biztanleria zahartzen ari delako. Hiru lurraldeetan hazkunde garrantzitsua egon da eskaintza pribatuan, normalean pisuetan eta 30 plazatik beherako egoitza txikietan oinarrituta.

Atenditutako pertsonen ezaugarriei dagokienez, adinekoen egoitzen proportzio txiki batek bakarrik –28 guztira– atenditzen ditu laguntza behar duten edo mendetasun egoeran dauden agureak. Horien eskaintza osoa 2.156 plazakoa da, kopuru osoaren % 11,9. Gainerakoa honela banatzen da: bere kabuz jarduteko gai diren agureentzat 77, eta 300 misto (plazen % 81,3). Egoitzetan sartutako adinekoen multzoan, mendetasun egoeran daudenek hazkunde arina jasan dute azken urteotan. Lehentasuna eman zaie, funtsean, “mistoak”

deitzen zaien plazei eta beherantz egin du beren kabuz jarduteko gai direnen edo autonomoen proportzioak.

1.2.4. Egoera ekonomikoa[4]

Ekonomiaren alorreko gabeziak, mendetasuneko arazoekin batera, dira adinekoen gizarte arazo nagusiak. Askotan, bizitokitzat duten etxebizitzaren baldintzei eragiten diete horiek, eskura dauden diru-sarrerei baino. EUSTATen "*Errenta Pertsonaleko eta Familia Errentako Estatistikaren*" azken datuek -2006koakagerian uzten dute eskura dagoen errentak behera egiten duela nabarmen, adinak aurrera egin ahala. Izan ere, eskura dagoen errentaren kopuru altuena 50 eta 54 urte artean eskuratzen da, 55 urteetatik aurrera pixkanakako murriztapenari ekiteko. Gauzak horrela, pertsonek erretiroari aurre egiten diote 65 urte dituztenean batez beste. Eskura dagoen errentaren batez bestekoa 14.217 €-koa da (2001ean baino % 43 gehiago, eskura dagoen batez besteko errenta % 35 hazi denean aldi berdinean). Kopuru hori 9.390 €-etara murrizten da 95 urte eta gehiagokoen multzoan.

III.1.15. TAULA. Batez besteko errenta pertsonala bosturteko adinaren eta errenta motaren arabera (eurotan). 2006. Bi sexuak

	Errenta osoa	Laneko errenta	Kapital higigarriaren errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jardueren errenta	Transferentziak	Eskura dagoen errenta
Guztira	**17.362**	**11.002**	**1.702**	**258**	**966**	**3.433**	**14.598**
18-19 urte	2.009	1.184	283	25	57	460	1.808
20-24 urte	6.298	5.417	281	25	171	405	5.510
25-29 urte	13.742	12.208	435	35	539	525	11.753
30-34 urte	17.712	15.247	723	60	930	752	14.938
35-39 urte	18.835	15.667	1.061	105	1.276	727	15.651
40-44 urte	20.521	16.887	1.296	154	1.513	671	16.811
45-49 urte	22.357	17.888	1.619	231	1.756	863	18.088
50-54 urte	23.504	18.034	2.112	319	1.736	1.302	18.943
55-59 urte	22.767	15.654	2.728	424	1.486	2.475	18.550
60-64 urte	19.703	7.643	3.261	529	1.169	7.1	16.659
65-69 urte	16.156	1262	3.062	566	507	10.757	14.217
70-74 urte	14.390	365	2.706	526	224	10.569	12.889
75-79 urte	13.743	170	2.454	444	139	10.536	12.559
80-84 urte	13.191	111	2.350	421	101	10.210	12.187
85-89 urte	13.371	128	2.972	406	79	9.786	12.269
90-94 urte	12.130	92	2.765	335	82	8.855	11.263
95 urte eta gehiago	10.020	163	2.356	351	36	7.113	9.390

ITURRIA: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika.

[4] Memoria Sozioekonomiko honetako "IV. Gizarte babesa EAEn" izeneko kapituluak informazio ezberdina sartzen du hainbat idatz-zatitan, gure Erkidegoan adinekoek eskuratzen dituzten gizarte prestazioei buruz.

III.1.16. TAULA. Metatze pobreziaren eraginaren bilakaera EAE-n, pertsona nagusiaren adina gorabehera. Familiako etxebizitzan bizi den biztanleria

	1986	1996	2000	2004	2008
< 35	4,1	0,6	10,5	7,6	1,3
35etik 44ra	2,2	2,7	1,9	3,2	1,6
45etik 54ra	7,0	2,2	1,7	0,7	0,2
55etik 64ra	5,7	0,7	2,3	1,2	0,2
65 eta gehiago	**9,0**	**2,2**	**2,3**	**1,2**	**0,4**
Guztira	**5,6**	**1,8**	**2,6**	**2,2**	**0,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. TGDI 2008.

Gainera, alde garrantzitsuak daude sexuaren arabera begiratuz gero, izan ere, emakume gehiago dira adina areagotu ahala 65 urteetara iristen direnak eskura dagoen batez besteko 8.154 €-ko errentarekin (gizonezkoen 20.979 €-en aldean) eta 95 urte eta gehiagorekin errenta 8.738 €-etaraino murriztu da.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2008" delakoaren emaitzek agerian uzten dute azterlanean metatze pobreziaren eragina[5] zein izan den adinaren arabera azken urteotan. Bilakaera aldekoa izan da adin tarte guztietan, batez ere pertsona nagusiak 65 urte edo gehiago dituen etxebizitzetan. Izan ere, 65 urtetik gorako pertsonek ikusi ahal izan dute 2004 eta 2008 urteen artean murriztu egin dela modu adierazgarrian arazo hauen eragina. Zehazki, 2004. urtean, pertsona nagusiak 65 urtetik gora zituen familiako etxebizitzan bizi zen biztanleriaren % 1,2ak metatze pobrezia jasaten bazuen, lau urte geroago tasa hori 8 hamarren murriztu da, 0,4raino (biztanleria osoaren murriztapena 1,3 puntua izan da, % 0,7raino).

Ondorioz, 65 urtetik gorako pertsonak buru diren etxebizitzak % 9,9 dira EAEko bizitoki txiroen artean aldagai zehatz honetarako. Adinekoen taldearentzat aldeko bilakaera ikusi da, izan ere, 2004. urtean horiek metatze pobrezia zuten etxebizitzen % 11 ziren.

Mantentze pobreziako kasuentzat ere, ohiko gastuei aurre egiteko baliabideen maila baxuari heltzen diona, hobekuntza erlatiboa igarri da adinekoen egoerarekiko. Gauzak horrela, pertsona nagusi gisa 65 urtetik gorako pertsona bat duten etxebizitzetako mantentze pobreziaren tasak % 3,2tik % 2,3ra igaro dira 2004 eta 2008 artean. Guztira, EAEn mantentze pobrezia jasaten duten familien % 13,2aren buruan 65 urtetik gorako adineko bat dago.

Erabateko ongizatea ez egotearen eragin tasei arreta emanez, ongizaterik gabeko pertsona proportzioak 65 urtetik gorako pertsona buru duten bizitokietan bizi den biztanleriaren % 21,3ari eragiten dio 2008. urtean. Ratio hori, altua den arren, murriztu egin da modu adierazgarrian: 1986an, egoera horrek gure Erkidegoan adinekoak buru ziren bizitokien % 40ari baino gehiagori eragiten zion.

[5] Metatze pobreziako egoeretarako hurbilketa etxebizitzetako egoera aztertuz egiten da Eusko Jaurlaritzaren azterlanean, bizi kalitateko adierazle batzuei dagokienez. Adibidez, instalazioak eta etxebizitzaren ekipamenduak aztertzen dira, ondare baliabideekin batera (etxebizitza, bestelako ondare baliabideak, pilatutako aurrezpenak eta hamar urtetik beherako antzinatasuna duten ibilgailuak). Metatze pobreziako egoerak edozein kasutan esan nahi du ondare arazoren bat ageri dela etxebizitzako oso arazo larriekin batera.

III.1.17. TAULA. Pobreziari buruzko eraginak sexua, adina eta bizikidetza modua gorabehera europar batasunean, 2006

	Adin guztiak	65 urtetik behera-koak	65 urte eta gehiago					75 urte eta gehiago		
			Bi sexuak	Gizonak	Emaku-meak	Bakarrik dauden adinekoak	Adineko bikoteak	Bi sexuak	Gizonak	Emaku-meak
EB -25	1,0	1,0	1,1	1,0	1,2	1,8	0,9	1,4	1,0	1,5
EB -15	1,0	1,0	1,2	1,1	1,3	1,5	1,1	1,6	1,3	1,8
Alemania	1,0	1,0	1,0	0,9	1,1	1,5	0,9	1,4	1,0	1,3
Austria	1,0	0,9	1,3	0,9	1,7	2,0	1,0	1,6	1,0	1,6
Belgika	1,0	0,9	1,6	1,4	1,8	1,7	1,5	1,9	1,7	2,0
Zipre	1,0	0,7	3,3	3,4	3,7	5,5	3,2	3,8	4,0	3,7
Danimarka	1,0	0,9	1,5	1,3	1,6	1,7	1,1	2,0	1,7	2,0
Eslovakia	1,0	1,1	0,7	0,4	1,0	1,2	0,3	1,2	0,5	1,3
Eslovenia	1,0	0,9	1,7	1,0	2,1	4,3	1,1	2,0	1,0	2,5
Espainia	**1,0**	**0,9**	**1,6**	**1,4**	**1,8**	**2,7**	**1,6**	**1,8**	**1,7**	**1,8**
Estonia	1,0	0,9	1,4	0,7	1,7	3,0	0,4	1,6	0,5	2,0
Finlandia	1,0	0,9	1,7	1,3	2,1	3,3	0,8	2,3	1,5	2,6
Frantzia	1,0	1,0	1,3	1,0	1,3	1,7	1,0	1,4	1,0	1,6
Grezia	1,0	0,9	1,3	1,1	1,4	1,5	1,2	1,7	1,7	1,8
Hungaria	1,0	1,1	0,6	0,4	0,6	0,8	0,6	0,7	0,5	0,8
Irlanda	1,0	0,9	1,5	1,2	1,7	3,0	0,7	1,8	1,5	2,0
Italia	1,0	1,0	1,1	0,9	1,3	1,7	0,9	1,1	1,0	1,2
Letonia	1,0	1,0	1,3	0,8	1,5	2,8	0,7	1,3	0,5	1,6
Lituania	1,0	1,0	1,1	0,6	1,4	2,2	0,6	1,3	0,5	1,8
Luxemburgo	1,0	1,1	0,6	0,7	0,6	0,5	0,6	0,6	1,0	0,3
Malta	1,0	0,9	1,5	1,5	1,4	1,3	1,9	1,4	1,5	1,3
Herbe-hereak	1,0	1,1	0,6	0,7	0,5	0,4	0,7	0,5	1,0	0,3
Polonia	1,0	1,1	0,4	0,4	0,5	0,4	0,3	0,3	---	0,3
Portugal	1,0	0,9	1,4	1,4	1,4	2,0	1,4	1,6	1,7	1,6
Txekiar Errep.	1,0	1,1	0,6	0,2	0,9	1,5	0,2	0,8	---	1,3
Erresuma Batua	1,0	0,9	1,4	1,3	1,6	1,8	1,2	1,9	1,7	2,0
Suedia	1,0	1,0	0,9	0,6	1,2	1,7	0,4	1,4	0,7	2,0

Iturria: Osasuna eta Gizarte Politika Ministerioa, EUSTATen datuekin egina.

III.1.28. GRAFIKOA. Benetako pobreziaren eraginaren bilakaera, pertsona nagusiaren adina gorabehera. Familiako etxebizitzetan bizi den biztanleria. EAE, datuak %etan



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. TGDI 2008.

Azkenik, TGDIk honela definitzen du benetako pobreziaren adierazlea: "*Pobreziaren dimentsio ezberdinetatik batean edo bestean ageri diren oinarrizko beharrak ongi ez estaltzeko arriskua duten egoeren inguruabarrak, horiek biztanleriaren eguneroko bizitzan behar beste orekatuta ez daudenean gutxieneko ongizate maila batera iristea posible izateko, pobreziaren esperientziatik harago*". Hori aintzat hartuz gero, ikus dezakegu 65 urtetik gorakoen taldearentzat, horren eraginaren bilakaera aldekoa izan dela ere: Adinekoak buru diren bizitokien % 9,8ari eragitetik (1986an) % 1,3ari eragitera igaro da 2008. urtean, gure Erkidegoko familien multzoaren % 3,2ari eragiten dionean.

2
Osasuna eta osasun sistema

2.1. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA

EAEko aurrekontuaren likidazioko datuen arabera, 2008an, hori baita informazioa eskura daitekeen azken ekitaldia, Osasun Sailaren gastu saila 3.240,7 eurokoa izan zen, hots, %10,7ko hazkundea aurreko ekitaldiaren aldean. Hazkunde portzentaje hori aurreko aldikoa baino txikiagoa da, hura %11,2koa izan baitzen. Gastu hori BPGd-ren %4,68 da, aurreko urteko %4,44 baino handiagoa.

Horrela, Osasun Saila oraindik dago lehenengo tokian baliabideen portzentajeari dagokionez, guztizkoaren %34,8rekin (proportzio hori aurreko urteetakoa baino apur bat handiagoa da: 2007: %34,1 eta 2006: %33,9). Programa nagusia Osakidetzarentzako transferentziei dagokie.

2.1.1. Laguntza jarduerako gastua

Osasun laguntza ospitaleko edo ospitaleaz kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUSTATek emandako datuak, ospitaleko (*Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika*) eta ospitaleaz kanpoko (*Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika*) sektoreei dagokienez.
- Dena dela, lehenengoari dagokionez informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenari dagokionez (ospitaleaz kanpokoa), sektore publikorako baino ez dago.

III.2.1. TAULA. Eusko jaurlaritzaren osasun sailak likidatutako gastuaren banakapena (mila eurotan)

	2006	2007	2008	2007-08 bilakaera
Egitura eta laguntza	16.442	24.372	19.155	-21,4
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.027.899	2.285.500	2.571.048	12,5
Osasun publikoa	26.509	33.363	29.475	-11,7
Osasun plangintza eta antolamendua	7.810	6.108	7.238	18,5
Farmazia eta prestazio ortoprotesikoa	548.824	572.893	610.630	6,6
Euskadi informazioaren gizartean plana	5.419	4.446,1	3.122	-29,8
Osasuna guztira	**2.632.903**	**2.926.682**	**3.240.668**	**10,7**
GUZTIRA	7.770.938	8.584.886	9.317.300	8,5
BPGd	61.760.620	65.928.497	69.212.109	5,0
Osasunaren % GUZTIZKOAren gainean	33,9	34,1	34,8	
Osasunaren % BPGd-ren gainean	4,26	4,44	4,68	

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta norberak egina

III.2.2. TAULA. EAE-ko ospitaleaz kanpoko sektore publikoko gastua					
	2004	2005	2006	2007	Bar. % 2006/07
JARDUERA EKONOMIKOA (mila euro)					
Gastuak guztira	**368.365**	**398.582**	**421.364**	**482.498**	**14,5**
Gastu korronteak	358.156	389.928	408.984	454.732	11,2
Langileria gastuak	303.038	330.091	346.500	386.275	11,5
Beste gastu korronte batzuk	55.118	59.837	62.484	68.457	9,6
Kapital gastuak	10.208	8.654	12.381	27.766	124,3
ADIERAZLE EKONOMIKOAK					
Langileria gastua / Guztizko gastua (%)	82,3	82,8	82,2	80,1	-
Kapital gastua / Guztizko gastua (%)	2,8	2,2	2,9	5,8	-
Gastua/biztanleko (euroak)	175,0	188,4	197,7	224,7	13,6
Gastua/BPGd (%)	0,7	0,7	0,7	0,7	-

Iturria: EUSTAT. Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika

III.2.3. TAULA. EAE-ko ospitaleaz kanpoko sektorearen salmentak eta sarrerak (mila eurotan)				
	2004	2005	2006	2007
Salmentak eta sarrerak guztira	**403.072**	**433.717**	**464.061**	**514.255**
-Emandako zerbitzuengatiko sarrerak	390.749	421.258	449.930	498.123
--Norbanakoak	115	130	152	168
--Aseguru erakunde pribatuak	1.453	1.352	1.232	1.359
--Lan istripuetarako mutuak	32.309	34.974	34.138	35.754
--Osasun Saila	356.707	384.633	414.241	460.657
--Beste erakunde publiko batzuk	161	165	162	179
--Emandako zerbitzuengatiko beste sarrera batzuk	3	4	4	7
-Enpresentzat egindako lanak	471	433	468	874
-Ustiapenerako diru-laguntzak	1.698	1.834	1.916	1.969
-Kudeaketako beste sarrera batzuk	1.402	1.524	1.514	1.591
-Finantza sarrerak	48	79	67	105
-Beste sarrera batzuk	248	231	335	274

Iturria: EUSTAT. Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika

– Osakidetzak ospitalekoari zein ospitaleaz kanpokoari buruz emandako informazioa.

Ospitaleaz kanpoko jarduera publikoko gastua

Memoria sozioekonomikoaren bertsio hau ixterakoan eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2007an euskal osasun publikoak 482,5 milioi euro erabili zituen ospitaleaz kanpoko osasun laguntzarako. Horrek aurreko urtearen aldean %14,5eko hazkundea dakar, EAEk urte horretarako izan zuen %6,7ko hazkundearen gainetik (BPGd-ren hazkunde nominalaren arabera).

Gastu guztietatik, %94,2 (454,7 milioi euro) gastu korronteak izan ziren eta %5,8 (27,8 milioi) inbertsio gastuak. Zenbateko hori %124,3 hazi zen aurreko urtearen aldean, Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitzen ari ziren ospitaleaz kanpoko zentro berrien ondorioz.

Langileria gastua %11,5 hazi zen aurreko ekitaldiaren aldean eta guztizko gastuaren %80 da. Horrek 2006an zeukan pisuaren aldean %2,2ko jaitsiera dakar.

Ospitaleaz kanpoko laguntza jarduera EAEko BPGdren %0,73 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 224,7 eurokoa, aurreko urtean baino %13,6 gehiago.

Ospitaleaz kanpoko gastu publikoaren finantzazio iturri nagusia orduan ere Osasun Saila izan zen.

Ospitaleko jarduera publiko eta pribatuko gastua

EUSTATen Ospitaleko laguntzari buruzko estatistikako datuen arabera, 2008an EAEko ospitaleko osasun gastua (publikoa eta pribatua) 2.079,2 milioi eurokoa izan zen (1.844,1 milioi aurreko urtean), hots, %12,8ko hazkundea aurreko ekitaldiaren aldean; euskal ekonomiaren hazkundearen gainetik, BPGd korrontearen arabera, %3koa izan baitzen.

Ospitaleko laguntza jarduera 2008ko euskal BPGdren %3 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 965 eurokoa, aurreko urtean baino %12 gehiago. Gastu guztietatik, 1.954,8 milioi gastu korronteetakoak izan ziren eta 124,5 milioi inbertsiokoak, aurreko urtean hasitako hazkundeari jarraituz.

III.2.4. TAULA. EAE-ko ospitaleko sektoreko gastuaren bilakaera

	2004	2005	2006	2007	2008	2007-08 %
JARDUERA EKONOMIKOA (mila euro)						
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	1.402.897	1.513.564	1.651.364	1.844.063	2.079.209	12,8
Gastu korronteak	1.350.474	1.459.257	1.590.343	1.750.667	1.954.760	11,7
Langileria gastuak	850.760	922.664	1.007.459	1.122.140	1.259.434	12,2
Beste gastu korronte batzuk	499.714	536.593	582.884	628.527	695.326	10,6
Inbertsioa	52.423	54.307	61.021	93.396	124.449	33,2
Diru-sarrerak guztira	1.331.643	1.440.098	1.585.618	1.745.731	1.956.902	12,1
Sarrera korronteak	1.300.697	1.406.996	1.552.128	1.712.408	1.922.149	12,2
Salmentak	1.290.505	1.395.618	1.541.772	1.702.646	1.905.818	11,9
Diru-laguntzak	10.192	11.378	10.356	9.762	16.332	67,3
Kapital sarrerak	30.946	33.102	33.490	33.323	34.753	4,3
ADIERAZLE EKONOMIKOAK						
Gastua/biztanleko (euroak)	659	716	776	861	965	12,0
Gastua/BPGd	2,6	2,6	2,7	2,8	3,0	

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika.

III.2.5. TAULA. EAE-ko ospitaleko sektoreko gastuaren bilakaera (mila euro)

	2006			2007			2008			2007-08 bilakaera		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	1.651.365	1.394.888	256.476	1.844.063	1.566.257	277.806	2.079.209	1.765.990	313.220	12,8	12,8	12,7
Salmentak eta gastu korronteak guztira	1.590.343	1.351.927	238.416	1.750.667	1.492.932	257.735	1.954.760	1.663.806	290.954	11,7	11,4	12,9
Erosketak	454.546	371.510	83.035	494.983	405.144	89.840	547.947	447.508	100.439	10,7	10,5	11,8
Langileria gastuak	1.007.459	891.158	116.301	1.122.140	995.521	126.619	1.259.434	1.117.471	141.964	12,2	12,2	12,1
Inbertsioak guztira	61.022	42.961	18.060	93.396	73.325	20.071	124.449	102.184	22.266	33,2	39,4	10,9
Salmentak eta sarrerak guztira	1.552.128	1.307.908	244.22	1.712.408	1.447.070	265.339	1.922.149	1.629.100	293.050	12,2	12,6	10,4

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika

Titulartasunaren arabera, hots, sare publikoa eta pribatua bereiziz, gastuaren %85 gastu publikoa da.

Bai gastu publikoa bai pribatua hazi egin dira 2007 eta 2008 artean, %12,8 lehenengoa eta %12,7 bigarrena. Gastu korrontearen hazkundea %11,4koa da lehenengoari dagokionez eta %12,9koa bigarrenari dagokionez. Bestalde, inbertsioak, berriz ere, gehiago hazi dira sare publikoan (%39,4) sare pribatuan baino (%10,9). Sarrerei dagokienez (salmentak eta sarrerak) %12,6 hazi dira sare publikoan eta %10,4 pribatuan.

Osakidetzaren gastuak bere ospitaleko eta ospitaleaz kanpoko jardueran

EAEko Kontu orokorren bidez egindako Osakidetzaren aurrekontuaren likidazioak erakusten duenez,

III.2.6. TAULA. Osakidetzaren aurrekontuak eta gastuen likidazioa (mila euro)

	2006			2007			2008		
	Aurrk.	Likid.	Aldea	Aurrk.	Likid.	Aldea	Aurrk.	Likid.	Aldea
INBERTSIOA	78.463	68.619	-9.844	123.137	113.513	-9.624	160.924	140.820	-20.104
USTIAPEN GASTUA	1.838.278	1.841.206	2.928	2.042.700	2.049.387	6.687	2.274.953	2.277.682	2.729
Langileria	1.262.528	1.262.350	-178	1.419.568	1.417.562	-2.006	1.603.876	1.602.115	-1.761
Hornikuntzak	419.773	414.209	-5.564	462.253	446.257	-15.996	491.605	462.124	-29.481
Beste batzuk	155.977	164.647	8.670	160.879	185.568	24.689	179.472	213.443	33.971
GUZTIRA	**1.916.741**	**1.909.825**	**-6.916**	**2.165.837**	**2.162.900**	**-2.937**	**2.435.877**	**2.418.502**	**-17.375**
Gastuaren urteen arteko bilak. (%)	7,3			13,3			11,8		
BPGd gaineko gastua (%)	3,09			3,26			3,53		

Iturria: Norberak egina EAEko Kontu Orokorretatik hartuta

erakundeak 2008an 2.418,5 milioi euroko gastua egin zuen (%+11,8 2007aren aldean), hots, BPGd nominalaren %3,53. Hazkunde horien azalpena ustiapen gastuen (langileria, hornikuntza eta beste gastu batzuk) eta inbertsioen hazkundean datza.

Guztizko aurrekontu likidatutik, %5,8 inbertsioei dagokie (140.820 mila euro) eta %94,1 ustiapen gastuei. Azken horretan langileria gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu guztien %66,2.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoak 2008an benetan egikaritutakoaren aldean izandako desbideratzeari dagokionez, gastu likidatua aurrekontukoa baino txikiagoa da (-17.375 milioi euro), eta inbertsioengatiko desbideratzeari dagokio, aurrekontukoa baino %12,5 gutxiago burutu baita. Ustiapen gastuei dagokienez, likidatutako zenbatekoa aurrekontukoa baino handiagoa da, "beste gastu batzuk" sailaren ondorioz, "hornikuntzak" eta "langileria gastuak" sailetan egindako gastua aurrekontukoa baino txikiagoa baita.

2.2. OSASUNAREN IKUSPEGI OROKORRA ETA LEHENTASUNEKO ARAZOAK

2.2.1. Bizi itxaropena

Bizi itxaropena jaiotzean

Jaiotze uneko bizi itxaropena (BI) biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da. Osasun maila ez ezik, adierazleak leku jakin bateko gizarte, ekonomia eta osasun maila islatzen ditu. ***X*** adineko bizi itxaropena ***x*** adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren araberako berariazko hilkortasun-tasetan egungo joerek iraunez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Neurri hipotetikoa da, ez baitu bizirauteko benetako probabilitaterik neurtzen. Egungo hilkortasun-tasen arabera kalkulatzen da eta, jakina, tasa horiek denboran alda daitezke. Abantaila nagusia honakoa da: zenbait eskualde edo herri erkatzeko eta denboran izandako bilakaera aztertzeko erabil daiteke, erkatutako erkidegoetako adin egituren arteko aldeek eragiten ez diotelako.

Memoria sozioekonomikoaren aurreko argitalpenean aipatu genuenez, 2008an 2007ko datuekin argitaratutako Euskadiko osasunari buruzko azken inkestako datuen arabera, EAEko Biren joera goranzkoa da, bai emakumezkoei bai gizonezkoei dagokienez. Horrela, 2002 eta 2007 artean BI 76,7 urtetik 78,3 urtera (+1,6 urte) igaro da gizonezkoentzat eta 84,1 urtetik 85,6ra (+1,5 urte) emakumezkoentzat.

Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud. España 2010* txosteneko datuen arabera, 2002 eta 2007 artean, espainiar Estatuan BI 76,3 urtetik 77,8ra igaro da gizonezkoentzat eta 83 urtetik 84,3ra emakumezkoentzat; eta EB27n, 2002 eta 2006 artean, 74,5 urtetik 75,8ra gizonezkoentzat eta 80,9 urtetik 82ra emakumezkoentzat.

Ezintasunik gabeko bizi itxaropena

Herri garatu gehienetan, bizi itxaropenaren behinbehineko bilakaera goranzkoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi adierazlea handitu den bizi urte guztiak osasun egoera oneko urteak direnik, jendeak gaixotasunak eta osasun arazoak paira ditzakeelako eta hori dela-eta, berehala hil ez arren, bizi kalitatea gal baitaiteke. Orokorrean, gaitz kronikoetan gertatzen da hori, eta haien agerpenagatik hilkortasun-tasak apurka-apurka balioa galdu du biztanlerien osasun egoeraren adierazlea izateko.

Gogoeta egiten da ea etorkizunean itxaropenaren hazkundearekin batera gaixotze-tasa ere haziko den, gaitz kronikoek eta buruko gaitzek gora egingo duten, edo bizitza luzeagoa osasun onez igaroko den, medikuntza aurrerapenei eta gaitzen prebentzioari esker.

Hori dela-eta, egun ohiko hilkortasun neurriak ez dira nahikoa osasun egoera ebaluatzeko, osasun egoera horretan berehalako hilkortasuna ez dakarten gaitz eta osasun arazo kronikoak ugariak direlako. Beraz,

gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera murrizketaren edo ezintasunaren bidez. Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak, hala nola ***ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI)*** –hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua- egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.

X adineko EGBIk ***x*** adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud. España 2010* txosteneko datuen arabera, 2002 eta 2007 artean, espainiar Estatuan EGBI 70.7 urtetik 72,6ra igaro da; eta EAEn, 72,8 urtetik 73,9ra.

Osasun oneko bizi itxaropena

Osasun oneko bizi itxaropenaren (OOBI) eta EGBIren arteko aldea honakoan datza: bizi urteak subjektuek euren osasun egoeraz daukaten pertzepzio subjektiboaren arabera kalkulatzen direla, ezintasunaren arabera kalkulatu beharrean. EGBIren aldean daukan abantaila da osasun egoerari buruzko pertzepzioaren gaineko informazioa antzekoa dela denboraren joanean, neurtzeko erabiltzen den tresnak egonkor iraun duelako denboraren joanean.

X adineko OOBIk ***x*** adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud. España 2010* txosteneko datuen arabera, 2002 eta 2007 artean, espainiar Estatuan OOBI 55,1 urtetik 55,3ra igaro da; eta EAEn, 59,5 urtetik 59,8ra.

2.2.2. Hilkortasuna

Hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi nagusiak

EUSTATen datuen arabera, 2009. urtean behin-behineko heriotza kopurua 18.901ekoa izan zen; haietatik 9.783 gizonezkoak izan ziren eta 9.118 emakumezkoak. Hortaz, 2008an baino 536 zentze gutxiago gertatu ziren, hots, %2,8 gutxiago. Jaitsiera hori, beste neurri batean bada ere, genero ikuspegitik ere errepikatzen da. Horrela, emakumezkoen artean 201 zentze gutxiago egon ziren, hots, %2,2 gutxiago, eta gizonezkoen artean 335 gutxiago (%-3,3).

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak “laugarren adina” deritzonera iritsi dira. Horrela, 70-79 urteko taldean 4.122 heriotza gertatu dira, 80-89 urtekoan 7.241, 90-99 urtekoan 3.279 eta 99 urtetik gorakoan 197

70-100 urteko tarteari helduz, eta aurreko urtearen aldean, 80-100 urtekoen artean heriotza proportzio handiagoa gertatu da, eta 70-79koen artean txikiagoa.

Bestalde, haurren heriotza-tasa (urtebetez azpikoak) murriztu egin da 200. urtearen aldean; 62 heriotzatatik 59ra, baina nesken artean baino ez (30etik 2ra), mutilen artean handitu delako (32tik 37ra).

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira. Gaixotasun kardiobaskularrak eta minbizia heriotza guztien hiru bostenen errudunak dira.

Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud. España 2010* txosteneko datuen arabera, 2007an Estatuan hiltzeko arrazoi nagusiak honakoak izan ziren: lehenengoa, zirkulazio-aparatuaren gaixotasunak (guztien %32,2); bigarrena, neoplasia gaiztoak edo tumoreak (%26); hirugarrena, arnas aparatuaren gaixotasunak (%11,4); eta laugarrena, digestio paratuaren gaixotasunak (%5,1). Gizonezkoen eta emakumezkoan artean desberdintasunak daude. Horrela, gizonezkoei dagokienez, tumore gaiztoek zirkulazio-aparatuaren gaitzak gainditzen dituzte, eta emakumeei dagokienez alderantziz gertatzen da.

EUSTATen datuen arabera, 2007tik gertatutako heriotza gehienak tumoreengatik gertatu dira (%30,5 2009an) eta bigarren tokian zirkulazio-sistemaren gaixotasunak kokatzen dira (%29,3). Aurreko urteetan zirkulazio-sistemaren gaitzek eragin zituzten heriotza gehien.

III.2.7. TAULA. Heriotzak sexuaren arabera

	GUZTIRA			URTEBETEZ AZPIKOAK		
	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.
2001	18.087	9.670	8.417	60	36	24
2002	18.619	9.875	8.744	61	33	28
2003	19.305	10.050	9.255	62	33	29
2004	18.684	9.770	8.914	79	38	41
2005	19.425	10.329	9.096	57	36	21
2006	18.507	9.810	8.697	66	29	37
2007	19.252	10.021	9.231	88	47	41
2008	19.437	10.118	9.319	62	32	30
2009 (b)	18.901	9.783	9.118	59	37	22
2008-2009 aldea	-536	-335	-201	-3	5	-8
08-09 bil. %	-2,8	-3,3	-2,2	-4,8	15,6	-26,7

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

III.2.8. TAULA. EAE-ko heriotzak betetako adinaren arabera

	<1	1-09	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	≤100
2001	60	22	41	181	356	601	1.263	2.305	4.811	5.682	2.667	98
2002	61	23	48	162	327	660	1.280	2.304	4.834	6.020	2.777	123
2003	62	19	43	148	300	696	1.304	2.184	4.955	6.379	3.075	140
2004	79	23	40	122	274	665	1.289	1.997	4.776	6.323	2.986	110
2005	57	21	37	134	280	593	1.310	1.968	4.955	6.752	3.171	147
2006	66	16	28	116	248	659	1.230	1.948	4.660	6.348	3.058	130
2007	88	23	33	92	258	628	1.318	2.019	4.618	6.864	3.145	166
2008	62	21	24	97	216	626	1.265	1.990	4.601	7.124	3.247	164
2009	59	15	26	60	199	561	1.138	2.004	4.122	7.241	3.279	197

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

Bukatzeko, 2009ko behin-behineko datuen arabera, jaiotzak (20.803) heriotzak (18.901) baino gehiago dira eta EAEko hazkunde begetatiboa (biztanleria jaiotzen eta heriotzen arteko aldea bezala hartuta, migrazio mugimenduak aintzat hartu gabe) oraindik da positiboa, 1.902 lagun gehiago.

III.2.9. TAULA. Heriotzak hiltzeko arrazoien arabera

	EAE								
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 (b)	
								z	%
Guztira	**18.619**	**19.305**	**18.684**	**19.425**	**18.507**	**19.252**	**19.437**	**18.901**	**100,0**
Tumoreak	5.467	5.548	5.479	5.462	5.58	5.812	5.811	5.758	30,5
Zirkulazio-sistema	5.891	5.891	5.775	5.891	5.615	5.71	5.692	5.539	29,3
Arnas sistema	1.944	2.066	1.788	2.214	1.739	1.854	1.941	1.744	9,2
Digestio sistema	954	1.041	1.013	950	949	990	979	882	4,7
Istripuak	795	806	745	776	697	734	711	547	2,9
Beste gaitz guztiak	3.568	3.953	3.884	4.132	3.927	4.152	4.303	4.431	23,4
Hiltzeko arrazoi ohikoenen arteko portzentajezko banaketaren bilakaera:									
Tumoreak	29,4	28,7	29,3	28,1	30,2	30,2	29,9	30,5	
Zirkulazio-sistema	31,6	30,5	30,9	30,3	30,3	29,7	29,3	29,3	

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

Hilkortasun goiztiarra. Bizi urte potentzial galduak (BUPG)

Adierazle hau, irizpide bateratu batzuk bilduta etorkizuneko epidemiologia azterketa bat osatzen duen pertsona talde batentzat, garaia baino lehenago (70 urte bete baino lehenago) hil diren pertsonek bizi ez dituzten urte guztiak (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko aldeen batuketa metatua) oinarri hartuta eratzen da. Horrela, bizi urte potentzial galduak (BUPG) osasun publikoan neurri ona dira biztanleria gazteenarengan hilkortasunak izandako eragina islatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2008an emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak; suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak , garuneko hodien gaixotasunak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak, eta koloneko tumore gaiztoa.

Egoera hori 2007koarekin erkatuta, BUPGn eta hilkortasun tasetan (gordinean edota egokituan) hazkundeak ikusten dira bularreko tumore gaiztoetan, garuneko hodien gaixotasunetan, suizidioetan eta nork bere buruari eragindako zaurietan; zirrosian eta gibelaren gaitz kronikoetan, koloneko tumore gaiztoetan, pankreako tumore gaiztoetan eta leuzemietan.

Gizonezkoei dagokienez, 2008an, EAEn BUPGrako zio nagusiak trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, ibilgailu motorduneko trafiko istripuak, zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak, garuneko hodien gaitzak, eta istripuzko erorikoak.

Egoera 2007koarekin erkatuta, BUPG eta hilkortasun tasak (gordina edota egokitua) honakoetan hazi dira: trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoetan; istripuzko erorikoetan; koloneko tumore gaiztoetan eta txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoetan.

III.2.10. TAULA. Bizi urte potentzial galduak sexuaren arabera eta zio nagusiak

	BUPG	T. gordina*	T. estandar.*	BUPG	T. gordina*	T. estandar.*
	Gizonezkoak 2008			Gizonezkoak 2007		
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	5.06	5,6	4,8	4.778	5,3	4,5
Kardiopatia iskemikoa	3.153	3,5	2,9	3.473	3,8	3,2
Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak	2.26	2,5	2,2	2.343	2,6	2,2
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	2.183	2,4	2,5	2.744	3,0	2,9
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	1.543	1,7	1,4	2.07	2,3	2,0
Garuneko hodien gaixotasunak	1.125	1,2	1,0	1.265	1,4	1,2
Istripuzko erorikoak	1.122	1,2	1,2	825	0,9	0,9
Koloneko tumore gaiztoa	985	1,1	0,9	895	1,0	0,9
HIES	973	1,1	0,9	1.145	1,3	1,0
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	960	1,1	0,9	843	0,9	0,9
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	905	1,0	0,8	1.048	1,2	1,0
Urdaileko tumore gaiztoa	895	1,0	0,8	1.093	1,2	1,1
Ezpaineko, aho-barrunbeko eta faringeko tumore gaiztoa	850	0,9	0,8	1.055	1,2	1,0
Esofagoko tumore gaiztoa	775	0,9	0,7	968	1,1	0,9
Gibeleko eta gibel barruko behazun bideetako tumore gaiztoa	643	0,7	0,6			
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	5.06	5,6	4,8			
Kardiopatia iskemikoa	3.153	3,5	2,9			
	Emakumezkoak 2008			Emakumezkoak 2007		
Bularreko tumore gaiztoa	2.328	2,6	2,1	2.230	2,5	2,1
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	1.83	2,0	1,7	1.868	2,1	1,8
Garuneko hodien gaixotasunak	903	1,0	0,8	648	0,7	0,7
Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak	840	0,9	0,8	840	0,9	0,8
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	600	0,7	0,5	375	0,4	0,4
Koloneko tumore gaiztoa	588	0,7	0,5	510	0,6	0,5
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	503	0,6	0,8	677	0,8	0,9
Pankreako tumore gaiztoa	475	0,5	0,4	353	0,4	0,4
Obulutegiko tumore gaiztoa	473	0,5	0,4	570	0,6	0,5
Kardiopatia iskemikoa	455	0,5	0,4	570	0,6	0,5
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	433	0,5	0,4	673	0,8	0,7
Leuzemia	400	0,5	0,4	364	0,4	0,5
HIES	318	0,4	0,3			
Entzefaloko tumore gaiztoa	305	0,3	0,3	460	0,5	0,5
Umetoki-lepoko tumore gaiztoa	280	0,3	0,3	343	0,4	0,3

*Milako tasa gordina eta europar biztanleria estandarrarekin estandarizatutako tasa adinaren arabera.
Iturria: Heriotzen erregistroa. Osasun plangintza eta antolamenduaren zuzendaritza.

Hilkortasuna gaitz transmitigarriengatik. HIES

EUSTATen datuen arabera, 1981etik 2007ra EAEn 5.475 hies kasu diagnostikatu dira eta 3.087 lagun hil dira, hots, kasu diagnostikatu guztien %56,4.

Kasu berrien kopurua murriztu egin da, hiesaren aurkako borrokan bai prebentzioan, bai osasun laguntzan egindako aurrerapen guztiei esker, baina batez ere retrobiralen aurkako tratamendu berriei egotz dakioke. Halaber, gaitzagatik hildakoen kopurua jaitsi egin da.

2007an, EAEn 75 kasu diagnostikatu ziren.

Transmititzeko biderik ohikoena, EUSTATen arabera, droga erabiltzailea da (%71,4). Babestu gabeko harreman heterosexualen bidezko transmisioa %14,5ekoa da.

Estatuan, Hies Kasuen Erregistro Nazionalaren datuen arabera, Espainian izurria hasi zenetik, guztira 77.231 hies kasu jakinarazi dira. 90ko hamarkadaren erdialdera mailarik gorenera iritsi ondoren, kasu jakinarazien kopuruak beherantz egin du; horrela, 2008an jakinarazpenek %80ko jaitsiera izan dute 1996an jakinarazitako kasuen aldean, hura izanik retrobiralen aurkako jarduera handiko tratamenduak orokortzen hasi aurreko urtea.

Hies Kasuen Erregistro Nazionalaren datuen arabera, transmititzeko bidearen araberako kasuen banaketak erakusten du, ratioetan aldeak egon arren, bide parenteralezko droga erabilera (BPDE) transmititzeko bide nagusia dela emakumezkoen eta gizonezkoen artean, bai EAEn bai Estatuan.

III.2.1. GRAFIKOA. EAEn diagnostikatu eta hildako HIES kasuak (1981tik pilatuak)



Iturria: EUSTAT

III.2.11. TAULA. Hies kasuen banaketa transmititzeko bidearen arabera (% bertikalak)

	2004	2005	2006	2007
Guztizko absolutua	**5.155**	**5.279**	**5.400**	**5.475**
Droga kontsumoa bide parenteralez	73,2	72,9	71,9	71,4
Harreman homosexualak eta bisexualak	6,2	6,3	6,7	6,8
Harreman heterosexualak	13,0	13,2	14,3	14,5
Hemofilia	1,1	1,0	1,0	1,0
Arriskuko gurasoen seme-alabak	1,2	1,2	1,1	1,1
Transfusioak	0,5	0,5	0,4	0,4
Bide parenteralezko droga-mendekotasuna eta harreman homosexualak eta bisexualak	1,4	1,4	1,3	1,3
Ezezaguna / Ez da agertzen	3,4	3,5	3,3	3,5

(*) 1981z geroztik pilatutako kasuak. Iturria: EUSTAT

2.2.3. Erikortasun adierazleak

Erikortasuna gaitz batek biztanleria batengan dauzkan ondorioen ikerketa da, toki eta denbora jakin batean gaixotzen diren pertsonen proportzioari dagokionez.

Ospitaleko senda-agiriak diagnostikatutako talde handien arabera

EUSTATen datuen arabera, EAEko akutuentzako ospitaleek 316.857 senda-agiri erregistratu zituzten 2008an, hots, %6,6 gehiago aurreko urtearen aldean. Lau ospitaleko senda-agiritatik bat eguneko ospitaletik etorri zen. Laguntza unitate horretan gaixoak sartzen den egun berean jasotzen du senda-agiria, eta bertan hartutako kasuak nabarmen hazi dira azken urteotan (2000-2008). Haien artean begi-lausoen ebakuntza eta kimioterapiako tratamendua nabarmentzen dira.

Ospitaleratzeko zio nagusiak honakoak izan ziren: zirkulazio-aparatuaren gaixotasunak (kardiobaskularrak), guztien %11,9; nerbio-sistemari eta zentzumen organoei lotutako gaitzak (%11,4), zeinek, 2007aren aldean %16,7ko hazkundea izan ondoren, toki bat aurreratu eta digestio aparatuarenak (%11,1) hirugarren tokian utzi baitituzte.

Eguneko ospitaleratzeak aintzat hartu gabe, batez besteko egonaldia 6,3 egunekoa izan da 2008an (6,6 egun 2007an). Ospitaleko egonaldirik luzeenak buruko trastornoetan, batez beste 12,9 egun, eta jaiotza inguruko jatorrizko gaixotasunetan, 11,8 egun, gertatu dira. Haien ondoren, urrunago, infekzio-eritasunak (9 egun) eta tumoreak (7,4 egun) daude.

Ospitaleko erikortasuna gaixoaren sexuaren eta adinaren arabera aldatzen da. Haurdunaldi eta erditzeagatiko ospitaleratzeak direla-eta, ospitaleratutako emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira: %51,7 eta %48,3, hurrenez hurren.

Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak gizonak ospitaleratzeko zio nagusia izan ziren, eta ondoren digestio-sistemarenak; emakumeei dagokienez, ordea, haiek hirugarrena eta bosgarrena izan ziren, haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren, eta nerbio-sistemaren eta zentzumen organoen gaixotasunen ondoren.

Ospitaleko laguntza eskaria adinarekin batera handitzen da: 2008an ospitaleratu zirenen %42,6k 65 urte

III.2.12. TAULA. Senda-agiria jasotako gaixoak diagnostikoaren eta sexuaren arabera. 2008

		Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
		Senda-agiriak	Senda-ag./1.000 bizt.	Senda-agiriak	Senda-ag./1.000 bizt.	Senda-agiriak	Senda-ag./1.000 bizt.
GNS-9. AK	**Guztira**	**316.857**	**146,7**	**153.099**	**145,2**	**163.758**	**148,2**
001-139	**Infekzio-eritasunak**	**3.252**	**1,5**	**1.917**	**1,8**	**1.335**	**1,2**
11	Birikako tuberkulosia	164	0,1	111	0,1	53	0,0
42	HIES	365	0,2	271	0,3	94	0,1
70	Hepatitis birikoa	117	0,1	67	0,1	50	0,0
140-239	**Tumoreak**	**27.611**	**12,8**	**14.529**	**13,8**	**13.082**	**11,8**
153	Koloneko neoplasia gaiztoa	1.807	0,8	1.150	1,1	657	0,6
162	Trakea, bronkio eta birikako neoplasia gaiztoa	1.343	0,6	1.072	1,0	271	0,2
174	Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.745	1,6	-	-	1.745	1,6
185	Prostatako neoplasia gaiztoa	1.306	1,2	1.306	1,2	-	-
240-279	**Gaitz endokrino eta metabolikoak**	**4.516**	**2,1**	**1.946**	**1,8**	**2.570**	**2,3**
250	Diabetes mellitusa	1.679	0,8	905	0,9	774	0,7
280-289	**Odolaren gaitzak**	**3.540**	**1,6**	**1.661**	**1,6**	**1.879**	**1,7**
290-319	**Buruko gaixotasunak**	**5.264**	**2,4**	**2.823**	**2,7**	**2.441**	**2,2**
320-389	**Nerbio-sistemaren eta zentzumen organoen gaix.**	**35.968**	**16,7**	**15.028**	**14,2**	**20.940**	**19,0**
360-379	Begi trastornoak eta hari lotutakoak	26.452	12,3	11.064	10,5	15.388	13,9
366	Begi-lausoa	20.925	9,7	8.498	8,1	12.427	11,3
380-382	Otitisa	978	0,5	539	0,5	439	0,4
390-459	**Zirkulazio-aparatuaren gaix.**	**37.819**	**17,5**	**21.681**	**20,6**	**16.138**	**14,6**
401-405	Hipertentsioa	1.560	0,7	761	0,7	799	0,7
410	Miokardioko infartu akutua	2.501	1,2	1.812	1,7	689	0,6
460-519	**Arnas gaixotasunak**	**28.625**	**13,3**	**16.927**	**16,1**	**11.698**	**10,6**
480-486	Pneumonia	5.497	2,5	3.319	3,1	2.178	2,0
490-491	Bronkitisa	3.601	1,7	2.870	2,7	731	0,7
493	Asma	1.715	0,8	612	0,6	1.103	1,0
500-519	Pneumokoniosia, beste batzuk	8.558	4,0	4.824	4,6	3.734	3,4
520-579	**Digestio gaixotasunak**	**35.325**	**16,4**	**20.731**	**19,7**	**14.594**	**13,2**
531-534	Urdaileko ultzerak	689	0,3	491	0,5	198	0,2
540-543	Apendizitisa	2.504	1,2	1.420	1,3	1.084	1,0
550-553	Sabelaldeko barrunbearen hernia	8.650	4,0	6.533	6,2	2.117	1,9
574	Kolelitiasia	5.067	2,3	2.144	2,0	2.923	2,6
580-629	**Aparatu genitourinarioaren gaix.**	**18.893**	**8,7**	**8.234**	**7,8**	**10.659**	**9,6**
580-584	Nefritisa	797	0,4	488	0,5	309	0,3
592	Giltzurrun- eta ureter-kalkulua	1.251	0,6	749	0,7	502	0,5
630-679	**Haurdunaldia eta erditzea**	**26.436**	**23,9**	**-**	**-**	**26.436**	**23,9**
650	Erditze arrunta	3.57	3,2	-	-	3.57	3,2
670	Puerperioko infekzio larria	12	0,0	-	-	12	0,0
680-709	**Azal eta larruazalpeko gaix.**	**5.792**	**2,7**	**3.257**	**3,1**	**2.535**	**2,3**
680-686	Azal eta larruazalpeko infekzioak	2.272	1,1	1.490	1,4	782	0,7
690-698	Azal eta larruazalpeko beste hantura batzuk	234	0,1	123	0,1	111	0,1
710-739	**Hezur-muskulu eta lokomozio gaix.**	**29.031**	**13,4**	**14.263**	**13,5**	**14.768**	**13,4**
715	Osteoartrosisa	5.670	2,6	2.291	2,2	3.379	3,1
722	Ornoarteko diskoaren trastornoa	1.808	0,8	1.013	1,0	795	0,7
740-759	**Sortzetiko anomaliak**	**2.596**	**1,2**	**1.375**	**1,3**	**1.221**	**1,1**
760-779	**Anomalia perinatalak**	**2.106**	**1,0**	**1.174**	**1,1**	**932**	**0,8**
773-774	Fetoaren gaix. hemolitikoa/Min hori perinatala	501	0,2	274	0,3	227	0,2
780-799	**Txarto zehaztutako gaixotasun egoerak**	**14.847**	**6,9**	**8.224**	**7,8**	**6.623**	**6,0**
800-999	**Zauriak eta pozoitzeak**	**22.235**	**10,3**	**12.865**	**12,2**	**9.370**	**8,5**
820	Femur lepoaren haustura	2.34	1,1	619	0,6	1.721	1,6
V01-V84	**V kodeak**	**13.001**	**6,0**	**6.464**	**6,1**	**6.537**	**5,9**

(1) GNS-9. AK= Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 9. Aldaketa Klinikoa
(2) Datuak EAEko akutuentzako ospitaleei (publikoak eta pribatuak) dagozkie.
Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko erikortasunaren estatistika.

edo gehiago zeuzkaten. Ospitaleratzeko batez besteko adina 57 urtekoa izan zen gizonezkoen artean eta 60koa emakumezkoen artean, eta adinik ohikoena 74 urtekoa gizonezkoei eta 76koa emakumezkoei dagokienez (haurdunaldi, erditze eta puerperioagatik ospitaleratzeak aintzat hartu gabe).

Derrigorrez aitortu beharreko gaixotasunak

Osasun publikoaren eginkizunetako bat gaixotasun transmitigarriak kontrolatzea da.

Bizi baldintzen hobekuntzak eta EAEko osasun sistemaren garapenak infekzio-gaixotasun askoren ondorioak murriztu badituzte ere, oraindik osasun arazo handia dira, aldian-aldian agertzen diren gaixotasunak daudelako eta horrek ezinbesteko bihurtzen duelako jagoletza epidemiologiko egokiari eustea.

Jagoletza epidemiologikoko sistemaren eginkizuna informazio azkar eta fidagarria ematea da, EAEn gaixotasun transmitigarriak eta agerraldiak zaindu eta prebenitu ahal izateko.

EUSTATen datuen arabera, 2009an, antzemandako kasu kopuru absolutuagatik eta 10.000 biztanleko tasengatik, azpimarratzekoak dira gripea eta barizela, eta neurri txikiagoan: tuberkulosia, A hepatitisa, sifilia, legionelosia eta parotiditisa.

A gripearen birusa (H1N1)

1950az geroztik noizean behin pertsonengan txerriengandik datorren gripearen birusari antzeman zaio. Gaitzak gizakien gripearen birusak eragindako gaixotasunaren antzeko koadro klinikoa eragiten du. Literaturak pneumonia dakarten koadro klinikoak deskribatu dira, eta infekzioa baino lehen osasuntsu zeuden helduengan definizioak ere bai. Holako kasuak batez ere lanbidea zela-eta txerriekin kontaktua zeukaten pertsonengan gertatzen ziren. Halako kasuetan, pertsonen arteko transmisioa, ordea, oso ezohikoa izan zen.

Txerri gripeak osasun publikoarentzat daukan garrantzia birus mota desberdinen artean transferentzia genetikoa gertatzeko arriskuari dago lotuta, pertsonen eta animalia horien arteko kutsatzea dela-eta, horrek birus berriak ekar ditzakeelako. AEBn giza, hegazti eta txerri jatorria zeukaten gripearen birusak aurkitu dira.

Hala ere, 2009an AEBn eta Mexikon gertatutako kasuen arabera, lehenago jakinarazitako kasuekin zenbait desberdintasun daude:

– Lehenago antzeman gabeko segmentu genetiko berri bati antzeman zitzaion.
– Birusak pertsonen artean transmititzeko ahalmen handia daukala ikusi zen.

2009ko martxoaren amai aldetik, Mexikon arnas infekzio larriko kasuen ezohiko hazkundea sumatu zen, eta apirilaren lehenengo asteetara arte areagotzen joan zen. Apirilaren 17aren eta maiatzaren 6aren artean pneumoniak larriko 822 gripe kasu baieztatu jakinarazi ziren eta haietatik 29 hilgarriak izan ziren.

2009ko apirilaren 15aren eta uztailaren 24aren artean AEBn A gripearen birus berriak (H1N1) eragindako 43.771 kasu baieztaturen berri eman zen. Jakinarazitako kasuetatik 5.011 lagun ospitaleratu eta 302 hil egin ziren.

2009ko apirilaren 27an, OMEk pandemia alerta 4. fasera igotzea erabaki zuen, datu epidemiologikoek erakutsi zutelako birusak pertsonen artean transmititzeko gaitasun handia zeukala. Egun bi beranduago, apirilaren 29an, OMEk 5era igo zuen alerta. Ekainaren 11n, birusaren hedapen azkarrari erantzunez, OMEk pandemiaren 6. fasea aldarrikatu zuen (transmisio handi eta iraunkorra biztanleria guztiaren artean). Une horretan pentsatzen da ezarri behar liratekeela ondorioak murrizteko behar diren arintze neurriak.

2.3. OSASUN OHITURAK ETA ERAGILEAK

2.3.1 Bizi ohiturak

(a) Alkohol kontsumoa

Alkoholdun edarien kontsumoa osasun publikoko arazo larria da herri garatu gehienetan, bai etengabe gora doalako bai dakartzan ondorio kaltegarriengatik.

Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud 2010* txostenaren arabera, 16 urte eta gehiagoko biztanleen %68,6k

III.2.13. TAULA. Derrigorrez aitortu abeharreko gaixotasunen bilakaera EAE-n

	KASUAK			TASAK 10.000 BIZTANLEKO	
	2007	2009	2007-09 aldea	2007	2009
Botulismoa	0	0	0	0	0
Kolera	0	0	0	0	0
Disenteria	23	17	-6	1,1	0,8
Sukar tifo-paratifikoa	6	2	-4	0,3	0,1
Trikinosia	3	0	-3	0,1	0
Meningokoko gaixotasuna	71	67	-4	3,3	3,2
Gripea	31.915	58.462	26.547	1498,8	2.745,6
Legionelosia	103	111	8	4,8	5,2
Meningitis tuberkulosoa	7	1	-6	0,3	0,1
Tuberkulosia	321	279	-42	15,1	12,7
Barizela	13.271	9.694	-3.577	623,3	455,3
Infekzio gonokozikoa	107	95	-12	5	4,5
Sifilia	98	112	14	4,6	5,3
Difteria	0	0	0	0	0
Parotiditisa	2.062	111	-1.951	96,8	5,2
Poliomelitisa	0	0	0	0	0
Errubeloa	2	0	-2	0,1	0
Elgorria	0	0	0	0	0
Tetanoa	1	2	1	0,1	0,1
Kukutxeztula	27	16	-11	1,3	0,8
A hepatitisa	39	170	131	1,8	8,0
B hepatitisa	34	29	-5	1,6	1,4
C hepatitisa	8	6	-2	0,4	0,3
Beste hepatitis birikoak	1	1	0	0,1	0,1
Bruzelosia	1	2	1	0,1	0,1
Amorrua	0	0	0	0	0
Sukar horia	0	0	0	0	0
Paludismoa	23	31	8	1,1	1,5
Izurritea	0	0	0	0	0
Tifus exantematikoa	0	0	0	0	0
Legenarra	1	1	0	0,1	0,1
Sortzetiko errubeola	0	1	1	0	0,1
Sortzetiko sifilia	0	0	0	0	0
Jaioberriko tetanoa	0	0	0	0	-

Iturria: EUSTAT

III.2.14. TAULA. Pandemiaren faseak	
Pandemia arteko aldia	
1 fasea	Pertsonengan ez dago gripearen birus azpi-mota berririk (ARRISKU TXIKIA GIZAKIENGAN)
2 fasea	Pertsonengan ez dago gripearen birus azpi-mota berririk baina bai animaliengan (GIZA KASUAK AGER DAITEZKE)
Pandemia alertako aldia	
3 fasea	Gripearen biruz azpi-mota berriko giza infekziak, baina pertsonen arteko transmisio iraunkorrik gabe (GIZAKIENGAN NOIZBEHINKAKO KASUAK AGERTZEKO ARRISKUA)
4 fasea	Leku oso zehatzetan gizakien arteko transmisio mugatuko kasu taldekatuak. Birusa ez dago gizakiei ondo egokitua (NOIZBEHINKAKO GIZA KASUAK GERTATZEKO ARRISKU HANDIA)
5 fasea	Leku zehatzetan gizakien arteko transmisioko giza kasu taldekatuak. Gizakienganako egokitzapen handiagoa (PANDEMIA ARRISKU HANDIXEA)
Pandemia aldia	
6 fasea	Fase pandemikoa. Transmisio handi eta iraunkorra biztanleria guztian.

azken hamabi hiletan alkohola hartu dutela diote (gizonezkoen %80,2k eta emakumezkoen %57,5ek) eta azken urteotan kontsumoaren hazkunde orokorra egon dela ikusten da. Adin taldeen arabera, azken 12 hiletan alkohola hartu dutela dioten gizonen portzentajea handiagoa da adin ertainekoen artean gazteenen artean baino. Emakumezkoei dagokienez, gazteenek beste talde guztiak gainditzen dituzte.

EAEko Osasun Inkestako (EAEOI'07) datuen arabera, biztanleriaren %43,7k alkoholdun edariak edan ohi ditu (kontsumo neurritsua, kontsumo handia edo gehiegizko kontsumoa): gizonezkoen %58,7k eta emakumezkoen %29,5ek. Datuok 2002koekin erkatuta, ondorioztatzen da gizonezkoen artean kontsumoa murriztu egin dela eta emakumezkoen artean egonkortu. Aurreko inkestan gizonezkoen %58,7 eta emakumezkoen %30,1 ziren ohiko kontsumitzaileak.

2002 eta 2007 artean, 25-44 urte arteko taldeko ohiko edaleen proportzioa %48,1etik %41,6ra jaitsi da. Azken hiru adin taldeetan, ordea, handitu egin da: 16-24 urte %44,4tik %44,8ra; 45-64 urte %47,1etik %52,1eta; eta 65 urte eta gehiago %32,5etik %34,4ra.

44-64 urteko emakumeek alkohol kontsumoa areagotu dute (%28,9tik %34ra), gainontzeko adin tarteetan ratioak egonkor iraun edo jaitsi egin da: 16-24 %37 bietan; 25-44 %36,3tik %31ra; eta 65 urte eta gehiago %18tik %18,3ra.

Gizonezkoei dagokionez, kontsumoa adin tarte guztietan handitu da, 25-44 urtekoen artean izan ezik, %59,7tik %51,8ra jaitsi baita. 16-24 %51,5etik %52,1era; 45-64 %65,8tik %7',8ra; eta 65 urte eta gehiago %53tik %57ra.

Orain pertsona bakoitzaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartu eta taldearen arabera alderik dagoen ikusiko dugu.

Osasun inkestaren arabera, talde sozioekonomikoa familia unitatearen kide guztiei esleitzen zaie, familia-buruaren lanbidearen arabera. Erretiratu eta langabetuei azken lanbidearen arabera esleitzen zaie talde sozioe-

III.2.15. TAULA. Alkohol kontsumoa sexuaren eta adin taldearen arabera (%). 2002 eta 2007

	Kontsumorik ez		Kontsumo ohia		Noizbehinkako kont.		Kont. neurritsua		Kontsumo handia		Gehiegizko kont.	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
Guztira												
Guztira	13,3	14,2	3,4	2,9	39	39,2	34	35,5	7,4	6,2	2,8	2
16-24	11,8	14,4	1,9	1,6	41,9	39,2	38,9	40,3	3,5	3,7	2	0,8
25-44	7,8	9,2	3	4	41,1	45,2	38,7	37,2	6,8	3,3	2,6	1,1
45-64	13,1	12,4	3,6	2,3	36,2	33,2	32,2	37,9	10,5	10,8	4,4	3,4
65 eta gehi.	25,5	26	4,9	2,7	37,1	37	24,2	26,4	6,7	6	1,6	2
Gizonezkoak												
Guztira	4,9	5,7	4,8	3,5	31,2	32,1	45,2	47	10	8,6	4	3,1
16-24	10,8	12	2	1,1	35,7	34,7	44,7	47,1	4,9	4,2	1,9	0,8
25-44	3,7	6,1	3,2	4,1	33,5	37,9	48	47,5	7,9	3,2	3,8	1,1
45-64	2,9	3,1	5,9	2,9	25,4	23,1	44,5	48,9	15,1	15,9	6,2	6
65 eta gehi.	5,7	5	9,1	4,9	32,2	33	40,1	42,5	10,3	10,8	2,6	3,7
Emakumezkoak												
Guztira	21,3	22,3	2,1	2,4	46,3	45,8	23,5	24,7	4,9	3,9	1,7	0,9
16-24	12,8	16,9	1,9	2,2	48,4	44	32,7	33,1	2,1	3,1	2,2	0,8
25-44	12	12,4	2,9	3,9	48,9	52,7	29,2	26,5	5,6	3,4	1,5	1,1
45-64	23	21,4	1,4	1,6	46,8	43	20,2	27,2	6,1	5,9	2,6	0,9
65 eta gehi.	39,6	40,7	1,9	1,1	40,5	39,8	12,9	15,1	4,2	2,5	0,9	0,7

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2007

konomikoa. 5 maila ezarri dira, enpresarekiko lan harremana (enplegu-emailea, langilea..., familia laguntza), kargu edo maila, eta jarduera (nekazaritza, industria, eraikuntza...) aintzat hartuta.

– I taldea.- Administraritza eta enpresa zuzendariak. Goi-mailako funtzionarioak. Langile liberalak. Goi-mailako teknikariak.
  Bere enpresan erdi-mailako teknikariaren maila bereko edo goragoko kargua zeukan langiledun enpresaria; zuzendari gerenteak edo goi-mailako teknikariak, lan harremana eta jarduera sektorea gorabehera.
– II taldea.- Merkataritzako eta zerbitzu pertsonaletako zuzendari eta jabe gerenteak. Bestelako teknikariak (ez goi-mailakoak). Artistak eta kirolariak. Erdi mailako tituluaren azpiko mailako kargua daukaten nekazaritzaz kanpoko enpresariak, lehenengo sektoreko (nekazaritza, arrantza...) enpresariak enpresan duten kargua gorabehera; erdi mailako teknikariak, arduradun postua duten autonomoak.
– III taldea.- Erdi mailako koadroak eta agintariak. Administrariak eta funtzionarioak. Babes eta segurtasun zerbitzuetako langileak.
  Arduradun mailako kooperatibistak, soldatapeko finkoak edo behin-behinekoak; merkataritza-ostalaritza sektoreko administrari mailako autonomoak; arduradun edo administrari mailako herri

administrazioetako kooperatibistak, soldatapeko finkoak edo behin-behinekoak.

– IV taldea.- Industria, merkataritza eta zerbitzuetako eskulangile kualifikatuak eta erdi-kualifikatuak Lehenengo sektoreko, industria edo merkataritzako enpresa bateko administrari mailako autonomoak, teknikari aditu edo teknikari laguntzaile mailako kooperatibistak, soldatapeko finkoak edo behin-behinekoak, herri administrazioko atezain mailako soldatapeko finkoak, teknikari laguntzaile edo ikastun mailako autonomoak.

– V taldea.- Kualifikatu gabeko langileak. Administrazioaz kanpoko ikastun edo peoi mailako kooperatibistak, soldatapeko finkoak edo behin-behinekoak.

Tasa estandarizatuak biztanlerien eta denboraldien artean erkatzeko erabiltzen dira. Tasa gordinen ordez estandarizatuak erabiltzeko zioa ”azpiko beste eragile batzuk” egotea da, esaterako, adina, zeinek interesaren neurriei eragiten baitie. Estandarizatzea, beraz, “beste eragile” horien eragina ezabatzen duen egokitze prozesua da. Horretarako “biztanleria estandarra”, hots, adin banaketa bereko biztanleria, ezartzen da.

Horrela, talde sozioekonomikoek adin banaketa bera baleukate, gizonezkoen zein emakumezkoen ar-

III.2.16. TAULA. Alkohol kontsumoa sexuaren eta talde sozioekonomikoaren arabera (%). 2002-2007

	Kontsumorik ez		Kontsumo ohia		Noizbehinkako kont.		Kont. neurritsua		Kontsumo handia		Gehiegizko kont.	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
Guztira												
Guztira	**12,6**	**14,2**	**3,4**	**2,9**	**38,1**	**39,2**	**35,1**	**35,5**	**8**	**6,2**	**2,8**	**2**
Gizonezkoak												
Guztira	**4,9**	**5,7**	**5**	**3,5**	**30,6**	**32,1**	**45,4**	**47**	**10,3**	**8,6**	**3,7**	**3,1**
I Taldea	4,7	4,5	4,2	2,1	30,1	30,1	48,5	51,1	9,6	8,9	3	3,3
II Taldea	4,5		6,4		27,5		46,1		13,1		2,5	
III Taldea	3,4	4,4	4,6	4,8	31,2	30,4	47,1	48,7	9,9	8,7	3,8	2,9
IV Taldea	4,9	6,4	4,9	3,9	31	33,2	45,2	45,0	9,6	8,5	4,4	3,0
V Taldea	7,1		4,8		33,2		40,4		9,5		5,1	
Emakumezkoak												
Guztira	**19,9**	**22,3**	**1,9**	**2,4**	**45,3**	**45,8**	**25,2**	**24,7**	**5,8**	**3,9**	**2**	**0,9**
I Taldea	14	16,6	1,7	1,7	44,7	41,3	29,5	33,6	7,3	5,6	2,8	1,2
II Taldea	18,4		2,5		43,1		28,6		5,4		1,9	
III Taldea	22,2	18,3	1,1	2,4	45	53,5	23,7	21,3	5,6	3,8	2,4	0,8
IV Taldea	21,1	25,5	2,3	2,7	48,6	46,3	22,6	21,6	4,1	3,2	1,2	0,8
V Taldea	23,7		1,7		45,1		21,4		6,6		1,5	

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2007

tean posizio oneneko gizarte taldeen artean kontsumoa ohikoagoa dela izango genuke.

(b) Tabako kontsumoa

Tabako kontsumoa saihesteko moduko hilkortasun goiztiarraren zio nagusietako bat da.

Osasun eta Gizarte Politikak argitaratutako *Sistema Nacional de Salud 2010* txostenaren arabera, Estatuan 16 urtetik gorako emakumezkoen %21,5ek eta gizonezkoen %31,5ek jotzen dute euren burua eguneroko erretzailetzat. Adin taldeen arabera, gizonezko eguneroko erretzaileen portzentajea handiagoa da adin ertainetan gazteenen artean baino. Emakumezkoei dagokienez, talde gazteenak (16-24 urte) gizonezkoak gainditzen ditu, lehenengoak %28,8 baitira eta bigarrenak %25.

EAEOI 2007ko datuen arabera, biztanleriaren %25 ohiko erretzailea da: gizonezkoen %29,1 eta emakumezkoen %21,1. Datu horiek 2002ko inkestakoekin erkatuta, ondorioztatzen da tabakismoa gizonezkoen arteko kontsumo jaitsieragatik murriztu dela, emakumezkoen artean egonkortu baita.

Gizonezkoei dagokionez, tabakismoaren jaitsiera adin talde guztietan ikusten da, adinekoen artean (65 urte eta gehiago) izan ezik. Bestalde, emakumezkoei

III.2.17. TAULA. Tabako kontsumoa sexuaren eta adin taldearen arabera (%) 2002 eta 2007

	Ez du erretzen		Erretz. ohia		Noizbehinkako erretz.		Erretzailea	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
Guztira								
Guztira	54,9	54,6	15,2	17,4	3,9	3,1	26,1	25
16-24	62,2	68,3	5,2	3,4	4	4,1	28,6	24,2
25-44	45,2	47,6	13,9	14,5	5,2	4,2	35,7	33,7
45-64	51,8	47,2	20,1	24,9	3,6	2,5	24,5	25,4
65 eta gehi.	72,8	71,2	17,5	18,8	1,6	1,3	8,1	8,7
Gizonezkoak								
Guztira	43,3	45,4	20,4	21,8	4,9	3,7	31,4	29,1
16-24	62,6	68,9	3,7	3,4	4,5	4,8	29,2	22,9
25-44	42,8	48,4	13,1	11,8	5,4	4,2	38,6	35,6
45-64	33,7	35	28,9	31,9	5,4	3	32	30,2
65 eta gehi.	43,7	42,2	37,7	38,6	3,1	2,9	15,5	16,3
Emakumezkoak								
Guztira	65,8	63,2	10,2	13,2	2,9	2,6	21,1	21,1
16-24	61,7	67,6	6,8	3,5	3,4	3,4	28,1	25,5
25-44	47,7	46,7	14,7	17,2	4,9	4,3	32,7	31,8
45-64	69,3	59	11,6	18,1	1,9	2,1	17,2	20,8
65 eta gehi.	93,3	91,7	3,2	4,8	0,6	0,2	2,9	3,3

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2007

III.2.18. TAULA. Tabako kontsumoa sexuaren eta talde sozioekonomikoaren arabera (% estandarizatua adinaren arabera). 2002 eta 2007

	Ez du erretzen		Erretzaile ohia		Noizbehinkako erretzailea		Erretzailea	
	2002	2007	2002	2007	2002	2007	2002	2007
Guztira								
Guztira	**54,9**	**54,6**	**15,2**	**17,4**	**3,9**	**3,1**	**26,1**	**25**
Gizonezkoak								
Guztira	**43,3**	**45,4**	**20,4**	**21,8**	**4,9**	**3,7**	**31,4**	**29,1**
I Taldea	44,7	48,2	22,4	23,5	3,5	4,6	29,4	23,8
II Taldea	44,7		23,9		5,5		25,8	
III Taldea	45,2	43,9	18,1	23,0	5,1	4,0	31,5	29,2
IV Taldea	42,6	44,5	19,7	20,9	5,0	3,3	32,7	31,3
V Taldea	40,1		21,3		5,4		33,2	
Emakumezkoak								
Guztira	**65,8**	**63,2**	**10,2**	**13,2**	**2,9**	**2,6**	**21,1**	**21,1**
I Taldea	59,2	56,0	12,9	18,5	3,1	3,4	24,7	22,1
II Taldea	61,1		14,0		3,4		21,5	
III Taldea	63,1	62,4	11,0	12,9	4,0	1,7	22,0	23,1
IV Taldea	68,4	66,4	8,7	11,0	2,3	2,4	20,6	20,3
V Taldea	70,2		9,1		3,3		17,3	

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2007

dagokienez, tabakismoa 45-64 urtekoen artean handitu da.

Pertsonaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartuz gero, ikusten da, 2007an, gizonezkoen artean maila sozioekonomikoa jaitsi ahala tabakismoa ohikoagoa dela; emakumezkoen artean hori ez da hain nabarmena.

Tabakismoaren eredu hori ikasketa mailarekin ere errepikatzen da: zenbat eta hezkuntza maila altuagoa tabako kontsumo txikiagoa. 2007an, gizonezkoen artean ikasketa maila zenbat eta txikiagoa izan tabakismoa ohikoagoa da; emakumeen artean gauza bera errepikatu arren ez da hain nabarmena.

2.3.2. Prebentzio jarduerak. Arteria-presioaren zaintza

Prebentzioa gorputz, buru edo zentzumen urritasunak gertatzea galarazteko (lehen mailako prebentzioa) edo gertatu diren urritasunek gorputz, psikologia edo gizarte ondorio kaltegarriak izatea galarazteko neurriak hartzeari dago lotuta. Prebentzioak eta antzematen goiztiarrak gaitz baten ondorioen hazkundea geldiaraztea ahalbidetzen dute.

Hipertentsioa ohiko gaitza da gure gizartean, batez ere adin jakin batetik aurrera, eta bihotz-hodietako, garuneko eta giltzurruneko trastornoak garatzeko arrisku eragilea ere bada.

Arteria-presioa arterien barruan odolari eragiten dion presioa edo indarra da eta odola bihotzetik organismoko helmugetaraino arterien bidez bultzatzeko balio du. Ez da iraunkorra, aitzitik, bizitzan aldatzen doa. Hala ere, heldu arrunt batengan, arteria-presio normaltzat har daitezke 140 mmHg-ko (merkurio milimetroak) arteria-presio sistolikoaren ("altua"), eta 90 mmHg-ko arteria-presio diastolikoaren ("baxua") azpitik daudenak. Arteria hipertentsioaz hitz egiten da 140/90 mmHg-ko balio horren gaineko presio-arteriei antzematen zaienean.

Eragin handia dauka eta arazoak ekar ditzake, baina hipertentsioa diagnostikatzea erreza da. 18 eta 40 urte bitartean arteria-presioa (AP) bost urtean behin hartzea gomendatzen da, eta ondoren urtero.

III.2.19. TAULA. Arteria-presioa urtero neurtzen duten pertsonen proportzioa sexuaren, adinaren eta talde sozioekonomikoaren arabera

		2002						2007			
		I Taldea	II Taldea	III Taldea	IV Taldea	V Taldea	GUZTIRA	I-II Taldeak	III Taldea	IV-V Taldeak	GUZTIRA
Gizon.	16-24	20,8	43,0	24,3	25,3	18,4	25,5	31,5	39,8	38,9	36,8
	25-44	41,7	53,9	50,0	51,4	53,9	50,5	64,4	63,6	66,2	65,4
	45-64	75,7	79,8	69,8	78,7	76,7	76,8	83,4	85,7	85,5	85,0
	>=65	89,1	80,8	85,9	91,1	84,3	88,6	95,3	97,4	93,8	94,6
	GUZTIRA	**55,3**	**64,0**	**57,9**	**62,6**	**59,4**	**60,8**	**70,6**	**74,2**	**74,4**	**73,4**
Emak.	16-24	34,1	28,8	21,3	27,9	27,7	27,7	28,4	42,5	35,9	34,8
	25-44	44,5	51,8	48,5	54,7	39,8	50,6	64,1	68,8	63,8	64,5
	45-64	77,6	74,0	74,4	75,8	81,1	76,0	80,3	83,3	81,9	81,6
	>=65	91,0	88,7	87,4	91,1	85,0	89,5	93,6	92,9	93,2	93,2
	GUZTIRA	**59,7**	**60,5**	**59,2**	**66,0**	**64,2**	**63,4**	**70,3**	**75,3**	**74,3**	**73,4**
Sexu biak	16-24	27,0	35,2	22,8	26,6	22,6	26,6	30,1	41,2	37,4	35,8
	25-44	43,2	52,8	49,3	53,0	47,4	50,6	64,2	66,2	65,1	65,0
	45-64	76,6	77,0	72,2	77,2	79,2	76,4	81,8	84,5	83,7	83,3
	>=65	90,2	85,5	86,7	91,1	84,8	89,1	94,3	94,9	93,4	93,8
	GUZTIRA	**57,5**	**62,1**	**58,6**	**64,3**	**62,0**	**62,1**	**70,4**	**74,8**	**74,4**	**73,4**

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2002 eta 2007

EAEOI 2007ko datuen arabera, gizon eta emakumezkoen %21ek jotzen dute euren burua hipertentsibotzat. Proportzioa handitu egiten da 45tik gora, eta arteria-presioaren urteroko zaintza areagotu egin da, adin guztietan, gizon eta emakumezkoen arteko alderik gabe.

2.4. OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK

2.4.1. Sarrera

Lurralde bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko baliabide adierazlerik onartuenen artean ospitale kopurua, ohe kopurua eta langileak (medikuak, erizaintzako langileak...) daude.

EUROSTATen osasun baliabideei eta langileei buruzko datuen arabera:

- EAEn, 100.000 biztanleko EBko herrietan baino doktore eta psikiatra gehiago dago. Hala ere, EUROSTATen datuaz kontuz hartu behar dira, estatistika organismoak berak adierazitako serieen haustura dela-eta.

  Beste batzuetan aipatu legez, EUSTATek darabilen metodologiak ospitaleko (publiko eta pribatua) eta ospitaleaz kanpoko (publikoa) osasun laguntza jardueren artean bereizten dut, eta biak ezin dira batu. Hala ere, esan dezakegu mediku kopurua handitzeko joera dagoela, baina ezin dugu benetako hazkundea zehaztasunez zehaztu .
- 100.000 biztanleko haginlari kopurua ere hazi da, salbuespenak salbuespen. EAEn adierazlea Estatukoa baino handiagoa da (71 eta 56,7, hurrenez hurren, 2008an), baina EBko zenbait herritakoa baino txikiagoa.
- 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruari dagokionez, azken urteotan etengabeko hazkundea egon da. Datu horiek Estatukoak baino handiagoak dira (1.094,1 eta 815,8, hurrenez hurren, 2008an), baina erreferentea izan daitezkeen Europako zenbait herritakoa (Danimarka, Luxemburg, Holanda, Islandia, Norvegia edo Suitza) baino txikiagoa.
- Ospitaleko ohe kopuruak beheranzko joera dauka EBn eta EAEn, eta uste da murrizketa horren zati handi baten zioa egonaldiaren laburtzea izan dela. Zehazki, EUROSTATen datuen arabera, Estatuan, 2006 eta 2007 artean 100.000 biztanleko ohe kopurua 334,1etik 330,2ra igaro da; eta EAEn, 380,9tik 378,9ra.

III.2.20. TAULA. EAE-ko medikuak

	2004	2005	2006	2007	2008
Medikuak ospitaleaz kanpoko laguntza jardueran (KLJ) (publikoa)	2.747	2.773	2.795	2.815	n.d.
Medikuak ospitaleko laguntza jardueran (OLJ) (publikoa eta pribatua)	4.247	4.284	4.330	4.459	4.678
Biztanleria	2.104.396	2.115.383	2.130.996	2.147.754	2.162.944
KLJko medikoak 100.000 biztanleko	130,5	131,1	131,2	131,1	n.d
KOLJko medikoak 100.000 biztanleko	201,8	202,5	203,2	207,6	216,3

Iturria: EUSTAT

III.2.21. TAULA. Osasun baliabideak (100.000 biztanleko tasak)

	Psikiatrak eta doktoreak			Haginlariak			Erizainak eta emaginak			Oheak	
	2006	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007
BELGIKA	400,8	401,6	405,1	82,3	81	81,3	674,7	639,4	659,5	672,7	665,7
BULGARIA	365,7	364,9	:	85,1	84,6	:	456,1	466,5	:	621,4	638,1
TXEKIAR E.	355,7	:	:	67,4	:	:	844,7	:	:	:	727,3
DANIMARKA	314,4	314,4	:	81,3	81,9	:	1466,6	1459,3	:	361,8	339,1
ALEMANIA	345,5	:	:	76,2	:	:	999,8	:	:	829,1	:
ESTONIA	320,9	323,4	:	82,8	85	:	658,7	665,8	:	565,3	:
IRLANDA	289,5	298,6	:	56	57,6	:	:	:	:	533,9	519,9
GREZIA	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:
ESPAINIA	365,4	368,3	352,2	52,4	54,1	56,7	737,2	761,1	815,8	334,1	330,2
GALIZIA	415,7	418,5	310,8	51,5	53,5	56,1	864,5	855,4	840,9	363,7	363,5
ASTURIASKO PRINTZERRIA	387,4	311,9	292,7	52,4	54,4	56,7	727,6	727,7	1000,8	362,6	362,8
KANTABRIA	376,9	443,6	420,6	44,7	45,6	46,6	915,2	904,9	981,4	365,9	374,4
EAE	**492,2**	**419**	**467,6**	**66,2**	**68,8**	**71**	**743**	**960,3**	**1094,1**	**380,9**	**378,9**
NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA	441,9	503,2	313,4	47,1	47,8	47,8	985,9	1190,8	1336,1	361,7	388,9
ERRIOXA	398,9	685,7	384,9	48,7	49,4	50,4	831,1	751	801,9	315,8	309,5
ARAGOI	373,4	493,8	608,8	42,5	43,8	45	1104,2	1089,4	1025	398,5	385,7
MADRILGO ERKIDEGOA	357	376,7	376,5	78,4	81,6	86,5	641,6	674,1	794,9	317	311,2
GAZTELA ETA LEON	302,8	297,6	295,8	37,9	39,3	41,2	795,3	784,3	751,4	398,1	360,9
GAZTELA-MANTXA	348,7	331,6	338,8	31,5	31,8	33,1	665,7	730,6	748,4	262,9	265,6
EXTREMADURA	261,4	195,5	241	30,3	32,2	33,8	849,4	921,4	899,1	344	355,4
KATALUNIA	383,5	381,1	378,6	54,1	55,1	57,3	880,9	917,4	896,7	438,7	430,9
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	357,7	355,1	331,1	48,5	50,5	53,1	698,1	600,9	668,4	252	256
BALEAR UHARTEAK	446,4	315,5	306,2	49	49,4	52,2	679,8	818,2	803,8	323,5	335
ANDALUZIA	331	333,4	297	48,8	50,7	53,2	632,5	632,8	659,9	256	254
MURTZIAKO ESKUALDEA	344,5	496,1	446,3	53,8	54,3	56,5	576,6	583,6	828,8	316,2	320,9
KANARIAR UHARTEAK	378,8	350,5	342,9	41,3	42,5	45,9	532,4	676	916	362,6	350,9
FRANTZIA	335,5	:	:	66,6	66,6	:	807,3	769,3	:	715,8	705
ITALIA	366,6	363,5	:	80,1	89,9	:	703	700,4	:	395,2	386,3
TXIPRE	250,4	271,5	:	91,8	91,6	:	:	:	:	373,7	375,5
LETONIA	293,2	287,4	306,7	68	67,9	64,1	567,2	557,2	553,2	758,6	755,4
LITUANIA	364,6	371,1	:	63,8	68,9	:	:	:	:	801	816,2
LUXEMBURG	333,3	348,3	:	75,6	77,9	:	1332,9	1571,5	:	569,4	571,4
HUNGARIA	303,7	280,6	:	49,6	39,9	:	620	595,6	:	791,3	711,8
MALTA	383,5	330,7	334,9	46,6	42,7	44,6	591,2	622,8	:	752,3	778
HOLANDA	371,3	383,6	:	64,5	66,8	:	1471,8	1500,7	:	438,2	:
AUSTRIA	365	375,7	:	53,8	54,1	:	739,6	:	:	766,4	777,9
POLONIA	218	219,1	:	33	35	:	509,4	517,6	:	647,5	642,5
PORTUGAL	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:
ERRUMANIA	215,8	222	:	49,1	54	:	586,9	639,9	:	658,6	641,1
ESLOVENIA	235,8	237,6	:	59,8	60,9	:	762,1	773	:	477,5	468,3
ESLOVAKIA	315,9	:	:	50,3	:	:	632,6	:	:	671,4	675,8
FINLANDIA	:	:	:	:	:	:	:	:	:	695,6	673,6
SUEDIA	356,6	:	:	82,7	:	:	:	:	:	289,8	:
ERRESUMA BATUA	:	250,1	:	:	48,5	:	972,4	961,6	:	356,8	342
KROAZIA	253,3	266	:	72,7	73,6	:	:	:	:	545,5	548,3
MAZEDONIA	253,5	:	:	57,5	:	:	349,5	:	:		
TURKIA	:	:	:	:	:	:	:	:	:		
ISLANDIA	364	366,8	:	93	93,2	:	1432,4	1460,1	:	:	:
NORVEGIA	377,7	392,4	:	87,7	87,6	:	2520,9	2524,5	:	402,7	382,3
SUITZA	383,7	382,6	:	51,7	51,8	:	:	1485,7	:	540,9	539,3

Iturria: EUROSTAT

2.4.2. Osasun laguntza egitura, baliabideak eta jarduera

Arestian aipatu legez, osasun laguntza jarduera ospitaleko zein ospitaleaz kanpoko jarduera izan daiteke eta biak izan daitezke publikoak edo pribatuak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Gastuaren azterketan bezala, jarraian egingo den azterketa honakoen bidez egingo da:

– EUSTATek emandako datuak, ospitaleko (*Ospitaleko estatistika*) eta ospitaleaz kanpoko (*Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika*) sektoreetarako; lehenengo kasuan informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenean (ospitaleaz kanpokoa), sektore publikorako baino ez dagoela kontuan hartuta.

– Osakidetzak ospitalekoari zein ospitaleaz kanpokoari buruz emandako informazioa.

a) Ospitaleaz kanpoko jarduera publikoa

Memoria Sozioekonomiko honen argitalpena ixteko egunean eskuragarri zeuden azken datuen arabera, ospitaleaz kanpoko laguntza jarduera publikoa etengabe hazi da 2000z geroztik.

2007an, ospitaleaz kanpoko 467 zentro publikoek (%+0,2 aurreko urtearen aldean) 13.807 mila kontsulta hartu zituzten, 2006an baino %3,2 gehiago; horrek %9,5eko hazkundea dakar 2003tik. Hazkunde hori guztira enplegatutako langileriaren hazkundea baino txikiagoa da, hura %1,2 izan baitzen 2006 eta 2007 artean, eta %5,2 2003 eta 2007 artean.

Guztira enplegatutako langileak 7.592 lagun dira. Haietatik, %77 osasun langileak dira (2.815 mediku, aurreko urtean baino %0,8 gehiago, eta erizaintzako eta

III.2.22. TAULA. Ospitaleaz kanpoko laguntza jarduera publikoa EAE-n

	2003	2005 (1)	2006	2007	Δ 2006-2007 (%)	Δ 2003-2007 (%)
BALIABIDEAK						
Zentro kopurua	447	451	465	467	0,4	4,5
Langileria guztira	7.216	7.446	7.499	7.592	1,2	5,2
Medikuak	2.709	2.773	2.795	2.815	0,7	3,9
Medikuntza orokorra	1.406	1.465	1.508	1.537	1,9	9,3
Pediatria	287	295	297	301	1,3	4,9
Espezialistak	1.016	1.013	990	977	-1,3	-3,8
Beste osasun langileria guztira	2.863	2.949	2.960	3.008	1,6	5,1
Osasunaz kanpoko langileria guztira	1.644	1.724	1.744	1.769	1,4	7,6
LAGUNTZA JARDUERA (milatan)						
Kontsultak guztira	12.608	13.180	13.375	13.807	3,2	9,5
Medikuntza orokorra	8.727	9.248	9.415	9.752	3,6	11,7
Pediatria	1.482	1.551	1.603	1.642	2,4	10,8
Erradiografiak	499	530	555	755	36,0	51,3

(1) Kontsultategi batzuk osasun zentro bezala birsailkatu dira Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera (urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua) Iturria: EUSTAT, Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika

III.2.23. TAULA. Ospitaleaz kanpoko adierazle nagusiak EAE-n

	2003	2005 (1)	2006	2007
EGITURA ADIERAZLEAK (biztanleak/medikuko)				
Medikuak guztira	773	763	762	763
Medikuntza orokorra	1.49	1.444	1.413	1.397
Pediatria (0-<14 urte)	808	814	834	844
JARDUERA ADIERAZLEAK (kontsultak 100 biztanleko)				
Osasun kontsultak	602	623	628	643
Medikuntza orokorreko konts.	417	437	442	454
Pediatriako kontsultak	639	646	647	646
Kontsultak mediku bakoitzeko				
Osasun kontsultak	4.726	4.821	4.853	4.974
Medikuntza orokorreko konts.	6.207	6.313	6.243	6.345
Pediatriako kontsultak	5.164	5.259	5.397	5.456

(1) Kontsultategi batzuk osasun zentro bezala birsailkatu dira Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera (urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua) Iturria: EUSTAT, Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika

III.2.24. TAULA. Zentro motak eta haiek hartutako kontsultak

Zentro mota	Zentro kopurua motaren arabera			Hartutako kontsultak zentroko (% bertikala)
	2005	2006	2007	2007
Guztira	**451**	**465**	**467**	**100**
Anbulatorioa	28	28	28	6,0
Kontsultategia	28	58	52	11,1
Osasun zentroa	132	119	128	27,4
Larrialdiko arreta zerbitzua	37	37	37	7,9
Zen. periferikoa (medikuaren etxea)	119	113	112	24,0
Osasun mentaleko kontsultategia	50	50	50	10,7
Mutualitateko laguntza zentroa	46	48	48	10,3
Beste batzuk	11	12	12	2,6

Iturria: EUSTAT. Ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika

bestelako 3.008 langile) eta %23 osasunaz kanpokoak. 2006 eta 2007 artean, espezialista kopurua berriz jaitsi dela, kasu honetan %1,3, ikusten da; %-3,8 2003-2007 aldian.

Ospitaleaz kanpoko eremuan egindako osasun kontsulten %82,5 lehen mailako arretari dagokio: medikuntza orokorra/familiakoa (9,7 milioi) eta pediatria (1,6 milioi). Espezialitate biek areagotu dute kontsulta bolumena aurreko urtearen aldean, %3,6 medikuntza orokorrak eta %2,4 pediatriak. Gainontzeko osasun kontsulten %17,5 anbulatorioetan, osasun mentaleko zentroetan eta lan istripuetako mutuen laguntza zentroetan emandako arreta espezializatuari dagozkio. Espezialitaterik eskatuenak traumatologia (496.33 kontsulta), tokoginekologia (317.938), psikiatria (272.773) eta oftalmologia (215.957) izan ziren.

Mediku kopurua handitu denez gero, medikuntza orokorrean mediku bakoitzeko biztanle kopurua jaitsi egin da baina ez da gauza bera gertatu pediatriari dagokionez. Lehenengoari dagokionez, 1.413 biztanle medikuko 1.397ra igaro da, baina bigarrenari dagokionez, 834tik 844ra; horrela, aurreko urtean pediatrian ikusitako joera errepikatu da, orduan mediku bakoitzeko biztanle kopurua 814tik 834ra hazi baitzen.

2007an mediku bakoitzeko batez beste 4.974 kontsulta egon ziren (aurreko urtean baino gehiago, 4.853 izan baitziren). Mediku orokorrak (6.345 kontsulta) eta pediatrak (5.456) batez besteko horren gainetik daude, eta gainontzeko medikuei dagokienez, ordea, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoek 4.287 kontsulta, traumatologoek 3.939, endokrinoek 3.760 eta oftalmologoek 3.469.

Biztanle bakoitzeko batez beste 6,4 kontsulta egon ziren, aurreko urtean baino apur bat gehiago. Hazkunde horren zioa medikuntza orokorreko kontsulten hazkundea (6,4tik 6,5era) da, pediatriak egonkor iraun duelako (14 urtez azpikoak batez beste 6,5 aldiz joan ziren euren osasun zentrora pediatrak ikus zitzan).

Kontsulta guztietatik, %27,4k osasun zentroetan jaso zuten laguntza, %24k medikuaren etxean[1], %11,1ek kontsultategietan[2], %10,7k osasun mentaleko kontsultategietan, %10,3k lan istripuetako mutuen laguntza zentroetan, %7,9k larrialdiko arreta zentroetan[3], eta %6k anbulatorioetan (zentro horietan Gizarte Segurantzaren onuradunei medikuntza orokorreko, pediatria-puerikulturako eta espezialitateetako arreta ematen zaie).

b) Ospitaleko jarduera publiko eta pribatua[4]

EUSTATen Ospitalen estatistikako datuen arabera, 2007 eta 2008 artean, ospitale kopuruak egonkor iraun du, 44: 18 sare publikoan eta 26 pribatuan. Sare pribatuan ospitale gehiago badaude ere, publikoak dauka baliabide gehien: oheen %69,4, inkubagailuen %84,4, ebakuntza-gelen %62,8, erditzeko gelen %68,4, kanpoko kontsultetarako gelen %66,2, langileen %77,3, medikuen %67,8, erizaintzako langileen %82,5, OLT eta EUDen %84,2, eta laguntzaz kanpoko langileen %74,8.

2007 eta 2008 artean, ohe eta ebakuntza-gelen kopurua izan ezik, aztertutako beste aldagai guztiak hazi egin dira. Oheen guztizkoaren murrizketa sare publikoko murrizketaren ondorioa da. Bestalde, sare pribatuan ebakuntza-gela gutxiago daude, baina sare publikoan gertatutako hazkundeak haien jaitsiera orekatu du.

Zehazkiago, langileriari dagokionez, guztizkoa berriz hazi da, batez beste %3,3. Sare publikoaren eta pribatuaren artean bereizita, sektore publikoan %3,3 hazi da eta pribatuan %3,2. Mailen arabera (medikuak, erizaintza, etab.), osasun langileria %6,3 hazi da sare publikoan eta %2 pribatuan; erizaintzako langileria sare bietan hazi da (%1,8 sare publikoan eta %5,1 pribatuan); OLT eta EUDak %1,6 hazi dira publikoan eta %4,5 pribatuan; eta laguntzaz kanpoko langileria %3,3 hazi da publikoan eta %1,4 pribatuan.

---

[1] Zentro periferikoa (medikuaren etxea): Landa inguruetan medikuntza orokorreko laguntza ematen duten zentroak, behar izanez gero emaginek eta OLTek lagunduta.

[2] Kontsultategiak: zentro horietan Gizarte Segurantzaren onuradunei medikuntza orokorreko eta pediatria-puerikulturako laguntza ematen zaie euren laguntza jarduera zabaltzen den eramuan espezialitate hori ezarrita dagoenean.

[3] Etengabeko Arretako Guneak (EAG); arratsalde-gaueko eta jaiegunetako ordutegian Gizarte Segurantzaren onuradunei arreta ematen diete.

[4] EUSTATen arabera ospitaleak publikoak (Osakidetza) eta pribatuak (ongintzakoa-partikularra, pribatuak, Gurutze Gorria, beste batzuk) dira.

III.2.25. TAILA. Ospitaleko laguntza jardueraren bilakaera EAE-n

	2006			2007			2008			2007-08 bilakaera		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
DABILTZAN BALIABIDEAK												
Ospitale kop.	45	18	27	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	8.049	5.581	2.468	8.048	5.615	2.433	8.018	5.565	2.453	-0,4	-0,9	0,8
Inkubagailuak	91	76	15	91	76	15	96	81	15	5,5	6,6	0,0
Ebakuntza-gelak	193	118	75	197	120	77	204	128	76	3,6	6,7	-1,3
Erditzeko gelak	38	26	12	37	26	11	38	26	12	2,7	0,0	9,1
Kanpoko kontsultetarako gelak	956	621	335	935	622	313	946	626	320	1,2	0,6	2,2
Langileria guztira	20.797	16.057	4.740	21.279	16.441	4.838	21.975	16.982	4.993	3,3	3,3	3,2
Medikuak	4.330	2.865	1.465	4.459	2.981	1.478	4.678	3.170	1.508	4,9	6,3	2,0
Erizaintza	5.969	4.981	988	6.103	5.064	1.039	6.247	5.155	1.092	2,4	1,8	5,1
OLT eta EUD	5.467	4.653	814	5.595	4.731	864	5.709	4.806	903	2,0	1,6	4,5
Laguntzaz kanpoko langileria	3.984	2.958	1.026	4.063	3.026	1.037	4.178	3.127	1.051	2,8	3,3	1,4
LAGUNTZA JARDUERA												
X izpietako azterketak	1.551.876	1.254.914	296.962	1.591.855	1.283.271	308.584	1.617.432	1.304.125	313.307	1,6	1,6	1,5
Ekografiak	264.811	185.218	79.593	287.327	200.783	86.544	280.354	203.998	76.356	-2,4	1,6	-11,8
OTA	186.849	157.071	29.778	200.675	169.591	31.084	231.676	185.714	45.962	15,4	9,5	47,9
Erresonantzia magnetikoa	57.110	20.593	36.517	60.227	19.569	40.658	72.777	18.519	54.258	20,8	-5,4	33,4
Angiografia digitala	8.479	7.800	679	9.073	8.377	696	9.082	8.379	703	0,1	0,0	1,0
Kirurgia ebakuntzak	224.104	140.210	83.894	233.742	145.753	87.989	241.190	150.984	90.206	3,2	3,6	2,5
-Programatuak	194.876	118.306	76.570	204.554	123.997	80.557	211.562	128.902	82.660	3,4	4,0	2,6
-Larrialdietakoak	29.228	21.904	7.324	29.188	21.756	7.432	29.628	22.082	7.546	1,5	1,5	1,5
Erditzeak	20.233	17.742	2.491	20.874	18.134	2.740	21.472	18.769	2.703	2,9	3,5	-1,4
-Baginaren bidez	17.128	15.353	1.775	17.782	15.866	1.916	18.400	16.470	1.930	3,5	3,8	0,7
-Zesarearen bidez	3.105	2.389	716	3.092	2.268	824	3.072	2.299	773	-0,6	1,4	-6,2
Erditze multipleak	435	423	12	493	483	10	507	485	22	2,8	0,4	120,0
Erditzeak (anestesia epidurala)	14.906	14.387	519	15.513	14.974	539	16.529	15.949	580	6,5	6,5	7,6
Abortuak	2.132	2.132	.	2.236	2.220	16	2.127	2.099	28	-4,9	-5,5	75,0

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu basea.

EUSTATen datuen arabera, ospitaleko sektoreak 21.975 lagun enplegatu zituen, aurreko urtean baino %3,3 gehiago.

Laguntza jarduerari dagokionez, jarduera guztiak hazi dira, honakoak izan ezik: sare publikoko erresonantzia magnetikoak (%-5,4, sare pribatuan %33,4 hazi

diren bitartean), ekografiak, zein sare pribatuko murrizketaren ondorioz jaitsi baitira (%-11,8, sare publikoan %1,6 hazi diren bitartean), sare pribatuko zesarea bidezko erditzeak (%-6,2, sare publikoan %1,4 hazi diren bitartean) eta sare publikoko abortuak (%-5,5, sare pribatuan 16tik 28 hazi diren bitartean).

Ospitaleetan 241.190 ebakuntza egin ziren (%62,2 publikoetan eta %37,4 pribatuetan), hots, aurreko urtean baino %3,2 gehiago (%3,6 sare publikoan eta %2,5 pribatuan). Ebakuntza guztien %87,7 programatutakoak ziren.

III.2.26. TAULA. Ospitaleko adierazle nagusien bilakaera EAE-n

	2006			2007			2008			2007-08 bilakaera		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
EGITURA ADIERAZLEAK (langileak funtzionamenduko 100 oheko)												
Medikuak	39,8	47,3	23	41,3	49	23,6	44	52,8	24,2	6,5	7,8	2,5
Erizaintza	70,5	85,3	37	72,1	86,2	39,7	74,1	88,3	41,8	2,8	2,4	5,3
JARDUERA ADIERAZLEAK (1.000 biztanleko)												
Oheak	3,8	2,6	1,2	3,8	2,6	1,1	3,7	2,6	1,1	-2,6	0,0	0,0
Egonaldiak	1.121,5	800,8	320,7	1.136,8	816,4	320,4	1.116,4	795,9	320,5	-1,8	-2,5	0,0
Ospitaleratzeko maiztasuna (ospitaleratzeak)	137,2	99,7	37,5	140,2	101,9	38,3	144,3	104,0	40,3	2,9	2,1	5,2
Larrialdiak	516,5	436,0	80,6	511,1	426,8	84,3	517,7	423,0	94,7	1,3	-0,9	12,3
Ebakuntzak	105,2	65,8	39,4	109,2	68,1	41,1	111,9	70,1	41,9	2,5	2,9	1,9
Kanpoko kontsultak	1.100,7	855,8	244,8	1.121,9	880,9	241,0	1.162,8	922,1	240,7	3,6	4,7	-0,1
FUNTZIONAMENDU ADIERAZLEAK												
Okupazio indizea (%)	81,3	83,7	75,8	82,8	85,3	77,2	82,2	84,5	77,2	-0,7	-0,9	0,0
Batez besteko egonaldia	8,2	8,1	8,6	8,2	8,1	8,4	7,8	7,7	8	-4,9	-4,9	-4,8
Errotazio indizea	36	37,7	32,3	37	38,6	33,6	38,6	40,1	35,3	4,3	3,9	5,1
Larrialdietako presioa	48,3	60,6	15,6	48,8	61,6	14,8	48,1	60,7	15,7	-1,4	-1,5	6,1
Ospitaleratutakotako larrialdiak	12,8	13,9	7,3	13,4	14,7	6,7	13,4	14,9	6,7	0,0	1,4	0,0
Hilkortasun gordina (%)	3,2	3,7	1,8	3,3	3,8	2	3,2	3,7	2	-3,0	-2,6	0,0
Nekropsiak 1.000 heriotzako	37,3	43,9	2,1	41,3	48,7	3,7	45,9	54,9	2,3	11,1	12,7	-37,8
Bat. best. egonaldia akutu. ospit.aleetan (guzt.)	5,2	5,8	3,3	5,1	5,8	3,2	4,9	5,5	3,1	-3,9	-5,2	-3,1
-Kirurgia eta espezialitateak	4	5	2,3	3,9	4,7	2,4	3,7	4,6	2,2	-5,1	-2,1	-8,3
-Neonatologia	12,3	12,4	3,2	12,4	12,4	3,5	11,1	11,1	2,3	-10,5	-10,5	-34,3
-Ginekologia	3,1	3	3,5	3	2,9	3,6	2,9	2,7	3,5	-3,3	-6,9	-2,8
-Psikiatria (akutuen unitatea)	15,3	15,3	2,8	15,6	15,6	3,5	14,4	14,4	.	-7,7	-7,7	
-Psikiatria (egonaldi luzea)	8,8	8,8	.	8,6	8,6	.	8,8	8,8	.	2,3	2,3	
-Errehabilitazioa	39,1	36,3	161	43,8	40,5	129,1	38,6	37,7	85,4	-11,9	-6,9	-33,8

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu basea

Hartutako erditze guztiei dagokienez (21.472), aurreko urtearen aldean %2,9 hazi direla ikusten da. Haietako gehienak, %87,4, ospitale publikoetan gertatu ziren. Baginaren bidezko erditzeak %85,7 izan ziren eta zesarea bidezkoak %14,3. %2,4 erditze multipleak izan ziren (aurreko aldiko portzentaje bera). %77tan anestesia epidurala erabili zen.

Ospitaleko egitura adierazleak aztertuta ondorioztatzen da 100 oheko mediku kopuruak gora jarraitzen duela, bai ospitale publikoetan bai pribatuetan; 2008an 100 oheko 52,8 mediku zeuden lehenengoetan eta 24,2 bigarrenetan. Era berean, 100 oheko erizaintzako langileak ere areagotu dira, bai sare pribatuan bai publikoan.

Ospitaleek 8.018 ohe (aurreko urtean baino 30 gutxiago) eduki zituzten, hots, 3,7 ohe 1.000 biztanleko, aurreko urteetan baino batez besteko apur bat txikiagoa. Jarduerari buruzko gainontzeko ospitaleko adierazleei dagokienez, 1.000 biztanleko egonaldi kopurua murriztu eta ospitaleratzeak, ebakuntzak eta kanpoko kontsultak areagotu dira.

Funtzionamendu adierazleei dagokienez, okupazio indizeak, batez besteko egonaldia eta larrialdietako presioa jaitsi egin dira: errotazio indizea eta 1.000 heriotzako nekropsiak hazi egin dira; eta egonkor iraun du gaixoa ospitaleratzea eskatu zuten larrialdien proportzioak.

Bestalde, batez besteko egonaldia 8,2 egunetik 7,8ra igaro da, eta 4,9koa da akutuentzako ospitaleetan, 3,7koa kirurgia eta espezialitateetan, 11,1ekoa neonatologian, 2,9koa ginekologian, 14,4koa psikiatrian (akutuen unitatea) eta 8,8koa psikiatrian (egonaldi luzea) eta 38,6koa errehabilitazioan.

c) Osakidetzako ospitaleko eta ospitaleaz kanpoko jarduera

Baliabideen erabilera

Osakidetzako Osasun Laguntzaren Zuzendaritzak emandako datuen arabera, Osakidetzaren sareko batez besteko okupazio orokorraren indizea[5], 2007an egoeraren araberako hazkundearen ondoren, 2008an berriz jaitsi zen. Zehazki %2,6 2007koaren aldean, eta %81,8n kokatu zen. Aurreko urtean, ordea, %84,4koa izan zen.

Digestio aparatuaren (%112,7 eta 2007an baino gehiago), barruko medikuntzako (%108,4 eta aurreko urtean baino %10,2 gutxiago), eta pneumologiako (%108,3, 2007an baino %37,6 gutxiago) espezialitateak %100en gainetik eta, beraz, aipatu batez bestekoaren gainetik kokatzen dira.

%100en azpitik baina batez bestekoaren gainetik honakoak daude: urologia (%82,5), neurologia (82,6), errehabilitazioa eta zaintza aringarriak (biak %91,2), hematologia (%91,2) eta kardiologia (%93,4).

Kirurgia plastikoa, kirurgia baskularra, psikiatria eta kirurgia torazikoa batez bestekoaren azpitik daude, eta kirurgia orokorra eta traumatologia batez bestekoan.

Batez besteko egonaldia, egunetan, berriz murriztu da, 6,3 egunetik 5,1era. Errehabilitazioa (30,6), zaintza aringarriak (17,8), psikiatria (13,9), hematologia (10,4) eta barruko medikuntza (8,9) batez bestekoaren oso gainetik daude, baina haietan guztietan jaitsiera egon da aurreko urtearen aldean.

[3] Erantsitako informazioa Osakidetzaren ospitale guztiei dagokie. Aurreko Memoria sozioekonomikoetan akutuentzako ospitaleak baino ez ziren sartzen. Orain egonaldi ertain eta luzeko ospitaleei dagokiena ere sartzen da.

III.2.27 TAULA. Baliabide publikoen erabilera espezialitatearen arabera (batez besteko egonaldia eta okupazio indizea)

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2004	2005	2006	2007	2008	2004	2005	2006	2007	2008
OSASUN ZERBITZUAK										
Barneko medikuntza	9,0	9,3	8,9	8,9	8,4	105,1	114,3	105,4	118,6	108,4
Kardiologia	5,6	6,0	5,6	5,7	5,4	92,5	97,0	93,8	107,8	93,4
Digestio aparatua	8,3	8,1	7,6	8,1	7,5	105,1	106,4	108,1	107,8	112,7
Hematologia	11,1	10,6	11,0	10,9	10,4	87,2	86,1	82,1	87,8	92,1
Pneumologia	7,6	7,9	7,1	7,0	6,7	94,2	96,7	83,8	145,9	108,3
Psikiatria	16,0	15,1	14,7	15,0	13,9	88,4	87,2	85,6	86,4	77,7
Errehabilitazioa	35,7	32,8	33,5	33,1	30,6	86,8	81,4	81,2	91,9	91,2
Zaintza aringarriak	19,3	17,0	18,2	18,2	17,8	55,2	54,1	61,3	121,6	92,2
KIRURGIA ZERBITZUAK										
Kirurgia orokorra	5,5	6,0	5,4	5,2	5,1	93,8	97,7	92,2	95,1	81,8
Kirurgia plastikoa	5,6	5,9	5,7	5,0	5,9	72,1	66,8	68,2	64,6	71,6
Kirurgia kardiobaskularra	5,0	5,2	5,6	5,2	4,6	69,1	90,9	86,5	95,0	95,7
Kirurgia baskularra	6,4	6,3	6,1	5,9	6,1	86,7	79,8	85,0	78,1	72,8
Kirurgia torazikoa	5,7	5,5	4,9	4,8	4,6	96,6	87,1	85,4	87,7	79,0
Neurokirurgia	7,3	7,0	6,8	6,6	6,3	87,6	80,9	80,6	83,2	82,6
Traumatologia	5,9	6,4	5,9	6,0	5,5	87,9	88,7	86,6	91,5	81,8
Urologia	5,1	5,1	4,7	4,6	4,2	84,9	87,8	77,7	80,8	82,5
OROKORRA	**7,0**	**7,1**	**6,7**	**6,3**	**5,1**	**84,3**	**84,2**	**83,0**	**84,4**	**81,8**

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

ITXARONZERRENDA

Kanpoko kontsultei dagokienez, aurreko urtean hazi ondoren, itxaronzerrendako gaixoen guztizko kopurua jaitsi egin da 2008an, 88.750etik 72.507ra; urte batean hazteko joera apur bat izan du eta bestean jaistekoa.

Horrela, 2007an ia espezialitate guztietan egon zen hazkundea, anestesiologian (%-6,8), oftalmologian (%-6,1), urologian (%-3,1) eta alergologian (%-0,4) izan ezik. 2008an, aldiz, alderantziz gertatu da, hots, jaitsiera egon da ia espezialitate guztietan anestesiologian (%+5,3) eta digestio aparatuan (%+3,6) izan ezik.

Jaitsierarik handienak honakoetan gertatu dira: alergologian (%-45,4), oftalmologian (%-36,5), neurologian (%-28,8), otorrinolaringologia-ORLn (%-24,7) eta kirurgia orokorrean (%-24,3).

Denbora ikuspegia, adibidez, 2004 eta 2008 arteko aldira zabaltzen bada, itxaronzerrendetako gaixo kopurua %24,6 murriztu dela ikusten da. Horren jatorria,

III.2.2. GRAFIKOA. Kanpoko kontsultetako itxaronzerrendetako gaixo kopuruaren bilakaera



Iturria: Osakidetza

III.2.28. TAULA. Kanpoko kontsulten itxaronzerrendak atzerapen denborak (%)

	2004	2005	2006	2007	2008
< hilabete 1	57,9	61,4	74,6	80,4	80,1
1 – 3 hilabete	32,6	27,3	23,2	19	17,5
> 3 hilabete	9,4	11,3	2,2	0,6	2,4

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

funtsean, alergologiako (%-56,1), kirurgia orokorreko (%-50,4), oftalmologiako (%-43), urologiako (%-40,7), traumatologiako (%-34), neurologiako (%-33) eta ginekologiako (%-22,8) jaitsieretan dago. Digestio aparatuan, berriz, %24,1eko hazkundea gertatu da.

Atzerapen denborari dagokionez, 2007 eta 2008 artean, 3 hilabetetik gora itxaron behar duen biztanleria portzentajea hazi da, %0,6tik %2,4ra. Hilabete 1 eta 3 artean itxaron behar dutenen ratioa jaitsi egin da, %19tik %17,1era. Bestalde, hilabete bat baino gutxiago itxaron behar dutenen ratioak %80 inguruan dirau.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua hasi egin da 2007 eta 2008 artean, %7,6, 16.086 lagunetik 14.886ra, eta batez besteko atzerapen egunak murriztu egin dira (53tik 51,9ra). Horren ondorioz, ebakuntza izateko hiru hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea berriz jaitsi da, %15etik %13,8ra.

Kirurgia prozeduraren araberako itxaronzerrendei buruzko datuei dagokienez, esan behar da 2008ko urriaz geroztik, zuzendaritza nagusiaren erabakiz, haiek jasotzeari utzi zitzaiola.

III.2.29. TAULA. Kanpoko kontsulten itxaronzerrendak (gaixo gehien dauzkaten espezialitateak)

	Gaixoak					Bariazioak				
	2004	2005	2006	2007	2008	Bar. % 04-05	Bar. % 05-06	Bar. % 06-07	Bar. % 07-08	Bar. % 04-08
Alergologia	2.064	1.982	1.664	1.658	906	-4,0	-16,0	-0,4	-45,4	-56,1
Anestesiologia	4.035	5.002	4.084	3.805	4.008	24,0	-18,4	-6,8	5,3	-0,7
Kardiologia	2.922	3.290	2.338	3.328	2.714	12,6	-28,9	42,3	-18,4	-7,1
Dermatologia	9.711	10.564	8.305	8.649	7.963	8,8	-21,4	4,1	-7,9	-18,0
Digestio aparatua	3.349	3.440	3.530	4.013	4.157	2,7	2,6	13,7	3,6	24,1
Endokrinologia	2.077	1.873	1.578	1.985	1.963	-9,8	-15,8	25,8	-1,1	-5,5
Neurologia	4.229	4.018	3.429	3.980	2.833	-5,0	-14,7	16,1	-28,8	-33,0
Errehabilitazioa	3.344	3.164	3.022	3.730	3.145	-5,4	-4,5	23,4	-15,7	-6,0
Kirurgia orokorra	4.712	4.258	3.076	3.089	2.339	-9,6	-27,8	0,4	-24,3	-50,4
Oftalmologia	18.987	22.120	18.135	17.026	10.818	16,5	-18,0	-6,1	-36,5	-43,0
ORL-otorrinolaringologia	4.085	4.630	4.103	5.132	3.862	13,3	-11,4	25,1	-24,7	-5,5
Traumatologia	14.695	15.671	11.737	11.899	9.693	6,6	-25,1	1,4	-18,5	-34,0
Urologia	3.731	3.456	2.642	2.560	2.212	-7,4	-23,6	-3,1	-13,6	-40,7
Ginekologia	7.869	6.583	5.673	7.646	6.076	-16,3	-13,8	34,8	-20,5	-22,8
Beste batzuk	10.324	12.018	9.711	10.250	9.818	16,4	-19,2	5,6	-4,2	-4,9
GUZTIRA	**96.134**	**102.069**	**83.027**	**88.750**	**72.507**	**6,2**	**-18,7**	**6,9**	**-18,3**	**-24,6**

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

III.2.30. TAULA. Kirurgiako itxaronzerrendak bilakaera

	2004	2005	2006	2007	2008
Gaixoak	15.906	15.706	15.944	16.086	14.866
Bat. best. atzerap. (eg.)	56,8	55,17	51,9	53,03	51,86
> 3 hilabete gaixo kop.	2.914	2.878	2.470	2.414	2.050
> 3 hilabete gaixoen %	18,32	18,25	15,5	15,0	13,8

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak

III.2.31. TAULA. Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeen bilakaera EAE-n*

	2004	2005	2006	2007	2008	2007-08 bilakaera
Erakundeak guztira**	15	14	16	15	15	0,0
Igualatorioak	4	4	4	4	3	-25,0
Aseguru konpainiak	8	7	8	7	8	14,3
BGAE eta mutuak	3	3	4	4	4	0,0
Zorroa						
Poliza kop.	162.627	167.373	178.022	183.761	188.764	2,7
Aseguratu kop.	311.148	319.788	333.226	346.062	369.017	6,6
Biztanleria aseguratuaren %	15	15	16	16	17	5,6
Primen bolumena (mila euro)	158.519	169.744	185.818	201.13	219.836	9,3
Primak aseguratuko (euroak)	509	531	558	581	596	2,6
Primak biztanleko (euroak)	74	80	87	94	101	7,4
Primak/BPGd (%)	0,30	0,29	0,30	0,30	0,32	
Langileria						
Guztira	8.106	7.816	8.382	8.625	9.234	7,1
Osasun langileak	7.938	7.653	8.205	8.450	9.051	7,1
Medikuak	6.592	6.346	6.720	6.900	7.223	4,7
OLT / EUD	466	429	434	461	507	10,0
Laguntza jarduera						
Anbulatorioko kontsulta kop.	1.197.201	1.235.331	1.270.526	1.298.127	1.312.198	1,1
Kontsultak mila aseguratuko	3.848	3.863	3.813	3.751	3.556	
Ospitaleratzeak	46.922	49.236	50.318	52.205	52.818	1,2
Ebakuntzak	32.185	33.117	33.122	35.219	34.030	-3,4
Jarduera ekonomikoa						
Gastuak guztira (mila euro)	160.778	168.694	177.792	192.986	200.217	3,7
Diru-sarrerak guztira (mila euro)	168.129	179.722	196.283	211.541	231.744	9,6

* EUSTATek 2006 eta 2007ko datuak berrikusi ditu eta horrek haiek berraztertzea ekarri du.
** Guztizkoa zenbait erakunderi dagokie, zenbait lurraldetan jardun badezakete ere.
Iturria: EUSTAT. Datu basea

D) OSASUN ARRETA PRIBATUA: OSASUN ETA FARMAZIA LAGUNTZAKO ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEAK

Aseguru libreko erakundeak (aurrerantzean ALE), EUSTATen datuen arabera, 15 dira guztira, baina zenbait lurraldetan jardun dezakete. Haietatik, 3 igualatorioak dira, 8 aseguru konpainiak eta 4 BGAE eta mutuak.

Zorroari dagokionez, poliza kopurua berriz hazi da, 2007 eta 2008 artean %2,7, eta 188.764 dira. 369.017 lagunek daukate osasun laguntzako aseguru pribatu bana kontratatuta, 2007an baino %6,6 gehiagok. Ondorioz, EAEko biztanleen %17k daukate osasun aseguru pribatua kontratatuta.

Aseguratu gehien biltzen dituen modalitatea taldeko aseguruena da (enpresa batek zuzenean itunduak edo langile edo talde horien aldeko taldeko beste zehatz batzuk), %45,8, banakako edo familiako poliza (%43,2) eta mutualitate publikoak (%11) gainditutz.

Izan ere, banakako eta familiako aseguruetan eta mutualitate publikoetan bajak egon arren, aseguratuen guztizko kopurua %6,6 hazi da, taldeko aseguratuen bidez aseguratuak %28 hazi baitira.

Oraindik ere, aseguratu gehienek (%94k) osasun laguntza orokorreko estaldura (medikuntza eta kirurgia) daukan osasun aseguru pribatua, zehatza (hala nola lehen mailako arreta, espezializatua edo haginetakoa) hautatu duten %6en aurrean.

2008an primengatik guztira 219,8 euro bildu ziren. Hori Estatu osoaren %4 eta urte horretarako EAEko BPGd-ren %0,3 da. Aurreko urtearen aldean, primen bolumena %9,3 hazi zen, Estatuko hazkundearen gainetik (%8,3).

III.2.3. GRAFIKOA. Aseguratu kopuruaren eta aseguratu bakoitzeko primen bilakaera poliza motaren arabera



Iturria: Eustat, Osasun eta farmazia laguntzako aseg. libreko erak. estat.

EAE osorako aseguratu bakoitzeko batez besteko urteko prima 596 eurokoa izan zen, 2007an baino %2,6 gehiago.

Osasun laguntzako osasun asegurua duten pertsonek ALE-en kontura 1.312.198 kontsulta egin zituzten guztira (aurreko urtean baino %1,1 gehiago), batez beste 3,6 kontsulta aseguratu bakoitzeko, aurreko urteko datua, 3,8, baino apur bat txikiagoa, eta ospitaleaz kanpoko sare publikoan batez beste gertatutako 6,4 bisitak baino gutxiago. EUSTATen arabera, espezialitaterik bisitatuenak traumatologia, tokoginekologia eta pediatria izan ziren.

Ospitaleko arreta ere hazi zen 2008an. Horrela, osasun aseguru-etxeetako gaixoek 52.818 ospitaleratze eragin zituzten (aurreko urteko 52.205ak baino %1,2 gutxiago), eta batez besteko egonaldia 3 egunekoa izan zen. Talde horretatik, %64,4ri ebakuntza egin zitzaien, guztira 34.030 ebakuntza (%-3,4), eta haietatik ohikoenak kirurgia orokorreko, barruko medikuntzako eta traumatologiako espezialitatekoak izan ziren.

3
Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin-merkatuak 2009an izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak %3ko batez besteko gehikuntza izan duela (%21,4 izan zen 2007-2008an). Bilakaera ezberdinak izan dira etxebizitza berri salgaietan (%-2,4), erabilitakoetan (%4,9), alokairurako etxebizitza libreetan (%65,8), babestutako etxebizitza salgaietan (%-7,6) eta alokairurako etxebizitza babestuetan (%-0,6). Horren aurrean, etxebizitza beharra edo eskaera[2], dauzkagun azken datuen arabera (2008koak), %10,2 murriztu da (2007rako beste %10,7 jaitsi zen).

Bestalde, etxebizitzetarako egindako hipoteken kopurua %13,3 jaitsi da, eta zenbateko osoa %23,3. Aurreko denboraldian, ordea, %16,5 eta %17,3 jaitsi ziren hurrenez hurren, Ondorioz, hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa %11,5 murriztu zen 2009an. Bien bitartean, hipoteka merkatuko interes tasek jaisten jarraitzen dute: Euribor, urte batean, 2,62tik (urtarrilean) 1,24ra (abenduan) jaitsi zen (-1,38 puntu). Kreditu entitateek familientzat ematen duten mailegu tasa (UTB), berriz, 5,83tik 2,62ra jaitsi zen denboraldi berean (-3,21 puntu) .

III.3.1. GRAFIKOA. Etxebizitzaren merkatuaren bilakaera EAEn[1]



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta INEren datuekin egina.

3.1. ZORUA ETA ERAIKUNTZA KOSTUAK

3.1.1. Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzen merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa,

[1] Finantza aldagai hauen bilakaerari buruz informazio gehjiago nahi izanez gero, irakurri memoria sozioekonomiko honetako *"II.2. Produkzio eghitura eta berrikuntza EAEn"* kapitulua.

[2] Grafikoan azaltzen den eskaerak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezin sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m² erabilgarri bakoitzeko.

III.3.2. GRAFIKOA. Hirilurraren batez besteko prezioaren hiruhilekoko bilakaera estatuan eta EAEn (€/M²)



Iturria: ETXEBIZITZA MINISTERIOAREN datuekin egina.

promozioa, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzen salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean, informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatiari buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2007an egindako inkestaren bidez EAEko sustatzaileek egin zituzten adierazpenen arabera, urte hartan (urte horren ondoren ez daukagu informaziorik) lurzoruaren kostua zen etxebizitzaren prezioan eraginik handiena zeukan osagaia: etxebizitzaren behin betiko balioaren erdia baino gehiago (%56). Zehazki, %39 lurzoruaren kostu gordinari zegokion, eta horri urbanizazio kostuak gehitu behar zaizkio (%17). Eraikuntza kostuei dagokienez, sustatzaileek diotenez, behin betiko prezioaren %28 da. Gainerakoa (%16) kostu orokorrak, finantza kostuak eta enpresarentzako marjina dira.

Etxebizitza Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2009ko laugarren hiruhilekoan EAEn egin ziren hirilurren transakzioetan batez besteko prezioa 373,6 euro izan zen m2 bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batezbestekoa baino %7,6 gutxiago, eta bigarren urtez jaisten. Era berean, estatu osoan egindako transakzioen batezbestekoa 232 €/m² izan zen, 2008ko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren %6,5eko gutxikuntza alegia.

Kopuru absolutuetan, Madrilgo Komunitateak dauka estatuko preziorik garestiena (490,2 €/m², 2008ko laugarren hiruhilekoan baino %3,9 gutxiago), eta haren atzetik EAEk. Kanariar Komunitateak 2008an

III.3.1. TAULA. Eusko jaurlaritzaren lur ondarearen banaketa geografikoa. 2008

	GUZTIRA		BALIAGARRITASUNA			ERREGIMENA (% horizontala)			
	Etxebizitzak	%	2009	2010	ETORKI-ZUNEAN	SOZIALA	DOTAZ ALOJ	BOE	TASATUA
EAE guztira	**12.523**	**100,0**	**46,2**	**35,5**	**18,3**	**18,9**	**3,8**	**60,6**	**16,7**
ARABA	**2.012**	**16,1**	**99,0**	**1,1**	**0,0**	**31,4**	**9,4**	**59,1**	**0,0**
VITORIA-GASTEIZ	1.852	14,8	99,5	0,5	0,0	34,1	8,6	57,2	0,0
BIASTERI	0	0,0	---	---	---	---	---	---	---
LAUDIO	160	1,3	92,5	7,5	0,0	0,0	18,8	81,3	0,0
BIZKAIA	**6.386**	**51,0**	**33,2**	**59,7**	**7,1**	**12,2**	**2,9**	**59,7**	**25,2**
BILBO METROPOLITARRA	5.928	47,3	32,1	62,7	5,3	12,7	2,5	57,7	27,1
BALMASEDA-ZALLA	38	0,3	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
MUNGIA	0	0,0	0,0	---	---	---	---	---	---
IGORRE	0	0,0	0,0	---	---	---	---	---	---
DURANGO	325	2,6	68,6	0,0	31,4	8,0	0,0	92,0	0,0
GERNIKA-MARKINA	95	0,8	0,0	63,2	36,8	0,0	36,8	63,2	0,0
GIPUZKOA	**4.125**	**32,9**	**40,6**	**14,8**	**44,6**	**23,2**	**2,4**	**62,8**	**11,7**
DONOSTIA-S.SEBASTIAN	3.358	26,8	27,1	18,2	54,8	18,0	2,4	65,6	14,0
EIBAR	0	0,0	0,0	0,0	0,0	---	---	---	---
ZARAUTZ-AZPEITIA	325	2,6	100,0	0,0	0,0	55,4	0,0	44,6	0,0
MONDRAGON-BERGARA	324	2,6	100,0	0,0	0,0	33,3	0,0	66,7	0,0
BEASAIN-ZUMARRAGA	100	0,8	100,0	0,0	0,0	62,0	0,0	25,0	13,0
TOLOSA	18	0,1	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0

Iturria.- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA.

bigarren postua zeukan eta harrezkero bere batez besteko prezioa %34,6 jaitsi du, 280,9 €/m^{2}raino. EAEn izandako bilakaera lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, ikusten dugu prezioak nabarmen jaitsi direla Gipuzkoan. %-32,8ko beherakada izan du; 2009ko amaieran 335 €/m^{2}ko batez besteko prezioa izan zuen. Araban ere prezioak jaitsi dira: %-29,2. Bizkaian, berriz, %26,4raino igo ziren prezioak, 395 €/m^{2}raino.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2008ko "*Legebiltzarrarentzako txostenean*", azaldu zuen hurrengo urteetan babes publikoko 12.500 etxebizitza inguru eraikitzeko lurzoru-ondarea zeukala urte hartan (Etxebizitza Sailak erosita zeuzkan lur-zatiak eta erosi nahi zituen beste lurzoru batzuk barne). Kopuru hori, haren kalkuluen arabera, 2007an zeuden etxebizitza eraikigarrien (20.946) %60 zen.

Lur ondarea gure erkidegoko eremu funtzional bakoitzeko biztanleriarekin alderatzen badugu, ondorioztatzen dugu baliagarri dagoen lurrik gehiena hiru hiriburuetan dagoela. Hiriburuen atzetik, Arrasate-Bergara, Zarautz-Azpeitia, Durango eta Laudio daude.

III.3.2. TAULA. EAEn artifizialdutako azalera, erabileraren arabera

	2006	2007	% aldak.
Bizitegia	19.675	19.858	0,9
Jarduera ekonomikoak	13.368	13.649	2,1
Ekipamenduak	5.41	5.411	0,0
Espazio libreak	8.65	8.638	-0,1
Oinarrizko azpiegiturak	1.015	1.057	4,1
Bideak	6.996	6.979	-0,2
Portuak	327	331	1,2
Aireportuak	809	809	0,0
Trenbidea	590	588	-0,3
GUZTIRA	**56.841**	**57.322**	**0,8**

Iturria: IHOBE. Ingurumeneko adierazleak 2009.

Azkenik, jarduera urbanizatzailea ingurumenarentzat ukipen garrantzitsutzat jotzen da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jasangarritasunari buruz egin dituen ikerketetan ikusten denez. Eusko Jaurlaritzaren jasangarritasun estrategiaren barruan lurraldearen erabilera orekatua lortzeko helburua dago.

IHOBEren "*Ingurumeneko adierazleak*" txostenak, 2009ko edizioan, erakusten du EAEko azalera artifizialdua 2007an 57.322 hektareakoa zela. Hau da, azalera osoaren %8; aurreko urteaz geroztik 481 hektarea gehitu zen beraz (%8). Gehikuntza horren oinarria izan da hirigintza aldetik jarduera ekonomikoetarako erabilitako lurrak gehitu direla: 281 hektarea gehiago izan dira (aldakuntzaren %58,4). Neurri txikiagoan, bizitegietarako erabilitako lurrak ere gehitu dira, 183 hektarea (gehikuntzaren %38).

3.1.2. Estatistika eraikuntzaren kostuetan

EUSTATen "*Eraikuntza Kostuen Indizea*"[3] inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energi kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hau sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileri kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez. Noski, adierazle honen bidez ezin dira neurtu produkzioaren behin betiko prezioan eragina daukaten kostu guztiak; izan ere, enpresaren etekinaz gainkapitalaren inguruko faktoreak falta dira.

2009an, eraikuntza kostuak, beren osotasunean, %0,3 jaitsi dira, lan eskuarena %2,4 igo da eta lehen-

III.3.3. TAULA. Eraikuntzaren kostuen indizearen bilakaera, azpisektoreen eta osagaien arabera. EAE

2005eko oinarria= 100	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Lehengaiak	Laneskua
2003	**90,1**	89,9	90,5	89,1	92,1
2004	**95,1**	95,1	95,2	94,8	95,6
2005	**100,0**	100,0	100,0	100,0	100,0
2006	**104,1**	103,9	104,9	103,8	105,3
2007	**108,3**	108,1	109,2	108,0	109,7
2008	**116,5**	115,8	118,9	116,5	116,6
2009*	**116,3**	116,6	115,3	115,5	119,4

(*): behin betiko datuak
Iturria: EUSTAT. Eraikuntza kostuen indizea.

[3] Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereiztua edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko –eskolak, siloak, eta abar- egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena). 2008ko otsailean EUSTATek base berria egin zuen, 2000tik 2005era igaroz. Aldeaketa honek zenbait hobekuntza ekarri ditu, besteak beste, EAEko eraikuntza sektorearen produktu eta lehengai garrantzitsuenak eguneratzea, estaldura zinez gehituz.

III.3.3. GRAFIKOA. EAEko eraikuntza sektorearen magnitude nagusien urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: EUSTAT. Industriaren eta eraikuntzaren estatistika.

III.3.4. GRAFIKOA. Eraikuntzaren kostuen urte arteko aldakuntza tasa EAEn. Oinarrizko urtea: 2005



Iturria: EUSTAT. ICCE

III.3.4. TAULA. Eraikuntza sektorearen magnitude nagusiak. Eguneko prezioak. (euroak, milaka)

	2006	2007	2008	% 06/07	% 07/08
Lanean ari diren langileak	96.312	101.437	96.406	5,3	-5,0
BEG, fakt kostuan	4.996.500	5.799.692	5.806.205	16,1	0,1
Esplotazioaren soberakin gordina	1.829.851	2.276.497	2.098.205	24,4	-7,8
Egindako inbertsioak	347.103	336.036	255.285	-3,2	-24,0
Amortizazioak	246.969	281.875	269.545	14,1	-4,4
Negozioen kopurua	16.615.279	19.766.324	19762.927	19,0	0,0
Ustiapen kontsumoa	10.215.128	12.593.631	12.709.459	23,3	0,9
Kanpoko zerbitzuak	1.614.433	1.988.964	2.004.443	23,2	0,8
Langileri kostuak	3.166.649	3.523.195	3.708.000	11,3	5,2
Zergen aurretiko emaitzak	1.424.258	1.733.896	1.413.937	21,7	-18,5
Cash-Flow	1.671.227	2.015.771	1.683.482	20,6	-16,5

Iturria: EUSTAT. Industriako eta eraikuntzako estatistika.

gaien kostuak %1 murriztu dira, bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Beste ekitaldi batzuetan ez bezala, eraikinak egitearen eta obra zibilaren azpisektoreek bilakaera ezberdinak izan dituzte: lehenengoaren kostuak apur bat igo dira (%0,7) eta bigarrenarenak %3 murriztu dira.

Sektorean kontsumitzen diren lehengaien prezioen artean, 2009an inflazio tasarik handienak izan dituztenak hauek dira: Petrolioa fintzea (%20,5), ura (%7,4), industria ez metalikoa (%2,5) eta altzariak egitea (%1,6), besteak beste. Aitzitik, ondoko lehengai hauek urte arteko prezioetan murrizpen handiagoak izan dituzte: metalurgia (%-16,3), energia elektrikoa eta gasa (%-15,3), material elektronikoa (%-4,7) eta industria kimikoa (%-3,7).

Bestalde, EUSTATen "*Industriako eta eraikuntzako estatistikaren*" datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak faktore aktiboa izaten jarraitu zuela 2008an (urte hori da informazioa dugun azken urtea). Urte hartan, sektore honek balio erantsi gordineko mailei eutsi zien (%0,1eko gehikuntza), baina enplegua %5 jaitsi zen. Horrek 5.000 lanpostu galtzea ekarri zuen, batez bestez 96.406 pertsona okupatu erregistratuz.

Enpresako soberakin gordina, hau da, sortutako balio erantsiaren %36,1 (2007an %39,3), %7,8 erori zen eta langileri kostuak %5,2 hazi ziren.

Bestalde, egindako inbertsioak 255 milioi euro ziren, aurreko ekitaldian baino gutxiago (%-24); zenbateko horri amortizazioak kenduz gero, 14 milioi euroko inbertsio garbi negatiboa da. Azkenik, negozioen kopurua 19.762 milioi eurotan egonkor mantendu zen. Zergen aurretiko emaitzak, berriz, %18,5 jaitsi ziren.

3.2. ALOKAIRU ERREGIMENA EAEn

2009an Etxebizitzaren Euskal behatokiak txosten monografikoa egin du alokairu erregimenari buruz, 2008ko datuekin. Txosten honek gure erkidegoan alokairuan dauden etxebizitzen ezaugarri nagusiak azaltzen ditu. Etxebizitza hauen beharrizan eta eskaera ere azaltzen ditu. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak etxebizitza eskaerari buruz urtean egiten duen inkestaren zati bat da.

Inkesta honen bidez, zenbatesten dugu erreferentziako urtean jendea bizi den EAEko familien %5,3a alokairuan daudela. Alokairua beraz oso minoritarioa da. Jendea bizi den etxebizitzen %93an, erregimena erosketa da. Jendea bizi den gainerako etxebizitzak (%2,1) lagapen erregimenean daude. Lurraldeka, Gipuzkoak dauka alokairu indizerik handiena (%6,1), Gero Bizkaiak (%5,1) eta azkenik Arabak (%4,1).

Etxebizitza Ministerioak alokairuak autonomi erkidego bakoitzean daukan pisuari buruzko azterlana egin du. Azterlan honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren zenbatespenekin bat ez datorren arren, EAEn alokairuan dauden etxebizitzek estatuan daukaten posizio erlatiboa jakin dezakegu. Ikusten dugu Madrilgo Komunitateak daukala alokairu indizerik handiena (%20), azken urtean erkidego horretan errentamenduak gehikuntza handia izan baitu (ia 5 puntuko gehikuntza). Bigarrena Katalunia da (%18,7). Errioxa eta Kantabria dira alokairu gutxien dutenak (%5 inguru). Ministerioaren arabera, EAEk %7,3ko alokairu ratioa dauka; estatuko batezbestekoa, aldiz, %13,2koa da.

III.3.5. GRAFIKOA. Alokairuzko etxebizitzaren indizearen bilakaera EAEn eta estatuan. Datuak ehunekotan



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta ETXEBIZITZA MINISTERIOAREN datuekin egina.

III.3.5. TAULA. Etxebizitzen ezaugarriak: jabetza eta alokairua EAE-n. 2008

EZAUGARRIAK	EDUKITZE ERREGIMENA (%)	
	JABETZA	ALOKAIRUA
ETXEBIZITZAREN AZALERA ERABILGARRIA		
40m²raino	0,3	0,4
41 a 60m²	14,4	23,2
61 a 75m²	26,6	23,3
76 a 90m²	29,6	16,8
91 a 120m²	16,3	16,3
120m²tik gora	7,6	2,3
Ed/Ee	5,3	17,7
BATEZ BESTEKO AZALERA GUZTIRA (m²)	80,5	74,7
ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZAREN URTE KOP		
60 urtetik gora	11,1	23,8
59 eta 40 urte artean	23,2	21,8
39 eta 25 urte artean	38,2	15,4
24 eta 15 urte artean	10,3	6,4
14 eta 5 urte artean	9,1	10,2
5 urtetik behera	4,6	3,2
Ed/Ee	3,6	19,1
BATEZ BESTEKO ANTZINATASUNA (URTEAK)	35,6	41,0

Iturria.- Etxebizitza eta Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitza beharren eta eskaeraren inkesta 2008.

EAEn alokairurako dauden etxebizitzen ezaugarriei dagokienez, 2008ko Etxebizitza beharren eta eskaeraren inkestak erakusten du, lehenik eta behin, batez besteko tamaina jabetzan dauden etxebizitzena baino txikiagoa dela: 75 m² (jabetzakoak 80 m²). Bestalde, alokairurako etxebizitzen batez besteko antzinatasuna handiagoa da: 41 urte (jabetzakoak, 36 urte).

Etxebizitzaren ingurunearen ezaugarriei dagokienez, ez dago ezberdintasunik edukitze erregimenen artean.

III.3.6. TAULA. Ezaugarri sozioekonomikoak: jabetza eta alokairua EAE-n. 2008

EZAUGARRIAK	EDUKITZE ERREGIMENA (%)	
	JABETZA	ALOKAIRUA
ETXEBIZITZAKO KIDEEN KOP		
Pertsona 1	23,7	35,4
2 pertsona	28,6	23,8
3 pertsona	23,8	15,2
4 pertsona	17,7	15,0
5 pertsona	4,8	8,7
6 pertsona edo gehiago	1,4	2,0
BATEZ BESTEKO KOP	**2,6**	**2,5**
FAMILIEN TIPOLOGIA		
Pertsona batekoa	23,5	35,4
Nuklearra, seme-alabarik gabe	22,5	16,0
Nuklearra, seme-alabekin	38,4	26,3
Nuklearra, seme-alabekin eta beste	3,8	5,7
Guraso bakarrekoa	5,6	8,2
Konposatua (lagunak)	0,1	1,7
Bestelakoak	4,4	5,8
BURUAREN ADINA		
24 urtetik behera	0,1	3,1
25 - 34 urte	4,7	15,2
35 - 44 urte	13,7	23,9
45 - 54 urte	21,5	21,5
55 - 64 urte	27,9	16,7
65 urtetik gora	32,1	19,6
BATEZ BESTEKO ADINA (URTEAK)	**56,7**	**49,3**
BURUAREN NAZIOTASUNA		
Espainiarra	99,2	84,2
Bestelakoa	0,5	15,0
Biak	0,3	0,8
BURUAREN LAN EGOERA		
Bere kontura lanean	8,0	15,1
Kontratu finkoarekin lanean	31,6	29,9
Aldi baterako kontratuarekin lanean	4,4	9,3
Lanik gabe	4,2	12,1
Etxeko lanak	1,3	1,6
Erretiratua	30,6	9,3
Pentsioduna	18,9	19,1
Ikaslea	0,1	1,8
Beste	0,5	1,7
ETXEBIZITZAN BIZI DIREN URTE KOP		
Urte bat edo gutxiago	1,3	8,4
1 - 2 urte	2,9	18,6
2 - 4 urte	4,7	12,0
5 - 9 urte	10,7	17,7
10 urte edo gehiago	80,3	42,6

Iturria.- Etxebizitza eta Herri Lan eta Garraio Saila, Etxebizitza beharren eta eskaeraren inkesta 2008.

III.3.6. GRAFIKOA. Alokairuzko etxebizitzengatik ordaintzen den hileko errentaren banaketaren bilakaera ehunekotan. EAE



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Gogobetetze maila handia dago alokatutako etxebizitzan bizi diren pertsonen artean baita beren jabetzako etxebizitzan bizi diren pertsonen artean ere (86 puntu 100eko eskala batean, bi kasuetan).

Era berean, bi kolektiboek azaldu duten arazo nagusia aparkatzeko lekurik eza da, etxebizitza jabetzan duten familien %70ean eta alokairuko etxebizitza duten familien %69an. Kanpoko zaratak eta etxebizitzara iristeko zailtasuna bi kolektiboek aipatutako beste arazo batzuk dira, baina eragin txikiagoa daukate.

Txostenak, gero, alokairuan bizi diren pertsonen etxebizitzen ezaugarri soziodemografikoak erakusten ditu. Nabarmentzekoa da batez besteko adina txikiagoa dela (49 urte; etxebizitza jabetzan dutenena: 57), pertsona bakarreko etxebizitza gehiago dago (%35, jabetzakoetan %24) eta lan egonkortasun eza daukaten etxebizitza kopuru handiagoa dago: zehazki, alokairuko etxebizitza duten familien %21ean burua langabezian dago edo aldi baterako kontratua du; beren jabetzako etxebizitzetan bizi diren familietan %9ra jaisten da errenferentziako urtean. Era berean, alokairuko erregimenean atzerritarren kolektiboa izugarria da, errentan dauden etxebizitza guztien %15a hartzen baitute (eta jabetzako etxebizitzan %0,5a baino ez).

Familia horien finantza gaitasunari dagokionez, Etxebizitzaren Behatokiak zenbatesten du alokairuko erregimenean bizi diren familiek diru-sarrera txikiagoak dauzkatela batez bestez: 1.579 € garbi hilean; etxebizitza jabetza duten familiek, aldiz, 1.631 euro. Ezberdintasun hori gorabehera, distantziak laburragoak dira, bi familia motetan diru-sarrerek izan duten ibilbide ezberdinaren ondorioz. Izan ere, etxebizitza jabetzan duten familiek aitortutako diru-sarrerek 2008an atzeraldia izan zuten 2007an aitortutako batez besteko errentaren aldean (%-5,3), baina alokairuko etxebizitza duten familietan hazkunde garrantzitsua izan da denboraldi berean: %18,5. Era berean, diru-sarrera garbien artean 2007an zegoen 390 euroko tartea 52 eurokoa da bakarrik 2008an.

Azkenik, errentan bizi direnen familiei erreparatuz gero, azterlanak alokairuko batez besteko hileko errentaren bilakaera aztertzen du; azken urtean hazkunde garrantzitsua atzeman da. Zehazki, ordaindu den batez besteko errenta 480 euro da hilean; 2007an 390 ziren (%25). Gainera, ordaindutako alokairu errentaren eta aitortutako diru-sarreren arteko erlazioak batez bestez %31ko finantza-ahalegineko tasa erakusten du (2007ko inkestan, %29). Halere, azken bi urteetan etxebizitza erosi dutenen batez besteko finantza-ahalegina handiagoa da, diru-sarreren %38 etxebizitza ordaintzeko erabiltzen dutela esan baitute. Gainera, ordaindutako alokairu errenten eboluzioak erakusten du hilean 600 euro baino gutxiagoko errenta duten etxebizitzak urritu direla: 2007an alokairuko etxebizitza guztien %56 ziren, eta 2007an %74a.

3.3. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA EAEn 2009an

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren *"Higiezin Eskaintzaren Inkestaren"* datuek[4] adierazten dute, lehenik eta behin, azken urtean etxebizitzen eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %3 igo dela (aurreko urtean %21,4), laugarren hiruhilekoan 27.560 etxebizitzetara iritsi arte. Lagin hau prezioen estatistikaren oinarria da. Bigarren eskuko etxebizitzak %51 dira (batez ere salmenta erregimenean eskaintzen direnak), etxebizitza libre eraiki berriak %18,6 dira eta %30,4 babestutako etxebizitzak dira (azken horien herena alokairua eskaintzen da). Datu horien arabera, 2004an hasi zen eskaintzaren hazkunderako joera eten

III.3.7. TAULA. EAEko etxebizitza eskaintzaren bilakaeraren laburpena

	GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN		
		SALGAI GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	ALOKAIRUAN GUZTIRA	LIBRE	BABESTUTA
			GUZTIRA	BABESTUTA	LIBRE				
2004	14.953	13.941	7.831	3.932	3.900	6.110	1.012	512	500
2005	16.138	14.602	8.078	3.919	4.159	6.524	1.536	521	1.015
2006	18.045	15.913	8.977	5.065	3.912	6.936	2.132	578	1.554
2007	22.048	20.051	9.421	5.093	4.329	10.630	1.997	485	1.512
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
I-2009	25.755	23.045	9.654	4.605	5.049	13.391	2.710	738	1.972
II-2009	26.202	23.341	9.759	4.447	5.312	13.582	2.863	854	2.009
III-2009	26.990	23.884	10.057	4.816	5.241	13.828	3.106	945	2.161
IV-2009	**27.560**	**24.180**	**10.127**	**5.010**	**5.117**	**14.053**	**3.380**	**1.000**	**2.380**

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA.
Oharra: Datuak 4 ordenako batezbesteko mugikorren bidez azaltzen dira.

[4] Datu hauek lortzeko, inkesta egin zaie etxebizitza eskaintza daukaten etxebizitza sustatzaileei eta higiezin jabetzen agenteei (bost etxebizitzatik gorako sustapenak), 171 sustatzaile eta 119 higiezin-enpresa; beraz, ez da eskaintza osoa jaso. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.

da, 2002-03 bi urtekoan merkatuan zeuden etxebizitzen kopurua gutxitu ondoren.

2009rako nabarmendu behar dugun beste ezaugarri bat da 2008an alokairuko etxebizitzaren eskaintzan gertatu zen gehikuntza ikusgarria ez dela errepikatu. 2008ko %12,7 handia hazi da (ordurako %50,2 gehitu zen), baldintza horietan eskainitako etxebizitza pribatuaren eta publikoaren (babestuaren) batura kontuan izanik. Halere, 2009ko amaieran eskaintzaren %12,3 baino ez zen. Gainera, alokairuko bost etxebizitzatik bat baino ez da pribatua.

Prezioei dagokienez, etxebizitza libre salgaien (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa %7 jaitsi da 2008ko batezbestekoaren aldean; aurreko urtean %2 jaitsi zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, murrizpena %-2,3 da, bigarren eskuko etxebizitzaren zatiak beherakada apur bat handiagoa izan duelako (%-8,7). Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %6,6 igo da azken urtean (alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, %9,7 jaitsi da). Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 219,8 euro da, aurreko urtean baino %6 gutxiago.

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezin-enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez bestez, 2009an 8,6 hilabete zirela, aurreko urtean bezalaxe.

3.3.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, etxebizitza libre eta eraiki berri salgaien eskaintza, 2009ko laugarren hiruhilekoan, 5.117 alera iritsi da, 2008an baino %3,4 gehiago. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaiak %45,7, Gipuzkoak %31,8 eta Araban %22,4. Banaketa honek erakusten du Bizkaiak pisu erlatiboa galdu duela (2007an %50,3 eta 2008an %48,7 zeuzkan) eta Arabak eta Gipuzkoak presentzia bereganatu dutela.

EAEko etxebizitza libre eta berrien ezaugarriei buruz (dauzkagun daturik berrienak 2007koak dira), ondoko profila dute gehienek: etxebizitza kolektiboak (%83) eta etxebizitza gehiago eraikuntza fasean (%79). Azalera erabilgarriari dagokionez, 76 eta 90 m^2 arteko azalera

III.3.7. GRAFIKOA. EAEko etxebizitza berri salgaien eskaintzaren bilakaera, motaren arabera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HEI.

III.3.8. TAULA. EAEko etxebizitza salgaien batez besteko prezioaren bilakaera. €/m² erabilgarria

	ETXEBIZITZA LIBREA				BABESTUTAKO ETXEBIZITZA**	
	Librea guztira*	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZITZA MOTA	BOE	SOZIALA
2003	3.060,1	3.338,4	2.510,0	2.419,7	1.047,4	597,1
2004	3.327,1	3.596,4	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005	3.715,0	3.935,5	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1	
2007	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9	
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0	
2009 I	4.032,7	4.024,5	4.054,5	3.489,5	1.400,0	
2009 II	3.945,4	3.907,8	4.041,4	3.410,0	1.430,1	
2009 III	3.877,9	3.816,9	4.038,9	3.380,1	1.453,5	
2009 IV	**3.846,6**	**3.778,9**	**4.032,5**	**3.338,1**	**1.468,9**	

* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa
** 2006az geroztik etxebizitza sozial salgaiaren modalitatea desagertu zen.
Oharra: Datuak 4 ordenako batezbesteko mugikorren bidez azaltzen dira.
Iturria: EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta. 2009ko 4. hiruhilekoa

daukatenek guztien %36 hartzen dituzte; apartamentuak, ordea, oso gutxi dira eskainitako lagin osoa kontuan hartzen badugu. Horrela, guztien %8ak soilik dauka 60 m² baino gutxiagoko tamaina. Batez besteko azalerari dagokionez, eraikuntza berriko eskaintza libre osorako batezbestekoa 85 m² da (babestutako etxebizitzen batez besteko tamaina apur bat txikiagoa baita: 79 m²).

Etxebizitza libre eraiki berrien batez besteko prezioa, 2009ko laugarren hiruhilekoan, 4.033 €/m² zen, hau da, 2008ko batezbestekoa baino %0,5 gutxiago. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batezbestekoa txikiagoa da (3.466 €/m²), Bizkaian 4.035 €/m² eta Gipuzkoan 4.373 €/m². Arabako prezioa, 2008an %0,4 murriztu zena, %6,4 igo zen 2009an. Bizkaian, bestalde, etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa batezbestekoa baino gehiago murriztu da (%-4,7); Gipuzkoan %3 igo da.

Etxebizitzen prezioak aztertzen baditugu, batezbestekoa 329.300 € da EAEn. Gipuzkoan 360.000 € eta Araban 293.300 €. Bizkaia beste bien artean dago: 322.300 euro.

Etxebizitza tipoaren analisiari erreparatuz gero, ikus dezakegu etxebizitza librearen prezioak %7,5 erori diren arren etxebizitza tipoaren kasuan beherakada txikiagoa dela: %2,6. Termino absolutuetan, 2009ko laugarren hiruhilekoan erregistratu den etxebizitza tipoaren batez besteko prezioa 3.338 €/m² da, hau da, eraikuntza berriko eskaintza librearen batezbestekoa baino %20,8 gutxiago eta etxebizitza libre salgaia (berria eta erabilia) baino %15,2 gutxiago.

Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an gizarte etxebizitza salgaien eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. Saltzeko eskainitako BOEen batez besteko prezioa 1.469 €/m² zen 2009an, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. Kontuan izan behar dugu 2007ko datuen arabera lau etxebizitzatatik ia hiruk (%72) 90.000 eta 120.000 euro arteko prezioa zeuka-

III.3.8. GRAFIKOA. Etxebizitza berri salgaien batez besteko prezioaren bilakaera, lurraldeka. Milaka eurotan



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezin Eskaintzaren Inkesta.

III.3.9. GRAFIKOA. Saltzeko eta alokatzeko etxebizitza babestuaren eskaintzaren bilakaera EAEn



Iturria: EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.
(*)Modalitate hau 2006an desagertu zen.

tela. Gainerakoetan, %17 90.000 eurotatik behera zegoen, eta %11 120.000 eurotik gora, baina 150.000 eurotara iritsi gabe.

Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik. Etxebizitzako prezioa kontuan izanez gero, EAEren batezbestekoa 115.300 euro da etxebizitza bakoitzeko (2008an baino %6,6 gehiago). Arabak preziorik altuena dauka (124.100 euro etxebizitza bakoitzeko), gero Bizkaiak (108.300) eta azkenik Gipuzkoak (105.300).

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza hauek babestutako etxebizitza baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Zehazki, 2007ko azken hiruhilekoan aztertutako etxebizitzek batez bestez 1.912 €/m² prezioa zeukaten, eta etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioa 160.000 eurokoa zen.

(b) Erabilitako etxebizitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu guztira bigarren eskuko 14.053 etxebizitza eskaintzen direla, aurreko urtean baino %4,9 gehiago[6]. Etxebizitza hauek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %52,5, Araban %28,5 eta Gipuzkoan %19.

Eskaintzen analisia azalera erabilgarriaren arabera sailkatuz gero, 2007ko datuek erakusten zuten etxebizitza txiki gehiago zeudela etxebizitza eraiki berrien artean baino. Horrela, erabilitako etxebizitzen %23a 60 m² baino txikiagoa zen; proportzio hori %8 zen etxebizitza berriaren merkatuan. Batez besteko azalerari dagokionez, batezbestekoa aipatutako datan 81 m² zen EAE osorako (urte bat lehenago, 88 m²).

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.779 €/m² zen 2009an, aurreko urtean erregistratutako batezbestekoa baino %10 gutxiago. Lurraldeka, prezioen beherakada nagusia Bizkaian izan da [6] (%-18,5). Araban eta Gipuzkoan ere

III.3.9. TAULA. Erabilitako etxebizitza salgaiak, m² erabilgarri bakoitzeko prezioarekin (eurotan),eta batez besteko prezioak (milaka eurotan), lurralde historikoka

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Kop	m2aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop	m2aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop	m2aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop	m2aren prezioa	Prezioa/ etxebizitza
2004	6.110	3.596,4	264,0	1.399	3.438,1	295,0	3.932	3.556,6	248,4	779	4.085,6	292,3
2005	6.524	3.935,5	297,0	1.769	3.630,4	304,4	3.824	3.978,2	289,8	932	4.342,4	316,7
2006	6.936	4.272,8	320,5	2.124	3.871,0	307,8	3.722	4.365,3	324,0	1.090	4.748,7	335,2
2007	10.630	4.356,4	350,7	3.031	3.834,6	311,4	6.067	4.490,9	357,3	1.533	4.847,1	404,4
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	**14.053**	**3.778,9**	**310,1**	**4.009**	**3.550,0**	**295,2**	**7.378**	**3.581,7**	**294,1**	**2.666**	**4.686,4**	**374,3**

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezin eskaintzari buruzko inkesta

[5] Laginketa-datuak diren arren, informazio horrek erakusten du eskaintzen diren etxebizitza erabilien stockaren gehikuntza dagoela; higiezin-merkatuan jardun motela dagoenean hau gertatu ohi da.

[6] Eusko Jaurlaritzak, gainera, ohartarazi du estatistika honetarako emandako prezioak eskaintzaileei eskatutako prezioak direla eta, gehienetan, salerosketa egiteko unean murriztu egiten direla.

tasa negatiboak izan dira, baina batez besteko gutxipena baino txikiagoak (%-1,1 eta -2,5 hurrenez hurren). Termino absolutuetan, Arabako batezbestekoa 3.550 €/m² da, Bizkaian 3.582 €/m² eta Gipuzkoan 4.686 €/m². Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEren batezbestekoa 310.100 euro da etxebizitza bakoitzeko. Gipuzkoan 374.300 eta Bizkaian 294.100. Araba beste bien artean dago: 295.200 euro etxebizitza bakoitzeko.

3.3.2. Alokairu erregimena

2009ko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 3.380 etxebizitza eskaini dira alokairurako, aurreko urtean baino %12,7 gehiago. Etxebizitza libreen zatia %65,8 gehitu da, 603 etxebizitzetatik 1.000 etxebizitzetara. Alokairuko etxebizitza babestua, ordea, %0,6 jaitsi da. Horrenbestez, babestutako alokairua 2008an %80 izatetik 2009an %70,4 izatera igaro da; beraz, alokairuko eskaintzaren presentzian ia 10 puntu galdu ditu.

Informazio berriagorik ez daukagunez, nabarmendu behar dugu 2007an alokairuko etxebizitza babestuetatik %68 etxebizitza sozialak zirela eta gainerakoak (%32), BOE. Alokairuan eskainitako etxebizitza babestuak honela banatzen ziren lurraldeka: %29 Araban, %53 Bizkaian, eta %18 Gipuzkoan. Babes modalitateari dagokionez, ikusi zen Gipuzkoan BOEen eskaintza etxebizitza sozialena baino handiagoa zela; beste bi lurraldeetan, aldiz, etxebizitza soziala gailentzen zen argi eta garbi. Tipologiaren araberako banaketa honen bilakaerak alokairuko etxebizitza sozialaren pisu erlatiboaren igoera mailakatua (BOEen kaltetan) erakusten du.

EAEko alokairuko babestutako etxebizitzen batez besteko errenta, 2009an, 219,8 euro zen hilean, aurreko urtean baino %6 gutxiago.

BOEaren modalitateak 2008an (ez daukagu informazio xehakatu berriagorik) 380,3 euroko prezioa zuen hilean; etxebizitza sozialek, berriz 118 euro hilean, batez bestez. Bilakaerari dagokionez, BOE modalitatean errenta igoera gertatu da (%16,9); etxebizitza sozialean, ordea, jaitsiera gertatu da (%-10,4, 2007aren aldean).

Bestetik, 2009ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 1.000 unitatekoa zen, aurreko urtean baino 397 gehiago. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %39, Araban %40 eta Gipuzkoan %23.

III.3.10. TAULA. EAEn alokairurako eskaintzen diren etxebizitzen errentaren bilakaera. (euroak hilean)

	BABESTUTAKO MERKATUA			MERKATU LIBREA
	BOE	SOZIALAK	GUZTIRA	
2003	345,1	141,1	276,5	693,1
2004	385,4	164,4	257,3	724,4
2005	397,5	147,6	278,2	807,4
2006	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	380,3	118,0	233,8	968,9
2009	-	-	219,8	875,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA.

III.3.10. GRAFIKOA. Alokairuzko etxebizitza libreen banaketaren bilakaera EAEn, azalera erabilgarriaren arabera, m²etan



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Etxebizitza Saila

III.3.11. GRAFIKOA. Alokairuzko etxebizitzaren eskaintzaren eta alokairu librearen hileko batez besteko errentaren bilakaera (eurotan)



Iturria: EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta.

III.3.11. TAULA. Eskaintzen diren alokairuko etxebizitza libreak eta hileko batez besteko errenta

	Etxebizitzak				Hileko errenta ( )			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2003	533	101	347	86	693,1	815,7	666,6	691,9
2004	512	108	308	96	724,4	828,2	687,4	747,0
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
2006	578	184	241	153	819,6	866,8	795,7	802,8
2007	485	181	212	92	890,2	908,5	875,4	901,5
2008	603	227	247	130	968,9	895,0	968,8	1.086,5
2009	1.000	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. “EAEko etxebizitza, garaje eta lokalen eskaintzari buruzko inkesta”.

Eskainitako etxebizitzen azalera erabilgarria kontuan izanik, banaketaren analisiak, tarte handien arabera, erakusten du tarte guztiak daudela ordezkatuta. Halere, bitartekoan bolumen handiagoa kontzentratzen dela nabarmendu behar dugu. Etxebizitzen %24,7ak, beraz, 61 eta 75 m^2 artean ditu, eta %22,4ak, 76 eta 90

m² bitartean. Etxebizitza txikiagoetan, gero eta ordezkatuagoak zeuden laginean: horrela, 2002an 60 m²tik beherako etxebizitzak eskaintza guztiaren %12,1 ziren, eta 2008an (ez baitaukagu informazio berriagorik), %19,5 ziren.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin-jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 875,3 euroko errenta daukate 2009an, aurreko urtean baino %9,7 gutxiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (941,1 € hilean); gero Bizkaiak, 881 € hilean eta azkenik Arabak (836,7 € hilean). Bilakaeraren analisiak jaitsiera handiagoa erakusten du Gipuzkoan (%-13,4), txikiagoa Bizkaian (%-9,1) eta txikiena Araban, batez besteko errenta %6,5 murriztu baita hemen.

Etxebizitzak errenten tarte handien arabera nola banatzen diren aztertuz, 2008an atzeman zen hilean 600 euro baino gutxiagoko errenta zuten etxebizitza gutxi zeudela (eskaintzaren %3,9 baino ez ziren). Aitzitik, %84ak hilean 720 euro baino gehiagoko errenta zeukan. Eskaintzaren %12ak bakarrik zeukan 601 eta 720 euro arteko errenta hilean.

3.3.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa autonomi erkidegoen arabera

Lehenik eta behin, INE 2008an hasi zen "*Etxebizitzaren Prezioen Indizea*" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle honek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPIa Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, beraren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Beraren eremutik kanpo daude, hortaz, babestutako etxebizitzak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPIak Notariotzaren Kontseilu Nagusiak (Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez) emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak, batetik, ahalbideratzen du biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa teknikak erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

2009ko emaitzek erakusten dute etxebizitzen 2008ko batez besteko beherakada orokorra amaitu dela eta 2009an suspertu dela (EAEn 2007ko amaieratik aurrera); halere, merkatuaren egoera eta adierazlearen gaztetasuna kontuan izanik, hurrengo hiruhilekoetan kontrastatu beharko da. Urteko aldakuntzari dagokionez, gure erkidegoak 2009. urtea %7,1eko beherakadarekin amaitu zuen; estatuko beherakadaren batezbestekoa %4,3 izan zen. Autonomi erkidegoen arabera, urtean pilatu ziren prezioen beherakadarik handienak Nafarroan (%-8,3), EAEn eta Katalunian (%-7) izan ziren. Gainera, esan behar dugu prezioak oro har erori ziren arren Extremadurako komunitatean %1,9 jaitsi zirela eta Murtzian aldaketarik gabe mantendu zirela.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak 2008an babestutako etxebizitzaren prezioen az-

III.3.12. GRAFIKOA. Etxebizitzaren prezioen indizea: hiruhilekoko aldakuntzaren tasak. Oinarrizko urtea: 2007



Iturria: INE. EPI.

terlan konparatiboa egin zuen, autonomi erkidegoak erkatuz. Azterlan honen funtsezko emaitzek erakusten dute EAEko etxebizitza babestuen prezioak zona txiki-ertainean daudela, gainerako erkidegoetan dauden prezioak ikusita. Aitzitik, lehenik eta behin, esan behar dugu EAEko etxebizitza itunduen prezioek erkidego gehienetako etxebizitza tasatu edo itunduen mailak gainditzen dituztela, nahiz eta tipologia horrek zehaztapen asko dituen, erkidego bakoitzaren arabera. Bigarrenik, EAEko gizarte etxebizitzaren prezioak Erkidegoetako Erregimen Bereziko BOEen prezioen mailetako azken postuetan daude, garestienetatik oso urruti. Katalunia, Balearrak, Madril, Kanariarrak eta Valentzia dira babestutako etxebizitza garestienak dauzkaten erkidegoak. Aitzitik, Extremadura, Aragoi eta Gaztela-Mantxa dira babestutako etxebizitzarik merkeenak dauzkaten erkidegoak.

III.3.12. TAULA. Babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko salneurria, autonomi erkidegoen arabera. 2008. (€/m²)

	BOE, erregimen orokorra		BOE, erregimen berezia		Prezio tasatuak edo itunduak*
	Zona garestiena	Zona merkeena	Zona garestiena	Zona merkeena	
EAE	**1.384,32**	**1.209,90**	**845,74**	**636,22**	**2.353,32**
NAFARROA	1.467,50	1.467,50	1.354,62	1.354,62	1.862,60
KATALUNIA	1.940,48	1.212,80	1.705,50	1.137,00	3.001,68
MADRIL	1.940,48	1.212,80	1.819,20	1.137,00	–
VALENTZIA	1.819,20	1.212,80	1.705,50	1.137,00	2.319,48
ANDALUZIA	1.394,72	1.212,80	1.220,38	1.061,20	1.743,40
ARAGOI	1.212,80	1.174,66	1.030,68	985,2	1.364,40
ASTURIAS	1.443,23	1.091,52	1.262,83	955,08	1.623,64
BALEARRAK	1.940,48	1.212,80	1.819,20	1.137,00	3.001,68
KANARIAR UHARTEAK	1.500,84	1.334,08	1.167,63	1.167,32	–
KANTABRIA	1.394,72	1.212,80	1.307,55	1.137,00	1.773,72
GAZTELA-MANTXA	1.514,24	1.019,20	1.324,96	873,6	1.817,09
GAZTELA ETA LEON	1.576,64	1.061,20	1.478,10	985,4	–
EXTREMADURA	1.070,10	863,58	963,09	777,22	1.335,50
GALIZIA	1.212,80	1.099,10	1.061,20	958,4	1.569,06
ERRIOXA	1.394,72	1.212,80	1.220,38	1.061,20	1.569,06
MURTZIA	1.212,80	1.099,10	1.137,00	1.046,00	1.364,40
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	**1.495,30**	**1.171,14**	**1.319,03**	**1.032,14**	**1.570,53**

Iturria: Autonomi erkidego bakoitzaren araudiak. Egilea: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.
*Zonifikaziorik dagoenean, datua eremurik garestienean jaso da.

3.3.4. Eraikuntza jarduera

EAEn hasitako etxebizitzen kopuru osoa, 2008an %32,9 erori ondoren, berriro ere %43,4 murriztu zen 2009an. Guztira 7.051 etxebizitza hasi dira; haietatik 3.855 libreak dira (%54,7) eta 3.196 babestuak (%45,3). Azken horietatik 2.939 BOE dira (%-38,7, 2008tik) eta 91 gizarte etxebizitzak dira (%-89,3).

III.3.13. TAULA. Eraikuntza jarduera EAEn: hasitako eta amaitutako etxebizitzak

		2005	2006	2007	2008	2009
Etxebizitza libreak	Hasita	11.987	9.815	11.269	6.203	3.855
	Amaituta	11.522	9.794	10.793	9.083	8.782
Etxebizitza babestuak	Hasita*	4.656	5.339	7.310	6.259	3.196
	Amaituta	4.040	4.829	4.631	5	4.672

Iturria: Etxebizitza Saila. EUSKO JAURLARITZA.
* Babestutako etxebizitzaren figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta dotazio alojamenduak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana abian jarri zenetik, babestutako etxebizitzaren merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hasi dela 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik tasatutako etxebizitza autonomikoak. Denbora horretan, guztira 589 dotazio alojamendu eraikitzen hasi da, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta 1.602 jabetzarako, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren 37 etxebizitza tasatu.

Bestalde, EAEn 2009an amaitutako etxebizitzak 13.454 dira, aurreko urtean baino %4,5 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (%-3,3) eta babestutakoen beherakadaren (%-6,6) ondorioz. Horietatik 4.506 BOE dira (%-1,9) eta 166 sozialak (%-59,4, aurreko urtetik).

2009ko datuek, bestalde, erakusten dute beherakada txiki bat izan dela etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza jardueran duen parte hartzean, aurreko urtearekin alderatuta: amaitutako etxebizitzen artean babestutako etxebizitzaren pisua %35,5etik %34,7ra igaro da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2008ko "*Legebiltzarrarentzako txostenaren*" barruan,

III.3.14. TAULA. EAEn hasitako etxebizitza babestuen bilakaera, tipologiaren arabera

	EJ-ren kalifikazioaren pean daudenak			EJ-ren kalifikazioaren pean ez daudenak			GUZTIRA
				Dotazio aloja-menduak	Udal etxebizitza tasatuak		
	BOE	Sozialak	Tasatuak		Alokairuan	Jabetzan	
2004	3.981	446	-	-	-	-	4.427
2005	3.839	817	-	-	-	-	4.656
2006	4.822	392	-	125	-	-	5.339
2007	5.302	590	-	361	100	957	7.310
2008	4.793	847	-	103	-	516	6.259
2009	2.939	91	37	-	-	129	3.196

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

III.3.13. GRAFIKOA. EAEn amaitutako etxebizitzen kopuruaren bilakaera



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA

gure erkidegoko eraikuntza jardueraren eta estatuarenaren arteko azterlan konparatiboa egin du. Lehenik eta behin nabarmentzen du estatuan hasitako etxebizitzen bolumen osoa, Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, 2008an 360.663 zela; aurreko urtetik %42ko murrizpena gertatu zen beraz. 2007an atzerapen garrantzitsua gertatu zen, EAEn azalerazi ez zen arren.

1994an hasitako etxebizitzak 100 indizetzat hartzen badugu, estatuaren 2008ko adierazlea 148 puntukoa da, 2006ko maximoa (347) eta 2007koa (279) baino askozaz ere txikiagoa. EAEk, aldiz, maximoa 2003an lortu zuen, 211 punturekin, eta 2008an 150eko indizea zeukan; estatuan baino gehiago beraz. Horrela, kopuruek erakusten dute EAEn etxebizitzaren eraikuntzak bilakaera askozaz ere orekatuagoa eta kontrolatuagoa izan duela, estatuko hazkunde esponentzialetik urrun, eta ez duela estatuko erorketa izugarria pairatu.

III.3.14. GRAFIKOA. EAEko eta estatuko eraikuntza jardunaren bilakaera: hasitako etxebizitzak (1994. urtea = 100) eta babestutako etxebizitzaren pisua



Iturria: EUSKO JAURLARITZAK egina, ETXEBIZITZA MINISTERIOAREN datuekin.

Babestutako segmentuari bagagozkio, ikusiko dugu estatuaren eraikuntza erritmoan ere atzerakada izan dela, baina etxebizitza librean baino txikiagoa. Zehazki, indizea 162 zen 2008an (2007an 183 izan zen). Kopuruak erkatzen baditugu, ikusten dugu EAEn azken bi urteetan babestutako etxebizitzak hasteko erritmoa bizia izan dela; serie estatistikoan maximo bat da, nahiz eta 2008an atzeraldi txikia gertatu den.

Autonomi erkidegoen araberako azterlanak erakusten du erkidego guztietan kontrakzioa gertatu dela (Nafarroa izan ezik, hemen eraikuntza erritmoari eutsi baitzaio 2008an, urteko %0,1eko aldakuntza-tasarekin). Halere, erkidego batzuek atzerapen handiagoak dauzkate. Zehazki, mediterraneoar komunitateek izan zuten 2008ko atzeraldi handiena (hemen bigarren etxebizitza asko daude): Balearrak (%-54), Katalunia (%-52), Valentzia (%-49,5). Halere, kasurik gehienetan kontrakzioak %40tik gorakoak izan dira. EAE atzerapen kontrolatuena daukaten erkidegoen artean dago (%-22 2007aren aldean). Madrilgo komunitateak (%-16) eta Asturiasek (%-19) baino beherakada apur bat handiagoa izan du.

3.4. ETXEBIZITZA BEHARRAK ETA ESKAERA EAEn 2008an[7]

3.4.1. Beharrizanen kuantifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren 2008ko "*EAEko etxebizitza beharren eta eskaeraren oinarrizko inkestak*[8]" erakusten du lehenbiziko etxebizitza eskuratu beharra duela esaten duten pertsonen proportzioa %8,98 inguru dela; azken urteetan erregistratutako kopurua baino txikiagoa da (2007an, %10,37), eta 10 urte lehenago jasotzen zen kopurutik hurbil. Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharrizan hori adierazten duten pertsonen kopurua 74.461 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino %10,1 gutxiago. Eskaerari dagokionez, jotzen da 50.954 etxebizitza dela lau urteko epean eta 15.547 etxebizitzakoa urtebeteko epean (epe laburrean). Etxebizitza eskuratzeko beharrizanak konpontzeko aukerak, epearen arabera, aurreko inkesta guztietan erregistratuak baino txikiagoak dira. Horrek erakusten du, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, ukitutako gazteak oso ezkorrak direla, seguruenik adierazle ekonomikoek okerrera egin dutelako oro har, 2007ko inkestan azaldu zenez.

Era berean, inkestak erakusten du EAEko familien %4,9ak ohiko etxebizitza aldatu beharra duela; hau da, 40.894 etxebizitza behar direla. Eskaerari dagokionez, aurreikuspena 19.678 etxebizitzakoa da 4 urteko epean eta 8.207 etxebizitzakoa epe motzean (urte bat). Etxebizitza eskuratzeko beharrizana dagoenean gertatzen den bezala, aldaketa egiteko beharrizana konpontzeko probabilitatea, epeen arabera, azken urteetako mailarik txikienetan dago.

Bestalde, inkestak erantzuten du etxebizitzak birgaitu beharra daukaten familien proportzioa 2008an %14,2tik %15,5era igo zela, hau da, 128.669 familia. Eskaeraren aldetik, familia hauetako %61,6ak uste du oso edo nahiko probablea dela datozen lau urteetan etxebizitza birgaitu ahal izatea, eta %26,6ak urtebeteko epean berrikuntzak egiteko asmoa du.

Lurraldez lurralde, etxebizitzaren eskaerak 2008an joera oso antzekoak dauzka. Aldaketa beharra hiru lurraldeetan murriztu da; batez ere Araba nabarmentzen da, batezbestekoaren gainetik dagoelako, 5,73 indizearekin (erkidegoaren indizea 4,93 da). Lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko beharrizanari dagokionez, egoera lurralde guztietan hobetu da. 2008ko inkestatik aurrera 8,77ko indizea kalkulatu da Bizkairako (batezbestekotik behera), Gipuzkoarako 9,21 eta Arabarako 9,25 (azken bi hauek batezbestekotik gora). Birgaikuntzan, azkenik, lurraldeen arteko tarteak ez dira garrantzitsuak. Hiru lurraldeak, aurreko urtearen aldean (denak igo dira aurreko urtetik) EAEko %15,5eko batezbestekoaren inguruan daude bai indizean bai aldakuntzan (Bizkaia batezbestekotik gora dago eta Araba eta Gipuzkoa azpitik).

[7] Memoria hau ixteko datan ez daukagu informaziorik EAEko 2009ko etxebizitza eskaerari buruz.
[8] EBEI. Inkesta hau 1994. urteaz geroztrik urtero egiten da, EAEko 3.200 familia esanguratsutan.

III.3.15. TAULA. Etxeak, etxebizitza beharraren arabera eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2008

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea
2005	90.815	49.559	111.469	13.217	6.061	15.152	49.348	26.26	60.748	28.29	17.173	35.566
2006	92.788	47.851	134.028	13.156	6.304	18.112	48.613	26.169	70.975	31.019	15.382	44.95
2007	82.891	64.393	113.396	12.424	7.559	13.957	46.299	34.255	63.181	24.167	22.584	36.264
2008	74.461	40.894	128.669	10.992	6.813	18.231	39.052	21.714	71.544	24.417	12.367	38.893

Indizeak. Datuak, ehunekotan, familia kopuruari buruz (2):

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea	Eskuratzea (1)	Aldaketa	Birgaitzea
2005	11,69	6,38	14,35	12,10	5,55	13,88	11,80	6,28	14,52	11,35	6,89	14,27
2006	11,79	6,08	17,03	11,82	5,67	16,28	11,48	6,18	16,76	12,30	6,10	17,82
2007	10,37	8,06	14,19	10,92	6,64	12,27	10,77	7,97	14,70	9,45	8,83	14,17
2008	8,98	4,93	15,52	9,25	5,73	15,34	8,77	4,88	16,07	9,21	4,66	14,66

(1) Eskuratzeko kasuetan, 18 eta 44 urte arteko pertsonek eskatzen dituzten etxebizitzak hartu ditugu kontuan.
(2) Memoria honetako aurreko edizioen datuei dagokienez, Etxebizitza Sailak 2005etik 2007ra arteko balioak birkalkulatu ditu, erabilgarri dauden familien datu berrien arabera; beraz, ez datoz bat.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharren eta eskaeraren inkesta.

III.3.15. GRAFIKOA. Etxebizitza beharra duten EAEko familien portzentajearen bilakaera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008

3.4.2. Pertsona eta familia behartsuen ezaugarriak eta motiboak

Etxebizitza aldatu behar duten familien kasuan eta lehenbiziko etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen kasuan, gizarte eta etxebizitza ezaugarriak aurreko urtekoenen oso antzekoak dira.

Lehenik eta behin, etxebizitza eskuratzeko beharrizana daukaten pertsonen erditik gora 25 eta 34 urte artean dituzte (datu honek goranzko joera leuna izan du urteetan zehar) eta lan-kontratu finkoa daukate. Gainera, emakumeen %53ak unibertsitate ikasketak dauzkate; gizonen kasuan %24,4 baino ez dira.

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familietako buruak 48,6 urte ditu batez bestez, eta batez bestez 2,81 kide dauzkan familia bateko kide da. Haiek bizi diren etxebizitzak batez bestekoa baino zaharragoak

III.3.16. TAULA. Etxebizitza aldatu (%) behar izateko arrazoien bilakaera

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Tamaina desegokia	28	38,9	42,1	40,6	35,8	38,5	29,7	30,0
Egoera txarra	7,3	7,9	13,4	2,6	3,7	6,2	7,3	16,6
Kokaleku txarra	9,4	5,5	4,9	7,0	7,0	5,1	8,4	6,3
Jabetza nahi	24,6	17	13	18,8	13,6	10,3	8,4	15,4
Igogailua (2)	10,7	13,1	15,4	17,4	20,6	16,4	20,7	14,5
Dibortzioa/banantzea	20,0	17,6	11,2	13,6	19,2	23,5	25,6	2,2
Alokairu txikiagoa nahi								5,3
Beste arrazoi bat								9,8

(1) % bertikala (beharrizana duten mota bakoitzeko pertsonen kopuru osoan).
(2) Urte batzuetan xehakatzen da, beste batean "Beste arrazoi bat" atalean sartzen da.
Iturria: EBEI 2008. EUSKO JAURLARITZA.

(39 urte batez bestez; EAEko etxebizitzen batezbestekoa 35 urtekoa da) eta txikiagoak (68 m^2) dira. Era berean, etxebizitza aldatu nahi duten familia errentarien portzentajea batezbestekoa baino askozaz ere handiagoa da (kolektibo honen %37ak alokairuko etxebizitza bat okupatzen du; EAEn %5a da).

Etxebizitza kontuen beharrizanak azaltzen dituzten arrazoietan, independizatzeko nahia da garrantzitsuena (%69,2) etxebizitza eskuratzeko beharrizana duten pertsonen kasuan (2007an %76,1). Aldiz, ezkontzeko edo bikotean bizitzeko asmoek garrantzia galtzen segitzen dute (gaur egun %27,4, eta orain hamar urte, %50).

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familien artean, etxebizitzaren tamaina desegokia oraindik ere arrazoirik aipatuena da (2008an %30 eta 2007an %29,7); bigarrenik, etxebizitzaren egoera txarra dago (%16,6).

Era berean, aurreko urteetan atzeman denez, etxebizitzaz aldatu behar duten familiek orain daukaten etxebizitzaz duten iritzia euskal familien batezbestekoaren azpitik dago. Etxebizitzari buruzko iritziaren batez besteko indizea 2008an 100etik 84,3 puntukoa zen; etxebizitza aldatu nahi zuten familien artean, berriz, 55,1 puntukoa zen. Etxebizitzaren ingurunearen kasuan, berriz, baikorragoak dira. Batez besteko gogobetetze

III.3.17. TAULA. Etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen ezaugarri sozioekonomikoak. 2008

EZAUGARRIAK	ESKURATZEA*	
	Emak.	Gizonak
Adin-taldeak		
18 - 24 urte	31,4	32,2
25 - 34 urte	57,4	52,3
35 urte edo gehiago	11,2	15,0
Ikasketa maila		
Ikasketarik ez / Lehen mailakoak	8,7	18,9
Ikasketa profesionalak	30,6	42,4
Bigarren mailako ikasketak	7,6	13,8
Unibertsitateko ikasketak	53,1	24,4
Lan egoera		
Bere kontura lanean	5,7	7,1
Kontratu finkoarekin lanean	53,4	50,5
Aldi baterako kontratuarekin lanean	33,3	31,9
Lanik gabe	7,2	6,9
Ikaslea	0,5	3,0

(*) % bertikala (beharra duten pertsona guztiena).
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

III.3.18. TAULA. Etxebizitza eskuratu edo aldatu beharra dutela adierazten duten familiek behar dituzten etxebizitzen ezaugarriak

	ALDAKETA (1)			ALDAKETA (1)		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008
IZAERA						
Berria	16,5	27,8	21,0	17,9	23,4	17,3
Erabilia	2,2	6,9	4,7	1,9	5,4	2,0
Berdin da	77,1	60,6	70,2	79,5	70,0	80,2
Ed/Ee	4,2	4,7	4,1	0,7	1,2	0,5
AZALERA ERABILGARRIA						
40 m2tik	2,0	5,6	2,9	4,3	1,9	5,6
41- 60 m^2	17,4	16,8	27,1	34,5	26,7	40,8
61 a 75 m^2	37,3	22,2	28,3	36,5	34,0	34,4
76 a 90 m^2	26,8	33,4	26,6	19,4	26,4	13,9
91 a 120 m^2	11,7	12,5	9,4	2,4	3,1	0,7
120 m^2tik	3,0	2,1	2,6	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	1,8	7,1	3,1	2,9	7,8	4,5
EDUKITZE ERREGIMENA						
Jabetza	73,4	75,2	63,5	66,2	67,8	57,6
Alokairua	12,0	11,4	16,9	7,5	8,3	9,2
Berdin da	14,6	13,3	19,6	26,3	23,9	33,2

(1) % bertikala (beharrizana duten mota bakoitzeko pertsonen kopuru osoan). Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

maila 75,5 puntukoa da (batezbesteko orokorra 85,5 puntukoa da).

Bestalde, beharrizana aitortu ondoren, etxebizitza aldatu eta eskuratu behar duten pertsonen zati handi batek beren beharrizan maila "oso handia" edo " nahiko handia" dela esan dute, Kolektibo hau, 2008an, etxebizitza eskuratu behar zuten pertsonen %79,5a zen (2007an %87,8) eta aldaketa behar zuten familien %73a (2007an %82,9). Portzentaje horiek azken urteetan hazi ziren, batez ere etxebizitza eskuratu beharra zuten pertsonen artean. Portzentaje horiek, 2008an, estreinako aldiz murriztu dira

Azkenik, etxebizitza eskuratu beharra duen kolektiboa generoaren ikuspegitik aztertzen badugu, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun txikiak ikusiko ditugu. 2008an, diru-sarreren maila oso antzekoa zen (emakumeetan 1.600 euro hilean eta gizonetan 1.605 euro hilean). Baina emakumeak ezkorragoak dira etxe-

III.3.16. GRAFIKOA. Lehenengo etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen portzentajearen banaketa, adinaren arabera. 2008



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

III.3.17. GRAFIKOA. Behar diren etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaera. m2



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. "Etxebizitzaren beharra eta eskaera EAEn".

bizitza erosteko orduan: beraientzat, gehienezko prezioa txikiagoa da eta hileroko ordainketa ere bai. Gainera, emakume gehiagok uste dute etxebizitza erosteko finantzazioa partekatuko dutela (%25,9; gizonezkoetan, %21,8). Beharrizanaren arrazoiei dagokienez, independizatzeko nahia da arrazoirik aipatuena bai gizonen artean bai emakumeen artean. Etxebizitza eskuratu beharraren kualifikazioan sakonduz gero, 2008ko inkestak erakusten du beharrizan subjektiboa handiagoa dela emakumeen artean (72,5 puntu; gizonezkoek 69,9).

Azkenik, etxebizitza eskuratu beharra duten gizonek eta emakumeek aurreikusitako edukitze-erregimena duten antzeko etxebizitzen ezaugarriak azaldu dituzte (bi kasuetan, jabetza da aukerarik gogokoena). Etxebizitzaren tamainan, gizonek batez bestez 65,2 m^{2}ko etxebizitza behar dute, eta emakumeek 62,7 m^{2}koa.

3.4.3. Behar diren etxebizitzen ezaugarriak

Etxebizitza eskuratu beharra duten gazterik gehienek 61-75 m^{2}ko etxebizitzak behar dituzte (haien %38,4) eta haietako askok etxebizitza jabetzan gura dute (%59,6).

Bestalde, etxebizitza aldatu behar duten familien artean, haietako gehienek etxebizitza handiagoak behar dituzte (batez bestez 67,9 m^{2}ko etxebizitzak dauzkate eta 71,3 m^{2}ko etxebizitzak behar dituzte) eta gainera, jabetza eskatzen dute lehenengo etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonek baino proportzio handiagoan (%63,5).

III.3.18. GRAFIKOA. Alokairuko etxebizitzak: edukitze erregimena eta eskaera aukera



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. EBEI 2008
(*) "Alokairua nahiago" eta "edozein edukitze erregimen" aukeren batura.

III.3.19. GRAFIKOA. Jabetza duten familien eta alokairuan bizi duten familien arteko ezberdintasun sozioekonomikoak



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

Era berean, kasu guzietan, nahi diren etxebizitzen batez besteko azalera modu mailakatuan murrizten ari dela nabarmendu behar dugu. Horren arrazoia da higiezin-merkatuaren baldintzei egokitu beharra dagoela eta etxebizitzaren prezioa mugatu beharra dagoela. Etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen kasuan, azken bi urteetako gehikuntza gorabehera, azalera oso modu nabarmenean murriztu da azken hamarkadan. Horrek, Eusko Jaurlaritzaren ustez, erakusten du etxetik joateko lehenengo fasea pisu txikia erostea delako ideia *barneratu dutela* gazteek. Aldaketen kasuetan, nahi den azalera gutxiago murriztu da, nahiz eta tamaina den, hain zuzen ere, aldaketa beharraren arrazoi nagusia.

Azkenik, inkestak erakusten du alokairua gero eta gutxiago onartzen dela etxebizitza eskuratzeko modu bezala lehenengo etxebizitza behar duten pertsonen artean. %51,3ak bakarrik aintzat hartzen du alokairua balizko etxebizitza edukitzeko erregimen gisa (2007an %70a ziren), baina %96,4ak dio alokairurako adjudikatutako etxebizitza babestu bat onartuko lukeela. Baina etxebizitza aldatu beharra duten pertsonen artean proportzioa %37raino jaisten da. Proportzioa egonkor mantendu da (aldaketa txikiekin) azken hamar urteetan.

III.3.20. GRAFIKOA. Etxebizitza beharra dutenek gehienez ordain dezaketen prezioa eurotan. 2008



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008

3.4.4. Finantza ahalmena eta esfortzua

(a) Eskuratzeko beharrizana

Etxebizitza Beharrizanen eta Eskaeraren Inkestaren arabera, etxebizitza librearen prezioak oraindik ere garestiegiak dira etxebizitza beharra daukaten kolektiboentzat, batez ere lehenbiziko etxebizitza eskuratu behar dutenen artean. 2008an, etxebizitza eskuratu beharra zuten pertsonek batez bestez 1.389 euro garbi irabazten zituzten hilean (2007an baino %15,4 gehiago). Horrek erakusten du kolektibo honek kaudimen handiagoa daukala.

Era berean, 2008an familia horiek bere gain har zezaketen gehienezko prezioa gehitu zen, 168.072 eurotaraino, hau da, 2007an baino %6,4 gehiago. Gehikuntza horren arrazoia da, batez ere, beharrizana duten eta 180.000 euro baino gehiagoko pisuak eros ditzaketen pertsonen proportzioa handiagoa dela. Lurraldez lurralde, deigarria da gehienez ordain daitekeen prezioa EAEko hiru hiriburuetan txikiagoa dela gure erkidegoko gainerako udalerrietan baino.

Finantzazio formulei dagokienez, hipoteka-maileguak dira gazteek etxebizitzaren erosketa finantzatzeko erabili nahi duten finantzazio iturri nagusia. Hain zuzen ere, %94ak mailegua eskatzeko asmoa zeukan (2007an %99ak). Gainera, %39,3ak aurrezkiak erabili nahi zituen eta gutxi batzuek familiaren laguntza ere espero zuten (%17,3). Nabarmendu behar dugu, halaber, gazteetako askok aurreikusita zeukatela bankuek baimentzen zieten mugaraino zorretan sartzea: %53ak espero du etxebizitzaren prezioaren %75 eta %100 artean kreditu bidez finantzatzea.

(b) Aldaketa beharra

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra zuten familiek, 2008an hilean 1.625 euro irabazten zituztenak (2007an baino %0,4 gehiago), muga onargarria 214.369 eurotan ezarri zuten (aurreko urtean baino %6,4 gutxiago).

III.3.21. GRAFIKOA. Gehienez ordain daitekeen erosketa prezioaren bilakaera eta soldatako batez besteko kostua hilero. €



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta INEren datuekin egina.
Oharra: Soldatako kostuen seriea erabat eguneratu da, INEak 2009an argitaratu dituen atzerako zenbatespenekin, urte honetako hiruhilekoaren aldaketa metodologikoaren ondorioz.

III.3.22. GRAFIKOA. EAEn etxebizitza aldatu beharra duten pertsonak: Aurreikusi diren finantzazio formulak



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

Finantzazio formulak aztertzeko unean, kontuan izan behar da familia horietako gehienek badutela etxebizitza bat jabetzan eta asmoa daukatela hura saltzetik lortzen duten dirua etxebizitza berria erosteko erabiltzeko. Zehazki, 2008ko inkestak erakusten du familien %41,1ak asmoa duela salmentaren bidez lortutako baliabideak erabiltzeko, eta %2,9ak alokatzeko asmoa duela. Gainera, %54,9ak hipoteka-mailegua eskatzeko asmoa du. Deigarria da ratio honen beherakada 2007ko inkestako erantzunen aldean (orduan %96,3 izan zen).

(c) Finantza-gaitasun txikiko segmentua

Amaitzeko, etxebizitza politika publikoen arreta jasotzen duen kolektiboaren barruan bereizketa bat egin behar da: ekonomi eta finantza aldetik mugak dituzten pertsonak, azaldu ditugun parametroen arabera, eta haiek izan behar dira etxebizitza gaietan jarduketa babestuen xede. Ondorio horietarako, bakoitzak ordain dezakeen gehienezko prezioa erabiltzen da aldagai nagusi gisa pertsonen posizio ekonomikoa diskriminatzeko. Izan ere, galdera horri erantzutean, inkestatutako pertsonek kontuan izaten dituzte beren eroste ahalmena zehazten duten ezaugarrien multzoa (diru-sarrerak, ondarea, famili kargak eta abar). Nolanahi ere, analisi hau diru-sarreren aldagaiaren arabera egindakoarekin osatzen da (aldagai hori indarrean dagoen etxebizitza araudiak erabiltzen du).

Beharrizan babesgarriak diskriminatzeko balio kritikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak erreferentziako bi puntu planteatzen ditu: 96.000 euroko muga, babes ofizialeko etxebizitzak saltzeko prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000 euroko muga etxebizitza librea eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen multzoarentzat.

Lehenengo mugari dagokionez, 2008ko inkestaren emaitzek erakusten dute etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen %3,8ak (2007an %8,2ak) 96.000 euro baino gutxiagoko etxebizitza baten erosketari aurre egin

III.3.23. GRAFIKOA. Etxebizitza erosteko gehienez ordain daitekeen prezioa (milaka eurotan). EAEn etxebizitza eskuratu eta aldatu beharra duten familiak, 2008



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2008.

III.3.19. TAULA. Arreta behar duen etxebizitza beharra eta segmentu babesgarria. 2008

	ESKURATZEA		ALDATZEA		GUZTIRA	
	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%
Beharrizanak guztira	74.461	100,0	40.894	100,0	115.355	100,0
Arretaren xedea	74.461	100,0	19.976	50,0	94.437	82,0
Segmentu babesgarria gehienezko prezioaren arabera *						
< 72.000 euro	703	0,9	-	-	703	0,7
< 96.000 euro	2.850	3,8	-	-	2.850	3,0
< 120.000 euro	10.429	14,0	1.302	6,2	11.731	12,3
< 150.000 euro	22.861	30,7	2.829	13,4	25.690	26,9

* Kopuru pilagarriak etxebizitza behar duten mota bakoitzeko pertsonen %.
Iturria: EAEko 2008ko Etxebizitza Beharrizanen eta Eskaeraren gaineko Oinarrizko Inkestako datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

ahal diotela (2.850 etxebizitza) eta haietako %14ak 120.000 baino gutxiagoko etxebizitza baten erosketari aurre egin ahal diotela. Etxebizitza aldatu beharra duten eta etxebizitza erosi ahal duten familien proportzioa, prezio segmentu berbererako, %6,2koa da (1.302 etxebizitza); aurreko urtean %7,9 izan zen. Beraz, guztira, beharrizan horien %20,2ak gizarte izaerako laguntzak jaso beharko lituzke etxebizitzarako (2007an, %13,2).

Segmentu babesgarria nabarmen igotzen da 150.000 euroren bigarren mugari erreparatzean. Horrela, etxebizitza eskuratu behar duten pertsonen %30,7ak eta aldaketa behar duten familien %13,4ak ez lukete gaitasunik etxebizitza prezio honetan erosteko. Horrenbestez, 2008ko inkestak atzemandako beharrizanen %44,1ak adierazi zuen zailtasun handiak zituela etxebizitza librea eskuratu ahal izateko (2007an, %60,3).

Nolanahi ere, ondorio hauek apur bat ezberdinak dira familien diru-sarrera gordin ponderatuen mailarekin lortzen direnetatik (ofizialki irizpide horixe erabiltzen da etxebizitzarako laguntza publikoak emateko). Horrela, etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen %9ak eta etxebizitza aldatu beharra duten familien %6ak 2008an 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak izan zituzten. Horrenbestez, gizarte laguntzen eremuan sartzen dira (2007an %9,5 eta %6,5 izan ziren). Era berean, lehenengo etxebizitza eskuratu gura zuten gazteen %61ak eta etxebizitza aldatu beharra zuten familien %54ak urte hartan 33.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera gordin ponderatuak jaso zituzten; beraz, laguntza ofizialak jaso zitzaketen eta BOE baten adjudikaziodun suerta zitezkeen (2007an %61 eta %27,2).

3.5. ETXEBIZITZA POLITIKA

3.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Etxebizitza, Herri Lan eta garraio Sailaren aurrekontu gastua joan den hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %2,8 izan zen. 1997-2001 denboraldian, sail honek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu gastu osoaren %2,2 izan zuen. 2002ko ekitalditik aurrera, aurrekontu mailari dagokionez egoera hau apur bat zu-

III.3.24. GRAFIKOA. Etxebizitza programaren gastuen eta inbertsioen bilakaera



Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

III.3.20. TAULA. Eusko jaurlaritzaren etxebizitza programaren gastu likidatuaren bilakaera eta bpgan duen pisua

	ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUA		EAEko BPGa PREZIO ARRUNTETAN		PROGRAMAREN % BPGan
	Milaka eurotan	% gehik	Milaka eurotan	% gehik	
2004	154,34	12,9	53.305	8,3	0,29
2005	157,43	2,0	57.289	7,5	0,27
2006	171,56	9,0	61.764	7,8	0,28
2007	188,88	10,1	65.928	6,7	0,29
2008	198,81	5,3	69.212	5,0	0,29
2009*	207,39	4,3	66.208	-4,3	0,31

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta EUSTATen datuekin egina.
(*) Behin-behineko datuak.

zendu zen; horrela, sail honen aurrekontua osokoaren %3 ingurukoa izatera iritsi da.

Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programan egindako gastua nabarmen hazi da azken urteetan, 2009an 207,4 milioi eurotaraino iritsiz, aurreko urtean baino %4,3 gehiago. Gastu hau EAEko BPGaren %0,31 da, behin-behineko datuen arabera. Tasa ia aldatu gabe mantendu da 2002. urteaz geroztik. Era berean, programa honen eremuan egindako inbertsioen bolumena gehitu da. 2009. urtean 163 milioi eurotaraino iritsi zen. Gainera kontuan izan behar da programa honek urteetan zehar batez ere inbertsio izaera izan duela, 1987-2008 denboraldian egindako inbertsioak gastu guztien %88,6 baitira.

2009ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikak 2006-09ko Etxebizitzako Plan Zuzentzaileak ezarritako ildo estrategikoetan jarraitu du. Proiektu horrek etxebizitza politikarako lerro estrategiko handiak definitzen ditu datozen urteetarako. Babestutako etxebizitzaren eskaintza gehitzea da planaren helburu nagusia, bai ikuspegi kuantitatibotik bai ikuspegi kualitatibotik.

III.3.21. TAULA. EAEko etxebizitzako plan zuzentzailearen maileguak eta diru-laguntzak, helburuaren arabera

Helburua	2008		2009	
	Etxebizitza kop	Zenbatekoa (milaka euro)	Etxebizitza kop	Zenbatekoa (milaka euro)
MAILEGUAK*				
Sustatzailea	3.448	273.831,54	4.053	352.597,94
Babestuen eskuratzaileak	1.822	179.835,47	1.148	119.242,09
Erabilien eskuratzaileak	87	8.278,99	86	8.721,51
Alokatzeko eskuratzea	427	17.037,82	166	8.237,98
Birgaitzea	773	6.747,69	690	5.027,76
Dotazio alojamenduak	0	0	271	16.649,55
GUZTIRA	**6.557**	**485.731,51**	**6.414**	**510.476,83**
DIRU-LAGUNTZAK**				
Eskuratzaileak	44	64,13	22	48,69
Birgaitzea	16.027	14.610,98	20.534	22.440,26
GUZTIRA	**16.071**	**14.675,11**	**20.556**	**22.488,95**

* Egindako maileguak (subrogatuak + subrogatu gabeak)
** Diru-laguntzak: Ebazpen guztiak
Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA.

III.3.22. TAULA. Etxebide planaren errealizazioak (jarduketa kop)

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Egiten hasi diren babestutako etxebizitzak	4.427	4.625	5.273	6.628	7.117	3.196
- Babes ofizialeko etxebizitzak	3.981	3.830	4.828	5.302	4.793	2.939
- Gizarte etxebizitzak	446	795	320	590	847	91
- Dotazio alojamenduak	-	-	125	361	997	0
- Udal etxebizitza tasatuak	-	-	-	1.057	480	129
- Etxebizitza tasatu autonomikoak	-	-	-	-	-	37
Lurzorua eskuratzea (etxebizitza kopurua)	3.430	3.890	3.625	5.483	3.751	2.971
Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduketak	23.914	15.471	13.905	11.798	16.027	20.534
Erabilitako etxebizitza librea eskuratzeko laguntzak	2.142	645	31	11	44	22
Etxebizitza hutsa alokatzeko laguntzak eta alokatzeko asmoz erosteko laguntzak*	718	889	2.619	689	800	1.186

(*) Bizigune Programa.
Iturria.- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. EUSKO JAURLARITZA.

III.3.25. GRAFIKOA. Etxebizitzaren plan zuzentzailea: maileguak eta diru-laguntzak lurraldeka. Milaka eurotan



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebideren estatistikak

Horretarako, etxebizitza beharrizanaren profil ezberdinak hartzen ditu kontuan, tipologia ezberdinetako erantzuna eskaintzeko, beharrizan bakoitzari egokituak. 2.800 milioi euroko aurrekontua du indarraldi osorako. 2009. urterako 88.201 etxebizitza babestu eduki nahi ditu; haien %22 alokairurako izango lirateke.

2009. urtean babestutako etxebizitzen eraikuntza nahikotxo murriztu zen: zehazki 3.196 etxebizitza hasi ziren, 2008an baino %55,1 gutxiago, batez ere BOEak bizi duen murrizketaren ondorioz (%-38,7) eta gizarte etxebizitzen desagerketaren ondorioz (%-89,3, 91 etxebizitza baino ez dira hasi).

Babestutako etxebizitzaren figura berriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuen arabera, 2009an ez zen dotazio alojamenduen eraikuntza hasi eta tasatutako 166 etxebizitza hasi ziren.

Gainera, sailak eraikitzeko lurzorua eskuratzeko egin dituen jarduketak %20,8 murriztu dira: 2.971 etxebizitza berri eraikitzeko lurzorua eskuratu da (2008an baino 780 gutxiago).

Eskaera eta eskaintza estimulatzeko mailegu eta diru-laguntza gisa ematen diren laguntzei dagokienez, 2009an guztira %6,5eko gehikuntza atzematen da, batez ere diru-laguntzetarako erabiltzen diren fondoak gehitu direlako (%53,3), maileguen kaltetan (%5,1 baino ez dira hazi). Guztira, emandako 533 milioi euroak honela banatu dira: 510,5 milioi maileguetarako (%96,8) eta 22,5 milioi diru-laguntzetarako (%4,2).

Lehenik eta behin, azken urtean emandako maileguen kopurua %2,2 murriztu da (6.557tik 6.414ra jaitsi da jarduketa edo etxebizitza terminoetan). Haien batez besteko zenbatekoa, 79.588 euro, %7,4 igo da. Sustatzaileentzako maileguak gehitu dira (%28,8 haiei bideratutako zenbatekoan), baita erabilitako etxebizitzen erosleentzako maileguak ere (%5,3). Aldiz, babestutako etxebizitza eskuratzeko maileguak murriztu dira (%-33,7). Alokatzeko etxebizitza eskuratzeko maileguak ere murriztu dira (horretarako 8,2 milioi euro erabili dira, 2008an baino %51,6 gutxiago). Bestalde, diru-laguntzak %27,9 gehitu dira espediente kopu-

ruan, eta esan dugu dagoeneko zenbateko osoa %53,2 gehitu dela.

Diru-laguntzetarako bideratutako 22,5 milioi eurotatik %99,5 etxebizitza birgaitzeko jarduketatarako dira. Birgaikuntza bakoitzerako diru-laguntza, batez bestez, 1.093 eurokoa da, 2008an baino 181 euro gehiago.

Lurraldez lurralde, askotxo gehitu da maileguetara dedikatutako fondoen bolumena Gipuzkoan, lurralde honetan horretarako bideratzen diren 155,8 milioiak %47,8ko gehikuntza baitira aurreko urtearen aldean. Halere, mailegu eta diru-laguntzetarako bideratzen diren fondoen %58a Araban emandakoak dira (2008ko portzentaje bera).

III.3.26. GRAFIKOA. Etxebizitzako kenkariek PFEZean duten zenbatekoaren bilakaera eta kenkari guztietan duten pisuaren bilakaera



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinazioko Organoa.

3.5.2. Foru aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak

III.3.27. GRAFIKOA. PFEZaren kenkarien pisuaren banaketa ehunekotan, errenta-tarteka. Eurotan. EAE, 2006



Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOA

ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2006ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinazioko Organoaren 2007ko "*Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua*" da.

Hiru foru aldundien PFEZeko likidazioetan oinarrituta, ondorioztatzen da ohiko etxebizitzaren kenkarien zenbatekoa (etxebizitzaren alokairua, inbertsioa eta errentamendua), kuantitatiboki lehenengo kenkaria izan zirenak (kenkari guztien %38,1), 2006an 450 milioi euro izan zirela guztira, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programak urte horretan burututako gastu osoaren %262 da, aurreko atalean ikusi dugunez.

Kenkari horiek pisu handiagoa daukate errenta ertainetan (13.200 eta 27.600 euro artean); haietan kenkari guztien %52 dira batez bestez. Errentaren mailak gora egin ahala, kenkarien pisuak behera egiten du: %27,1 66.000 eurorekin, eta portzentaje txikiagoak errenta maila altuagoetan. 22.800 eurorainoko errentako tarteak kenkari hauen %56a biltzen du. Lurraldez lurralde, kenkari guztien %47,1 izan zen Araban, %36 Bizkaian eta %37,5 Gipuzkoan.

Grafikoan ikusten denez, ohiko etxebizitzagatiko kenkarien zenbatekoa etengabe igo da azken urteetan; 2006koa 1997koaren %422 da. (1999 eta 2000. urteen artean gehikuntza nabarmena gertatu zen (%40,3), epigrafe honetan etxebizitza errentatzeagatiko kenkariak sartzen hasi zirelako, ordura arte kenkari familiar eta pertsonalen barruan sartzen zirenak).

4

Aisialdia, kultura eta kontsumoa

4.1. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez egiten da, aurreko urteetan bezala. Zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen "*Estatistika Kulturalen Urtekariaren*" bitartez .

Urtekari horrek Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta Tokiko Administrazioak (Tokiko Erakundeak: Udalak eta Aldundiak, Kontseiluak edo Kabildoak eta mendeko erakunde autonomoak) kulturaren esparruan egindako gastu publikoari eta erabilitako finantzazioari buruzko kapitulu bat jasotzen du. Estatuko Administrazio Orokorrari buruzko datuak ez dira Autonomia Erkidegoka xehatzen, bai, ordea, beste bien datuak. Datu hauek aurkeztu aurretik, bi ohartarazpen egitea besterik ez da falta: batetik, aintzat hartu behar da Urtekariko ohar metodologikoek argitu egiten dutela Autonomia Erkidegoek eskatutako informazio guztia eman ez dutenean egokitzat jotako zenbatespenak egin direla. Bestetik, argitalpenak berak ohartarazi egiten du ezinezkoa dela iturri ezberdinetako datuak bateratzea Autonomia Erkidegokako informazio orokorra emateko.

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: "*kulturari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena".* Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek, kultura erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abarrengatik eduki ditzaketen zerga aringarriak ere ez dira gastu gisa sartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoak 2007. urtean, kulturan, likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuak gorabehera, 107,9 milioi eurokoa izan zen, 2006. urtean baino 14,5 milioi gehiago. Horrek esan nahi du % 15,5eko hazkundea egon dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek 2007. urtean, kulturan, likidatu zuten gastu osoaren % 5,5 hartzen du (% 5,2 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,3 (% 1,2 aurreko urtean). Gainera, gure Erkidegoko BPGaren % 0,17 da, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren -% 0,9- pixka bat azpitik. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 50,8 €-ra iritsi zen 2007. urtean, 2006. urtean baino 6,6 gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (44,4 €).

Gastuaren destinoari arreta emanez gero, EAEn gastatu ziren 107,9 milioi euroetatik % 29 kultura ondasun eta zerbitzuetarako erabili zen 2007. urtean (aurreko urtean % 27,6 izan zen), % 12,7 arte plastiko, eszeniko eta musikaletarako; % 4 liburu eta ikus-entzunezkoetarako. Gainerako % 54,3ari buruzko informaziorik ez dago. Autonomia Erkidegoen multzoan, kultura ondasun eta zerbitzuetarako erabilitako portzentajea % 39,6ra iristen da (% 38,2 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikalei zuzendutako portzentajea % 24,5ekoa izan zen eta liburu eta ikus-entzunezkoei zuzendutakoa % 6koa.

Gastuaren izaera ekonomikoari helduz gero, % 78,1 gastu korronteak dira (Estatuko batez bestekoaren % 57,6aren aldean), % 16 kapital gastuak (% 40,1 Estatuaren multzoan) eta gainerako % 5,9 Aktibo eta Pasibo Finantzarioen partidan sartzen da (% 2,3 Estatuan).

Bestalde, Urtekariak EAEn "Tokiko Administrazio" gisa katalogatzen duenak likidatutako kulturako gastua

[1] Ikerketa honen esparruan sartutako kultura sektoreak hauek dira: Kultura ondasun eta zerbitzuak (monumentuak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, agiritegiak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika), diziplina artekoa (kultura sustapena eta barreiapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

III.4.1. TAULA. Administrazio autonomikoek kulturan likidatu duten gastua, autonomia erkidegoka

	Balio absolutuak (milioi €-tan)		Estatuan, kulturan, likidatu den gastuaren %a		AAEEk guztira likidatutako gastuaren %a			BPGaren %a			Batez besteko gastua biztanle bakoitzeko (€)		
	2006	2007	2005	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
GUZTIRA ESTATUAN	**1.807,5**	**1.976,4**	**100**	**100**	**1,07**	**1,21**	**1,22**	**0,16**	**0,18**	**0,19**	**34,1**	**41,3**	**44,4**
ANDALUZIA	263,2	299,7	14,6	15,2	0,86	0,97	1,0	0,17	0,19	0,2	27,6	33,8	37,9
ARAGOI	46,4	48,4	2,6	2,4	0,89	1,00	1,0	0,13	0,15	0,2	29,5	36,9	37,9
ASTURIAS	51,8	41,1	2,9	2,1	1,21	1,38	1,0	0,21	0,25	0,2	38,2	48,9	38,9
BALEARRAK	14,5	19,0	0,8	1,0	0,46	0,49	0,6	0,06	0,06	0,1	14,2	14,7	18,7
KANARIAR UHARTEAK	46	53,8	2,5	2,7	0,50	0,73	0,8	0,08	0,12	0,1	14,5	23,5	26,6
KANTABRIA	27,7	31,3	1,5	1,6	1,43	1,36	1,5	0,23	0,23	0,2	48,2	49,8	55,5
GAZTELA ETA LEON	132,8	138,7	7,3	7,0	1,35	1,42	1,4	0,24	0,25	0,3	47,1	53,6	55,8
GAZTELA-MANTXA	78,3	88,0	4,3	4,4	1,02	1,00	1,1	0,23	0,23	0,3	37,7	41,4	45,6
KATALUNIA	323,6	388,3	17,9	19,6	1,13	1,27	1,4	0,16	0,18	0,2	40,0	46,7	54,8
VALENTZIAKO E.	139,4	178,0	7,7	9,0	1,10	1,15	1,4	0,15	0,15	0,2	28,3	30,0	37,4
EXTREMADURA	61,8	66,4	3,4	3,4	1,35	1,39	1,4	0,35	0,38	0,4	49,9	57,7	61,8
GALIZIA	143,5	138,9	7,9	7,0	1,35	1,40	1,3	0,28	0,28	0,3	47,4	52,8	51,0
MADRIL	203,4	214,5	11,3	10,9	1,09	1,23	1,2	0,10	0,12	0,1	27,7	34,3	35,4
MURTZIA	82,1	71,5	4,5	3,6	0,96	2,17	1,7	0,14	0,32	0,3	25,2	61,4	52,1
NAFARROA	75	64,1	4,2	3,2	1,38	2,03	1,5	0,30	0,46	0,4	78,6	127,5	107,5
EAE	**93,4**	**108,0**	**5,2**	**5,5**	**1,12**	**1,20**	**1,3**	**0,15**	**0,15**	**0,2**	**38,8**	**44,2**	**50,8**
ERRIOXA	13,5	15,0	0,7	0,8	1,18	1,19	1,2	0,17	0,19	0,2	38,8	45,0	48,9
CEUTA	5,9	7,0	0,3	0,3	2,11	2,91	3,3	0,30	0,40	0,4	56,5	82,2	96,2
MELILLA	5,1	5,0	0,3	0,3	2,98	2,85	2,5	0,40	0,38	0,4	74,7	77,3	74,6

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturan, Estatistika Kulturalen Urtekaria.

aurkezten du; 2007. urterako 372,1 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 7,6 gehiago. EAEko Tokiko Administrazioaren barruan, 279,5 milioi euro udalei dagozkie (kopuru osoaren % 75,1) eta 100,6 milioi Foru Aldundiei[2]. Gastuaren destinoari dagokionez, % 85 kultura sustatu eta barreiatzeko erabili da eta gainerakoa Arkeologiarako eta Ondare Historiko Artistikoa Babesteko.

[2] Ikus daitekeen moduan, Administrazioaren bi mailen batura ez dator bat "Tokiko Erakundeen" gastu osoarekin. Arrazoia datu bateratuak izatea da.

III.4.2. TAULA. Tokiko administrazioek kulturan likidatu duten gastua, erakunde mota eta destinoa gorabehera. Milioi eurotan

	GASTUA ERAKUNDE MOTA GORABEHERA						GASTUA DESTINOA GORABEHERA					
	Tokiko Erakundeak		Udalak		Aldundiak, Kontseiluak eta Kabildoak		Guztira		Kulturaren Sustapena eta Barreiapena		Arkeologia eta Ondare Historiko Artistikoaren Babesa	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
GUZTIRA ESTATUAN	**3.244.712**	**3.613.668**	**2.741.539**	**3.078.075**	**578.517**	**624.612**	**3.244.712**	**3.613.668**	**2.929.277**	**3.278.928**	**315.435**	**334.741**
ANDALUZIA	443.574	500.569	397.847	453.942	59.605	60.931	443.574	500.569	409.649	465.424	33.924	35.145
ARAGOI	95.574	103.511	80.161	86.233	21.14	26.211	95.574	103.511	85.994	93.159	9.58	10.352
ASTURIAS	70.123	68.9	70.126	68.9	---	---	70.123	68.9	62.591	63.37	7.533	5.53
BALEARRAK	88.66	102.096	57.392	68.32	32.752	35.378	88.66	102.096	78.744	91.7	9.916	10.396
KANARIAR UHARTEAK	199.241	228.331	107.889	120.011	93.604	112.441	199.241	228.331	182.481	201.81	16.76	26.521
KANTABRIA	33.713	29.933	33.718	29.943	---	---	33.713	29.933	30.836	26.855	2.877	3.079
GAZTELA ETA LEON	156.147	190.631	126.246	162.72	33.82	31.618	156.147	190.631	139.11	182.941	17.037	7.69
GAZTELA-MANTXA	137.559	145.99	119.834	125.78	19.311	22.602	137.559	145.99	129.414	138.093	8.144	7.897
KATALUNIA	554.761	658.109	477.066	575.124	97.843	113.126	554.761	658.109	505.973	601.928	48.788	56.181
VALENTZIAKO E.	340.196	395.567	300.454	340.622	46.1	67.146	340.196	395.567	288.391	334.497	51.805	61.07
EXTREMADURA	51.251	58.216	39.772	42.444	13.013	17.185	51.251	58.216	41.801	54.494	9.45	3.722
GALIZIA	167.486	157.461	134.283	122.204	36.753	40.412	167.486	157.461	153.403	142.531	14.083	14.93
MADRIL	403.571	433.246	403.575	433.248	---	---	403.571	433.246	378.459	404.946	25.112	28.3
MURTZIA	80.297	105.155	80.297	105.158	---	---	80.297	105.155	75.863	98.313	4.434	6.842
NAFARROA	56.484	43.023	56.612	43.098	---	---	56.484	43.023	56.484	43.023	0	0
EAE	**345.776**	**372.06**	**235.966**	**279.447**	**124.574**	**100.56**	**345.776**	**372.06**	**291.996**	**316.199**	**53.78**	**55.861**
ERRIOXA	20.3	20.869	20.302	20.88	---	---	20.3	20.869	18.088	19.645	2.212	1.224

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturan, Estatistika Kulturalen Urtekaria.

4.2. KULTURA KONTSUMOAREN GASTUA ETXEETAN

Kultura Ministerioaren datuak gorabehera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua 2007. urtean 842,6 milioi eurokoa izan zen, 2006. urtean baino 7,5 milioi euro gutxiago. Horrek % 0,9ko murriztapena ekarri zuen. Gastu honek EAEko ondasun eta zerbitzuetan erabilitako kopuru osoaren % 3 hartzen du, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren -% 3,2- azpitik 2 hamarren. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Katalunia (% 3,7), Kanariar Uharteak (% 3,6), Madril eta Valentzia (bakoitza % 3,4rekin) dira.

III.4.3. TAULA. Etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, autonomia erkidegoka

	Balio absolutua (milioi €-tan)		Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu osoaren %a (milioi €-tan)		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		Batez bestekoa pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
GUZTIRA ESTATUAN	**15.425,5**	**16.612,5**	**3,2**	**3,2**	**972,9**	**1.020,4**	**351,9**	**372,2**
ANDALUZIA	2.214,5	2.374,8	2,9	2,9	831,6	870,3	283,2	298,6
ARAGOI	412,5	451,0	3,0	3,1	859,1	913,2	328,9	354,0
ASTURIAS	386,5	387,7	3,4	3,3	960,1	947,3	367,6	368,6
BALEARRAK	442,2	435,8	3,7	3,2	1.177,5	1.127,5	444,8	425,3
KANARIAR UHARTEAK	718,5	752,2	3,7	3,6	1.063,8	1.069,8	365,5	373,9
KANTABRIA	186,3	214,2	3,2	3,3	926,2	1.053,5	335,0	380,4
GAZTELA ETA LEON	705,7	795,9	2,8	2,9	750,6	833,2	287,8	322,9
GAZTELA-MANTXA	472,5	506,9	2,7	2,6	710,0	742,3	249,1	261,3
KATALUNIA	2.898,4	3.383,1	3,3	3,7	1.115,0	1.262,5	416,1	474,7
VALENTZIAKO E.	1.818,5	1.897,0	3,5	3,4	1.037,5	1.044,6	388,7	394,5
EXTREMADURA	240,1	249,1	2,6	2,5	641,2	652,1	225,4	233,0
GALIZIA	753,2	802,8	2,8	2,8	778,9	832,5	278,4	295,8
MADRIL	2.599,6	2.797,7	3,4	3,4	1.222,8	1.279,1	436,1	459,5
MURTZIA	361,7	358,6	2,7	2,4	802,5	759,0	268,6	258,6
NAFARROA	242,4	242,8	3,3	3,1	1.126,8	1.069,7	414,8	409,2
EAE	**850,0**	**842,6**	**3,2**	**3,0**	**1.049,8**	**1.016,4**	**404,6**	**398,6**
ERRIOXA	81,9	85,1	2,7	2,5	715,4	728,3	272,3	277,6

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturan, Estatistika Kulturalen Urtekaria.

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEk zortzigarren tokia betetzen zuen 2007. urtean rankingean 1.016,4 euroko kopuruarekin. Aurretik Madril 1.279,1 eurorekin, Katalunia 1.265,5 eurorekin, Balearrak 1.127,5 eurorekin, Kanariar Uharteak 1.069,8 eurorekin, Nafarroa 1.069,7 eurorekin, Kantabria 1.053,5 eurorekin eta Valentzia 1.044,6 eurorekin izan zituen.

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 398,6 €-ra iritsi zen 2007. urtean, 2006. urtean baino 6 € gutxiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoan igarritako kopurua baino % 7,1 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen bosgarren erkidegoa bezala, Kataluniaren (474,7 €), Madrilen (459,5 €), Balearren (452,3 €) eta Nafarroaren (409,2 €) atzetik.

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 398,6 euroetatik % 30,3

III.4.4. TAULA. Etxeek egindako gastua kultura ondasun eta zerbitzuetan, gastu taldearen arabera autonomia erkidegoka (eurotan)

	BATEZ BESTEKO GASTUA PERTSONA BAKOITZEKO										BATEZ BESTEKO GASTUA ETXEBIZITZA BAKOITZEKO		
	Guztira (eurotan)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Kultura zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipoak eta osagaiak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak		Kultura zerbitzuak (2007. urtea)		
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	Guztira	Emankizunak	Bestelako kultura zerbitzuak
GUZTIRA ESTATUAN	**351,9**	**372,2**	**75,7**	**72,1**	**103,6**	**111,4**	**132,4**	**151,4**	**40,2**	**37,2**	**305,5**	**126,9**	**178,6**
ANDALUZIA	283,2	298,6	56,9	51,9	83,6	83,9	107,0	133,3	35,7	29,5	244,6	95,6	149,0
ARAGOI	328,9	354,0	81,7	78,4	86,7	95,7	127,8	139,2	32,6	40,6	246,9	105,2	141,7
ASTURIAS	367,6	368,6	108,1	88,6	88,8	98,5	138,1	144,1	32,7	37,3	253,2	61,4	191,8
BALEARRAK	444,8	425,3	96,3	83,9	129,6	124,7	164,3	184,1	54,6	32,7	330,5	120,2	210,3
KANARIAR UHARTEAK	365,5	373,9	56,3	62,1	122,2	104,7	148,6	168,2	38,4	38,9	299,7	86,2	213,5
KANTABRIA	335,0	380,4	98,7	95,8	81,6	112,7	106,0	149,9	48,6	22,1	312,0	119,3	192,7
GAZTELA ETA LEON	287,8	322,9	69,0	71,5	76,9	87,4	104,1	128,0	37,8	36,0	225,5	94,3	131,2
GAZTELA-MANTXA	249,1	261,3	48,5	49,3	74,2	72,7	100,8	104,2	25,7	35,1	206,5	94,2	112,4
KATALUNIA	416,1	474,7	77,8	74,5	129,0	161,1	164,2	187,9	45,3	51,2	428,4	201,0	227,3
VALENTZIAKO E.	388,7	394,5	74,6	63,6	119,6	131,2	146,2	164,9	48,3	34,9	347,3	124,4	222,9
EXTREMADURA	225,4	233,0	53,9	36,0	61,0	53,3	81,0	110,6	29,5	33,1	149,1	50,7	98,4
GALIZIA	278,4	295,8	74,7	79,0	72,5	79,8	99,9	114,1	31,3	22,9	224,5	75,8	148,6
MADRIL	436,1	459,5	95,1	94,2	130,3	141,9	163,7	177,3	47,0	46,1	395,0	186,9	208,1
MURTZIA	268,6	258,6	57,4	45,9	90,5	78,6	94,0	103,6	26,8	30,5	230,7	99,4	131,3
NAFARROA	414,8	409,2	103,9	113,5	134,8	117,7	135,5	143,1	40,5	34,9	307,7	144,5	163,2
EAE	**404,6**	**398,6**	**120,0**	**121,0**	**101,9**	**93,3**	**135,5**	**151,2**	**47,1**	**33,2**	**237,9**	**102,1**	**135,8**
ERRIOXA	272,3	277,6	64,9	60,9	77,5	70,9	96,8	119,2	33,1	26,7	185,9	74,6	111,4

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturan, Estatistika Kulturalen Urtekaria.

liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2007. urtean, % 23,4 kultura zerbitzuetarako, % 37,9 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 8,3 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Gauzak horrela, Estatuaren multzoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (% 19,2) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (% 30) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipo eta osagaietan (% 40,7).

Kultura zerbitzuetan egindako gastuaren barruan sartzen da emankizunetan egindako gastua. Azken hori neurtu ahal izateko, Urtekariak etxe bakoitzeko kultura zerbitzuetan egindako batez besteko gastuari buruzko informazioa ematen du (eta ez pertsona bakoitzeko egindakoa). Kultura zerbitzuetan egindako gastu horiek 237,9 eurora iristen dira EAEn, Estatuko batez bestekoa 305,5 eurokoa den bitartean. EAEn, etxe bakoitzeko, emankizunetan egindako gastua 102,1 eurokoa da 2007. urtean. Estatu mailan, emankizunetan egindako gastua etxe bakoitzeko altuagoa da, 126,9 eurokoa hain zuzen. Etxe bakoitzeko emankizunetan gehien gastatzen duten Autonomia Erkidegoak hauek dira: Katalunia (201), Madril (186,9 euro), Nafarroa (144,5 euro), Valentzia (124,4 euro), Balearrak (120,2 euro), Kantabria (119,3 euro) eta Asturias (105,2 euro).

4.3. EAE-ko BIZTANLERIAREN OHITURAK DENBORAREN GIZARTE ERABILERAN

4.3.1. Hedabideen barneratzea

AIMCk (Hedabideen Ikerkuntzarako Elkartea) "*Hedabideen Esparru Orokorra Espainian*" izenarekin 2009. urteari buruz egindako txostenean bildu dituen datuen arabera, hedabideen barneratzeak[3] EAEn joera ezberdina ageri du hedabidea gorabehera.

Sarreraren aldetik garrantzia hurrenkera aztertuz gero, nabarmendu egiten dira telebista, irratia, egunkariak, eranskinak eta aldizkariak. Gauzak horrela, ikus dezakegu 2009. ekitaldian, telebistaren sarrera % 92,3ra iritsi zela, estatuko % 89ko portzentajearen gainetik eta ehuneko 2,9 puntu areagotuz aurreko ekitaldiaren aldean. Irratiak % 62,5 erregistratuko du, % 53,5eko estatuko batez bestekoaren gainetik eta pixka bat beherantz eginez aurreko urtearekiko. Egunkarien sarrera biztanleriaren % 56,6koa da, estatuko batez bestekoa baino portzentaje altuagoa (% 39,8) eta ehuneko 2,6 puntu gutxiago aurreko urteko ratioaren aldean. Aldizkariek % 50,2 hartzen dute, estatuko ratioaren azpitik ehuneko 1,1 puntu eta aurreko aldian baino 4,4 puntu gehiago. Eranskinek sarrera areagotu dute, % 49,2tik 50,6ra, eta estatuko batez bestekoaren, % 21,9aren oso gainetik kokatuz.

Internetek ez du hain barreiapen handirik. Aitzitik, sarrera ratioa areagotu du % 29,9tik 37,1era.

Beste urtebetez, azpimarragarria da zinemaren sarrerak behera egitea eta hura Estatuko batez bestekoaren azpitik eta guzti kokatzea. Haren sarrera % 2,4koa da (2,6koa 2008. urtean eta % 4,1ekoa 2007.ean), Estatuan % 4,3ra iritsi den bitartean.

Ondorioz, AIMCren datuen arabera, hedabide gehienen sarrera maila altuagoa izan da EAEn Estatuan baino, aldizkarien eta zinemaren kasua salbuespena izanez.

4.3.2. Biztanleriaren ohiturak denboraren gizarte erabileran: aisialdia

EUSTATen denbora aurrekontuei buruzko laugarren Inkestako azken datuek, 2008ari buruzkoak, erakutsi egiten dute 2003. urtearekin alderatuta, 16 urte eta gehiagoko EAEko biztanleek denbora gehiago erabiltzen

[3] Hedabide jakin bat eskuratu duen biztanleria portzentajea da. Hedabidea gorabehera, irakurle guztiak, ikusle guztiak, entzule guztiak edo internauta guztiak izango dira.

III.4.5. TAULA. Hedabideen barneratzea. EAE, estatua eta EB(% horizontalak)

	Biztanleria (milakoetan)			Egunkariak			Eranskinak			Aldizkariak		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
EAE	**1.855**	**1.851**	**1.869**	**56,2**	**59,2**	**56,6**	**50,2**	**49,2**	**50,6**	**41,4**	**54,6**	**50,2**
GUZTIRA ESTATUAN	**37.911**	**38.261**	**39.462**	**41,3**	**42,1**	**39,8**	**24,9**	**21,7**	**21,9**	**49,4**	**53,3**	**51,3**
ANDALUZIA	6.597	6.554	6.929	31,4	32,8	30,5	13,5	9,8	11,2	40,2	43,0	41,2
ARAGOI	1.102	1.105	1.151	48,6	46,9	44,3	33,8	31,7	31,5	53,4	56,1	53,0
ASTURIAS	951	946	957	57,0	57,0	55,7	45,3	38,6	30,1	58,8	55,7	52,5
BALEARRAK	862	880	918	48,9	48,6	46,7	27,2	24,9	24,7	60,0	58,5	52,5
KANARIAR UHARTEAK	1.681	1.707	1.796	38,6	37,1	36,5	18,5	16,9	17	57,8	56,5	52,2
KANTABRIA	495	498	508	48,1	51,3	46,8	38,0	38,9	35,2	33,5	50,6	49,1
GAZTELA ETA LEON	2.193	2.187	2.236	42,9	44,0	43,2	32,3	25,5	27,5	55,7	56,5	56,2
GAZTELA-MANTXA	1.637	1.659	1.740	27,9	26,7	27,2	15,6	14,3	11,9	50,1	51,7	46,7
KATALUNIA	6.039	6.114	6.246	45,1	45,8	43,6	24,5	20,9	22,8	54,5	58,7	58,8
VALENTZIAKO E.	4.059	4.132	4.314	33,8	34,2	31,0	19,0	16,3	15,7	49,7	54,5	50,4
EXTREMADURA	922	923	935	30,1	31,2	31,9	13,1	13,4	14	35,5	43,4	46,3
GALIZIA	2.422	2.418	2.447	47,7	49,4	48,4	28,6	26,6	30,8	45,8	50,1	51,2
MADRIL	5.186	5.253	5.407	47,0	47,9	43,7	28,0	24,4	22	55,8	58,3	56,0
MURTZIA	1.133	1.153	1.210	31,0	32,7	32,3	16,6	13,1	16,1	38,1	50,5	49,0
NAFARROA	511	515	526	60,4	61,5	57,8	54,6	52,5	46,2	46,8	61,4	52,3
ERRIOXA	266	269	274	51,4	52,3	52,9	45,2	32,8	42,8	57,8	59,1	57,3

	Irratia (*)			Telebista (*)			Zinea (**)			Internet (***)			Ikusitako publizitatea aurreko egunean		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
EAE	**61,7**	**62,8**	**62,5**	**89,1**	**89,4**	**92,3**	**4,1**	**2,6**	**2,4**	**30,0**	**29,9**	**37,1**	**66,2**	**68,5**	**74,9**
GUZTIRA ESTATUAN	**54,7**	**53,1**	**55,3**	**88,7**	**88,5**	**89,0**	**5,3**	**4,2**	**4,3**	**26,2**	**31,8**	**34,3**	**52,0**	**50,9**	**52,9**
ANDALUZIA	52,0	49,3	52,6	90,8	89,7	89,4	3,9	3,3	2,9	20,8	25,0	29,8	45,1	41,9	42,8
ARAGOI	58,8	57,9	58,8	92,1	91,7	91,3	3,5	3,4	3,8	26,6	29,1	36,2	42,1	41,0	41,2
ASTURIAS	59,5	56,9	57,5	91,6	90,5	89,4	4,6	4,0	2,6	27,2	29,1	34,5	41,7	37,9	66,2
BALEARRAK	55,6	50,1	53,3	84,8	83,7	86,3	3,8	5,7	6,8	28,7	32,4	31,4	44,2	44,0	45,4
KANARIAR UHARTEAK	51,2	51,0	54,0	86,4	87,5	87,8	5,4	4,1	4,3	28,0	32,1	38,6	60,2	57,4	55,8
KANTABRIA	56,5	59,0	58,4	85,0	85,6	90,8	4,9	1,5	0,0	25,8	22,4	30,5	79,2	76,2	66,6
GAZTELA ETA LEON	58,6	57,1	57,1	90,6	90,0	91,1	5,2	4,8	3,9	23,5	26,4	30,5	48,3	47,3	43,2
GAZTELA-MANTXA	50,1	49,9	51,6	89,6	88,8	89,1	5,2	4,1	3,9	22,2	21,7	27,9	47,0	36,8	38,0
KATALUNIA	52,3	52,5	56,1	86,4	87,1	87,0	6,3	5,4	5,7	31,3	36,1	40,0	49,5	49,5	52,2
VALENTZIAKO E.	51,1	50,7	52,0	89,7	89,8	89,8	5,2	4,1	5,3	23,4	27,8	32,6	58,9	61,0	62,2
EXTREMADURA	46,8	47,5	52,2	94,9	93,3	92,2	3,5	2,6	2,9	17,3	21,4	26,4	26,3	31,2	33,3
GALIZIA	54,8	53,3	54,4	86,8	86,0	87,1	4,1	2,1	5,2	19,9	24,8	27,8	37,9	41,9	41,6
MADRIL	61,3	56,5	59,0	86,3	86,7	88,1	8,7	5,5	4,4	35,8	39,3	42,4	67,3	62,0	64,0
MURTZIA	52,1	47,4	50,4	89,8	89,6	89,7	3,3	3,0	5,1	16,5	23,5	24,5	64,9	64,6	68,1
NAFARROA	56,1	63,8	61,3	91,7	90,2	90,4	6,1	4,4	5,1	28,9	27,9	35,3	33,8	52,6	55,3
ERRIOXA	60,8	53.7	65,4	89,6	87,2	85,4	5,0	8,1	7,9	25,4	30,2	40,5	38,5	43,4	58,7

(*) Egunean pilatutako entzuleak, (**) Astean behin gutxienez, (***) Azken 30 egunetako erabilera.
Biztanleria milaka pertsonetan. Iturria: AIMC, Hedabideen Esparru Orokorra, 2008, 2009 eta 2010.

III.4.6. TAULA. Batez besteko gizarte denbora eguneko, jarduerako, lurraldeko, aldiko eta sexuko

	1998			2003			2008		
	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea
Behar fisiologikoak	11,34	11,3	11,37	11,5	11,51	11,48	11,41	11,43	11,38
Lana eta prestakuntza	3,21	4,16	2,26	3,23	4,14	2,35	3,23	3,6	2,49
Etxeko lanak	2,25	1,1	3,37	2,23	1,1	3,31	2,24	1,19	3,25
Zaintzak etxeko pertsonei	0,2	0,14	0,26	0,21	0,12	0,29	0,28	0,19	0,36
Gizarte bizitza	1,03	1,08	0,58	0,58	1,04	0,52	0,38	0,41	0,36
Aisialdi aktiboa eta kirolak	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Aisialdi pasiboa	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
Joan-etorriak	1,1	1,15	1,05	1,08	1,14	1,03	1,06	1,09	1,03

Unitatea: Biztanleriak jarduera baterako erabiltzen duen batez besteko denbora >= 16 (ordu eta minutu eguneko)
Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta.

III.4.7. TAULA. Batez besteko gizarte denbora, aisialdiko jarduera motak eta sexua

	1998			2003			2008		
	Guztira	Hombre	Emakumea	Guztira	Hombre	Emakumea	Guztira	Hombre	Emakumea
Kirol praktikak	0,09	0,13	0,06	0,1	0,13	0,07	0,12	0,18	0,07
Paseoak, txangoak	1,03	1,1	0,57	1	1,04	0,57	0,55	1,02	0,49
Ordenagailuaren eta informatikako beste tresna batzuen erabilera.	0	0	0	0,03	0,04	0,02	0,03	0,05	0,02
Interneten erabilera	0	0	0	0,04	0,06	0,02	0,1	0,14	0,07
Aisialdi aktiboa eta kirolak guztira	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Irakurketa, telebista eta irratia	2,26	2,31	2,21	2,05	2,11	2	2,38	2,48	2,28
Jarduerarik gabe	0,09	0,08	0,09	0,19	0,16	0,21	0,07	0,06	0,08
Emankizunak	0,05	0,05	0,04	0,05	0,06	0,05	0,04	0,04	0,03
Jokoak	0,14	0,18	0,1	0,08	0,1	0,05	0,07	0,09	0,06
Zaletasun artistikoak eta bestelakoak	0	0	0	0,02	0,03	0,01	0,02	0,02	0,02
Aisialdi pasiboa guztira	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
AISIALDIA GUZTIRA	**4,06**	—	—	**3,56**	—	—	**4,19**	—	—

Unitatea: Biztanleriak jarduera baterako erabiltzen duen batez besteko denbora >= 16 (ordu eta minutu eguneko)
Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta.

III.4.1. GRAFIKOA. Batez besteko denbora irakurketa, irratia eta telebista gorabehera



Iturria: Eustat

dutela aisialdirako eta beste pertsona batzuen zaintzarako eta gutxiago gizarte bizitzarako eta behar fisiologikoak eta zaintza pertsonalak betetzeko. Lanari edota prestakuntzari, etxeko lanei eta joan-etorriei eskainitako denbora antzekoa da.

Aipatutako inkestan aintzat hartu diren jardueren artean aisialdia sartzen da, bai aisialdi aktiboa, bai pasiboa. Aisialdi aktiboaren barruan sartzen dira kirol praktikak, paseoak eta txangoak, ordenagailuaren eta beste ekipamendu informatiko batzuen erabilera nahiz Interneten erabilera. Aisialdi pasibo gisa planteatzen dira barreiapen eta informazio bideak (irakurketa, telebista ikustea eta irratia entzutea), ezer ez egitea, emankizunetara joatea, jolasak eta arte zaletasunak.

Datuek agerian uzten dutenaren arabera, 16 urte edo gehiagoko EAEko biztanleriak 23 minutu gehiago eskaini zizkion 2008. urtean 2003. urtean eskainitakoaren aldean (4 ordu eta 19 minutu, 3 ordu eta 56 minuturen aldean). Gainera, nahiago dute aisialdi pasiboa, aktiboa baino: 2008. urterako eskura dauden azken datuek erakutsi egiten dute lehenengoari, egunero, 2 ordu eta 58 minutu eskaintzen zaizkiola batez beste, aisialdi aktiboak hartzen dituen ordubete eta hogeita bat minutuen aldean.

Aisialdi mota ezberdinak aztertuz gero, pasiboak eta aktiboak, alegia, azpimarragarri suertatzen dira berriro ere, eta gainerakoen gainetik, hauek: irakurketa, telebista ikustea eta irratia entzutea (barreiapen eta informazio bi-

III.4.8. TAULA. Batez besteko denbora aisialdia eta dedikazio eguna gorabehera, 2008. urtea

	Lanegunak	Ostiralak	Larunbatak	Igandeak
Aisialdi aktiboa eta kirolak				
Kirol praktikak	0,13	0,11	0,13	0,11
Paseoak, txangoak	0,45	0,52	1,15	1,21
Ordenagailuaren eta informatikako beste tresna batzuen erabilera.	0,03	0,03	0,04	0,04
Interneten erabilera	0,1	0,09	0,1	0,12
Aisialdi pasiboa				
Barreiapen eta informazio bideak	2,25	2,28	2,53	3,24
Jarduerarik gabe	0,07	0,06	0,07	0,08
Emankizunak	0,02	0,03	0,09	0,08
Jokoak	0,07	0,08	0,09	0,09
Zaletasun artistikoak eta bestelakoak	0,02	0,02	0,02	0,03

Iturria: Eustat

III.4.9. TAULA. Batez besteko denbora jarduera, eguna, adina eta aldia gorabehera

	1998	2003	2008
Aisialdi aktiboa eta kirolak			
<= 34	1,01	1,03	1,23
35-59	1	1,1	1,05
>= 60	1,46	1,44	1,44
Aisialdi pasiboa			
<= 34	2,26	2,03	2,13
35-59	2,29	2,2	2,3
>= 60	4,09	3,52	4,26

Iturria: Eustat

deak). Mota pasiboko aisialdi horri 2 ordu eta 38 minutu eskaintzen zaizkio batez beste egunero, hain zuzen ere 2003. urtean eskainitako denbora baino gehiago (2 ordu eta 5 minutu). Aisialdi mota honen atzetik, garrantzian bigarrena, berriro ere, paseatzea eta txangoak egitea dago. Mota aktiboko horrelako jarduerei 55 minutu ematen zaizkio batez beste, denboran beherakada iraunkorra erakutsiz. Hirugarrenik, kirol praktikak eta Interneten erabilera egongo lirateke. Bestalde, "ezer ez egiteak" (jarduerarik gabe) posizioa galtzen du berriro ere.

Sexuaren arabera bereiziz, gizonek denbora gehiago erabiltzen dute berriro ere aisialdirako emakumeek baino kasu guztietan. Salbuespena "jarduerarik ez egitea" eta "arte zaletasunak" dira.

Gehien gozatzen den aisialdi pasiboa eratzen duten elementuen gainean *–irakurketa, irratia eta telebista–* azterketa xehatua egitetik, hain zuzen ere liburuak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzea, telebista ikustea,

bideoa ikustea, irratia entzutea, diskoak edo kaseteak entzutea, ondorioztatu egiten da horietatik gehienak (telebista ikustea salbu) pisua galtzen ari direla multzoan, eta oraindik adierazgarria da euskal biztanleriaren artean telebistak duen garrantzia, hari egunero 2 ordu eta 11 minutuko denbora eskaintzen zaiolako batez beste, 2003. urtean baino 33 minutu gehiago.

Aisialdia praktikatzeko asteko egun ohikoenei dagokienez, aldeak daude mota gorabehera. Batetik, asteburuko aisialdi gisa katalogatu daitekeen aisialdia dugu, hain zuzen ere paseoak eta txangoak, irakurketa, telebista eta irratia, eta, gutxiago, emankizunetara bertaratzea; lehenengo bi kasuetan (paseoak eta txangoak eta irakurketa, telebista eta irratia), azpimarratzekoak dira igandeak horiek praktikatzeko nahiago den egun gisa. Bestalde, gehien praktikatzen den aisialdia dago; horrentzat ia ez dago alde adierazgarririk asteko eguna gorabehera. Bigarren talde honetan egongo litzateke kirol praktikak egitea, ordenagailua eta Internet erabiltzea, zaletasun artistikoak eta bestelakoak eta inolako jarduerarik ez egitea.

Azkenik, eta aisialdiaren eta adinaren artean dagoen erlazioari dagokionez, aipatzekoa da espero daitekeen moduan biztanleria helduena dela, alegia, gutxienez 60 urte dutenak aisialdiari denbora gehien eskaintzen diotenak, ordubete eta 44 minutu aisialdi aktiboan eta 4 ordu eta 26 minutu aisialdi pasiboan. 2003 eta 2008 artean areagotu egin da azken horri eskainitako denbora.

4.4. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-n

4.4.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara

EAE derrigorrez bisitatu behar den tokietako bat bihurtzen ari da nazioarteko testuinguruan, hain zuzen ere bultzatzen ari den kultura ekipamenduen kopuru eta aniztasunagatik. Ekipamendu horiek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen eskaintza anitzaren bitartez gauzatzen dira, museo, liburutegi eta artxibo aniztasunaren eta aberastasunaren bitartez bezalaxe.

Adierazle gisa museo jarduera hartuz eta, zehazki, Lurralde Historikoetako museo nagusietako bisitari kopurua, ikus daiteke Guggenheim Bilbao Museoa dela oraindik erakargarritasun puntu nagusia, 2008. urtean edukitako 951.368 bisitariekin (urte hori da informazioa eskura duen azken urtea). Hala eta guztiz ere, horrek beherapena suposatzen du aurreko urtean edukitako kopuruen aldean, % 5,1ekoa % 26,8koa seriearen hasieratik.

Bigarren talde bat, beste urtebetez, hurrengoek eratzen dute: Donostiako Aquariumak, 277.285 bisitarirekin, apurketa suposatuz 2003. urtean, bisitari kopuruan, hasitako beheranzko joeran, izan ere, 2007 eta 2008 artean, kopuru hori % 2,7 areagotu zen; Bilboko Arte Ederren Museoak, 223.197 bisitarirekin (iaz baino % 35,4 gehiago), eta Zientziaren Kutxa Espazioak, beherakada erregistratuz berriro bisitari kopuruan, 117.750tik 112.734ra (% -4,3). Azken hori beherakada da 2001. urtearen aldean, inaugurazioaren urtea, % 45,1ekoa hain zuzen.

Hirugarrenik Artiuma, Santa Maria Katedralaren Fundazioa, Chillida Leku Museoa eta Bilboko Euskal Museoa egongo lirateke; kultura ekipamendu horiek 104.197, 100.967, 61.854 eta 60.909 bisitari erakartzea lortu dute hurrenez hurren 2008. urtean. Chillida Leku Museoa salbuespen, guztiek ikusi dute bistari kopurua hazten 2007aren eta 2008aren artean.

4.4.2. Biltzar eta azoken jarduera

(a) Biltzarren jarduera

EAEn, 2007 eta 2008. urteen artean, egondako biltzarren jarduerak, Basque Tour Eusko Jaurlaritzaren Turismoaren Euskal Agentziak emandako datuen arabera, bilakaera ezberdina eduki du Lurralde Historikoa gorabehera. Guztira egindako bilera kopurua % 558,5 areagotu da Araban eta % 2,6 eta % 28,2 murriztu Bizkaian eta Gipuzkoan hurrenez hurren. Gauzak horrela, 349 bilera egin zen Araban (2007. urtean baino 296 gehiago), 981 Bizkaian (aurreko ekitaldian baino 26 gutxiago) eta 84 bilera Gipuzkoan (aurreko urtean baino 33 gutxiago).

III.4.10. TAULA. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara

	1998	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Hazk. %a, 07/08	Hazk. %a, 1998/08
ARABA											
Arabako Arte Ederren Museoa	49.415	43.667	54.621	36.260	30.177	34.473	32.568	14.513	13.443	-7,4	-72,8
Arabako Arkeologia Museoa	22.730	27.663	24.375	27.573	24.672	22.875	23.843	15.961	8.791	-44,9	-61,3
Artium**	-	-	101.838	75.800	89.791	92.267	97.106	99.500	104.197	4,7	16,0
Eliz Museoa	-	-	-	-	26.004	32.186	37.141	37.034	32.951	-11,0	-11,3
Karten Fournier Museoa	36.084	38.913	42.599	32.512	31.315	32.866	39.794	20.585	-	-100,0	-100,0
Santa Maria Katedralaren Fundazioa	-	38.518	56.773	66.422	74.871	87.671	98.790	103.258	100.967	-2,2	162,1
BIZKAIA											
Arrantzalearen Museoa	29.253	22.067	22.408	26.309	28.852	28.878	21.896	15.105	13.610	-9,9	-53,5
Bilboko Arte Ederren Museoa	n.d.	119.229	150.065	135.027	155.643	142.067	144.085	164.903	223.197	35,4	87,2
Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa ***	-	-	-	35.296	49.876	115.235	70.124	73.455	48.242	-34,3	-58,1
El Pobaleko Burdinola****	-	-	-	-	7.322	13.700	13.238	13.921	15.060	8,2	13,8
Euskal Herria Museoa	29.185	16.079	18.420	14.874	18.100	18.414	12.269	10.057	9.612	-4,4	-67,1
Bilboko Euskal Museoa	51.445	43.572	40.292	42.307	44.129	41.756	54.280	37.996	60.909	60,3	18,4
Gernikako Bakearen Museoa.	-	-	-	14.715	17.187	19.410	25.560	35.111	24.755	-29,5	27,5
Guggenheim Museoa	1.300.274	930	851.628	874.807	909.145	965.082	1.008.774	1.002.963	951.368	-5,1	-26,8
Santimamiñe koba	-	-	-	-	-	-	-	-	8.816	-	-
GIPUZKOA											
Agorregiko burdinola eta errotak	15.000	15.275	15.000	15.000	15.621	14.626	14.510	12.447	13.788	10,8	-8,1
Chillida Leku Museoa	n.d.	95.792	84.791	89.669	91.567	83.603	83.718	78.532	61.854	-21,2	-27,1
Donostiako Aquariuma	391.208	330.061	309.661	336.453	330.165	301.828	300.256	270.098	277.285	2,7	-29,1
Igartubeti baserria	n.d	5.284	8.910	7.148	9.428	7.197	6.148	5.765	7.176	24,5	0,4
Burdin Harana	n.d.	19.226	17.734	14.884	16.019	18.450	20.522	23.979	20.718	-13,6	16,8
San Telmo Museoa	n.d.	49.180	62.506	47.549	56.439	49.413	49.179	12.717	94.391 ******	642,2	51,0
Burdinbidearen Euskal Museoa	24.387	37.724	39.210	41.789	41.639	40.017	40.857	14.813	36.175	144,2	-7,7
Itsas Museoa	27.386	15.686	14.418	16.407	14.113	12.447	10.516	9.365	13.838	47,8	-4,0
Zientziaren Kutxa Espazioa	n.d	205.160	123.136	126.64	146.965	135.158	127.344	117.75	112.734	-4,3	-45,1
Zumalakarregi Museoa	7.292	12.707	8.232	12.834	9.373	5.399	9.117	17.298	5.482	-68,3	-24,8

* Museoa itxita egon zen 2008. urteko abuztutik eta 2009. urtean zehar, eta Karten Fournier Museoarekin batera Bibat Museoa izeneko museo bakarra eratuko du; ** ARTIUMa 2002an inauguratu zuten, ***2008. urtean itxita ****2003. urtean inauguratua, *****2004. urtean inauguratua, ******Obrengatik itxita; datuak Historiaren Etxeari buruzkoak dira, San Telmoren mendekoa hura.
Iturria: Basque Tour, Turismoaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza.

III.4.11. TAULA. Biltzarren jardueraren bilakaera (2006-2008)

	ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA*				ESTATUA 2007
	2006	2007	2008	Aldak. %, 07/08	2006	2007	2008	Aldak. %, 07/08	2006	2007	2008	Aldak. %, 07/08	
GUZTIRA EGINDAKO BILERAK	**60**	**53**	**349**	**558,5**	**978**	**1007**	**981**	**-2,6**	**84**	**117**	**84**	**-28,2**	**18.790**
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	16	25	47	88,0	759	768	712	-7,3	40	48	22	-54,2	9.625
Biltzarrak	37	23	80	247,8	78	94	93	-1,1	27	56	51	-8,9	2.733
Konbentzioak	3	2	1	-50,0	141	145	176	21,4	17	13	11	-15,4	6.097
Bestelakoak	4	3	222	7300,0	-	-	0		-	-	0		335
GUZTIRA BERTARATU DIREN ORDEZKARIAK	**12.560**	**8.745**	**51.762**	**491,9**	**184.589**	**185.035**	**192.110**	**3,8**	**20.585**	**27.169**	**20.143**	**-25,9**	**3.201.171**
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	2.560	3.695	5.133	38,9	113.618	117.922	106.921	-9,3	4.148	8.064	3.487	-56,8	1.079.054
Biltzarrak	9.600	4.570	21.542	371,4	24.259	26.856	42.873	59,6	14.675	16.958	13.395	-21,0	1.162.685
Konbentzioak	400	480	55	-88,5	46.712	40.257	42.316	5,1	1.762	2.147	3.261	51,9	934.018
Bestelakoak	-	-	25.087	-	-	-	-		-	-	0		25.414
ORDEZKARI RATIOA GERTAKIZUNA GORABEHERA	**209**	**166**	**148**	**-10,8**	**189**	**184**	**196**	**6,7**	**245**	**232**	**240**	**3,4**	**170**
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak		148	109	-26,4	150	154	150	-2,3	104	168	159	-5,7	112
Biltzarrak	-	199	269	35,2	311	286	461	61,4	544	303	263	-13,3	425
Konbentzioak	-	240	55	-77,1	331	278	240	-13,6	104	165	296	79,5	153
...Bestelakoak	-	-	113	-	-	-	-		-	-	--	-	76
BILEREN JARDUERA (%)													
Mediku-osasunekoa	-	-	-	-	18	20	19,8	-	16	28	26,2	-	22,3
Zientziaren sektorea	-	-	-	-	0	6	0	-	6	10	8,3	-	7,8
Kulturaren sektorea	-	-	-	-	11	12	17	-	5	7	7,2	-	8,5
Ekonomiaren eta merkataritzaren sektorea	-	-	-	-	20	17	19,4	-	42	30	22,6	-	29,6
Sektore publikoa	-	-	-	-	12	8	9,7	-	6	5	4,8	-	11,3
Sektore teknologikoa	-	-	-	-	27	28	21,6	-	8	10	15,5	-	4,9
Unibertsitatea	-	-	-	-	-	6	5,3	-	-	8	11,9	-	6,9
Bestelakoak	-	-	-	-	-	3	7,2	-	-	2	3,6	-	8,7

Emankizun tipologia gorabehera bildu diren datu gipuzkoarrak Spain Convention Bureauk ezarritako irizpideak zorrozki jarraituz bildu dira.
Iturria: Basque Tour, Turismoaren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritza.

Gipuzkoan, bertaratu zirenen kopuru osoak beherantz egin zuen aurreko urteko kopuruaren aldean, 27.169tik 20.143ra (% -25,9). Bilera gehienak bat datoz biltzarren kategoriarekin, hain zuzen ere guztiaren % 60,7 hartzen dutenak eta ordezkarien % 66,5 pilatzen dutenak. Jardunaldien, mintegien eta sinposiumen kategoria urriagoa izan da kopuruaren aldetik biltzarrena baino, 22 izan dira 51ren aldean, eta gertakizun bakoitzera bertaratutako ordezkari ratioa murritzagoa da: 159, Biltzarren 263en aldean. Jarduerari dagokionez, berriro ere nagusi dira mediku eta osasun izaerako bilerak (% 26,2) eta izaera ekonomikoa eta merkataritzakoa dutenak (guztien % 22,6). Aitzitik, sektore teknologikokoek eta unibertsitatekoek gorantz egiten dute.

Bizkaian egindakoen artetik, kokaleku nabarmena mantentzen duen lurraldea hain zuzen, bilera gehienak (% 72,6) jardunaldietakoak, mintegietakoak eta sinposiumetakoak dira (712). Guztira bertaratu den ordezkari kopurua 192.110era iritsi da; horrek % 3,8ko hazkundea dakar 2007. urteko kopuruaren aldean eta gertakizun bakoitzeko ordezkari ratioa 196koa da. Horrek esan nahi du ratio horretan hazkundea egongo dela (12 ordezkari gertakizun bakoitzeko, aurreko urtean baino gehiago). Bileretako jarduerari dagokionez, azpimarragarriak dira jarduera teknologikoak (guztien % 21,6, nahiz eta beherakada jasan duen kopuru osoan duen pisuan 2007. urtearen aldean), jarduera medikoak eta osasunekoak (% 19,8) eta jarduera ekonomikoak eta merkataritzakoak (% 19,4).

Azkenik, Araban 349 bilera garatu zen guztira, aurreko urtean erregistratutako 53en aldean, eta, ondorioz, hazkunde garrantzitsua erregistratu da. Horietatik 47 jardunaldiak, mintegiak edo sinposiumak izan dira, aurreko urteko 25en aldean, eta 80 biltzarrak izan dira (aurreko urtean baino 57 gehiago). Bertaratu den ordezkarien kopuru osoa 51.762 pertsonatan kokatu da (% 492 areagotuz 2007. urtearen aldean 8.745 ordezkarirekin), eta emankizun bakoitzeko ordezkarien batez bestekoa 148koa izan da. Horrek esan nahi du emankizun bakoitzeko 18 ordezkariren beherakada egon dela aurreko urteko kopuruekin alderatuz gero.

(b) Azoken jarduera

Merkataritzako azokak eta erakusketak azken urteotan indar gehien edukitzen ari den sustapen elementuetako bat da. Ekonomia orokorreko ikuspuntu batetik, jarduera ekonomikoaren sortzailetzat jo dira, izan ere, produktuak barreiatu eta saltzea erraztu dute, garapen teknikoa suspertu eta nabarmendu dute eta irudi nazionala eta nazioartekoa hobetzen duten lankidetzako sinboloak ere badira. Enpresen ikuspegitik aukera paregabea dira, izan ere, azoken saio batean erakusmahaiek eta bisitariek zuzenean eta bitartekaririk gabe irudikatzen dute edozein merkataritza sektoreko eskaintza eta eskaria.

Azokek enpresei emandako zerbitzuak, erakusteko gaitasunagatik eta kontratazioa sustatzeko, azoketan eta horrelako saioen garapenean inbertsio handiak eginez betetzen ari den eskari garrantzitsua sortzen ari dira eta horiek jarduera ekonomikoa sustatu eta bultzatzeko politikaren zati bihurtzen ari dira. Ondorioz, ia ez dago hiriburu garrantzitsurik erakusmahaien erakargarritasun aukerengatik eta hirigintzaren eta teknologiaren aldetik gorentasuna emateagatik nazioartean erreferentziako puntu bihurtu daitekeen azoka esparrurik gabe. Tradizio gehienekoak, adibidez Hannoverrekoa, Birminghamekoa, Milangoa, Madrilgoa, Bartzelonakoa eta Bilbokoa, berrikuntza, zabalkunde edo hobekuntza prozesuetan murgilduta egon dira edota daude gaur egun instalazioei dagokien horretan.

Azoka Espainiarren Elkarteak (AFE) emandako datuen arabera, BEC - Bilbao Exhibition Centrek (2004an Bilboko Nazioarteko Azokaren txanda hartu zuen proiektua) zazpigarren postua betetzen zuen 2008. urtean Azoka Esparruen hurrenkeran, bertan garatutako saio kopurua gorabehera, 16 (urtebete lehenago). Aurretik Madrilgo Azoka (71), Bartzelonakoa (40) eta Valentziakoa (29), Zaragozakoa eta Elxekoa (biak 26rekin) eta Malagakoa (17rekin) izan zituen eta Balear Uharteak parean eduki zituen.[4]

[4] 2004ko ediziotik, ohiko sektoreetara ezohiko indarra duten merkatu batzuk erantsi dira, azokan berezko protagonismoa erreklamatu dutenak. Gauzak horrela, aldi berean Bricoforma ospatu zen, Brikolajearen Nazioarteko Azoka, alegia.

III.4.12. TAULA.

Azoka eremua	Egindako azoka kop.					Azoka eremua	Egindako azoka kop.				
	2005	2006	2007	2008	07-08 aldea		2005	2006	2007	2008	07-08 aldea
ExpoCoruña	-	-	-	9	-	Madrilgo Azoka	71	84	80	71	-9
Almeriako Erakusketa eta Biltzar Jauregia	2	4	2	3	1	Casa de Campo Azoka Eremua	9	5	-	-	0
Albaceteko Azoka erakundea	9	7	6	5	-1	Malagako Azoka eta Biltzar Jauregia	16	15	15	17	2
Armillako Erakusketa Azoka (Granada)	8	10	7	7	0	Fira de Mollerusa (Lleida)	5	4	5	5	0
Badajozeko Azoka Erakundea	-	-	-	6	-	Ourenseko Azoka eta Erakusketa Fundazioa	10	10	11	9	-2
Barbastroko Azoka Erakundea (Huesca)	5	8	7	4	-3	Fires y Congressos de Balears	22	11	13	16	3
Fira de Barcelona	54	49	56	40	-16	Fira de Reus (Tarragona)	-	8	13	10	-3
Reed Exhibition Iberia (Bartzelona)	8	7	9	8	-1	Salamancako Azoka Erakundea	-	-	-	3	-
BILBAO EXHIBITON CENTRE	17	20	30	16	-14	Santanderreko Erakusketa Jauregia	-	-	8	8	0
Cadizeko Azoka Erakundea	-	-	-	6	-	Tenerifeko Azoka Erakundea	9	8	10	9	-1
Ciudad Real	-	6	-	6	-	Sevillako Biltzar eta Erakusketa Jauregia	10	16	14	13	-1
Fira de Cornellá (Barcelona)	6	6	7	5	-2	Galiziako Nazioarteko Azoka (Pontevedra)	6	5	6	1	-5
Kordobako Azoka Erakundea	-	3	-	-	-	Talavera (Toledo)	-	-	6	5	-1
Alacanteko Azoka Erakundea (Elx)	24	24	27	26	-1	Teruel	-	-	4	6	2
Esapide eta erakusketen partzuergoa (Ferrol)	5	5	4	6	2	Torre Pacheco (Murtzia)	-	-	8	9	1
Asturiaseko Erakusketen Nazioarteko Azoka	5	4	5	6	1	Valentziako Azoka	42	31	39	29	-10
Fira de Girona	10	9	9	10	1	Gaztela eta Leongo Azoka Erakundea. Valladolideko Azoka	10	14	12	11	-1
Jaen Azokak	6	8	12	11	-1	Vigoko Azoka Erakundea	8	9	6	3	-3
Kanarietako Azoka Erakundea	5	5	5	5	0	Vilagarcia de Arousa			7	1	-6
Lugoko Azoka eta Erakusketa Fundazioa	-	2	4	3	-1	Zaragozako Azoka	16	11	30	26	-4
Fira de Lleida	11	12	14	12	-2						

Iturria: AFE eta guk landutakoa.

BECek azoken jardueraren bilakaerari buruz emandako datuek agerian uzten dute zuzeneko erakusketarietan, azalera garbian eta bisitari profesionalen kopuruan jazotzen aritu den bi urteko aldaketa, Makinaerreminta eta Ferroforma urte bikoitietan egitearen ondorio zuzena .

III.4.2. GRAFIKOA. BEC. Bisitarien bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC

Aitzitik, ahalik eta parte-hartzaile profesional gehien erakartzeko xedez, Ferroformak data aldatuko du, nazioarteko egutegian toki pribilegiatu bat betetze aldera. Gauzak horrela, Ferroformaren 17. edizioa ez da 2006. urtean egingo eta, aldiz, 2007. urtera eramango da.

Entitatearen beraren datuak gorabehera, 2009. urtean 21 saio egin zen BECen eta gertakizun-kobentzio multzoak 31.670 bisitari profesional bildu zituen guztira (aurreko urtean baino % 69 gutxiago). Jende orokorreko 1.227.887 pertsona ere bertaratu zen.

III.4.13. TAULA Bilbao Exhibition Centre, oinarrizko adierazleak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Sariketa kop.	22	16	19	20	24	17	21
Zuzeneko erakusketariak	2.001	3.323	1.978	2.551	3.555	2.354	2.253
Azalera garbia	81.392	196.811	120.865	176.72	152.699	158.436	106.141
Bisitari profesionalak	49.165	105.086	37.143	89.206	84.877	102.202	31.67
Jendea, orokorrean	685.471	899.487	891.313	1.118.166	1.127.188*	1.006.974	1.227.887*

*Jendea, orokorrean: Arena pabiloian + BEC Konbentzioetan egindako emankizunetara bertaratzen direnak biltzen ditu. Iturria: BEC

III.4.14. TAULA. BEC-en, 2008. Urtean, garatutako emankizun nagusiak

	SAIOAK	BEC KONBENTZIOAK	BIZKAIA ARENA
Urtarrila	- GHP	- ZANNIER SHOWRROM - GIZARTE EKINTZAKO KANPAINA	- ---
Otsaila	- SORMEN JOERAK - EXPOLAN	- BFAren AZTERKETAK - OSAKIDETZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK - PP ALDERDIAREN HITZALDIA	- IURBENTIA BILBAO BASKET/REAL MADRID
Martxoa	- FERROFORMA - BRICOFORMA	- AFONVI ASANBLADA - ESS WORKSHOP BILBO - DISEINU GRAFIKOAREN FOROA - BFAren LEP - IEAOESen 16. BATZORDEA	- DISNEY ON ICE - NEMOREN BILA - IURBENTIA BILBAO BASKET/ TAU CERaMICA
Apirila	- SINAVAL - EUROFISHING	- BILTZARRA - FECOHT/CCOO - OSAKIDETZAREN LEP - JARDUNALDIAK - JEHOVAREN LEKUKOAK - INGURALDE SARIAK	- AC/DC
Maiatza	- CREAMODA - EXPOCONSUMO - EXPOVACACIONES - BILGARRIA KENTZEA	- ELA - EUSKALIT - KRISTAU ESKOLA - PSIKOMOTRIZITATEARI BURUZKO IV. BILTZA-RRA - HABE AZTERKETAK - LA CAIXA AZTERKETAK - LARROSAREN FESTA	- BIZKAIKO 1. RODEOA - IURBENTIA BILBAO BASKET/TAU CERaMICA
Ekaina	- EFEF	- FORUM SPORTS - HABE AZTERKETAK - EUSKADIKO KUTXA - EEE - HAEE AZTERKETAK - PRESTAKUNTZA ZIKLOAK	- ----
Uztaila	- EUSKAL ENCOUNTER	- OSAKIDETZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK - EROSKI - EDSCHA JARDUNALDIA - OLALDE JARDUNALDIA - IDOM	-
Abuztua	- ---	- ---	-
Iraila	- ---	- ---	- LEONARD COHEN
Urria	- BISUTERIA - FOCCUS BILBAO - FOSMINER - NAGUSI - EXPOBODAS	- HABE AZTERKETAK - OSALAN JARDUNALDIAK - EUSKALIT - BANESTO - SPOT MORGAN - ESTEVE LAB.	- BBB/DYNAMO MOSKU - BBB/CB GRANADA - BBB/FUENLABRADA - BBB/REAL MADRID - EUROPA SUPERCROSS
Azaroa	- EXPONATUR	- EUSKALIT - VODAFONE - ERTZAINTZA AZ. - INTERGUNE - METALAREN BILTZ. ELA - HABE AZTERKETAK - EAGC - BFAren OPOSIZIOAK	- BBB/ DONETSK - JONAS BROTHERS - RAMMSTEIN - BBB/LUCENTUM - BBB-DKV JOVENTUT
Abendua	- AL GUSTO - DESEMBALAJE	- LABEIN SKILLS 2009 - EUSKALIT - EJ-GV AZTERKETAK - TESTO INST.	- BBB-SPARTAK ST.PT. - BBB/UNICAJA - BERTSOLARI TXAPEL. - BBB-TURK TELEKOM - EUSKALIT - FITO&FITIPALDIS - PIRRITX-PORROTX - BBB/VALENTZIA

Iturria: BEC

4.5. ARGITALETXEEN EKOIZPENA

EINen "*Argitaletxeen Ekoizpenaren Estatistikaren*" datuen arabera, EAEk bosgarren postua zuen 2009. urtean argitaletxeen ekoizpenaren rankingean (bi postu igo ditu aurreko urtearen aldean), 2.545 izenburu (liburuak eta liburuxkak) argitaratzearekin, Estatuko kopuru osoaren % 3,4. Madrilgo Erkidegoaren (23.972 izenburu, guztien % 32,2), Kataluniaren (20.871 izenburu, guztien % 28), Andaluziaren (8.590) eta Galiziaren (3.180) atzetik dago. Argitaratutako 2.545 titulu hauek % 9,5eko beherakada dira 2008. urtearen aldean.

Bestalde, 2009. urtean argitaratutako ale kopurua 4.220 milakoa izan da, aurreko urtean baino % 25,1 gutxiago. Horrek esan nahi du batez besteko inprimaketan (ale izenburu bakoitzeko) % 17,2ko beherakada egon dela, 2002tik 1658 alera.

Izenburu guztietatik 2.545 (% 86) liburuak dira eta 456 (% 14) liburuxkak. Liburuen kasuan, izenburu kopuruak beherantz egin du % 7,2an, aleen kopuruak % 27,2an beherantz egin duen bitartean. Ondorioz, batez besteko inprimaketak beherantz egiten du % 21,5ean, guztira 1.571 alera iritsi arte. Liburuxkei dagokienez, izenburuek (% -21,1) eta ale kopuruak (% -14,3) beherantz egin dute, beraz, horien batez besteko inprimaketak beherakada jasan du % 9,1ean.

EAEn 2009. urtean argitaratutako liburu kopurua, ISBNren datuen arabera[5], 4.327koa izan zen (EINeko

III.4.15. TAULA. Argitaletxeen ekoizpenaren bilakaera EAE-n

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2007-08 aldaketa	2008-09 aldaketa
GUZTIRA											
Izenburuak	2.338	2.329	2.553	2.485	2.46	2.36	2.767	2.813	2.545	1,7	-9,5
Aleak (milakoetan)	5.214	5.098	5.62	5.366	5.613	5.574	5.456	5.632	4.22	3,2	-25,1
Batez besteko inprimaketa	2.230,1	2.188,9	2.201,3	2.159,4	2.281,7	2.361,9	1.971,8	2.002,1	1.658,2	1,5	-17,2
Liburuak											
Izenburuak	2.008	2.004	2.157	2.024	2.039	1.92	2.283	2.357	2.187	3,2	-7,2
Aleak (milakoetan)	4.188	4.228	4.51	4.167	4.393	4.456	4.472	4.717	3.436	5,5	-27,2
Batez besteko inprimaketa	2.085,7	2.109,8	2.090,9	2.058,8	2.154,5	2.320,8	1.958,8	2.001,3	1.571,1	2,2	-21,5
Liburuxkak											
Izenburuak	330	325	378	461	421	440	484	456	358	-5,8	-21,5
Aleak (milakoetan)	1.026	870	1.11	1.199	1.22	1.117	984	915	784	-7,0	-14,3
Batez besteko inprimaketa	3.109,1	2.676,9	2.936,5	2.600,9	2.897,9	2.538,6	2.033,1	2.006,6	2.189,9	-1,3	9,1

Iturria: EIN, argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

[5] ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER – argitaletxe jakin baten izenburuak zenbatu eta identifikatzeko nazioarteko sistema bat da, eta softwareari ere aplikatzen zaio. Behin identifikazioa emanda, zenbaki hori obra horri bakarrik eman ahalko zaio eta ezin izango da berrerabili.

III.4.16. TAULA. Argitalpenaren banaketa geografikoa, inskribatutako ISBN-ak gorabehera

	2005	2006	2007	2008	2009		Aldak. %a, 2008-09
					Kop.	%	
ANDALUZIA	6.328	6.307	10.933	11.678	15.439	14,0	32,2
ARAGOI	1.287	1.342	1.556	1.354	1.979	1,8	46,2
ASTURIAS	551	530	575	895	860	0,8	-3,9
BALEAR IRLAK	798	744	836	757	808	0,7	6,7
KANARIAR UHARTEAK	957	985	1.738	1	1.314	1,2	31,4
KANTABRIA	356	345	445	349	400	0,4	14,6
GAZTELA ETA LEON	2.833	3.173	2.977	3.046	3.491	3,2	14,6
GAZTELA-MANTXA	536	591	733	701	803	0,7	14,6
KATALUNIA	28.201	30.608	29.323	34.512	32.081	29,1	-7,0
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	4.286	4.635	5.915	5.771	5.798	5,3	0,5
EXTREMADURA	313	438	524	537	1.130	1,0	110,4
GALIZIA	3.044	3.229	3.396	3.690	4.069	3,7	10,3
MADRIL	29.647	29.429	32.432	33.23	35.496	32,2	6,8
MURTZIA	658	895	736	682	591	0,5	-13,3
NAFARROA	792	973	985	1.262	1.268	1,2	0,5
EAE	**3.585**	**3.307**	**3.475**	**4.548**	**4.327**	**3,9**	**-4,9**
- ARABA	355	336	352	405	422	0,4	4,2
- GIPUZKOA	1.632	1.127	1.167	1.998	1.497	1,4	-25,1
- BIZKAIA	1.595	1.844	1.956	2.145	2.408	2,2	12,3
ERRIOXA	128	188	176	170	282	0,3	65,9
CEUTA	14	11	9	10	26	0,0	160,0
MELILLA	21	10	6	31	43	0,0	38,7
GUZTIRA	**84.332**	**87.740**	**96.770**	**104.223**	**110.205**	**100**	**5,7**

kopurua baino altuagoa, ziurrenik azken kasu horretan ez direlako inprimatze berriak sartzen), % 4,9ko erorketa aurreko urteko kopuruaren aldean. Beherakada horren arrazoia Gipuzkoako argitaletxeen ekoizpenean murriztapena egotea da (% -21,5), izan ere, Bizkaian eta Araban aldakuntza tasa positiboak erregistratzen dira (% 4,2 eta 12,3 hurrenez hurren). Bizkaia eta Gipuzkoa dira oraindik argitaletxeen ekoizpen handiena erregistratzen dutenak, EAEko ekoizpen osoaren % 55,7 eta % 34,6arekin hurrenez hurren. Arabak ekoizpen osoaren % 9,8 bakarrik zenbatzen du.

Argitaletxeen ekoizpenaren gaian autonomia erkidegoek betetzen duten rankingean, EAEk, lehen ere esan dugun moduan eta aurreko urteko postua errepikatuz, bosgarren tokia betetzen du, Kataluniaren, Madrilen, Andaluziaren eta Valentziaren atzetik.

Kopuru osoan duen parte-hartzea % 3,9koa da. Gainera, tarte garrantzitsua dago lehenengo bi erkide-

III.4.17. TAULA. Estatuan hizkuntza guztietan eta euskaraz argitaratutako izenburuak (liburuak eta liburuxkak), gaika

	2007			2008			2009			Aldakuntza euskaraz	
		Euskara			Euskara			Euskara			
	Guztira	Kop.	%/guztia euskaraz	Guztira	Kop.	%/guztia euskaraz	Guztira	Kop.	%/guztia euskaraz	2007-08	2008-09
Guztira	**72.914**	**1.102**	**100**	**86.330**	**1.186**	**100,0**	**74.521**	**1.027**	**100,0**	**7,6**	**-13,4**
1. Orokorrak	2.778	17	1,5	3.216	37	3,1	2.555	19	1,9	117,6	-48,6
2. Filosofia, psikologia	3.236	17	1,5	4.019	18	1,5	3.200	31	3,0	5,9	72,2
3. Erlijioa, teologia	2.809	31	2,8	2.999	32	2,7	2.504	36	3,5	3,2	12,5
4. Soziologia, estatistika	2.144	31	2,8	2.725	34	2,9	2.229	32	3,1	9,7	-5,9
5. Politika zientziak, ekonomia zientziak	3.525	25	2,3	3.736	33	2,8	3.945	35	3,4	32,0	6,1
6. Zuzenbidea, administrazio publikoa, gizarte aurreikuspena eta laguntza, aseguruak	5.071	14	1,3	5.705	17	1,4	5.297	16	1,6	21,4	-5,9
7. Artea eta militar zientziak	130	,,	-	141	0	0,0	155	-	-	-	-
8. Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza, entretenigarriak	2.593	80	7,3	2.175	38	3,2	2.753	35	3,4	-52,5	-7,9
9. Merkataritza, komunikazioak, garraioa, turismoa	-	-	-	-	-	0,0	-	-	0,0	-	-
10. Etnografia, antropologia kulturala (ohiturak, folklorea...)	1.477	26	2,4	1.877	37	3,1	1.362	24	2,3	42,3	-35,1
11. Matematikak	855	38	3,4	1.100	50	4,2	761	25	2,4	31,6	-50,0
12. Natur zientziak	3.034	111	10,1	3.575	101	8,5	2.935	91	8,9	-9,0	-9,9
13. Mediku zientziak, osasuna	4.068	7	0,6	4.465	11	0,9	4.094	8	0,8	57,1	-27,3
14. Ingeniaritza, teknologia, industriak, lanbideak	2.280	11	1,0	2.065	20	1,7	1.722	19	1,9	81,8	-5,0
15. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, ehiza, arrantza	667	5	0,5	640	2	0,2	679	2	0,2	-60,0	0,0
16. Etxeko zientzia	956	4	0,4	1.317	1	0,1	1.225	6	0,6	-75,0	500,0
17. Kudeaketa, administrazioa eta antolamendua	1.490	3	0,3	2.796	7	0,6	2.416	10	1,0	133,3	42,9
18. Lurraldearen egokitzapena, hirigintza, arkitektura	919	2	0,2	1.228	4	0,3	928	5	0,5	100,0	25,0
19. Arte plastikoak eta grafikoak, argazkilaritza	4.160	24	2,2	4.829	20	1,7	3.939	18	1,8	-16,7	-10,0
20. Musika, emankizunen arteak, antzerkia, filmak eta zinema	1.866	46	4,2	2	38	3,2	1.613	33	3,2	-17,4	-13,2
21. Jolasak eta kirolak	1.136	14	1,3	1.411	11	0,9	1.234	7	0,7	-21,4	-36,4
22. Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza	2.368	60	5,4	2.751	67	5,6	2.217	50	4,9	11,7	-25,4
23. Literatura, historia eta literatur kritika	19.371	455	41,3	24.098	502	42,3	20.892	428	41,7	10,3	-14,7
24. Geografia	1.719	32	2,9	2.013	45	3,8	1.454	24	2,3	40,6	-46,7
25. Historia, biografia	4.262	49	4,4	5.449	61	5,1	4.412	73	7,1	24,5	19,7

Iturria: EIN, argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

III.4.18. TAULA. Izenburu kopurua (liburuak eta liburuxkak) aldika eta gai kategoria gorabehera

	2006			2007			2008			2009			% Var. euskera	
	Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		2007-08	2008-09
		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%		
Testu liburuak	3.066	176	34,0	3.282	183	37,0	3.082	166	31,9	2.347	150	31,6	-9,3	-1,0
Haurrentzakoak	4.035	217	41,9	3.931	241	48,8	4.541	285	54,7	4.316	240	50,5	18,3	-1,6
Argitalpen ofizialak	9.639	71	13,7	9.77	70	14,2	11.619	70	13,4	9.417	85	17,9	0,0	2,1
GUZTIRA	**17.913**	**518**	**100,0**	**16.983**	**494**	**100,0**	**19.242**	**521**	**100,0**	**16.080**	**475**	**100,0**	**5,5**	**-0,9**

Iturria: EIN, argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

III.4.19. TAULA. Inskribitu diren ISBN-ak argitaratze hizkuntzaren arabera

	2006	2007	2008	2009		2008-09 aldakuntza
				Kop.	%	
Gaztelera	66.822	74.002	79.017	86.318	78,3	9,2
Kataluniera	9.335	9.615	10.75	10.526	9,6	-2,1
Euskara	1.525	1.552	2.156	2.040	1,9	-5,4
Galiziera	194	198	131	117	0,1	-10,7
Valentziera	988	1.351	1.488	1.397	1,3	-6,1
Beste hizkuntza espainiar batzuk	52	54	266	87	0,1	-67,3
Beste hizkuntza batzuk	175	204	214	211	0,2	-1,4
Eleanitzak	3.168	3.594	4.078	3.509	3,2	-14,0
Guztira	**87.44**	**96.77**	**104.223**	**110.205**	**100**	**5,7**

Iturria: Kultura Ministerioa, ISBNak

goen eta gainerakoen artean. Gauzak horrela, Madrilen 35.496 izenburu argitaratu zen (kopuru osoaren % 32,2), eta Katalunian % 29,1 (32.081 izenburu). Bestalde, Andaluzian Estatu mailako izenburu guztien % 14 argitaratu zen eta Valentziako Erkidegoan % 5,3.

Argitalpenen hizkuntzari erreparatuz gero, 2009. urtean, euskaraz, Estatuan argitaratutako izenburu guztien % 1,4 argitaratu da EINen datuen arabera, hau da, 1.027 liburu eta liburuxka. Aurreko urtean erregistratu zen portzentaje berdina izan da. Horietatik % 41,7 Literatura, Historia eta Kritika literarioa kategorian argitaratu da. Garrantziaren aldetik, nahiz eta distantzia handira, hurrengoak egongo lirateke: Natur Zientziak, % 8,9arekin; Historia eta biografia, % 7,1arekin eta Filologia, hizkuntzak eta hizkuntzalaritza % 4,9arekin. Garrantzitsuak dira Etxeko Zientzian (+ % 500), Filologia

III.4.20. TAULA. Beste hizkuntza batzuetara itzulitako euskarazko izenburuak

	2006	2007	2008	2009
Guztira	**31**	**27**	**15**	**27**
1. Orokorrak	-	-	1	..
2. Filosofia, psikologia	..	-	1	..
3. Erlijioa, teologia	..	-	-	..
4. Soziologia, estatistika	2	-	-	..
5. Politika zientziak, ekonomia zientziak	2	-	2	..
6. Zuzenbidea, administrazio publikoa, gizarte aurreikuspena eta laguntza, aseguruak	..	-	-	..
7. Artea eta militar zientziak	..	-	-	..
8. Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza	1	-	-	..
9. Merkataritza, komunikazioak, garraioa, turismoa	..	-	-	
10. Etnografia, antropologia kulturala	1	-	-	..
11. Matematikak	..	-	-	..
12. Natur zientziak	1	5	-	5
13. Mediku zientziak, osasuna	..	-	-	..
14. Ingeniaritza, teknologia, industriak	..	-	-	..
15. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, ehiza eta arrantza	..	-	-	..
16. Etxeko zientzia	..	-	1	..
17. Kudeaketa, administrazioa eta antolamendua	..	-	-	..
18. Lurraldearen egokitzapena, hirigintza eta arkitektura	..	-	-	..
19. Arte plastikoak eta grafikoak, argazkilaritza	4	1	-	1
20. Musika, emankizunen arteak, antzerkia, filmak, zinema	..	-	-	..
21. Jolasak eta kirolak	..	-	-	..
22. Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza	..	-	-	1
23. Literatura, historia eta literatur kritika	16	19	9	19
24. Geografia	2	-		..
25. Historia, biografia	2	1	1	1

Iturria: EIN, argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

eta Psikologian (+ % 72,2), Kudeaketa, Administrazio eta Antolamenduan (+ % 42,9) eta Lurraldearen egokitzapena, hirigintza, arkitekturan (% 25) izandako hazkundeak.

Gai kategorien araberako azterketak (testu liburuak, haurrentzakoak eta argitalpen ofizialak) agerian uzten du euskaraz argitaratutako liburu kopuruan murriztapena egon dela (% -1), aurreko aldiko % 9,3ko behe-

III.4.21. TAULA. Argitalpena itzulpen hizkuntzen arabera*

	2006	2007	2008	2009	% 08-09
Gaztelera	3.729	4.409	3.725	3.501	-6,0
Kataluniera	691	1.049	821	662	-19,4
Euskara	96	102	100	106	6,0
Galiziera	194	198	131	117	-10,7

(*) Inskribatutako ISBNak gorabehera. Iturria: Kultura Ministerioa, ISBNak

rakadari pilatzen zaiona. Haurrentzako liburuek ere beherantz egiten dute (% -1,6), aurreko urtean ezagututako hazkundearen aldean (% +18,3). Bestalde, euskarazko argitalpen ofizialek gorantz egiten dute % 2,1.

ISBNaren Agentzia Espainiarraren arabera, Estatu espainiarrean argitaratu diren izenburuetatik % 78,3 gazteleraz izan ziren, % 9,6 katalunieraz, % 1,9 euskaraz eta % 1,3 valentzieraz. Euskarazko argitalpenak murriztu egin dira 2008 eta 2009 artean % 5,4. Aitzitik, kopuru osoaren gainean duen pisua areagotu egin da, % 1,7tik % 1,9ra igarotzeagatik.

Bestalde, beste hizkuntza batzuetara itzultzen den euskarazko izenburu kopurua, bai liburuena, bai liburuxkena, areagotu egiten da 27n kokatu arte, hain zuzen ere aurreko urtean jazotako beherakada eta gero.

Aurrekoen zati handi batek literatura gaiak izan ditu izendatzaile komun bezala. Gauzak horrela, Literatura, Historia eta Kritika itzulitako izenburuen % 70,3 dira, 19 izenbururekin. Bigarrenik, Natur Zientziekin zerikusia duten izenburuak daude.

Azkenik, euskarara itzuli den izenburu kopurua, ISBNaren Agentzia Espainiarraren datuen arabera, % 6 hazi da. Gauzak horrela, 2009. urtean, 106 izenburu argitaratu zen euskara itzulita. Horrela, euskarara egindako itzulpenak gaztelerara, katalunierara eta galizierara egindakoen atzetik kokatzen dira. Valentzierari buruzko informaziorik ez dago.

4.6. KONTSUMOA ETA KONTSUMITZAILEAREN BABESA

4.6.1. Kontsumoko erreklamazioak

2009. urtean zehar, EAEn 19.854 erreklamazio izapidetu zen kontsumoko bulego ezberdinen bitartez: 7.743 Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren hiru Lurralde Bulegoen bitartez, 11.515 Kontsumitzailearentzako Udal Informazio Bulegoen (KUIB) bitartez eta 596 kontsumitzaile elkarteen bitartez.

Erreklamazioen gaian buruan dauden sektoreak hauek dira: Telekomunikazioak eta telefonia (kopuru osoaren % 31,9arekin), energia zerbitzuak (% 8,7), etxetresna elektrikoak (% 7,8), garraioak (% 7,7) eta bankuko zerbitzuak eta aseguruak (% 7,3).

Telekomunikazioen eta telefoniaren sektorean erreklamazio gehien eragin zituzten arrazoiak konponketetan izandako arazoekin zerikusia zutenak (guztien % 25,8), produktuen bermeen aplikazioa (% 19,8) eta behar ez bezalako fakturazioa (% 19,1) izan ziren. Energia zerbitzuetan behar ez bezalako fakturazioa (% 36,9), erabiltzaileei emandako arreta kaskarra (% 15,2) eta

III.4.3. GRAFIKOA. Gobernuak izapidetutako kontsumoko erreklamazioen bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

instalazioen berrikuspena (% 11,8) egon ziren. Etxetresna elektrikoetan, bermea ez betetzea (guztiaren % 41,2) nahiz iruzur erako informazioa eta publizitatea (% 19,3). Garraioetan, bertan behera uztearekin eta atzerapenekin zerikusia zuten erreklamazioak (% 53), maleten galerarekin eta hondamenarekin zerikusia zutenak (% 16,6), txartelak erostea (% 12,7) eta zerbitzuaren kalitate kaskarra (% 12).

4.6.2. Erreklamazioen ebazpena: Kontsumoko tartekaritza

Kontsumoko Tartekaritza Sistema epaitegietatik kanpoko sistema bat da. Honek aukera ematen du kontsumoko harremanetan sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko, horietan, batetik, enpresaburuak eta profesionalak daudenean eta, bestetik, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak.

2008ko otsailean 231/2008 Dekretua onetsi zen, Kontsumoko Tartekaritza Sistema arautzekoa hain zuzen, eta bertan aurreko araudiarekiko berrikuntzak sartzen dira, besteak beste: Kontsumitzaileen eta enpresen artean 300 €-tik beherako kopuruak sortutako gatazka tartekari bakar batek ebazteko aukera nahiz erreklamazio gai berdin baterako tartekaritza eskabideak pilatzeko, izapidetze elektronikoa arautzeko eta alderdien artean adostasunera iristeko aldez aurretiko bitartekaritza egiteko aukera.

III.4.4. GRAFIKOA. Kontsumoko tartekaritzari atxikitako enpresak, tartekaritza eskaerak eta aldeko laudoak



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

III.4.22. TAULA. Kontsumoko tartekaritzari atxikitako enpresak EAE-n

	2007	2008	2009	2009 Enpresen %a
Telekomunikazioak	85	79	91	54,8
Bitxi-dendak, erloju-dendak	420	367	396	47,3
Informatika	167	184	202	36,1
Oihalak, zapatak	2.496	2.592	2.809	36,5
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.204	1.029	1.062	31,8
Altzariak	1.246	950	1.022	30,5
Tindategiak	140	106	110	28,5
Etxebizitza, etxeko konponketak	4.219	4.100	5.063	12,4
Energia	13	12	12	12,3
Elikadura	980	738	778	9,2
Bidaia agentziak	53	51	58	9,2
Irakaskuntza	265	249	255	6,0
Ostalaritza	512	459	469	3,3
Aseguruak	26	36	37	1,5
Garraioak	51	47	47	0,4
Etxez-etxeko salmenta	6	5	-	
Zerbitzuetako jarduera ezberdinak	400	460	467	18,2
Bestelakoak	424	697	461	-
Guztira	**13.287**	**12.582**	**13.339**	**-**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

Sistemak egonkortzen jarraitzen du, izan ere, urtetik urtera geroz eta atxikitako enpresa, profesional eta denda gehiagok jartzen du bere konfiantza bide honetan, zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaile diren pertsonekin egon daitezkeen gatazkak konpontzeko. Berriro ere, balantzea positiboa da: 2009an, 757 enpresa berri batu zitzaizkion sistemari.

Atxikipen berriek zerikusi zuzena dute Jaurlaritzak, atxikipena sustatzeko, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren bitartez urtero egiten dituen bisita kanpainekin.

Jardueraka, atxikipen portzentajea aldatu egiten da sektoreen artean. Telekomunikazioak, bitxi-dendak eta erloju-dendak, informatika eta oihal eta zapaten sektoreak dira oraindik atxikipen indize handiena ageri dutenak (hurrenez hurren jarduera hau EAEn garatzen duten enpresen % 54,8; 47,3; 36,1 eta 36,5). Atzetik ibilgailuen salmenta eta konponketa (% 31,8), altzarien sektorea (% 30,5) eta tindategiak (% 28,5) egongo lirateke. Beste muturrean, Kontsumoko Tartekaritza Sistemari atxikitzeko uzkurrenak daude: Garraioa (% 0,35) eta aseguruak (% 1,53) eta inolako enpresek ordezkatzen ez dituzten bankuak.

Tartekaritza eskabideei dagokienez, 1994. urtean zerbitzua sortu zenetik 2009. urtera arte 10.362 eskabide jaso da guztira. Ekitaldi honetan 1.215 tartekaritza eskabide erregistratu da (2008. urtean 1.027 izan ziren), eta 532 laudo eman zen (aurreko urtean baino 19 gehiago).

Eskabide guztietatik (1.215) % 43,8 (532) tartekaritza laudo baten bitartez ebatzi ziren; % 23,6 (287) alderdiak adostasunera iritsita ebatzi ziren, Kontsumoko Tartekaritza Batzordeak egindako bitartekaritzaren ondotik, eta % 26,4 ez ziren izapidetzeko onartu, kontsumoko tartekaritzatik kanpo utzitako gaiei heltzen zietelako. Gainerakoa, % 6,2, beste kontzeptu batzuei dagokie.

Emaitzei dagokienez, % 34 kontsumitzailearen aldekoak izan ziren erabat eta % 39,5 haien aldekoak neurri batean. Aldiz, gainerakoan, % 26,5ean, Tartekaritza Elkargoak establezimenduari edo enpresari eman zion arrazoia.

4.6.3. Merkatu kontrola: Jarduera ikuskatzaileak

Merkatu kontrola zera da: kontsumitzaileen eskura jarritako produktuek eta zerbitzuek indarrean dagoen legediak etiketaren, informazioaren eta segurtasunaren aldetik ezartzen dituen betekizunak betetzen dituztela egiaztatzera zuzendutako jarduera ikuskatzaileen multzoa.

Horrek esan nahi du etiketen gainean edo oso araututa dauden sektoreen gainean aldizkako ikuskapenak egiten direla, gatazkatsuak izateagatik bereziki zaindu behar diren produktu eta zerbitzu jakin batzuen segurtasun eta jarraipen egiaztapenak egitearekin batera. Batetik, ***ikuskapen eta kontrol kanpainak*** egongo lirateke, araudia betetzen dela zaintzera zuzendutako jarduera programatuak hain zuzen. Bereziki azpimarratzen da oso araututa dauden sektoreen ikuskapen sistematikoa eta produktu ezberdinen etiketen kasua. Bestetik, ***osasunarentzat edo segurtasunarentzat arriskua ekar dezaketen produktuak topatu, geldiarazi eta merkatutik kentzea*** egongo litzateke.

(a) Ikuskapen eta kontrol kanpainak

2009. urtean zehar, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak 4.972 jarduera ikuskatzaile egin du (aurreko ekitaldian baino % 6,6 gutxiago). Bertan, kanpainengatik programatu direnak nahiz programatu gabekoak eta, normalean, salaketengatik, irregulartasunak dituzten produktuak azaltzeagatik eta Autonomia Erkidegoen arteko inhibizio edo komunikazioengatik etorritakoak sartzen dira.

III.4.23. TAULA. Jarduera ikuskatzaileak arrazoia gorabehera

	2005	2006	2007	2008	2009			
					Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Kanpainak	1.536	897	1.103	1.148	899	214	331	354
Erreklamazioak - Salaketak	2.084	2.657	2.699	3.063	2.772	469	1.450	853
Alertak	524	832	1.057	795	722	123	298	301
Bestelakoak	84	299	282	318	579	56	239	284
Total	**4.228**	**4.685**	**5.141**	**5.324**	**4.972**	**862**	**2.318**	**1.792**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

(b) Elikadurakoak ez diren produktuen segurtasunaren gaineko kontrola

EB eratzen duten mugak ezabatzearekin eta zirkulazio askearen printzipioarekin, erkidegoko edozein herrialdean edo hirugarren herrialde batzuetan jatorria duten produktuen sarrera gertatzen da merkatuan.

Beharrezkoa da, beraz, produktu seguruak merkaturatzen direla kontrolatzeko mekanismoak biziagotzea, eta hori Informazioaren Truke Azkarraren Sistemarekin lortu da[6].

2009. ekitaldian, 88 produkturen 5.403 ale kendu zen merkatutik. Gehienak haurtzaintzako produktuak, material elektrikoak, produktu kimikoak, kirol eta aisialdi artikuluak eta jolas eta jostailuak izan ziren.

III.4.24. TAULA. Jarduera ikuskatzaileak alertatutako, topatutako eta merkatutik kendutako produktuak, 2009

Produktu mota	Kendutako aleak	Topatutako produktuak
Haurtzaintza	1.637	12
Material elektrikoa	1.314	15
Produktu kimikoak	769	10
Kirol eta aisialdi artikuluak	639	2
Jolas eta jostailuak	428	17
Oihalak, oinetakoak eta osagarriak	323	16
Etxetresna elektrikoak	139	6
Dekoraziorako hainbat artikulu	128	4
Tresnak eta burdindegia orokorrean	10	3
Ibilgailuak	10	2
Bestelakoak	6	1
GUZTIRA	**5.403**	**88**

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

[6] Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko abenduaren 3ko 2001/95/EE Zuzentarauan oinarritzen da, hain zuzen ere produktuen segurtasun orokorrari buruzkoa dena. Hori gure ordenamendu juridikora sartu zen Produktuen segurtasun orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 EDaren bitartez. Gainera, Estatu Batuetatik etorritako jakinarazpenak kudeatzen dira eta bere sarean, alegia, US Consumer Product Safety Commission (CPSC) delakoan alertarazitako produktuak gure herrialdean merkaturatzen diren edo ez egiaztatzen da.

5

Pobrezia eta gizarte bazterkeria

Gizarte bazterkeriaren arazoa egungo gizarteetan jazotzen ari den egoera bat da. Erakundeek eta ikertzaileek urte askotan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu barne hartzen guztiz gizarte bazterkeriaren egoera eta horrek dakartzan dinamikak. Horregatik, azken bi hamarkadetan adostasun handia dago gizarte arloko ikertzaileen eta kudeatzaileen artean, pobreziaren kategoria "gizarte bazterkeria" kategoriara zergatik zabaldu den azaltzean: pobrezia ekonomikoaren ideia hertsia gainditu delako, eta, batez ere, egungo gizartean aldaketa sakonak jazo direlako, aurrerapen teknologikoek, bizimodu aldaketek eta bidean diren gizarte arloko aldaketek eraginda.

Honako tesi hau oso hedatua dago: aurreko hazkunde ekonomikoen urteek ez dituzte herrialde aberatsetako herritarren errenten desberdintasunak leundu, ezta pobrezia tasak murriztu ere. Aitzitik, horietako gehienetan desberdintasuna eta pobrezia ugaritu egin dira, gutxi bada ere, faktore demografiko, ekonomikoengatik eta, batez ere, politikoengatik. Hori ELGEk berriki egindako txostenaren ondorioa ere bada. Bertan, joera horietan gizarte eta politika eragileek duten jarduteko gaitasuna azpimarratzen da, hain zuzen, birbanatzeko politikak indartuta -alegia, selektiboagoak eginez- eta herritarrei lan merkatuan sartzen lagunduta.

"*Growing unequal? Income distribution and poverty in OECD countries*" (2008) izeneko txostenak ELGEko 30 herrialdeak aztertzen ditu eta agerian jarri du dirusarreren inguruko desberdintasuna handitu egin dela 70. hamarkadatik aurrera eta hazkunde horrek herrialde ia guztiei eragin diela. Adibidez, berriki Kanadan eta Alemanian hazkunde nabarmenak jazo dira, beste herrialde batzuetan, aldiz, –hala nola, Mexiko, Grezia eta Erresuma Batua- murrizketak jazo dira.

Azterlan horren bidez ikusi ahal izan da gizarte talde batzuei beste batzuei baino hobe joan zaiela: Azken 20 urteetan diru-sarreren igoera handienak 55 eta 75 urte bitarteko pertsonek izan dituzte eta erretiratuen pobrezia herrialde askotan oso azkar jaitsi da. Hala ere, haurren pobrezia handitu egin da eta biztanleriaren batezbestekoaren gainetik dago. Egoera horrek egun jasotzen duen arreta publikoa baino gehiago merezi du.

Ikerketako egileen ustez, desberdintasunak ugaritzea eragin duten faktoreak, funtsean, hiru dira: Alde batetik, gizartea zahartzea eta, batez ere, pertsona bakarreko edo guraso bakarreko familiak ugaritzea. Bigarren alderdiak laneko diru-sarrerak banatzeko aldaketak, lanaldi osoko gizonezko langileen artean geroz eta desberdintasun tasa gehiagorekin, ditu hizpide, hain zuzen, ondoen ordaindutako langileak eta

III.5.1. GRAFIKOA. ELGEko herrialdeak: Pobrezia erlatiboaren ratioak zenbait tartetan. 2000. urtearen erdialdea



Iturria: ELGE
(*) Zelanda Berria, daturik gabe errenta banatzeko medianaren % 40ko tarterako.

erdi-mailakoak bereizteagatik (eta ez horrenbeste dirusarrera txikiagoak dituzten langileen okerragotze edo txartze garbiagatik) eta lanpostu berriak beste langile batzuk jada bazituzten etxeetan sortzeagatik; ondorioz, familia pobreen eta aberatsen arteko polarizazioa jazo da enpleguari dagokionez.

Hirugarren faktoreak politika publikoen birbanaketa-ahalmenarekin dauka zerikusia: datuek agerian jartzen dute 90. hamarkadatik aurrera ia herrialde gehienetan murriztu egin dela prestazio ekonomiko publikoen zama, familiek eskuragarri dituzten diru-sarrerekin alderatuta. Hala ere, txostenaren arabera, gizarte prestazioek gastu handiagoa izateak ez du beti zertan eraginkorragoa izan desberdintasunak murrizterakoan, batzuetan selektibitate-maila nahikoa ez baita.

Azkenik, txostenean azpimarratu behar den beste alderdi bat ongizatearen estatua osatzen duten zerbitzu publikoen eraginaren balioespena da -batez ere, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak- desberdintasunak murrizterakoan. Zerbitzu horien zamak herrialde bakoitzean dituen desberdintasun nabarmenak adierazteaz gain (Turkian % 10 eta Danimarkan, aldiz, % 45; Espainia sailkapeneko azken postuetan dago eta zerbitzu publikoetako gastua familien errenta erabilgarriaren % 15en baliokidea da), txostenak dio ELGEko herrialdeen desberdintasuna % 34 murrizten dela (Espainian % 35) osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen arloan jasotako zerbitzuen ondorioz. Edozelan ere, zerbitzu horien ahalmen berdintzailea prestazio ekonomikoen eta zerga sistemaren bidez lortzen dena baino txikiagoa izan arren, txostena idatzi dutenek gauzazko zerbitzuaren garrantzia azpimarratu dute prestazio ekonomikoen aurrean, bai enplegua sortzeari dagokionez bai desberdintasunak murrizteari dagokionez ere.

2008. urtean, Europar Batasunean 85 milioi herritar, alegia, guztizkoaren % 17, pobrezia-arriskuan zegoen eta % 8k lana izan arren egoera hori pairatu zuen. Gai horri buruz 2009. urtean egindako eurobarometro monografikoari jarraiki, europarrek pobrezia ulertzeko zenbait modu dituzte: europarren laurden baten ustez (% 24), pertsonak pobreak dira euren baliabideak mugatuak direnean, hau da, bizi diren gizartean behar bezala parte hartu ezin dutenean. % 22ren iritziz, ordea, pobrezia bizitzeko behar diren funtsezko ondasunak ezin edukitzea da; halaber, % 21ek pobrezia karitatearen edo laguntza publikoen mendekotasunarekin lotzen du. Kontuan hartu beharreko gutxiengoak (% 18) uste du pertsonak pobreak direla pobreziaren ezaugarritzat jotzen direnak baino hileko baliabide gutxiago dituztenean. Horrez gain, % 84k uste du pobrezia ugaritu egin dela azken hiru urteetan bere herrialdean eta erdiak baino gehiagok "modu nabarmenean" jazo dela.

Jarraian, EAEko pobreziaren egoerari buruz eta gizarte bazterkeriaren arazoari buruz egindako deskribapen laburra egingo da, 2008ko EINeko *Bizi baldintzen inkesta* eta Eusko Jaurlaritzako *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta 2008* izenekoen datuak oinarri hartuta. Emaitzok diruzko eta ez diruzko terminoetan gure erkidegoko herritarrei eragiten dieten zenbait ongizate arazo neurtzen dituzte, hain zuzen, estatuko eta Europako beste herrialde batzuen egoerarekin lotuta.

5.1. BIZI BALDINTZEN INKESTAREN EMAITZAK 2008[1]

EINeko *Bizi baldintzen inkesta* errentari eta bizi baldintzei buruzko Europar Batasuneko estatistikak bateratzeko prozesuaren zati da. Azken horrek "*Statistics on income and living conditions*" izena dauka (EU-SILC). Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren azterketa egiteko aukera emango duen informazioa ematea da horren helburu nagusietako bat. Ematen duen informa-

[1] Izen bera eduki arren, eragiketa honen emaitzek ez dute zerikusirik EUSTATeko Bizi baldintzen inkestarekin. Aipatu eragiketa EAEko estatistika organismoak bost urtean behin egiten du -horietako azkena 2004ri buruzkoa- eta, pertsonen errenta-mailari lotutako zenbait alderdiz gain, bizi kalitateari eragiten dioten beste alderdi edo faktore batzuk aztertzen ditu, hala nola, familia eta gizarte arteko harremanak, aisiarako ohiturak, bizi den ingurua, etab. EINeko inkesta, funtsean, diruaren gaia jorratzen duen pobreziari buruzko ikerketa da.

III.5.2. GRAFIKOA. Batez besteko urteko errenta pertsona bakoitzeko (€). 2003-2007 bilakaera



Iturria: EIN. Bizi-baldintzen Inkesta 2008.

III.5.3. GRAFIKOA. Urteko diru-sarreren araberako familien banaketa, ehunekoetan. 2007



Iturria: INE.Bizi baldintzen Inkesta 2008.

zioa askotariakoa da eta honako hau biltzen ditu: alde batetik, etxebizitzari, horrek eragiten dituen gastuei, diru-sarrerei, etxeko ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen jarduerari, osasun arretarako sarbideari eta hezkuntzari buruzko datuak eta, bestetik, datu biografikoak.

2008ko inkestaren emaitzek, lehenik eta behin, agerian jartzen dute etxeko batez besteko errenta 2007an EAEn 29.163 eurokoa zela (2006. urtean baino % 7,5 gehiago), estatuko batez bestekoa -26.010 euro- baino % 12,1 handiagoa. Kopuru hori Nafarroako eta Madrilgo komunitateek bakarrik gainditzen dute. Nafarroa da etxeko diru-sarrera gehien dituen komunitatea, 32.125 euro, hain zuzen.

Pertsonako batez besteko errenta aintzat hartzen badugu, inkestak EAEn urteko 11.526 eurotan kokatzen du (joan den urtean baino % 9,8 gehiago). Oraingo honetan ere Nafarroak bakarrik gainditzen du eta estatuko batez bestekoa baino % 20,6 handiagoa da. Rankingaren beste muturrean, bi aldagaiei dagokienez eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia daude.

Horrez gain, errenta-tarteen araberako etxeen banaketatik ondorioztatzen da gure erkidegoko familien % 54,4k urtean 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituela. Ehuneko hori azken urtean % 5,4 handitu da. Horien artean, % 30,5ek urtean 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak ditu, % 23,9k, aldiz, 25.000 eta 35.000

III.5.1. TAULA. Zenbait gastu ezin eduki ditzaketen familien ehunekoa konparazioa EAE-Estatuko batezbestekoa

	Gutxienez urtean astebeteko oporrak		Gutxienez bi egunetik behin haragia, oilaskoa edo arraina jatea		Etxebizitza behar bezalako tenperaturan izatea		Ustekabeko gastuak ordaintzeko ahalmena	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2004	43,9	25,5	2,5	1,0	9,4	4,0	39,2	20,0
2005	40,4	27,2	2,5	1,5	9,0	4,9	33,8	24,0
2006	38,3	22,3	4,0	0,8	9,3	4,6	31,2	18,9
2007	35,8	19,2	2,3	0,5	7,9	3,9	30,5	19,4
2008	33,5	14,6	2,0	1,0	5,3	2,6	28,1	15,8

Iturria: EIN. Bizi baldintzen inkesta.

euro bitartean, % 27,4k 14.000 eta 25.000 bitartean eta gainerako % 18.7k 14.000 euro baino gutxiago. Estatu osoan, 25.000 euro baino gehiagoko errenta-maila % 43,7ri dagokio (2006an baino 4,3 puntu gehiago), % 30,2 errentaren erdiko segmentuan kokatuko litzateke eta familien herena baino gehiagok - %26,1- urtean 14.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak ditu.

Etxe edo familien bizi baldintzak eta errenta-maila ilustratzen duen beste adierazle batek hil amaierara heltzeko zailtasunak dituzten horien ehunekoa dauka hizpide: egoera horrek 2008. urtean gure erkidegoko familien % 41,6ri eragiten zion, aurreko urtean baino 5,7 puntu gutxiago. Estatuko batezbestekoa % 60koa da eta, gainera, 2007. urtearekin alderatuta igo egin da, une hartan % 56,8koa zen. Bizi baldintzen adierazle honen postu onenetan Nafarroa, Aragoi eta EAE daude. Andaluzia -% 69,9 ratio-eta Cáceres -% 78,3 ratio-, aldiz, zerrendako azken postuetan.

Horrez gain, hainbat gastu eduki ezin dituztela dioten etxe edo familien ehunekoa kalkulatzen du inkestak: euskal familien % 14,6k ezin du urtean aste bat hartu oporretan egoteko (% 35,8 estatuan) eta % 15,8k ez dauka dirurik ustekabeko gastuak ordaintzeko (% 28,1 batezbestekoa estatuan eta urtean 9.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familien % 51,3 arte). Halaber, estatutako familien % 2k ezin du gutxienez bi egunetik behin haragia, oilaskoa edo arraina jan (% 1 EAEn, iazkoaren bikoitza) eta % 5,3k ezin du etxebizitza behar bezalako tenperaturan izan (% 2,6 EAEn).

Ildo horretan, EUROSTATek gabetze materialaren indizea definitu du; aipatu indizea gastuen eta ekipamenduen bederatzi kontzeptuko zerrenda batetik gutxienez hiru eduki ditzaketen pertsona kopuruaren araberakoa da: EINek aurkezten dituen gastuen lau kontzeptuez gain, hipotekaren ordainketak eguneratuta izatea eta garbigailua, koloretako telebista, telefonoa eta autoa edukitzea barne hartzen dira. Definizio horri jarraiki, EBko herritarren % 17k gabetze materiala dauka eta herrialdeen arabera desberdintasunak handiak dira. Desberdintasunok, batez ere, EBko kide berrien eta gainontzekoen artean jazotzen dira. Alde batetik, Luxenburgon herritarren % 4 dago egoera horretan eta % 10 baino gutxiago herrialde nordikoetan, Holandan eta Espainian. Hala ere, gabetze materiala % 50 edo gehiagokoa da Bulgarian eta Errumanian eta % 30 gainditzen du Hungarian, Letonian eta Polonian.

Azkenik, *Bizi baldintzen inkesta*n pobreziaren azterketa deskribatzailea egiten da, pobrezia diru-pobrezia gisa ulertuta, eta horretarako, herritarrak pobre gisa edo

III.5.4. GRAFIKOA. Pobreziaren tartearen azpian dauden pertsonen ehunekoa. 2006-2007



Iturria: EIN. Bizi baldintzen inkesta 2008.

ez pobre gisa sailkatzeko erabilitako metodoak diru-pobrezia erlatiboaren ildoa eraikitzea dauka oinarri. Erabilitako pobrezia-ildoak familiako kontsumo unitatearen diru-sarrera garbiak ditu oinarri; halakotzat jotzen dira etxeko diru-sarrera garbi guztiak (eskura dagoen errenta) zati kontsumoko unitate kopurua. Hortik aurrera, pobreziaren ildoa edo tartea pertsonei esleitutako kontsumo unitateen[2] araberako diru-sarreren banaketaren medianaren % 60an kokatzen da. Hala, *pobre*tzat jotzen da kontsumo unitateko aipatu tartean adierazitakoa baino diru-sarrera gutxiago dituen indibiduo oro (hortaz, etxe bereko kide guztiak modu berean sailkatuko dira, hau da, pobreak edo ez pobreak). Tarte hau batasunaren mailan kalkulatu da herrialde bakoitzarentzat[3]. Hori dela eta, herrialde bakoitzeko ikuspegi erlatiboa lor daiteke, horien artean alderagarria ez izan arren.

Hori oinarri hartuta, inkestak pobreziaren tartearen azpian dauden pertsonen ehunekoa kalkulatzen du. Estatuko batezbestekoarentzat ehuneko hori ia ez da aldatu estatistika eragiketaren antzinatasuneko bost urteetan eta, hala, 2007. urtean % 19,6ko tasa lortu zen, aurreko urtean baino dezima bat gutxiago. Gure erkidegoan, pobretzat jotako pertsonen tasa % 8,5ekoa da –egoera hori Nafarroako komunitatean bakarrik hobetu da– eta azken urtean 3,1 puntu gutxitu da. Halaber, pobreziaren tartean adierazitakoa baino diru-sarrera gutxiago dituzten pertsonen ratio hori gure erkidegoan azken bost urteetan % 24,1 jaitsi da.

5.2. POBREZIAREN ETA GIZARTE ARLOKO DESBERDINTASUNEN INKESTA 2008. POBREZIAREN ETA ESKASIAREN FAKTORE EKONOMIKOAK

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta* (PGADI) egiten du. Horren bidez pobreziak gure gizartean daukan eraginaren, pobreziari eragiten dioten arrisku faktoreen eta

[2] Kontsumo unitatearen araberako diru-sarrera edo diru-sarrera baliokidea familiaren diru-sarrera guztia zati "kontsumo unitateen" kopurua da; dena den, per capita diru-sarrera desberdindu egiten da, ez baitzaio familiako kide guztiei diru-sarrera bera esleitzen, beste faktore batzuk aintzat hartzen direlako, hala nola, eskala ekonomikoak. Alegia, familia edo etxe bateko kide kopurua handitzeak ez du esan nahi diru-sarrerak modu berean handitu direnik ongizate-maila bera mantentzeko eta, gainera, kontsumitzeko modua edo eredua ez da bera, familiako kide bakoitzaren adinaren araberakoa baita.

[3] Aipatu moduan, pertsonei esleitutako kontsumo unitateen araberako diru-sarreren banaketaren medianaren % 60an kokatzen da, EBko herrialde bakoitzean. Beraz, errentaren banaketa herrialde bakoitzaren barruan aztertzen da eta ez batasunaren baitan.

III.5.5. GRAFIKOA. EAEn mantentze eta metatze pobreziaren arrisku-egoeren eragina. Datuak ehunekoetan



Iturria. PGADI 2008

banaketa geografiko desberdinaren berri ematen da. EAEko pobreziaren eragina neurtzeko aukeratutako adierazlearen araberakoa da. Inkestak bi dimentsio erabiltzen ditu: alde batetik, metatze pobrezia eta, bestetik, mantentze pobrezia eta bigarren horren barruan pobreziaren arrisku-egoera eta ongizaterik ezako arrisku-egoerak.

– Metatze pobreziatzat honako hau ulertzen da: epe luzean behar bezalako maila izateko eta oinarrizko zenbait ondare baliabide metatzeko behar diren oinarrizko ondasunak eskuratzeko familien ezintasuna.
– Mantentzearen dimentsioari dagokionez, pobreziaren arrisku-egoerak honako hauek dira: premia funtsezkoenei erantzuna emateko nahikoa dirusarrerarik ez edukitzea (janaria, etxebizitza, arropa eta oinetakoak), ongizaterik ezaren arriskua, berriz, gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailak mantentzeko behar diren gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak ez izatearekin lotzen da. Azken adierazle hori pobrezia erlatiboaren tasen edo EBko diru-sarrera baxuen parekagarria da. Tasok aurreko atalean adierazitako familiako dirusarrera ertainen % 60ko tarteari jarraiki ezarri dira ("pobreziaren tartea" izenekoa), autonomia erkidegoen araberako datuekin, hain zuzen, *Bizi baldintzen inkesta* oinarri hartuta.

Aztergai izandako gabezia horiek batera kontuan hartuta, 2008ko *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta*k dio EAEko 39.737 familiei -guztizkoaren % 5- eragiten dietela aintzat hartutako arrisku-egoeraren batek (mantentze edo metatze). Eragindako indibiduoak guztira 100.250 dira, herritar guztien % 4,7[4].

[4] 2008ko Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkestaren emaitza nagusiei buruzko informazio gehiago izateko, mantentze pobreziari eta metatze pobreziari buruz, baita aurreko urteetan izandako bilakaerari buruz ere, irakurleari memoria sozioekonomiko honen 2008ko argitalpenera igortzen da.

"1984-2008. 25 urte Euskadiko pobrezia aztertzen" izeneko txostenean, Eusko Jaurlaritzak, 2008rako inkestaren emaitza handiak aurkezteaz gain, intereseko gaien inguruko beste azterketa partzial batzuk egin ditu. Memoria sozioekonomikoaren argitalpen honetan, arreta pobreziaren eta eskasiaren faktore ekonomikoetan jarriko dugu, bizikidetasun unitateko diru-sarrera nagusiaren eta gizarte eskualdatzeen eragina aztertuta, baita etxebizitzaren arazoa ere.

5.2.1. Gizarte transferentzien eragina

Interes handiko alderdietako bat pobreziaren eta eskasiaren arazoak prebenitzerakoan gizarte transferentzien eraginari buruzkoa da. *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta*ko zenbait daturen bidez, transferentziok pobreziaren eta eskasia arazoen aurkako borrokan duten garrantzia erabakigarria uler daiteke. Aipatu arazoek erabateko ongizate-egoerak izateko zailtasunekin zerikusia dute.

Transferentziek mantentzearen dimentsioan duten eragina aintzat hartuta, datuek agerian jarri dute pobreziaren eta ongizaterik ezaren arriskuen tasak gutxi gorabehera 16 puntu jaitsiko liratekeela erretiro eta biziraupen pentsioen politikaren eragin positiboaren ondorioz, transferentziarik egon ezean. Hala, ongizaterik ezaren arriskua % 36,9koa zen eta % 20,3koa bihurtu da eta pobreziaren arriskua, berriz, % 24,7koa zen eta % 8,5koa bihurtu da.

Jaitsiera horri beste jaiste bat gehitu behar zaio, 4,5 eta 5,5 puntu artean kokatutakoa, gizarte politika osagarrien esparruan garatutako transferentzien kudeaketari egotzi ahal zaiona, langabeziaren aurkako ekintza barne hartuta. Gizarte tranferentzien politikaren bidez % 20,3ko ongizaterik ezaren arriskua murritz daiteke eta, erretiro eta biziraupen pentsioak bakarrik edukiz gero, 2008an antzemandako % 14,6an erregistratuko litzateke.Halaber, pobreziaren arriskua murriztu egin da: % 8,5ekoa zen eta % 4,1ekoa bihurtu da. Gizarte politika guztiei egotzi ahal zaien jaitsiera orokorra 20 eta 22 punturen artean kokatzen da.

Hortaz, gizarte transferentzien aplikazioak mantentze pobreziaren tasa % 83,3 murrizteko aukera ematen du diru-sarrera propioak bakarrik eskura ditzaketen familien kasuan; hala, jaitsieraren % 65,7 erretiro eta biziraupen pentsioei dagokie eta % 17,7, aldiz, gainontzeko gizarte transferentziei. Murrizketa % 60,6koa da, ongizaterik ezaren tasari dagokionez. Kasu horretan, jaitsieraren % 45,1 pentsioen sistema orokorrari egotzi ahal zaio eta % 15,5, berriz, gainontzeko gizarte laguntza eta prestazioei. Egoera/adierazle batean edo bestean, gizarte politiken inguruko hobekuntzaren hiru laurdenak gutxi gorabehera erretiroaren eta biziraupenaren transferentzia orokorrei egotzi ahal zaizkie.

Adierazle horien bidez, gizarte transferentziek bazterkeriaren aurkako borrokan EAEn burutzen duten eginkizuna eta Europan gertatzen dena aldera daitezke: EUROSTATek *Errentaren eta bizi baldintzen inkesta* izenekoan ongizaterik ezaren arriskua aztertzen du gizarte politika osagarriak baino lehen eta ondoren. 2008. urtean, EBn, gizarte politika osagarriek % 25eko ongizaterik ezaren[5] ratiotik % 17ra igarotzeko aukera eman zuten eta, horrela, 8 puntu jaitsi zen, alegia, % 32 (EAEn

III.5.2. TAULA. Pobreziaren edota ongizaterik ezaren arriskuaren adierazleak (mantentzea) gizarte transferentzien eginkizuna kontuan hartzea. EAE, 2008

Adierazlea	Transferentziarik gabe	Erretiro eta biziraupen pentsioekin	Pentsioekin eta gizarte politika osagarriekin
Pobrezia	24,7	8,5	4,1
Ongizaterik eza	36,9	20,3	14,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta 2008.

[5] Kontsumo unitateen araberako diru-sarreren banaketaren medianaren % 60aren tartean adierazitakoaren azpiko errenta.

III.5.6. GRAFIKOA. Ongizaterik ezaren arrisku tasa, gizarte transferentziak baino lehen eta ondoren



Iturria. EUROSTAT eta EUSKO JAURLARITZAko datuekin egina.

III. 5.3. TAULA. Pobreak izan daitezken horien egoera* gizarte laguntzaren prestazioak eskuratzearen eta benetako pobrezia egoeraren arabera. EAE, 2008

Egoera	Erabatekoa	Bertikalen %	Herritar guztien %	Elkarteak premiei emandako erantzuna
Gizarte laguntzaren prestazioen onuradunak, benetako pobrezia	45.438	24,1	2,1	86,9
Gizarte laguntzaren prestazioen onuradunak, ez benetako pobrezia	49.445	26,2	2,3	100,0
Gizarte laguntzaren prestazioen onuradunak ez direnak, ez benetako pobrezia	71.127	37,7	3,3	—
Gizarte laguntzaren prestazioen onuradunak ez direnak, benetako pobrezia	22.613	12,0	1,1	0,0
GUZTIRA	**188.623**	**100,0**	**8,8**	**75,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta 2008.
(*) Gizarte laguntzaren transferentziak baino lehen pobrezia-egoeran dauden pertsonak edota metatze pobrezia arazoak dituzten pertsonak.
Gizarte laguntzaren eragina: Gizarte laguntzen bidez pobreziatik ateratzen diren pertsonen %, onuradun izan daitezkeen guztizkoaren gainean (benetako onuradunak eta benetakoak ez direnak pobrezia-egoeran).

III.5.7. GRAFIKOA. Gizarte laguntzaren prestazioak eskuratzen ez dituzten benetako pobrezia egoeran dauden pertsonak, familiako* pertsona nagusiaren mota soziodemografikoagatik. EAE, 2008



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. PGADI 2008
(*) Herritarrak familia etxebizitzetan

jaitsiera % 28koa da). Jaitsiera esanguratsuena pairatu duten herrialdeen artean, besteak beste, honako hauek daude: Estonia, Suedia eta Danimarka (tasak 16 eta 18 puntu bitartean jaitsi dira); Grezia, Italia eta Espainiak zerrenda itxiko lukete, ehuneko 3 eta 4 arteko jaitsierekin.

Halaber, gizarte transferentzien eragina aztertzerakoan, berariazko garrantzia duen beste alderdi bat prestazio osagarrien egitekoa da, zehazki, gizarte laguntzena.

Laguntza horrek ezin du bakarrik herritarren % 1,9ren egoera aintzat hartu; azken horiek diru-sarrera gehienak iturri horren bitartez lortzen dituzte.

Azaldutako gaia jorratzeko, *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkestak* pobrezia arriskuan gera daitezkeen taldetzat honako hau jo du: metatze pobreziaren egoerak eragindako pertsonak eta, erretiro eta biziraupen politikoen ziozko tranferentzia osagarriak baino lehen, mantentze pobreziaren arrisku-egoeran dauden pertsonak barne hartzen ditu. Talde hori 2008. urtean EAEko biztanleen % 8,8 zen.

Pobreziaren arrisku-egoeran gera daitekeen talde horren azterketak agerian jartzen du horien % 37,7 gai dela bere baliabideekin pobreziaren bi dimentsioetan dauden gabeziak konpentsatzeko, gizarte laguntzazko prestazioetara jo gabe. % 26,2k pobreziatik ateratzea lortzen du; kasu horretan bakarrik gizarte arretaren prestazioak eta laguntzak eskuratzeagatik bakarrik izan arren. Halaber, % 24,1 benetako pobrezia-egoeran dago laguntzok eskuratu arren eta etxeetan dauden % 12 benetako pobrezia-egoeran daude gizarte arretako prestaziorik gabe.

Inkestak benetako pobreziaren egoerak eragiten ez diela dioen pertsonen % 3,3 alde batera utzita, horrek % 5,5en kokatzen du pobreziaren inguruan izan daitekeen tasa, hain zuzen, transferentziak baino lehen. Gizarte arretako laguntzen bitartez, praktikan benetako pobrezia murrizten da; % 5,5 zenbatekotik EAEn oro har erregistratuta dagoen % 3,2ra.

Egoera hori aintzat hartuta, inkestak ondorioztatzen du gizarte arretako prestazioek EAEko pobreziaren eragina kentzeko edo behintzat, modu nabarmenean murrizteko aukera ematen dutela. Pobrezian gera daitezkeen pertsonei dagokienez, pobreziak % 75,7 gainditzen du[6].

[6] Gizarte laguntzen bidez pobreziatik ateratzen diren pertsonen ehunekoari dagokio ratio hori, onuradun izan daitezkeen guztizkoaren gainean (benetako onuradunak eta benetakoak ez direnak pobrezia-egoeran).

Hala ere, *Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkestak* dio gure erkidegoan erantzuna ematen ez zaien benetako pobrezioaren arazo gehienak egiazki ez daudela egungo prestazioen sisteman sartuta, benetako pobrezia-egoeran egon arren. Aintzat hartu gabeko herritar asko -% 92- honako pertsona hauen mende dauden familiei lotuta dago: Europar Batasunekoaek ez diren herrialdeko nazionalak (% 25,5), 65 urtetik gorako adinekoak (% 23,2), familia baten ardura duten 45 urtetik beherakoak (% 17,1), bakarrik dauden 65 urtetik beherakoak (% 14,2) eta guraso bakarreko emakumuezko familiak (% 11,9). 2008. urtean, Europar Batasunekoak ez diren atzerritarren menpeko biztanleek, 65 urte baino gutxiago edota gehiago dituzten eta bakarrik daudenek aintzat hartutako egoeren % 68 osatzen dute[7].

5.2.2. Etxebizitzaren arazoa

Azken 25 urteotan etxebizitzaren merkatuan izandako bilakaerak ondasun hori izateak dakarren arazoa areagotu die EAEko familiai askori. 1986. urtean % 31,2 jaitsi zen eta 1996. urtean, berriz, % 23,5; ordutik geroz eta pertsona gehiagok ordaindu behar dute alokairuaren edo hipotekaren ordainketa etxebizitzaren premiak asebetetzeko.

2000. urtean proportzioa % 26,7koa zen eta 2004. urtean, aldiz, % 34koa. 2008an maila gorena lortu zuen % 41,7rekin. Aldaketon eraginak pobreziaren egoeretan eta eskasian izandako eragina ez da neutroa izan. Hori dela eta, azaldutako prozesuari lotutako zenbait ondorio aztertu behar dira, bereziki, etxebizitzetako gastuen konpromisoak familiei eragiten dieten mantentze arazoetan. *2008ko pobreziaren eta gizarte arloko*

III.5.4. TAULA. Etxebizitzaren kostua ordaintzeko familien ahalegin garbiaren tasa*, pobreziaren arrisku mailaren edo ongizaterik ezaren arabera (mantentzea) eta edukitze araubidea. EAE, 1996-2008. Familiak (ehunekoetan)

Edukitzea	Pobrezia larria				Ongizaterik eza				Ongizatea				Guztira			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Jabetza, ordainduta	13,2	14,4	15,9	16,0	8,3	9,0	9,9	12,3	4,6	4,6	4,9	5,5	5,5	5,3	5,6	6,0
Jabetza, ordaindu gabe	45,3	43,4	48,3	47,7	31,5	29,2	32,2	42,2	21	18,7	21,1	24,4	22,8	20	22,8	25,1
Alokairua eta antzekoak	39,2	37,3	48,0	57,6	19,8	23,2	30,8	40,3	15,4	14,7	18,3	23,5	18,7	17,1	22,5	28,0
Doakoa	7,5	12,1	13,1	11,4	10,3	9,5	7,4	8,8	3,8	5,4	6,2	6,3	5,8	6,3	7,6	7,2
Guztira	**21,7**	**21,8**	**28,0**	**33,4**	**12,2**	**14,2**	**18,6**	**22,2**	**8,6**	**8,3**	**10,1**	**13,4**	**9,7**	**9,2**	**11,5**	**14,2**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta 2008.
(*) Etxeko gastuek familiako diru-sarreretan duten zama.

[7] Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkestak emaitzok agerian jarri ditu, 65 urtetik gorakoek aipatu prestazioak ez eskuratzeko tasa altuak hurrengo hilabeteetan nabarmen murriztuko zirela adierazita, hain zuzen, ikerketa amaitzerakoan, pentsiodunek sarrerak bermatzeko prestazioak eskura ditzaten EAEn ezarritako araudi berriaren zioz, sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko lege berria onartuta, 2007ko abenduan.

III.5.8. GRAFIKOA. Etxebizitzako gastuetarako eskura izandako diru-sarreren % 30 baino gehiago erabiltzen duten familien proportzioa, pobrezia-arriskuaren edo ongizaterik ezaren arabera (mantentzea) eta etxebizitzaren edukitze araubidea. EAE; 2008



*desberdintasunen inkesta*k azpimarratzen duen lehenengo datua honako hau da: etxebizitzaren kostua ordaintzeko familien ahalegin garbiaren arabera, arrisku gehien izango dutenak mantentzearen dimentsioan pobreziak eta eskasiak eragiten dieten taldeak izango dira. Jakina denez, etxeko gastuek diru-sarreren gainean dakarten zama ugaritu ahala, ongizatearen maila jaitsi egiten da, edukitzearen araubidea edozein dela ere. Ahalegin tasa ongizate-egoeran dauden familietan % 13,4koa den bitartean –batez beste-, ongizaterik ezako arrisku-egoeretan % 22,2ra handitu da eta % 33,4 arte mantentze dimentsioan pobreziaren arriskuak eragingo dienen artean. Egoera askoz larriagoan daude arrisku-egoeran dauden eta etxebizitzaren edukitze araubidea alokairuaren edo guztiz ordainduta ez dagoen jabetza-egoera baten araberakoa duten familiak. Ongizaterik ezako arriskuan dauden familien kasuan, ahalegin ertainaren tasak % 40ko mailak gainditzen ditu (% 40,3 alokairuan eta % 42,2 ordaindu gabeko jabetzaren kasuan). Dena den, pobrezia-egoeran geratzeko arriskuan dauden familiak % 50era iristen dira edo kopuru hori gainditzen dute (% 57,6 eta % 47,7 hurrenez hurren).

Duela gutxiko joerak puntu honetan gailendu behar dira. Azpimarragarrienak alokairuari lotutako bilakaera dauka hizpide, bereziki, ongizatea eskuratzeko arazoak dituzten taldeetan. Ongizate egoeran dauden herritarren ahalegin tasan 1996. eta 2000. urteetan antzemandako gehitzea 8,1ekoa bakarrik izan zen bitartean (% 15,4tik % 23,5ekoa), pobrezia-arriskuan gera daitezkeen taldeen kasuan % 18,4koa da (% 39,2tik

III.5.9. GRAFIKOA. Etxebizitzako gastuetarako eskura izandako urteko diru-sarreren % 40 baino gehiago erabiltzen duten herritarren ehunekoa. 2007



Iturria: EUROSTAT. EU-SILC.

57,6ra) eta % 20,5ekoa ongizaterik ezako arriskuan dauden familietan (% 19,8tik 40,3ra). Hortaz, alokairuari dagokionez, ongizate-egoeran dauden familien egoera alderatuz gero, talde prekarioenak ez dira etxebizitzako gastuak ordaintzeko ahalegin tasa oso altuei aurre egin behar dietenak, tasok egoera okerragotu baino ez baitute egiten.

Halaber, ongizatea eskuratzeko etxebizitzako gastuek tartean duten faktore mugatzailea diru-sarreren % 30 etxeari lotutako gastuetarako erabiltzen duten familien proportzioaren bitartez azter daiteke. Proportzio horrek adierazten du etxebizitzako gastuak eskura dauden baliabideak baino handiagoak direla.

Arazo hori asko ugaritu da alokairuen eta ordaindu gabeko jabetzen egoeretan. Hala ere, ongizate-egoeran dauden familietan, mantentzearen dimentsioan proportzioa % 26,6 eta % 29,5ekoa dela aintzat hartuta, herritar gehienek arazoari aurre egin behar diote, pobrezia-arriskuan dauden edo ongizaterik ezako familiak direnean. Kasu horretan, zifrak % 70 eta % 85en artean daude, edukitze araubidearen eta ongizaterik ezako arazoaren larritasunaren arabera. Beraz, pobrezia-arriskuan dauden edo ongizaterik ezako egoeran dauden familia gehienentzat etxebizitzaren gastuak dakarren oinarrizko presioa antzeman da, alokairuaren edo erabat ordaindu gabeko jabetzaren egoerak daudenean. Familia horietan, etxebizitzako gastuek zalantzarik gabe oinarrizko gainontzeko premiei erosotasun handiagoarekin aurre egiteko aukera baldintzatzen dute.

Azaldutako arazoaren gizarte arloko garrantzia, gainera, epe ertainean eta luzean handitu egin da. Alokairuaren kasuan, etxebizitzako gastuetarako eskura izandako diru-sarreren % 30 baino gehiago erabiltzen duten eta ongizaterik ezako egoeran dauden familietako pertsonen proportzioa 1996. urtean % 17,6koa zen eta 2008. urtean, aldiz, 70,6koa. Gehitze hori 1996. eta 2000. urtean % 45-50 ingurukoa zen eta 2008. urtean % 84,2koa.

Dena den, inkestan aipatzen da mende berriarekin hasten den familiak sortzeko prozesu berriak presio orokorra eragin duela euskal herritarren gainean, hain zuzen, etxebizitzako gastuei dagokienez. Horrela, 1996. eta 2000. urtean % 5,5 eta % 7ren inguruan kokatu ondoren, etxebizitza eskuratu eta mantentzeko eskura izandako diru-sarreren % 30 baino gehiago erabiltzen dituzten familien proportzioa ugaritu egin da. Hala, 2004an % 10,1ekoa zen eta 2008an, berriz, % 15,2koa.Prozesu hori oso lotuta dago EAEn alokairuaren eta hipotekatutako etxebizitzaren amortizazio gastuak ordaindu behar dituzten familien zamarekin. Aipatu zama handitzen ari da. Hala ere, azpian dagoen faktore nagusiak ez dauka zerikusirik alokairuaren eta jabetzan etxebizitza bat eskuratzearekin: herritarren % 18,6k 2000. urtean hipoteka ordaintzeke zeukan, 2004an % 24,9k eta 2008an % 32,7k.

Europar Batasunean, EUROSTATek balioetsi du zortzi pertsonatik batek eskura dituen diru-sarreren % 40 baino gehiago erabiltzen dituela etxebizitzako gastuak ordaintzeko. Alemanian proportzio horrek bost familiatik bati eragiten dio eta, Bulgarian, aldiz, bost familiatik biri. Proportzio murriztuenak Txipre, Malta eta Irlandan erregistratu dira.

04

GIZARTE BABESA EAEn

EAEn MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua 1.861 milioi euro izan zen 2008an, haren aurreko urtean baino % 15 gehiago, EUSTATek emandako azken datuen arabera. Gastu hori EAEko urte horretako BPGd-ren % 2,7 da eta biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 860 euro zirela esan nahi du, 2007an baino % 13,9 gehiago. Administrazio publikoek 1.347 milioi euroko ekarpena egin zuten, zenbateko osoaren % 7,2, eta sektore pribatuak gainerako % 28 eman zuen. Erabilitako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuren bidez finantzatu zen.

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2008an gizarte zerbitzu guztietan 480 enplegu garbi sortu ziren, 24.683 pertsonari zuzenean enplegua emanez (okupatuen % 2,6); horien arten % 70 emakumeak dira. Horrez gain borondatez lagundu zuten langileak, eskuzabal lan egiten dutenak hain zuzen ere, aipaturiko urtean 18.958 pertsona izan ziren, hau da, dedikazio osoko 1.762 enpleguren baliokidea.

Gizarte-zerbitzu ugariren artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren % 68 hartzen baitute. Biztanleria osoarentzako baliabideen artean nabarmenak dira familiei egindako transferentziak, zehazki Oinarrizko Errentaren programak (203 milioi euro, +% 17 aurreko urtearekin alderatuta) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (45 milioi, +% 9).

IV.1.1. TAULA. EAE-ko gizarte zerbitzuak magnitude nagusien bilakaera

	2007	2008	%08/07
GASTUA (mila eurotan)	**1.622.565**	**1.861.067**	**14,7**
- Gastu arruntak	1.212.025	1.342.916	10,8
- Familiei transferentziak	332.250	425.215	28,0
- Kapital-gastuak	78.289	92.936	18,7
Gastua/biztanleak (eurotan)	755,5	860,4	13,9
Gastua/BPGd (%)	2,4	2,7	-
FINANTZAKETA			
- Finantzaketa publikoa	1.142.199	1.346.932	17,9
- Finantzaketa pribatua	480.366	514.135	7,0
GIZA BALIABIDEAK			
Langileak guztira	42.965	42.641	1,6
- Norbere langileak	24.203	24.683	2,0
- Borondatezko langileak	18.762	18.958	1,0
BALIABIDE MATERIALAK			
- Erakunde kopurua	1.348	1.370	1,6
- Zentro kopurua	2.783	2.944	5,8
- Egoitza kopurua	897	994	10,8
- Egoitzetako plazak	23.563	24.081	2,2

Iturria:- EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko estatistika.

IV.1.2. TAULA. EAE-ko gizarte zerbitzuak gastuaren bilakaera eta banaketa biztanle mota bakoitzeko

	2007	2008	%08/07
GASTUA (mila eurotan)	1.622.565	1.861.067	14,7
Biztanleria oro har	586.943	715.722	21,9
- Familiei transferentziak	328.716	421.093	28,1
Haurrak-Gazteak	69.532	79.189	13,9
- Egoitzak	46.093	58.869	27,7
Adineko pertsonak	493.680	547.685	10,9
- Egoitzak	424.471	456.165	7,5
Ezinduak	384.213	414.423	7,9
- Egoitzak	66.896	80.442	20,2
- Okupazio-zentroak eta enplegu-zentro bereziak (1)	248.631	258.330	3,9
Emakumeak	11.137	15.625	40,3
Gizarte-bazterketa	77.060	88.423	14,7

(1) Enplegu-zentro bereziak
Iturria:- EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko estatistika.

Adineko pertsonei dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzeko eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen dituzten arreta motak. 2008an 18.108 plaza eskeini ziren egoitzetan, hau da, 65 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 4,4 plaza eman ziren. Administrazio publikoak plaza horien % 34 eskaini zuen titulartasun publikodun zentroetatik eta beste % 30 adostu zuen instituzio publikoekin.

Bestalde, duela gutxi egindako Arartekoaren azterlan batek[1] oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera aztertu du zehazki. Azterlanaren helburua zerbitzuak azken hamarkadako aldaketa sozialetara, eta legeen eta biztanleriaren aldaketetara zenbateraino egokitu diren jakitea da. Txostenaren emaitzen arabera, Arartekoak ateratako ondorioa zera izan da, zerbitzu horiek funtzionatzen dutela eta biztanleen portzentaje handi bati arreta emateko gai direla, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman sartzeko eginkizunak betez.

Hala ere, gastuari dagokionez, 2007ko datuak oinarri hartuz, txostenak dio hazkunde esanguratsua izan badu ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastua gizarte-zerbitzu guztiak baino gutxiago hazi da: 1995ean oinarrizko gizarte-zerbitzuek gastu osoaren % 5,1 hartu zuten, 2007an, aldiz, portzentaje hori % 3,3 jaitsi zen.

EAEko biztanleek oinarrizko gizarte-zerbitzuen inguruan jakiteari eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, 2006ko datuak oinarri hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko familien % 57,3k baino ez zekien zerbitzu horiek zeudenik eta, horietatik % 80,4k gainera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen zentroa zehazki non dagoen badaki, behar izanez gero bertara jotzeko.

[1] "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoera EAEn". ARARTEKOAK Eusko Legebiltzarrerako egindako Ezohiko Txostena. 2010.

IV.1.1. GRAFIKOA. Gizarte-zerbitzuetan eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arruntaren bilakaera EAEn



Iturria: ARARTEKOA ,EUSTATEN datuekin.

1

Langabeziari babesa: EIN-EEZP

IV.1.2 GRAFIKOA. Langabeziagatiko prestazioen gastuaren banaketa lurraldeka eta estatuko gastu osoarekiko portzentajea



Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. 2009ko datuak behin-behinekoak dira.

Langabeziako prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta horren ondorioz lana galtzen dutenak edo soldatak modu antzekoan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Ordaindutakoaren araberako prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko diru-laguntza) daude. Ordaindutakoaren araberako prestazioak lortzeko, langileek aurrez arrisku hori dela eta Gizarte Segurantzan kotizatu behar dute, eta langileen eta enpresarien kuoten bidez finantzatzen dira. Gutxi gorabehera soldata errealaren % 60-70 da, soldata altuena dutenentzat izan ezik. Horien portzentajea baxuagoa da langabetu bakoitzaren familiako egoeraren araberako gehienezkoak direla eta. Langabeziagatiko diru-laguntza prestazio ekonomiko batek (ordaindutakoaren araberako prestazioaren zenbatekoa baino gutxiago) eta Gizarte Segurantzara egin beharreko kotizazio egokiak osatzen dute; langileen eta enpresarien kuotek finantzatzen dute.

Oro har, Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoak emandako erreferentzia hartzen da aintzat, % 80. 2009rako 527,24€ ezarri ziren hilabeteko.

1.1. PRESTAZIOEN JASOTZAILEAK ETA LANGABEZIAREN ESTALDURA

2009an langabeziagatiko prestazioen onuradunen batez besteko kopuruak gora egin zuen, EAEn 78.400 pertsona izan ziren, aurreko urtean baino % 51,1 ge-

IV.1.3 GRAFIKOA. EAEn langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituztenen kopuruaren bilakaera hilabetero milakotan eta erregistratutako langabeziaren estaldura-tasa



Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN datuekin egindakoa.

IV.1.3. TAULA. Langabeziagatiko prestazioak EAE-n. 2009ko abendua

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %-TAN
Onuradunak guztira	13.097	27.785	44.748	85.630	3.034.712	2,82
Ordaindutakoaren araberako p.	8.672	18.364	29.520	56.556	1.638.618	3,45
Diru-laguntza	4.312	8.992	14.498	27.802	1.132.813	2,45
Gizarteratzeko Errenta Aktiboa	113	429	730	1.272	263.281	0,48
ESTALDURA TASA	**68,17**	**72,18**	**63,48**	**66,79**	**77,35**	**–**
Hileko prestazioa (mila eurotan)	17.838	35.454	52.338	105.630	2.772.136	3,81
Urtean metatutakoa (mila eurotan)	201.373	400.409	615.757	1.217.539	31.462.553	3,87
Batez besteko gastua onuradun bakoitzeko (€/hileko)*	1.362,0	1.276,0	1.169,6	1.233,6	963,3	128

Iturria: EEZP oinarri hartuta egindakoa.
(*) Estatuko datuak Behin Behineko Nekazarien Diru Laguntza hartzen du barne.

IV.1.4. TAULA. EAE-n langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituztenen kopurua batez beste

	ORDAINDUTAKOAREN ARA-BERAKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*			ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2005	16.717	13.931	30.648	6.464	6.723	13.187	23.617	21.454	45.071	35.931	47.459	83.390
2006	15.966	14.631	30.597	6.625	7.688	14.313	22.591	23.319	45.910	31.317	44.886	76.203
2007	14.982	14.973	29.955	6.521	8.606	15.127	21.503	23.579	45.082	31.068	43.514	74.582
2008	19.053	16.742	35.795	6.427	9.648	16.075	25.480	26.390	51.870	36.414	48.441	84.855
2009	**38.011**	**22.947**	**60.958**	**9.938**	**12.459**	**22.397**	**42.949**	**35.406**	**78.355**	**59.107**	**61.348**	**120.455**
% Var 07/08	27,2	11,8	19,5	-1,4	12,1	6,3	18,5	11,9	15,1	17,2	11,3	13,8
% Var 08/09	99,5	37,1	70,3	54,6	29,1	39,3	68,6	34,2	51,1	62,3	26,6	42,0

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.
Iturriak: EEZP (Prestazioen Zuzendariordetza) eta LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA.

hiago. Bederatzigarren urtez segidan jasotzaileen kopurua hazi egin da, 90eko hamarkadan nabarmen murriztu ondoren. Estatuan, jasotzaileen kopurua zertxobait gu-txiago hazi da: % 47,8, beraz, EAEko onuradunen parte-hartzea pixka bat hazi da, % 2,9 izatetik % 3,0 izatera. 78.400 pertsona horietatik % 52,5 Bizkaian bizi da, % 32,1 Gipuzkoan eta gainerako % 15,5 Araban.

Jasotzaileen hilabeteko bilakaeran arreta jarriz gero, irailean beherakada eman zela ikus daiteke (2008an bezala), eta urteko azken hilabeteetan etengabe hazi da, abenduan 85.600 jasotzaile guztira lortu arte. Kopuru hori haren aurreko hilabetean baino % 2,8 gehiago da, eta 2008ko abenduan baino % 33,1 gehiago.

Aipatutako 2009ko abenduko datuei dagokienez, jasotzaileen % 66k ordaindutakoaren araberako prestazioak jaso zituzten, % 32,5ek diru-laguntzak eta gainerako % 1,5ek Gizarteratzeko Errenta Aktiboa. Abenduan prestazioen 85.630 jasotzaile zeuden guztira, hortaz, EAEko langabetuen estaldura-tasa % 66,8 zen (EEZPn erregistratutako langabetuak kontuan izanik); Estatuan, aldiz, estaldura-tasa batez beste % 77,35 zen. Lurralde Historiko bakoitzeko, Gipuzkoak du estaldura zabalena (% 72,18).

Datu horiek kontuan izanik, 2009ko abenduan EAEko 100 langabetutik 33k ez zuten inolako prestaziorik jaso. Bai ordea, ehunetik 67k, eta horien artean 44k ordaindutakoaren araberako prestazioa jaso zuten, 22k diru-laguntza eta batek bakarrik Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Langabetuen eta arrazoi horregatik prestazioak jasotzen dituztenen urteko batez besteko balioak kontuan izanik[2], 2009an prestazioen onuradunen kopurua 78.355 izatera iritsi zen, aurreko urtean baino % 51,1 gehiago. Bestalde, erregistraturiko langabetuak 120.455 pertsona

[2] Kopuru horiek, EEZPren Prestazioen Zuzendariordetzak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearentzat beren beregi landutakoak, ez datoz bat geroago Lan Immigrazio Ministerioak argitaratutakoekin. Horregatik, iturri batetik eta bestetik eratorritako emaitzak arretaz hartu behar dira eta metodologikoki ezin dira alderatu.

IV.1.5. TAULA. Autonomia erkidego bakoitzeko, langabeziagatiko prestazioen gastuaren eta estalduraren adierazleak. 2008ko eta 2009ko abenduko hilabeteak

	Estaldura-tasa			Gasto medio por beneficiario (/mes)		
	2008	2009	Ald. %-tan, 08/09	2008	2009	Ald. %-tan, 08/09
Andaluzia	82,9	86,8	4,7	807	729	-9,7
Aragoi	76,0	78,4	3,2	1.139	1.022	-10,3
Asturias	68,5	72,8	6,3	991	916	-7,5
Balera Uharteak	112,2	111,3	-0,8	1.119	1.029	-8,0
Valentziako Erkidegoa	67,0	69,3	3,5	1.051	958	-8,8
Kanariak	65,9	73,1	10,9	880	758	-13,9
Kantabria	69,1	70,7	2,3	1.056	954	-9,6
EAE	**63,9**	**66,8**	**4,5**	**1.200**	**1.234**	**2,8**
Gaztela-Mantxa	64,3	68,5	6,6	1.023	960	-6,1
Gaztela eta León	60,0	62,9	4,9	960	874	-8,9
Katalunia	83,9	86,0	2,6	1.140	1.057	-7,3
Ceuta	39,4	54,8	39,0	–	–	–
ESTATUA	**74,1**	**77,3**	**4,4**	**989**	**914**	**-7,7**
Extremadura	87,2	89,6	2,7	691	652	-5,6
Galizia	61,3	68,1	11,1	930	862	-7,3
Errioxa	70,1	74,7	6,5	1.207	1.043	-13,6
Madril	68,8	70,9	3,0	1.138	1.084	-4,8
Melilla	33,9	46,4	37,0	–	–	–
Murtzia	70,0	70,2	0,2	1.172	987	-15,8
Nafarroa	71,2	77,9	9,4	1.192	1.107	-7,1

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

dira batez beste (2008rekin alderatuta +% 42). Ondorioz, estaldura-tasa % 65 da, aurreko urtekoa baino 3,9 puntu gehiago.

Sexuaren arabera prestazioen onuradunak direnak kontuan hartuz, ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten emakumeen kopurua % 37,1 hazi da aurreko urtearekin alderatuta; 2009an 22.947 jasotzaile zeuden. Gizonen artean jasotzaileen kopurua neurri handiagoan hazi da: 2008an 19.053 izatetik azken urtean 38.011 izatera pasa da; horrek % 99,5eko hazkundea egon dela esan nahi du. Laguntzako prestazioak kontuak izanez gero, horretan ere jasotzaile emakumeen kopurua (+% 29,1) gizonena baino (+% 54,6) gutxiago hazi da.

IV.1.4. GRAFIKOA. Langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasen bilakaera EAEn



Iturria: EEZP eta LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN datuekin egindakoa.

Laburbilduz, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen duten pertsonak kontuan izanik, 2009an prestazioen emakume onuradunen kopurua hazi egin zen, 35.406 pertsona lortu arte (+% 34,2); prestazioak jaso zituzten gizonen kopurua, aldiz, urtean batez beste 42.949 izateraino hazi zen, hau da, % 68,6.

Bilakaera horrek gizonen taldea berriz ere gehiengoa izatea dakar: 2008an % 50,9 ziren emakumeak eta urte berean langabeziagatiko prestazioak jasotzen zituzten pertsonen % 45,2 jaitsi zen. Hala ere, langabeziagatiko prestazioen batez besteko zenbatekoak emakumeentzat baxuagoak dira gizonentzat baino: 2009an, Estatuko batez besteko datuen arabera, langabeziagatiko ordaindutakoaren araberako prestazioen onuradunentzako eguneko batez besteko zenbateko gordinak 24,88 € egin zuen gora emakumeen kasuan eta 29,41 € gizonen kasuan.

Prestazioen onuradunen kopuruaren aldakuntzek eta erregistraturiko langabeziaren zifren bilakaerak norabide bereko bilakaerak bideratzen ditu bi sexuen langabeziaren estaldura-tasetan. Gizonen kasuan % 72,6 eta emakumeen kasuan % 57,7 da tasa hori (2008an % 70 eta % 54,5 ziren ratioak, hurrenez hurren).

Langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasak autonomia erkidego bakoitzeko ezberdinak dira. Balear Uharteetan, eskuragarri dauden datuen arabera, langabetu guztiek jasotzen dute nolabaiteko prestazioren bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan gutxi gorabehera langabetuen erdiek jasotzen dute prestazioren bat. 2009ko abenduko datuen arabera, Estatuko batez bestekoa % 77,3 izan zen (2008ko abenduarekin alderatuta +% 4,4). Horrekin alderatuta, EAEko datua baxuagoa da (hilabete horretan erregistraturiko langabetuen % 66,8).

2009ko abenduan langabeziagatiko prestazioen onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.234 euro zen (urtebete aurrerago baino % 2,8 gehiago). Kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino gehiago da (914 €, 2008ko abenduarekin alderatuta -%7,7). Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko gastua Estatu osokoa baino % 35 gehiago izan zen EAEn. EAE, Aragoi, Balear Uharteak, Errioxa, Madril eta Nafarroa datu horren zerrendan lehenak dira.

1.2. LANGABEZIA BABESTEKO GASTUAK ETA DIRU SARRERAK

EAEn langabeziagatiko prestazioetara bideraturiko gastu osoa 188,8 milioi euro izan ziren 2009an behin-behineko datuen arabera, 2008an baino % 70,6 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-ren % 1,8 da, aurreko urtean baino 8 hamarren gehiago.

Horrez gain, Estatuko gastu osoaren % 3,9 da, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago. Tasa hori 1995etik (% 5,8) 2009 urtera arte murriztu egin da. Gastu osoaren % 16,5 Arabari dagokio. Kopuru hori % 85,8 hazi da 2008 urtearekin alderatuta. Bizkaiaren gastua gastu osoaren % 50,6 da (2008rekin alderatuta +% 60,5) eta Gipuzkoarena % 32,9 (+% 72,4).

Beste alde batetik, enpresek eta soldatako langileek ordaindutako eta EAEko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutako EEZPrentzako Gizarte Se-

IV.1.6. TAULA. EAE-ko langabeziaren gastua guztira eta EEZP-ren diru sarrerak gizarte segurantzako kotizazioen ondorioz (milioi eurotan)

	2006	2007	2008	2009	Ald. %-tan, 08	Ald. %-tan, 09
Ordaindutakoaren araberako prestazio gordinak	362,03	355,71	424,05	759,87	19,2	79,2
(-) Gizarte Segurantza langabetuaren kontura	18,76	18,11	20,86	42,04	15,2	101,5
(-) PFEZren atxikipenak	3,53	2,73	2,09	2,45	-23,4	17,2
Ordaindutakoaren araberako prestazio garbiak	339,74	334,87	401,10	715,38	19,8	78,4
Langabeziagatiko diru-laguntza prestazioak	66,43	71,33	79,58	111,18	11,6	39,7
EEZPren kotizazioak Gizarte Segurantzara	170,18	167,50	193,31	317,75	15,4	64,4
- EEZPren kargura, ordaindutakoaren araberako prestazio bakoitzeko	153,90	150,03	168,15	289,81	12,1	72,4
- EEZPren kargura, laguntzako prestazio bakoitzeko	16,28	17,47	25,16	27,94	44,0	11,0
LANGABEZIAREN GASTUA GUZTIRA	**598,64**	**594,54**	**696,94**	**1.188,80**	**17,2**	**70,6**
EEZP-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	**1.077,69**	**1.130.51**	**1.187,94**	**–**	**5,1**	**–**
SALDOA	479,05	594,54	491,00	–	-8,4	–
DIRU SARRERA/GASTUA	1,80	1,90	1,70	–	-10,4	–

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa. Prestazioen Zuzendariordetza Nagusia.

IV.1.5. GRAFIKOA. Langabeziagatiko prestazioak EAEn: Jasotzaile kopuruaren eta gastuaren bilakaera



Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

IV.1.6.GRAFIKOA. Langabeziagatiko prestazioen gastuak eta diru-sarrerak EAEn



Iturria: EEZP eta EUSTATen datuekin egindakoa.

gurantzaren kotizazioen diru-sarrerek gora egin zuten 2008an (eskuragarri dauden azken datuak) eta 1.188 milioi euro izan ziren guztira, 2007an baino % 5,1 gehiago. Hortaz, EAEko langabeziaren arriskua estaltzeko diru-sarreren eta gastuen arteko kendura murriztu egin da. Aurten, 491 milioi euroko saldoa dago, 2007an baino 47 gutxiago.

Beste modu batera esanda, diru-sarreren eta gastuaren arteko ratioak gora egin zuen 2008an, 1,70 izatera iritsi zen, 2007an baino bi hamarren gutxiago.

2

Gizarte segurantzaren prestazioak EAE-n

IV.2.1. TAULA. Gizarte segurantzaren pentsioak EAE-n, mota bakoitzeko. Taula-laburpena

	2006	2007	2008	2009	%07/08	%08/09
Onuradun kopurua (urteko batez bestekoa)						
Kotizaziopeko pentsioak	464.400	471.900	479.400	487.600	1,6	1,7
Kotizazio gabeko pentsioak	9.938	9.742	9.633	–	-1,1	–
Laguntzako pentsioak	1.317	1.201	1.158	–	-3,6	–
MGLko diru-laguntzak*	850	759	680	–	-10,4	–
GUZTIRA	476.505	483.602	490.851	–	1,5	–
Biztanleen %-a	22,5	22,7	22,9	–	0,7	–
Hileko zenbatekoa (€)						
Kotizaziopeko pentsioak	806,10	843,02	898,27	938,44	6,6	4,5
Kotizazio gabeko pentsioak (abe.):						
- Baliaezintasuna	308,20	317,40	339,60	–	7,0	–
- Erretiroa	272,40	285,70	309,80	–	8,4	–
Laguntzako pentsioak	149,86	149,86	149,86	–	0,0	–
MGLko diru-laguntzak						
- Gutxieneko diru-sarreren bermea	149,86	149,86	149,86	149,86	0,0	0,0
- Inoren laguntza behar izanez gero	58,45	58,45	58,45	58,45	0,0	0,0
- Mugikortasuna eta garraio-gastuak	47,80	49,54	56,14	57,26	13,3	2,0
Zenbatekoa guztira (milioi eurotan)						
Kotizaziopeko pentsioak	5.261,42	5.699,30	6.044,86	6.406,17	6,1	6,0
Kotizazio gabeko pentsioak	40,71	42,01	44,48	–	5,9	–
Laguntzako pentsioak	2,90	2,70	2,50	–	-7,4	–
MGLko diru-laguntzak*	1,70	1,52	1,40	–	-8,0	–
GUZTIRA	**5.306,73**	**5.745,53**	**6.093,24**	**–**	**6,1**	**–**
BPGd %	**8,59**	**8,71**	**8,80**	**–**	**1,0**	**–**

Iturria: EUSTATen, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

2008an (urte horretara arte baino ez dago eskuragarri informazio bateratua) 490.851 onuradunek jaso zituzten Gizarte Segurantzaren sistemako askotariko pentsioak. Kopuru hori % 1,5 hazi zen 2007rekin alderatuta, 2006an bezala. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik da (+% 1,6), izan ere, beste modalitateetan, bilakaeraren intentsitatea ezberdina izan arren, jasotzaileen kopuruak murrizteko joera izan du. Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak jaso zituzten EAEko biztanleak % 22,7 izan ziren 2007an eta % 22,9 2008an.

Kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoa ia 45 milioi euro izan zen guztira, hau da, % 5,9ko hazkuntza izan zuen. Aldiz, 2007ko abenduarekin alderatuta, abenduan jasotako hileko batez besteko zenbatekoa % 7 hazi zen baliaezintasunaren modalitatean eta % 8,4 erretiroaren modalitatean. Azkenik, laguntzako pentsioen gastuak, azken urteetan aldatu ez denak, % 7,4 egin du behera, eta jasotzaileen kopuruak beste urte

batez behera egin du, 2007an baino neurri txikiagoan bada ere (-% 3,6, 2007an -%8,4). Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko diru-laguntzen jasotzaileak, bestalde, % 10,4 gutxiago dira, ondorioz, zenbatekoa guztira % 8 gutxiago da.

Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoari dagokionez, 2008an % 6,6 hazi zen, eta zenbatekoa guztira 6.045 milioi euro izan zen, 2007an baino % 6,1 gehiago. Halaber, 2009an pentsio horien batez besteko zenbatekoa % 4,5 hazi zen 938,44 € izatera iritsiz eta gastua guztira 6.406 milioi euro izan zen (+% 6).

Labur esanda, EAEn pentsioen guztizko zenbatekoa hazi egin zen 2008an, behin-behineko hasierako hurbilketa eginez, 6.093 milioi euro izan ziren, 2007rekin alderatuta % 6,1 gehiago. Hortaz, BPGd-ri dagokionez duen portzentajeak gora egin du, 2007an % 8,71 izatetik % 8,80 izatera pasa da (EUSTATen behin-behineko datuak oinarri hartuta).

2.1. BESTERENDU GABEKO KUDEAKETAKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

EAEra besterendu ez diren Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek kudeatzen dituzten prestazio

IV.2.2. TAULA. Gizarte segurantzaren diruzaintza orokorraren kuoten bilketaren bilakaera. Milioi eurotan

	Milioi eurotan.				% 2008	Aldakuntza %-tan		
	2005	2006	2007	2008		2005-06	2006-07	2007-08
Orokorra	3.924	4.143	4.475	4.682	72,6	5,6	8,0	4,6
Autonomoak	545	568	588	616	9,6	4,2	3,5	4,8
Nekazaritzakoa*	14	15	16	4	0,1	7,1	6,7	-75,0
Itsas langileak	29	30	30	30	0,5	3,4	0,0	0,0
Etxeko langileak	20	23	22	24	0,4	15,0	-4,3	9,1
Ikatz-meatzaritzakoa	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI/LG kuotak (Diruzaintza)	7	8	6	7	0,1	14,3	-25,0	16,7
EEZPko langabetuak	378	374	396	418	6,5	-1,1	5,9	5,6
GSDO-REN KUOTAK GUZTIRA	**4.917**	**5.160**	**5.533**	**5.781**	**89,6**	**4,9**	**7,2**	**4,5**
LI/LGengatiko mutualitateak	406	435	468	479	7,4	7,1	7,6	2,4
KArengatiko mutualitateak	137	150	164	189	2,9	9,5	9,3	15,2
MUTUALITATEAK GUZTIRA	**543**	**585**	**632**	**668**	**10,4**	**7,7**	**8,0**	**5,7**
GS-REN SISTEMAREN BILKETA GUZTIRA	**5.460**	**5.745**	**6.165**	**6.449**	**100,0**	**5,2**	**7,3**	**4,6**
Langabeziarako bildutako kuotak	1.023	1.078	1.131	1.188	18,4	5,4	4,9	5,0
FOGASA	50	42	29	30	0,5	-16,0	-31,0	3,4
Lanbide-prestakuntza	103	109	117	124	1,9	5,8	7,3	6,0

Iturria: GSDOren datuekin egindakoa: Urteko Memoriak.
(*)Uztailaren 4ko 18/2007 Legearen bidez, Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezira pasa dira; horren ondorioz 2007 eta 2008 artean izandako Nekazaritzako Erregimenaren bilketak beherakada handia izan zuen.

IV.2.1. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzaren kotizazio* bakoitzeko bilketaren bilakaera EAEn



(*) Langabezia, LP eta FOGASA gabe.
Iturria: GGDO oinarri hartuta egindakoa.

ekonomikoak (oro har, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, eta Itsasoko Gizarte Institutua Itsas Langileen Erregimen Berezia aplikatzen den kasuetan) bi motatakoak izan daitezke:

– Ordaindutakoaren araberakoak, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonei errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.
Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren araberako ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

2008an (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.449 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2007an baino % 4,6 gehiago, hau da, Estatuan guztira bildutakoaren % 6 (2007an % 7). Bildutako kopuru horretatik 1.093 milioi Arabari dagozkio (% 17), 2.088 Gipuzkoari (% 32) eta 3.267 milioi Bizkaiari (% 51).

Zenbateko horren % 89,6 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; aldiz, gainerako % 10,4 lan-istripuen mutualitateetatik eratorritakoa da. Kuoten % 72,6ren jatorria erregimen orokorrak dira eta 4.682 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta +% 4,6).

IV.2.3. TAULA. EAE-n gizarte segurantzak aintzat hartzen dituen betebeharren zenbatekoaren bilakaera. Transferentzia arrunten kap. (mila eurotan)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	%06/07	%07/08
Kotizaziopeko pentsioak	4.001.550	4.245.874	4.580.986	4.908.668	5.261.417	5.699.297	6.044.857	8,3	6,1
Aldi baterako ezintasuna	193.410	212.455	234.008	248.887	257.841	262.455	258.014	1,8	-1,7
Amatasuna/aitatasuna, haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskua	56.571	67.154	71.225	78.024	84.514	100.990	117.706	19,5	16,6
Familiek jasotzen dituzten prestazioak	32.207	34.710	36.100	39.193	41	43.127	48.111	5,2	11,6
PRESTAZIOAK GUZTIRA	**4.283.738**	**4.560.193**	**4.922.319**	**5.274.772**	**5.644.772**	**6.105.589**	**6.468.688**	**8,2**	**5,9**
Beste transferentzia batzuk	159.627	154.704	160.569	161.402	169.304	175.598	69.242	3,7	7,8
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	**4.443.365**	**4.714.897**	**5.082.888**	**5.436.174**	**5.814.076**	**6.281.467**	**6.537.930**	**8,0**	**6,0**
Prestazioak/ Transferentzia Arruntak %-tan	96,4	96,7	96,8	97,0	97,1	97,2	98,9	0,1	1,7

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA oinarri hartuta egindakoa. Gizarte Segurantzaren aurrekontuaren jarraipena.

IV.2.4. TAULA. Erregimen bakoitzeko batez besteko zenbatekoen eta pentsioen kopurua. EAE-estatua konparazioa. 2009ko abendua

	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	
		Zenbatekoa ( )	s/ Estatua %-tan
Orokorra	337.839	1.097,46	121,1
Autonomoak*	79.680	609,79	114,7
Nekazaritzakoa*	1.351	487,32	96,6
Etxekoa	5.995	466,25	100,3
Itsasokoa	13.317	1.005,39	121,6
LI ETA LG	15.208	974,99	112,2
SOVI	37.489	345,60	99,0
Ikatz	257	934,15	70,3
Guztira	**491.136**	**945,19**	**124,4**

Iturria: GSIN

*Uztailaren 4ko 18/2007 Legearen bidez, Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezira pasa dira.

Halaber, Gizarte Segurantzak langabeziari, FOGASAri eta lanbide-prestakuntzari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.342 milioi euro izan ziren 2008an, aurreko urtean baino 65 gehiago.

Beste alde batetik, aitortutako betebeharrak, 2008an Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak pentsioetarako egindako transferentzia arrunten kon-tzeptu gisa, 6.468,7 milioi euro dira, 2007an baino % 5,9 gehiago. Kopuru hori Gizarte Segurantzak gure autonomia erkidegoan burutzen dituen transferentzia arrunten % 98,9 da.

Kopuru hori, 2008an EAEko BPGd-ren % 9,3 zen -2007an % 9,2- eta azken bosturtekoan % 41,9 hazi da. Prestazioetarako zenbatekotik % 93,4, 6.045 milioi euro, kotizaziopeko pentsioei dagokie (2007rekin alderatuta +%6,1) eta gainerako % 6,6 beste modu bateko prestazioei. Prestazio horien barruan, % 61 aldi baterako ezintasunera bideratzen da (amatasun/aitatasunagatiko, haurdunaldi eta edoskitzaroagatiko edo familiei ematen zaizkien prestazioak doaz horren segi-

IV.2.5. TAULA. EAE-n gizarte segurantzaren kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoa eta jasotzaile kopurua

	2007	2008	2009	% 2009	2009 s/LGS %-tan	07/08	08/09
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	471.900	479.400	487.600	100,0	–	1,6	1,7
EZINTASUN IRAUNKORRA	43.900	44.400	44.600	9,1	–	1,1	0,5
ERRETIROA	285.100	290.800	297.500	61,0	–	2,0	2,3
ALARGUNTZA	127.000	128.500	129.800	26,6	–	1,2	1,0
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	15.800	15.700	15.800	3,2	–	-6,0	0,6
Batez besteko zenbatekoa (euro/hileko)							
GUZTIRA	843,0	898,3	938,4	100,0	150,4	6,6	4,5
EZINTASUN IRAUNKORRA	984,0	1.033,4	1.070,2	114,0	171,5	5,0	3,6
ERRETIROA	958,6	1.023,7	1.069,5	114,0	171,4	6,8	4,5
ALARGUNTZA	592,9	628,4	656,0	69,9	105,1	6,0	4,4
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	375.5	401,4	418,4	44,6	67,0	6,9	4,2

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN "Lan Estatistiken Aldizkaria" oinarri hartuta egindakoa.

IV.2.6. TAULA. EAE-n pentsioen arloko ahaleginaren hurbilketa

Urteak	Kotizaziopeko pentsioak (1)	Batez besteko zenbatekoak, euro/hileko (2)	Zenbatekoa guztira, euro/hileko (3)=(1)*(2)	Gizarte Segurantzan afiliatutakoak (4)	Ahaleguna: euro/hileko afiliatu bakoitzeko (3) / (4)
2004	440.9	733,2	323.267.880	889.6	363,39
2005	449.2	771,8	346.692.560	911.9	380,19
2006	464.4	806,1	374.352.840	933.2	401,15
2007	471.9	843,0	397.811.700	957.9	415,30
2008	479.4	898,3	430.630.638	967.9	444,91
2009	**487.6**	**938,4**	**457.563.840**	**934.7**	**489.531**
Ald. %-tan, 08	1,6	6,6	8,2	1,0	7,1
Ald. %-tan, 09	1,7	4,5	6,3	-3,4	10,0

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN datuekin egindakoa.

dan). Portzentaje horiek ia ez dira aldatu azken urteetan.

EAEn Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunen kopuruari dagokionez, 2009an guztira 487.600 pertsona izan ziren, 2008an baino % 1,7 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopurua % 0,5 hazi da azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak % 2,3 hazi dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 1. Azkenik, zurztasunagatik kotizaziopeko pentsioa jasotzen dutenen kopurua 15.800 izan zen (+% 0,6).

2009an batez besteko zenbatekoak gora egin zuen, +40 euro/hileko, eta hileroko zenbatekoa 938,4 euro izan zen, hau da, 2008rekin alderatuta % 4,5 gehiago.

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituztenen % 61ek jasotzen dutena), nabarmentzekoa da 2009ko batez besteko zenbatekoa 1.069,50 euro zela hileko, 2008an baino % 4,5 gehiago. Urte hartako batez besteko zenbatekoa (1.023,70 €) Lan Kostuaren Urteko Inkestan EINek kalkulaturiko Lan Kostuaren "lansariak eta soldatak" izeneko osagaiaren EAEko hileko batez besteko zenbatekoaren % 48,6 da. Osagai hori, hileko 2.107 euro izanik, 2008ko (ez dago urte horretatik aurrerako daturik) EAEko batez besteko soldataren hurbilketatzat har daiteke.

2008an pentsiodun bezala alta emanda dauden pertsonen erretiroagatiko pentsioa bakarrik hartuz gero kontuan, batez besteko zenbatekoa 1.051,70 euro da (Estatuko datua da, ez dago EAEri buruzko informaziorik). Hori Aipatutako Lan Kostuari buruzko Inkestako Estatuaren "lansariak eta soldatak" osagaiaren % 58,3 da. Euskal Autonomia Erkidegoko pentsio berrien eta

IV.2.2. GRAFIKOA. Kotizaziopeko pentsioen kopuruaren bilakaera EAE-n eta estatuko pentsio guztiekin alderatuta duen pisua



Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA oinarri hartuta egindakoa.

batez besteko soldataren arteko ratioari eutsi ahal izanez gero, 2008an erretiratutakoen batez besteko pentsioa 1.228 euro izango litzateke, erretiroagatiko pentsio guztien 1.023ren aldean.

Beste alde batetik, pentsioen batez besteko zenbateko guztiek gora egin zuten 2009an, neurri ezberdinetan izan bazen ere: alarguntzagatik, erretiroagatik eta zurztasunagatik jasotako pentsioak % 4,2-4,5 hazi ziren, ezintasun iraunkorragatikoa, aldiz, % 3,6, hilean batez beste 1.070,20 € lortuz.

Hala, batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz tasa altuagotan hazi da, baita KPIren gainetik ere. 1983ko batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata (193,29 €) baino zertxobait baxuagoa zen (157,38 € EAEn eta 138,29 € batez beste Estatuan). 2009ko abenduan EAEko batez besteko pentsioa (945,19 €) % 4,4 hazi zen 2008ko abenduarekin alderatuta. Aldiz, urte arteko KPIren aldakuntza % 1 izan da hilabete horretara arte.

2.2. ESKUALDATUTAKO KUDEAKETAKO GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOAK

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira.

Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute, hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko Estatuko 26/1990 Legean dago. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Babes Ekintza eta Egitura Arrazionalizatzeko presazko neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako berrikuntza osatu zuen. Horren bidez, babeserako kotizazio gabeko prestazio maila antolatu zen, lanbide- edo kotizazio-sistemarako sarbiderik ez duten eta beharrizan-egoeran dauden pertsonei prestazioak ematea ahalbidetuko duena. Hala, adinekoen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte-babesaren sistema unibertsala denez, ez da beharrezkoa prestazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko aurrez kotizatu izana, eta kotizazio gabekoa denez, Estatuko Aurrekontu Orokorren Urteko Legeetan zehazten da. Prestazio hori erabat finantzatzea Estatuari dagokio, eta Gizarte Segurantzak bertatik jasotzen ditu kasuan kasuko transferentziak, 26/1990 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eta Toledoko Ituneko gomendioekin bat etorriz.

Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena, aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea Foru Aldundiei dagokie. Kotizazio gabeko prestazio horiek hiru motatakoak izan daitezke: Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta egoera pertsonalaren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizazio gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren batuketak pentsioaren urteko zenbatekoa baino baxuagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

Kotizazio gabeko pentsioen onuradunak izan eta bizilekua EAEn duten gehienak emakumeak dira (2008ko datuak), kopuru osoaren % 64 gutxi gorabehera. Ehuneko hori Estatuko batez bestekoa baino 8 hamarren txikiagoa da. Emakumeen tasa hori Estatuko baxuena da, Ceuta hiri autonomoaren ondotik. Gainera, IMSERSOk, bere datuen fitxategian oinarrituz, pertsona horien artean gehienen egoera zibila “ezkongabea” dela dio, eta % 50 ia ezkonduta dago. Datu hori, Estatuko kotizazio gabeko pentsiodun gehienen egoera zibilaren ez

IV.2.3. GRAFIKOA. Kotizazio gabeko pentsioak EAEn. Onuradunen bilakaera eta batez besteko zenbatekoak



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa.

bezalakoa da, baita Gaztela eta Leónen, Errioxan eta Galizian. Gainerako autonomia erkidegoetan ezkonduak dira gehiengoa. EAEko emakume pentsiodunen artean alargunen parte-hartzea ere, % 9, egoera zibil hori duten gizonena baino askoz handiagoa da, ia laukoitza alegia. Halaber, bananduta eta dibortziatuta dauden emakumeak halako egoeran dauden gizonen kopurua baino gehiago dira.

Beste alde batetik, erretiroagatiko onuradun gehienak 70 eta 79 urte artekoak dira (guztizkoaren % 50). Gainera, emakumeak gehiengoa dira adin-talde guztietan, % 80 inguruko portzentajeak dituzte. 85 urtetik gorakoen artean % 90 emakumeak dira. Baliaezintasunagatiko pentsioen onuradunen kasuan, % 73 30 eta 49 urte artekoa da, eta horien artean 35 eta 44 urte artean dituztenek osatzen dute talderik jendetsuena. Gainera, 50 urtetik gora dituzten baliaezintasunagatik kotizazio gabeko pentsiodun gehienak emakumeak dira.

Ezintasun-mailari dagokionez, EAEn baliaezintasunagatik kotizazio gabeko pentsiodunen % 65k % 65 eta % 74ko ezintasun-maila dute. Porportzio hori Estatuko autonomia erkidego guztien artean bigarren baxuena da, Gaztela-Mantxaren ondotik.

2008an kotizazio gabeko 9.633 pentsio aitortu ziren, 2007an baino 109 gutxiago, eta EAEko biztanleen % 0,5 barne hartuz. Hiru Foru Aldundien informazio bateratua 2008ra arte bakarrik dago eskuragarri, eta informazio hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak eman dio kontseilu honi. Erretiroagatik 4.303 pentsio eman ziren abenduan eta baliaezintasunagatik 5.330. Oro har, aurreko urtean baino pentsio gutxiago aitortu ziren, baina beherakada ez da hain esanguratsua.

IV.2.7. TAULA. Gizarte segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak EAE-n: adierazle nagusiak

	ONURADUNAK ABENDUAN		ABENDUKO BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ( )		ZENBATEKOA GUZTIRA (MILIOI EUROTAN)	
	ERRETIROA	BALIAEZINTASUNA	ERRETIROA	BALIAEZINTASUNA	ERRETIROA	BALIAEZINTASUNA
2005	4.696	5.331	260,7	296,7	17,4	21,8
2006	4.549	5.389	272,4	308,2	17,7	23,0
2007	4.363	5.379	285,7	317,4	18,0	24,0
2008	**4.303**	**5.330**	**309,8**	**339,6**	**19,0**	**26,0**
Ald. %-tan 06/07	-4,1	-0,2	4,9	3,0	1,7	4,3
Ald. %-tan 07/08	-1,4	-0,9	8,4	7,0	5,6	8,3

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN eta EUSKO JAURLARITZAREN datuen bidez egindakoa.

IV.2.4. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituztenen banaketa EAEn, sexuen eta egoera zibilaren arabera, 2008



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin.

Estatuari dagokionez, 9.633 pentsio horiek % 2 dira, 2007an baino hamarren bat gutxiago. Lurralde bakoitzeko, Bizkaiak % 63 hartu zuen, Gipuzkoak % 26 eta Arabak gainerako % 11.

Kotizazio gabeko pentsioen gehieneko zenbatekoak urtero ezartzen dira Estatu osorako. 2008rako hilero 336,33 € izan ziren erretiroagatik eta % 65 edo gehiagoko ezintasun-mailadun baliaezintasunagatik emandako pentsioak. Baliaezintasunagatik emandako pentsioei % 50eko osagarria gehitzen zaie % 75 edo gehiagoko ezintasun-maila izan eta beste pertsona baten laguntza behar dutenean. Gainera, onuradunak norbere errentak edo diru-sarrerak izanez gero, kopurua era berean murrizten da. Murrizketa izan arren, aitortu beharreko pentsioa ezarritakoaren % 25 izango da gutxienez, hilean 84,08 €.

EAEn 2008ko abenduan baliaezintasunagatik pentsiodun bakoitzari benetan ordaindutako batez besteko zenbatekoa 339,6 € izan zen eta 309,8 € erretiroagatik. Azken hori baxuagoa da lehenengoetako batzuk aipatu den osagarria jasotzen dutelako. Bi pentsioen zenbatekoen batura kotizaziopeko pentsioetan arrazoi beragatik jasotakoaren % 30 izan zen gutxi gorabehera.

Beste alde batetik, 2008an EAEn kotizazio gabeko pentsioen gastua 45 milioi euro izan zen (2007an baino 3 gehiago) eta honela banatu ziren: 19 milioi erretiroagatiko pentsioetarako eta 26 milioi baliaezintasunagatiko pentsioetarako. Pentsio horien zenbatekoa Estatuan sortutako gastuaren % 2 da, pentsio kopuruaren portzentaje bera. Kotizaturikoen arloan, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoan erretiroagatik eta baliaezintasunagatik emandako pentsioek sortutako gastua Estatuko gastu osoaren % 7 da (aurreko urtean ere portzentajea bera izan zen).

EAEn pentsio horien onuradunen kopururik handiena 1999an lortu zen, 10.972 pertsona izan ziren guztira. Ordutik aurrera kopuruak behera egin du, beherakada-tasa esanguratsuak izan ez diren arren. 2008an 2007an baino pentsio gutxiago aitortu dira baina % 1,1 eskas izan da beherakada. Pentsiodunak direnen kopuruak behera egiteak ez du eraginik izan 2008an sortutako gastuan; % 7,1 hazi da aurreko urtearekin alderatuta. Estatuan % 4 egin du gora.

2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak

Foru Aldundiei besterendutako Gizarte Segurantzaren laguntzako pentsioak banan-banan ematen diren laguntza ekonomikoak dira, aldizkakoak eta mugagabeak. Irauteko bitarteko ekonomikorik ez duten adinekoei (65 urtetik gorakoak) eta gaixo edo erabateko ezintasuna duten ezinduei ematen zaizkie (urteko dirusarreren batura batez besteko pentsioaren urteko zenbatekoa baino baxuagoa denean). Kotizazio gabeko pentsioak jasotzeko Estatuan legez bizitzearen irizpidea bete behar da (gutxienez ere 10 urte -5 baliaezintasunagatik denean-, eta eskaria egin aurretik 2 urte gutxienez). Laguntzako pentsioen kasuan, ordea, ezartzen den bakarra da onuradunak EAEko udalerriren batean erroldatuta egon behar dutela, herritartasun atzerritarrak dutenak, errefuxiatuak eta erkidegoan bizitzeko baimena duten herritartasun gabekoak barne.

Prestazio horiek pixkanaka murrizten ari dira 5/1992 Errege Lege Dekretua indarrean sartu ondoren indargabetu egin zirelako eta, ondorioz, data horretatik ez da alta berririk eman; hortaz, orduan aitortutako pentsioak eta oro har kopuru handiagokoak diren kotizazio

IV.2.5. GRAFIKOA. Gizarte Ongizateko Funtsen pentsioak: onuradunen bilakaera eta gastua guztira (mila eurotan)



Iturria: Eusko Jaurlaritza Foru Aldundietako datuekin

gabeko pentsioak jasotzea aukeratu ez dutenak baino ez daude.

2008ren amaieran (urte horretatik aurrera ez dago informazio bateraturik eskuragarri), Eusko Jaurlaritzak emandakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik 772 pentsio zeuden adinekoentzat eta 286 gaixorentzat; horiek, guztira, urtebete atzerago baino 1.158,43 gutxiago izan ziren. Laguntzaren zenbatekoak gora egin zuen 2008an, 1992tik aurrera bezala, eta 149,86 € izan ziren hilero. Pertsona horiek, horrez gain, urtean aparteko bi ordainsari zituzten.

Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioen zenbatekoa guztira 2,5 milioi izan zen 2008an EAEn, urtebete atzeragoko zenbatekoa baino % 7,4 baxuagoa.

2.2.3. Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko prestazioak

Minusbaliatuak Gizarteratzeko 13/82 Legean aitortutako prestazioak, izenburuak adierazten duen moduan, gutxienez % 65eko ezintasuna duten 18 urtetik gorakoak eta pertsonako lanbide arteko gutxieneko soldataren % 70 baino gutxiagoko urteko baliabideak dituzten pertsonei dago zuzendutan (norbere ardurapeko pertsonak izanez gero, % 10 gehiago da mendeko bakoitzeko).

Prestazio horien hileroko zenbatekoa finkoa da 1995etik aurrera, 149,86 euro, eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntzak dira (diru-laguntzaren

onuradunak antzeko prestazio ekonomiko bat jasotzen badu, diru-laguntzaren zenbateko finkoari beste prestazioaren zenbatekoa murriztuko zaio); 58,45 euro dira inoren laguntza behar izateagatiko diru-laguntzaren prestazioa. Mugikortasunerako diru-laguntza eta garraio-gastuen ordaina urtero eguneratzen da; 2008an hilero 56,14 euro izan ziren (2008tik aurrera ez dago informaziorik eskuragarri, Eusko Jaurlaritzak emandakoa da), 2007an baino % 13,3 gehiago. Diru-laguntza guztiak hileko 12 ordainketatan emango dira, gehi aparteko bi ordainsari gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntzak jasotzean eta inoren laguntza behar dutenei.

Diru-laguntza horiek Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu ondoren indargabetu ziren. Lege horren bidez Gizarte Segurantzan ezarri ziren kotizazio gabeko prestazioak. Hala ere, data horren aurretik ere diru-laguntza horien onuradunak zirenek prestazio horien onuradun izaten jarraituko duten ala ez aukeratu dezakete edo kotizaziopeko pentsioa eskatu, baina ezin izango dira indargabetutako babes-ekintzen aitorpen berriak lortu. Hori dela eta, Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako prestazioekin gertatzen den bezala, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko prestazioen onuradunen kopuruak behera egiten du urtez urtez.

Laguntzak lau modutara jaso daitezke:

– Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntza. Prestazioa horren onuradunak % 65 baino gehiagoko ezintasun-maila duten 18 urtetik gorakoak eta baliabide pertsonalak Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 70 baino baxuagoak dituzten (norbere ardurapeko pertsonak izanez gero % 100) pertsonak dira. 2008rako Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa 516,90 € izan ziren hilero. 2008ko abenduan 605 pertsonak jaso zuten laguntza hori, urtebete atzerago baino 69 pertsona gutxiagok.

IV.2.6. GRAFIKOA. MGL-ko prestazioak: gdsbdl eta ILDL-ren onuradunak direnen kopuruaren bilakaera eta gastua guztira



Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuak oinarri hartuta egindakoa.
GDSBDL: Gutxieneko Diru Sarrerak Bermatzeko Diru Laguntza
ILDL: Inoren Laguntza behar dutenentzako Diru Laguntza

IV.2.7. GRAFIKOA. MGLko* prestazioen onuradun kopuruaren bilakaera lurralde historiko bakoitzeko



Iturria: Eusko Jaurlaritza oinarri hartuta egindakoa
(*): Gutxieneko Diru Sarrerak bermatzeko Diru Laguntzen eta Inoren Laguntza behar dutenentzako Diru Laguntzen prestazioak bakarrik hartzen ditu kontuan

– Inoren laguntza behar dutenentzako diru-laguntza. Aldizka ematen den prestazioa da eta, aurreko ataleko baldintzak bete eta % 75 baino gehiagoko ezintasuna dutenei dago zuzenduta. 2008ko abenduan 75 pertsonak jaso zuten laguntza hori, urtebete atzerago baino 10 pertsona gutxiagok.
– Mugikortasunerako diru-laguntza eta garraio-gastuen ordaina. % 33 baino ezintasun handiagoa dutenek, baliabide ekonomikorik izan ez, 3 urtetik gorakoak izan eta taldeko garraioak erabiltzeko zailtasun larriak dituztenek ohiko bizitokitik kanpo lekualdatzeko sortzen diren gastuak ordaintzeko dago bideratuta.
– Osasun-laguntza eta farmazia-prestazioa. Prestazio hori Foru Aldundiek ematen dute, baina Osakidetzaren osasun-zerbitzuek burutzen dute. Hortaz, % 33 baino ezintasun-maila handiagoa izan eta Gizarte Segurantzaren Sistemako aplikazio-eremuan barne hartuta ez dauden pertsonei ez die kostu ekonomikorik eragiten. Zehazki, prestazioaren helburua onuradunen osasuna zaintzera eta hobetzera bideraturiko zerbitzuak ematea da, kasu bakoitzean zehazten den laguntza medikoa edo birgaitzekoa eta farmazeutikoaren bidez.

2008an, EAEn 680 pertsonak jaso zuten Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko prestazioa, honela banatzen dira: 603k gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntza jaso zuten, 77k inoren laguntza behar dutenentzako diru-laguntza eta 28k mugikortasunerako diru-laguntza eta garraio-gastuen ordaina. Diru-laguntza horiek nabarmen murriztu dira, duela hamar urte 5.000 pentsio baino gehiago eman baitziren. 2008an prestazio horiek emandako soldaten zenbateko osoa 1,4 milioi euro izan zen, 2007an ordaindutakoa baino % 8 gutxiago.

3

EAE-ko probeziaren eta gizarte baterkeriaren aurkako neurriak

Pobrezia, tradizioz, desberdintasun ekonomikoei eta diru-sarrera baxuko gizarte-mailei egon da lotuta. Hala ere, azken urteetan, gure gizartean eman diren aldaketak –ekonomikoak zein gizarteko eta familiako aldaketak- bazterketa-mekanismo berriak ekarri dituzte berekin. Mekanismo horietan, beste faktore batzuek, erabat ekonomikoak direnez gain, gizarte-bazterkeriaren prozesuen eragile bezala jarduten dute. Gaur egun pobreziaz hitz egiteak errealitateen mosaiko konplexu batera hurbiltzea esan nahi. Errealitate horiek, desberdintasun ekonomikoaz gain, "bazterkeria" kontzeptua barne hartzen dute, baina modu honetara definituta: "gizarte-eskubideak baliatzeko ezintasuna edo ezgaitasuna, batez ere lana izateko eskubidea, baina baita hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasuna, etxebizitza duina, gizarte-babesa izateko eskubideak ere" [3].

EAEko pobreziari, marjinazioari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko oinarrizko bitartekoen artean, azken urteetan gaur egungo Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta zena) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eman dira; horiek gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira eta pobreziari aurre egiteko osoko planak barne hartzen ditu.

Horiez gaiz, laneratzeko, prestakuntza eskuratzeko edo gizarteratzeko programak daude esku hartzen duten aldeen artean egiten diren hitzarmenen bidez (laneratzeko eta gizarteratzeko enpresen sorrera aztertu da), udalen eta baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen artean alegia. Bitarteko horiek AUZOLAN programaren bidez garatzen dira batez ere eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta izateko eskubidea dutenei, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta izateko eskubidea duen titularraren bizikidetzako unitate-ekonomiko independenteko kideei edo baztertua izateko arrisku-egoeran dagoen eta gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmena izenpetua duen edozein pertsonari dago zuzenduta.

2009 urtearen hasieran Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea indarrean sartu zen. Lege horren helburuak honako hauek dira: Alde batetik, Diru Sarrerak eta Gizarteratzea bermatzeko Euskal Sistema sistema autonomo gisa eratzea. Sistema horren kudeaketan gizarte- eta lanzerbitzuek hartzen dute parte eta administrazio publikoen beste arlo batzuek ere laguntzen dute. Beste aldetik, Diru Sarrerak eta Gizarteratzea bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu-printzipioak eta egitura-oinarriak ezartzea eta herritarrei prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko bitartekoak eskuratzea bermatzea, berdintasun- eta zuzentasun-irizpideen arabera, lurralde osoan modu homogeneoan aplikatzen dela bermatzeko beharrezko neurriak hartuz.

Lege berriak funtsezko bi berritasun gehitzen ditu:

1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta bi modalitate ezberdinetan antolatuko da oinarrizko bi irizpideren arabera: bizikidetza-unitateko lanetik diru-sarrerarik sortzen den ala ez eta modalitate bakoitzak gizarteratzeko hitzarmenarekin duen lotura mota. Hala, bi errenta egongo dira:
   - Alde batetik, Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errenta (Oinarrizko Errenta), lan-errentetatik sortutako baliabide ekonomikorik ez duten eta Oinarrizko Errentaren zenbatekora iristen ez den hilabeteko diru-sarrera duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei dago zuzenduta. Prestazio horrekin batera gizarteratzeko eta/edo laneratzeko laguntza espezifikoa aplikatuko da gizarteratze-hitzarmen baten esparruan, kasuan kasuko gizarte-zerbitzuak, beharrizanen diagnostikoa egin ondoren, aurkakoa iritzi ezean. Oinarrizko Errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren mailakoa izango da bizikidetza-unitatea pentsiodunek osatzen dutenean, eta haien diru-sarrerek eta baldintzek bizimodu duina izatea uzten ez dietenean maila horretara iristen ez direlako, eta une horretan laneratu ezin direnean.
   - Eta beste alde batetik, Laneko Sarrerak Osatzeko Errenta (edo Errenta Osagarria), lan-errentak izan baina Oinarrizko Errentaren zenbatekora iristen ez diren hileroko diru-sarre-

[3] 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriari buruzkoa.

ren maila dutenei dago zuzenduta. Prestazio hori laneko egoera hobetzeko laguntza espezifikoak aplikatzearekin egongo da lotuta, enplegu-zerbitzuen esku-hartzearen bidez, baita, gizarte-zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duenean, gizarteratzeko beste laguntza batzuk aplikatzearekin ere.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta mota biak antolatzearen helburu nagusia sistemaren kudeaketan malgutasun handiagoa bermatzea da. Antolaketak, berez, ez du esan nahi prestazio berriak gehituko direnik, baizik eta orain arte Oinarrizko Errentaren barruan bereizi gabe landu diren askotariko egoera multzoak antolatzea eta argitzea.

2. Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria gehitzea ere elementu berritzailea da, eta haren helburua, beharrizan handiena dutenei etxebizitza izateko aukera ematea da, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta dutenei[4]. Hala, prestazio horrek orain arte Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL) estalitako beharrizanen zati handi bat estaliko du. Ezberdintasuna zera da: eskubide bat ematen da. Horrez gain, prestazio hori gehitzeak Gizarte Larrialdietako Laguntzei aparteko izaera emango die.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak premia dutenei babesa eta laguntza eskaintzeko asmoa dauka, eta errenta mota hori arautzeko eta garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte-laguntza emateko duen eskumenean oinarritzeko; izan ere, errenta horren bidez laguntza lortzen duten bizikidetza-unitate guztiek duten ezaugarria da behar beste diru-sarrera ez izatea, nahiz eta era bateko edo besteko diru-sarrerak izan, eta sarrera horiek nondik datozen ere kontuan izan gabe. Oinarrizko Errenta berriaren helburua, pentsioen titularren eta haien ardurapean dauden beste pertsona batzuek osatutako bizikidetza-unitateei dagokienez, ez da pentsioak osatzea, baizik eta laguntza espezifikoa ematea diru-sarreren urritasuna arintzeko. Era berean, Errenta Osagarriaren kasuan, azken helburua ez da soldatarentzako plus bat izatea edo langabeziagatiko diru-laguntza gisa baliatzea, baizik eta laguntza zehatza ematea, kasu honetan soldata apalagatik diru-sarreretan duten hutsuneari aurre egiten laguntzeko.

Etxebizitzetarako Prestazio Osagarriari dagokionez, esan behar da horrek gizarte arloko eskumenetan duela oinarria gaur egun, eta Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan jarraituko du, antzeko neurriak edo beste batzuk zehazten ez diren artean etxebizitzaren arloko politika publikoetan, kaltetuenak eta ahulenak diren gizarte-taldeek etxebizitza eskuratzeko modua izan dezaten.

Eskumenen esparruari dagokionez argitu beharreko beste oinarrizko kontu bat zera da: bai Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, bai Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria prestazio subsidiario gisa edo prestazio osagarri gisa bideratu direla, hau da, titularrak edo bere bizikidetza-unitateko beste edozein kidek indarrean den legediaren arabera jasotzeko eskubidea lukeen edozein prestazio ekonomikoren osagarritzat. Beste modu batean esanda, prestazio horiek azkeneko babes-maila izango dira, eta ondorioz, ezin izango dira beste prestazio edo laguntza batzuen bidez osatu.

3.1. POBREZIAREN ETA BAZTERKERIAREN AURKAKO PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, lehenago aipatutako Oinarrizko Errenta ordezkatzen duena, EAEn gutxienez ere urtebetez erroldatuta daudenei eta oinarrizko beharrizanei aurre egiteko besteko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonei eta gizarteratze- eta laneratze-prozesu batetik eratorritakoei ematen zaie.

[4] Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria arautzen duen dekretua 2010eko urtarrilean argitaratu zen, hortaz, memoria honek prestazio horren inguruko informazio erlatiboa (jasotzaile titularrak, zenbatekoak, eta abar.) ondorengo ediziotik aurrera jasoko du.

IV.3.1. GRAFIKOA. Jasotzaileen urteko kopuruaren eta gastuaren bilakaera (milioi eurotan) diru-sarrerak bermatzeko errenten prestazioetan eta gizarte-larrialdietarako laguntzetan



Iturria: Gizarte Zuzendaritzaren datuak oinarri hartuta egindakoa. Eusko Jaurlaritza.

Laguntza hori jasotzeko, beharrizan-egoeraren ziurtapena behar da, oinarrizko gizarte-zerbitzuek igorritakoa, baita (salbuespenak izan ezik) gizarteratze- edo laneratze-hitzarmenetan parte hartzea ere, gizarteratzea eta laneratzea eta beharrizan-egoeratik ateratzea errazteko. Oinarrizko Errenta eskuratu ahal izateko baldintza orokorren artean, baldintzetako bat 23 urtetik gorakoa izatea da, eta jasotzen den zenbatekoa urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 88ko urteko diru-sarrerak bermatzeko beste izango da, hileko hamabi ordainketatan emanda. Horrez gain, kopuruaren % 25 gehituko da bigarren pertsonarentzat eta % 10 hirugarren pertsonatik aurrera pertsona bakoitzarentzat.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familien kopurua 55.410 izan zen 2009an, horrek esan nahi du 2008rekin alderatuta % 39,5 hazi zela. 2008an 39.715 bizikidetza-unitateri eman zitzaien arreta. Lurralde bakoitzari erreparatuz gero, Bizkaiak jasotzaile titularren kopuru handiena izan zuen, 36.839 guztira, hau da, EAE osoko % 66,5. Beste alde batetik, 2008rekin alderatuta unitate jasotzaileen hazkunde handiena Gipuzkoan eman zen, % 68,4 hazi baitzen. Bizkaian, aldiz, % 31,3 hazi zen eta Araban % 47,7.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta gisa ordaindutako zenbateko osoa 262,72 milioi euro izan ziren 2009an (2008an baino % 33,2 gehiago). Bizikidetza-unitate jasotzaile bakoitzeko emandako batez besteko zenbatekoa hilero 475 € izan ziren, hau da, 2009rako ezarritako Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 65,2 (aparteko ordainsarien banaketa proportzionala eginda). Ratio hori 6,5 puntu murriztu zen 2008 urtearekin alderatuta.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak ordaindutako zenbatekoen lurraldekako banaketa bat dator unitate jasotzaileekin; hortaz, sortutako gastuaren portzentaje handiena Bizkaiari dagokio, guztira % 74,2, horren ondotik Gipuzkoa (% 14,3) eta Araba daude (% 11,5).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2009ko datuekin txostena egin du, eta diru-sarrerak bermatzeko prestazioek EAEko eta Espainiako ongizatearen estatuan izan duten eragina alderatu du. Nabarmendu du diru-sarrerak bermatzeko prestazioen euskal eredua Estatuan salbuespena dela, bai estaldura zabalagatik (2009an familia-unitateen % 7,5), eta bai diru-sarrerak osatzeko politikekiko duen loturagatik ere. Politika hori, neurri batean, batez ere 2008ko erreformaren ondoren, pentsiodunentzat da; baina hartu duen oinarrizko beste hedaduretako bat soldata baxuak dituzten bizikidetza-unitateei ematen zaien laguntza da, lana eskuratzea bizkortuz, arriskuan dauden taldeek izaten dituzten prestazioen eta diru-laguntzen ordez.

Hala, lan horrek ezer baino lehen zera azpimarratzen du: 90eko hamarkadan autonomia erkidegoetako gutxieneko errentak orokortzeak programen eraginean desberdintasun handia izatea ekarri du. 2009ko lehenengo seihilekoan, EAEk Estatuko Diru Sarrerak Bermatzeko Errenten titularren % 38,4 hartu zituen eta programa horiei loturiko gastuaren % 40,2, pobrezian geratzeko arrisku-egoeran dauden Estatuko biztanleen % 2,4 bakarrik izan arren.

Ezberdintasun horien ondorioz, EAEn pobrezia-arriskuan dauden familietako gastuen artean desfase nabarmena eman zen: adierazle hori batez beste 374 € izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan; Estatuan, aldiz,

IV.3.2. GRAFIKOA. Pobrezia arriskuan dauden familia bakoitzeko gutxieneko errenten hileroko gastua



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn eta Estatuan diru-sarrerak bermatzeko prestazioen eraginaren azterlan erkatua. 2010.

22 € izan zen ozta-ozta. EAEren mailatik hurbil zegoen erkidego bakarra Nafarroa izan zen, familiako batez beste 238 € izan ziren. Horren ostean, askoz beherago, Asturias dago, familiako 67 €-rekin. Gainerako erkidegoetan arriskuan zeuden familia bakoitzak gehienez ere 35 € hartu zituen, horien artean Madrilgo Erkidegoa (17 € /familiako) eta Katalunia (27 €/familiako) zeuden.

Txostenak dio Diru Sarrerak Bermatzeko Errenten, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eta Etxebizitzetarako Prestazio Osagarrien bidez sistemaren onuradunek beharrizanen mugatik hurbil dauden zifrak lortzen dituztela EAEn, baina ez dela gauza bera gertatzen gainerako Autonomia Erkidegoetan. Daturik azpimarragarriena BPGd gehien eta Espainian biztanle gehien duten bi erkidegoetan ezarritako zenbateko baxua da, Madrilen eta Katalunian alegia: 2009an EAEn pertsona batentzat bakarrik ezarritako bermea 640,64 € ziren; Katalunian eta Madrilen, aldiz, 410,02 € eta 370 € dira, hurrenez hurren.

Horrez gain, gutxieneko errenten prestazioek pobrezia-arriskuan dauden familietan duten estalduramaila % 100 inguru da Euskal Autonomia Erkidegoan; berez, % 120,3ra ere iristeko maila gainditzen da. Gainerako kasuetan, prestazio horien bidez arriskuan dauden familien % 20 baino gutxiago estaltzea da joera. Salbuespen bakarra Nafarroa da eta % 44,9ko estaldura-maila du.

Beste alde batetik, ikerketa horrek dio gutxieneko errenten euskal sistemak beste ezaugarri bereizle bat duela, hau da, babesa jasotzen duten bizikidetza-unitateetan aurrez eskuragarri dauden baliabideak geroz eta gehiago osatzeko joera du. Horren adibide zehatza ematearren, norbere baliabideak izan eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak jasotzen dituzten bizikidetza-unitateen kopurua nabarmen hazi da, horrek esan nahi du, prestazio hori eskuratzen dutela diru-sarrerak osatzeko. Hala, urte bakoitzeko abenduko datuak erreferentzia gisa hartuz, 2001ean portzentajea % 40,7 izatetik

IV.3.3 GRAFIKOA. Diru-sarrera propioak eta laneko diru-sarrerak izan eta GGD/OE/DSBE-ren onuradunak diren familien portzentajea, EAEn



Iturria: EUSKO JAURLARITZA
(*) Lana izateagatik, Gizarte Segurantzaren prestazioak edo langabeziagatiko diru-laguntzak.

2009an % 65,7 izatera pasa zen. Beste era batera esanda, 2001 eta 2009 arteko unitate onuradunen hazkundetik % 77,4 mota horretako unitateak dira.

Laur urtez behin egiten den Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren datuak erreferentzia gisa hartuz, honako bilakaera hau egiaztatu da: 1996an, lanaren edo Gizarte Segurantzaren edo langabeziagatiko prestazioen bidez nolabaiteko diru-sarrerak izanik Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso zuten familiak % 19,9 izan ziren; 2008an, aldiz, proportzioa % 66,9 zen. Baina daturik azpimarragarriena, aipatutako familien artean, laneko irabaziak dituztenen kopuru handia da: 1996 ozta-ozta % 3,4 izan ziren eta 2000n jada % 24,5. Zifra horiek gora egin zuten eta 2004an % 31,1 eta 2008an % 42 izan ziren.

3.1.2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egiteko prestazioak dira, baina ez dira aldizka ematen. Etxebizitzarekin daude lotuta batez ere eta noiz edo noiz ematen zaizkie gizarte-marjinazioaren egoerei aurrea hartzeko, egoera horiek saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko baliabide nahikoak ez dituzten pertsonei. Helburu zehatza dute, hau da, laguntzako emateko arrazoia izan dena betetzeko bakarrik erabil daitezke.

Honako hauek dira laguntza horiek estalitako gastu espezifikoak:

- Etxebizitza edo ohiko bizilekua (alokairua, kredituen interesak eta amortizazioak, energia, ura, estolderia, zaborrak, komunitatea, eta abar) mantentzeko eta hartaz gozatzeko gastuak.
- Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren epe luzeko oinarrizko ekipamenduaren eta bizigarritasunaren gastuak (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak, edo egokitze-gastuak eta/edo horien konponketak).
- Aparteko beharrizanak, ustekabekoak eta ezohikoak ordaintzeko, esate baterako, arropak, hezkuntza, prestakuntza moduko beharrizan nagusiak edo sistema publikoek barne hartzen ez duen osasun-arreta, edo antzeko beste edozein,

IV.3.4. GRAFIKOA. Gizarte larrialdietarako laguntzak: jasotzaile titularren kopuruaren bilakaera lurralde bakoitzeko



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

IV.3.1. TAULA. EAE-n diru sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte larrialdietarako laguntzen gastua eta erabiltzaile kopuruaren bilakaera

	Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta			GLL		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Jasotzaile titularren kop.*						
Araba	4.206	5.175	7.641	4.547	4.67	6.520
Gipuzkoa	5.869	6.492	10.930	6.183	6.102	9.198
Bizkaia	25.929	28.048	36.839	15.668	16.528	22.300
GUZTIRA	36.004	39.715	55.410	26.398	27.300	38.018
Gastua (mila eurotan)						
Araba	16,28	19,43	30,27	4,88	5,31	8,33
Gipuzkoa	23,53	26,08	37,62	8,32	8,61	13,27
Bizkaia	128,75	151,78	194,84	22,81	24,08	32,89
GUZTIRA	**168,56**	**168,56**	**262,72**	**36,00**	**38,00**	**54,50**

(*) Urtean zehar laguntzak jasotzen dituzten familien edo bizikidetza-unitateen kopurua.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratze Zuzendaritza.

oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte-bazterkeriaren egoerei aurre egiteko, horiek saihesteko eta arintzeko beharrezkoak direnak.

2009an laguntza horiek jasotzen zituzten 38.018 titular zeuden guztira, urtebete atzerago baino % 39,3 gehiago. Horietatik 22.300 Bizkaian eman ziren ziren (titular guztien % 58,7), 9.198 Gipuzkoan (% 24,2) eta 6.520 Araban (%17,1).

2009an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuaren kontura Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako emandako zenbatekoa 54,5 milioi euro izan zen, 2008an baino 16,5 gehiago edo, beste era batera esanda, % 43 hazi zen. Onuradun bakoitzeko urtean ordaindutako batez besteko zenbatekoa 1.434 euro izan zen, 2008an baino % 3 gehiago.

3.2. GIZARTERATZEA ERRAZTEKO PROGRAMAK

3.2.1. AUZOLAN programa

Programa prestazio ekonomikoak (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta GLL) jasotzen dituzten pertsonen eta egoera ahulean dauden beste pertsona batzuen laneratzea errazteko jarri zen abian. Uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren bidez eta baztertua dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko abuztuaren 31ko 166/2004 dekretuak egindako aldaketaren bidez arautzen da.

2009an baztertuta geratzeko arriskuan zeuden 915 pertsona lanean kontratatzeko laguntzak eman ziren, 2008an baino 93 gehiago.

IV.3.2. TAULA. Auzolan programa: emaitzen urtez urteko bilakaera

	2007	2008	2009	Ald. %-tan, 07/08	Ald. %-tan, 08/09
Proiektuak	89	98	106	10,1	8,2
Erakundeak	48	51	58	6,3	13,7
Onuradunak	761	822	915	8,0	11,3
Diru-lag./Onuradunak (€)	10.641	11.621	11.587	9,2	-0,3
Diru-lag./Proiektua (€)	90.986	97.473	100.019	7,1	2,6
GASTUA GUZTIRA (milioi eurotan)	**8,10**	**9,55**	**10,60**	**17,9**	**11,0**

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza oinarri hartuta egindakoa. EUSKO JAURLARITZA.

IV.3.5. GRAFIKOA. Auzolan programa: onuradun eta proiektu bakoitzeko gastuaren bilakaera. Eurotan



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuak oinarri hartuta egindakoa.

Guztira, 106 proiektuk (urtebete atzerago baino 8 gehiago), EAEko 58 erakunderen bitartez, Udalak zein mankomunitateak eta udalerrietako zerbitzuak izan, deialdi horretako laguntzak jaso zituzten. Erakunde horiei emandako zenbatekoa guztira 10,6 milioi euro izan zen (2008an baino % 11 gehiago).

Labur esanda, azken hamar urteetan, programa horrek 63 milioi euro bideratu ditu programa bera sortzeko arrazoia izan ziren helburuetara, eta programa horren onurak 7.000 pertsonak jaso dituzte. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, programaren arduradunak, AUZOLANen ebaluazioa aurkeztu zuen 2007an 2002-2005 aldirako. Ondorioen artean, programaren ekarpen nagusia parte-hartzaileen lan-aukerak eta gaitasuna hobetzea izan dela azpimarratu zuen.

3.2.2. Gizarteratzeko eta laneratzeko programen kudeaketa errazteko indartze-programa

Programaren helburua oinarrizko gizarte-zerbitzuetan indartze-langileak eta teknikariak kontratatzeko laguntza ekonomikoak ematea da, gizarteratze- eta laneratze-hitzarmenen eta beste programa batzuen kudeaketa errazte aldera.

2009ko maiatzaren 11ko 87. Zenbakiko EHAAn urte horretarako programaren deialdia argitaratu zen. Deialdi horretan oinarrituta, lanaldi osoko edo lanaldi erdiko 192 teknikari eta 131 administrari (+54 eta +48, hurrenez hurren, aurreko urtearekin alderatuta) Euskal Autonomia Erkidegoko Udaletan, mankomunitateetan, kuadrilletan, partzuergoetan edo udalerrietako zerbitzuetan kontratatzeko laguntzak eman ziren. EAEko udalerri gehienak hartzen dituzten erakunde horiei 2009an 8 milioi euro eman zitzaien guztira, urtebete atzerago baino % 9,4 gehiago.

3.2.3. Gizarte- eta laneratze-enpresak sortzeko eta babesteko laguntzak

Azken urteetan, Estatuan eklosio handia eman da gizarteratze- eta laneratze-enpresei dagokienez. Alde batetik, hainbat autonomia erkidegok (horien artean EAE) figura hori arautu, aitortu eta diru-laguntza espezifikoak eman dizkiote; horrez gain, enpresa kopurua esponentzialki hazi da[5].

Gizarteratze- eta laneratze-enpresen funtsezko helburua lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da. Enpresa horien ezaugarri nagusia helburu sozialaren dualtasuna da: alde batetik, enpresa osatzeko arrazoia izan den jarduera ekonomikoa burutzea; bestetik, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak gizarteratze- eta laneratze-enpresak sortzeko eta babesteko laguntzak arautzen dtu. Agindu hori abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. Dekretu horren bidez gizarteratze- eta laneratze-enpresen gaitasuna arautu, horien zerbitzua eskuratzeko prozedura ezarri eta gizarte- eta laneratze-enpresen erregistroa sortu zen. Aipatu den 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, gizarteratze- eta laneratze-enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko.

Laguntza horien helburua mota horretako enpresei enprese horien ezaugarri eta beharrizan zehatzetara egokitutako laguntza-formulak eskaintzea da, enpresentzat beren beregi disenaturiko laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak ezarriz. Horien barruan, gizarteratze- eta laneratze-enpresen sorrera sustatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak eta gizarte- eta laneratze-enpresak babesteko zuzenduriko diru-laguntzak aurreikusten dira.

Bitarteko horien bidez, Eusko Jaurlaritzaren asmoa gizarteratzeko eta laneratzeko modalitate bereziaren

IV.3.6. GRAFIKOA. Gizarteratze- eta laneratze-enpresak EAEn: 2008ko eta 2009ko deialdietan onetsitako laguntzak. Milioi eurotan



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila

IV.3.3. TAULA. EAE-ko gizarteratze eta laneratze enpresei laguntzeko programen bilakaera. 2003-2009

	Erakundeak	Aurrekontua (mila eurotan)	Onuradunak
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2003-2009 GUZTIRA.	**234**	**40.105**	**1.986**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

[5] Retolaza et al (2008): "Eficiencia en las empresas de inserción y apoyo público", in Zerbitzuan, EUSKO JAURLARITZA, 2008ko abendua.

hedadura sustatzea da. Modalitate horretan pertsona bat (besteren konturako langile gisa nahiz bazkide langile gisa edo lan-bazkide gisa) lan-kontratu bidez laneratzen da (lehenengo kasuan lan-kontratu bidez eta bigarrenean sozietateko-kontratu bidez). Kontratu hori laneratzeko hitzarmen bat izenpetu ondoren sortzen da. Eusko Jaurlaritzak 2003tik 40,1 milioi euro banatu ditu guztira laguntza mota horren bidez. Urtero batez beste 32 laguntza banatzen dira eta 2.000 pertsona inguruk jasotzen dute onura.

EAEn 2009an ez zen erakunde berririk kalifikatu eta 3 deskalifikatu egin ziren, beraz, urtearen amaieran, Eusko Jaurlaritzaren Laneratzeko Enpresen Erregistroan 51 enpresa zeuden izen emanda. Horietatik 42 merkataritza-erakundeak dira eta gainerako 9ak irabazi asmorik gabeko erakundeak.

Maiatzaren 4ko Aginduaren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia egin zen 2009rako. Sailburuaren aginduaren bidez laneratze-enpresak sortzeko eta babesteko laguntzak arautu ziren. Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Sailak emandako datuen arabera, 39 laneratze-enpresari eta laneratze-enpresak sortzea sustatzen duten 3 erakunderi eman laguntzak eman zitzaizkien. Horri esker, lan-merkatua normalizatzeko laneratze-prozesua gauzatzen duten enpresa horiek kontrataturiko 447 pertsona laneratu dira. 2009rako laguntzak 2,11 milioi euro dira; 2009-2012 aldirako erabateko laguntza emateko konpromisoa izenpetu da eta 7.24 milioi eurokoa da.

4

EAE-n gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak

EAEn, gizarte-aurreikuspeneko sistema pribatu osagarria Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE) eta horiek barne hartzen dituzten aurreikuspen-planek osatzen dute gehienbat. Euskal Autonomia Erkidegoko zergadunen % 92 inguruk errentaren aitorpena murriztu egiten dute gizarte-aurreikuspen osagarriko instituzioentzat egindako ekarpenak direla-eta, eta BGAE-entzat gordetzen dute. Gainerako % 8 pentsio-plan eta -funtsetarako, aseguru kolektiboen kontratuetarako, mutualitateetarako, eta abarretarako gordetzen da. EAEn BGAE-ek bete beharreko araudiaren arabera, erakunde horiek, nahitaezko Gizarte Segurantza osatzen duten aurreikuspen-sistemen esparrutik kanpo, borondatezko gizarte-aurreikuspena burutzeko oinarrizko helburua duten irabazi asmorik gabeko instituzioak dira; aurreikuspen hori ustekabeko edo aurreikus daitezkeen inguruabar edo gertaeretatik haien ondasunak eta kideak babesteko dira.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren osagarri diren pentsioen planak dituzten beste herrialde guztien moduan, EAEn ere bi plan mota handi daude: enplegua edo lanbidea aurreikusteko planak, langileei zuzenduta daude eta enpresen eta lan-harremanen arloan antolatzen dira; eta finantza-erakundeek sustatzen dituzten banakako aurreikuspen-planak edo kontu pertsonalak, eta horien bazkide edozein pertsona fisiko egin daiteke. Gure legegintzak hirugarren mota bat ere badago, bazkideen aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte, sindikatu eta abarreko kideak dira, eta ez daude hain hedatuta.

Enplegua aurreikusteko planen barruan ere bi modalitate oso ezberdin daude: prestazio definituko planak eta ekarpen definituko planak. Prestazio definituko planak gizarte-babeseko sistema publikoen osagarritasuna lortzeko modurik garbiena dira, antzeko ezaugarriak dituztelako: Bazkidea den pertsonaren arriskua erakunde babeslera pasatzen da eta prestazioak langilearen laneko bizitzan oinarrituta kalkulatzen dira. Horregatik, gizarte-aurreikuspeneko sistema pribatuak dituzten herrialdeetan gehien baliatzen den modalitatea da.

IV.4.1. TAULA. Ekarpen definituko eta prestazio definituko enplegu planak. Bazkideak. 2007

	ED PLANAK	PD PLANAK	GUZTIRA
SEKTOREKO PLANAK	206.375	36.994	243.369
% HORIZ.	84,8	15,2	100,0
ENPRESA PLANAK	34.251	9.745	43.996
% HORIZ.	77,9	22,1	100,0
ADMIN. PUBLIKOA	96.527	2.567	99.094
% HORIZ.	97,4	2,6	100,0
ENPLEGU PLANAK GUZTIRA	**337.153**	**49.306**	**386.459**
% HORIZ.	**87,2**	**12,8**	**100,0**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

Plan tradizional horien aldean, ekarpen definituko planak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Horien ezaugarrietako bat zera da: finantza arriskua eta arrisku biometrikoa bazkideak jasaten du batez ere, eta aldagai erabakigarria ekarpenaren zenbatekoa da; aldiz, kobratu beharreko prestazioaren zenbatekoa zein den ez da jakiten, ordaindutako kuoten kapitalizaziotik lortutako errentagarritasunaren araberakoa izango da. Ez dute oztopatzen langileen lanerako mugikortasuna, hori da duten abantaila, izan ere, langileak enpresa aldatzen duenean pilatutako eskubideak eraman ditzake[6].

Gizarteko-aurreikuspen osagarriaren euskal sistemako enplegu-plan gehienak ekarpen definituko planak dira: 2007an, 174 plan ED ziren eta 49 PD. ED planen lehentasuna are argiago ikusten da bazkideen kopurua kontuan hartuz gero (atxikitzeak): Enplegu-planen bazkideen % 87k ekarpen definituko plana du eta % 13k

[6] Bi modalitateek abantailak eta desabantailak dituzte, eta biak batera konbinatzeko sistema mistoak ere diseinatu dira arriskuak aldeen artean banatzeko, gutxieneko errentagarritasuna bermatu edo aldagai sozioekonomiko jakinen, eta abarren jarreran oinarrituta prestazioak adierazten dituzten mekanismoak erabiliz.

prestazio definituko plana (aurreko urtea bezalako ratioak).

IV.4.1. GRAFIKOA. BGAE-en bilakaera EAEn. Oinarri hartutako urtea: 2002



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

2009ko behin-behineko datuen arabera, Memoria hau amaitzean, EAEk 184 BGAE zituen BGAE-en Erregistroan izen emanda, 2008an baino hiru gutxiago. Erakunde horiek 1,34 milioi bazkide dituzte (EAEko biztanleen % 62), horietatik % 60,7 banakako BGAEtan daude eta % 30,3 enplegu-erakundeetan, eta 18.285 milioi euroko ondarea dute (BPGd-ren % 27,6, behin behineko datuen arabera).

2008an (2008tik aurrera ez dago EAEko BGAE-ei buruzko magnitude nagusien inguruko behin betiko informaziorik) EAEn gizarte-aurreikuspen osagarria ezartzeko prozesua moteldu egin zen, figura nagusiari dagokionez gutxienez: BGAEak. Berez, atxikitzeen kopurua % 7,3 hazi bazen ere, EAEko BGAE-en ondare guztiak zein ekarpenek behera egin zuten urte hartan (-% 3,2 eta -% 2,4, hurrenez hurren).

2008an dagoeneko bazkide ziren pertsonen kopurua 1,33 milioi zen. Hala ere, kontuan izan behar da atxikipen bikoitzak izan daitezkeela. Horietatik % 60,6 banakakoak esaten zaien erakundeei dagokie, % 30,3 enplegurako BGAE-ei eta gainerako % 9,1 beste mota bateko erakundeei.

Ekarpenak, bestalde, 1,4 milioi euro dira eta ondarea, guztira, 17.229 milioi euro. Ondarea ia zati berdinetan dago banatuta enplegurako eta banakako erakundeen artean.

IV.4.2. TAULA. EAE-ko bgae-en magnitude nagusiak. Datu finkatuak

	2005	2006	2007	2008	% 2005-06	% 2006-07	% 2007-08
Bazkideak*	1.162.565	1.225.429	1.241.510	1.332.721	5,4	1,3	7,3
Ekarpenak (mila eurotan)	1.278.994	1.397.278	1.450.530	1.403.911	9,2	3,8	-3,2
Ondarea (mila eurotan)	14.469.881	16.216.923	17.659.170	17.229.448	12,1	8,9	-2,4
Errenta finkoko inb. (milioi eurotan)	7.069	8.373	8.676	–	18,4	3,6	–
Errenta aldakorreko inb. (milioi eurotan)	2.471	2.864	3.096	–	15,9	8,1	–
Pentsioen gastuak (milioi eurotan)	272	316	349	–	16,2	10,4	–
BGAE kopurua	199	185	185	187	-7,0	0,0	1,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila.
(*) Pertsona bat BGAE bat baino gehiagotako bazkide izan daiteke. Bikoiztasuna kenduz gero, atxikitako pertsonen benetako kopurua txikiagoa izango litzateke.

IV.4.3. TAULA. EAE-ko BGAE-en datuak, 08-12-31an (mila eurotan)				
	Nº	ASOCIADOS	APORTACIONES	PATRIMONIO
ENPLEGURAKO BGAE	51	404.102	574.637	8.732.260
BANAKAKO BGAE	44	808.093	817.038	8.376.857
GAINERAKO BGAE	92	120.526	12.236	120.331
BGAE GUZTIRA	**187**	**1.332.721**	**1.403.911**	**17.229.448**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila.

4.1. BABESTUTAKO BIZTANLEAK

Eusko Jaurlaritzaren "Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007" txostenak, lehenengo eta behin, zera dio, BGAE-ek eskaintzen dituzten aurreikuspen-planetara bazkidetutako pertsonen kopuru osoa 2007an 1,26 milioi izan arte hazi zela. Zifra altu hori, hala ere, ez da aurreikuspen-planak dituzten pertsonen kopurua, pertsona batek BGAE berean plan bat baino gehiago izan ditzakeelako edo BGAE bat baino gehiago izan, hortaz, estatistika honetan baten baino gehiagotan azalduko da. Hala eta guztiz ere, esan bezala, 2009ko behin-behineko datuekin, % 60,2ko estalduratasa kalkulatu da.

2007ko datuak oinarri hartuz, aurreikuspen-planen bazkide guztien artetik 746.149 aktiboak dira, hau da, kotizatu edo planera ekarpenak egiten dituzte (% 60), 41.246 pasiboak dira, aurreikuspen-planen prestazioren bat jasotzen dute (% 3) eta 470.569 etenda dauden bazkideak dira, hots, aktibo egoeran egon arren, ez dute ekarpenik egiten baina erakundean eskubideak pilatuta mantentzen dituzte[7] (% 37). Modalitate bakoitzari erreparatuz, banakako aurreikuspen-planak sistema osoan lehenesten dira; dituen 829.668 bazkideak enplegu-planen bikoitza baino gehiago dira.

Beste alde batetik, etorkizunean pentsio on bat lortzeko, aldizka eta etengabe behar besteko zenbatekoa ordaindu behar da eta gaztetatik hasi behar da ekarpenak egiten. Hala, aurreikuspen-planetara bazkidetutakoen adina kontu garrantzitsua da. Oro har, aurrezte-sistema zuhurretako parte hartzeak adinarekin

IV.4.4. TAULA. BGAE-en aurreikuspen planetara lotutako pertsonak. 2007. urtea				
	Banakako planak	Enplegu-planak	Bazkidetuen planak	Aurreikuspen-plan guztiak
Aktiboak	468.830	277.003	3.316	749.149
Etenda	386.338	83.129	1.102	470.569
Jasotzaileak	14.426	26.327	493	41.246
GUZTIRA	**869.594**	**386.459**	**4.911**	**1.260.964**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

[7] Eusko Jaurlaritzaren txostena deigarria da, aurreko urteetan bezala, urtean zehar ekarpenik egin ez duten eta "etenda" dauden bazkide kopuruari dagokionez; banakako planen kasuan, aurreikuspen-plan bat duten pertsonen % 44k baino gehiagok 2007an ez zuten ekarpenik egin (2006an % 41). Horren azalpena baten baino gehiagotan zenbatzea da; hainbat jendek, aurreikuspen-plan bat baino gehiago dutenez BGAE berean edo hainbat BGAEtan, batean bakarrik egiten dituzte ekarpenak. Hala ere, bikoiztasunen eragina kenduta ere, urtean ekarpenik egiten ez duten bazkideen portzentaje handiak BGAE-etako bazkide ugariren aurreikuspen osagarriarekin duten nolabaiteko konpromiso falta adierazten du.

IV.4.2. GRAFIKOA. EAEn BGAEtara bazkidetutako pertsonak: Atxikitzeak eta biztanleria osoarekiko pisua



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATen datuekin egindakoa.

IV.4.5. TAULA. Sektorearen arabera, enplegua aurreikusteko planetako bazkideak. 2007. Urtea

	Ekarpen definituko planak	Prestazio definituko planak	Guztira
Sektore Publikoa	96.527	2.567	99.094
Sektore pribatua	240.582	46.739	287.321
GUZTIRA	**337.109**	**49.306**	**386.415**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

gora egiten du, baina aurreikuspen-planen modalitate batzuk beste batzuk baino egokiagoak dira talderik gazteenen parte-hartzea lortzeko.

Oro har, enplegua aurreikusteko planek banakako planek baino biztanleria gazteagoa izaten dute; bazkide guztien kopuruari dagokionez, enplegu-planetako 35 urtetik beherako bazkide kopurua (% 30,7) banakako planetako bazkide kopuruaren bikoitza da ia (% 16,2). Ondorioz, enplegu-planetan 45 urtetik beherako biztanleak dira gehienak, eta banakako planetan 45 urtetik gorakoak.

Sexuari dagokionez, pentsioen sistema pribatu osagarrietan gehiengoa dira, zehazki, BGAEtan bazkideen % 60 dira. Enplegu-sistemetan ere gizonak dira nagusi, horietan emakumeak % 37 baino ez dira. Hala ere, urte berean Gizarte Segurantzaren sistema publikoan afiliatutako emakumeak % 41,3 dira. Ezberdintasun horren arrazoia zerbitzuen sektorean BGAE gutxiago ezartzen direlako izan daiteke, izan ere, zerbitzuen sektorean gehienbat emakumeak gehitzen dira. Banakako sistemak, alderdi horri dagokionez, ez dira hain diskriminatzaileak.

Sektoreei dagokienez, enplegu-planen bazkide gehienek, % 74,4k, sektore pribatuak lan egiten dute. Hala ere, gizarte-aurreikuspen osagarria ezartzeak sektore publikoan eragin handiagoa du enpresa pribatuan baino: 2007an enplegurako aurreikuspen-planak zituzten administrazio publikoko 99.094 langileak enplegu publikoko langile guztiak dira ia-ia. Aldiz, enplegu-planak dituzten enpresa pribatuetako 287.321 langileak EAEko ekonomiaren sektore pribatuko langileen % 30 ere ez dira.

Beste era batera esanda, suteak eta ehorzketak bezalako arriskuak estaltzen dituzten erakundeak kontuan hartu gabe, BGAE-ek 66.756 prestazio eman zituzten 2007an (2006rekin alderatuta % 3,3), pentsioen eta "beste prestazio batzuen" artean[8]. Datu horri lotuta, gogorarazi behar da emandako prestazio kopurua ez datorrela bat prestazioak jaso dituzten pertsonen kopuruarekin, pertsona berak BGAE batetatik edo zenbaitetatik prestazio bat baino gehiago jaso ahal izan duelako.

Enplegurako BGAEak dira prestazio gehien ematen dituztenak, banakakoak baino askoz ere bazkide eta ekarpenak egiten dituzten pertsona gutxiago dituzten arren. Horren funtsezko arrazoia pentsioak kobratzeko moduari dagokio, batez ere errenta gisa kobratzen dira enplegurako BGAEtakoak eta banakako BGAEtan kapital gisa. Errenta gisa kobratutako pentsioa errentak

[8] Prestazioak jasotzen dituztenak bazkide pasiboak edo "onuradunak" izan daitezke; BGAE-en bazkide ez dira baina bazkide bat

IV.4.3. GRAFIKOA. Lana duten guztien artean enplegu-planetara ekarpenak egiten dituztenak sektore bakoitzeko EAEn. %.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin, 2007

irauten duen urte guztietan zenbatzen da, eta kapital gisa kobratzen dena baten baino ez da erregistratzen[9].

BGAE-ek ematen duten prestazio motarik garrantzitsuena, kopuruari eta gastuaren zenbatekoari dagokienez, pentsioak dira eta, horien barruan, anitzenak erretiro-pentsioak dira. Pentsio publikoak osatzeaz gain, BGAE-ek epe luzeko langabezia-arriskua eta beste mota bateko arriskuak, hala nola ezintasun iraunkorra, babesten dituzte. Prestazio mota horien kopurua handia izan arren, sortzen duten gastua aintzat hartuz gero, askoz txikiagoa izanik, garrantzia erlatiboa galtzen dute.

BGAE-en prestazioak kobratzeko moduari dagokionez, osagarriak izanik, komenigarria da prestazioak kobratzeko modua prestazio publikoak kobratzeko moduaren antzekoa izatea, baita egokiena ere babes-eskaintzaren eraginkortasunari begira. Zehazki, pentsioen kasuan, egokiena BGAE-en pentsioak biziarteko

IV.4.6. TAULA. BGAE-k emandako prestazio kopurua. 2007. Urtea

	Banakako BGAEak	Enplegurako BGAEak	Bazkidetuen BGAEak	BGAEak guztira
Erretiroa	9.255	15.651	448	25.354
Ezintasun iraunkorra	1.868	3.779	9	5.656
Alarguntza	3.112	6.487	27	9.626
Zurztasuna	194	410	8	613
PENTSIOAK GUZTIRA	14.429	26.327	493	41.249
Gaixotasuna	127	22.577	43	22.747
Langabezia	1.810	863	8	2.681
Beste prestazio batzuk	17	62	0	79
BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA	**1.954**	**23.502**	**51**	**25.507**
GUZTIRA	**16.383**	**49.829**	**544**	**66.756**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

[9] Azalpen estatistiko horrez gain, sustantiboagoa den beste bat ere badago, eta da enplegu-erakunde batzuen tradizio eta antzinatasun handiena. Adibidez, Lagunarok, kooperatiba-sozietateak babesten dituena, gainerako BGAE-ek baino heldutasun handiagoa lortu du, banakakoena baino gehiago, batez ere.

IV.4.7. TAULA. BGAE-tara egindako urteko batez besteko ekarpenak EAE-n. Euroak				
	2005	2006	2007	Ald. %-tan, 06/07
BGAE guztira (PFEZ)	**2.106**	**2.320**	**–**	**–**
Batez besteko soldata %	8,14	8,81	–	–
BGAE guztira (DEC)	**1.754**	**1.862**	**1.930**	**3,7**
Batez besteko soldata %	6,78	7,08	7,07	-0,1
Banakako BGAEak	1.809	1.906	1.890	-0,8
Enplegurako BGAEak	1.650	1.763	1.981	12,4
Bazkidetuen BGAEak	2.351	3.714	3.369	-9,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

errenta izatea izango litzateke, Gizarte Segurantzarenak diren bezalaxe. Hala gertatzen da prestazio definituko enplegurako BGAE-en pentsioen kasuan, baina gainerako BGAEtan, ekarpen definituko enplegurako pentsioetan zein banakakoetan, prestazioa sortzen den unean pilatutako kapitala ordainketa bakarraren bidez, errenta gisa edo modu mistoan jaso daiteke.

BGAE-ek urtero ordaintzen dituzten prestazioen % 69 (pentsioak eta langabeziagatiko prestazioa) errenta gisa kobratzen dira. Enplegu-planen kasuan, portzentajea % 83 da. Prestazio definituko enplegu-planek ordaindutako pentsioak biziarteko errenta gisa ordaindu balira, 2007an biziarteko pentsioak jaso zituztenen kopurua 15.140 da, enplegu-planen pentsioen % 57,5 eta pentsio guztien % 36,7.

4.2. BABESAREN INDARRA

"Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007" txostenak lehenengo eta behin kalkulatzen du 2007an BGAE-en aurreikuspen-planen urteko batez besteko ekarpena 1.930 € izan zirela, 2006an baino % 3,7 gehiago, Estatistika eta Kontabilitate Dokumentazioaren arabera (DEC). Banakako planen kasuan zenbatekoa txikiagoa izan zen, 1.890 € (-% 0,8), eta handiagoa enplegu-planetan: 1.981 € (2006rekin alderatuta +% 12,4).

Datu horiek zerga-iturriek emandakoekin alderatu daitezke, horietan ez dago bikoiztasunen arazorik, baina aitorpena egiten duen bakoitzak gizarte-aurreikuspen osagarrien erakundeetara egiten duen ekarpenaren berri ematen du, eta ez bakarrik BGAE-tara. 2006ko PFEZren aitorpenean jasotako batez besteko ekarpena (urte horretara arte baino ez dago eskuragarri informazioa) Estatistika eta Kontabilitate Dokumentaziotik eratorritako batez besteko ekarpena baino % 24 gehiago izan zen. Eusko Jaurlaritzaren txostenak zera kalkulatu du: portzentaje hori iraunkor mantendu bada, 2007an gizarte-aurreikuspeneko sistemara pertsona bakoitzak egindako ekarpena 2.400 euro izan zen.

Urteroko 1.930-2.400 € horiek, 138-172 €/hileko, 2007ko EAEko langileen soldata gordinaren % 7,1-8,8 izan ziren. Irizpide bezala, babes publikoaren egungo parametroekin, 30 urtez erregularki soldata gordinaren % 6ko ekarpenari eutsiz gero, behar besteko pentsio osagarria emango luke.

Hala ere, grafikoan ikus daitekeen bezala, aurreikuspen-planetako bazkide gehienek oso diru gutxi jartzen dute. Bazkideen % 76k urtean 1.800 euro baino gutxiago jartzen ditu, hau da, batez bestekoa baino gu-

IV.4.4. GRAFIKOA. BGAE-en planetara egindako ekarpen kopurua ekarpenen urteko zenbatekoaren arabera. Eurotan. 2007



Iturria: EUSKO JAURLARITZA

txiago (1.930 €), eta % 40k 600 euro baino gutxiago ematen ditu. Kopuru hori ez da nahikotzat jotzen pentsio osagarri altua sortu nahi bada. Hortaz, batez besteko ekarpena zenbateko baxuko ekarpen ugariren eta zenbateko altuko ekarpen gutxiren bidez lortzen da. Enplegurako aurreikuspen-planen kasuan, bazkideen % 51k beren soldataren % 3 baino gutxiagoko ekarpenak egiten dituzte eta ia % 80k beren soldataren % 6 baino gutxiagoko ekarpenak egiten dituzte. % 6 da komenigarritzat jo den zifra. Hala eta guztiz ere, gogorarazi behar da hainbat langilek aldi berean banakako beste aurreikuspen-plan batzuetara ekarpenak egitea posible dela.

Beste alde batetik, ekarpen altuak egiten dituzten bazkideak batez ere banakako planak izaten dituzte. Urtean 8.000 euro baino gehiago ematen dituzten bazkideen % 87k banakako planetan egiten du. Beste era batera esanda, 8.000 euroko ekarpenak egiten dituztenak banakako planetako bazkideen % 3,6 dira eta enplegu-planetakoen % 0,8.

Beste alde batetik, enplegu-sistemetan ekarpen "nahikoak" lortze aldera, bazkide babesleak oso eginkizun garrantzitsua izaten du, normalean enpresariak, eta horrek banakako bazkidearekin ahalegin kontributiboa elkarbanatzen du, aurreikuspen-plana emanez. 2007an EAEn enplegu-planetara egindako ekarpenen

IV.4.8. TAULA. BGAE-ak EAE-n: bazkide bakoitzak pilatutako batez besteko ondarea. Euroak

	2006	2007	Ald. %-tan
BGAEak guztira	**13.496**	**13.996**	**3,7**
Banakako BGAEak	9.729	10.081	3,6
Enplegurako BGAEak	21.688	22.472	3,6
-PD enplegua	110.343	112.871	2,3
-ED enplegua	10.106	10.836	7,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007

% 83 bazkide babesleek ordaindu zituzten (2006an bezalako portzentajea) [10].

Beste modu batera esanda, BGAE-en aurreikuspen-planetako bazkideek pilatutako ondarea per capita 13.996 euro izan ziren 2007an, 2006an baino % 3,7 gehiago. BGAE bateko bazkide batek hainbat aurreikuspen-plan izan ditzakeenez, gizarte-aurreikuspen osagarriaren sisteman pilatuta izango duen ondarea handiagoa izango da. Hala gertatzen da, neurri handiagoan, banakako planetan, eta horren ondorioz, neurri batean, aurreikuspen-plan bakoitzean pilatutako zenbatekoa txikiagoa da.

Pentsioen azken zenbatekoa pilatutako funtsen inbertsio-politikaren egokitasunaren araberakoa da neurri batean, izan ere, politika horrek errentagarritasun handiena eta ahalik eta arriskurik txikiena izan behar ditu. Errentagarritasuna eta arriskua modu positiboan lotuta daudenez, zenbat eta arrisku gehiago izan geroz eta errentagarritasun handiagoa lortzen da, eta plan bakoitzeko bazkideen profilak kasu bakoitzerako errentagarritasunaren eta arriskuaren konbinaziorik egokiena zehaztuko du. Eskuarki onartzen diren printzipio batzuk daude eta horien arabera, kotizatzen den azken urteetan arrisku gutxiago egon omen da, nahiz eta errentagarritasun-punturen bat galdu; aldiz, hasierako urteetan errentagarritasunik handiena bilatu behar da are gehiago arriskatuz.

IV.4.9. TAULA. BGAE-en aurreikuspen planen kopurua inbertsio orientazioaren arabera. 2007. Urtea

Inbertsio-orientazioa	Banakako planak	Enplegu-planak	Bazkidetuen planak	Aurreikuspen-planak guztira
Bermatuta	48	1	0	49
Errenta finkoa	97	101	11	209
E. aldakorra gehienez % 15	17	17	1	35
E. aldakorra gehienez % 30	38	85	4	127
E. aldakorra gehienez % 75	34	10	1	45
E. aldakorra gehienez % 75-80	42	9	2	53
GUZTIRA	**276**	**223**	**19**	**518**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

[10] Neurri horrek oso ezberdinak diren errealitateak ditu atzean; BGAE batzuetan kotizazioa bazkide babeslearen eta bazkide arruntaren artean erdibana banatzen da, beste batzuetan % 100 bazkide babeslearentzat izaten da eta, beste batzuetan, araudiaren arabera % 50eko zatietan banatu behar bada ere, langilearen ekarpena borondatezkoa denez, bazkide babesleak nahitaez ordaindutako kuotak lortutakoaren % 90 baino gehiago izaten dira.

IV.4.10. TAULA. BGAE-en prestazioen urteko batez besteko zenbatekoa. 2007. Urtea

Prestazioak	Banakako planak	Enplegu-planak eta bazkidetuenak	BGAEak guztira
Erretiroa	8.214	10.073	9.395
Baliaezintasuna	5.678	6.953	6.532
Alarguntza	8.544	6.616	7.239
Zurztasuna	5.337	8.034	7.180
PENTSIOAK GUZTIRA	**7.918**	**8.761**	**8.466**
Gaixotasuna	10.495	1.501	1.551
Langabezia	2.588	4.455	3.194

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

Bazkideen beharrizanak eta lehentasunak gogobete ahal izateko, BGAE-ek arrisku-profil ezberdinak dituzten askotariko aurreikuspen-planak eskaintzen dituzte.

Planen inbertsio-orientazioa sailkatzeko hiru kategoria ezarriko ditugu. Lehena inbertsio "kontserbadorea" izango da, bermatutako funtsetan inbertitzea, errenta finkoko aktiboetan, eta errenta aldakorreko aktiboetan gauzatutako portzentajea % 15 baino baxuagoa duena. Bigarrena, "arrisku ertaina" inbertsioan errenta aldakorreko aktiboak errenta osoaren % 15-75 dira. Eta hirugarrena, inbertsio "arriskutsua" % 75 baino gehiagoko errenta aldakorreko aktiboetan egiten dena. Banakako BGAE-etako bazkideek plan mota bat edo beste bat hautatzeko aukera dute (enplegu-planekoek neurri txikiagoan), hortaz, plan mota bakoitzak duen bazkide kopurua bat dator pertsona bakoitzak arriskua hautemateko duen moduarekin.

2007an BGAEtako bazkideen % 45 inbertsio-orientazio "kontserbadorea" zuten aurreikuspen-planak zituzten: bermatutako planak edo errenta aldakorrean % 15aren azpitik inbertitzen zuten. % 50ek "arrisku ertaineko" planak zituzten (errenta aldakorrean haien fun-tsen % 15 eta % 75 artean inbertitzen zuten) eta % 5ek bakarrik plan "arriskutsuak" (errenta aldakorrean % 75etik gora inbertitzen zuten). Bazkide gehien dituen plana errenta aldakorrean % 15 eta % 30 artean inbertitzen duena da.

Azkenik, BGAE-ek ematen dituzten prestazioak Gizarte Segurantzaren pentsio osagarriak dira batez ere: erretiro-, baliaezintasun-, alarguntza- eta zurztasun-pentsioak. 2007an BGAE-en gastuaren % 88 izan ziren; gaixotasunagatiko prestazioak (ABE), aldiz, % 9 eta epe luzeko langabeziagatikoak % 2.

BGAE-ek pentsiotan ordaindutako 349 milioi euroak 2007an EAEko Gizarte Segurantzaren pentsioen gastuaren % 6,1 izan zen. BGAE-ek gutxi gorabehera EAEko biztanleen herena eta Gizarte Segurantzak biztanleria osoa babesten dutenez, babes bera izanez gero, portzentajea % 18 inguru izango litzateke.

4.3. ERAKUNDE BABESLEAK ETA HAIEN DIMENTSIO EKONOMIKOA

2007an EAEn 185 BGAE zeuden borondatezko gizarte-aurreikuspenerako esparruan. Horien artean bi talde nagusi bereiz ditzakegu: Gizarte Segurantzaren prestazioetako bati prestazio osagarriak ematen dizkiotenak: 94 erakunde, eta bestelako arriskuak estaltzen dituztenak, besteak beste: Suteak, ehorztetxeak, osasun laguntza, eta beste batzuk; guztira 91 dira. Prestazio osagarriak ematen dituen taldearen barruan, modalitateen araberako banaketa hau da: Enplegurako 44 BGAE, 45 banakakoak eta bazkidetuenak 5. Enpleguari buruzko 44 BGAEtatik 40k jokatzeko esparru gisa enpresa duten aurreikuspen-planak dituzte, 2 sektorekoak dira, hau da, aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen dute (enpresa kooperatibak, kasu batzuetan, eta Gipuzkoako zenbait probintzia-hitzarmen dituztenak, beste batzuetan). Azkenik, 2 BGAE dauden sektore publikoko langileentzat: Bata EAEko Administrazio Orokorreko langileentzat, eta bestea Tokiko Administrazioko langileentzat.

Gizarte Segurantzari prestazio osagarriak ematen dizkieten 94 BGAE-en taldeari erreparatuz, BGAEko kideen batez bestekoa 2007an 11.925 izan zen; banakako BGAE-en kasuan, ostera, 16.364 zen, eta

IV.4.11. TAULA. BGAE-ak EAE-n: sektorearen dimentsio ekonomikoa				
	2006	2007	2008	2009P
BGAE/BPGd kuotak %-tan	2,25	2,20	2,05	2,05
BGAE/BPGd prestazioak %-tan	0,59	0,60	–	–
BGAE/BPGd ondarea %-tan	26,26	26,84	25,18	27,62
BGAE kuotak/ Giz. Seg. Kuotak %-tan	26,77	25,90	–	–
BGAE gastua / Giz. Seg. prestazioen gastua %-tan	6,27	6,10	–	–

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007 eta memoriaren egileak egindakoa.

enplegurako eta bazkidetuenen kasuan, azkenik, 7.691. Banakako BGAE-ek tamaina bikoitza dute enplegurakoekin alderatuz gero. Aintzat hartu behar da, hala ere, enplegurako BGAE gehienek, % 64 hain justu ere, 1.000 bazkide baino gutxiago dutela, eta 5 entitatek baino ez dituztela 5.000 bazkide baino gehiago. Banakiakoen artean soilik % 29k dauzka 1.000 kide baino gutxiago, eta % 20ra iristen dira 25.000 baino gehiago dituztenak.

BGAE baten batez besteko ondarea 2007an 188 milioi eurokoa zen (2006an baino % 11,2 gehiago). Datu horiek oinarri gisa hartuta, ez dago ia desberdintasunik enplegurako erakundeen eta banakakoen artean; izan ere, batez besteko ondarea oso antzekoa da. Labur esateko, banakako BGAEak, kideen kopuruaren arabera enplegurakoen bikoitza dira, baina ondarea oso parekoa dute. Gainera, bazkideen kopuruaren arabera tamaina aztertzerakoan gertatzen den bezala, ondarea erakunde gutxi batzuetan biltzen da, hori baita egiten diren ekintzen eskala ekonomia garrantzitsuak dauden sektoreen ezaugarrietako bat: Finantza arlokoak eta epe luzeko aurrezkiak, mundu osoko pentsio-funtsen tamainak islatzen duen bezala.

Bestalde, BGAE-ek duten garrantzia makroekonomikoa nabarmendu egiten da kudeatzen ditugun aktiboen bolumenari erreparatzen diogunean. Pentsio-funtsekin gertatzen den bezala, finantza-sistema oso garrantzitsua den herrialdeetan (eta pentsio-funts handien kasuetan, nazioarteko finantza-merkatuetan paper nagusia jokatu ohi dute), BGAE-ek kudeatutako ondarea garrantzitsua da nazio mailako errentaren arabera azaltzen denean, EAEko BPGdren % 25,2 azken datu finkatuen arabera, 2008ari buruzkoak, eta 2009ko estimazioen arabera % 27,6.

IV.4.12. TAULA. BGAE-en aktiboen egitura. 2007. Urtea	
	Milioi eurotan
Errenta finkoko aktiboak	8.675,98
Errenta aldakorreko aktiboak	3.095,77
Inbertsio-fondoak eta beste batzuk	1.706,06
Efektiboa eta moneta aktiboak	4.181,35
Finantza-aktiboak guztira	**17.659,17**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

Hala ere, BGAE-en garrantziak behera egiten du ekarpenen ondoriozko ohiko diru-sarrerak aintzat hartzen ditugunean, 2007an BPGdren % 2,20 (behin-behineko datuen arabera 2009an % 2,05), edo prestazio sozialen gastua, BPGdren % 0,6 (2007ko datua). Magnitude horiek testuinguruan kokatzeko eta esanahi handiagoa emateko, komeni da osatu nahi den Gizarte Segurantzako sistema publikoaren kontzeptu berdinen diru-sarrera eta gastuekin alderatzea: BGAE-en ekarpenek EAEko Gizarte Segurantzaren gizarte-kotiza-

IV.4.13. TAULA. Aurreikuspen planak urteko errentagarritasunaren arabera. 2007. Urtea

Errentagarritasuna	Aurreikuspen-planak guztira	Banakako planak	Enplegurako planak	Bazkidetuen planak
Negatiboa	**46**	32	13	1
% 0-5	**376**	192	167	17
% 5%-10	**68**	33	35	0
% >10	**13**	7	5	1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin 2007.

IV.4.5. GRAFIKOA. BGAE EAE-N: Administrazio-gastuek duten pisua ondarean. %-tan



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. . Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin, 2007

zioengatik jasotako % 25,9 hartzen dute. Hala ere, ehunekoa askoz txikiagoa da bi sistemek ematen duten prestazioak direnean; izan ere, BGAE-en sistema pribatuak Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren % 6,1 baino ez du hartzen[11].

Funtsak inbertitzeko orduan, BGAE-en ondarearen ia erdia errenta finkoko finantza-aktiboetan gauzatzen da, % 49a, hain zuzen ere (2006an % 51). Atzetik datoz errenta aldakorreko aktiboak eta inbertsio funtsak, % 27a dutela; gainerako % 24 moneta aktiboetan eta diruzaintzan daude. Aktibo moten araberako banaketa hori Espainiako pentsio-funtsetan ematen denaren nahiko antzekoa da. Nazioarteko ikuspegiari erreparatuz gero, ikusiko dugu herrialde gehienetan errenta finkoko inbertsioa dela nagusi, baina pentsio-funtsak gehien finkatuta dauden herrialdeetan (Herbehereak, Erresuma Batua, AEB, etab.) errenta aldakorreko inbertsioa da garrantzitsuena. Eusko Jaurlaritzaren ikerketak antzeman du pentsio-funtsen garrantziaren eta finantza-inbertsioen sofistikazioaren arteko lotura dagoela, funtsei ahal bezain etekin gehien ateratzeko asmoz.

Bestalde, BGAE-en aurreikuspen planetan lortutako batez besteko errentagarritasuna 2007an % 2,92koa izan zen (2006an % 5,12). Enplegu-planek % 3,10 lortu zuten, eta banakakoek % 2,77. Eusko Jaurlaritzaren txostenak emaitza pobretzat jo ditu datu horiek; izan ere, urte horretako inflazioa aintzat hartuz gero (batez beste % 2,78) ehunekoen hamarren gutxi batzuen errentagarritasun erreala izan zuten datu horiek.

Azkenik, BGAE-ek lortutako errentagarritasun finala BGAE-en gastu operatiboen zenbatekoak zehazten ditu, batik bat: Ekarpenak eta prestazioak kudeatzeko gastuak, aktiboen kudeaketa-gastuak, profesional independente gisara egindako zerbitzuen gastuak (auditoreak eta jardulariak), etab. 2007an BGAE-ek 176 milioi euroko administrazio-gastua izan zuen, eta horrek ondarearen % 1 hartzen du (2006. urtean, ostera, % 0,79). Enplegurako BGAE-etan askoz baxuagoa izan ohi da kopuru hori banakakoetan baino: % 0,38 enplegurakoen kasuan, eta % 1,63 banakakoei dagokienez.

[11] BGAE-ek diru-sarreretan eta gizarte babeseko gastuetan duten eginkizunaren desberdintasun handi horren interpretazioak bi balizko azalpen ditu; bata, sistema pribatua sistema publikoa baino askoz gazteagoa da, edo ez hain heldua, eta bi: Sistema pribatuko diru-sarrera asko ez dira gizarte prestazio bihurtzen, zuten helbururako erabili baino lehen erreskatatzen dituztelako.

Aldea erakundeak bazkideekin banakako planetan duen banakako harremanaren berezko nortasunaren parte da, kudeaketa, merkaturatze, eta beste alor batzuetako gastu handiagoak eragiten baititu.

4.4. ZERGA ERREGIMENA

BGAE-ek EAEn izan duten garapen garrantzitsua, neurri handi batean, aurrezteko modu honen erakargarritasuna areagotu duen zerga estimuluari zor zaio, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren kasuan ere (erakundeei zein enplegu-planen babesle diren enpresa edo bazkideen parte-hartzea sustatzeko). EAEn zerga gaietako eskumenak Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundiek eta Batzar Nagusiek dituzte. Oro ohar, zenbakiko bazkideak emandako kopuruak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren kengarriak dira[12]. Bestalde, errenta geroratua den aldetik, BGAE-etatik jasotako prestazioak (baita kontingentzia gertatu aurretik ordaindutako kopuruak edo

IV.4.6. GRAFIKOA. Zerga oinarri orokorraren txikipenak BGAE-tara egindako ekarpen bakoitzeko PFEZ-ren likidazioan. likidazioaren datuak, 2006



Iturria: OCTren datuak oinarri hartuta egindakoa.

[12] Ondarearen gaineko Ezohiko Zergari dagokionez, bazkidearen eskubide finkatuak soilik zenba daitezke zerga horren aitorpena aurkezteko betebeharra dagoen zehazteko, nahiz eta eskubide salbuetsi gisa jo, eta hortaz, horren zerga-oinarriaren parte ez izan.

erreskateak ere) lan pertsonalaren etekin oso gisa hartzen dira, baita atxikipenerako ere[13].

2006ko PFEZren likidazioari buruzko datuen arabera (Zerga Koordinaziorako Organoak emandakoak, atal hau bukatzerakoan eskura zeuden azkenak, organo horren 2007ko Txostenekoak), BGAEren ekarpenen txikipen eta bestelako aurreikuspen formulen kopurua 1.174 milioi eurokoa izan zen, 2005ean baino % 9,5 gehiago; horrek esan nahi du urte horretako EAEko BPGd (2005ean % 1,62), 502.393 aitortzaile zirela kontuan hartuta, aurreko urtean baino % 3,9 gehiago izan zirela, hau da, aitortzaileen % 46. Horrek esan nahi du batez beste 2.336 € gutxiago izan direla, 2005eko batez bestekoa baino % 5,4 gehiago. Kontzeptu hori dela medio kendutako zenbatekoak zerga-oinarriaren % 5 hartzen du, eta txikipenen iturri nagusia da, zerga-ordainketa bateratuaren ondoriozkoaren aurretik; hortaz, bien artean zerga oinarria % 10 inguru gutxitzen da.

BGAE-en ekarpenen ondoriozko kengarriek errenta ertainetan zeresan handiagoa daukate: Zerga oinarriaren 18.000 eta 30.000 € arteko tartean (aitorpenen % 34,8 jasotzen duen urkila) BGAE-en ekarpenen ondoriozko txikipenen % 29,2 hartzen da, guztira 343 milioi euro. Garrantziaren arabera datoz, ondotik, hurrengo errenta maila, zerga-oinarria 6.000 eta 18.000 € artekoa duena. Aitorpenen % 33,3 hartzen duen urkila da, eta txikipenen zenbatekoaren % 21 hartuko duena. Horrez gain, Foru Aldundietako PFEZ aitorpenetako datu finkatuek islatzen dute errenta txikiagoko aitorpenen % 6,6 (zerga-oinarria 6.000 € baino gutxiagokoa dutenak) soilik BGAE-etako ekarpenen txikipenen % 3,4ari dagokiela, hau da, 39,5 milioi euro.

Bestalde, grafikoan ikus daitekeen moduan, BGAEren ekarpenen ondoriozko txikipenaren zenbatekoa PFEZren zerga-oinarrian handiagoa da (batez beste) aitortutako errenta-maila zenbat eta altuagoa izan.

[13] Prestazioa kapital gisara hartzea bada ere, % 40ko txikipena du; ostera, errenta-nortasuna badu, zerga-oinarrian integratzen da osorik.

05

GARAPENERAKO LANKIDETZA EAEn

EAEN MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

Txirotasunaren eta azpigarapenaren inguruko kezka Bigarren Mundu Gerraren amaieran agertu zen modu formalean, deskolonizazio prozesutik herrialde berriak sortu ziren garaian. Kolonia ohi horien garapenerako laguntza, hasiera batean, mendebaldeko herrialdeen interes estrategiko, politiko eta komertzialen mendeko finantza eta merkataritza harremanetan oinarritu zen. Baina, aldi berean, laguntza modu berriak sortzen hasi ziren Nazio Batuen eremuan.

Aitzitik, laguntza mota hau garapenaren alderdi ekonomikoei begira ematen zen bakarrik. 90eko hamarkadan nazioarteko lankidetzaren ikuspegia aldatu zen. Ideia nagusia zen herrialde guztien garapenean oinarritutako hazkuntza iraunkorra lortu ahalko zela, globalizazio prozesuaren barruan, politika ekonomikoko pauta komun batzuk ezarriz gero. Planteamendu horrek ere ikuspegi ekonomikoegia zeukan, ordea, eta praktikak erakutsi zuen ez zela nahikoa txirotasuna desagerrarazteko; gainera, ezberdintasun handiak zeuden. Horregatik, 2000. urteaz geroztik, Milurtekoko Adierazpenarekin, erabaki zen garapen estrategietan alderdi sozialak garapenaren berezko faktore diren aldetik aintzat hartzea.

Hain zuzen ere, azken mendean garapen ekonomikoan inoizko aurrerapenik handiena gertatu den arren, gosea, txirotasuna, gaixotasuna eta analfabetismoa milioika pertsonek bizi dituzte mundu zabalean. Muturreko ezberdintasunak dauden mundu honetan, garapenerako lankidetzak lehentasun argia izan behar du agenda politiko guztietan.

Milurtekoko Garapenerako Helburuen (MGH) elementu zentrala da onartzea pobreziaren aurkako borroka zeregin kolektiboa dela, eta haren emaitzek herrialde guztiak mesedetuko dituztela. Helburuak betearazteko erantzukizun nagusia garapen bidean dauden herrialdeena da. Baina nazioarteko babesa ere eman behar da, batik bat, pobreziaren edo isolamendu geografikoaren eragina nabariena duten herrialdeei. Bestalde, mundu mailako ekonomia interdependentea izateak merkataritzarentzat bide berriak, nazioartean finantza-egonkortasuna eta teknologiaren zabalkundea exijitzen ditu, garapen bidean dauden herrialdeek garapen azeleratua eta iraunkorra ahalbideratzen duten aukerak aprobetxatu ahal izateko.

Milurtekoko Adierazpenak 2015. urtean jarri zuen Milurtekoko Adierazpenaren Helbururik gehienak lortzeko muga. Helburu horiek muturreko pobreziako modu guztiak erdiraino murrizteko parametro kuantitatiboak ezarri zituzten. Urte horretara hurbiltzen ari garen neurrian, bost urte baino gutxiagoan, munduak aurrekaririk gabeko krisialdi ekonomikoa bizi du. Milurtekoko Adierazpenaren Helburuak lortzeko aurrerapenek une honetan zenbait mehatxu dauzkate aurrez aurre: hazkuntza ekonomiko motela (edo are negatiboa), baliabideen murrizpena, garapen bidean dauden herrialdeek aukera komertzial gutxiago izatea eta laguntzak ematen dituzten herrialdeek agian beren fondoak murriztuko dituztela. Gainera, klima aldaketaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira eta eragin suntsigarria izan dezakete herrialde aberats nahiz pobreetan.

Nazio Batuek 2009an MGHen betearazpenaren bilakaerari buruz egin zuten txostenaren arabera, liteke-

V.1. GRAFIKOA. 1. MGH: Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea. Egunean 1,25 US$ baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa



Iturria: NAZIO BATUAK. Milurtekoaren Garapenerako Helburuak. 2009ko txostena.

ena da 1990 eta 2005. urteen artean muturreko pobreziaren aurkako borrokan lortutako aurrerapen garrantzitsuak, adibidez, geratzea. Denboraldi horretan, bizitzeko egunean 1,25 dolar baino gutxiago zeukaten pertsonen kopurua 1.800 milioitik 1.400 milioira murriztu zen. 2009an, ordea, muturreko pobrezian biziko diren pertsonen kopurua krisia baino lehen aurreikusten zena baino 55 milioi pertsona eta 90 milioi pertsona bitartean handiagoa izango dela aurreikusi da.

Era berean, 90eko hamarkadaren hasieratik gosea desagerrarazteko zegoen joera mesedegarriak kontrako bidea hartu zuen 2008an. Gainera, garapen bidean dauden eskualdeetan gosea areagotu da: 2006an %16 zen eta 2008an %17. Era berean, 2008ko bigarren erdialdean elikagaien nazioarteko prezioak jaitsi ziren arren, ez zen lortu elikagaiak merkeagoak izatea munduko jenderik gehienarentzat.

Halaber, arriskuan dago herrialdeek garapenerako barne-baliabideak erabiltzeko daukaten gaitasuna. Garapen bidean dauden herrialdeen esportazioetako dirusarrerak 2008ko azken hiruhilekoan murriztu ziren. Lehengaien eta oro har esportazioen prezioak jaitsi ziren. Garapen bideko herrialdeen zorraren eta esportazioen arteko proportzioak txarrera egiten jarraituko du seguruenik, batez ere azken urteetan esportazioei esker diru-sarrera gehiago izan dituzten herrialdeetan.

Baina guztiak ez dira berri txarrak. Nazio Batuen txostenaren arabera, herrialde eta eskualde askok aurrerapauso esanguratsuak egin zituzten, egoera ekonomikoa 2008an goitik behera aldatu baino lehen:

- Garapen bidean zeuden eskualdeetan muturreko pobrezian bizi zirenak, 2005ean, garapen bidean zegoen munduko biztanleria osoaren laurdena ziren (1990ean ia erdia ziren).
- Hezkuntzan ere aurrerapen txalogarriak lortu ziren. Garapen bidean zeuden herrialdeetan, osotasunean hartuta, lehen hezkuntzako matrikula %88ra iritsi zen 2007an, 2000. urtean baino %83 gehiago. Gainera, aurrerapen honen zati handi bat atzeratuen zeuden eskualdeetan lortu zen. Saharatik beherako Afrikan eta Asia hegoaldean matrikula ehuneko 15 eta 11 igo zen hurrenez hurren, 2000. eta 2007. urteen artean.
- Bost urtetik beherako umeen heriotzak etengabe murriztu ziren mundu osoan, nahiz eta populazioaren kopuruak gora egin zuen: 1990. urtean 12,6 milioi izan ziren eta 2007. urtean 9 milioi. Saharatik beherako Afrikan umeen heriotza tasak munduko altuenak dira oraindik ere, baina datu berriek erakusten dute funtsezko hobekuntzak lortu direla esku hartze garrantzitsu askotan, eta horrek aurrerapen garrantzitsuak ekar litzake datozen urteetan eskualde honetako umeentzat.
- Mundu mailan, Lurra babesten duen ozono-geruza kaltetzen duten substantzien kontsumoan %97ko murrizpena erdietsi zen. Nazioarteko lankidetzan aurrekari garrantzitsua da hori.

Hala eta guztiz ere, MGHak lortuko badira, garapenaren agenda hazkuntza bultzatzeko eta ekonomia globala berreraikitzeko ahaleginetan txertatu behar da oso-osorik. MGHak lortzeko ahalegin handiagoa egin beharko da argi eta garbi atzean geratu diren eremu eta populazio taldeetan, besteak beste, landa izarako komunitateetan, familiarik pobreenetan eta gutxiengo etnikoetan.

V.2. GRAFIKOA. 1. MGH: Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea. Gaizki elikatuta dauden pertsonen proportzioa



Iturria: NAZIO BATUAK. Milurtekoaren Garapenerako Helburuak. 2009ko txostena.

1

Giza garapena eta garapenerako laguntza munduko testuinguruan

1.1. 2009ko GIZA GARAPENAREN TXOSTENA

Giza garapena pertsonei dagokie. Pertsonen aukerak areagotu nahi ditu garapenak, bizimodu betea eta sortzailea askatasunez eta duintasunez izan dezaten. Hazkuntza ekonomikoa, komertzioaren eta inbertsioen gehikuntza eta aurrerapen teknologikoak oso garrantzitsuak dira, baina bitartekoak dira, ez helburuak. Aukera hauek areagotzeko, giza gaitasunak garatu beharra dago, hau da, pertsonei bizitzan gauza gehiago izateko aukera eman behar zaie. Giza garapenean, gaitasunik funtsezkoenak bizitza luze eta osasuntsua izatea, hezkuntza jasotzea, bizi-maila duina edukitzea, eta askatasun zibil eta politikoa, norberaren komunitatearen bizitzan parte hartu ahal izateko, edukitzea dira.

Testuinguru honetan, Giza Garapenaren Indizearen (GGI) bilakaera, Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) urtero egiten duena, ez da izan zitekeen onena. GGIak nazioen aurrerapena neurtzen du. Horretarako zenbait adierazle sozioekonomiko erabiltzen ditu, bizi-itxaropena, hezkuntza maila eta biztanle bakoitzeko diru-sarrerak kontuan izaten dituztenak. Adierazle horiek giza garapenaren neurri integrala izateko dauzkaten mugak aitortzen ditu GGIak halere, adierazle

V.1.1. TAULA. Nazioarteko finantza fluxuak: bidalketak, garapenerako laguntza ofiziala eta atzerriko zuzeneko inbertsioa. 2007

	BIDALKETAK			Jaso den garapenerako laguntza ofizial (GLO) garbia (US$ per capita)	Bidalketa fluxuaren tamaina erlatiboa			
	Diru-sarrerak guztira (milioika US$)	Ordainketak guztira (milioika US$)	Ordainketak migratzaileko (US$)		Per capita (US$)	Jasotako GLO garbiaren ehunekotan	BPGaren ehunekotan	Zuzeneko inbertsioaren ehunekotan
Afrika	36.850	4.754	324	36	44	123,9	3,9	0,7
Asia	141.398	62.220	1.448	9	36	---	---	0,4
Europa	119.945	126.169	1.990	---	160	---	2,8	0,1
Latinoamerika eta Karibe	63.408	3.947	798	10	114	1.649,5	---	0,6
Iparramerika	2.972	45.643	---	---	---	---	---	---
Ozeania	6.193	5.090	---	---	---	---	---	---
ELGA	124.520	165.254	1.884	---	108	---	0,8	0,1
EUROPAR BATASUNA	96.811	88.391	2.208	---	196	---	1,5	0,1
GGI oso handia duten herrialdeak	86.313	172.112	1.845	---	92	---	---	0,1
GGI handia duten herrialdeak	92.453	59.434	1.705	9	101	---	---	0,3
GGI ertaina duten herrialdeak	189.093	15.403	446	12	44	564,9	---	0,7
GGI txikia duten herrialdeak	2.907	874	133	51	11	40,2	---	0,8
MUNDUA GUZTIRA	**370.765**	**248.283**	**1.464**	**14**	**58**	**---**	**---**	**0,2**

Iturria: NBGP: GIZA GARAPENAREN TXOSTENA, 2009.

horietan ez baitira zenbait gauza garrantzitsu sartzen (giza eskubideen errespetua, demokrazia eta berdintasuna tartean), baina giza aurrerapena ikusteko ikuspegi zabala eskaintzen du eta diru-sarreren eta ongizatearen arteko erlazio konplexua erakusten du. NBGParen 2009ko Giza Garapenaren Txostenean ohartarazi zen, lehenik eta behin, datuak 2007koak direla, beraz, krisiaren ondorioak ez direla islatzen, eta krisiak munduko herrialde askotako giza garapenaren lorpenetan izugarrizko kaltea ekarriko duela espero dela.

Oraingo honetan, mezu nagusia da pertsonen mugikortasunak giza garapena hobetzeko gaitasuna duela, bai migratzen duten pertsonentzat eta gelditzen diren pertsonentzat, bai etorkinak hartzen dituzten komunitateentzat. Era berean, txostenak nabarmentzen du, migrazioaren inguruko eztabaida askoren abiapuntua garapen bidean dauden herrialdeetatik garatutako herrialdeetara doazen korronteak izan ohi diren arren, migraziorik gehienak ez direla gertatzen bi herrialde mota horien artean; are gehiago, gehienetan migrazioak ez dira herrialde artekoak izaten. Bizilekua aldatzen duten pertsonarik gehien-gehienek beren herrialdearen barruan egiten dute: 2007an 740 milioi pertsona inguruk barne-migrazioak egin zituzten, beste herrialde batera joan ziren pertsonen ia laukoitza beraz. Azken horietatik heren eskas bat joan zen garapen bidean dagoen herrialde batetik garatutako herrialde batera, 70 milioi pertsona inguru.

Txostenak dioenez, migranteek produkzioa dinamizatzen dute eta bizi diren herriko bizilagunentzat kostua oso txikia edo deuseza da; jatorrizko herrialdeetan migrazioaren ondorioak onak dira: diru-sarrera eta kontsumo handiagoak, hezkuntza eta osasun hobeak, eta maila kultural eta soziala hobetzea. Halere, nazioarteko migrazioa, ondo kudeatzen den kasuetan barne, ez da giza garapenerako estrategia nazional baten baliokide. Onenean, pobrezia murrizteko eta giza garapena hobetzeko ahalegin lokal eta nazional orokorren osagarriak dira; baina ahalegin horiek oraindik ere funtsezkoak dira.

Mundu mailan, Norvegia da GGIaren rankingaren burua 2009an (Australia eta Islandia atzetik dituela). Beste muturrean, Nigeria, Afganistan eta Sierra Leona dira azken hirurak.

1.2. GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA

Garapenerako laguntza ofiziala (GLO) gutxien garatuta dauden herrialdeek pobreziari aurre egiteko daukaten kanpo finantzazioko iturri nagusia da. Laguntza honetako zatirik handiena kanpo zorraren interesak ordaintzeko erabiltzen da. Eskualde gehienetan, Saharatik beherako Afrika izan ezik, 70eko hamarkadatik hona nabaritu da laguntza BPGaren portzentaje gisa murriztu dela eta zorra gehiago ordaindu dela. Bereziki aipagarria da Latinoamerikaren eta Karibearen kasua, haien laguntza %0,3 murriztu baita. Zorraren ordainketa, berriz, %5 gehitu da denboraldi horretan.

ELGAren datuen arabera, herrialderik aurreratuenek, Garapenerako Laguntza Batzordeko (GLB) kide direnek, 2008an 86.456 milioi dolar bideratu zituzten guztira GLOrako, hau da, aurreko urtean baino %18,6 gehiago. Talde horretatik, diru-emailerik garrantzitsuak Estatu Batuak (guztiaren %27), Alemania (%10) eta Erresuma Batua eta Frantzia (%9na) dira. Fondo horietatik diru gehien jaso duten herrialdeen artean, zerrendan lehenengoa Irak da, 9.870 milioi dolarrekin

V.1.1. GRAFIKOA. Jasotako garapenerako laguntza ofiziala, kontinentearen arabera. USA dolarrak milioika



Iturria: ELGA. GLOko eskualdeetako estatistikak. 2010

V.1.2. TAULA. Garapenerako laguntza ofiziala: herrialde onuradun nagusiak. Milioika dolarretan

		2006	2007	2008	2006-08 batezbestekoa	% GLB
1	Irak	8.870	9.176	9.870	9.305	8%
2	Nigeria	11.428	1.956	1.290	4.891	4%
3	Afganistan	2.956	3.965	4.865	3.928	3%
4	Etiopia	1.941	2.563	3.327	2.611	2%
5	Tanzania	1.814	2.820	2.331	2.321	2%
6	Vietnam	1.845	2.511	2.552	2.302	2%
7	Sudan	2.044	2.112	2.384	2.180	2%
8	Pakistan	2.140	2.244	1.539	1.974	2%
9	Palestina	1.450	1.873	2.593	1.972	2%
10	Mozambique	1.601	1.778	1.994	1.791	2%
11	Beste	70.061	76.106	95.864	80.677	71%
	GUZTIRA	**106.15**	**107.104**	**128.609**	**113.952**	**100%**

Iturria: ELGA. GLOaren eskualdekako estatistikak. 2010.

V.1.2. GRAFIKOA. Garapenerako laguntza ofiziala, eskualdearen eta sektorearen arabera, 2008. Banaketa, ehunekotan



Iturria: ELGA. GLOko eskualdeetako estatistikak. 2010

(GLBaren GLOaren %8), gero Nigeria (%4) eta Afganistan (%3). Eskualdeka, Afrikak eta Asiak guztiaren ia %60 jasotzen dute, biak 40.000 milioi dolarretik gorako zenbatekoekin.

Bestalde, ELGAk, 2009ko "*Garapenari buruzko Txostenean*", adierazi zuen laguntzak garapenean izan lezakeen eraginera ez iristeko arrazoi nagusietako bat zatiketa dela: laguntza oso zati txikietan dator, emaile askok bidalita, alferrikako administrazio-kostuak sortuz eta fondoak beharrezkoen diren lekuetara bideratzea eragotziz. GLBak "*Plana esleitzeko politikei eta etorkizuneko gastua adierazten duten planei buruzko inkesta*" egin du. Inkesta horren arabera, laguntza ematen dutenek laguntza gehiegi zatikatzen dute, herrialde askoren artean banatuz. Adibidez, 2005-06an 38 herrialdek GLBko eta alde askotako 25 emaile edo gehiagoren laguntza jaso zuten; beste aldetik ikusita, GLBko 23 ki-

V.1.3. TAULA. Garapenerako laguntza batzordea (glb): emaile nagusiak. milioika dolarretan

		2006	2007	2008	2006-08 batezbestekoa	% GLB
1	AEB	21.162	18.901	23.860	21.308	27%
02	Alemania	7.034	7.950	9.063	8.015	10%
3	Erresuma Batua	8.735	5.602	7.367	7.234	9%
04	Frantzia	7.919	6.258	6.461	6.880	9%
5	Japon	7.262	5.778	6.823	6.621	8%
06	Herbehereak	4.282	4.644	5.200	4.709	6%
7	Espainia	2.092	3.339	4.802	3.411	4%
08	Kanada	2.534	3.152	3.357	3.014	4%
9	Suedia	2.852	2.932	3.142	2.975	4%
10	Norvegia	2.171	2.883	3.036	2.696	3%
11	GLBko beste herrialdeak	10.858	11.442	13.345	11.882	15%
	GUZTIRA	**76.901**	**72.881**	**86.456**	**78.745**	**100%**

Iturria: ELGA. GLOaren eskualdekako estatistikak. 2010.

detatik 8k bakarrik daukate laguntza %50 baino gehiago kontzentratzeko maila.

Ikerketa honen ondorioa da laguntza eraginkorragoa izan dadin emaileek beren ahaleginak arrazionalizatu behar dituztela. Lana hobeto banatzeak asko lagundu ahal du garapen bidean dagoen herrialde batean edo sektore jakin batean (osasunean edo hezkuntzan adibidez) lan egiten duten emaileen kopurua kontzentratzeko, transakzio kostuak murriztuz eta koordinatutako ahaleginak erraztuz.

Halaber, garapen bidean dauden herrialdeek laguntza administratzeko eta esleitzeko egiten dituzten ahaleginak sarritan bertan behera geratzen dira, aurrez ikusi ezin diren arrazoiengatik: emaileek ez dute beti beren gastu planen berri ematen laguntza jasotzen duten gobernuek plan bat egin ahal izateko moduko epearekin, edo beren konpromisoak ez dituzte betetzen. Inkesta horrek ziurgabetasun hau zati batez behintzat murrizten du, etorkizuneko laguntza-fluxuen ikuspegia eskaintzen baitu. Aurreratzen du finantzaketaren haustura bereziki larria dela Afrikan: 2005ean esan zitzaion 25.000 milioi dolarreko aparteko laguntza jasoko zuela 2010erako, baina helburu hori beteko bada, kontinentearentzako GLO osoa %17 baino gehiago igo beharko litzateke urte bakoitzean, eta ez du ematen hori gertatuko denik.

1.3. BIDALKETEN MUNDUKO FLUXUA

Langile etorkinen diru-bidalketak haien herrialdeetako diru-sarrera iturri nagusietako bat dira. Garapen bidean dauden herrialdeei zuzentzen zaizkien bidalketen fluxuek gehikuntza esanguratsua izan zuten 70eko hamarkadatik aurrera. 2008. urtean 300.000 milioi dolar baino gehiago ziren, Munduko Bankuaren datuen arabera, eta dirua jasotzen zuten eskualderik gehienetan urtean %10 baino gehiagoko tasetan gehitu ziren. Herrialde horietako batzuetan, jasotzen dituzten bidalketak BPGaren %10 inguru dira.

Kapital-fluxu hauek funtzio garrantzitsua betetzen dute: famili sarreren iturriak dibertsifikatzea eta zailtasunen aurrean (adibidez, gaixotasunak edo gorabehera orokorragoak, hala nola krisi ekonomikoak, gatazka politikoak edo hondamendi naturalak) lagungarriak izatea.

Baina Munduko Bankuak ohartarazten du, 2008an garapen bideko herrialdeetara bidalketa askozaz ere gehiago egin ziren arren (%8,5eko gehikuntza izan zen), bidalketak ikaragarri murriztu zirela urte hartako hirugarren hiruhilekoan, fondoak jatorria diren herrialdeetan krisiak okerrera egin zuen unean. 2009. urterako 293.000 milioi dolarreko bidalketak espero dira (aurreko urtean baino %4,9 gutxiago).

Iraganean, bidalketa fluxuak egonkorrak izan ziren, eta batzuetan kontraziklikoak ere bai. Krisi honek, ordea, garatutako herrialdeetatik datozen fondoen bolumena asko murriztea ekarri du, batez ere Estatu Batuetan eta mendebaldeko Europako herrialdeetan (etorkinek garapen bidean dauden herrialdeetan dauzkaten familiei egiten dizkieten bidalketa guztietatik bi heren herrialde horietatik igortzen dira). Era berean, bidalketa horien mendetasun handia duten herrialdeetara (Bangladesh, Egipto eta Filipinak) egiten diren bidalketetan murrizpen garrantzitsuak atzeman dira.

Krisiak bidalketetan dituen ondorioak ezberdinak dira herrialde edo eskualde batetik bestera. Jaitsiera nagusiak Ekialdeko Europako eta Asia Erdialdeko herrialdeetan gertatuko direla aurreikusten da, bai kopuru erlatiboetan, bai absolutuetan. Horretarako arrazoia da Europar Batasunean sartu ondoren eta Errusiaren pizkunde ekonomikoaren ondoren azkar hazteko izan zuten joera alderantzikatu dela. Bidalketak Moldavian eta Tayikistanen dira handienak herrialde horien BPGaren aldean (%45 eta %38 hurrenez hurren); herrialde horietan kalkulatzen da fluxuak %10 murriztuko direla 2009an. Salvadorren bidalketak BPGaren %18 baino gehiago dira, eta hor ere asko murriztea espero da.

Era berean, Saharatik beherako Afrikara egiten diren bidalketen hiru laurdenak Estatu Batuetatik eta Europatik datoz (herrialde hauetan krisiak eragin berezia izan du). Ikusteke dago bidalketak azkarrago suspertuko diren garapenerako laguntza ofiziala baino eta inbertsio pribatuko fluxuak baino.

Espainiar estatuan, bidalketen merkatuak oso garapen handia bizi izan du iragan hurbilean, azken hamarkadan inmigrazio prozesua izugarri azkartu delako.

V.1.3. GRAFIKOA. 2002 eta 2008. urteen artean garapen bidean dauden eskualdeei egindako bidalketak, eta 2011ra arte proiektatutako joerak. US $, mila milioika



Iturria: Munduko Bankuaren eta Nazio Batuen datuekin egina.

Bidalketak urterik urte %30 inguru gehitu dira, BPGaren puntu erdia gainditzeraino. Hain zuzen ere, 2005ean, kanpora egiten ziren bidalketek estatuak kontzeptu berean jasotzen zituen diru-sarrerak (beste herrialde batzuetara joandako espainiarrek bidaliak) gainditu zituzten. Horrela, egiten diren bidalketen bolumenean, Espainia EB-ko lehenengo herrialdea da (Alemania eta Frantzia gaindituz, nahiz eta bi herrialde horiek etorkinak hartzeko tradizio handia duten), eta munduko hirugarrena Estatu Batuen eta Saudi Arabiaren atzetik.

Espainiako Bankuaren datuen arabera, estatutik etorkinek egiten dituzten bidalketak 2008an 7.840 milioi euro izan ziren, 2007an baino %7,1 gutxiago, hau da, urte hartako BPGaren %0,7 (aurreko urtean %0,8 izan zen). Nabarmena da laugarren hiruhilekoan bidalketetan gertatu zen murrizketa (%-21, 2007ko denboraldi beraren aldean), testuinguru ekonomikoaren ondorioz.

Fondo horietako gehienak estatuko etorkinik gehien etortzen diren jatorrizko herrialdeetara bidali ziren. Zerrendako lehena Kolonbia izan zen, bidalketa guztien %18arekin, eta bigarrena Ekuador (%13,4). Hirugarrena Bolivia izan zen, guztien %9,2arekin, eta laugarrena Errumania (%5,1).

Herrialde horietan guztietan jasotako fondoen bolumena murriztu zen, krisiaren ondorioz. Horrek bidalke-

tak igortzen zaizkien herrialdeen ekonomian eragin handia izan lezake, 2007aren eta 2008aren artean gertatu zen beherakadak herrialde horietako batzuen BPGaren puntu erdi baino gehiagoko murrizpena ekarri baitzuen. Adibidez, Ekuadorrek 2008. urtean 232 milioi euro gutxiago jaso zituen 2007an baino. Kopuru hori Ekuadorreko BPGaren %0,65 da (herrialde horrek, guztira, bere BPGaren %2,9aren adinako fondoak jasotzen ditu Espainiatik). Eragin negatiboaren zerrenda honetan, bigarren herrialdea Bolivia da: 2008an 72 milioi euro gutxiago jaso zituen aurreko urtean baino; hau da, BPGan %0,61eko galera izan zuen.

2009an, urte arteko beherakadako hiru hiruhileko igaro ondoren, laugarren hiruhilekoan badirudi nolabaiteko suspertzea gertatu dela, urte arteko tasa positiboa izan baita (%1,8 gehiago 2008ko laugarren hiruhilekoan baino). Horrela, 2009an egindako bidalketen bolumena 7.129 milioi eurokoa da, 2008an baino %9,7 gutxiago, eta berriro ere BPGaren %0,7, behin-behineko datuen arabera.

2

EAEko garapenerako laguntza

Une honek, gure erkidegoan, garapenerako lankidetzari dagokionez, bi ezaugarri ditu: ekainaren 19ko 5/2008 Legearen onespena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautu zuena, eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren "*Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzentzailea, 2008-2011*" martxan jartzea.

Lehenik eta behin, 5/2008 Legearen helburua, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritako terminoetan, EAEko administrazioaren barruan garapenerako lankidetzarako berariazko organismoa sortzea da, politika publiko hori gauzatzeko egitura eta tresnak azken urteetan izan duen hazkundeari egokitu beharra dagoelako: Eusko Jaurlaritza 80ko hamarkadaren erdialdean baliabide batzuk beste herrialde batzuekiko lankidetzara bideratzen hasi zenetik, aurrekontuko dotazioa eta tresnak nabarmen gehitu dira, baita ekintzen bolumena eta konplexutasuna ere. Gainera, legearen arabera, EAEko aurrekontu orokorretakoak ez diren ekarpenak kudeatzeko bide propioa da agentzia hau. Haren diseinuan, gure erkidegoko beste erakunde batzuentzat irekita dago.

2008-2011 denboraldirako Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea, era berean, 1/2007 Legearen aginduak betetzeko eratu zen, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen lankidetza hobetzeko beharrizanetik sortu zen, zehazki, "*nortasun eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea, eta egiturazko pobrezia desagerraraztea bilatzen duen garapenerako lankidetzako politika bat finkatzeko asmoz*". Horretarako, lankidetzarako bideratutako fondoak gehitzeko asmoa dago, baita aurrekontu osoaren portzentajea ere. Horrela, 1/2007 Legearen konpromisoan aurrera egitea da asmoa, 2012. urtean %0,7 lortuz, baita lankidetzako, garapenerako hezkuntzako eta jardun humanitarioko esparru teorikoa definitzea ere, koherentea dena eta sektore estrategikoetan ahaleginak sendotzen dituena, zeharlerroen garrantzia berretsiz.

Dokumentu estrategikoak laguntzak ondoko gai hauetara bideratzea proposatzen du: gizarte premiak, herri ekonomia, tokian tokiko boterea, emakumeen

V.2.1. GRAFIKOA. LGLFren laguntzen destinoa, kontinentearen arabera. Milaka eurotan



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

bazterketa, giza eskubideak eta nortasun kulturala. Lehentasun horien arabera, helburuak 22 herrialdetan zehaztu dira, kontuan izanik herrialdeok giza eskubideen urraketa larria eta orokorra bizi duten, gatazkan bizi diren eremuak diren edo larrialdi humanitarioa bizi duten, haietan lankidetzako euskal eragileak egon ohi diren, edo nazio horiek EAEn bizi diren etorkinen kopuru handi baten jatorrizko herriak diren. Herrialde hauek aukeratu dira: Guatemala, Kuba, El Salvador, Nikaragua, Mexiko eta Honduras Ertamerikan eta Kariben; Ekuador, Bolivia, Peru, Venezuela, Brasil eta Kolonbia Hegoamerikan; Saharako Errepublika Arabiarra, Angola, Kongo, Ruanda, Burundi, Mozanbike, Uganda eta Boli Kosta Afrikan; eta India eta Palestina Asian. Planak bermatzen du herrialde horiek lankidetzarako bideratutako fondoen %90 jasoko dutela gutxienez.

Azken urteetan, erakundeen garapenerako lankidetzaren alderdi praktikoa EAEn Lankidetzarako eta Garapenerako Laguntzarako Fondoaren bitartez bideratzen da. Haren dotazioan Eusko Jaurlaritzak parte hartzen du, udalen eta foru aldundien beste lankidetzako programa batzuekin batera; haietan zenbateko gehigarriak ere erabiltzen dira. EUSKAL FONDOAk (Euskal Tokiko Erakunde Lankideen Elkarteak) betetzen duen papera nabarmendu behar dugu. Erakunde horretan 86 tokiko erakunde (besteak beste, EAEko hiru hiriburuak) eta Arabako Foru Aldundia daude. Gure erkidegoko biztanleriaren %75etik gora hartzen du.

2.1. LANKIDETZAREN ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAREN FONDOA (LGLF)[1]

2008an, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Zuzendariaren informazio xehea daukagun azken urtean hain zuzen ere, 30,87 milioi euro eman ziren garapenerako proiektuetarako, lehendabizi, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Fondotik. Gainerako fondoak, batetik, larrialdiko laguntzen lerroen bidez gastatu ziren (3,4 milioi euro) eta, bestetik, garapenerako programen bidez; garapenerako programak proiektuen antzeko formula dira, baina iraupen luzeagoa eta helburu anbiziotsuagoak dituzte (8,7 milioi euro, 57/2007 Dekretuaren bidez sortutako tresna berria). Guztira, garapenerako lankidetzarako bidera-

V. 2.1. TAULA. LGLFaren garapenerako proiektuak eta laguntzen zenbatekoak

		2005	2006	2007	2008	%Ald. 06/07	% Ald 07/08
Proiektuak	Aurkeztuak	267	216	238	216	10,2	-9,2
	Onartuak	107	98	111	114	13,3	2,7
	onartuak/ aurkeztuak	40,1	45,4	46,6	52,8	2,6	13,3
Zenbatekoak (Euroak, milaka)	Eskatuak	52.376	49.148	54.960	51.183	11,8	-7,0
	Onartuak	**22.496**	**24.079**	**27.642**	**30.87**	**14,8**	**11,7**
	%onartuak/ eskatuak	43,0	49,0	50,3	60,3	2,6	19,9
Batez besteko zenbat.	Onartutako proiektuak	210,2	245,7	249,0	270,8	1,3	8,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

[1] Memoria hau ixteko datan ezin izan da eguneratu atal honetako informazioa, 2008ko Memoria Sozioekonomikoaren datuei dagokienez.

V.2.2. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren garapen proiektuak dagozkien herrialdeak. Euroak, milaka. 2008

	PROIEKTUAK	FONDOAK
GUATEMALA	7	2.608,6
EL SALVADOR	6	1.850,7
ECUADOR	5	2.055,0
PERu	15	4.743,5
KUBA	10	2.960,2
KOLONBIA	3	707,0
BRASIL	3	678,6
BOLIVIA	4	1.666,1
SAHARAR ERREP	3	1.386,0
SENEGAL	3	967,7
PALESTINA	2	590,4
ETIOPiA	1	599,8
KONGO ERR. DEM.	2	734,2
INDONESIA	2	594,2
INDIA	2	871,3
EAE	33	4.299,4
BESTELAKOAK	13	3.557,6
GUZTIRA	**114**	**30.870,3**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

V.2.3. TAULA. Eusko Jaurlaritzaren larrialdi laguntzen zenbatekoa. Euroak, milaka

	2006	2007	2008
ALJERIA	200,00	850,00	—
BOLIVIA	—	352,33	179,88
BOLI KOSTA	210,08	257,36	733,41
KOLONBIA	—	95,21	—
kUBA	—	—	271,44
TXAD	—	350,00	783,30
GUATEMALA	204,68	—	—
INDONESIA	100,00	—	—
KENIA	159,74	—	200,00
LIBANO	119,84	130,00	124,06
MEXIKO	120,00	—	150,00
NIKARAGUA	—	110,29	—
PAKISTAN	40,00	—	—
PALESTINA	296,40	231,64	509,13
PERU	—	360,95	159,34
KONGO ERR. DEM.-RUANDA	180,00	—	—
SAHARAKO ERREP. ARABIARRA	—	—	140,00
SOMALIA	—	155,90	—
SUDAN	360,00	—	—
TANZANIA	—	—	100,00
GUZTIRA	**1.990,74**	**2.893,68**	**3.400,56**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

tutako aurrekontu partida 45 milioi eurokoa da, 2007an baino % 14,7 gehiago.

Zehazki LGLFak garapenerako laguntzako 114 proiektu finantzatu zituen, guztira 30,87 milioi eurotan. Zenbateko hori %11,7 gehitu da 2007. urteaz geroztik, eta 270.800 euroko batez besteko zenbatekoa esan nahi du (aurreko urtean baino %8,8 gehiago). 2008ko deialdirako aurkeztu ziren 216 proiektuetatik (51 milioi euro eskatzen), guztira 114 proiektu diruz laguntzea ebatzi zen. Beraz, onartu diren proiektuen kopuruak gora egin du, %46,6tik %52,8ra. Onartzen diren fondoen bolumenak ere gora egin du, %50,3tik %60,3ra. Proiektu horiek batez ere herrialde hauetarako egingo dira: Peru (15 proiektu eta 4,7 milioi euro, guztiaren %15,4), Kuba (%9,6) eta Guatemala (guztiaren %8,5). Gainera, EAEak berak 4,3 milioi gehiago jasotzen ditu, batez ere biztanleak sentsibilizatzeko kanpainak egiteko helburuarekin.

Horrez gain, lehen esan dugunez, 3,4 milioi euro erabili dira larrialdiko laguntzetarako. Diru hori urtean zehar erabiltzen da, laguntza humanitarioko beharrizan zehatzen arabera. Herrialdez herrialde, handienak herrialde hauei ematen zaizkienak dira: Txad (783.300 €), Boli Kosta (733.400 €) eta Palestina (509.100 €).

Eremu geografikoen arabera, LGLFaren bitartez bideratutako laguntzarik gehiena (garapenerako proiek-

V.2.2. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzaren garapenerako laguntza fondoen banaketa sektoreka. 2002-2007



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

tuen eta larrialdiko laguntzen batura kontuan izanik) Amerikara bidaltzen da, eta osotasunaren gainean daukan pisua 2007. urtearen aldean gehitzen da (%60,9 dira, 2007ko %55aren aldean). Aldiz, Afrikako partaidetza %29,8tik %18,5era jaitsi da. Larrialdiko laguntzak bakarrik kontuan izaten baditugu, Amerikak fondo horietako %64a jasotzen du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak azken urteetan bultzatu duen garapenerako lankidetzaren diagnostikoak, Plan Zuzentzailean sartuta dagoenak, sail arduradunak gai honi buruz hornitzen duen informazioa osatzea bideratzen du. Lehenik eta behin, nabarmena da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila lankidetzarako aurrekontuan ahalegin handia egiten ari den arren (azken bi ekitaldietan %15 inguruko gehikuntzak egin ditu), bilakaera ez dela behar bezain progresiboa izan hartutako konpromisoa betetzeko, hau da, aurrekontu osoaren %0,7ra iristeko, EAEko aurrekontu orokorrek azken urteetan lankidetzarako aurrekontuek baino gehikuntza are handiagoa izan baitute.

Jarduketa eremuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak hiru eremutan lan egin du modu sistematikoan: garapenerako lankidetza (fondoen %86 2002-2007 denboraldian), jardun humanitarioa (%6 denboraldi berean) eta garapenerako hezkuntza (gainerako %8a).

Azkenik, emandako fondoen sektorekako banaketari dagokionez, ikusten da giza garapen jasangarriarekin lotura naturala dagoela: funtsezko lerroak oinarrizko gizarte premiak eta tokiko garapen ekonomikoa izan dira, beste dimentsio esanguratsu batzuk ahaztu gabe, hala nola, emakumeen jabekuntza, tokian tokiko boterea eta giza eskubideak edo tokiko nortasuna.

Azkenik, LGLFren balantzeari buruzko datuen aurrerapen batean, 2009. urtean, jakitera eman zen aurreko urtean deialdia 29,5 milioi eurokoa izan zela, eta aurkeztutako 233 proiektuetatik 99 onartu zirela. Proiektu horien %86a oinarrizko beharrizanak eta tokiko garapeneko beharrizanak arintzeko erabili dira, batez ere Hegoamerikan, Ertamerikan, Mexikon eta Kariben. Era berean, 2010. urtearen hasieran indarrean daude 329 proiektu, oraindik ere gauzatzen ari direnak, bi urteko luzapena eman zaielako.

2.2. EUSKAL FONDOA

"*Euskal Tokiko Erakunde Lankideen Elkartea – EUSKAL FONDOA*"ren helburu nagusia garapenerako nazioarteko lankidetzako ekimenak sustatzea, bultzatzea eta koordinatzea da, zehazki, EAEko erakundeek eta toki entitateek egiten dituzten ekimenak. 1995. urtean eratu zenetik, EUSKAL FONDOA Lankidetza eta Elkartasun Fondoen Konfederazioko idazkaria da. Konfederazio horrek Bartzelonan dauka egoitza, eta estatuan

V.2.4. TAULA. Euskal fondoa: proiektuei elkartutako erakundeen ekarpenak*, herrialdeka. Eurotan

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
NIKARAGUA	303.197	419.624	409.129	428.146	471.776	493.588	791.523
EL SALVADOR	200.270	174.605	365.183	339.874	384.716	427.291	144.670
GUATEMALA	238.749	359.191	45.200	244.657	486.087	247.631	193.665
KUBA	278.366	200.550	191.057	172.753	149.249	65.168	292.445
SAHARA	126.894	169.458	299.277	258.834	268.815	127.382	395.307
BESTE BATZUK	27.760	37.111	36.555	150.272	162.096	305.715	15
GUZTIRA	**1.175.236**	**1.360.539**	**1.346.401**	**1.594.536**	**1.922.739**	**1.666.775**	**1.832.612**

Iturria. EUSKAL FONDOA. Urteko memoriak.
(*)Elkartutako erakundeen aurrekontuetan EUSKAL FONDOAREN proiektuetarako egindako kontsignazioak.

dauden lankidetza eta elkartasun fondoen koordinazioaren eta baterako ordezkaritzaren esparrua da.

2008. urtean (ez baitaukagu informazio berriagorik), EUSKAL FONDOko kide diren erakundeen ekarpenek (1.832.612 euro) batzar orokor arruntak ekitaldi hartarako onartu zuen aurrekontua (1.681.965 euro) gainditu zuten. Hazkuntza honek hasierako aurreikuspenaren %9ko gehikuntza ekarri zuen. Hartutako konpromisoen %100a bete ahal izan zen horri esker. Horrez gain, Saharako Errefuxiatuen Kanpalekuentzat garraioko azpiegitura zabaltzeko proiektu berria finantzatu zen. Proiektuak Nikaraguan, Salvadorren, Guatemalan, Kuban eta Saharan egin ziren, azken urteetako herrialde berberetan.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2008an egindako ekarpenak finantzazio osagarriko iturri nagusi gisa finkatu ziren. Bi erakunde horiekin finantzazio-kidetasuneko hitzarmen bana sinatu zen, 527.857 eurotan eta 150.000 eurotan, hurrenez hurren. Zenbateko horiei EUSKAL FONDOko erakundeek jasotakoa gehituz gero, 2008an guztira 2,5 milioi euro kudeatu ziren, aurreko ekitaldian baino %38,9 gehiago alegia.

06

ARAUGINTZA EAEn

EAEn MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

1

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskurantzei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa, aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege lerruna duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuak, lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Agintzen du beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokiela arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

1.1. EUSKO LEGEBILTZARRA ETA EUSKO JAURLARITZA

Esparru honetan, Eusko Legebiltzarrak, bere funtzio legegilea betez, 2009an 3 lege onetsi zituen guztira, 2008an baino 16 gutxiago.

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Jaurlaritzarena.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

2009an guztira 4 lege proiektu aurkeztu ziren. Haietako bat ez zen izapidetzeko onartu.

Hona hemen **2009an** Eusko Legebiltzarrak **onetsitako legeen edukiaren laburpena:**

– Aurrekontuei buruzko Premiazko Neurrien urriaren 8ko 1/2009 Legea.

Krisialdi ekonomikoetan, gastu sozialak gora egiten du eta jarduera ekonomikoa sustatzeko politika berriak sortu beharra dago, jarduera horrek gastu publikoa areagotu dezan. Horixe gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuekin: aurrekontuko ekitaldi honetan, krisiari aurre egiteko neurri mordoa abiatu da, bai arlo sozialean, bai jarduera ekonomikoa sustatzeko arloan. Horretarako, hain premiazkotzat jotzen ez diren beste kontzeptu batzuetan gastua murriztu da.

Aitzitik, bizi dugun krisialdiaren larritasuna aintzat hartzen badugu, aurrekontuko politika berrorientatuz egin den ahalegina oraindik ez da nahikoa. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak uste du hartutako neurrietan sakontzen jarraitu beharra dagoela, orain arte ondorio positiboak lortu dituztelako.

Horregatik, lege honek neurri berezien multzo berria proposatzen du, guztira 389,66 milioi eurotan. Neurri horiek batez ere lanpostuak sortzeko eta pertsonak gizarteratzeko, azpiegitura publikoak azkarrago eraikitzeko, ekonomi eta enpresa jarduerak sustatzeko, I+G+b eta nazioartekotzea sustatzeko, eta oinarrizko zerbitzuetan ekipamenduak jartzeko helburuekin hartuko dira.

Batetik, legeak ordainketako kreditu gehigarriak ematea onesten du, 214.630.000 eurotan.

Kreditu osagarrien finantzazioa zorpetze eragiketekin egingo da. Horregatik, legeak urteroko zorpetze muga handituko du. Muga hori abenduaren 29ko 19/2008 Legearen 13.1 artikuluan aurreikusi zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrak 2009ko ekitaldirako onetsi zituena.

Bestalde, enpresen jarduera sustatzeko helburuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eman ditzakeen abalen gehienezko zenbatekoaren muga gehitzea baimenduko du lege honek. Muga hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak 2009ko ekitaldirako onetsi zituen abenduaren 29ko 19/2008 Legearen 12.1 artikuluan ezarri zen. Beraz, muga berria 200 milioi eurokoa izango da.

– 2/2009 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko aurrekontu orokorrak onetsi zituena.

– 3/2008 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateko Legea aldatu zuena.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen helburua haurrak eta nerabeak babestea eta arreta ematea da, beren eskubideak gauzatzen eta erantzukizunak betetzen dituztela bermatuz.

Lege horretako V. tituluan antolaketa instituzionala azaltzen da. Titulu horretako I. kapituluan, Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoaren figura aipatzen da. Organo horrek haur eta nerabeen eskubideen mehatxu edo urraketa egoeren aurrean haurrak eta nerabeak defendatzen ditu, kolektibo horiek sustatzen ditu, eta beraien inguruko sentsibilizazioa bultzatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen antolamendu juridikoak, zehazki, Arartekoaren erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoari esleitzen dio herritarren eskubideak bermatzeko funtzioa, administrazio publikoekiko harremanetan.

Gainera, 3/2005 Legeak bere VI. tituluan zenbait eskumen esleitzen dizkie foru aldundiei eta udalei haurren eta nerabeen eskubideen defentsan sentsibilizazioa sortzeko gaian. Eskumen horiek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ere aipatzen dira.

Hau da, 3/2005 Legeak Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoari aitortzen dizkion funtzioak dagoeneko behar bezala betetzen dituzte beste administrazio eta erakunde batzuek. Horrenbestez, bulego horrek eskumen gatazkak eta bikoizketak ekar ditzake. Horregatik, bulegoa kentzea aholkatzen da.

Helburu horrekin, lege aldaketa honen xedea otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 96, 97, 98 eta 99. artikuluak indargabetzea da.

EEGABak, Eusko Legebiltzarraren kontsulta-erakundea den aldetik, 2009an onetsitako legeetako bati buruzko iritzia eman zuen, 1/09 Irizpena idatziz, Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateko Legea aldatzeko legearen aurreproiektuari buruz (3/2009 Legea).

VII.1. GRAFIKOA. Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren jarduera araugilea



Iturria: Geuk egina, EHAAren datuekin.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak,** araugintzan duen ahalmena betez, 2009an guztira 649 dekretu onetsi ditu, 2008an baino askozaz ere arau gehiago; aurreko urtean bezala, 2009an ez da legegintzako dekreturik onetsi.

EEGABak, Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-erakundea den aldetik, 2009an onetsitako dekretuetako bati buruzko irizpena egin zuen. EAEn gizarte esku hartzearen eremuan hirugarren sektoreko jarduerak bultzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu proiektuari buruzko 4/09 Irizpena egin zuen zehazki (649/ 2009 Dekretua, abenduaren 29koa).

1.2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK

Lurralde historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, 2009. urteko araugintza, onetsitako foru arauen arabera neurtuz gero, aurreko urtekoa baino askozaz ere txikiagoa izan da. Horrela, bai Bizkaian bai Gipuzkoan, 2009an onetsitako arau kopurua 4 izan da, 2008ko erdia, lurralde bietan. Denboraldi berean, Araban 14 arau onetsi dira, aurreko urtean baino 8 gutxiago.

VII.2. GRAFIKOA. Lurralde historikoetako Batzar Nagusiek onetsitako foru arauak



Iturria: Geuk egina, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldizkari ofizialetan oinarrituta.

07

LABURPENA ETA AURREGOGOETAK

EAEN MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 09 EGAB

1
Laburpena

1.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA

EAEn, INEren Biztanleen Udal Erroldak emandako azken datuen arabera[1], 2009ko urtarrilari buruzkoak, biztanle kopuruak 2000. urtean hasitako goranzko bidea jarraitzen du. Zehazki, 2009an biztanle kopurua 2.172.175 pertsona da (2008an baino %0,7 gehiago), hau da, aurreko urtean baino 15.063 gehiago eta 2004an baino ia 57.000 gehiago.

Kopuru horiei gaineratu behar diegu EAEn erroldatutako atzerritarrek %7,3ko pisua daukatela (2008ko urtarrilaren 1ean %5,4 ziren), hau da, %35,2ko aldakuntza erlatiboa gertatu da. Gehikuntza hori estatukoa baino handiagoa da denboraldi berean (%22,1ekoa estatuan), baina gure erkidegoan atzerritarrek daukaten pisua estatukoa (%13,8) baino askozaz ere txikiagoa da; estatuak, erroldaren azken eguneraketan, sei milioi atzerritar baino gehiago dauzka.

2005 eta 2009. urteen artean, EAEn erroldatutako atzerritarren kopurua %120 baino gehiago hazi da. EAE, estatuaren testuinguruan, azken urteetako urte arteko hazkuntzarik handienetako bat bizitzen ari da, baina halere, autonomi erkidegoetan atzerritarren portzentajea aztertzen badugu, azkenetakoa da. Haren atzetik Asturias, atzerritarren %6,5arekin, eta Extremadura, %4,1arekin, baino ez daude. EAEren gainetik dauden erkidego batzuetan atzerritarren pisua bikoitza eta hirukoitza da: Balearrak (%23,8), Madril (%19,3) eta Valentzia (%18,9), besteak beste.

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, Europar Batasuneko biztanle kopurua 499,7 milioi da 2009ko urtarrilean. Hau da, 2008ko urtarrilean baino 2,2 milioi gehiago. Milako 4,4ko hazkunde honi esker (aurreko urtean milako 4,8koa izan zen), 1960az geroztik dagoen goranzko joera etengabea beste urte batez mantendu da. 1960an gaurko Europar Batasuneko biztanle kopurua 400 milioi zen. Bilakaera positiboa, beste urte batez, inmigrazioaren portaerari zor zaio. Izan ere, aldaketa osoaren %27a bakarrik dagokio hazkunde naturalari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

Gure erkidegoan, EUSTATen 2008ko behin-behineko datuek erakusten dute hazkunde begetatiboa (hau da, jaiotzen eta heriotzen arteko biztanleri aldakuntza, migrazioak kontuan izan gabe) positiboa izan dela bosgarren urtez segidan, 1986tik gertatu ez dena: 2008an 21.315 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %3,5 gehiago, eta 19.437 heriotza, 2007an baino %1 gehiago. Ondorioz, hazkunde begetatiboa 1.878koa izan zen, hau da, milako 0,9koa. EAEko hazkunde begetatiboak etengabeko jaitsiera izan zuen 14 urtean eta, behin betiko datuak ez dauzkagun arren, badirudi 2004an joera eten zela. 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran saldo begetatibo handiak gertatu ziren. 1990. urtea lehenengo saldo negatiboa izan zen 1937. urteaz geroztik. 1996an minimotara iritsi zen: orduan EAEren hazkunde begetatibo negatiboa 2.000 biztanlekoa izan zen.

Bi kontu nabarmendu behar ditugu, jaiotzei dagokienez: lehenik eta behin, ama ezkongabeen jaiotzen portzentajeak gora egin du, beste urte batez. 2008an, ezkondu gabeko amek izandako umeak 6.474 izan ziren. Kopuru hori guztien %30,4 da (aurreko urtean %27). Oraingo portzentajea eta 1990ekoa (%7,7) erkatzen baditugu, ikusiko dugu bikote ezkongabeek izandako umeen ratioa laukoiztu egin dela. Herriz herri, EB-ko portzentajeetan alde handiak daude: Eslovenia eta Suedia, bizirik jaiotako umeen %54,7, Estonia %59,1. Beste muturrean Txipre eta Grezia daude, %8,7 eta %6,5 hurrenez hurren. Batasunetik kanpo, Islandian tasa oso handia da: 2008an jaiotako umeen %64,1ak ama ezkongabea zuten.

Nabarmendu behar dugun bigarren alderdia azken urteetan jaiotza tasa murrizten lagundu duen faktoreetako bat da: ama izateko adina atzeratzea. 2008an, ama izan ziren emakumeen %76,5ak 30 urte edo ge-

[1] Biztanleen Udal Erroldako kopuruak ezin dira Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako kopuruekin zehatz-mehatz erkatu, metodologia ezberdinak dituztelako. Udal Errolda administrazio erregistroa da. Haren eraketa, mantentzea eta kudeaketa Espainian dauden 8.000tik gorako udalei dagozkie. Haren datuak udalerriko bizilekuaren eta helbidearen froga dira. Haren ziurtagiriak dokumentu publikoa eta sinesgarria dira administrazio ondorio guztietarako. Biztanleri Errolda, ordea, estatistika bat da, eta haren eraketa Espainiako Estatistika Institutuari dagokio. Jasotzen dituen datuak estatistikako sekretupean daude; erroldan ez da hala gertatzen, pertsonak identifikatzea ezinbestekoa baita.

hiago zeuzkaten. Talderik handiena 30 eta 34 urte arteko emakumeena da, jaiotza guztien %42,9arekin. Bestalde, 2007. urtearen aldean, 35 urtetik gorako amen erditze kopuruak gora egin zuen (%33,6); oraindik ere 25 eta 29 urte arteko taldeari alde handia ateratzen dio (%16,6). Amen batez besteko adina 32,4 urte izan zen. Lehenengo umea izan zuen amen batez besteko adina, berriz, 31,3 urte izan zen. Kopuru horiek 2007koen antzekoak dira. Horrela, lehenengo umea izan duten EAEko amen adina EB-ko handiena da.

Azkenik, heriotzei dagokienez, EUSTATek erakusten du 2008an gure erkidegoan hil ziren per-tsonen batez besteko adina 77,4 urte dela (2007an 76,8): 73,7 gizonentzat eta 81,3 emakumeentzat, luzaroago bizi direnak. Horrela, azken hamarkadan, gure erkidegoan bizi-itxaropenak 3,1 urteko gorakada izan du batez bestez.

1.2. HEZKUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastuen aurrekontuaren behin betiko likidazioa, 2008an, 2.589.172 mila eurokoa zen, hau da, aurreko ekitaldiaren %7,7ko gehikuntza, 2006aren eta 2007aren artean erregistratutakoa (%12,3) baino txikiagoa. Gastu hau EAEko BPGaren %3,74 da; 2007ko portzentajea (%3,65) baino dezima bat gehiago beraz.

Hezkuntza Sailaren gastuaren ratioa ikasle bakoitzeko (ikasle guztiak kontuan izanik, hau da, erregimen orokorrean nahiz berezian daudenak) jaitsi egin da, 5.477 eurotik 5.353 eurora. Izan ere, 2008an ikasle-kopurua hezkuntzako gastua baino gehiago igo da.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2007koak, hezkuntza administrazioen gastua BPGaren aldean %3,62 da EAEn (%2,98 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,57 unibertsitateko hezkuntzan) eta %3,85 estatuan (%2,84 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,88 unibertsitateko hezkuntzan).

EAEko 2009-10 ikasturteko matrikulazioari dagokionez, EUSTATen datuen aurrerapenaren arabera, unibertsitate aurrekoa %1,7 gehitu da. Aurreko urteetan gertatu den ez bezala, gehikuntza horren arrazoia da beheko mailetan gehikuntza izan dela (haur hezkuntza: %0,9, lehen hezkuntza: %2,8 eta DBH: %0,8), eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan ere bai, %6,7 gehitu direnak.

Garrantzitsua da nabarmentzea haur hezkuntzan matrikulazioaren gehikuntza moteldu dela (%3,3tik %0,9ra 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen artean) eta DBHko matrikulazioaren gehikuntza berretsi dela.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan izan zen matrikulazioari dagokionez, gehikuntzarik handienak goi mailako LH-an (%12,1), maila ertaineko LH-an (%11,6) eta gero eginkizunen ikaskuntzaren matrikulazioan (%5,8) eta batxilergoaren matrikulazioan (%2,1) gertatu ziren.

Eskaerarik handiena duten goi mailako titulazio profesionalak hauek dira: administrazioa (%12,8, aurreko ikasturtean %13), elektrizitatea eta elektronika (%12,3, pisu erlatiboa 0,3 puntu jaitsi da), metala eta fabrikazio mekanikoa (%11,5, aurreko denboraldian %11,1), komunitatearentzako zerbitzuak / zerbitzu soziokulturalak (%10,9, aurreko urtean %9,6), eta informatika (%7,6; jaisten jarraitzen du: aurreko ikasturtean %8 izan zen, 2005-06an %11,8, eta 2003-04an familia profesionalik eskatuena zen, ikasle guztien %13,3 bereganatuz).

Unibertsitateko goi mailako irakaskuntzako matrikulazioak (lehenengo bi zikloetan), unibertsitate publiko eta pribatuetarako, EUSTATen datuen arabera, jaisten jarraitzen du (-%3,5). INEren datuek joera bera erakusten dute, bai estatuan bai EAEn.

EUSTATen arabera, matrikulazioaren gutxikuntza sare pribatuan nahiz publikoan gertatzen da, nahiz eta jaitsiera handiagoa den pribatuan publikoan baino. Hain zuzen ere, 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, matrikulazioa %11 jaitsi zen pribatuan, eta publikoan %2,2.

Aitzitik, unibertsitateko populazioa, 18 eta 25 urte arteko populazio osoaren aldean, berriro ere gehitu da. EAEn, 2007-08 ikasturtean %31,2 zen, eta 2008-09 ikasturtean %31,9. Estatuan, berriz, 18 eta 25 urte ar-

teko biztanle guztien artean unibertsitarioen portzentajea %31 izatetik %31,7 izatera igaro da.

EUSTATen arabera, titulaziorik eskatuenak, 2.000 matrikulazio baino gehiagorekin, hauek dira: enpresen zuzendaritza eta administrazioko lizentziatura (5.167 ikasle, %0,4ko gutxikuntza aurreko ikasturtearen aldean), enpresa-zientzietako diplomatura (3.685 ikasle, %6,1eko jaitsiera), ingeniaritza industriala (2.882 ikasle, %2,3ko jaitsiera), zuzenbideko lizentziatura (2.657 ikasle, %0,6ko jaitsiera), psikologiako lizentziatura (2.640 matrikulazio, %3,4ko jaitsiera) eta ingeniaritza teknikoa –espezialitatea: mekanika– (2.559 ikasle, %10,2ko jaitsiera).

Bestalde, EUSTATen datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloko (doktoretza) matrikulazioak 2001-02 ikasturteaz geroztik zeukan goranzko joera hau 2005-06 ikasturtean hautsi zen, eta harrezkero beherantz jarraitzen du. Halere, 2004-05 ikasturtean, hirugarren zikloan 2.698 ikasle ari ziren ikasten (2003-04 ikasturtean baino 101 gehiago). 2005-06 ikasturtean 2.602ra jaitsi zen kopurua (%3,6ko jaitsiera), 2007-08 ikasturtean 2.249 ikaslera jaitsi zen, eta 2008-09 ikasturtean 2.027 ikaslera. Gehienek (guztien %64,5) hirugarren zikloko ikasketak egiten jarraitzen dute sare publikoan. Generoari dagokionez, emakume kopurua gizonena baino handiagoa da oraindik ere (1.077 eta 950 hurrenez hurren).

Hezkuntzako adierazleei dagokienez:

– Helduen ikasketa-maila. Ikasketa maila jakin bat amaitu duten helduen portzentajea da.
  2008ko txostena. Hezkuntzaren helburuak eta erreferentzi puntuak 2010ean izeneko dokumentuan, MECen Ebaluazio Institutuak 2009an argitaratua, bildutako datuek hau erakusten dute: 25 eta 64 urte bitartean dauzkaten pertsonetatik bigarren hezkuntzako bigarren etapara iritsi direnak (INSN 3: batxilergoko titulua, gradu ertaineko trebakuntza zikloak, eta titulazio baliokideak eta asimilagarriak dauzkaten pertsonak) %62,9 dira EAEn 2007an, hau da, ELGAko batezbestekoa (2006an %68) baino 5,1 puntu gutxiago.
– Sei urterekin eskolatzeko itxaropena. Herrialde bateko eskola-bizitzako itxaropena honela definitzen dugu: pertsona bat eskolatuta egongo den urteen batezbestekoa; adin bakoitzean dagoen eskolatze tasa garbiaren arabera kalkulatzen da. Indize honek modu orokorrean biztanleriak eskolatzean duen parte hartzea adierazten du.
  MECen datuen arabera, 2007-08 ikasturtean, Espainian, sei urteko ikasle batentzat, hau da, derrigorrezko eskola hasten duen ikasle batentzat, eskola-bizitzako itxaropena 14,4 urtekoa da (14 gizonentzat eta 14,8 emakumeentzat). Ikasturte honetan bertan zazpi autonomi erkidegok dauzkate estatuko batezbestekotik gorako eskola-bizitzako itxaropena. Altuenak EAErena eta Gaztela eta Leonena dira, biak 15,5 urterekin batez bestez.
  Bestalde, *2008ko txostena. Hezkuntzaren helburuak eta erreferentzi puntuak 2010ean* izeneko dokumentuan, Ebaluazio Institutuak 2009an argitaratua, bildutako datuek hau erakusten dute: 2006. urtean (urte horretako datuak baitira berrienak) ELGAko kide diren edo hari elkartuta dauden EB-ko herrialdeetako eskola-bizitzako itxaropena (bost urtetik hasita, ez sei urtetik) 17,5 urtekoa dela. Eskola-bizitzako itxaropenik handiena daukaten herrialdeak Finlandia eta Suedia dira: 20,8 eta 20,3 urte, hurrenez hurren. Espainiak 17,2 urteko eskola-bizitzako itxaropena dauka.
– Goi mailako hezkuntzako (unibertsitatekoa eta unibertsitatekoa ez dena) eskolatzea 18 eta 24 urte bitartean.
  Goi mailako hezkuntzako eskolatzea gero eta garrantzitsuagoa da. Izan ere, lan merkatuak eta jakintzaren gizarteak askozaz ere gehiago baloratzen dituzte hezkuntza maila honetan prestakuntza dauzkaten herritarrak. Gainera, Europako goi mailako hezkuntza sistemak 2010ean mundu mailako kalitatezko erreferentzia izan daitezela lortzeko helburuak Europako herrialdeen konbergentzi prozesua sortu du, goi mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren espazio komun baterantz. Adierazle horrek goi mailako hezkuntzaren bilakaerari erreparatzen dio. Hemen unibertsitateko ikasketak eta unibertsitatekoak ez direnak sartzen dira.

2008ko txostena. Hezkuntzaren helburuak eta erreferentzi puntuak 2010ean izeneko dokumentuan, Ebaluazio Institutuak 2009an argitaratua, bildutako datuek hau erakusten dute: aztertu diren zazpi adinetan eta 2006-07 ikasturtean, EAEk goi mailako hezkuntzan (unibertsitatekoa eta ez unibertsitatekoa) dauzkan eskolatze tasa garbiak estatuko batezbestekotik gorakoak dira: 18 urterekin, %45 (estatuan %20); 19rekin, %50 (estatuan %35); 20rekin, %53 (estatuan %37); 21ekin, %47 (estatuan %35); 22rekin, %38 (estatuan %30); 23rekin, %28 (estatuan %24).

– Goi-mailako hezkuntzan sartzea: Unibertsitatean sartzeko proba gainditu duten ikasleak
INEren datuen arabera, 2009. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko proba 9.614 lagunek egin zuten (25 urtetik gorakoentzako probetan matrikulatutako pertsonak kontuan izan gabe). Hau da, aurreko urtean baino %5,9 gehiago. Guztietatik %94ak gainditu zuen: aurreko bi ikasturteetan lortutako portzentaje bera. Bestalde, estatuko unibertsitate publiko guztietan proba egiteko 204.178 lagun matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean erregistratutakoak baino %4,1 gehiago alegia. Haietatik %86ak gainditu zuen, aurreko urteko portzentajea baino puntu bat gehiago, eta Euskal Herriko Unibertsitatean lortutakoa baino txikiagoa.

– Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea. Europar Batasunak ezarritako helburua da 2010. urterako lanerako adinean (25-64 urte artean) dauden biztanleen %12,5ak gutxienez ikaskuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzea, eta ez dadila egon %10 baino tasa txikiagoa daukan herrialderik.
EUROSTATen datuen arabera, ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea egonkorra da azken urteetan. 2008. urtean EB-15ean %10,9koa da, EB-25ean %10, eta EB-27an %9,5. Egonkortasun hori kontuan izanik, pentsatu behar dugu zaila izango dela 2010ean %12,5eko helburura iristea.
EAEn, ISEIk (Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak) dauzkan datuen arabera, denboraldiaren bilakaerak erakusten du ikaskuntza iraunkorraren tasan etengabeko aurrerapena gertatu dela, 1995. urteko %4,3tik 2007ko %13,2ra. Europako Berrikuntza Indizearen 2009ko datuen arabera, EUSTATen 2010ean argitaratuak, EAEn ikaskuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen portzentajea %13,5 da, eta Europan %9,6. Horrenbestez, gure erkidegoak 2010. urterako ezarritako helburua bete du.

– Ikasleak irakasle bakoitzeko. ELGAk argitaratu dituen azken datuek (*Education at a glance, 2009*), 2007ko datuekin, erakusten dute irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEn erregistratutakoak baino handiagoak direla. Haur Hezkuntzan 16 eta Lehen Hezkuntzan 13, eta EAEn oinarrizko hezkuntzan (haur eta lehen hezkuntzan) 12,5 izanik; bigarren hezkuntzan 13 (EAEn 9,7), eta goi mailakoan 15,3 (EAEn 13,5).

– Ikasleen adinaren egokitasuna (beren adinerako teorian egokia den mailan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako pertsona guztien arteko erlazioa). Adinak gora egin ahala, murriztu egiten da.

– Eskola behar baino lehen uztea[2]. Lisboako Europar Kontseiluaren 2000ko martxoko batzarraz geroztik, ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gazteen %19,3ko batezbestekoa murriztea funtsezko helburua da. Helburu hau ezarri zen: "2010erako estatu kide guztiek gutxienez eskola behar baino lehen uzteko tasa erdiraino jaistea (2000ko datuez ari da), EB-ren batez besteko indizea %10 baino txikiagoa izan dadin".
Egia da Europako herrialdeetan eskola behar baino lehenago uzteko joera gero eta txikiagoa dela, baina ipinitako helburua anbiziotsua da, estatu kide asko %10 horretatik urrun daude-eta.
EUROSTATen datuen arabera, Espainian eskola behar baino lehen uzten duten ikasleen tasa %31 da 2007. urtean. EB-15 osatzen zuten herrialdeen

[2] Eskola behar baino lehen uztearen tasa honela definitzen da: asko jota bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa (ISCED 0, 1, 2 edo 3c) amaitu duten eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasten edo trebakuntza egiten ari ez ziren 18 eta 24 urte arteko biztanleak hartzen dira erreferentziatzat.

batez bestekoa %16,9 da. Halere, 10 herrialde berriak sartu direnez geroztik, tasa %15era jaitsi dira. MECen datuen arabera, eskola behar baino lehen uztearen tasak EAEn ere beheranzko joera dauka: 1998an %18,5 zen eta 2008an %14,7. Portzentaje hau estatuko txikiena da, estatuan batezbestekoa %31,9 baitzen 2008an.

– Gazteen trebakuntza maila. Adierazle honek bigarren hezkuntzako bigarren etapa (CINE 3) amaitu duten 20 eta 24 urte arteko pertsonen portzentajea neurtzen du.
  Espainiako hezkuntza kopurutan, 2007-08. MEC txostenaren datuen arabera, gainerako autonomi erkidegoen aldean, EAEk zenbakirik handienak dauzka bigarren hezkuntzako bigarren etapa amaitu duten gazteen kopuruetan. Horrela, 2008. urtean portzentajea %80,1 da (%75 gizonen kasuan eta %85,4 emakumeen kasuan). Estatuan, berriz, batezbestekoa %60 da (%52,7 gizonen kasuan eta %67,6 emakumeen kasuan).
– Graduazio tasa. Graduazio tasak ikasketa mailaren arabera (DBH, batxilergoa, teknikaria, goi teknikaria, diplomatua, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa; eta lizentziatua, arkitektoa eta ingeniaria) murriztu edo egonkor mantendu dira 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, salbu eta DBHn, diplomatuetan, arkitekto teknikoetan eta ingeniari teknikoetan.
– Zientzietako, matematiketako eta teknologiako goi-graduatua.
  EB-k garapen ekonomikoa eta ikerketa zientifikoa bultzatzeko helburuarekin, funtsezkotzat jo du matematiketako, zientzietako eta teknologietako graduatu tasa handitzea. Halaber, helburutzat hartu du diziplina hauetan sexuen artean dauden desorekak berdintzea, ikasketa hauek hasi eta amaitzen dituzten emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa baita.
  EAEn, MECen datuen arabera (*Espainiako hezkuntza kopurutan, 2007-08*), 20-29 urte arteko mila biztanleko graduatu tasa 25,3 da; estatuko altuena da, eta LH teknologikoak (goi mailako trebakuntza zikloak) gure erkidegoan daukan garrantzia agerian uzten du.
  EUROSTATek argitaratutako azken datuek erakusten dute tasa hori EB-ko herrialdeetako handienetako bat dela ere. Hauek dira garrantzitsuenak: Frantzia 20,7; Finlandia 18,8; Lituania eta Portugal 18,1; Suitza 17,9 eta Erresuma Batua 17,5.
  Generoaren ikuspegitik, MECen datuek erakusten dute arlo horietan graduazio tasa 21,6 puntu txikiagoa zela emakumeen artean, gizonetan baino (14,3 eta 35,9, milako). Horrek erakusten du graduazio zientifikoak eta teknologikoak bultzatu behar direla emakumeen artean.
– TIMSS proiektua. Eskumenak matematiketan eta zientzietan.
  Matematika eta Zientzietako Joeren Nazioarteko Azterlanaren (Trends in International Mathematics and Science Study) helburua ikasleek bi jakintza arlotan (matematiketan eta zientzietan hain zuzen ere) daukaten errendimendua aztertzea da.
  Metodologikoki kontuan izan behar da 2003an emaitzak parte hartzaile guztien emaitzen batezbestekoaren arabera antolatzen zirela, baina 2007an emaitzarik handienetik txikienera antolatzen direla, azterlanak sortutako eskala arbitrario baten arabera. Eskala horretan batezbestekoa 500 puntukoa da eta desbiderapen tipikoa 100 puntukoa.
  2003 eta 2007. urteen artean, gure erkidegoak bere posizioa hobetu du, bai puntuazioan, bai kontuan hartutako herrialdeen zerrendan. Matematiketan: 487 puntutatik 499 puntutara, eta rankingean, 17. izatetik 13. izatera. Zientzietan, 489 puntutatik 498 puntutara, eta herrialdeen rankingean, 18. izatetik 15. izatera.
– Lan eta langabezi tasak, jasotako prestakuntza mailaren arabera
  Hezkuntza maila ezberdinak dituzten pertsonen lanerako itxaropenak lan merkatuaren premien araberakoak eta trebakuntza maila bakoitzeko lan-eskuaren eskaintzaren araberakoak dira, baina oro har, langabezi tasa hezkuntza mailarekin batera murrizten da.

1.3. I+G+B JARDUERAK ETA IKTAK

2008an I+G jardueretan egindako gastua, EUSTATen datuen arabera, 1.264 milioi eurokoa da. Beraz, %16ko hazkundea izan du aurreko urtearen aldean. Gastu hau BPGaren %1,85 da, hau da, aurreko urtean baino 0,2 puntu gehiago. Horrela, EAE, I+G esfortzuaren gaietan, estatuko batezbestekotik gora dago oraindik ere (%1,35), baina EB-27ko batezbestekoaren azpitik (%1,9) eta EB-15eko batezbestekoaren azpitik (%1,99).

INEk erregistratutako ahalegina EAE EB-27ren batezbestekoaren gainetik jartzen du 2008an (%1,96 batak eta %1,9 besteak), baina erkaketa EUSTATen[3] datuekin egiten badugu, ez da gauza bera gertatzen; halere nabaria da haustura murrizteko joera, aipatutako batez besteko balioarekin.

EAEko enpresetan (teknologi zentroak izan ezik), I+Gan burutzen den gastua apur bat handiagoa da estatuko enpresa sektorean egiten dena baino. Estatuan, INEren arabera, enpresek I+Gko gastuaren %54,9 burutu zuten (EAEn, %56,4). Halere, kontuz ibili behar dugu informazio hori interpretatzerakoan, Frascatiren Eskuliburuaren[4] metodologiak talde honetan batez ere finantzazio pribatua daukaten teknologi zentroak sartzen baititu, beraz, enpresa izaera hutseko portzentajea estatuan txikiagoa litzateke. EB-27an, EUROSTATen arabera, enpresek gastuaren %63,7 egiten dute, baina lehen azaldutako kautela kasu honetan ere kontuan izan behar da.

I+Gko gastuaren finantzazioari dagokionez, azken urteetan pisua galdu duen arren, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri nagusia. Sektore pribatuak I+Gn gastuaren kopuru osoaren %56 finantzatzen du, eta administrazioak %40,3. Horrela, EAE Lisboako helburutik 10 puntura dago: I+Garen gastu osoa fondo pribatuekin finantzatzea. I+G gastuaren finantzazio pribatuaren portzentajerik handienak, EUROSTATen arabera, herrialde hauetan daude: Japon (%77,7, 2007ko datua), Luxenburgo (%76, 2007ko datua), Finlandia (%70,3, 2008ko datua), Alemania (%67,9 2007an), AEB (%67,7, 2008ko datua), Suedia (%64, 2007ko datua) eta Danimarka (%61,1 2008an).

I+G jardueretan lan egiten duten pertsonen kopuruak gora egiten segitzen du, dedikazio osoko baliokidetasunean neurtuta. 2008an 15.373 pertsona izan dira, hau da, okupatutako biztanleriaren ‰15 (aurreko urtean, ‰14,2), estatuan baino gehiago (‰10,7), EB-an baino gehiago (‰10,4), eta lurralderik dinamikoetatik hurbil eta batzuetan gehiago ere bai: Frantzia (‰14,1), Alemania (‰12,3), Japon (‰14,3). Bestalde, ikerlariak ‰9,4 dira (estatuan ‰6,5).

Industriak I+Gan egiten duen gastua eduki teknologikoaren arabera analizatzen badugu, atzeraldi erlatiboa ikusiko dugu eduki teknologiko handia eta txikia daukaten sektoreetan, batez ere enpleguari dagokionez, balioa sortzeko terminoetan ez dagoelako argi, “sailkatu gabeko” jardueren gorakada ikusten baita.

EUSTATen Berrikuntza Teknologikoaren Inkestaren datuen arabera[5], EAEn, 2006-2008 denboraldian, enpresen %20,8 berritzaileak izan ziren. Portzentaje hori ateratzeko, kontuan izaten dira, batetik, berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuari edota prozesuari dagokionez berritzaileak direnak), enpresen %15 direnak, eta bestetik berrikuntza EZ teknologikoa egiten dutenak (antolakuntzakoa edota merkaturatzekoa), enpresen %12,9 direnak.

---

[3] EUSTATen lagina zentsukoa da (datu primarioak zuzenean zentsuaren bidez jasotzen dira) eta INErena enpresa handientzat eta lagin izaerakoa enpresa txiki eta ertainentzat zentsukoa da (lagin bat hautatzen da, Enpresen Direktorio Nagusitik abiatuta, eta populazio osora goratzen da). Era berean, datu hauek argitaratzeko unean, BPGa ezberdina da. EUSTATena INErena baino handiagoa da (65.928.497 mila euro batak eta 65.146.711 mila euro besteak).

[4] Frascatiren Eskuliburua (izen ofiziala “Ikerkuntza eta Garapen Esperimentaleko Inkestetarako Arau Praktiko baterako Proposamena” duena) ELGAren proposamena da. ELGAk 1963an I+G estatistiketako aditu talde bat batu zuen arau hori idazteko. Gaur egun, erreferentzia bat da arau hori, zein jarduera jo ditzakegun ikerkuntza eta garapen zehazteko.

[5] Edozein tamainatako eta edozein jarduera sektoretako euskal enpresei zuzendua, salbu eta lehen sektorekoak, administrazio publikoa eta etxeko zerbitzua (INEk ez bezala, hezkuntza osoa hartzen du barnean). Hau da, biztanleri eremua hauxe da: edozein tamainatako establezimenduak eta jarduera sektore hauetakoak, CNAE-93 Rev.1aren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, hauek ez dira hor sartzen: lehenengo sektorea (A eta B), administrazio publikoa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

10 langiletik gorako enpresak bakarrik hartzen baditugu aintzat (horrek beste erakunde estatistiko batzuekin alderatzea ahalbideratzen baitigu: INE, EUROSTAT...), enpresa berritzaileen portzentajea (berrikuntza teknologikoak eta ez teknologikoak) %41,2 da. Estatuan, INEren berrikuntza inkestaren arabera[6], denboraldi bererako portzentajea %34,8 da. 2006ko CISaren arabera, EUROSTAT (*Science, technology and innovation in Europe, 2009 edition*), EB-27an horiek enpresen %38,8 dira. Alemania da gehien duena, %62,6arekin.

EUSTATen arabera, 9 langiletik gora dauzkaten enpresen berrikuntza teknologikorako jardueren gastu osoa 2008an %8,1 gehitu da eta BPGaren %3,2 da (aurreko denboraldian BPGaren %3,1 zen). Beste urte batez, gastu horren zatirik handiena barruko I+Gari dagokio (BPGaren %1,7), baita makinen erosketari ere (BPGaren %0,8).

Berrikuntzarako jardueretako gastua gehitzen den bitartean, enpresa berritzaileen portzentajea murrizten ari da, baina joera hori ez da sektore guztietan gertatzen. Industrian portzentajeak gora egin du.

Europako Berrikuntza Indizearen arabera, EUSTATek egina, 2009an EAEk 10. postua zeukan EB-27an, 0,51 puntuazioarekin; EB-27ko batezbestekoaren gainetik, 0,48 inguru dena. "Berrikuntzan liderrak diren herrialdeen artean" hauek daude: Suedia 0,64rekin, Finlandia 0,62rekin, Alemania 0,60rekin, Erresuma Batua 0,58rekin eta Danimarka 0,57rekin. Europar Batasuneko kide izatea kontuan izaten ez bada, kolektibo honetan Suitza sartzen da, 0,69rekin.

IKTei dagokienez, eta zehazki sektoreari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2007. urtean sektoreak 2.376 enpresa zeuzkan eta EAEko balio erantsiaren %3,9 eta enpleguaren %2,5 ziren (aurreko urteko portzentaje berberak).

Teknologia horien sarreraz eta erabileraz esan behar dugu INEren datuen arabera EAE autonomi erkidegoen rankingean lehenengo posizioan dagoela telefono finkoa daukaten etxebizitzen portzentajean (%92,6), hirugarrena ordenagailua daukaten etxebizitzen portzentajean (%66,4) eta Internet daukatenen portzentajean (%57), Madril eta Kataluniaren atzetik, hamabigarrena sakelako telefonoari dagokionez (aurreko urteko berbera), eta hamahirugarrena banda zabaleko konexioan (aurreko denboraldian hamabigarren posizioan zegoen). Beraz, EAEk banda zabaleko konexioan atzera egin du, estatuaren aldean.

EUROSTAT eta INEren datuen arabera, Interneterako sarbidea daukan 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez daukaten familien portzentajea, 2009. urtean, %65ekoa da EB-27an, eta banda zabaleko konexioa dutenena, %56a; portzentaje horiek estatuan %54 eta %51 dira hurrenez hurren. Horrenbestez, EAE, kasu bietan %57ko portzentajea daukana, Europako batezbestekoa baino apur bat beherago dago Interneteko sarbidean, baina ez banda zabaleko konexioan; erreferentziazko herrialdeen (Danimarka, Alemania, Holanda, Austria, Finlandia eta Suedia) balioetatik urrun dago.

INEren datuen arabera, erabilerari dagokionez, EAEk hazten segitzen du, baina estatuko rankingean posizioak galtzen ari da. Horrela, 2008 eta 2009. urteetan, azken hiru hilabeteetan PC-a erabili duten 16-74 urte arteko pertsonen portzentajea %63,7tik %65,5era aldatu da; internet erabili dutenena, %59,5etik %62,5era, eta Internet bidez zerbait erosi dutenen portzentajea %13,3tik %15,4ra. Lehenengo kasuan, PC-aren erabileran, rankingaren 6. postutik 5.era igaro da; eta bigarrenean, Interneten erabileran, 6. posiziora itzuli da, aurreko denboraldian 4. izan ondoren.

EUROSTAT eta INEren 2008ko datuak erkatuz gero, ikus dezakegu Interneten erabilerari dagokionez EAEk

[6] Ikerlan hau 9 soldatadun baino gehiagoko enpresen lagin bati zuzenduta dago. Enpresa horiek industriakoak, eraikuntzakoak eta zerbitzuetakoak dira. 2006. urtean nobedade bat dago: nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza eta arrantza adarra aztertuko dela.

Inkestak 2005. urtera arte ez zuen hezkuntzaren adarra kontuan izaten, eta urte horretatik aurrera hezkuntza adarreko enpresak kontuan izan ziren (80. atala, CNAE-93en arabera), 8030 adarreko enpresak izan ezik (goi mailako irakaskuntza). Aitzitik, EUSTATek hezkuntza sektore osoa hartu izan du aintzat beti. Horren ondorioz, 2005. urtera arte, elementu desitxuratzaile handia zen INEren estatistikarekin alderatzeko orduan. Nahiz eta 2005. urean zuzendu zen, korrelazioa ez da erabatekoa, 8030 adarra ez baitzen aintzat hartu.

Bestalde, 2006. urtean, INEak, nobedade gisa, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza eta arrantza adarraren ikerkuntza sartu zuen, EUSTATek ez bezala.

inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan gutxienez astean behin Internet erabili duten pertsonen %56ko portzentajea duela; beraz, estatuko batezbestekoa (%53,6) baino gorago dago, baina EB27ko batezbestekoa (%60) baino beherago, EB25 baino beherago (%62) eta EB15 baino beherago (%64).

Transakzio elektronikoei dagokienez, Internet bidez ezer erosi ez duten pertsonen portzentajea kontuan izanik, ondorioztatzen dugu EAE (%47,1) leku onean dagoela gainerako autonomi erkidegoen aldean, bik bakarrik baitauzkate portzentaje txikiagoak: Balearrak (%42,4) eta Katalunia (%46,5). Aitzitik, datu horiek guztiz homogeneoak ez diren arren, Europaren aldean, argi dago EAEn merkataritza elektronikoaren hedadura txikiagoa dela.

Enpresen IKT ekipamenduei dagokienez, enpresetako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak erakusten digu euskal enpresetan IKT ekipamenduak sartzeko prozesuak hazten segitzen duela.

Era berean, berriro ikusten da enpresaren tamainak ezberdintze elementu klabe bat sartzen duela. Horrela, enpleguaren geruza guztietan penetrazioan gehikuntza garrantzitsua gertatu den arren, establezimenduek, lanpostu gehiago dituzten neurrian, gehikuntza txikiagoak izaten dituzte, beren ekipamenduak hobetzeko marjina txikiagoa daukatelako. Bigarrenik, ezberdintasun horiek establezimenduei dagozkie, enpleguari bainoago. Horren arrazoia da, besteak beste, establezimendu txikiak gehiago aurreratzen direla eta handietan langile guztiek ezin dituztela ekipamendu horiek erabili.

Internet bidez edo bide elektronikoetatik transakzio komertzialak egiteari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, transakzioen joera goranzkoa da, nahiz eta komertzio elektronikoan parte hartzen duten enpresen kopurua gero eta txikiagoa den. Hain zuzen ere, komertzio elektronikoa (zentzu zabalean) egiten duten establezimenduen portzentajeak behera egin du: 2007an guztien %15,3 zen eta 2008an %15.

1.4. INGURUMENA

Airearen kalitatearen[7] *eta partikulen emisioen* adierazleak positiboak dira eta norabide egokian doaz. Halere, beharrezkoa da PM_{10} partikulei dagozkien jarduketak azkartzea.

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, "ona" da, edo gutxienez, "onargarria", aztertu diren azpizona guztietan. Horrela, airearen kalitatearen indizea oso txarra edo txarra daukaten egunen portzentajea, egun guztien aldean, laginketa egin den 11 estazioetan, 2008 eta 2009. urteen artean 3 dezima murriztu da, %0,8tik %0,35era. Termino absolutuetan 34 eurotatik 14 egunetara murriztu da. Bestalde, airearen kalitatea moderatua izan den egunen portzentajea ere murriztu da: %2,4tik %2,2ra; kopuru absolutuetan, 96 egunetatik 89 egunetara.

Atmosferako kutsagarriei dagokienez, 2009. urtean: SO_2 emisioek ez zuten eguneko muga gainditu, baina orduko muga-balioa 3 aldiz gainditu zen (Azpeitiko estazioan). Halere, legeriak eguneko muga-balioa 3 aldiz gainditzea eta orduko muga-balioa 24 aldiz gainditzea baimentzen du. Beraz, ondorioztatu behar dugu ezarritako mugak ez direla gainditu. NO_2 emisioak. Ez da gertatu 18 aldiz baino gehiagotan gainditzea legezko muga gehi NO_2ko orduko balioetarako tolerantzia-marjina urte zibil bakoitzean[8]. Gizakien osasuna babesteko urteko batez besteko balioari dagokionez, inongo estaziok ez du gainditu muga + tolerantzia-marjina (44 µgr/m3). CO emisioek ez dute behin ere gainditu batez besteko ordutegia legez ezarritako mugatik gora (10 mgr/m3). Airearen kalitatea ebaluatzeari dagokionez, landaretza NO_2tik eta SO_2tik babesteko, 2009. urteko batez besteko balioek ez dituzte ezarritako mugak gainditzen. PM_{10} emisioetan, oraindik ere legezko mugak gainditzen direla ikusten da, baina 2007an erregistratutakoak baino txikiagoak. Hain zuzen ere, 2007an 13 estazio-

[7] EAEko airearen kalitatearen indizea lortzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, EAEko zona ezberdinetan barreiatutako estazioetan zenbait parametro denbora errealean neurtzen dituena. Parametro horietako batzuk hauek dira: sufre dioxidoko (SO2) kutsagarriak, gas oso erreaktiboen multzo bat [hala nola oxido nitrikoa (NO) eta nitrogeno dioxidoa (NO2)], nitrogenoa eta oxigenoa proportzio ezberdinetan dauzkatenak (NOx), karbono monoxidoa (CO), 10 µm mozketa partikulak (PM10) eta ozono troposferikoa (O3).

[8] Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

tan urteko batez besterako muga gainditu zen (35 egun urte bakoitzean); 2008an, berriz, 4 estaziotan egin zen, eta 2009an 3tan. 2,5 mikra (PM2,5) baino diametro txikiagoa daukaten suspentsio-partikulei dagokienez, ez dira muga-balioak gainditu. Eta O_3 emisioei dagokienez, gizakiak babesteko hirurtekorako (2009an hasi zena) ezarritako balio objektiboa gainditu zen Valderejoko estazioan. Landaretzarako balio objektiboa Elciegon gainditu zen.

Uraren kalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, *ibaien* kasuan, MBi indizearekin (makroornogabe bentonikoen eboluzioa) lortutako balorazioetan oinarrituta, 2007-2010eko Ingurumeneko II. Esparru Programaren denbora-eremuan planteatutako helburuen betetze maila txikia da gaur egun, eta azken kanpainetako emaitzen egonkortasuna islatzen du. Halere, helburu biologikoen betetze maila (MBi indizeak adierazia) txikia den arren, IFQ-R indizeak 1999ko datuek hobetzeko joera dutela erakusten du. Indize horrek ingurumeneko helburuen araberako komunitate biologikoen garapena bideratzen dituzten baldintza fisiokimiko orokorren egoera erakusten du. *Trantsizio uretan (estuarioak)*, ingurumen helburuen betetze mailak maizago ez dira betetzen, halere, azken urteetan eboluzioa onuragarria da. *Kostaldeko uretan*, egoera aldekoa da erabat, laginketa estazioen %100ean helburuak bete direla erregistratu baita. *Lakuetan eta barnealdeko hezeguneetan* bilakaera positiboa da baina ez da nahikoa. Eta *bainatzeko urei* dagokienez, 2009an egindako analisiak erakusten du 9 bainu-eremu hobetu direla eta 4k okerrera egin dutela: 3 1. kategoriatik 1.ra igaro dira (Zarautz-eskuma, Bakio-erdialdea eta Ea-erdialdea); eta bat 1etik 0ra igaro da (Saturraran hondartza-erdialdea).

Jasangarritasun kontzeptuak esan nahi du *baliabidearen kontsumoa eta haren erabileraren eraginkortasun maila* kontuan izaten direla. *Uraren* kasuan, zehazki, esan behar dugu INEren datuen arabera banaketa sarean galtzen den ura %30,6 gehitu dela 2006 eta 2007. urteen artean, eta erabilgarri dagoen ur guztiaren %17,6 dela. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren %15,9 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen. Bestalde, ur kontsumoa per capita zenbait autonomi erkidegotan jaitsi da (EAE barne). Zehazki, %3,1 da, eta 125 litro dira pertsona eta egun bakoitzeko, estatuko batezbestekotik behera; estatuan pertsona eta egun bakoitzeko 160 litrotik 157 litrora murriztu da. Uraren aleko balioa EAEn, 2007. urtean, 0,87 euro/m^3 da, 2006ko balio bera. Estatuan batez besteko prezioa 1,29 euro/m^3 da (%19,4).

Bestalde, 2006 eta 2007. urteen artean, *bildutako hondakin uraren* bolumena %12,5 murriztu da: egunean 788.237 m^3tik 689.649 m^3ra. Haietatik %83,5 *tratatutakoa* da.

Bestalde, energiaren barne kontsumo gordina edo eskaera[9] %1,3 gehitu da (2007an %0,7) eta 7.872 Ktep da. *Azken kontsumoa* 5.757 Ktep izan zen, %0,2 gehituz. Azken kontsumoaren hazkundearen azalpen nagusia da etxebizitzen sektorea eta zerbitzuen sektorea gehitu direla (%8,3, 577 Ktep-etatik 625 Ktep-etara, eta %7,3, 423 Ktep-etatik 453 Ktep-etara, hurrenez hurren). Industriaren eta eraikuntzaren sektorea, kontsumoan eragin handiena duena (kontsumo osoaren %46,6) %1,6 gehitu da, 2.642 Ktep-etatik 2.684 Ktep-etara. Bigarren eragin handiena duenak, garraioak, %5,1 murriztu du kontsumoa, 2.008 Ktep-etatik 1.906 Ktep-etara. Lehenengo sektorean, kontsumoa %7,2 murriztu da, 97 Ktep-etatik 90 Ktep-etara.

Energia primarioaren ekoizpena %0,24 gehitu da, 420 Ktep-etatik 421 Ktep-etara. Ekoizpen hori batez ere energia berriztagarrietan oinarritzen da (iturri propio nagusia). 2007 eta 2008 artean %0,76 gehitu dira (391 Ktep-etatik 394 Ktep-etara).

[9] Balantze energetikoetan, barne kontsumo gordina edo energi eskaera eta azken kontsumoa bereizten dira. Energi eskaera edo barne kontsumo gordina lurraldean bertan sortutako energia primarioaren, eta inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik...) arteko balantzearen arteko batura da. Azken kontsumoa azken sektore kontsumitzaileen kontsumoaren batura da (industria, garraioa, sektore primarioa, zerbitzuak eta etxebizitzak).

Energia primarioaren ekoizpen propio txiki honek bakarrik ahalbideratzen du EAEko energi eskaeraren %5,3 asetzea (7.872 Ktep). Ondorioz, EAEren kanpo energi dependentzia %94,7 da.

Energi intentsitateak, BPG unitate bakoitzeko azken kontsumo gisa neurtuta, erakusten du 2008an 1998ko %91 dela, eta aurreko urtearen aldean ehuneko bi puntu hobetu da, BPGa energiaren azken kontsumoa baino gehiago gehitu delako.

Hondakinen sorreran eta kudeaketan, INEren *industri sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestako* azken datuek erakusten dute aurreko urtean ez bezala EAEn hondakin ez arriskutsuen sorrera gutxi gorabehera egonkorra dela eta hondakin arriskutsuena berriro ere murriztu dela: azken urte honetan %20,7, 2006an hasi zen beheranzko joera berretsiz. Halere, EAE, 302,2 mila tonarekin, industri sektorean hondakin arriskutsurik gehien sortzen duen bigarren erkidegoa da berriro ere, Kataluniaren atzetik, 537,2rekin (aurreko urtean 496,2 mila tona izan ziren; beraz, gora egin du). Estatuan oro har, hondakin arriskutsuak %1,5 gehitu dira.

Hiri hondakinei dagokienez, per capita aztertuta, INEren *hiri hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkestako* datuen arabera, EAEn 2007an 487,9 kilo hiri hondakin nahastu batu ziren, estatuko batezbestekoa baino gutxiago (493). Gaikako hondakin bilketan, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak) estatuko batez besteko kopuruak baino bilketa kopuru handiagoak ditu.

Klima aldaketari eta negutegi efektuko gasen (NEG) emisioei dagokienez, Kyotoko protokoloak Espainiar estatuari eskatu zion konpromisoa da %15ean mugatu ditzala *zuzeneko* emisioen gehikuntza[10] oinarrizko urtetik (1990) 2008-2012 denboraldira bitartean. EAEko *NEGen emisio guztia* (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin lotura dutenak barne) 2008. urtean, "EAEko 1990-2008ko negutegi efektuko gasen emisioei buruzko inbentarioko" datuen arabera, 25,3 milioi tona CO_2 baliokidekoa izan zen. Beraz, 2007ko emisioak baino %3 gutxiago, eta oinarrizko urtean baino %18 gehiago.

Bestalde, *industriako enpresek ingurumena babesteko egiten duten gastuari* buruzko inkestan, INEak egina, azken datuek erakusten dute 2007an EAEan aipatutako enpresek ingurumena babesteko egin zuten gastu osoa %4,2 gehitu zela 2006. urtean egindakoaren aldean. Gastua BPGaren portzentaje gisa neurtzen badugu, ikus dezakegu 2007. urtean gutxipen berria gertatu dela, %0,35eraino. Horrela, EAE seigarren izatetik zortzigarren izatera igaro da, hauen atzetik: Asturias (%0,94), Galizia (%0,58), Gaztela eta Leon (%0,47), Aragoi (%0,44), Errioxa (%0,41) eta Nafarroa (0,4).

1.5. EAEKO EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

Munduko BPGa, eroste ahalmenaren parekotasunaren arabera ponderatua, Nazioarteko Diru Fondoaren zenbatespenen arabera, % 0,6 murriztu zen. Ekonomia aurreratuek %3,2ko gutxikuntza daukate. AEBen BPG % 2,4 gutxitu da, euro eremuarena % 4,1 eta Japonena % 5,2. Ekonomia emergenteak eta garapen bidean daudenak, batez ere Asiakoak, India eta Txina buru dituztenak, %2,4 inguru gehitu ziren. Txina eta India %8,7 eta %2,4 gehitu ziren, hurrenez hurren.

Inflazio orokorrak jaitsiera handia izan zuen. Petrolioaren eta zenbait lehengairen prezioek behera egin zuten. Brent upelaren batez besteko prezioa 2009. urtean 61,5 $ da (2008an 97,2 $ izan zen).

2009ko bigaren seihilekoan, munduko ekoizpena eta komertzioa berraktibatu ziren. Azken hileetan ekonomiarik gehienetan hazkundeko aurreikuspenak gorantz berrikusi ziren. Konfiantza indarrez itzuli ziren

[10] CO_2 gas kutsagarriaren ondorioak klima aldaketan globalak dira. Horregatik, EAEren ardura diren emisio guztiak hartuko dugu aintzat (emisioak guztira) EAEren helbururako, emisioak non sortu diren gorabehera. Hala ez balitz eta zuzeneko emisioak soilik aintzat hartuko bagenitu, paradoxa bat gerta liteke: elektrizitate gehiago inportatuz emisioen helburuak betetzeko egoeran egongo ginateke, kontsumitutako energia elektrikoaren zenbatekoari buruz inolako neurririk hartu gabe.

finantza sektorera eta sektore errealera, zenbait politikaren bidez eman zitzaien babes ikusgarriari esker, beste Depresio Handi bat saihestuz.

Lehengaien prezioek gorakada handiak izan zituzten suspertzearen hasierako etapetan zehar, nahiz eta oro har izakinen maila altua zen. Horren arrazoia izan zen, neurri handi batean, Asiako ekonomia emergenteak kementsu suspertu zirela, beste ekonomia emergente eta garapen bideko batzuk modu orokorragoan suspertzen hasi zirela, eta munduko egoera ekonomikoa hobetu zela.

Finantza merkatuei dagokienez, uste zena baino arinago suspertu ziren, jarduera indartu zelako. Diru merkatuak urtearen bigarren erdialdean egonkortu ziren, eta bankuek maileguak emateko ezarritako neurri zurrunak leundu zituzten.

Erreserba Federalak fondo federalentzako interes tasari oso maila txikietan eutsi zion, %0 eta %0,25 artean, urte betez. Gainera, politika ez konbentzionaleko neurriak aplikatzen jarraitu zuen, sektore pribatuari kreditua bideratzea sustatzeko, eta epe luzerako balioak eskuratzeko programak abiarazi zituen, kreditu merkatuen funtzionamendua babesteko helburuarekin.

Japongo Bankuak aldakuntzarik gabe (%0,1ean) mantendu zuen egun baterako eta bermerik gabeko maileguen interes-tasarako helburua.

Europako Banku Nagusiak esku hartze tasa egun batera murriztu zuen lau aldiz, %2,5etik (2008ko abenduan ezarria) %2ra 2009ko abenduan. Martxoaren eta maiatzaren artean zenbait murrizketa egin zituen, guztira oinarrizko puntu bateko batura izan zutenak: 0,5 martxoan, 0,25 apirilean eta 0,25 maiatzean. Erreferentziako interes-tasak urtea %1ean amaitu zuen, urtarrilean erregistratutako maila baino ehuneko puntu bat gutxiago.

Diru merkatuaren interes-tasei dagokienez, epe guztietan jaitsi ziren. Horrela, hilabete baterako Euribor %2,14rekin hasi zuen urtea eta %0,48rekin amaitu. Hiru hilabeterako Euribor urtarrilean %2,46 zen eta abenduan %0,71; eta urte beterako Euribor urtarrilean %2,62rekin hasi zen eta abenduan %1,24rekin amaitu zuen.

Burtsako merkatuetan, nahiz eta munduko ekonomiak 2009ko ekitaldian BPGaren hazkunde tasetan Depresio Handiaz geroztik ekitaldirik txarrenetako bat izan zuen, balio merkatuek urtean zehar bildu dituzten espektatiben aldaketa faktore erabakigarria izan da krisialdian bigarren seihilekoan inflexio puntua gertatzeko. Ondorioz, 2009ko amaieran orokorrean etekinak izan zituzten eta hegazkortasuna nahikotxo murriztu zen.

Kanbio-merkatuetan dolarrak, Txinako yuanak (dolarrari finkatuta jarraitzen duena) eta libera esterlinak balioa galdu zuten gainerako ia dibisa guztien aldean.

Halere, herrialde txiki batzuen zor subiranoa presioak izaten hasi zen, ekonomia horiek defizit publiko eta zor publiko handiak izaten dituztelako eta inbertsio egileek gero eta gehiago bereizten dituztelako herrialde batzuk eta besteak.

Euro eremuari bagagozkio, murrizpen honen arrazoi nagusia izan zen produktua 2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengo hiruhilekoan erori zela, finantzetako gorabehera handien, zalantza handien, eta munduko jardueran eta eskaeran aurrekaririk gabeko jaitsieraren ingurune batean.

2009ko bigarren hiruhilekotik aurrera, finantza egoerak hobera egin ahala eta kanpoko merkataritza suspertzen hasi zenean, hazkuntza positiboa izan zen berriro ere, baina erritmo motelean eta oso maila txikitik abiatuta.

Izakinak enpresen finantzetakoa ez den inbertsioaren dinamika azaltzeko beste funtsezko aldagai bat dira, eta oso garrantzitsuak izan ziren desazelerazio ekonomikoa intentsifikatzean. BPGaren gutxikuntzan 0,7 puntutan lagundu zuen 2009an.

Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak eta inportazioak jaitsi ziren, baina esportazioen murrizketaren eragina nagusitu zen heinean, kanpoko eskaera garbiak BPGaren hazkuntzari egin zion ekarpena oso negatiboa izan zen.

Sektoreen ikuspegitik, produktuaren murrizpenak batez ere industrian izan zuen eragina. Beraz, industriaren balio erantsia, eraikuntza kontuan izan gabe, % 15,8 jaitsi zen urte arteko tasan 2009ko lehenengo bederatzi hilabeteetan. Merkatuko zerbitzuak eta eraikuntza %2,8 eta %4,9 murriztu ziren hurrenez hurren.

Lan merkatua oso kaltetuta gertatu zen. Bestalde, enpresek nabarmen murriztu zituzten lan orduak, sarritan gobernuek diruz lagundutako lansaio murrizpeneko planak aprobetxatuz.

Lanaren itxurazko produktibitatea, BPGa enplegu guztiarekin zatituz neurtzen dena, nabarmen murriztu zen, 2009an %2,2 inguru jaitsiz, batez beste.

Lan egindako ordu bakoitzaren produktibitateak jaitsiera gogorra izan zuen. Horrek enpresa-marjinetan eragina izan zuen, enpresa askok nahiago izan baitzuten enplegua gordetzearen kostu mugatua jasan, langileak botatzeak dakartzan kostu handiagoei aurre egitea baino (adibidez, giza kapitalaren galera edo laneskua txandakatzearen kostuak). Produktibitatearen gehikuntza urteko bigarren seihilekoan apur bat suspertu zen.

Urte arteko inflazioa, IAPCak neurtua, batez bestez %0,3raino murriztu zen. Gorabehera hau aurreko urteetatik oso ezberdina da, aurreko urteetako urte arteko inflazio tasak %2,1 eta %2,2 bitartean mantendu baitziren. Inflazio maila hain txiki horren arrazoia, neurri handi batean, petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen jaitsiera handia izan zen, 2008. urtean lortutako kota handien aldean.

Horrek 2008an erregistratutako inflazio gorabehera alderantzikatzea ekarri zuen, baina inflazio-presioen murrizpenaren ondorio ere izan zen, jarduera murriztearen eta lan merkatuaren egoeraren okertze azkarraren testuinguruan.

Soldaten hazkuntza 2009. urtean zehar desazeleratu zen, lan-merkatuaren egoeraren okertze azkarra beheranzko presioak egiten hasi baitzen. Soldatapekoen ordainsarien hazkunde tasa nabarmen jaitsi den arren, soldatadun bakoitzeko produktibitatea ere jaitsi zenez gero, aleko lan kostuak nabarmen igo ziren, 2009ko lehen hiruhilekoan kota maximoetara iritsiz. Marjinak estutu ziren, ekoizleek kobratutako salneurrietan izandako murrizpenen ondorioz; horrenbestez, etekinak murriztu ziren, bolumen eta marjina efektuengatik.

Europako herrialderik gehienek aldi baterako neurri fiskalak ezarri zituzten, Ekonomi Suspertzeko Europako Planaren esparruaren babesarekin kontrakzio-indarrei aurre egin zietenak. Hala eta guztiz ere, neurrien emaitzak gauzatzen hasi direnean eta abagunearen adierazle nagusiak krisiaren laztasuna leuntzen ari dela erakusten hasi direnean, aurrekontuen epe ertaineko egonkortasunarekiko konpromisoa heldu behar zaio berriro ere.

Espainiar ekonomiari dagokionez, INEren datuen arabera, 2009. urtearen amaieran BPG errealean batez besteko %3,6ko jaitsiera izan zen, aurreko urtean baino 4,5 puntu gehiago. Gutxikuntza hori EB15ean izandakoa baino txikiagoa da (-%4,3), EB25ekoa baino txikiagoa (-%4,2), EB27koa baino txikiagoa (-%4,2) eta euro eremukoa baino txikiagoa (-%4,1), EUROSTATen arabera.

Gastuaren ikuspegitik, barne-eskaerak BPGaren hazkundeari egin zion ekarpena -6,4 puntukoa izan zen, aurreko urtean baino 5,9 puntu gutxiago beraz, azken kontsumo pribatuaren beherakadaren ondorioz (hazkunde tasa, -%5), eta kapital finkoko inbertsioak izandako murrizpenaren ondorioz (-%15,2). Bestalde, administrazio publikoek egindako azken kontsumoko gastuak hazten jarraitu du, baina aurreko urtean erregistratutako baina tasa txikiagoan (%5,5etik %3,9ra).

Bestalde, kanpo sektoreak BPGaren hazkundearentzako ekarpena 1,4 puntutan hobetu du, 1,4tik 2,8ra, inportazio jarduera esportazioa baino gehiago jaitsi delako.

Eskaintzaren aldetik, jardueraren erorketa ikusten da adar guztietan, baina handiagoa da industrian, urtean batez besteko %14,6 gutxikuntzarekin. Eraikuntza sektorean, jarduera %6,3 murriztu da. Bestalde, zerbitzuetan jaitsiera %1 da.

Jardueraren murrizpen hau okupatutako enplegumailaren murrizpenarekin gertatu da. Lansaio osoko lanpostuen kopurua %6,7 murriztu da, beraz, 1,3 milioi lanpostuko murrizpen garbia gertatu da. Bestalde, langabezi tasa 6,7 puntu gehitu da, %11,3tik %18ra.

BPGaren eta lansaio osoko lanpostuen aldakuntzatik ondorioztatzen dugu ekonomiaren lan-faktorearen itxurazko produktibitatea %3,3ko erritmoan gehitu zela. Produktu ale bakoitzeko lan kostua %0,3ko erritmoan gehitu zen.

INEren datuen arabera, inflazioa, KPIaren bidez neurtua (urteko batezbestekoa), %0,3 murriztu zen batez bestez, aurreko urteko %4,1eko gehikuntzaren aldean.

Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) 2009ko abenduko datuek, estatu osorako, adierazten dute 2008ko abenduaren aldean % 0,9ko gehikuntza izan dela, aurreko urtean izandakoa baino 6

dezima gutxiago eta EDBrako erregistratu den tasa bera (horren indizea 7 dezima jaitsi da aurreko urteko abenduaren aldean). EB27an, bestalde, prezioak %1,5 gehitu dira, 2008ko abenduan baino 7 dezima gutxiago.

Ekonomiaren finantzazio beharrizanari dagokionez (defizita), 2008an BPGaren %9,1 izatetik 2009an %4,7 izatera igaro da, hau da, 49.297 milioi euro, aurreko urtean baino ia 49.653 milioi euro gutxiago.

Bestalde, krisi ekonomikoaren ondorioak eta hartutako neurrien ondorioak asko nabaritu dira sarrera nahiz gastu publikoetan. Lehenengoak murriztu dira eta bigarrenak igo dira, langabezi prestazioengatik eta kontsumo publikoagatik. Ondorioz, defizit publikoa, Kontabilitate Nazionaleko terminoetan neurtuta, 117.604 milioi eurotara iritsi da; beraz, BPGaren %4,1etik %11,2ra igo da 2008 eta 2009. urteen artean.

Zazpi autonomi erkidego, EAE besteak beste, estatuko batezbestekoa (-%3,6) baino gutxiago gutxitu ziren. Hauek dira: Galizia (-%3), Madril

(-%3,2), Gaztela-Mantxa (-%3,3), Murtzia (-%3,4), Gaztela eta Leon (-%3,4), Kantabria (-%3,5), EAE (-%3,5). Per capita BPG nominala aztertzen badugu, EAE lehenengoa da, biztanle bakoitzeko BPG 30.703 eurokoa da, batezbestekoa baino %34,2 gehiago. Gero Madril dago, 30.029 euroko per capita BPGarekin (batezbestekoa baino % 31,2 gehiago), Nafarroa (29.598 euro per capita eta batezbestekoa baino % 29,3 gehiago), Katalunia (26.831 euro biztanle bakoitzeko), Errioxa (24.754), Aragoi (24.639), Balearrak (24.510) eta Kantabria (23.343). Guztiak estatuko batezbestekoaren gainetik, 22.886 euro dena.

EUSTATen hiruhilekoko kontu ekonomikoen datuen 2010eko otsaileko lehen aurrerapenaren arabera[11], EAEko ekonomiak %3,3ko urte arteko gutxikuntza izan zuen 2009an, termino errealetan, aurreko urteko %1,9ko gehikuntzaren aldean. Haren BPG, termino arruntetan, 66.208.290 eurokoa zen. Memoria hau amaitzeko egunean, hiruhilekoko kontu ekonomikoen azken datuak, 2010eko irailean argitaratuak, %1,3ko hazkundea erakusten dute 2008rako, eta %3,8ko jaitsiera 2009rako gure erkidegoko BPGan[12].

Eskaeraren aldetik, 2008 eta 2009. urteen artean jardueraren jaitsiera barne-eskaeraren erorketaren ondorio da; barne eskaera, %4ko benetako gutxikuntzaren ondorioz, 5,8 puntutan murriztu du 2008ko aldakuntza tasa (%1,8 gehiago). Horren arrazoia da kontsumo pribatua murriztu dela (%3,8 gutxitu dena, aurreko urtean % 1,6 gehitu ondoren) eta inbertsioa murriztu dela (%8,3 gutxitu da, aurreko urtean % 0,5 gehitu ondoren).

Kanpo-eskaerari dagokionez, atzerritarrekiko ondasunen kanpo-komertzioari buruzko datuek (Kanpo Komertzioaren Estatistikak eskaintzen dituztenak, Aduanen Erregistroen oinarrituta) azaltzen dute esportazioen balio arrunta %28 murriztu zela 2009an; energiazko esportazioetan %32,9 murriztu zen eta energiazkoak ez direnetan (osotasunaren %91,5 direnak), %27,5. Estatistikako seriea hasi zenetik, 1990. urtean ez zen hain gutxikuntza handirik atzeman esportazioetan, balio arruntean. Hain zuzen ere, erregistratu zen jaitsiera bakarra 2001. urtean izan zen, %2,3. Bestalde, inportazioak guztira %39 gutxitu ziren; energiazko inportazioen balioa (guztien %34,2) %41 gutxitu zen eta energiazkoak ez direnen balioa %37,9 gutxitu zen. Ez zen hain gutxikuntza handirik atzeman inportazioetan, balio arruntean, 1990. urtean estatistikako seriea hasi zenetik. Kontabilizatu diren jaitsiera bakarrak 1991. urtean (-%0,7) eta 2001. urtean (-%3) izan ziren. Energi esportazioetan beste jaitsiera batzuk ikusi dira, baina energiazkoak ez direnek konpentsatzen dituzte.

Esportazio ez energetikoak muga-zergen taldeen arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu, aurreko ur-

[11] Esan behar dugu 2005eko 2. hiruhilekotik aurrera hiruhilekoko kontu ekonomikoetan eta urteko kontu ekonomikoetan neurketa metodo berria dagoela. Metodo horrek orain arte erabili diren bolumeneko balioak edo oinarri finkoko prezio konstanteen balioak ordezkatzen ditu. Metodologia berriarekin, agregatuen hazkuntza denboraldi bakoitzean ez da deflatatzen oinarrizko urtearen prezioetara; aitzitik, denboraldi bakoitzean agregatu bakoitzaren balioa aurreko urteko prezioetan adieraziko da; horregatik, oinarri mugikorra egongo da. Oinarri mugikor horrekin, zenbaki indizeen denborazko serie bat ateratzen da, "kateatutako bolumen indizea" izenekoa.

[12] Egutegiak kapituluak egiteko dituen beharrizanengatik, kontu ekonomikoen eboluzioaren analisia eta memoria honetan BPGaren arabera egiten diren aldagaien erreferentzia guztiak 2010eko otsailean argitaratutako datuetan oinarrituta egin dira.

tean ez bezala, ekipamendu-ondasunen esportazioa %22,5 murriztu dela. Horren zuzeneko kausa da garraio materialaren esportazioa murriztu dela (-%22,1) eta makinen eta gailuen esportazioa murriztu dela (-%22,9). Energiazkoak ez diren inportazioetan, ekipamendu-ondasunak nabarmentzen dira, inportazio guztien %23 baitira. %30,7 gutxitu dira, garraio materialaren inportazioa eta makinen eta gailuen inportazioa murriztu direlako (-%46,9 eta -%22,4 hurrenez hurren). Bigarrenik, metalak eta haien manufakturak daude, inportazio guztien %19,1 direnak, eta %54 murriztu direnak.

EAEko energiazkoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoen arabera, ELGAri bideratzen zaizkionak (eta eremu horren barruan EB15era) garrantzitsuenak dira berriro ere: guztien %74,2 dira. Halere, %31,9ko gutxikuntza tasa daukate. Bereziki handiak dira Frantziara, Alemaniara, Italiara eta Erresuma Batura egiten diren esportazioak, EAEk EB15era egiten dituen esportazioen %74,9 baitira. Halere, guztiak murriztu dira: Frantzia (-%30,5), Alemania (-%33,5), Italia (-%38) eta Erresuma Batua (-%39,1).

Eskaintzaren aldetik, jardueraren jaitsiera bereziki deigarria da industrian eta eraikuntzan. %9,5eko eta %5,7ko jaitsierak izan dituzte hurrenez hurren, termino errealetan, 2008 eta 2009. urteen artean. Zerbitzuen sektoreak 2008 eta 2009. urteen artean izandako gutxikuntza, termino errealetan, %0,1ekoa da, baina aurreko bi sektoreak ez bezala, urte amaieran, laugarren hiruhilekoan, jaitsiera izan du, aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean. Jaitsiera hori %0,6koa da, aurreko hiru hiruhilekoetan izandakoa baino handiagoa.

Ekonomiak dauzkan zailtasunak enpleguan islatzen dira, 2006ko mailetara itzuli dena. Gainera, lanpostuen galerak langabezia handitzea ekarri du. Langabezi tasa %8tik gora dago. Lanaren itxurazko produktibitatea 6 dezima murriztu da, %0,8tik %0,2ra.

Bestalde, inflazioa nabarmen murriztu da. BPGaren deflatorea %0,1ean jarri da, aurreko denboraldian %1,2 zegoen arren, eta kontsumoko prezioen urteko batez besteko gehikuntza %0,3 izan zen, aurreko urteko %4,1aren aldean.

Amaitzeko, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, EAEn atzerriko inbertsioa gutxitu egin da, 2009ko behin-behineko datuen arabera (urtarrila-abendua). Guztira, EAEk 140,49 milioi euroko atzerriko inbertsio gordina jaso du. Atzerriko balioak dauzkaten enpresak (ABDE) kontuan izaten ez baditugu, 97,73 milioi euro dira. Horrela, atzerriko inbertsio gordinaren fluxua, ABDEak kontuan izan gabe, EAErako, %70,3 murriztu da. Horrela, 2009. urtean EAE bederatzigarrena izan zen inbertsio bolumenean, hauen atzetik: Madril (7.636,8 milioi euro jasotzen dituena, ABDEak kontuan izan gabe), Katalunia (1.365,3 milioi euro), Valentzia (447,2 milioi euro), Andaluzia (306,5 milioi euro), Gaztela-Mantxa (170 milioi), Galizia (158,9 milioi) eta Aragoi (131,7 milioi).

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kontuan izan gabe, 4.797 milioi eurotik 1.238,7 milioi eurora murriztu da. Aurreko urtean bezala, EAE laugarren autonomi erkidegoa da atzerrian egiten duten inbertsioaren arabera 2009an. Hauek dauzka aurretik: Valentzia (1.341,9 milioi euro), Madril (4.445 milioi euro) eta Kantabria (4.568 milioi euro).

Herrialdeen arabera, gure kanpo inbertsioaren destinorik garrantzitsuenak AEB (euskal kanpo inbertsioaren %78,1), Asia eta Ozeania (euskal kanpo inbertsioaren %5,2) dira. Afrikako inbertsioa gehitu dela eta paradisu fiskaletan inbertsioa murriztu dela (iaz gehikuntza jaso zen) nabarmendu behar dugu. Sektoreka, energiaren sektorea alboratzen badugu, hauek nabarmendu behar ditugu: Motordun ibilgailuen eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, handizkako komertzioa, txikizkako komertzioa, eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak, eta material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa.

1.6. SEKTORE PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek guztira likidatutako diru-sarrerek (14.292 milioi euro) 2009an %1eko beherakada izan zuten, aurreko ekitaldian izan-

dakoa baino txikiagoa (-%2,3), batez ere finantzetakoak ez diren diru-sarreren beherakada (-%10,7) zati batean finantzetakoen gehikuntzarekin (%291,2) konpentsatu zelako, 1.765 milioi euroko zorra jaulki delako.

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreren gehiengoa dira, eta zenbateko osoaren %90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketari dagokionez, 2009rako behin-behineko datuek %15,9ko jaitsiera erakusten dute, 2008an izandako %6,8ko jaitsieraren ondoren, zenbait urtez gorantz egin ondoren. Hain zuzen ere, 2008ko eta 2009ko bilakaera negatiboaren antzekorik behin baino ez da egon, 1994an.

Azken urtearen bilakaera bereziki txarra izan da. 2008an zuzeneko eta zeharkako zergen bilketak murriztu ziren arren, 2009an askozaz ere handiagoa da zuzeneko zergetan (-%18,3), PFEZaren bidez bildutako diruaren beherakadaren ondorioz (-%12,1). Zerga horrek bereziki nabaritu zituen urte osoan gertatu zen lanpostu galera eta administrazioak okupatutako pertsonei emandako laguntzak (400 euro langile bakoitzeko). Bestalde, sozietateen zerga ere batezbestekoa baino askozaz ere gehiago murriztu zen (-%27,2). BEZari dagokionez esan behar dugu zerga hori, beraren pisu erlatiboa eta jasan duen beherakada garrantzitsua (-%17,3) kontuan izanik, zerga-sarreren erorketa globalaren oinarrizko elementuetako batean bihurtu dela. Gastu gehituaren dinamismo galera mailakatuak, 2007an hasi zena, zerga-bilketaren jaitsiera azaltzen du neurri handi batean. Halere, finkatutako taldeentzako adierazpen araubide berriak ere eragina izan du. Aitzitik, urtearen azken tartean jaitsiera leundu da.

Guztira, bildutako bolumen osoa 10.792 milioi euro da. Zenbateko hori EAEko BPG arruntaren %16,3 da 2009. urtean (2008an %18,5).

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.673 milioi euro dena (toki erakundeak kanpo), 2009an %4,4 gehitu da, aurreko urtean baino 3,7 puntu gutxiago alegia. Beraz, magnitude honek EAEko BPGan duen portzentajea ia bi puntu gehitu da aurreko urtekoaren aldean, %21,9,tik %23,7ra igoz. Gastuaren aldakuntza, ordea, negatiboa izan da aldundien artean, %10 murriztu baita (2008an %0,3). Eusko Jaurlaritzan, berriz, %10,6 gehitu da (2008an %8,5).

Halaber, EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia nabarmen gehitu da aurten. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 4.338 milioi euroko zor-bolumena zeukaten, 2008an baino %58,9 gehiago (urte hartan %5,6 gehitu zen). Gehikuntza hau batez ere Eusko Jaurlaritzan gertatu da, zor bizia %81,5 gehitu zuena urtearen amaieran. Foru aldundietan neurri txikiagoan gertatu da (%24,1). Horrela, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %69,3).

Zorpetze gordina nabarmen gehitu da aurreko urtearen aldean, %326,8. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2006 eta 2007ko ekitaldiak zeramatzan zorpetu gabe, baina berriro egin du 2008an, 200 milioi eurotan, eta 2009an 1.411 milioi eurotan. 61,15 milioi amortizatu dituenez, ekitaldiko zorpetze garbia 1.350 milioi eurokoa da. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zor bizia urtearen amaieran, 3.006,75 milioi eurokoa dena, BPGaren %4,5ekoa da (2008an %2,4koa).

Foru aldundiek, bestalde, 354 milioi euroko zorra hartu dute, 2008an baino %65,8 gehiago, eta 95,1 amortizatu dituzte. Beraz, ekitaldiko zorpetze garbia 258,8 milioi eurokoa da. Ondorioz, ekitaldiaren amaieran haien zor bizia 1.332 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino %24,1 gehiago.

1.7. GIZARTE EKONOMIA

EAEn sozietate kooperatiboek eta lan-sozietateek osatzen duten gizarte-ekonomiako merkatu-arloaren (edo ekoizpen-arloaren) dimentsio erlatiboa definitzeko orduan, dauzkagun datuek erakusten digute balio erantsiaren %5,3 inguru eta lanpostuen %6,6 inguru direla, gizarte-ekonomiaren estatistikaren azken datuen arabera (2005-2006 urteetakoa[13]. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egiten duen

[13] Gizarte Ekonomiako Kontuei buruz (bi urtean behin argitaratzen direnak) informazio gehiago nahi izanez gero, irakurleak EAEko 2008ko memoria sozioekonomikoari buruzko kapitulua irakur dezake.

estatistika honetako 2007. urterako datuen aurrerapenaren arabera, EAEko gizarte-ekonomiak guztira EAEn dauden 3.167 establezimendu hartzen ditu barruan. Establezimendu horiek 64.719 pertsonari lana ematen diete (batez bestez, establezimendu bakoitzak 20,4 lanpostu ditu). Establezimendu hauek, aipatutako urtean, 10.315 milioi euro inguruko fakturazioa izan zuten (2006an baino %10,4 gehiago).

Bestalde, Gizarte Segurantzak 2009. urtearen amaieran EAEn guztira 1.478 sozietate erregistratu zituen kooperatiben izaera juridikoarekin altan, aurreko urtean baino 33 gutxiago. Sozietate horiek 53.678 langile dituzte (2008an baino %3,3 gutxiago). Horrenbestez, batez bestez kooperatiba bakoitzak 36,3 langile ditu, aurreko urtean bezalaxe. Langile-kopuru hori estatuko handiena da, eta estatuaren batez bestekoa (12,8) baino askozaz ere handiagoa. Iturri berak adierazten du 864 lan-sozietate ari direla kotizatzen, 2008an baino 67 gutxiago, eta 11.184 12.435 pertsonari lan ematen dietenak (2008an baino %10,1 gutxiago). Sozietate bakoitzaren batez besteko langile-kopurua 12,9 da, estatuko datuak baino askozaz ere gehiago (5,6 langile batez bestez).

Guztira, gizarte-ekonomiako langileen pisua, Lan eta Inmigrazio Ministerioak BAIren datuetan oinarrituta egin dituen kalkuluen arabera, gure erkidegoko lanpostuen milako 70,1 da. Kopuru horrek estatuaren batez bestekoa (mila langileko 20,7) hirukoizten du eta autonomi erkidego guztietan altuena da (abenduaren 31ko datuekin). Gainera, EAEko gizarte-ekonomiak lanpostu guztien funtsezko zati bat hartzen du, estatuko gizarte-ekonomiako lanpostuen %16,8 baita (2008an %16,4).

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren Erregistroan 2009ko abenduaren 31n guztira 3.825 kooperatiba eta lan-sozietate ageri dira, honela sailkatuta:

a) *Sozietate kooperatiboak:* 2009an kooperatiba kopurua 25etan gehitu zen. Kopuru horrek esan nahi du aurreko urtetik %1,5eko gehikuntza jazo zela (urte hartan 47 kooperatiba berri izan ziren, %2,9). 2009. urtearen amaieran, EAEko kooperatiba kopurua 1.713 da guztira. Haien artean, erdia baino gehiago (1.072) elkarlaneko kooperatibak dira; haietatik 92 (%8,7) kooperatiba txikiak dira (figura honek bere erregimena eta araudia dauzka, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide).
Aurreko urteetako joera hautsiz, elkarlaneko kooperatibak 11 gutxiago dira, aurreko urtean 26 sortu ziren arren. Gehikuntza handiena, ordea, etxebizitza kooperatibetan erregistratzen da (15 gehiago), eta gero, mistoetan.

b) *Lan-sozietateak:* EAEko lan-sozietateen erregistroan, 2009. urtearen amaieran, bi mota horietako 2.112 lan-sozietate zeuden guztira, 2008an baino 17 gutxiago alegia. Mugatuak gehiago dira anonimoak baino, 80 gehiago zehazki (2008an, 81 gehiago). Azken urtean, sozietate mugatuak 9 gutxiago dira, eta lan-sozietate anonimoak, berriz, 8 gutxiago dira (-%0,8 bi kasuetan).
Sektoreka, sozietate mugaturik gehienek, %57,9ak, zerbitzuetan egiten dituzte beren jarduerak. SALen artean, berriz, gehienek (%48,3,4ak) industrian jarduten dute. Ezberdintasun hori EAEko hiru lurraldeetan gertatzen da, nahiz eta Araban zerbitzu sektoreak pisu handiagoa daukan proportzioan.

1.8. LAN MERKATUA

EUSTATen "*Biztanleria jardueraren arabera*" inkestaren datuek (BJA) erakusten dute EAEn 2008ko abendutik 2009ko abendura arte okupazioan %2,7 murrizketa gertatu dela, eta 2008ko hirugarren hiruhilekoari dagokionez, okupazioak bere maximo historikoa jo zuenean, beherakada %4,1 izan zela, 40.000 lanpostu inguru galduz. Urteko batez besteko balioak kontuan izaten baditugu, 2009an galdu ziren 35.700 lanpostuetatik 30.300 gizonenak ziren (%84,9) eta 5.400 emakumeenak (%15,1). Beraz, lanaren feminizazio indizeak gora egin du, %44,2raino.

Adinaren arabera, lanpostuen suntsiketa azkarrago hedatu da gazteenen artean. Horrela, azken urtean gazteenen lanpostuen %15,6 desagertu da, erdibideko adinekoen lanpostuen %4,5 eta 44 urtetik gorakoen

lanpostuen %1,9. Ikasketen arabera, kolektibo guztietan eragin handia izan duen arren, nabarmenagoa izan da lehen hezkuntza bakarrik dutenengan (-%9,1), ikasketa ertainak dituztenengan (-%6,3) eta unibertsitateko ikasketak dituztenengan (-%6) baino.

Industrian pairatzen ari dira gehien krisiaren kalteak: azken urteetan (batez besteko balioak) %10,7 murriztu da; hau da, 27.000 lanpostu galdu dira. Zerbitzuek oraindik 2008ko maila berdinetan eusten diote; termino absolutuetan 200 lanpostu eskas galdu dituzte. 2007ko amaieratik 640.000 lanpostu inguruan dago eta, bitxia bada ere, sektore honek emakumeen presentzia handia duen arren, gizonak izan dira azken urtean lana galdu dutenak (-%0,9) eta emakumeek irabazi (%0,8). Bestalde, eraikuntzak egoera latza bizi duen arren, 2008ko kopuruei eusten die. Baina aurreko urtearekin alderatzen badugu (sektore honetan krisia lehenago hasi baitzen) lanpostuak %8,7 murriztu direla ikusiko dugu (7.300 lanpostu garbi).

Bestalde, 2009an jarduera tasa apur bat gehitu zen, 16 urtetik gorako biztanleen %55,6raino iritsiz. Balio global honek bi joera kontrajarri batzen ditu generoaren arabera, gizonezkoen kasuan hiru dezimako galera dagoelako (%64) eta emakumeen jarduera tasa 1,3 puntu gehitu delako, %47,6raino. Portaera kontrajarri bi hauek zenbait azalpen dituzte. Besteak beste, esan behar dugu emakumeak lan merkatuan sartu direla (oraindik ez erabat), emakumeek egin ohi dituzten jardueretan (zerbitzuak) krisiak ez duela hainbesteko eraginik izan, eta familiako beste kide batzuek lanpostua galtzearen ondorioz lana bilatu behar izan dutela.

Adinen araberako azterketak ere zenbait berezitasun erakusten ditu. Adibidez, gazteek lan merkatua bertan behera uzten dutela (jarduera tasa ehuneko 2,6 puntu murriztu da), lana aurkitzeko dauden eragozpenak kontuan izanik.

Aldi baterakotasun mailak kontuan izanik, BJAren datuek zazpigarren urtez segidan jaitsiera erakusten dute. Aldi baterako kontratua duten soldatadun pertsonen portzentajea %18,6 da, 2008an baino 8 dezima gutxiago. Jaitsiera bi sexuetan gertatu da: emakumeen artean puntu bat murriztu da eta gizonen artean 2,6. Ondorioz, aldi baterakotasunean sexuen artean dagoen haustura 2009. urtean hazi da gure erkidegoan eta 5,6 puntutaraino iritsi da, aurreko urtean baino 1,6 gehiago.

2009ko kontratazioen analisiak, bestalde, egungo abagune ekonomikoa islatzen du. Kontratu kopuruen murrizketa %20,3 da (2008an %5,3), eta 2003-2007 denboraldian saldoa positiboa izan zen. Estatuan, kontratuen murrizketa %15,5 izan zen (aurreko urtean %10,9). Kontratatutako pertsonen kopurua ere murriztu da, nahiz eta neurri txikiagoan (-%15,6). Sektoreka, industriak kontratuen %34,3 galdu du, zerbitzuek %19,4 eta eraikuntzak %13,4. Hala eta guztiz ere, sektore tertziarioak erregistratutako kontratuen %82,6 dauzka, aurreko urtean baino ia ehuneko bat gehiago, industriak %8, eraikuntzak %7,7 eta lehen sektoreak %1,7.

Guztira SPEEak 2009. urtean 656.056 kontratu erregistratu ditu (berriak nahiz bihurketak), 2008. urtean baino 226.810 gutxiago. Haietatik %54,1 emakumeek sinatu dituzte (2008an %52,4), kontratatutako pertsonen %46,5 direnak. Lurraldez lurralde, Gipuzkoan kontratuen %29,5 daude (2008ko pisu bera), Bizkaian %52,2, pisua galduz (-1,4 puntu) eta Araban %18,3 (2008an kontratuen %16,9 zituena).

Azkenik, soldatei dagokienez, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkestak erakusten du langile bakoitzeko batez besteko etekina 2008an (informazio berriagorik ez baitaukagu) 25.547 euro zela EAEn. Beraz, aurreko urtetik %6,9 gehitu zen (2006 eta 2007. urteen artean, %4,2 gehitu zen). Zenbateko hori estatuko denboraldi bereko batezbestekoa baino %16,7 handiagoa da, eta autonomi erkidegoetan lehenengoa da; bigarrena Madrilgo Komunitatea da. Soldata gordin hau gure erkidegoan 28.264 euro zen gizonentzat eta 21.766 euro emakumeentzat; beraz, bi generoen artean %29,9ko aldea dago. Alde hori azken urtean autonomi erkidego ia guztietan murriztu da (estatuan batezbestekoa %6,5 da) eta apur bat gutxiago EAEn, 6,3 puntutan (2007an %36,1 zen).

Inkesta honek nabarmentzen duen emaitza bat da 2008an langileen %5ak 8.400 euroko edo gutxiagoko batez besteko etekina (hau da, urteko soldata gordina) zuela urtean, hots urte horretako lanbide arteko gutxieneko soldata[14]. Portzentaje hori, emakumeetan, %8koa da. Era berean, langileen %18ak 8.400 eta 16.800 euro

[14] Datu hauek estatuari buruzkoak dira, ez dago autonomi erkidegoei buruzko daturik.

arteko soldata zeukaten. Portzentaje hori ia %50eraino iristen da 16.800 eta 33.600 euro arteko soldatetan.

Jarduera sektoreen araberako soldatei dagokienez, altuenak industriari dagozkio, bai EAEn bai estatuan oro har. Zehazki, sektoreko batez besteko etekina urtean 28.670 euro da gure erkidegoan. Gizonentzat batezbestekoa 29.781 euro da eta emakumeentzat 24.062. Industriako batez besteko soldata hau %19,3 handiagoa da estatuan baino, estatuan generoaren araberako ezberdintasunak erreproduzitzen baitira. Bigarrenik, eraikuntzako soldatak dauzkagu (EAEn, batez bestez 25.376 euro urtean, 2007an baino %11,7 gehiago), estatuko batez besteko soldatak baino askozaz ere handiagoak, zehazki %22,5 gehiago.

Era berean, INEren 2008ko Laneko Kostuaren Inkestaren arabera, langile bakoitzeko lan kostu gordina EAEn guztira 34.546 eurokoa da. Gastu horretatik %73,2 (25.289 euro) "*soldatetarako*" da. Batez besteko soldata hori estatuko batezbestekoa baino %16,9 handiagoa da, eta Madrilgo Komunitatekoarekin batera, autonomi erkidego guztietan altuena da. "Soldaten" partida hau etengabe gehitu da 2002. urteaz geroztik. Aurreko urtetik %5,8 gehitu da 2008. urtean; estatuko batezbestekoa, berriz, %5,4 gehitu da. Horregatik, bi magnitudeen arteko diferentziala 7 dezima gehitu da azken urtean.

1.9. ZENBAIT KOLEKTIBO ZAURGARRIREN BIZI-BALDINTZAK

Herrialde aurreratuetan fenomeno sozial eta demografiko ohikoenetako bat azken hamarkadetan biztanleria zahartzea da. Ondorioz, biztanleriaren adinaren piramidea goiko aldean zabaldu da; horrek gazteen adin taldeak pisu erlatiboa galtzea ekarri du. Orain ehun urte, biztanleriaren erdiak 24 urtetik behera zeuzkan (mediana adina); batez besteko adina, berriz, 28 urte zen. Gaur egun, ordea, EAEko biztanleriaren batez besteko adina 40 urte inguru da[15].

Hain zuzen ere, gazte populazioaren pisuaren galera Europar Batasun osoan gertatu den arren, prozesua azkarragoa izan da Espainiar estatuan eta EAEn beste herrialde batzuetan baino. Azken hamar urteetan, 15 eta 29 urte arteko tartea %21etik %19,3ra igaro da EB-27an, %22,3tik %19,3ra estatuan eta %23,9tik %16,4ra EAEn; tasa horrek gaur egun 353.000 pertsona baino gehixeago hartzen ditu barnean gaur egun. Are gehiago, azken bi urteetan soilik kolektiboa 30.000 pertsona baino gehiagotan murriztu da. Horrela, Europako gazteriak bi dezima baino ez ditu galdu (2006-2008 denboraldian %19,5etik %19,3ra murriztu da), eta EAEko biztanleria ehuneko 1,5 puntu murriztu da.

2009an, 15 eta 29 urte arteko gazteen kolektiboa EAEn 342.817 da. Kopuru hori EAEko populazioaren %15,8 da, INEko datuen arabera. Urte bakar batean, beraz, haren pisua 6 dezima murriztu da. Taldeka, kolektibo horretako %25,5ak 15 eta 19 urte bitartean dauzka, %31,8ak 20 eta 24 bitartean, eta %42,7ak 25 eta 29 bitartean. Datu horiek estatuko beste autonomi erkidego batzuetako datuekin erkatuz gero, EAE da gazterik gutxien daukana, Asturiasen atzetik (%15,7). Beste muturrean daude Andaluzia eta Murtzia, haien gazte tasak %20,4 eta %20,8 baitira, hurrenez hurren.

Pertsona independizatzeko elementu protagonistak lana eta etxebizitza dira; horrenbestez, gaztaroaren azken faseetatik heldutasunera iristeko ibilbidean ere funtsezko elementuak dira. Azken urteetan, alderdi bi horiei buruz oso kezkatuta zeuden EAEko gazteak; halere, gaur egungo egoera ekonomikoak eta lanean izan duen eraginak etxebizitzaren arazoari garrantzia kendu diote.

Gaur egun, 1993. urteaz geroztik etengabe behera egin ondoren (2003ko gorakadaren salbuespenarekin), gazteen langabezi tasak (25 urtetik beherakoenak) izugarri igo dira, atzeraldi ekonomikoaren ondorioz. Gure

[15] Horregatik, besteak beste, gaztaroa gaur egun 30 urtera arte luzatu da (baita 35 urtera arte kasu batzuetan). Lehen egiten zen sailkapena zaharkituta geratu da, gazterian 16 eta 25 urte arteko pertsonak soilik sartzen baitziren. Halere, azken irizpide hori oraindik ere indarrean dago aldagai batzuetan, adibidez, gazte enpleguaren adierazleetan. Kapitulu honetan, beraz, adin taldeak modu malguan aztertuko ditugu, dauzkagun datuen arabera.

erkidegoan, 90eko hamarkadako gazte langabeziaren mailak, %50 baino handiagoak zirenak, %7-8raino jaitsi ziren 2007an, eta 2009aren amaieran %25etik gorakoak ziren. Grafikoan ikus daitekeenez gorakada hau EB osoan gertatu da, baina Espainian intentsitate berezia dauka, langabezi tasa %38koa baita.

EUSTATen datuen arabera, EAEn 25 urtetik beherakoen langabezi tasa %23koa izan zen batez bestez 2009an; aurreko urtean, ordea, %9,8koa. Gazteak, argi eta garbi, langabezi tasarik handienetako bat duen kolektiboa osatzen dute, adinaren araberako denborazko serieetan ikus dezakegunez. Gazteen atzetik, talde hau dator: 25 eta 34 urte arteko pertsonak. Kolektibo hau, ikerketa soziologiko askoren arabera, gaur egun gazteriaren barruan, zentzu zabalean, kokatu beharko genuke hain zuzen ere.

Bestalde, Espainiako Enpleguaren Behatoki Gazteak (OBJOVEM), Lan eta Inmigrazio Ministerioarena, 15 eta 29 urte arteko gazteen lan egoeraren jarraipena egiten du, autonomi erkidegoen arabera sailkatuta. 2009ko bigarren hiruhilekoari buruz egin zuen txostenean azaldu zuen, lehenik eta behin, EAEren jarduera estatuaren batez bestekoa baino txikiagoa dela baina EAEren ezaugarri nagusia dela langabezi tasa erlatiboki txikia daukala. Izan ere, aipatutako denboraldian, 30 urtetik beherako gizonen %21,3 eta emakumeen %16,1 zeuden langabezian; beraz, gizon eta emakume gazteen batuketa egiten badugu, gazteen langabezi tasa %18,7 da.

Bigarrenik, kontratu mugagabea daukaten soldatadun gazteen portzentajea txikiagoa da EAEko gazteen artean. OBJOVEMen txostenak %45,5eko aldi baterakotasun tasa erakusten du (mugagabea ez den lan harreman oro kontuan izanik) 2009ko bigarren hiruhilekoan; estatuaren batezbestekoa %43,9koa da. Haien artean, %4,9ak produkzioaren gorabeheren ondoriozko aldi baterako kontratua du; %18,6ak obra edo zerbitzu jakin baterako, eta %18,8ak bestelako aldi baterako kontratu bat. Datu hauez gain, bada %3,3 bat bere aldi baterako kontratuaren mota zein den ez dakiena[16]. Oro har gazteen kontratazio mugagabea ugariagoa da Katalunian (%65,5) eta Errioxan (%62,9). Tasarik txikienak Ceuta eta Melillan (%29,9) eta Andaluzian (%44,2) daude. EAE estatuaren batezbestekotik behera dago, 1,6 puntu gutxiago.

EAEko gazteen aldi baterakotasun handiago hau EUSTATen datuek berresten dute, BJAren bidez. Urteko batez besteko tasak kontuan izanik, aldi baterako kontratuak dauzkaten gazteen portzentajea (kasu honetan 25 urtetik beherakoak) %57 da (%56,1 gizonentzat eta %58 emakumeentzat). Azken urteetako ratiorik txikiena dugu hau. Ratio honi kontraturik gabeko lan harremanak dituzten gazteena gehitu behar zaie: %4,8 (%0,9 mutilentzat eta %9,1 neskentzat). Grafikoan ikusten da "kontraturik gabekoak eta bestelakoak" kategoriako tasak oso antzekoak direla gazteentzat eta EAEko langileen batezbestekoarentzat; aldi baterako kontratuen tasak, berriz, askozaz handiagoak dira gazteen artean. Gainera, gazteen eta biztanleria osoaren arteko tarte horrek nahiko egonkor iraun du urteetan.

Bestalde, Nazio Batuen 2009ko "*Zahartzeari buruzko txostenaren*" arabera, biztanleria herrialde aurreratuetan ez ezik mundu osoan zahartzen ari da, historian aurrekaririk ez daukan prozesu bat sortuz. Bederatzi pertsonatik batek 60 urtetik gora ditu, eta 40 urteko epean bostetik bat izatea aurreikusten da.

2008ko abenduaren 31n, EAEko 65 urte eta gehiagoko biztanleen kolektiboa 408.957 pertsonek osatzen dute (guztien %18,9), eta 20 urtetik beherako gazteen segmentua baino ugariagoa da (363.407 pertsona, guztien %16,8). Emaitza hauek aldaketa handia erakusten dute 1981eko adin-egituraren aldean; urte hartan, segmenturik gazteena biztanleriaren %34,2 zen, eta zaharrena guztien %9,2 baino ez zen. Gainera, EUSTATen "*2020ko proiekzio demografikoen*" arabera, 65 urtetik gorako pertsonen biztanleriak datorren hamarkadan gehikuntza iraunkorreko joerari eutsiko dio: gaur egun 400.000 pertsona baino apur bat gehixeago izatetik 2020an miloi erdi izatera, hau da, adineko pertsonen biztanleria %25 gehituko da. 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %22,5 izango omen dira, eta aurreikusten da talde horren barruan %7,3 75 eta 84

[16] Espainiako Gazteriaren Behatokiak uste du estatuan gazteen ordaindutako lehenengo lanpostuetatik ia bostetik bat (%19) kontraturik gabe egiten dela. Egoera hau ohikoagoa da emakumeen artean.

urte arteko pertsonak izango direla, eta biztanleriaren %4,2 85 urtetik gorako pertsonak izango direla (kolektibo hori %1,1 eskasa zen 1990ean).

Biztanleriaren etengabeko zahartzea herrialde guztiek duten erronka da, termino ekonomiko eta sozialetan. Horrek eragin handia izan du adineko pertsonen kopuru gero eta handiagoa atzematen den moduan eta belaunaldien arteko harremanetan. Batzuek eztabaida alderdi negatibotik ikusten dute: zahartzea zama den aldetik. Baina sentimendu positiboa gailentzen da: zahartzea gizarte aurreratuen lorpena da eta, gaur egun, zahartzaroaz hitz egitea potentzialtasunez hitz egitea da. Ondo zahartzea gero eta kontzeptu garrantzitsuagoa da, estereotipo negatiboak baztertuz gero, eta optimismo berria zabaltzen ari da, adineko pertsonak behar bezala aprobetxatuta ez dauden potentzialen eta gaitasunen jabe diren aldetik.

Gaur arte adineko pertsonak hartzaile hutsak zirela uste izan dugu (zaintzen, laguntza materialen eta dirulaguntzen hartzaile), baina gaur egun, batez ere, beren senideei babesa eta laguntza ematen segitzen dute (gogoan izan dezagun EAEko 50.000 familiek aitona-amonen laguntza jasotzen dutela umeak zaintzeko), eta gero eta gizarte jarduera altruista gehiago egiten dituzte boluntario-elkarteen barruan[17].

IMSERSOk 2008an adineko pertsonen irudiari buruz egin zuen inkestak erakusten du kolektibo hau (70 urtetik gorakoak barne) mirespenez atzematen duela jendeak. Haien ezaugarri asko baloratzen dira: gurasoek eta aitona-amonek gazteei askotan ematen dieten finantza-laguntza, familiako mendeko pertsonak zaintzen dituztela, eta boluntario lanean egiten duten ekarpen handia, besteak beste. Gainera, biztanleriaren %75ak uste du adinekoek beren esperientzia eskaintzen diotela gizarteari.

Hain zuzen ere, bizi-itxaropenaren aurrerapenak "adineko gazteen" eta "adineko zaharren" arteko bereizketa argia egiten laguntzen du. Orain dela gutxira arte bereizketa horren muga 75 urteen inguruan zegoen, baina gaur egun batzuek 80 urteen inguruan jartzen dute, adin horietara iristea ahalbideratzen duten bizi-baldintza ebolutiboak aintzat hartuz.

1.10. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

EAEren aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, Osasun Sailaren gastu-partida 2008. urtean 3.240,7 milioi eurokoa izan zen. Hau da, aurreko urtearen aldean %10,7ko hazkuntza. Gastu hori BPGaren %4,68 da. Horrela, Osasun Saila baliabideen portzentajean lehenengo postuan dago oraindik, baliabide guztien %34,8arekin. Programa garrantzitsuena OSAKIDETZARI egindako transferentziei dagokie.

OSAKIDETZAren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egin zenak, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2008an, 2.418,5 milioi euro izan zela (2007an baino %11,8 gehiago), hau da, BPG nominalaren %3,53. Gehikuntza hori ustiapen gastuen (langileria, hornikuntzak eta bestelako gastuak) eta inbertsioen gehikuntzak azaltzen du.

EAEko osasun egoerari erreparatuz:

- EUSTATen datuen arabera, 2007. urteaz geroztik, heriotzarik gehienak tumoreen ondorio dira (2009an %30,5) eta bigarrenik zirkulazio-sistemaren gaixotasunak daude (%29,3), aurreko urteetan ez bezala, orduan zirkulazio-sistemaren gaixotasunak baitziren heriotza gehiago ekartzen zituztenak.
- Garai aurreko heriotzen kausarik garrantzitsuenei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, emakumeen artean kausa nagusiak hauek izan ziren, 2008. urtean: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikietako tumore gaiztoak; gaixotasun zerebro-baskularrak; suizidioak eta autolesioak; zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak; eta koloneko tumore gaiztoak. Gizonen kasuan, hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta birikietako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta autolesioak; motordun ibilgailuekin trafiko istripuak; zirrosiak eta gibeleko gaixotasun kronikoak; gaixotasun zerebro-baskularrak; eta istripuz lurrera erortzea.

[17] IMSERSOren adinekoei buruzko 2008ko inkestaren arabera, estatuko adineko pertsonen %11k gizarte boluntariotzako lanak egin ohi ditu, eta ia %30ak esaten du prest legokeela horrelako lanak egiteko.

– EUSTATen datuen arabera, 1981. urtetik 2007. urtera arte HIESeko 5.475 kasu diagnostikatu dira EAEn eta 3.087 pertsona hil dira. Kasu berrien kopurua gutxitu egin da, HIESaren aurkako borrokan egin diren aurrerapenei esker. 2007. urtean zehar EAEn 75 kasu diagnostikatu ziren. Transmisio biderik ohikoena droga erabiltzaile izatea da (%71,4). Babesik gabeko harreman heterosexualen bidezko transmisioa %14,5ekoa da. Estatuan, HIES Kasuen Erregistro Nazionala datuen iturri gisa erabiltzen badugu, kasuak transmisio-mekanismoaren arabera sailka ditzakegu. Horrela, ikusiko dugu, ratioak apur bat ezberdinak badira ere, drogak bide parenteraletik hartzea transmisioaren bide nagusia dela, bai emakumeetan bai gizonetan, bai EAEn bai estatuan.
– Erikortasunari dagokionez (hau da, gaixotasun batek populazio batean dauzkan ondorioen azterketa, hots, leku eta denboraldi jakin batean gaixotzen diren pertsonen proportzioa), ospitaleratzeko kausa nagusiak zirkulazio apartuaren gaixotasunak izan ziren (kardiobaskularrak), ospitaleratze guztien %11,9arekin, baita nerbio-sistemaren eta zentzumenen organoen gaixotasunak ere (%11,4), 2007. urtetik %16,7ko gehikuntza izan dutenak, posizio bat aurreratuz, eta digestio-aparatuarenak (%11,1) hirugarren lekuan jarriz. Haurdunaldiagatik eta erditzeagatik, ospitaleratzen diren emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da: %51,7 eta %48,3 hurrenez hurren. Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak gizonak ospitaleratzeko kausa nagusia izan ziren, ondoren digestio-sistemarenak. Kausa horiek, ordea, hirugarrena eta bosgarrena izan ziren emakumeen artean, haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren ondoren, eta nerbio-sistemaren eta zentzumenen organoen gaixotasunen ondoren.
– *2007ko EAEko Osasunaren Inkestaren* datuen arabera, biztanleriaren %43,7ak alkoholdun edariak edan ohi ditu (kontsumo moderatua, kontsumo handia edo gehiegizko kontsumoa): gizonen %58,7ak eta emakumeen %29,5ak. Datu hauek 2002koekin alderatuz gero, ondorioztatzen dugu gizonen artean kontsumoa murriztu dela eta emakumeen artean egonkortu dela. Bestalde, biztanleen %25ak erre ohi du: gizonen %29,1ak eta emakumeen %21,1ak. Datu hauek eta 2002koak alderatuz gero, ondorioztatzen dugu tabakismoak behera egin duela, gizonen artean kontsumoa murriztu delako, emakumeen artean egonkortu baita. Adin-taldeetan, deigarria da tabakismoa emakume gazteenen artean (16 eta 24 urte artean) gizon gazteenen artean baino handiagoa dela (%25,5 eta %22,9 hurrenez hurren).

Laguntza jarduerari dagokionez, ospitalekoa edo ospitalez kanpokoa izan daitekeena (publikoa nahiz pribatua), baliabideen eta langileen adierazleei buruz argitaratutako azken datuek ondokoa erakusten dute:

– EAEn, 100.000 biztanleko dauden doktore eta psikiatra kopurua Europako beste herrialde batzuetan dagoena baino handiagoa da (EUROSTATen datuak).
– Ospitaleetako ohe kopuruak, EB-n nahiz EAEn, beheranzko joera dauka. Murrizpen honen arrazoietako bat batez besteko egonaldien murrizpena izan omen da. Zehazki, EUSTATek emandako datuen arabera, aurrerago azalduko ditugunak, 2006 eta 2007. urteen artean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 334,1etik 330,2ra igaro da. EAEn, 380,9tik 378,9ra. EUSTATen datuek joera bera daukate.
– 100.000 biztanleko dentista kopuruak gora egin du, salbuespenak salbuespen. Adierazlea, EAEn, estatuan dagoena baino handiagoa da (71 eta 56,7 hurrenez hurren, 2008an), baina EB-ko zenbait herrialdetan erregistratutakoa baino txikiagoa (EUROSTATen datuak).
– 100.000 biztanleko dauden erizain eta emagin kopuruari dagokionez, azken urteetan etengabeko hazkundea ikusi da. Datua estatuan erregistratutakoa baino handiagoa da (1.094,1 eta 815,8, 2008an), baina erreferentetzat jo ditzakegun Europako herrialde batzuetan erregistratutakoa baino txikiagoa: Danimarka, Luxenburgo, Holanda, Islandia, Norvegia edo Suitza (EUROSTATen datuak).

Ospitalez kanpoko jarduera publikoari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, aldagaiek orain urte batzuk hasi zen goranzko pauta mantentzen dute.

– Ospitalez kanpoko 467 zentro publikoek, 2007an, 13,8 milioi kontsulta eman zituzten, aurreko urtean baino %3,2 gehiago. Gehikuntza hori enpleguaren gehikuntza baino txikiagoa da, %1,2 2006 eta 2007. urteen artean.
– Mediku kopuruaren gehikuntzak ekarri du mediku bakoitzeko biztanle kopurua medikuntza orokorrean murriztea (mediku bakoitzeko 1.413 biztanle egotetik 1.397 biztanle egotera) baina ez pediatrian (834 biztanletik 844 biztanlera igo da). Hau da, aurreko urtean pediatrian atzemandako joera errepikatu da, orduan pediatra bakoitzeko biztanle kopurua 814tik 834ra igo zenean.
– Mediku bakoitzeko kontsulta kopurua, batez bestez, 4.974 izan zen 2007. urtean. Mediku orokorrek kopuru hori gainditu zuten, 6.345 kontsulta eman baitzituzten, eta pediatrek 5.456. Gainerako medikuetan, portzentajea txikiagoa da: dermatologoak (4.287), traumatologoak (3.939), endokrinoak (3.760) eta oftalmologoak (3.469).
– Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,4 izan zen batez bestez. Horrek esan nahi du aurreko urtearen aldean igoera txiki bat egon dela. Hazkunde horren arrazoia da medikuntza orokorreko kontsultek gora egin zutela (6,4tik 6,5era), pediatrian kopurua egonkorra baita (14 urtetik beherakoak batez bestez 6,5 aldiz joan ziren osasun zentrora pediatrarengana).

Ospitaleko jarduera (publikoa eta pribatua) honela erakusten dute EUSTATen datuek:

– Baliabideen gaian (ospitaleak, oheak, inkubagailuak, kirofanoak, erditze gelak, kanpoko kontsulta gelak eta langileria), 2007 eta 2008. urteen artean, sektore publikoan, aldagai guztiak gehitu ziren, ohe kopurua izan ezik (murriztu ziren) eta ospitaleen eta erditze gelen kopurua izan ezik (egonkor mantendu ziren). Bestalde, sektore pribatuan kirofano kopurua murriztu zen, ospitale eta inkubagailu kopurua egonkor mantendu zen, eta gainerako aldagaiak gehitu ziren.
– 100 ohe bakoitzeko mediku kopuruak gora egiten segitzen du ospitale publikoetan eta pribatuetan. 2008. urtean 52,8 mediku zeuden 100 ohe bakoitzeko ospitale publikoetan; pribatuetan, 24,2. Era berean, 100 ohe bakoitzeko erizain gehiago daude urte honetan, sare publikoan nahiz pribatuan.
– 1.000 biztanleko ohe kopuruak apur bat jaitsi zen, 3,8raino.

OSAKIDETZAren ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardunari dagokionez:

– Batez besteko okupazio orokorreko indizea, aurreko urtean erregistratu zen abaguneko gehikuntzaren ondoren, 2008an berriro jaitsi zen. Zehazki ehuneko 2,6 puntu jaitsi zen 2007an erregistratutakoaren aldean, eta %81,8an jarri zen; aurreko urtean %84,4 izan zen. %100a gainditu zen eta, horrenbestez, batezbestekoaren gainetik, ondoko espezialitateak daude: digestiboa (%112,7, 2007an baino gehiago), barne medikuntza (%108,4, aurreko urtetik 10,2 puntu jaitsiz) eta neumologia (%108,3, 2007tik 37,6 puntu jaitsiz). %100aren azpitik, baina batez bestekoaren gainetik halere, ondoko hauek daude: urologia (%82,5), neurologia (%82,6), errehabilitazioa eta zainketa aringarriak (biak %91,2), hematologia (%92,1) eta kardiologia (%93,4).
– Batez besteko egonaldia berriro jaitsi da: 6,3 egunetatik 5,1 egunetara. Batez bestekoaren oso gainetik errehabilitazioa (30,6), zaintza aringarriak (17,8), psikiatria (13,9), hematologia (10,4) eta barne-medikuntza (8,9) daude. Halere, guztiak jaitsi dira aurreko urtetik.

1.11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren *"Higiezin Eskaintzaren Inkestaren"* datuek adierazten dute azken urtean etxebizitzen eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %3 igo dela (aurreko urtean %21,4), laugarren hiruhilekoan 27.560 etxebizitzetara iritsi arte. Beraz, eskaintza gehitzeko joera, 2004. urtean hasia, eten egin da, ezaugarri hauekin:

– Etxebizitza libre eraiki berri salgaien eskaintza %3,4 gehitu zen, eta batez besteko prezioa, 2009ko laugarren hiruhilekoan, 4.033 €/m² zen, hau da, 2008ko batezbestekoa baino %0,5 gutxiago. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batezbestekoa txikiagoa da (3.466 €/m²), Bizkaian 4.035 €/m² eta Gipuzkoan 4.373 €/m².
– Saltzeko eskainitako BOEen batez besteko prezioa 1.469 €/m² zen 2009an, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. Kontuan izan behar dugu 2007ko datuen arabera lau etxebizitzatatik ia hiruk (%72) 90.000 eta 120.000 euro arteko prezioa zeukatela. Gainerakoetan, %17 90.000 eurotatik behera zegoen, eta %11 120.000 eurotik gora, baina 150.000 eurotara iritsi gabe.
– Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stockean %4,9ko gehikuntza dago eta haien batez besteko prezioa 2009an 3.779 €/m² zen, aurreko urteko batezbestekoa baino %10 gutxiago. Lurraldeka, prezioen beherakada nagusia Bizkaian izan da[18] (-%18,5). Araban eta Gipuzkoan ere tasa negatiboak izan dira, baina batez besteko gutxipena baino txikiagoak (-%1,1 eta -2,5 hurrenez hurren). Termino absolutuetan, Arabako batezbestekoa 3.550 €/m² da, Bizkaian 3.582 €/m² eta Gipuzkoan 4.686 €/m².
– Alokairuan eskainitako 3.380 etxebizitzako eskaintza dago, aurreko urtean baino %12,7 gehiago. Etxebizitza libreen zatia %65,8 gehitu da, 603 etxebizitzetatik 1.000 etxebizitzetara. Alokairuko etxebizitza babestua, ordea, %0,6 jaitsi da. Horrenbestez, babestutako alokairua 2008an %80 izatetik 2009an %70,4 izatera igaro da; beraz, alokairuko eskaintzaren presentzian ia 10 puntu galdu ditu.
– EAEko alokairuko babestutako etxebizitzen batez besteko errenta, 2009an, 219,8 euro zen hilean, aurreko urtean baino %6 gutxiago. BOEaren modalitateak 2008an (ez daukagu informazio xehakatu berriagorik) 380,3 euroko prezioa zuen hilean; etxebizitza sozialek, berriz 118 euro hilean, batez bestez.
– Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 2009an hilean 875,3 euroko batez besteko errenta izan zuen, aurreko urtean baino %9,7 gutxiago. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (941,1 € hilean); gero Bizkaiak, 881 € hilean eta azkenik Arabak (836,7 € hilean).

Bestalde, EAEn hasitako etxebizitzen kopuru osoa, 2008an %32,9 erori ondoren, berriro ere %43,4 murriztu zen 2009an. Guztira 7.051 etxebizitza hasi dira; haietatik 3.855 libreak dira (%54,7) eta 3.196 babestuak (%45,3). Azken horietatik 2.939 BOE dira (-%38,7, 2008tik) eta 91 gizarte etxebizitzak dira (-%89,3).

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana abian jarri zenetik, babestutako etxebizitzaren merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hasi dela 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik tasatutako etxebizitza autonomikoak. Denbora horretan, guztira 589 dotazio alojamendu eraikitzen hasi da, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta 1.602 jabetzarako, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren 37 etxebizitza tasatu.

Bestalde, EAEn 2009an amaitutako etxebizitzak 13.454 dira, aurreko urtean baino %4,5 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren

(-%3,3) eta babestutakoen beherakadaren (-%6,6) ondorioz.

1.12. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin "*Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkesta*" (PGEI) egiten du. Inkesta horri esker, pobreziak gure gizartean daukan eragina, gizartean eragiten duten arrisku-faktoreak eta pobreziaren banaketa geografiko ezberdina ezagutu

[18] Eusko Jaurlaritzak, gainera, ohartarazi du estatistika honetarako emandako prezioak eskaintzaileei eskatutako prezioak direla eta, gehienetan, salerosketa egiteko unean murriztu egiten direla.

ahal ditugu. Aztertu diren gabezia guztiei batera erreparatuz gero, 2008ko Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestak uste du EAEko 39.737 familia (guztien %5) daudela 2008. urtean arrisku-egoeretako batean (mantentzea edo pilatzea). Kaltetutako pertsonak, guztira 100.250, biztanleria osoaren %4,7 dira.

Interes berezia duten gauzetako bat pobrezi eta prekariotasun arazoen prebentzioan gizarte transferentziek daukaten eragina da. PGElaren datu batzuei esker, hobeto ulertzen da transferentzia hauek erabateko ongizate egoerak lortzearekin zerikusia duten pobreziaren eta prekariotasun arazoen aurkako borrokan daukaten garrantzi handia:

– Transferentziek mantentze dimentsioan[19] da daukaten eragina kontuan izanik, datuek erakusten dute transferentziarik ez balego (ez pentsiorik ez gizarte politika osagarririk) pobreziako eta ongizate ezeko arrisku tasak 16 puntu inguru murriztuko liratekeela, lehenik eta behin, erretiro eta biziraupen pentsioen politikaren ondorio positibo gisa. Horrela, ongizate ezeko arriskua %36,9tik %20,3ra jaitsi da, eta pobrezi arriskua, %24,7tik %8,5era.
– Jaitsiera honi bigarren beherakada bat erantsi behar zaio, 4,5 eta 5,5 puntu artekoa, gizarte politika osagarrien (langabeziaren aurkako ekintza barne) esparruan garatutako transferentzien kudeaketari dagokiona. Gizarte transferentzien politikari esker, ongizate ezaren arriskua %20,3tik (erretiro eta biziraupen pentsioak bakarrik edukiz gero portzentajea horixe izango baitzen) %14,6ra murriztu da, 2008an ikusi zenez. Pobrezi arriskua, berriz, %8,5etik %4,1era murriztu da. Guztira, gizarte politika guztiek ekarri duten beherakada 20 eta 22 puntu artekoa da.

Gizarte transferentzien aplikazioaren bidez, beraz, mantentze pobreziaren tasa %83,3 murriztu da beren diru-sarrerak bakarrik eskuratuko lituzketen familien kasuan. Jaitsieraren %65,7 erretiratze eta biziraupen pentsioei dagokie, eta %17,7 gainerako gizarte transferentziei. Murrizpena %60,6koa da ongizate ezari dagokionez. Kasu honetan, beherakadaren %45,1 pentsioen sistema orokorraren ondorio da, eta %15,5 gainerako gizarte prestazio laguntzen ondorio.

Adierazle horiek bazterketaren aurkako borrokan gizarte transferentziek EAEn duten papera eta Europan gertatzen dena erkatzea ahalbideratzen dute: EUROSTATen "*Errenta eta Bizi Baldintzei buruzko Inkestan*" gizarte politika osagarrien aurretik eta ondoren dagoen ongizate ezaren arriskua aztertzen du. 2008an, EB-an, gizarte politika osagarriei esker, gizarte ongizate ezaren ratioa[20] %25 izatetik %17 izatera igaro da. Beraz, 8 puntu murriztu da (EAEn jaitsiera 20 eta 22 puntu artekoa da). Jaitsiera hau batez ere Estonian, Suedian eta Danimarkan da garrantzitsua (tasak 16 eta 18 puntu bitartean jaitsi dira). Grezia, Italia eta Espainian da txikien jaitsiera hau, ehuneko 3 eta 4 puntu bitarteko jaitsierekin.

Aipatutako gaian sakontzeko, PGElak honela definitzen du pobrezia potentzialeko arrisku kolektibotzat: pilaketa-pobreziako egoeran bizi diren pertsonak[21] eta mantentze pobreziaren arriskuan dauden pertsonak biltzen ditu. Kolektibo hau EAEko biztanleriaren %8,8 da 2008an.

Pobrezia potentzialeko arrisku kolektibo honen analisiak erakusten du beraren %37,7 gai dela bere baliabideekin pobreziaren bi dimentsioetako batean dauzkan gabeziak konpentsatzeko, gizarte laguntzako prestazioetara jo beharrik gabe. %26,2a, era berean, pobreziatik irteteko gai da, baina kasu honetan bakarrik gizarte laguntzako prestazioen eta laguntzen bidez. Beste %24,1 pobrezia errealeko egoeran mantentzen da, laguntza horiek eskuratu arren. Azkenik, pertsonen %12 pobrezia errealeko egoeran dauden familietan bizi dira, gizarte laguntzako prestaziorik gabe.

---

[19] PGElaren mantentze dimentsioan, pobrezi arriskuko egoera oinarrizko beharrizanak (janaria, etxebizitza, arropa eta oinetakoak) ordaintzeko txikiegiak izan litezkeen diru-sarrerak edukitzea da. Ongizate eza, berriz, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate eta erosotasun mailei eusteko behar diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez edukitzea da.

[20] Kontsumo unitate bakoitzeko diru-sarreren banaketaren medianaren %60tik beherako errenta.

[21] Pilaketa-pobrezia honela definitzen da: familiek epe luzean bizitza maila egokia mantentzeko behar diren kontsumo iraunkorreko oinarrizko ondasunak (etxebizitza esate baterako) eskuratzeko eta oinarrizko ondare-baliabideak pilatzeko daukaten gaitasun eza.

PGElak azaltzen du, ordea, gure erkidegoan arreta ematen ez zaien pobrezia errealeko problematikarik gehienak kolektibo txiki batenak direla, pobrezia errealeko egoeran dauden arren prestazio sisteman sartzen ez dena. Arreta ematen ez zaien pertsonen zati handi bat, %92, ondoko pertsona mota hauen mende dauden familietako kide dira: Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako pertsonak (%25,5), 65 urtetik gorako pertsonak (%23,2), famili talde baten erantzule diren 45 urtetik beherako pertsonak (%17,1), 65 urtetik behera duten eta bakarrik dauden pertsonak (%14,2) eta guraso bakarreko emakumeak (%11,9).

1.13. GIZARTE BABESA

2009an, langabezi prestazioak jasotzen zituzten pertsonen batez besteko kopurua EAEn 78.400 zen, aurreko urtean baino %51,1 gehiago. Prestazioa jasotzen duten pertsonen kolektiboa igo den bederatzigarren urtea da segidan, 90eko hamarkadan nabarmen murriztu ondoren. Estatuan, jasotzaileen kolektiboa apur bat gutxiago gehitu da: %47,8. Jasotzen duten 78.400 pertsonen %52,5 Bizkaian bizi da, %32,1 Gipuzkoan eta %15,5 Araban.

Pertsona jasotzaileen hilez hileko eboluzioari erreparatuz gero, irailean jaitsiera bat ikus dezakegu (2008an bezala), eta urteko azken hileetan berriro gehitzen da, abenduan 85.600 jasotzailetaraino iritsi arte, 2008ko abenduan baino %33,1 gehiago.

Abenduko datuekin ere, jasotzaileen %66a ordaindutakoaren araberako prestazioen jasotzaile ziren, %32,5a sorospenen jasotzaile eta %1,5 gizarteratzeko errenta aktiboaren jasotzaile. Guztira 85.630 jasotzaile izanik, estaldura tasa (SPEEn erregistratutako langabeak kontuan izanik) EAEko langabetuen kolektiboaren %66,8 zen (2008ko abenduan %63,9), estatuko batez besteko estaldura %77,35 izanik. Lurralde historikoen arabera, estaldurarik handiena Gipuzkoari dagokio (%72,18).

Datu horiek kontuan izanik esan genezake 2009ko abenduan EAEko 100 langabetutatik 33k ez zutela inolako prestaziorik jasotzen eta zerbait jasotzen zuten 67etatik 44k ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen zutela, 22k sorospena eta bakar batek gizarteratzeko errenta aktiboa.

EAEn Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokienez, 2008an (informazio berriagorik ez baitaukagu), guztira 490.851 pertsonak jaso zituzten sistemaren pentsioak, 2007an baino %1,5 gehiago. Azken urteetan gertatu izan den bezala, gehikuntza horren arrazoia ordaindutakoaren araberako pentsioen onuradunen kolektiboaren bilakaera da (%+1,6), gainerako modalitateetan, intentsitateak ezberdinak izan diren arren, jasotzaileen kolektiboa murrizteko joera baitago. Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea 2007an %22,7 zen eta 2008an %22,9.

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioen zenbateko osoa ia 45 milioi eurokoa da; horrek esan nahi du %5,9 gehitu dela. Abenduan jasotako hileko batez besteko zenbatekoa, ordea, %7 gehitu da ezintasun modalitatean eta %8,4 erretiratze modalitatean, 2007ko abenduaren aldean. Azkenik, laguntzako pentsioen gastua, azken urteetan zenbatekoa aldatu gabe mantendu dena, %7,4 murriztu da, eta jasotzaileen kopurua beste urte batez jaitsi da, baina 2007an baino gutxiago (-%3,6; 2007an -%8,4 jaitsi zen). LISMI sorospenek, berriz, onuradun kopurua %10,4 murriztu dute eta zenbateko osoa %8.

Ordaindutakoaren araberako pentsioen batez besteko zenbatekoa 2008an %6,6 gehitu zen eta guztira 6.045 milioi euro izan ziren, 2007an baino %6,1 gehiago. Era berean, 2009an, batez besteko zenbatekoa %4,5 gehitu zen, 938,44 eurotaraino, eta guztira 6.406 milioiko gastua ekarri zuten (%6).

Erretiratze pentsioei dagokionez (Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberako pentsioak jasotzen dituzten pertsonen %61ak jasotzen dituztenak), esan behar dugu 2009an haien batez besteko zenbatekoa 1.069,50 euro zela hilean, 2008an baino %4,5 gehiago. Urte horretako batez besteko zenbatekoa (1.023,70 euro) EAEko lan-kostuaren “soldatak” osagaiaren hileko batez besteko zenbatekoaren %48,6 zen. Lan-kostu hori INEak kalkulatzen du, Lan Kostuaren Urteko Inkestaren bidez. Osagai hori, hilean 2.107,39 euro dena,

gure erkidegoko 2008ko batez besteko soldataren hurbilketa dela esan dezakegu (datu berriagorik ez daukagu).

Guztira, EAEko pentsioen gastu osoa 2008an, behin-behineko hurbilketa egiten badugu, 6.093 milioi euro izan zen, 2007tik %6,1eko gehikuntzarekin; horrela, BPGaren gaineko portzentajea gehitu da, 2007ko %8,71tik %8,80ra.

Bestalde, Sarreren Bermeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Sarreren Berme Errenta deritzona da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean oinarrituta sortu zena. 2009an 55.410 familiak jaso zuten, aurreko urtean baino %39,5 gehiago. Sarreren Berme Errenta gisa ordaindutako zenbateko osoa 262,72 milioi euro da (2008an baino %33,2 gehiago). Bizikidetza unitate bakoitzeko ematen den batez besteko zenbatekoa 475 euro da hilean, hau da, 2009rako finkatu zen lanbide arteko gutxieneko soldataren %65,2 (aparteko ordainketak lainduta). Ratio hori 6,5 puntu murriztu da aurreko urtetik.

Eusko Jaurlaritzak txosten bat egin du, Gizarte Ongizatearen diru-sarreren bermeko prestazioen eragina EAEn eta Espainian erkatzen dituena. Nabarmendu du sarrerak bermatzeko euskal eredua salbuespena dela estatuan, bai estaldura handia duelako (2009an famili unitateen %7,5), bai sarreren osagarrien politikarekin duen loturagatik. Zati batez, politika hau, batez ere 2008ko erreformaren ostean, pentsiodunen kolektiboari zuzenduta dago. Baina funtsezko dimentsioetako beste bat soldata txikien mende dauden bizikidetza unitateei laguntza ematea da, arrisku kolektiboak lana lortzera bultzatzeko asmoz, prestazioen eta sorospenen mendetasunaren alternatiba den aldetik.

Horrela, lan honek azpimarratzen du gutxieneko errenta autonomikoen orokortzeak 90eko hamarkadan desberdintasun handia erakusten duela programa hauen eraginean. 2009ko lehenengo seihilekoan, estatuko Sarreren Berme Errentaren titularren %38,4a EAEn dago, eta programa hauekin zerikusia duen gastuaren %40,2 EAEn egiten da, nahiz eta EAEn pobrezi arriskuan dauden espainiarren %2,4 bakarrik bizi.

Ezberdintasun horien ondorioz, EAEn pobrezi arriskuan dauden familietan gastu mailen artean ezberdintasun handiak daude: adierazle hori, EAEn 374 eurokoa da hilean batez bestez; estatuan berriz, 22 euro baino ez. EAEko mailetara hurbiltzen den erkidego bakarra Nafarroa da; familia bakoitzeko batez besteko gastua 238 eurokoa da. Askozaz ere beherago Asturias dago, 67 eurorekin. Gainerako erkidegoek gehienez 35 euroko gastua daukate arriskuan dagoen familia bakoitzeko (hor Madrilgo Komunitatea eta Katalunia ere sartzen ditugu, familia bakoitzeko 17 eta 27 euroko gastuarekin hurrenez hurren).

Txostenak erakusten duenez, Sarreren Berme Errentaren, gizarte larrialdiko laguntzen eta etxebizitzarako prestazio osgarriaren[22] baturari esker EAEn sistemaren onuradunak beharrizanaren mugetatik hurbil daude baina gainerako autonomi erkidegoekin ez da berdin gertatzen. Daturik azpimarragarriena da Espainian biztanle gehien eta BPG bolumen gehien dauzkaten bi erkidegoetarako (Madril eta Katalunia) zenbatekoak oso txikiak direla: EAEn 2009an pertsona bakar batentzat ezarri ziren bermeko 640,64 euroen aurrean, Katalunian kopurua 410,02 eurokoa da, eta Madrilen 370 euro.

Bestalde, 2009an 38.018 pertsonek jaso zuten gizarte larrialdiko laguntza, aurreko urtean baino %39,3 gehiagok. Haietatik 22.300 Bizkaian bizi dira (guztien %58,7), 9.198 Gipuzkoan (%24,2) eta 6.520 Araban (%17,1). 2009. urtean Euskal Autonomi Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kontura laguntza horietarako bideratu zen diru-zenbatekoa 54,5 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %43,4 gehiago. Onuradun bakoitzeko urtean batez bestez ordaindu zen zenbatekoa 1.434 1.392 euro izan zen, 2008an baino %3 gehiago.

[22] Etxebizitzarako prestazio osgarria arautzen duen dekretua 2010eko urtarrilean argitaratu da. Beraz, memoria honek prestazio horri buruzko informazioa (jaso dezaketen pertsonak, zenbatekoak eta abar) hurrengo ediziotik aurrera jasoko du.

2
Gogoetak

2.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA

Familia funtsezko instituzioa da gizartean, betetzen dituen funtzioen garrantzia kontuan izanik. Funtzio horietako bat norbanakoa gizarteratzea da, familiak portaera, tradizio, ohitura eta sinesmenak transmititzen baitizkio. Instituzio hau aldaketa sozialaren mende dago, eta azken mende honetan aldaketa handiak pairatu ditu. Haien artean, gurasoen artean funtzioak gero eta gehiago uniformizatzea eta familia nuklearraren kideen kopurua murriztea daude, famili eredu ezberdinen agerpenarekin batera. Gaur egun, sexuen arabera funtzioak banatzen dituen familia tradizionala eraldaketa prozesuan dago. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak gainditzen ari dira eta egoera orekatuagoak lortzen ari dira, emakumeak baztertzen diren egoerak zuzenduz.

EAEko familien ezaugarriei dagokienez, *"Analisi demografikoa eta etxebizitza merkatuaren eboluzioa epe luzean EAEn"* izeneko azterlanean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2009an egina (EUSTATen 2020rako biztanleri proiekzioetan oinarritu zena), kalkulatzen du familien kopurua modu moderatuan gehitu ahal dela 2020. urtera arte. 2010 eta 2020. urteen arteko aldakuntza garbia 42.000 eta 50.000 familia artekoa izango dela kalkulatu da. Hazkuntza hori intentsuagoa izango da 2011 eta 2015. urteen artean, 2016 eta 2020. urteen artean baino. Era berean, kalkulatzen da famili unitatearen tamainak murrizten jarraituko duela; 2020. urterako 2,57 eta 2,62 kide bitartekoa izango omen da. Era berean, azterlanak atzeman du erreferentziazko pertsona emakume bat duten familiak areagotuko direla. Era berean, familia gazte berriak (20 eta 39 urte bitartean) sortzeko erritmoa motelduko da. Bestalde, familia helduen eta adineko familien kopurua gehituko da.

Azken urteetan, familiaren instituzioak izan dituen eraldaketak eta emankortasun tasetan izan duten eragina oso interesgarri suertatu dira jendearentzat, ekarri dituzten ondorioengatik. Umeak izateko adina eta lanean hasteko eta lanean gora egiteko adina bat datoz emakume gazteetan; horregatik, seme-alabak izateko erabakia oso zaila da haientzat. Egoera horren ondorioz arazo berriak sortu dira bizikidetza unitateen barruan, ordaindutako lana eta famili zaintza bateratu beharrari dagokionez.

EUSTATen *"Bizi Kalitateari buruzko Europako II. Inkestak"* (2007) erakutsi zuen Europar Batasuneko langileen %48 nekatuegi daudela lanetik itzultzean etxeko lanak egiteko gutxienez hilean zenbait aldiz. Haien ia laurden bat horrela sentitzen dira astean behin baino gehiagotan. Era berean, %29ak arazoak dauzka famili erantzukizunak betetzeko, bere lanaren ondorioz, eta %12ak adierazten du zailtasunak dauzkala lanean kontzentratzeko, famili erantzukizunak direla-eta.

Egoera horiek arintzeko, Eusko Jaurlaritzak 2002. urtetik aurrera *Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko planak* abiatu zituen, familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea galarazten dieten oztopo ekonomiko eta sozio-laboralak gainditzeko. Era berean, 2008an Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen. Lege honen helburu nagusia esparruari lerrun juridiko handiagoa ematea eta famili politika integralerako oinarriak jartzea zen, familien eta beraien kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. Seme-alabak izateagatik edo adoptatzeagatik eta familiako eta laneko bizitzak uztartzeko zuzeneko laguntzak 2002. urtean hasi ziren. Harrez geroztik eta 2009. urtera arte, laguntza hauen gastu orokorra 260,65 milioi euro igo da. Haietatik 136,65 milioi jaiotzagatik, adoptatzeagatik edo adopzioaren aurreko harreragatik emandako zuzeneko laguntzak dira. Gainerako 124 milioi euroak lana eta familia uztartzeko laguntzetarako dira.

Kontseilu honek uste du krisialdietan, gaur egun bizi dugunaren modukoetan, funtsezkoa dela familiari babes publikoa ematen jarraitzea eta babes horretan aurrera egitea. Uste dugu familiaren eta umeen aldeko politika egokia ezinbesteko tresna dela gizarte berdintasunezkoago bat lortzeko; gainera, gizarte hori produktiboagoa izango da.

Bestalde, nazioarteko migrazioak nazioarteko politika eta garapen agendako funtsezko gaietako bat dira. Gizarte eta ekonomia globalen egungo etaparen ezaugarri bat dira. Inguruko beste gizarte batzuen mailetara iritsi ez garen arren, gure erkidegoan atzerriko inmigrazioa nabarmen gehitu da azken urteetan, lurraldea ezaugarri garrantzitsua duen dibertsitate panorama bat sortuz. Hain zuzen ere, epe laburreko inmigrazio masi-

boak ekonomiaren eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, jendea zahartzeko joera etenez eta belaunaldiak berriztatzea erraztuz, baita gizarte portaera berriak sortuz ere.

Lan merkatuarekin duen zerikusiari dagokionez, Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak (SPEE) gure erkidegoan 2009ko abenduan lana eskatzen zuten 13.939 atzerritar erregistratu zituen. Pertsona horiek lan eskatzaile guztien %10,9 ziren (estatu osoan, %14,4). Kopuru hori %39,3 gehitu zen 2008ko abenduaz geroztik (izena emandako pertsona guztientzat %27,4ko gehikuntza zegoen). Haien %72,8a EB-tik kanpokoak dira. Gainera, gure erkidegora azken urteetan atzerritarrak etortzearen ondorioz eta mugimendu horien arrazoia batez ere ekonomikoa izatearen ondorioz, lana eskatzen duten atzerritarren pisua azken urteetan etengabe gehitu da (2006an %5,4, 2007an %6,8, 2008an %9,9). Era berean, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) 2009ko laugarren hiruhilekoan 11.985 atzerritar erregistratu ditu lan eskatzaile gisa, aurreko urtean baino %39,4 gehiago, eta izena eman duten guztien %17,9 (2008ko laugarren hiruhilekoan %16,7 ziren).

Gure erkidegoan dauden etorkinen artean, Gizarte Segurantzako afiliazio datuek erakusten dute lan merkatuan daudela. 2009ko abenduaren 31n, EAEn 49.412 etorkin zeuden Gizarte Segurantzan afiliaturik, aurreko urtean baino %0,3 gutxiago. Urteetako batezbestekoak kontuan izanez gero, 2009koa, 50.404, 2008koa baino %3 txikiagoa da eta EAEko afiliatu guztien %5,4, hau da, aurreko urteko ratio bera, gure erkidegoan Gizarte Segurantzan alta hartutako pertsonen kopurua ere murriztu baita (-%3,4).

Ikuspegiren 2009ko ekaineko Barometroaren arabera, EAEko biztanleek ez dute inmigrazioa arazotzat hartzen. %2,7ak bakarrik aipatzen du modu espontaneoan EAEko arazo nagusi gisa. Gainera, hiru erantzun espontaneoen multzoan, inkesta egin dutenen %12,9ak bakarrik aipatzen du arazo gisa, beste fenomeno batzuk baino askozaz ere pertsona gutxiagok: langabezia (%82,2), terrorismoa (%38,7), etxebizitza (%29,2), arazo ekonomikoak (%28,5) eta herritarren segurtasunaren arazoak (%14,3).

Inmigrazioak EAEko ekonomian duen eraginari dagokionez, aurreko urteetan bezala, euskal gizartea ez dator bat inmigrazioak gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboen inguruan, eta 0 eta 10 arteko eskalan batez besteko puntuazioa 4,95 da (2008an 4,89 eta 2007an 5,00). Era berean, intentsitate txikiagoarekin bada ere, onartzen da atzerritarrei esker ekonomia hobeto dabilela (ehuneko -7,6 puntu 2008ko datuaren aldean) eta hemengoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztela (-9 puntu); baina ondorio negatiboak dituzte soldatetan (+6,5 puntu) eta gizarteko sektorerik ahulenetan kaltea sortzen dute (+10,2 puntu).

Herritarrek inmigrazioaren fenomenoaren aurrean duten jarrerari dagokionez, arreta deitu digu Ikuspegik estatu mailan CISen (Ikerketa Soziologikoen Zentroa) inkesten emaitzetan aurkitu duen paradoxak: inmigrazioak "Espainiako arazo" gisa eta "arazo pertsonal" gisa izan duen aipamenik handiena 2006ko irailean izan zen (%59 eta %18 hurrenez hurren); harrezkero beherantz joan da aipamena, eta azken aldian joera beheranzkoa da, krisialdia gorabehera. Beraz, haren une gorena ez dator bat jarreren daturik negatiboenekin, espero litekeen bezala. Egoera horren aurrean Inmigrazioaren Euskal Behatokiak bi interpretazio eskaintzen ditu: inmigrazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak beti ez daude, uste dugun bezala, egoera ekonomikoaren mende modu kategoriko batean, edo langabeziak arazo gisa hartu duen protagonismoa oso handia dela eta beste arazo batzuen garrantzia gutxitzen edo ezkutatzen duela.

2.2. HEZKUNTZA

Nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastu arrunta 2008an gehitu zela, baina 2007an baino gutxiago: %+7,7 eta %+12,3 hurrenez hurren. Ikasle bakoitzeko gastua 5.477 eurotik 5.353 eurora murriztu da, ikasle kopurua gastua baino proportzio handiagoan gehitu delako.

Aipatu dezagun, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2007koak, hezkuntza administrazioen gastua BPGaren aldean %3,62

dela EAEn (%2,98 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,57 unibertsitateko hezkuntzan) eta %3,85 estatuan (%2,84 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,88 unibertsitateko hezkuntzan).

EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioan bilakaera positiboa ikus dezakegu, EUSTATen 2009-10eko datuen aurrerapenaren arabera matrikulazioa %1,7 gehitu baita, bai beheko mailetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH), bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan.

Azpimarragarria da LH-ko matrikulazioan izandako gehikuntza. Horrela, EAEn irakaskuntza ertaina ikasten duten ikasleen %49,1ak LH aukeratzen du derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren (goranzko joerarekin gainera); %50,9a batxilergoan matrikulatzen da eta gainerakoak zereginen ikaskuntzan. Beste modu batean esateko, lan heziketaren eta batxilergoaren banaketa proportzionala %50erantz doala berretsi da, lanbide heziketak ikasleak bereganatu baititu. Aitzitik, emakumeek lanbide heziketan duten parte hartzea txikiagoa da gizonena baino, lanbide familia gehienetan.

Goi mailako hezkuntzako matrikulazioari dagokionez (lehenengo bi zikloetan) agerrarazi nahi dugu, matrikulazioa termino absolutuetan murrizten ari den arren, unibertsitateko populazioak 18 eta 25 urte arteko populazio osoaren artean duen portzentajea gehitu dela eta 2008-09 ikasturtean %31,9ra iritsi dela. Estatuan, bestalde, portzentajea %31,7 da. Bestela esanda, estatuan, unibertsitarioen kopurua, 18 eta 25 urte arteko biztanle guztien artean, EAEn baino pixka bat txikiagoa da, baina eboluzioa goranzkoa da.

Atsegin handiz ikusten dugu goi mailako graduatuen tasa (unibertsitate ikasketak eta goi mailako LH) zientzietan, matematiketan eta teknologian EAEn, MECen datuen arabera, EB-ko herrialde guztietan altuenetako bat dela (25,3 graduatu 20-29 urte arteko mila biztanleko). Seguruenik gure erkidegoan LH teknologikoak daukan garrantziaren ondorioz gertatzen da hori.

Eta pozten gara halaber helduek ikaskuntza iraunkorrean daukaten parte hartzeak, ISEIren datuen arabera, etengabeko aurrerapena izan duelako: 1995. urtean %4,3 zen eta 2007an %13,2. Horrek esan nahi du 2010erako aurreikusitako helburua gainditu dela (lan egiteko adinean dauden pertsonen, hau da, 25-64 urte arteko pertsonen, %12,5). Aitzitik, oraindik ere erreferentziazko herrialdeetan dauden ratioak lortzeko bide luzea dugu egiteko: Suedia %32 (2006ko datua), Danimarka %29,2 (2007an), Erresuma Batua %26,6 (2006an). Finlandia %23,4 (2007an), Holanda %16,6 (2007an) eta Eslovenia %14,6 (2007an).

Hala eta guztiz ere, esan behar dugu, MECen Ebaluazio Institutuaren datuen arabera, bigarren hezkuntzako bigarren etapara gutxienez iritsi diren 25 eta 64 urte arteko pertsonen portzentajea (CINE 3: batxilergoko titulua, gradu ertaineko trebakuntza zikloetako titulua eta titulazio baliokide eta asimilagarriak dituzten pertsonak), 2007. urtean, ELGAko batezbestekoa baino 5,1 puntu beherago dagoela: %62,9 EAEn eta %68 ELGAn (2006ko datua).

Eta berriro ere azpimarratu behar dugu unibertsitateko hirugarren zikloko (doktoretza) matrikulazioa berriro murriztu dela, horrek informazioaren eta jakintzaren gizartean dauzkan ondorioekin.

Oso kezkagarria da hezkuntzaren adierazle batzuek adin tarte goiztiarretan edota hezkuntza maila txikienetan daukaten bilakaera. Eskola behar baino lehen uztearen tasa estatuko txikiena da 2008an, %14,7, (estatuko batezbestekoa: %31,9 2008an); beraz, pentsa dezakegu zaila izango dela EB-ak 2010. urterako ezarritako helburua lortzea, %10 alegia.

Testuinguru honetan egoki deritzogu Hezkuntza eta Kultura Ministerioak 2004-2005 ikasturteko azken hiruhilekoan abiatutako planari: PROA plana (eskola behar baino lehen uztea prebenitzeko Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Plana). Plan horretan lehen eta bigarren hezkuntzako zentroei zuzendutako jarduketa batzuk sartzen dira, *hezkuntzaren emaitzak hobetzeko* helburuarekin, kasu batzuetan *ikasleari zuzeneko eta banakako laguntza* neurriak eskainiz, eta beste batzuetan *zentroan aldaketa globala* eragitea errazten duten baliabideak emanez.

Bestalde, graduazio tasak ikasketa mailaren arabera (DBH, batxilergoa, teknikaria, goi teknikaria, diplomatua, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa; eta lizentziatua, arkitektoa eta ingeniaria) murriztu edo egonkor mantendu dira 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, salbu eta DBHn, diplomatuetan, arkitekto teknikoetan eta ingeniari teknikoetan.

Azaldutakoaren emaitza gisa, berriro ere azpimarratzen dugu adin tarte goiztiarretan edota hezkuntza maila txikienetan formazioa eta kualifikazioa hobetu beharra, gure gizartearen etorkizuna diren neurrian.

Eta amaitzeko, ez-ikusiarena egin behar ez zaion gauza bat azpimarratu behar dugu: adierazle batzuek generoaren ikuspegitik aldatzeko joera erakusten dute, emakumeen tasen eboluzio hobea aldatzen ari dela ematen baitu.

2.3. I+G+B JARDUERAK ETA IKTAK

EUSTAT, EUROSTAT eta INEren datuen arabera, I+G+b adierazle nagusiek EAE estatuko autonomi erkidegorik dinamiko eta berritzaileenen artean jartzen dute, baina oraindik bide luzea dugu egiteko gai honetan erreferentziazkoak diren herrialdeen mailara iritsiko bagara. Hain zuzen ere,

- INEk I+Gn erregistratutako ahalegina EAE EB-27ren batezbestekoaren gainetik jartzen du 2008an (%1,96 batak eta %1,9 besteak), baina erkaketa EUSTATen datuekin egi egiten badugu, ez da gauza bera gertatzen; halere nabaria da haustura murrizteko joera, aipatutako batez besteko balioarekin.
- Pozgarria da I+G jardueretan lan egiten duten langileak gero eta gehiago izatea, eta estatuan eta EB-n erregistratutako balioen gainetik egotea eta gai honetan dinamikoenak diren lurraldeetatik hurbil egotea. DOBen neurtuta, 2008. urtean okupatutako pertsonen ‰ 15era iristen da. Estatuan ‰10,7 da eta EB-an ‰10,4.
- Azken urteetan sektore pribatuak I+G gastuaren finantzazioan pisua galdu duen arren, bera da oraindik ere finantzazio iturri nagusia. Sektore pribatuak I+Gn gastuaren kopuru osoaren %56 finantzatzen du, eta administrazioak %40,3. Ondorioz, EAE Lisboako helburutik 10 puntura dago: I+Garen gastu osoa fondo pribatuekin finantzatzea. I+G gastuaren finantzazio pribatuaren portzentajerik handienak, EUROSTATen arabera, herrialde hauetan daude: Japon (%77,7, 2007ko datua), Luxenburgo (%76, 2007ko datua), Finlandia (%70,3, 2008ko datua), Alemania (%67,9 2007an), AEB (%67,7, 2008ko datua), Suedia (%64, 2007ko datua) eta Danimarka (%61,1 2008an).
- Berrikuntza teknologikorako jardueren gastu osoa %6,6 gehitu da 2007az geroztik. BPGaren %4,1 da.
- 2006-08 denboraldian produktua edo prozesua berriztatu dituzten enpresen portzentajea (9 lanpostutik gorakoak) INEren arabera %6,4 puntu handiagoa da EAEn estatuan baino: %41,2 batean eta %34,8 bestean.
- Europako Berrikuntza Indizearen arabera, EUSTATek egina, EAE ondoko ezaugarri hauetan nabarmentzen da:
  - Zientzietan eta Ingeniaritzetan eta Gizarte Zientzietan eta Humanitateetan lizentziatu diren 20 eta 29 urte arteko gazteen tasa handia du: milako 46,7 (EB-an milako 40,5).
  - Goi mailako hezkuntza (unibertsitatekoa edo goi mailako lanbide heziketakoa) duten 25 eta 64 urte arteko pertsonen portzentaje handia du: %42,2, ia EB-aren (%24,3) bikoitza.
  - Etengabeko prestakuntzako jardueretan parte hartzen duten 25 eta 64 urte arteko pertsonen portzentaje handia du, % 13,5. Europako portzentajea % 9,6 da.
  - Jakintza maila handiko zerbitzu-sektoreetan lan egiten duten pertsonen portzentaje handia du, lanpostu guztien %19 baitira (Europan %14).
  - Enpresak berriztatzeko portzentajea: %12,4, Europako %5,1aren aurrean.
  - Teknologia ertain eta altuaren esportazioak, esportazio guztien %51,5 direnak (EB-an %47,4).
  - Banda zabalaren hedapena: 10 langiletik gorako enpresen %92ak banda zabala dauka (EB-an %81 dira).
  - Eraginkortasuna. Izan ere, enpresa berritzaileen %19,6ak langileri kostuak murrizten dituzte eta %9,4ak materialen eta energiaren kontsumoa murrizten dute. Europan, berriz, portzentaje horiek %18,0 eta %9,6 dira, hurrenez hurren.

- Arrisku-kapitalari dedikatzen zaion BPGaren portzentajea, handiagoa baita (%0,18 eta %0,14).
- I+G gastu pribatu handiagoa dago: %1,5 EAEn eta %1,21 EB-27an.

Baina badago non hobetu ere:

- I+G gastu publikoa BPGaren aldean txikiagoa da: %0,35. Europan %0,67.
- EPO patenteen kopurua, milioi bat biztanle bakoitzeko, 6,7 da EAEn, Europako kopuruaren azpitik (10,7).
- Berrikuntza teknologikoren bat egin duten enpresa txiki eta ertainak %30,5 dira (EB-an, %33,7).
- Teknologiazkoak ez diren berrikuntzak (marketingekoak edo antolakuntzakoak) egin dituzten enpresa txiki eta ertainen portzentajea %27,1 da, EB-an dagoena baino txikiagoa (%40,0).

Familien edota biztanleen IKT ekipamenduei dagokienez, esan behar dugu EAEk hazten jarraitzen duela, zorionez. Halere, Europako batezbestekoak baino apur bat beherago gaude oraindik ere. Horrela, Interneteko sarbidea daukan 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez duten familien portzentajea, 2009an, %65 da EB-27an, eta banda zabaleko konexioa daukatenena, %56. Horrenbestez, EAE, kasu bietan %57ko portzentajea daukana, Europako batezbestekoa baino apur bat beherago dago Interneteko sarbidean, baina ez banda zabaleko konexioan; erreferentziazko herrialdeen (Danimarka, Alemania, Holanda, Austria, Finlandia eta Suedia) balioetatik urrun dago.

Eta erabilerari dagokionez, EUROSTAT eta INEren 2009ko datuak erkatuz gero, ikus dezakegu Interneten erabilerari dagokionez EAEk inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan gutxienez astean behin Internet erabili duten pertsonen %56ko portzentajea duela; beraz, estatuko batezbestekoa (%53,6) baino gorago dago, baina EB27ko batezbestekoa (%60) baino beherago, EB25 baino beherago (%62) eta EB15 baino beherago (%64).

Horrenbestez, gero eta beharrezkoagoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien *erabilera* dinamikotasun gutxien duten kolektiboen artean sustatzea (seme-alabarik gabeko familietan edo bakarrik bizi diren pertsonen artean, adin tarte handienetan, eta kualifikazio txikiena eta lan egonkortasun txikiena dituzten kolektiboen artean). Gainera, konexio aukeren, edukien eta banaketaren arteko konbinazio egoki bat bultzatzen duen politika publiko batek IKTen etekinak hobetzen lagunduko luke.

Enpresetako IKTen ekipamenduei dagokienez, ikusi dugu ekipamendu horiek enpresetan sartzeko prozesuak hazten jarraitzen duela. Halere, egia da establezimenduek, zenbat eta lanpostu gehiago eduki, orduan eta gehikuntza txikiagoak dauzkatela, hobetzeko marjina txikia baitute.

Internet bidez edo bide elektronikoetatik transakzio komertzialak egiteari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, transakzioen joera goranzkoa da, nahiz eta komertzio elektronikoan parte hartzen duten enpresen kopurua gero eta txikiagoa den. Hain zuzen ere, komertzio elektronikoa (zentzu zabalean) egiten duten establezimenduen portzentajeak behera egin du: 2007an guztien %15,3 zen eta 2008an %15.

2.4. INGURUMENA

Azken urteetan hobekuntzak izan dira ingurumenaren egoera orokorrean, gizartearen kontzientziazio orokorraren ondorioz eta garapen jasangarria lortzeko egin diren jarduketa publikoen ondorioz.

Horrela, ondoko hauek dira bilakaera positiboa izan dutenak:

- Airearen kalitatea. Aztertutako azpizona guztietan ona da (edo, gutxienez, onargarria).
- Kutsagarri atmosferikoen emisioen gutxipena, PM_{10}ak izan ezik (suspentsio-partikulak), legezko mugak gainditzen jarraitzen dutenak, eta O_3 emisioak izan ezik.
- Negutegi efektuko gasen (NEG) emisio osoan gutxipena (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin zerikusia dutenak barne): -%3, 2007. urtearen aldean.
- Uren kalitatea
  - *Ibaiena* itxaropentsua da.

- *Trantsizio uretan*, oraindik ere arazoak izaten diren arren, eboluzioa ona da.
- *Kostaldeko uretan*, egoera aldekoa da erabat, laginketa estazioen %100ean helburuak bete baitira.
- *Lakuetan eta barnealdeko hezeguneetan* bilakaera positiboa da baina ez da nahikoa.
- *Bainatzeko uretan*, 2009. urtean egindako analisiak erakusten du bainatzeko 9 eremu hobetu direla eta 4k okerrera egin dutela.

– Uraren per capita kontsumoa %3,1 murriztu da 2007. urtean, eta pertsona eta egun bakoitzeko kontsumoa 125 litrokoa da. Uraren aleko kostua 0,87 euro/m^3 da, aurreko urteko bera.
– Intentsitate energetikoa, 2008an neurtua, 1998koaren %91 da. 2007. urtearen aldean ehuneko 2 puntu hobetu da, BPGa energiaren azken kontsumoa baino gehiago gehitu delako.
– Hondakin ez-arriskutsuen sorrera egonkorra da eta arriskutsuena %20,7 murriztu da.
– Hondakinak balorizatzeko adierazleen hobekuntzak, nahiz eta EAEko 2007-2010 Ingurumeneko Esparru Programan planteatutako helburuak lortzeko bidea egiteko dagoen. Hain zuzen ere, hondakin arriskutsuen balioztapen tasa, 2007. urtean, %56,8 da (helburua: %65); arriskutsu ez diren hondakinena, 2006an, %67 da (helburua: %75), eta hiri hondakinena, 2007an, %30,6 (helburua: %35). Distantzia handiagoa egin behar da eraikuntza eta eraispeneko hondakinak balioztatzeari dagokionez (%35, eta helburua: %70), eta sortzen diren hiri hondakinetatik batere ez botatzeko konpromisoari dagokionez.

Halere, hauei buruz ere hitz egin behar dugu:
– Banaketa sarean galdutako ura %30,6 gehitu da. Guztiaren %17,6 da (aurreko urtean %12,6 zen).
– Bildutako hondakin uren bolumenaren gutxipena egunean 788.237 m^3tatik 689.649 m^3tara da.
– Energiaren azken kontsumoaren gehikuntza (2007 eta 2008. urteen artean %0,2, 5.757 Ktep-etaraino) eta energia primarioaren euskal ekoizpen eskasa, 421 Ktep, zeintzuetatik 394 Ktep (eskaeraren %5) iturri berriztagarriei dagozkien. Kontuan izan behar dugu EB-ak 2009ko apirilaren 21ean onetsi zuen politika energetikoaren konpromisoa 2020. urterako energiaren ekoizpenaren %20 iturri berriztagarrietatik ateratzea, energiaren kontsumoaren %20ko murrizpena egitea eta NEGak %20 murriztea dela. Helburu hori Kiotoko protokoloarena baino are anbiziotsuagoa da (Kiotoren arabera, Espainiak %15 murriztu beharko luke 2012rako). Gai hauek sakonki aztertuko ditugu hurrengo memoria sozioekonomikoan, 2009. urteari dagokiona.

Eta ondoko hauek joera kezkagarriak dira:
– Mugikortasunaren eta garraioaren gehikuntza, eta desoreka modalak egotea. Hain zuzen ere, pertsonen mugikortasuna ibilgailu pribatuan oinarritzen da batez ere, eta merkatugaien garraioan errepideari lehentasuna ematen zaio trenbidearen aldean.
– Negutegi efektuko gasen (NEG) emisioa. *NEGen emisio osoa* (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin zerikusia dutenak barne) EAEn 2008. urtean 25,3 milioi tona CO_2 baliokidekoa izan zen, hau da, oinarrizko urtetik %18ko gehikuntza.

Ondorioz, ahaleginak ez dira ahuldu behar, kontrakoa baino. Eta horretarako, EEGABek uste du beharrezkoa dela biztanleria sentsibilizatzeko lanean jarraitzea eta ekoizpen prozesu garbiagoak abian jartzea, hiru aldagaientzat (ingurumena, gizartea eta ekonomia) integrazio egokia bilatzen dutenak; berrikuntza teknologikoa babesteko lerroen bidez; ingurumenari buruzko sentsibilitatea sortzen duten ekintzak zenbait kolektibotan bultzatuz eta abar.

2.5. EAEKO EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

Munduko ekonomia batez ere 2008ko bigarren erdialdean eta 2009ko lehenengo zatian kolpatu zuen atzeraldi gogorraren ostean suspertze geldoa etorri da. Suspertze hori indartsuagoa da ekonomia emergenteetan eta mailakatuagoa herrialde industrializatuetan. Azken

kasu horretan, gainera, diru eta zerga politiken orientazio espantsiboak emandako estimulu izugarriek eta finantza sistemei eta kreditu entitateei laguntzeko hartu diren neurri bereziek zerikusi handia izan dute.

Europar Batasunean nazioarteko gorabehera hauek eragina izan dute, noski, eta krisi ekonomikoak estatu kide guztietan eragina izan du, handiagoa edo txikiagoa. Egoera bereziki kezkagarria izan da. Izan ere, enpresek beren negozio ikuspegien murrizpenari, eskaera-zorroaren gutxipen azkarrari eta finantzazio urriagoari aurre egin behar zieten eta beraien erreakzioa espantsio planak geroratzea eta izakinak urritzea izan zen. Bestalde, familietan gero eta ziurgabetasun handiagoak daude. Familiek gehiago aurreztu zuten, enplegu ikuspegiak epe motzerako murriztu zirelako eta eskaerak murriztu zirelako.

Lanaren itxurazko produktibitatea eta lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatea nabarmen jaitsi ziren. Soldaten gehikuntza desazeleratu zen; halere, soldatadun bakoitzeko produktibitatea ere murriztu zenez gero, aleko lan kostuak (ALK, hau da, lan kostuen aldakuntza zati produktibitatearen aldakuntza) gehitzen hasi ziren. Enpresen marjinak, produktibitatearen jaitsieraren ondoren, aleko lan kostuen gehikuntzaren ondorioz eta salneurrien gutxipenaren ondorioz askotxo murriztu ziren.

Zalantzazko testuinguru honetan, herrialderik gehienen erreakzioa neurri fiskalak ezartzea izan da. Baina hain zuzen ere koiunturako adierazleak hobetzen hasi direnean, berriro ere epe ertaineko aurrekontuko egonkortasunerako konpromisoa sortu zen, horrek hazkundearen bidea bermatze aldera dakartzan inplikazioekin.

Krisialdiak eta hartutako neurriek *espainiar ekonomian* ere eragina izan dute. BPG erreala %3,6 jaitsi zen. Jardueraren jaitsiera horrek bere eragina izan zuen enpleguan. Hain zuzen ere, lansaio osoko lanpostuen kopurua %6,7 jaitsi zen, eta langabezi tasa %11,3tik %18ra gehitu zen. Bestalde, ezarritako neurrien ondorioz, diru-sarrera publikoak murriztu dira eta gastu publikoak gehitu dira. Horrela, defizit publikoa BPGaren %4,1 izatetik %11,2 izatera igaro da 2008 eta 2009. urteen artean.

EAEn, EUSTATen hiru hileroko kontu ekonomikoetako datuen arabera, urte arteko tasetan zenbait aldakuntza erreal positibo egin ondoren, 2009. urteko lau hiruhilekoetan, aldakuntza negatiboa da; halere, laugarren hiruhilekoan suspertzea gertatu dela ikus dezakegu. Horrela, gutxikuntza moteldu egin da. Bestalde, hiruhileko arteko tasak aztertzen baditugu, ikusiko dugu BPG laugarren hiruilekoan %0,2 gehitu zela aurreko hiruhilekoaren aldean (2010eko otsaileko aurrerapenaren datuak; irailean argitaratuak norabide berean doaz, datu hau %0,1era murrizten baitute). Horixe da hiruhileko arteko lehenbiziko datu positiboa, lau hiruhilekotan jarraian tasa negatiboak izan ondoren. Aitzitik, eskaera pribatu autonomoak (politikek eragindakoa ez dena) finkatzeko arazoak izaten jarraitzen du. Suspertzearen elementurik garrantzitsuenetako bat oraindik ere kontsumo pribatu horrek izan dezakeen ibilbidea da.

Jaitsiera bereziki garrantzitsua izan da industrian eta eraikuntzan. Industriako Ekoizpenaren Indizeak (IEI)[23] aurrekaririk gabeko jaitsierak erakusten ditu serie estatistikoetan (-%20,9). IElaren datu gordinen analisi sektorialetik ondorioztatzen dugu EUSTATek eskainitako serie estatistikoaren hasieratik (1996an), petrolioa fintzearen kasua izan ezik, ez zela hain beherakada garrantzitsurik gertatu indizean. EAEko hiru sektore industrialik garrantzitsuenak, *metalurgia eta metalezko artikuluak, makinak eta garraioko materiala*, 2009an %29, %29,8 eta %20,3 jaitsi dira hurrenez hurren.

Gainera, INEren datuen arabera, IEI (datu gordinetan) EAEn estatuan baino gehiago jaitsi da (%21 eta %16,2 hurrenez hurren).

Enpleguari dagokionez, kezkagarria da hamabost urtez segidan lanpostuak sortu ondoren 2009an EAEko lan merkatuan okupazio kopuruetan oso jaitsiera nabarmena izan dela. Horrek langabeziaren gehikuntza ekarri du: langabezi tasa %8tik gora jarri da. Lanaren itxurazko produktibitatea 6 dezima murriztu da, %0,8tik %0,2ra.

Produktibitate errealaren eboluzio hori EB-an erregistratutakoa baino handiagoa da (bai EB27an bai euro eremuan emaitza negatiboa izan da bigarren ustez segidan: -%2,5 eta -%2,3 hurrenez hurren). Espainiar es-

[23] EUSTATek 2009ko otsailaren 4an argitaratutako datuen arabera.

tatuan, berriz, tasa erreala handiagoa izan zen: %+3,2 (2008an %+1,5 zen), lanpostu galera handia egon delako.

Bestalde, 2008 eta 2000. urteak erkatzen baditugu, atzeraldi erlatiboa ikusiko dugu eduki teknologiko handia eta txikia daukaten sektoreetan, batez ere enpleguari dagokionez, balioa sortzeko terminoetan ez dagoelako argi, "sailkatu gabeko" jardueren gorakada ikusten baita.

Halere, aintzat hartu behar dugu zenbait egile ñabardurak egiten hasi direla ELGAk erabiltzen duen intentsitate teknologikoaren araberako sailkapen sektoriala bera, jarduera produktiboek eboluzionatzen dutelako eta ez direlako egoten teknologia jakin batzuen mende. Zientziak eta teknologiak ehundura produktibo osoan zehar eta industria tradizionaleko sektoreetan zabaltzen dira. Adibidez, ibilgailuen eta makinen sektoreek gero eta patente gehiago dauzkaten elektronikaren sektorean. Oro har, teknologia txikikotzat hartzen diren sektoreak haien erabiltzaile nagusiak dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz.

EEGABen ustez klabea da produktibitatean eta lehiakortasunean aurrera egitea. Garrantzi handiagoa ematen diete hezkuntzari eta trebakuntzari, ikerkuntzari, ezagutzari, berriztapenari, teknologiaren zabalkunde eta transferentziari, eta balio erantsi eta kalitate handietako ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari. Ezaugarri horiek garatzeko, beharrezkoa da konpromiso finkoak hartzea, ez bakarrik enpresetan, baita gobernuan eta ingurune zientifiko eta teknologikoan ere, *Hezkuntza* epigrafean eta *I+G+b jarduerak eta IKTak* epigrafean azaldu dugunez.

2.6. SEKTORE PUBLIKOA

EAEko sektore publikoko jarduerari dagokionez, nabarmendu behar dugu 2009an diru-sarrera publikoen beherakada moteldu dela: 2008an %2,3 murriztu ziren eta 2009an %1. Horren arrazoia da zuzeneko zergekin biltzen den diruaren murrizpena (-%19,1) eta neurri txikiagoan zeharkako zergekin gertatu den murrizpena (-%7,8), eta adibidez ondareko sarreretan gertatu direnak (-%72,9) finantza-sarreren gehikuntza garrantzitsu batekin konpentsatu direla, 1.765 milioi euroko zorragatik; haietatik 1.411 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta 354 aldundiei.

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, bestalde, %4,4 gehitu da, hau da, aurreko urtean baino 3,7 puntu gutxiago, eta nabarmen Eusko Jaurlaritzan (%10,6); foru aldundietan jaitsi egin da ordea (-%10).

Sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezpen publikoa %129,9 jaitsi zen (2008an -%54,1), negatibo izan arte. Era berean, bigarren urtez segidan, eta lau ekitalditan superabita izan ondoren, defizit publikoa 2.610 milioi eurokoa izan zen, ekitaldiko BPGaren %3,8 alegia. Izan ere, finantzakoak ez diren gastuak (gastu arruntak gehi kapitaleko gastuak) izaera bereko sarrerak baino handiagoak dira. Aurreko ekitaldian, berriz, 2003. urtetik lehen aldiz, defizita 500 milioi eurokoa izan zen (BPGaren %0,8).

Finantza publikoen defizitaren gehikuntza garrantzitsu hau eragiten digun abagune konplexuaren ondorio da. Abagune honek baliabide eskasia dakar, eta baliabideak neurriz erabili behar dira, ahal den heinean. Testuinguru horretan, kezkagarria da partida batzuk (adibidez funtzionamendu gastuak) %10 baino gehiago gehitu direla, eta herritarren ongizatean zuzeneko eragina duten beste batzuk, adibidez inbertsio errealak eta transferentzia arruntak, batezbestekoa baino askozaz ere gutxiago gehitzea (lehenengoak %2,5 eta bigarrenak %2,1 jaitsi dira).

2.7. GIZARTE EKONOMIA

Gizarte-ekonomiaren izendapen orokorrak zenbait erakunde mota hartzen ditu barruan, eraketa eta helburu ezberdinak dituztenak. Memoria honen aurreko edizioetan, atal honi emandako tratamendua merkaturako ondasunak eta zerbitzuak egiten eta ematen dituzten erakundeetan zentratu zen, beste erakunde mota batzuk aztertu gabe, hau da, gizarte izaerako jarduerak bakarrik egiten dituzten erakundeak aztertu

gabe. Aurreko urtean, gainera, Europako Gizarte Ekonomiaren ikuspegi orokorra sartu zen, zentzu zabalagoan, hau da, merkatukoa ez den jarduera daukaten erakundeak sartuz, gure herrialdean gero eta garrantzi handiagoa (bai alderdi ekonomikoan bai alderdi humanoan) duen sektore honen ikuspegi osagarria eskaintzeko asmoz. Beraren ildo orokorrak memoria sozioekonomikoaren edizio berri honetan laburbiltzen dira.

Gizarte-ekonomiak erakunde mota ezberdinak hartzen ditu barruan, eraketa eta helburu ezberdinak dituztenak. Oro har, jende guztiak onartzen du definizio hau: "*enpresa pribatuen multzo bat da, formalki antolatuta dagoena. Enpresek erabakitzeko autonomia dute eta multzo horretan sartzeko askatasuna ere bai. Haien helburua beren bazkideen beharrizanak asetzea da, merkatuaren bidez, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, segurtatuz edo finantzatuz. Bazkideen artean balizko etekinak edo soberakinak banatzeko orduan edo erabakiak hartzeko orduan, bazkide bakoitzaren ekarpenak edo kapitala ez dira erabakigarriak; bazkideek boto bana daukate. Gizarte-ekonomian, bestalde, ondoko hauek ere sartzen dira: erakunde pribatuak, formalki antolatuak, erabakitzeko autonomiarekin eta bat egiteko askatasunarekin, familientzat merkatukoak ez diren zerbitzuak egiten dituztenak. Erakundeak sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek ezin dituzte soberakinak eskuratu, izatekotan"*[24].

Sektoreak oro har (merkatukoak zein merkatuz kanpokoak) Europan daukan presentzia eta sektorearen ezaugarriak aztertuz gero, ondorioztatzen da Europako gizarte-ekonomia errealitate humano eta ekonomiko oso esanguratsua dela. ordaindutako 11 milioi lanpostu baino gehiago; gutxi gorabehera, Europar Batasunean lanean ari diren biztanleen %6 (2005eko datuak dira). Datu agregatu hauek (estimazio gisa soilik kontuan hartu behar direnak, EB osatzen duten herrialdeek forma juridiko eta ezaugarri sozial eta kultural oso ezberdinak baitituzte) adierazten dute gizarteak eta bere erakundeek ezin dutela errealitate honen aurrean ez ikusiarena egin. Zentzu horretan, Europako Legebiltzarrak eskatu du gizarte-ekonomiako enpresen balioak aintzat har daitezela, gizarte kohesioa sendotzeko daukaten papera dela-eta[25] (gaur egun funtsezkoa baita).

2.8. LAN MERKATUA

Lan merkatua aztertzen duten estatistikako iturri guztiak bat datoz 2009. urterako eboluzio negatiboa aurkezteko orduan. Eboluzio negatibo horretan, lanpostuen %3,5 galdu dira (%3,5 Gizarte Segurantzako afiliazioan eta enpleguan Kontu Ekonomikoen arabera, eta %3,6 BJAren arabera). Datu horrek esan nahi du 36.000 lanpostu galdu direla urteko batezbestekoan. Kopuru horretatik urruti dago INEren BAIak egindako estimazioa, okupazioa %6,4 jaitsi dela adierazi baitu. Nolanahi ere, lau estatistikak bat datoz esaten dutenean lanposturik gehien urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean galdu zirela azaltzen dutenean; laugarren hiruhilekoan, okupazioaren joera negatiboak leuntzeko joera erakutsi zuen.

EAEko BPGak 2009an izan zuen jaitsiera handia ikusita (-%3,3), lanpostuen galera, garrantzitsua izan arren, moderatutzat jo dezakegu. Izan ere, enpresek ez zuten ekoizpenaren jaitsiera aprobetxatu plantilletan doikuntzak eginez lehiakortasuna hobetzeko, laurogeiko hamarkadako eta laurogeita hamarreko hamarkada hasierako atzeraldietan gertatu zenez, edo estatu osoko enpleguari buruzko datuetatik ondorioztatzen denez[26].

BJAren datuek erakusten dute gure erkidegoan 2009an erregistratu zen lanpostu galerak 16 eta 64 urte artekoen lan tasa edo okupazio tasa azken urtean

[24] CIRIEC (2005): "Gizarte-ekonomia Europar Batasunean". Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordea, CESE/COMM/05/2005.

[25] Europako Legebiltzarraren legegintzazko ebazpena, 2010eko irailaren 8koa, Kontseiluak estatu kideen enplegu-politiketarako artezpideei buruz egin zuen erabaki proposamenari buruzkoa: Europa 2020 Artezpide Integratuen II. Zatia (COM(2010)0193 – C7-0111/2010 – 2010/0115(NLE)).

[26] EUSKO JAURLARITZA. Euskal ekonomiaren urteroko txostena, 2009.

%64,9an finkatu zuela, hau da, Lisboako Estrategiak finkatutakoa baino 5 puntu beherago, eta 10eraino, "Europa Estrategia 2020" delakoak orain dela gutxi ezarritako parametro berriak kontuan izaten baditugu[27]. Emakumeen lan tasa %58,2 da, %60ko helburua baino 1,8 puntu gutxiago, eta 55 eta 64 urte artekoen lan tasa %43,3 da, %50eko helburua baino 6,7 puntu gutxiago. Azken urtean, EAEko lan tasa 2,4 puntu jaitsi da: emakumeen kasuan 6 dezima eta gizonen kasuan 4,7 puntu.

EUROSTATen datuek erakusten dute azken bi urteetan lan tasa gehien murriztu zaien Europako herrialdeak hauek izan direla: Letonia (-9,2), Irlanda (-8,1), Estonia (-6,8), Espainia (-6,3), Lituania (-5,7) eta Islandia (-5,6). Guztietan, lanaren jaitsierak batez ere gizonengan izan du eragina. Espainia eta Lituania dira sexuen araberako ezberdintasunik handienak izan dituzten kasuak.

Une honetan, EAE, EB-ren lanerako helburuei dagokienez, Espainiaren[28], Irlandaren eta Belgikaren aurretik eta Frantziatik eta Luxenburgotik hurbil dago. Aitzitik, oraindik ere bide luzea dauka egiteko beste batzuen posizioraino iristeko. Hain zuzen ere, Holandak eta Danimarkak dagoeneko "Europa 2020" estrategia berriak finkatu duen %75eko muga gainditzen dute.

Lanpostuen galerak eta eskatzaile gehiago egoteak 2009an langabezia asko gehitzea ekarri dute. Zehazki, lanik gabeko pertsonen kopurua, batez bestez, 84.200 da (EUSTATen BJAren terminoetan), aurreko urteko datua bikoiztuz. 45.600 inguru langabetuetatik 28.700 gizonak izan ziren eta 16.900 emakumeak. Banaketa hau oso lotuta dago industriako eta eraikuntzako lanpostu galera handiagoari, sektore horiek beti izan dituztelako gizon gehiago lanean. Lan galera honen ondorioz, langabezi tasa batez bestez %8,1eraino igo da, aurreko urteetako datuak baino askozaz ere gehiago. Gizonezkoen batez besteko balioa %8,4 da eta emakumeena %7,8. Hiru hileko eboluzioari erreparatuz gero, langabezi tasa orokorra ehuneko puntu bat gehitu da (%7,7 lehenengo hiruhilekoan eta %8,7 laugarrenean), gizonena 1,2 puntu eta emakumeena erdia: 6 dezima.

Sektoreka, langabetuen %56,1 zerbitzu sektorekoak dira, langabezia hor %109,8 gehitu baita. Era berean, industrian langabezia %157,3 gehitu da (%118,1eko batezbestekoa baino gehiago); eraikuntzan, berriz, langabetuak gehiago gehitu dira: %157,8.

Bestalde, lehenbiziko lanpostua bilatzen duten pertsonen kolektiboa 1.000 pertsonetan areagotu da. Urteko batezbestekoa 4.100 da. Ordea, 1 eta 3 urte bitartean lan bila ari diren pertsonak (iraupen luzeko langabezia) gehien hazi den taldea da (%27,3ko langabezi tasaraino). 3 urte baino gehiago daramatenak (iraupen oso luzeko langabezia) 2.500 pertsona dira urte amaieran, 2008ko laugarren hiruhilekoan baino 400 pertsona gehiago.

Adinaren arabera, bitarteko taldean hazi da gehien langabezia (urteko batezbestekoak), bai termino absolutuetan (28.8000) bai portzentajeetan (%120). 45 urtetik gorakoen kasuan, berriz, %119an gehitu da (hau ere ratio handia da inondik ere). Langabezi tasari erreparatuz gero, 25 urtetik beherakoentzat da hiruhilekoko eboluzioa kaltegarriena: lehenengo hiruhilekoan langabezi tasa %20,7 zen (batez bestez %7,7); azken urtean, berriz, %25,4ra iritsi zen (batez bestez %8,7).

%23ko batez bestearekin, EAE, gazteen langabezian, Europako batez bestetik askozaz ere gorago dago (%19,7), adibidez, Frantziatik eta Irlandatik hurbil (%22,9 eta %24,2 hurrenez hurren). Lan merkatua narriatuen daukaten estatuetan gehitzen ari da gehien gazteen langabezia. Espainian ratioa oso altua zen 2008an (%24,6) eta 2009an %37,8raino gehitu zen. Gazteen langabezian %30a gainditzen duen Europako herrialde bakarra da, Letoniarekin batera.

Egoera honi dagokionez, Europako Batzordeak "Europa 2020" estrategian erakutsitako kezkarekin bat egin

[27] "Europa 2020" Batzordearen komunikazioa: "Hazkuntza inteligente, iraunkor eta integratzailea lortzeko estrategia". Brusela, 3.3.2010. Dokumentu honek EB-ko kide diren herrialdeen ekimen koordinaturako oinarriak finkatzen ditu, epe motzean krisitik irteteko eta epe luzean hazkuntza iraunkor, integratzailea eta inteligentea lortzeko.

[28] Gure erkidegoak estatua oro har gainditzen du okupazioaren tasa orkorrean eta emakumeei dagokien tasan, baina 55 urtetik gorakoen okupazio tasa okerragoa dauka: estatuak 2009an %44,1 zeukan batez bestez, eta EAEk %42,5.

behar dugu, krisiaren aurrean zaurkorrenak diren kolektiboen lan egoera dela-eta (kualifikazio txikiko langileak, adineko jendea, emakumeak, gazteak). Izan ere, lan merkatutik urrunduta dauden edo lan merkatuarekin lotura ahulak dituzten pertsonek lotura horiek behin betiko galtzeko arriskua dago. Hori ez dadin gertatu, merkatuak eskatzen dituen kualifikazioak eskuratzeko edo hobetzeko tresnak eman behar zaizkie.

Bestalde, 2004 eta 2007. urteen artean kontratazio mugagabeak gehitzeko izan zuen joera 2008an eten zen EAEn. Horren arrazoi nagusia kontratu mugagabe arruntak izan ziren. 2009an etenaldia berretsi zen. Oro har, kontratazio mugagabea azken urtean %31 murriztu zen, eta kontratu mugagabeak SPEEak gure erkidegoan erregistratutako kontratu berri guztien %4,2 dira (2008an, %5,2). Kontratu mugagabe arruntak, kontratazio guztien %1,9 direnak, %35,3 erori dira urte honetan.

Era berean, nabarmendu behar dugu aldi baterako lanaldi partzialeko kontratuak, sinatutako hamar kontratutatik hiru direnak (kontratu berri guztien %30,2, 2008an baino 1,2 puntu gehiago), batezbestekoa baino %11,2 gutxiago murriztu direla. Hauen artean, lanaldi partzialeko obra zehatzerako kontratuak nabarmendu behar ditugu, daukaten garrantziagatik, 75.000 baitira, eta produkzioaren arrazoiengatik egiten diren aldi baterako kontratuak, ia 80.000 baitira. Biak 2009an murriztu dira, batezbestekoaren inguruko ratioetan.

Azkenik, egungo egoera ekonomikoaren emaitza gisa, EAEko iraizpen kopurua (Lan Ministerioa iturri dugula), 2002 eta 2007. urteen artean beheranzko joera izan ondoren, 2009an 89.154 izan zen, 2008an baino %355,5 gehiago (urte hartan %102,6 gehitu zen). Joera hori estatu osorako ere gertatu zen (2008an %66,7 eta 2009an %153,2). Gainera, EAEko iraizpenen pisua iraizpen guztien aldean igo da azken urte honetan, %7tik %12,5era. 2009an iraizpen kopuruaren gehikuntza, 2008an bezala, batez ere enplegua erregulatzeko espedienteak jasan dituzten langileen artean gertatu da (%463,2). Haiek estatuan egoera hori jasan dutenen %15,2 dira (2008an %10 izan ziren). Estatuan, guztira, %270,9 gehitu dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak ere EAEn baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu zituen. Iturri bataren eta bestearen datuak ez datoz bat (ministerioarenak handiagoak dira, erkidegoaz gorako eremukoak diren eta euskal langileen eragina duten espedienteak erregistratzen dituelako), baina biak aztertzen baditugu, bien bilakaera norabide berean doa. Iturri honek guztira enplegua erregulatzeko 2.565 espediente erregistratu zituen 2009an, 68.722 langilerengan eragina izan zutenak, haien %95ak aldi baterako lan uzte espedienteak izanik.

Enplegua erregulatzeko espedienteen aurtengo hilez hileko bilakaera aztertzen badugu, ministerioaren datuak nahiz Eusko Jaurlaritzaren datuak erabiliz, ikusiko dugu urteko hirugarren hiruhilekoan kaltetutako langileen kopurua murriztu dela, eta laugarren hiruhilekoan berriro ere ikaragarri gehitu dela.

2.9. LAN OSASUNA

EAEko lan istripuei buruzko datuek, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2009an 40.275 lan istripu gertatu zirela, 2008an baino % 20,5 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu zuten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta "*in itinere*" gertatuko istripuak eta lanbide-gaixotasunak barne); estatu osoan, ordea, jaitsiera %23,8koa izan da, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera garrantzitsu horrek 2008an aurreko urtearen aldean izandako gorakada txikiarekin kontrastatzen du (%1,1), estatuan %9,8 murriztu ondoren.

Lansaioan istripuak izan dituzten pertsonei dagokienez, azken urtean larritasunaren araberako modalitate guztiak murriztu dira: istripu larriak %15,3, arinak %20,8 eta hilgarriak %25,5. Lansaioan erregistratu ziren 35 istripu hilgarrietatik 26 traumatikoak izan ziren: haietako 10 eraikuntzan, 8 industrian, 7 zerbitzuetan eta 1 lehen sektorean. Gainera, sektoreen araberako analisi honek erakusten du industrian jaitsiera bereziki garrantzitsua izan zela, %29,1ekoa, lehen sektorea atzetik duela (-%19,9). Eraikuntza eta zerbitzuak ere murriztu dira, baina neurri txikiagoan.

Kopuru hauek eta sektore bakoitzeko lanpostu kopurua erkatzen baditugu, bilakaera antzekoa da: istripuen indizea 37koa da mila okupatu bakoitzeko (45,9 milako izan zen 2008an) eta jaitsiera nagusia industrian gertatu da, haren eragina %22,2 murriztu baita, batez besteko -%19,5aren aldean, sektoreko mila okupatu bakoitzeko 57,7 istripuraino. Halere, istripu ratiorik handienak lehen sektoreari eta eraikuntzari dagozkie (80,7 milako eta 80,6 milako, hurrenez hurren).

Lanbide-gaixotasun aitortuak lan istripu guztien %2,6 dira. Gaixotasun hauei buruz esan behar dugu jakinarazpen sisteman aldaketak egin direla eta horrek gaixotasunen eboluzioaren azterketan eragina izan duela: horregatik, 2007tik 2008ra egon den %113,1eko gorakada tentu handiz aztertu behar da. 2009. urteari dagokionez, 1.067 gaixotasun erregistratu ziren, 2008an baino %50,6 gutxiago.

Autonomi erkidegoak aztertzen baditugu, lansaioan izan diren istripuen eragin indizeak[29] (Lan eta Inmigrazio Ministerioak kalkulatua) erakusten du istripuen rankingean, 2008. urtean, lehenengo postuan Balearrak zeudela, eta bigarrenik Gaztela-Mantxa. EAE, 5.449ko indizearekin (2007tik %3,6 jaitsi da), estatuaren batezbestekotik gora dago, Gaztela eta Leonen antzeko mailan.

Bestalde, lan istripuen datuek, kontratu motaren arabera, erakusten dute istripu tasa bikoitza baino handiagoa dela aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino. Halaxe erakusten dute Lan eta Inmigrazio Ministerioaren 2008. urteko azken datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zeukaten pertsonen istripu indizea ‰40 izan zen; aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, ordea, tasa ‰101,5 izan zen. Nolanahi ere, istripuen banaketa sektoreen, adinen eta lan moten arabera ezagutu behar dira, behin betiko ondorioak aterako baditugu.

2.10. ZENBAIT KOLEKTIBO ZAURGARRIREN BIZI-BALDINTZAK

Datozen urteetan, Europar Batasunak funtsezko bi erronka demografikori egin beharko die aurre: zahartzea eta populazioa galtzea. Populazio gaztearen parte hartzea nabarmen murriztuko da; biztanle zaharragoen multzoa, berriz, handitu egingo da. Gazteen eta adinekoen mendetasun ratioen proiekzioek bilakaera hau erakusten dute[30]: EUROSTATen EUROPOP2008 populazio proiekzioek aurreikusten dutenez, 2050. urtean 15 urtetik beherako biztanleria lanerako adinean dagoen populazio taldearen (15 eta 64 urte artekoena) %25 baino gutxiago izango da; 65 urtetik gorako pertsonen taldea, ordea, %50 baino gehiago izango da. Era berean, proiekzioek erakusten dute 2008 eta 2050. urteen artean biztanleria gaztearen mendetasun ratioak egonkor iraungo duela; adinekoena, berriz, bikoiztu egingo da.

Zehazki, 2050. urtean adinekoen mendetasun ratioak %60 gainditukо du Espainia, Italia eta Eslovenian, eta %40ra iritsiko da Txipren, Luxenburgon eta Erresuma Batuan. Biztanleria gaztearen mendetasun ratioa, Europar Batasuneko herrialdeetan, %20 eta %30 artekoa izatea espero da; baliorik handienak Frantzian eta Irlandan izatea espero da.

Joera hauen ondorio gisa, Europar Batzordeak uste du *"Europar Batasunak bere motor demografikoa galduko duela"*[31]. Hain zuzen ere, EB-ko kide diren herrialdeen artean, 2050. urterako populaziorik galduko ez dutenak proportzio txikia dira. Bost estatu kide handienetatik, Erresuma Batua eta Frantzia bakarrik haziko dira 2005 eta 2050. urteen artean (+%8 eta +%9,6, hurrenez hurren). Kasu batzuetan populazioa 2015. urtetik aurrera jaitsiko da; kasu horietako batzuetan jaitsiera %10 eta %15 artekoa izango da.

---

[29] Eragin indize hau kalkulatzeko, 100.000 langileko dauden istripuen kopuruaren eta Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden eta lan istripuen kontingentzia berariaz estalita daukaten pertsonen arteko kozientea ateratzen da.

[30] Adinekoen mendetasun ratioa: 65 urtetik gorako pertsona kopuruaren eta 15 eta 64 urte arteko pertsona kopuruaren (alegia, lan egiteko adina duten pertsona kopuruaren) arteko kozientea. Gazteen mendetasun ratioa: 15 urtetik beherako pertsona kopuruaren eta 15 eta 64 urte arteko pertsona kopuruaren arteko kozientea.

[31] EUROSTAT: Youth in Europe 2009. An statistical portrait.

Aldaketa demografiko hauek gizarte berri bat moldatzen ari dira. Gizarte berri honetan, gero eta gazte eta heldu gutxiago egongo dira, eta gero eta adineko langile, erretiratu eta zahar gehiago. Batzordeak adierazi du ildo honetan bide berriak aurkitu behar direla belaunaldi gazteek eta adineko herritarrek daukaten hazkunde potentziala baloratzeko. Bi kolektibo horiei zuzenduta dago kolektibo interesgarrien bizi baldintzei buruzko kapitulua, 2009. urteko edizio honetako memoria sozioekonomikoan.

Lehenik eta behin, gazteen langabezia une honetan herrialde guztien arazo nagusietako bat da. Oro har, langabetu heldu bakoitzeko bi gazte daude lanik gabe. Egoera honek dakartzan ondorioak erabat jakinak dira. Izan ere, ordaindutako lana, adin guztietako pertsonentzat gizarte integrazioko eta autoestimuko elementu nagusietako bat dena, funtsezkoa dute gazteenek bizitza proiektu independente eta autonomoa eraikitzeko. Zentzu horretan, oso kezkagarria da eragiten digun krisiak eta gaur egungo gazteen langabezi mailak gure erkidegoko gazteen artean pobrezi mailak areagotzea.

Eusko Jaurlaritzaren "*Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestaren*" 2008ko datuek azaleratu zuten EAEn pobrezia oso hedatuta dagoela 25 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familien artean. Urte hartan, horrelako familietan mantentze pobreziaren tasa[32] batez bestekoa baino hamar aldiz handiagoa zen (%47,9, biztanleria osoaren %4,1aren aldean); horrek esan nahi du goizegi emantzipatzeak pobrezia arriskua dakarrela. 25 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familietan bakarrik gertatu da, bestalde, pobrezi tasen bilakaera negatiboa 2004. urtetik hona, orduan portzentajea %39,2 baitzen.

Nabarmena da, halaber, ongizaterik gabe bizi diren eta gazteak buru dituzten familien artean pobrezia egoerak hedatu direla: biztanleria osoan oro har, pobrezia egoeran bizi diren familiak ongizaterik ez daukaten familia guztien herena dira; baina gazteak buru dituzten familietan, %95 dira.

Nolanahi ere, garrantzitsua da azaltzea familiako pertsona guztien adina (eta ez familiaburuaren adina) kontuan izaten baldin badugu pobrezia egoerak 25 eta 34 urte arteko biztanleriaren %5,6ra soilik iristen dela. Beste talde batzuetan baino pobrezi tasa handiagoa da hori, baina ezberdintasuna ez da oso handia; badaude beste kolektibo batzuk (haurrak kasu) pobrezi tasa are handiagoak dauzkatenak.

Baina gainera, gazteen arteko pobrezi tasak murritzagoak dira gazteen artean familiaren babesa jasotzen dutelako; inkestak erakusten duenez, gazteen banakako diru-sarrerak bakarrik kontuan izanez gero, bizikidetza unitatea osatzen duten gainerako pertsonen diru-sarrerak aintzat hartu gabe, pobrezia egoerak 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren %47,6ra iritsiko lirateke, eta 25 eta 34 urte artekoen %30era. Gazte asko, beraz, estalitako pobrezia egoeretan bizi dira. Horrek argi uzten du beste pertsona batzuen babesa jasotzea funtsezkoa dela (gehienetan familiarena) bizimodu independenteari aurre egiteko behar diren diru-sarrerak ez edukitzeak dakarren pobrezia arriskutik babesteko.

Adineko pertsonen kolektiboari dagokionez, azken hamarkadetan haien bizi-kalitatea gero eta hobeto aztertzen da, beraien beharrizan sozialak asebetetzeko politika egokiak finkatze aldera. Ain-tzat hartu behar dugu bizi-kalitatea kontzeptu ezberdina dela talde demografikoentzat, espazioaren, denboraren eta bizi-zikloaren arabera. Zenbait ikerketak erakutsi dute osasuna eta famili sareak adinekoen bizi-kalitatearen dimentsiorik garrantzitsuenak direla, bai ikuspegi positibotik ikusita (hau da, osasun onak, famili harremanen sareak eta senideen laguntzak bizi-kalitatea hobetzen dute), bai ikuspegi negatibotik (osasun txarrak eta familiaren babes ezak pertsona hauen bizi-kalitatea kaltetzen dute). Faktore horiei egoera ekonomikoa, sare soziala eta aisialdiko eta astialdiko jarduerak erantsi behar zaizkie.

Beti egon dira mendeko pertsonak, eta adineko pertsonek beti izan dute egoera honetan egoteko arriskuan. Halere, gero eta gehiago aldarrikatzen da mendetasun egoerei erakundeek erantzun beharra, familiaren eremu pribatuaz gain. Azken horrek eremu publikoaren babesa izan behar du mendeko pertsona-

[32] Mantentze pobreziaren kontzeptuarekin esan nahi dugu ez dagoela baliabide ekonomiko nahikorik epe motzean oinarrizko beharrizanei aurre egiteko, bereziki elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetako beharrizanak. Pobreziari eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri memoria honetako "Pobrezia eta gizarte bazterketa" kapitulua.

ren nahiz zaintzaileen bizi-kalitatea bermatzeko familian. Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arretarako estatu legea abian jartzeak beharrizan horri erantzun nahi dio.

Oro har, mendetasun egoeran dauden adineko pertsonen arretari[33] dagokionez, ondokoa egiaztatu da[34]:

- Mendetasuna adinarekin gehitzen da. Hura pairatzeko arrisku nagusiak hauek dira: emakumea izatea, alarguna izatea eta diru-sarrera txikiak izatea.
- Eguneroko jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntzaren beharra adineko pertsonen %12aren (mendetasun moderatua eta handia) eta %26aren (txikia barne sartzen badugu) artean dago.
- 75 urtetik gora, ia biztanleriaren erdiak eguneroko jarduera batzuk egiteko (oinarrizkoak eta instrumentalak) arazoak dauzka, eta bostetatik batentzat arazo larriak dira. Mendetasuna eta laguntza beharra hasten diren batez besteko adina 72 urteak dira.
- Gizarte aldaketek etorkizunean zerbitzu formalen eskaera handiagoa izango dela erakusten dute, baina laguntza informala izango da datozen urteetan mendeko pertsonei laguntzeko eredu nagusia, nahiz eta gero eta txikiagoa izan.

INEk 2008an egindako Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun-Egoereri buruzko Inkestak (EAME) erakusten du ezintasun motaren bat daukaten pertsonen tasa urte hartan gure erkidegoan mila pertsonako 84,5 zela, eta 65 urtetik gorakoentzat ratioa milako 266,5 zela. Adinekoen kolektiboaren barruan, noski, eragina adinarekin areagotzen da, 80 urtetik gorakoen artean ia %50era iristeraino (gizonen artean %40 eta emakumeen artean %54,4). Ezintasunak dituzten adineko pertsonarik gehienek mugikortasunaren inguruko eragozpenak dituzte (milatik 194,7k), etxeko lanak egiteko eragozpenak (milatik 171,1ek) eta beren burua zaintzeko eragozpenak (milatik 153,2k).

Egoera hauen aurrean, laguntza informala "gizarte babes ikusezina" deritzona da. Babes hau dohainekoa eta masiboa da, eta adineko pertsonei arreta emateko zerbitzuen sisteman berebiziko garrantzia dauka. Mendetasuna duten adineko pertsonen zaintzaile informalaren profila hauxe da: emakumeak (%83,6), askotan etxekoandreak (%50), batez bestez 52,9 urte dituztenak. Adinekoak zaintzen dituzten emakumerik gehienen zeregin nagusia etxeko lanak egitea den arren (lan merkatutik kanpo daude), haietako askok eginkizun horiek eta ordaindutako lana uztartzen dituzte. Gehienetan, zaintzen duten pertsonaren emaztea edo alabak dira. Gainera, gehienek ez daukate prestakuntza berezirik egiten dituzten lanetarako, %75ak modu iraunkorrean eskaintzen du zerbitzua eta %47ak sei urtetik gora daramatza mendeko pertsona hori zaintzen.

Kezkagarria da, gainera, erakundeen laguntzei buruz iritzi negatiboa dutela zaintzaileek. Izan ere, zaintzaileek ikusten dute zaintza lanen ondorioz beren bizikalitateak okerrera egiten duela: prekariotasuna eta ziurgabetasuna areagotzen dira, jarduera profesionalaren garapenerako muga gehiago dauzkate, familiako beste kide batzuekiko harremanetan desgastea daukate, beren sare soziala murrizten da, eta beraien osasun fisiko eta emozionala txarragoa da. Sentimendu horiek mendetasun politiken eta administrazioen erronka berria argi eta garbi erakusten dute: "zaintzailea zaintzeko" erronka[35].

2.11. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

Uste dugu interesgarria dela desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) adierazleak eta osasun oneko bizi-itxaropena (OOBI) adierazleak goranzko joera izatea. Hain zuzen ere, *Osasun Sistema Nazionala. Espainia 2010* txostenaren datuen arabera, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak argitaratua, 2002 eta

[33] Mendetasuna eguneroko bizitzako jarduerak modu autonomoan egiteko ezintasuna da: jan, jantzi, dutxatu, etxea antolatu eta garbitu, eta abar. Adineko pertsona guztiak ez dira mendekoak, baina zahartzean autonomia galtzeko arriskua agertzen da.

[34] EUSKO JAURLARITZA (2005). Ekonomi azterlanak, 17.

[35] GIZARTERATUZ aldizkaria, 08. zk. 2010eko iraila. Eusko Jaurlaritza.

2007. urteen artean DGBI adierazlea Espainiar estatuan 70,7 urtetatik 72,6 urtetara igo da, eta EAEn 72,8 urtetatik 73,9 urtetara. Bestalde, OOBI adierazlea Espainiar estatuan 55,1 urtetatik urtetara igaro da, eta EAEn 59,5 urtetatik 59,8 urtetara.

OOBIaren eta DGBIaren arteko ezberdintasuna da lehenengoan bizitzako urteak pertsonek beren osasun egoeraz duten pertzepzio subjektiboaren arabera zenbatzen direla bizi-urteak, eta ez ezintasunaren arabera. OOBIaren abantaila, DGBIaren aldean, da osasun egoeraren pertzepzioaz erabiltzen den informazioa antzekoa dela denboran zehar, hura neurtzeko erabiltzen den tresna denboran zehar egonkor mantendu baita.

Emakumeek tabakoaren aurrean duten jarrerak kezkatzen gaitu, dauzkagun azken datuek erakusten baitigute 2002 eta 2007. urteen artean tabakismoa murriztu dela baina murrizpen horren arrazoia dela gizonek gutxiago kontsumitzen dutela, emakumeen kontsumoa egonkortu baita. Eta bereziki kezkagarria da tabakismoa emakume gazteenen artean (16 eta 24 urte artean) gizon gazteenen artean baino handiagoa dela (%25,5 eta %22,9 hurrenez hurren).

Baliabideen eta laguntza-jardueraren gaietan, pozik ikusten dugu 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopurua handiagoa dela Europako beste herrialde batzuetakoa baino, haginlarien kopurua 100.000 biztanle bakoitzeko gehitu dela, eta 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruak etengabeko gehikuntza duela. Aitzitik, azken bi kasuetan ahaleginak egin beharra dagoela uste dugu, oraindik ere urruti baikaude gai honetan erreferentziazkoak diren herrialdeen balioetatik (Danimarka, Luxenburgo, Holanda, Islandia, Norvegia eta Suitza).

Gehikuntza horien ondorioz mediku kopurua 100 ohe bakoitzeko gehitu izana ere (bai sare publikoan bai sare pribatuan) positiboki baloratzen dugu.

Bestalde, esan behar dugu 2008. urtean osasun laguntzako aseguru pribatua kontratatu zuen pertsona kopurua 369.017 izan zela, hau da, 2007. urtean baino %6,6 gehiago. Horrenbestez, EAEko biztanleriaren %17ak osasun aseguru pribatua dauka kontratatuta. Aseguru kolektiboak (enpresa batek edo beste kolektibo zehatz batzuek zuzenean beren langileen alde edo kolektibo horien alde egindakoak) asegurudun gehien dauzkan taldea da (%45,8), norbanakoaren edo familiaren polizaren gainetik (%43,2) eta mutualitate publikoen gainetik (%11). Hain zuzen ere, norbanakoen edo familien aseguruetako eta mutualitate publikoetako baxak gorabehera, asegurudunen kopuru osoa %6,6 gehitu zen, aseguru kolektiboak zituzten pertsonen kopurua %28 gehitu zelako. EAE osorako, asegurudun bakoitzeko urteko batez besteko prima 596 eurokoa izan zen; 2007. urtearen aldean %2,6 handiagoa.

2.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezin-merkatuak 2009an izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak %3ko batez besteko gehikuntza izan duela (%21,4 izan zen 2007-2008an). Bilakaera ezberdinak izan dira etxebizitza berri salgaietan (-%2,4), erabilitakoetan (%4,9), alokairurako etxebizitza libreetan (%65,8), babestutako etxebizitza salgaietan (-%7,6) eta alokairurako etxebizitza babestuetan (-%0,6).

Nabarmendu behar dugun beste ezaugarri bat da 2008an alokairuko etxebizitzaren eskaintzan gertatu zen gehikuntza ikusgarria ez dela errepikatu 2009an. 2008ko %12,7 handia hazi da (ordurako %50,2 gehitu zen), baldintza horietan eskainitako etxebizitza pribatuaren eta publikoaren (babestuaren) batura kontuan izanik. Halere, 2009ko amaieran eskaintzaren %12,3 baino ez zen. Gainera, alokairuko bost etxebizitzatik bat baino ez da pribatua.

Horren aurrean, etxebizitza beharra edo eskaera[36], dauzkagun azken datuen arabera (2008koak), %10,2 murriztu da (2007rako beste %10,7 jaitsi zen).

[36] Lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskaera da, baina etxebizitza aldatzeko eskaera ere erori da (%-3), 2003. urteaz geroztik lehenbiziko aldiz.

Prezioei dagokienez, etxebizitza libre salgaien (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa %7 jaitsi da 2008ko batezbestekoaren aldean; aurreko urtean %2 jaitsi zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, murrizpena -%2,3 da, bigarren eskuko etxebizitzaren zatiak beherakada apur bat handiagoa izan duelako (-%8,7). Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %6,6 igo da azken urtean (alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, %9,7 jaitsi da). Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 219,8 euro da, aurreko urtean baino %6 gutxiago.

Datu horiek ikusita, ondorioztatzen da, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "*Etxebizitzaren prezioa EAEn. Ziklo luzeko analisia*". txostenean azaltzen duenez, espantsio-aldi baten ondoren zikloa aldatzeko garaia iritsi dela. Etxebizitzak prezio altua izanagatik ere higiezinen merkatuak absorbitzen zituen aroa bukatu egin da beraz.

Txostenak gogora ekartzen digu, bestalde, higiezin merkatuaren egoera hau ez dela berria baizik ere ziklikoki errepikatzen dela, bai gure erkidegoan, bai estatuan, bai nazioartean. 80ko hamarkadaren bigarren erdialdean antzeko fenomeno bat gertatu zen, prezioak izugarri gehitu baitziren. Tasak azken urteetakoak baino handiagoak izan ziren. Gero, prezioak asko jaitsi ziren, prezio garestiei aurre egin ezinaren ondorioz eskaera murriztu zelako. Ziklo aldaketa honen ezaugarri berezia prozesu hau mundu mailan azkartu eta orokortu dela izan daiteke. Gainera, testuingurua finantza eta ekonomi krisi globala da. Krisia kanpotik dator (hipotekei lotuta dago), baina estatu merkatuan hondamen handia sortzeko aukera paregabea aurkitu du.

Azaldutako joeren ondorioz eta, ikusi dugunez, eraikuntza azken bi urteetan nabarmen murriztu den arren, saldu ez diren etxebizitza berrien stocka asko gehitu da 2005. urteaz geroztik. Beraz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren estimazioaren arabera, 2009aren amaieran 21.000 etxebizitza inguru ziren. Galdera da eskaera berriro gehituko den, eskaintza berdindu ahal izateraino. Prezioen eboluzioa faktore garrantzitsua izango da, eta sektorearen suspertzea prezioek egokitzeko behar duten abiaduraren araberakoa izango da.

Oso kezkagarria da prezio garestiek eta erraz eskuratzen diren krediduek familien zorpetze mailak handitzen lagundu dutela. Langabeziaren gehikuntza kontuan izaten badugu, horrek guztiak ongizate eza eta pobrezi arriskua gehitu ditzake.

Eusko Jaurlaritzak 2008ko "*Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestan*" nabarmentzen du familiek etxebizitzaren kostuari aurre egiteko egin behar duten ahalegin garbiak arrisku goreneko lekuan jartzen dituela pobreziak eta prekariotasunak gehien kaltetutako kolektiboak. Etxebizitzaren gastuak diru-sarrera guztietan hartzen duen lekua gero eta handiagoa da, ongizate mailak behera egin ahala, etxebizitzaren edukitze erregimena edozein izanik ere. Ahalegin tasa batez bestez %13,4 da ongizate egoera duten familientzat. Ongizate ezaren arriskua duten familietan, ordea, %22,2 da, eta mantentze dimentsioan pobrezia arriskuan dauden familietan % 33,4 da.

Gainera, arazoa larritasun gorenera iristen da arrisku egoeran dauden eta etxebizitza alokatzen duten familietan edo etxebizitza jabetzan baina guztiz ordainduta ez daukaten familietan. Ongizate ezaren arriskua duten familietan, batez besteko ahaleginaren tasa %40tik gorakoa da (%40,3koa alokairuaren kasuan eta %42,2 ordaindu gabeko jabetzaren kasuan). Baina maila hori %50era iristen da (edo gainditzen du) pobrezi arriskua duten familietan (%57,6 eta %47,7 hurrenez hurren).

2.13. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

Europar Batasunean, 85 milioi herritar (guztien %17) 2008an pobrezi arriskuko egoeran zeuden. Haietako %8a, lana eduki arren, egoera horretan zeuden. Gai honi buruz 2009an egin zen Eurobarometro monografikoaren arabera, europarrek pobrezia ulertzeko modu ezberdinak dauzkate: haien ia laurden batentzat (%24) jendea pobrea da beraien baliabideak urriak direlako eta horregatik ezin dutelako bizi diren gizartean modu egokian parte hartu. %22aren ustez, pobrezia bizitzeko oinarrizko ondasunak erosteko ezintasuna da. %21aren

iritziz, berriz, pobrezia karitatearen mende edo sorospen publikoen mende bizitzea da. Gutxiengo garrantzitsu samar batek (%18ak) uste du jendea pobrea dela pobreziaren ataritzat jotzen direnak baino baliabide gutxiago dituenean hilean. Gainera, %84ak uste du pobrezia bere herrian azken hiru urteetan gehitu egin dela; haien artean, erdiak baino gehiagok uste du pobrezia "asko" gehitu dela.

Jenderik gehienak uste du aurreko hazkunde ekonomikoko urteek ez dituztela herrialde aberatsetako herritarren errenta ezberdintasunak leundu eta pobrezi tasak ere ez direla murriztu. Aitzitik, ezberdintasunak eta pobrezia gehitu egin dira, apur bat baino ez bada, kasurik gehienetan faktore demografikoak, ekonomikoak eta batez ere politikoak direla medio. ELGAk orain dela gutxi egindako txosten baten ondorioa ere horixe da. Txosten horrek azaltzen du eragile politiko eta sozialek joera hauetan eragiteko gaitasuna daukatela, birbanaketako politikak indartuz, selektiboagoak izan daitezen, eta batez ere herritarrei lan merkatuan sartzen lagunduz.

"*Growing unequal? Income distribution and poverty in OECD countries*" txostenak (2008) azaltzen duenez, 70eko hamarkadatik aurrera diru-sarreretan ezberdintasunak areagotu ziren. Horrek ELGAko herrialderik gehienetan eragina izan du. Orain dela gutxi ezberdintasunak Kanadan eta Alemanian areagotu dira, besteak beste, baina beste herrialde batzuetan gutxitu dira (adibidez Mexikon, Grezian eta Erresuma Batuan). Azterlan honek gainera erakusten du gizarte kolektibo batzuk hobeto moldatu direla beste batzuk baino: 55 eta 75 urte arteko pertsonen diru-sarrerak gehiago gehitu dira azken 20 urteetan, eta erretiratuen pobrezia oso azkar murriztu da herrialde askotan. Umeen pobrezia, aldiz, areagotu egin da eta biztanleria orokorraren batez besteko pobreziaren gainetik dago. Horrek orain jasotzen duena baino arreta publiko handiagoa merezi du.

Geure 2008ko Memoria Sozioekonomikoan azaldu genuen gure erkidegoko PGElaren urte hartako datuen irakurketak (gure erkidegoan pobreziako eta ongizate ezeko mailak dimentsio guztietan nabarmen jaitsi direla erakusten duenak) zenbait galdera egin arazten dizkigula gaur egungo testuinguruan, adibidez, datu horiek zein neurritan ote datozen bat gizarte erakundeek arazo honen eboluzioaz daukaten pertzepzioarekin eta gizarte prestazioen eskaeran dagoen gehikuntzarekin.

Geure buruari galdetu behar diogu, bizi dugun krisialdi honetan, zein neurritan jarraitu ahalko dugu azken urteetan ongizaterantz egin dugun bidean aurrera egiten. Zehazki, funtsezkoa da pentsatzea langabeziaren aurkako borrokarako, errentak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemek zein neurritan xurgatuko duten krisiaren eragina, euskal gizarteak lortutako ongizate mailan atzerapen garrantzitsurik egin gabe.

Europar Batzordearen "*Europa 2020*" Estrategiak ekonomi, gizarte eta lurralde kohesioa bermatzearen garrantzia azpimarratzen du, pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzen dituzten pertsonen funtsezko eskubideak aitortuz, duintasunez bizitzea eta gizartean aktiboki parte hartzea bideratuz. Pobreziaren eta bazterketaren aurkako borrokan taldearen eta norbanakoaren erantzukizuna sustatze aldera, eta errentei egokitutako babesa eta osasun arretarako sarbidea bermatze aldera, batzordeak 2010. urtea "Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Europako Urte" izendatu du, gaur egungo krisialdiak dauzkan joerak ikusita.

2.14. GIZARTE BABESA

EAEn, gizarte zerbitzuetan 2008. urtean egindako gastua 1.861 milioi eurotara iritsi zen, aurreko urtean baino %15 gehiago, EUSTATen azken datuen arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGaren %2,7 da, eta biztanle bakoitzeko 860 euroko gastua batez bestez, 2007an baino %13,9 gehiago alegia. Administrazio publikoen ahalegina 1.347 milioi eurokoa izan zen, osotasunaren %72. Sektore pribatuak gainerakoa (%28) jarri zuen. Gastatu ziren lau eurotatik bat erabiltzaileen kuoten bidez eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2008an gizarte zerbitzuetan 480 lanpostu garbi sortu ziren, zuzenean 24.683 pertsonari lana emanez (okupatuen %2,6); haien %70a emakumeak ziren. Gainera, boluntarioak

(musu truk lan egiten dutenak) urte hartan 18.958 lagun izan ziren. Haien esfortzua erabateko dedikazioko 1.762 lanposturen adinekoa izan zen.

Gizarte zerbitzuen aniztasunean, biztanleriari oro har eta adinekoei bideratutako zerbitzuak dira baliabide gehien bideratzen zaizkienak, bien artean gastuaren %68 hartzen baitute. Biztanleriari oro har bideratutako baliabideen artean familientzako transferentziak nabarmendu behar ditugu, zehazki Oinarrizko Errentako programak (203 milioi euro, aurreko urtean baino %17 gehiago) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (45 milioi, %9).

Adinekoei dagokienez, haiei ematen zaien arreta batez ere prestazio hauek dira: egoitza zerbitzuak, laguntzako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza. 2008an 18.108 egoitza plazako eskaintza zegoen. Hau da, 65 urtetik gorako 100 pertsonako 4,4 plaza bete ziren. Administrazio publikoak plaza hauen %34a titulartasun publikoko zentroetatik eskaini zuen eta beste %30 erakunde pribatuekin itundu zuen.

Arartekoaren azterlan berri batean[37] berariaz aztertzen da oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera, azken hamarkadako gizarte, lege eta demografi aldaketei zein neurritan egokitu zaien ikusteko. Txostenaren emaitzak ikusita, Arartekoak ondorioztatu du zerbitzu horiek ondo funtzionatzen dutela eta gai direla biztanleriari portzentaje garrantzitsu bati arreta emateko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbide funtzioa betez. Gainera, sare hau gero eta erabiliagoa, ezagunagoa eta onartuagoa da herritarren artean. Sare honetan sartzen diren pertsonek gero eta balorazio positiboagoa egiten dute hartaz.

Gastuari dagokionez, 2007ko datuak erabiliz, txostenak erakusten du gehikuntza handia izan arren oinarrizko gizarte zerbitzuen gastua gizarte zerbitzu orokorren gastua baino gutxiago gehitu dela: 1995ean oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen gastu osoaren %5,1 ziren, baina 2007an portzentaje hori %3,3raino jaitsi zen.

Gainera, ikerlan honek atzeman du dispositibo honek presiopean jarduten duela eta atsekabea sortzen duela, azken urteetan langileek lan gehiegi daukatelako. Sektoreko profesionalek azaldu dute berehalako eskaerari bakarrik erantzuten diotela. Ezin dute egoera pertsonal eta familiar bakoitzaren banakako jarraipena egin. Kasurik gehienetan ezinbestekoa den izapidetzea baino ez dute egiten[38]. Egoera honek hiru elementu nagusi ditu, bereziki kezkagarriak: esleitutako funtzioak eta dauden baliabideak ez datoz bat, ez dago esku hartzeko eredu komunik, eta ez dago hobetzeko eta garatzeko lidergo argirik.

Oso kezkagarriak dira diagnostiko honek dakartzan ondorioak, batez ere testuingurua kontuan izaten badugu: aurrekontuak murrizten ari dira eta herritarrek gero eta babes gehiago eskatzen dute. Uste dugu erakundeek dauzkaten baliabide guztiak erabili behar dituztela oinarrizko gizarte zerbitzuek beren eginkizunak berme hobeagoekin bete ditzaten, ongizate estatuak beharrizan egoeretan eskaintzen dituen bermeak eskuratu ahal ditzaten herritarrek.

---

[37] "EAEko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoera". ARARTEKOAren txosten berezia Eusko Legebiltzarrarentzat. 2010.

[38] Burokratizazio prozesu hau, Arartekoak 1999ko txosten batean atzeman zuena, ez da eten. Oinarrizko gizarte unitaterik gehienetan gero eta nabariagoak dira banakako esku hartzea egiten ahal izateko eragozpenak.